Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto

Programa de Doctorado Patrimonio Cultural, Historia e Identidad

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea

DOKTOREGO TESIA

# BERTSOLARIEN AHOZ
# MODERNIZAZIO PROZESUA ETA IDENTITATE BIDEAK
# GIPUZKOA, 1830-1936


Zuzendaria:

Jose Urrutikoetxea Lizarraga

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra

Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Historia garaikideko saila

Egilea:

Luzia Alberro Goikoetxea

Deustuko Unibertsitatea

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea

Komunikazio saila


Donostia-San Sebastián, 2015eko urria

XIX. mendeko Gipuzkoari so, identitate arazoak zituen herri baten bila abiatu nintzen, eta modernizazio eta aldaketa prozesu ugari une berean bizitzen ari ziren pertsonak aurkitu nituen. Besteak beste, Juan Frantzisko Petriarena, Indalezio Bizkarrondo, Pedro Elizegi, Pedro Mari Otaño, Jose Manuel Lujanbio eta Joxe Mari Lopetegi; edota Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Kattarro, Txirrita eta Lopetegi.

Gero konturatu nintzen aldaketa prozesu hauek zenbat eta gehiago pertsona hauek euren eguneroko bizitza eta testuingurua aldatzera behartu, hau da, modernizazioak euren eguneroko bizitzan kontraesanak sortu, orduan eta toki handiagoa hartuko zuela euren diskurtsoan identitate kolektiboaren arazoak. Edota alderantziz.

Eta ohartu nintzen, XIX. mendeko Gipuzkoan, prozesu hauek gradu ezberdinetan bizi zituzten pertsonei aldi berean eta elkarrekin bizitzea egokitu zitzaiela.

XXI. mendera begira, gizateria buruan, Claude Dubar soziologoaren hitzetan, identitate krisiaz eta identitate pertsonalaren dimentsio etikoaz ari dela: *"(…) no basta con <creer> en la justicia, sino que todavía hace falta reconocerse a uno mismo y ser reconocido como justo, es decir, concretamente solidario con los que sufren. La <intención ética> es la otra cara de la identidad narrativa que debe poder contar el acceso a la <vida buena y con los otros>"*[1].

Eskaintza:

Mikeli eta Maddiri
Aita Anjel Mariri eta ama Kristinari
Joxeri eta Kontxiri
Alberro Arrietatarrei eta Goikoetxea Ormazabaltarrei
Arantzazuko Ama Ikastolan, Barandiaran Lizeoan eta Deustuko Unibertsitatean
izan ditudan irakasleei eta ikaskideei
Donostiako Gotzaindegiko lankide ohi eta lagunei
Deustuko Unibertsitateko lankide eta lagunei
Ikasleei

Esker onez

[1] DUBAR, Claude: *La crisis de las identidades.* Barcelona: Edicions Bellaterra, 2002. 257. or.

# AURKIBIDEA


**AITZINSOLASA** **9**

Autobiografia pixka bat, lotsaz 9

**SARRERA** **13**

Azterketa honen helburuak 15

Aztergaia mugatzeko egin ditudan aukerak 18

Hipotesia 25

Lanean jarraitutako metodologia 29

Lanaren mugak 30

Eskertza 31

Aperitif gisa, lanaren atalak 32

**LEHENENGO ATALA: KOKAPEN HISTORIOGRAFIKOA** **35**

1. Identitatea 40

2. XIX. mendeko Gipuzkoako biztanleen identitate bideak, eta halakorik ezean, XIX. mendeko euskal identitate bideak 48

3. Gipuzkoaren modernizazioa 54

4. Laburbilduz 67

**BIGARREN ATALA: ITURRIAK ETA METODOLOGIA** **69**

1. Bertsolaritza: bertsoak iturri historiko gisa. Gaiaren egoera eta metodologia 72

    1.1. Orain artean zer egin den 74

    1.2. Bertsopaperak, ahozkotik idatzira, XIX. mendeko bertsolaritzaren baitan 84

    1.3. Bertsoak aztertzeko erabili dugun metodologia 101

2. Egindako bidea: galtzerdiari buelta nola eman diogun 111

3. Historia egiteko moduak 112

4. Laburbilduz 116

**HIRUGARREN ATALA: DISKURTSOEN EGILEAK** **119**

1. Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, Xenpelar (Errenteria, 1835-1869): Manchester txikitik, hiru probintzietara, "lengo legerik" eta federik utzi gabe 123

    1.1. Xenpelar: nor zela esaten dute? 123

    1.2. Xenpelarren bizitza 127

    1.3. Xenpelarren bertso produkzioa 129

2. Indalezio Bizkarrondo Ureña, Bilintx (Donostia, 1831-1876): gorpuztutako maitasun erromantikoa paradisu 131

    2.1. Bilintx: nor zela esaten dute? 132

    2.2. Bilintxen bizitza 136

    2.3. Bilintxen bertso produkzioa 138

3. Pedro Elizegi Maiz, Pello Errota (Asteasu, 1840-1919):
eguneroko bizitzaren nonahikotasuna Erniopean 140
3.1. Pello Errota: nor zela esaten dute? 140
3.2. Pello Errotaren mundua, haren bizitzan 148
3.3. Pello Errotaren bertso produkzioa, haren mundua adierazpen eta irudietan 156
4. Pedro Mari Otaño Barriola, Kattarro (Zizurkil, 1857; Rosario-Argentina, 1910):
onbupean ondutako euskaltasuna 162
4.1. P.M. Otaño: nor zela esaten dute? 162
4.2. P.M. Otañoren bizitza 166
4.3. P.M.Otañoren bertso produkzioa 169
5. Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txirrita (Hernani, 1860-Altza, 1936):
etxegabetutako maiorazko mutilzahar arlotea 171
5.1. Txirrita: nor zela esaten dute? 171
5.2. Txirritaren bizitza 175
5.3. Txirritaren bertso produkzioa 177
6. Jose Mari Lopetegi (Irun, 1875-Arrueta, 1942):
Errepublikan sinetsi zuen gizon zuzena 179
6.1. Jose Mari Lopetegi: nor zela esaten dute? 179
6.2. J.M. Lopetegiren bizitza 183
6.3. J.M. Lopetegiren bertso produkzioa 185
7. Laburbilduz 187

**LAUGARREN ATALA: DISKURTSOEN AZTERKETA 191**

1. Ekonomian aldaketak, modernizazioaren aitzindari? 197
1.1. Abiapuntua landa eremuan: oreka ahulean, etxea oinarri duen ekonomia landatarra 199
1.2. Industrializazioa eta modernizazioa aukera gisa 227
1.3. Bi ekonomia eredu kontrajarri? 246
1.4. Laburbilduz 253
2. Familia eredu tronkala edo nuklearra, ezkontza tratuak edo maitasuna? 256
2.1. Landa eremuko adibidea: familia tronkala 258
2.1.1. Familia tronkalaren ezaugarriak: kideak eta euren arteko harremanak 258
2.1.2. Familiako kide kopuruan aldaketak: heriotza, gosea, gaitza, gerra 262
2.1.3. Ezkontza tratuak: "Desanparuan utziyagatik, ez nazu asko erruki" 269
2.1.4. Ezkontzen ez direnak: neskazahar eta mutilzaharrak 289
2.1.5. Ezkontzaz kanpoko haurrak, "arauz kanpoko" sexualitatearen bizipena 295
2.2. Hiriguneetan, familia nuklearrerantz: Errenteriako Xenpelarren kasua 298
2.3. Maitasun erromantikoa: Donostiyan, Bilintx; atzetik, Otaño 309
2.3.1. Emakume eredua, alderdi fisikoari dagokionez 310
2.3.2. Desioa eta maitasuna edota betebeharra? 312
2.3.3. Ezkontza ez da kezka iturri 322
2.3.4. Erabiltzen duen hizkuntza 324
2.3.5. Pedro Mari Otaño eta maitasuna. Familiaren idealizazioa
eta familiari lotutako kontzeptuen transignifikazioa 326
2.4. Laburbilduz 336

3. Gizartearen artikulazioa: modernizazioaren eragina nagusiki etxe eta udalerrietan antolatuta zegoen gizarte batetik hiri, probintzia eta "naziyo"etan antolatua zegoen batera 338
3.1. Abiapuntua: etxe eta herrietan antolatutako Gipuzkoa, Donostia hiri nagusi duen Probintzia 341
3.1.1. Landa eremua nola egituratzen den: udalerria, giltzarri 342
3.1.2. Komunitateko harremanak sendotzeko dinamikak 345
3.1.2.1. Elkarrengana biltzea: indar metatzea barrurantz, herria artikulatzeko 345
3.1.2.2. Indarrak kanporantz, "besteekin" neurtuz, nork berea ezaugarritzeko 352
3.1.3. Komunitate txikietan bizitzearen kostuak: "Gorroto zarrak, griña gaxtuak" 356
3.1.4. Boterea ordezkatzen duten erakundeak eta pertsonak 366
3.1.5. Hiri nagusia: Donostia 371
3.2. Trantsizioak edo aldaketak 378
3.2.1. Urbanizazio prozesuaren indartzea eta honek dakarren landa eremuaren idealizazioa 379
3.2.2. Herri loturez gain, gizabanakoa indartzen denean 381
3.2.3. Sozializazio forma berriak hirian 384
3.2.4. Habitata eta erreferentzia espazialak zabalduz 387
3.2.5. Espainiak irlak galdu zituenekoa, edo espainiar inperioaren gainbehera, monarkiarenarekin batera 392
3.2.6. Zentralizazio prozesua landa eremuan nabari denean: eskola eta kintak tiratzea 394
3.2.7. Gobernatu beharreko komunitatea handitzen denean 397
3.2.7.1. Sistema foralaren erreibindikazioa: Txirrita, Xenpelar eta Otaño 397
3.2.7.2. Errepublikanismotik, nazionalismora. Pedro Mari Otañoren eredu dinamikoa 410
3.2.7.3. Aukera politikoen zehaztapen eta zabalpena: Errepublikak dakartzan onurak Joxe Mari Lopetegiren begi-ahotsean 425
3.2.8. Gerrateak bizi izanaren esperientzia 445
3.2.9. Nazioartea estatu-nazioetan antolatzen denean 447
3.2.10. Amerikaren eragina: emigranteen bizitza pertsonalean eta herrien independentzia prozesuetan 449
3.3. Laburbilduz 459
4. Modernizazioak eragindako aldaketak mentalitate eta errepresentazio edo irudikapenen alorrean 462
4.1. Erlijioaren bizipena 463
4.1.1. Landa eremuan: "oreka ahulean" babes eta identitate kolektiboaren agerpen gisa 463
4.1.2. Xenpelar: erlijioa modernizazioaren kontrako helduleku 481
4.1.3. Erlijio hizkuntzaren erabilpen sekularizatua 490
4.2. Gu eta besteak: identitate kolektiboaren arazo "modernoa" 496
4.2.1. Landa eremuan eta herrietan antolatutako Gipuzkoan: "bestea" ondokoa denean 496
4.2.2. "Beste" gehiago 498
4.2.3. Nor gara gu? Euskaldunen jatorri eta izaeraz galdera: "Non-nai ta beti euskalduna" 507
4.2.3.1. Euskaraduna euskaldun 517
4.2.3.2. Euskaldunak eta batasuna: lurraldeen artekoa, ideologia ezberdinen artekoa 536
4.2.3.3. "Euskal Herria"ren irudikapena: paisaiaren garrantzia 539
4.2.3.4. Denboraren joana: Historiaren agerpena, mitoaren presentzia 543
4.2.3.5. Ohiturei erreferentzia 551
4.3. Laburbilduz 554

**BOSGARREN ATALA: ONDORIOAK** **557**

1. Modernizazio prozesuak eragindako kontraesanek hauspotzen dute identitatea arazo gisa 561
2. Aldaketa prozesuen bizipena ez da uniformea XIX. mendeko Gipuzkoan 564
3. Bertsoen azterketa sistematikoaren emaitza 565
4. Pixkanakako modernizazio prozesuak lekua egiten dio trantsizioz jositako identitate sorkuntza integratzaile bati 568
   4.1. Aztertutako bertsolariek egindako identitate proposamenak 584
5. XIX. mendeko bertsolaritza Gipuzkoaren modernizazio prozesuaren baitan 587
6. Zenbateraino dira adierazgarri iritsi ditugun emaitzak? 588
7. Lehenaldiari askatasunez begiratzeak etorkizunari bidea irekitzen dio 590
8. Doktorego tesian arriskatu izanaren ondorioak, sortutako zalantzak, gure lanaren mugak 591
9. Doktorego tesian arriskatu izanaren ondorioak, zabaldutako ate berriak 593
10. Kolektibo gisa, irakurketarik egiterik ba al dugu etorkizunera begira? 594

**GIBEL SOLASA** **599**

**ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA** **603**

1. Iturriak 603
2. Bibliografia 603
3. Erabilitako baliabide elektronikoak. Erakunde-dokumentazio zentroak 619
4. Elkarrizketak 619

**ERANSKINAK** **621**

1. ERANSKINA: Bertso sailen koadroa bertsolarika. Kopuruak. 623
2. ERANSKINA: Bertsolariak-Testuingurua- Kronograma 625
3. ERANSKINA: bertsolarien argazki-irudiak 627
4. ERANSKINA: Hiritartze prozesua Gipuzkoan, 1877-1930 629
5. ERANSKINA: Alfabetizazioaren garapena Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, 1877-1930 (> edo = 10 urte) 631

**KOADROAK**

1.Koadroa: Bertso sailen kopuruak gaika eta bertsolarika antolatuak 108
2.Koadroa: Hitz kopuruak, bertsolarika 109
3.Koadroa: Pello Errotaren bertsoak gaien arabera antolatuak 159
4.Koadroa: Gure ikerketaren ardatz kronologiko eta espazialak 195

# AITZINSOLASA

> *"Ni zahartu naiz. Ez dakit nora jo. Baina pena izugarria ematen dit nere aitona zenaren errota botatzeak. Lehengo zaharrek ez zuten honela etxerik botatzen"*. Eta lerro batzuk aurrerago: *"Hamaika jenderi erakutsi diot aitona zenaren etxea. Ameriketatik ere etorri izan da bat baino gehiago Pello Errotaren etxea ikustera. Premia gehiago gabe etxe hori botatzeak negar egiteko gogoa ematen dit. Eta guk ezin ezer egin"*[2].

Honela aitortzen zion *Deia* egunkariari "Ondartza" bertsolariak, Pello Errotaren bilobak, 1978ko apirilean. Donostiako abokaturen batena omen zen etxea: saldu egin omen zuen, hura bota eta bertan industria eraikitzeko.

Hiru urte bete gabe nituen nik artean. Ergobian bizi nintzen, garai hartan Donostiako auzo zen Astigarragako partean. Gu bizi ginen ingurua ere "industria gunea" zen eta bertan ezin zen fabrika besterik eraiki. Urteak egon zen Ergobia horrela: fabrikak alde batetik, baratzak bestetik, errepidea erdian zuela. Ia hogeita hamar urte geroago, 2003an, gure aitak eta bi arrebek gurasoena zuten etxea eta baratza saldu zizkioten Goizuetako etxegile bati. Honek baserria bota eta pisuak egin zituen bertan. Ergobian makina bat etxe eraiki dute orduz geroztik.

## Autobiografia pixka bat, lotsaz

Aspaldian nituen galderak. Haur nintzenetik ezin esan, baina bai adoleszentzia garaitik. Nerabezaro zaila izan nuen nik. Oso lotsatia nintzen, batetik. Eta horregatik, agian, etxean maiz nituen izeba-osabek eta lehengusuek, batez ere, hartu zuten lagunek bete beharreko tokia. Astigarragako Ergobia auzoan zegoen aiton-amonen etxean bizi ginen amona, gure aita, ama eta ni, alaba bakarra. Hala

---

[2] "Pello Errotaren jaiotetxea botatzera doaz". In: *Deia*, 1978-IV-29. Nik ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*. Tolosa: Auspoa, 1992. 284. orrialdetik jasoa.

ere, askotan elkartzen ginen hamalau lagun mahaiaren bueltan. Nolatan? Ikastolan, Loiolako lagunak nituen. Maiz galdetzen nion nire buruari, eta lagunek ere galdetzen zidaten, zergatik biltzen ginen hainbeste gure familian, zergatik nuen lehengusuekin hainbesteko harremana. Ikastolako beste lagunen etxeetan ikusten ez nituen portaerak ikusten nituen gure etxean.

Aitona Angel ez nuen ezagutu, aspaldi hil zen, gure aitak 13 urte zituela. Gure aita, orduan, eskola utzi eta lanean hasi zen ama alargunari bera baino txikiagoak ziren bi arrebak aurrera ateratzen laguntzeko. Aiton-amonek "ultramarinotako" denda zuten; amonak, alargundu zenean, dendarekin aurrera jarraitu zuen. Gure aita izan zen hiru anai-arrebetan ezkontzen lehena. Ezkonberriak etxe hartan bertan jarri ziren bizitzen, lehenengo solairuan horretarako moldatutako pisu batean. Arreba bat lehenengo, bestea gero, Donostiara eta Hernanira ezkondu ziren. Nire gurasoen pisua eta amona alabekin bizi izandako pisu zatia bat egin zituzten orduan. Hona familia egitura berria: amona, nire gurasoak eta ni. Amona bizi zen bitartean, nire bi izebak, euren senarrak eta bikote bakoitzak izan zituen bi haurrak, lau haur guztira, askotan izaten ziren Ergobin. Baita gure aitaren bi lehengusu ere, bata ezkongabea eta bestea apaiza. Aitona bizi zela etxean apopilo izandako mutila, ordurako gizondua, bisitan izaten zen maiz. Eta jakina, denda izanik, "ai Maria, ene Maria" –etxeko giroan esaten genuen bezala, amonak Maria baitzuen izena-bizilagun bat ez bazen bestea, edozein ordutan zen aldaba joka erosketak egiterakoan zerbait ahaztu zitzaiola eta. Etxea jendez betea izaten zen.

Nire ama zen, ezkon loturaz, nire aitari baina, bide batez, etxeari eta talde osoari lotua. Ezberdintasunak ikusten nituen nik ama bere jatorrizko familiarekin eta aita bere jatorrizko familiarekin harremantzeko moduan. Bi jarrera ikusten nituen nik eta biak ulertu nahi nituen: amonak, izeba-osabak, aitak, zergatik jokatzen zuten horrela? Beren apeten arabera ari al ziren bizitzen ala ikasitako jarrerak ari ziren errepikatzen? Eta amak aitari eskatzen zion arrazionaltasunak, etxearen kudeaketan ama alargun zein arrebekiko hartu beharreko jarrera modu irekian mahaigaineratu eta hitz egiteak, zergatik beldurtzen zuen aita? Zergatik egin ezinezko?

Galdera horiei erantzuteko, denboraren aldagaian erreparatu nuen nik. Ba al zitekeen gure amonak eta, bide batez, aitak, proposatzen zuten irtenbidea zaharrari eustea eta amarena, ordea, berriari atea irekitzea izatea?

Hau hobeto azaldu ahal izateko, atzerago jo behar dut oraindik. Gure aitaren eta amaren familia ereduak aztertzera. Bi amonak Goierrikoak nituen nik eta bi aitonak, berriz, Beterrikoak. Aitaren ama, Maria, Zegamakoa zen. 1918. urtean

jaioa. Bere gurasoak maizter izanak, "Anttiguena" baserria erosi zuten, familia hazten zihoan heinean. Baserritarrak ziren eta baserriko lanetatik bizi ziren. Seme zaharrena, maiorazkoa izanik, etxerako geratu zen. Familia tronkalaren eredua jarraitzen zuten: guraso zaharrak, bikote ezkonberria eta honen haurra, guztiak teilatupe berean bizi ziren, baita ezkongabe geratu zen maiorazkoaren arreba ere. Maiorazko zen semeak, baserriaz gainera, zentral elektrikoan ere egiten zuen lana. Bikote zaharraren beste bi seme Donostiara lanera joan eta bertan ezkondu ziren. Laugarren seme bat fraide joan zen, misiolari, eta Dominikar Errepublikan bizi izan zen, hil arte. Arestian aipatu bezala, maiorazkoaren arreba bat baserrian geratu zen ezkongabe. Eta gure amona Donostiara etorri zen, oker ez banaiz, hamahiru urterekin, ahaide baten etxera zerbitzatzera. Geroztik, Madrilen ere ibili zen lanean, hotel batean. Donostiara bueltan, Astigarragakoa zen eta tranbiero ofizioa zuen gure aitona Angelez enamoratu eta harekin ezkondu zen. Gure amona izango zenak 30 urte inguru zituen orduan eta aitonak, 40. Aitona Angel baserriko semea zen, 1908. urtean jaioa, hamalau senideko familia handi bateko semea. Zaharrena ez zenez gero, maiorazko ere ez eta bizimodua ateratzeko ofizio bat baino gehiago izan zituen: tranbiero, aroztegi batean langile, dendari. Ahaide ezberdinekin zituzten harremanetan denboran luzeen iraun zutenak, eta amona alargundu eta gero indar handiagoz, gainera, Zegamako baserrikoekin izandakoak dira, ezbairik gabe.

Gure amaren amak, berriz, Luzia zuen izena. 1909. urtean jaio zen Gabirian, baserrikoa zen, eta gaztetan Hernanira etorri zen, fabrika bateko nagusien etxera, zerbitzari gisa. Hiru ahizpa etorri ziren etxe ezberdinetan zerbitzari lanak betetzera. Anaia zaharrena geratu zen maiorazko baserrian. Gure amaren aita, aitona Antton, 1903an jaioa, Hernanikoa zen. Bere aita Epele-errota baserrikoa zen, baina soldatapeko langilea. Gure aitona izango zena ere, soldatapeko langilea zen, *Biyak bat* papertegian; bertako langileen gain arduraren bat zuen –ez handia-. Aitonaren aita gazterik hil omen zen, eta nire aitona izango zena ospitalean hazi ote zuten edo entzuna diot amari, nahiz eta ama bazuen, eta baita arreba bat ere. Gure amona Luziak 20 eta aitona Anttonek 26 urte zituzten ezkondu zirenean. *Biyak bat* fabrika ondoan zegoen eta fabrikarena zen etxean bizi izan ziren. Hamahiru haurrez erditu zen amona Luzia eta horietatik hamaikak egin zuten aurrera. Hamabigarren bat alabatzat hartu zuten Fraisorotik, lehenengo haurra hil zitzaienean, egunkarian iragarki batean bularretako esnea eskaini ondoren eskaririk jaso ez zutenean. Berrogei bat urteren buruan, familia hazita, aitona hil, seme-alabaren bat ere bai heldutan, eta gainerakoak ezkonduz joan ahala, bakarrik geratu zen fabrikako etxean amona Luzia. Gaixotu eta zahartu zenean, alaba baten etxera joan zen

bizitzera. Seme-alaba guztien artean diruz ordaintzen zioten amaren kargu egin zen arrebari.

Zergatik jarrera ezberdinak amona batek eta besteak? Zer zegoen horren atzean? Iraupenen azterketaren atzetik jo nuen nik erantzunaren bila. Urte eta bizi esperientzia batzuk kosta izan zait erantzun hauek aurkitzea, behin-behinekoak izanik ere. Azaldu dezadan hobeto.

# SARRERA

Aldaketak, hauen bizipena eta identitateak. Bizitzan aldaketak gertatzen dira. Bizitza pertsonalean, batzuetan; herri baten bizitzan, bestetan. Aldaketa horiek, gauza batzuk galdu eta besteak irabaztea dakarte, nahiz eta galera bizitzen ari garen momentuan, hori garbi ikusterik ez den izaten batzuetan edo ez garen horretarako gai izaten, hurbilekoago baitugu, ezagunago, galtzen duguna, datorkigukeena, oraindik ezezagun zaiguna, baino.

Zein jarrerarekin hurbiltzen gara aldaketa hauetara? Batzuetan gogoz, behar ditugulako, bilatu egiten ditugu aldaketak. Beste batzuetan, berriz, ez ditugu guk aukeratzen. Orduan, nola bizi ditugu? Aukera gisa? Galera gisa? Nostalgiaz? Grekoko "nóstos" hitzetik omen dator "nostalgia" hitza, itzulera esan nahi omen du. Tristura eta penarekin lotzen den hitza da. Itzuli nahi genukeelako? Nora, ordea? Norengana?

Modernizazio[3] prozesu eta garaiak aldaketa ugari eta garrantzitsuak gertatzen diren momentuak dira. Betidanik, segur aski, aldaketak nagusi izan dira gizakion bizitzan: edonon eta edonoiz. Guk esango dugu orain eta hemen gertatzen direla gehiago, azkarrago, sakonago… Baina garaian garaian aldaketok bizi izan zituzten pertsonei galdetu beharko genieke zer eta nola bizi izan zuten.

Aukera hori egin dugu. Gipuzkoan, 1830-1936 urte inguruetan, (modernizazioa, industrializazioa, hiritartzea, migrazioak, alfabetizazioa, etab.) bizi izan zituztenengana hurbildu nahi izan dugu eta galdetu. Zer ikusten zuten? Nola bizi zituzten egoera berriak? Zer ari ziren galtzen, zer irabazten? Beren eguneroko bizitzetatik, zer antzematen zuten? Lehen modernizazio hartako testiguei entzun

[3] Aurrerago ikusiko badugu ere, modernizazio prozesuaz ari garenean, modernitateak ekarritako aldaketak eta berrikuntzak gauzatzeaz ari garela adierazi behar dugu. Gauzatze hori era askotakoa izan daitekeela ikusiko dugu, hau da, anitza dela.

diezaiegun: bizitzen ari ziren aldaketa haien aurrean, lehena eta etorkizuna idealizatu edo gaitzetsi egiten zituzten? Ez ote zuten nahiko lan bizitzearekin?

Aldaketa momentu garrantzitsu hauetan gorpuztu ziren XIX-XX. mendetako ideologia politiko nagusiak ere: dela liberalismoa, kontserbadurismoa, sozialismoa eta nazionalismoa. Ideologia hauek, gainera, beren ikuspegi propioa sistematizatu zuten aldaketa nagusi hauen aurrean. Zenbateraino zetozen bat erantzunok aztertuko ditugun pertsonen egunerokotasunetik emandako erantzunekin? Ideologiak, idearioak eta sentsibilitateak: hona erabiliko ditugun hiru kontzeptu bereizgarriak. Ideologiak, *Egungo euskararen hiztegiaren* arabera, *"garai, gizarte, talde edo klase baten ideen eta usteen multzoa"*[4] dira. Gure kasuan, ideologia politikarekin uztartzen dugun kontzeptua da, eta corpus politiko definitu bati egiten dio erreferentzia. Bigarren maila batean, idearioak genituzke. Idearioak, *RAE*ren arabera, *"repertorio de principales ideas de un autor, de una escuela o de una colectividad"* dira. Guk kontzeptu hau idazle eta kulturgileekin lotuko genuke batez ere. Eta, azkenik, sentsibilitateak ditugu. Hau, *Egungo euskararen hiztegiaren* arabera, "sentiberatasun edo sentikortasuna" litzateke[5]. Zein zentzutan erabiliko dugu guk? "Sentsibilitatea" diogunean, joeraz ariko ginateke, atxikimendu gaitasunaz, baina ez ideia multzo artikulatu eta sistematizatuaz. Bertsolariak non kokatu? Ideologien, idearioen edota sentsibilitateen mailan? Ezin, agian, guztiak zaku berean sartu.

Errealitateak ez al du beti sistematizazioetatik haratagoko bidea egiten? Ez al da guk ulertu eta azaldu dezakegun baino konplexuagoa? Hala uste dugu. Konplexutasuna ekarri nahian gatoz, beraz, azterketa honekin[6]. Ñabardurak Gipuzkoan gertatu ziren modernizazio prozesuen azterketara eta identitateen azterketara, hauetatik abiatuz, aniztasuna agerian jartzeko asmoz.

Euskal idazle askok jo dute atzera (industrializazio aurreko euskal gizartera) beren burua hobeto ulertu ahal izateko. Zergatik etengabe "itzuli" behar hori? Zergatik garai eta bizimodu horietara?

Nire kasuan, bi arrazoi nagusigatik. Mundu "hura" ulertu nahi dut, izaten jarraitzeko, nire izaeraren parte delako, nik ezagutu ditudan pertsona batzuk, neurri batean, mundu "hartako" parte direla ikusi dudalako, eta mundu "hura"

[4] Honako helbide elektronikoan begiratua: www.ehu.es/eeh
[5] Leku berean.
[6] D. Grossmanek esango lukeen moduan, "Escribo para reconquistar los matices", *El País*, 2012-V-19.

ulertuz, bidelagun izan ditudan hainbat pertsona gogoratu eta ulertu nahi ditudalako.

Bestetik, aldi berean, mundu "hartako" parte izateari halabeharrez utzi diodalako, uste baino urrutirago dudalako, aztertu nahi dut "mundu hura". Historiatik luzatutako galderei esker, arrazoiaren begiz hurbildu nahi dut errealitate "haietara", modu honetan etorkizunari iraganeko zamarik gabe begira ahal diezaiodan.

## Azterketa honen helburuak

"Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak. Gipuzkoa, 1830-1936". Hona orrialde hauetan aurkezten dugun lanaren izenburua eta hona azterketa honetan ditugun helburuak:

1. XIX. mendeko gipuzkoarren identitate azterketan sakontzea, modernizazio prozesuan murgilduta dagoen Gipuzkoako kasua kontuan hartuz, eta batez ere, jende xumea aztergaitzat hartuz. Ideologo politiko eta intelektualen diskurtsoen azterketak gutxietsi gabe[7], identitateen azterketarako baliagarri izan daitezkeen beste iturri batzuei erreparatuz, kasu honetan, garaiko hainbat bertsolari gipuzkoarren bertsoei[8].

Irudipena dugu gainera Bizkaiko industrializazioaren azterketak euskal industrializazioaren eredua finkatzen eta bakartzen lagundu duen bezala, industrializazio honen ondorioak langile eta herritarrengan izandako eraginak ere finkatu dituela, baina, aldi berean, nahita izan gabe ere, eredu bakarrera ekarri dituela, ziurrenik industrializazio prozesua bortitzagoa izan zenez, eragina ere ikusgarriagoa izan baitzen[9]. Bizkaiko industrializazioari dagokionez, gai ezberdinak

[7] Historiografiari dagokion atalean ikusiko badugu ere, Coro Rubioren lana baliagarria da, benetan, gai honen jarraipenerako. Ikus RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales.* Madrid: Biblioteca Nueva, 2003. Nafarroaren kasurako, berriz, IRIARTE LÓPEZ, Iñaki: *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960).* Madrid: Biblioteca Nueva, 2000.

[8] Bertolt Brechtek "Irakurtzen duen langile baten galderak" hartan itauntzen zuen moduan: Historiako liburuetatik at baina Historiako gertakizun garrantzitsuetan ere parte hartu zuten haiengatik interesatuz.

[9] Bizkaia eta Gipuzkoako industrializazioak erkatzen dituen lana dugu Granadan 2012an *Historia Garaikideko XI. Kongresuan* aurkeztua: GONZÁLEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, José: "Dos modelos de industrialización y de creación de capital humano: Bizkaia y Gipuzkoa vistas a través de la Ría de Bilbao y Valle del Deba (1876-1930)". Demografiaren ikuspegitik landuta, berriz: GONZÁLEZ PORTILLA, M. eta URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.G: *Vivir en familia, organizar la sociedad: familia y modelos familiares, las provincias vascas a las puertas de la modernización (1860).* Bilbao: Euskal Herriko unibertsitateko argitalpen zerbitzua, 2003. Bat baino gehiago dira beraz Bizkaia eta Gipuzkoako industrializazioa konparatzen dituzten lanak.

landuak izan dira: langileen lan eta bizi baldintzak, emigrazioa, edota ideologia politiko berrien sorrera[10]. Zeintzuk ote Gipuzkoako industrializazioaren ondorioak esparru horiei dagokienez?

2. Modernizazio prozesuak Gipuzkoan izan zuen eragina aztertzea. Bailara eta esperientzia pertsonal ezberdinen arabera, Gipuzkoan modernizazio prozesu anitzak izan ziren ikustea eta, hori baino gehiago, prozesu horien eraginak jende xehearengan anitzak izan ziren aztertzea, horretarako arestian aipatutako bertsoen azterketan oinarrituz. Aurrerago ikusiko badugu ere, Gipuzkoako modernizazioaren azterketa egiten duten lanetan eskualdeak bereiztea ohikoa da. XIX. mendeko modernizazio prozesuaren garaikidea den historiografia klasikotik hasi eta gaur egunera arteko lanetan aurki dezakegu ezaugarri hau. Guk ere kontuan izango dugu gure azterketan[11].

---

[10] Historiografia lantzen den atalean hitz egingo dugu patxada handiagoz honetaz. Hala ere, ikus: GONZÁLEZ PORTILLA, M; GARCÍA ABAD, R.; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.: *Las ciudades mineras de la Ría de Bilbao durante el boom minero. Inmigración, capital humano y mestizaje*. Bilbao: EHU/UPV, 2000; PÉREZ-FUENTES, P.: *Vivir y morir en las minas: estrategias familiares y relación de género en la primera industrialización vizcaína (1877-1913)*. Bilbao: EHU/UPV, 1993; PÉREZ-FUENTES, P.: *"Ganadores de pan" y "amas de casa": otra mirada sobre la industrialización vasca*. Bilbao: EHU/UPV, 2004; GARCIA ABAD, R: *Historias de emigración. Emigrar a la Ría de Bilbao. Factores de expulsión y selección del capital humano en la emigración a la Ría de Bilbao (1877-1935)*. Bilbao: EHUko Argitalpen zerbitzua, 2004.

[11] Jo, kasu honetan ere, historiografiaz diharduen atalera. Aipagarri dira, dena den, Gipuzkoako historia garaikideaz, zaharrenetik berrienera, eta ikergaia mugatzeko argazki-makinako objektiboa aspektu eta neurri ezberdinetan jarria duten honako lanok: GARATE OJANGUREN, Montserrat: *El proceso de desarrollo económico en Guipuzcoa*. Donostia: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, 1976.; CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*. Madrid: Siglo XXI Editores, 1987; CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Madrid: Siglo XXI Editores, 1993; LUENGO TEIXIDOR, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbao: EHU-UPV, 1990; LARRINAGA RODRIGUEZ, Carlos: *Actividad económica y cambio estructural en San Sebastián durante la Restauración, 1875-1914*. Donostia: Kutxa Fundazioa, 1999; RODRIGUEZ RANZ, José A.: *Guipuzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Donostia-San Sebastián: Dr. Camino Institutua, 1994; AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Bilbao: Servicio Editorial. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000; OSTOLAZA ESNAL, Maitane: *Entre Religión y Modernidad. Los colegios de las Congregaciones Religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea, 1876-1931*. Bilbao: Servicio Editorial. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000; RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio; LANDABEREA ABAD, Eider; ARANBURU AMILLETA, Antxiñe: *Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 3. alea: 1833-1937*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003. Eta azkenik, argitaratu berria den GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, José; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: *La "otra industrialización" del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización. Un análisis a través del valle del Deba*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzuak, 2015. Azken lan honetan irizpide demografikoak, populazio aktiboari dagozkionak, emigrazioari dagozkionak eta alfabetatzeari

3. Bertsopaperak, eta bertsogintza oro har, iturri historiko bezala erabil daitekeen probatzea, horretarako dituzten mugak eta hutsuneak ahaztu gabe eta, ahal den neurrian, bertsoen edukien azterketarako metodo bat proposatuz[12]. Hainbat autorek egin dute lan ahozkotasunaz eta ahozkotasunaren eta idatziaren arteko harremanaz. Lagungarri izan dakizkiguke bertsogintzaz diharduguneanean[13], nahiz eta guk bertsopaperen azterketa ahozkotasunaren azterketatik harantzago eraman nahi izan.

4. Historiaz eta denboraz gogoeta egitea: lehenaldi hurbilarekin, bai gertakizunekin bai haien irudikapenekin, dugun harremana aztertzea. Tesi lan honen helburua ez da korronte historiografiko ezberdinez aritzea, besteak beste, ez baitugu nahiko jakintza horretarako, baina bai ezagunak zaizkigun ikuspegien artean kontuan hartzeko eta aberasgarri gertatzen zaizkigun alderdiak azpimarratzea. Historia

---

dagozkionak aztertzen dira, besteak beste, eta hauen arabera, argia da Gipuzkoaren eskualdekako antolaketa. Honetaz gainera, Gipuzkoaren modernizazioa aztergaitzat duten beste hainbat lanetan ere hitz egiten da honetaz. Arestian aipatu bezala, aurrerago hitz egingo dugu horietaz. Ikus bigarren eranskina.

[12] Guk dakigula, bertsoak ez dira sistematikoki iturri historiko gisa erruz erabili. Bertsolaritzaz jardungo dugunean hitz egingo dugu honetaz lasaiago. Izan dira, jakina, honetan saiatu direnak: Antonio Zavala bera, Leizaola lehendakaria, etab. Azkenaldian, Maitane Ostolaza eta Mikel Aizpuruk ere egin dute alor honetarako hurbilpena. Mikel Aizpuru eta Maitane Ostolazak ESTEBAN DE VEGA, Mariano; DE LA CALLE VELASCO, Mª Dolores (Ed): *Procesos de nacionalización en la España contemporánea.* Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 2010 liburuan, bertsopaperen bitartez "herria", "politika" eta "nazioa" gisako kontzeptuak aztertzen dituzte 1833 eta 1936 urte bitartean "Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): una aproximación a través de los bertsopaperak" kapituluan, 329.-353. orrialdeetan, eta Maitane Ostolazak, berriz, bertsopaperen bitartez, kultura karlista aztertzen du. Ikus OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular: los "bertso paperak"". In: LANES MARSALL, Julien; OSTOLAZA, Maitane (eds.): *Las culturas políticas en la España del siglo XIX.* Paris: Editions Hispaniques, 2010. 100.-128. or. Berriki argitaratua da antropologiaren ikuspegitik bertsoak iturri gisa ustiatu dituen lana: DICHARRY, Eric: *Le rire des Basques.* Paris: L'Harmattan, 2013.

[13] Problematika orokorraz gain, bertsolaritzaz zehazki ari direnen artean: ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo.* Zarautz: Auñamendi, 1964; ONAINDIA, Santi: *Gure bertsolariak.* Bilbao: Karmel, 1964; AULESTIA, Gorka: *Bertsolarismo.* Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990; GARZIA, Joxerra: *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak (marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa).* Bilbao: EHU, 2000; GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak.* Andoain: Bertsolari liburuak, 2001; ARMISTEAD, Samuel G; ZULAIKA, Joseba: *Voicing the moment. Improvised Oral Poetry and Basque Tradition.* Reno: University of Nevada, 2005; LABORDE, Denis: *La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque.* Donostia: Elkar, 2005; AIERDI, Xabier; ALDAZ, Juan; ALKORTA, Eider; RETORTILLO, Alfredo; ZUBIRI, Harkaitz: *Bertsolaritza. Tradizio modernoa.* Bilbao: EHU, 2007. Antonio Zavalak, bere garaian, argitalpen ezberdinak bultzatuz, eta azken urteotan baita Bertsozale elkartetik ere ahalegin handia egin da munduan dauden ahozkotasun tradizio eta esperientziak ezagutu eta zabaltzeko. Kubako repentismoaz, DIAZ-PIMIENTA, Alexis: *Teoría de la improvisación. Primeras páginas para el estudio del repentismo.* Oiartzun: Sendoa, 1998. Bertsopaperen mundura hurbiltzeko, nahiz eta ez izan zehazki gauza bera: DIAZ G. VIANA, Luis (koord): *Palabras para el pueblo. Volumen I. Aproximación general a la literatura de cordel.* Madrid: CSIC, 2000.

soziala, historia kulturala, historia kontzeptuala, diskurtsoaren historia, mikrohistoria, "behetik" egindako historia, antropologiak historiari eman diezaiokeena, etab. Hona burura datozkigun historiaren hainbat alor, interesgarri gerta dakizkigukeenak.

## Aztergaia mugatzeko egin ditudan aukerak

Espazioa eta denbora. Hona gizakion bizitza gauzatzen direneko bi koordenatu nagusiak, eta ondorioz, gure istorioak Historia bihurtzen ditugunekoak. Lehenengoari erantzunez, Gipuzkoa. Bigarrenari, ehun urte pasako aldia, 1830etik 1936ra bitartean doana. Zergatik?

Zergatik Gipuzkoa? Bertakoa naizelako[14]. Aitzinsolasean azaldu dudan legez, doktorego tesi honek autobiografikotik zerbait ere baduelako, eta nituen hainbat galderari erantzunak Gipuzkoaren modernizazio prozesuaren baitan aurkitu behar nizkiola uste nuelako. Lehenengo galdera haien inguruan egindako irakurketek berretsi besterik ez dute egin eremu geografiko honen hautua. Eman dezagun, laburki bederen, arrazoi horien berri.

Gipuzkoa modernizazio prozesu anitz eta pixkanakako baten kokalekua da[15]. Identitate anitz baten azterketarako eta pixkanaka sortzen joan direnak aztertzeko aproposa gertatzen zaigu, beraz, Gipuzkoa erreferentziatzat hartzea. Egin gabe dagoen lana dela hau uste dugu, gainera.

XIX. mendeko bertsolaritzaren loraldia Gipuzkoan modu nabarmenean gertatu zelako eta guganaino iritsi diren bertso kopuru eta bertsolariei buruzko informazio kantitate handienetakoak gipuzkoar bertsolariei buruzkoak direlako[16].

Zergatik Gipuzkoa eta ez bertako herri zehatzen bat? Lehen aipatu bezala, gipuzkoar modernizazioaz idatzitako lanek Gipuzkoa probintzia eta bere eskualdeak, aldi berean muga politiko-administratibo eta geografikoak direnak, hartzen dituzte kontuan. XIX-XX. mendetan emankor gertatzen diren bi eremu (beren baitan eta datuak gurutzatuz) dira hauek: gu ere horiek errespetatzen saiatu

[14] "Naizelako" diot, eta ez "garelako", ez baitut irakurlea indarrez gipuzkoartu nahi.

[15] Euskal Herria modernizazio prozesu anitzen kokaleku da. Horregatik aberasgarri gertatzen da bertan emandako prozesu ezberdinen azterketarako, baita hauen ondorioen azterketarako ere. Aldi berean, "modernizazio" prozesuarekin loturik dauden eztabaida kontzeptual eta teorikoetan sakontzeko aukera ematen du honek.

[16] Lerro batzuk aurrerago, zein bertsolari aukeratu ditugun adierazten dugunean, barrenduko dugu gai honetan.

gara. Batetik, Gipuzkoa, probintzia, sendotzen deneko mendeak dira hauek, baina eskualdeen arteko berezitasunak mantenduz eta hauen berariazkotasunak berdindu gabe[17].

Zergatik 1830-1936? Gerrateetan pentsa dezake norbaitek. Urte horiek Gipuzkoak biziko duen modernizazio prozesuaren baitan tentsio goreneko uneak mugarrituko dituzte: lehen Gerrate Karlistaren hasieratik Gerrate Zibila bitarteko urteak[18].

Bestalde, Gipuzkoako modernizazioaren azterketarako erabiltzen den kronologia posibleetako bat delako: XIX. mendeko 40ko hamarkadako aurre industrializazioa hartzen du bere baitan, eta baita XIX. mende bukaera eta XX. mendeko lehen herenean gertatu zen industrializazioa ere. Prozesu hauen arteko denbora hartzen du, beraz, gure lanak aztergai.

Aldi berean, bertsolarien biografiek markatutako urteak ote? 1831n jaio zen Indalezio Bizkarrondo, Bilintx, eta 1835ean Jose Frantzisko Petriarena, Xenpelar. 1936an hil zen berriz Jose Manuel Lujanbio, Txirrita[19]. Txiripaz edo ez, bat datoz aurrez ipinitakoekin[20].

Doktorego tesi honetan egindako aukera ausartena, eta espazio eta denboraz gainera, lan hau mugatzen duena, iturriei dagokiena da. Bertsoak erabili nahi izan ditugu iturri gisa. Zergatik? Lehenengo arrazoia, historia idazteko eta kontatzeko egokiak izan daitezkeela uste dugulako[21]. Bigarren arrazoia, bertsoek modernizazioak jende xehearengan izan zezakeen eragina aztertzen lagun

[17] Aurrerago ikusiko dugun bezala, eta hautatu ditugun bertsolariak direla medio, Donostialdea eta Ernio inguruko erreferentziak jasoko ditugu batez ere. Jasotako bertso kopuruagatik eta euren inguruan egindako azterketa biografikoengatik, bai eta jendearen memorian luzaroen eta indar gehienez iraun duten bertsolariak direlako hautatu ditugu besteak beste aukeratutako sei bertsolariak, bai eta euren artean desberdintzen zituzten hainbat ezaugarri zituztelako ere, aniztasuna ziurtatuz horrela. Dena den, honi buruz, orrialde batzuk aurrerago hitz egingo dugu.

[18] Harrigarri gerta dakiguke, baina gerra ez da guk aukeratutako bertsolarien artean, Joxe Mari Lopetegi alde batera utzita, kantagai nagusietakoa izango. Ez da gerrateei buruz bertsorik egin, idatzi eta kantatu ez zelako –ikus Antonio Zavalak lehen eta bigarren karlistadetako bertsoak bilduz osatutako liburukote mardulak- ziurrenik, bertso horiek gehienak, anonimoak zirelako baizik. Badaezpada ere.

[19] Jose Mari Lopetegi 1942an hil zen. Hala ere, nahiago izan dugu 1936. urtea hartzea azterketa lanaren mugatzat. 1936ko gerrak gauza askoren bukaera ekarri zuen: mugarri baino gehiago, harresi gertatu zen.

[20] Txirritaren heriotza aipatzen du Antonio Zavalak bertsolaritzaren aldi baten amaiera markatzeko, eta bere *Bosquejo de historia del bersolarismo* lana bukatzeko, beste arrazoi batzuen artean: gerratea, Donostian bertsolari txapelketak egiten hastea (1935 eta 1936an), Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskerica* lanaren argitalpena, eta Juan Jose Makazagaren lanak.

[21] Honen frogatzat nahi genuke jarri doktorego tesi hau. Ea lan honen azkeneko orrialdera iritsitakoan zer dioen irakurleak.

diezaguketelako, baldin eta abiapuntu gisa hartzen badugu bertsolariak jende xehearengandik gertu zeuden pertsonak zirela[22]. Eta azkenik, hirugarren arrazoia, bertso anonimoak baino bertsolari jakinak eta hauen bertsoak hautatuz, gizon zehatz hauek bizi izan zuten errealitatera hurbiltzen lagunduko digutelako, beren bertso eta diskurtsoak historiografiak aztertu eta ikertutakoekin osatuz eta alderatuz. Jo genezakeen beste bide batetik: udaletxe, parrokia, diputazio, prentsa, aldizkari eta abarrekin egiaztatu bertsoek ziotena. Baina ez da hau hautatu dugun bidea: XIX. eta XX. mendeko historiaren inguruan lan ugari eta sakonak ditugu, eta aberasgarriagoa iruditu zaigu gure doktorego tesia modu honetan antolatzea.

Ez da gure helburua, ezta ere, argitaratutako bertsolarien bizitza eta bertsoen edizio kritiko bat egitea, eginda dagoen lana nagusiki ontzat emanez, bertan ageri den diskurtsoa historiografiak garaiko errealitateaz esan dizkigunekin erkatzea baizik.

Ezta bertso hauek bertsogintzaren ezaugarrien ikuspegitik aztertzea ere, edo komunikazioaren ikuspegitik, edo helburu etnografiko edo etnologikoekin[23].

Hasiera batean, behintzat, nahiago izan dugu bertsoetara jotzea bertan aipatzen diren gai eta kontzeptu nagusiak aztertzeko eta hauetatik abiatuz, bertsolariek osatutako errepresentazioak lantzeko. Edukiaren alderdia interesatzen zaigu gehien, modu honetara Gipuzkoan 1830-1936 urte inguruetan nagusi zen mundu ikuskera edo irudikapenen azterketan sakontzeko[24].

Iturri "mota" hautatu ondoren, corpusa zehaztu behar. Zein bertsolari hautatu? Gipuzkoa eta XIX. mendea eta XX. mendeko lehen herena, hona izan ditudan mugak. Indalezio Bizcarrondo "Bilintx" (1831-1876), Jose Frantzisko Petriarena "Xenpelar" (1835-1869), Pedro Elizegi "Pello Errota" (1840-1919), Pedro Mari Otaño "Kattarro" (1857-1910), Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" ( 1860-1936), eta

[22]"Bertsolariak" orokorrean erabili beharko ez genukeen izena da, apika. "Bertsolari" guztiak ez dira berdinak. Ez bertsoak egiteko moduan, ez kantatzeko orduan, ez lantzen dituzten gaietan, ez duten onarpenean, etab. Beraz, segur aski, bertsolari ezberdinek herriarengandik duten hurbiltasun edo urruntasuna ere ez da kasu guztietan berdina izango. Izatekotan ere, herriarenganako hurbiltasuna beti izango da erlatiboa. Zer esanik ez, zein "herriz" galdezka hasten bagara. Bertsolari bakoitzaz mintzo garenean argitu beharreko kontua izango da hau, orduan.

[23] Ez legoke gaizki bertsoen azterketa etnografikoa egitea. Argi egingo ligukete hainbat gairen inguruan: ezkontzak, salutadoreak, etab. 1990etik aurrera, Etniker Euskalerria taldeak argitaratutako lanak kontuan har daitezke horretarako. Zazpi dira argitaratu dituzten liburuak, askotariko gaiak lantzeko: *La alimentación doméstica* (1990), *Juegos infantiles* (1993), *Ritos funerarios* (1995), *Ritos del nacimiento al matrimonio* (1998), *Ganadería y pastoreo* (2000), *Medicina popular* (2004) eta azkenik, *Casa y familia* (2011).

[24] Jakina, gipuzkoar denek ez zuten berdin pentsatuko, denek ez zituzten bizi esperientzia berak izango. Zergatik nahi ditugu beti ahalik eta ondorio zabalenak izango dituzten azterketak egin? Zergatik orokortzen saiatu?

Jose Mari Lopetegi (1875-1942) hautatu genituen. Gipuzkoar bertsolariak ditugu seiok, guztiak hemeretzigarren mendean jaioak, 1831. urtetik 1875. urte bitartean. Gipuzkoako herri eta bailara ezberdinetan jaioak: Bilintx donostiarra, Xenpelar errenteriarra, Pello Errota asteasuarra, Otaño zizurkildarra –baina Argentinan emigrante hil zena, Donostian ere urte batzuk egin ondoren-, Txirrita hernaniarra –Errenterian bizi eta Altzan hil zena-, eta Lopetegi irundarra, gerra zibilaren ondorioz iparraldean erbestean hil zena[25]. Aurrerago ikusiko badugu ere, geografikoki bi errealitate ageri zaizkigu: Donostialdea, batetik; eta Ernioko mundua[26], bestetik. Lehenengoan leudeke Donostia, Hernani, Errenteria eta Irun, eta bigarrenean, berriz, Zizurkil eta Asteasu. Bi ingurune geografiko hauek bi errealitateri egiten ote diote erreferentzia? Bi modernizazio prozesuri? Identitatea adierazteko bi moduri? Doktorego tesi honen emaitzetan erantzuten saiatuko gara galdera hauei.

Ofizio eta bizimodu desberdinak izan zituztenak seiok: arotza eta Donostiako Antzokiko atezaina, lehenengoa; fabrikako langilea, bigarrena; errotaria, hirugarrena; ofizio asko eta batere ez zuen emigrantea, laugarrena; hargina, bosgarrena; eta etxegile-kontratista, azkena[27].

Ideologiari dagokionez ere, askotarikoak ditugu: liberalengandik gertuago Bilintx eta gaztetako Otaño; tradizionalismotik gertuago Xenpelar; gaztetan liberala, gero errepublikanoa eta nazionalismoarekin bat eginik azken urtetako Otaño; errepublikar peto-petoa Lopetegi[28]. Pello Errotak erreferentzia gutxi egingo dizkio ideologia politikoaren gaiari. Txirritak, berriz, foruen alde kantatuko du behin baino gehiagotan.

Eta bukatzeko, Juan Mari Lekuonari jarraituz gero, aukeratutakoen artean bertsolari ikasi eta ez ikasien artean ere egin dezakegu bereizketa. Errota, Xenpelar

---

[25] Gipuzkoako eskualde eta herri ezberdinetakoak ditugu, beraz: Donostia, Irun, Errenteria eta Hernani eta Asteasu. Horra hiriburua, hiri aurrerakoia, modernizazioan aurrera egindako herriak eta herri landatarra, ordezkatuak.

[26] Honako liburu honetan erabiltzen den izena da Ernioko munduarena: GONZALEZ PORTILLA, M.; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.G; ZARRAGA SANGRONIZ, K.: *Vivir en familia, organizar la sociedad: familia y modelos familiares, las provincias vascas a las puertas de la modernización (1860).* Bilbao: Servicio Editorial, Universidad del País Vasco, 2003.

[27] Kasu honetan, baita ere, landatar eremuko ofizioez gain, baditugu industrializazioarekin lotu ditzakegun eta erroldetan artisau eta soldataren truke lan egiten duten langile gisa ageri diren bertsolariak ere.

[28] Ideologien aniztasuna kontuan hartu nahi honetan, badugu Gregorio Atxa-Orbea, "Orbe" deituriko eibartar bertsolaria ere. 1884an Eibarren jaioa, errepublikarra hau ere, 1967an hil zen. Gehiagotarako ikus AMURIZA, Xabier: *Gregorio Atxa-Ortea, "Orbe" bertsolaria.* Eibar: Ego ibarra, 1992. Galtzaundi eta Patxi Erauskin ere kontuan hartu ahal izango genituzke: lehenengoa, karlista; eta bigarrena, EAJri lotua.

eta Txirrita ez ikasien artean kokatuko lirateke, eta Bilintx, Otaño eta Lopetegi, berriz, ikasien artean[29]. Desberdinak eta anitzak dira beraz aukeratutako bertsolariak. Alderdi praktikotik begiratuta gainera, bertsolari hauen biografiari buruzko hainbat datu eta bertso corpusaren bildumak argitaratuak daude.

Ezinbestean, aipamena egin behar diogu une honetan Antonio Zavalari[30]. Landu ditugun sei bertsolaritatik bosten lanak berak argitaratutako liburuei esker jaso ditugu. Pello Errota, Bilintx, Xenpelar, Otaño eta Txirritaren liburuak urte eta molde ezberdinetan eman zituen argitara Antonio Zavalak. Guk Auspoaren Sail Nagusian egindako argitalpenak izan ditugu kontuan[31]. Joxe Mari Lopetegiren berri Joxan Elosegik egindako bilketa lanari esker izan dugu, Paper hotsak argitaletxeak eman zuelarik hau argitara[32].

Hona erabili ditugun iturrien deskribapen kuantitatiboa: guztira, 2.142 orrialde betetzen dituzten 546 bertso sail erabili ditugu[33].

Doktorego tesia egiten ari nintzela, jarraian azalduko ditudan bi gauza gertatu zitzaizkidan deigarri. Lehenengo eta behin, denak gizonak ziren. Eta emakumerik? Ez al zen XIX. mendean emakume bertsolaririk? Ez ote aberasgarriago eta anitzagoa ikuspegia? Bigarren galderari, "dudarik ez" erantzun behar. Lehenengoari, berriz, egon, bazeudela[34]. Beste kontu bat da non kantatzen zuten

---

[29] Ikus LEKUONA, Juan Mari: *Ahozko euskal literatura.* Donostia: Erein, 1982. 109.-121. or. Alfabetizazioa eta modernizazioa eskutik doazen bi errealitate direla ikusiko dugu gainera. Ikasien artean ote bertsolari modernoenak? Eta bestalde, zer esan nahi zuen Juan Mari Lekuonak "ikasiak" zireneko honekin? Gipuzkoako alfabetatze prozesuari buruzko artikulu interesgarria dugu GARCIA ABAD, Rocío; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, José; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: ""Leer y escribir": desarrollo y modernización social. El País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)". In: GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA, José María; ZARRAGA, Karmele (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea.* Bilbao: EHU/UPV, 2011. 311.-341. or.

[30] Metodologiaz dihardugun atalean tartea egingo badiogu ere, bihoaz bera eta bere lanari buruzko hiru lan: AA.AA: *Antonio Zavalaren ohoretan.* Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2000; ESNAL, Pello: "Auspoa: Antonio Zavalak utzitako ondare maitagarria". In: *RIEV*, 55, 1 (2010), 221.-239. or.; IRIONDO, Joxemari: "Antonio Zavalaren hilberri-txostena". In: *Plazaberri*, Euskaltzaindia, 2010-02-01. Ikusgai: [http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2010/otsaila/iriondo_azavala.pdf]

[31] Kasu guztietan Antonio Zavala bera dugu biltzaile eta egile, eta Auspoaren Sail Nagusian egin zituen argitalpenok: *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919).* Tolosa: Auspoa, 1992; *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860-1936). Bizitza eta bertsoak.* Tolosa: Auspoa, 1992; *Xenpelar eta bere ingurua.* Oiartzun: Sendoa, 1993; *Bilintx. Bertsoak eta bizitza.* Oiartzun: Sendoa, 1993; *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua. I eta II aleak.* Oiartzun: Sendoa, 1993.

[32] ELOSEGI, Joxan (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun, 1875-Arrueta, 1942).* Soraluze: Paper hotsak, 2004.

[33] Ikus lehenengo eranskinean jasotako taula.

[34] LARRAÑAGA, Carmen: "Del bertsolarismo silenciado". In: *Cuadernos de Folklore, Jentilbaratz*, 6 (1997), 57.-73. orrialdeak.

eta ea bertsopaperik idazten zuten ala ez. Nahiz eta gure doktorego tesi honetan emakumeez hitz egingo dugun eta gizonek idatzitako bertsoetan emakumeen ahotsa bereizten saiatuko garen, egia da ez dugula iturri nagusitzat emakumeek jarritako bertsorik izango[35]. Joxepa Antoni Aranberri (Errenteria, 1865-1943) aipagarria genuke une honetan. Xenpelartarra, bere buruari esaten zion bezala, *Ibaizabal* aldizkarian bertsoak argitaratzera ere ausartu zen[36]. Berak osatutako hainbat bertso jaso zituen Antonio Zavalak[37]. Aipagarri, halaber, berrikiago Asteasuko udal artxiboan eginiko aurkikuntza[38]. Badago, beraz, aurrerantzean ere zer arakatua[39].

Erreparatu nion bigarren kontua, nahiko zaharrak zirela denak. Bai, behintzat, nik aurkitutako irudietan[40]. Pello Errota, Txirrita eta Jose Mari Lopetegi aitonduak zeuden. Bilintx, Xenpelar eta Otaño, sasoikoago ziren, baina gazteak zirenik ere ezin esan. Hau horrela izatearen lehen arrazoia bakoitzak bizi izandako urteak dira. Hilabeteak gorabehera, Xenpelarrek 34 urteko bizialdia izan zuen; Bilintxek, 45ekoa; eta Otañok, 53koa. Lopetegik, berriz, 67koa; Txirritak, 76koa; eta Errotak, 79koa. Irudietan ez ezik, honek izango du eraginik baita beren bertso produkzioan ere. Bizitza luzeagoa izan zuten bertsolarien kasuan, beren bertso produkzioa oparoagoa izan zela ikusiko dugu. Ez zaie hala gertatuko gaitzak edo gerrak harrapatuta hil ziren Xenpelar edo Bilintxi. *C'est la vie!* Edo horrelakoa zen, behintzat, bizitza XIX. mendeko Gipuzkoan.

Eta beste probintzietako bertsolariekin alderatuz, ez ote genuke oraindik ere pluralagoa den errealitate batekin topo egingo? Bizkaitar, nafar, arabar, iparraldekorik? Bertsolaritzaz hitz egingo dugun atalean xehetasunak emango baditugu ere, bada agian garai honetako bertsolari bizkaitar bat hemen aipatu beharrekoa: Kepa Enbeita, "Urretxindorra" zeritzotena, 1878an jaio eta 1942an hil zena. Muxikarra. Bere herrira mediku joan zen abertzale konbentzitu batek

---

[35] Gure lanetarako ere, ezin ordea emakumeen garrantzia ukatu: Pello Errotari buruz dakizkigun pasadizo eta bertso asko bere alaba Mikaelari esker jasoak dira, eta Juan Frantzisko Petriarenari buruzkoak, bere iloba Joxepa Antoniri esker.

[36] Ikus PEREZ GAZTELU, Elixabete: *Joxepa Antoni Aranberri "Xenpelar" (1865-1943)* [Baliabide elektronikoa]. Errenteria: Udala, 2013.

[37] Besteak beste, Xenpelarren lana aztertzeko guk erabili dugun liburuan: ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*. Sendoa: Oiartzun, 1993. 545-602. orrialdeak.

[38] "Asteasuko emakume bertsolariak XIX. mende hasieran".
In: http://www.ereiten.eus/blog_multiview.php?cat=Asteasu. 2014ko abenduaren 11n begiratua.

[39] Gure azterketarako aukeratu ez baditugu kantitatez bertso gutxi direlako izan da, ez dutelako nahikoa corpusik osatzen, ez behintzat doktore tesi baterako adina.

[40] Aztergai nituen bertsolarien irudiekin horma irudia prestatu nuen eta paretan ipini, lanean ari nintzela, aurpegiak ikusi ahal niezazkien. Ikus hirugarren eranskina.

abertzaletua. Bertso corpus ederra utzia hau ere[41]. Beste baterako utzi beharko dugu. Hala ere, Asier Barandiaran Amarikak doktorego tesia egina du berari eta bere seme Balendin Enbeitari buruz, ez hainbeste identitate alderdiak aztertzeko asmoz, bertsokerari eta honen transmisioari dagozkionak baizik, nahiz eta "ideologiari" ere tarte bat eskaini[42].

Gure azterketa nabarmen bideratu duen beste aukera, historia egiteko eta identitate kontzeptua ulertzeko modua izan dira[43] bai eta modernizazioa[44] ulertzeko modua ere. Identitate kolektiboa modernizazioaren testuinguruan arazo nola bihurtzen den aztertzen saiatu gara, eta XIX. mende bukaera hartan irakiten ari zen gipuzkoar eltzean gure bertsolariak nola kokatzen diren. Modu honetan, identitate kontzeptuaren azterketa aberastu nahi dugu. Hautu honek hainbat kezka eta galdera sortu dizkigu ikerketa bide honetan: ez ote egokiago identitate jakin bat hartu eta horren azterketa egitea? Irakurri beharreko bibliografia errazago mugatuko genukeen horrela, aztertu beharreko kontzeptuak ere eskuetako hatzez kontatzera murrizteko modua izango genukeen, euren arteko konparaketa ere errazagoa zatekeen. Horrek, ordea, aniztasuna frogatzen lagundu edota alderdi bakarrera bideratuko gintuzkeen? Errazago bigarrena, lehenengoa baino. Horregatik, zailtasunak zailtasun eta arriskuak arrisku, aniztasunaren aldeko

[41] ONAINDIA, Santi: *Gure Urretxindorra: Enbeita'tar Kepa'ren bertso-lanak osorik.* Buenos Aires: Ekin, 1971.

[42] BARANDIARAN AMARIKA, Asier: *Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita: bi bertsolari belaunaldi ahozkotasunaren harian.* EHU, 2002. [interneten eskuragarri, http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ASIER_BARANDIARAN.pdf helbidean]. 2013ko urtarrilaren 4an begiratua.

[43] Identitatea eta memoria maiz loturik agertzen diren kontzeptuak dira. Hona gai hauei buruzko hainbat erreferentziazko lan: RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad: teorías, conceptos y procesos de la relacionalidad grupal humana.* Madrid: Editorial Centro de Estudios Ramón Areces, 2011; BRUBAKER, Rogers; COOPER, Frederick: "Beyond <identity>". In: *Theory and Society,* 29, (2000), 1.-47. or.; DUBAR, Claude: *La crisis de las identidades. La interpretación de una mutación.* Barcelona: Edicions Bellaterra, 2002; MAALOUF, Amin: *Identidades asesinas.* Madrid: Alianza, 2005; ROSA RIVERO, Alberto; BELLELLI, Guglielmo; BAKHURST, David (Eds.): *Memoria colectiva e identidad nacional.* Madrid: Biblioteca Nueva, 2000; HALBWACHS, Maurice: *Los marcos sociales de la memoria.* Barcelona: Anthropos, 2004; CRUZ, Manuel: *Las malas pasadas del pasado. Identidad, responsabilidad, historia.* Barcelona: Anagrama, 2005; CANDAU, Joël: *Antropología de la memoria.* Buenos Aires: Nueva Visión, 2006; GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Memoria e historia. Vademécum de conceptos y debates fundamentales.* Madrid: Catarata, 2013; TYLOR, Charles: *Fuentes del yo. La construcción de la identidad moderna.* Buenos Aires: Paidós, 2006.

[44] Ikus, lerro batzuk aurrerago, kontzeptu honi buruz dioguna.

apustua egin dugu. Bidenabar, modernizazio prozesuen eta identitate prozesuen indartzearen artean harremanik baden edo ez ere aztertzen saiatu gara[45].

Modernizazio kontzeptua bera ere giltzarri gertatu da gure ikerketan, identitate kolektiboaren arazoak modernizazio prozesuarekin duen lotura kontuan hartuz batez ere. Modernitatea kontzeptu orokorra –kontzeptu filosofiko eta soziologiko gisa ulertuta- modernizazio prozesu zehatzetan gauzatuko litzateke, gauzatze hauek beren argi-itzalak izango lituzketelarik. Modernizazio prozesu hauek aurpegi ezberdinak izango lituzkete, eta XIX. mendeari gagozkiolarik aldaketa ekonomikoak -kasu askotan industrializazioak eragindakoak-, aldaketak demografian –familia eredu eta estrategietan-, urbanizazio prozesuaren indartzea, alfabetatzearen gorakada, emakume eta gizonaren irudiaren aldaketa, aldaketak gizarte egituraketan, aniztasun politikoa, eta sekularizazioa ekarriko lituzkete. Azkenaldian, modernizazio aldi ezberdinak bereizteko berrikuntza edo innobazio zikloei egiten zaie erreferentzia. XIX. mendeko industrializazioari lotua, bigarren eta hirugarren berrikuntza zikloa eman zenekoa litzateke[46].

## Hipotesia

Doktorego tesi honetan arragoan landu nahi dugun hipotesia hau da: Gipuzkoan 1830 eta 1936 urte bitartean gertatu zen modernizazio prozesuak (edo prozesuek) erantzun ezberdin eta anitzak sorrarazi zituen (zituzten) bertako biztanleengan, bidean identitate kolektiboaren “arazoa” sortuz, honen arrazoien artean batzuk eta besteek modernizazio prozesu horretan bizitako esperientzia ezberdinak oinarri zituztelarik.

Orainetik lehenera begira jartzen garenean, nahita edo nahi gabe, ikuspegi bakuna ematen dugu askotan: modernizazio eredu bat nagusi da, honi erantzuna emateko modu bat gailentzen da (edo gailenarazten dugu). Bakuntasun hori aberastu

[45] Identitatearen alderdi diskurtsiboan oinarritu gara gu gure lanean. Egia da artean, pinturan, arkitekturan, musikan, etab. ere badirela diskurtso ezberdinak. Horietan ere aztertzerik genuke 1830 eta 1936 urte bitartetan gipuzkoar artisten artean eman ote ziren erantzun ezberdinak modernizazioaren aurrean. Ikus, besteak beste: FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: “Hechos diferenciales y particularismo cultural: Cataluña, País Vasco, Galicia”. In: *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 1998 (20), 107.-115. orrialdeak.

[46] Ikus GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose: “Desconcierto del tiempo presente y retos del futuro. Algunas claves orientativas”. In: *Arbor,* vol. 187., 752, (nov.-dic. 2011), 1.013.-1.028. or. Autore hauen arabera berrikuntzen bigarren zikloa 1830 eta 1880. urteen artean eman zena izan zen, eta garraio eta altzairugintzan izan zuen oinarri nagusia. Hirugarren berrikuntza zikloa berriz, 1880 eta 1945. urteen artean emandakoa izan zen eta giza kapitala, zientzia eta berrikuntza izan zituen oinarri.

nahirik proposatzen dugu ikergai hau. Manuel Gonzalez Portilla, Jose Urrutikoetxea eta Karmele Zarragaren hitzetan, Deba haraneko industrializazioaz ari direla 1900-1930 aldian,

> *"Y, con ser esto importante, lo realmente llamativo es observar cómo este proceso industrial se prolonga por casi 50 años. Tradición y modernización se dan la mano a través de un claro ejemplo de adaptación progresiva. Se justificaría de algún modo, la propuesta que realiza U. Pipitone cuando reivindica la necesidad de prestar atención a estos factores propios, si realmente se quieren entender adecuadamente los mecanismos que llevan a las sociedades a salir del atraso o del estancamiento. Las explicaciones ceñidas mecánicamente a los esquemas canónicos de la modernización industrial corren el riesgo de inducir a una doble limitación: volver a explicar lo que supuestamente ya se conoce y desperdiciar la posibilidad de entrar en la consideración y análisis de variables que hacen más rico y profundo el esquema interpretativo de los procesos de modernización"*[47].

Zeintzuk dira modernizazio prozesu honetan gertatutako aldaketa nagusiak? Gonzalez Portilla, Urrutikoetxea eta Zarraga, 1860 eta 1900 urte bitartetako Debabarrenaz eta Arrasatez ari direla:

> *"Se puede resumir señalando que este profundo cambio se traduce en la sustitución de la familia troncal por la nuclear, de los valores comunitarios representados por aquella por los patrocinados por el individualismo de ésta y de la nueva sociedad. Parafraseando a Bernardo Atxaga, cabe afirmar que se están dando pasos sin retorno en el camino que lleva del "herri" ("pueblo") al "hiri" ("ciudad"), del "bas-erri" ("caserío"<hábitat del bosque) al hábitat urbano; de la comunidad a la sociedad; de la administración de la casa ("oeconomía<"oikós"+"nomos") a la administración de la ciudad ("política"<"polis"). Se anuncia, sin duda, todo un cambio paulatino, un cambio profundo, un cambio integral. Nos hallamos en los albores de una transformación que puede pasar desapercibida sobre todo si, en lugar de mirar y analizar los procesos, uno se limita a leer en la superficie de una parte importante de los discursos del momento"*[48].

Hala jasotzen ote dute aldaketa gure bertsolariek? Guztiek? Nola batzuk eta nola besteek?

Hipotesi honek badu bigarren alderdi bat. XIX. mendea Europan Estatu-nazioen eraikuntzaren garaia da eta, aldi berean, baita nazio identitateen indartzearen garaia ere. Honi lotuta, baditugu herri literatura eta folkloreari lekua egiten dioten

---

[47] GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: *La "otra industrialización" del País Vasco,* op. cit., 334. or.

[48] GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: *La "otra industrialización" del País Vasco,* op. cit., 212.or.

hainbat lan. Ikus, adibidez, Anne-Marie Thiesseren [49] lanak edo Eugen Weberrena[50] bezalako klasikoak, baita François Xavier Guerrarena ere[51]. Nazio identitateen eraikuntza prozesuen azterketa egiten dute. Hainbat autore espainiar nazio identitatea eta euskal nazio identitatearen sorkuntza prozesuak aztertzen aritu dira. XIX. mendean euskal identitatearen sendotzea aztertzen dute batzuek, foruzaletasun eta alderdi instituzionalari erreparatuz bereziki [52] ; euskal nazionalismoaren sorrera eta garapena beste batzuek[53]; eta euskal eta espainiar nazio eraikuntza eta nazionalismoen arteko harremanak besteek[54].

Nazio identitateek sorreran errealitatetik eta idealizazioaren iturritik edaten dute[55]. Ez dira gutxi, ikuspegi honetatik, euskal identitatea eta euskal nazio identitatea aztertzeko antropologia eta historiografiatik egin diren ahaleginak, dikotomia honetan sakonduz [56] . Beste batzuk, berriz, garai hartan literaturak eta

[49] THIESSE, Anne-Marie: *La creación de las identidades nacionales. Europa: siglos XVIII-XX*. Madrid: Ezaro ediciones, 2010.

[50] WEBER, Eugen: *Peasants into frenchmen. The Modernization of Rural France, 1870-1914*. Stanford: Stanford University Press, 1976. 424. orrialdean, "koblak" eta "koblakari"ak aipatzen ditu. 452.-470. orrialdeetan, berriz, "Le papier qui parle" kapitulua jasotzen du. Bertan liburuak, irudiak, "canard"ak… aipatzen ditu, besteak beste (bertsopaperik zuzenean ez, lastima!) eta prentsa idatzia zein toki hartzen joan zen modernizazio prozesuak aurrera egin ahala.

[51] GUERRA, François Xavier: *México. Del Antiguo Régimen a la Revolución*. México: Fondo de Cultura Económica, 1988.

[52] FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier: *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)*. Madrid: Siglo XXI Editores, 1991; RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*. Madrid: Siglo XXI Editores, 1996. Ez gai bera duelako, baina bai autorea, XIX. mendeko historia politiko eta sozialerako garrantzizkoa den lana aipatu nahi genuke hemen: FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier; FRANCISCO FUENTES, Juan (zuz.): *Diccionario político y social del siglo XIX español*. Madrid: Alianza, 2003. Bartolome Claverok ere egin ditu lan bat baino gehiago gai hauek kontuan hartuz, baita Jose Maria Portillok ere.

[53] DE PABLO, Santiago; MEES, Ludger; RODRIGUEZ RANZ, José Antonio: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*. Barcelona: Crítica, 1999; DE PABLO, Santiago; DE LA GRANJA, José Luis; MEES, Ludger; CASQUETE, Jesús: *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madrid: Tecnos, 2012. Batzuk aipatzearren.

[54] ARBAIZA, Mercedes (ed.): *La cuestión vasca. Una mirada desde la Historia*. Bilbao: EHU, 2000; BERIAIN, Josetxo; FERNANDEZ UBIETA, Roger (koord.): *La cuestión vasca. Claves de un conflicto cultural y político*. Barcelona: Proyecto A, 1999; CASTELLS, Luis; CAJAL, Arturo (eds.): *La autonomía vasca en la España contemporánea (1808-2008)*. Madrid: Marcial Pons, 2009; CASTELLS, Luis; CAJAL, Arturo; MOLINA, Fernando (ed.): *El País Vasco y España: identidades, nacionalismos y Estado (siglos XIX y XX)*. Bilbao: EHU, 2007; ARBAIZA, Mercedes; PEREZ-FUENTES, Pilar; ARREGI, Joseba: *Historia e identidades nacionales: hacia un pacto entre la ciudadanía vasca*. Bilbao: Servicios Redaccionales Bilbainos, 2007.

[55] Ikus, besteak beste, HOBSBAWM, Eric: *La invención de la tradición*. Barcelona: Editorial Crítica, 2012; ANDERSON, Benedict: *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica, 1993.

[56] Ikus ARANZADI, Juan: *Milenarismo vasco (Edad de Oro, etnia y nativismo)*. Madrid: Taurus, 1981; JUARISTI, Jon: *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid: Taurus, 1987;

hizkuntzalaritzak, besteak beste, zuten garrantzia kontuan hartuz, garaiko intelektualen bizitza eta lanak aztertzen dituzten ikerketak egin dituzte. Antoine D'Abbadie[57], Duvoisin[58], Campion[59], R. M. Azkue[60], etab. Honen guztiaren aurrean, gure hipotesiaren bigarren alderdiari dagokionez, bertsolariek errealitatetik zenbat eta idealizaziotik zenbat hartzen eta jartzen duten aztertu nahi genuke, puntu honetan, bertsolari guztiak zaku berean ezin sartu ditugula frogatuz.

Eta bukatzeko, ikergaiaren hirugarren aurpegia. Bertsolaritzak modernizazio prozesuari zer zor dion eta alderantziz ere frogatu nahi dugu. Bertsopaperen indartzerik posible ote zen gipuzkoarrak –nahiz eta gazteleraz izan- alfabetatu edo erdi-alfabetatu gabe? Bertsopaperen indartzerik posible ote zen herri eta hiriez gain, probintzia eta Estatua indartzen joan gabe? Eta alderantziz, bertsolaritzak zein funtzio bete zuen modernizatzen ari zen Gipuzkoa hartan? Eta bertsolariek? Bertsolariak eta bertsolaritza beraz, iturri eta, aldi berean, eragile ere izan ote ziren aztertu nahi dugu[61].

---

SANCHEZ-PRIETO, Juan María: *El imaginario vasco. Representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo. 1833-1876.* Barcelona: Ediciones internacionales universitarias, EIUNSA, 1993; AZURMENDI, Mikel: *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco.* Irun: Alberdania, 1993; MARTINEZ GORRIARAN, Carlos: *Casa, provincia, rey. Para una historia de la cultura del poder en el País Vasco.* Irun: Alberdania, 1993; ALTUNA, Belen: *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia.* Irun: Alberdania, 2003; ITÇAINA, Xabier: *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak.* Donostia: Elkar, 2012.

[57] Ikus DAVANT, Jean-Louis (et al.): *Antoine D'Abbadie. 1897-1997. Ezohiko kongresua.* Donostia-Bilbo: Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, 1998. Ikus, baita ere, urtebete lehenago Abbadieren eskuizkribuak jasoz Patri Urkizuk argitaratutako hiru liburuak: *Pensées, études et voyages de 1835 (carnet inédit)*; *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires*; *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma. 1851-1897.* Hirurak Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiak elkarlanean argitaratuak, Donostia eta Bilbo artean, 1997an.

[58] Ikus argitaragabea den EHUko Gaur Egungo Historiari buruzko master amaierako lana, DUINAT, Benjamin: *Biografia baterako abiapuntuak: euskal mugaldeko nortasun anitzak eta harrabots gutiko disidentziak. Jean-Pierre Duvoisinen (1810-1891) gutunerian.* 2013.

[59] MAJUELO, Emilio: *La idea de historia en Arturo Campión.* Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011.

[60] KINTANA GOIRIENA, Jurgi: *Intelektuala nazioa eraikitzen: R.M.Azkueren pentsaera eta obra.* Bilbo: Euskaltzaindia, 2008.

[61] Bide hau jarraitzen dute bigarren atalean pausatuago aztertuko ditugun Jose Carlos Enriquez eta Denis Laborderen lanek. Lehenengoak "La invención del bertsolari errante. Entre la consagración del mercado y la instrumentalización historiográfica (1789-1876)" lanean, Donostian Bertsozale elkarteak 2003an antolatutako *Ahozko inprobisazioa munduan* jardunaldietan emandako hitzaldian [ikus www.bertsozale.com/liburua/ahozkoinprobisazioamunduan/hiru/hiru2.htm], eta bigarrenak berriz, *La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque.* Donostia: Elkar, 2005 bere liburuan.

## Lanean jarraitutako metodologia

Lehenengo eta behin, azterketarako beharrezkoak diren oinarri teorikoak[62] landu ditugu: modernizazioa eta identitate prozesuak lantzen eta ulertzen saiatu gara. Ondoren, euskal eta gipuzkoar historiografian, batez ere, gai hauek nola landu diren hartu dugu kontuan. Bertsolaritzaz eta bertsolaritza eta historiaz ere bildu eta landu dugu makina bat irakurgai[63]. Azterketa metodo kualitatiboak, eta hauen artean diskurtsoaren azterketari buruzko hausnarketarik ere egin dugu, bertsoak gisa horretara landu daitezkeen ikusiz, batez ere. Azkenik, eta bereziki, aukeratutako sei bertsolarien lana aztertu dugu.

Aparteko azalpena merezi du azken puntu honek. Bertsoak aztertzerakoan, kontzeptuak multzokatzeko kategoriak asmatu genituen: natura, demografia, ekonomia, gizartea, politika, mentalitateak[64]. Multzokatze hori baliagarri izan zitzaigun lehen hurbilpen baterako. Bertsolari bakoitzak sortutako bertso sailak hartu eta multzo horien arabera sailkatu eta zenbatu genituen[65]. Sailkapen honetan ageri diren zenbakiak ez dira absolutuak, izan ere, bertso sail batzuk atal batean baino gehiagotan kontuan izan ditugu. Sailkapen honi esker, bertsolari bakoitzaren kasuan indar gehien zuten gaiak zeintzuk ziren ikusi ahal izan genuen eta, aldi berean, euren artean konparatzea ere errazagoa izan zen.

Baina, laster konturatu ginen bertsolari bakoitzaren produkzioak bazuela bere barne logika eta egokiagoa zela guk aurrez erabakitako kategorietara ekarri baino, bertsolari bakoitzaren lanean kontzeptu nagusiak zeintzuk ziren ikusi eta horiek euren artean nola lotzen ziren aztertzea. Programa informatiko baten laguntzaz, bertsolari bakoitzaren bertso produkzioa hartu eta hitz zerrendak egin ditugu, modu horretan hitz eta kontzeptu errepikatuenak zeintzuk ziren ikusteko. Azterketa kuantitatibo hutsa ez genuen egin nahi, baina zenbaki horiek kontzeptu

---

[62] Gure azterketa lanean hiru maila bereiziko ditugu: teoria, kategoriak eta kontzeptuak. Teoria diogunean, RAEren arabera, *"serie de leyes que sirven para relacionar determinado orden de fenómenos"* eta *"hipótesis cuyas consecuencias se aplican a toda una ciencia o a parte muy importante de ella"* esan nahi dugu. Kategoriez ari garenean, berriz, Euskararen egungo hiztegiaren (EEH) arabera *"izaki eta adigai guztiak sailkatzeko klase oinarrizkoenetako bakoitza"* edota *"maila edo mota bereko izakiak sailkatzen diren klasea"*z ari gara. Kontzeptua, azkenik, EEHren arabera, *"adimenak sortzen duen gogo objektua"* da.

[63] Bere garaian hainbat elkarrizketa ere egin genituen bertso munduan dabilen jendearekin: Antonio Zavala, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Koldo Tapia, Pello Esnal, Javier Kaltzakorta, Patri Urkizu eta Manu Etxebarriarekin, besteak beste. Ikus, iturri eta bibliografien sailean, elkarrizketatuen zerrenda.

[64] Bakoitzaren pean zer ulertzen dugun jakiteko, ikus metodologiari espresuki lotutako atala.

[65] Ikus 1. Koadroa. Doktore tesiko bigarren atalean, "Iturriak eta Metodologia" izenburua duen horretan, 1.3. puntuan, "Bertsoak aztertzeko erabili dugun metodologia".

batzuen ugaritasuna eta beste batzuen falta sumatzen lagundu digute[66]. Aurkitutako kontzeptu nagusiak kontzeptu mapetan antolatu ditugu. Kontzeptu mapa hauetan, hasierako kategoriak gainditzen eta, batez ere, bertsolari bakoitzaren diskurtso muga gainditzen saiatu gara. Halaber, bertsoek tratatzen dituzten gaien logikaren baitan atontzen saiatu gara, bertsolari ezberdinen produkzioa nahastuz eta elkarrekin harremanduz. Modu horretan, aurrerago ikusiko dugun bezala, lau ataletan banatu dugu iturrien azterketaren emaitzaren azalpena: azken pauso honetan gaiek, eta ez egileek, hartu dute paper egituratzailea. Kontzeptuetatik eta hauen arteko harremanetik eraiki dugu bertsoen gure interpretazioa.

Bertso sailak aztertzerakoan, bertsolari bakoitzaren bizitza eta testuingurua[67] ezinbestekoak izan dira bere bertso produkzioa ulertzeko eta, nagusiki, modernizazio prozesuarekin izandako harremana ikusteko[68].

## Lanaren mugak

Lan honen mugak, jakina, asko dira. Egindako bidean, hartutako erabakien aurrean galderak sortu zaizkigu.

Lehenengoa. Identitatea aztertzeko aukeratutako ikuspegia egokia izan al da? Identitatearen esparruren bat mugatzen ez al genuen ahalegindu behar? Identitate kolektiboaren arazoa eta modernizazioa elkarlotuz ez al diogu azken honi gehiegizko tokirik eman?

Bigarrena. Ia-ia bertsoen azterketan soilik oinarritu al genezakeen doktorego tesi baten azterketa?

Hirugarrena. Zenbateraino dira aukeratutako bertsolariak herri xehearen ahots? Euretako bakoitzak aukeratzen al du zertaz eta nola kantatu? Kantatutakoak nola hartu zituzten garai hartan bizi ziren gizon-emakumeek?

---

[66] Hona eskuartean erabili ditugun hitz kopuruak: Pello Errotaren kasuan, 26.565 hitz; Xenpelarren kasuan, 20.945 hitz; Bilintxen kasuan, 15.050 hitz; Otañoren kasuan, 38.516; Lopetegiren kasuan, 16.807; eta Txirritaren kasuan, 86.040 hitz. Excel artxiboetan ditugu hitz zerrenda hauek. Egia da hitz zerrenda hauek ez dutela bere horretan balio: landu egin behar dira. Erro bereko hitzak multzokatu eta kontatu egin behar dira hitzak baino gehiago, kontzeptuak zeintzuk diren ikusteko. Hala ere, nahiz eta lana eman, oso lagungarri izan zaigula uste dugu.

[67] Honako datuak kontuan hartzen saiatu gara: jaio eta heriotza urtea eta lekua, jatorrizko familiaren ezaugarriak, berak sortutako familiaren ezaugarriak, izaera, alfabetatze maila, bizi zen etxearen jabe edo maizter zen, ogibidea, bizitzako gertaera nagusiak, lagun eta harremanak, politikoki zein alderditakoa zen eta ea hau agertzen zuen, sinestuna al zen eta ea hau ageriko egiten zuen, eta, azkenik, bertsolaritza nola bizi zuen. Datu hauek bibliografiatik jaso ditugu.

[68] Metodologiaz orrialde gehiago, doktorego tesiaren bigarren atalean.

Laugarrena. Metodologia kontuei erreparatuz, irudikapenen azterketa hutsa historiari al dagokio? Aniztasunaren goratzarre honek, apenas sei gizon koxkorren bizitza eta esanak ikertzera mugatzen den lan honek, ez ote ditu historiak ohiko dituen lerro nagusien azterketak lausotzen?

Bosgarrena. Ezer berririk ekarri al du azterketa honek XIX. mendeko Gipuzkoa aztergai duen historiografiara? Merezi al du benetan egindako lanak?

Luis Michelena hizkuntzalariaren hitzak ekarriko ditugu euskal dialektoei buruz ari dela, Txirrita ahotan hartuz, euskal historiaz egiten duen gogoetarekin (gogoeta eta errieta ere bai, apika):

> *"[A Txirrita] como miembro de un cuerpo marginal (al estilo de los aedos, escaldas, juglares, trovadores y otros) podría considerársele no representativo, pero ese cuerpo, el de nuestros bersolaris modernos, no podía existir y subsistir más que en el más apretado contacto con la sociedad de su tiempo: más precisamente, con sus capas más amplias y menos dotadas de distinción y de dinero. De ellos recibía tanto como ofrecía, ya que, dueño de su arte, vivía de dar voz a lo que otros no eran capaces de expresar de forma tan elaborada y por ello mismo permanente. Por desgracia, lo que se ha dicho en lengua vasca parece no interesar por lo común a nuestros historiadores. Nadie, sea dicho en disculpa de aquéllos, parece tampoco haberse fatigado gran cosa en mostrarles el interés que tales testimonios podrían tener"*[69].

Ez gara nor aurreko lerroetan aipatu ditugun galderei erantzuteko. Gure lana ez da horiei ematen diegun erantzuna. Baina, ezinbestean, gure lana kezka eta galdera horien baitan kokatzen da.

## Eskertza

Eskerrak nori eman? Lehenengo eta behin bizia eman, hazi eta heziz, pertsona izaten lagundu didaten gurasoei, gure aita Angel Mariri eta ama Kristinari. Ezagutu ez nituen aitona Angeli eta Anttoni, eta magal-besoetan goxatu ninduten amona Mariari eta Luziari. Izeba-osaba, lehengusu eta gainerako ahaideei. Izena eta izana eman didatenei.

Nori gehiago? Senar dudan Mikeli. Egunez egun bizitzen amultsuki irakasten didanari, eta pertsona hobea izan nadin, nire hutsuneak ikusarazi eta gainditzen laguntzen didanari.

[69] MICHELENA, Luis: "Fenómenos de convergencia en la historia de los dialectos vascos". In: *Fontes Linguae Vasconum*, 61 (1992) 358. or.

Gure Maddiri. Nire izatea berrirakurtzen eta eguneratzen laguntzen didan alabatxoari, etorkizunera begira halabeharrez jartzen nauenari.

Eskerrak, orobat, doktorego tesi hau egiteko zuzeneko laguntzaile izan ditudanei. Lehenengo eta behin, azterketa honetan bidelagun izan dudan zuzendariari, niganako bere pazientzia infinituagatik eta beti –beti- aurrera jarrai nezan esan dizkidan hitz adoregarriengatik. Ondoren, nire bizitzan zehar izan ditudan irakasleei, ikastolatik hasi eta unibertsitaterainoko irakasleei. Azken hauek, irakasle lehendabizi eta gero lankide izateko ohorea eman didate. Beren eskoletan irakatsitakoagatik eta nigan izan duten konfiantzagatik. Mila esker. Huts egin ez izana espero dut. Eta, hala bada, ez haien erruz, nire ezin eta mugek eraginda baizik.

Eta "azken orduan ixil-ixilik" isil-isilik lanean jarduten duten eta gure lana errazten duten Deustuko Unibertsitateko liburutegiko lankideei, Xenpelar dokumentazio zentroko kideei eta hainbat kultur erakundetako[70] katalogo, web orri, artxibo, etab. osatu eta zaintzen dituztenei. Zuen laguntzarik gabe –egiaz diot- lan hau ez zen posible izango. Eskerrak baita ere Itziar Navarro eta Sara Muniozguren Deustuko Unibertsitateko Itzulpen zerbitzuko lankideei, doktore tesia euskaraz txukun idazteko egin dizkidaten zuzenketa eta emandako aholkuengatik.

## Aperitif gisa, lanaren atalak

Horiek guztiak esan ostean, zer gehiago? Oraintxe gaude atarian, hasteko prest. Lau atal nagusi ditu eskuartean duzuen doktorego tesi honek. Lehenengoa, historiografiari dagokiona: zer idatzi da lehenago, aztergai dugun gai honetaz? Jakina, amaierarik gabeko hari mataza izan daiteke hau. Hariari tiraka hasiko gara punta batetik eta neurri egokia dela deritzogunean, utzi egingo diogu lan honi. Asmatu izana espero dugu: liburu, monografia, artikulu… bere horretan, ez gehiegi, ez gutxiegi landu izana, bederen.

Bigarren atala, iturrien eta metodologiaren inguruan landutakoa da. Bertsolaritzari eta honen azterketari toki berezia egin diogu atal honetan, lehen ere aipatu dugun eta erabili ditugun iturrien berezitasunaz ohartuta.

Hirugarren atalean, gure lanerako aukeratu ditugun sei bertsolariak aztertuko ditugu. Egitura antzekoa jarraitu dugu kasu guztietan: lehenengo, bertsolari horri buruz bibliografiak dioena jasotzen saiatu gara; bigarren, bere bizitzari buruzko

[70] Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Sancho el Sabio fundazioa, Koldo Mitxelena kultur gunea, etab.

datu biografiko nagusiak azpimarratzen saiatu gara; hirugarren bere bertso produkzioaren ezaugarri nagusiak eman ditugu.

Laugarren atala, azterketa bera, lanaren muina, alegia, bertsolarien bertso produkzioaren ikerketa eta honen emaitzak biltzen dituena da. Sei "diskurtsoen" azterketa zehatza egin dugu, jasotzen dituzten kontzeptu nagusiak emanez eta hauen esanahia argitzen saiatuz. Bertsolarikako banaketa gainditu egin dugu hemen berriro. Gipuzkoan modernizazio prozesuen aurrean identitateek alor ezberdinetan jasandako aldaketak izan dira gure lanaren egituratzaile: ekonomia, demografia eta familia, gizartea eta politika eta mentalitateen alorra bereiztu ditugu.

Ondorioak papereratuz eta, bidenabar, galdera berriak argitara ekarriz, amaitutzat eman dugu lana. Iturri eta bibliografia zerrendek eta zazpigarren atalean gehitutako eranskinek osatzen dute lana.

Orain artean gurea zena, gure baitan baino errealitate ez zena, zuena ere bada, hemendik aurrera, paperean idatzia dagoenez gero. On egin!

# LEHENENGO ATALA:
# KOKAPEN HISTORIOGRAFIKOA

Sarrera irakurri ostean, hauxe da doktorego tesi honetarako lehenengo hurbilpena. Era honetako ikerketa batean, doktoregaiak aztertu eta landu duen gaiari buruz idatzi dena ezagutzen duela erakutsi behar izaten du, baita bere azterketa ordura arte egin diren lanen kateari lotua bai, baina katebegi berriak eskaintzeko egina dela frogatu ere. Horiexek lirateke "Kokapen historiografikoa" atalaren helburu nagusiak.

Gure kasuan, historiografiari dagokion lehen atal honek baditu kontuan hartu beharreko hainbat berezitasun. Berezitasun horiek, neurri batean, egin dugun ikerketa bideak ezarriak dira. Doktorego tesi honen hasieran genuen helburua ikerketa gauzatzen joatearen ondorioz zenbat eta gerturago izan, orduan eta garbiago ikusten joan ginen benetan aztertzen ari ginena zer zen. Orduan erdi itsuan egin genuen bidea "desibiltzera" gatoz orain. Hasierara gatoz berriro, baina nora iritsiko garen jakinda, abantaila daukagu.

Gure lanaren hasierako helburua modernizazioaren testuinguruan gipuzkoar herri xehearen[71] identitatea aztertzea zen. Hori zela eta, identitate kontzeptuari lotutako hainbat irakurketa egin genituen hasiera hartan, gerora ere osatzen joan garenak[72]. Identitateaz ari garenean zertaz ari garen garbiago izaten lagundu zigun horrek eta gure azterketa historikoaren ortzimuga zabaltzen.

Identitateari lotutako bibliografiaz gainera, ikerketan erabiliko genituen iturriak bertsoak izanik, laster hasi ginen bertsolaritzari lotutako hainbat lan eta aztergai

[71] "Herri xehe" diogunean ez gara ari monolitikoa den herri batean pentsatzen, aurpegi eta ahots bakarra duen talde batean. Oro har, "gehiengoa" den giza taldean pentsatzen ari gara. Zer zuten euren artean berdina? Garai hartan, maila ekonomiko ahulena zutenak ziren, jabe ez zirenak, bizitzeko lan egin behar zutenak, prestakuntza maila txikiena zutenak. Zer zuten euren artean desberdin? Landatar ala hiritar izatea, ofizioa, joera politikoa. Erabili ditugun iturriengatik euskaraz mintzatzen zen edo euskara ulertzen zuen giza taldeaz ere ari gara.

[72] Atal honetan, doktorego tesiko zuzendariaz aparte, Jose Antonio Marin irakasle eta lankideari eskerrak eman nahi dizkiogu egin dizkigun gomendioengatik eta utzi dizkigun materialengatik.

genituen bertsolari zehatzei lotutako irakurketak ere egiten, baita ordura artean historia egiteko bertsolaritza iturri gisa erabili zuten historialarien lanak kontuan izaten ere.

Bertsoen irakurketa eta azterketa zehatzean zenbat eta gehiago aurrera egin, guk iturriei aurrez egin nahi genizkien galderak birbideratu beharrean ginela konturatu ginen, eta egokiagoa zela iturriei beraiei hitz egiten entzutea. Identitatearen arazoa ez zuten azaltzen aztergai genituen bertsolari guztiek. Bazen, ordea, era batera edo bestera, guztiek kantugai hartzen zuten gai zabala: Gipuzkoan gertatzen ari zen modernizazio prozesu konplexu eta askotarikoak zekartzan aldaketak. Nola hurbildu, ordea, XIX. mendeko gipuzkoar modernizazioa aztertzen zuen bibliografiara? Modernizazioa alor ekonomikoari lotuta, urbanizazioa, demografia aldaketak, gizonen eta emakumearen paperaren moldaketa, gizartearen artikulazioan gertatzen diren aldaketak, ideologia politikoen sorrera eta indartzea, sekularizazioa, "euskal" identitatearen oinarriak (hizkuntza, ohiturak, historia), etab. Asko ziren bertsolariek kontuan hartzen zituzten gaiak. Gaur egungo historia, bere osotasunean, nola jarri gure atal historiografikoaren jomugan? Nola, euskal historia garaikidearen ikerketak azken berrogei urteetan egin duen ibilbide zabala kontuan izanda?

Egoera horrek sosegurik eza sortu zuen gugan, baita, neurri batean, gure ikergaia hainbeste esparrutan disolbatzen ari ote zenaren kezka ere. Heldu egin behar izan genion, berriro ere, gure hasierako galderari, eta egoera berri horretan birkokatu beharra izan genuen. Iturriek ziotenaren argitan, zer zen guk benetan ikertu nahi genuena, edota hobeto esan, zein zen egitea zegokigun galdera, zein zen galdera egokia? Horixe aurkitzea ez da erraza izaten.

Zein zen gure doktorego tesiaren oinarrizko galdera? Bertsolarien ahoz herri xehearen baitan modernizaziorako zein kontaera zabaldu ziren. Horixe zen gure kezkaren muina. Honen baitan biltzen ziren, jakina, identitatearen gaia, modernizazio prozesuan ematen ziren aldaketa ugariak eta baita bertsolaritzaren beraren azterketa ere. Baina horiek guztiak, gure galderaren iparra galdu gabe.

Bide horrek guztiak gure doktorego tesia ukitu du, eta euste puntu egokia ematen lagundu digu. Guk hala uste dugu.

Zein izan da bide horren eragina historiografiari dagokion atalean? Nola erabaki dugu antolatzea historiografiari dagokion atala?

Lehenengo, ohar hau egin behar dugu: egin dugun errepaso bibliografikoa hainbat alorri dagokiona denez gero, doktorego tesi honetako atal batean baino gehiagotan jasoko dugu horren berri. Bigarren atalean, iturriei eta metodologiari dagokion horretan, bertsolaritzaz mintzo diren lanak, historia egiteko iturri gisa bertsolaritza erabili izan duten lanak, eta XIX. mendeko bertsolaritzaz dihardutenak jasoko ditugu. Historia egiteko dauden hainbat korronteren berri ere jasoko dugu, labur-labur.

Lanaren hirugarren atalean, "Diskurtsoen egileak" izena eman diogun horretan, Bilintx, Xenpelar, Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegiri buruz esan direnen errepasoa egiten ere saiatuko gara.

Eta, zer utzi dugu, beraz, "Kokapen historiografikoa" deitu diogun atal honetarako? Gogora dezagun gure ikerketaren bihotza: bertsolarien ahoz herri xehearen baitan modernizaziorako zein kontaera zabaldu ziren aztertu nahi izan dugu. Ba al da zuzen-zuzenean era horretako azterketarik? Gaia zeharka edo zatika lantzen duten lanak bai, baina ikuspegi orokorraz eta bertsoak sistematikoki aztertuz osatutakorik ez dugu aurkitu.

Zeintzuk dira galdera horri lotutako nukleo edo kezka teoriko nagusiak? Batetik, identitateari lotutakoa: izan ere, ikusiko dugun bezala, bertsolari zenbaitek modernizazioaren testuinguruan eta horretarako pausoan identitatearen gaia jorratuko du. Gai horri helduko diogu, beraz, "Kokapen historiografikoa" deritzon atal honetan. Identitatearen azterketa Gipuzkoaren kasuan, edota, halakorik ez balego, XIX. mendeko Euskal Herrian aplikatu ote den ere jasoko dugu hemen.

Bestetik, identitatearen arazoa eta modernizazio prozesua estuki lotuta daudela ikusiko dugu: horregatik, modernizazio prozesura eta, zehazki, Gipuzkoako modernizazio prozesura hurbildu gaituzten lanen berri ere emango dugu atal honetantxe. Lehen esan bezala, modernizazio prozesuak bereak dituen hainbeste eta hainbeste ikerketa lerroetan ez galtzen saiatuko gara hemen. Horretarako, XIX. mendeari buruzko edo Gipuzkoako historiari buruzko historiografia lantzen duten artikuluen laguntza eskerga izango dugu[73]. Gure lanaren helburua ez da

[73] Historiografiaz honako artikuluak lagungarri izan dakizkiguke ikuspegi orokor bat lortzeko: AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales". In: *Historia Contemporánea,* 7, (1992), 257.-281. or.; MONTERO, Manuel: " La invención del pasado en la tradición historiográfica vasca". In: *Historia Contemporánea*, 7 (1992) 283.-294. or; URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes. Una visión desde Gipuzkoa (1975-2000)". In: *Sancho el Sabio,* 19, (2003), 11.-66. or.; AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Euskal historiografiaren ikuspegi gaurkotua, iraganeko begirada euskaldunen abiadan". In: *Vasconia*, 34, (2005), 407.-422. or.; AIZPURU, Mikel: "Historia euskaraz

modernizazioaren alderdi zehatz batean sakontzea –industrializazioa nola bizi izan zuten, edo emakumearen papera XIX. mendean, adibidez, edota aztertu daitezkeen hainbat eta hainbat gaitatik bat hartu eta horretan sakontzea-: guk hobesten dugun ikuspegia bertsolarien ahoz proposatutako kontaeren azterketarena da, eta horiek eskaintzen zuten ikuspegi global edo holistikoarena.

# 1.Identitatea

Gure doktorego tesiaren hasierako gaia gipuzkoar herri xehearen identitatea aztertzea izanik, lehen esan bezala, identitatearen gaiari lotutako irakurketak egiteari eman gintzaizkion. Antropologiaren eta filosofiaren ikuspuntutik, nagusiki, nola ulertzen zen kontzeptu hori? Zein zen bere esanahia? Zein ezaugarri zituen? Zer hartu behar genuen kontuan gure azterketarako?

Lehenengo eta behin, konturatu ginen identitatea kontzeptua esanahi askokoa zela. Eugenia Ramírez Goicoechearen arabera, eta Brubaker eta Cooperri jarraiki, hiru funtzio betetzeko erabili izan da identitatea kontzeptua[74]: identifikatzeko edo kategoriak osatzeko, nork bere burua ulertzeko eta gizartean kokatzeko[75], eta, azkenik, komunalitateari, konektibitateari eta taldeari erreferentzia egiteko.

Esanahi aniztasun hori dela eta, hainbat autorek kontzeptu honen erabileraren kontra egin du, edota, erabiltzekotan, egin beharreko zehaztapenak azpimarratu dituzte[76]. Eugenia Ramírezek eztabaida teoriko horien gaindi, identitatea kontzeptuaren erabileraren alde egiten du:

> *"Por todo ello, no tengo tan claro que tengamos necesariamente que deshacernos de un concepto tal sin antes descartar intentar reformularlo. Desde una lógica difusa, identidad puede relacionarse con todos estos ámbitos de significado enumerados*

XX. mendean, nahiaren eta ezinaren artean. Lehen hurbiltzea". In *Vasconia,* 34, (2005), 423.-451. or.; RUBIO, Coro: "El siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia*, 34, (2005), 301.-336. or.

[74] RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad: teorías, conceptos y procesos de la relacionalidad grupal humana.* Madrid: Editorial Centro de Estudios Ramón Areces, 2011. 184. or.

[75]Hasiera batean, gizabanakoari lotuta erabili zen identitatea kontzeptua. Erik Erikson psikologoak erabili zuen nerabezaroaren azterketarako. Ervin Goffman, Peter Berger eta Thomas Luckman eta Margaret Mead-ek, besteak beste, zabaldu zuten identitate kontzeptua azterketa etnikoetara. Hala dioskute Eugenia Ramírezek eta Vincent Descombesek. Hala ere, gizabanakoari dagokion identitate kontzeptuaren unibertsaltasuna zalantzan jarria izan da autore askoren partetik. Ez ote hori mendebaldeko kulturen eraikuntza?

[76] Ikus BRUBAKER, Rogers; COOPER, Frederick: "Beyond <identity>". In: *Theory and Society*, 29, (2000), 1.-47. or.; edota DESCOMBES, Vincent: *Les embarras de l'identité.* Gallimard, 2013.

> *arriba de forma variable y compleja, como la confluencia de todas estas dimensiones que, no obstante, no se agotan en la misma, puesto que pueden comportarse también autónomamente como sistema propio. No se trata de decidirse por una concepción infinitamente elástica, aplicable a todo y, por tanto, a nada en concreto. Sólo el análisis teórico e interpretativo de cada caso empírico- así como sus posibilidades de comparación crosscultural- nos darán la medida y el modo en que emergen los procesos identitarios en su producción, expresión, objetivación/subjetivación, reconocimiento, legitimidad, autoreferencialidad y heteroreferencialidad en sus relaciones sistema/entorno, atracción recursividades y reconstitución"*[77].

Esanahiaz gain, identitatea kontzeptuari lotuta eztabaidatzen den beste alderdi bat honen kokapen kronologikoa da. Autore gehienak bat datoz identitatea arazo gisa bizitzea garaikidetasunari loturik datorrela pentsatzearekin: *"En Occidente, la identidad como problema especulativo es, sin duda, algo contemporáneo, moderno, fuertemente incrustado en nuestro pensamiento intelectual y político"*[78]. Guk, hain justu, Gipuzkoaren Gaur egungo historiaren baitan identitatea arazo gisa sortu zeneko garaiari erreparatu nahi izan diogu gure doktorego tesian. Kronologiari lotuta, bada autore ezberdinek lantzen duten beste gai bat ere: identitatearen krisiarena, modernitate aurreko identitate modu batetik identitate moderno baterako pausoa[79], forma komunitarioetatik gizarte formetara igarotzea[80].

Identitatea aztertzerakoan kontuan hartzen den beste ezaugarri bat: irudikapen edo errepresentazioei lotutako kontzeptua da. Identitatea ez da errealitate objektibo gisa existitzen; aitzitik, irudikapen bat da. Eugenia Ramírez Goicoechearen arabera:

> *"(…) yo entiendo identidad como una categoría (entre otras cognizada o no lingüísticamente) de la clasificación y de la práctica, una construcción de representaciones, ordenaciones, interpretaciones e inter-acciones por las que nos relacionamos –de maneras específicas- con nosotros mismos y con los demás, cualesquiera forma cultural de la constitución de aquellos y estos, en términos de semejanzas y diferencias, proximidad y distancia, en sus varias gradaciones y configuraciones"*[81].

Eta zehatzago oraindik, irudikapen edo errepresentazio horiek ez dira berezko errealitate:

---

[77] RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad,* op. cit., 184. or.
[78] RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad,* op. cit., 179. or.
[79] DUBAR, Claude: *La crisis de las identidades. La interpretación de una mutación.* Barcelona: Edicions Bellaterra, 2002. Soziologoa da Claude Dubar. Honek, besteak beste autore klasikoak aztertuz –Norbert Elias, Max Weber, Marx eta Engels-, egungo Frantzian identitatearen alorrean gertatzen ari diren aldaketak jasotzen ditu.
[80] "Formas comunitarias", "formas societarias" kontzeptuak erabiltzen ditu Claude Dubarrek.
[81] RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad,* op. cit., 186. or.

> *"No hay identidades básicas porque éstas no tienen la certeza de una verdad, ni la cualidad de un objeto sustantivo; es más bien la posibilidad de una ordenación de fragmentos, de retazos (estamos hechos de muchos otros y formamos parte de esos muchos otros), de la instauración de un campo gravitacional de atracción que organice y dote de cierto sentido determinadas experiencias idiosincrásicas en contextos socioculturales determinados. No preexiste el proceso ni a las condiciones simbólicomateriales que la producen y por las que se constituye. Identidad nunca puede considerarse independientemente del ámbito relacional al que se refiere. Su verdad depende de procesos de objetivación y naturalización social así como de sistemas de legitimación y reconocimiento social y, por ende, político"*[82].

Identitatea eta identitatearen sorrera loturik dago alteritatearekin, nork bere identitatea eta taldearena "bestea"rekiko erreferentzian eraikitzen du:

> *"(…) la alteridad sólo puede existir a través de sus incardinaciones prácticas y representacionales. Define prácticas y representaciones localizadas en el tiempo y en el espacio, encarnadas en agentes concretos, en contextos de estructuras socioeconómicas, políticas, institucionales, ideográficas, morales, emocionales específicos, con independencia de sus propias dinámicas autónomamente dependientes. Por eso para Krotz la alteridad no es cualquier constatación de la diversidad, sino que implica extrañeza sobre las prácticas, ideas y costumbres de gentes con las que antes no había contacto (intra o intergrupalmente), en comparación con la familiaridad que produce lo propio y habitual. Implica un reto teórico práctico, que, no obstante, se basa en el reconocimiento de alguna dimensión común entre las partes. Ésta sólo toma existencia en el mismo proceso de experiencia y reflexividad del contacto y la relación entre las partes"*[83].

Javier Gomá Lanzónen hitzetan, identitatea gizakiari duintasuna ematen dion narrazio sinesgarria sortzean datza : *"La identidad del hombre depende de la habilidad para crearse una narración creíble sobre el mundo que otorgue a su vida un papel digno"*[84]. Aztergai ditugun bertsolariek euren bertsoen bitartez bizitzen ari zirenari zentzurik bilatzen al zioten? Nola? Eta are gehiago, herri xeheak aurkitzen al zuen bertso haietan euren bizitzetarako diskurtso zentzu emailerik?

Identitateaz ari garen honetan, identitatearen azterketa historiatik nola egin daitekeen ere jaso nahi genuke, izan diren hurbilpen posibleak hona ekarrita. Hainbat ikuspegi jasotzen ditu Miguel Angel Cabrerak gai honi buruz, eta interesgarri gerta daitezke gure lanerako[85]. Historia tradizionalak, historia sozialak, historia soziokulturalak eta historia berriak identitatea aztertu dutenean nola egin

---

[82] RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad,* op. cit., 187. or.
[83] RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad,* op. cit., 188. or.
[84] GOMÁ LANZON, Javier: *Babelia*, 1010, *El País*, 2011-IV-2an.
[85] CABRERA, Miguel Ángel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad.* Madrid: Cátedra, 2001. 101.-142. or.

duten jasotzen du autore horrek. Ekar ditzagun gure lanera horri buruzko hainbat gogoeta.

Historia tradizionalak gizabanakoa hartzen zuen bere azterketen oinarri. Horren ustez, gizabanakoak hauxe ziren: *"sujetos naturales, autónomos, originarios, unitarios y estables, y, por tanto, como agentes racionales y plenamente conscientes que son los autores centrados de la práctica social y, por tanto, la base y origen de las relaciones sociales"*[86].

Historia sozialarentzat, berriz, identitatea ez zen ezaugarri naturala, eraikuntza soziala baizik. Ez zen mugiezina, forma historiko bat baizik, egoera sozialaren arabera aldatzen zena. Identitatea gizabanakoek gizarte harremanetan betetzen zuten tokiaren araberakoa izango litzateke horrela.

Historia soziokulturalarentzat, bestalde, identitate kontzeptua dinamikoagoa izango litzateke, konplexuagoa. Kontzientziaren eraikuntzan garrantzia bitarteko sinboliko, kultural edo narratiboek izango lukete. Identitatea argitara aterako da eta ekintza bihurtuko da nork bere buruaren kontzientzia izatean, esperientziaz baliatuz, hausnartua eta aldatua denean. Historia soziokulturalak identitatea *"condición fluida, contingente, inestable y fragmentada del sujeto, carácter multifacético y plural"*[87] bihurtuko du eta subjektua *"figura poliédrica, incluso caleidoscópica, compuesta de caras o facetas distintas y resultante de la conjunción, a veces conflictiva, de múltiples referentes identitarios (clase, raza, género, sexo, nación, religión, etc.) que se reordenan y rejerarquizan continuamente en el flujo de la vida social y en función de las estrategias vitales de los propios sujetos"*[88]. Hala ere, identitatea oraindik ezaugarri sozial objektibo gisa ulertuko da eta testuinguru sozialak baldintzatuko du identitatea.

Historia berriarentzat, azkenik, identitateak gizarte identifikazio moduak lirateke, gizabanako eta taldeek euren izatea hautemateko duten modua. Identitateak izate historikoak lirateke, ez esentzia unibertsal eta autonomoak. Identitateak ez lirateke egoerak izango, posizioak baizik, entitate diferentzial eta harremanezkoak. Ez lukete, beraz, osotasuna eratuko, pluraltasuna eta haustura lituzkete ezaugarri. Gizarte identitateak gizarte errealitatetik eta jasotako kategoria paradigmen arteko elkarrekintzatik sortuko lirateke: esanahia emateko prozesu baten ondorio izango litzateke, beraz, identitatea. Hau da: *"los individuos se construyen significativamente*

[86] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 111. or.
[87] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 112. or.
[88] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 112. or.

*como tales al aplicar una rejilla clasificatoria de origen discursivo*»[89]. Planteamendu horrek bi ondorio nagusi ditu: batetik, identitatea objektuari loturik dago eta ez erreferenteari. Bestetik, identitate objektuak ez dira aurrez existitzen, objektuak eta identitateak aldi berean sortuz doaz, testuinguru sozialaren artikulazio prozesuan eratzen dira, esanahidun espazio baten baitan.

Imaginario sozialek garrantzia izango dute planteamendu horretan. Imaginario horiek hitzak eskainiko lituzkete, testuinguruari existentzia esanahiduna emango liokete, gizabanakoek horretan duten tokiari izena emanez, nor bere buruaren pertzepzioa osatzen lagunduz, testuinguruaren baitan subjektu eta agente bihurtuz. Diskurtsoak baldintzatuko du, beraz, gizabanakoaren identitatea. Imaginarioak erabakiaraziko du zein ezaugarri fisiko, sozial, ekonomiko, etab. diren garrantzitsu. Subjektibazio kategoriak identitatea bera baino lehenagokoak izango dira, bai eta identitate objektua bera baino lehenagokoak ere. Beraz, gizabanakoek beren buruaren pertzepzioa egiten dutenean eta bere burua identifikatzean dutenean, ez dute hori egiten gizarte kategoria bateko partaide bezala sentituz bakarrik, bai eta honek duen identitate esanahia bereganatuz ere. Diskurtsoak bihurtzen ditu gizabanakoak subjektu. Gizabanakoak ez dira identifikatzen ezaugarri batzuk dituztelako, ezaugarri horiek direla eta deituak direlako baizik: horretarako beharrezkoa da ezaugarri horiek aurrez subjektibazio marka gisa objektibatuak izatea.

Historia berriarentzat, identitatea kontingentea da, aldakorra eta diferentziala. Identitatea kontingentea da ez agertzen delako edo agertzen ez delako, baizik eta sortzen delako edo sortzen ez delako. Errealitate sozialaren artikulazioan doaz eratuz identitate objektuak. Horregatik, identitate objektuei ezin diegu indar normatiborik eman; ezin dugu, ezta ere, identitateen artean kategoriarik edo hierarkiarik sortu, batzuk besteak baino "naturalago" edo "hobeago" bailiren.

Identitateak aldakorrak eta ezegonkorrak dira, ez soilik egoera soziala aldakorra delako, baizik eta diskurtsoaren baldintzak ere aldakorrak direlako. Subjektua ez da aldaezina, ezta sozialki ere. Esentzialismo soziala ere bertan behera uzten du historia berriak.

Eta, azkenik, identitateak izate diferentzialak dira, beren forma eta izaeragatik. Identitateak kontraste bidez osatzen dira, beste identifikazio aukera batzuk kanpoan utziz eta mugak eraikiz. Bikoteka eraikitzen da identitatea (zuri edo beltz, proletario edo burges): hitz bat bestearen menpeko da eta elkar inplikatzen dute

[89] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 115. or.

gainera. Historia berriarentzat, gainera, identitatea diferentziala da, diferentzia sistema bat aplikatuz sortzen delako.

Identitatea ez da lengoaiaren bitartez transmititzen, baizik lengoaiaren baitan osatzen den ezaugarria da. Historia berriarentzat, subjektua posizio diskurtsiboa da, eta identitate guztiek dimentsio diskurtsiboa dute. Diskurtsoak subjektua interpelatu egiten du: subjektuak ez daude historiatik kanpora, ez dira abstraktuak, baina subjektu bihurtzen dituena kanpotik datorren imaginarioa da. Identitate baten azterketan, beraz, ez da nahikoa izango objektuak eta erreferenteak aztertzea: diskurtsoaren baldintzen azterketa nahitaezkoa izango da (erreferentea erreferente identitario bihurtu zutena, eta beste zenbait erreferente bazterrera utzi zituena). Kategoria sarearen azterketa egin beharko dugu kasu bakoitzean horretarako, kontzeptuen sorrera bera gertakizun historiko gisa aztertuz. Kategoria sarea osatzeko prozesua aztertu beharko dugu. Adibide gisa, har dezagun klase identitate nozio berria: ez da klase sozialen adierazpen subjektiboa, edo bizi baldintza materialena, edo garai modernoko aldaketa sozioekonomikoena. Imaginario sozial modernoaren bitartekaritza aktiboaren bitartez sortzen da. Aldaketa sozialek eta diskurtsoaren aldaketek sorraraziko dute klase identitatea. Miguel Angel Cabreraren ustez argitu beharrekoa da *"cómo la clase pasó a estar disponible como base de la cognición y las acciones de las personas"*[90]. Kategorien genealogia eraikitzea beharrezkoa izango da horrela.

Soziologiaren ikuspegitik ere, identitatearen azterketan hizkuntza oso da garrantzitsua:

> *"La cuestión de la subjetividad es, en primer lugar, una cuestión de lenguaje. Pasar de las atribuciones a las identidades <comunitarias>, que reducía a cada sujeto a no ser sino un miembro intercambiable de su colectividad étnica o un agente encerrado en su papel y prisionero de definiciones puramente <estatutarias> por medio de categorías predefinidas, a identificaciones subjetivamente apropiadas, que pongan en juego la reflexividad, exige un reconocimiento y una valoración de todos los niveles de lenguaje. El sujeto que aprende debe construir y apropiarse de su propio lenguaje, el lenguaje de su identidad personal, lo que se convierte en un proceso vital que las instituciones deben poder reconocer. Aprender a decirse se convierte en una clave esencial de las relaciones societarias, tanto en la esfera privada como en la profesional o pública. No se trata para el sujeto, con la ayuda de sus formadores, sólo ni principalmente de aprender una lengua, sino de apropiarse de los lenguajes y acceder a su propia expresión.*
>
> *El Yo reflexivo se construye en un proceso de aprendizaje de un lenguaje para sí. Lenguaje de la intimidad y de las relaciones afectivas, y también lenguaje de la*

[90] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 128. or.

> *reflexión, de la apropiación personal de las grandes obras del patrimonio cultural de la humanidad. La individualización es, en primer lugar, el aprendizaje personal de la comunicación íntima con los creadores a través de la lectura, la música, el teatro, el cine, la frecuentación de los museos, etc. Pero también la individualización es el aprendizaje de la expresión de sí, en la vida privada y amorosa y en las relaciones íntimas que permiten la revelación del sí. Pero también es la participación en relaciones profesionales en el seno de las instituciones de formación y trabajo. Y es, por último, el hecho de forjarse convicciones, de poder modificarlas y de argumentar las razones para escoger a tal o cual representante. La exploración de todas las disciplinas que tratan de la subjetividad a partir del análisis del lenguaje, desde las manifestaciones del inconsciente a las improntas de la enunciación, pasando por los procedimientos argumentales de la persuasión y de las formas narrativas como medios de expresión de un proyecto subjetivo, me parece cada vez más necesaria para los sociólogos si es que quieren tomar en cuenta la subjetividad y superar las reducciones de los individuos a sus orígenes comunitarios y a sus pertenencias estatutarias. El lenguaje de la identidad personal no puede analizarse sin los múltiples recursos de las ciencias del lenguaje y de sus apropiaciones subjetivas"*[91].

Identitatearen azterketarako hizkuntzari ematen zaion garrantziak, gure ustez, berretsi egiten du ikerketa iturri gisa hitza erabiltzen espezialistak ziren bertsolariak eta hauen lanak hautatu izana.

Hainbat historialarik, beren lanetan XIX. mendean identitatearen gaiaren azterketa egitean, eta mende honetan gertatu ziren hainbat aldaketaren aurrean gizarteak izan zuen erreakzioa aztergaitzat hartuz, garrantzi berezia eman diote "tradizioaren" asmakuntzari. Horien artean ditugu Eric Hobsbawm eta Anne-Marie Thiesse, besteak beste. Eric Hobsbawmen hitzetan:

> *"Probablemente, no hay ningún tiempo ni lugar por el que los historiadores se hayan interesado que no haya vivido la <invención> de la tradición en este sentido. Sin embargo, hay que esperar que sea más frecuente cuando una rápida transformación de la sociedad debilita o destruye los modelos sociales para los que se habían diseñado las <viejas> tradiciones, produciendo otros nuevos en los que esas tradiciones no puedan aplicarse, o cuando esas viejas tradiciones y sus portadores y promulgadores institucionales se convierten en insuficientemente adaptables y flexibles, o son de algún modo eliminados: en resumen, cuando se producen cambios lo bastante amplios y rápidos en la oferta y en la demanda. Estos cambios han sido particularmente significativos en los últimos 200 años, y, por consiguiente, es razonable esperar que formalizaciones instantáneas de nuevas tradiciones se agrupen durante este período. Esto implica, incidentalmente, tanto contra el liberalismo decimonónico como contra la más reciente teoría de la <modernización>, que estas formalizaciones no sólo se limitan a las denominadas sociedades <tradicionales>, sino que también tienen lugar, en una forma u otra, en*

[91] DUBAR, Claude: *La crisis de las identidades. La interpretación de una mutación.* Barcelona: Edicions Bellaterra, 2002. 255.-256. or.

> *las <modernas>. En términos generales esto es así, pero hay que ser prudente con las siguientes afirmaciones: primero, que las viejas formas de estructura comunitaria y autoritaria, y por consiguiente las tradiciones que se les asocian, no se pudieron adaptar y se hicieron rápidamente inviables, y segundo, que las <nuevas> tradiciones simplemente fueron resultado de la incapacidad de usar o de adaptar las viejas"*[92].

Anne-Marie Thiessek, berriz, "herri kultura" hartuko du mintzagai, tradizioei lotuz:

> *"La cultura popular promovida es el producto de las invenciones de tradiciones, o, al menos, de selecciones y nuevos órdenes de las costumbres rurales. Las sociedades del siglo XIX se transforman y diseñan su futuro referenciándose en el pasado, pero se trata de un arcaísmo ad hoc, concebido para desarrollarse y adaptarse a la modernidad. Los folcloristas invocan constantemente la necesidad de recoger y preservar las tradiciones ancestrales minadas por la modernidad, que van a desaparecer de modo inminente, pero ellos se dedican al resurgimiento creativo con el sentimiento de realizar una obra patriótica. Este activismo revitalizador entra en una nueva fase al final del siglo XIX, cuando las identidades nacionales ya están esencialmente construidas"*[93].

Hobsbawm eta Thiessek aipatzen duten XIX. mende honetanxe kokatzen da gure azterketa. Doktorego tesi honen laugarren atalean ikusi ahal izango dugu zenbateraino diren aztertu ditugun bertsolariak tradizioaren gordailu edo sortzaile.

Bestetik, XIX. mendean identitate azterketak egiten direnean identitate nazionalaren gaiak indar berezia hartzen du[94]. Guk ez dugu nahi izan gure azterketa hasieratik honetara mugatu. Suma dezakegu aztertuko ditugun bertsolarien artean batzuk "euskal identitate nazionala" lantzeari eskainiko dizkiotela euren bertsoak, baina ez ditugu bertsolariak aurrez horretara behartu nahi. Hala egiten dutenek ere zein testuingurutatik abiatuta egiten duten aztertu nahi dugu: ez zaigu hainbeste helmuga interesatzen, abiapuntua eta prozesua baizik.

---

[92] HOBSBAWM, Eric; RANGER, Terence: *La invención de la tradición.* Barcelona: Crítica, 2012. 11. or.

[93] THIESSE, Anne-Marie: "En el corazón del regionalismo: la definición de la cultura popular". In: *Antares*, 4 (2010), 6. or.

[94] SMITH, Anthony D.: *La identidad nacional.* Madrid: Trama, 1997. Klasikoen artean dugu ANDERSON, Benedict: *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo.* México: Fondo de Cultura Económica, 1993. Azken honek adierazten dituen hainbat elementu gure doktorego tesiko laugarren atalean landuko ditugu: komunitate erlijiosoaren garrantzia gizarte premodernoetan, denboraren inguruko gogoeta, etab.

Francesco Benignok dioen moduan:

> *"Desde este punto de vista, la identidad no es entonces únicamente un problema que se plantea en la Lebenswelt (<el mundo de la vida>), la reapropiación por parte de los individuos de la multiplicidad de los <uno mismo> posibles frente a la fijeza impuesta por una mismidad o mêmeté obligada, un ser uno mismo a la fuerza. Es un instrumento conceptual y analítico, el más importante que las ciencias sociales se hayan procurado en los últimos lustros para salir del cul-de-sac de descripciones sociales construidas a priori y que se han revelado fuertemente inapropiadas para interpretar un mundo que ya no se reflejaba en ellas. La perspectiva identitaria como reconocimiento a posteriori de la cohesión de los grupos sociales se ha revelado, pues, una vía de salida fundamental del universo acrítico de las macroidentidades sociales de tipo adscriptivo (o tenidas por tal). La identidad, en suma, no es solo un problema, es también, parcial y contradictoriamente, una solución"*[95].

# 2.XIX. mendeko Gipuzkoako biztanleen identitate bideak, eta halakorik ezean, XIX. mendeko euskal identitate bideak

Doktorego tesi honi zuzenean lotutako gaia dugu XIX. mendeko gipuzkoar biztanleen identitatea. Zuzen-zuzenean gai horri lotutako lanik ez dugu aurkitu, baina bai, ordea, XIX. mendeko euskal identitatearen azterketari lotutako hiru lan garrantzitsu[96]. Zabalena, zalantzarik gabe, Coro Rubio Pobesen *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales* liburua[97]. Luzera laburragoan, berriz, Mikel Aizpururen "La pluralidad de vías en la reformulación de la identidad vasca en el siglo XIX" artikulua[98]. Hauetaz gain, aipagarri dira, era berean, José Javier Díaz Freireren lanak[99]. Eta, bukatzeko, Euskal Herri kontinentalari eta Antoine

---

[95] BENIGNO, Francesco: *Las palabras del tiempo. Un ideario para pensar históricamente.* Madrid: Cátedra, 2013.

[96] Euskal identitateaz modu atenporalean hitz egiten duten lanak ez ditugu kontuan izango. Hain zuzen ere bakarra eta aldaezina den identitatea ez baita gure azterketan dugun jomuga. Lan aitzindarien artean, eta euskal identitateaz orokorrean ari dela, honakoa aipatu behar: CARO BAROJA, Julio: "Sobre la identidad vasca (Ensayo de identidad dinámica)". In: *Ser o no ser vasco.* Madrid: Espasa, 1998. Klasikoen artean ditugu baita ere ARANZADI, Juan: *Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo.* Madrid: Taurus, 2000; SANCHEZ PRIETO, Juan María: *El Imaginario Vasco: Representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo, 1833-1876.* Barcelona: Eunsa, 1993. Azken hau historiografiaren azterketan oinarritzen da batez ere.

[97] RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales.* Madrid: Biblioteca Nueva, 2003.

[98] AIZPURU, Mikel: "La pluralidad de vías en la reformulación de la identidad vasca en el siglo XIX". In: *Sancho el Sabio*, 15, (2001), 11.-44. or.

[99] DIAZ FREIRE, José Javier: "Cuerpos en conflicto. La construcción de la identidad y la diferencia en el País Vasco a finales del siglo XIX". In: NASH, Mary; MARRE, Diana (ed.): *El desafío de la*

D'Abbadieri eta euskaldunen identitateari buruzko hainbat lan. Ekar ditzagun gure azterketara arestian aipatutako lanetan ikusi eta baliagarri zaizkigunak[100].

Coro Rubioren lana eredugarria gertatzen da. Lan eskerga honen bidez, XIX. mendean euskal identitatearen eraikuntzan parte hartu zuten hiru indar sakon ezagutu ditzakegu: eragile politikoak, kultur eragileak eta eragile erlijiosoak. Hasteko, bi zehaztapen egin behar ditugu: gure azterketan "euskal" identitatearen azterketa aztergai bada ere, ez da aztergai dugun identitate partaidetza bakarra, ezta nagusia ere. Bestetik, Coro Rubioren lanak eliteen azterketa helburu badu, gure lanak herri xehea du. Dena den, lagungarri zaigu bere lana bere hitzetan esplizituki azalduko baitu zer falta den egiteko eta, modu horretan, gure lanarekin falta den hori osatzeko, neurri apalean bada ere. Bai azterketaren ikuspegiari dagokionez:

> *"No vamos a estudiar aquí, conviene advertirlo, el grado de arraigo de este sentimiento identitario en la población, es decir, el éxito de la acción discursiva de aquellos agentes políticos, culturales y religiosos que construyeron dicha identidad. Sería objeto de un estudio distinto, con fuentes diferentes, a este que aquí abordamos y que pretende meramente desentrañar la formulación y el contenido de esa identidad y las estrategias desplegadas por tales agentes para hacerla llegar a la población"*[101].

Baita azterketaren emaitzei dagokienez ere:

> *"Aunque no hemos entrado a comprobar el grado de éxito entre el común de la población del discurso identitario de las elites, sospechamos que debió de ser limitado dado el estadio de la vida política en el siglo XIX –hasta finales de la centuria la política no se transformaría en un fenómeno de masas- y del elitismo de la vida cultural, de manera que entre las clases populares siguieron siendo probablemente más fuertes las identidades provinciales e incluso locales. Habría que esperar al discurso del nacionalismo aranista sobre la identidad de los vascos, distinto del que aquí hemos estudiado aunque participara de algunos elementos comunes, un discurso elaborado en tiempos en que la política era ya un fenómeno de masas, para que un código de identidad vasca entrara en competencia directa con las identidades provinciales y locales, que, no obstante, seguirían conservando una gran fuerza. No significa tampoco esto que pasemos al extremo opuesto y optemos por hablar de fracaso de la construcción discursiva que hemos estudiado. Aunque su impacto debió de ser limitado, no cayó en el vacío, a juzgar por algunos indicios tales como los testimonios de los viajeros extranjeros por el País Vasco durante el siglo XIX o las*

---

*diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*. Bilbao: EHUko argitalpen zerbitzuak, 2003. 61.-94. or. Eta honen aurretik: "El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca". In: *Historia Social*, 40 (2001), 79.-96. or.

[100] Esanguratsuak dira izenburutik hasita aurki ditzakegun aldeak: Coro Rubiok euskal identitate bakarra aipatzen du; Mikel Aizpuruk, ordea, "Pluralidad de vías en la reformulación" azpimarratzen du.

[101] RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca…*, op. cit. 29. or.

> *manifestaciones identitarias de los emigrantes vascos en América, que, no obstante, han de tomarse con precaución"*[102].

Coro Rubioren lanak, XIX. mendean eliteek egindako ahaleginak aztertuz, aukera ematen digu ahalegin horien fruiturik herriaren baitan eman zen ikusteko[103]. Bertsolari eta bertsoei egin beharreko galderak zeintzuk diren ikusten lagunduko digu, beraz. Eliteek euskal identitateaz jardun bazuten, horrelakorik gertatzen al zen bertsolarien artean? Eliteek euskal identitate hori lurralde, hizkuntza, elementu juridiko-politiko, kultural, historiko eta etnikoekin lotzen bazuten, horrelakorik gertatzen al zen bertsolarien artean? Foruak, katolikotasuna, historia, espainiar eta euskaldun izaera bateragarri ala bateraezinak, eta euskararen garrantzia, adibidez, agertzen al dira beren bertsoetan? Coro Rubioren ustez, gainera, euskal identitate hau aurretiko beste identitate batzuekin batera biziko da, dela nekazaritzako identitatea, dela nork bere herriari edota probintziari lotutako identitateak, besteak beste. Ageri ote dira hauek bertsolarien artean? Eta galdera bat gehituko genuke artean: bertsolariak ere ez ote identitate diskurtso eragiletzat aztertu behar? Ez soilik hartzaile bezala, egile eta zabaltzaile bezala baizik?

Coro Rubioren lanaren ondorioei lotzen bagatzaizkie, XIX. mendean euskal identitatearen eraikuntzan eragile politiko, kultur eragile eta eragile erlijiosoen lorpenik nabarmenenak zeintzuk izan ziren ikus dezakegu. Eragile politikoei dagokienez, eliteek hiru probintzien senidetasunaren alde egin zuten apustu. "Irurac bat" leloa garai hartakoa dugu. Momentu jakin batean, Nafarroa ere gehitu zitzaien aurreko hirurei[104], "Laurak bat" erdituz.

Kultur eragileei dagokienez, bi azterketa nagusi egiten ditu Corok: batetik, literaturgile, poeta, margolari, folklore aztertzaileak ditu kontuan eta, bestetik, hezkuntzaren papera. Lehenengoek kultur identitatea landu eta defendatu zuten. Euskal gaiei erreferentzia esplizitua egiten zieten. XIX. mendeko eskolari buruz, Coro Rubioren iritziz, kristau formazioa eta Elizaren gizarte kontrola sustatu zuen bereziki[105]. Bere hitzetan, eskola publikoak gaztelaniaz alfabetizatu zituen herritarrak, baina ez da "des"-"euskalduntzearen" errudun gisa hartu behar.

---

[102] RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca…*, op. cit. 473. or.

[103] Guk, ordea, eliteen paperaz gainera, herriarena berarena ere kontuan hartu nahiko genuke. Ez ditugu herritarrak hartzaile hustzat hartu nahi, bestela baizik, agente gisa ere bai.

[104] RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca…*, op. cit., 470. or; AGIRREAZKUENAGA, Joseba: *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936).* Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1996.

[105] Ikus OSTOLAZA, Maitane: *Entre religión y modernidad. Los colegios de las congregaciones religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea.* Bilbao: EHU, 2000.

Moyano legea ez omen zen aplikatu legelariek nahi bezala ez Espainian, ezta "Baskongadetan" ere[106]. Foru agintariek instrukzio publikoko junten egituraketa moldatu egin omen zuten, foru agintariei bertan toki berezia gordez.

Elizari dagokionez, Gasteizko gotzaindegiaren sorreraren atzean "foru autonomia" indartu nahia zegoen. Lur baskongadoei erakunde bat eman nahi izan zitzaien batzen laguntzeko, hezurdura gisa. Foru autoritateek hainbat egoera aprobetxatu zituzten "bertako" Eliza eta apaizak eskatzeko. Coro Rubioren hitzetan, Eliza "subjektu pasibo" ere izan zen, agintari foralen "menpeko", nolabait. Baita agente "aktibo" ere, euskal identitateari lotutako hainbat elementu ezarri eta sendotu baitzituen.

Ondorioetan garbi adierazten duenez, Coro Rubioren ustez, Hrochen eskema ez da euskal kasurako baliagarria. Hrochen iritziz, talde abertzaleen sorreran lehendabizi kultur eliteek hartzen dute parte, ondoren politikoek eta, azkenik, eskabide hauen herritartatzea gertatzen da. Coro Rubiok euskal kasurako proposatzen duen hipotesian, berriz, lehendabizi elite politikoak dira euskal identitatearen aldeko apustua egiten dutenak; bigarren maila batean, baina ia nahasian, elite kulturalak; eta, azkenik, indar gutxiagoz, elite erlijiosoak. Bi gauza azpimarratuko genituzke guk Coro Rubiok esandakoen inguruan: batetik, euskal identitate bakarraren bila egiten duen ahalegina, eta, bestetik, identitatearen sortze prozesu horretan goitik beherako indarrei ematen dien garrantzia.

Mikel Aizpururen lanari dagokionez, bi alderdi gertatu zaizkigu interesgarri: batetik, XIX. mendeko euskal identitatea ulertzeko bertsoen azterketaren garrantziari egiten dion aitortza eta, bestetik, euskal identitatearen eraikuntzari gagozkiola, XIX. mendean jarraitzen duen kronologia, aldi nagusiak azpimarratuz. Lehenengoari dagokionez, Mikel Aizpururen hitzetan:

> *"La cultura popular vasca, y más específicamente, la guipuzcoana, se desarrollaba en euskera, lengua de la inmensa mayoría de su población hasta bien entrado el siglo XX y se transmitió de forma no escrita. Resulta necesario, por lo tanto, abandonando en parte la fijación existente por la cultura escrita, recurrir a otras fuentes para conocer las preocupaciones y los argumentos utilizados para la difusión de los distintos mensajes que recorrían la sociedad vasca, en la época que se extiende hasta los inicios del siglo actual (s. XX). El bertsolarismo es una de estas vías. Los "improvisadores" eran parte de la sociedad de su tiempo, de sus capas más populares, a las que, mediante su palabra, permitían expresar deseos y preocupaciones, de una forma más elaborada de la que eran capaces dichos grupos.*

[106] Maite Ruiz de Loizagaren tesia dugu honen erakusle. Honela du izenburua: *Primeras letras: "revolución social" y modernización en Bilbao (1876-1920*). Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2015.

> *Representaban, además, el principal medio de transmisión de todo tipo de noticias, tanto políticas, como relacionadas con la vida cotidiana. Lo demuestra las multitudes que se reunían con ocasión de sus desafíos, o las altas ventas de los bertso-paperak, hojas sueltas que se vendían en las ferias recogiendo diferentes composiciones"*[107].

Zeintzuk dira XIX. mendeko euskal identitatearen eraikuntzan aldi nagusiak[108]? Mikel Aizpuruk sei aldi nagusi aipatzen ditu. Aldi bakoitzeko gertakari garrantzitsuenak aipatzeaz gainera, gai hauetaz idatzi zuten autore nagusiak aipatzen ditu, euskaraz idatzi zutenei erreferentzia berezia eginez. Kronologia hau xehatuegia gerta dakiguke eta, aldi berean, ikuspegi politiko batean oinarrituegia. Hala ere, azpimarratzekoa litzateke foralitate berriaren baitan hazitakoak liratekeela Bilintx eta Xenpelar, 1876an hil zelarik lehendabizikoa eta 1869an, bigarrena. Ez zuten, beraz, 1876ko ondorenik ezagutu. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Xenpelarrek 1860ko hamarkako hainbat diskurtso ofizialen oihartzuna jasoko du, gainera. Hona Mikel Aizpuruk zer dioskun garai honi buruz:

> *"La historiografía dominante en esos momentos ofreció una imagen idealizada de un mundo perdido de sentimientos colectivos, fe simple y lealtades personales. Frecuentemente se hacía abstracción de los problemas y desequilibrios sociales existentes en el país (que continuaban enviando a buena parte de sus hijos a la emigración), de la imparable expansión urbana que experimentaba el país y del proceso de modernización socioeconómica que, desde la década de 1840, estaba impulsando, sobre todo en Vizcaya y en Guipúzcoa, profundas transformaciones. Estas se notarían especialmente en las últimas décadas del siglo. Pero, frente a una idea superficial del progreso, del orden y de la racionalización que las considera contradictorias, las alabanzas hacia el sistema foral eran compatibles con el desarrollo socioeconómico. El fuerismo hacía hincapié en las libertades perdidas, aunque éstas favorecieron sobre todo a algunos grupos privilegiados, pero hubiese sido imposible que arraigase si la mayor parte de la población vasca no hubiera estado convencida de las ventajas directas que el sistema suponía para ella misma"*[109].

Pello Errota, Otaño eta Txirritak, berriz, hurrenez hurren 1840, 1857 eta 1860an jaioak, XX. mendera arteko bizialdia izanik, 1876. urte aurreko eta ondoko giroa ezagutu zituzten. Lopetegik, azkenik, 1875ean jaio eta 1942an hil zenak, 1876. urte

---

[107] AIZPURU, Mikel: "La pluralidad de vías"… op. cit, 18. or.

[108] XVIII. mendeko aurrekariak, Frantziako Iraultzatik 1820ko hamarkadara bitarteko urteak, Lehen Gerrate Karlista artekoak (1839ko urriaren 25eko legeari erreferentzia eginez), foralitate berria osatu zireneko urteak (1841eko urriaren 29ko eta 1844ko uztailaren 4ko legeak eta hauen eragina kontuan hartuz, 1876 urte bitartean luzatu zena), 1860ko hamarkada (1864an senatuan izan zen eztabaida barne hartuz), eta Bigarren Gerrate Karlistaren garaia (1876ko uztailaren 21eko legeari ere erreferentzia eginez).

[109] AIZPURU, Mikel: "La pluralidad de vías"… op. cit, 25.-26. or.

ondoko urteak besterik ez zituen ezagutu eta guk aukeratutako bertsolarien artean, 1936ko gerra bizi izan zuen bakarra izan zen.

Ondoren, José Javier Diaz Freireren lanei aipamena egingo diegu[110]. Autore honek dakarkigun ikuspegia orain artean ikusitakoetatik desberdina da. Diskurtsoaren eta gorputzaren arteko harremana landuko du honek eta, batez ere, 1876-1936 urte bitartetan Sabino Aranak bultzatutako nazio-identitatea –arraza kontzeptuari lotua-, eta, garai berean, klase eta genero identitateak nola eratuko diren. "Gu"aren eraikuntzan gorputz ezaugarriek duten garrantzia azpimarratuko du Diaz Freirek:

> *"Todo ello nos permite replantearnos la producción de la diferencia y la identidad que no sería el resultado de una operación lingüística sino el producto de una incorporación distintiva. La diferencia y la identidad no aparecerían ya, de acuerdo a la hipótesis que planteamos, sino como la identificación, también incorporada, de cuerpos con rasgos distintivos, lo que otorgaría una enorme importancia a la práctica en la gestación de ambas. En efecto, una parte importante en la incorporación de la diferencia y la identidad residen en una forma de llevar y usar el cuerpo, en una hexis, que es aprendida a través de la imitacion. Y en la que la imitación prestigiosa de Mauss tendría una gran importancia. Los discursos susceptibles de tener una incidencia notable sobre la producción de la identidad y la diferencia lo serían, primeramente, por ser discursos sobre el cuerpo y porque su contenido sería incorporado por los receptores modelando su hexis corporal debido, sobre todo, a su capacidad para suscitar emociones. Los discursos sobre la identidad y la diferencia tienen, pensamos, como destinatario al cuerpo y es el cuerpo el que los comprende"*[111].

Diskurtsoaren azterketari garrantzirik kendu gabe, honek izan dezakeen gehiegizko idealizaziotik eta erreferenteak galtzeko arriskuari erantzuteko modu gisa aurkezten du Diaz Freirek ikuspegi teoriko berri hau[112].

Atal honekin bukatzeko, historiatik aparte, literaturaren alorretik ere XIX. mendeko euskal identitateaz aritu izan direla ere gogoan izan behar dugu, Antoine d'Abbadieren lore joko eta hauen eragina aztertuz, batez ere[113]; baita XIX. mendeko beste hainbat autoreren lanak ere[114].

---

[110] Modernizazio eta identitate aldaketez ari direnen artean, honako historialari taldea daukagu: Javier Diaz Freire, Nerea Aresti Esteban, Mercedes Arbaiza Vilallonga, Jose Maria Garmendia Urdangarin, Miren Llona Gonzalez –Ahozko historiaren artxiboko burua-, Ainara Madariaga Garces, Luis Ocio Diaz de Otazu eta Aintzane Rincon Diez, besteak beste.

[111] DIAZ FREIRE, Jose Javier: "Cuerpos en conflicto…", op. cit., 69. or.

[112] Xenpelar bertsolariaren kasuan, baita Bilintxenean ere, gorputzak, eta batez ere emakumearen gorputzaren deskribapenak garrantzi berezia izango dutela ikusiko dugu.

[113] CASENAVE, Jon: "Euskal nortasunaren irudiak XIXgarren mendeko bigarren partean". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997*. Donostia: Eusko Ikaskuntza: Bilbao: Euskaltzaindia, 1998. 547.-552. or;

# 3. Gipuzkoaren modernizazioa

Atal honetan, XIX. eta XX. mendeen tartean gertatu zen Gipuzkoaren modernizazio prozesuaz diharduten lanen berri jaso nahi genuke. Beti ere, gu planteatzen ari garen lanari argi egiteko, eta bide batez, guk dakargun ikuspegitik landua ez dagoen gai bat eskaintzearen egokitasuna frogatu nahian. XIX. mendean identitatea arazo gisa sortzea modernizazio prozesuarekin zenbateraino lotua zegoen aztertu nahi badugu, kontuan hartzekoa izango da 1830-1936 urte artean Gipuzkoan gertatu zen modernizazio prozesua nola aztertu izan den[115]. Hurrengo orrialdetan jasoko ditugun lanak Gipuzkoaren modernizazioaren baitan bertsolariek beren bertsoetan gehien tratatzen dituzten eta garrantzirik handiena ematen dieten gaiei lotutakoak izango dira. Horretaz gainera, autore nagusien lan aipagarrienak jasotzen saiatuko gara. Atal honek, beraz, ez du ez modernizazioari lotutako gai guztien ez autore bakoitzaren idatzi guztien bilketa lana izan nahi, ez da hori bere helburua. Azkenik, berriki argitaratutako lanen berri jasotzen ere saiatuko garela adierazi nahi dugu. Modu honetan, Gipuzkoan bizi izan zen modernizazio prozesuaren bektore nagusien norabide eta noranzko eguneratua jaso nahi dugu, bertsoen azterketa lana modu egokian bideratzeko. Azken alderdi horri lotuta, azken urteotan lanean diharduten historialari-ikertzaileen taldeak aipatu behar genituzke, Ministerioko edo Jaurlaritzako ikerketa deialdietan proiektuak dituztenak: horiek dira, besteak beste, euskal historia garaikidean aurrerapauso sistematiko eta egituratuak ematearen arduradun.

---

DAVANT, Jean Louis: "Lore jokoen ingurumenaz". In: *Bat, soziolinguistika aldizkaria*, 25 (1997) 65.-75. or.; ALTZIBAR, Xabier: "<Zazpiak bat> gaia XIX. mendean". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997*. Donostia: Eusko Ikaskuntza: Bilbao: Euskaltzaindia, 1998. 663.-688 or.

[114] BIJUESCA , K. Josu: "Felipe Arrese Beitiaren poesia eta euskaldunen nazio identitatea". In: *Oihenart*, 25 (2010), 177.-188. or.; TOLEDO LEZETA, Ana M.: "Aitor, euskaldunen identitatearen eratzailea". In: *Oihenart*, 25 (2010), 235.-349. or.

[115] Berriro ere historiografiari lotutako artikulu hauen garrantzia azpimarratu nahi dugu gure 3. puntu hau osatzeko: URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes. Una visión desde Gipuzkoa (1975-2000)". In: *Sancho el Sabio,* 19, (2003), 11.-66. or.; RUBIO, Coro: "El siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia*, 34, (2005), 301.-336. or; AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales". In: *Historia Contemporánea,* 7, (1992), 257.-281. or.; MONTERO, Manuel: " La invención del pasado en la tradición historiográfica vasca". In: *Historia Contemporánea*, 7 (1992) 283.-294. or.; AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Euskal historiografiaren ikuspegi gaurkotua, iraganeko begirada euskaldunen abiadan". In: *Vasconia*, 34, (2005), 407.-422. or.; AIZPURU, Mikel: "Historia euskaraz XX. mendean, nahiaren eta ezinaren artean. Lehen hurbiltzea". In *Vasconia,* 34, (2005), 423.-451. or. Historiografiari buruzko lan horiek erabili ditugu, batez ere, Gipuzkoaren modernizazioari buruzko atal hau osatzeko.

Luis Castells eta Felix Luengok horrela diote Gipuzkoan gertatu zen modernizazioaz eta horrek eragindako aldaketez. Guk aztertutako bertsolariak bat etorriko ote dira ikuspegi honekin?

> *"El proceso seguido en esta provincia destaca por tener un desarrollo <integrado>, registrándose un crecimiento económico y demográfico no desmesurado ni repentino, y que es absorbido sin generar grandes disfunciones. (…). Así, de este proceso de crecimiento económico se va a derivar un cambio estructural y social no traumático, sin bruscos dislocamientos, produciéndose una modernización sosegada de la Provincia. Estas mismas pautas propician que la sociedad que va emergiendo sea resultado de la interacción entre la tradición y la modernidad, de la combinación y simbiosis de ambos mundos. Rasgos y elementos culturales que podemos considerar tradicionales van a mantener su vitalidad y pujanza en ese nuevo marco social, haciéndose presentes en distintos ámbitos. Bien es verdad que ante la irrupción del capitalismo, los valores tradicionales sufren una cierta erosión, pero ello no es óbice para que persista su influencia y sean punto de referencia en aquella sociedad. Es más, como han explicado autores como Hobsbawm, las sociedades en transformación recurren a la tradición para a través suyo cohesionar e inculcar una serie de creencias a una colectividad que se ve sujeta a mutaciones y a la pérdida de determinados modelos sociales. Esto sucede en Guipúzcoa, en donde la utilización de una tradición amoldada o inventada a los intereses de cada grupo es una práctica extendida, recurriendo a ella distintas formaciones políticas para legitimar sus posiciones. Desaparecidas las bases sobre las que se articulaba la sociedad tradicional, ésta va a tener un proceso de ideologización, convirtiéndose en un referente mítico que actuaría como núcleo de identidad. En este clima de exaltación del pasado, no puede extrañar que la ideología conservadora-tradicional mantenga su hegemonía, y que paralelamente las formaciones políticas más vinculadas con ese pensamiento sean las que gocen de un mayor arraigo, tal como es el caso de los carlistas"*[116].

Castells eta Luengori jarraiki, badirudi proposamen sistematiko eta itxiak zirela herriari eskaini zitzaizkionak. Zenbateraino ote hori bertsolariek proposatutakoa? Identitate bide ezberdinen proposamenak jaio ziren garaira joaz, zabal ote dezakegu ikuspegi hori?

Gipuzkoaren modernizazioaz ari direlarik, zer aztertzen dute historialariek[117]? Alde askotako aldaketa prozesua da kontuan dutena eta, bere horretan, aniztasun handiagoa dakarrena gipuzkoar lurretara: aldaketak ekonomian –industrializazioaren bidetik, batez ere-, aldaketak demografian –familia ereduetan

[116] CASTELLS ARTECHE, Luis; LUENGO TEIXIDOR, Felix: "El proceso de modernización de Guipúzcoa (1876-1920)". In: *Ekonomiaz*, 9-10, 268. or.

[117] Ez Gipuzkoarena soilik, baizik Euskal Herriaren modernizazioaz ari den historialari taldea dugu honakoa: Juan Pablo Fusi, Luis Castells, Fernando Molina Aparicio eta Rafael Ruzafa Ortega, besteak beste. Demografia eta familiaren ikuspegitik abiatuta geroago ikusiko dugu badela beste talde bat modernizazioaren azterketan diharduena.

eta estrategietan-, hiritartze prozesua indartzea, alfabetatzearen gorakada, emakume eta gizonaren irudian gertatzen den aldaketa, aldaketak gizarte egituraketan, aniztasun politikoa, sekularizazioaren hasiera, etab.

Gai horien guztien artean, has gaitezen aldaketa ekonomikoez eta industrializazioaz hizketan. Industrializazioa aztertzeaz gainera, honen ondorioak dira azterlan gehien eragin dituztenak. Gipuzkoako industrializazioaz egindako lan nagusiak Montserrat Garate[118], Luis Castells[119], Elena Legorburu[120], Jordi Catalán[121], Felix Luengo[122] eta Carlos Larrinagarenak[123] dira. Jose Urrutikoetxeak Gipuzkoako historiaren historiografiaz egindako lanean zioenaren arabera, *"Quedan, sin embargo, por analizar en profundidad muchas de las especificidades de la industrialización provincial y son muchos, en consecuencia, los aspectos y factores que están a la espera de tratamientos monográficos: mano de obra, procedencia, compatibilidad en su pertenencia a ámbitos económicos distintos (caserío e industria); localización diversa de las industrias, etapas, dimensiones, diversidad de sectores o capitalización, configuración demográfica o modelos y movilidad de sus estructuras familiares, etc., etc"*[124]. Nola eman erantzuna galdera horiei? Industrializazio prozesu zehatzak sakon aztertuz. Miguel Angel Barcenillak horixe egin zuen Errenteriaren kasuan[125]. Berriki, eta arestian aipaturiko hutsune batzuei erantzuna eman nahirik, Manuel Gonzalez Portilla, Jose Urrutikoetxea eta Karmele Zarragak Gipuzkoako industrializazioaren bestelakotasuna aztertu dute Deba haranean gertatu zen industrializazio prozesua oinarri hartuz, bertan azaltzen diren ezaugarriak probintzian, oro har, izan ziren egoerak ulertzeko adierazgarriak direla

[118] GARATE, Montserrat: *El proceso de desarrollo económico en Guipúzcoa.* Donostia: Cámara de Comercio, 1976.

[119] CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración,* 1876-1915. Madrid: Siglo XXI, 1987.

[120] LEGORBURU, Elena: "La industria guipuzcoana entre 1930 y 1936: incidencia de la crisis económica". In: *Revista de Historia Económica*, IX. urtea, 2 zk., (1991), 361.-394. or.

[121] CATALAN, Jordi: "Capitales modestos y dinamismo industrial: orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos, 1841-1918". In: NADAL, Jordi; CARRERAS, Albert (zuz. eta koord): *Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX).* Barcelona: Ariel, 1990. 125.-155. or. Artikulu honek lantzen duen kronologiagatik, bereziki interesgarria gertatzen zaigu Xenpelarren testuingurua ulertzeko.

[122] LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa, 1917-1923.* Bilbao: EHU, 1990.

[123] LARRINAGA, Carlos: *Actividad económica y cambio estructural en San Sebastián durante la Restauración, 1875-1914.* Donostia: Kutxa fundazioa, 1999.

[124] URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes…", op. cit., 43. or.

[125] BARCENILLA, M.A.: *La pequeña Manchester. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Errenteria (1845-1905).* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999. Lan hori ere lagungarri zaigu Xenpelarren testuinguruaren berri jasotzeko.

arrazoituz [126]. Industrializazioaz gainera, Gipuzkoako eta Donostiako ekonomiara aldaketak ekarriko ditu turismoak ere. Hain zuzen ere, bainu-etxeek garrantzi handia izango dute[127] Gipuzkoako hainbat herritan. Guk aztertutako bertsolariek zein ikuspegi emango dute industrializazioaz? Oihalgintza fabrikan lanean aritu zen Xenpelarrek kontatzen diguna eta Pello Errotak dioskuna gauza bera ote?

Historia ekonomikora modu zabalagoan hurbilduz, eta industrializazio prozesuaz haratago, Joseba Agirreazkuenagak hainbat aurrekari aipatzen ditu, 1989an *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikuluan[128]. Horien artean, Gipuzkoarako, Serapio Mugika aipatu behar, eta euskal historiografia ekonomiko zabalagoaz, Th. Lefebvre, J. Thalamas, J. Caro Baroja eta J. Leizaola, besteak beste.

XIX. mendean Gipuzkoan izan ziren aldaketa ekonomikoei lotuta datoz azpiegitura eta komunikabideetan gertatutako aldaketak ere. Gai horri dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak bultzatutako eta Elena Barrena Osorok zuzendutako bilduman, Gaur egungo historiari dagokion argitalpena daukagu, Jose Antonio Rodriguez Ranzen zuzendaritzapean osatutakoa[129]. Errepideetan egindako hobekuntzez eta aldakuntzez gain, trenaren sarbidea eta horrek ekarritako aldaketak modernizazio prozesuaren bereizgarri dira[130]. Aztertutako bertsolari batzuek aipamena, behintzat, egingo diote gai horri. Aurrerago ikusiko dugu nola.

Bertsoak aztertuz egin dugun lan honetan, ordea, ez dira soilik industrializazioa eta aldaketa ekonomikoak jasotzen. Aitzitik, landa eremuko ekonomiaren ezaugarriak eta ofizioak ere maiz ageri dira. XIX. mendeko Gipuzkoaren ezaugarri zaharraren eta berriaren arteko harremana baldin bada, egoki izango da ekonomia

---

[126] GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: *La "otra industrialización" del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización.* Bilbao: EHU, 2015.

[127] J.M. Urquiaren lan klasikoaz gainera, berrikiago argitaratutako LARRINAGA, Carlos: *Balnearios guipuzcoanos, 1776-1901. Turismo de salud e inversión de capital en aguas minerales.* Donostia: RSBAP, 2014 lana daukagu.

[128] AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Historia ekonomikoaz: Eraberritzearen urratsak". In: *Jakin*, 55, 2, (1989), 49.-67. or.

[129] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio; LANDABEREA ABAD, Eider; ARANBURU AMILLETA, Antxiñe: *Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 3 / 1833-1937.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003. Gurdi eta automobilen arteko elkarbizitzaz egiten duen atala interesgarri gertatu zaigu oso.

[130] Trenaz, trenbideaz eta Gipuzkoaz ditugu honako lanak: LEGORBURU, Elena: "Propuestas de reordenación viaria en el País Vasco en torno al ferrocarril de vía estrecha en Guipúzcoa (1920-1936)". In: *Lurralde*, 14, (1991), 321.-336. or ; LARRINAGA, Carlos: *Entre Irún y los Alduides. El ferrocarril del Norte y el paso de los Pirineos a mediados del siglo XIX.* Irun: Casino de Irun, 2002. Berriki argitaratua da, baita ere: NOVO LOPEZ, Pedro A.; PAREJA ALONSO, Arantza (ed): *Ferrocarriles y sociedad urbana en el País Vasco.* Bilbao: EHU, 2015. Azken liburu horretan jasotzen diren Gonzalez Portilla eta Jose Urrutikoetxea, Carlos Larrinaga eta Mikel Aizpururen lanak interesatzen zaizkigu, batez ere.

tradizionalaren berri jasotzen duten lanak ere hemen aipatzea. Egia da gai horietara egindako hurbilpena antropologo eta soziologoen eskutik egina etorri zaigula askotan, baina historialariek ere egin dituzte gai horien inguruko lanak. Aipagarri ditugu Jose Urrutikoetxea[131] eta Cruz Mundet[132], Aintzinako errejimeneko egitura ekonomikoaren krisia jasotzen dutenak. Esparru horretan ere ez dago dena egina, Jose Urrutikoetxearen hitzetan:

> *"Es preciso constatar, por el contrario, la ausencia de una preocupación mantenida y de entidad por ahondar en el discurso político, su posicionamiento en torno a la cuestión agraria y su posible influjo en la realidad del agro guipuzcoano. Creo que se trata de una faceta central en el análisis del mundo campesino; de todo un reto que espera a quien se interese por él. Y cabe decir otro tanto sobre el estudio de los <mensajes rurales> que se han emitido y se siguen emitiendo en la actualidad a través de los distintos medios de comunicación: TV, radio, calendarios, carteles, portadas de distintas publicaciones, fiestas, etc."*[133].

Aipagarri dugu, azkenaldian argitaratutako lanen artean, Pedro Berriochoarena, zeinak hainbat bertsolariri ere erreferentzia egiten dien XIX. eta XX. mendeetako Gipuzkoako baserriari buruz hitz egiteko[134], ahozko historia erabiltzeaz gainera. Pedro Berriochoak alderdi ekonomikoaz gainera, alderdi sozialak eta ideologikoak ere lantzen ditu[135].

Industrializazioaz gainera, Gipuzkoaren modernizazioari estuki lotutako beste gai bat dugu urbanizazioarena[136]. Bizkaiko industrializazio ereduak Bilbao jakin bat jaioarazi zuen bezala[137], Gipuzkoako industrializazioak urbanizazio prozesu jakin bat indartu zuen probintziako hainbat herritan, urbanizazio prozesuak ere

---

[131] URRUTIKOETXEA, Jose: *<En una mesa y compañía>. Caserío y familia campesina en la crisis de la <Sociedad tradicional>. Irun, 1766-1845.* Donostia: Universidad de Deusto, 1992.

[132] CRUZ MUNDET, J.R.: *Rentería en la crisis del Antiguo Régimen (1750-1845). Familia, caserío y sociedad rural.* Errenteria: Errenteriako Udala, 1991.

[133] URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes…", op. cit., 40. or.

[134] BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro: *Como un Jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX.* Bilbao: EHU, 2013.

[135] Baserriaren irudiaz eta horrek hainbat ideologiatan betetzen zuen paperaz badira lehenagoko lanak: URRUTIKOETXEA, Jose: "La familia troncal campesina vasco-húmeda: de mecanismo de regulación social a soporte ideológico tradicionalista". In: *I Congrés d'Histori de la Familia als Pirineus.* Andorra, 1992; eta "<Ets-adi>/<etse>-<Familia>/<Casa>: a los terrenos de la historia por los vericuetos de la idealización y la ideologización". In: *Vasconia*, 28, (1999), 271.-294. or.

[136] Euskal Herriko urbanizazioaz, orokorrean, GONZALEZ PORTILLA, M.; BEASCOECHEA, J.M.: "Del campo a la ciudad; la urbanización del País Vasco durante la primera industrialización". In: MIEZA, R.; GRACIA, J. (ed): *Haciendo Historia. Homenaje a María Angeles Larrea.* Bilbao: EHU, 2000. 27.- 44. or.

[137] Manuel Gonzalez Portilla eta Jose Urrutikoetxeak elkarlanean eta taldean landu dituzte gai horiek, besteak beste Susana Serrano, Rocío García eta Karmele Zarragarekin.

orokortuz. Modu berean, Donostiak ere hazkundea bizi izan zuen, 1863an harresiak bota zituztenetik aurrera, batez ere[138].

Modernizazioari zuzenean lotutako beste gai bat hezkuntzarena da. Oinarrizko alfabetatzeak eta prestakuntza espezializatuak modernizazio prozesuari bultzada handia eman zioten, eta Gipuzkoan nabarmena izan zen hori, aztertzen ari garen aldirako, 1877tik 1930era bitartean, batez ere[139]. Gai horri buruz idatzi dutenen artean, Maitane Ostolaza[140] dugu, baita Rocío García, Manuel Gonzalez Portilla, Jose Urrutikoetxea eta Karmele Zarraga ere[141].

Gaur egungo historiaz egin diren azterketen artean, demografiaz egindako lanak ere aipatu behar ditugu[142]. Azterketa demografikoen bitartez, subjektu historikoa zabaldu da, hau da, bestelako aztarna edo zuzeneko dokumentaziorik utzi ez duten haiengana hurbildu da historia. Lehendabizi, alderdi kuantitatiboak kontuan hartuz, batez ere. Geroago, horiek gainditzen saiatuz, emaitza demografikoen atzean dauden portaeretara hurbiltzeko saiakera eginez. Jose Urrutikoetxea, Manuel Gonzalez Portillarekin gai hauek bereziki landu dituenaren hitzetan: *"Los actuales estudios sobre la familia están permitiendo ahondar en un triple nivel de consideraciones: la percepción de la compleja trama desde la que actúa la familia en cuanto que instancia básica de regulación y reproducción social, el descubrimiento de la cara oculta de la realidad plural del país y de la Provincia, y la constatación de una dinámica histórica de carácter dialéctico que aconseja estar especialmente atentos, no sólo ante los cambios, sino también ante las persistencias; no sólo a las*

[138] Gai honi buruz hainbat geografo kezkatu dira, batez ere: M.J. Calvo eta F.J. Gomez Piñeiro, besteak beste. Historialarien artean dugu Carlos Larrinaga bere doktorego tesiarekin eta hainbat artikulurekin, baita Montserrat Garate ere. Donostiaz ondoko historialariek egindako lanak ere aipatu behar genituzke: lehen ere azaldu dugun Felix Luengorenaz gain, ARTOLA, Miguel: *Historia de Donostia-San Sebastián.* Donostia: Donostiako Udala-Nerea argitaletxea, 2000. Miguel Artolaren beraren eta Luis Castellsen atalak aipatzen ditu, bereziki XIX. mendeari buruz, Coro Rubiok.

[139] Alfabetatze tasak –gaztelaniaz egindako alfabetatzea zen, jakina- %30etik %90ekoak izatera pasatu ziren aipatutako urteen artean.

[140] OSTOLAZA, Maitane: *Entre religión y modernidad. Los colegios de las congregaciones religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea.* Bilbao: EHU, 2000.

[141] GARCIA, Rocío; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA, Jose; ZARRAGA, Karmele: "<Leer y escribir>: desarrollo y modernización social. El País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)". In: GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA, José María; ZARRAGA, Karmele (ed): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea.* Bilbao: EHU, 2011. 311.-342. or.

[142] Manuel Gonzalez Portilla eta Jose Urrutikoetxea Lizarraga dira demografia eta familia ereduen azterketa, besteak beste, egin dituen taldeko buru. Eurekin batera lan egin dute Jose Maria Beascoechea, Pedro Alberto Novo, Aranzazu Pareja, Rocío García, Susana Serrano eta Karmele Zarragak, besteak beste.

*facetas más luminosas, sino a los costes*"[143]. Manuel Gonzalez Portillarekin batera argitaratutako lanak azpimarratuko genituzke, bereziki, esparru horretan[144]. Aurrerago ikusiko dugun bezala, familiaren bizipena eta kudeaketa oso presente egongo da bertsolarien lanetan: ez horrenbeste diskurtso kontziente gisa, eguneroko jardunbide bezala baizik.

Demografiari lotutako gaien artean, emigrazioarena ere badugu. Gipuzkoarrek Argentinara eta Uruguaira egiten zuten emigrazioaren berri jasotzen du Pilar Pildainek[145]. Helmuga bereko emigrazioaren azterketa egin zuen, baita ere, Jose Manuel Azconak[146]. Oscar Álvarez Gila ere aipatu behar dugu emigrazioaren aztertzaile gisa[147].

Subjektu historikoaren zabalkundeaz ari garela, badira Gaur egungo historian, baita gipuzkoarrean ere, kontuan hartzen ari diren historiako beste protagonista batzuk. Emakumea da horietako bat[148]. Lola Valverderen lanak aipatu behar ditugu esparru horretan, besteak beste[149]. Aztertu ditugun bertsolariek emakumeei buruz behin baino gehiagotan hitz egingo badigute ere, ez dugu apenas emakumeen zuzeneko ikuspegirik jaso. Gizarteak baztertuak ere –pobreak, eskaleak, etab.- kontuan hartuak izan dira historiografian[150].

Soziabilitateen gaia da modernizazioak ekarriko duen beste alderdi berri bat[151], izan ere, modernizazio prozesuak aldatu egingo ditu pertsonen arteko harremanak

---

[143] URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes…", op. cit., 56. or.

[144] GONZALEZ PORTILLA, M; URRUTIKOETXEA, J: *Vivir en familia, organizar la sociedad. Familia y modelos familiares: las provincias vascas a las puertas de la modernización (1860).* Bilbao: EHU, 2003.

[145] PILDAIN, Pilar: *Ir a América. La emigración vasca a América (Guipúzcoa 1840-1870).* Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1984.

[146] AZCONA, J.M.: *Los Paraísos posibles: (historia de la emigración vasca a Argentina y Uruguay en el siglo XIX).* Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 1992.

[147] ÁLVAREZ GILA, Oscar: *Organización, identidad e imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI).* Bilbao: EHU, 2010.

[148] Honako historialarien izenak ageri zaizkigu gai hauetaz aritzen direnen artean: Mercedes Arbaiza, N. Aresti, Miren Llona, Pilar Pérez Fuentes, eta geroxeago aipatuko dugun Lola Valverde.

[149] VALVERDE, Lola: *Entre el deshonor y la miseria. Infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra. Siglo XVIII y XIX.* Bilbao: EHU, 1994. Emakumeaz eta abandonatutako haurrez ari da lan hori.

[150] Donostiako eskaleei buruz, eta Bilintxek esaten dizkigunak kontrastatu ahal izateko: ROQUERO, M.R.: "La mendicidad y la beneficencia en San Sebastián (1813-1925)", *Boletín Estudios Históricos de San Sebastián,* 32, (1998). Aldizkariaren ale osoa betetzen du lan horrek.

[151] Felix Luengoren "Recientes aportaciones a la historiografía política contemporánea en el País Vasco". In: *Cuadernos de Alzate,* 16, (1997), 177.-184. or.; eta MAJUELO, E.: "Euskal Herriko historia sozialaren garapenaz". In: *Jakin,* 55, 2, (1989), 69.-80. or. artikuluetan historia sozialari lotutako historiografia jasotzen da.

eratzeko bideak, hirietan, batez ere. Eguneroko bizitzari lotutako historia ere izango da hori neurri batean. Era honetako azterketak egindakoak ditugu Felix Luengo eta Luis Castells[152].

Gai politikoen tratamenduari dagokionez, bi ildo nagusi jarraitu dira, bederen, azken urteotako historiografian: batetik, ideologia politikoen historia egin da. Landu diren gai nagusiak hauek dira: XIX. mendea bere osotasunean hartzen badugu, karlismoa, foruzaletasuna eta liberalismoa; eta XIX. mende bukaera aldera begira jartzen bagara, berriz, nazionalismoa, sozialismoa, eta langile mugimendua, besteak beste. Baina ideologia politikoen gaiaz gainera, eta XIX. mendeari gagozkiola batez ere, beste era bateko azterketak ere egin dira: sistema foralaren eta Espainiako sistema konstituzional liberalaren izaeraren azterketa, baita bien arteko harremanarena ere[153]. Azkena aipatu dugun ikuspegi hori, besteak beste, Gipuzkoako historiaren azterketa lerro bati lotzen zaio, lurraldearen eratze prozesuaren ingurukoari, hain zuzen ere[154]. Lurraldea marko espaziala edo testuingurua baino zerbait gehiago izango da horrela: *"De este modo el <territorio> se convierte en trasunto de la sociedad, de sus relaciones de poder, de su concepción y opciones económicas, sociales, políticas y culturales. El <territorio> se convierte en realidad social viva, resultado y generador al mismo tiempo de una dinámica histórica dialéctica nacida del encuentro/desencuentro de necesidades, protagonismos y estrategias confrontados. Se transforma, en definitiva, en referente articulador integral"*[155]. Ikuspegi horretatik abiatuta, eta garaikidetasunari buruz ari garela, Jose Maria Portilloren lanak aipatu behar genituzke, nahiz eta kronologikoki gure azterlana baino lehenagoko garaiak landu batez ere[156]. Coro Rubiok honela dio Jose Mari Portilloren *Los poderes locales en la formación del régimen foral. Guipúzcoa (1812-1850)* lanari buruz: *"... una novedosa y sugerente primera exploración del impacto de la Revolución liberal en el País Vasco, rompía con el mito del continuo debilitamiento de la foralidad a consecuencia de los embates del*

[152] CASTELLS, L (ed): *El rumor de lo cotidiano. Estudios sobre el País Vasco contemporáneo.* Bilbao: EHU, 1999; LUENGO, Felix: *La vida cotidiana de una ciudad. De su destrucción a la ciudad contemporánea.* Donostia: Txertoa, 2000. Bilintxek hurbiletik ezagutuko ditu Donostiako sozializazio bide berriak.

[153] Gai horiez lanean aritu dira, besteak beste, proiekturen batean Juan Pablo Fusi, eta Luis Castells Arteche.

[154] Ikus Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko Elena Barrena, Jose Angel Achon, edota Jose Antonio Marinen doktore tesiak, besteak beste, Erdi Aroko eta Aro Modernoko Gipuzkoa eratzeari buruz.

[155] URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes…", op. cit., 53.-54. or.

[156] PORTILLO, J.M.: *Los poderes locales en la formación del régimen foral. Guipúzcoa (1812-1850).* Bilbao: EHU, 1987.

*constitucionalismo liberal y afirmaba su progresivo fortalecimiento hasta transformarse en los años 30 en una <nueva foralidad>, una foralidad vascongada presentada como mero mecanismo de administración interior perfectamente compatible con la monarquía constitucional*"[157]. Bizkaiari dagokionez, sistema foralaren eta udalerrien funtzionamenduaz eta harremanaz, berriz, Fernando Martinez Ruedaren lanak aipatu behar ditugu[158]. Lan horren bi alderdi azpimarratzen ditu Coro Rubiok: diputazioa udalen gain hartzen joan zen indarra eta XVIII. eta XIX. mendeetako prozesu historikoaren jarraitutasuna esplizitu egin izana.

Monarkia espainiarraren eta euskal probintzien arteko harremanei buruzko ikuspegi berriaren aitzindari gisa, Sevillako Unibertsitateko Zuzenbideko irakasle den Bartolome Clavero ere aipatu beharra daukagu. Konstituzioaren eta foruen izaeraz eta horien arteko harremanaz mintzatu izan da bere lanetan[159].

Aipatu lan horiez gainera, foraltasunaz lan gehiago ere argitaratu da azken urteotan. Foraltasunaren ogasun alderdiari erreferentzia eginez, Joseba Agirreazkuenaga eta Jose Maria Ortiz Orruñoren doktore tesiak ditugu[160]. Gai horretaz gainera, garrantzi berezia eman zaio euskal probintzien arteko elkarlanari, horien artean egindako bilerei edo biltzarrei[161]. Historialariek eta legelariek elkarlanean egindako lanen bat ere erabili dugu gure doktorego tesirako, eta une honetan aipatzea merezi duela uste dugu[162].

---

[157] RUBIO POBES, Coro: "El siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia*, 34, (2005), 301.-336. or.

[158] MARTINEZ RUEDA, Fernando: *Los poderes locales en Vizcaya: del Antiguo Régimen a la Revolución Liberal, 1700-1853.* Bilbao: EHU, 1994; VILLALUENGA, J.: *Confrontación de poderes. Estado, provincia y municipios en el Bajo Nervión (1840-1875).* Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2009.

[159] CLAVERO, Bartolome: *Fueros Vascos. Historia en Tiempos de Constitución.* Barcelona: Ariel, 1985; CLAVERO, Bartolome: "Entre revolución y tradición: constitucionalismo y fuerismo". In: *Historia Contemporánea,* 4, (1990), 39.-60. or.

[160] Bien artean egindako artikulu bati egingo diogu hemen erreferentzia: AGIRREAZKUENAGA, Joseba; ORTIZ DE ORRUÑO, Jose Maria: "Las Haciendas forales de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya entre 1800 y 1876". In: *Ekonomiaz. Revista de Economía vasca,* 9-10, (1988), 69-92. or.

[161] AGIRREAZKUENAGA, Joseba (ed.): *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente Navarra (1775-1936).* Bilbao: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 1995. Bertsolarien lanen azterketan ikusiko dugun bezala, bertsolari batzuek besteak baino gehiago, baina euskal probintzien batasunaren gaia presente izango dutenetako bat dela ikusiko dugu.

[162] ARBAIZA, Mercedes: *La cuestión vasca. Una mirada desde la Historia.* Leioa: EHU, 2000.

Sistema liberalaz, berriz, espainiar estatutik zetozen proposamen liberalek euskal probintzietan zein nolako eragina izan zuten aztertu da[163]. Guk landutako garairako, eta aztertutako zenbait bertsolarirengan izan zuen eraginagatik, interesgarri gertatzen zaigu seiurteko liberalaz landutakoa[164]. Liberalismoaren alderdi iraultzaile eta aurrerakoiena izanik, horrek eragin zuen sosegu ezik handiena gipuzkoar tradizionalenengan ere –tartean, Xenpelar bertsolariarengan-. Euskal probintzietako liberalismoaz hitz egiterakoan, ezin Coro Rubio beraren lanak aipatu gabe utzi[165]. Hona Coro Rubiok berak nola laburbiltzen duen bi lan horietan frogatutako hipotesia, euskal probintzietan sistema liberalak izan zituen bereizgarritasunak azpimarratuz:

> *" (…) bajo el título <Revolución y Tradición. El País Vasco ante la revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1876>[166]. Superaba los marcos provinciales de análisis para abordar los tres territorios vascongados considerándolos una unidad en su diversidad y se proponía desentrañar los límites y consecuencias del proceso revolucionario liberal en el País Vasco. En sus conclusiones finales llamaba la atención sobre los límites de la revolución liberal, incapaz de desmantelar un régimen foral incompatible teóricamente con el modelo de Estado centralista y uniformizador que trató de construirse, e incapaz de sustituir en el poder a la tradicional elite dirigente; subrayaba igualmente los límites del liberalismo vasco, que se contentó en su <función revolucionaria> con la mera reforma del sistema foral y que fue una ideología minoritaria que tuvo en la burguesía donostiarra su expresión colectiva más importante y que incluso en sus formulaciones más moderadas se diferenció claramente del fuerismo; y señalaba finalmente la emergencia de una nueva sociedad liberal que combinaba rasgos de modernidad e importantes inercias del pasado. En el libro <Fueros y Constitución. La lucha por el control del poder. País Vasco, 1808-1868> -en donde se recogía otra parte de la tesis, la referida a la historia institucional y del poder –explicaba cómo una misma elite, la de los notables rurales, dominó las instituciones políticas, forales y constitucionales, durante todo el reinado isabelino y cómo consiguió anular o plegar a sus intereses diputaciones provinciales y jefaturas políticas, y ofrecía resultados electorales a*

[163] Aitzindari gisa Miguel Artola historialariak, adibidez, landu zuen gai hori Euskal Ikaskuntzen IX. Biltzarrean. Gipuzkoar liberalismoaz zehatzago, BLASCO, Carlos: *Los liberales fueristas guipuzcoanos, 1833-1876.* Donostia: CAP, 1982.

[164] Ikuspegi orokor baterako, kontuan izan URQUIJO, Mikel: *Liberales y carlistas. Revolución y Fueros Vascos en el preludio de la última Guerra Carlista.* Bilbao: EHU, 1994. Eta Gipuzkoarako, CASTELLS, L: "El sexenio democrático y su repercusión en Guipúzcoa". In: *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae,* 2. Alea. Gasteiz, 1985, 1271.-1284. or. Kontuan hartu beharrekoak dira, baita ere, F. Rodriguez de Cororen lanak: *Guipúzcoa en la democracia revolucionaria, 1869-1876.* Donostia: Caja de Ahorros Provincial, 1980. Eta *San Sebastián. Revolución liberal y II Guerra carlista* (1868-1876). Donostia: Grupo Doctor Camino, 1986.

[165] RUBIO, Coro: *Revolución y Tradición. El País Vasco ante la revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1876.* Madrid: Siglo XXI, 1996 . Eta RUBIO, Coro: *Fueros y Constitución. La lucha por el control del poder. País Vasco, 1808-1868.* Bilbao: EHU, 1997.

[166] Komatxo horiek guk jarriak dira, aipuko testutik liburuaren izenburua bereizteko.

> *Cortes y a diputaciones generales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya entre 1808-1868"*[167].

Ideologia politikoen gaiari lotzen bagatzaizkio, karlismoari dagokionez, esan beharra daukagu gure bertsolarien artean espero baino gutxiago jaso dugula gai horren inguruan. Lehenengo eta Bigarren Karlistadaren artean jaioak ditugu aztertu ditugun sei bertsolariak. Gutxi hitz egiten dute gerraz –Joxe Mari Lopetegik izan ezik: horrek, ordea, 1936ko gerra hartuko du kantugai- eta egiten dutenean, bakearen alde mintzo dira. Hala eta guztiz ere, eta Coro Rubiori jarraituz[168], karlismoaren azterketan eta mugimendu eta gerrate horien oinarrian dauden arrazoiei gagozkiolarik, askotariko ikuspegiak izan omen dira historiografian: batzuek arrazoi sozioekonomikoak azpimarratu dituzte; beste autore batzuek, ordea, arrazoi ideologikoak eta politikoak aurkitu dituzte fenomeno horren pean. Horretaz gain, Coro Rubiok adieraziko du batez ere lehen Gerrate Karlistaren inguruko karlismoa aztertu dela[169].

Coro Rubiok, ideologia politikoen azterketan, foruzaletasunari ere tartea eskaintzen dio XIX. mendeko historiografiari buruzko artikuluan. Jon Juaristiren lan klasikoaz gain[170], Javier Fernandez Sebastian eta Maria Cruz Minaren artikuluak aipatuko ditugu. Kronologiagatik, bigarrenarena hurbilago dugu guk[171]. Bigarren horri buruz horrela dio Coro Rubiok: *"Mina se ocupaba del fuerismo a partir de 1839, explicando cómo en el nuevo Estado liberal se siguió utilizando el arsenal ideológico que había servido para defender los fueros frente al absolutismo, cómo durante el Sexenio se originó una nueva versión del fuerismo al servicio de la unidad católica de*

---

[167] RUBIO POBES, Coro: "El siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia,* 34, (2005), 301.-336. or.

[168] RUBIO, Coro: "El siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia*, 34 (2005), 301.-336. or.

[169] Vicente Garmendia, Joseba Agirreazkuenaga, Jose Ramon Urquijo, Jose Maria Ortiz de Orruño, Enriqueta Sesmero, Maria Cruz Mina, Coro Rubio berak, eta abarrek aztertu dute karlismoaren fenomenoa. Azken honenari, interesgarria deritzogu, Xenpelarren jarrera ulertzeko batez ere, erlijioaren garrantzia eta indartzea seiurteko iraultzailearen esperientziaren ondoren. Ikus: RUBIO POBES, Coro: "¿Qué fue del oasis foral? Sobre el estallido de la segunda guerra carlista en el País Vasco". In: MILLAN, J. (ed.): *Carlismo y contrarrevolución en la España contemporánea. Ayer,* 38 (2000), 65-89. or; URRUTIKOETXEA, Jose: *Karlismoa.* Donostia: Elkar, 1989. Integrismoaz, berriz, ikus: OBIETA VILLALONGA, Maria: *Los integristas guipuzcoanos: desarrollo y organización del Partido Católico Nacional en Guipúzcoa (1888-1898).* Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1995.

[170] JUARISTI, Jon: *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca.* Madrid: Taurus, 1987.

[171] FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier: "Ideología, Fueros y Modernización. La Metamorfosis del Fuerismo. I.: Hasta el Siglo XIX". In: *Historia Contemporánea,* 4, (1990), 61.-87. or. Eta MINA, María Cruz: "Ideología, Fueros y Modernización. La Metamorfosis del Fuerismo. II: Siglos XIX y XX". In: *Historia Contemporánea,* 4, (1990), 89.-106. or. Fernandez Sebastianek, berriz, artikulu honetan bere doktorego tesiko hainbat ondorio aurreratzen ditu. Erabilitako iturri nagusiak prentsa eta publizitateari lotuak izan ziren.

*España que lo convertía en la traducción vascongada del neocatolicismo y hacía de él valladar antirrevolucionario, y cómo en la Restauración recobró su papel de ideología defensiva de reivindicaciones concretas (<fuerismo de Conciertos o de negocios> lo llamó Sagarmínaga) y acabó trasmutándose por completo para ser asimilado por el nacionalismo aranista*»[172]. Xenpelar eta Pedro Mari Otañoren lanak ulertzeko lagungarri izango zaigu ikuspegi hori.

Ideologia politiko liberalaz eta errepublikanismoaz lan gutxi zirela esaten zigun Coro Rubiok 2005ean. Besteren artean, oraintsu argitaratutako liburuak baditugu hutsune horiek betetzen joateko. XIX. mendeko Gipuzkoako errepublikanismoaz berriki argitaratu da Unai Belaustegiren doktorego tesia[173]. Joaquín María de Ferrer y Cafranga (1777-1861) liberal pasaitarraz, berriz, Álvaro de Iranzo Comasek idatzi du liburua[174].

Nazionalismoaren inguruan egin diren lanak ugariak dira oso[175]. Azken hogeita hamar urteetan egin diren azterketek hainbat aurrerakuntza ekarri dituzte nazionalismoaren azterketara. Probintzia eta herrialde guztietara hedatu da nazionalismoaren azterketa, aldi kronologiko ezberdinak hartu dira azterketen espezializaziorako, lantzen diren gaiak ere ugariak eta askotarikoak dira: alderdien antolamendua, eragileen papera, biografiak, beste alderdiekin harremanak, kultur politika eta komunikabideak, nazioarteko harremanak[176], etab. Nazionalismoaren aldeko zein kontrako jarrerak ere nabarmendu dira azterketen artean. Gipuzkoari gagozkionez, askotariko gaiak hizpide dituzten lanak egin dira. Autore gipuzkoarrek nazionalismoari lotutako kontzeptuez egindako lanak albo batera utzita, EAJk Gipuzkoan izandako indar eta egituratzeari buruzko lanak egin dira. Besteren artean, Mikel Aizpururen doktorego tesia[177], edota Jose Antonio

[172] RUBIO POBES, Coro: "El Siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia*, 34, (2005), 314. or.

[173] BELAUSTEGI, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Bilbao: EHU, 2015. Artikulurik ere argitaratu du doktorego tesia oinarri hartuta: "El republicanismo en Gipuzkoa, 1868-1923: organización y desarrollo político". In: *Sancho el Sabio*, 37, (2014), 133.-157. or.

[174] IRANZO COMAS, Alvaro de: *Joaquín María de Ferrer y Cafranga. Un liberal vasco en la España del siglo XIX*. Madrid: Silex ediciones, 2015.

[175] Gai horiek lantzen ari den ikertzaile talde nagusia hau da: Jose Luis de la Granja, Santiago de Pablo, Ludger Mees, Jose Antonio Rodriguez Ranz, Jesus Casquete, Leyre Arrieta, Carlos Collado, Coro Rubio, Maitane Ostolaza eta Virginia López de Maturana, besteak beste. Sabino Arana Fundazioa eta Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia ere aipatu beharko genituzke gai hauek zaintzen dituzten oinarrizko erakunde gisa.

[176] ARRIETA, Leyre: *Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)*. Madrid: Tecnos, 2007.

[177] AIZPURU, Mikel X.: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923)*. Bilbao: EHU, 2003.

Rodriguezen [178] eta Miren Barandiaranen [179] lanak. Horietaz gain, nazionalismoaren eta gainerako indar politikoen arteko harremanez diharduten lanak ere argitaratu dira[180], edota nazionalismoak bere zabalkunderako erabili dituen tresnen berri jasotzen duten lanak[181]. Garai historiko zehatzetako nazionalismoari buruzko lanak ere argitaratu dira, II. Errepublikaz[182] eta Gerrate Zibilaz, batez ere[183]. Edota elizaren eta nazionalismoaren arteko harremanaz[184]. Azkenaldian, nazionalismoari lotutako sinboloen ikerketa da indartzen ari dena[185], baita, ikerketa talde beraren eskutik, nazionalismo konparatuen azterketa ere.

Sozialismo eta langile mugimenduaz ere idatzi da lanik. Egia esan, guk aztertutako bertsolarien lanetan ez du gai horrek toki gehiegi hartzen. Hala ere, Gipuzkoari dagokionez, lanik esanguratsuenak zeintzuk diren jasoko dugu hemen. Juan Pablo Fusiren lan aitzindaria aipatu nahi genuke lehenengo[186] eta, Gipuzkoaz zuzenean, Felix Luengoren[187] eta Pedro Barrusoren[188] lanak[189].

---

[178] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio (koord): *Tolosa, Euskal abertzaletasunaren bihotza: EAJren historia Tolosan.* Bilbao: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1995.

[179] BARANDIARAN, Miren: *Eusko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasain: 1995.

[180] AIZPURU, Mikel X.: "La imagen del <otro> en la historia contemporánea del País Vasco: nacionalismo vasco y socialismo". In: DUPLA, A.; FRIAS, P.; ZALDUA, I. (eds.): *Occidente y el otro: una historia de miedo y rechazo.* Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento, 1996. 185.-196. or.

[181] Horien artean AIZPURU, Mikel X.: "Kaiku. Ingi asterokoa abertzale eta irritxua. Prentsa abertzalea Gipuzkoan (1899-1923)". In: LACARRA, J. (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum. Anejo del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo,* (1991), 581.-593.or.; TAPIZ, J.M.: "Los locales de partido y transmisión ideológica. El caso de los Batzokis del PNV durante la II República". In: *Vasconia*, 27 (1998), 195-210. or.

[182] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Donostia: Instituto Dr. Camino de Historia Donostiarra, 1994.

[183] ABAIGAR, F.: "La primavera republicana de 1931 en Irun". In: *Boletín de Estudios del Bidasoa*, II. alea, (1985), 79.-92. or; ABAIGAR, F.: "Elecciones y política en Irún durante la II República". In: *Boletín de Estudios del Bidasoa*, III. Alea, (1986), 7.-46. or.

[184] GOÑI, Joseba: "Eliza Euskal Herrian absolutismo antiliberalaren, liberalismo katolikoaren, nazionalismoaren eta sozial-demokraziaren garaian (1808-1936)". In: *Euskal Herriaren Historiaz, III.* Bilbao: EHU, 1987. 143.-180. or.

[185] DE PABLO, Santiago; DE LA GRANJA, Jose Luis; MEES, Ludger; CASQUETE, Jesus (koord): *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco.* Madrid: Tecnos, 2012. Hamabi historialarik elkarlanean eginiko lana da hau, tartean Leyre Arrieta eta Maitane Ostolaza direlarik.

[186] FUSI, J.P.: *Política obrera en el País Vasco (1890-1923).* Madrid: Turner, 1975. Ricardo Mirallesek ere egin izan du proiekturik euskal sozialismoaren inguruan.

[187] LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa, 1917-1923.* Bilbao: EHU, 1990; LUENGO, Felix: *La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social. 1917-1923.* Bilbao: EHU, 1991.

[188] BARRUSO, Pedro: *El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica social (1931-1936).* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

[189] Sozialismoaz lanean dihardutenen artean, Ramon Rubial fundazioa ere aipatu behar dugu.

Proposopografiaren azterketa da euskal historia garaikidean landu den beste eremu bat, Joseba Agirreazkuenagak zuzendutako taldearen eskutik[190]. Bi lan nagusi argitaratu dira lan honen emaitza gisa[191]. Bizkairako osatutako lanaren tankerakoa Gipuzkoarako osatzea ez legoke gaizki.

Coro Rubioren iritziz, eta XIX. mendeko historiografiaz ari dela, mentalitateen alorra gutxi landutakoa da[192]. Antropologiaren eta filosofiaren ikuspegitik, erlijioaz eta herriz herri frantziskotarrek egiten zituzten misioez Belen Altunak argitaratutako lana aipatuko genuke guk[193].

Azken urteetan indarra hartzen ari den kontzeptuen historia ere aipatu nahi genuke errepaso historiografiko honetan. Javier Fernandez Sebastianen zuzendaritzapean, XIX. eta XX. mendeko Espainiako Historiako kontzeptu politiko eta sozialen azterketa egiten ari dira horiek.

Gasteizen egoitza duen Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua ere aipatu nahi genuke, bukatzeko. Azkenaldian, nazionalizazio prozesuak, emigrazio eta hiritartasunari lotutako gaiak lantzen ari dira, besteak beste, hemen, euskal probintzietatik haratagorako mugetara begiak zabalduz[194].

# 4.Laburbilduz

Berriro diogu. Gure doktorego tesiaren helburua Gipuzkoaren modernizazioaren testuinguruan bertsolariek zein identitate bide proposatzen dituzten jasotzea da. Gure azterketan ikusiko dugun bezala, identitatearen gaiak ez du bertsolari guztien diskurtsoan pisu bera izango: identitatearen gaiaren garrantziak bertsolari

---

[190] Talde honetan aurki ditzakegu, Joseba Agirreazkuenagaz gain, Susana Serrano, Juan Gracia, Fernando Martínez Rueda, Eduardo J. Alonso, eta J. Penche, besteak beste. Beste proiektu batera, "La cuestión vasca en la política española: de la "España Foral" a los estatutos de autonomía. 1876-1939" , aurrez aipatutako ikertzaileez gain, Jesus Pablo Chueca eta Mikel Urquijo gehitu beharko genituzke.

[191] AGIRREAZKUENAGA, Joseba (zuz.): *Diccionario biográfico de parlamentarios de Vasconia.* Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1993. Eta AGIRREAZKUENGA, Joseba (zuz.): *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, burócratas y patricios de Bizkaia (1800-1876).* Bilbao: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1995.

[192]Madariagak heriotzaren inguruan egindako lana aipatzen du soilik Coro Rubiok: MADARIAGA, J.: *Una Noble señora: herio anderea. Actitudes ante la muerte en el País Vasco, siglos XVIII y XIX.* Bilbao: EHU, 1998.

[193] ALTUNA, Belen: *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia.* Irun: Alberdania, 2003.

[194] Bertan aurkituko ditugu, besteren artean, Mikel Aizpuru eta Jose Mari Portillo. Institutu hori "Euskal Herri Garaikideko Historia Sozialaren eta Politikoaren Ikerketa Taldearekin" lotuta egongo da, edo batean eta bestean dabiltzan kideak, neurri batean, berdinak izango dira.

bakoitzak bizitako modernizazio prozesuarekin lotura zuzena izango du. Horregatik jaso dugu, atal historiografiko honetan, identitatea kontzeptuari lotutako bibliografia lehendabizi, "euskal" identitateari lotutako bibliografia gero –gipuzkoar herritarren identitateaz zehazki ez baitugu lanik aurkitu- eta, azkenik, gipuzkoar modernizazio prozesua ulertzen lagunduko digun bibliografia. Izan ere, berez existitzen den identitatearen azterketa baino gehiago, identitatearen gaia arazo gisa sorrarazi zuten baldintzen azterketa eta prozesua bera interesatzen zaizkigu. Bestalde gure azterketan konturatu ahal izango gara, nahiz eta guk aztertzaile gisa hainbat alor –ekonomikoa, demografikoa, politikoa, etab.- bereiz aztertu, bertsolariek eurek ez dutela era honetako zatiketa kartesiarrik egingo identitate aukera desberdinen inguruko diskurtsoa eraikitzerakoan.

Identitateari buruzko bibliografiak burua zabaltzen lagundu digu bereziki: gaur egunetik begiratuta, "identitate bukatu eta definitu" baten bila joan ordez, identitate diskurtso ezberdinak nola eta zergatik eratu ziren bilatzera eraman gaituzte hainbat irakurketak. "Euskal identitateaz" egindako irakurketek, berriz, agente ezberdinek identitateaz osatutako diskurtsoetara hurbildu gaituzte eta, aldi berean, herri xehearengana hurbiltzearen beharraz ohartarazi gaituzte, orain arteko azterketetan hutsune bat baita hori. Bukatzeko, gipuzkoar modernizazio prozesuaz egindako irakurketei atera diegun etekina, kasu eta gertakizun zehatzen ulermenarena baino gehiago, prozesu nagusiena izan da. Aurrerago ikusiko dugun bezala, bertsolariek beraiek ere, guk aztertu ditugunek, behintzat, kronista lana egitera baino gehiago, egoeraren irakurketak orokortzera jotzen baitute, nahiz eta zehaztasunetatik abiatu.

Doktorego tesiaren azterlana amaitu izanak[195] ia-ia berriro hasteko gogoa ekarri digu. Hau da, kokapen historiografikoan aipatutako hainbat lan sakonki irakurtzeko gogoa sorrarazi digu, bertsolarien ahoz esandakoak zehaztasun handiagoz bibliografiak dioenarekin erkatzeko edo konparatzeko asmoz. Oraingoan ez genuke ikuspegi zabala hobetsiko, bestela baizik, alor zehatz bat hartu eta horren azterketa sakonagoa egingo genuke. Utz dezagun zerbait ondorengo lanetarako ere.

[195] Laugarren atalean jasoa dago, "Diskurtsoen azterketa" deritzon atalean, azterlan hori.

# BIGARREN ATALA:
# ITURRIAK ETA METODOLOGIA

Historiografiaz aritu ondoren, iturrien eta metodologiaren atalari iritsi zaio txanda. Zeintzuk dira doktorego tesi hau egiteko erabili ditugun iturriak? Nondik edan dugu planteatutako galderei erantzuna eman ahal izateko? Metodologia hitzak, metodoari egiten dio erreferentzia, eta metodo hitzak, berriz, bideari. Zein da doktorego tesi hau egiteko jarraitu dugun bide nagusia eta zein iturriak ustiatzeko erabilitako tresnak?

Gure doktorego tesian atal garrantzitsua iruditzen zaigu hau. Izan ere, lanerako erabili ditugun iturrien azterketak esfortzu berezia eskatu digu alor metodologikoari dagokionez. Honetaz gainera, erabili dugun metodologiak hasieran genuen azterketa egitasmoa bera aldarazi duela iruditzen zaigu. Horrek ere balioa ematen dio jarraitutako lan-metodoari. Ikus dezagun.

Atal honetan, hainbat puntu izango ditugu kontuan. Lehenengo eta behin, bertsoak iturri historiko gisa erabiltzeari buruz arituko gara. Era honetako lanik egin izan den eta nola ikusiko dugu lehendabizi. Tarte berezia eskainiko diogu gero "bertsopaperen" fenomenoari, izan ere, guk aukeratutako sei bertsolarien lanak –Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegirenak- bertsopaper gisa jaso ditugu nagusiki. Gure azterketarako erabili dugun corpusa argitaratua izan zeneko Auspoa saila eta haren *alma mater* izan zen Antonio Zavala zenari ere erreparatuko diogu. Eta azpiatal honekin bukatzeko, bertsoak aztertzeko guk erabili dugun metodologia zein izan den azalduko dugu: "Grounded theory" deritzonetik eta diskurtsoen azterketatik hurbil dena eta nagusiki induktiboa dena. Esanak esan, bertsoei hobekien egokitzen zitzaien azterketa metodologia praktikan jartzen saiatu gara, etekinik handiena ateratzeko gai zena.

Bigarren momentu batean, bertsoak aztertzeko arestian aipatutako metodologia erabili izanak gure azterketa zenbateraino baldintzatu duen adieraziko dugu.

Eta metodologiaz idatzitako atal honekin bukatzeko, doktore tesi hau zein korronte historiografikoren baitan koka dezakegun agertzen saiatuko gara. Aitor dezagun azken puntu honetan ez dugula gehiegi sakonduko, ez baikara honetan espezialistak. Baina bi arrazoirengatik iruditzen zaigu interesgarri gai honi tartetxoa, bederen, eskaintzea: egun diren hainbat korronte historiografikotatik gertuen zeinetatik egon gaitezkeen agertzeko, baina, batez ere, korronte hauek egindako aurrerapen eta aurkikuntzetatik gure lanean kontuan hartzeko eta lagungarri izan daitezkeenak begiz jotzeko.

Has gaitezen, beraz, bertsoek iturri historiko gisa eman dezaketenaz hizketan.

# 1.Bertsolaritza: bertsoak iturri historiko gisa[196]. Gaiaren egoera eta metodologia

> *"Belaunaldiak eta bertsolari eskolatu/eskolagabeak berezi ohi ditugu. Aski ote da eskema hori klasifikapen batetarako? Estudiatu beharra legoke bertsolaritzaren eboluzioak, forma desberdinak, funtzio desberdinak denbora desberdinen edo leku desberdinen arabera. Eta agian ziklo nagusi batzuk berezi beharko dira: ziklo epikoa (XIV-XV), lirikoa (XVII-XVIII), "dialektiko" deitu dena (modernoa), beharbada. Gizartea aldatuz, bertsolariaren funtzioa ere aldatuz doa. Aldatu egiten da bertsolaritza. Bertsolariak ez du funtzio berdina erromeria batetan eta gerran ari den bando edo batailoi batetan, Ahaide Nagusien borroka aroan eta ohitura gortesauak imitatu nahi dituen gizarte ilustratu batetan, hiletetan eta eguberri jaietan. Gero, ziklo bakoitzaren barruan, modu bat nagusi izan arren (periodoaren ezaugarria, dominantea), beste edozein modu kabitzen da: XIV. eta XV. mendeetan banderizoak/damak, profazada, hiletariak kontatu ditugu. Bestelakorik ere bazen noski. M. Lekuonak, behintzat, xeheki aztertu duen Santa Klararen kanta zahar bat "zalantza gabe Erdiarotarra: XIV, XV. gizaldietan sortu"takotzat dauka. Konbenturen batetan egina. Laugarren edo bostgarren mota.*
>
> *Gehiago landu beharra dago bertsolaritzaren estudio soziala nahiz literarioa"*[197].

[196] Ez gara puntu honetan bertsolaritza zer den esaten hasiko, azaltzen hasiko. Baldin eta lan hau edo honen laburpen bat bertsolaritzaren fenomenoa arrotz zaion publiko bati zuzendu nahiko bagenio, orduan bai, sarrera bat gehituko genioke zeinetan bertsolaritzaren fenomenoaren aurrean kokapen bat egingo genukeen.

[197] AZURMENDI, Joxe: "Bertsolaritzaren estudiorako". In: *Jakin* (1980), 14/15 (bigarren aldia), 159. or.

Joxe Azurmendiren aipu hau abiapuntu egokia iruditu zaigu egin nahi izan duguna adierazteko. Guk bertsoak iturri historiko gisa aztertu ahal izango ditugu, bertso horiek sortuak izan zireneko garaiaren baitan ulertzen baditugu. Aldi berean, modu horretara aztertuz gero, garai zehatz hartako bertsolaritzaren azterketarako baliagarri izango zaigu gure lana. Aurrebaldintza da, beraz, eta aldi berean, ondorio. Polikiago azal dezagun.

Gure lanean, kronologia zehatz batean sei bertsolariren bertso-produkzioaren azterketa egin dugu, eta, batez ere, edukiaren alderditik egin ere. Ez dugu Bertsolaritza[198] nolakoa den aztertu nahi izan, 1830-1936 urte bitartean; sei bertsolari zehatzen lanetatik abiatuta hauen azterketa egitea besterik ez dugu helburu izan. Horretarako, sei bertsolari horiek garaiko gizon gisa kontuan izaten saiatu gara; alegia, une batez, bertsolari izan zirela ahaztu eta zein familia, testuinguru sozioekonomiko, lanbide, etab. zituzten kontuan izan dugu. Era horretara, "mito" gisa ezagutu genituen haiek espazio eta denbora jakinetan bizi izandako gizon bezala hartu ditugu.

"Mitoak" hezur-haragitzeak, ordea, garai zehatz hartan haiek egindako bertsoak eta, neurri batean, bertsolaritza hobeto ulertzen lagundu digula uste dugu. Bertsolari horien lanen azterketatik abiatuz, bertsolaritzak betetzen zituen funtzioak ere kontuan izan ditugu, modernizazio prozesu bete-betean murgilduta zegoen Gipuzkoan. Bat gatoz, beraz, Joxe Azurmendik "Bertsolaritzaren estudiorako" artikuluan landu beharreko puntutzat agertzen duen horrekin. Jakina, ezin gaitezke XIV. mendera arte atzera begira jarri. Bestetik, ez dugu, ezta ere, bertsolaritza XIX. mendean sortu zeneko mitoa hauspotu nahi[199]. Ehun urteko tartea besterik ez daukagu aztergai. Hala ere, nahikoa lan azterketa datu eta zehaztasunetan oinarritu ahal izateko. Ziklo honetako bertsolaritzari, bertsolaritza modernoari, dialektiko deritzo Joxe Azurmendik. Garai honetan, nagusiki eskolatu eta eskolatugabeen arteko dialektika erabili izan omen da bertsolariak sailkatzeko. Konplexuagotu egin nahi dugu guk garai zehatz horretako bertsolaritzaren estudioa.

Horretarako, gainera, birritan aipatutako sei bertsolariren bertsoen azterketa hutsean oinarrituko gara ia.

---

[198] Nahita erabili dugu letra larria, bertsolaritza monolotiko eta bakarrari erreferentzia egiteko, ahistorikoa litzatekeena.

[199] Ikus GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak.* Donostia: Bertsozale elkartea, 2001. 17. or.

> *"Bertsolari tipifikatu jakin baten irudia eta bertsolariaren kontzeptua, definizioa, nahasten ari gara. Eta hori, bertsoa zer den, zerk mugatzen eta definitzen duen, zerk ezaguarazten (historian zehar aldatuz joan daitekeena), ez aztertzeagatik. Orduan, nola ez dakigun bertsolaria obraren aldetik definitzen, produktuaren aldetik (lehenengo obra bera definitzen jakin beharko bait genuke) subjektuaren aldetik definitzen dugu. Esango bagenu bezala: "poeta lirikoa, poeta zurbil flako bat da; epikoa, harri jasotzaile baten sasoia duena". Definizio subjetibo hutsa. Orduan inprobisazioa, asmaketaren bat-batekotasuna, definitzailetzat hartzen da. Erlojua kriterio literario bihurtuta. Baina bertso bat 30 segundutan botatzen duena ez da 60 segundutan botatzen duena baino doble hobea. Inprobisazioa, gehienez ere, kondizio jeneral bat izango da, ez bertsolaritzaren elementu definitzailea"*[200].

Atal honetarako eta doktorego tesi honen hirugarren atalerako bereziki, ezinbesteko laguntza izan dugu Bertsozale elkarteko Xenpelar dokumentazio zentroaren partetik[201].

# 1.1.Orain artean zer egin den

Atal honetan, lehendabizi, azken urteotan[202] bertsolaritzara ikuspegi ezberdinetatik hurbiltzeko izan diren saiakera eta lanak aipatu nahi genituzke, horiei esker bertsolaritzaz genuen ezagutza asko ari baita sakontzen eta aberasten. Bigarren momentu batean, berriz, guri zehazki interesatzen zaigun ikuspegiari egingo diogu erreferentzia, hau da, bertsolaritza iturri historiko gisa erabili izan deneko adibide batzuk hartuko ditugu kontuan.

Azken urteotan bertsolaritza aztertu dutenetako batzuk bertsolariak izan dira: horien artean ditugu Andoni Egaña eta Jon Sarasua, sarritan Joxerra Garzia ere tartean zutelarik. Bat-bateko bertsolaritza dute horiek, batez ere, aztergai. Mugarri gisa *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*[203] liburua aipatuko genuke, hainbat hizkuntzatan argitaratua, bat-bateko bertsolaritzaren fenomenoa azaltzeko helburua duena. Bertan, Jon Sarasuak batez ere gaur egun bertsolaritzaren izaera zein den, eta honek dituen erronkak zeintzuk diren azalduko digu; Andoni Egañak,

---

[200] AZURMENDI, Joxe: "Bertsolaritzaren estudiorako", op. cit., 160.-161. or.

[201] Bertsolaritzaren inguruko argitalpenen hustuketa egiten dute bertan, eta oso baliagarria gertatzen da lan hau ikertzaileontzat. Eskerrak, bereziki, Itsaso Noyari.

[202] Hirugarren atalean aipatuko ditugu bertsolaritza aztertu duten hainbat autore klasiko: Manuel Lekuona, Juan Mari Lekuona, Santi Onaindia, Gorka Aulestia, Xabier Amuriza, etab. Autore hauek guk aztertu ditugun bertsolariei buruz esan dutena jasoko dugu bertan. Orain eskuartean dugun atalean, berriz, azken hamabost edo hogei urteetan bertsolaritzaz egin diren azterketa berritzaileak izango ditugu kontuan.

[203] GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Donostia: Bertsozale Elkartea, 2001.

berriz, bat-bateko bertsoaren sorkuntza prozesua azalduko du; eta Joxerra Gartziak, bere doktorego tesian[204] oinarrituz, bat-bateko bertsoen azterketarako marko teoriko berri bat proposatuko du. Bide batez, Joxerra Gartziaren beste bi lan interesgarri ere aipatu nahi ditugu, bertsolaritzaz orokorrean dihardutenak: "Bertsolaritzari buruzko ikaskuntzak orain arte"[205] artikulua eta orain hiru bat urte Etxepare Institutuaren eskutik argitaratutako *Bertsolaritza. Euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna*[206] liburuxka.

Honetaz gainera, euren eguneroko praktikari gogoetarako lekua egiteko ere idatzi zituzten Egaña eta Sarasuak edota Sarasuak eta Gartziak liburu batzuk[207]. Berrikiago, Maialen Lujanbiok ere egin du gogoetarik bertsolaritzaren inguruan. Esan beharra daukagu, orobat, lanak argitaratzeaz gain, bertsolariek emandako hitzaldi, parte hartutako mahai inguru eta abarrak ugariak direla. Xabier Payak ere ahozko lanen antologia egina du orain gutxi[208]. Bertsozale elkarteak antolatu eta *Bertsolari* aldizkarian argitaratutako "Bertsolamintza" jardunaldiak ere kontuan hartzeko modukoak dira[209].

Azpimarratzekoa da, halaber, Bertsozale elkarteak atzerriko inprobisatzaile eta inprobisazioaren aztertzaile direnekin egindako harremanak. Hauen artean ditugu John Miles Foley, Samuel G. Armistead, Maximiliano Trapero, etab. Ingelesez libururik argitaratu[210] eta atzerriko aldizkarietan ere -*Oral Tradition* dela kasu[211]- argitalpenik egin da bertsolaritzaren inguruan. Modu berean, Bertsozale elkarteak

[204] GARZIA, Joxerra: *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak (Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa).* Bilbao: EHU, 1999.
[205] GARZIA, Joxerra: "Bertsolaritzari buruzko ikaskuntzak orain arte". In: *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak.* Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001. 91.-107. or.
[206] GARZIA, Joxerra: *Bertsolaritza. Euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna.* Donostia: Etxepare Euskal Institutua, 2012.
[207] EGAÑA, Andoni; SARASUA, Jon: *Zozoak beleari.* Irun: Alberdania, 1997; GARZIA, Joxerra: *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena.* Irun: Alberdania, 1998; EGAÑA, Andoni: *Hogeita bina.* Donostia: Hariadna, 2004.
[208] PAYA, Xabier: *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia.* Donostia: Etxepare Euskal Institutua, 2013.
[209] Lehenengo Bertsolamintza, 1993ko *Bertsolari* aldizkarian, 10. zenbakian; bigarren Bertsolamintza, 2003ko *Bertsolari* aldizkarian, 49. zenbakian; laugarren Bertsolamintza, 2011ko *Bertsolari* aldizkarian, 82. zenbakian.
[210] ARMISTEAD, Samuel G.; ZULAIKA, Joseba (ed.): *Voicing the Moment. Improvised Oral Poetry and Basque Tradition.* Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada, 2005.
[211] Ikus Missouriko unibertsitateko Ahozko Tradizioaren azterketaz arduratzen den zentroko aldizkaria, *Oral Tradition*, 2007, volume 22, number 2.

iaz Euskal Herriko Unibertsitatearekin Udako ikastaroetarako hasitako elkarlana ere aipagarria da[212].

Antropologoak ere hurbildu dira bertsolaritzaren fenomenora. Joseba Zulaika[213] dugu aitzindarietako bat, Joxe Martin Apalategirekin batera. Ondoren datoz José Carlos Enriquez[214], Denis Laborde[215], Eric Dicharry[216] eta azkenetakoen artean, Jexux Larrañaga[217].

Antropologoen artean emakume bertsolarien inguruko kezkak ere indarra hartu du azkeneko urteetan. Nahiz eta asko ezagutu ez, izan bazirela badakigu. Gai honi loturik ageri dira Carmen Larrañaga[218] eta Jone Miren Hernandez[219], besteak beste. Ez antropologiatik, baina lehenago aipatu dugun Elixabete Perez Gazteluk Joxepa Anttoni Aranberriren inguruan egindako lanak ere[220] gai honetan sakontzen du.

Soziologoen artean, Xabier Aierdi, Juan Aldaz, Eider Alkorta, Alfredo Retortillo eta Harkaitz Zubiri ere hurbildu dira bertsolaritzara[221]. Horiek gaur egungo bertsolaritza aztertu dute gehiago: 2005eko bertsolari txapelketako entzule eta jarraitzaileen azterketa izango dute abiapuntu.

---

[212] Bertsolaritzak hezkuntzan duen tokiaz gainera, "Bertsolaritza eta gaurko gizartea" ikastaroa prestatu zuten 2014ko udan: azken honetan Xabier Aierdi, Jon Sarasua eta Miren Artetxek hartu zuten parte.

[213] ZULAIKA, Joseba: *Bertsolaritzaz bi saio.* Andoain: Bertsolari Liburuak, 2003. Bere baitan autore beraren bi lan biltzen ditu: 1985eko "Bertsolariaren jokoa eta jolasa" eta 2003ko "Bertsolariak eta idazleak: aita-semearen arteko kondaira zaharra".

[214] ENRIQUEZ, José Carlos: "La invención del bertsolari errante. Entre la consagración del mercado y la instrumentalización historiográfica (1789-1876)". In: *Ahozko inprobisazioa munduan.* Donostia: Bertsozale elkartea, 2003. Autore honen proposamena hurrengo puntuan, 1.2.an, jasoko dugu, XIX. mendeko bertsolaritzaz giltzarri esanguratsuak ematen baititu.
Eskuragarri: www.bertsozale.com/liburua/ahozkoinprobisazioamunduan/hiru/hiru2.htm

[215] LABORDE, Denis: *La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque.* Donostia: Elkar, 2005. Hurrengo puntuan, 1.2. deritzonean, errekuperatuko dugu, Denis Laborde XIX. mendeko bertsolaritzaz dioena jasoz.

[216] DICHARRY, Eric: *Le rire des Basques.* Paris: L'Harmattan, 2013.

[217] LARRAÑAGA, Jexux: *Jolas sakona. Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI. mendeko agoran.* Bilbao: EHU, 2013.
http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jexux_Larranaga_TESIA.pdf . 2015eko apirilaren 19an ikusia.

[218] LARRAÑAGA, Carmen: "Del bertsolarismo silenciado". In: *Cuadernos de Folklore-Eusko Ikaskuntza,* 6 (1997), 57.-73. or.

[219] HERNANDEZ Jone M.: "Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea". In: *Kobie (Serie Antropología Cultural),* XII zenbakia, (2006/7), 61.-70. or.

[220] PEREZ GAZTELU, Elixabete: *Joxepa Antoni Aranberri "Xenpelar" (1865-1943)* [Baliabide elektronikoa]. Errenteria: Udala, 2013. Lan honek ikastoletan lantzeko unitate didaktikoak ere ekarri ditu ondorio, emakumea eta bertsolaritzaren gaia haur eta gazteengana ere helarazteko.

[221] AIERDI, Xabier; ALDAZ, Juan; ALKORTA, Eider; RETORTILLO, Alfredo; ZUBIRIA, Harkaitz: *Bertsolaritza. Tradizio modernoa.* Bilbao: EHU, 2007.

Gehiago dira, noski, bertsolaritzara ahozko literaturaren historiatik hurbildu direnak[222], baita literaturatik ere[223]. Filologiatik hurbildu direnen artean, Asier Barandiaranen lanak azpimarratu behar. Enbeitatarren azterketa burutu du horrek, besteren artean[224]. Nahiz eta Asier Barandiaranek bereziki bertsolaritzaren alderdi formalak aztertu, interesgarri gertatzen zaigu guri ere kontuan izatea, Kepa eta Balendin Enbeitaren ideologiaren azterketa ere egin baitzuen, hauen bertsoetatik abiatuta.

Azken urteotako Euskaltzaindiaren Herri literatura batzordearen eta hauen kideen lana ere ezin ahaztu. Tartean aipamen berezia merezi du, Antonio Zavalaren erabakiz, Pello Esnal, Joxe Mari Iriondo, eta Javier Kaltzakortak Auspoa liburutegiarekin aurrera jarraitzeko hartutako konpromisoak, baita Auspoari eta Antonio Zavalaren artxiboari dagokionez, hau bizi zela, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginiko hitzarmenak ere[225]. Benetan eskertzekoa, era berean, Auspoa liburutegia Euskaltzaindiaren web orrialdean zintzilikatu izana, OCR eran eskaneatuz eta pdf eran aurkeztuz liburuetako bakoitza: ikerketa lanetarako laguntza eskergaitza eta erraztasun handiak dira eman dizkigutenak.

Bertsolaritzara diziplina ezberdinetatik egin diren hurbilpenak aipatu ondoren, hel diezaiogun, zuzenean, gure lanarekin bat datorren esparruari: bertsoekin harremanetan izan diren historia azterketak jasotzeari. Argitu beharra daukagu historiako lanetan bertsoek izan duten tokia ezberdina izan dela. Batzuetan, historiako lan hauetan ezezagunak ziren bertsoak ekarri dira argitara, edo gai historiko bati zegozkion bertsoak bildu dira, baina horiek diotena aztertu gabe. Beste batzuetan, berriz, bertsoak erabili dira, baina iturri osagarri gisa[226]. Osagarri diogunean, bi gauza adierazi nahi ditugu: batetik, bertsoez gain, eta, batez ere, beste

---

[222] Manuel Lekuona, Juan Mari Lekuona eta Koldo Mitxelena autore klasikoetatik hasi eta ondorengo berrietaraino: Patri Urkizu, Iñaki Aldekoa, Jon Casenave, Igone Etxebarria, Jon Kortazar, etab.

[223] Bernardo Atxagak Euskaltzaindian sarrera egin zuen eguneko hitzaldian –"*Antzarak, zenbakiak eta letrak*", Asteasu, 2007-Pedro Mari Otaño eta Pello Errota aipatu zituen, besteak beste.

[224] BARANDIARAN AMARIKA, Asier: *Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita: bi bertsolari belaunaldi ahozkotasunaren harian.* Bilbao: EHU, 2002.

[225] Donostiako Koldo Mitxelena kultur gunean gordetzen da Antonio Zavalaren artxiboa. Une honetan, berau antolatzen ari dira. Pello Esnali eskertu behar diogu artxibo honi buruz emandako azalpenak baita berau kontsultatzeko emaniko erraztasunak ere. Gure lanaren mugak gainditu egiten zituen, ordea, une hartan artxibo honen kontsultak. Hala ere, ez dugu esaten, etorkizunera begira, erabiliko ez dugunik.

[226] Ikus Jurgi Kintanaren "Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)". In: *Uztaro*, 30 (1999), 61.-84. or. 1.2. puntuan bereziki, karlistadei buruz lan historikoak egiteko bertsoekin nolabaiteko harremana izan duten autoreen errepasoa egiten du, honakoak aipatuz: Antonio Zavala, Julio Caro Baroja, Labayen, Jean Haritschelhar, Alfonso Irigoyen, Vicente Garmendia, Mikel Urquijo, Joseba Agirreazkuenaga eta Alexandra Wilhelmsen.

iturri batzuk erabili dituztela lan horietan historialariek. Eta, bestetik, bertsoei beren lanetan tokia egin bai, baina irakurlearen esku uzten dutela bertso horiek interpretatzeko lana. Ez dugu guk hemen zerrenda zehatz eta hutsunerik gabekoa argitaratzeko asmorik, baina bai ikerketa lanean zehar aurkitutako era honetako lan batzuei erreferentzia egin, bederen: Jesus Maria Leizaola[227], Antonio Zavala[228] bera, Esteban Antxustegi[229], Eneko Bidegain[230], Jabier Kalzakorta[231], Patri Urkizu[232], Piarres Xarriton[233], Pedro Berriochoa[234], eta abarren lanak dira bidean aurkitu ditugunak.

Lan horietaz gainera, ordea, ez asko, baina badira iturri gisa bertsoak besterik erabili ez dituzten historia lanak. Lagungarri zaigu hauen azterketa. Izan ere, gai historikoren bat jorratzeaz gainera, helburu horrekin bertsoak landu izanaren ebaluazioa egiten dute lan hauek. Kontu emate hauetatik gure lanerako hainbat ikasgai jaso ditzakegula uste dugu. Horregatik eskaintzen diegu tarte handiago eta zehatzagoa hemen, neurri batean, gure lanaren planteamentuarekin bat datozelako.

Jurgi Kintanak 1999. urtean bertsoetan oinarrituz egin zuen Lehen Gerrate Karlistari buruzko azterlana argitaratu zuen *Uztaro* aldizkarian[235]. Lehen Gerrate Karlistaren azterketa egitea adina inporta zitzaion Jurgi Kintanari bertsoak iturri gisa probatzea. Errepaso historiografiko bat egin ostean, berak argi dio: *"Kasu hauek, bertsoen erabileran aitzindari diren arren, bertsoen baliatze mugatua baino*

---

[227] Jesus Mari Leizaolaren hiru lan, behintzat, aipagai ditugu, guztiak Sendoak argitaratuak, 1981. urtean, *Obras Completas* lanen bigarren alean: "La <crónica> en la poesía popular vasca", "1808-1814 en la poesía popular vasca y otros estudios" eta "Acontecimientos del siglo XX en poetas euskericos".

[228] ZAVALA, Antonio: "La guerra napoleónica de España y los bersolaris". In: *Congreso de literatura (Hacia la literatura vasca).* II. Euskal Mundu Biltzarra / II Congreso Mundial Vasco. Eusko Jaurlaritza. Madrid: Editorial Castalia, 1989. 439.-459. or.

Baina, honetaz gain, honako hitzaldiak ere aurki ditzakegu Auspoako *Auspoaren Auspoa I alean*: "Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)", "Kuba-ko gerra (Bertsolaritza eta kondaira)"; *Auspoaren Auspoa II. alean*, lehen aipaturiko gerrate napoleonikoei buruzko hitzaldiaz gainera, "El cancionero vasco de las guerras carlistas"; *Auspoaren Auspoa III alean* berriz, "Estrofas en vascuence al 2 de mayo de 1808", eta "El 98, en la poesía popular vasca"; eta *Auspoaren Auspoa IV. alean,* berriz, "Frantzisko Apalategiren Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak liburuen aurkezpena".

[229] ANTXUSTEGI, Esteban: "Bertsogintza eta historia: gerrate karlisten adibidea". In: *Bitarte*, 24 (2001), 79.-89. or.

[230] BIDEGAIN, Eneko: *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian.* Euskaltzaindia, 2013.

[231] KALZAKORTA, Jabier: "Frantsesteko euskal bertso zahar-berriak: Maiatzaren bikoak eta abar". In: *Karmel*, 265, (2009)-1, 49.-70. or.

[232] URKIZU, Patri: "Bertsogileak eta II Mundu Gerratea". In: *Oihenart*, 14, (1997), 199.-202. or.

[233] XARRITON, Piarres: "Hazparneko bertsolari xurien eta gorrien arteko azken uztarrak". In: *ASJU*, XLIII, 2009, 979.-984. or.

[234] BERRIOCHOA, Pedro: *Como un jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX.* Bilbao: EHU, 2013.

[235] KINTANA, Jurgi: "Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)". In: *Uztaro*, 30 (1999), 61.-84. or.

*ez dute egin. Autoreotako zenbaitek, gainera, bertsoen itzulpena erabili dute, oso fidagarriak ez izaki. Bertso-sail luzeen gainean ikerketa sistematikoak egiteke daude. Iturrien azterketa kritikoa ere egin gabe dago"*[236]. Bertsoek iturri gisa eman ditzaketen arazoei buruz, bertsoen kontserbazioa, hau da, guganaino iritsi diren bertsioen egiazkotasuna da aipatzen duenetako bat. Gai honi lotuta, zehaztapen interesgarria egiten du –geroxeago guk ere horri helduko diogu-: *"Zailtasunak, bada, puntu oso espezifikoak ikertzean egon daitezke, aztergai konkretu batzuei dagokienez aipamen bakanak baino ez aurkitzea gerta daiteke eta. Kasu horietan ezingo dugu ondorio orokorrik ezta segururik ere atera. Baina oro har, eta beti kritikoki, heldu zaizkigun bertsoak jatorrizko ideietan itxuraldaketa larririk jasan gabe daudela pentsa dezakegu"*[237].

Bigarren aipatzen duen galdera bertsoen adierazgarritasunari dagokiona da: herriaren pentsaeraren adierazle ote dira? Horretarako, bertsolaria bera ez ezik, entzulea ere gogoan du Jurgik.

Hirugarren, bertsoen esparru kronologiko eta geografikoa ere aipatzen ditu. Jakin al dezakegu ziur bertsoak noiz eta non, edota norako, eginak izan ziren? Galdera hauek jasoak geratzen dira atal honetako 1.3. punturako.

Bukatzeko, bertsoak aztertzeko lan metodologiaz dioena ekarriko dugu:

> *"Lan-metodologia xede honen arabera egin da: gai desberdinak harturik, horiei buruz bertsoek zer dioten ikusi da, iritzi bakoitza fitxa batean jarriz, ematen duenari buruzko datuekin batera (bertsogilea karlista edo liberala zen, ikasia ote zen ala ez, zer urtetako bertsoa den, e.a.). Hola, datu guztiak bildurik, taldeka aztertu ditugu. Beraz, bertsoen multzo zabaletik, interesatzen zaizkigun auziei buruz diharduten bertso zatiak aurkitu eta sailkaturik ipini ditugu. Jatorrizko bertso horien ondoan azalpen laburrak dakartzagu. Modu horretan jakin nahi dugun auziaren gainean, bertsoek (gure ustez) diotena argiago erakusteko. Iruzkin horietan irakurleak ez du izugarrizko errebelazio luze eta mamitsurik aurkituko: bertsoek esaten dutena ulertzen eta azaltzen saiatzen gara, ez besterik. Eta bertsoek eskaintzen duten informazioa oso laburra eta iluna izan daitekeenez, euren iruzkinak ere maiz mugatuak dira. Gure interpretazioak zuzenak direlakoan gaude, baina beti gogoan izan behar da, jatorrizko informazioa azalpen horietan barik transkribaturiko bertsoetan dagoela.*
>
> *Laburbilduz, bertsoak ikusi nahi ditugun auzien arabera ordenatu, euren testuingurua eman (data, egilea, maila soziala, bandoa, arrakasta…) eta bertsoaren edukia argiago azaltzen saiatu gara. Hemen aztergai ditugun gai konkretuak foruen eta erlijioaren ingurukoak dira. Horien gainean bertsoetan zer agertzen den batu eta*

[236] KINTANA, Jurgi: "Lehen gerra karlista…", op. cit., 63. or.
[237] KINTANA, Jurgi: "Lehen gerra karlista…", op. cit., 63. or.

> *ondoren gisa honetako aspektuak ikusi ditugu: maila apaleko karlisten bertsoetan zelako erlijiotasuna agertzen zen, liberalen bertsoetan foruen defentsarik egiten ote zen, e.a.*»[238].

Mikel Aizpuru, Ander Delgado eta Maitane Ostolaza historialariek ere bertsoak erabili dituzte iturri nagusi gisa bere lan batzuetarako[239]. Zein da gu aztertzen ari garen artikuluan zuten helburua?

> *"Todo el corpus de bertsos que se han podido recoger y conservar sirven como fuente de primer orden para el estudio de la cultura popular vasca, cuando menos, de los siglos XIX y XX. Por ser los bertsolaris de extracción social popular en la mayoría de los casos, por tratar temas de interés y destinar sus bertsos fundamentalmente a la gente común, su estudio permite adentrarnos en el universo mental, prácticas sociales y preocupaciones de la población vasca. Pero esta fuente puede resultar también muy útil para analizar otro aspecto, que es el que aquí se aborda: las visiones que sobre la nación y la política podían reflejar estos bertsos y los modos en que trataban de divulgar estos temas. Se trata de una cuestión que apenas ha sido analizada desde el punto de vista historiográfico y por lo tanto, las páginas que presentamos componen sólo una primera aproximación al mundo del bertsolarismo*»[240].

Bertsoen interpretaziorako garrantzi berezia ematen diote autore horiek bertsolariaren beraren figura ulertzeko moduari. Hiru hipotesi ematen dituzte, hau da, bertsolaria hiru maila ezberdinetan kokatzen dute. Bertsolaria kultur elite baten partaide gisa ikus dezakegu. Zergatik?

> *"... bertsolari integrante de una élite cultural que percibe los procesos sociales que están teniendo lugar en su tiempo y los presenta a través de sus composiciones. Aunque no pueda ser integrada entre las élites culturales letradas al uso, no se puede negar que la capacidad de la inmediatez de las composiciones en verso requería un control del idioma, un conocimiento de los temas a tratar, una mínima fluidez en las ideas expresadas, etc. Estas características deben valorarse adecuadamente porque no estaban, ni mucho menos, tan extendidas socialmente como pudiera pensarse. Esa mayor capacidad intelectual les permitía constatar las transformaciones que están teniendo lugar en la sociedad en la que vivían y utilizar esa percepción como fuente de inspiración para sus poemas. Su producción, por tanto, es un medio*

[238] KINTANA, Jurgi: "Lehen gerra karlista…", op. cit., 67. or.
[239] Ikus adibide gisa, AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): una aproximación a través de los bertso-paperak". In: *Procesos de nacionalización en la España contemporánea.* Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 2010. 329.-353. or.
[240] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 329.-330. or.

> *adecuado para analizar dichos procesos y captar los cambios que estaban aconteciendo"*[241].

Bigarren aukera bat bertsolariaren izaera herritarra azpimarratzea da: *"Tomando en consideración dicho origen, el estudio de su producción poética se convierte en una forma de adentrarse en el análisis de los intereses y preocupaciones populares. Es decir, se trata de considerar al bertsolari como reflejo de la <cultura popular>"*[242].

Eta, azkenik, hirugarren aukera bat ere aipatzen dute:

> *"Se puede considerar al bertsolari como una persona más <despierta> e interesada por los temas del día a día que sus convecinos, y que daba su opinión sobre los acontecimientos que estaban teniendo lugar. Esa opinión siempre estaría mediatizada por sus personales inclinaciones ideológicas, políticas o religiosas, además de por el contexto social que le tocó vivir. Por tanto, más que un reflejo de las clases populares también puede considerársele como un agente social que pretende y puede incidir o aportar su granito de arena en los procesos sociales con su opinión, que tan seguida y tenida en cuenta era en los años que aquí estudiamos"*[243].

Autoreen ustez, hiru hipotesiak dira baliagarriak. Ez dugu zertan bakarra aukeratu beharrik.

Kontuan hartzeko modukoa iruditzen zaigu, halaber, modernizatzen ari zen gizarte hartan, besteak beste "informazioaren gizarte" bihurtzen ari zen gizarte hartan, bertsolariek betetzen zuten paperari buruz historialari horiek esaten digutena:

> *"La sociedad de ese periodo, incluso la rural, aunque en menor medida y más lentamente, se estaba transformando. De entre el conjunto de los ámbitos en los que se manifiesta este proceso, es el de la vida cotidiana de la población en el que los cambios fueron más palpables. Dentro de ese ámbito temático tan amplio, se puede mencionar el surgimiento de lo que se podría llamar la <sociedad de la información> -con todas las salvedades que se quieran hacer al utilizar este término-. El incremento del nivel de alfabetización de la sociedad vasca de la época fue unido al surgimiento de la moderna prensa de masas y del negocio editorial, bien fuera en el caso de los pequeños libreros-impresores de cualquier municipio, como en el caso de las empresas más capitalizadas. Esta confluencia de factores provoca que el volumen de información que se pone al alcance de la población aumente notablemente en esta época. La extensión de este mercado cultural proporciona al bertsolari un nuevo papel, al recaer sobre sus espaldas, en muchas ocasiones, la*

[241] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 330. or.
[242] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 330. or.
[243] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 330.-331. or.

> *función de proporcionar contenidos para muchas de las publicaciones periódicas de la época. En esa función, influyente en la sociedad inmersa en el proceso de modernización mencionado, la opinión personal del poeta jugaba un papel fundamental"*[244].

Gure doktorego tesian jasotzeko modukoa iruditzen zaigu ondoko zehaztapena ere. Arestian aipatutako historialariek bertsoen hartzaileei buruz egiten dute gogoeta, eta bide batez, bertsoen azterketa, kontzeptuak aztertzeko baliagarria dela adierazten dute:

> *"…De tal modo que estos textos estaban expuestos a una evolución constante, a diferencia de la literatura escrita perteneciendo su autoría definitiva a toda la comunidad al ser la comunidad la que daba la forma final a los bertso-paperak a través de sucesivas modificaciones y adaptaciones. El seguimiento de estas evoluciones puede ser clave para comprender la evolución de las mentalidades campesinas, su progresivo acercamiento al vocabulario y a los conceptos políticos <modernos>, o también para conocer de qué modo la cultura y los símbolos de la nación fueron penetrando en las clases populares"*[245].

Bere lanerako bertsoak besterik erabili ez dituen beste historialari bat dugu Maitane Ostolaza. Bertsopaperak erabiliz, kultura karlista aztertu du[246]. Berak proposatzen duen hurbilpena historia kulturalaren baitan kokatzen du. Bere lanaren zati bat bertsoak iturri gisa erabiltzeari buruzko hausnarketarekin osatzen du, eta bertsolariaz egiten duen zehaztapen bat interesgarri gertatzen zaigu:

> *"Lo importante en esta cuestión es llegar a deslindar el mito de la realidad ya que la figura del <bertsolari> ha sido ampliamente idealizada tanto por los <inventores> de <tradiciones culturales> como por la propia memoria popular. En el otro extremo tenemos el estereotipo negativo forjado por las élites que consideraban al <bertsolari> como un poeta menor que empleaba un lenguaje tosco y poco depurado; o la imagen proyectada por las autoridades (civiles o eclesiásticas), que veían en el bertsolari un peligro y una amenaza para la comunidad, dada su dudosa reputación moral y su gran capacidad de convocatoria que podía ser empleada como agitadora de conciencias y generadora de desórdenes públicos. De hecho, hubo casos en que se llegaron a prohibir las demostraciones públicas de <bertsolarismo>. Se impone por tanto un estudio riguroso de estas figuras para lo cual los informes de*

---

[244] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 331. or.

[245] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 331.-332. or.

[246] OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular: los <bertso-paperak>". In: LANES MARSALL, Julien; OSTOLAZA, Maitane (eds.): *Las culturas políticas en la España del siglo XIX*. Paris: Editions Hispaniques, 2010. 101.-128.or.

> *policía o la prensa contemporánea proporcionan seguramente una valiosa información"*[247].

Maitane Ostolazak bertsopaper hauen funtzioaz ere hitz egiten digu. Nahiz eta aurrerago gai honetaz hitz egingo dugun[248], garrantzitsua iruditzen zaigu autore honek, funtzio ezberdinak zerrendatu ondoren, gehitzen duen hipotesia: "*¿O fueron más bien un vehículo de expresión popular, un espacio híbrido en el que los valores, imágenes y símbolos tradicionales se combinaban e interactuaban con otros procedentes de la ciudad y asociados a la política moderna?*"[249].

Kontuan hartzeko modukoa da, halaber, bertsopaperen fenomenoa "pliegos de cordel" deritzotenekin nola lotzen duen[250].

Mikel Aizpuruk ere badu bertsoak iturri historiko gisa erabiliz egindako beste lan bat, kasu honetan, Norteko ferrokarrilari buruzkoa[251]. Gai zehatz bat hartu eta Auspoa bilduman gai horri buruz jasoak dauden bertsoen interpretazioa egiten du, horretarako, bertsoek diotena beste iturri eta bibliografiarekin kontrastatuz. Oraingo honetan ere, gaia aztertzen hasi aurretik zehaztapen batzuk egiten ditu. Argigarri gertatzen zaizkigunen artean:

> *"En efecto, el bertsolari propiamente dicho, era un improvisador que, en algunos casos, podía llevar sus trabajos a la imprenta. Los temas de interés y el público al que iban dirigidos sus versos eran fundamentalmente las clases populares vascas (campesinos, trabajadores, artesanos), sector al que pertenecían , además, muchos de los bertsolaris. Es este último segmento el que nos interesa de forma especial. Sus trabajos nos permiten adentrarnos en el universo mental, prácticas sociales y preocupaciones de un importante segmento de la población vasca, pero sería un error considerar que el bertsolari refleja automáticamente dicha mentalidad"*[252].

Mikel Aizpuruk egiten duen zehaztapena gure lanaren harira ere egoki dator, alegia, bat egiten du gurerako dugun espirituarekin:

---

[247] OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular…", op. cit., 107.-108. or.
[248] 1.2. puntuan Mikel Aizpuru, Ander Delgado eta Maitane Ostolazak berak bertsopaperek dituzten funtzioei buruz diotena jasoko dugu.
[249] OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular…", op. cit., 109. or.
[250] Fenomeno hori aztertzen duten honako autoreak aipatzen ditu: Julio Caro Baroja, Joaquín Marco, R. Arnabat Mata, etab.
[251] AIZPURU, Mikel: "Norteko Ferrokarrila. La red ferroviaria en la literatura oral vasca". In: *VI Congreso de Historia Ferroviaria-VI. Trenbidea Historia Batzarra.* Ikusgai: www.docutren.com/congreso_vitoria/comunicaciones/1075.pdf
[252] AIZPURU, Mikel: "Norteko Ferrokarrila. La red ferroviaria en la literatura oral vasca", op. cit., 3. or.

> *"La irrupción del ferrocarril no podía, por lo tanto, escapar a la atención de los bertsolaris y hemos localizado diversas composiciones en las que el ferrocarril, su construcción y explotación son el eje fundamental. No se trata, ciertamente, de convertir a los bertsolaris en la fuente fundamental para el estudio del ferrocarril o de la percepción social, sino de utilizar este recurso documental para abrir nuevos caminos en este campo de la investigación histórica"*[253].

Azkenaldian, Pio Perez Aldasorok Gerra Zibilaren inguruan bertsoak erabiliz egindako lana aipatu behar dugu[254]. Antropologia eta historia diziplinetatik egindako lan honek Joxe Zapirainek gerraren inguruan jarritako bertsoak erabiliko ditu Gerra Zibilarekiko sentimendu eta sufrimenduaren leihotik barne hurbilpen bat egiteko.

Hurbilpen hauek guztiak lagungarri izan zaizkigu bertsoek iturri historiko gisa zer eman dezaketen ikusteko, baita metodologien aldetik emankorrenak zeintzuk izan zitezkeen ikusteko ere.

## 1.2.Bertsopaperak, ahozkotik idatzira, XIX. mendeko bertsolaritzaren baitan

Doktorego tesi honetan erabili dugun iturri nagusia bertsoak izan dira. Ez bat batean botatako bertsoak, bertsopaperak baizik. Horregatik, eta nahiz eta XIX. mendeko bertsolaritza eta bertsopaperen izaera, funtzio, etab.en azterketak beste doktorego tesi bat egiteko ere aisa emango lukeen, beharrezkoa iruditzen zaigu bertsolaritzaren fenomeno partikularra den bertsopaperen azterketa egin dutenek esandakoak jasotzea.

Iturri gisa bertsopaperak erabili izanak, esan gabe doa, mugatu egiten duela gure azterketa "euskararen komunitatera"[255]. 1830-1936 urte bitarteko Gipuzkoan gehiengoa mintzatzen zen euskaraz. Euskara eguneroko bizitzari lotutako hizkuntza izango da, herri xeheak ahotan erabiliko duena[256].

---

[253] AIZPURU, Mikel: "Norteko Ferrokarrila. La red ferroviaria en la literatura oral vasca", op. cit., 3. or.

[254] PEREZ, Pio: *Joxe Zapirainen bertso-malkoak. Edo nola arindu arimaren sufrimenduak bertsoen bidez.* Bilbao: Labayru ikastegia, Amorebieta-Etxanoko Udala, 2013.

[255] GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak,* op. cit., 35. or. Jon Sarasuak darabilen kontzeptua da hau.

[256] Galdera beste modu batera egin beharko genuke: garai hartako Gipuzkoan, nortzuk ziren euskara erabiltzen ez zutenak, zein ezaugarri zituzten hauek?

Has gaitezen, bada, bertsopaperen fenomenoan sakontzen. Lehenengo eta behin, bertsopaperen inguruan haien garaikide zirenek zioten edo idatzita utzi zutenari helduko diogu. Horien artean aipatuenak dira Iztueta, Gorosabel eta Echegaray[257].

Iztuetak *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* lanean[258] bertsolaritza aipatzen du, baina bat batekoa, ez du bertsopaperik aipatzen. Bat bateko bertsolaritza joko gisa agertzen du batetik, bertsolari ezberdinen lehiaketa gisa, eta horretaz gainera, gipuzkoarrek bertsoak ohitura eta legeak belaunaldi batetik bestera errazago transmititzeko tresna gisa aipatzen ditu. Alfabetatu gabeak ziren pertsonek era honetako bertsoak egitea miraritzat jotzen du Iztuetak. Horretaz gain bertsolaritza baztertua eta ia ezkutuan gordea dagoela esaten du, euskaraz egiten delako ez dela balioesten:

> *"Iñongo escolatan beñere sartu bagueco Gipuzcoatar oen esaera egoqui, eta epaira zorrotzac baldin zabalduco balira Quevedo eta beste ascorenac bezala, icusi naico nuque norenac izango oteliraquean chistagarrienac, jostalluenac, eta gueiena zor zaiotenac. Bañan Euscaldunai guertatzen zaicuna da, gauzaric bicañena ta ederrena ere, Euscararen icenecoa baldin bada, osticoperatzea gueiago bague bera azaletic bedere ezagutzen ez duten choriburu puztuac"*[259].

Gorosabelek bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa. Libro II, Sección III,* "De las sonatas, bailes y poesía popular" lanean bertsolaritzari buruzkoak jasotzen ditu. 1899an argitaratu zen lan hau, baina Gorosabel 1868an hil zenez gero, urte hori baino lehenago idatzia zen. Gorosabelek[260] bat bateko bertsolaritza hartzen du lehendabizi hizketagai, eta gipuzkoar eta gainerako euskaldunen poesia herrikoitzat izendatzen du. Bertsolariak baserritarrak omen dira gehienetan, ikasketarik gabeak –alfabetatu gabeak ere bai-. Gorosabelek galdera egiten du bertsolari hauek eskolatu izan balira, noraino iritsi ote zitezkeen. Letra eta musika, biak asmatzen omen dituzte. Gaitzat festak, pilota partidak eta gazteen arteko gorabeherak omen dituzte. Bertsolarien artean izaten diren norgehiagokak –apustu eran jokatuak- ere aipatzen ditu, eta hauek zein gogoko dituzten gainerako baserritar eta artesauek. Hona Gorosabelek zein iritzi duen bertsoei buruz:

> *"Ya se puede comprender que semejantes composiciones poéticas, como improvisadas enteramente, difícilmente pueden reunir mucho mérito, consideradas bajo el aspecto de la literatura. Tampoco se puede esperar hallar en ellas conceptos elevados, que solamente la instrucción, el estudio y la educación puede producir,*

[257] Antonio Zavalaren *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., lanetik hartu ditugu Gorosabel eta Echegarayren aipuak.
[258] IZTUETA, J.I.: *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia.* Donostia, 1847. 214.-219. or.
[259] IZTUETA, J. I.: *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia.* Donostia, 1847. 215.or.
[260] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 93.-97. or.

> *cuando a estas cualidades se agrega el talento natural. Sin embargo, es indudable que en muchas de ellas se ven trazadas con bastante naturalidad, finura y expresión las diferentes emociones del corazón, particularmente el amor, los celos, la envidia, la gratitud, el odio, el desprecio, el valor, la amistad, etc.*"[261]

Gorosabeli pena ematen dio inor ez dela ari bertso hauek jasotzeaz arduratzen. Puntu honen bukaera aldera bertsopaperak aipatzen ditu:

> *"No existe ninguna colección regular de ellas, ni creo se haya pensado jamás en hacerla: que es una gran lástima, al mismo tiempo que una prueba de lo poco que la provincia ha protegido y fomentado la parte literaria de sus hijos. Ha desaparecido, por lo tanto, para nosotros tanto verso notable e interesante, como ha producido la fecunda imaginación de los versistas guipuzcoanos, tanto de los de la clase literata, como de los sujetos de estudios poéticos. Quiero prescindir de los emitidos a viva voz y de improviso en los mencionados certámenes o desafíos; porque no habiendo entonces taquígrafos que pudiesen copiarlos, debía llevarlos el viento, a causa de la fragilidad de la memoria de los oyentes. Pero si esto es cierto, no lo es menos que ha habido mucho descuido en no imprimir o circular las copias de las que una vez de puestas en papel pudieron consevarse y trasmitirse a la posteridad*"[262].

Carmelo Echegarayk, berriz, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* lanari eranskin edo apendizea egin zion. 1899 eta 1901 urte bitartean argitaratua izan zen hau[263]. Iztueta eta Gorosabelen bestelako iritzia izango du bertsoei buruz Echegarayk. Bertsoetan kontatzen direnak garrantzi gabeko gauzak dira eta gehienetan ahaztu egiten dira hauen egileak:

> *"Los sucesos más triviales, los accidentes más prosaicos se ponían en verso, y se cantaban, bien sea componiendo música con tal objeto, bien sea adaptando la letra a la música de un aire popular ya conocido. Pero ni porque se pusieran en verso, ni porque se cantasen, perdían aquellos sucesos el carácter irremediablemente prosaico que les distinguía. Murmuraciones de aldea, rivalidades ridículas de campanario lograban los honores del canto y de la popularidad. La mayor parte de las veces se olvidaba el nombre de los autores de tales engendros, y más vale para su buena memoria que se olvidase, pues de este modo no se perpetúa la fama de su incapacidad artística…*"[264].

Gai hutsalak lantzeaz gainera, moralaren kontrakoak ere badira, Echegarayren ustez, bertsoetan esaten direnak:

> *"Alguna vez, las faltas en que incurren los que escriben tales cosas, tienen más honda trascendencia, y ofenden no ya el sentido estético, sino el moral. En esta ofensa a los*

---

[261] Gorosabelen hitzak, guk honako lanetik hartuak: ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 95.-96. or.
[262] Gorosabelen hitzak, in: ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 96.-97. or.
[263] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 152.-153. or.
[264] Echegarayren hitzak, in: ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 152.-153. or.

> *sentimientos que más honran y enaltecen a la humanidad, entra seguramente por más la ignorancia que la malicia. Si en esos versos hay que hablar de algún suceso escabroso, no tratará el canto de envolverlo en cendales para no herir la delicadeza de los oídos del público que lo ha de saborear: lo relatará con crudeza que hoy llamaríamos naturalista, y que en ocasiones resulta inocua y casi inocente por su misma brutalidad. Así es ella de atentatoria al gusto más indelicado*"[265].

Eta honek bai, bertsopaperak aipatuko ditu zehazki: *"Si pudieran reunirse todas las hojas volantes que, por espacio de tres cuartos de siglo, se hayan difundido, con nombre de versos vascongados, por los hogares de la región euskara, se formaría una colección enorme de simplezas y groserías, dichas de una manera eminentemente prosaica, y en un lenguaje incorrecto y plagado de castellanismos*"[266].

Antonio Zavalak, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, batez ere Bilbo inguruan sortu zen mugimendua zela eta –euskal nazionalismoa- bertsolaritza gaizki ikusia zela esango digu, batez ere, bertsolariek erabiltzen zuten euskaragatik:

> *"Lógicamente, este cambio tenía que repercutir en el bersolarismo. Los bersolaris no cantan en el vascuence de derecho que los puritanos propugnaban, sino en el hecho que rechazaban. En consecuencia, el bersolarismo no sólo comienza a carecer del aplauso del sector culto, sino que comienza a ser menospreciado.*
>
> *Ya apenas se llama a los bersolaris a las fiestas euskaras, ya no se les abren los teatros- a no ser en San Sebastián en las fiestas de Santo Tomás-, ya no hay quien haga reseñas de sus sesiones, como lo hicieron Manterola y Otaegui con aquella impresión de admiración y asombro. Es más, algunas reediciones de canciones o poesías populares llegan a retocar los textos primitivos.*
>
> *[…]*
>
> *En esa época de desprecio al bersolarismo, no fue el bersolari quien se apartó del público culto, sino éste quien abandonó a aquél, por culpa de un criterio lingüístico equivocado. El bersolari ha sabido siempre acomodarse al público que tenía delante. Si en alguna época no ha cantado sino en tabernas y plazas de aldea, es porque no se le concedieron otros sitios donde hacerlo*"[267].

Argi ikus dezakegun bezala, XIX. mendean eta XX. mende hasieran jadanik kontraesana sortzen zuen bertsolaritzak eta bertsopaperen fenomenoak. Aldeko edo kontrako jarrera hartzera behartuak sentitzen ziren bertsolaritzaz mintzo zirenak. Zergatik?

---

[265] Echegarayren hitzak, in: ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 152.-153. or.
[266] Echegarayren hitzak, in: ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 153. or.
[267] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 156.-158. or.

Garaikideez gain, bertsopaperen ikertzaileek esandakoak ere jaso nahi ditugu gure lanean. Bertsopaperei buruz zabalen eta zehatzen idatzi dutenen artean dago Antonio Zavala, *Bosquejo de historia del bersolarismo*[268] lanean. Berari aitortu behar diogu, besteren artean, beraz, aztergaitzat bertsopaperak hartu izanaren aitzindaritza.

Antonio Zavalaren arabera, XIX. mendearen lehen herenean sortutako fenomenoa dugu bertsopaperena eta 1936. urtera arte iraun zuen indar handienaz. Herria biltzen zen tokietan saltzen omen ziren hauek: feri, merkatu eta festetan. Hasierako bertsopaperak gabon kantak ei ziren, elizgizonek osatuak eta Bilbon eta Donostian eman omen ziren lehenengoak. Erregeen heriotza zela eta ateratako bertsopaperik ere ezagutu zuen Antonio Zavalak. Bere ustez, "*Yo creo que se puede asegurar que el <bertso-papera> lo inició el sector culto del País, pero los vio el pueblo, le gustó el método y se lo asimiló hasta formar de él el fenómeno literario impreso más interesante en lengua vasca*"[269]. Iztuetaren eta Echegarayren aipu batzuk kontuan hartuz, Antonio Zavalak 1814 eta 1833 urte inguruetan ipintzen du bertsopaperen jaiotze data. Beste kontu bat litzateke "Bertso berriak" izenburua noiz agertu zen aztertzea. Gai honi ez zion Antonio Zavalak heldu.

Antonio Zavalak nola ezaugarritzen ditu bertsopaper horiek? Bere ustez, 1839an hasi eta Bigarren Gerrate Karlista arte zabalkunde handia izan zuten, bertsolaritzaren parte ezinbesteko bihurtuz. Une honetan dagoeneko "Bertso berriak" izena jasoko dute izenburuan. Zer dio aita Zavalak horiei buruz? Bere ustez, herriarengandik hurbilen dauden konposizioak dira. Hurbil zergatik? Batetik, herriagandik hurbil zeuden gaiak tratatzen zirelako hauetan, eta bestetik, herriaren ahotsa bertan jasotzen zelako:

> *"Es ésta, sin duda, la modalidad literaria vasca que más ha hecho trabajar a las imprentas. El espíritu vasco se nutrirá en adelante del <bertso-papera> más que de cualquier otro libro religioso o profano, más que de toda poesía culta. El <bertso-papera> ha sido nuestra primera publicación informativa, tanto de asuntos mundiales como locales o personales, nuestro mejor órgano de difusión de la opinión de nuestro pueblo y manifestador de sus sentimientos, instrumento a veces de justicia popular, y el más fiel retrato del alma vasca.*
>
> *[…]*
>
> *Cada bersolari tiene ciertamente su estilo personal y característico, pero en todos ellos parece escucharse más que la voz de un hombre, el clamor de todo un pueblo*

[268] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 30. or. eta hurrengoak.
[269] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 34. or.

> *que ha tenido la suerte de encontrar quien sepa decir lo que él siente. Ahora se habla cada vez más de poesía social. No creo aventurado decir que si alguna poesía merece este título es la de nuestro <bertso-papera>"*[270].

Gure azterketarako interesgarria da Antonio Zavalak bertsopaperei buruz azpimarratzen duen ezaugarria: hauen egiazkotasuna eta hainbat gai tratatzen dituztenean erabiltzen duten ikuspegi errealista. Bi ezaugarri hauek balioztatu egiten dituzte bertsopaperak iturri historiko gisa:

> *"La autenticidad es una nota en que siempre aventajará el <bertso-papera> a la poesía culta euskérica. Esta suele tener como ideal la expresión de la belleza según la última moda literaria de las literaturas vecinas, pero al cantar temas ajenos a la vida cotidiana de sus autores confiesan éstos no saber encontrarla en sí mismos y hacen una poesía ficticia. La popular, en cambio, sin tener aspiraciones estéticas ni atarse a modas literarias, canta tal cual es, unas veces mezquina y otras generosa, su vida cotidiana, que es la más segura fuente de belleza que el hombre puede escoger.*
>
> *Podríamos decir esto mismo de este otro modo: el terreno en que se asienta nuestra poesía popular es siempre la realidad; nuestra poesía culta, en cambio, descansa con harta frecuencia sobre una base ideal, que el poeta culto, disconforme con la realidad que le rodea, escoge como evasión y refugio de su sensibilidad artística"*[271].

Herriarengandik hurbil ipiniko ditu bertsopaperak, beraz, Antonio Zavalak. Gure azterketan ikusi ahal izango dugu hori zenbateraino iruditzen zaigun horrela edo zer nolako zehaztapenik egin beharko genukeen bertsopaperen errealitatera modu xeheagoan hurbiltzeko.

Antonio Zavalak, bertsopaperei lotuta, beste puntu interesgarri bat ere lantzen du: zerk bultzatuta osatzen zituzten bertsolariek bertsoak? Batzuetan, beren gogoz, barruak hala eskatuta. Beste batzuetan, berriz, enkarguz egiten zuten[272].

> *"…El interesado acudía al bersolari, y le contaba punto por punto todo su caso. El bersolari le daba una fecha para que viniera a recoger su manuscrito. En esta segunda entrevista repasaban las estrofas por si convenía quitar o añadir algo. Por último, el visitante llevaba la hoja manuscrita a alguna imprenta, aunque a veces era el mismo bersolari quien se encargaba de esto"*[273].

Ezkontza galdutako bertsoak era honetara jartzen zirela adierazten du Antonio Zavalak, senargaiak andregaiari, edo alderantziz –andregaiaren aitak edo familiako beste kideren batek agintzen zion bertsolariari bertsoak egiteko-. Baina ez

[270] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 45.-46. or.
[271] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 45.-46. or.
[272] Enkarguz egiten zituzten haiek, beraz, hainbat herritarren beharrei erantzuteko jarriak izango ziren.
[273] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 53. or.

horretarako bakarrik, beste gai batzuk zirela eta jartzen ziren bertsoak: "*… desafío de apuestas o comentarios de ellas, pleitos personales o colectivos, regatas, recuerdo de misiones populares, peregrinaciones, intereses políticos…*"[274]. Bertsopaperei buruz ari dela, bereizketa bat egiten du politika gaiei buruz ari direnekin: "*Pero, en general, son <bertso-paperas> poco auténticos. Creo que la mayor parte de ellos no son de bersolari, sino de personas más o menos cultas que, interesadamente, recurren al <bertso-papera> como fenómeno social popular. Lo malo es que sus estrofas son una mala imitación de las de los bersolaris. Y habla en favor del buen sentido de éstos, el que no se mezclaran, salvo excepciones raras, en el revuelto mundo de las banderías políticas y continuaran fieles a su misión de ser los portavoces de los valores humanos, universales y perennes de su pueblo*"[275]. Aipatutako gaiez gain, beste batzuk ere lantzen ziren bertsopaperetan: pilota, aizkolariak, harrijasotzaileak, segalariak, palankariak, idi apustuak; gerrate karlistak; Ameriketara emigrante joan zirenen bertsoak; egoera ekonomiko eta ofizioei lotutako bertsoak, maizterrei buruzko bertsoak, eguneroko bizitzari lotutakoak, industrializazioaren eraginez sortutako gorabeherei buruzkoak; soldaduskako bertsoak, etab.

Bertsopaper hauek saltzen zituztenei buruz ere mintzatuko da Antonio Zavala. Nola saltzen zituzten bertsoak? "*Este oficio requería tener una buena voz. Se distinguió por ello el versolari Fermín Imaz. Se colocaban en un lugar estratégico y comenzaban a cantar las estrofas de la hoja que ponían a la venta, las cuales se las sabían ya de memoria. Acudían los compradores y hacían las dos cosas a la vez: cantar y vender*"[276]. Zenbatean saltzen zituzten ere esango digu Antonio Zavalak. Bertsopaperen erosleez, honakoa esango digu:

> "*…Todo este mundillo no podía ponerse en movimiento sin un público que se interesara por las hojas y las hiciera rentables. Incluso hemos visto que algunos tomaban la redacción o venta de los <bertso-paperas> como solución o ayuda de sus economías*[277].
>
> *Para muchos era costumbre obligada volver de la feria o del mercado con un <bertso-papera> en el bolsillo. El mismo consagrado título de <Bertso Berriak> (estrofas nuevas) con que todos los <bertso-paperas> se publicaban, parece que no es*

[274] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 54. or.
[275] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 137. or. Bigarren atal nagusi honen 4. puntuan, "Laburbilduz" izenburua duen atalean, egingo dugu Antonio Zavalaren hitz eta proposamenen balorazioa.
[276] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 57. or.
[277] Aurrerago ikusiko dugun Pello Errotaren kasuan, horrela gertatuko da: errotaz aparte, bertsolari ofizioak lagunduko dio familia hazteko beharrezkoa ateratzen.

> *sino un tributo al afán de novedad del público, que, conociendo las antiguas, prefería las composiciones más recientes"*[278].

Bertsopaperez gainera, desafioak ere izaten ziren bertsolarien artean, epaimahaien aurrean egindako lehiaketak, denbora neurtuan bertsoak eginez, gaia zehaztu gabe. Antonio Zavala hauei buruz ere mintzatuko da. Lore joko eta Euskal Jaietan bertsolaritzak zuen paperaz ere hitz egiten du Antonio Zavalak.

> *"Las sesiones de bersolaris fueron un número obligado de todas las fiestas euskaras o Consistorios de Juegos Florales de la época. En estas ocasiones se reunían todos los más destacados literatos vascos, y junto a su nombre aparece siempre el de los bersolaris, adornado con el epíteto de <bardos euskaros> o algún otro calificativo romántico muy de la época"*[279].

Amaitzeko, esan behar Antonio Zavalak bertsolaritza euskal kirol bezala izendatzen duela: *"No puede extrañarnos que los bersolaris se hayan sentido tan unidos a las pruebas de los atletas porque, el bersolarismo no es, en el fondo, sino uno más de los deportes vascos, en el que se llega a poner, a veces, la misma pasión que en todos los demás"*[280].

Laburbilduz, Antonio Zavalari, batez ere, bertsopaperak jaso izana eskertu behar diogu: bere denbora horiek jaso, antolatu eta argitaratzeko erabili izana eta XIX. mendeko bertsolari nagusiak hobeto ezagutzeko haien inguruko datuak –bai idatzizko eta bai ahozko iturrietatik- jaso izana. Bertsopaperen inguruko lehenengotako hurbilpen teorikoa ere berari zor diogu: apika, lehenengotakoa izanagatik, orokorregia gertatzen zaigu orain, eta erabilitako tonua, goraipamenetik hurbilekoegia –"herriaren" miresmenari atxekia-. Baina zalantzarik gabe, aurreko lan hura guztia egin izan ez balitz, gu ez ginateke orain egiten ari garen doktorego tesia egiten ariko.

Antonio Zavala ez da izango aztergai dugun garaiko bertsolaritzaz hitz egingo digun ikertzaile bakarra. Denis Laborderen lana ere interesgarri gertatzen zaigu XIX. mendeko bertsolaritzaz baitihardu bere liburuko kapitulu pare batean. Laborde XIX. mendeko bertsolaritzaren azterketara zehaztasun eta kritikotasun handiagoz hurbilduko da, tradizioen sorkuntza garaia izanik, orduko bertsolaritzak "eraikitakotik" zenbat duen ikusteko. Bere ustez:

> *"C'est que l'improvisation orale n'est pas un fait culturel immanent à la societé basque mais un fait historiquement circonscrit et culturellement déterminé. C'est*

[278] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 62.-63. or.
[279] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 133. or.
[280] ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 105. or.

> *dans la dynamique d'une <culture basque> en perpétuelle invention que ce que Lekuona nomma, au seuil du XX^e siècle, furent, <le bertsularisme> prit conssitance. Son élaboration comme genre littéraire est indissociable du mouvement diffus de mise à statut d'objet de cette <culture basque> dans son ensemble, une <culture basque> que l'on dote des marques distinctives qui vont permettre son inscription dans l'histoire aux côtes de cultures anciennes, antéhistoriques, vieillies, admirables donc, et disparues ou près de disparaître. Le bertsularisme fut l'une de ces marques distinctives. Il fut inséré, fort tardivemente et nous verrons pourquoi, dans la série des <objets culturels> -la langue, les coutumes, l'archéologie, la danse, les chansons- qui, au long du XIX^e siècle, furent, eux, érigés en marqueurs d'une singularité basque."*[281].

Denis Labordek garrantzi berezia emango dio Antoine D'Abbadieri bertsolaritzaren XIX. mendeko estatutu aldaketan:

> *"Or, en organisant, à partir de 1851, sees fêtes basques (parfois nommées fêtes des Basques), Antoine d'Abbadie multiplie les occasions de rencontres officielles entre improvisateurs. En multipliant les joutes, il façonne des habitudes de mise en scène, des habitudes dans la manière d'improviser en public, dans la manière d'énoncer les sujets avec solennité, dans la manière, pour les jurys, de s'accorder sur des critères d'évaluation, dans la manière, pour des journalistes, d'en rendre compte dans les colonnes de presse. En l'absence des règlements écrits de ces concours d'improvisation, je traque l'émergence d'un espace critique de l'improvisation orale dans la presse écrite où ces poèmes sont commentés avec une précision grandissante"*[282].

Denis Laborderen lanaz gainera, aipagarri da José Carlos Enriquezena[283]. Honek ere XIX. mendean, batez ere, bertsolari eta bertsolaritza eredu berri bat gauzatu zela defendatuko du. Hona artikuluaren laburpenak berak dioskuna:

> *"Este análisis se centra en Euskal Herria en el período comprendido entre 1789 y 1876, con la intención de explicar los factores que hicieron triunfar al bertsolarismo profesional entre las demás costumbres y prácticas culturales. Los bertsolaris que se popularizaron durante el siglo XIX lograron sus éxitos al ser capaces de presentarse ante sus auditorios como actores, narradores y cantantes a la vez. Vivieron en auge y desprecio simultáneos, puesto que su ensalzamiento acarreaba su crítica despiadada. El lucro tentaba a los bardos cuya fama ha perdurado hasta nuestros días, pese a su ignorancia y analfabetismo. Los versificadores del siglo XIX fueron animadores de*

[281] LABORDE, Denis: *La mémoire et l'instant,* op. cit., 131. or.
[282] LABORDE, Denis: *La mémoire eta l'instant,* op. cit., 188. or.
[283] ENRIQUEZ, José Carlos: "La invención del bertsolari errante. Entre la consagración del mercado y la instrumentalización historiográfica (1789-1876)". In: *Ahozko inprobisazioa munduan.* Donostia: Bertsozale Elkartea, 2003.
Eskuragarri: www.bertsozale.com/liburua/ahozkoinprobisazioamunduan/hiru/hiru2.htm

> *gentes con dotes de improvisación, facultades linguísticas y, en la mayoría de los casos, memoria prodigiosa"*[284].

José Carlos Enriquezen hipotesiaren arabera, XIX. mendeko bertsolaritzaren eszenatokia aldatu egingo da, espazio pribatuetatik publikoetara pasatuko da, eta merkantilizatzen ere hasiko da. Zer eskaintzen zioten bertsolaritzak eta, zehazkiago, bertsopaperek erosleei?

> *"Los <bertso-papera> u hojas volanderas impresas que reproducían aquellas estrofas más aplaudidas en los concursos de bertsolaris pronto fueron también objeto de adquisición. Su proliferación, sobre todo a partir de 1840, vendría a ratificar la comercialización –y también el reajuste- de la improvisación verbal poética en un soporte industrial tangible, fijable y reproducible <ad infinitum>, siendo a su vez un claro reflejo de la avidez con la que extensos sectores sociales subalternos consumían un producto cultural común escrito en euskera, muy distinto de los catecismos y almanaques que, también en Euskalherria, circularon profusamente desde el Renacimiento. Ahora bien, acudir a desafíos o hacerse con una letrilla impresa era, para los pobres, una inversión social y cultural que iba mucho más allá del hecho económico señalado. Y todo ello por múltiples motivos: porque reforzaba los vínculos de parentesco, vecindad y amistad, porque del cantante- especialmente en tiempos de tribulaciones, guerras y precariedades- las concurrencias recibían información, agudezas, complicidad y solidaridad, y porque activaban la identidad comunitaria y la camaradería al convertir y transformar el encuentro poético en un escenario de ubicuidades históricas donde convergían el ritual cultural, la posibilidad del regalo, la participación en una fiesta y el alarde individual de un consumo de productos y artículos tan manifiestamente económicos como ideológicos y sociales. En realidad, los bertsolaris que se popularizaron en las plazas de las villas vizcaínas, guipuzcoanas y labortanas durante el siglo XIX lograron sus éxitos al ser capaces de presentarse ante sus auditorios como actores, narradores y cantantes a la vez. El entusiasmo comunitario daría el espaldarazo definitivo a la individualización, al reconocimiento de personalidades y estilos de improvisacion, a que se forjase una memoria colectiva refrendadora de poetas creativos y originales, de intérpretes que se caracterizaban por un estilo propio o un rictus expresivo particular"*[285].

Bai Denis Laborderen bai José Carlos Enriquezen lanak lagungarri izango zaizkigu XIX. mendeko bertsolaritzara hurbiltzeko eta guk aztertu ditugun bertsolarien lanak hobeto kokatzeko. Hauen gogoeten bitartez bertsolaritzaren betikotasuna eta, batez ere, bertsolaritzaren ezaugarriak betikotzea sahiestea espero dugu.

Mikel Aizpuru, Ander Delgado eta Maitane Ostolaza ere bertsolaritzaren azterketan jardun dira. Aurrerapauso bat eman dute gainera: XIX. mendean hasi

---

[284] ENRIQUEZ, José Carlos: "La invención del bertsolari errante…", op. cit. (orrialde zenbakirik gabe).

[285] ENRIQUEZ, José Carlos: "La invención del bertsolari errante…", op. cit. (orrialde zenbakirik gabe).

eta 1936ko bertsolaritzaz dihardutenean, aldikako azterketa proposatzen dute. Hau da, bertsopaperak aldika banatu dituzte, honako aldiak dituzte gogoan[286]: 1833-1876 bitarteko bertsopaperak, Errestaurazio garaia (1876-1923), eta, azkenik, bertsolaritza erakundetzeko saiakera berria (1931-1936 urte artean ikusten dena, batez ere). Lehenengo aldiari dagokionez, 1833-1876ko bertsolaritzaz ari direla, José Carlos Enríquezek esandakoak jasotzeaz gainera, honakoa azpimarratzen dute egileek:

> *"... lo que no cabe duda es que los bertsolaris conectaban fácilmente con el pueblo al moverse en las mismas coordenadas ideológicas y culturales que las clases populares. De ahí su aceptación y su elevada consideración social, al menos en los medios rurales, rivalizando incluso con el propio cura de aldea. Pero al mismo tiempo, los bertsolaris tenían una gran movilidad, sobre todo si eran reputados, y podían recorrer distintos pueblos y ciudades tanto de su provincia como de las regiones limítrofes. Ello les permitía estar al corriente de los principales acontecimientos políticos, económicos o sociales que se producían a escala nacional de modo que sus bertso-paperak se convertían en correas de transmisión de toda esta información a nivel local pudiendo contribuir positivamente a la <politización> de las clases campesinas"*[287].

Joxe Azurmendik egiten zuen galderaren haritik, historialari hauek ere XIX. mendeko bertsopaperen funtzioez egiten dute galdera:

> *"¿Contribuyeron los bertso-paperak a reforzar los vínculos familiares y comunitarios que se han revelado tan importantes en cuanto a la transmisión y reproducción de la cultura carlista? ¿Constituían los bertso-paperak un medio de información al servicio del pueblo iletrado, una suerte de <periódico> popular, a través del cual se difundían noticias relacionadas con la <gran política> y otros acontecimientos nacionales? ¿Hasta qué punto fueron vehículos de aculturación al servicio de las elites, ya fueran carlistas o liberales, o más bien fueron correas de transmisión de reivindicaciones populares, canales que vehiculaban la crítica y el descontento popular? En todo caso, lo que sí podemos afirmar es que estas hojas volantes de consumo masivo parecen haber jugado un papel de primer orden en tanto que generadoras de solidaridades grupales y creadoras de identidades colectivas"*[288].

Errestaurazio garaiko bertsolaritzaz hainbat ezaugarri azpimarratuko dituzte artikuluaren egileek. Horien arabera, bertsolari askok lehenagoko moduko bertsoak jarriz jarraituko dute. Berrikuntza gisa, bertsoek egunkarietan hartuko duten tokia

---

[286] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación...", op. cit., 332.-353. or.

[287] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación...", op. cit., 333. or.

[288] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación...", op. cit., 333. or.

handitu egingo dela esango digute, nahiz eta horrek bertsoak egiteko modua ez aldatu. Gai politikoek bertsoetan hartuko duten tokia ere nabarmendu egingo da, gizartean gertatzen ari zenaren ispilu. Esandakoez gain, bertsoek Lore jokoetan eta aldizkako argitalpenetan –*Euskal-erria, Revista Euskara, Revista de las Provincias Euskaras, Revista de Vizcaya, Eskualduna, Euskalzale, Ibaizabal,* etab.- izango duten presentzia azpimarratuko dute autoreek. Bertso horien egileei buruz diote:

> *"Cabría decir que estos últimos no son propiamente bertsolaris, sin embargo, su estudio resulta de interés porque utilizan los mismos patrones formales, coinciden con muchos de ellos en las nuevas formas de difusión y parte de su éxito conecta con la afición popular por ese tipo de composiciones, como quedaba de manifiesto en los concurridos Juegos Florales mencionados. Pero su estudio, además, resulta de interés porque especialmente en las últimas décadas del siglo XIX su papel en el ámbito político fue relevante. Esta poesía fue uno de los mecanismos de difusión más señalados de los elementos identitarios vasquistas y foralistas en ese final de siglo"*[289].

Eta honetaz gainera, berrezarkuntza garaiko bertsolaritzaz diotena hau da: "literatur berpizkunde"aren testuinguruan, bertsolaritza ere euskalduntasunaren ezaugarritzat hartua izango dela, eta horregatik, babestu beharreko zerbait bezala. Hipotesien artean, bertsolaritzaren eta euskal politikaren artean harreman berria ezarriko dela esango digute:

> *"A falta de un estudio pormenorizado, a modo de hipótesis se puede proponer para los bertsolaris unas nuevas características que los diferencian de los anteriores. En primer lugar, además de seguir estando entre las personas más <despiertas> de su comunidad, gracias al aumento de la alfabetización en el País Vasco durante estos años –salvo excepciones- también sabía leer y escribir. Y aunque no se dé ninguna variación en la extracción social popular de este colectivo, en general se puede defender el carácter más culto de los bertsolaris de este periodo. También se le puede suponer al bertsolari con una mayor posibilidad de acceso a información que lo que se supondría a un grupo social originario de un entorno donde la cultura popular de carácter local era predominante. Uniendo el aumento de la alfabetización con la popularización de la prensa moderna desde inicios del siglo XX, cabe considerar al bertsolari como una persona más <informada>. En consecuencia, sus temas de interés pueden ampliarse de los tradicionales y utilizar argumentos de un carácter más general en sus composiciones. En segundo lugar, además de contar con su propia opinión, algunos bertsolaris también tendrían sus propias ideas políticas e incluso militancia partidista. El bertsolari, en la medida que tiene un origen popular,*

[289] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 343. or.

> *tampoco fue ajeno al proceso de politización de la sociedad vasca, incluso de la rural, durante la Restauración*[290].

Mikel Aizpuru, Ander Delgado eta Maitane Ostolazak propagandista politiko izango diren bertsolariez hitz egingo dute horrela. Horien artean aipatzen dituzte EAJri lotutako Kepa Enbeita eta Patxi Errota, karlistei lotutako Galtzaundi, eta errepublikanoei lotutako Victoriano Iraola eta Joxe Mari Lopetegi –azken hori, aurrez adierazi dugun bezala, aztergai hartu dugun bertsolarietako bat dugu-.

Eta bukatzeko, 1931-1936ko aldiari dagokionez, Manuel Lekuona -1919 eta 1934 artean bertsolaritzaren inguruan argitaratu zituen lanei esker-, Jose Ariztimuño –Aitzol-, Joseba Zubimendi eta Iñaki Eizmendiren –Basarriren- eraginpean, bertsolaritzak aldaketa nabarmena biziko zuen. Eskolatutako eliteen artean bertsolaritza gaizki ikusia zegoen ahozkoa zelako, erabiltzen zuten hizkuntza mailagatik eta taberna, sagardotegi eta abarretako giroari lotua zegoelako. Baina, aldi berean, nabarmena zen herriarengandik gertu zegoen kultur espresioa zela eta egokia izan zitekeela oso ideia politikoak zabaltzeko. 1935eko urtarriletik aurrera, bertsolari txapelketak antolatzen hasiko ziren lehen aipatutako lau euskaltzaleak, Joseba Zubimendi batez ere.

Azkena aipatu ditugun autore horiek guztiak –Aizpuru, Delgado, Ostolaza- bertsopaperei dagokionez aldiak seinalatuz, lagundu egiten digute baita ere iturrietara hurbilpen zehatzagoa egiten. Bertsopaperak azterketa objektu bezala gero eta definituago eta bereiztuago ageri dira horrela[291].

XIX. mendeko garaikideek eta hainbat aztertzailek bertsopaperez eta bertsolaritzaz esandakoak jaso ondoren, hel diezaiogun bertsopaperei lotutako gai bati: eskuartean ditugun bertsopaperak zenbateraino dira idatzi, zenbateraino ahozko? Bertsolaritzaren azterketan eta, oro har, literatura unibertsalaren azterketan, atentzio berezia jarri zaion arazo baten aurrean gaude hemen: ahozko literaturaren eta idatzizko literaturaren arteko berdintasun eta desberdintasunak zeintzuk diren[292]. Korronte klasikoenek bataren eta bestearen arteko desberdintasunak

---

[290] AIZPURU, Mikel; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación…", op. cit., 345.-346. or.

[291] Hasiera batean, 1830-1936 urte bitarteko bertsolaritzari buruz aztertu ditugun sei bertsolarien bertso eta aipuak erabiliz, garaiko bertsolaritza lantzeko gure azterlanari bosgarren kapitulu bat gehitzea pentsatu genuen. Materiala bildu ere egin dugu horretarako, hogeita hamabost bat orritan bertso zati eta aipuak baditugu. Doktorego tesiko zuzendariarekin elkarrizketan, atal hau geroagorako uztea erabaki dugu, izan ere, luzeegia gertatuko zen gure lana. Hau bukatutakoan zer egina ere izan behar eta gero, gerokoak, nahiz Axularri hau gehiegi gustatu ez!

[292] Gai honi buruz aritu direnen artean ditugu, besteak beste, zaharrenetik berrienera: GOODY, Jack: *Cultura escrita en sociedades tradicionales.* Barcelona: Gedisa, 1996; VANSINA, Jan: *Oral tradition. A*

azpimarratu izan dituzte; baina, guregandik denboran gertuen daudenek, berriz, bien arteko muga lausotzera egin dute. Ikus dezagun eztabaida honetan non koka ditzakegun aztergai ditugun bertsopaperak.

Interesgarria gertatzen zaigu, honen harira, Joxerra Garziak oralistei egiten dien erreferentzia[293]: bere ustez hainbat oralista idatzi eta ahozkoaren artean dauden aldeak nabarmentzen saiatzen badira ere –ikus Ong, etab.- ez da hain argia bi generoak bereizten dituen muga. Joxerra Garziak aipatzen duen Scheunemann-i jarraituz:

> *"Ahozkotasunaren eta idatzizkotasunaren kontzeptuak, zurrunegi erabiltzen dira sarri, ahozkotasuna eta idatzizkotasuna muturreko bi eredu ideal balira bezala, eta horrek etsipena baino ez dakarkio kontzeptuok ikergai jakin batean aplikatzen saiatzen denari. Garbi dago, orobat, kultur adierazmolde bakoitzari egozten zaizkion ezaugarriak eta ondorioak –dela ahozko kulturetako kontalarien jakituria, dela indibidualismoa eta nazionalismoa idatzizko pentsamoldearen ondorio gisa agertzearena- kontu orokorregiak dira sarri. Taxuzko kultura ikerketarik egingo bada, ordea, testuinguru eta guztiko ikerketak behar dira, komunikazio molde nagusiokin batera daragiten gainerako faktoreen eragina zehaztuko dituzten ikerketak"*[294].

Are gehiago, Joxerra Garziak bertsopaperak aztertzeko ere, era honetako gogoetak eta azterketak jarraitzera animatzen du ikertzailea, Walter Benjamin eta Boris Eikhenbaum gisako autoreen lanak aldarrikatuz:

> *"Zentzurik ez luke izango honako edo harako autoreengan ustez ahozkoa den arren idatziz lantzen den genero hau zertan datzan ezagutzeko eta zehazki definitzeko gako guztiak aurkitu nahi izatea, baina barne egituraz ahozko izaera duten idatzizko lan motei buruz [bertso paperez ari da] gai horretaz idatzi dena ezagutu gabe idaztea denbora alferrik galtzeko era bat baizik ez da, beste asko bezalakoa,*

---

*Study in Historical Methodology*. London: Routledge & Kegan Paul, 1965; ONG, Walter: *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*. Argentina: FCE, 2006; ZUMTHOR, Paul: *Introducción a la poesía oral*. Madrid: Taurus, 1991; VANSINA, Jan: *Oral tradition as history*. Wisconsin: University of Wisconsin, 1985; OLSON, David; TORRANCE, Nancy (biltz.): *Cultura escrita y oralidad*. Barcelona: Gedisa, 2013; FOLEY, John Miles: *How to read an oral poem*. Urbana and Chicago: University of Illinois Press, 2002; CHARTIER, Roger: *El presente del pasado. Escritura de la historia, historia de lo escrito*. México: Universidad Iberoamericana, 2005. Irakurketa hauek jarraitzen duten ikerketa gaia ez da berebat guk gure doktorego tesian duguna. Lagungarri izan daitezke baina egokiago lirateke, batez ere, bertsolaritza bera aztergai lukeen doktorego tesi baterako.

[293] Ikus GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*, op. cit., 158. or.

[294] SCHEUNEMANN, Dietrich: "Collectign Shells in the Age of Technological Reproduction: On Storytelling, Writing and the Film". In: SCHEUNEMANN, Dietrich: *Orality, Literacy and Modern Media*. Columbia: Camden Hous, 1996, 79.-95. or. 79. or. Guk honako lanetik jasoa: GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak,* op. cit., 159.-160. or.

> *bestek aspaldian aurkitutakoa berruaurkitzea baino ez baitugu lortuko horrela jokaturik"*[295].

Gure hautua, Gipuzkoako XIX. mendeko testuinguruaren azterketaren baitan hainbat faktore kontuan hartuz, bertsopaperen edukia lantzea da, aldi berean, testuingurua hobeto ulertu ahal izateko argi eginez.

Hala eta guztiz ere, ez da gure helburua bertsopaperek ahozkotik edota idatzizkotik zenbat duten adieraztea eta ikuspegi formaletik hauen azterketa egitea. Gure lanaz haratago doan bidea da hau. Guk, bereziki, bertsoen edukiaren alderdia aztertu nahi izan dugu, eta horretarako metodologia egokia aurkitzen saiatu gara. Guk uste, gure ekarpena klabe horretan ulertu behar da, hau da, bertsopaperen edukien azterketa da gure helburua, euren literatur baliotik haratago, euren ahozko-idatzizko sintesiaren baliotik haratago, eta, ahal izan dugun neurrian, XIX. mendeko Gipuzkoaren aldaketa testuinguru orokorrean kokatuz eta zentzua bilatu nahian.

Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak* liburuari jarraiki, bat-bateko bertsolaritzaz ari direla, guk aztergai hartu ditugun bertsolarien ekarpen nagusia bertsopaperetan emana etorriko zaigula esango digute:

> *"Eta horrelako informaziorik, tamalez, ez daukagu oso berandu arte. Hori dela eta, XX. mendearen erdia ondo pasatu arteko bat-bateko bertsogintzaz ezer gutxi esan genezake, nahiz jakin data hori baino askoz lehenago ere indarrean zela bertsoa. Aurreko garai horietatik bertso solteak baino ez ditugu ezagutzen, eta hori ez da aski ganorazko azterketarik egiteko. Klasikotzat jotzen diren bertsolariak (Etxahun, Xenpelar eta Bilintx XIX. mendean; Kepa Enbeita, Txirrita, Pello Errota eta abar mende batetik besterako pasabidean) bat-bateko bertsolari bikainak izango ziren agian –hala zirela ziurta dezakegu gehienen kasuan-, baina bertsolaritzaren historian gaur egun duten estatusa bertso jarriei (bertsolariek berek idatziei edo haiek diktatu eta beste norbaitek idatziei) zor diete ia osorik. Bertso horien (bertso jarriei buruz ari da) moldea eta pentsabidea ahozkoa izango dira akaso, baina ez dira bat-batean sortutako bertsoak"*[296].

Bat-bateko bertsolaritzaren fenomenoak gora egingo duen bezala, bertso jarrienak behera egingo du XX. mendean, nahiz eta urte zehatz bat ezin dugun horretarako ezarri: *"Zail da esaten noiz gurutzatzen diren, bata beherantz eta bestea gorantz,*

---

[295] GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak,* op. cit., 162.-163. or.

[296] GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak,* op. cit., 20. or.

*bertsolaritza idatziaren eta bat-bateko bertsolaritzaren prestigioaren grafikak. Bataren gainbehera eta bestearen gorakada markatzen dituzten hainbat mugarri aipa litezke, ordea"*[297].

Bertsopaperez gain, beste iturririk erabiltzerik ere izango genuke, agian, gure azterketan, adibidez, XIX. mendean hain ohikoak izango diren kantu-bildumak[298]. A priori esan dezakegu, horietan gehiegi sakondu gabe, askotan kantuen egilea ez dela ezaguna izaten eta, atal honetako 1.3. puntuan ikusiko dugun bezala, ez da hori guk aukeratu dugun bidea. Garai honetan argitaratzen diren hainbat eta hainbat aldizkari ere izan ahal genituzke kontuan, askotan bere barnean bertsoak ere hartzen dituztelarik. Edo prentsa idatzia –zeinetan bertsoek ere presentzia duten-. Baina ez dugu horrela egin. Bertsopaperetara egin dugun murriztapena murritzegia ote? Agian. Baina hori da erabaki duguna: bertsopaperak iturri bakartzat hartuta, zer eman dezaketen ikustea.

Aurrera segi aurretik, toki bat egin diezaiogun Antonio Zavalari. Gure doktorego tesia ez zen posible izango hark egindako lanik gabe. Hasieratik bertatik aitor dezagun harekiko dugun zorra.

> *"Biltzaille bat izan naiz, eta bai billatzaille ere, perretxikuzale batek basoak aztertu bear dituan bezela, edo-ta eiztari batek piztien arrastoak segitu eta usaitu ere egin bear dituan antzera. Onek, nai ez duala ere, makiña bat tiro uts egin bear izaten dituan bezela, nik ere kolpe uts asko eman ditudala esan bearrik ez dago"*[299].

Nor izan zen Antonio Zavala? 1928an Tolosan jaioa, jesulaguna izan zen. Bertsoak eta herri xehea biziki maite zituen. 1954an hasi zuen bertsoen bilketa lana, eta 1961ean hasi zen Auspoa bilduma argitaratzen. 1999ko azaroaren 17an, Honoris Causa Doktore izendatu zuen Deustuko Unibertsitateak. 2009. urtean zendu zen.

Txirritari buruzko liburutik hartua dugu pasarte hau. Zavalak zalantzak zituen norenak ote ziren bertsopaper batean jasoak zeuden bertsoak. Txirritaren ilobak esan zion bere osabarenak zirela, eta enkargatzera nor etorri zen eta nola jarri zituen kontatu zion. Zavalak zer egin zuen orduan?

> *"Etxera bezin laixter, gure bertso-artxiboan azterka asi giñan, eta egillearen izenik gabekoetan an azaldu zitzaigun bertso ori zuen papera.*

---

[297] GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*, op. cit., 26. or.

[298] Jose Manterolak berak osatua bata, edo geroago Aita Donostiak, etab.

[299] ZAVALA, Antonio: "Doktore berriaren hitzaldia *Honoris causa* doktore izendapenean". In: *Antonio Zavalaren ohoretan*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2000. 32. or.

> *Ala ere, urrena ikusi genduan batean eta segurantzi geiago izatearren, bertso auek zeiñek jarriak ziran ba ote zekian galdetu genion, bertsopapera eman zigunari: Olalde'ko Jose Anjel Sarasola'ri; eta, berak uste zuanez, Txirritak jarriak izango zirala erantzun zigun"*[300].

Neurri batean, bere lan egiteko moduaren berri ematen digu horrela Antonio Zavalak. Bertsopaperak biltzeaz gainera, hainbat testiguri esker datu ugari jasotzen zituen. Lagungarri zaizkigu horiek oso. Rosa Miren Pagolak, Antonio Zavala Honoris Causa izendatu zutenean egindako Laudatioan, honela esan zuen hari buruz: "*Antonio Zavalak landu duena alorrik oparoena da eta alderdi askotarik aprobetxagarria. Lehenengo eta behin, euskal herri-literaturaren bildumarik osoena batu eta argitaratu du; euskarari dagokionez fondorik aberatsen eta jatorrena lortu du; Euskal Herria ezagutu eta ikertu nahi duenarentzat lekukotasun garbia eskaini du; horrelako lanetarako metodologia eredugarria ezarri du eta, bere ikerketekin, herri-literaturara inguratzeko ikuspuntu berria eman du*"[301].

Maitane Ostolazak kultura karlista aztertzeko Antonio Zavalaren lanak erabili zituen. Hona zer dioen Zavalaren lanei buruz, haiek goraipatuz: "*Estos volúmenes ofrecen una rica variedad de <bertso paperak> agrupados por temas y autores, algunos de ellos de difícil acceso por encontrarse depositados en archivos familiares o privados. Por otra parte, el aparato crítico de la edición resulta particularmente valioso al contener aclaraciones sobre los autores de los versos (reales o supuestos), el vocabulario, el contexto histórico en que se escribieron, los personajes a los que aluden o incluso sobre los coleccionistas particulares que los recopilaron. Por último, Zavala da cuenta de las variaciones que han conocido algunos de estos versos a lo largo del tiempo analizando y comparando las distintas versiones*"[302].

*Bertsolari* aldizkariaren ale berezia[303], *Antonio Zavalaren ohoretan* lana[304], eta Joxe Mari Iriondok *Bidegileak* bilduman Antonio Zavalari eskainitako alea[305] dira azpimarragarri atal honetarako iturri nagusi gisa, bai eta Antonio Zavalaren

---

[300] ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 406. or.

[301] PAGOLA, Rosa Miren: "Laudatio-a". In: *Antonio Zavalaren ohoretan.* Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2000. 29. or.

[302] OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular…", op. cit., 111. or.

[303] "Antonio Zavala. Doctor honoris causa", *Bertsolari,* 34 zbkia. (1999). Antonio Zavalari buruzko ale monografikoa dugu hau.

[304] AAAA: *Antonio Zavalaren ohoretan. Herri literaturaz gogoeta.* Bilbao: Universidad de Deusto, 2000. Rosa Miren Pagolaren Laudatioa, Antonio Zavalaren hitzaldia eta Auspoa sailari buruzko gogoeta eta Xabier Kalzakortaren hitzaldia dira interesgarri batez ere.

[305] IRIONDO, Josemari: *Antonio Zavala Echeverria, 1928-2009.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2010.

*Auspoaren Auspoa* liburuak[306] ere. *Auspoa* sailaren berri jasotzeko lagungarri zaigu baita ere Pello Esnalen lana[307].

Joxan Elosegi ere ezin aipatu gabe utzi. Berari esker erabili ahal izan dugu Joxe Mari Lopetegiren bertso produkzioa[308].

## 1.3.Bertsoak aztertzeko erabili dugun metodologia

Horiek guztiak esan ondoren, lanean hasi aurretik, zeintzuk ziren bertsoak iturri gisa erabiltzeko genituen beldurrak, zeintzuk aurreikusten genituen zailtasunak? Egia esan behar badugu, beldur horiek geldiarazi egiten gintuzten neurri batean, eta bertsoak aztertzea geroratzeko arriskuan ginen, bibliografia eta irakurketa artean galduz.

Zeintzuk ziren beldur horiek? Zertan ziren bertsoak desberdin historia egiteko erabiltzen diren ohiko iturrietatik? Hasteko, bertsoen kasuan –eta orokorrean hizketan ari gara orain- egilea ez zen garbi izaten beti. Nola aztertu eta interpretatu nork idatzia izan den ez dakigun testua? Noiz eta non idatzia edo jasoa izan zenari buruzko informaziorik ere ez genuen beti izaten. Testuaren bertsio bat baino gehiago ere aurki genitzakeen, zuzena zein zen jakiterik izan gabe. Eta azkenik, bertsolariek esaten zigutena guk besterik gabe ontzat hartu behar al genuen? Zein eratako interpretazioa egin beharko genuke? Distantzia hartu? Nola, ordea? Zenbatekoa, zein eratakoa? Iturri historiko gisa bertsoak erabili zituzten lanen batzuk begiratu genituen hasiera hartan, baina, egia esan, ez genituen eskuartean asko, eta ez genekien zein metodologia aplikatu bertsoen azterketarako.

Aldi berean, ez genion gure lehenengo asmo hari uko egin nahi. Susmoa genuen bertsoek, beren mugak izanagatik, bazutela zer emana, ezagutza historikorako osagarri zen jakintza irits genezakeela haien bitartez. Doktorego tesia zertaz egiten ari nintzen galdetzen zidatenei bertsolaritzaren kontua aipatzen nienean, askok bertsolariek gertakizunen kronika egiten zutela esaten zidaten, baina guk ez

[306] Lau liburuki dira: *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak/conferencias),* 1996koa; *Auspoaren auspoa II (Itzaldiak/conferencias),* 1996koa; *Auspoaren auspoa III (Itzaldiak/conferencias),* 1999koa eta azkenik *Auspoaren auspoa IV (itzaldiak/conferencias),* 2006koa. Lehen hirurak Sendoa argitaletxearenak eta azkenekoa Auspoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratua.

[307] ESNAL, Pello: "Auspoa: Antonio Zavalak utzitako ondare maitagarria". In: *RIEV,* 55, 1. alea, (2010), 221.-239. or.

[308] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun, 1875-Arrueta, 1942).* Soraluze: Paper Hotsak, 2004.

genuen, *a priori* behintzat, era horretako bertsoetara mugatu nahi azterketa. Hasiera batean, identitatearen gaia –identitate kolektiboarena- genuen buruan, eta hari heldu nahi genion bertsoen azterketaren bitartez. Emango al ziguten bertsoek guk nahi genuena, bila ari ginena? Aurkituko genuen hura "herriak" pentsatzen zuenaren adierazle ote zen? Hura baitzen, hain zuzen, gehien interesatzen zitzaigun ikuspegia.

Galdera multzo hari erantzuna ematen hasteko, bideari ekin beharra genion, "ezina, ekinez egina" baita[309].

Ikerketa kualitatiboari lotutako lanen bat irakurri[310] eta tresna informatiko baten erabilera balantzan jarri ondoren[311], bertsoen azterketarako metodologia baten oinarriak ipintzen hasi ginen, eduki azterketa[312] eta *Grounded Theory* deritzanaren bidetik.

Adieraz dezagun laburki zer den *Grounded Theory*[313] edo datuetan oinarritutako teoria. Barney Glaser eta Anselm Strauss soziologoek asmatu zuten metodoa da, datu kualitatiboak jaso eta aztertzeko. Berariazko testuinguruei dagozkien teoria zehatzen garapena du helburu, hau da, testuinguruak ematen dituen datuei esker eraikitzen direnak. Datu kualitatiboak aztertzeko, esanahidun kategoriak identifikatu behar ditu ikertzaileak. *Grounded Theory* hau metodoa eta teoria da aldi berean: metodoa, kategoriak nola identifikatu erakusten duelako eta euren artean nola harremanetan jarri erakusten duelako. Teoria da, ikerketa prozesuaren azken emaitza teoria berria izaten delako. Ikerketa prozesu irekiak eskaintzen ditu metodo honek, eta ikerlariak etengabe adi egon behar du ikerketa galderaren garapen eta zehaztapenari dagokionez. Metodo induktiboa da nagusiki eta iturriei uzten die hitz egiten: azterketa eta interpretazioa egin behar da aldi berean. Bereziki

---

[309] Behin baino gehiagotan Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko pasilloan irakurri ahal izan genuenez.

[310] MUÑOZ JUSTICIA, Juan: *Análisis cualitativo de datos textuales con ATLAS.ti 5.* Universitat Autònoma de Barcelona, 2005; ZAPATA-BARRERO, Ricard; SÁNCHEZ-MONTIJANO, Elena: *Manual de investigación cualitativa en la ciencia política.* Madrid: Tecnos, 2011; JUARISTI LARRINAGA, Patxi: *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak.* Bilbao: EHU, 2003.

[311] Atlas.Ti programari buruz ari gara hizketan.

[312] Eduki azterketan oinarritutako eta ikerketa kualitatiboan oinarritutako doktorego tesi baten adibide gisa BIDEGAIN, Eneko: *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian.* Bilbao: Euskaltzaindia, 2013. Hau, besteren artean, Patxi Juaristiren lanetan oinarritzen da. Beste adibide bat: FERNANDEZ LASA, Uxue: *Emakume pilotariak: izaera, bizipen eta sentipenak.* Vitoria Gasteiz, 2014. Argitaratu gabea. Aipatu dugun lan honetan azterketa metodo kualitatiboa eta Atlas ti erabili zituen ikerlariak.

[313] GARCIA HERNANDEZ, Gloria Elizabeth; MANZANO CAUDILLO, Jesús: "Procedimientos metodológicos básicos y habilidades del investigador en el contexto de la teoría fundamentada". In: *Iztapalapa. Revista de ciencias Sociales y Humanidades,* 69 (2010), 17.-39. or.

egokia da pertsonen gizarte esperientzia aztertzeko. Guk bertsoen azterketara moldatu genuen hainbat irakurketetan jasotakoa, gure kasuan eraginkorrena izan zitekeen metodoa bilatzen saiatuz.

Lehenengo eta behin, oinarrizko aukera batzuk egin genituen, aztertzera gindoazen iturria –zehazki zein bertso aukeratu?- eta hauen argitalpena –zein bertsioren alde egin?- aukeratzeko orduan:

- Iturriak aukeratzerakoan, gaika argitaratutako liburuak aukeratu ordez, bertsolarika argitaratuak zeudenen alde egin genuen. Bertsolari ezagun eta dokumentatuen bertsoak aztertuko genituela erabaki genuen, hurbileko testuingurua ezagutzeko eta, ondorioz, interpretatzeko erraztasun gehiago izateko.
- Hautatutako bertsolariak Auspoaren Sail Nagusian eurei buruz alea argitaratua zuten bertsolariak ziren[314].
- Antonio Zavalak kasu bakoitzean hobetsitako bertsoen argitalpena izango zen guk gure azterketaren oinarri hartuko genuena, oin oharretan jasotako bariazioei, azterketa honetarako, jaramonik egin gabe.
- Antonio Zavalak bertsolari bakoitzari buruz liburu bakoitzean gehitutako datuak eta bertso sail bakoitzaren sarreran jasotakoak ontzat emango genituen, horien kontrastea helburutzat hartu gabe.

Bestetik, bertsoak iturri historikotzat aztertu ahal izateko, bertsogintzarekin eta bertsolariekin honakoak hitzartu genituen, horietatik ez abiatzekotan, ezingo baikenuen gure ikerketa aurrera eraman:

- Bertsoek bertsolarien diskurtsoa osatzen dute, eta, diskurtso diren neurrian, aztertu daitezke.
- Bertsolari guztiak ez dira berdinak, eta beraz, bertsolari bakoitzak bere diskurtsoa du.
- Guk bertsolari bakoitzak bere diskurtsoan zer dioen aztertu nahi dugu. Azterketaren ikuspegia ez da formala (literarioa, hizkuntzari lotua…), lantzen duen edukiari lotua baizik. Bertsolari zehatz horri eta bere bizitzari lotuta egin nahi dugu azterketa hori.
- Bertsolariek eurek pentsatzen dutena agertzen al dute beren diskurtsoan? Beti? Honetan izango du zeresanik bertsoen tipologiak eta hori kantatzea nork eragin duen. Bertsoen artean honakoak, bederen, aurki ditzakegu:

[314] Ondoren etorri zen Joxe Mari Lopetegiren azterketa taldera gehitzea, lankide dugun Elixabete Perez Gazteluk gomendatuta.

    - Bat-batekoak: egoera bati erantzunez, ia-ia elkarrizketa moduan sortuak. Horiek espontaneoki abestuak izan daitezke edota emaniko gai bati buruz kantatuak izan daitezke. Azken hauek bertso lehiaketa eta lore joko eta euskal-jaietan izango dira ugariagoak.
    - Jarriak:
        - Jendeak bertsolariari eskatuak: ezkontza tratuak gaitzat dituztenak, adibidez, edo apustuak. Pertsona jakin batek eska diezaioke bertsolariari bertsoak jartzeko, horretarako gertatutakoen berri emanez, zer kontatu behar duen esanez. Joera politiko bati lotutako pertsonek ere eska diezaiokete bertsolariari bertsoak jartzeko. Bertso sail hauetan bertsoa jartzeko nork eskatzen duen arabera, dioenaren ordezkagarritasuna parekoa izango da.
        - Bertsolariak berak prestatuak saltzeko: misioak, erromesaldiak, gertakizunak gaitzat dituztenak. Kasu honetan, bertsolariaren borondatez ipiniak dira bertsoak, baina erosiak izango diren esperantzan, jendeak entzun nahi duena edo harrera ona izango duena jasotzen saiatuko dira.
- Bertsolariak bere diskurtsoan kontatzen duena, errealitatea baino gehiago, errealitatearen irakurketa jakin bat izango da, bai berak zuzenean egina, edota bertsoa osatzeko eskatu ziotenek mediatizatua.

Beldurrak eta zalantzak bagenituen, baina ez zitzaizkigun nahikoak iruditu bertsoak iturri gisa kontuan ez hartzeko. Probatu egin nahi genuen, ikusi egin nahi genuen zer ematen zuten, egokiak ziren ala ez, edota erabiltzekotan, zein prebentzio izan behar genituen ikusi: argi izan zer espero genezakeen iturri hauetatik, eta zer ez, zer lortu genezakeen eta zer ez.

Bertsoen aurrez aurre ginen jadanik: baina, horrelako corpusa nola landu? Premisa metodologiko batzuk adostu genituen orduan:

- Bertsolari bakoitzaren corpusa osotasun itxitzat hartuko genuen, nahiz eta jakin hasiera batean ez zirela helburu horrekin sortu. Bertsolari bakoitzak ez zuen liburu bat idatzi; bertso bat baino gehiago bidean galduko zen; testua ez zaigu itxita iritsi[315]: bertso beraren eta bertso sail

[315] Ezaugarri hauek guztiak bertsoen dinamikotasunaren ezaugarri dira.

beraren bertsio bat baino gehiago daude maiz. Baina, hala eta guztiz ere, corpus itxitzat hartuko genuen guk.

- Bertsolari batengandik iritsi zaizkigun bertso guztiak kontuan hartuko genituela erabaki genuen. Aurrez ez genituen hobetsiko gai jakin batez ari zirenak, edo bat-batekoak edo jarriak soilik hartu, edo nola jasoak izan zirenaren araberakoak. Bertso guztiak izango genituen kontuan[316].
- Sei bertsolarien lanek elkartuta osatzen duten corpusa ere osotasun itxitzat hartuko genuen. Koherentzia duen zerbait bezala hartuko genuen: neurri batean edo bestean, Gipuzkoan XIX-XX. mendeetan gertatu zen modernizazio prozesua bizi izan baitzuten.
- Metodologia induktiboa erabiliko genuen: iturriek eurek marka zezatela azterketaren nondik norakoa, guk gehiegi markatu gabe gai nagusiak zeintzuk izango ziren. Ez genuen nahi XIX-XX. mendeko gipuzkoar historiaz genekienak bertsolarien ahotsa sasipean itotzerik, ezta bertsolarien ahotsa eta esana gipuzkoar historiako prozesuen gainetik hegatzea ere: hasiera batean, bertsolariei ahotsa eman eta, ondoren, zegokion tokian ezarri beharko genuen haien diskurtsoa. Batzuen eta besteen arteko oreka bilatzea genuen helburu.

Eta horiek guztiak kontuan hartu ondoren, zeintzuk izango ziren azterketarako jarraituko genituen pausoak? Hona:

A. Bertsoekiko dugun loturaz jabetzea:

Lehenengo eta behin, ikusi behar nuen bertsoekiko zein lotura dudan: familian[317] eta ikastolan entzun eta ikasitako bertsoak nituen gogoan[318]. Nerabetasun garaian harrapatu ninduen 90eko hamarkadako "bertso-boomak": plazetan eta telebistan jarraitu nituen bertso-saio bat baino gehiago. Literaturatik, musikatik, aisialditik egindako hurbilpena zen, beraz, hura. Gaur-gaurkoz uste izan dut hori baino gehiago –nahiz eta dagoeneko aipatua asko izan- eman dezaketela bertsoek, hots, beste era batera ustiatu ditzakegula.

---

[316] Salbuespena, gero azalduko dugun bezala, Joxe Mari Lopetegiren kasuan egin dugu. Honek 1936. urtetik aurrera osatutako bertsoak ez ditugu kontuan izan.

[317] Amona Mariak, gure aitaren amak, nik gogoan dudanaren arabera "Markesaren alaba" bertsoak, eta Bilintxen zenbait bertso buruz zekizkien. Osaba Joxe, berriz, amaren anaia, hernaniarra zena, euskara irakasle zen Barakaldon. Bera bai, saiatu zen nigan bertsozaletasuna pizten. Xabier Amurizaren *Zu ere bertsolari* liburua oparitu zidan; bertsoak kantatuarazi eta grabatzeko eskatu zidan, Barakaldoko eskolan bere ikasleei doinu ezberdinak erakusteko. Hari esker, seguruenik, hasi nintzen bertsoak idatziz egiten zorionak opatzeko, edota familiko ospakizun baterako edo besterako.

[318] Josune Otxotorena irakaslearekin, Ikastolen elkarteak bertsoak lantzeko sortutako materialak erabiltzen genituen Euskarako eskoletan.

Konturatu nintzen ez nuela helburu bertso bat edo bertso sail bat gozatzea: hori "denbora aldaketa"[319] ariketa egin gabe egin dezakegun gauza da. Bilintxen bertsoak, edo Otañorenak, edo Xenpelarrenak kantatu ditzakegu gaur egunetik, gure esperientziatik eta modu horretara duten txispaz, edo nostalgiaz, edo hitz edertasunaz gozatu. Horretarako, bertso sail bat bere horretan abestea nahikoa zen. Baina ez zen hori nik egin nahi nuen hurbilpena. Bertsoek gozatzeko eta espresio bide izateko balio izateaz gainera, aztertzeko ere balio dute. Horretarako, bere barnean barneratu behar dugu, eta ez da nahikoa bertso sail bat bere horretan hartzea. Beharrezkoa da testuinguruan jartzea, beste sailekin konparatzea eta, oraindik hobeto, bertsolari ezberdinen artekoak konparatzea eta kontuan izatea. Eta gero, gainera, historiaz dakigunarekin testuinguruan jartzen saiatzea. Horrela, sakon ulertuz eta alderatuz, lortuko dugu bertsoa iturri bezala erabiltzea. Bertsoekin gozatuko dugu, zalantzarik ez, baina beste modu batean.

B. Bertsoak testuinguruan:

Bertsoak ongi ulertzeko, ezinbestekoa da bi testuinguru kontuan izatea: bata hurbila, Antonio Zavalak maiz eskaintzen diguna, bertsoek zein gertakizun edo pasarteri erreferentzia egiten dioten jasotzen duena. Eta, bestea, testuinguru zabalagoa, Gipuzkoaren modernizazioari dagokiona, aldaketa indar nagusiak zeintzuk diren gogoan izanez.

Joxerra Garziak *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak* lanean bat-bateko bertsolaritza aztertzeko proposamen metodologikoa egiten digu[320]. Egileak bere doktorego tesian landutako proposamena da hau. Horren arabera, eta bat-bateko bertsolaritzaz ari dela, bertsoen azterketarako testuingurua kontuan izan behar dugula dio. Testuingurua bi elementuz osatzen da, bere ustez: inguru testua eta egoera. Inguru testua honako elementuek osatzen dute: bertsoa, bertsoaldia, bertso saioa, bertso guztiak, eta partekatutako erreferentziak. Egoera, berriz, saioak, lekua eta datak, motiboak, gai jartzaileak, bertso lagunek, entzuleriak eta entzuleek. Gure kasuan, inguru testua kontuan hartu dugu eta kontu berezia izan dugu, gainera, bertsoa bertsoaldiaren baitan aztertzeko, aukeratutako bertsolarien bertso guztiak batera hartuta. Bestetik, egoerari dagokionez –neurri batean guk testuinguru hurbila eta zabala bereiziz jasoa- bertsolariak eta hauen bertsoak hurbileko

[319] Hau da, gu bizi gareneko garaia eta bertsoa sortua izan zenekoa kontuan izatea.

[320] GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*, op. cit., 135.-231. or.

testuinguruan kokatzeaz gainera, garaiko prozesu historikoen baitan kokatzen saiatu gara[321].

Esan ahal izango genuke bertsolaritzaren historia sozialera hurbilpena egin nahi izan dugula, bertsolaritzak 1830etik 1936ra bitartean egindako bidea kontuan hartuz eta, horrela, aukeratutako sei bertsolarien eskutik bertsolaritzak izandako funtzioetara gerturatuz.

C. Bertsoek zer diote?

Bertsoekiko dugun harremanaz jabetu eta testuaren beraren zein sortua izan zeneko testuinguru hurbila eta zabala ulertu ondoren, nola hurbil gaitezke bertsoek diotenera? Zer egin dezakegu bertsoen testuetara interferentzia ahalik eta txikienekin hurbildu ahal izateko, hauek zer dioten entzuteko?

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu aztergai ditugun bertsoetara sakontasun maila edo distantzia ezberdinetako hurbilpenak egitea. Hau da, mikroskopio baten luparekin lanean ari bagina, aztergai dugun materia lupatik hurbildu eta urrunduz, materia beraren irudi ezberdinak ikusi ahal izango genituzke eta bere osotasunean hobeto ulertu. Bertsoei dagokienez, gure begiradaren lupa distantzia desberdinetara jarriz, esanahi maila ezberdinak lortu ahal izango ditugu. Lupa azpian bertsolari bakoitza edo sei bertsolariak ipiniz; kontzeptu baten atzetik goazela, lupa bertso bakarrean, edo bertso sailean, edo bertsolariaren produkzio osoan ipiniz; edota aldi berean, lupa kontzeptu bakarrean, beste kontzeptuekin kategorietan antolatuta, edo beste kontzeptu eta kategoriekin harremanetan ezarriz. Etengabeko joan-etorrian, josiko dugun esanahien sarea aberatsagoa izango da.

Zein izan da, pausoz pauso, jarraitutako bidea?

1. Bertsoen azaleko irakurketa egin dugu bertsolariz bertsolari. Ondoren, bertsolari bakoitzaren bertso sailak gaika antolatu ditugu: natura, ekonomia, demografia, politika, gizartea, mentalitateak gai nagusiak kontuan hartuz. Hona gai nagusi horietako bakoitza nola ulertu genuen:

- Natura: natur elementuak, paisaia, animaliei erreferentziak, etab.

[321] Egia da Joxerra Garziak aipatzen duen egoera oso zehatza dela, saio bati lotua, egoera komunikatibo bati dagokiona; baina, gure ustez, bertso jarrien azterketa historikoa egitean, denbora luzeagoko testuinguru bati erreparatzea egokia da.

- Demografia-familia: gizonaren eta emakumearen irudia, jaiotzak, haurrak, heriotzak, ezkontzak, etxea, emigrazioa, gerra, ezkontzak, neskazahar eta mutilzaharrak, maitasuna…
- Ekonomia: mailaketa ekonomikoa, sektoreak, ofizioak, modernizazioak dakartzan aldaketa eta aurrerakuntzak, ekonomia kapitalistaren presentzia…
- Gizartea: gizarte loturak, sozializazio prozesuak, familia, etxea, baserria, kalea, auzoa, herria, probintzia, Euskal Herria, Espainia; jokua, apustuak, festa; eliza; hezkuntza; ejertzitoa, soldaduska; grebak; bertsolarien arteko harremanak.
- Politika: ideologiak, talde politikoak, kargu politikoak, alderdi politikoak, gerrateak…
- Mentalitateak: balioak, erlijioa, hizkuntza, denbora, historia…

Kasu guztietan, gainera, bertsolariek eurenak zirela uste zuten ezaugarriak eta, aldi berean, besterenak (alteritatea) jotzen zituzten ezaugarriak bereizteko asmoa genuen. Hona lortutako emaitzak:

1. Koadroa.- Bertso sailen kopuruak, gaika eta bertsolarika antolatuak[322]

| | Pello Errota | Xenpelar | Bilintx | Otaño | Lopetegi | Txirrita |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Natura-medioa | 6 | 2 | 1 | 10 | 0 | 2 |
| Demografia-familia | 15 | 11 | 22 | 22 | 1 | 56 |
| Ekonomia | 12 | 9 | 8 | 2 | 3 | 20 |
| Gizartea | 34 | 17 | 7 | 13 | 7 | 49 |
| Politika | 3 | 2 | 2 | 21 | 30 | 13 |
| Mentalitatea | 14 | 13 | 2 | 46 | 19 | 32 |

Iturria: ikerketa lan honetarako propio osatua

2. Bertsolari bakoitzaren bertso sailen gaikako emaitzak konparatu ditugu: zeri kantatzen dio gehienbat bertsolari bakoitzak, isiltasuna zeren inguruan egiten du.

[322] Bertso sail bat gai batean baino gehiagotan agertu daiteke erreferentziatua.

3. Atlas-tiren laguntzaz, bertsolari bakoitzak erabili dituen hitz zerrendak osatu ditugu. Eskuartean izan ditugun hitz kopuruak hauek izan dira[323]:

2. Koadroa.- Hitz kopuruak, bertsolarika

| BERTSOLARIA | HITZ KOPURUA |
|---|---|
| Xenpelar | 20.945 |
| Bilintx | 15.050 |
| Pello Errota | 26.565 |
| Pedro Mari Otaño | 38.516 |
| Joxe Mari Lopetegi | 16.807 |
| Txirrita | 86.040 |

Iturria: ikerketa lan honetarako propio osatua

4. Bertsolari bakoitzak erabili dituen kontzeptu nagusien kopurua atera dugu, erro berekoak batuz, zerrendak ordena alfabetikoaren arabera antolatuta zeudela aprobetxatuz.

5. Bertsolari bakoitzaren erreferentzia galdu gabe, kontzeptuak arlo edo gaika antolatu ditugu.

6. Sei bertsolariek darabiltzaten kontzeptu nagusiak hartu, eta gai bakoitzaren barruan kontzeptuak kategorietan antolatu eta euren arteko harremanak argituz, kategorien mapa egin dugu.

7. Hori guztia egin ondoren, bertsolariz bertsolari, bertsoen irakurketa eta berrirakurketa patxadatsua egitera bueltatu gara, bertsoak aztertzeko helburuarekin: gure azterketa unitatea bertso saila izango da berriro. Hitza edo kontzeptua bere hutsean laburtxo geratzen zitzaigun ustean, bertso saila hartu dugu esanahi unitate gisa. Bertso sailak bertsolarien eta gaien arabera antolatuak genituela aprobetxatuz, irakurketa ordena hau jarraitu dugu: gaiaren araberako bertso sailen irakurketa egin dugu eta, gaiaren barruan, bertsolarien araberakoa.

[323] Hemen ageri diren kopuruak osoak dira, hau da, erro berekoen batuketa egin aurretik, Atlas-tik egindako kontaketaren emaitzak. Hurrenkera alfabetikoan antolatutako zerrendak lortu genituen. Horretarako, aztertu beharreko bertsoen pdf dokumentuak bereziki prestatu genituen, ahal genuen neurrian, soilik bertsoen testuak aukeratuz kontaketa horretarako.

8. Bertso sailaren baitan, bertso bakoitzaren patxadako irakurketa egin ahala, kodetzeko aprobetxatu dugu, hau da, sei bertsolariei zegokien kategorien mapa egindakoan agertu zaizkigun kategoriei lotutako aipuak jaso ditugu. Modu honetan, kontzeptuak zuzenean ez ezik, kategoriei zegozkien zeharkako erreferentziak ere jaso ditugu.

9. Ordura arteko kategoria eta kontzeptuen mapa eta aipuak kontuan izanez, berregituratu egin dugu atal bakoitzean jasotako informazioa, xehetasun handiagoa baikenuen orain kategoria eta kontzeptuen arteko harremanez.

10. Azkenik, gure lana idatzi dugu. Gure doktorego tesiko lehenengo proiektuan egin genuen aurkibidean, bertsolari bakoitzak zuen bere tartea, bertsolari bakoitzeko atal edo kapitulu bat idatziko genuela uste baikenuen. Lanean aurrera egin ahala konturatu ginen hori ez zela egokiena eta, horregatik, analisia egiten ari ginela, aipuak biltzeko garaian batez ere, hasi ginen bertsolari ezberdinen lanak nahasten. Zergatik? Bizi zuten errealitatea, "markoa", "bakarra" zelako, neurri batean. Joko gehiago ematen zigun kontzeptu-kategoriak elkarrekin harremanetan jartzeak. Horregatik, idazterakoan jarraitu dugun eskema gaikakoa edo arazokakoa izan da[324]. Horrela azalduz, gainera, uste dugu irakurleari modernizazioa prozesu gisa ulertzea errazagoa izango zaiola, bertsolari bakoitzak emandako erantzuna kontuan izanez[325] eta elkarrekin konparatuz.

Azken finean, kontzeptuak, kategoriak eta bertso sailak etengabeko harremanetan jarri ditugu gure azterketan, kontzeptu mapa edo sarea konstanteki osatuz eta berreginez.

D. Bertsoek diotena kontestuan jartzea

Eta aurreko pauso horiek guztiak eman ondoren, zer? Ezinbestean, lortutako emaitzak erlatibizatu egin beharko ditugu. Bertsolarien "ahotsek" esandakoa historiako beste ahots batzuekin eta orain artean egin diren prozesuen azterketekin alderatu beharko dugu.

Jakinik aztertu ditugun bertsoak "osotasuntzat" hartu ditugula, hau da, corpus hori bere baitan zentzua duen eta osoa den unitate gisa ulertu dugula, eta azterketa azken muturreraino eramaten saiatu garela. Aldi berean, jakinik osotasun hori guk aitortua dela, ez dela erreala %100ean. Bertso asko ez direlako guganaino iritsi, eta

[324] Horretara animatu ninduen, baita ere, Jose Angel Achon Deustuko Unibertsitateko irakasle eta lankideak.
[325] Aipu eta oin oharrek laguntzen digute bertsolari bakoitzaren berezitasuna gordetzen.

bertsolariek ez zituztelako bere bertso guztiak kontzienteki unitate oso eta koherente gisa sortu. Hala eta guztiz ere, azterketaren emaitzek esango digute egindako lanak merezi izan duen ala ez.

# 2.Egindako bidea: galtzerdiari buelta nola eman diogun

Orain artean esandako guztiek kolokan jarri zuten, momentu batean, gure ikerketa proiektua, edo bidea ireki zioten, azentua non jartzen dugun. Konta dezagun nola.

Bertsolaritza iturri gisa erabili nahi genuela garbi genuen hasieratik. Doktorego ikastaroak egin eta tesina edo aurkezteko, bertsolaritza gaiaren inguruan jakitun ziren hainbatekin bildu ginen, eta oharrak hartu genituen. Bertsoen azterketa nola egingo genuen oso garbi ez genuen oraindik. Orduko interes gai nagusia identitatearena zen. Alor teorikoa lantzen eman genuen orduan denbora, identitatearen kontzeptuaren inguruan irakurketak eginez, batez ere. Iturriei halako errespetu bat genien orduan.

Ikergaia inskribatu genuenean, TC-7 zeritzon dokumentu hartan, "Identitate azterketa: Gipuzkoa, 1833-1936. Bertsolariak iturri" zen buruan genuen gaia.

Iturriei nola heldu? Lehenengo, Pello Errotarekin proba gisako bat egin genuen. Haren bertsoen sakoneko irakurketa egiten saiatu ginen, atentzioa ematen ziguten alderdiak eskuz koaderno batean apuntatuz. Sakoneko azterketa bai, baina mantsoegia zen hura. Erritmo horretan ezingo genuen sekula bukatu. Horretaz aparte, beste gauza batez ere konturatu ginen: Pello Errotaren bertsoetan aurkitzea espero genituen gai batzuk ez zirela ageri –etxearen gorespena, adibidez, edo nekazaritza bizitzaren aldeko diskurtsoa, edo foruen defentsa, edo euskararen garrantzia…- eta horren ordez, beste gai batzuek hartzen zutela indarra: ezkontza tratuak, apustu eta jokoak, erromesaldiak, etab. Beraz, sinpleki esanda, guk aurrez pentsatzen genituen kontzeptu batzuen bila abiatzen baginen, ez genuen erantzunik aurkituko. Bertsoei eta, finean, bertsolariari, entzun egin behar genion, berak kontatzen ziguna aditu, eta gero erabakiko genuen hori nola ulertu edo azaldu. "Identitatearen" gaia, Pello Errotarengan, ezkontza galduen bertso, apustu eta joko eta Arantzazurako erromesaldietara mugatzen zen. Zer egin? "Identitatearen" arazoa, "modernizazioaren" eragin eta kontakizunaren gaira zabaldu beharrean aurkitu ginen, ezinbestean. Hori izan zen gure ikerketa prozesuan azpimarratu

beharreko mugarrietako bat. Modernizazio prozesuaren eraginaren araberakoa ote identitate kolektiboaren arazoaren kontzientzia?

Bestetik, irtenbide bat bilatu behar genion bertsoen ustiaketari. Nola azkartu bertsoen azterketa? Zer egin sei bertsolarien lanetara ia aldi berean hurbildu ahal izateko? Gure bidera Atlas.ti programaren abantailak, bertsoak pdf-n izan eta bilaketak egin izatea, eta abar atera zitzaizkigun[326]. Hala ere, Atlas-ti programaren inguruan gogoeta egin behar izan genuen eta ikusi zenbateraino zitzaigun onuragarri gure azterketan, edota zer-nolako mugak zituen gure lanari begira. Kodetze lana egiteko sistema partikularra erabili dugu, izan ere, zita edo aipuek zentzua bertsoan eta bertso sailean dutenez gero, nahiago izan dugu hau modu automatikoan egin baino, hurbilagotik egin, gure parte hartzea areagotuta. Honek izan dituen desabantailen artean, kontzeptu mapak modu automatikoan lortu ezin izana da.

Atlas.ti gurera ekarri behar izateko egin beharreko esfortzuak esfortzu, benetan lagungarria izan zaigu bertso sailen azterketan ikuspegi globala eta sei bertsolariekiko aldi berekoa lortzeko: gure ustez, tresna honek animatu gintuen sei bertsolarien azterketari ia aldi berean ekin ahal izatera. Gure ustez, hau izan zen gure ikerketa prozesuan bigarren mugarri garrantzitsua.

Hirugarren eta azken mugarria, doktorego tesia idazterakoan ardatza bertsolariek ez, gai edo arazo nagusiek markatzearena izan da.

# 3.Historia egiteko moduak

*" Zer moduz dago, aita?*
*-Itza moteltzen ari zait, eta burua ere lotzen.*
*-Bai; mingaña ta burua geiena nekatuak dauzka berorrek bere denboran,*
*eta aiek aurrena aulduko zaizka.*
*-Bai, alaxe den, bai"*[327]

Burua eta mingaina, pentsamendua eta hitza. Horra hor Pello Errota diskurtso egile gisa bere alaba Mikaelak nola irudikatu zuen. Zer jaso zuen Pello Errotak nagusiki bere bertsoetan? "Ernioko munduko"[328] eguneroko bizitza. Atal honetan, nagusiki,

[326] Zinez eskertu behar diogu Jose Antonio Marin Deustuko Unibertsitateko irakasle eta lankideari atal honetarako emandako laguntza.
[327] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 98. or.
[328] Ikus, aurrerago, Pello Errotaz ari garenean, hirugarren ataleko 3.2. puntuan, honen berri zehatzagoa.

historia egiteko moduez eta hauetan bertsolaritzaren azterketak izan dezaken tokiaz arituko gara.

Ez gara, jakina, hutsetik hasi. Historiaren azterketarako badira metodo ezberdinak eta azkenaldian ugaritzen ari dira, gainera, hauek. Gu, lehendabizi, Historia egiterakoan zertan oinarritzen garen eta gure interesak zeintzuk diren esplizitu egiten saiatuko gara eta, ondoren, hauek egun diren korronte historiografikoekin nola uztartzen diren ikusten.

- Prozesuen historia interesatzen zaigu, epe luzea kontuan duena.
- Aldaketez gain, iraupenak ere aztertzen dituen historia interesatzen zaigu, itxuraz kontraesanak direnak aztertzea.
- Prozesuaren ikuspegi orokorra da landu nahi duguna bereziki, horretarako pentsamendu sistemikoa hobetsiz, prozesuan azaltzen diren elementu ezberdinak kontuan hartuz, eta beren artean dituzten harremanak gogoan izanez. Eman beharreko lehenengo pausotzat dugu hori, gerora, aspektu eta alderdi zehatzagoak modu egokian aztertu ahal izateko.
- Herritar xumeen esperientzia eta ikuspegia aztertu nahi dugu, gehiengoarena, egoera sozioekonomiko ahulenean daudenena.
- Aniztasunari tokia egiten dion historia egin nahi dugu: aniztasuna denbora historiko ezberdinak aldi berean ikus daitezkeela sinestetik hasi, eta aniztasuna subjektu historikoari bizi dituen prozesuen aurrean kokatzeko askatasuna aitortzetik emana, eta, aldi berean, egindako hautuen gaineko ardura aitortzetik emana.
- Hitza –eta diskurtsoa- dira hau guztia aztertzeko aukeratu ditugun iturriak. Uste dugulako hautemandakoa –bere inguruan ikusi eta bizi duena- bere baitara hitzen bitartez ekartzen duela gizakiak, horrela egiten duela ulergarri; eta, aldi berean, bere baitatik ateratzeko, hitz –eta ekintza, jakina- bihurtzen duela pentsatutakoa, bere inguruan eragiteko gai izanik horrela.
- Ez da gure helburua egia historikoa iristea: badakigu, geroni subjektu garen neurrian, subjektibotasunez hurbildu garela gure azterketara, bai gaia aukeratzerakoan, bai honi nola heldu planteatzerakoan, bai galderak pentsatu ditugunean ere. Aldi berean, badakigu aztertutako gizonen ahoz jasotakoak errepresentazio edo irudikapenak izango direla, nork bere posizio eta ezagutzetatik eginak, baita helburu desberdinekin ere. Irudikapen horiek beren testuinguruan ulertzea dugu helburu: ez justifikatzea, ez arrazoia ematea, ez gustuko edo ez gustukoen artean aukera egin eta mailakatzea. Izan zirela kontuan izan, eta ulertzen saiatzea,

> jakinik zenbat eta errepresentazio gehiago bildu eta aztertu, orduan eta hurbilago izango garela ezagutza osoagoatik.

Oinarri edo premisa horiek zein ondorio metodologiko ekarri dituzte gure lanera? Azterketa kualitatiboak, eta "grounded theory"a, metodologia induktiboa bultzatzen duena eta azterketatik teorizazioa dakarrena. Diskurtsoaren azterketa, kontzeptuen historia, testuen azterketa helburu hartzen duena. "Behetik" egindako historia, mikrohistoria, ahozko historia… gizarteko parte baten ikuspegi zehatz bat saritzen duena.

Miguel Angel Cabrera eta Juan Prok koordinatutako *La creación de las culturas políticas modernas, 1808-1833* liburuaren sarreran, euren lanean erabilitako ikuspegi metodologikoaz hitz interesgarriak jasotzen dituzte. "Kultura politikoa" kontzeptua zer den definitzen saiatzen dira, horretarako kultura kontzeptuaren esanahia eta "kultura politikoa" ulertzeko izan diren ikuspegi teoriko desberdinak xehetasunez landuz. Zer diote kultura kontzeptuaz?

> *"Por supuesto, estas evoluciones acusan, por así decirlo, el impacto del llamado <giro cultural>, en la sociología tanto como en la politología y la historiografía. Elemento fundamental en lo que se ha considerado la crisis de los grandes paradigmas – funcionalismo, estructuralismo, marxismo,- tal <giro cultural> ha marcado profundamente el estudio de las culturas políticas en el último campo mencionado, el historiográfico. Así, desde la radical insatisfacción por los límites de la vieja historia social, la llamada <nueva historia cultural> ha incorporado, de forma compleja y diversa, enfoques propios de la antropología de Clifford Geertz o la lingüística de Ferdinand de Saussure, así como aportaciones de Edward P. Thompson, Michel Foucault o Pierre Bourdieu. Situada así la cultura en el centro de los procesos históricos, reconocida esta como un entramado simbólico de actividades, representaciones y prácticas constitutivas de lo <real> social y político, la cultura política dejaría de considerarse un fenómeno dependiente de otras estructuras para configurarse, ella misma, en una estructura independiente, capaz de dar sentido y explicar la evolución de los procesos políticos y sociales"*[329].

Kultura kontzeptuaren garrantzia onartu eta azaldu ondoren, "kultura politikoa" kontzeptuaren azalpenari heltzen diote, liburuaren sarreran, Miguel Angel Cabrerak eta Juan Prok. "Kultura politikoaz" zenbait definizio jaso ondoren, ikuspegi pragmatiko batetik heltzen diote gaiari:

> *"Herramienta de trabajo, en fin, a la noción de cultura política hay que pedirle, como en todos los casos, aunque en este tal vez de forma más explícita, que sea útil. Lo que quiere decir, entre otras cosas, que deberíamos desterrar toda pretensión de*

[329] CABRERA, Miguel Angel; PRO, Juan: *La creación de las culturas políticas modernas, 1808-1833.* Madrid-Zaragoza: Marcial Pons Historia, Prensas de la Universidad de Zaragoza, 2014. 12. or.

> *que una noción de cultura política sea la <verdadera>. De nuevo parecerá obvio, pero esto implica también descartar todo fundamentalismo teórico, toda percepción excluyente. El historiador debe conocer en efecto todos los enfoques y aproximaciones, para trabajar a partir de ahí según su propia perspectiva. Aunque siempre desde la flexibilidad y la coherencia, haciendo explícitos sus propios planteamientos de partida, con el horizonte siempre de que esa herramienta de trabajo desarrolle todo su potencial heurístico.*
>
> *Este es, en cierto modo, el primer punto de partida de la presente Historia de las culturas políticas en España y América Latina. El de partir del conocimiento de, y reflexión sobre, los diversos enfoques y la complejidad del problema. Y hacerlo desde posiciones flexibles y en absoluto excluyentes"*[330].

Horrelako zerbait egin nahi izan dugu guk ere.

Historia egiteko bide ezberdinen artean historia kultural berria azpimarratu nahi genuke[331]. Modernitatearen krisiaren testuinguruan, historia egiteko modu berri honetan diskurtsoak berebiziko garrantzia hartuko du. Miguel Angel Cabreraren hitzetan diskurtsoa honakoa litzateke: *"rejilla conceptual de visibilidad, especificación y clasificación mediante la cual los individuos dotan de significado al contexto social y confieren sentido a su relación con él, mediante el cual se conciben y conforman a sí mismos como sujetos y agentes y mediante el cual, en consecuencia, regulan su práctica social"*[332]. Ikuspegi honek dakarren berritasuna diskurtsoari ematen dion garrantzia eta berariazkotasuna da, hau muturrera eramanez, independentea ere badela esateraino[333]. Miguel Angel Cabrerak jasotzen dituen diskurtsoaren definizioen artean, Trevor Purvis eta Alan Huntenarenean ikusi dugu gure pentsamendua egokiro jasoa: *"lo que el concepto de discurso intenta captar es el hecho de que las personas viven y experimentan dentro de un discurso, en el sentido de que los discursos imponen marcos que limitan lo que puede experimentarse o el significado que la experiencia puede abarcar y, de este modo, influyen en, permiten o impiden lo que puede decirse y hacerse"*[334].

---

[330] CABRERA, Miguel Angel; PRO, Juan: *La creación de las culturas políticas modernas, 1808-1833,* op. cit., 115.-116. or.

[331] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad.* Madrid: Cátedra, 2001.

[332] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 51. or.

[333] Guk ez genuke hain garbi azken alderdi hau.

[334] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 53. or. Bertsolarien diskurtsoen azterketara pasatzen garenean ikusi ahal izango dugu bertsolari batzuk eta besteek erabiliko dituzten kategoria eta kontzeptuak desberdinak direla, eta honek, adibidez, identitate kolektiboaren arazoarekiko era bateko edo besteko azalpenak ematera eramango ditu. Jakina, ez da diskurtso kontua bakarrik izango, baita Gipuzkoaren modernizazioaz izan duten esperientziak ere baldintzatuko ditu bertsolariak.

Identitatearen gaiari lotuta diskurtsoen azterketa erabat egokia dela ere adieraziko du, bide batez, Miguel Angel Cabrerak:

> *"En toda situación histórica existe una matriz categorial o patrón establecido de significados de naturaleza específica, al que se denomina discurso o metanarrativa, que es mediante el cual los individuos entran en relacion sifnificativa con sus condiciones sociales de existencia y mediante el cual organizan y confieren sentido a su práctica. Dicha matriz o patrón contribuye activamente, con su mediación, a la constitución de los significados que se otorgan al contexto y a la posición sociales, así como de las correspondientes formas de conciencia y de identidad, y opera como marco causal de las acciones y, en consecuencia, de las relaciones e instituciones sociales a las que éstas dan vida. Desde esta perspectiva, por tanto, la mediación discursiva es no sólo un componente esencial, sino además un factor explicativo capital de los procesos sociales"*[335].

Miguel Angel Cabreraren eskutik Sewellek esanak jasotzea ere egokia da. Izan ere, autore honek diskurtso berri baten sorrera ulertzeko aurrekoa aztertzeari garrantzia ematen dio. Modernizazioak bertsolarien diskurtsoan eragindako aldaketak aztertzeko egoki izango zaigu diskurtso berritzaile hauek sustraiak non zituzten ikustea. Sewell klase diskurtsoaz ari delarik: *"el hecho de que el discurso de clase sea una transformación de un discurso previamente existente tiene una importante implicación teórica: significa que para explicar la emergencia del discurso de clase, debemos comprender la naturaleza, la estructura y las contradicciones potenciales de los discursos previamente existentes de los que es una transformación"*[336]. Aukeratutako sei bertsolarien artean modernizazio aurreko ikuspegia lantzen duten bertsolariak izateak –Pello Errota bereziki, baina baita Txirrita ere, neurri batean-, modernizazioak eragindako diskurtso aldaketak hobeto ulertzen lagunduko digu.

# 4.Laburbilduz

Atal honetan, doktorego tesi honetan erabili ditugun iturrietara hurbildu nahi izan dugu eta hauen izaera historikoan sakondu –XIX. mendeko bertsolaritza, eta batez ere bertsopaperak kontuan hartuz-. Bestetik, bertsoak aztertzeko erabili dugun metodologia zein izan den argitaratu nahi izan dugu, lehendabizi, era horretako zein saiakera eta nolakoak izan diren adieraziz.

Azken urteetan bertsolaritzaren azterketak astinaldia jaso du. Hainbat ikuspegitatik aztertzaile nahikotxo hurbildu da bertsolaritzara: bertsolariak, antropologoak,

[335] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 63. or.
[336] CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad,* op. cit., 66. or.

soziologoak, literatura aztertzaileak, etab. Zientzia historikoa ere hurbildu da bertsolaritzara. Zenbait historialari hurbildu dira bertsolaritzara bertsoak iturri historiko gisa erabili asmoz. Bidean, metodologiaz gogoeta interesgarriak egin dituzte. Gure lanean horiek jasotzen saiatu gara egindakoetatik ikasi asmoz, eta neurri batean, aurrerapauso bat eman nahirik. Hona gure apustua: bertsoak besterik iturri gisa ez erabiltzea gure azterketarako, eta erabili, modu sistematikoan gainera, horretarako, neurri batean, "Grounded theory" deritzona erabiliz. Horretarako sei bertsolari aukeratu ditugu, euren bertsoak konparatuz, seien interpretazio sakonagoa lortu asmoz. Jarraitutako ikerketa bide honek gure hasierako asmoa hankaz gora jarri zuen momentu batean: Gipuzkoako herriaren identitatea aztertzeko asmotik, bertsolarien ahoz herri xeheari eskaini zitzaizkion identitate bideak aztertzera pasa beharra erakutsi ziguten iturriek. Onartu egin genuen iturriek jotako erronka. Ez zen hau gainera, "ezusteko" bakarra izan: bertsolariak bana-bana baino etengabean euren artean konparatuz aztertzeko beharra erakutsi ziguten iturriek. Zein ote sei bertsolariek proposatutako identitate bideak? Zein eratako harremana ote zuten modernizazio prozesuarekin? Errazago kokatuko genuen bakoitzaren diskurtsoa beste bosten diskurtsoak gogoan izanez. Atal horri guztiari, azken puntu gisa, gure lanari Historiako korronteren baten etiketarik jarri behar izanez gero zein aukeratuko genukeen ere gehitu diogu, nahiz eta horretan gehiegi sakondu ez.

Eta horra, horrek guztiak ekarritako beste ikerketa bide bat. Aztertzen ari ginen bertsolarien artean, askotariko identitate proposamenak aurkitzeak, askotariko bertsolaritzaz mintzatu behar genuela ikusarazi zigun. Bertsolaritza ez da bakarra, ez da denboran zehar aldatu gabe mantendu dena. Garaian garaian, bertsolariek eta bertsolaritzak funtzio ezberdinak bete dituzte. Eta XIX. mendeko bertsolaritza, hain zuzen ere, –garaiko beste alderditan bezalaxe- bertsolaritzaren alderdi tradizional eta modernoenak elkarrekin bizitzen ikusiko dituen aroa izango da. Begira diezaiogun bertsolaritzari barrutik, bertsolarien ikuspegitik, ia ia bertsolari bakoitzarenetik. Bertsopaperen zein erabilpen egin ote zuen bertsolari bakoitzak?

Xenpelarrek bertsopaperak hauspotuko ditu, besteak beste, modernizazioaz duen ikuspegi kritikoa zabaltzeko. Modernizazio prozesuaren zuzeneko eragin txikiagoa izan zuten Pello Errotak eta Txirritak, kasu, bertsopaperak tresna gisa erabiliko dituzte bertso sailak plazaratu eta saltzeko: lehenengoak bera bizi deneko edo inguruko komunitateko beharrei erantzuteko –apustuak direla, ezkontza tratuak direla, etab.-; bigarrenak, berriz, prentsaren zabalkundearekin bat, tokia egingo die hurbileko eta urrunagoko gertakizunei ere bere bertsoetan –herri xeheari prentsa hurbiltzeko lagungarri ote?-. Pedro Mari Otañok krisian sentitzen duen bere

barruari eta gertatzen ari zaionari zentzua bilatzeko tresna gisa erabiliko ditu bertsoak, eta ustekabean –ala horrela nahita?- egoera paretsuan zeudenei espresiobidea eskainiko die. Joxe Mari Lopetegik, azkenik, Errepublikaren aldeko kanpaina egiteko eta Errepublikaren aldekotasuna jendartean zabaltzeko erabiliko ditu bertsoak mitin politikoetan abestuz.

Bertsolariei dagokienez, bertsoak osatzerakoan zituzten helburuak askotarikoak baldin baziren, zer esanik ez garaiko intelektualek bertsoei buruz zituzten iritzi eta espektatibei buruz. Alegia, begira diezaiogun orain bertsolaritzari kanpotik, edo ikus dezagun kanpotik nola begiratzen zioten bertsolaritzari. XIX. mendean, lorejoko eta euskal jaien bultzatzaile zirenentzat, zaindu beharreko eta eutsi beharreko fenomenoa zen bertsolaritzarena, herri xehearen adierazpen zen neurrian, edo hala behar zuen neurrian[337]. XIX. mendean, euskararen alde egon ordez, gaztelaniara jotzen zuten intelektualentzat, berriz, bertsolaritza fenomeno marjinala izango da, arloteen kontua, aintzat hartu behar ez dena. XX. mendeko Errepublika garaian, bertsolaritzaren defentsa egingo dute Manuel Lekuona, Basarri edota Aitzolek, herri xeheagandik poesia jasoa baino gerturago dagoelakoan, eta herri xehe horrengana iristeko bide zuzenagoa izango delakoan. Ehun urteko tartean, beraz, bertsolaritzak sokatira biziko du: batera eta bestera eraman nahiko dute, funtzio berriak ezarriz.

Horrek guztiak erakutsi digu XIX. mendeko bertsolaritzaren azterketak merezi lukeela azterketa sakonagoa. Ezin izan diogu –ez gogo faltaz, bai ordea zentzuak hala eskatuta- gure doktorego tesian amu honi heldu.

Bertsolari bakoitzak ia bertsopaperak erabiltzerakoan funtzio jakin bati erantzun nahi bazion, beharrezkoa zaigu bertsolari bakoitzaren testuinguruan sakontzea: zein izan zen Pello Errota, Txirrita, Bilintx, Xenpelar, Pedro Mari Otaño eta Joxe Mari Lopetegiren bizitza? Zer iritsi zaigu haiei buruz guri? Zeintzuk dira haien bizitza eta bertsoak aztertu dituztenek azpimarratu dizkigutenak? Zeintzuk dira haien bertso produkzioaren ezaugarri nagusiak? Horra doktorego tesi honen hurrengo atalean zertaz hitz egingo dugun.

[337] "Herri bakar asmatuaren" adierazpide gisa "ofizializatu" nahi ote zuten?

# HIRUGARREN ATALA:
# DISKURTSOEN EGILEAK

> *"<Xenpelar>, <Iparraguirre>, <Bilintx>, <Udarregui>, <Etxahun> y <Otxalde>, entre otros, son los poetas señeros de la <edad de oro> de los versos improvisados y escritos, los que conocieron los efectos de la expansión de la industrialización con sus brutales mutaciones, los que depuraron las técnicas de la repentización y multiplicaron los temas versificados, combinando fórmulas y motivos, melodías y ritmos compositivos y adaptándolos al nuevo contexto que progresivamente fue imponiendo la pérdida de las identidades forales. Paradójicamente, al menos en el caso vasco, este proceso de reconocimiento e individualización del bertsolari no ha servido para que, historiográficamente hablando, se haya fijado de manera rigurosa su figura y roles históricos. Para muchos, más que un personaje real y controvertido ha sido un héroe popular. Un cúmulo de idealizaciones han propiciado que se recreara e inventara su identidad, dotándola de poderes sobrehumanos. Así, se le ha presentado como el preservador exclusivo de la ancestral lengua de los vascos; a su actividad se le ha otorgado un carácter sagrado y finalista, y su función esencial ha sido la de glosar y moralizar las fatalidades vividas o acaecidas a los habitantes de la Euskalherria de los dos últimos siglos"*[338].

Hirugarren atal honetan doktorego tesi honetarako aukeratutako sei bertsolariengana hurbilduko gara. Beren bertsoen azterketari ekin aurretik, uste dugu beharrezkoa dela eurengana hiru ikuspegitatik hurbiltzea. Batetik, eurei buruz bibliografiak dioena jasotzen saiatu gara. Bestetik, euren bizitzetara hurbiltzen saiatu gara, Antonio Zavalaren lanetatik bereziki datuak jasoz. Eta azkenik, beren bertso produkzioaren ezaugarri nagusiak ematen saiatu gara: ez hauen alderdi tekniko edo literarioa interesaten zaigulako, ezaugarri orokor batzuk kontuan izateak bertsoetan diotena hobeto ulertzen lagundu diezaguketelako baizik. Diskurtso egileei buruzko hirugarren atal nagusi honen helburua, hauxe da: Jose Carlos Enriquezek esandakoen arabera, bertsolari hauek plano mitikotik errealera hurbiltzen saiatzea, doktorego tesiaren laugarren atal nagusia, diskurtsoen azterketa, modu egokian egin ahal izateko, hankak lurrean ditugula. Hau da, bizi izan ziren garaiko gizon gisa ulertzen saiatu, modu horretan, haien antzeko ezaugarriak zituztenen ordezkari izan zitezkeen pentsatzen hasi ahal izateko. Garbi esan nahi dugu gure helburua ez dela Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Pedro Mari

[338] ENRIQUEZ, José Carlos: "La invención del bertsolari errante…", op. cit., o.g. (orrialde gabe)

Otaño, Txirrita edo Joxe Mari Lopetegiri buruz esan den guztia jasotzea, ez hauei buruz idatzi denaren edizio gaurkotu eta kritikoa egitea ere. Bertsolari bakoitzarenganako era honetako hurbilpenak doktorego tesi baterako eman dezake. Eta ez da hori gurearen helburua. Bertsolari hauen bertsoen azterketa sistematikoaren bitartez Gipuzkoan XIX. mende eta XX. mende hasieran gertatu zen modernizazio prozesuaren baitan suertatu ziren aldaketak eta hauen irakurketa bide ezberdinak zeintzuk izan ziren aztertzea da gure nahia. Horretarako, jakina, bertso haien egileak hobetoxeago ezagutzea ez dugu kalterako izango.

Nondik hasi? Zeinetatik? Nola ordenatu sei bertsolari hauek? Irizpide kronologiko hutsa nahikoa ote? Jaio zireneko urteak har genitzaken mugarri, edota baita heriotza urteak ere. Edota euren jaioterriaren arabera eta bizitako esperientzien arabera, Gipuzkoako modernizazioaren ardatz kronologikoan koka genitzakeen. Irizpide batzuen eta besteen arteko konbinazioa da erabili duguna[339]. Batez ere beren bertso produkzioaren urteak dira kontuan hartu ditugunak[340]. Horregatik, Errenteriako lehenengo industrializazioa ezagutu zuen Xenpelarrekin (1835-1869) hasiko gara. Bigarren, Donostian jaio eta hazi zen Bilintxekin (1831-1876) arituko gara. Hirugarren, Ernioko munduan jaio eta hazi zen Pello Errotarekin (1840-1919) jarraituko dugu. Laugarren, Pedro Mari Otaño (1857-1910) hartuko dugu hizketagai, Donostian *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan eman zen mogimenduan bete betean parte hartu zuena. Bosgarren Txirrita (1860-1936) landuko dugu. Jaiotza urtea kontuan hartzen badugu, kronologikoki bosgarren jaioa da, nahiz eta aurrerago ikusiko dugun bezala, eta hirurogeita hamasei urtera arte bizi izan zelarik, bere bertsokeragatik eta hainbat gairi buruz kantatu zituenengatik, Pello Errotarekin oso ongi moldatu zen. Eta azkenik, Joxe Mari

[339] Bertsolaritzaren azterketa egin duten lanak irakurtzen baditugu aztertzaile bakoitzak bertsolariak sailkatzeko bide desberdinak erabili dituela ikusiko dugu: Antonio Zavalak belaunaldika antolatu zituen bertsolariak. Aita Santiago Onaindiak berriz herrialdeka eta eskolatuak izan edo ez izatearen arabera. Juan Mari Lekuonak berriz, beste lau elementu hartzen zituen kontuan: bertsolaritza XIX eta XX. mendetako kultur mugimenduen barruan ezartzen saiatu zen, bertsolariek bat-batean edo idatziz egiten zituzten bertsoak, hori kontuan hartuz eskolatuak edo eskolatu gabeak ziren (literatura idatziaren eraginik bazuten edo ez), eta azkenik zein euskalkitan abesten zuten. Ikus, adibidez, LEKUONA, Juan Mari: "Sailkapen saioa. Bertsolariak historian", in: *Jakin* (1980), 14/15 (bigarren aldia), 6.-16. orrialdeak.

[340] Auspoaren Sail Nagusian argitaratutako bertsoen eta datazioen arabera, hona zein urte bitarteko bertsoak ezagutzen ditugun bertsolari bakoitzari dagokionez, gutxi gorabehera, batez ere, jarritako bertsoei buruz ari garela: Xenpelar (1854-1869), Bilintx (1852-1876), Pello Errota (1866-1899…), Pedro Mari Otaño (gaztetako bertsoak: 1879-1889; Donostiako bertsoak: 1890-1898; Argentinako bertsoak: 1898-1910); Txirrita (1886-1935); Joxe Mari Lopetegi (1903; batez ere 1931-1932, 1936, 1939-1940). Hala eta guztiz ere, datazio zehatza izatea ez da erraza: ahoz botatako bertsoei dagokionez, ia ezinezkoa; eta jarrietan ere, ez da beti jakiten.

Lopetegi (1875-1942) bertsolari errepublikanoa hartuko dugu aztergai, bertsolaritza masa gizartean bete-betean bizi zuena.

# 1. Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, Xenpelar (Errenteria, 1835-1869): Manchester txikitik, hiru probintzietara, "lengo legerik" eta federik utzi gabe

Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, Xenpelar bezala ezaguna, Errenterian jaio zen 1835. urtean eta bertan hil, 1869. urtean. Hogeita hamalau urterekin hil zen gaitzak jota, aurrerago ikusiko dugun bezala. "Manchester txikian"[341], ohial fabrikako langile izan zen Xenpelar. Errenteriako modernizazio prozesu goiztiarra, 1840ko hamarkadan eman zena, ezagutu zuen, beraz, eta ez dakigu honen eraginez edo ez, baina alderdi nagusi bat azpimarratu nahi dugu bere diskurtsoan: aldaketak eta modernizazio prozesuaren kontra hartu zuen jarrera. Erlijioa eta *"lengo legeak"* aldarrikatu zituen nagusiki bertsopaperetan, hiru probintzien egoera paretsua zela agertuz. Aztertu ditugun bertsolarietan bera izan zen bertsopaperak erabiltzen lehenengoa.

## 1.1 Xenpelar: nor zela esaten dute?

Zalantzarik gabe, Xenpelarri buruz daukagun lan nagusia Antonio Zavalak Auspoaren Sail Nagusian Xenpelarri eskaini zion liburua da[342], guk Xenpelarren bertsoak aztertzeko iturri gisa ere erabili duguna.

Honen aurretik helburu nagusi gisa Xenpelarren eta haren bertsoen berri jasotzea helburu zuen lanik ere izan zen. Makazagak Errenterian argitaratua, edota Luis Jauregik osatua[343].

---

[341] Ikus BARCENILLA, M. A.: *La Pequeña Manchester: origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano: Errenteria (1845-1905).* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999.

[342] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua.* Oiartzun: Sendoa, 1993. Antonio Zavalak berak 1969an argitaratu zuen Auspoan Xenpelarren inguruan liburua, 1981ean berrargitaratu zuena.

[343] MAKAZAGA: *Xenpelar'en bertsuak.* Errenteria, 1931; JAUREGI, Luis: *Xenpelar Bertsolaria. Bizitza ta bertsoak.* Zarautz: Itxaropena Argitaldaria, 1958. Guk erreferentzia nagusitzat, Antonio Zavalaren Auspoaren Sail Nagusiko argitalpena erabiliko dugu.

Xenpelarri buruzko aipamenei dagokionez, bertsolaritza aztertzen zuten lan klasikoak kontuan hartuko ditugu orain[344]. Manuel Lekuonak 1930. urtean eman zuen hitzaldi eta argitaratu zuen *La poesía popular vasca* lanean askotan aipatzen du Xenpelar eta baita haren bertsoak ere[345]. Bost urte geroago, 1935an, argitaratutako *Literatura oral vasca*-n, maiz aipatzen du baita ere Xenpelar: bai bertsolarien ospeaz hitz egiteko, bertso mota ezberdinak azaltzeko, bertsolaritzaren historia barrutik nola kontatzen den argitzeko, eta eranskin gisa hainbat bertso ere jasotzen ditu Lekuonak[346].1976an Donostian hitzaldia ere eman zuen "Bilintx eta Xenpelar" izenburupean[347].

Antonio Zavalak, bere *Bosquejo de historia del bersolarismo*[348] lanean hiru orrialde eskaintzen dizkio zuzen zuzenean Xenpelarri. Bi gerrate karlisten arteko aldiko bertsolari hoberentzat jotzen du Antonio Zavalak Xenpelar[349], baita inoizko onenen artean ere. Bertsopaperak bere bertsoak zabaltzeko maiz erabiliko dituen lehenengotako bertsolaria da hau. Bertso asko eta onak egingo ditu gainera, Aita Zavalaren iritziz. Ikertzaile honek Xenpelarri egozten dizkion ezaugarrien artean daude: neurritsua izatea, bertsoetan hasieratik bukaerara gaiari ongi heltzea, eta bertso trinko eta perfektuak egitea, bertso neurri eta doinu ezberdinak erabiltzea. Arrakasta handia izan zuen eta bere bertsoak hainbat alditan berrargitaratu zituen[350]. Zavalak esaten digunez, zailtasun ekonomikoak ere bizi bide zituen.

Aita Santi Onaindiak ere aipatzen du Xenpelar *Gure bertsolariak*[351] lanean, eskolatu gabeko bertsolarien artean. Arestian aipatu dugun Luis edo Koldobika Jauregiren lanari egiten dio maiz erreferentzia eta bertso batzuen berri ere ematen digu.

Juan Mari Lekuonak Xenpelarri buruz honela diosku: *"herrikoiagoa bada ere, usariozko sustratoari berak ematen dio forma idatzia bertso-paperetan, berak*

---

[344] Lan hauen bitartez bertsolariei buruz hitz egiterakoan zein ezaugarri azpimarratzen ziren ikusarazi nahi dugu, era honetan, bertsolarien zein irudi azpimarratu edo "eraikitzen" joan zen ikusteko.

[345] Ikus LEKUONA, M.: "La poesía popular vasca". In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978. 218., 221.-227., 229.-230., 247.-248. orrialdeak.

[346] Ikus LEKUONA, M.: "Literatura oral vasca". In: *Idazlan guztiak,* op. cit., 304., 312., 328.-329., 331., 382.-399., 412.-416. orrialdeak.

[347] LEKUONA, M.: "Bilintx eta Xenpelar". In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978. 89.-115. or.

[348] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit., 67.-69. or.

[349] Ikusi egin beharko genuke zein ikuspuntutatik abiatzen den hau esateko.

[350] Zavalak berak esaten digunez, "Azken juizioko bertsoak" 40 argitaraldi ezberdinetan ba omen zituen. ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit., 68. or. Edota "Frantzesaren ideak beti alrebes" bertsoak iparraldera ere hedatu omen ziren, bertan, "frantzesa" esan ordez, "kaskoina" erabiltzen omen zutelarik, "bestea"ren ezberdintasunak azpimarratzeko.

[351] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit., 268.-275. or.

*markatzen ditu jendaurreko bertsolaritzaren zenbait molde eta lege, Basarri eta Uztapideren garaia, pizkunde aroa, etorri zen arte; bera izan zen herri filosofiaren adierazpen jatorra"*[352].

Joanito Dorronsorok Xenpelar *Bertsotan. 1789-1936* liburuko atal batetako buru egiten du. Xenpelarren garaia deitzen dio kapitulu honi[353]. Kapitulu hau, hirugarrena da, Bilintxenaren eta Pello Errotarenaren aurretik ageri da. Liburu honetan egileak jarraitutako metodologiari kasu eginez, bertsolariari buruzko datu biografiko batzuk eta bertsolariak jarritako hainbat bertso jasotzen ditu. Luis Jauregiren –Jautarkolen- hitzak jasoz, bertsolariaren deskribapen fisikoa jasotzen du Dorronsorok: *"Gorputzez ez haundi eta ez txiki omen zen, Jautarkolek diogunez. Aurpegia beltzarena; begiak, biziak eta bihurri samarrak; burua, erne eta azkarra; gainerakoan, gizon elizkoia eta atsegina, kristau jatorra eta langile baketsua"*[354]. Batbatean eta bertso jarriak osatzen zuen abilidadea azpimarratzen du Dorronsorok. "Eritzi kritikoa" izeneko atalean, Xenpelarri buruz bertsolaritzaren aztertzaile batzuek esanak ere jasotzen ditu.

Berriagoen artean Juan Garziak Xenpelarri buruz *"Xenpelarrenean errima gehiagoko bertsoak topatzen ditugu, errimak bestelako garrantzia du, eta beste izakera bat da, oso desberdina. Ideologikoagoa? Bai baina baserritarren ideologiarekin. (…) Xenpelar gainera, ironikoago da, anbiguoagoa. Adibidez, berari tira dale! ospetsua ez dut uste inor ausartuko denik interpretazio zehatz eta bakar bat ematera. Kriptikoagoa da Xenpelar. Formak garrantzia handiagoa du Xenpelarrenean Txirritarenean baino, eta harritzekoa da hori, zaharragoa izanik.(…) Xenpelarrena harrigarria da. Metaforak erabiltzen ditu. Kontrasteak ez hainbeste. Gero, zazpi eta bederatzi puntuko bertsoekiko zaletasun hori, edo forma berezietarako joera, ia guriak, Iparragirrerena, eta horrelakoak. Formak garrantzia handia du, eta zentzu horretan modernoago da. Metafora, adibidez, konparaketaren hurrengo maila da, hori garbi azaltzen da literatura guztietan. Bada, Xenpelarrek erabiltzen du, eta Txirrita eta gainerakoek ez, dena konparaketa erabiltzen dute. Metaforak sofistikazio maila gorago bat adierazten du konparaketarekiko, eta horregatik diot harrigarria dela Xenpelarren zera hori, sofistikatuago dela, alegia, ilustratuagoa edo ."*[355]

---

[352] LEKUONA, J. M.: *Ahozko euskal literatura,* op. cit., 98. or. Herri filosofiaz mintzo denean, "herri bakarraz" ari ote Joan Mari Lekuona?

[353] DORRONSORO, J.: *Bertsotan. 1789-1936,* op. cit., 87.-127.or.

[354] DORRONSORO, J.: *Bertsotan. 1789-1936,* op. cit., 93. or.

[355] Ikus *Bertsolari aldizkaria,* 21. zenbakia, (1996) martxoa, 26. or.

Geroztik, *Bidegileak* sailean Elixabete Perez Gazteluk ere idatzi du liburuxka[356].

Jasotako hauen ondoren, zer azpimarratuko genuke? Lehenengo eta behin, bertsolaritzaren historiaz aritzen diren aztertzaile guztiek aipatzen dutela Xenpelar eta goretsi egiten dutela gainera. Bigarren, eta gure lanari begira garrantzitsua dena, bertsopaperak erabiltzen lehenengotarikoa izan zela. Hirugarren, berari buruz ematen duten irudia: elizkoia, kristaua, jatorra, langile baketsua. Eta laugarren, herri filosofiaren adierazpen jatorra egin zuela.

Lehenengoaz, ez dago beraz zalantzarik, Xenpelar ezinbestekoa da bertsolaritzaren historian. Ongi egin dugu gure lanerako aukeratzen.

Bigarrenaz, doktorego tesi honen laugarren atalean ikusiko dugun bezala, aztergai dugun ehun urteko garai honetan bertsopaperen sorrerarako ezinbestekoa izango zaigu Xenpelarrenak aztertzea. Bigarren arrazoi bat, Xenpelarren aukeraketa baiesteko.

Hirugarren azpimarratutako elementuak, joku handia emango digu bere bertsoak aztertuko ditugunean. Bi alderdi bereiztuko genituzke: batetik, bere langile izaera nabarmentzen dela. Modernizazio prozesuaren eragina aztertzen ari garen honetan, benetan lagungarria izango zaigu Xenpelar aukeratutako bertsolarien artean izateak. "Baketsu" , "langile"rekin batera ageri den izenlagunak istilutsua ez, baizik eta sortzen ari ziren bizi baldintza berrien aurrean jaikitzen ez zen gizona zela esan nahiko al digu? Eta bestetik, elizkoi, kristau eta jatorra. Aurrerago ikusiko badugu ere, Xenpelarrengan erlijioak izan zuen pisua agertzen digu. Bizitzen ari zen modernizazio prozesuari erantzun bat emateko modua ote?

Eta azkenik, laugarren tokian aipatu dugun ezaugarria: herri filosofiaren adierazpen jatorra egin zuela. Alor hau ere interesgarri gerta daiteke gure lanerako. Izan ere, modu honetan, bertsolari honek esandakoak "herriak" zenbateraino onartu edo kontuan hartzen zuen susma dezakegu. Hala ere, segituan datozkigu galderak burura: zein herritaz ari da Juan Mari Lekuona? XIX. mendeko erdialdeko errenteriar harentzat zein ote "herria"? Eta zein filosofiaren adierazpen jatorra?

[356] PEREZ GAZTELU, E.: *Juan Frantzisko Petriarena, Xenpelar. 1835-1869.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen zerbitzua, 2010.

## 1.2.Xenpelarren bizitza[357]

Juan Frantzisko Petriarena Berrondo (agiri batzuetan Jose Frantzisko ageri omen da), Errenterian jaio zen 1835eko urtarrilaren 12an. Aita Jose Bernardo Petriarena Bergara zen, Arantzan jaioa eta Oiartzunen bizi zena[358]. Bitan ezkondu zen Jose Bernardo Petriarena. Lehenengo, Josefa Inazia Iragorri oiartzuarrarekin. Harekin hiru seme izan zituen: Juan Jose, Jose Saturnino (1815eko otsailaren 9an jaioa), eta Juan Krutz (1816ko urriaren 2an jaioa). Josefa Inazia hil egin zen, ordea, eta Jose Bernardo orduan bigarren aldiz ezkondu zen, oraingo honetan, Oiartzungo Maria Rita Berrondorekin. Sei seme-alaba izan zituzten elkarrekin: Josefa Gregoria (1829-XII-27)[359], Jose Manuel (1832-IV-5), Maria Luisa (1833-V-11), Juan Frantzisko –gure Xenpelar- (1835-I-12), Katalina Josefa (1838-VIII-13), eta Inazio Maria (1842-IV-16).

Esan bezala, Xenpelar 1835ean jaio zen, lehenengo Gerrate Karlista bete-betean zela. Nahiz eta Errenterian jaio, Oiartzunen bataiatu zuten –Antonio Zavalak hipotesi ezberdinak ematen ditu hau azaltzeko-. Senperelarren aitak eraikitako etxean bizi zen Xenpelar –lur eta etxeari lotutako izena hartuko du beraz Juan Frantziskok-. Baserri urria omen zen eta familia handiegia (senar-emazteak eta bederatzi ume aipatu ditugu behintzat). Horregatik, agian, zazpi urterekin Egurrola baserrira eraman zuten Xenpelar: izeba osabak zituen bertakoak –bertako etxekoandrea, aitaren arreba zen, eta Xenpelarren aitajauna ere baserri hartan bizi zen- eta haiei laguntzera –eta bide batez Senperelarren bizi ziren kide kopurua gutxitzeko- bidali zuten. Egurrolatarrak mandazai ibiltzen ziren orduan, egurikatza eramanez. Xenpelar mandoei jaten emateko otea prestatzen ibiltzen zen.

Xenpelarren anaia zaharrena, Juan Jose, geratu zen maiorazko Senperelarre baserrian. Aita Jose Bernardo hil baino hilabete lehenxeago ezkondu zen etxera Juan Jose, 1855eko otsailaren 12an. Hasiera batean senide gazteagoak bertan geratu ziren bizitzen, baita ama alarguna ere. Denborarekin, bere bidea bilatu zuten senide hauek: amarekin Errenteriko kalean bizitzen jarriko dira batzuk. Xenpelarren anai-arreben artean, Maria Luisa arreba aipatu behar dugu: harreman estua izan zuten bi anai-arreba hauek. Maria Luisa Azkoitiako alpargatagile zen Jabier Inazio

[357] Xenpelarren bizitzari buruzko datuak Antonio Zavalaren Auspoaren Sail Nagusiko Xenpelarri buruzko liburutik hartuak dira. Ikus: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 13.-51. or. Datu nagusiak jaso ditugu: Antonio Zavalak dakartzan xehetasun guztiak ez ditugu jaso. Haiek nahi dituenak, jo beza jatorrira.

[358] Jose Bernardoren aita ere, hau da, Xenpelarren aitona, nafarra zen: Sunbillan jaioa. Aitona honek erosi omen zuen "Senperalarre" lurra Errenterian.

[359] Besterik esan ezean, jaiotza datak dira parentesi artean jarritakoak.

Aranberri Elorzarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten hauek (bi behintzat, haur zirela hilak). Maria Luisak ere Errenteriko oihal fabrikan, Fabrika Handian egiten zuen lan, Xenpelarrekin batera. Azkarra omen zen eta irakurtzeko zaletasun handia omen zuen.

Xenpelar 1859ko abenduaren 22an Oiartzungo Maria Josefa Retegirekin ezkondu zen -bi anaia bi ahizpekin ezkonduta omen zeuden: Xenpelarren anaia Juan Jose, Maria Josefaren ahizpa batekin ezkondua zegoen-. Hiru seme-alaba izan omen zituzten Xenpelarrek eta Maria Josefak: Juana Josefa (1860-III-1), Maria Luisa (1863-II-10), eta Juana Manuela (1866-XI-5). Zavalak dioskunaren arabera, Xenpelarrek irakurtzen bai, baina ez omen zekien idazten, segur aski.

Xenpelar fabrikako langilea zen. Errenteriako "Fabrika Handia" oihal fabrikan egiten zuen lan. Ehun fabrika zen hura. Beren kontura aritzen omen ziren lanean: oihal piezak bukatu ahala, kobratu, eta beste pieza berri bat hasten zuten[360]. "Plugastel" izeneko oihalak omen ziren egiten zituztenak –Zavalak ikertutakoaren arabera, itsasontzietako belak egiteko erabiltzen omen zen oihal mota hura-.

Baztangaz kutsatuta hil zen Xenpelar. Emaztea hil zitzaion lehenengo -1869ko urriaren 25ean-. Gero bera, abenduaren 8an, 34 urte zituela[361]. Eta ondoren bera bisitatu eta zaindu zuen arreba Maria Luisaren haur jaio berria eta arreba Maria Luisa bera. Xenpelarren haurrak izeba-osabek hartu zituzten umezurtz geratu zirenean. Handitzean, Xenpelarren bi alaba, Juana Josefa eta Juana Manuela, Ameriketara joan ziren. Haien aztarnak galduak dira.

Zer azpimarratu Xenpelarren bizitzako datu hauek jaso ondoren? Famili tronkalaren sistemaren baitan jaio eta hazia izan zela Xenpelar, ahaide arteko harreman sarearen baitan –ikus maiorazkoaren konportamentua, ezkontza estrategiak, seme-alaba kopuruak eta jaiotza urteak, ama alargunarekin elkarbizitzea-. Errenterian ematen hasi zen aurreindustrializaziorako eskulan egokia izan zen landa eremu pobrean "sobran" zegoen gehiegizko gizon eta emakume multzo hura: Xenpelar horietako bat izan zen. Bizi izan zuen bizitza laburrean -34 urte besterik ez- fabrikarako eta kalerako pausoa eman zuen. Honek, ezinbestean, izango zuen eraginik bere bertsoen ikuspegi eta gaietan.

---

[360] Antonio Zavalak harriduraz esaten digu arrebak lan beragatik Xenpelarrek baino diru gutxiago kobratzen zuela. Aurreindustrializazio hartan, dagoeneko, emakume eta haurren lana merkeagoa zen gizonena baino.

[361] Aztertu ditugun bertsolarien artean gazteen hil zena dugu hau.

## 1.3.Xenpelarren bertso produkzioa

Atal honekin ez dugu inor nahastu nahi. Bertsoak aztertzen hasi ginenean egin genuen lehenengo irakurketa bertsolariz bertsolari eginikoa izan zen. Orduan bertsolari bakoitzaren bertso produkzioaren zenbait berezitasunez ohartu ginen. Haiek jasoko ditugu orain, bertsolarien arteko desberdintasunei erreparatzeko eta xake taula baten antza duen doktorego tesian sei bertsolarien posizio erlatiboei neurria hobeto hartzeko. Bukatzeko, ataltxo honetan, Xenpelarrek berak zeharbidez bada ere, bere bertsogintzaz esandakorik ere jasoko dugu, argia eman diezagukeen esperantzan. Bertsolariei eurei entzuten hasteko modua izango da hau, nahiz eta hau, bereziki, doktorego tesi honen laugarren atalean egingo dugun.

Xenpelarren bertsoen artean, beti ere Antonio Zavalak jasotakoak kontuan hartuz, jarritako bertsoak dira nagusi. 36 bertso sail kontatu ditugu guk (237 orrialde betetzen dituztenak). Bere bizitzako pasadizo edo biografiari lotutako 11 bertso multzo[362] edo topatu ditugu (45 orrialde betetzen dituzte hauek). Guztira, beraz, 47 esanahi unitate eta 282 orrialde[363].

Bertso sail horiek gaika antolatuta, honako gutxi gora-beherako emaitza lortzen dugu: 2 bertso sail natura edo medioaz, 11 demografia eta familiaz, 9 ekonomiaz, 17 gizarteaz (oroitu tartean bertsolarien artekoak ere sartzen ditugula atal honetan), 2 politika gaiei zuzenean lotuak, eta 13 mentalitateei (erlijioaz batez ere, kasu honetan) lotuak[364]. Guztira, 20.945 hitz, gutxi gorabehera[365].

Lehenengo irakurketa egin genuenean, Xenpelarren bertsoetan hainbat gauzek deitu ziguten atentzioa, gerora, azterketa eta interpretazioa egiterakoan ulertzen saiatu garenak, eta doktorego tesi honen laugarren atalean jasotzen eta kokatzen saiatu garenak. Zeintzuk ziren lehenengo irakurketa hark sortu zizkigun galderak? Zergatik zituen hainbeste bertso erlijioari buruz, eta batez ere erlijiotasun estu eta gogorra oinarri hartuta? Zergatik interesatzen zitzaion hainbeste emakumearen irudiaz eta ereduez hitz egitea? Zergatik azpimarratzen zuen lehengoa –bai mailaketa ekonomikoaz ari zela, bai foruez ari zela-, eta hura mantendu beharra? Bertsoetan gaztelaniako hitzak ere erabiltzen zituela ikusi genuen. Bestalde, Antonio Zavalak Xenpelarren liburuan haren inguruko bertsolarien berri ere

[362] Hauek ez dira sailak bere horretan: askotan bertso solteak dira, pasadizoei lotuak, memorian gordeak.
[363] Ikus 1. eranskina, Bertso sailen koadroa.
[364] Ikus 1. koadroa, "Iturriak eta metodologia" ataleko 1.3. puntuan.
[365] Ikus 2. koadroa, aurrekoaren toki berean.

jasotzen zuela ikusi genuen: ez da, beraz, bertsolari bakartua, bestela baizik, bertsolari taldea du inguruan.

Jaso ditzagun, bukatzeko, Xenpelarrek bertsolari bezala zuen eginkizunaz, zeharbidez, esandako batzuk. Ez gara interpretazio lanetan sartuko, jaso besterik ez ditugu egingo[366].

Zer da bertsolaria Xenpelarrentzat? Ezagutza behar du gai ezberdinen inguruan, nahiz eta dakizkien guztiak ez beti agertu: *"Bost kontu eder jakin biar du / munduan bertsolariyak, / alare ezin atrebitu naiz / deklaratzia guziyak"*[367]. Ezagutza horrek ez du zergatik eskolak emana izan behar, ordea: *"Eskolarikan eztaukat bañon / esango ditut egiyak, / zer sententziya ekarriko duten / munduko arrokeriyak; / elizarikan ikusi nai ez, / beti festara begiyak, / beren buruak apaindu eta / <nun dira erromeriyak?>; / gaztiak nola ibiltzen diran / badaki bertsolariyak"*[368]. Bertsolaritza, berriz, ofizioa izango da: *"Dozena bat bertsotan / nai nuke esplikatu / zenbat extranjero dan / Españian sartu; / lanbide au oraindik / gutxi det usatu, / uts-egiteak arren / argatik barkatu"*[369].

Bertso berriak zertarako jartzen ditu Xenpelarrek? Batzuetan, helburu didaktiko batekin, eta hemen ikusiko dugun bezala, Gipuzkoako "euskal erriya" bere osotasunean buruan duela, edota "gaizki" egin duenari eskarmentua eman nahian: *"Iparragirren bozian ditut / bertso berriak paratu, / Gipuzkoako euskal erriya / al banezake nonbratu; / asko ezkongai daude / gustorikan gabe, / ezin dutela topatu; / projimuari erakustia / ezta izango pekatu"*[370]. Edo beste batean: *"Itzak eder ta biyotza falso, / beti dabilla tranpiyan, / engañatuta erabilli nau / urte bat eta erdiyan; / orain bastante egin diyote / ametitzia erriyan, / sentimentuak paratzen dizkat / eskarmentatu dediyan"*[371].

Helburu ludikoarekin ere osatuko ditu bertsoak Xenpelarrek: *"Milla zortzireun irutan ogei / au da bostgarren urtian, / dibersiyo bat jartzera nua / gazte jendien artian; / Azentziyoz zan erromeri bat / ermita txiki batian, / bi damatxo an ikusi ditut / ezin pasarik atian"*[372].

---

[366] XIX. mendeko bertsolaritzaren historari heltzeko amu posibleak lirateke hauek. Bilketa hau ez dugu zehaztasunez egin: adibide batzuk besterik ez ditugu jaso. Inor animatzen bada, bidea errazteko.
[367] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 134. or.
[368] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 257. or.
[369] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 157. or.
[370] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[371] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 132. or.
[372] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 226. or.

Bertso erlijiosoak proselitismo helburuekin egiten zituela esango digu. 1866ko "Bertso berriak" bertso sailean honela zioen: *"Jaungoikoaren kontra gabiltza / gerentzat zori gaitzian, / fede au eziñ sarturik nabill / jendiaren biotzian; / Barrabas eta Satanasekin / presente eriotzian, / egun bi emen gustora pasa, / infernurako iltzian"*[373].

Edota gertatuak ez ahaztutzeko: *"Bertso berri batzubek, / konsola gaitezen, / oraiñ jarri ditugu / oker edo zuzen; / pasatako kontuba / errez da aztutzen / paperian ez bada / ongi apuntatzen"*[374]. Eta baita gertatuak zabaltzeko ere: *"Esplikatu bear det / ekusi dedana, / isillik eziñ egon, / au da gure lana; / Pasaiarako beti / bada zer esana: / irugarren balkoyian / daukate zezena"*[375].

Bertso berriak batzutan enkarguz ere egiten dituela adieraziko digu: *"Gure txalupe subiyeta da (sic) / jabiak nai du armatu, / joan dan urtian Atxularrek du / auziya bereganatu; / amasei bertso Ondarrabiyan / orra euskeraz paratu, / obligatuta esanak dira, / ez iñor inkomodatu"*[376].

Bertso berrien inguruko gogoetarik ere egiten du, haien berritasuna eta zaharrarekiko lotura azpimarratuz: *"Pasaiako jendia / ez da biarrian, / funtziyo onak egiñez / dago indarrian; / ekusi degunian / festak nola dian, / orra bertso berriyak / zortziko zarrian"*[377].

Merezi luke Xenpelarrek bertsolari izatea eta bertsopaperak nola ulertzen zituenaz azterketa egiteak. Hau ere, beste baterako utziko dugu.

# 2. Indalezio Bizkarrondo Ureña, Bilintx (Donostia, 1831-1876): gorpuztutako maitasun erromantikoa paradisu

Indalezio Bizkarrondo Ureña, Bilintx, Donostian jaio zen 1831. urtean eta bertan hil zen 1876an, bigarren Gerrate Karlistaren baitan, granada bat etxera sartu, zauritu, eta handik hilabete batzutara. Donostiako alde zaharrean bizi zen: arotza izan zen Arsuagarenean lehenengo eta Donostiako Teatro Zaharrean atezain, gero.

[373] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 273. or.
[374] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 140. or.
[375] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 142. or.
[376] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 207. or.
[377] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 140. or.

Maitasun bertsoak –ikuspegi eta hiztegi erlijiosoa erabiliz eginak- eta sozial gaiari lotutako baten batzuk iritsi zaizkigu. Bidean, segur aski, guk nahi baino gehiago galduko ziren. Liberalen bolondresen batailoietan izena eman eta parte hartu zuen Donostian. Bere izenez izenpetutako politika gaiko bertsorik ez zaigu iritsi.

## 2.1. Bilintx: nor zela esaten dute?

Bilintxen berri Antonio Zavalaren eskutik jasoko dugu guk gure lanerako[378]. Lehenago argitaratuak ere badira, jakina[379].

Bertsolaritza aztertzen duten klasikoen artean, Manuel Lekuonak Bilintx aipatzen du bere lanetan[380]. Bere *Literatura Oral Vascan* aipatu ere aipatzen du, baina oker ez bagaude, behin besterik ez[381].

Antonio Zavalak berriz, bere *Bosquejo de historia del bersolarismo*[382] lanean, oso gauza interesgarriak esaten dizkigu Bilintxi[383] buruz. Poetatzat azaltzen du lehendabiziko paragrafotik hasita, Donostiako poeta hoberentzat. Bertsopaper egile bezala ere aurkezten digu, lan honetan Xenpelarrekin parekatuz. Manterolaren hitzak ere ekartzen ditu berera, Bilintxek bere lanei buruz zuen iritzia jasoz:

> *"Allá por los años 1870 al 1871, solicité [Manterola ari da hizketan] de él [Bilintxi] con mucho empeño su colección completa con el propósito de darla a la estampa, pero poseído Vilinch de su eterna manía de que nada valían, como escritas –decía él- en sus ratos de melancolía y con el único fin de endulzar sus pesares, se opuso a la idea de que fueran publicadas.*
>
> *El escaso valor que la modestia de Vilinch concedía a sus producciones ha sido causa de que ni aun conservara los originales de muchas de ellas, que rasgaba apenas escritas, e indudablemente son muchas las que se han perdido para siempre"*[384].

---

[378] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*. Oiartzun: Sendoa, 1993.

[379] *Euskal Esnaleak*-ek 1911an argitaratu zuen liburua. Makazagak, berriz, 1931-1932an. Eta Antonio Zavalak berak, 1962an eta 1978an ere argitaratu zituen Bilintxi buruzko liburuak: lehenengoa, Auspoa bilduman, eta bigarrena, Aurrezki Kutxa Munizipalarekin. 1978an ere argitaratu zen Bilintxi buruzko honako liburua: AAAA: *A los 100 años de su muerte. Bilintx (1831-1876). Conferencias y concursos literarios.* Donostia: CAM, 1978.

[380] Ikus LEKUONA, M.: "La poesía popular vasca". In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura*. Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978. 231.-232. or. Hor baino askoz ere zabalago, arestian aipatutako "Bilintx eta Xenpelar" hitzaldian, op. cit.

[381] Ikus LEKUONA, M.: "Literatura oral vasca". In: *Idazlan guztiak,* op. cit., 312. or. Zaldi zuriaren bertsoak aipatzen ditu bertan, 9 puntuko bertsoen adibide gisa.

[382] Ikus ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op .cit., 73.-75. or.

[383] Vilinch idazten du Zavalak.

[384] Ikus ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op .cit., 73.-74. or.

Honetaz gainera, Antonio Zavalak Bilintxi buruz diosku hirietako eta baserrietako euskaldunek ulertu eta gustukoa zutela, bai kaletarrek, baita baserritarrek ere. Ezaugarri hau Otañoren bertsoena ere badela esaten digu Antonio Zavalak. Bilintxen lanak Auspoan argitaratzearekin batera, Bilintx bapateko bertsolaria zen edo ez zalantza sortu zela esaten digu Zavalak. Baiezkoaren aldeko frogak aurkezten dizkigu *Bosquejo de historia del bersolarismo* lanaren egileak: "Aspaldiyan Joxepa" Bilintxek berak osatutako bertsoak, eta garaikideek helarazitako kontakizunak. Zergatik ordea ez ditu Zavalaren hitzetan herriak Bilintxen bertso gehiago memorian gorde?

> *"Ciertamente, Vilinch pudo haber sido un mediano bersolari improvisador, al tiempo que era un maravilloso bersolari escritor. Y de hecho, le había tocado vivir y lanzar sus estrofas improvisadas en un lugar donde por su doble condición de ciudad, y ciudad que pronto cambiaría de idioma, era el más indicado para que ninguna de ellas se conservara"*[385].

Iparragirreren ondoren, Aita Santi Onaindiak bertsolari eskolatuen artean aipatzen duen bigarren bertsolaria da Bilintx[386]. Esanguratsua da bertsolari honi buruzko atala Max Jakob olerkaria eta Picasso margolaria aipatuz hasten duela Onaindiak. XIX. mendeko Donostian Esterlines kalean omen zegoen *Café Orientalen* ibiltzen omen zen Bilintx, beste olerkari batzuekin bilduz eta hauei esker, hainbat erreferentzia literarioren jabe egin eta hainbat lan irakurriz.

Aita Santi Onaindiak Bilintxen euskalduntasunaren defentsa egiten du bere lanean. "Atzerritar" eraginak baditu, baina berezko dohainez eta euskaraz egiten ditu bertsoak Bilintxek:

> *"Guztioengandik [aurreko paragrafoan aipatuak ditu Onaindiak Benito Jamar, Becker, Campoamor, Heine, etab.], beraz, zerbait ikasiko eban Bilintx'ek, naizta zer andirik ez. Berez zan Bilintx bersolari. Aurretiko bertso zarrak eta garaiko neurtitzak irakurrita eukazan, ba-ekizan olerti-legeak, ba-ekian zelan gauzak eder azaldu. Eta, olerkari arrotz orrein zerbait ikasi arren, Bilintx'ek bere-berea dau idatzi eban guztia. Becker'ek eta gure Bilintx'ek gai berbera abestuta be, Becker'ek eta Heine'k euren artean antzik ba'dabe be, arein eta Bilintx'en artean eztogu olakorik sumatzen. Txoriak zer gitxi ikasten ei dabe bata besteagandik, bakotxak dau bere kantaera; Bilintx'ek erabat kantaera gozoa, gogoak emon oi eutsona errez ta gizonki abesteko. Maite-miña, ostera, beste biak baiño be bizi giartsuago adierazten dausku; ez dabil iñoiz inguru-minguru; ez lizunkoi: gura dauana diño, beti euskaldun.*

[385] Ikus ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op .cit., 75. or.
[386] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 229.-231. or.

> *Auxe, izan be, Bilintx'en bereizgarririk aintzatsuena, euskalduntasuna. Euskeraz pentsatu ta euskera mintzatu, or aren neurtitzen doairik urtenena"*[387].

1862. urtean Donostiako *El Guipuzcoano*n argitaratutako bertsoen berri ematen digu Onaindiak. Garrantzitsua da kontuan izatea Bilintxen lanak egunkarietan izan zuen zabalpena, eta modu honetan, beste jendaurre batean izan zezakeen zabalkundea.

Bilintxen bapateko bertsolari izateko gaitasunari buruz, Antonio Zavalak aipaturiko argudio berberak ekarriko ditu argitara Aita Santi Onaindiak.

Juan Mari Lekuonak berriz, hona zer esaten digun Bilintxi buruz: *"Bilintxek markarri bat jartzen du maitasun-kantuetan, usariozko tematika harrotuz, hizkuntza berri bat sortuz gai hauen arloan, eta bertsogintzarako teknika berriak ekarriz"*. Eta pixka bat aurrerago: *"…garbi usma daitezke bertsolari donostiarraren zenbait ezaugarri: maitasun gaia, era tradizionalean emana, hizkuntza poetikoa oso landua, errimetan, bertso-erritmoan eta esaldietan herri-teknika arragotua erabiltzen dakiena"*[388].

Joanito Dorronsorok "Bilintx –Iparragirreren garaia" izeneko kapitulua du bere *Bertsotan. 1789-1936* liburuan[389]. Bilintxen biografia laburra eta bere bertso zenbait jasotzen ditu bertan, kasu honetan ia-guztiak bertsopaperak. *Bidegileak* sailean ere Antton Aranburuk idatzi zuen Bilintxi buruzko liburuxka[390].

Hauek jaso ondoren, zer azpimarratuko genuke gure lanari begira? Hainbat izango dira ondorengo lerroetan aipatuko ditugunak.

Manuel Lekuonak gehiegitan aipatu ez arren, gainerako bertsolaritzaren historialariek kontuan hartu eta loriatu duten bertsolaria dugu Bilintx. Gure lanerako ere kontuan hartzeko modukoa beraz.

Poeta edo bertsolaria ote zen, edo biak, hortxe dugu nabarmendu nahiko genuken beste aspektu bat. Zavalak, Onaindiak eta Joan Mari Lekuonak, hirurek, poeta gisa izendatzen dute, baina aldi berean, lehenengo biek behintzat nabarmen, bere bertsolari izaera ere erreibindikatzen dute. Zavalak, bere bapateko jardunerako ahalmena eta Onaindiak bere bertsoetarako berezkotasuna. Kontrajarritzat ote

---

[387] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 229.-230. or.
[388] Ikus LEKUONA, J. M.: *Ahozko euskal literatura,* op. cit., 98. orrialdea.
[389] DORRONSORO, J.: *Bertsotan. 1789-1936*, op. cit. 127.-149. or.
[390] ARANBURU, Antton: *Indalezio Bizkarrondo Bilintx. 1831-1876.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2010.

dituzte bertsolaritza eta poesia? Eta areago, Onaindiak Bilintxen euskaltasunaren defentsa ere egingo du: "atzerritar" poetak irakurtzen omen zituen eta hauen eragina omen zuen, bai, baina hala eta guztiz ere, berezko dohaina zuen eta euskaraz egiten zituen bertsoak. Gaztelaniaz poesia irakurtzeak eta poeta erdaldunekin elkartzeak zalantzan jartzen ote zuen Bilintxen euskalduntasuna? Bilintxen garaikideak ziren horrela pentsatzen zutenak edota Aita Santi Onaindia bera? Antzeko galdera datorkigu burura Aita Santi Onaindia Bilintxen maitasun bertsoez mintzo zaigunean eta "gizonki", "ez inguru-minguru" eta "ez lizunkoi" zela azpimarratzen duenean.

Joan Mari Lekuona Bilintxen maitasun bertsoetaz ari denean ordea, gure iritzirako behintzat, kontraesanean erortzen da: batetik, "usariozko tematika harrotu" egiten duela esaten digu eta bestetik berriz, "maitasun gaia, era tradizionalean emana" dakarkigula. Gu konformego gaude lehenengo baieztapenarekin bigarrenarekin baino.

Zavalak Manterolaren hitzak errekuperatuz dioena ere azpimarratu nahi dugu: Bilintx ez zegoela bere bertsoez harro, eta askotan puskatu egiten zituela. Gehienetan beraz ez zituen publikoan agertzeko egiten, bestela baizik, bere barrua hustutzeko.

Zavalak Donostiarekin lotzen du Bilintx. Hau ere interesgarri gertatzen zaigu. Izan ere, modernizazio prozesuen aniztasuna aztertu ahal izateko beharrezkoa zaigu Gipuzkoan dauden kokagune ezberdinetako testiguak izatea. Zavalak ordea, bide batez, Donostiarekiko bere ikuspegia ere emango digu. Bilintxek bapateko bertsoak egiten zituen edo ez eztabaidaz ari dela, Bilintxen bapateko bertsoak guganaino iritsi ez izanaren arrazoien artean ipintzen du hura Donostian bizi zela eta hau "ciudad que pronto cambiará de idioma" dela. Beraz hiria, eta kasu honetan Donostia, gaztelaniaren kokagune gisa ikusiko du Zavalak eta erdi-izkutuan bada ere, Bilintxen bertsoak memorian jaso ez izanaren errua egotziko dio[391].

Eta azkenik, Zavalak adieraziko digunez, Bilintx hirietako eta baserrietako euskaldunek gustuko zuten. Desberdinak al ziren hirietako eta baserrietako euskaldunak? Zertan? Zertan ziren diferenteak beren gustuak bertso eta bertsolariei zegokienez? Zavalak zergatik egiten du bereizketa hau: soziologikoki bereiziak ageri ziren bi errealitate zirelako edota Zavalak berak aplikatutako sailkapen bat zen

[391] Aurrerago ikusiko dugun bezala, Antonio Zavala ez da Donostiaren ikuspegi negatiboa izango duen euskalzale bakarra. Bera baino lehenago, izan ziren batzuk.

hura? Zeintzuk osatzen zuten herria? Bi alderdiek? Batak besteak baino gehiago? Hirugarren atal honen bukaerarako utziko dugu honi buruzko gogoeta.

Joan Mari Lekuonak esandakoetatik, bi apunte: hizkuntza berria sortu zuela esan digu. Nahiz eta hasieran esan dugun bertsolaritzaren alderdi tekniko eta literarioei ez diegula gure lanean garrantzi handirik eman, hau bai iruditzen zaigu kontuan hartzekoa. Aurrerago ikusiko badugu ere, Bilintxek erlijioari lotutako terminologia maitasun kontuetaz hitz egiteko erabiliko du. Sekularizazio ezaugarri bat ote?

Eta azkenik, Joan Mari Lekuonak Bilintxek "herri-teknika arragotua" erabiliko duela esango digu. Hemen dugu "herri" hitza berriro ere presente. Maitasun gaiak abesten ditu Bilintx poetak baina bertsolaritzari lotutako teknika erabiliz eta hobetuz, arragoatik pasaz. Maitasunari bertsoak jarriz, "herriari" gai berri bat hurbilduko dio, edo errealitate bati begiratzeko modu berri bat, eta aldi berean, bertsolaritza bera eraldatuko du.

## 2.2 Bilintxen bizitza[392]

Indalezio Bizkarrondo Ureña, Bilintx, 1831ko apirilaren 30ean jaio zen Donostian. Aitaren aldeko jatorria, Tolosaldekoa zuen. Aita, Jose, Tolosakoa zen. Aitaren aita, aitona Rafael, Berastegikoa, eta aitaren ama, amona Juana Bautista edo Maria Bautista, Tolosakoa. Amaren aldeko jatorria, berriz, urrunagokoa zen. Amaren aita, Dionisio Ureña, Huelvako Ayamontekoa zen. Andaluza, beraz. Dionisio Ureña hau hirutan ezkondu zen –lehen bi emazteak hil egin baitziren-. Hirugarren emaztearekin –Maria Josefa Alanarekin- izandako Joakina Santos Ureña alaba izango zen Bilintxen ama.

Bilintxen gurasoak, Jose Bizkarrondo eta Joakina Ureña, 1819ko ekainaren 25ean ezkondu ziren San Bizente elizan. Bost seme-alaba izan zituzten: Jose Ramon (1820-IV-16), Teresa Martina (1821-IX-5), Josefa Ilaria Petra (1825-IX-17), Josefa Frantziska (1827-IX-25), eta Gillermo Joakin Indalezio (1831-IV-30) –azken hau dugu Bilintx-. Bilintxek ez zuen aitona andaluza ezagutu (1830eko uztailaren 20an hil baitzen). Txikitan izandako ezbehar batean aurpegia desitxuratu omen zitzaion Bilintxi.

Bilintx, 38 urte zituela, 1869ko apirilaren 5ean ezkondu zen Nikolasa Erkizia Makazaga azpeitiar[393] neska gaztearekin -22 urte zituen honek orduan-. Baionara

[392] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 11-129. or.
[393] Zizurkilgo Pagamendi baserrian hazia zen.

joan ziren ezkonbidaian. Hiru seme-alaba izan zituzten: Benito (1870-I-12), Pio Frantzisko (1871-VII-11), eta Maria Ana Ilaria (1874-VII-26).

Bizibidez arotza zen. Lehendabizi, Arsuaga aroztegian. Domingo Kanpaña eta Erramun Mokorekin aritzen zen, besteak beste, lanean. Teatro Zaharreko atezain ere izan zen hamaika urtez –hil arte-. Mantentze lanez arduratzen zen, baita argiztapen lanez ere. Dendatxo bat ere jarri zuten gero andreak eta biek Teatroan bertan. Liburuxkak, egunkariak eta edariak ere saltzen omen zituzten. Bilintx hil eta gero, bere alargunak[394] Teatroaren aurrez aurre estankoa izan omen zuen.

Donostiako alde zaharrean bizi izan zen bizitza guztian Bilintx. Kaletar peto-petoa zen beraz. Teatroan lanean hasi zenetik, atezainarentzat bertan zegoen bizilekuan bizi izan omen zen Bilintx bere familiarekin. Donostia eta inguruko sagardotegietan maiz ibiltzen omen zen eta baita Donostiako hirian zeuden langileak biltzen ziren bestelako elkartetan ere. Donostian bizi zen artesau langilea genuen, beraz, Bilintx[395]. Karta jokoa ere gustokoa omen zuen: ez hainbeste dirua jokatzen zelako, jokoaren norgehiagoka zen gehien atsegin zuena.

Antonio Zavalak dioenaren arabera, *La Correspondencia de España* egunkarirako berri emaile ere ba omen zen Bilintx. Dena den, bertan agertzen diren berriak ez daude sinatuta eta ezin jakin ziurtasun osoz Bilintxek idatziak zeintzuk ziren. Bigarren Gerrate Karlistak Donostia eta Gipuzkoan zituen gorabeheren berri ematea zen bere lana.

Zavalak jasotzen duenaren arabera, eta Jose Manterolak esanak jasoz: "*Vilinch conocía y hablaba bien la lengua castellana y era aficionado a la lectura de los buenos poetas. Campoamor, Trueba y Aguilera, cuyos escritos saboreaba a menudo, eran sus poetas favoritos*"[396].

1876ko urtarrilaren 20an, etxean arropa aldatzen ari zela karlistek botatako granada bat leihotik sartu zitzaion eta bi hankak zauritu zizkion. Hanka bat moztu egin behar izan zioten. Sei hilabete egin zituen Bilintxek ezin bizirik: gangrena sartu

[394] Antonio Zavalak jasotzen du argibide kuriosoa: 1872ko erroldaren arabera, Bilintxen alargun zen Nikolasak ez omen zekien ez irakurri eta ez idazten. 1882ko erroldaren arabera, berriz, biak egiten ikasia omen zen.

[395] Antonio Zavalak pasarte bat baino gehiago jasotzen du Bilintxen lan kontuez: ez omen zuen aitzaki gehiegi behar lanera berandu iritsi edo tarteka ez joateko ere.

[396] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 57. or. Idazle nafar baten arabera, Bilintxek Becquer ere irakurtzen zuen, eta Pedro Mourlane Mitxelenaren arabera, bidaiei buruzko liburuak ere asko gustatzen omen zitzaizkion Bilintxi.

zitzaion eta burua ere galtzen omen zuen tarteka. 1876ko uztailaren 22an hil zen, testamenturik egin gabe.

Hiri liberalean bizi zen artesau langilea zen, beraz, Bilintx. Kaletarra, ez baserritarra, aztertu ditugun bertsolarien artean, familia nuklear eredutik hurbilen genuena. Ikasienetakoa ere bai. Nahiz eta aztertutako bertsolarien artean zaharrena bera izan, lehenengo bera jaio, ikuspegirik aurrerakoienetakoa izango zuen. Doktorego tesi honen laugarren atalean ikusi ahal izango dugu hau polikiago.

## 2.3.Bilintxen bertso produkzioa

Bilintxen bertso produkzioan jarritako bertso sailak dira nagusi. Antonio Zavalaren Auspoaren Sail Nagusiko argitalpena kontuan hartuz, jarritako 38 bertso sail aztertu ditugu, 253 orrialde betetzen dituztenak. Bilintxen bizitzako pasadizo eta abarri lotuta, 24 pasarte ditugu, 115 orrialde betetzen dituztenak[397]. 62 esanahi unitate eta 368 orrialde guztira.

Bilintxen bertso sailen esanahiari buruz, natura edo medioaz bertso sail bakarra, 22 demografia eta familia gaiez (maitasunari buruzkoak hemen sartu ditugu), 8 alderdi ekonomikoei dagozkienak (alderdi sozioekonomikoak aipatuz), 7 gizarteari lotuak, 2 politika gaiei lotuak eta 2 mentalitateei buruzkoak. Argi dago gai nagusiak zeintzuk diren[398]. Hitz kopuruari bagagozkio, 15.050 ditugu[399].

Bilintxen bertsoen lehenengo irakurketa egin genuenean gauza jakinak etorri zitzaizkigun gogora: maitasunaz eta emakumeei kantatu zizkiela batez ere bertsoak Bilintxek. Beste bertsolariren batekin parekotasunik bazuen ere –Xenpelarren betroia eta Bilintxen zaldi zuria ez ote neurri batean adiskide, bata baserrikoa eta bestea kaletarra izanik ere?-, ezberdintasunak ere nabari ziren: erabiltzen zuen hizkuntza eta hiztegian batez ere, baita maitasuna ulertzeko moduan ere –kontzeptu erlijiosoak erabiltzen zituen; kultura klasikoari lotutakoak ere bai: Bako, Venus, Cupido, etab. aipatzen zituen; gaztelaniazko itzulpenak ere bazituen, epigramak ere bai -. Hala ere, hasiera hartan, ez genuen oso garbi ikusten non eta nola kokatu Bilintxen diskurtsoa Gipuzkoaren modernizazioaren prozesuaren baitan. Laugarren atalean izango du irakurleak egindako interpretazio lanaren berri.

---

[397] Ikus 1. Eranskina.
[398] Ikus "Iturriak eta metodologia" atal nagusiko 1.3. puntuan dagoen 1. koadroa.
[399] Ikus atal berean, 2. koadroa.

Bilintxen bertso produkzioan ezberdintasun sozialei buruz ari ziren bertsoak gustura hartu genituen. Faltan bota genituen, berriz, bertso politikoak. Bigarren Gerrate Karlistaren garaian, bertso asko argitaratu ziren, baina egilearen izenik gabe. Antonio Zavalak dioenez, badirudi Bilintxek liberalen alde, foruen alde eta karlisten kontra bertsorik idatziko zuela baina ez bere izenez sinatu. Ondorioz, ez dakigu berak gai politikoaz idatzitako bertsoak –idatzi bazituen- zeintzuk diren. Isiltasunaren aurrean, hobe asmatzen hasi baino, errespetua[400].

Bilintxek, bere bertsoetan gogoeta espliziturik egiten ote zuen bertsolari lanaz? Ez dugu, egia esan, gauza handirik aurkitu. Hona, adibide txiki bat: "*Kantatutzera indar aundiko / desio batek narama, / Kontzezi, zuri nai dizut eman / mereziya dezun fama; / gure probintzi Gipuzkoakoan / igualik gabeko dama, / berinkatuba izan derilla / zu egin zinduben ama*"[401]. Bilintxek, beraz, barne indar eta gogoak bultzatuta egiten ditu bertsoak. Ez inork horrelako enkargurik ematen diolako, ez jendea eskarmentatzeko[402], ezta jendeak ongi pasa dezan ere, ez ideia erlijiosoak zabaltzeko. Bere barrua husteko baizik, emakumeak goraipatzeko eta maite dituela esateko –bertsoak ematen atrebitzen bazen, behintzat-. Neurri batean bertsolari "atipiko" ote? Edota bertsolari izateko beste modu bat, gizabanakoari eta indibiduoari eta honen nahiei toki gehiago egiten ziona? Landatar eremutik urrutiago jaioa zenez gero, ez zituen agian bertsolaritzaren alderdi komunitarioak hainbeste landu. Eta 1876an hil zenez gero, XIX. mendean garatu ziren bertsolaritzaren beste funtzio eta alderdi batzuk ez zituen ezagutu. Baina ezin ukatu bere ekarpena, eta ez txikia, egin zuela Bilintxek.

Bukatzeko, Xenpelarrek gaztelaniazko hitzak erabiltzen zituela esan dugun bezala, horra, nola donostiarrak, frantsesaren eragina jasotzen zuen: "*Loreziyo kaleko / kantoi-kantoyian / anai-arrebak ziran / elkartu batian; / arrebak igarririk / zeukala ark dirua, / eskatzia zitzaion / etorri burua: / esan ziyon franzesez: / <Donemua le archan!> / <Ua nire boltsara / eta andik artzan!>*"[403]. Neurri batean, beste mundu bat zen Bilintxek erakusten zigun hura.

[400] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 65.-66. or.
[401] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.
[402] Nahiz eta "Potajiarena" bertsoetan era honetako aipamen bat egiten duen Bilintxek. Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 195. or.
[403] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.

# 3. Pedro Elizegi Maiz, Pello Errota (Asteasu, 1840-1919): eguneroko bizitzaren nonahikotasuna Erniopean

Pedro Elizegi Maiz, Pello Errota bezala ezaguna, Asteasun jaio zen 1840. urtean eta bertan hil zen 1919an. Izengoitiak dioen bezala, errotaria zen. Ernio inguruko munduaren adierazle ote Pello Errota? Txirritarekin batera, bertsolaritzak XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran izandako garapena ezagutu zuen Pello Errotak, eta aprobetxatu ere bai, bizibide bezala.

Ohar metodologiko bat ere egin behar dugu atal honen hasieran: gure azterketa egiterakoan, sei bertsolarien artean lehenengo Pello Errotarengana hurbildu ginen. Antonio Zavalak ere, Pello Errotaren alaba Mikaela Elizegiri esker, Pello Errotaren bizitzari buruzko datu ugari bilduak zituen eta gu gure lanerako horiek jasotzen ahalegindu ginen. Bertsolariei buruz idatzi genuen lehen zatia ere hauxe izan genuen. Garai hartan, doktorego tesia idazten hasi ginen une hartan, guztia zehaztasun handienaz jasotzen saiatu ginen, gure lanaren helburua, Pello Errotaren bizitza eta inguruan sakontzea balitz bezala. Atal hau orduan idatzi bezala mantendu dugu ia: Donostiako Elizbarrutiko Agiritegiko bilaketen berri jaso dugu, bibliografia zabalagoa landu genuen Pello Errotari buruz eta hura ere jaso dugu. Egindako bideak erakutsi digu, a posteriori, bertsolari bakoitzari buruzko erabateko ezagutza ez zela beharrezkoa gure lanaren helburu nagusia iristeko. Hala ere, ikasitakoaren erakusle edo, halatsu utzi dugu orduan egin genuen lana.

## 3.1. Pello Errota: nor zela esaten dute?

Zalantzarik gabe, informazio iturri nagusia, Antonio Zavalaren Auspoa bilduman aurkituko dugu. 1963. urtean bertan argitaratu zituen *Pello Errotak jarritako bertsoak bere alabaren argibideakin*[404] eta *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*[405]. 1965ean berriz, *Pello Errotaren itzala: Pello ta bere senide ta ondorengoen bertso-bilduma*[406] liburua kaleratu zuen. Hiru liburu hauek bakarrean, modu osatuan, honako izenburupean argitaratu zituen ondoren: *Pello Errota. Pedro*

[404] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errotak jarritako bertsoak bere alabaren argibideakin.* Tolosa: Auspoa, 1963.
[405] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua.* Tolosa: Auspoa, 1963.
[406] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errotaren itzala. (Pello ta bere senide ta ondorengoen bertso bilduma).* Tolosa: Auspoa, 1965.

*Elizegi Maiz (1840-1919)*[407]. Azken hau izan dugu guk oinarri gure lanean, bai Pello Errotaren bizitzaren berri jasotzeko, bai eta bertsoen azterketarako ere.

Lan hauei esker, Pello Errotaren bizitza eta bertsoak jaso ahal izan ditugu. Baina bilketa lan honetaz gain, zenbaterainokoak dira Pello Errota eta bere bertsogintzari buruzko azterketa lanak?

Has gaitezen bertsolaritzaren historia jasotzen duten liburuetako aipamenekin. Manuel Lekuonak, adibidez, bere *La poesía popular vasca* lanean, Pello Errotari buruz honela dio, bertsolarien arteko lehiaz ari dela: *"y éste como punzante y de razones un poco demasiado cortantes* arrazoi motzak *que dirían en su tecnicismo los entendidos"*. [408] Orrialde berean, bertsolari hau, beste batzuekin batera, sinestun praktikantearen adibidetzat ipintzen du. *Literatura oral vasca* lanean ere (1935ean lehenengoz argitaratua, 1964an bigarrenez) birritan aipatzen du[409].

Antonio Zavalak, bere *Bosquejo de historia del bersolarismo* lanean[410] bi orrialde eskaintzen dizkio Pello Errotari. Hona bertatik azpimarratu nahiko genituzkenak. Antonio Zavalaren iritziz, Pello Errota bertsolari ospetsu eta gogoratuenen artean aurkitzen da. Errotaria zela esaten digu eta bertsolaritzaren bitartez, urriak zituen diru-sarrerak osatzen saiatzen zela. Ofizioko bertsolaria omen zen. Garaiko bertsolari "aktiboentzat" jotzen du Zavalak, egunkari eta aldizkari askotan azaltzen omen zen bere izena. Askoren iritziz, hain inprobisazio azkarreko eta ironia zorrotzeko bertsolari gutxi izan omen dira. Giza balioz jantzitako gizon xelebrea omen zen. Bai plazetan, bai bertsopaperetan bertso ugari osatutakoa. Mikaela, bere alabari ere egiten dio erreferentzia Antonio Zavalak, baita garaitsu hartan *Auspoan* argitaratu zituen bi liburuei ere. Bertsolari dinastia bateko kide jotzen du Errota.

Aita Santi Onaindiak ere, kontuan izaten du Pello *Gure bertsolariak* lanean, eskolatu gabeko bertsolarien artean. Horretarako, G. Muxikak, *Destellos de Historia Vasca* lanean esandakoak jasotzen ditu:

---

[407] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919).* Tolosa: Auspoa, 1992.

[408] LECUONA, M.: "La poesía popular vasca", In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978, 228. or. 251, 256 eta 257. orrialdetan ere egiten zaio aipamena Pello Errota eta bere bertsoei.

[409] LECUONA, M.: "Literatura oral vasca", in: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978. 309-311, 323-324, 330, 332. orrialdetan, Pello Errota eta bere bertsoak adibide ipintzen ditu inprobisazio teknika, bertso norgehiagoka eta bertsolaritzaren historia ilustratzeko. Aipatu beharra dugu Manuel Lekuonak historian zehar izan diren bertsolari nagusien artean sartzen duela Pello Errota, Xenpelar, Otaño, eta Txirritarekin batera. Egia da, adibideak ematerakoan, Bilintxen bertsoak ere jasotzen dituela. Joxe Mari Lopetegiri buruz, guk dakigula, ez du ezer esaten.

[410] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo*, op. cit., 121.-122. or.

> *"Zein Udale'k ez eutson otsegin erriko jai nagusietan erritarrak alaitu egizan? Oltza jagi batean, aulkian jarrita, belaun gaiñean txapela ta aiztomuturrez egokiro landuriko makilla eskuan, edo-ta zuti, erriko kale nagusiren bateko balkoian, txapela begietaraiño sarturik, nok eztau ordu luzeetan bertsoka ikusi bere alboan ezarritako edo beste balkoi baten aurrez aurre daukazan bertsolariakaz? Bere antzeko zer maltzurrak zitun batzuetan arerio, aurkako, bi ta bi zenbat ziran ekienak; beste batzuetan, bertsolari gazteakin leiatu bearra izaten eban. Baiña zar nai gazte, ziranak zirala, Pello Errota'k beti bereganatzen eban erria"*[411].

Honetaz gainera, Pello Errotaren hainbat bertso eta bizitzako pasarte jasotzen ditu Aita Santi Onaindiak bere liburuan.

Juan Mari Lekuonak, Pello Errota Pizkunde-aurre urrunean (1876-1910) kokatzen du, bai bapatekoak, bai bertso idatziak eginez, eskolatu gabeen artean. Ez du zehaztasun handiagorik ematen[412].

Joanito Dorronsorok "Pello Errotaren garaia. Bapateko bertsoak" kapitulua osatua du. Bapateko bertsoak eta bertso paperak bereizten ditu atal honetan eta bertan, Pello Errotaz gain, otañotarrek eta Udarregik ere toki berezia dute. Pello Errotaren bizitzaren berri laburki eman eta gehienbat Pelloren bertsoak jasotzen ditu, kasu honetan bat-batean hainbat bertsolarirekin bertsotan ari zela botatakoak. Hona nola deskribatzen duen Dorronsorok Pello Errota:

> *"Gizon txikia, izugarri bizkor eta bizia; azkar pentsatu eta azkar kantatu, bertso lanean plazan asko luzitzen zuena. Umore eta irria beti ezpainetan, ziria eta eztena bazuen, beste inork adina. Orduko bertsolari guztiekin kantatu zuen, herriz herri, festaz festa, txapelketa, desafioak… dei asko izaten zuen eta sekula ez zuen atzera egin ez kantu lanean eta ez bertso paperak ateratzen. Bizibidez zen bertsolari, horrela etxera behar zuen diru laguntza eramanez. Azpeitiko Euskal Festetako sariaren eta beste askoren irabazle. Hain popularra egin zen, non 1895. urtean amerikano batzuek joanetorri osoa ordainduta Arjentinara eraman zuten hango euskaldunei bertso kantatzera. 78 urterekin hil zen, bere errotan. Euskaldunon oroimenetik ez da borratuko Pello argiaren irudi sinpatikoa"*[413].

Aipamen hutsetatik haratago, goazen orain gai nagusitzat Pello Errota duten hitzaldi, artikulu eta idatzi laburren berri ematera. Aita Zavalak berak, *Auspoaren auspoa II (itzaldiak/conferencias)* liburuan, hitzaldi bat jasoa dauka Pello Errotaren inguruan. Hainbat gauza jakingarri aurkitu ditugu bertan, gure lanerako argigarri

---

[411] MUJIKA, G.: "Destellos de Historia Vasca", *II, 35. or.* In: ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak.* Bilbao: Karmel, 1964. 272. or. Nola ulertu behar genuke hemen "herria" kontzeptua?

[412] LEKUONA, Juan Mari: *Ahozko euskal literatura*, op. cit., 99. or.

[413] DORRONSORO, Joanito: *Bertsotan. 1789-1936*, op. cit. 169. or.

izan zaizkigunak[414]. Hitzaldi honetan Antonio Zavalak hainbat xehetasun eman zizkigun Pello Errotaren bizitza eta bertsoak nola jaso zituen adieraziz, eta honetarako Pelloren alaba Mikaelak emandako laguntza eskertuz. Liburu honetan bertan jaso ahal izan ditugu, Antonio Zavalak berak, Pello Errotaren liburuaren inguruan, hura argitaratu zenean, jasotako iritziak. Gabriel Arestik *"Liburu ori nobela-sariketaren batera aurkeztuko balute, eta ni epai-maieko banintz, nik berari emango nioke saria"*[415] esana omen zuen eta Donostiako Antonio Valverdek berriz *"Emeretzigarren mendeko Euskal-Erria ortxe dago pelikula batean bezela"*[416]. Orain artean agertutakoak, aldekoak dira, baina dirudienez, Pello Errotaren iloba, ez zen gehiegi poztu Antonio Zavalak bere aitonari buruzko liburua argitaratu zuenean. Pasadizoa gertatua omen da Pello Errotaren iloba, Antonio Zavala eta Mikaelaren beraren artean. Dirudienez, iloba haserretu egin zen, Antonio Zavalak argitaratutako liburuan aitona *"zan baiño bajuago utzi zuala"* esanez[417]. Antoniok berriz, ezetz, pobreak denak zirela orduan. Mikaela berak ere kontuak eskatu omen zizkion ilobari, "pobre orgullosua" deituz bertso batean.

Andoni Egañak hitzaldia eman zuen Pello Errotari buruz Udako Euskal Unibertsitatean, 1994. urtean. *Bertsolari* aldizkarian jasoa dago hitzaldi haren berri[418]. Andoni Egañaren hitzetan, Pello Errota bizi izan zen garai hartan (1840-1919), bertsolaritzak indarra hartu zuen, aldi horretakoak baititugu Pello Errotaz gain, Xenpelar, Bilintx, Pedro Mª Otaño, eta Txirrita besteak beste. Egañaren ustez, *"Pello Errotak ez zuen bertso-paper ospetsu eta kategoriazkorik idatzi, Bilintx edo Xenpelar bertso sorta idatziengatik ezagunak egin diren gisan. Pello Errota, batez ere, bertsoetan pasadizoak kontatzeagatik ezaguna da"*[419]. Eta iturri beretik: *"Pello Errota, batez ere, bapateko jardunean, erantzun azkarrean izan da ezaguna. Hala ere, badauka bertso idatzirik. Ez zuen gai nabarmenik bertsopaperetan. Izan ere, Bilintxen maitasun gaietatik urrun eta, Xenpelar eta Pedro Mª Otañoren gizarte eta politika kezketatik urrun ibiliko da"*[420].

Egañak, honetaz aparte, Pello Errotak bertsolaritza ogibide zuela ere azpimarratuko du: *"Pello Errota ofizioz errotaria zen. Bere bizipideak bertsotarako beta uzten zion*

---

[414] ZAVALA, A.: "Pello Errotaren liburuaz zerbait. Asteasun, 1994ko maiatzaren 24an irakurritako idazlana". In: ZAVALA, A.: *Auspoaren auspoa II (itzaldiak/Conferencias).* Oiartzun: Sendoa, 1996. 176.-185.or.

[415] ZAVALA, A.: "Pello Errotaren liburuaz…", op. cit., 179.or.

[416] ZAVALA, A.: "Pello Errotaren liburuaz…", op. cit., 179. or.

[417] ZAVALA, A.: "Pello Errotaren liburuaz…", op. cit., 180.-181. or.

[418] ELLAKURIAGA, I.: "Klasikoak hurbilago UEU-ko ikastaroan". In: *Bertsolari* (1994), 40.-49.or.

[419] ELLAKURIAGA, I: "Klasikoak hurbilago UEU-ko ikastaroan", op. cit., 46. or.

[420] ELLAKURIAGA, I.: "Klasikoak hurbilago UEU-ko ikastaroan", op. cit., 46.or.

*eta zenbait kasutan bertsoetatik ere ateratzen zuen eguneroko ogia. Euskal Herri osoan zehar bertsotan ibilitakoa genuen"*[421].

Pello Errotaren bertsokera ere aztertuko du neurri batean Andoni Egañak. Gehienetan neurri txikiak erabiltzen zituela esango digu (osatu zituen bertsoen %70a neurri txikikoa dela esaten digu Egañak). Bere bertsokera "ezkerrekoa" dela ere esango digu, hau da, errimak baino, aurreko puntuetan kontatzen digunak duela garrantzi handiena. Honetaz gain, bertsoak euskara ulerterrezean egiten zituela eta garaian ohikoa zen bezala gaztelaniazko hitzak bere bertsoetan askotan txertatzen zituela esaten digu.

Badira aldizkari eta egunkarietan Pello Errotari erreferentzia egiten dioten artikuluak. Lehenengo eta behin, Aita Zavalak berak, Auspoaren sail nagusian 1992an argitaratutako lanean, "Iritzi batzuk" atala ipintzen du, 280-283. orrialdeen artean, Pello Errotari buruzko zenbait iritzi jasoz. Bertan, Gregorio Mujikak Argian 1925ean argitaratutako artikulua[422] eta 1979an Basarrik "Nere Bordatxotik" sailean argitaratuak azaltzen ditu[423]. Gregorio Mujikak Pello Errota ezagutu egin zuen eta haren deskribapena egiten digu artikuluan:

> *"Txikia zan. Buruan, beti txapela begietaraño sartuta.Eskuan, koskordun makilla zuri legundu bat. Ezapañetan par irria beti. Bai attona atsegiña uraxe.*
>
> *Ari emango zionik ez zan. Joxe Bernardo ta Gaztelu ta beste askok, makiña bat ziri sartu zioten bere bizi guzian: kaska zuria zala, errotari kaxkarra zala, neurriak ez zituala ondo betetzen, iriñaren ordez zaia ematen zuala... eta esan-ala guziak esaten zizkioten. Eta entzuleak, jakiña, algara ta algara Pello Errotaren lepotik.*
>
> *Bai, e? Pellok berak ere parre egiten zuan. Eta gero? Algarak ixiltzen ziranean, bera asi erantzuten, pixkor ta bizi, gogor ta zulatuaz. Azkenengo itzetan a zer zirikada zorrotza sartzen zion bera zulatu zuanari! Jendeak orduan, pozez txoratuta, izugarrizko txaloak jotzen zizkion asteasuarrai. Pello, beti parre antzean, an gelditzen zan ttentte-ttentte, guziai begira, "datorrela berriz" esanaz bezela"*[424].

Basarrik, berriz, ez zuen zuzenean Pello Errota ezagutu (Basarri 1913an jaio zen eta Pello Errota berriz, 1919an hil zen), baina Basarriren aitak bai. Hemen aipatzen dugun artikulu honetan, Basarriren aitak Pello Errotaz esaten zituenak jasotzen

---

[421] ELLAKURIAGA, I.: "Klasikoak hurbilago UEU-ko ikastaroan", op. cit., 46.or.
[422] MUJIKA, G.: "Gure bertsolariak". In: *Argia*, 1925-V-14. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 280. or.
[423] BASARRI: "Nere bordatxotik", 1979-XII-5. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 280.-283. or.
[424] MUJIKA, G: "Gure bertsolariak". In: *Argia*, 1925-V-14. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919),* op. cit. , 280. or.

ditu Iñaki Eizmendik. Pello Errotaren inguruan irudi ezberdinak zeudela adierazten digu Basarrik.

> *"Yo no llegué a conocer a Pello-Errota, pero mi difunto padre era un gran admirador suyo. Siempre salía en defensa del molinero de Asteasu, cuando los contertulios afirmaban que era de mal genio, agresivo, mal hablado.*
>
> *Mi padre alegaba que le obligaban a ello los demás bertsolaris, puesto que todos se metían con él atacándole sin tasa.*
>
> *Sus contraataques resultaron fulminantes, y eso era, precisamente, lo que quería el público"*[425].

Basarrik, bere artikuluan, Gregorio Mujikaren hitzak jasotzen ditu ondoren (lehen aipatu dudan *Argian* argitaratutakoen antzekoak). Hala ere, honako hauek jasotzea interesgarria dela iruditzen zaigu:

> *"Fuesen quienes fuesen los que contendían con él, Pello-Errota se quedaba siempre con el público.*
>
> *No importaba que estos versificadores experimentados pusieran ideas más sólidas o más profundas de conceptos en sus estrofas.*
>
> *Ni importaba tampoco que los jóvenes renovadores trajeran lenguaje más castizo y más respeto a las reglas de la versificación.*
>
> *Pello-Errota, con su gracia fácil, flexible, ligera y graciosa, dominaba pronto la situación y se colocaba en terreno apropiado para repeler cómodamente a todos los ataques"*[426].

Basarrik Gregorio Mujikaren ahoz jasotako haien arabera, beraz, badirudi Pello Errotak baino ideia sendo eta sakonagoak zituztela beste bertsolari batzuek, edo hizkuntza garbiagoa erabiltzen zutela eta bertsogintzaren arauak hobeto jarraitzen zituztela. Baina Pello Errotak ez zeukan parerik ziriei ziriz erantzuterako garaian.

> *"<¡Cuántos alfilerazos se le dirigieron para burlarse de su calva reluciente, de su figura menuda, de su afición a la bebida, de las componendas que se le atribuían en su oficio de molinero, de las artimañas que ponía en juego para hacer mentir a la báscula de su molino, de lo escuálido que andaba por esas carreteras el borrico con que distribuía las harinas bien mermadas de sus parroquianos!*
>
> *Esos ataques a Pello Errota solían ser la delicia de la muchedumbre.*

---

[425] BASARRI: *Nere Bordatxotik*, 1979-XII-5. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 280. or.

[426] BASARRI: *Nere Bordatxotik,* 1979-XII-5. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 282. or.

> *El público los acogía con deleite singular y esperaba con ansia la respuesta del viejo invencible, que recibía todas las ironías con satisfacción, como bondadoso abuelo que pone su mano extendida para que sirva de blanco a los proyectiles que el nieto lanza con su cañón de juguete.*
>
> *Nunca se le vió vacilar ni alterarse, ni jamás el ataque del contrario le borró de los labios la sonrisa>.*
>
> *Múgica, en oposición a lo que yo escuchaba de niño referente al carácter de Pello-Errota, le trata como a un bondadoso abuelo que recoge paternalmente las ironías de los demás bertsolaris, sin que los ataques de éstos consiguieran borrar nunca la sonrisa de sus labios"*[427].

Gregorio Mujika eta Basarriren artikuluez gain, kronologikoki bi hauen artean kokatua, 1964an, Antonio Zavalak Pello Errotaren liburuak lehenengoz argitaratu zituenean, Antonio Valverde, "Ayaldek", ere idatzi zuen Pello Errotari buruz *Diario Vasco*[428] egunkarian. Bertan, Pello Errotaren garaiari buruz hitz egiten zuen, baita bertso berriak jartzearen ohiturari buruz eta baita Pello Errotaren erlijiotasunaz ere. Orduan argitaratu zen liburuan ageri ziren gai nagusiak tratatu zituen beraz Ayaldek, ikusi ahal izango duzuen bezala, nostalgia punttu batez:

> *"De aquellas costumbres del siglo pasado ya poco o nada queda en nuestro país, de no ser algún vestigio que se mantenga aferrado tércamente en algún repliegue de la montaña, como al mediodía suelen perdurar aún jirones de la niebla mañanera. Fue aquella una época humilde, en la que las gentes emigraban masivamente a América, impelidos por el desastre de las guerras civiles y la consiguiente miseria del pueblo".*

Eta lerro batzuk aurrerago:

> *"Esto de los "versos nuevos" era una costumbre muy frecuente entonces. Aquellas personas ofendidas, engañadas o desengañadas por algún contratiempo amoroso o de cualquier otra índole, acudían al bersolari contándole sus cuitas y encargándole compusiera versos sobre ello, para que fueran después publicados, divulgados y, naturalmente, cantados por la gente. Era un sistema antiguo de publicidad vengativa".*

Eta azkenik:

> *"Respecto a la inmensa fe religiosa de aquella generación, basta leer los versos que Pello dedicó a la Virgen con motivo de sus visitas al Santuario de Aránzazu. Están impregnados de una ingenua y pura emoción mariana, digna de los cantares*

[427] BASARRI: *Nere Bordatxotik,* 1979-XII-5. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 282. or.

[428] VALVERDE, Antonio (Ayalde): "El tiempo de Pello Errota". In: *El Diario Vasco*, 1964ko maiatzak 13. Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Orotariko Artxiboa. OA/108/7. Artikulu honetatik jasoak dira hurrena agertzen diren hiru aipuak.

> *medioevales en loor de la Madre de Dios. A través de las anécdotas contadas por su hija, Pello Errota se nos presenta como una persona de natural inteligencia, inculta, pero con una categoría humana y cristiana de talla. Hombre que sabía perdonar ofensas, generoso con los pobres, que él ayudaba a los pordioseros*[429]*, a los gitanos, a todo el que se le acercara, sin reparar en su origen"*[430].

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi, Pello Errotak literatura idatziarekin izandako harremana. Bernardo Atxagak bere *Obabakoak* liburuaren kokalekutzat du Alkiza, Albiztur, Asteasu eta Zizurkil inguru hura[431]. Obabako munduaz hizketan ari dela, Mikaela Elizegi eta Pello Errotari egiten die besteak beste erreferentzia. Landa eremua, narrazio mitikoak oinarri zituena, aintzinakoa… bezalako izenak ematen dizkio Bernardok berak txikitan ezagutu zuen eta *Obabakoak* ipuin-bildumaren eskenatoki nagusi zen mundu hari. Nahiz eta zuzenean liburu honetan aipatu ez, dudarik ez dago Pello Errota eta Mikaela Elizegiren lanak presente izan zituela Bernardo Atxagak *Obabakoak* idazteko.

Hauek guztiak esan ondoren, zer azpimarratuko genuke? Joan Mari Lekuonak tarte handirik eskaintzen ez badio ere[432], gainerako guztiek aipatzen duten bertsolaria da Pello Errota. Guztiak bat datoz gainera azkar eta ironia zorrotzekoa zela esaterakoan eta gainerako bertsolariek zirikatu eta berak, erantzunetan, gaina hartzen ziela esaterakoan. Bertsolari izateko modu bat da hemen ageri dena, bertsolari "mota" zehatz bat, horrela esan badaiteke[433], umore eta ziri-bertsoei batez ere lotua. Bapateko bertsolaria izan zen batez ere Pello Errota, nahiz eta bertso idatzi batzuk ere egin zituen. Andoni Egañak esango digun bezala, bere kezken artean ez dira maitasun gaiak, gizarte eta politika kezkak izango, eta idatziko dituen bertsoak beraz, gai hauetatik urrun izango dira. Ez ote zituen Pello Errotak gai horiek kezka sorrarazteko moduan bizi, ala ez zituen behintzat horrela adierazten?

Gregorio Mujikak esandakoak oinarri hartuz, batek baino gehiagok deskribatu ere egiten digute Pello Errota. Zaharra ageri da, txikia, txapela buruan ongi sartua, ongi

---

[429] Pio Barojaren *Cuentos* laneko pertsonaiak gogorarazten dizkigu Ayaldek hemen. Ikus: BAROJA, Pio: *Cuentos.* Madrid: Alianza, 2006. Pio Baroja 1872an jaio eta 1956an hil zen. 1900an argitaratu omen zuen bere lehenengo liburua. Gogoratu Pello Errota 1840an jaio eta 1919an hil zela.

[430] Aurrez esan bezala, aipu hauek guztiak iturri honetatik hartuak dira: VALVERDE, A.: "El tiempo de Pello Errota". In: *El Diario Vasco,* 1964-V-13.

[431] ATXAGA, Bernardo: "El mundo de Obaba". In: www.atxaga.org http://www.atxaga.org/testuak-textos/el-mundo-de-obaba 2012ko uztailaren 16an begiratua

[432] Pello Errota aukeratutako bertsolarietan hizkuntza poetikotik urrutien aurkitzen dena delako izan daiteke.

[433] Bertsolari guztiek abesten dituzte era ezberdinetako bertsoak, lantzen dituzte mota ezberdinetako gaiak. Baina egia da bakoitzak bereizgarri bat edo hobekien moldatzen den bertso eta gai motak dituela.

landutako makila eskuan. Baserri giroko gizona ageri zaigu Pello. Kasu honetan autore ezberdinek ez digute esango kaletarrek ere gustuko dutela, hirietan ere entzuna zela. Horregatik, baserri giroko gizona izanik, baserri giroan izango da gehienbat kontuan hartua. Lotu dezagun hau, hurrengo esaldiarekin. Pello Errotak, azkenik, "beti bereganatzen zuen herria". Bere ziri eta umore bertsoekin, "herria" bere alde jartzen zuen. "Herriaz" ari direnean, baserri giroko herriaz ari ote? "Kaleaz" ere bai? "Ziudadeaz"? "Herria" "baserri" giroarekin "kaleko" giroarekin baino gehiago identifikatuko al da? Honetarako hizpidea ere ematen digu Antonio Valverderen esanak. Mikaela alabak bere aitaren bizitza kontatzen duen liburu horretan ageri omen da "pelikula batean bezala XIX. mendeko Euskal Herria". Horrela ote? Euskal Herria bere osotasunean? Alderdi bat? Gure doktorego tesi honetan saiatuko gara neurri batean galdera horri erantzuten.

Pello Errotagatik besteek esandakoak jaso ditugun honetan, beste gauza bat ere azpimarratu nahi genuke. Atal honen bukaeran honetaz gehiago idatziko badugu ere, ezein bertsolariri buruz ari direlarik, hiru jarrera behintzat aurkitu ditugu aztertzaileen artean: mirespena, gaitzespena edota datuen agerpen objektiboa. Pello Errotaren kasuan ere ageri da hau[434]. Basarrik kontatzen digu bere aitak eta aitaren lagunek Pello Errotari buruz zuten iritzia kontrajarria zela. Aitak "defendatu" egin behar izaten zuela Pello Errota lagunekin zituen hizketaldietan. Basarriren aitaren lagunak "mal genio", "agresivo" eta "mal hablado"tzat zuten Pello Errota; Basarriren aitak berriz, gainerako bertsolariei erantzuteko jokatzen zuela Pellok horrela defendatzen zuen. Zeintzuk dira bertsolarien alde edo kontra agertzearen arrazoiak? Beti gertatu izan da hau ala momentu jakin batean gertatutako fenomenoa izan zen?

Honetaz gainera, Pello Errota eskolatugabetzat ere agertzen dute eta baita erlijiotsutzat ere, bere giza balioak azpimarratuz. Azken honetan Mikaelaz gain, Zavalak eta Antonio Valverdek egiten dute indarra. Kasu honetan, baita ere, bi kategoria hauek, eskolagabea izatea eta giza balioak izatea ez direla bata bestearen kontrakoak agertu nahi dutela dirudi.

## 3.2.Pello Errotaren mundua, haren bizitzan

Pello Errotaren bizitza eta bizimodua ezagutzeak, hau da, bere eguneroko bizitzara hurbiltzeak lagundu egingo digu bere bertsoak, guk aztertu nahi ditugunak, hobeto ulertzen.

[434] Txirritaren kasuan nabarmenago ikusiko dugu oraindik.

Honetarako daukagun iturri baliogarriena, Antonio Zavalak Mikaelaren ahoz jaso zuen Pello Errotaren bizitza da, bai bere lehen argitalpenean[435] edo azkenean[436]. Atal honetan, liburu honek Pello Errotaren bizitzaz azaltzen dituen alderdi nagusiak jasoko ditugu.

Lehenengo eta behin, Mikaelak bere aitari buruz eman zizkigun datuak jasotzen saiatuko gara. Ondoren, Mikaelak zuzenean agian ez, baina bere esanetatik eratorri ditzakegun hainbat aspektu eta gai azaltzen saiatuko gara.

Mikaelak atentzio berezia jartzen du bere aitaren familiaren kontakizunean: bai sortu zeneko eta baita berak sortu zueneko familian. Datu askotxo ematen dizkigu Pello Errotaren ahaideei buruz: Pelloren gurasoetatik hasi, anai-arrebak, Pelloren emazte eta honen gurasoak, eta Pelloren beraren seme-alabetaraino. Hurrengo lerroetan horien berri jasoko dugu.

Pedro Elícegui Maíz, Pello Errota bezala ezaguna dena, 1840an jaio zen Asteasun. Hirurogeita hemezortzi urtez bizi izan zen bertan. Bere goitizenak argi dioen bezala, ofizioz errotaria zen (ofizioak pertsonak izendatzeko eta bata bestearengandik bereizteko erabiltzen ziren garai eta mundu hartakoa zen Pello). Zazpi anai-arrebetan bigarrena zen. Ama gazterik hil zitzaion, eta aita alargun geratu zen zazpi seme-alabekin. Bera Joakina Anttoni Bengoetxearekin ezkondu zen eta zortzi seme-alabaren aita izan zen. Bizimodu gogorra izan zuen. Miserablea ez, baina pobreziatik hurbil, bertsolaritza bigarren ofizio izan zuen, familia aurrera ateratzeko lagungarri (errota ondoan baratze txiki bat eta animalia batzuk ere bazituen: astoa, idia, txerria, oiloak…). Plazetan kantatuz eta bertsoak jarriz dirua irabazten zuen, errotarekin (inguruko baserrietako aleak ehotuz, okindegietara ale ehotuak eramanez) irabazten zuenaren osagarri. Idazten ba omen zekien, baina paperean bertsoak jartzeko bere alaba Mikaelak egin zion idazkari lana. Gaztelaniaz ere ba omen zekien. Hona labur-labur, elementu nagusiak. Ikus ditzagun orain hauetako batzuk xehetasun gehiagorekin.

Pello Errota familia zabaleko seme eta aita izan zen. Bere alaba Mikaelak esan eta Antonio Zavalak jasotakoen arabera[437], Pedro Jose Elicegui Maiz, 1840ko abenduaren 23an jaio zen Asteasun. Bere gurasoak, José Santiago Elicegui Aguinagalde (Larrauldarra) eta Josefa Ramona Maiz Urreztarazu (Sorabillakoa)

[435] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*. Tolosa: Auspoa, 1963.
[436] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*. Tolosa: Auspoa, 1992.
[437] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*. Tolosa: Auspoa, 1992.

izan ziren[438]. 1838ko otsailaren 12an ezkondu ziren hauek Adunako parrokian[439]. Pello Errotaren amak 18 urte zituen ezkondu zenean[440], 19 betetzeko urte erdia falta zitzaiola. Aitak berriz, hogeita bost urte zituen[441]. Hamabost urte egin zituzten ezkonduta, 1853ko apirilaren 2an hil baitzen[442] Josefa Ramona (hogeita hamahiru urterekin). José Santiago Elicegui beraz, berrogeita bat urte zituela alargun geratu zen zazpi-seme alabekin (Pello Errotak 13 urte zituenean hil zitzaion ama). Mikaelaren arabera, Ernioko gurutzera igo eta bueltan, egarriak eta izerditan zela, Iturriotzen ura edan eta horrela gaizkitu omen zen. Pello Errotaren aitak bizitza luzeagoa izan zuen: Oiartzunen hil zen 74 urte zituela[443] . Dirudienez, Larraulgoa izanik, Asteasuko errotara aldatu eta bertan izan omen zituen seme-alabak Joxe Errotak. Ondoren, Zizurkil, Aduna eta Oiartzunen bizi izan zen "Joxe Errota". Zergatik? Mikaelak esaten digunaren arabera, batzutan, semeak ezkondu ahala, erabiltzen zuten errota uzten omen zien eta berak berria bilatu. Horregatik egin zuen ibilbide hori[444]. Pello Errota ezkondu zenean, Asteasuko errota berari utzi eta Zizurkila aldatu bide ziren familiako gainerako kideak. Oiartzunen ere, errota bat baino gehiago paseak omen ziren, Juan Krutz ezkondu zenean ere, hari utzi omen zion orduan bizi zireneko errota eta beste bat bilatu omen zuen berak.

Pello Errotaren aitaren aldeko aitona-amonak, Gabriel Elicegui eta María Josefa de Aguinagalde izan ziren, biak Larraulgoak[445]. Amaren aldeko aiton amonak berriz, Pedro de Maiz (Nafarroako Arbizu herrikoa) eta Teresa Antonia de Urrestarazu (ataundarra) ziren. Amaren aldeko aiton-amonak izan ziren Pello Errotaren bataioko aitajaun eta amandrea.

---

[438] Hau Donostiako Elizbarrutiko Artxibo historikoan ziurtatu daiteke, bataio agiria konsultatuz (DEAH/F06.38//1367/002-04 (f.177v,nº36/B1840-12-23). Pello Errotari buruz egin genuen lanean, internet bitartez, Donostiako elizbarrutiko Agiritegian Antonio Zavalak aipatutako agirien bilaketa egin genuen. Hau Pello Errotari dagokion kasuan besterik ez genuen egin. Gainerako bertsolariekin ez genuen horrelako lanik hartu, aparteko informaziorik ez genuela lortzen ikusi baikenuen. Ikerketa lanean aurrera egin ahala ikasi genuen beste gauzetako bat izan zen hau: gure ikerketaren helburu nagusiaren iparra ez galtzen.

[439] Ikus DEAH/F06.002//1018/001-01(f.24r,nº1/M1838-02-12).

[440] 1819ko abuztuaren 31koa da bere bataio agiria, ikus DEAH/F06.139//2914/005-01(f.42r,nº9/B1819-08-31).

[441] Ikus Jose Santiagoren bataio agiria, noiz jaio zen jakin ahal izateko. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo historikoan konsultatu daiteke honako dokumentua: DEAH/F06.104//2466/004-02(f.136v,nº8/B1912-05-22).

[442] Ikus DEAH/F06.038//1372/002-02(f.53v,nº6/D1853-04-02), heriotza agiria.

[443] Ikus bere heriotza agiria, DEAH/F06.124//2639/003-01(f.164r,nº6/D1886-01-27).

[444] Mikaelak, bere aitonari buruz, karta-jokuan ibiltzen zela, eta dirua galtzen zuela ere esaten digu. Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz…*, op. cit., 19. or.

[445] Beren ezkontza agiria, DEAH/F06.104///2466/005-01(f.45r,nº2/M1807-02-03). Gabriel 1779ko martxoaren 2an bataiatua izan zen eta heriotza berriz, 1842ko otsailaren 9an etorri zitzaion. María Josefa de Aguinagalderen elizako agirien bila ere ibili gara, baina ez ditugu aurkitu. Famili bereko anai-arrebak bai, baina María Josefa izenekorik ez.

Pello Errota, zazpi anai-arrebetan bigarrena izan zen. Zaharrena, Juana Manuela izan zen, 1839ko otsailaren 8an bataiatua (Mikaelaren hitzetan, aitak beti etxerako izan zuen hau)[446]. Urte eta hamar hilabeteren ondoren, Pedro Jose (gure Pello Errota) jaio zen. Atzetik etorriko ziren Teresa Sabina (1842-X-27, bertsolaria omen zena), Josepa Luisa (1844-XII-19), Maria Antonia (1846-XII-20), Jose Agustin (1848-II-9), eta Juan Krutz (1851-I-27, hau ere bertsolaria eta karlista gainera). Mikaelak ez digu bere izeba-osaben berri gehiagorik ematen.

Gure Pedro Jose Elicegui Maiz, Joaquina Antonia Bengoechea Lasarekin ezkondu zen 1860ko uztailaren 24an, Zizurkilgo San Millan parrokian[447]. Pello Errotak, beraz, 20 urte zituenean. Joaquina Antonia, Pello Errotaren kintoa zen, hau da, urte berean jaioa (1840ko apirilaren 24an bataiatu zuten Zizurkilgo San Millan parrokian[448]). Hogei urte zituen beraz, Joaquina Antoniak, Pellorekin ezkondu zenean. 57 urterekin hil zen Joaquina Antonia[449] ("tuberculosis pulmonar" batez), eta 57 urterekin geratu zen alargun Pello. Joaquina Antonia Bengoetxea Lasa, Zizurkilgo Galardi baserrikoa omen zen. Errotan ur zain izaten omen zen. Mikaelaren arabera, ez omen zekien ez idazten, ezta gaztelaniaz ere.

Mikaelak tartetxoa eskaintzen dio bere amaren aldeko amonari, Josefa Ignacia Lasari[450]. Bizi zela *"Jaungoikoak eman deigula argia illean da bizian"* esaten omen zuen eta hura hildakoan *"argizerilla"* bukatuta ere platerak argi egiten zuela esaten digu. Amonak, gaixotu izanaren arrazoia, udaran, sagastian siesta egiten ari zela, suge edo sugandila bat barrura sartu izana zela zioen, eta horregatik egiten ziola barruak txistu. Mikaelak, medikuak barruan minbizia aurkitu ziola esaten digu[451].

Zortzi seme-alaba izan zituzten Pello eta Joaquina Antoniak (hauen artean laugarrena, Mikaela, bere aitaren bizitzaren berri eman diguna). Hona, Mikaelak berak kontatu eta Antonio Zavalak jasotakoen arabera, Pello Errotaren seme-alaben berri: zaharrena, Josefa Joakina zen, 1862ko maiatzaren 15ean jaioa, eta 1866ko martxoaren 28an hila ("garrotillo" gaitzaz, difteriaz hil omen zen)[452].

---

[446] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op .cit.,20.or.

[447] Hala ikus daiteke Donostiako Elizbarrutiko Artxibo historikoan, Zizurkilgo San Millango ezkontza liburua aztertuz (DEAH/F06.160//3304/001-01(f.31r, nº5/M1860-07-24).

[448] Ikus Zizurkilgo San Millango parrokiko bataio liburuetan, DEAH/F06.160//3291/003-01(f.132r,nº4/B1840-04-24).

[449] Ikus heriotza agiria, DEAH/F06.038//1372/003-01(f.206v,nº10/D1897-05-04). Antonio Zavalak dioenez, de "tuberculosis pulmonar".

[450] Aurrerago egingo dugu gogoeta txiki bat Mikaelak zer eta nola esaten digunari buruz.

[451] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit.,21.or.

[452] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.038//1368/002-02(f.36r, nº11/b1862-05-16) eta heriotza agiria, DEAH/F06.038//1372/002-02(f.100v,nº7/D1866-03-29).

Bigarrena, Joxepa Iñaxi, 1864ko urtarrilaren 12an bataiatua izan zen[453]. Ameriketara joan zen hogei urte pasarekin "dirua irabazteko", eta bertan "gallego" batekin ezkondu omen zen. Bi seme-alaba izan omen zituen: alaba, 18 urterekin, eskaileretan behera erorita hil omen zitzaion. Moto batek jota hil omen zen Joxepa Iñaxi. Hirugarrena, Juan Tomas izan zen: 1867ko martxoaren 7an jaioa eta urtea pasatxo zuela, 1868ko maiatzaren 20an, hila ("congestión cerebral" gaitzarekin hila)[454]. Laugarrena berriz, Mikaela, gure berriemalea, 1869ko abuztuaren 19an jaio zen[455]. Neskame bidali omen zuten Donostiara gaztetan, baina osasun arazoak zirela eta Asteasura bueltatu behar izan omen zuen. Josten ikasi omen zuen. 1893an Ondartza baserriko mutilarekin ezkondu zen (24 urterekin beraz). Pello eta Joakina Anttoniren bosgarren semea, Miel Anton izan zen, 1872ko martxoaren 28an jaioa[456]. Aiako neska batekin ezkondu zen hau 1897an. Emaztea tifusarekin gazterik hil eta bigarrengoz ezkondu zen (hamar seme-alabaren aita izan zen). Seigarren haurra, Juan Krutz izan zen, hau ere, urtea pasa zuela hil zitzaiena (1875eko urtarrilaren 30ean jaio eta 1876ko abuztuaren 2an hil zen, "gastritis" batek jota)[457]. Zazpigarrena, Maria izan zen, 1877ko urriaren 25ean jaioa eta 1963rarte bizi izan zena[458]. Leitzara ezkondu zen hau. Zortzigarren eta azkena berriz, Dolores**,** 1881eko apirilaren 8an jaio[459] eta 1901eko abuztuaren 16an hil omen zen ("tuberculosis pulmonar" batek jota), 20 urterekin. Mikaelak eredugarritzat zuen bere ahizpa gazteena, ederra, bikaina, langilea, mezetara goizero joaten zena zela esaten digu. Beraz, zortzi seme-alaba izan bai, baina hiru haur zirela hil zitzaizkien (lau urte betetzeko zegoela bat, urtea pasatxo zutela beste biak). Bizirik iraun zuten bosten artean berriz, lau alaba eta mutil bakarra zituzten. Alaba zaharrena Ameriketara joan zen. Bigarrena neskame lehenengo eta ondoko baserri batera ezkondu zen ondoren. Hirugarrena, mutila, ezkondu egin zen eta jaiotetxean geratu zen (maiorazko balitz bezala, nahiz eta etxea ez zuten berea). Seme hau soldaduskatik libra zedin ahaleginetan ibili ziren, eta hala gertatu zen. Laugarrena, neska, hau ere, Nafarroako Leitzara ezkondu zen. Eta bosgarren eta azkena, monja joan nahi omen zuena, hogei urterekin hil egin zen.

---

[453] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.038/002-02(f.56v, nº1/B1864-01-13).

[454] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.038//1368/002-02(f.92r,nº11/B1867-03-08) eta heriotza agiria DEAH/F06.038//1372/002-02(f.106r, nº10/D1868-05-20).

[455] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.038//1368/002-02(f.118r,nº29/B1869-08-19).

[456] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.38//1368/002-02(f.150r,nº11/B1872-03-28).

[457] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.38//1368/003-01(f.15v, nº6/B1875-02-01) eta heriotza agiria DEAH/F06.038//1372/003-01(f.13r,nº17/D1876-09-03).

[458] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.38//1368/003-01(f.52v,nº60/B1877-10-25).

[459] Ikus bataio agiria, DEAH/F06.038//1368/003-01(f.113v,nº9/B1881-04-08).

Pello Errota bera, 1919ko otsailaren 2an hil zen, 78 urte zituela. Urtebete edo eman omen zuen gaixorik, eskuan dardarizoa jarri zitzaiola. Triste pasa omen zuen azken urte hori, bere burua ezinean ikusita. Zahartuta hil zen.

Bizi zen bitartean bere inguruan hurbilen zituenak aipatzeaz gainera, bizimodua nola ateratzen zuen kontuan izatea ere garrantzitsua da oso bere bertsoak hobeto ulertzeko. Mikaelak ere agertzen dizkigu alderdi hauek.

Mikaelaren arabera, maizter bizi ziren Pello, emaztea eta familia osoa Asteasutik kilometro batera aurkitzen zen etxean, errota ere bazena. Mikaelaren hitzetan, beraiek bizi ziren etxea, Luis Zabalarena omen zen (honek ba omen zituen Larraul eta Asteasun 31 bat etxe gutxienez). Errotaren atal eta funtzionamenduari buruz ere ematen dizkigu Mikaelak hainbat argibide. Baratz txiki bat ere ba omen zuten, errotaren atarian. Egurra menditik hartzen omen zuten. Astoa, idia, noizbait behia eta txerria eta oilo batzuk ba omen zituzten.

Antonio Zavalak Jose Mari Lertxundiri[460] ere galdetu zion Pello Errotaren berri. Honek ere ikuspegi interesgarria ematen digu Pello Errotaren egunerokotasunera hurbiltzeko[461]. Pello Errotak trukabesa omen zuen Aiako "Portitxa" okindegiko nagusiarekin. Zer esan nahi zuen honek? Tratua zuela Pellok okinarekin: Pellok irina eramaten zion errotatik okinari, eta okinak berriz, alea Pellori. Trukean, Pellok, lakatan kobratzen zuen bere lana. Asteasutik Aiara bi ordu eta erdi pasa omen zituen Pellok bere idiarekin. Aiara eguerdirako iritsi, bertako ostatuan bazkaldu, bertso batzuk bota, eta bueltan Asteasura, beste bi ordu eta erdiko bidean. Astean bitan behintzat egiten omen zuen Pellok hau. Errotari izateaz gainera, karriatzaile edo garraiolari ere bagenuen, beraz, Pello.

Errotan artoa eta irina ehotzetik ateratzen zuenaz gainera, bertsotan aritzetik ere bizi zen Pello, bai plaza eta abarretan kantatuz, baita bertso berriak eginez ere. Bertso kontuetan ordea, Pello Errota ez zen salbuespena. Dakigula, bi senide, Sabina eta Juan Krutz, bertsolariak zituen. Pello Errotaren hiru seme-alabek ere bertsotan egiten zuten (Miel Anton, Joxepa Iñaxi eta Mikaelak). Iloba batek eta bi bilobek ere gutxienez, egiten zuten bertsotan. Bertsolariak, hauen jarduna... ohikoak ziren beraz "Ernioko mundu" hartan. Besterik da, bertsolaritza ofizio zenbatek zuten. Horrelakoak ez ziren hain ugariak.

---

[460] Jose Mari Lertxundi, Aiako bertsolaria, 1932an jaioa (www.euskomedia.org, Auñamendi entziklopedia, 2012-X-8an kontsultatua). Ez zuen beraz Pello Errota zuzenean ezagutzerik izan baina Aiarra izanik, gertutik ezagutuko zituen haren kontuak.

[461] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 272. or.

Pello Errotari gertatutako hainbat pasadizo ere azaltzen ditu Mikaelak. Bertsotan aritzeko Ameriketara nola eraman zuten[462], Tolosatik Billabonara trenean txartelik gabe zihoaneko hura[463], txartel-zulatzaileak gaztelaniaz galdetu eta berak euskaraz erantzuten zioneko hura, Santa Ageda bezperan kantatzen nola ibiltzen ziren[464]...

Mikaelak bere anai-arreben kontuak ere azalduko dizkigu (Ameriketara joan zen Joxepa Iñaxi eta bizirik iraun zuen bere anaia bakar Miel Antonenak besteak beste). Baina tarte handiagoa eskaintzen dio bere ezkontzari[465]. Ezkondu bezperan triste nola zegoen jaiotetxea utzi behar zuelako, ezkontza ospakizuna nolakoa izan zen – elizan, gosaria Mikaelaren etxean, arreoa gurdian eramatea, nobioaren etxean festa, arreoa erakustea, dotea-, menua, bazkalondoko musika, ezkondu eta hurrengo egunean elizan sartzea, etab. Mikaelak anaiaren ezkontza ere kontatuko digu: Aiako 19 urteko neska gazte batekin nola ezkondu zen (neska, bere amaren borondatearen kontra ezkondu omen zen Miel Antonekin), neska hau tifusarekin nola hil zen eta Miel Anton Aiako beste neska batekin berriro nola ezkondu zen. Hamar seme-alaba izan omen zituzten. Hauekin batera, ahizpa Doloresen heriotza ere azaltzen du[466]. Arestian aipatu bezala, neskatxa eredugarritzat zuen Mikaelak Dolores, bere edertasun, lanerako grina, eta erlijiotasunagatik. Monja joan nahi izan omen zuen baina aitak, alargundua dagoeneko, gainerako seme-alabak ezkonduak izaki, etxerako nahi omen zuen. Biriketako gaitzarekin hil omen zen.

Eta heriotzen atal honetan, amaren eta aitaren heriotzaz ere mintzo zaigu Mikaela. Ama nola gaixotu zen (saihetsean koskorra nola atera zitzaion), hilzorian zela zertzuk esaten zituen, gorpua nola prestatu zuten, etab.

Aitarenari oraindik tarte handiagoa eskaintzen dio. Lehenengo, nola gaixotu zen esaten digu. Eskuan dardarizoa jarri zitzaiola eta Pellok berak hura maldizio bat zela nola esaten zuen. Nola horrek tristetu egin zuen eta animoa nola galdu zuen. Jendaurrean abestu zuen azken bertsoa ere kontatzen digu[467], baita Erniora

[462] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 75. or.
[463] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 83. or.
[464] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 85. or.
[465] 1893ko urriaren 14an izan zen.
[466] 19 urterekin hil zen, 1881ean jaioa, 1901. urtean hil zen.
[467] Antonio Zavalak bertso honen lau aldaera behintzat eskaintzen dizkigu.

zihoazenei nola kantatu zien ere[468]. Urtebete inguru gaixorik egon eta gero hil zen[469].

Hau guztia, Mikaelak kontatua da[470]. Pello Errotaren laugarren haurra (bizi izan zirenen artean bigarrena), aurrez aipatu dugun bezala, gaztea zela Donostiara neskame bidalia izan zena, nahiz eta Asteasura bueltatu beharra izan zuen osasun arazoengatik. Josten ikasi zuen eta horrela diru pixka bat atera zuen ezkondu bitartean. Ondartza baserrira ezkondu zen gero, bere amaren disgusturako. Emakume indartsua eta gordina izango zen hura. 82 urterekin igo omen zen azken aldiz Erniora[471]. 94 urte zituen Mikaelak kontu hauek Antonio Zavalari esan zizkionean (Aita Zavalak, orduan, 34 urte zituen).

Zeintzuk dira, beraz, Mikaelari bere aita Pello Errotarengatik galdetu eta burura datozkion alderdi nagusiak? Familia, bizimodua, eta heriotza. Eta hauetaz gain, jakina, bertsoak eta hauei lotutako pasadizoak, nagusiki. Horiek dira kontatzen dizkigunak. Baliteke Antonio Zavalak egin zizkion galdera gehienak ere hari horretakoak izatea, edota kontatzen hasita, horiek izatea kontatzeko zituenak.

Bestetik, 94 urteko alabak bere aita zenari buruz hitz egiten digunean, ez dauka hitz txarrik harentzat. Ematen digun ikuspegia aita miresten zuen alabarena da, bai gizon bezala, baita bertsolari bezala ere miresten zuenarena. Beste bertso eta bertsolari batzuei esker, herriaren ahotik jasotakoei esker osatu ahal izango dugu Pello Errotaren irudia. Ikuspegi "neutralagoa" jasoko ote dugu horrela?

Beste gauza bat ere azpimarratu nahi dugu Mikaelaren begiradaz. Nahiz eta 1965ean egindako elkarrizketak izan, "Mikaelaren denbora" ez da kronologikoki horretara egokitua (baldin eta "1965"eko denborarik badela esan badezakegu). Adibide gisa, zakur amorratuen kontuaz ari denean esaten dituenak jaso besterik ez dugu: *"Orain badira salutadoreena sinisten ez dutenak; bañan nire aurreko aldean jarriko balira, aditu bearko lukete. Oik danak nire denboran paseak dira"*[472]. 1876ko kontuez ari da "bere denboraz" ari dela esaten duenean eta kontrajarri egiten du "bere denbora" "1965"eko garaiarekin. Horregatik, naturaltasun guztiz jasoko ditu bere amona eta abarrez ari denean ("bere denbora" baino aurreragokoak oraindik),

---

[468] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 95. or.

[469] Antonio Zavalak Asteasuko elizako bosgarren heriotz-liburuan ikusitakoaren arabera, "a consecuencia de debilidad senil" . ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 99. or.

[470] Mikaelak egiten duena ez da bere familiaren deskribapen hutsa. Garai eta zonalde bateko jendearen eta haien bizimoduaren isla da.

[471] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 95. or.

[472] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 34. or.

gaitzari zer nolako azalpenak ematen zizkieten (sugeak gorputzera sartu, etab…), nahiz eta medikuen azalpenak ere berak jaso.

Hauek guztiak ikusita, ez legoke gaizki *Vivir en familia, organizar la sociedad* liburuari begiratu bat eman eta etekina ateratzea. Liburu honetan, atal oso bat eskaintzen zaio "Ernioko munduari": haren ezaugarriak jasotzen dira, eta baita bertako familia ereduen berri eman ere. Pello Errota asteasuarra izanik, nahitaezkoa dugu atal honen azterketa gure lanerako[473]. Pello Errotari esker Ernio inguruko landa eremuko gizartera hurbil gaitezke: erregimen demografiko zaharraren adibide dugu Pello Errota. Berak eta bere ahaideek jarraitzen zuten familia eredua –tronkala-, zituzten ezkontza eta ugalkortasun estrategiak kontuan hartzen baditugu –zein adinekin ezkontzen ziren, zein ingurutakoekin, zenbat seme-alaba eta zenbateko tartearekin izaten zituzten-, hilkortasun tasak aztertzen baditugu –haurren heriotzak-, zein migrazio estrategia jarraitzen zituzten –nortzuk joaten ziren, gizon edo emakume, zein adinekin-, edota bizimodua nola ateratzen zuten –errotari, baserritar, etab.-., gizartea sozioekonomikoki nola antolatua zegoen –jabe eta maizter, etab.-, ikusiko dugu Pello Errota eta haren familiakoek jarraitzen zituzten ezaugarriak, ingurukoekin bat zetozela. Ez dira kasu bereziak, adierazgarriak baizik.

## 3.3.Pello Errotaren bertso produkzioa, haren mundua adierazpen eta irudietan

Aurrez esan bezala, Pello Errotaren bertsoak Antonio Zavalaren edizio ezberdinetan aurki ditzakegu. Guk erabiliko ditugunak 1992an argitaratutako liburuan agertzen direnak dira[474]. Horiek kontuan hartzen baditugu, hona zer esan dezakegun: Pello Errotak jarritako 23 bertso sail dauzkagu (116 orri betetzen dituztenak), eta bere bizitzan gertatutako pasadizoei lotutako 39 bertso/bertso multzo (Mikaelak Antonio Zavalari adieraziak) eta 25 berriz *Erriaren aotik* atalean jasoak. Bertso eta pasadizo hauek 152 orri betetzen dituzte. Guztira beraz, Pello Errotaren izenpean 87 esanahi unitate (268 orrialdetan) dauzkagu. Datu hauek gerora lagungarriak egingo zaizkigu beste bertsolari batzuen produkzioarekin

[473] Ikus GONZÁLEZ PORTILLA, M; URRUTIKOETXEA, J: *Vivir en familia, organizar la sociedad,* op. cit., liburuko bigarren atala: "El País Vasco "troncal": el "mundo del Hernio"". 210-293.or batez ere.

[474] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919).* Tolosa: Auspoa, 1992.

konparatu ahal izateko[475]. Pello Errotaren kasuan bat-batean sortu eta abestutako bertsoak azpimarratu behar ditugu[476].

Horretaz gainera, zein argitalpenetatik jaso ditugun kontuan badugu, Pello Errotaren bertsoetan gutxienez, hiru motatakoak ditugula ikusiko dugu: Mikaelak Antonio Zavalari esanak, Pello Errotak berak jarritako bertsoak eta herriaren ahotik jasoak. Batzuek eta besteek ikertzaileari eskaintzen dizkioten aukerak, ezberdinak dira. Jarritako bertsoetan Pello Errotaren egiletza frogatzea errazagoa da, izan ere, batzuetan, bere izena ageri da bertsoen pean sinadura gisa.

Beste kasu batzuetan, bertsopaperek ez zuten izenperik, baina Mikaelaren laguntzarekin identifikatzea lortu zuen Antonio Zavalak[477]. Mikaela ziur agertzen ez zen kasutan, Antonio Zavalak ez zituen bertso hauek Pello Errotarenak konsideratu.

Mikaelak gogoratzen zituen bertsoen artean, eta areago herriaren ahoz jasotakoen artean, egiletza eta bertsoen edukia bera zalantza handiagokoak dira. Hona "Erriaren aotik" dioten horiei buruz, Antonio Zavalak esanak:

> *"Irakurleak azkar asko ikusiko du Pelloren bertsoetan naspil aundia dagoala: batzuek era onetara ematen duten bertsoa, besteak bestera emango dizute; bertso bera batek Pellorena dala esango du, ta besteak Udarregirena edo Txirritarena dala; onek Tolosan, da arek Azpeitian bota zuala esango du (...) Biltzalleak beste eginkizunik ez baitu, guzti-guztia jaso bezelaxe ematen degu, ezer kendu ta ezer erantsi gabe..."*[478].

Hau horrela izanik, merezi ote bertso hauek aztertzeak? Kontuan hartu behar al genituen edo ez? Baiezkoa erabaki genuen azkenean[479]. Izan ere, bertso hauei esker, Pello Errota eta beste bertsolarien arteko harremana azter genezakeen, Pello Errotaz beste bertsolariek ematen zuten ikuspegia aztertu... aberasgarri gertatuko zen zalantzarik gabe. Eta gainera, alabak edota herriak bere memorian jasoak badira, ahaztuak ez baizik eta oroituak izan badira, herriak ontzat eman eta

---

[475] Ikus 1. eranskina.

[476] Hauetaz gainera, Antonio Zavalak Pello Errotaren senide eta ondorengo bertsolarien berri ere jasotzen du Auspoaren Sail Nagusiko liburuan.

[477] Jarritako bertso hauetan, eta batez ere ezkontza tratuei lotutakoetan, Aita Zavalak herri eta pertsonen izenak ez zituen argitaratu, ondorengoak oraindik bizirik egon zitezkela eta.

[478] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 223. or.

[479] Beste bertsolarien bertsoen azterketarako Pello Errotarentzat erabakitakoa hartu genuen gero ontzat eta ez genion buelta gehiagorik eman. Ikasbidea jarri zigun honetan ere Pello Errotak. Konturatu ginen gure helburua ez zela xehetasun guztiz Pello Errotaren bertsoen azterketa, bere horretan, bertsolarien ahoz proposatzen ziren identitate bide anitzetara hurbiltzea baizik.

estimatzen zituenaren seinale. Hau bada gure azterketan bertso hauek kontuan hartzeko nahikoa arrazoi.

Jarritako bertsoetan, bertsoak egiteko agindu zuena izango da bertsoaren gaia eta hari nagusiak markatuko dituena. Garaiko gizarte hartako arazo ezberdinetara hurbiltzeko modua emango digu honek: zein helbururekin zegoen gizon bat bertsoak idatzi zitzaten ordaintzeko prest? Mikaelak edo herriaren ahotik jasotako bertsoen bitartez, Pello Errotarengana hurbiltzeko modua izango dugu gehiago, bere eguneroko bizitzara, bere gora-beheretara. Dena den, bertsoak aztertzerako orduan, azterketa metodologia bera aplikatu diegu bide ezberdinetatik jasotako bertsoei, hurrengo lerroetan esango dugun bezala.

Horretaz gainera, bertsoen artean, bapatean botatakoak eta jarritako bertsoak desberdinak dira beren artean baita forma aldetik ere[480]. Bapatean botatako bertsoak askotan gertakizun eta pasadizoei lotutakoak dira, norbaitek egindako desafioari erantzunez, edo gertakizun baten aurrean Pello Errotak momentuan botatakoak. Aurrez esan dugun bezala, Pello Errota batez ere bertso solte hauengatik izango da ezaguna. Jarritako bertsoek berriz, bertsoaldiak osatzen dituzte, gai beraren inguruan osatutako bertso gehiago dira eta gainera, hasiera, korapilo eta ondorio bat ere antzeman dezakegu bertan, bertsolariak denbora hartzen baitu bertsoak pentsatu eta osatzeko. Gai ezberdinen artean edo atal ezberdinen artean trantsizioa egiten duten bertsoak ere aurki ditzakegu sail hauetan. Jarritako bertsoak askotan gainera enkarguz eginak dira (ordainduak ere bai[481]), saltzeko eta zabaltzeko eginak dira. Jarritako bertso hauen helburua egoera bat salatzea zen, esames edo zurrumurruei erantzutea, eta gertakizun jakin baten aurrean "beste" bertsio bat zabaltzea, honen berri ematea. Era honetakoak ere egin zituen Pello Errotak, ezkontza tratuei buruzkoak batez ere.

Sarreran aipatu bezala, bertsoen edukia aztertzerako orduan lehenengo bertso sailak gaien arabera antolatu genituen. Bertso sailaren gai nagusia kontuan hartuz gero, lehenengo sailkapen hau egin genuen:

---

[480] Pello Errotaren bertsoen azterketan elementu honi garrantzia eman bagenioen ere, hurrengotarako konturatu ginen, eta edukien azterketarako batez ere, ez zela funtsezko elementua. Horregatik, bertsoa bapatekoa edo jarria izatearen kontu hau Pello Errotaren kasuan bai, baina gainerakoetan ez genuen gehiegi kontuan hartu. Hona Pello Errotak emandako beste lezioa.

[481] Bost duro kobratzen omen zituen bertsoak jartzeagatik. ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 103. or.

3.Koadroa.-Pello Errotaren bertsoak gaien arabera antolatuak[482]

| | Pello Errota bizitza | Jarritako bertsoak | Herriaren ahotik | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Natura-medioa | 0 | 0 | 3 | 3 |
| Demografia-familia | 9 | 117 | 7 | 133 |
| Ekonomia… | 3 | 17 | 9 | 29 |
| Gizartea… | 11 | 105 | 42 | 158 |
| Politika | 0 | 4 | 2 | 6 |
| Mentalitatea | 14 | 99 | 4 | 117 |

Iturria: ikerketa lan honetarako propio osatua.

Koadro honetan bertso kopuruak jaso ditugu (ez dira bertso sailen kopuruak). Bertsoez gain, narrazio laburrak ere badira, Mikaelak bere aitaren bizitzari buruz hitz egiten digunean batez ere. Horiek ere kontuan izan ditugu gure azterketan, nahiz eta aurreko koadroan jaso ez.

Bertsoetara egindako lehenengo hurbilpen honek, garbi utzi zigun Pello Errotaren bertsoetan gehien landutako gaiak, gizarteari lotuak (apustu, bertsolarien arteko lehia, etab), demografia kontuei lotuak (ezkontza tratuei buruz jarritako bertso ugari tartean), eta mentalitateari lotuak (erlijio gaiak batez ere) direla. Pello Errotak ere gai politikoaz, gutxi –ia batere ez- utzi digu. Antonio Zavalak dioskunez, Jose Manterolak, Bera de Bidasoako 1880ko uztailaren 4ko saioaz ari dela, honela jasotzen du: *"Manterola nos da también noticia de los temas sobre los que improvisaban: En Vera de Bidasoa, Pello Errota y su hermano Juan Cruz cantaron sobre el olvido de las antiguas diferencias y divisiones, sobre la unión de todos, sobre nuestra lengua y costumbres…"*[483].

[482] Kuadro honetan bertsoak Antonio Zavalaren 1992ko argitalpeneko zein ataletan agertzen ziren bereizten saiatu gara, ez baitute ez jatorri, ez helburu ezta joku bera ematen batean eta bestean ageri direnak. Agertzen diren zenbakiak, banakako bertsoei (eta ez bertsoaldi edo bertso-multzoei) dagozkienak dira. Kasu honetan, baita ere, Pello Errotarentzako koadro propioa egin genuen. Hemendik aurrera, eta beste bertsolariei dagokienez, "Iturriak eta metodologia" ataleko 1.3. puntuan dagoen 1. Koadroarekin nahikoa dela uste izan dugu. Ez dugu uste beharrezkoa denik gaikako kontaketa egiterakoan bertsoak bat-batekoak edo jarriak diren kontuan izatea, ez eta bertso sailez gain bertsoak banaka kontatuz kopuru horiek ere jasotzea.

[483] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia del bersolarismo,* op. cit., 132. or.

Eta zer zioen Pello Errotak bertsolari izateari buruz? Nola ulertzen zuen bere jarduna? Beste bertsolarien azterketan bezala, ez ditugu ez aipamen guztiak jaso nahi, ez interpretatu nahi ere: hurrengo lan baterako abiapuntu lirateke hauek, berez. Batzuk jasoko ditugu, egarri piska bat sortu nahian.

Pello Errotak lan bezala ikusten du bertsoak jartzearena: *"Naiago nuke lan au baneuka / biar bezela jarriya, / ondo pentsatzen baldin badegu / ain da lastimagarriya; / mesede eske Zugana nator, / Aita estimagarriya, / komeni bazat eman bear dit / espirituko argiya"*[484]. Diru truke egiten den lana, gainera: *"Illaren oi ta bederatziyan / San Migel zan agorrian, / bi bertsolari izandu giñan / Laurkiñ deritzan ballian. / Kantariyena jakiña dago: / jornal artzeko idian; / diruan kargak ez gaitu asko / nekatu etxera bidian"*[485]. Bere burua bertsotarako abila bai, baina ikasigabetzat agertuko du: *"Lagunduko al digu / guzion jabiak, / berak eman zizkigun / abillidadiak; / astera dijoazte / predikadoriak, / sekula estudiatzen / ibilli gabiak"*[486].

Zein helbururekin jartzen zituen Pello Errotak bertsoak? Kasu askotan, helburu moralizante batekin. Horra: *"Zer pasatzen zan itz egiñ niyon / neskatxa orren amari, / errespuesta ark eman ziran / ezer etzala lan ori; / orlako itzak ez zaio aditzen / iñon guraso onari, / kantak argatik jarritzen zaizka / gaizki portatzen danari"*[487]. Gertatuak zabaltzeko asmoz ere bai: *"Desio zuen bertso berriyak / orra Frantziskok atera, / al dan guztiya zabaldutzeko / Naparroako partera; / zer pasatu dan ikasitzeko / emen badago aukera, / gogo duenak artu dezala / bost zentimuan papera"*[488]. Ezkontza tratu edota apustuetan gertatutako gorabeheretan, bertsio jakin bat zabaldu nahi zenean jartzen ziren bertsoak: *"Paperetan egiak / ipintzea obe, / orrek balioko du / orain da gero're / nun nai kanta litezke / kuidadorik gabe, / nai duenak erosi / txanponian daude"*[489].

Beste kasu batzuetan, herriak kantuan parte har dezan, Arantzazura erromes doazela: *"Ara emen bertsoak / oraingo berriyak, / Ama Birjiñarentzat / konsolagarriyak, / bidean kantatubaz / joateko jarriyak, / Asteasun bizi dan / Pello Errotariyak"*[490].

---

[484] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 176.-177. or.
[485] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 48. or.
[486] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 247-248. or.
[487] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 169. or.
[488] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 170. or.
[489] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 132. or.
[490] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 191. or.

Komunitateari eta honen beharrei lotutako bertso jarri horietaz gainera, Pello Errotak XIX. mende bukaeran zabalduko diren bertsoak egiteko toki eta modu ezberdinetan parte hartuko du: Donostiako udaletxeak antolatutako bat bateko lehiaketetan[491], adibidez; Azpeitian izan zen "premio" edo sariketan plazan jarri zuten taula gainean[492]; balkoitik balkoira, Txirritarekin lehian[493]. Edota testuinguru "naturalagotan" ere egingo du kantuan Pello Errotak: bertso saio "ofiziala" bukatu eta gero, ahotsik gabe geratu arte Txirritarekin "kontzejupean" kantuan[494]; edota aspaldian ikusi ez duela eta Txirritari eskuminak bidaltzeko[495], eta askotan, idiekin bidean doala, batak edo besteak ateraldi bat botatzen diotenean.

Pello Errotak, beraz, eguneroko testuinguruan egingo du bertsotan, komunitateari diru-trukean zerbitzu bat eskainiz askotan. Bestalde, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran zabalduko diren bertso modu berrietan ere parte hartuko du.

Bukatzeko, Pello Errotak erabiltzen dituen irudiak ere azpimarratu nahi genituzke. Ez du natura kantagai hartuko, baina naturako irudiak erabiliko ditu modu trebean adierazi nahi duena adierazteko. Naturarekin duen hurbileko harremana –sinbiosia- eta lotura, adieraziko dizkigu horrela. Hona adibide batzuk: ezkontza tratua egina duen neska baten etxera, gizon zahar bat hurbiltzen da, berarekin oheratzeko asmoz. "Azari zar" deituko dio Pello Errotak aitonari. Ikus:

> *"Lagun on batek enkargatu ta / artu det erreparua, / azari zar bat badabillela / anka biko aguria; / neskatxa orri kontu egiteko / ez banitzaden erua, / egiña dago lenguak baño / gauza alrebesagua"*[496].

> *"Ikasi naia nik banedukan / gauz ori nola zijuan, / apirillaren oi ta batian / jarri naiz puntu fijuan, / entero lasa ni enegoan / leio onduan kanpuan / orduban bertan arrapatu det / azari zarra zepuan"*[497].

Beste bertso sail batean, gizon batek baserriko neskazaharra lehenengo (lastoa) eta etxekoandrea gero (belarra) nola bereganatzen dituen kontatzen digu Pello Errotak. Hona: *"Endredo asko jarritzen ditu / bada persona gaiztuak, / lenago ere ikusi*

---

[491] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 119.-120. or.
[492] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 141.-144. or. Bost mila lagun ba omen zituzten entzuten, gutxienez, Pello Errotaren hitzetan. Lehiaketa izan aurretik bertsolarien artean emaitza hitzartzen nola saiatu ziren ere kontatzen du Pello Errotak.
[493] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 262. or.
[494] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 265. or.
[495] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 271. or.
[496] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 167. or.
[497] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 168. or.

*zaizka / gauza aldrebes askuak; / ustez ixillik zebillen baño / utzi ditu arrastuak, / (abizena) orrek eraman dizkit / belarrak eta lastuak"*[498].

# 4. Pedro Mari Otaño Barriola, Kattarro (Zizurkil, 1857; Rosario-Argentina, 1910): onbupean ondutako euskaltasuna

Pedro Mari Otaño Zizurkilen jaio zen 1857an eta Argentinan hil zen 1910. urtean. Ameriketara hirutan joan zen emigrantea dugu Pedro Mari Otaño. Familia tronkalaren eta landa eremuko bizimoduaren esperientzia sakona izan zuen Pedro Mari Otañok. Familia liberalekoa izaki, Donostiara aldatu ziren bizitzera bere gurasoak. Bera ere Donostian bizi eta ezkondutakoa dugu. Bere bizitza eta diskurtsoan bilakaera politiko interesgarria izan zuen gizona dugu Pedro Mari Otaño, eta Bilintxek egin zuen bezala, honek ere berrikuntza ugari ekarri zizkion bertsolaritzari.

## 4.1.P.M. Otaño: nor zela esaten dute?

Guk Pedro Mari Otañori buruz erabili dugun informazio iturri nagusia Antonio Zavalak Auspoaren Sail Nagusian argitaratutako bi liburuak dira[499]. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Pedro Mari Otañok berak bi liburu eta opera bat ere argitaratu zituen bere bertsoekin. Antonio Zavalak horiez gain Pedro Mari Otañoren eskuizkribuak ere erabili zituen Auspoaren Sail Nagusiko liburuak osatzeko[500].

Bertsolaritzaren azterketa egin duten autore klasikoak errepasatzen baditugu, Manuel Lekuonak, adibidez, otañotarrak aipatzen dituela ikusiko dugu, *"una familia de bertsolaris"*[501], baina izenik eman gabe. *Literatura oral vasca* lanean

[498] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 180. or.
[499] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I eta II.* Oiartzun: Sendoa, 1993.
[500] Pedro Mari Otañoren eskuizkribuak ere erabili zituen Antonio Zavalak. Hauek ikusgai daude: http://www.zizurkil.eus/barrena/otano-euskara.html
[501] Ikus LEKUONA, M.: "La poesía popular vasca". In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978. 233.-235. or.

berriz, "Mutil koxkor bat" izeneko bertsoak eta Argentinara bigarren eta azkenekoz joan zenean herriak nola despeditu zuen jasotzen du[502].

Antonio Zavalak bere *Bosquejo de historia del bersolarismo* lanean otañotarrak ditu baita ere aipagai[503], dinastiatzat aurkezten dizkigu. *Errekalde zarra* eta Jose Bernardo Otañori buruz hitz egin ondoren, Pedro Mari Otañoren biografiako hainbat datu ematen dizkigu. Interesgarriago zaizkigu bere bertsoez dioskuna:

> *"Pedro María Otaño trae al bersolarismo algo nuevo, una modalidad y un espíritu distintos. Yo me atrevería a decir que la esencia de su innovación está, en gran parte al menos, en que tiene una atención refleja y consciente hacia lo bello, hacia lo que comúnmente se llama poesía, y en que eso supo hacerlo sin apartarse del espíritu del pueblo.*
>
> *Por eso, Pedro María Otaño gusta a todos: al pueblo iletrado y al hombre culto, que lo encuentra más cerca y más asequible que a los demás bersolaris"*[504].

Bertsolaritzako maisutzat hartzen omen dute batek baino gehiagok. Antonio Zavala bat dator iritzi honekin, baina maisu bakartzat ez hartzekotan.

Aita Santi Onaindiak ere aipatzen du Pedro Mari Otaño bertsolaria, hau ere, Bilintx bezala, bertsolari ikasien artean. Zertan bereizten da Pedro Mari Otaño gainerako bertsolariengandik? Hona Aita Santi Onaindiaren iritzia: hasteko, euskararen erabilera egokian; bigarren, maiz izaten zuen katarroak bertsoak bat-batean kantatzea eragotzi eta idaztera behartzean; hirugarren, munduan zehar ibili izanak; eta laugarren, sagardotegi eta ardandegiak gustuko ez izatean eta bertsolaritza esparru hauetatik atera behar zela pentsatzeak[505]. Azken ezaugarri honetan, Kepa Enbeitarekin lotzen du Onaindiak Otaño. Pedro Mariren herrimina eta euskalduntasuna ere azpimarratuko ditu Onaindiak, eta bat-batean kantatzeko gai zela ere adieraziko digu.

Juan Mari Lekuonaren hitzetan,

> *"Gaurregun kantatzen duten bertsolari askok zizurkildarra jotzen dute maisu, mugaz honantzkoek behintzat. Otaño bere zaizkikoen [sic] baserrian jaio bazen ere, gaztea zelarik Donostian jarri zen bizi izaten, gizaldiaren azkenaldiko literatur mugimenduarekin bateratsu. Harreman berriak izan zituen uritarteko bizitzarekin,*

[502] Ikus lehenengorako LEKUONA, M.: "Literatura oral vasca". In: *Idazlan guztiak,* op. cit., 312. or; eta bigarrenaz, toki berean, 303. or.
[503] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit., 123.-127. or.
[504] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit., 126. or.
[505] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit., 231.-234. or. Zarautzen 1959an argitaratutako *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* lanari ere egiten dio erreferentzia, eta zehazkiago, lan honen sarrerari, Untzurruntzagak idatzitakoari.

> *ahotan zebiltzan kultur mugimenduekin, han eta hemen sortzen hasi ziren sentiberatasun politikoekin. Bestalde, berriz, Pello Mari Otaño gizon eskolatua zela esan behar: euskararen irakasle izan zen Buenos Aires-ko "Laurak bat"-en; eta opera bat egitera ere iritsi zen, "Artzai mutilla" izeneko eres-antzerkia argitaratzera. Horregatik, ez da harritzeko bertsolarien arteko textugintza poetikoan Otañok kultura idatziaren zantzu nabaria agertzea. Hori bai, oso barrutik ezagutzen du herri-poesiaren tradizioak bere baitan daraman altxorra, usariozko estratoaren testigu bizia gertatuz"*[506].

Eta pixka bat aurrerago, Otañoren ezaugarri batzuk zerrendatzen ditu: *"erbestean bizi den euskalduna, jaioterriak ematen dion herri-mina eta urruti-mina, bere bihozkada telurikoa hain azkarra, bere hizkuntza landua, erromantikoen eittezko teknika poetikoa"*[507].

Joanito Dorronsorok "Pello Errotaren garaia (1880-1910)" kapituluan hitz egiten digu Pedro Mari Otañori buruz[508]. Aurreko kasuetan bezalaxe, bere bizitzaz hainbat ohar eta berak idatzitako bertsoak eskuragarri jartzen dizkigu Joanitok: *"Bertsolari eskolatua dugu. Euskara oso ongi ezagutu eta maneiatzen du. Bertsogintza oso landua, dotorea sortzen du. Olerki egitera, ederraren bila doa zuzen zuzenean, bainan popular izateari uko egin gabe, ordea"*[509].

Gorka Aulestiak ere kapitulu berezia eskaini zion bertsolaritzari buruzko bere liburuan[510]. Aipatu lan horietaz gainera, Joan Mari Lekuonak[511] eta Mikel Aizpuruk[512] ere badituzte Otañori buruzko artikuluak eta *Bidegileak* sailean ere Xabier Euzkitzek idatzi zuen Pedro Mari Otañori buruzko liburuska[513]. Berrikiago Zizurkilen Pedro Mari Otañoren heriotzaren mendeurrenean liburua ere argitaratu du Hernandorena Kultur Elkarteak[514].

---

[506] LEKUONA, J. M.: *Ahozko euskal literatura,* op. cit., 100. or.
[507] LEKUONA, J. M.: *Ahozko euskal literatura,* op. cit., 100. or.
[508] DORRONSORO, J.: *Bertsotan, 1789-1936,* op. cit., 149.-197. or.
[509] DORRONSORO, J.: *Bertsotan, 1789-1936,* op. cit., 154. or.
[510] AULESTIA, Gorka: *Bertsolarismo.* Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990. 187-196. or.
[511] LEKUONA, Joan Mari: "Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean". In: *Antoine d'Abbadie, 1897-1997. Nazioarteko Biltzarra.* Hendaia, 1997. Donostia: Eusko Ikaskuntza. Bilbao: Euskaltzaindia, 1998. 523-534. or.
[512] AIZPURU, Mikel: "Vascófilos y bertsolaris, conformadores del nacionalismo vasco en el último tercio del siglo XIX". In: *Gerónimo de Uztariz*, 16, (2000), 59.-72. or.
[513] EUZKITZE, Xabier: *Pedro Mari Otaño Barriola.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2010.
[514] HERNANDONERA KULTUR ELKARTEA: *Pello Mari Otañoren arnasa. 1857-1910. Intxaurrondotik onbura, olerkariaren heriotzaren mendeurrenean. 1910-2010.* Zizurkil: Zizurkilgo Udala, 2010.

Otañoren azterketarako benetan interesgarriak gertatzen zaizkigu baita ere Coro Rubio Pobesek Ameriketara joandako euskaldun eta hauen identitatearen bizipenari buruz egindako gogoetak, nahiz eta esplizituki Pedro Mariren izenik eman ez. 1900. urtean Buenos Airesko *Laurak Bat* elkarteak bere 23. urteurrena zela eta antolatutako festen berri ematen digu. Hauetaz ari dela:

> *"Ahora bien, aunque muy vistosas y aparentemente reveladoras de la existencia de un fuerte sentimiento de identidad vasca entre los emigrantes procedentes de las Provincias Vascongadas y Navarra, no hay que pasar por alto las condiciones en que estas expresiones se realizaron; la distancia y el desarraigo eran un un poderoso revulsivo para el refuerzo, cuando no para el nacimiento, de sentimientos identitarios que permitieran conservar la memoria de las raíces. De ahí que haya que tomarlas con cierta precaución si las valoramos como indicadoras del impacto o arraigo del discurso identitario de las elites entre la población"*[515].

Esanguratsua benetan jaioterriarekiko distantzia eta herrimina nola jotzen dituen identitate sentimentuen sorrerarako bizkorgarri. Pedro Mari Otañok bizkortze hori bizi eta horren emaitza ziren bertsoak argitaratuz bueltan eskaini zizkion sorterriari.

Hauek guztiak jaso ondoren, zer azpimarratuko genuke? Pedro Mari Otaño gainerako bertsolariengandik bereizten saiatzen dira bertsolaritzaren historiaren aztertzaileak. Bereiztu zertan? Edertasunaren bila, poesia eta olerkigintzatik hurbilago ipintzen dute Pedro Mari Otaño gainerako bertsolariak baino[516]. Euskara nola erabiltzen duen ere goraipatzen dute. Bere bertsoak aztertzen ditugunean sakonago landuko badugu ere, euskara ez soilik tresnatzat, objektutzat ere hartuko duen bertsolaria izango dela ikusiko dugu Pedro Mari Otaño. Ikasia dela ere gehienek azpimarratzen dute. Bere bizitzari dagokionez, guztiek azpimarratzen dute jaioterritik kanpora bizi izan zela eta honek herri mina sortarazi ziola, bere bertso-produkzioan eragin nabarmena izan zuelarik gertakizun honek. Euskalduna zela, euskalduntasunean gainerakoengandik bereizten zela, sentiberatasun politikoekin harremana izan zuela ere esaten digute: aurrerago ikusiko dugun bezala, baliteke identitate kolektiboari dagokionez formulazio berritan gehien saiatu zen bertsolaria izatea.

Baina gainerako bertsolariengandik desberdina izan arren, bertsolaritzaren aztertzaile guztiek azpimarratzen dute "herriarekin" zuen lotura. "Herriaren espiritutik" gertu dagoela esango digu Antonio Zavalak, eskolatugabeko herri eta

---

[515] RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca*, op. cit., 475.-476. or.

[516] Bilintxengana hurbilduko litzateke horrela. Joan Mari Lekuonak, ikusi dugun bezala, "erromantikoen eittezko teknika poetikoa" erabili zuela esango digu.

eskolatutako "gizon"engandik gainerako bertsolariak baino gertuago dagoela adieraziz[517]. Kaletar eta baserritarrek gustukoa izango dutela ere esango digu Zavalak. Donostiarekin eta bertako kultur mogimenduekin izandako harremana azpimarratzen du Joan Mari Lekuonak. Manuel Lekuonak berak, Otaño Argentinara bigarrenez joan zenean "herriak" nola despeditu zuen esango digu. Beraz, "herriak", "osoak", baserri eta kaleak, eskolatugabe eta eskolatuak, beretzat hartuko ditu Otañoren bertsoak: berrikuntzak, hau da, euskara jasoa, bertso ederrak, eta gai berriak ekarriko ditu bertsolaritzara, eta bide horretatik, entzule berriak bereganatuko ditu, hau da, eskolatuak, garaiko gertakizun eta auzien jarraipena egiten zutenak. Baina aldi berean, tradizioan oinarritutako bertso formak erabiliko ditu, kantuak, "usariozko estratuaren testigu bizi" izango da Joan Mari Lekuonak esan bezala, eta honi esker, herriaren alderdi eskolatugabeak ere jarraitu egingo dio. Bertsolaritzara erakarriko ditu batzuk, besteak berriz, kezka eta gai berrietara eramango ditu, nork eta, ezinbestean, Donostiatik Argentinara joan behar izan zuen hark.

## 4.2.P.M. Otañoren bizitza[518]

Pedro Mari Otaño Zizurkilgo Errekalde baserrian jaio zen 1857ko urtarrilaren 26an. Aita, Juan Pedro, Jose Bernardo Otaño bertsolariaren anaia, 1829ko abenduaren 28an jaioa zen, eta bi aldiz izana zen Ameriketan[519]. Pedro Mari Otañoren ama[520], berriz, Juana Bautista Barriola Arregi zen[521], Villabonakoa –nahiz eta jatorriz, Zizurkilgo Iragorri baserrikoa izan-. Pedro Mari Otañoren guraso izango zirenak 1854ko azaroaren 27an ezkondu ziren Zizurkilen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, hauetatik bi behintzat, haur zirela hilak. Alaba zaharrena, Juana Bautista zen (1855-VII-22). Ondoren etorri ziren Mikaela eta Pedro Mari bikiak (1857-I-26). Pedro Mari da guk aztertutako bertsolaria. Mikaela, berriz, 13 hilabete zituela hil zen. Laugarren haurra Juana Mikaela izan zen (1859-VI-12), eta ondoren etorri ziren Josefa Antonia (1862-I-2), Jose Bernardo (1864-V-19), Juan Pedro[522] (1866-VI-29), Jose Frantzisko[523] (1869-I-18) eta Jose Domingo[524] (1873-IX-4).

---

[517] Edo horrela senti dezaketela behintzat adieraziz.

[518] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 150.-290. or.

[519] 1901eko urtarrilaren 4an hil zen, 71 urterekin. Ofizioz, hargina zen.

[520] Amaren aldeko aitona, Frantzisko Maria Barriola, herriko sekretarioa zen. Ikasia zen, beraz. Ilobei hezkuntza egokia ematen ere saiatu zen.

[521] 1879ko abenduaren 29an hil zen perlesiak jota. Ofizioz tabernaria omen zen.

[522] Argentinan ezkondu zen.

[523] Hau ere Argentinara joan zen. Gazterik hil zen bertan.

Agirien arabera badakigu 1863. urterako Otaño Barriola familia Errekalde baserritik Karidadeko Bentara bizitzera joana zela. Izan ere, Errekalde baserrian Juan Pedro eta Juana Bautistaren familiaz gain, Juan Pedroren anaia baten familia –Jose Bernardorena- ere bizi zen eta familiak handitu ahala, ez zuten denentzat tokirik. "Karidadeko Benta" Otañoren ahaide eta adiskideek altxatu omen zuten, horretarako materialak ere ekarriz. Izena ere horregatik zuen halakoa. Benta izaki, jende asko ibiltzen omen zen han: bertsotan eta jokoan ere bai.

Pedro Mari Otaño hiru aldiz joan zen Ameriketara. Lehenengo bidaia 1875 urte inguruan egin zuen, 18 urte zituela. Argentina, Uruguay eta Brasilen ibili omen zen. Antonio Zavalaren iritziz, hainbat arrazoi izango zituen Pedro Mari Otañok orduan Ameriketara joateko: Gerrate Karlista, Zizurkil karlisten mende izatea bere familia liberala izanik, eta aurretik bere aita ere bitan Ameriketan egon izana. Zein lanbide izan ote zituen han? Labezain, hesi eta itxitura egile, ferratzaile, negozioren baten kontu eramale, poeta, etab. Ez dakigu ziur lehenengo bidaia hartatik noiz itzuli zen. 1879an Villabonan zen, Fidel Lizarraga alkateari bertsoak jarri baitzizkion. Denbora gutxi egin zuen, ordea, Euskal Herrian.

1880 urte inguruan –Antonio Zavalak ez zuen aurkitu datu zehatzik- bigarren aldiz joan zen Ameriketara. 1889an han zela badakigu, osaba Jose Bernardori bidali zizkion bertsoengatik. Gaixorik ibili zen garai hartan. 1890. urteko erdialdera Euskal Herrira itzuli zen berriz.

Bitarte hartan familia Donostiara lekualdatu zitzaion Pedro Mari Otañori. 1875eko Donostiako erroldan otañotarrak ageri dira Donostian. Ordurako bi urte omen zeramatzaten gainera hiri honetan. Erroldan ez dira familiako kide guztiak ageri: ez dakigu zergatik. Hainbat urtetako erroldetan agertuko dira otañotarrak Donostian, nahiz eta ez beti helbide berean[525]. 1882ko erroldaren arabera, idazten eta irakurtzen zekiten guztiek. 1891ko erroldan Pedro Mari Otañoren izena ere familiakoekin batera agertuko da.

Pedro Mari Otaño urte horretan bertan, uztailaren 11an, Donostiako Magdalena Alberdirekin[526] ezkondu zen. Sei seme-alaba izan zituzten: 3 seme Donostian eta 3 alaba Argentinan. Horra: Bernardo (1892-VII-10), Juan Migel (1894-VIII-22), eta Jose Inazio (1896-III-21), Donostian jaioak. Eta Maria Teresa (1889-IX-20), Juana (1903-III-18), eta Magdalena (1907-I-20), Pehuajón jaioak.

---

[524] Bi urterekin hil zen.

[525] Aita alargundu zenean, bere seme batekin eta haren familiarekin bizi izan zen Donostian.

[526] Magdalenaren aita, Jose Alberdi, Zarauzkoa zen. Hila zen alaba ezkondu zenerako. Ama berriz, Antonia Descarga, goizuetarra zen.

Ezkonberritan emaztearen etxean bizi izan ziren Amaran. Alde Zaharrean ere bizi izan ziren. Hainbat ofizio ageri dira erroldetan Pedro Mari Otañorentzat: dendari, enplegatu, eskribau, tabernari, etab. Donostian bizi zen bitartean, *Euskal-Erria* aldizkariko kideekin harremanak izan zituen: Martzelino Soroa, Biktoriano Iraola, Frantzisko Lopez Alen, Ramon eta Pepe Artola, Antonio Arzak, Jose Zapirain, etab. Donostian bizi izan zen hamarkada eskasean literatur lehiaketetan parte hartzen hasi zen eta sariak irabazi ere egin zituen[527]. 1895ean *Zerbait* bertso liburua argitaratu zuen Donostian.

1898ko urtarrilaren 26an familia guztiarekin itsasoratu zen Pasaiako portuan Ameriketarantz. Urtebete egin zuen bertsorik osatu gabe. Azken bidaia honetan Felix Ortiz y San Pelayo Azpeitiko musikaria ezagutu zuen, Argentinan bizi zena. Elkarlanean hasi ziren biak: Otañok bertsoak eta Felixek musika egiten zituen. Lankidetza honi esker, sortu, argitaratu[528] eta estreinatu[529] zuten "Artzai mutila" opera 1900. urtean. Argentinan zeuden euskaldunek argitaratzen zuten *La Vasconia*[530] aldizkarian ere hartzen zuen parte Otañok.

1904. urtean *Alkar* bertso liburua ere argitaratu zuen Argentinan[531]. Liburu hau argitaratutakoan saiatu ziren Gipuzkoa aldean Foru Aldundiari Pedro Mari Otañorentzat lanpostu bat propio sortu zezan eskatzen –kantu zaharren biltzaile eta agirizain bezala- baina ez zen lortu, Antonio Zavalaren hitzetan: "*Pero los diputados carlistas no podían hacer nada por el poeta que era liberal, y los diputados liberales no podían hacer nada por el poeta que era un desordenado*"[532]. *La Voz de Guipuzcoa*n diru bilketa egin zuten Pedro Mari Otañori laguntzeko.

1907. urtean "Lora" opera idatzi zuen, nahiz eta argitaratu ez. Antonio Zavalak Otañoren eskuizkribuen artean aurkitu zuen lan hau.

Buenos Airesen "Laurak Bat" elkarteak enkargua eginda euskara irakasle aritu zen[533]. Ikasle gutxi zituela eta, bertan behera utzi behar izan zuen lan hau, eta

---

[527] 1897ko Donibane Loizuneko euskal festetan 2. saria, 1894ko Donostiako euskal festetan "Uxua" bertso sailagatik saria, 1896ko Arrasateko euskal festetan bi sari "Aitona gizagaisoa" eta "Kubako gure anaiai" bertso sailengatik, 1897ko euskal festetan saria "Anaitasuna" bertso sailagatik, etab.

[528] *La Baskonia*-n argitaratu zen zatika, baita ondoren, gaztelaniako itzulpena ere. Liburuxka eran ere argitaratu zuten. Musika ez da kontserbatzen.

[529] Buenos Airesko Teatro La Victorian 1900. urteko otsailaren 18an.

[530] Gero *La Baskonia* izango zena.

[531] 1930ean Aitzolek berrargitaratu zuen Euskal Herrian.

[532] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 241. or.

[533] Gramatika lan bat ere idatzi zuen euskara eskoletarako.

honekin batera, Buenos Airestik Santa Feko Rosariora joan zen bizitzera familia osoa.

1910. urtean hil zen Santa Fe probintziako Rosario barrutian dagoen Perez herrixkan, dirudienez, etxeko eskaileratan erori eta kolpea hartuta.

Familia tronkalaren esperientzia bizia izan zuen gizona izan genuen Pedro Mari Otaño. Ernioko munduan jaioa, familia liberalekoa, hezkuntza balioesten zuen kabian hazi zen. Arrazoi politiko eta ekonomikoengatik hirutan Ameriketara joan beharra izan zuen: emigrazioaren errealitateaz jabetzen lagunduko digun bertsolaria izango da Pedro Mari Otaño, eta Amerikak Euskal Herrian izan zuen eragina ulertzen lagunduko diguna.

## 4.3.P.M.Otañoren bertso produkzioa

Pedro Mari Otañoren bertso produkzioan jarritako bertsoak dira nagusi. Donostian 31 bertso sail eta Argentinan 43 osatu zituen (guztira 334 orrialde betetzen dituztenak). Bere bizitzari lotutako pasadizo eta kontakizunak, 35 bat dira (187 orrialde betetzen dituztenak). Guztira, 109 esanahi unitate, 531 orrialdetan[534].

Gaikako antolaketari bagagozkio, 10 bertso sail ditu naturari lotuak, 22 demografia eta familia gaiei buruz (emigrazioaz, batez ere), 2 ekonomiaz, 13 gizarteaz, 21 politikaz eta 46 mentalitateei lotutako gaiei buruz (Euskararen inguruan, batez ere)[535]. Hitz kopurua kontuan hartzen badugu, 38.516 ditugu[536].

Pedro Mari Otañoren bertsoak lehenengoz irakurri genituenean, hainbat gauzek deitu ziguten atentzioa: gai berriak zekartzan Pedro Marik bertsoetara (euskararen egoera, historia, pertsonaia historikoak, paisaia, gai politikoak, etab.), forma berriak ere bai (lehiaketetan parte hartzen zuen, neurri berriak erabiltzen zituen, musika instrumentuen laguntzaz kantatzeko bertsoak osatzen zituen, bi opera ere bai, etab.), eta hizkuntza zahar berritua eta zaindua[537] erabiltzen zuen (familiari lotutako kontzeptuak erabiltzen zituen, adibidez, Euskal Herriaz hitz egiteko). Gaztelaniaz ere ongi moldatzen zen[538]. Doktorego tesi honen laugarren atal

[534] Ikus 1. eranskina.
[535] Ikus "Iturriak eta metodologia" ataleko 1.3. puntuan dagoen 1. koadroa.
[536] Ikus, toki berean, 2. koadroa.
[537] Ezin esan gabe utzi gerra, bakea eta udaberriaz ari dela, Lizardi nola gogorarazten digun. Ikus: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 484. or.
[538] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 128. or.

nagusian saiatuko gara Pedro Mari Otañoren diskurtsoa Gipuzkoaren modernizazio prozesuaren baitan kokatzen.

Zer esaten ote zuen Pedro Mari Otañok bere bertsogintzari buruz? Zein helburu agertuko ditu, zertarako erabiliko ditu bertsoak? Hasiera batean, eskutitz gisa, Ameriketatik Zizurkilgo familiari bere berri emateko erabiliko ditu bertsoak: *"Zer kontatuba pranko badaukat / ondo esango banitu, / bañan guztiyak karta batian / eziñ litezke kabitu"*[539]. Lagunartean ere eskuartean erabiltzen zituzten idatzitako bertsoak: *"Beti oitura deran bezela / juan dan larunbatian, / lantegitikan atera eta / afaltzera bitartian, / Lenguxu-nera juan nintzan ta / sartu orduko atian, / Pakok sei bertso eman zizkidan / papertxo txuri batian, / esanaz: <Ia asmatzen dezun / zeñek moldatubak diran>"*[540]. Pedro Mari Otañok bertsoak barrua horretarako duenean egingo ditu, hau da, triste eta ilun dagoenean, utzi egingo dio bertsoak egiteari: *"Aita ta anaia ill / ziran ezkeroztik, / bertsuak illunpian / gelditu zaizkit; / nola etzetorkidan / iñondikan pozik, / zure oroimen onak / ederki datozkit; / oraiñ ere ortik, / gure sorlekutik, / betiko txokotik, / lagun zarretatik… / Guztiyai eskumuñak / gure partetik"*[541].

Horretaz gainera ikusi dugu literatur lehiaketa ugaritara aurkeztuko dituela bertso sailak Otañok eta aldizkarietan ere argitaratzen zituela. Esan bezala, bertsoak musikatu ere egiten zituen eta liburuak argitaratu ere bai. Bertsoa esparru berrietara eraman zuen beraz Pedro Mari Otañok.

Ez du bere bertsogintzaz azalpen esplizitu gehiegi egiten. Idatzitako bi liburutan, honakoak aurkitu ditugu. 1894an eskuizkribu eran hasi zuen liburuan, honela zioen: *"Ikusirikan ugaritutzen / dijoazkidala lanak / eta aztutzen dirala noizbait / izkribatzen ez diranak, / liburu ontan jarri nai ditut / gogoratzen zaizkidanak, / gaur edo bigar nire semeak / ikasi ditzaten danak"*[542]. Ea *Alkar* liburuaren hitzaurrean berriz, 1904an, honela dio: *"Batek egiñ nai luken guztiya / nola ez daukan aukeran, / borondatia badaukat baño / asko ez nezake eman; / liburutxo bat izkribatu det / Gipuzkoako izkeran, / zuek esango dezute ondo / edo gaizki egin deran; / irakurliak, barka zazute / ez badago txit naieran, / eta lagundu dezagun elkar / ia indartutzen geran"*[543].

---

[539] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 184. or.
[540] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 360. or.
[541] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 77. or.
[542] 1894an idazten hasitako *Pedro Maria Otañoren oroimenak* eskuizkributik hartua. Eskuragarri: http://barrena.zizurkil.eu/libros/08-El libro atado.pdf [2013ko otsailaren 20an ikusia]
[543] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 150. or.

Nahi izanez gero, "Auntza larrera" ipuintxoan agertzen den pertsonaietako bat bertsolaria izanik[544], Pedro Mari Otañok hura nola ezaugarritzen duen ere ikus daiteke.

# 5.Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txirrita (Hernani, 1860-Altza, 1936): etxegabetutako maiorazko mutilzahar arlotea

Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txirrita, Hernanin jaio zen Latze baserrian 1860. urtean. Hamahiru bat urterekin Errenteriara bizitzera lekualdatu zen Lujanbio familia, bizi ziren tokian fabrika eraiki behar zutela eta. Maiorazko izanik ere, aitak ez zuen baserria bere esku utzi: gaztetatik parrandazalea, hargin lanak eginez irabazi zuen bizimodua –bertsolari gisa irabazitakoak ere lagunduko zion-. Bertso ugari bota eta jarritakoa dugu Txirrita: aztertu ditugun bertsolarietan oparoena.

## 5.1.Txirrita: nor zela esaten dute?

Txirritaren berri ematen duten liburuen artean guk oinarri hartuko duguna Auspoaren Sail Nagusian Antonio Zavalak argitaratutakoa da[545]. Txirritaren iloba zen Jose Ramon Erauskin Lujanbioren laguntza ezinbestekoa izan zuen Txirritak aurrena –bertsoak paperean jartzen laguntzen zion ilobak-, eta Antonio Zavalak gero –Auspoako liburuak osatzeko-.

Antonio Zavalak lagungarri izan zituen baita ere errepublika garaian Makazagak argitaratutako *Txirritaren Testamentua,* eta Makazagak berak astero argitaratzen zuen hiru orrialdetako *Bertsolariya* aldizkaria. Txirritak parte hartu zuen aldizkari horretan.

Eta zer diote Txirritari buruz bertsolaritzaren aztertzaile klasikoek? Manuel Lekuonak Txirrita bere lanetan aipatzen du. *Literatura oral vasca* liburuan, 1935an

[544] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 89. or. eta hurrengoak.
[545] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit. Aurretik ere ale bat baino gehiago eskainia zion Antonio Zavalak Txirritari Auspoa Sailean: 18. eta 19. aleak, bai eta 101-102, 103-104 eta 126.ak ere.

bertsolari txapelketan parte hartu zuenekoa eta Fernando Amezketarrari jarritako bertsoak jasotzen ditu[546].

Antonio Zavalak berriz, bere *Bosquejo de historia del bersolarismo*[547] lanean, lau orrialde eskaintzen dizkio Txirritari. Herrian utzitako arrastoa azpimarratzen du Zavalak. Zergatik, ordea? Bertsolari ona zelako, umore handikoa, eta batez ere, bertsolari gisa herriari bere bizitza eskaini izanagatik. Txirritari buruz entzundako epai baten berri ematen digu Zavalak bere lanean:

> *"Siempre me gusta hacer caso de los juicios del pueblo, y hace poco oí sobre Txirrita este juicio que, expresado precisamente con humor de bersolari, me pareció muy exacto. Me dijeron: "Se dice que Txirrita fue un vago. Es todo lo contrario. Fue un gran trabajador en su verdadera profesión, en la de bersolari. Pero como no podía siempre ganarse en ella la vida, tuvo que ejercitar otro oficio, el de cantero, al que recurría lo menos posible para no perjudicar a su verdadero trabajo, el de bersolari, que era al que se debía". Repito que todo esto es la pura verdad"*[548].

Bertso idatzi kopuru handienetakoa egin zuen bertsolarien artean aipatzen du Zavalak Txirrita eta honi gertatutako pasadizoak eta bapateko bertsoak ere aipagai ditu.

Bere izakeraz eta bertsolarien artean betetzen zuen tokiaz esaten dizkigunak interesatzen zaizkigu gehien:

> *"A Txirrita, como a otros muchos bersolaris, se le moteja de arlote. Es que son hombres diferentes a nosotros, a los que necesitamos poner un epíteto peyorativo o ridículo para no quedar nosotros mal. Es el eterno pleito que se refleja en la vieja fábula de las hormigas y la cigarra, escrita –esto es cierto- por las hormigas con un mezquino y desagradecido espíritu de envidia y venganza hacia aquella cuyos cantos –esto también tiene que ser cierto- se habían detenido a escuchar más de una vez como el mejor solaz en su vida de esclavas"*[549].

Eta pixka bat aurrerago, kapituluaren amaieran: "*…debe ser considerado como el último gran bersolari al modo tradicional*"[550].

Aita Santi Onaindiak eskolatu gabeko bertsolarien artean kokatzen du Txirrita[551]. Aita Zavalari egiten dio erreferentzia nagusiki eta honen lanak jarraitzen ditu Onaindiak Txirritari buruz esaten dizkigunetan. Zer da azpimarratzen duena?

---

[546] Lehenengorako ikus, LEKUONA, M.: "Literatura oral vasca". In: *Idazlan guztiak,* op. cit., 325-326. or; eta bigarrenerako, leku berean, 399-405. orrialdeak.
[547] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit, 162.-165. or.
[548] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit, 162.-163. or.
[549] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit, 163. or.
[550] ZAVALA, A.: *Bosquejo de historia,* op. cit, 165. or.

> *"Bertsolariaren nortasuna, asko beintzat, izamenean dakarren kezka agertzean dagoala ezin uka daikegu. Txirrita'k, berein kezkaren naasian, miñetan erabillena ezilkortasuna eban: gizaki andiena berau. Irugarrena lez ei dogu entzutearen bizitza, geure ertilanetan iraun-miña. Gurean larregi nabarmentzen eztan alderdi eder batek dizdiz dagi gizon onegan. Bizi-zoriari jarraituki, zaartuaz joian pizkaka, eta gogolari zan ezkero, ba-ekian gizaki-ospearen aultasuna. Norbait eriok daroa, ta aren gomutarik? Kea baizen uzter bai da giza-bizitza. Adur illuna ziñez! Txirrita'k ba-eban, zartzarokoan, ilgo zanaren susmoa; baiña "ni ilda gero be, nire bertsoak kantauko dira", iñoan berak"*[552].

Onaindiak azpimarratzen duena, Txirritak zuen hilezkortasun kezka da. Lerro batzuk aurrerago, Txirrita goraipatu egiten du, haren akatsak gogoratu ondoren. Hala ere, nahiz eta gaztetan akatsak egin, *"Dana dala, akatsok ezagutu ondoren, bere bizitza ontzen saiatu zan alegiñean, azken-urteetan batez be"*[553]. Zertatik defenditu behar ote zuen Aita Santi Onaindiak Txirrita? Zergatik bertsolari harenganako era honetako hurbilpena?

Arestian aipaturiko hilezkortasun kezka horretaz gainera, Txirritaren mutil-zahar izaerari ere egiten dio erreferentzia Onaindiak.

> *"Arrobi-zulo ta mendi-ertzetan lanari atxikia baiño, bere etorri ugaria bertso-kantuz inguruetako sagardotegietan erakutsi naiago eban aurki. Txikitua eskuan, ari ta oni zirtoka aldia erre, ori zan bere gogozkoen. Gau-zale ta parrandari genduan, mutil zarrik geienen antzera. Gisa orretan bikain aizatu oi ebazan ango ta emengo andre, neskazar, sorgin, adu gaiztoko, mutil arlote ta gizon txerbelak. Eta ementxe datza, ain zuzen, Txirrita'ren eskolak dauan bereizkuntzarik nabarmenena. Nik ori uste behintzat"*[554].

Txirrita eta Bilintx konparatu ere egiten ditu. Txirritaren bertsoak latz eta sarkorrak direla esango digu eta Bilintxenak berriz, gozo eta samurrak. Bertsolari bakoitzaren bertso bana jasotzen du bere lanean irakurleak konparatu ahal ditzan.

Txirritaren atalaren bukaeran, gogoeta interesgarria egiten du *Gure bertsolariak* lanaren egileak. Bada bertsolarien aztertzaileen artean hauek bikoteka antolatzeko joera. Basarri eta Uztapide, Mattin eta Xalbador, Enbeita eta Txirrita. Hona Aita Onaindiak dakargun hirugarren bikotea. Bertsolari eskolatu batek eta eskolagabeko batek osatzen dute bikote hori gehienetan, hizkuntza eta gai jasoagoak darabiltza lehenengoak, "herrikoiagoak" besteak, poesiara hurbiltzen da gehiago lehenengoa, umorea eta ziria erabiltzen du gehiago bigarrenak, etab. Hala ere, aztertzaile guztiek

---

[551] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 275.-280. or.
[552] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 275. or.
[553] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 276. or.
[554] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 278. or.

azpimarratzen dute bikoteko partaide biak direla beharrezkoak eta herriak onartuak, bai eskolatua dagoen herriak, baita eskola apalagoa duenak ere. Bitasun edo dualismoa bertsolarietan eta hauen hartzaile eta aldi berean moldatzaile den herri anitzean ere.

Gatozen Txirrita eta Enbeitak osatutako bikotera. Zer diosku Onaindiak?

> "[Txirritaz ari dela] *Berezko jitez ta jakituriz asea, euskal baserritar askoren erara nunbait; bertsorakoan, erantzun erosoa miiñean gertu eukona. Bere gogoa, euskal gogo berezia, bertso-arietan pilpilka itxi euskuna. Txirrita, bere eskola dauana, berezi ta jatorra; bere itzala dauana, ta itzalpe orretan ainbat bertsolari ibilli dira ta dabiltz, eguzki biran izarbelak antzo. Itzal bi, Enbeita'rena ta Txirrita'rena; bata eskolatuena ta eskola bagekoena bestea. Oso apartekoak? Ba-leiteke.(…) ernaniarra, be, erri-erakarle, umore oneko, ziri-sakatzaille, maltzur, zorrotz, trakets. (…) Txirrita'rena baleiteke errikoiagoa ta onen izaera bereziari obeto dagokiona*"[555].

Juan Mari Lekuonak Txirritari buruz horrela esango digu: "*Maila harrigarriko bertsolaria dugu hernaniarra. Ez bere tipologiagatik edo bere ateraldiengatik, oso sonatuak ziren arren Hego Euskadin bere esaldiak eta bere ibilerak. Txirrita dugu ahozko tradizioaren gordailurik apartekoenetako bat, eta poesi teknika zaharrak hobekien erabiltzen dakiena*"[556].

Joanito Dorronsorok Txirritaren garaiari (1910-1936) kapitulua eskaintzen dio, bere liburuko azkena[557]. Honen ateraldiak eta bertsopaperak jasotzen ditu bertan. Gugandik hurbilago Juan Garziaren lana ere aipatu behar dugu[558].

Hauek guztiak jaso ondoren, zer azpimarratuko genuke? Txirrita bertsolaritzaren aztertzaile guztiek aipatzen duten bertsolaria da. Kasu honetan, Pello Errotarenaren antzera, bere umorea eta ziri bertsoetarako gaitasuna da gehien aipatzen dena. Honetaz gainera hauek dira behin eta berriz agertuko zaizkigunak: bere mutil-zahar izaera eta bere bertsotarako gaitasun handia. Bertsolari "tradizional" gisa agertua izango da eta ahozko tradizioaren aparteko gordailu gisa.

Pello Errotaren antzera, Txirritari buruz ere bere "aldeko" defentsa eginez aurkituko ditugu bertso aztertzaile batzuk. Jaso ditugun Antonio Zavala eta Aita Santi Onaindiaren hitzek hori agertzen dute. XX. mendearen lehen herena bete-betean bizi izan zuen Txirritak. Gipuzkoan modernizazioaren olatua ere etorria zen

---

[555] ONAINDIA, S.: *Gure bertsolariak,* op. cit. 280. or.
[556] LEKUONA, J. M.: *Ahozko euskal literatura,* op. cit., 101. or.
[557] DORRONSORO, J.: *Bertsotan. 1789-1936,* op. cit., 203.-297. or.
[558] GARZIA GARMENDIA, Juan: *Txirritaren baratzea Norteko trenbidetik.* Irun: Alberdania, 1997.

eta gizartea ez zen jadanik XIX. mendekoa[559]. Txirritari XIX. mendetik edo XX. mendetik begiratu, modernizatu aurreko edo ondoko gizartean indarrak non jarri, era batera edo bestera ikusiko dute. Paragrafo batetik bestera, bere bizia herriari eskaini zion bertsolari izatetik, arlote gisa izendatua izatera pasa daiteke.

Atentzioa jarri nahiko genuke beste honetan ere: Txirritaren aldeko defentsa egiten denean, ez ote da gizatalde batena egin? Hau da, Txirritaren profilarekin identifika daitekeen "euskal baserritar"aren irudia ez ote dira ari erreibindikatzen? Ikusi egin behar zer zen Txirritak berak zioena, zer berataz ondoren esan dena.

## 5.2.Txirritaren bizitza[560]

Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txirrita, 1860ko abuztuaren 14an jaio zen Hernaniko Latze edo Latze-zar baserrian[561]. Aitak Bautista zuen izena eta Hernanikoa zen[562]. Aitaren gurasoak, Pedro Lujanbio eta Paskuala Ganborena ziren, hauek ere Hernanikoak. Txirritaren ama[563], berriz, Oiartzungoa zen. Amaren aitak, Txirritaren aitonak, Inazio Retegi zuen izena eta oiartzuarra zen eta amaren ama, Frantziska Iraola[564], errenteriarra.

Zazpi senide omen ziren Txirritaren etxean: arreba zaharrena, Josefa Inazia[565] zen (1858-II-11). Bigarrena zen Txirrita. Eta handik behera: Migel Jose (1862-XII-23), Juan Maria (1865-XII-4), Maria Aszension[566] (1867-XI-20), Juana Bautista[567] (1870-IV-6), eta Isabel Bizenta[568] (1872-XI-5). Lau arreba hauetatik bi, neskame ibili ziren.

Txirrita Latzen bizi izan omen zen 13 urte bete arte. Gero, fabrika bat altxatzeko, bota egin zuten Latze. Familia Errenteriako Txirrita baserrira joan zen maizter bizitzera: handik zetorkion Jose Manuel Lujanbiori Txirrita goitizena. Baserri hau

[559] Lehenengo industrializazioa emango da bete-betean Gipuzkoan XX.mende hasieran.
[560] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 15.-252. or.
[561] Antonio Zavalaren arabera, ba omen zituen 8 km etxetik kalera.
[562] Itsututa hil omen zen 73 urterekin. Hil artean Juan Mari semearekin eta honen emazte eta seme-alabekin bizi izan zen. Familia tronkalaren adibide garbia dugu hau ere.
[563] Hau ere seme eta errainarekin eta hauen seme-alabekin baserrian bizi izan zen. Erraina hil eta iloben kargu egin behar izan omen zuen, gainera. 79 urterekin hil omen zen.
[564] Txirritaren amaren ama, amona ere, Txirrita baserrian bizi izan zen, 85 urterekin pneumoniaz hil zen arte. Tronkalidadea lehenagotik zetorren, beraz.
[565] Ameriketara joan, han ezkondu eta hil ere bertan egin zen.
[566] Bizente Mendizabal kontratistarekin ezkondu omen zen.
[567] Hau ere Ameriketara joan zen. Hamar bat urte bertan bizi ostean, Ameriketatik bueltan, Axentxirekin bizi izan omen zen.
[568] Jose Manuel Erauskin, Altzako Gaztelueneko maiorazkoarekin ezkondu zen. Hauen etxean eman zituen Txirritak bere bizitzako azken 15 urteak.

San Markos mendi azpialdean omen dago. Bertan ikasiko zuen hargintzan Txirritak.

Antonio Zavalak Jose Manuel Lujanbio Txirritan bizi zeneko gazte garaiko hainbat kontu biltzen ditu bere liburuan: karlisten Bigarren Gerratean aitaren ordez nola joan zen herriko guardiak egitera, bere burua horretarako eskainita; zenbat eta zenbat parranda egin zituen; horregatik, agian, nola nahiz eta maiorazko izan aitak ez zuen haren eskuetan baserria utzi[569]; neskaren batekin tratuan ibiliagatik, mutilzahar nola geratu zen, etab.

Hargina zen Txirrita. Bere ofizioagatik, hainbat tokitan ibili zen lanean: Errenteria, Hernani, eta Irun aldean baina baita Bilbao, Zaragoza eta Frantzia aldean ere –presak egiten, edota trenbide ertzeko paretak, etab.- . Kanpoan lanean zen bitartean ostatuz ostatu ibiltzen zen. Lanaz gain, parranda ere maiz egiten zuen: sagardotegi eta karta joko zalea omen zen. Bertsotan ere maiz ibiltzen zen herriz herri.

Hirurogei urte inguru zituela, herrendu egin zen Txirrita, eta lanerako ez zela geratu zen. Mutilzahar izaki, zer egin? Bere bizitzako azken 15 urteak Altzako Gazteluenen egin zituen Txirritak, arreba gazteenaren etxean.

1936ko urtarrilaren 19an ospatu zen bigarren Bertsolari Eguneko irabazle izan zen. Urte bereko martxoaren 22an omenaldia egin zioten. Maiatzaren azken aldera, Goizuetara joan zen bertsotara. Han gaizkitu eta etxera, Altzara, eraman behar izan zuten bueltan. Hiru egunetan hil zen, medikuaren arabera, “hemorragia cerebral” batez.

Txirrita dugu maiorazko sistemaren eta familia tronkalaren kostuak lehenengo pertsonan bizi eta kontatuko dizkigun bertsolaria: maiorazko izanik, mutilzahartuta hil zena. Bestetik, Txirritari esker modernizazioaren aldaketen berri jasoko dugu -1936 arte bizi izan zen- baina doktorego tesi honen laugarren atalean ikusiko dugun bezala, modu berezi batez.

[569] Juan Mari anaia utzi zuen etxerako Txirritaren aitak –Txirritaren hurrengoa zen Migel Jose 24 urterekin hil zen-. Mutiletan hirugarrena zen Juan Mari horregatik egingo zuen maiorazko. Juan Mari, Donostiakoa zen Zezilia Etxebesterekin ezkondu zen. Hamaika seme-alaba izan zituzten –hauetatik hiru, haur zirela hil ziren-. Zezilia hamaikagarren haurra izaterakoan hil zen. Familia 1914an Altzako baserri batera lekualdatu zen.

## 5.3.Txirritaren bertso produkzioa

Txirrita dugu aztertu ditugun bertsolarien artean bertso produkzio oparoena duen bertsolaria. Jarritako 91 bertso sail baditu (246 orrialde betetzen dituztenak)[570] eta bere bizitzari eta pasadizoei lotutako 85 bat ere bai (232 orrialde betetzen dituzte hauek). Guztira, 176 esanahidun unitate[571], eta 478 orrialde.

Bertso sailak gaika antolatzen baditugu, 2 ditu naturari lotuak, 56 demografia eta familiaz (mutilzahar kontuak tartean), 20 ekonomiaz (laneko kontuak batez ere), 49 gizarteaz (bertsolarien artekoak ere hemen sartzen dira), 13 politikaz eta 32 mentalitateez (euskarari edo erlijioari buruzkoak tartean, edo gertakizun ezberdinei buruzkoak) [572]. Hitz kopuruari bagagozkio, 86.040 dira eskuartean erabili ditugunak[573].

Eta zer dio Txirritak bere bertsolari izaeraz? Zer bere lanaz? Lan gisa, horrelaxe izendatzen du Txirritak: *"Ernani'n jaiua naiz, / an bertan aziya, / Jose Lujanbio da / nire graziya. / Hamabost urterako / lan ontan asiya, / oraiñ Fermin Imaz'ek / eman ditu auziya. / Badakat sasoya, / gorputza lasaya, / billatutzen saya / non dan arrazoya; / sekulan enaiz izan / zure etsaya"*[574]. Bertsolaria justu samar ibiltzen omen da, ez omen du asko irabazten: *"Pello, jokatu dezu / hamaika apustu, / kulpa zeorrek eta / zertan zapuztu? / Bertsoetako lanak / badu franko kostu, / ontan ezin liteke / iñor aberastu. / Zabiltzate justu, / ez iñori ostu, / partitzia aztu, / lotsa asko eztu, / gizon gezurtiyari / mingaña moztu"*[575]. Bertsoak jarri ez ezik, saltzen ere ibiltzen omen zen[576] Txirrita. Bertsoak saltzea zen dirua irabazteko beste modu bat: *"Bertsuakin nai luke / orrek aberastu, / bai ezpalizkiyote / paperak ostu. / Kanpuan ibilliyak / badu milla gastu, / ezpaldin bazabiltza / konpasian justu. / Eran arte estu, / berak aldrebestu / egon zaitez prestu, / ez kopetik beztu; / muatzen dan monedik / iñork nai eztu"*[577]. Txirritak bazuen pertsonaia publiko bat izatearen kontzientzia. Ez zebilen oker beste hura kantatu zuenean: *"Gazte-gazterik asi nitzan da / oraindaño bitartian, / zenbait umore eder jarri det / Kantabria'ko partian; / pixka*

[570] Hauen artean bertsopaper gisa argitaratuak, *Txirritaren Testamentua* liburua eta *Bertsolariya* aldizkarian argitaratuak bereiztu behar ditugu.
[571] Ikus 1. eranskina.
[572] Ikus "Iturriak eta metodologia" ataleko 1.3. puntuko 1. koadroa.
[573] Ikus toki berean, 2. koadroa.
[574] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 332. or.
[575] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 270. or.
[576] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 264. or.
[577] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 333. or.

*batian ez naiz aztuko / sartuagatik lurpian, / nere aitamenak izango dira / beste laurogei urtian"*[578].

Bertsoak zertarako jarri? Zenbait bere jokabide desegokiagatik eskarmentatzeko*:* "*Alde batera kantak jartzia / ezta ederki egiña, / Jesus bezela pazientziaz / konpleto egon bagiña; / bertso oietan ezta gezurrik, / dena izketa berdiña, / lotsa ederra eman dit baño / artu dezala ordaña"*[579]. Era honetako bertsoek arazoak ere ekar ziezazkiekeen bertsolariei: "*Guri bertsua jartzia orrek / egin du pranko itxusi, / iñoren ere lizentzi gabe / gero kantatzen zan asi; / Zarautz'en nola portunatu zan / neronek nuan ikusi: / bi aguazillak kargu artuta / bere papera ta guzi, / preso sartuko ez baldin bazan / larri juan zan igesi"*[580].

Beste kasu batzutan, entretenigarri: "*Dozena bat bertso / nai nituzke jarri / jaietan kantatzeko / entretenigarri; / nire publikatzia / izango da sarri, / alabantzak emanaz / zenbait neskazarri"*[581], edo arrazoi erlijiosoengatik[582]. Gertakizunen berri emateko ere bai, egunkariek egiten zuten gisan: "*Au zan milla ta bederatzi egun / amairugarren urtian, / desgrazi ori gertatu zaiku / Valle Baztan'go partian; / mendi, elizak eta etxiak / bota zituen golpian, / len bistan zauden terreno asko / tapatu ziran ur-pian, / erakutsi du nai balin badu / zer egingo ligokian"*[583].

Bertsopaperak probintzia guztian –Gipuzkoan- jiran ibiliko direla esango digu: probintzia dute beraz espazio gisa helburu. Bai behintzat Pello Errotari jarri zizkion bertso haiek. Ikus: "*Pello bertsu oriyek / zuretzako dira, / probintziyan egingo / dutenak jira- / Gustoz egon ditezke / batzuek begira, / orain sendatuko da / zarraren erida. / Jar zazu segira, / artuaz medira, / egin eskojira / nai dezun tokira, / etzaitezela izan / nere kupira"*[584]. Probintzia espazio gisa indartzeaz gainera, herri komunitatea indartzeko ere balio zuten bertsoek[585].

Zein tokitan eta nola abesten zituen bertsoak Txirritak? Pello Errotaren tankeran, formatu ezberdinak aprobetxatu zituen Txirritak kanturako: eztaietan Artzai

---

[578] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 249. or.
[579] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit. 267. or. Helburu honekin bertso sail bat baino gehiago jarriko du Txirritak, Pello Errotaren antzera.
[580] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 305. or. 333. orrialdean ere jasotzen da antzeko egoerarik.
[581] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.) : *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 420. or.
[582] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 273. or.
[583] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 296. or.
[584] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 271. or.
[585] Ikus estropada kontuekin Orio, Donostia eta Getariako herriak elkarri jarritako bertsoak direla eta Antonio Zavalak kontatuak: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 303. or.

Txikiarekin abesten zuen[586], sagardotegietan[587], kopla kantuan etxez etxe[588], plazan beste bertsolari bati erronka jota[589], Donostiako Teatroan[590], herriz herri bertsotarako deitzen ziotenean[591], Santo Tomas egunean[592], Bertsolari Egunean[593], etab.

# 6.Jose Mari Lopetegi (Irun, 1875-Arrueta, 1942): Errepublikan sinetsi zuen gizon zuzena

Joxe Mari Lopetegi 1875ean jaio zen Irunen. Bigarren Gerrate Karlistaren berri bere aurrekoen ahoz jaso zuen, baita Irungo setioaren berri ere. Karlisten kontrako errepublikano konbentzitua izan zen: alderdi politiko errepublikarraren mitinetan bertsoak abesten zituen eta aldizkari errepublikanoetan bertsoak argitaratzen zituen. Euskaldunen batasunaren alde abesten zuen: Errepublikak batasun horren alde egin zezakeela sinesten zuen. 36ko Gerra Zibilaren garaian erbesteratu beharra izan zuen[594] eta han hil zen.

## 6.1.Jose Mari Lopetegi: nor zela esaten dute?

Jose Mari Lopetegiri buruzko informazioa eta bertsoak Joxan Elosegiren liburuari esker jaso ditugu gure lanean[595]. Antonio Zavalak ez zion bertsolari honi Auspoan libururik eskaini. Bertsolaritzaren historiari erreferentzia egiten dioten lan gehienek ere ez diote Jose Mari Lopetegiri aipamenik egiten. Ez ote zen inor? Ez bertsolaria

[586] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 97. or.
[587] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 100. or. Kasu honetan, bi bertsolariren arteko lehiaketa egin zuten bost epaile aurrean zituztela. Bertsolari mozkor bati buruz hitz egiten du Txirritak kasu batean -334. or.-.
[588] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 147-151. or.
[589] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 271. pr.
[590] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 332. or.
[591] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 332. or.
[592] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 339. or.
[593] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 199. or.
[594] Gure azterketan Gerra Zibila hasi bitarteko bertsoak hartuko dizkiogu kontuan Joxe Mari Lopetegiri. Aztertu ditugun gainerako bertsolari guztiek ez zuten gerrate hori ezagutu eta Lopetegi aparte samar geratuko litzaiguke haiengandik berak lantzen dituen gaiak besteek ezagutu ez zituztelako. Bestetik, Gerrate Zibilarekin momentu aldaketa nabarmena eman zela uste dugu, aldi berri bat hasi zela Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako historian. Horregatik, beste baterako utziko ditugu bertso hauek.
[595] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun, 1875-Arrueta, 1942).* Soraluze: Paper Hotsak, 2004.

behintzat? Zergatik? Bertsolari kontzeptuaren esanahiaren aurrean jartzen gaitu honek. Ez Manuel Lekuonak, ez Aita Zavalak, ez Aita Santi Onaindiak, ez Joan Mari Lekuonak ez dute aipatzen Jose Mari Lopetegi bere lanetan. Egia da Txirritari buruz Antonio Zavalak egin zuen liburuan ageri direla Jose Mari Lopetegiri egindako omenaldi batean Txirritak jarritako bertsoak[596]. Joxan Elosegik egiten dio aipamena honi.

Zeintzuk izan daitezke Joxe Mari Lopetegi bertsolaritzaren historiari lotutako lanetan ez agertzearen arrazoiak? Arrazoi formalak ote? Arrazoi ideologiko politikoak ote?

Arrazoiak asko izan daitezke eta segur aski ezin izango dugu bat bera ere ziurtatu. Zein eratako bertsolaria zen aztertu beharko dugu lehendabizi, eta zehatzago, ea bertsolari gisa kontuan hartua zen. Lagungarri izan dakiguke aztertu ditugun gainerako bertsolariekin konparatzea. Bertsoak jartzen zituela badakigu, iritsi zaizkigun gehienak ordea, egunkari eta aldizkarietan argitaraturik iritsi zaizkigu. Bertsoak idatzi besterik ez zituen egiten edo kantatu ere bai? Badirudi kantatu ere egiten zituela. Jendeak gogoan hartzen al zituen? "Herriaren" memorian gordeak izan al dira bertso hauek? Zein testuingurutan abesten zituen bertsoak eta zein gairi buruz? Aurrerago ikusiko dugun bezala, mitin politikoetan eta gai esplizituki politikoez, baita gerraz ere bertso ugari idatzi eta kantatu zuen Jose Marik. Bestelako bertsorik sortu zuen ez dakigu: orain artean behintzat guganaino ez dira iritsi. Testuinguru horretan abesten zituelako eta gai horietaz kantatzen zituelako, horregatik agian ez du "bertsolari" titulurik merezi izan? Isiltasun hau azaltzeko kontuan hartu beharko genituzken beste arrazoi batzuk arrazoi ideologikoak izan daitezke. Argi pixka bat egiteko lagungarri izan daitezke Txirritak Jose Mari Lopetegiri jarri zizkion bertsoak.

1931. urtean argitaratu ziren bertso hauek Errenteriako *Bertsolariya* aldizkarian[597]. Hona Txirritak nola aurkeztu zuen Joxe Mari Lopetegi:

> *"Jose Maria Lopetegi du / euskaldun batek graziya, / igeltseruen kontratista da, / Irun'en jaio ta aziya; / omenaje bat oso ederra / degu orrentzat asiya, / nik bertsuakiñ goratuko det / al nezakien guziya.*
>
> *Alde ortatik izandu diran / diskursolari guziyak, / esan dirate nola dituen / arriturikan utziyak: / orrek kantari bukatzen ditu / aiek izketan asiyak, / merezitubak izango dira / ematen zaizkan graziyak"*[598].

[596] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 483.-484.or.
[597] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 483.-484. or

Txirritak ematen digu zantzurik Jose Mari Lopetegi guztiek ongi ikusten ez zutenarena. Edo hori da behintzat guk Txirritaren bertsoetan lerroartean irakurri duguna. *"Euskal-erriko jende geienak / maite zaituen gizona"*[599], *"Ez dakit iñork emango dizkan / merezi ditun graduak"*[600], gisako esaldiekin horrelakorik nabaritu dugu. Jende gehienak maite du, baina ez denek; ez dute agian nahikoa baloratzen edo kontuan hartzen. Bertsoaldiko zazpigarren bertsoan Lopetegiren aldeko bertsoa osatzen du, entzuleak Lopetegiren hautu politikoaz konbentzitu nahirik: *"Euskal-erriko anai maitiak, / aditu nire esanak: / Lopetegi'ri gustatzen zaizka / lege ona ta zuzenak; / erri bakoitzak iru baditu / zu bezelako gizonak; / oraindik ere argi litezke / illunpian dabiltzanak"*[601].

Bertsoaldi bereko zortzigarren eta bederatzigarren bertsoak ere kontuan hartzekoak dira. Kriptiko samarrak gertatzen dira, subjektua aldatuz baitoa lerro batetik bestera:

> *"Bertsuakiñ ez asarretzeko / egiten dizut suplika, / nola dan gazte inozentia / Txirritak ez du kulpika; / norbaiten mende bizi biagu, / ortan ez dago dudika, / biar bezela ipiñtzen bada / ona da errepublika.*
>
> *Irun'go gizon onradu onek / au da itz egin duana, / pulamentuzko arrazoia ta / pozaz aditu nuana; / ez dakitenak enteratzeko / ez da denbora juana, / dudan dagona ikasitzera / etorri bedi gugana"*[602].

Garbi dagoena, zera da: Lopetegi eta errepublika banaezinak direla Txirritarentzat. Eta ez soilik Txirritarentzat, dirudienez, baita jendearentzat ere. Txirritak bertso hauen bitartez errepublikaren zilegitasuna eta aldi berean Jose Mari Lopetegi gizonaren zuzentasun eta ondra azpimarratu nahi ditu. Edo bestela esanda, Jose Marik pertsona gisa dituen ezaugarriek Txirritari errepublikan sinesteko konfidantza [603] nola ematen dioten adierazten dute. Hamar, hamaika eta hamabigarren bertsoetan ere goraipatzen ditu Jose Mari Lopetegi gizonaren ezaugarriak[604].

---

[598] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 483. or.
[599] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 483. or.
[600] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 483. or.
[601] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 484. or.
[602] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 484. or.
[603] "Biar bezala ipiñitako errepublika" esanda, zer esan nahi zuen galdetu beharko genioke Txirritari.
[604] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 484. or. Hamargarren bertsoan *"gizon gaixtua izan danikan/ez diyot entzun iñori"*; hamaikagarrenean, *"gizon onaren itxura dauka / gorputzian ta jantziyan";* eta hamabigarrenean, *"Leku askotan ikusi zaitut / umildadez ta pakian, / itz bat bakarrik atera gabe / projimuaren kaltian; / grazi eder au egiten zaitzu / aurten Irungo partian, / zure izena aitatuko da / beste larogei urtian".*

1931n argitaratutako bertsoak izanik, Txirrita hil baino bost urte lehenagoko kontuez ari gara. Une honetan Txirritak 71 urte zituen eta Lopetegik berriz, 56. Txirritak "gazte inozentia" dioenean, nori buruz ari da? Ez bata, ez bestea, ez dira gazteak. Hona Txirritaren ironia eta gauzak erdi-esanda edo esan gabe uzteko abilidadea, edo entzulea distraitzekoa.

Gure ustez, Jose Mari Lopetegik errepublikaren alde egindako hautu garbiak herritarrengan (bertsozalea zen herriaren partean esan beharko genuke?) nolabaiteko bazterketa eragin ziezaiokeen. Eskuindar gehiengoa izango ote da bertsozaleena? Txirritak horregatik "defendatu" egin beharko du Lopetegiren hautu politiko-ideologikoa bertsozaleen aurrean. Hau izan daiteke "herriak" eta aldi berean bertsolaritzaren historia egin dutenek Lopetegi bertsolaria beren memorietan eta lanetan jaso ez izanaren arrazoietako bat[605].

Omenaldi hartan Xanti Meabek poema hau egin zion Lopetegiri. Bertsolari honi buruz hitz egiten diguten iturri urriak izanik, jaso dezagun poemak dioena:

> *"Ciudadano Lopetegui: / bersolari el más famoso / de la tierra de los euzkos; / cantor festivo, afinado, / donoso, cortés y diestro; / el de las coplas que siembran, / el de labios que destilan / luces, escardes y riegos; / el de mirar transparente, noble y vasco; / el que lanza en cada verso / flores, semillas y surcos / que fecundan los senderos; / el del donaire y la risa; / el de los santos ejemplos; / el gladiador que cantando / con la seda y con la espina / del pentagrama poético / es pescador que cosecha / soldados, armas y adeptos / a la Causa de los Hombres / que lucharon y vencieron. / Recibe, en fin, Joxe Mari, / la expresión de mis fervientes / y generosos anhelos / de que goces de la dicha / y del humor, años luengos / en unión de esos <morroskos>, / de esos hijos de tu carne, / de tu alma y tu cerebro, / para bien de la república, / del euzkera y de tu pueblo, / de la Justicia demócrata, / que es Libertad y es Derecho, / de cuyo triunfo / los vascos liberales tanto esperan / para ser lo que antes fueron. / Libres de reyes y déspotas, / libres de obispos y cleros, / libres de las podredumbres / tiranas de almas y cuerpos"*[606].

Aztergai ditugun gainerako bertsolariekin konparatuz askoz ere gutxiagotan aipatua da, beraz, Joxe Mari Lopetegi. Hauxe bera bada nahiko berezitasun Joxe Mari Lopetegi gure azterketan kontuan izateko. Jaso dezagun hurrengo atalean Joxan Elosegik bildutakoen berri.

---

[605] Arrazoi formalak ere izan daitezke Lopetegi alboratzearen oinarrian: bertso jarriak aldizkarietan argitaratzen zituelako? Nagusiki gai politikoaz zirelako? Mitinetan abesten zuelako?

[606] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 148.-150. or.

## 6.2.J.M. Lopetegiren bizitza[607]

Joxe Mari Lopetegi 1875eko apirilaren 13an jaio zen Irungo Santiago kaleko lehenengo etxean. "Txiplau" deitzen zioten[608]. Joxe Mari Lopetegiren aita, Joxe Lopetegi, irundarra zen, Santiago kaleko etxean sortua. Mandataria zen ofizioz, mandatuak egiten zituen gurdizaina. Irakurtzen eta idazten zekien 1877ko erroldaren arabera. Ama berriz, Antonia Olaizola, baserritarra zen. Ez zekien ez idazten, ez irakurtzen, 1877ko erroldaren arabera.

Joxe Mari Lopetegi Bigarren Gerra Karlistaren garaian jaio zen. Bera jaiotzerako ordea, 1874ko azaroaren 11n, utzi omen zioten karlistek hiria bonbapean izateari. Hala ere txikitan askotan entzun omen zuen karlistadei buruz hizketan. 1936ko gerrak ordea, bete-betean harrapatu zuen.

Joxe Mari Lopetegik Irungo eskola publikoan ikasi zuen. Irakasle liberal ezkertiar eta masoia izan zuen, Tomas Campos. Tomas hau Gaztelan jaioa omen zen. 46 urtez izan omen zen maisu Irunen. Metodo berezia erabiltzen omen zuen euskaraz solik zekiten haurrei gaztelania erakusteko.

Joxe Mari Lopetegi Gillerma Bengoetxearekin ezkondu zen, Irungo Eraustieta baserriko alabarekin. Dirudienez, sei seme eta alaba bat izan zituzten[609].

Gaztetan lan desberdinak izan zituen Joxe Mari Lopetegik. Nafarroako Bera herrian eta Landetan, adibidez, pinuak botatzen ibili zen. Irungo zerrategi batean ere ibili zen lanean. Ondoren, igeltsero eta kontratista gisa aritu zen, Irun utzi behar izan zuen arte. Kontratista izanik, langileak zituen bere menpean: oso ona omen zen hauekin. Eraikin bat bukatutakoan, bazkari-afaria egiten zuten elkarrekin.

Errepublikarra zen eta errepublikaren alde agertuko da garbi: Errepublika federalaren alde, hain zuzen. Irungo udaleko zinegotzi errepublikano izan zen 1912 eta 1921 artean. Hiltegiko (matadero) barrutian aurkeztu zen beti: Urantzu-Ama Xantalen, Meaka, Behobia eta Bidasoa auzoetakoak izan ziren hautesleak. Eskuinak arlotetzat agertzen omen zuen Joxe Mari Lopetegi. Hona Irungo *El Buen Combate* astekari katolikoan agertutako pasartea, udaleko bilerak noiz egin izan zuten eztabaidari buruz:

---

[607] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 11-53. or.

[608] Joxan Elosegik ez du aurkitu izengoiti honen arrazoirik: Hondarribiko erreka baten eta bi baserriren izena omen da, baina ez du aurkitu hauek Joxe Mari Lopetegirekin izan zezaketen loturarik.

[609] Joxan Elosegik ez dio Antonio Zavalak hainbeste garrantzirik ematen familiako datuak jasotzeari.

> *"...y aquí se oye la voz chillona del señor Lopetegui que dice, esa hora es muy buena porque nosotros terminamos los trabajos a las siete y ya necesitamos una hora para descantzar y senar. (Hilaridad general)*
>
> *Sin embargo no todos abundan en la misma opinión, se le dá un nuevo toquecito al señor Martínez y se anticipa la sesión otra hora más. Entonzes -dice el señor Lopetegui- tendremos que venir sin descantzar ni senar. (Risas)"*[610].

Udaletxean aritu zen bitartean, sindiko gisa herri lurrak zaintzeko ardura izan zuen. Joxan Elosegiren arabera, lurrak jauntxoei kendu (faltsuki bereak zituzten lurrak) eta herritarrei eman zizkien. Horretaz gainera, zuhaixkak landatu zituen herri lurretan eta belarra baserritarren artean banatzeko sistema asmatu zuen. Herri lanen zinegotzi arduradun gisa, herri lanak antolatzen ere aritu zen. Lehen mundu gerra zela eta, jendea Iruna etorri zen, gehienak langabe zeuden, eta egoera honen aurrean, Joxe Mari Lopetegik hirigintza lanak "asmatu" zituen hauentzat. Eskuinak, berriz, ez zituen gogoko Joxe Mari Lopetegiren lanak.

1931 eta 1933 artean, Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen mitinetako bertsolari ofiziala izan zen Gipuzkoan eta Nafarroa iparraldean. Francisco Bellido ekintzaile errepublikanoaren eragina eta Leon Iruretagoienarena izan zuen nagusiki. 1933tik aurrera, berriz, bertsoak argitaratzeari utzi zion (1933ko urtarrilaren 28an argitaratu zuen azkenekoa), *Irun Republicano* astekarian. Zergatik? Joxan Elosegik hainbat hipotesi agertzen ditu bere liburuan: Lopetegik 58 urte zituen orduan. Errepublikanoen artean, bi alderdi ari ziren nabarmentzen, erlijioaren inguruko jarrerak bereiztuak. Batzuek bere horretan utzi nahi zuten gai erljiosoa, besteek, berriz, ordena erlijiosoak kanporatu nahi zituzten. Errepublikazale eskuindar eta ezkertiarrak bereiztu ziren: batzuek liberal eskuindarren bidetik jo zuten, besteek ezkerreko indarren aldera egin zuten. Bien arteko harremanak hautsi zirenean, Lopetegik isiltzea erabaki zuen. Doktorego tesi honetako laugarren atalean ikusiko dugun bezala, euskaldunen arteko batasuna gauza guztien gainetik balioesten zuen Joxe Mari Lopetegik: Errepublika batasun honen alde egiten zuen neurrian zen baliogarri Lopetegirentzat. Hala eta guztiz ere, Joxe Mari Lopetegik harreman ona mantendu zuen ezkerreko errepublikanoekin.

Errepublikarren mitinetan bertsoak abesteaz gainera, Joxe Mari Lopetegi eta bere bi seme behintzat errepublikar aktibistak ere izan ziren. Badirudi Joxe Mari Lopetegik parte hartu zuela -ez zuzenean- 1930eko abenduaren 15ean gazte errepublikanoek eta ezkertiarrek Donostian Gobernu Zibila armaz hartuz hasiera eman nahi izan zitzaion matxinadan. Semeek zuzenean parte hartu zutenez, Hendaiara pasa behar

[610] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 23. or.

izan omen zuten poliziek ez harrapatzeko. Joxe Mari Lopetegiren etxea erregistratzera etorri omen zen polizia.

Nolakoa zen Joxe Mari Lopetegi? Zein zen bere izaera? Dirudienez, alaia eta kantuzalea zen, "festa zale gogorra"[611]: ihauteriak, zezenak, etab. gustukoak zituen. Lagunartean egotea ere gustatzen zitzaion. Txirritak kantatutako bertso batzuen arabera –lehen ere jaso ditugu aipu batzuk- gizon zuzen eta koherentea zen Lopetegi[612].

Ez dugu uste ateoa zenik, baina eliz erakunde eta elizgizonen gehiegikeriak ez zituen onartzen, eta hauen kontra hitz egin eta kantatzen zuen.

Gerra zibila hurbiletik bizitzea gertatu zitzaion[613]. 1936ko uztailaren 19an, Irungo ateetara iritsi ziren tropa frankistak. Joxe Mari Lopetegik, 61 urterekin, hiriaren defentsan lagundu zuen. 45 egun behar izan zituzten frankistek Irunen sartzeko. Irailaren 4an, Hendaiara pasa zen Joxe Mari Lopetegi. Hendaian zegoela, bertsoak idazten eta kantatzen hasi zen berriz[614], baita argitaratzen ere[615]. Hendaiatik Lannemezanera lekualdatu zen (1939ra arte, behintzat, han izan zen). Naziak Frantzian sartzerakoan, Baxenabarreko Amikuzera, Arrueta-Sarrikotara joan zen Joxe Mari Lopetegi. Garai honetan sortu zituen argitara eman zituen azkeneko bertsoak, 1940ko ekaina eta iraila bitartean, Ameriketako *Euzko-Deya* aldizkarian azalduko zirenak. Orduko dokumentuetan saskigile gisa ageri da Lopetegi.

Joxe Mari Lopetegi Arruetan hil zen 1942ko ekainaren 2an, "Bideberri" etxean. Bertako hilerrian ehortzi zuten. Hil eta gero ere, frankistek multa jarri zioten Lopetegiri, 125.000 pezetetakoa, "erantzukizun politikoak" zirela eta. Familiak bi etxe saldu behar izan zituen isuna ordaintzeko.

## 6.3.J.M. Lopetegiren bertso produkzioa

Joxan Elosegik osatutako lanean Joxe Mari Lopetegiren 65 bertso sail aurkitu ditugu guztira, 215 orrialdetan[616] jasoak. Aurrez esan bezala, guk 1936. urte aurretik sortutako bertsoak aztertu ditugu gure lanean, beraz, 39 bertso sail dira aztertu ditugunak. Guztiak dira jarritako bertsoak.

---

[611] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 14. or.
[612] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 18.-21. or.
[613] Seme bat galdu zuen Erlaitzeko frontean eta anaia ere bai, frankisten eskuetan.
[614] Lehen esan dugun bezala, guk ez ditugu bertso hauek gure azterketan kontuan izan.
[615] *Euzkadi en Catalunya, Euzkadi Roja* eta *Tierra Vasca* aldizkarietan.
[616] Ikus 1. eranskina.

Bertso sailak gaika antolatzen baditugu, eta guk aztertutako 39 bertso sailak soilik kontuan hartuz, honako emaitza dugu: bertso sail bat demografia eta familiaz, 3 ekonomiaz, 7 gizarteaz, 30 politikaz, 19 mentalitateez (euskara, erlijioa, edota pertsona zehatz baten goraipamena eginez)[617]. 16.807 hitz[618] izan dira gutxi gorabehera eskuartean erabili ditugunak.

Garbi dago, beraz, politikarena dela eta diferentzia handiz, Joxe Mari Lopetegik gehien erabilitako gaia. Bigarren tokian, pertsona zehatzei egindako bertsoak ditugu, baina kasu askotan, errepublikar ziren lagunei egindako bertsoak ditugu hemen ere, zeharka, beraz, politika gaia aipatuaz[619]. Mentalitateari dagozkionetan euskararen inguruko edo kutsu erlijiosodun bertsoak ere aurkituko ditugu.

Zein toki betetzen zuen bertsolaritzak bere bizitzan? Gogoko omen zuen bertsoak entzutea, kantu eta olerki-bildumak irakurtzea. Gazterik hasi omen zen bertsoak jartzen eta bertsolaritza "irakasten" ere aritzen omen zen, agian informalki bada ere. "Irungo Atsegiña" elkartean lagunekin bertsotan aritzen omen zen. Eraikuntza obrak bukatzean, bizkar-festa egiten omen zuten eta afalostean bertso-kantari ere aritzen omen zen. Kantatzea, dramatizatzea, eta emakume eta gizon ahotsak imitatzea ere gustuko omen zuen[620]. Honetaz aparte, diskurtsoen bukaeran ere kantatzen omen zuen. Txirritak hala esaten digu: *"diskurtsuetan jayian / bere barrengo sentimentuak / adierazi nayian"*[621].

Arestian esandakoetaz gain, bertsoak jarri eta aldizkaritan ere argitaratzen zituen. Garaiaren arabera, aldizkari bat edo beste erabiliko du horretarako. Errepublika aldarrikatu aurretik, *Ibaizabal* (Bilbo), *Euskaria* (Buenos Aires), *La Nueva Frontera, Irun, El Bidasoa,* eta *Ecos del Jaizkibel* gisako aldizkaritan argitaratu zituen bertsoak. Errepublika garaian, aldiz, *Irun Republicano* aldizkarian. Eta gerra garaian, *Euzkadi Roja* (Bilbaoko aldizkari komunista zen), *Euzkadi en Catalunya* (Bartzelona), *Tierra Vasca* (ANV), eta *Euzko Deya*-n (Buenos Aires).

Lopetegik berak zer dio bere bertsokeraz? Utzi al zigun era honetako gogoetarik? Hona bere buruaz zer dioskun: *"Ibilli naiz ni Erririk Erri / praille zar baten moduan, / ezjakiñari nik al dedana / sartu nayean buruan; / ayek zakuak zerbaitez*

[617] Ikus "Iturriak eta metodologia" ataleko 1.3. azpiataleko 1. koadroa.
[618] Ikus toki berean, 2. koadroa.
[619] Hauek ere "mentalitateak" atalaren barruan kontatu ditugu guk.
[620] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 14.-17. or.
[621] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 20. or.

*bete / beti gezurra kolkuan, / aditzalleak, begira, ayetik nigana / zer diferentzi daguan"*[622]. Lehia politikoaz ere mintzatzen da bidenabar.

Mitinetan bat batean eta gero, batzuetan, idatziz, kronika antzekoak osatuko ditu aldizkarietan argitaratzeko:

> *"Juan dan igande arratsaldian / Astigarragako plazan, / anaitasun bat ain alaitsua / bilgumenetzat izan zan; / ingurutako erriyetatik / gizona lasai bildu zan, / itz eztitsuak entzun nayean / jendia galanki bazan, / beregatikan gertaera au / itz neurtuaz nai det esan.(…)*
>
> *Gero bertsutan mintzatu zaigu / Lopetegi Joxemari, / antxe jendiak oni entzunaz / par egin zuen ugari; / (…)"*[623].

Hauteskundeen propaganda nola egiten duen ere adieraziko digu: *"Agiriko da luzaro gabe / illan ogeita zortziyan, / biar bezala erantzungo da / sartzen dan paper zuriyan, / zitalkeririk batere gabe / bakoitzak geren erriyan, / lagun zayogun danok alkarri, / au galdetzen det itz biyan, / zorioneko zuatz ederra / gogor indartu deriyan"*[624].

Adiskide errepublikarrei egindako oroimen ekitaldietan nola abesten duen ere kontatuko digu: *"Egon nai nuan ixilli bañan / barrenak ez dit agintzen, / zerengatikan beti naizen ni / lagun guztiyaz oroitzen; / ordu geigi zen barru guztia / oyan zegolik sufritzen, / Irunak zuen argitasunik / argiyanetan bat il zen"*[625]. Barruak hala eskatuta osatuko ditu bertsoak Joxe Mari Lopetegik, lagun errepublikarrak goraltzeko.

Bestelako bertsorik ere kantatuko zuen Joxe Mari Lopetegik baina zoritxarrez ez dira gugana iritsi.

# 7.Laburbilduz

Doktorego tesi honen hirugarren atalean, gure azterketarako erabili ditugun bertsolariei buruz mintzatu gara, nagusiki: Juan Frantzisko Petriarena Berrondo (Errenteria, 1835-1869); Indalezio Bizkarrondo Ureña (Donostia, 1831-1876); Pedro Elizegi Maiz (Asteasu, 1840-1919); Pedro Mari Otaño Barriola (Zizurkil,

---

[622] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 151. or.
[623] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 122-123. or.
[624] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 104. or.
[625] ELOSEGI, Joxan (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 63-64. or.

1857-Rosario, Argentina, 1910); Jose Manuel Lujanbio Retegi (Hernani, 1860-Altza, 1936); eta Joxe Mari Lopetegi (Irun, 1875-Arrueta, 1942). Hau da, Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Kattarro, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegiri buruz. Hiru eratara hurbildu gara bertsolari bakoitzarengana: bibliografiak zer esan duen hari buruz, Antonio Zavalak edo Joxan Elosegik jaso dituzten datu biografikoak eta kontestuari lotuak jaso eta, azkenik, bertsolari bakoitzaren bertso produkzioari buruzko daturen bat eman. Hau guztia doktorego tesiko laugarren atalean azterketa sakonagoa egiteko: gogoan izan, gainera, laugarren atala gaika antolatua dagoela eta nahiz eta bertsoak aztertzerakoan bertsolari bakoitzaren egiletza gogoan izan, ardatza modernizazio prozesuak eragindako aldaketak eta hauek nola hautemanak eta kontatuak izan diren izango dela, identitate kolektiboaren gaiari erreferenzia esplizitua eginez.

Bertsolaritzaren historiari buruz eta bertsolari ezberdinei buruz idatzi duten autoreak kontuan hartzen baditugu, badira begietaratu nahi ditugun hainbat alderdi eta ondorio. Gaur egun bertsolari ezberdinei buruz informazioa jasotzeko ditugun lanak ez dira hainbeste. Kasu askotan, lan bat edo pare bat dira erreferentziazkoak eta gainerakoek erreferentziazko lan horietan ageri direnak jaso, errepikatu eta asko jota, osatzen dituzte.

Bertsolari bakoitzari buruz jasoa dagoen informazioari dagokionez, kantitatea kontuan hartzen badugu, ezinbestekoa da esatea euren bertsoak direla nagusiki guganaino iritsi direnak. Bestelako datu biografikoak, etab., ikertzaile zenbaiten ahaleginari esker jaso ditugu. Datu biografiko gutxi jasotzen dira –Antonio Zavalak Auspoaren Sail Nagusian gehiago eta zehatzago jasotzen ditu, baita Joxan Elosegik ere Joxe Mari Lopetegiri buruzko liburuan-, eta gainerako lanetan, batez ere bertsolariek erabiltzen duten teknika eta euskarari buruzko datuak dira biltzen direnak. Elementu hauek garrantzitsuak dira bertsolarien bertso produkzioa kokatzeko baina bertsoek ematen diguten informazioaren kantitate eta kalitatea behar hainbat ustiatu gabe dagoela uste dugu.

Hala ere, egia da, bertsolari batzuen izenak guregana iristeko hauei buruz idatzitako liburuek izan duten garrantzia. Ziur gaude, adibidez, Pello Errotari buruz Antonio Zavalaren laguntzaz Mikaela alabak liburua idatzi izan ez balu ez genukela orain hari buruzko hainbesteko ezagutzarik izango eta, modu berean, ez litzatekela hain gogoratua izango. Belaunaldiz-belaunaldiko transmisioan ahozko bertsoak eta

bertsopaperak liburuetara ekarri izanak iraunarazten lagundu die hainbat bertsolariri[626].

Halaber, ohartarazi nahi genuke, bertsolariei buruz hizketan ari garela, badirela konstanteki agertzen diren gaiak. Agertzen diren hauetatik, gure lanerako bereziki interesgarria delako, honako hau hautatu dugu: herriak bertsolariarekiko agertzen duen jarrera eta onespena.

Bere baitan alderdi ezberdinak biltzen dituen gaia da hau. Bertsolaritzaren aztertzaile batek bertsolari bat herriagandik hurbilago dagoela dioenean, zertaz ari da? Eta herri eskolatuaz eta eskolagabeaz ari denean? Eta baserria eta kalea bereizten dituenean? Eta bertsogintzari dagokionean usadioa eta berrikuntza bereizten dituenean? Bereizketa hauek bertsolariek eurek egiten al zituzten edo geroztikako kontuak dira?

Bertsolariei jartzen zaizkien etiketa gisakoak dira hauek. Elkarri lotuak ageri dira gainera, modu dikotomikoan antolatuta. Herriagandik hurbilen ageri den bertsolaria eskolagabea, baserritarra, eta usadiozko bertsolaritza egiten duena da. Herriagandik urrutirago kokatzen da bertsolari eskolatua, kaletarra eta bertsolaritzara berrikuntzak dakarzkiena.

Meritua zein bertsolarik izango dute? Eskolatuak, kaletarrak eta berrikuntzak egiten dituztenak izanik, herriagandik gertu izaten jarraitzen dutenak. Hauen artean kokatuko dituzte nabarmenki Bilintx eta Otaño. Biak izango dira eskolatuak, biak Donostiaren eraginpean bertsolari bezala onduak, biak hizkuntza eta bertsolaritzara berrikuntzak ekarritakoak.

Honi zeharka loturik, beste gai hau ere aurkitu dugu: bertsolariei buruz hitz egiterakoan aztertzaileek hartzen duten jarrera. Bertsolarien alde eta bertsolarien kontrako hitzak aurki ditzakegu eta bertsolarien aztertzaileek maiz bertsolarien defendatzaile papera hartzen dute. Guk aukeratutako bertsolariak kontuan hartzen baditugu, hau nabarmenagoa gertatzen da Pello Errotaren eta Txirritaren kasuan. Zergatik ote? Ez ote dira hauek "baserri" girotik gertuen dauden bertsolariak, "eskolatugabeenak", usadiozko bertsolaritzatik hurbilen daudenak, "arloteenak"? Bertsolarien aztertzaileek noren aurrean defendatu behar dituzte Pello Errota eta Txirrita? Eskolatzen ari den herriaren aurrean agian, edo hiritarragoa den herriaren

[626] Gure belaunaldiaren kasuan liburuez gainera hainbat kantarik –Xabier Lete, Antton Valverde, Mikel Laboa eta abarrek- bertsoak abestu eta diskoetan grabatu izanak eragin handia izan dute baita ere, ikastola eta bertso-eskoletan egindako transmisio lanaz gainera.

aurrean? Era honetako bertsolariek baztertuak izateko arriskua izango dute, alboratuak izatearena.

Gure doktorego tesiaren laugarren atalerako, hona beraz bertsolaritzaren aztertzaileek erakutsitako lezioa, bertsolariek esango dizkigutenekin bahetik pasa beharrekoa: aukeratu ditugun bertsolariak bizi eta bertsoak sortu zituzten garai hartan, herria gutxienez bi eratako herritarrez osatzen zen. Batzuk hirietan bizi ziren, eskolatuak ziren, berrikuntzei irekiagoak bizi ziren. Beste batzuk –gehiengoa?- herrietan bizi ziren, baserri giroari lotuagoak, eskolagabeak ziren eta usadioari lotuago ageri ziren. Bertsolariak ere bi kategoria hauetan sailka zitezkeen. Denborak eta urteek aurrera egin ahala, bi taldeen arteko tartea handiagoa egiten joango zen. Bi aldeak lotzen zituen soka eten ez zedin beharrezkoa izango zen bertsolari hiritar-eskolatu-berrizaleek bertsolaritzaren eta bertsoen formei eustea beren mezuak herriaren alderdi herritar-eskolagabe-usadiozaleenean oihartzuna izaten jarrai zezaten. Modu berean, bertsolari herritar-eskolagabe-usadiozaleek esfortzu bat egin beharko zuten herriaren alderdi hiritar-eskolatu-berrizaleenek aintzat hartzen jarrai zitzaten. Hau guztia Gipuzkoaren modernizazioaren testuinguruan ulertu behar dugu, eta batez ere, XX. mendeko lehen hereneko modernizazio prozesuaren bizkortzearen baitan.

Ikuspegi dikotomiko horretatik haratago, aberastu egin nahi genuke aukeratutako sei bertsolari hauenganako hurbilpena: sei bertsolari hauek XIX. mendeko eta XX. mende hasierako historian kokatu nahi genituzke, garai horretan Gipuzkoa bizitzen ari zen modernizazio prozesuan. Nolabait esateko, apalki, bertsolari zehatz hauen biografietatik bertsolaritzaren historia sozialera hurbildu nahi genuke, horretarako tresna gisa, sei bertsolari hauen bertsoen azterketa hartuz. Sei bertsolari zehatz hauek hartu izanak, eta hauek berekin dakartzaten hainbat biografia, famili-eredu, kontestu hiritar ala landatar, alfabetatze maila, lanbide, joera politiko, bizipen erlijioso eta esperientzia identitarioak kontuan izanez –bukatzear dagoen atal honetan uste dugu nahikoa nabarmendu ditugula sei bertsolari hauen berariazko ezaugarriak eta, bidenabar, beraien artean dauden desberdintasunak-, etengabe eraldatzen ari zen Gipuzkoako aldaketa anitz haiek jasotzen lagundu digutela uste dugu.

# LAUGARREN ATALA: DISKURTSOEN AZTERKETA

Bertsolari bakoitzaren berri eta horiei buruz esandako eta egindako balorazioak jaso eta bakoitzaren berezitasunak azpimarratu ondoren, euren bertsoen azterketaren emaitzak plazaratuko ditugu orain. Bertsoen azterketarako, ordea, ez dugu bertsolarikako emaitzen azalpena egingo, euren bertso guztiak batera kontuan hartu ondoren, lantzen dituzten gaien arabera antolatuko ditugu aztertutako bertsoen emaitzak. Zergatik? Errealitatearen azterketarako egokiagoa iruditzen zaigulako hau poliedro gisa kontuan hartzea. Aztergai ditugun sei bertsolariok modu ezberdinetara –modu dinamikoan-, bai, baina kanpotik begiratuta espazio eta denbora berberak bizi izan zituzten. Hori kontuan izanik, eta errealitatea poliedro gisa ikusirik, nahiago izan dugu bertsolari bakoitzaren produkzioaren berezitasunak orain azpimarratu ordez, bizi zuten errealitateko arazoak hartu gure azalpenaren ardatz. Ikuspegi analitikotik sintetikorako –baina, aldi berean, dialektikorako- pausoa eman nahi izan dugu horrela, jakina, iturrien erreferentzia zehatzak ahaztu gabe.

Identitate azterketa genuen gai nagusia modernizazio prozesua bete-betean bizitzen ari zen lurralde eta giza talde batean. Gogoratu ikerketak aurrera egin ahala, modu xeheagoan formulatu genuela gure helburua: bertsolarien ahoz modernizazio prozesuaren baitan proposatzen ziren identitate bideak. Oroitu baita ere identitatearen arazoa modernizazio prozesuaren kontestuan aztertzea lagungarri zitzaigula konturatu ginela. Arazo gisa bizi al zuten identitatea bertsolariok? Guztiek? Neurri berean? Alor ezberdinetan “gu” eta “besteak” identifikatzen eta ezaugarritzen saiatzen ziren ikusiko dugu ondoko orrialdetan. Zein bertsolarik bai, zein bertsolarik ez, zertan eta nola.

Lau dira sei bertsolarion lanak aztertu ondoren beren bertsoetan antzeman ditugun gai, unibertso, edo arazo nagusiak. Guk, behintzat, lau alorretan bildu ditugu euren diskurtsoetan ikusitakoak. Garrantzitsua iruditzen zaigu alor hauei erreferentzia

egitea gure azterketan. Sarreran esan bezala, identitate politikoaren[627] azterketara mugatu genezakeen gure doktorego tesia, baina ez gintzaizkieke guztiz fidelak izango iturriei. Horretaz gainera, uste dugu identitate politikoaren gaiaren azterketa lotua dagoela gainerako alorretan gertatzen ari diren aldaketei eta, bertsolariek horiek beren bertsoetan presente badituzte, guk ere gure azterketan presente izan behar ditugula. Modernizazio testuinguru nabarian dagoen Gipuzkoan aldatzen ari den elementu bakarra ez da gizartea egituratzeko modua eta identitate kolektiboari dagokiona: horretaz gainera, asko dira aldatzen ari diren alderdiak eta konbentzituta gaude, aldaketa batzuek besteekin duten harreman estuaz. Egia da, aukera hori egin izanagatik, ezin izango dugula, agian, denean maila berean sakondu, baina nahiago izan dugu hori, esparru bakarrari garaian izan zuena baino garrantzi handiagoa ematea baino. Arrazoi gehiagorekin, guk aztertutako sei bertsolarien artean modernizazio prozesuaz duten esperientzia eta identitatearen arazoarekiko duten jarrera eta honek beren bizitzan zuen garrantzia hain desberdina izanik. Hainbat aldaketa eta trantsizioren ondorio izan zen modernizazio prozesua Gipuzkoan. Trantsizio hauek elkar eragin zuten eta kalterako genuke ikuspegi global honi uko egitea.

Laugarren atalaren sarrera honetan, izendatu besterik ez ditugu egingo kontuan hartu ditugun lau gai nagusiak. Azpiatal bakoitzaren sarreran arrazoitu eta zehaztuko dugu hauetako bakoitzaren zentzua eta esanahia zein den. Hona, bada, hurrengo orrialdeetan garatuta aurkituko dituzuen lau alderdiak zeintzuk izango diren: ekonomia eta industrializazioa; demografia eta familia; urbanizazioa, gizarte loturak eta politika; eta mentalitateak. Industrializazio eta modernizazio prozesuetan bete-betean dagoen XIX. mendeko Gipuzkoan bizi ziren Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegik, behintzat, hala esan digute, guganaino iritsi diren bertsoen bitartez. Edo guk horrela ulertu diegu, behintzat. Dakusagun zer eta nola dioten.

Emaitzak azaltzeko orduan aipatu ditugun lau gai nagusi horietaz gain, bada gure idatzian beste indar egituratzailerik ere. Ez genituzke emaitzak espazioan eta denboran txukun jarri gabe eman nahi. Abiapuntu gisa, izenburutik bertatik hasita,

---

[627] Politikaz ulertzen duguna bere adiera zabalenari dagokiona da. Kasu honetan EEHren arabera, *"Estatuen edo nazioen gobernatzearen antzea eta praktikak; estatu bat gobernatzeko edo beste estatuekiko harremanak gauzatzeko era; herri arazoen multzoa, eta herritarrek horretan duten esku hartzea"*. Azken definizioa litzateke guretzat testuinguru honetan baliagarriena. Ikus www.ehu.es/eeh. Bestalde, RAEren arabera, agertzen diren definizioetatik bigarren eta hirugarrena lirateke guretzat baliagarri: *"Actividad de quienes rigen o aspiran a regir los asuntos públicos"* eta *"Actividad del ciudadano cuando interviene en los asuntos públicos con su opinión, con su voto, o de cualquier otro modo"*.

kokagune geografiko gisa Gipuzkoa eta kronologiko gisa 1830-1936 urte bitarteak bagenituen ere, doktorego tesi honen azterlana egin ondoren, espazioa eta denbora modu zehatzagoan definitu ditzakegula uste dugu.

Denborari dagokionez, eta beti ere Gipuzkoan bizitako modernizazio prozesuak oinarri hartuz, hiru denbora tarte azpimarratu nahi genituzke: bata, 1840 urte ingurutik 1876 urte bitartean doana; bestea, 1876 ingurutik 1900. urtera luzatzen dena; eta azkenekoa, 1900-1936 urte bitartekoa. Hiru aldi horiek, industrializazio eta urbanizazio fenomenoak Gipuzkoan bizkortu zireneko garaiak direla uste dugu, bailara bakoitzean indar desberdineko eragina izanik. Bestetik, 1876tik aurrera, batez ere, aldaketa politikoek abiadura berezia hartuko dute.

Geografiari dagokionez, berriz, nahiz eta Gipuzkoaz batasun gisa hitz egin, hiru gune bereizi nahi genituzke: landa eremua, tamaina ertaineko herriak, eta hiria, bereziki, Donostia eta XX. mendeak aurrera egin ahala, Donostialdea. Laugarren bat Gipuzkoaz kanpoko lurra litzateke, atzerria, gure kasuan, Amerika.

Gure bertsolariak denbora eta geografia ardatz horien baitan kokatzen baditugu, errazago ulertu ahal izango dugu bizitzen ari diren hori nola irudikatzen duten. Bertsolarien bertso produkzioko urte nagusiak hartu ditugu kontuan beren izenak hurrengo koadroan kokatzerako orduan.

4.Koadroa.- Gure ikerketaren ardatz kronologiko eta espazialak

| | 1840-1872/1876 | 1876-1900 | 1900-1936 |
|---|---|---|---|
| Gipuzkoa<br><br>Landa eremua | | Pello Errota | Pello Errota |
| Gipuzkoa<br><br>Herri ertainak | Xenpelar | Txirrita | Txirrita<br><br>Lopetegi |
| Gipuzkoa-hiriak<br><br>Donostia (XIX-XX)<br><br>Irun(XX) | Bilintx | P.M.Otaño | |
| Amerika | | | P.M.Otaño |

Iturria: lan honetarako propio guk osatutako koadroa

Azaldu dezagun hitzez irudi horrekin grafikoki adierazi nahi izan duguna. Gure azterketaren emaitzetan, laburbilduz, hau aurkituko dugu: hiru etapa edo aldi eta lau talaia. Lehen modernizazio garaian, 1840tik 1876ra doan horretan, gipuzkoar landa eremuan, gipuzkoar herri ertainetan eta Donostian, desberdina izango da abiapuntua baita prozesu horren eragina ere. Landa eremuan, txikia; herri ertain batzuetan, Errenterian, adibidez, kontuan hartzeko modukoa; eta Donostian, berriz, handia. Modernizazio prozesu horrek zenbat eta eragin handiagoa izan, zenbat eta gehiago behartu biztanleak beren aurreko abiapuntutik mugitu eta aldatzera, hauen errealitatearen irudikapenean eta, ondorioz, diskurtsoan, orduan eta presentzia handiagoa izango du fenomeno horrek eta horren aurrean jarrera bat hartzera behartuko ditu. Alegia, Pello Errotaren kasuan, bere eguneroko bizitzan eragin txikia izango du eta, ondorioz, bere diskurtsoan ez ditugu gai horiek askotan aurkituko, eta gutxiago gai horien gaineko "ideologizaziorik". Xenpelarren kasuan gehiago, eta Bilintxenean, nabarmenago. Xenpelar izango dugu talde identitateaz gehien mintzatuko zaiguna, probintzia eta Gipuzkoa esplizituki aipatuz: abiapuntua landa eremuan izanik ere, modernizazioaren eragina, industrializazioarena esplizituki, nabarmena izango da Xenpelarrengan. Bilintxek abiapuntua hirian izango du jadanik, eta honek bere talaia hasieratik modernitatearen baitan izatera eramango du.

Bigarren aldiari begira jartzen bagara, kasu honetan baita ere, zein talaiatan kokatzen garen, modernizazioaren bizkortzearen eragina desberdina izango da. Aldi honetan, lehen esan bezala, politikaren gaiak indar berezia hartuko du. Modernizazioak landa eremuan indar eskasena izango du; herri ertainetan, nabarmenagoa; eta hiriburuan, indartsuena. Hortaz, Otaño izango da politika gaiez gehien arituko zaiguna[628]; Txirrita, bigarren; eta Pello Errota, berriz, apenas. Bigarren aldi honetan, identitatearen metamorfosian lagunduko dute Pedro Mari Otañoren bertsoek, modu esplizituan euskal identitate forma baten krisalida ernamuinduz. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Pedro Mari Otañok, hain zuzen ere, %100 aldatu beharko du bere bizimodua, Donostian bizibiderik aurkitu ez eta Ameriketara betiko emigratu behar izan zuenean. Beste muturrean, Pello Errota daukagu: nahiz eta modernizazio prozesua eta gizartean eta politikan aldaketak gertatu, bere bizimodua eta honi buruz zituen irudikapen edo errepresentazioak aldatzeko beharrik sentitu ez zuena.

[628] Argentinatik bigarrenez bueltan, bertso produkzioari dagokionez, urte oparoak biziko ditu Pedro Mari Otañok.

Hirugarren aldiari dagokionez, garai hartan Gipuzkoan industrializazio eta urbanizazio prozesuak sendotuko dira[629], baita alfabetizazioa ere[630]. Otaño atzerrian izango dugu dagoeneko. Jose Mari Lopetegi eszenaratuko zaigu aldi honetan: Irunen, mende hasieran, hiri "titulua" izateko adinako hazkundea izan duen kokagunean. Hiri eremutik, beraz, hitz egingo digu Lopetegik. Txirritak ederki hazi den Donostialdetik eta Pello Errotak Erniopeko zelaietako talaiatik jarraituko dute prozesu hau. Gipuzkoako populazioaren zati handi bat hiri eta herri ertainetan biziko den une honetan, landa eremua goraipatzeko edo barregarri uzteko prozesua ikusiko dugu, baita bertsolaritza eta bertsolariak ere, ez landa eremuan bizi direnen ahotsetatik, haietatik kanpo bizi direnen ahotsetatik baizik.

Bi munduz –XIX. mendeko modernizazio prozesuak eraldatua edo eraldatu gabea- eta bi mundu horien arteko trantsizioaz hitz egin dezakegu, beraz, gure lanean. Bi mundu horiek, dena den, neurri batean guk sortutako balizko eszenatokiak lirateke, ez denboran ez espazioan zehazki itxituratu ezin daitezkeenak.

Aldaketa eta trantsizioak ekonomiaren alorrean, demografia eta familia ereduetan, gizartea antolatzeko moduan eta politikan, eta mentalitateetan. Askotariko aldaketa horietara hurbilduz identitatearen arazoaren sorkuntzan zer nolako eragina izan zuten aztertzen saiatuko gara.

# 1.Ekonomian aldaketak, modernizazioaren aitzindari?

Modernizazio prozesuetan ohikoena modernizazio ekonomikoari erreferentzia egitea da lehendabizi, eta zehazki, industrializazioari, baita urbanizazioari ere, hori guztia, jakina, kapitalismoaren eta Estatu-nazioen osaketaren testuinguruan. Hala ote bertsolarien artean? Zeintzuk dira gure bertsolariek lantzen dituzten gai ekonomikoak? Zeri ematen ote diote garrantzia?

Lehenengo eta behin, ekonomia gisa ulertzen dugun alorrari egingo diogu erreferentzia. Zer esan nahi du ekonomia hitzak? *Egungo Euskararen Hiztegira*[631] jo dugu lehendabizi hitz honen esanahiaren bila. "E"-z hasten diren hitzak ez daude oraindik ikusgai. Horregatik, *Real Academia Españolaren hiztegira* jo dugu. Esanahi bat baino gehiago aurki ditzakegu bertan: "*1.-Administración eficaz y*

[629] Ikus 4. eranskina.
[630] Ikus 5. eranskina.
[631] EHUko web orrian kontsultatu daiteke, http://www.ehu.es/eeh/ helbide elektronikoan.

*razonable de los bienes: 2.-Conjunto de bienes y actividades que integran la riqueza de una colectividad o un individuo 3.-Ciencia que estudia los métodos más eficaces para satisfacer las necesidades humanas materiales, mediante el empleo de bienes escasos 4.-Contención o adecuada distribución de recursos materiales o expresivos 5.-Ahorro de trabajo, tiempo o de otros bienes o servicios 6.-Ahorros mantenidos en reserva"*. Esanahi eta zentzu bat baino gehiago biltzen ditu, beraz, bere baitan ekonomia hitzak. Dikotomia nagusia definizioan bertan agerikoa da, antropologiak, besteak beste, aztertua, ekonomia ondasunen kudeaketa gisa edo, ondasunak eskasak direla abiapuntutzat hartuz, giza beharrei erantzuteko metodo eraginkorrenak bilatzen dituen zientzia ote den.

> *"Honela defini daiteke antropologia ekonomikoa: antropologia orokorraren arlo bat, ekonomia-jarduera aztertzeaz arduratzen dena. Definizio horrek neutraltasunaren balioa du, baina bistan da tautologikoa dela, ez baitio erantzuten ikerketa-eremu horren problematika osorik laburbiltzen duen galdera bati: zer da ekonomia-jarduera? Ondorioz, informazio-edukirik gabea ez izatekotan, antropologia ekonomikoaren definizio orok ekonomiaren teoria orokorra eskatzen du, eta horrek, berriz, auzi bat nabarmenarazten du: ea zenbateraino diren unibertsalak ekonomialariek merkatu-ekonomiaren azterketan oinarrituta mamitu dituzten kategoriak"*[632].

Jasoko ote dute dikotomia honen berri gure bertsolariek? Hau da, gehiago irabazi beharraren logika "modernoa" agerikoa al zen bertsolarien artean –merkatu eta kapitalismoari lotuagoa- edo ondasunak mantendu –etxea, lurrak- eta ondra edo izen onari eustea zuten helburu? Ikus dezagun.

Alor ekonomikoari lotuta, hauek dira nagusiki bertsolariek agertzen dizkiguten gaiak. Lehenengo eta behin, industrializazio aurreko abiapuntuari egin nahi genioke erreferentzia. Zein errealitatetan izan zuen honek eragina? "Aurreindustrializazio" garai horretan ekonomia antolatzeko moduari buruz, zerbait esaten al digute bertsolariek? Zer eta zeintzuk? Baliabide eta beharren arteko oreka ahula, etxea antolamendu ekonomikoaren oinarri gisa, ofizio tradizionalen presentzia, gizartearen mailaketa, egoera hartan bizi ahal izateko estrategiak, etab. Era honetako gaiak aurkituko ditugu lehenengo atal honetan.

Bigarren, industrializazio prozesua eta modernizazio prozesua nola bizi izan zituzten jasotzen saiatuko gara. Kasu askotan, gure bertsolariak eta beren inguruan dituzten pertsonak ofizioz aldatzen ikusiko ditugu beren bizi baldintzak hobetzeko

---

[632] GÉRAUD, Marie-Odile; LESERVOISIER, Olivier; POTTIER, Richard: *Etnologiaren nozio giltzarriak. Azterketak eta testuak.* Bilbao: EHUko argitalpen zerbitzuak, 2011. 269. or.

asmoz. Industrializazio eta modernizazio prozesu honek ez ditu, ordea, onurak soilik ekarriko. Zailtasun berriak eta arazo berriak ere sortuko dira.

Azkenik, bertsolariek azaldutako ekonomia ereduei buruz arituko gara. Bertsoen bitartez ekonomia eta portaera ekonomikoak ulertzeko bi modu, gutxienez, badirela ikusi dugu. Edo positiboki baloratzen duten jarrera bat eta gaitzesten duten beste bat. Modernizazio prozesuak ekonomia kapitalistaren gailentzea ekarriko du. Hori, ordea, ez da bat-bateko kontua izango, egun batetik bestera gertatuko dena, modernizazio prozesu bera ere, egun batetik bestera gauzatuko ez den bezala[633]. Gure bertsolariek hobesten eta gaitzesten dituzten ereduak ekonomia prekapitalista eta kapitalista bati dagozkionak izan al daitezke?

Guk ezin dugu modernizazio ekonomikoko prozesu horren hasiera edo bukaera data absoluturik eman. Egitekotan, hasiera eta bukaera eszenatoki idealak har ditzakegu eredu gisa, premodernoa litzatekeen egoera bat eta modernizazio prozesu bete-betean legokeen bigarren egoera bat, eta eszenatoki ideal horiekiko hurbiltasun edota urruntasunaz hitz egin, gure azterketaren emaitzak ardatz horren baitan kokatzen saiatuz. Ez gehiago.

Arestian aipatutako aspektu horiez guztiez, jakina, ez dute sei bertsolariek modu berean, ezta indar berarekin ere hitz egingo. Ikus dezagun, poliki-poliki, sumatu ahal izan duguna.

## 1.1.Abiapuntua landa eremuan: oreka ahulean, etxea oinarri duen ekonomia landatarra

Gipuzkoan XIX. mendeko bigarren herenean gertatu zen industrializazio prozesuaren aurretik, zein eratara antolatzen zen ekonomia, ondasunen kudeaketa[634]? Gipuzkoa guztian berdin egiten al zen hori? Zer kontatzen digute bertsolariek?

---

[633] Kapitalismoaren oinarriak noiz hasi ziren jartzen Gipuzkoan? XIX. mendera arte itxoin behar al dugu horretarako, edota Aro Modernoan, XVI. mendean, ekonomia aldaketarik ikusten hasi al zen? Nolakoa? Zeren hasiera litzatekeena?

[634] JUARISTI, Patxi: *Euskaldunak eta ondasunak.* Irun: Pamiela, 2001. Justo Mokoroak egindako esaera zaharren bilduma oinarri hartuta eta hauek sakonki aztertuz euskaldunak eta ondasunak, euskaldunek ondasunekin zein eratako harremana zuten aztertu zuen Patxi Juaristik. Baserri munduari lotutako azterketa da nagusiki eta argigarri gertatzen zaigu 1.1. puntu honetan lantzen ari garen gairako, bai eta 1.3. puntuan esango ditugunetarako ere. Gurea baino azterketa zehatzagoa da harena: kontzeptu jakin batzuk –etxea, jabea, nagusia, jauna, burua, ugazaba, eta abar.- eta hauei lotutako atzizki edota mugatzaileak zeintzuk diren aztertzen ditu, besteak beste. Gu ez gara hainbesteko xehetasunetara iritsi.

Historiografian egindako irakurketen arabera eta baita teoria foral klasikoaren eraginez ere, bertsolariek etxeari buruzko diskurtso egituratua izango zutela uste genuen, eta landa eremuan batez ere, honen garrantziaz –baita ekonomikoaz ere- hitz egingo zutela. Horren bila hasi ginen lehendabizi Pello Errotaren bertsoak aztertzen hasi ginenean. Ez genuen, ordea, guk nahi genuenik aurkitu. Demografiaz eta familiaz hitz egingo dugun atalean honetan sakonduko badugu ere, bertsolarien artean "etxea"[635]ri buruzko diskurtso landurik ez dugu aurkituko[636]. Besterik da, nahiz eta objektu bezala hartu ez, beste gai batzuez ari direla, kasu honetan ekonomiaz, bertsolariek aipatzen duten edo ez: praktikan, euren bizitzetan, zein balio zuen etxeak ondasunen antolamenduan?

Arestian aipatua zen buruan genuen galdera. Baina bazen, bertsolariei adi entzunez gero, eurek gehiagotan eta indar handiagoz agertzen zuten gaia: baliabide eta ondasun eta zituzten beharren arteko oreka ahula, bizi zuten pobrezia egoera. Bertsolarien eskutik, gai honi heltzea erabaki genuen, beraz.

Bertsolariek euren buruak "pobretzat" aurkezten dizkigute. Xenpelarrek bere buruaz honela esaten digu, "Amerikanuari Xenpelarrek jarriyak" bertso sailean: *"Amar urteko nitzan / oteketan asi, / galanki nekatu ta / gutxi irabazi; / aberatsa izaten / enuben ikasi, / oraiñ e enaiz bada / indiano bizi"*[637]. Bere burua ez du aberats gisa aurkezten, ez da aberats giroan hazitakoa eta bere bizimodua ez da aberatsei –indiano gisa ezaugarrituta- dagokiena.

Xenpelarren bertsoak jasotzen diren liburuan, Uztarri eta Juan Jose Udarregiren bertso pare bat ere ageri dira, euren bizimodua nolakoa den jasotzen dutenak. Horiek ere bizi duten pobrezia egoerari egiten diote erreferentzia. Uztarrik honela dio: *"Osasuna ederra / emanik Jainkoak, / alare ez du eman nai / ogia naikua; / iñola ezin sortu / astian jaikua, / zu nola bizi zea / Udarregikua?"*. Udarregiren erantzuna: *"Zuk ogia diozu, / nik artua ere, / jango lutekienak / etxian badaude; / askotan baba zarra / oliorik gabe, / igesi joanak dira / arratoiak ere"*[638].

Mikaelak gogoratu eta guri helarazitako bertso pare bat esanguratsuak dira, benetan, Pello Errotaren bizi mailaz jabetzeko. Donostiako Teatroan[639] kantatu

---

[635] Ekonomia hitza "oikos" eta "nomos" hitzak batuz sortua da: etxea eta araua biltzen ditu.

[636] Landa eremuan "etxea" ekonomiaren antolamendurako garrantzitsua izateaz gainera, demografia eta familiaz eta gizartearen egituraketaz hitz egiteko orduan agertuko zaigun kontzeptua ere bada. Aurrerago ikusiko dugun bezala, "etxeari" buruzko diskurtsoa hiritik egingo dute, batez ere. Landa eremuan bizi egingo dute errealitate hori.

[637] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 64. or.

[638]ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 100. or.

[639] Kale Nagusian aurkitzen den Antzoki Zaharrean kantatuak izango ziren, jakina.

omen zituen Pello Errotak bertso hauek, Mikaelak 16 urte zituela gutxi gorabehera[640]. Jose Bernardo Otañok galdetu omen zion *"Pello Errota, aspaldi ontan / zer moduz bizitzen zera?"*[641]. Eta hona Pelloren erantzuna:

> *"Larru gorrian jaio nintzan da / ez det aberastasunik, / nigatik eztu iñork esango / kaballerua naizenik. / Gure Jainkoak gau eta egun / ez dit palta osasunik / tamaña onetan naizen artian / ez daukat estuasunik".*
>
> *"Lenago esan det jaio nintzala / ni ere larru gorriyan / mundu onetan ez naiz bakarrik / beste askoren neurriyan. / Ziudade ez da aundia agertzen / Astiasuko erriyan / bolara ontan bizitutzen naiz / oso kontentu aundiyan"*[642].

Bertso hauetan Pello Errotak garbi adierazten digu bere burua nola ikusten duen. Denboran atzera begira jarriz gero, Aintzinako Errejimeneko munduan, ez da "kaballerua"[643]. Denboran aurrera begira jarriz gero, ordea, ez da "ziudadekoa" ere. Beraz, bi mundu hauen artean bizi da. Ez da batekoa, ez da bestekoa. Mugan kokatzen da: hurbilago gizartearen behekaldean daudenetatik, gehiengotik. Berak izango duen irtenbidea lana egitearena izango da. Eta lana, osasuna duen bitartean, gaitzak eta heriotza ohikoak ziren garaian. Oreka ahulean biziko da Pello, tamaina neurtuan edo larre motzean.

Bigarren bertsoan, bere egoeran gehiago direla, "asko" direla esango digu. Gehiengoa izango da, beraz, horrela bizi dena. Horrek ez du esan nahi triste bizi denik. Bere egoera eta bizi baldintzak zeintzuk diren ezagutu eta onartzen du, eta hauetatik begiratzen dio bizitzari.

Txirritak berak ere honela hitz egiten digu Pello Errotaren bizi mailaz, Ameriketatik bueltan etorri zenean: *"Lasaitasun gogorra / sartu da Konporta'n / ondo biziko dira / Astiasu ortan; / lenago mixeriya / izana frankotan, / asko ekarri bearko / zuen tabakotan, / len besteri kenduak / ordaindutzekotan"*[644].

Bertso hauetaz gain, Mikaelak berak Uztapideri kantatutako bertsoa ere hemen jasotzeko modukoa da. Uztapidek Mikaelari "amona, zer moduzko bizia" galdera egin zionean, hona Mikaelaren erantzuna: *"Pobriak jaio eta / pobriak biziyak /*

---

[640] 1885. urte inguruan beraz.
[641] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 54. or.
[642] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 54. or.
[643] Nahiz eta kronologian askoz ere atzerago joan, izengabe nobleen artekoa genuke Pello Errota ere. Ikus DIAZ DE DURANA, J.R.: *La otra nobleza. Escuderos e hidalgos sin nombre y sin historia. Hidalgos e hidalguía universal en el País Vasco al final de la Edad Media (1250-1525).* Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 2004.
[644] ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 88. or.

*iñork eztit ukatzen, / eman nai guziyak; / nunbait izango ditut / danak mereziyak, / zor-artzekotan kito, / Jaunari graziyak"*[645].

Mikaelak berak bizimodu gogorra zutela azpimarratzen digu. Errotara ekartzen zuten arto eta gari lakekin bizi beharra izaten zuten eta *"Fameli aundia giñan, da orain aña pantasi gabe azi giñan, bai!"*[646] kontatzen digu Mikaelak. Bertsotan egin ondoren aitak dirua ekartzen zuenean, pozik izaten omen ziren etxean[647].

Pellok ez zuen jabetzarik. Horren erakusle dugu, bere heriotza agirian esaten den moduan, ez zuela testamenturik egin[648]. Guk aztertu ditugun landa eremuko bertsolariak ez ziren etxejabeak, maizterrak ziren, eta ez zuten aberastasunak pilatzeko modurik.

Txirritak ere bere burua pobreen artean ikusiko du:

> *"Itsasuan zer gertatutzen dan / ez al dezute ikusi? / Txardiñ berriya eta antxua / izurdiaren igesi, / azpiyan eziñ aguantatu ta / gañera irten-arazi, / an ere arrantzaliak pronto / beren sare eta guzi; / anima salbo jende pobria / gaur olaxe gera bizi"*[649].

Pedro Mari Otañok ere, nahiz eta zuzenean gai horri buruz aritu ez, pobretzat du bere burua, hitz hauek jartzen ditu behintzat bere amaren ahotan, 1891ko "Amets bat" konposizioan: *"Denak lotan zioztik / ire senidiak, / i ezkeroztik sortu- / tako landariak; / bigar gonbidatuko / dizkiyat aidiak / eta ingurumari- / ko adiskidiak; / pobre izan arren ez / gaituk eskaliak, / zer jana bazeduka / gure sukaldiak;"*[650].

1892ko "Nasketak" konposizioan ere, nahiz eta hizkuntzan trebatzeko konposizioa izan, egoera ekonomiko zailei egiten die erreferentzia. Semeak soldadu eraman dizkioten gurasoak dira hizketan jartzen dituenak, zailtasun ekonomikoak pasatzen ari direnak: *"Oraiñ etorri zaigu / bizi-modu zalla, / galdu gendubelako / len gendukan salla. / Lo egiteko daukat / oirik ez ta aska, / alperrik da nai arren / memoriya aska, / ill arte bizi biar / burubari azka"*[651].

Badira beste era bateko pobreak ere. Xenpelarrek kontzeptu hori bera erabiltzen du mutilzaharrei buruz hitz egiteko: *"Mutill zarraren pobreza / iñork ikusi nai-eza, /*

---

[645] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 25. or.
[646] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 25. or.
[647] Mikaelak berak esaten digu bere aitari buruz *"Gure aita gizarajoak etzuan pobrea izatea besterik".* In: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 267. or.
[648] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 99. or.
[649] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 461. or.
[650] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 343. or.
[651] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 354. or.

*eskarmentua duenik bada / konsidera beza; / bakardadeko tristeza, / nork izango ez du pereza: / illobarentzat utzi bearra / bere interesa?*"[652]. Kasu honetan, pobrezia kontzeptuak ez dio soilik ondasun faltari erreferentzia egiten, esplizituki baita giza harreman urri eta eskasei ere.

Pobrezia egoera honetan badu zerikusirik etxeak, unitate ekonomiko gisa harturik, dituen mugak. Etxe pobreak ziren hainbat bertsolarirenak, eta Gipuzkoako landa eremuan, beste askorenak ere bai.

Txirritak berak garbi esango digu. Amerikako bizimoduaz osatutako bertso sailean, lehenengo bertsoan horrela dio: *"Europa'tikan askok egin du / Amerikara bixita, / etxe onian jaioagatik / danak an ezin bizita;"*[653]. Etxea, beraz, familiaren bizilekua izateaz gainera, familiako kideei sostengua eman behar dien unitatea da. Askotan, ordea, ez du nahikoa emango etxean jaiotzen diren guztiak mantendu ahal izateko. Aurrerago ikusiko dugun bezala, bizibide alternatiboak bilatu beharko dituzte orduan etxekideek.

"Nagusiya ta maiztarra" bertso sailean ere ideia hori azpimarraturik agertzen da, etxeak duen unitate ekonomikoaren esanahia[654]. Hona hirugarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren bertsoak:

> *"Zer familia izandu degun, / jauna, nai al du aditu? / Amabi aurren aita naiz ni ta / semiak amar baditu; / lan egiteko iñor gutxi ta / mayian eziñ kabitu, / baneukake non enpleatua / bost milla duro banitu.*
>
> *[…] Aziendaz ta lan-erremintaz / bagenedukan indarra, / aiekiñ ere ez degu orain / oso alderdi ederra: / zazpi baliyo luteken gauzak / bostian eman biarra; / au pentsatzian etortzen zaigu / begietara negarra.*
>
> *Amabi lagun mayian bueltan / juntatzen gera jateko, / geienaz ere aietatik bost / irabazira juateko; / pazientziya artuko banu / anbat ez nuke kalteko, / Jaungoikuari eska zaiogun / osasuna emateko.*
>
> *Prezisamente martxatu biau / baserrira edo kalera, / norbaiti egin biarko zaio / bizi-lekuen galdera, / esplikatuaz nola izan dan / fameliyaren galera; / gure Jainkuak nai duen arte / nonbait mantenduko al gera!"*[655].

Familia tronkalaz ari zaigu, garbi, Txirrita. Kide kopuru handiko etxea, eta, askotan, bi eta hiru belaunaldi batera hartzen dituena. Bertsolariak garbi adierazten

---

[652] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 177. or.
[653] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit. 427. or.
[654] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit. 436. or.
[655] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 436. or.

digu, orobat, familia tronkalak nola une ezberdinak bizi dituen eta nola haurrak txikiak direnean eta aurreko belaunaldikoak adindunak, estutasunak bizitzen dituen: esku gutxi dituzte lanerako eta aho asko betetzeko[656]. Azken bertsoan, berriz, familia eredu honen gainbeheraz eta zailtasunez mintzo zaigu.

"Etxea"ren alderdi ekonomikoaz mintzo garelarik, ezin maiorazkoa aipatu gabe utzi. Hala eta guztiz ere, hau ere ez da aztertutako bertsoetan maiz aurkitu dugun kontzeptua. Guk aztertutako bertsolarien kasuan, eta jaiotzez landa eremukoak ziren bertsolariei bagagozkie behintzat, Txirrita besterik ez genuen maiorazko, eta hau, hala izanik ere, maizter bizi zireneko etxe batekoa. Hala eta guztiz ere, aitarengandik Txirritarenganako transmisioa ez zen gauzatu: "*Etxeko maiorazkua / nintzan tokamentuz, / baldin serbitu banu / aita pulamentuz; / nere bizimodua / beti dabil kantuz, / despatxatuko naute / ez banabil kontuz, / aita ikullun dabil / beiak gobernatuz*"[657]. Bada bertso honen beste aldaera bat baino gehiago ere, Antonio Zavalak berak ere argitara ekarriak. Guk hauetako bat jasoko dugu: "*Arto-maiorazko nintzan / nere tokamentuz, / serbitu izan banu / aita pulamentuz. / Lengo paraje xarrian / arkitzen naiz puntuz, / bueltiatuko naute / ezpanabil kontuz*"[658]. Kontuan hartu behar dugun gauzetako bat hau da: nahiz eta baserriaren jabe izan ez, baserria, edo hobe esan, baserriaren errenta seme zaharrenari uzteko ohitura. Txirrita, beste gauza batzuetarako bezala, "kontra eredu" izango dugu hemen ere: nahiz eta seme zaharrena izan, aitak ez dio errentan zireneko baserria utziko.

Hala ere, nahiz eta bere maiorazko izaera gauzatu ez, figura honi egingo dio erreferentzia beste gai batzuez ari dela.[659] Paulino Uzkudun mintzagai hartzen duelarik, honek etxearekiko izan duen jokabidea ere azpimarratzen du. Uzkuduni eskainitako azken aurreko hiru bertsoetan haren aita lehenengo, ama gero eta etxearekiko jokabidea aipatu eta ezkontzera animatuko du:

> *"Aita illa du gizarajuak, / Jose Inazio izena, / paregabeko gorputza zuen, / altua eta gizena; / errespetua guardatzen zuen / indar aundiko gizona, / jendia frankok maite zuena, / erriyan juez izana.*

[656] Familiaren zikloak ditu hizpide Txirritak.
[657] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 36. or.
[658] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.):*Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 36.-37. or. Zavalak berak dioskunez, "arto maiorazko" esaten zaio maizter diren etxeko maiorazkoari.
[659] Ikus, aurrerago, 3.2.6. puntuan adibidez, erdal hizkuntzaren eta eskolaren aurrerakadaren aurrean, maiorazkoei zein paper ematen dien Txirritak.

*Bisitatzera juan zanian / etxeko parientiak, / kaburik ero neurririk eztu / aik zuten borondatiak; / amak negarrez esaten ziyon, / ain dira alkar maitiak: / <Nai dezunian, atoz, semia, / zabalik daude atiak!>".*

*Agur, Paulino, gizon piñaren / kalidariak otia, / etxia asko biartu gabe / sobratu dezu dotia; / garai onetan neskatxa askok / izango zaitu maitia, / eder-eder bat eskojituta / txit ondo bizi zaitia"*[660].

"Etxeari" espresuki bertsolariek egiten dizkieten erreferentziak urriak badira ere, askoz ere ugariagoak gertatzen dira ofizioei egiten zaizkien erreferentziak. Asko dira bertsoetan aurkitu ahal izan ditugun ofizioak. Batzuk ohiko gizarteari lotuagoak, ofizio tradizional gisa izendatu ditzakegunak. Beste batzuk, berriz, berrikuntza ekonomikoei lotuagoak. Aztertutako bertsolaria zenbat eta gerturago inguru landatar eta nekazaritik, orduan eta ofizio tradizional gehiago agertuko dira. Bertsolaria zenbat eta gerturago hiri eta modernizazio ekonomikoari lotutako prozesutik, orduan eta lanbide berri gehiago ageriko dira[661].

Zeintzuk dira ofizio tradizionalei lotuta ageri zaizkigun kontzeptuak? Batzuk, zuzenean lur, baso eta itsasoko lanei lotuak daude: artzain, aizkolari, tratalari, errotari, itzain, segalari, morroi, arrantzale, baserritar, marinel, nekazari, apustulari. Beste batzuk, berriz, artesautzari lotutako kontzeptu gisa sailka ditzakegu: hargin, arotz, hojalatero, okin, trapero, errementari, jostun, sastre, arraungile, zapatari, etab. Beste lanbide batzuk guk zerbitzu gisa ulertzen ditugunak lirateke: komertziante, mediku, predikadore, harakin, tabernari, guardia, ostalari, saltzaile, serbitzia, zeladoria, neskame, sereno, zaldun, etab. Eta badira non sailkatu ez dakigun beste batzuk ere: estudiante, lapur, sazerdote, soldadu, zaldun, etab. Ofizio sail aberats horrek beste gauza bat ere ikusarazten digu, eta zera da: landa eremu gisa izendatu dugun hori, industrializazio aurreko eta modernizatu aurreko gizarte gisa izendatu dugun hori, ez dela ofizio landatarretara mugatzen, bestela baizik, populazio nukleoekin etengabeko harremanetan dagoela eta eremu horretan gauzatzen diren artisautza edo zerbitzu gisa izendatutako ofizioak ere behar-beharrezko dituela. Elkarren osagarri agertuko zaizkigu, beraz, landa eremua eta populazio bilgune diren herri nukleoak. Horri buruz hainbat adibide eman genitzake. Herrietatik hiriguneetara zerbitzatzera doazen nesken kasua litzateke horietako bat. Hona, adibidez, Xenpelarrek nola ematen digun Pasaian zerbitzatzen

[660] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 359. or.

[661] Nahiz eta euskaraz era honetako bildumarik egin gabe egon oraindik, bada proiektu bat, Hisco izenekoa, hisco.antenna.nl web orrian, "History of work information system" izenekoa, non lanbide ezberdinen izenak jaso eta kodetzen ari diren. Herbehereetan hasitakoa izanik, Europa guztira zabaltzen ari dira orain.

ari den Alkizako neska baten berri[662], ezkontza tratu puskatu bati buruz ari dela: *"Prenda ederra ori Alkizakua, / Pasaian dago serbitzen, / dama orrengan fiñezekon bat / sekula ezta arkitzen; / klaro egiyak esango ditut, / nork egon nai du aditzen? / Enganiyuan bizitzerikan / eztu legiak agintzen".*

Beste gauza bat ere azpimarratu nahi genuke. Landatar eremuari lotutako ofizioen iraupena denboran. Nahiz eta 1840 eta 1936 urte bitartean industrializazio prozesu serioak bizi Gipuzkoak, ez zen harritzekoa gertatu 1936ko Bertsolari Egunean Txirritak eta Zepaik egindako bertso saioa: Zepaik uztargile lanetan eta Txirritak, berriz, itzain gisa kantatu zuten. Hori izan zen Bertsolari Egunean kantagai jarri zieten gaia. Seinale bai bertsolariei eta, bereziki, entzuleei ez zitzaiela gaia arrotza. Idiak goseak dituela eta gaizki gobernatzen dituela esango dio Zepaik Txirritari. Txirritak Zepairi, berriz, ez duela eskatutakoa bete: ez duela uztarria berak esandako egurraz egin[663]. Era honetako gaietan gusturago aurkitzen ziren bai bertsolariak baita publikoa ere.

Zein irtenbide zuten etxeak pobreak ziren testuinguru hartan aurrera ateratzeko? Lanbide eta ofizioak izan ditugu kontuan. Zer gehiago? Pobreziak ezarritako estutasunetan bizitzeko, lizentzia batzuk ere hartzen zituzten garai hartako landa eremuko biztanleek. Horren adibide ditugu kontrabandoa, "lapurreta" txikiak... Testuinguru horren baitan ulertu behar ditugu praktika hauek. Kontrabandoa estutasun ekonomikoak arintzeko modu bat da, aginte politiko eta administratiboak ezartzen dituzten zergen irabazia nork bere poltsikora (garai haietan, erdi hutsa) ekartzeko modua. Mikaelak ematen digu horrelako pasadizo baten berri[664]. Pello Errota etxetik kanpo zela, eskabidea izan eta alaba bidali omen zuen amak irinarekin. Txartelik, ordea, ez zion idatzi eta mikeleteek harrapatu egin zuten. Kontrabandoan ari zelakoan, zakuak, astoa eta dena kendu zioten. Pello Errotak esku hartu behar izan zuen, mikeleteek dena itzultzeko. Tolosan mikeleteen buru zen Arnaok barkatu egin omen zien gertatutakoa eta gauzak itzuli[665].

Kontrabandoa bezain ohikoa izango zen, errotarien kasuan, irina pisatzeko garaian, etxerako egitea. Herriaren ahotik jasotako bertsoen artean, badira "Pellok ere kunplitu" izenburupean jasotako batzuk[666]. Bertso hauen bi bertsio aurki ditzakegu: batetik, Mikaelak Pello Errota eta Txirritaren arteko kontu gisa agertzen

---

[662] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 132. or.
[663] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 201.-202. or.
[664] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 24. or.
[665] Mikeleteen gorputza 1844an sortu omen zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek. Ez zetozen hutsetik. Konbentzioko Gerratik hasi omen ziren foru erakundeak era honetako gorputz baten osaketa lantzen.
[666] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 244. or.

digu pasadizo hau. Mikaelaren semeak, berriz, Pello Errota eta Zakarra bertsolarien arteko kontutzat. Lehenengo kasuan, bertso bakarra dugu aztergai (Txirritarena omen zena). Bigarren kasuan, berriz, lau bertso ere baditugu: bi, ustez, Zakarrarenak eta bi Pello Errotarenak. Aukera gehiago ematen digutelako, bigarren hauek hartuko ditugu kontuan. Esanahi aldetik gainera, Txirritarenak ere ideia berak agertzen dizkigu (Zakarraren ahotan jarriak izango direnak gero). Pazkoakoak egin omen ditu Pello Errotak, baina ez omen ditu bekatu guztiak aitortu, tartean, eta hau azpimarratzen dute bai Txirrita eta baita Zakarrak ere: errotan behar baino irin gehiago beretzat gordetzea, hau da, lakak kentzerakoan, behar baino kantitate handiagoa hartzea. Infernura joango omen da horregatik. Hona Pello Errotak zein arrazoi ematen duen horretarako:

> *"Oiek al dira tatxak / errotariyenak, / naiz aundiguak izan / norberiarenak? / Zikiatzen ditudala / zaku besterenak, / nunbaitetik jan biar / berak eztuenak.*
>
> *Zenbat arbola diran / ainbeste landare / neri botatzen dire / majiñat maldare; / ez dire sinistatzen / egiya esanda're / nola mantendu biet / lakik kendu gabe?"*[667].

Bizitzeko eskas duenaren kontuak dira horiek. Nola edo hala bizimodua atera egin behar. Bai kontrabandoa, baita lakak kentzerakoan norbere alde egite hau ez dira gaizki ikusiak. Besterik da lapurreta. Pello Errotaren alaba Mikaelak aipatzen digu era honetako kontu bat ere. Aitari, behin, astoarekin zihoala, pipa erretzeko eta berriketa pixka bat egiteko denbora hartu zuenean, gari zakua, eta astoaren soka, kabestrua eta abar ostu zizkioten. Hasiera batean, bera baino pobreagoak ziren batzuk izan zirelakoan egon zen. Geroago jakin zuen "behera" zihoan etxeko batzuen kontua izan zela. Hiru bertso, behinik behin, gogoan zituen Mikaelak gertaera horren inguruan. Pobreari lapurreta egitea ahulari kalte egitea da.

> *"Gauzen baliyuak / ziraden aundiyak: / iru pezta pasiak / asta soka zuriyak / bizkarreko zakuko / amabost gariyak… / Pobria luzitzeko / ai zer alderdiyak! / Au etzuan merezi / Pello Errotariyak"*
>
> *"… / … / zakua eta soka, / kate ta kabestru / bat ere utzi gabe / astoari ostu; / ori egin duanak / barren txarra eztu, / ola gizon pobria / nola aberastu?"*[668]

Bere burua pobretzat du eta agertzen du Pello Errotak. Ez du horrelakorik merezi (bizimodu gogorra badu bestela ere), eta gainera, lan egiteko aukerak urritu egiten dizkiote horrela ("aberasteko" bidea zailduz, bizitzeko bidea zailduz, azken finean). Hala ere, lezioa atera zuen gertakizun honetatik Pellok: lapurrak etxe pobre batekoak izan zirela pentsatu zuen lehendabizikoan. Gero, lapurrak gainbeheran

[667] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 244. or.
[668] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 61. or.

zihoan etxe batekoak izan zirela jakin zuenean, *"errezeloa egin izanaren damua izan zuen"*. Seme-alabei, honela esaten omen zien, Mikaelaren hitzetan: *"Etzazutela sekula iñorentzat errezelo gaiztorik egin!"*[669].

Lapurretaren gaia Txirritak ere erabiltzen du bere bertso sail batean[670]. Baina, kasu honetan, lapur handi eta txikiez ari da, eta nola lapur handiek askotan lapur txikiak zelatatu eta preso hartzen eta kastigatzen dituzten eta eurak, lapur handiak, libre geratzen diren askotan. Honen kontra agertuko da Txirrita. Adierazgarria da nola lapur handi eta txikien arteko harremana azaltzeko animalia ezberdinen arteko harremana erabiltzen duen: katua eta sagua, txakurra eta pertsona lapurra, arrantzaleak eta izurdeak, balea eta mazopa. Bikote horietan guztietan, biak dira lapurrak, baina lehen tokian ipini ditugunak lapur handiak lirateke, bigarren tokian jarri ditugun lapur txikien kaltean. Txirrita, gainera, ondasun ekonomikoen lapurretaz baino gehiago, foruen "lapurretaz" ari da, eta nola hori gainera, modu legitimoan agertu nahi duten.

Hori egiteko arrazoien artean, lehenengo bertsoko azken puntua argigarria da, benetan: *"berak asko nai t'ezin sufritu / bestek daraman apurra"*. Hona hirugarren eta laugarren bertsoek zer dioten:

> *"Alper askori gustatzen zaio / bestek egiña jatia, / berentzat zernai komenentzi ta / pobriarentzat kaltia; / lapur txikiyak preso sartuta / gañera berriz katia, / aundiyarentzat libertadia, / beti zabalik atia... / Kantabria'ko fueruak ere / olaxe kenduak tia.*
>
> *"Mundu onetan dijuan martxa / etzait askorik gustatzen, / biar bezela portatzen baña / errezago da juzgatzen; / pobriarentzat amenazua, / kopeta dute beztutzen, / sermoi ederrak aditu arren / ez dira asko estutzen, / lapur txikiyak preso sartuta / berak milloiak ostutzen"*[671].

Hirugarren bertsoan, politika kontuei egiten die erreferentzia eta laugarrenean, berriz, alderdi ekonomikoari. Dena den, bertsoaldi honen hamaika eta hamabigarren bertsoek gure lanerako duten garrantziagatik, doktorego tesi honen aurreragoko kapituluetan aipatuko ditugu[672].

Ameriketara emigratzea ere, ustez, pobreziatik ateratzeko bide bat izango da. Honen berri ematen digu Pello Errotak Jose Joakin Korta bertso sailean. Amak, Pello Errotak eskutitz gisa prestatutako bertso sailaren bitartez, honela eskatuko dio

---

[669] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 62. or.
[670] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 460.-461. or.
[671] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 460. or.
[672] Ikus laugarren atal honetako hirugarren eta laugarren azpiatalak.

semeari: *"Biziko danak beti / zerbait e biar du, / ama kontsolatzeko / dirua bialdu"*[673]. Semeak, berriz, zuzenean erantzun gabe, Ameriketarako bidaian pasatako estutasunen berri emango dio amari: *"Galleta gogorra ta / aragia jaki, / kuarentenako berri / probatuak daki; / seireun pasajero / ez giñan urruti, / buruko miñ bat ere ez / danetatik bati, / premiyan laguntzen du / Jaungoikuak beti"*[674].

Pello Errotak jasotzen ditu Ameriketako kontu gehiago ere "Bi indiano" izeneko bertso sailean[675]. Kubako Cárdenasen egondako bi indianoren berri ematen digu bertan. Batak besteari dirua utzi eta itzuli ez ziolako ipinitako bertsoak dira. Ameriketan dirua lortzeko egindako lanaren berri ematen digu indianoetako batek: *"Asteasuko semia naiz ni, / Jose Antonio Otegi, / nere nekiaz egiña nintzan / ustez biar ain loteri; / premi batian bi milla duro / prestatu nizkan besteri, / artzalle orri agertu zaio / gauza aña enbusteri"*. Eta bigarren bertsoan: *"Emen gustora ez negoen ta / juan nintzaden Kubara, / Cárdenas deitzan erri eder bat / paraje aietan bada; / amabost urte kunplitu ziran / ni juan nintzalarik ara, / esango'izuet ango diruak / egin zidaten jornara"*[676].

Pello Errotarenak ez dira Ameriketarako emigrazioari jarritako bertso bakarrak. Txirritak ere baditu bi bertso sail, behinik behin, gai horri lotuak. "Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta… lau!" erraz ikusi ahal izango dugu, gainera, Txirritaren hitzetan.

"Amerikako bizitza" du izena lehenengo aipatzera goazen bertso sailak[677]. Txirrita bertso hauetan, izenburuak dioenaren arabera, Amerikako bizitza deskribatzen saiatzen da. Bertso sailak bi atal nagusi ditu: lehenengo zazpi bertsoetan, eta baita bederatzigarrenean ere, Ameriketako bizimodua azaltzen du. Zortzigarren bertsoan, berriz, aldartez aldatzera doala ematen digu aditzera, Ameriketatik etxera bueltan datorren indianoaren ibileren berri emanez. Hamargarren bertsotik hamazazpigarrenera, indiano zehatz baten figuran pertsonifikatzen du etorrera hori.

Ameriketara joatea hainbat gipuzkoarrentzat probintzian bizi zuten pobrezia egoerari ihes egiteko modu bat zen, eta gero, gainera, handik hona etorriz, beren bizimoduarekin hemen jarraitzekoarena. Hala eta guztiz ere, gipuzkoar biztanleek izan zezaketen ideia okerrik Amerikako bizimoduaz: bueltan zetozen indianoak

---

[673] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 67. or.
[674] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 67. or.
[675] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 209.-212. or.
[676] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 209. or.
[677] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.

ikusiz, irudi ziezaiekeen bizimodu erraza eta irabazi errazekoa zela Ameriketakoa. Txirritak garbi utziko digu Ameriketan dirua egin ahal izateko lana franko eta tabernara bisita gutxi egin behar direla, bakardadean bizi beharreko bizimodua dela hura, eta guztiek ez dutela zorte berdina izaten. Eta gainera, gero, jaioterrira bueltan, edadean nahiko aurrera eginda, bere bizimodua berregin behar izaten duela indianoak. Ameriketara joan nahi duenak, jakin beza hori guztia aurretik. Bertso horiek izan zezaketen, errealitate bat deskribatzeko helburuaz gainera, garai hartako gazteei gauzak garbi adieraztearena ere.

Txirritak garbi uzten du emigratzearen arrazoi nagusia beharrarena dela *"Europa'tikan askok egin du / Amerikara bixita, / etxe onian jaioagatik / danak an ezin bizita;"*[678], edota bigarren bertsoan: *"Nik ezagutzen nituen zenbait / Amerikara juan zian, / gu emen asko gauden bezela, / poltsatik ariñ antzian;"*[679]. Bertso sailaren lehenengo atalean azpimarratzen duen bigarren ideia, Amerikako bizimoduak duen segurtasun eza edo eskasa da: *"Andik onera ezin liteke / diru askorik bialdu, / bat bera nola gertatuko dan / segurantzirik bai al du?*[680]"; edota laugarren bertsoan. *"izanagatik eunka beiak / eta millaka ardiyak, / urte batetik bestera igual / galduko zaizka erdiyak"*[681]. Edota oso modu grafikoan, bertso sailaren bigarren zatian, ama eta seme indianoaren arteko elkarrizketan. Hamargarren bertso bukaeran, amak galdetzen dio: *"[…]<Nere seme maitia, / sano ta ondo al zea? / Kristau biziya nekez berenik / nunbaitetik azaltze'a!>"*. Eta semeak hurrengo bertsoan erantzun: *"<Bai, amatxo bai, aguantatu dit / osasuna ta biziyak, / nerekiñ ara juan ziradenak / ez daude onla guziyak; / baditut aski lagun maitiak / ill da lurpian utziyak, / nerau txit ondo ibilliya naiz / Jaungoikuari graziyak>"*[682]. Azkenik, Txirritak bereziki nabarmentzen duena, Amerikako bizimoduaren gogortasuna. Lana franko egin behar da eta sakrifizioak ugari egin behar dira: *"lana egiñaz aberastuak"*, *"Ameriketan aberasteko / eztira basta bi ordu, / an ere zerbait izango bada / berak saiatu biar du"*, *"Amerikatik baldin baletor / gizon bat ona ta fiña, / bere lanaren sakrifiziyoz / diru-puska bat egiña,"*[683], *"Naiagatikan oiek bezela / ez dago errez irauten / denbora asko bajatu gabe / mendiyan dira egoten; / ango langille jendiak*

[678] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427.or. Lehen ere aipatu dugu puntu hau.
[679] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.
[680] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.
[681] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.
[682] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 428. or.
[683] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.

*eztu / ardo askorik eraten"*[684]. Sakrifizioak zertan? Lagunartean eta edanean, batez ere. Orainean pentsatu ordez, etorkizunean pentsatzen ikasi behar dute:

> *"Ameriketan asko dabiltza, / nik kalkulatzen dedanez, / naiko okelak janagatikan / erari gutxi eranez / <Gure sagardo maitagarriyak / aparte daude! –esanez-, / Naiago nuke an banegoke / naiz diru asko izan ez.*
>
> *Lagun prestuak aldamenetik / trankilidade onian, / okela jan da ura eranez / ari liteke lanian; / nere biyotza konsolatzen da / au pentsatzen dedanian: / pena guziyak aztuko dira / aberasten geranian!!>"*[685] .

Bertso aldiaren bigarren zatian, indianoaren etxerako bueltaz mintzo zaigu Txirrita. Etxe onean jaioagatik ere, bertan bizitzerik ez zuen indianoa, "*parientiak bisitatzera*" [686] atseginez etorriko da bueltan. Txirritaren kontakizunean, Mandaburuko indianoa ama bisitatzera joango da lehendabizi, "*lenago ere etzan izandu / familiaren etsaia*"[687]. Txirritak, ondoren, inguruko neskazahar baten esperantzak kontatzen dizkigu, indianoarekin ezkontzeko dituen asmoak agertuz.

Ameriketara emigratu zuten gipuzkoarren kasuan, lau bizi esperientzia azpimarratu nahi genituzke: bata, jaiotetxetik atera behar izana[688]; bigarrena, soldatapeko langile bezala izandakoa; hirugarrena, Ameriketan bizi izan izan ziren bitartean, dirua irabazteko helburuak euren bizitzetan hartutako tokia; eta laugarrena, lehen ere aipatu dugu, oraina etorkizunaren menpeko eginez bizi izatearen esperientzia. Gure ustez, lau esperientzia horiek azkartu egin zuten indianoengan ekonomia ulertzeko modu berria, modernizazio prozesuak zekarren kapitalismoaren indartzea, nahiz eta, Txirritaren bertsoetan ikusi dugun bezala, indianoa bueltan etortzen zenean, Ameriketara joan aurreko errealitatera egokitzen saiatzen zen berriro.

Txirrita abila da, ordea, "kontraereduak" ere ematen. Ederki adieraziko digu "anti-indianoaren" berri "Alperraren suertia Txirritak jarriyak" bertso sailean[689].

> *"Alperkeriyak bentzitu zuan, / aztu zitzaion lanian, / golfo guziyen kapitan zegon / Kaliforniya danian, / usandutako okelak janaz / beti ziar etzanian; / ango zakurrak kontentu ziran / ura etorri zanian"*[690].

---

[684] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 428. or.
[685] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.
[686] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 427. or.
[687] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 428. or.
[688] Segundoiek bizimodua etxetik kanpora bilatu beharko dute: honek sufrimendua eragingo die, atera behar izanagatik. Aldi berean, askatasuna ere ekarriko die, bizitzari aurre egin beharko diete.
[689] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit. , 430. or.

Alferraren zortea zergatik? Dirudienez, herentzia bat jasotzeko izendatua izan zen[691] eta, Ameriketatik bueltan, herentzia hori jasotzera etorri zen, nahiz eta etxekoei hura Ameriketan aurkitzea kostatu[692].

Eta Txirrita kontraereduak ematen abila den bezala, Pedro Mari Otaño, berriz, errealitatetik abiatuta ereduak sortzen dugu maisu. Lan honen beste atal batzuetan etekin gehiago aterako badiegu ere, ezin dugu ahaztu Otañok idatzitako bi operetan, estuki hartuz gero, gai ekonomikoaz ere hitz egiten duela[693].

Eta ez soilik bi opera horietan. Gure lanerako aukeratu ditugun bertsolarien artean, zalantzarik gabe, Ameriketara emigratzeaz gehien hitz egiten diguna eta lehenengo pertsonan, gainera, Pedro Mari Otaño dugu.

Zehazki noiz kantatu zuen ez badakigu ere, ikusi dugun bezala, hirutan joan baitzen Pedro Mari Otaño Ameriketara, hona despedida gisa kantatu zuen bertsotako bat: *"Amerikara nua / nere borondatez, / aspertu naizelako / emengo suertez; / onetara ezkero / joan biar det nait'ez, / emen gelditze'iranak / ondo bizi bitez"*[694]. Ameriketara joatearen arrazoien artean bizi duen egoera kaxkarra legoke, berak zorte txar izendatua. Ezaguna da, halaber, beste honako bertso hau: *"Kafia artzen diat / egunian bi aldiz, / eta nai detanian / pasiatu zaldiz; / obeto izatia / zalla uke agitz, / baldiñ bizimodu au / Donostiyan balitz"*[695]. Pedro Mari Otañok bere lagun Jose Leoni bidalitako bertsoa omen da, gerora *Zerbait* liburuan argitaratua. Ameriketan zituen bizi baldintza material egokiak dira hemen aipatuak, nahiz eta, segur aski, han bizi izan zen urte guztietan horrelakorik izan ez zuen.

Euskaraz hizketan ari dela "Ama Euskara" izeneko bertso sailean, kontakizun eran, Pedro Mari Otañok poliki adierazten du Ameriketara emigratzearen arrazoien artean gainpopulazioa eta nekazaritza krisia nola izan ziren, aurretik, lur pobreari etekina ateratzen ikasi bazuten ere:

> *"Bizi-lekutxo txiki batean / berez toki zekenean, / bañan ala ere pozez semeak / bildurik zeduzkanean, / bizi zan ama biyotz samurra / berien aldamenean; / danak*

---

690 ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 430. or.

691 *"[…] an zebillela izandu zuen / tokamentu bat aundiya, / lanian asko biartu gabe / izan da orren Indiya"*. ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 430. or.

692 *"Gobiernuak bota zituen / Arjentina'ko partera; / parientiak orren sustraia / etzuten errex atera"*. ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 430. or.

693 1900. urtean idatzitako operaren izenburua "Artzai-mutilla" da eta 1907an idatzitako "Lora" operan berriz behar ekonomikoengatik Ameriketara doazen bi gazteren istorioa kontatzen digu.

694 ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I*, op. cit., 175. or.

695 ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I*, op. cit., 179. or.

*alkarri lagun egiñaz / saiaturikan lanean, / iritxi ziran larreak baratz / biurtzera azkenean.*

*Jaungoiko onak ikusirikan / jende aren ontasuna, / beti oparo ematen zien / indarra ta osasuna; / lanaren birez berendu zuten / lur zallaren erantzuna, / urrutietan ere izan da / geroz askotan entzuna, / nola miriariz artu oi zuten / ango ugaritasuna.*

*Ainbeste zuten lur zikoitz ura / landu eta ongarritu, / non eman zuben jankaiarekiñ / danak oi ziran arritu; / bañan jatunak ere geiegi / nola ziran ugaritu, / ta leku txiki edertu ura / eziñ zeikian aunditu, / norabaitera joan bearrean / asko ziraden arkitu.*

*Lur txiki artan guzien diña / gauza nola etzegoan, / seme batzuek txit urrutira / bear izan zuten joan; / bañan, ai, nola arkitzen ziran / andik aldegindakoan! / Itz bat bakarra zebillen aien / biotzean ta aboan. / Ama gaxoa beste gauzarik / etzeramaten gogoan"*[696].

Esan bezala, 1892an idatzitako bertso hauek "Ama Euskara" dute izenburua. Pedro Mari Otañok amari erreferentzia egiten dionean, euskal hizkuntzaz ari da beraz[697].

Pedro Mari Otañok ere, "Lora" operan, Ameriketara doan gazte baten gorabeherak kontatzen dizkigu Araz pertsonaiaren bitartez. Emigratzen ote dutenak bueltan etortzen diren edo ez aipatzen da, beste gauza batzuen artean. Honek aro garaikideko eta aro modernoko emigrazioak desberdintzen ditu. Emakume batzuen ahotan, hau jartzen du Pedro Maria Otañok: *"Asko ikusten ditugu joaten / Amerikako aldera, / bañan txit gutxi etortzen dira / berriz sorterri maitera"*. Eta gizonek, erantzun: *"Ez degu zispuru ta / negar biarrikan, / euskaldunak ugari / daude Amerikan; / gaur ez dago iñolaz / lengo konturikan, / joan-etorriya errez / egiten da andikan"*[698].

Ameriketarako emigrazioaren gaiarekin ez dugu orain arte esandakoekin bukatu. Gizarte eta politika gaiei helduko diegunean, berriro ere, itsasoaz beste alderako saltoa egingo dugu, horrek prozesu hau bizi izan zutenengan zein eragin izan zuen landu ahal izateko.

Aztertutako bertsolariak beren burua pobretzat zutela eta egoera horretatik atera ahal izateko jarrai zitzaketen estrategiez hitz egin dugu. Baina, ba ote ziren eurak baino pobreagoak? Marjinatuak? Zeintzuk ziren? Zein eratako harremana zuten

[696] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 366.-367. or.
[697] Pedro Mari Otañoren gauzak kontatzeko modua guztiz bestelakoa da. Bertsoak idazterakoan errealitatearekiko hartzen duen distantzia handiagoa da eta diskurtso landuagoa du. Hala ere, gure ustez, abiapuntu duen errealitatea landa eremukoa da, han bizi izanaren esperientzia sakona du.
[698] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 287. or.

bertsolariek beraiek baino pobreago ziren haiekin? Eskekoak diren pobreak, ijitoak, kanpokoak, etab. aurkitu ditugu aztertutako bertsoen artean.

Pasarte polita jasotzen du Antonio Zavalak Pello Errotaren alaba Mikaelaren eskutik. Gau batean, ikusi omen zuen beren aitak gizon bat, euritan, ostaturik ez zuela (Konportan –ondoko baserrian- ez baitzuten hartu, nahiz eta tokia izan). Aitak, arropa lehorrak eskaini eta ganbaran jarri omen zuen. Hurrengo egunean, hizketan, jakin ahal izan omen zuen haren berri gehiago: Fabian Gil zuela izena, erdalduna zela, eskean ibiltzen zela, emaztea hil eta bi semerekin gelditu zela bera[699]. Pello Errotak gizon honekiko agertzen duen jarrera irekia da. Eskekoen artean ere, bereizketak egiten ditu, eta Fabian honen kasuan, nahiz eta eskekoa izan, *"gizon polita, txukuna"* zela esaten digu (Mikaelaren bidez), ez zela *"zorritsu oietako bat"*. Eta nahiz eta eskekoa izan, *"gordetzen zuena"* zela, alegia, bazekiela semeei bidaltzeko jasotakotik gordetzen[700]. Mikaelak, hurrengo lerroetan, bere aitaren berri ematen digu. Pobreekiko nolako jarrera zuen azaltzen digu eta, honen oinarrian, aitak zuen kristau izaera azpimarratzen du (eurei helarazi nahi izan ziena):

> *"Bai; gure aitak pobreentzako bazuen gogoa.*
>
> *Ijitoak ere maite izaten zuten ura; ez dakit nun ere kaso egin ziotela esaten zuan.*
>
> *Arek etzuan, beste batzuek bezela, kanpoko bat ikusi ta ura jo egin bearra. Errezillen omen zan, garai batean beñepein, jenio ori: kanpoko bat ikusten bazuten, erremedio gabe jo egin bear. Pestara ere joan, da:*
>
> *-Zer pesta-modu ikusi dezute?*
>
> *Ta:*
>
> *-Utsa; borrokarik ez dek izan, da utsa.*
>
> *Arek, berriz, beti esaten zigun:*
>
> *-Gizonari egiozute ondo! Beti egiozute gizonari ondo! Etorriko zaizute andik edo emendik ondo egiñarena; bañan bai gaizki egiñarena ere.*
>
> *Bai; arek famelia kristandadean azi zuan, da kreditu txarrik etzuan utzi.*
>
> *Gure aita gizarajoak etzuan pobrea izatea besterik"*[701].

Beraz, Pello Errota pobrea dugu (gehiengoa hala izango da). Baina badira bera baino pobreagoak: eskean ibiltzen direnak. Eskekoen artean, batzuk txukun ibiliko direnak izango dira, eskatzen duten dirua benetan behar dutenerako erabiltzen dutenak. Beste batzuk, berriz, dirua eskatu bai, baina gero erraz xahutzen dutenak

---

[699] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 55. or.
[700] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 56. or.
[701] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 56. or.

izango dira, askotan zikin eta narras ibiliko direnak. Honen adibide dugu "Goixueta"ri Pello Errotak jarri zion bertsoa: *"Goixueta, etzaude / ipurditik gaizki, / mozkorrik pasa gabe / bizi zera noski; / eran da pagatzeko / poltsan diru gutxi, / olakuak elikek / andrerik merezi"*[702]. Dirudienez, eskean ibiltzen diren hauetako batzuk kanpokoak ere badira, eta hainbat tokitan, gaizki hartuak dira (Mikaelak espresuki adieraziko digu bere aitak ez duela horrelakorik egingo). Modu apartean aipatuak izango dira ijitoak ere, eskeko eta kanpokoengandik bereiziz. Hauek ere estimatzen omen zuten Pello eta, nonahi zela ere, kasu egiten omen zioten. Ez du, beraz, Pellok bizi mailaz "beste" diren horiekiko gaindiezina den distantziarik ikusten: bestela, harremana badu eta zaindu egiten du (nahiz eta badirudien ez dela hori gehiengoaren jarrera)[703]. Izatekotan, eskekoak diren "zorritsu" diru xahutzaileak izango lirateke Pelloren gogoz kontrakoak, baina ez dakigu praktikan horiekiko zuen jarrera zein zen (orduan ere izango zirela, jakina, gizarteaz "kanpo"gelditzen zirenak).

Txirritak ere egiten dio erreferentziarik eskaleei[704], bati, behintzat, bai[705]. Jose Ramon Erauskin Lujanbiok kontatzen digu pasadizoa. *"Garai artan, beren denbora morroi pasatako eta aberastu gabeko eskale batzuek ibiltzen ziran eskean eta non illundu an ostatu egiñaz"*[706]. Eskaleen artean ba omen ziren morroi izandakoak ere. Txirritak eta haietako eskale batek apustua egin omen zuten nork belar gehiago ebaki. Eskaleak ebaki eta jaso egin zuelako irabazletzat jo zuen bere burua. Alkoholizatua zegoen emakume eskale bati ere jarri zion Txirritak bertsoa. Tabernari batek andregaitzat proposatu zion ukuiluan botata zuen edanda zegoen emakume eskalea: *"Adiskidea, egin dirazu / zuk pretensio ederrik, / aldamenetik ez det olako / toreadore bearrik; / Moko-legorrak bustiko du / billatzen badu patarrik, / bizio ortan trebe badago / bizi dedilla bakarrik"*[707]. Beste bertso berri batzuetan ere, eskean ibiltzeari erreferentzia egiten zaio: *"Ai, Mariano, jakintsun nago / zer estadutan zabiltzan: / paotxa janaz anima salbo / ari konkorraren gisan; / osaba zarra bere denboran / ez da orlakua izan, / biar badezu nik bezelaxe / juan da artzazu elizan"*[708]. Kasu honetan, besteren kontura bizi den mutil bati egiten zaio erreferentzia eta dirudienez, elizan eskera joateko gomendatzen zaio. Beste behin, berriz, San Juan bezperako kopletan abestua jasoz, honakoa dio Don Migel Mendikute herriko bikario zenaren aitonari buruz: *"Bedorren modun aitonak ere /*

[702] ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 258. or.
[703] Baloratu egin beharko genuke zenbaterainokoa den hau jarrera arrunta ala ez.
[704] ZAVALA, Antonio: *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 235. or.
[705] Hemen kontatua ere, orokortzekoa ote?
[706] ZAVALA, Antonio: *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 235. or.
[707] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 144. or.
[708] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 399. or.

*Don Migel zuben izena, / amaika ijito eta eskale / mantendutako gizona"*[709]. Txirritak honela dio, Altzan bizi zela, 1931n, etxeko txakurra desagertu zenean jarritako bertso sailean: *"Orra amabi bertso / zakurrari para, / amaika eskale xarri / eman diyo ikara; / asarretzen zanian / beltza zuen kara, / aiek daukate poza / illa baldiñ bada"*[710]. 1932an argitaratutako bertso batzuetan, euskararen egoeraz ari dela, azkeneko bertsoan ere honela dio: *"Biyotz biguña daukagu emen / anparatzeko pobriak, / gudarako're non izan dia / lur ontan baña obiak? / […]"*[711].

Txirritak ijitoei buruz ere hitz egiten du eta ematen digun ikuspegia Pello Errotak eman digunaz bestelakoa da[712]. Lapurtzat aurkezten dizkigu eta horien zenbait ohitura "bitxi" esplikatzen dizkigu. Lehenengo bertsotik, garbi hitz egiten digu Txirritak:

> *"Esplikatzera nua kontuak / ijito jende oienak, / nola diraden gure artian / gertatu izan diranak; / alperrak edo mozkorrak dira, / erdi lapurrak geienak, / okasiyua ta eskandalua / faltatutzen etzaienak"*[713].

Osoa zatiaren parte hartzen du. Estereotipoekin jokatzen du: "ijito jendea", "naziyoa" gisako hitzak erabiltzen ditu, bereizketarik egin gabe, ijito guztiei buruz hitz egiteko. "Naziyoa"ren kasuan, ikuspegi etniko batetik erabiltzen du kontzeptua.

Zeintzuk dira hauei buruz azpimarratzen dituen ezaugarriak? Beren itinerantzia, *"dabiltza juan-etorriyan", "siñalien bat utziko dute / sartzen badira erriyan"*[714]; besteren gauzak bereganatzeko duten abilidadea, *"gauza guziyak gero berentzat / iñor bistan eztanian"*[715], *"Kojitutako aberiakin / nola nai duten jokatu, / emen ostu ta aruntz eraman, / an saldu edo trukatu; / anguak berriz onuntz ekarri, / jabiak ezin topatu; / kontu garbiya nai duenak ez / ijituakin tratatu"*[716]; dituzten haur kopuru handia, *"Ijituetan gutxi izaten / dirade berriz antzuak / naturalezaz kasta gogorrak / ta gañera umetsuak; / bizkarrian bat, tripan bestia, / aldamenetan*

---

[709] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 148. or.
[710] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 478. or.
[711] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 498. or.
[712] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 439.-440. or.
[713] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 439. or.
[714] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 439. or. Herritik kanpora kokatzen dira beraz, ez dira herriaren parte.
[715] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 439. or.
[716] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 440. or. Zortzigarren bertsoan, berriz, ijitoetan gizon edo emakume, zahar edo gazte izan, bakoitzak zer osten duen azaltzen digu: emakumeek sasietatik oihalak eta oiloak, mutilek poltsak miatzen dituzte kaleetan, eta gizonek mendietan behor eta astoak.

*batzuak, / sall galantakin ikusen dira / dabiltzala geientsuak"*[717]; familiakoen artean egiten dituzten ezkontzak, *"naiz aide izan ezkontzen dira / alkar nai dutenarekin"*[718] eta euren artean maiz izaten dituzten haserreak.

Zergatik desberdintasun hori Pello Errotaren eta Txirritaren artean? Ezin ziurtatu dezakegu, baina posible al litzateke Pello Errotak Txirritak baino zuzeneko harreman handiagoa izatea ijitoekin? Edota, lehenengoaren esperientzia hobea izatea bigarrenarena baino?

Behera begiratu ostean, gora begira ere jarri behar. Ikus dezagun bertsolariek eskekoei buruz ez, baizik eta aberatsei buruz, jabeei buruz, zer esaten diguten. "Kaballeruei" dagokienez, Pello Errotak Fidel Lizarraga hartuko du aintzat. Fidel Lizarraga Villabonako alkate izan zen. Bertako hainbat etxe bereak omen zituen jabetzan. Horretaz gainera, Gipuzkoako Diputazioan ere izan zen diputatu. Aberatsa, beraz, jabetzak zituena, eta aldi berean, politikan sartua zegoena[719]. Zein zen Pello Errotaren jarrera berarekiko? Mikaelak Pello Errota eta Fidel Lizarragaren arteko pasarte bat jasotzen du[720]. Dirudienez, Fidel Lizarraga ehizean ibili zen Asteasu inguruan, zaldia eta eskopeta hartuta. Pello Errotaren oilarrari tiro egin eta zauritu egin omen zuen. Duro bat edo bi eman omen zizkien Elizegitarrei, baina Pello Errotaren emaztea haserretu egin omen zen[721]. Pellok emazteari, ordea: *"-Ixo gizon oiekin. Ollarragatik ez kasorik egin"*[722]. Hobe, beraz, sesiorik ez izatea halako pertsonekin. Harremana, hortaz, justua.

Beste behin berriz, Pello Errotak Fidel Lizarragari garia erosi eta hura galbahean garbitzen ari zela, zilarrak aurkitu zituen. Honela esan omen zuen Pellok: *"Zillarra ere sobran al ditek? Guk ez, ba"*[723]. Hona hemen, "haiek" eta "guk", non zuten beste gauza batzuen artean, aldea.

---

[717] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 440. or.
[718] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 440. or.
[719] Bibliografian bere berri jasotzen saiatu gara, baina ez dugu erreferentziarik aurkitu. Interneten bila ari ginela, bere sinadura honako dokumentuan aurkitu dugu: "Gipuzkoako Diputazioaren zirkularra foruak gordetzeaz, estatuari pagatu beharreko kupoaz eta soldadutzaz "(1877). Irargi-"Centro de Patrimonio Documental de Euskadi"ko "Badator" datu basean: Archivo Municipal de Zumarraga. Fondo Municipal. Histórico. Relaciones del ayuntamiento. Relaciones con la Diputación. Registros de Juntas Generales y Sesiones. E/2/I-Libro 9; Exp. 3.1877-00-00. "Impreso con certificado de nombramiento de procurador para la Junta particular de Villafranca (…) y circulares con acuerdos". Bertsio honen iturria: Imanol Trebiño, Administrazio zibileko testu historikoak, HAEE-IVAP, 2001.
[720] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 58. or.
[721] Haserretu, zergatik? Kaballero hark egindakoagatik edo eurei emandako tratuagatik?
[722] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 58. or.
[723] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 59. or.

Bestetik, Mikaelak berak, Fidel Lizarraga honen ezaugarri batzuk ematen dizkigu. Batetik, oso aberatsa zela, ia Villabona guztia berea zuela, Irurako Ama Birjiña Erremediotako ermitan berak jarria zela. Bestetik, fededuna zela eta pobreei limosna ugari ematen ziela[724]. Hurrena, apaizarekin sesioa izan zuela, sermoia hasi zuenean gutxiago hitz egin eta gehiago egin zezala esan ziolako, eta hortik aurrera, apaizak Villabonako kaperan sartzea debekatu ziola; mutil zaharra zela eta izeba eta arrebarekin bizi zela, etab.

Datu horien arabera, beraz, Pello Errotak ez zuen harreman handirik aberatsekin. Eta harremanik zuen kasutan, aparte ikusten zituen, distantzia bat nabarmenduz batzuen eta besteen artean. Izatekotan, hobe gaizki ez konpontzea, hauek alde izanda, beti lortuko baitzuen kontra izanda baino gehiago.

Xenpelar ere konturatuko da gizartean dauden desberdintasun ekonomikoez. Honela adieraziko du hau: *"Balkoyian ziranak / ez dira errez gorde, / franko arrapatu ditu / aberats eta pobre; / maindiria ostuta / juan da gero ere, / asaltuan sartuta / sakiua libre"*[725]. Beste okasio batean, Oiartzungo neskatxen bentajez ari dela: *"Bide batian izaten bada / enkontratzeko fortuna, / saludatzean bai zait gustatzen / aien egokitasuna; / aberats eta pobre / guztientzako noble, / igual da ez-ezaguna; / ori da gure relijiyuak / erakutsitzen diguna"*[726]. Xenpelarrek, beraz, aberats eta pobreak bereizten ditu eta Oiartzungo neskatxek biei ala biei kasu egitea da estimatzen duena. Hala ere, gure ustez, batez ere kontuan hartzen duena neskatxa hauek pobreei kasu egitea da, euren egoera sozio-ekonomikoari kasurik egin gabe, edo hau, gutxiesteko arrazoitzat ez hartuz, behintzat.

Pello Errotak "kaballeruak" aipatzen ditu, zeharkako bidez, beste bertso sail batean ere: "Disponitu det asunto bati" bertso sailean, ezkontza tratu batez ari da Pello Errota. Ezkontza tratua puskatu izanaren arrazoia, mutilaren hitzetan, neskak arloteak alde batera utzi eta "kaballerua"rekin nahiago izatea da. Ikus dezagun "kaballerua" nola ezaugarritzen duen, "arlotea"rekin kontrastean.

Arlotea pobrea da eta ez du jabetzarik. Izatekotan, daukana, lanerako indarra eta gogoa dira. Hona:*"Esaten niyon: <Arlotia naiz, / ondasun asko gabia, /*

---

[724] Mikaelak Fidel Lizarragari buruz esaten digu poltsikoak diruz beterik eramaten zituela eta pobreei ematen ziela. *"Arek bazuan fedea. Fedeak obrak bear ditu, ta ura Erniora bazijoan ere, patrika guztiak diruz beteta eramaten zituan. Orduan millaka pobre egoten zan bide baztarretan. Orain ez da egoten bañan orduan inbalido guztiak egoten ziran. Eta denai ematen zien, patrikak ustu artean (…) Bai, oso-oso limosneroa zan, da Billabonan pobre guztiak negar egin omen zuten, ura il zanean"* ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 58. or.

[725] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 143. or.

[726] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.

*prezisamente ez naiz izango / diru askoren jabia> / Erantzun ziran: <Baldin bazera / lana egiten trebia, / saiatu ezkero luzituko da, / zer da bizitza obia?>"*[727].

Eta zeintzuk dira "kaballeruaren" ezaugarriak? *"Aberatsakin tratatziagatik / galdu du nerekikua, / pesadunbriak manifestatzen / izandu zera pijua; / auzo batetik bestera ere / sonbrillarekin dijua, / interesetan ez dakit zer dan, / lujua badu naikua"*[728]. Aberatsa eta luxuaren laguna da, beraz, "kaballerua". Eta ez hori bakarrik. Duena erakustearen aldekoa da: *"Kaballeruakiñ pasiatzen du / egunaz eta gabian, / beso ondotik artutzen dute / nik baño modu obian; / enteratuba egon biar du / de bracete-ko legian, / eusten diyote erori ez dediñ / lurrera uste gabian"*[729]. Dena ona ote dute "kaballeru" horiek? *"gizon ederrak izketa leunak, / gañera boltsa beruak, / gugandik gusto partikularra / dizute kaballeruak"*[730]. Eta, zer da neskari egozten dion akatsa? *"Orgullua edo grandeza bada / gaurko egunian munduban, / ez banintzaden zuretzako ona / ez biartzia zenduban"*[731].

Txirritak, berriz, Astigarragako markesa aipatuko du bere bertsoetan[732]. Astigarragako markesak gonbidatu omen zuen Txirrita bertsotan egitera Astigarragara. Herria deskribatu ondoren eta bertako historia "loriatsuaren"[733] berri eman ondoren, markesa goratuz bukatuko du bertsoa: *"Astigarraga zer dan juzgatzen / ez da danentzat erreza, / eztakienak ikasitzeko / atentzioa jar beza: / emen jipoiak artuak dira / moruak eta frantzesa, / orain jendeak argatik dauka / indarrarekin grandeza, / biba Ermo'ko don Kandido ta / bere anaia markesa!"*[734].

Txirritak berak, 1931n Santo Tomaseko feriaren inguruan jarritako bertso sailean pobre eta aberatsen arteko harremanak ez ditu hain hotz ikusten: *"Abenduaren ogei ta bata / Santo Tomasen eguna, / Donostiya'ko ziudadian / jai zelebratzen deguna, / pobre ta aberats jende askori / maiz akordatzen zaiguna; / Azpeitiya'n du beste santu bat / bere antzeko laguna"*[735]. Eta bukaera aldera, berriz: *"Donostiarrak ez dira egongo / Santo Tomasez antziyak; / teatru ortan ikusten dira / pareja ondo jantziyak: / oial fiñezko traje ederrak / lujo aundiyan josiyak; / festa aundiyak izango*

---

[727] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 150. or.
[728] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 152. or.
[729] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 152. or. "De bracete"ko legeaz dioena, bazirudiela gizonak andreari besoa eskaintzen ziola hark berea jartzeko eta eusteko, bakarrik ibiltzeko gai izango ez balitz bezala. Badu ironia puntu bat.
[730] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 152. or.
[731] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 150. or.
[732] ZAVALA, A. (biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 126.-127. or.
[733] Egia esan, herrian egon zitezkeen gorabehera eta arazoetan sartu gabe, goralpenaren bidea hartzen du Txirritak.
[734] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 126.-127. or.
[735] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 485. or.

*dira, / etorri danak guziyak*"[736]. Batetik, janzkera berezi eta aberatsez jantzitakoak aipatzen ditu; baina, bestetik, guztiei dei egiten die joan daitezen. Baliteke Txirritak pobre eta aberatsen arteko tartea Pello Errotak baino laburragoa ikustea? Edo joera, behintzat, zein zetorren antzematea?

Landa eremuan badugu "aberats" eta "pobre" dikotomiaren beste adibide bat ere. Etxe edo baserrien jabe eta horietan errentan bizi direnek osatua da hori. Bertsolari askok, zuzenean edo zeharka, tratatzen dute gai hori. Gehienetan, errentak ordaindu ezin ditzaketen maizterrak ageri zaizkigu.

Hautsitako ezkontza baten berri ematen duten bertsoetan, Pello Errotak nagusien eta maizterren arteko arazoen berri ematen digu. Kasu honetan, hautsitako ezkontzako emaztea etxean geratu da familia eta amorantearekin, eta ezin izango dio errentari aurre egin. Senar ohiak tratua egingo du baserriaren eta lurren nagusiarekin zorrari aurre egiteko:

> *"Ni atera ta errentarikan / oriyek ezin pagatu, / artuak eta sagarrak ziran / guztiyak bertan geratu; / nagusi jaunak oiek dianak / gero dizte enbargatu, / iñuzentia gertatu balitz / bazeukak zeñek pegatu.(sic)*
>
> *Gero neronek artu nituben / oieri enbargatubak, / gurdi sagarra lau pezetan da / zortziyan berriz artuak; / nagusiya ta biyok giñaden / orretan arreglatubak, / galerarikan ez dit eragin / denbora artako tratubak"*[737].

Baserri eta lurrengatik errentarik pagatzerik ez zutenez, ezin, ezta ere, fruta arboletako eta baratzeko etekinik jaso. Senar ohiak egingo du tratua jabearekin: artoa eta sagarrak hari ordaindu eta, ondoren, berak salduko ditu berriro, etekina atereaz, gainera. Atal honetan bertan aurreraxeago egingo diogu erreferentzia jokabide horri.

Aurrerago aipatuko badugu ere, nagusiak eta morroiak ere bereizten ditu Pello Errotak Alkiza eta Asteasuko herriek Arantzazura egindako erromesaldiaz osatutako bertso sail batean. Erromesaldiak desberdinak batzeko gune eta une berezi gisa aurkeztuko dizkigu: *"Alkar akonpañatu / dute bi erriyak, / milla esker, sazerdote / beneragarriyak; / berdiñ-berdiñ jo degu / nagusi-morroyak, / aurrian arturikan / mendiko arriyak, / alkarrekin gustora / gera etorriyak"*[738].

Bilintxek berak ere lantzen du gai hau, zeharka bada ere, "Juana Bixenta Olabe"ren bertso sailean. Nahiz eta gai nagusia hori izan ez, bertan ere ageri dira nagusiari

---

[736] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 486. or.
[737] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 180. or.
[738] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 198. or.

errenta ordaindu ezin dioten eta maizter diren ama-alabak[739]. Hona saileko bigarren bertsoak zer dioen Joana Bixentaren ahotsean: *"Amak esan dit, etxeko errenta / pagatzeko dirurik ez zuben-ta, / ia egingo diyon mesere, / illabetian geienaz ere, / itxogotia [sic]; / bara zierto dala ematia / pasa baño len illabetia"*[740]. Aurrerago bueltatuko gara bertso horietara.

Pedro Mari Otañoren bertsoetan ere aurkituko dugu gai hau. "Artzai-mutilla" operan adibidez, oso presente dago. Izan ere, bost pertsonaia nagusietatik lau maizterrak dira eta bat, berriz, nagusia. Nahiz eta opera honetan maitasun istorioa izan nagusi, gizarte mailaketaren gaia ere ageri da. Artzain mutil eta artzain neskatila batek elkar maiteko dute. Aldi berean, nagusiak artzain neskatila maiteko du. Nagusiaren aberastasun eta lurrak, ordea, ez dira nahikoa izango bi artzainen arteko maitasuna puskatzeko.

Artzain neskatila beharrean dela, nagusiak lagunduko dio amildutako ardi bat salbatzen: *"Estutasunean ala, / ardiaganuntz noala, / zer egiñ eztakidala, / seme nagusi Etxegoikoak / lagundu dit bereala; / eskerrak izandu dala / Iñazio aiñ leiala, / Jaunak saritu dezala!"*[741]. Patxiko artzaina Iñazioz kezkatzen hasiko da, Maritxu lapurtuko ez ote dion. Horregatik, beren maitasunaren promesa egiten dute bi artzainek: *"Jauregi eder gaiñ-gañekoan / zauten aur bedeinkatuak, / adi itzatzute gure promesak, / eresi eta botuak; / ona emen bi biotz libreak / pozez alkarganatuak, / amoriozko kate santuaz / beti-betiko lotuak"*[742].

Zein eratako harremana da nagusi eta maizterraren artekoa? Muturrera eramana izanik ere, hona nolakoa agertzen duen Pedro Mari Otañok. Patxikok honela diotso bere nagusiari: *"Itxozu! / Igartzen dizut zer gaitz daukazun, / ta nere biziz bertan / emango nuke, zuk ez dezazun / penarik izan ezertan. / Baña, Iñazio, baldin bazatoz / amoriuaren eske, / ori nik eziñ utzi neizuke, / etsiya egon zintezke"*[743]. Nagusiak orduan: *"Bear ez deran gauza eskaintzen / guztiz leialak zerate, / zure itz prestu gezurrezkoak / biotza lertu dirate… / Agur, Patxiko, agur, Maritxu, / urrengo aldi bat arte. / (Badijoa ixilka esanaz:) / Etxe ta lurren jabea ni naiz, / agindu nezakeana, / Patxiko utzi eta Maritxu / etorriko da nigana, / jakingo dute bestela zein dan / Zabelain-go etxe-jauna"*[744]. Azpimarra ditzagun hainbat elementu: maizterrak

[739] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 289. or.
[740] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 289. or.
[741] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 209. or.
[742] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 210. or.
[743] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 211. or.
[744] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 211.-212. or.

bizitza emango luke nagusiaren alde, leialtasuna dio, beraz, maizterrak nagusiari. Nagusia, berriz, jabea da eta aginpidea dauka maizterrengan.

Nagusi eta maizterren arteko harremanari buruz, opera berean bertso batzuk aurrerago, herritarrek –ziurrenik maizter zirenek- nagusiari berorika hitz egiten diotela ikus dezakegu: *"On Iñazio, betor / bere etxeraño, / guk pozik lagunduko / diogu araño"*[745].

Patxiko eta Maritxuz gain, lehenengoaren aita Peru eta bigarrenaren ama Josepa ere ageri dira opera honetan. Patxiko eta Maritxuk elkar maite dutela jakinik, eta nahiz eta nagusiak Maritxu maite izan, hona guraso zaharrak nagusiari nola zuzentzen zaizkion:

> *"Biyak maitatzen badute alkar / -ikusitzen dezu nola!- / zure txarkeri zitalagatik / guri zer digu ajola? / Jakiñ biazu emen bakarrik / ez dala jaten ogiya, / beste lekutan ere Jainkoak / azaltzen du eguzkiya. / Zabiltza beti, o etxe-jauna, / prestu, al dezun geiena, / eta zerorrek izango dezu / mesererik aundiyena. / Denok ibilli gintezke ondo / ori egingo bazendu, / ta zuganako griña leiala / iñork ez leiguke kendu; / begiramena, opakizuna, / eskerra ta aitormena, / zuk igaroko zenduke emen / bizimodurik onena"*[746].

Etxeko nagusiak Maritxu beretzat nahi duelako eta honek Patxikorekin duen harremana ontzat ematen ez duelako mendekua hartu nahi izan dezake Patxiko, Maritxu eta hauen familiekiko. Guraso zaharrek mendekua ekonomikoa izan daitekeela uste dute eta, horregatik, desafio egiten diote nagusiari esanez beste tokiren batean ere lor dezaketela sostengua. Bikote berria onartzen badu, berriz, mantendu egingo dute berarekiko duten leialtasuna eta errespetua. Iñaziok atzera egiten ez duela eta, hona artzain familien erantzuna: *"Beste gizamodu bat / zan etxe-jaun zarra, / etzera zu etorri / oñordeko txarra! / Agur, ez dizugu nai / zere lurrik kendu, / Jaungoikoak eguna / non-nai zabaltzen du"*[747].

Peru eta Josepa zahartutako gurasoak dira, eta beren ongizatea eta esperantza beren seme eta alabak emana da. Hona Peruren hitzak: *"Pobre izanik, aberastasun / aundiak dauzkagu biyok, / seme-alaba obeagoak / ez litzake izan iñork. / Ai, zer biduna egiñgo luteken / Maritxuk eta Patxikok!"*[748]. Euren pobre izaera aitortzen dute eta, aldi berean, euren aberastasuna seme-alabak direla esango digute, batez

[745] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II*,op. cit., 224. or.
[746] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 236. or.
[747] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 237. or.
[748] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 213. or.

ere, gurasoak zahartutakoan. Familia tronkalaren zikloari egiten dio horrek erreferentzia, familiari eusteko eskulanaren garrantzia aitortuz.

Eta zein da nagusiak bere buruaz emango digun irudia? Zer da nagusiak gehien balioetsiko duena? Badirudi ondasunak bigarren maila batean jartzen dituela Maritxurekiko maitasunaren aurrean. Era honetako bertsoak topa ditzakegu "Artzai-mutilla" operan: "*Aberatsa izanik / bizi naiz pobre, / nik zertako det dirua / maitasun gabe? / Geiago det nai, / etxe ta lurrak baño / Maritxuren <bai>*"[749]. Eta jarraian. "*Naiz etxe-jauna, / ta nerea da aitak / utzi zirana. / Zer ontasunak, / artzai neskatill batek / nai ez ditunak!*"[750]. Maritxuk maite duen Patxiko artzain mutilari inbidia dio Iñaziok. Bere burua harena baino gehiagotzat du: "*Bañan zertan estutu / oinbesteraño? / Nik geiago nezake / Patxikok baño. / Aiñ da pobria, / eta aundi naia da / emakumia*"[751].

Pedro Maria Otañoren "Lora" operan ere, nahiz eta gai nagusia izan ez, erreferentzia egiten zaio desberdintasun ekonomikoen gaiari. "Aldun" izeneko pertsonaia bat dago, Pedro Maria Otañoren hitzetan, herriko etxe on bateko semea. Gainerako pertsonaiak maila ekonomiko apalagokoak dira. Hauen artean dugu Araz, ezkongai dagoena eta, ondasunik ez duelako, Ameriketara joateko asmotan dena. Andregaiak "*Urrutira al zuaz?*" galdetuta, berak, honela erantzuten du: "*Uste det ala, / badakizu biotzez / nai dizudala, / eta neretzako zu / dena zerala, / o, aur leiala, / ta zuri eskeintzeko / deus ez derala. / Ez det dirurik, / ez eta etxerikan, / ain gutxi lurrik, / ta doatsu ikusi / nai zinduzket nik*"[752]. Zeintzuk dira, beraz, aberastasunak? Dirua, etxea eta lurrak, hemen aipatutakoaren arabera. Eta zer eskain diezaioke Arazi Amerikak? "*Bañan nik ditxa eman / nai dizut zuri / eta, agur egiñaz / sorterriyari, / banua sarri, / bear dana kentzera / Amerikari; / andik etorri / ta jauregi batean / nai zaitut jarri / erregiñ bat bezela. / Bañan, Agiri! / Denbora luzian ez / banaiz agiri, / itxoingo al dirazu / benetan neri?*"[753]. Amerikari behar dena "kendu" egingo diola dio Arazek: Pedro Maria Otañok ez du edozein aditz erabili Ameriketako ondasun eta aberastasunekiko harremana izendatzeko orduan. Kentzeak lehenago zuenari hartzea esan nahi du. Beraz, bertakoei jabetza onartzen die, nahiz eta bertara joan eta haiei "kentzeko" eskubidea ere onartzen duela dirudien, kenketa kontzienteki egiten badu ere.

[749] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 222. or.
[750] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 222. or.
[751] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 222.-223. or.
[752] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 280. or.
[753] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 281. or.

Arazen aita Gaintzak semeari ez dio eragozpenik jarriko Ameriketara joan dadin, ezin baitio bertan bizimodurik eskaini. Aitaren ardura eta ezina ikusten dira hemen. Baina gizon ondradua izateko eskatuko dio, baita jaioterria, gurasoak eta Jainkoa ez ahazteko ere. Honela dio bakarrizketan Gaintza aitak:

> *"[…] Gure Jainkuak ainbeste seme / maitagarri eman dizkit / eta, Berari eskerrak, denok / ondo arkitzen gera txit; / bañan Arazen bizilekuba / nola billatu ez dakit.*
>
> *Nik ez nuke nai Araz iñola / nere ondotik bialdu, / Amerikara joan nai dubela / esana izan biar du; / neregatikan etorkizuna / berak ez dezala galdu, / debekatzia gaizki deritzat / saiatu nai baldin badu; / aberastutzen ez bada ere / bizi dedilla onradu.*
>
> *O, Jaungoikoa! Zenbait seme on / zor dizkitzun gurasuak / eskatzen dizu begiratzeko / errukiz beren pausuak; / Gaintza zarrari argitasuna giyatutzeko gaixuak, / noranai joanda izan ditezen / garbi eta fedetsuak, / gaitzik gabeak ta onradubak, / beti euskaldun prestuak"*[754].

Aberatsei buruzko judiziorik ere egiten du Pedro Mari Otañok "Lora" operan. Agiri inbidiosak, Aldun lortu nahian, Loraren jatorria argitara ekarriko du. Zilegi omen zaio hori egitea aberatsari: *"Amodiozko gudan, Agiri, / izan zaitia zu garailari, / bildurrik gabe zer esanari; / zergatik nonai aberatsari / barkatzen zaizka gauz oiek sarri"*[755].

Nagusiak eta maizterrak. Horra XIX. mendean zehar nabarmen geratuko den mailaketa. Zer gertatuko da, ordea, XX. mendeak aurrera egin ahala? Txirritak bertso argigarriak ditu gai honen inguruan. Gipuzkoako hainbat zonalderen industrializazioarekin eskulana baserritik fabriketara lekualdatzen hasiko da, eta baserriak husten hasiko dira. Honen eraginez, baserri eta lurren jabeak beren irabaziak galtzen hasiko dira. Baserri eta lurrak saldu egin nahiko dituzte, eta maizter ziren hainbatek, berriz, diruz hornituta, erosi egin nahiko dituzte bizi zireneko etxeak eta hauei zegozkien lurrak. Txirritaren bertso hauetan kontatzen denez, baserriaren jabeak saldu egin nahi dio baserria bertan maizter bizi den gizonari eta honen familiari, baina hauek ez dute nahiko diru etxea erosteko. Pobreziaren beste alderdi bat litzateke hau.

Nola ezaugarritzen ditu batzuk eta besteak Txirritak? Lehenengo eta behin, adierazgarria da elkarrizketan ipintzen dituela biak Txirritak bere bertsoetan. Nagusia zuka ari zaio maizterrari; maizterra berriz, berorika nagusiari, nahiz eta itxuraz, behintzat, maizterra dezente zaharragoa izan: *"Oraiñ artian ni izandu naiz,*

---

[754] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 282.-283. or.
[755] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 303. or.

*/ aitona, zure nagusi"*, lehenengo bertsoan, edo *"Larogei duro zuben errenta / etxiak oraiñ artian, / zedorrek ala pagatu dezu / berrogei ta amar urtian"*[756] bigarren bertsoan. Gizartearen hierarkizazioaren erakusgarri da hau. Baliteke errentaren konpromisoa nagusiak bere aitarengandik jaso izana, hau da, gutxienez, bigarren belaunaldiko nagusia izatea. Txirritak, nagusiaren hitzetan, maizterraren apaltasuna azpimarratzen du: *"[…]errenta txintxo pagatu dezu / zere kapoi eta guzi; / zu baño gizon umillaguak / ez ditut asko ikusi"*[757]. Bertsoaldi guztian mantenduko da errespetu jarrera bi hizlarien artean eta, nahiz eta maizterrari egoera zaildu, ez dio nagusiari ahotsik altxatuko, entzuteko besterik ez dio eskatuko: *"<Eskerrik asko, nagusi jauna, / pakian biagu bizi, / baña izketan bukatu arte / ez bedi juan igesi; / klaro dabillen gizonak eztu / arrazoi txarrik merezi;"*[758].

Zein zen maizterrak nagusiarekiko zuen konpromisoa? Errenta ordaintzea. Aspaldikoa da bien artean duten harremana, bertsotan Txirritak dioenaren arabera, berrogeita hamar urtekoa. Nagusiak etxea erostea proposatuko dio maizterrari, baina honek ez duela horretarako nahiko diru esango dio. Zein da honen arrazoia? Maizterra adinekoa da, familia handi baten aita eta, aldi berean, baita familia handi bateko aitona ere. Familia eredu tronkalaren aurrean gaudela dirudi, eta bereziki, mantendu beharrekoak mantentzaile direnak baino gehiago direneko aldi edo etapan: *"<Zer familia izandu degun, / jauna, nai al du aditu? / Amabi aurren aita naiz ni ta / semiak amar baditu; / lan egiteko iñor gutxi ta / mayian eziñ kabitu, / baneukake non enpleatua / bost milla duro banitu>"*[759].

Maizterrak, nagusiak proposatzen dion erosketa egin ezin duela eta, bere burua konponbide bila ipintzen du: *"Prezisamente martxatu biau / baserrira edo kalera, / norbaiti egin biarko zaio / bizi-lekuen galdera, / esplikatuaz nola izan dan / fameliyaren galera; / gure Jainkuak nai duen arte / nonbait mantenduko al gera!>"*[760].

XX. mendean aurrerago egiten badugu eta gure begiak Errepublika garaian jarriz, landa eremuan ematen ari diren aldaketa eta garapena jarraitzeko aukera ematen digute aztertu ditugun bertsolariek. Kasu honetan, Joxe Mari Lopetegik[761], batez ere. 1933an, *Irun Republicano* aldizkarian "Aurrera" izenburupean, Lopetegik

[756] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit. 436. or.
[757] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 436. or.
[758] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 436. or.
[759] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 436. or.
[760] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 436. or.
[761] Kontzientze gara saltoa eman dugula denboran. Hala ere, politikaz ez diren gaiei buruz Joxe Mari Lopetegiren bertsoak hain urriak izanik, egokia iruditu zaigu hauek hemen jasotzea. Bestetik, landa eremuaren ikuspegi dinamikoa jasotzeko ere lagungarri direla uste dugu.

bertsoak jarri zituen antzeko gaiaren inguruan. Errepublikari esker, maizter bizi ziren baserritarren egoera hobetu egin omen zen eta horren berri ematen digu bertso sail honetan[762]; modu honetan, baserri jabe eta maizterren arteko distantzia laburtu egin zela zirudien.

Baserritarrei zuzentzen zaie bertso hauetan *"Euskal lurreko lagun maitiak"*[763] deituaz, eta aldi berean, euskal lur horren antzinakotasunari lotzen ditu, "*ikusirikan gure oiturak / ari dirala biurtzen"* esanez. Bestetik, interes berezia du hau guztia Errepublikari dagokion forma politikoan posible dela azpimarratzeko, "*gure Erkala maitagarriyak / ez gaitu iñor bildurtzen*". Baserri munduan, errepublikanismotik urrutien egon zitekeen mundu hartan, Errepublikak egindako mesedeak zeintzuk ziren kontatu nahi zuen Joxe Mari Lopetegik bertso hauetan. Bertso sailaren izenburua ere esanguratsua da "Aurrera" du izena. "Aurrera" baserritarrak eta, bide batez, aurrera Errepublika baserri munduan ere: bi modutara ulertu daiteke hau.

Zehazki, zein da, Errepublikak ekarri duen hobekuntza baserri mundura? Garrantzitsuena, etxeen jabeek ezin izango zizkietela maizterrei errentak igo. Bestetik, Diputazioak sagarrondoak landatzeagatik ematen zituen laguntzak ere aipatzen ditu Lopetegik. Lehenengo puntuan agertzen zaigun errealitatea eta Txirritak kontatu diguna, erabat desberdinak ziren. Dirudienez, Errepublikak konponbidea eman zion Txirritak planteatutakoari.

Bertsotan, zertan ikusten dugu hau? Lehenengo eta behin, Joxe Mari Lopetegik Errepublikari alderdi ekonomikoa ordenatu eta antolatu izanaren balioa ematen dio. *"Bi urte gabe gure Erkalak / gauz asko erakusten du, / bear dan bidean zuzentasunez / beartsuari lagundu; / alferkeriyan bizi zanari / gezur bide danak kendu, / okerturikan zebiltzan danak / biar dan bidera zuzendu, / aurrera ere jarrai dezala / bear diyogu lagundu"*[764]. Horretaz gainera, Errepublikari laguntzen jarraitzearen beharra ere azpimarratzen du.

Ondorengo hiru bertsoetan maizterrek nagusiei dagokien errenta baino handiagoa ez dietela ordaindu behar dio: *"lengo errentak baño geyago / ez ordaintzeko iñori / eta etxetik ezin biraldu / ordainduz nagusiyari, / beria baldin balu bezala / baserrian bizi bedi"*[765]. Edo, azken aurreko bertsoan: *"Gaur ez dago ez orren bildurrik / lengo errenta zarrian, / bere orduan errenta ordainduz / nagusiyaren aurrian; /*

[762] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 174.-176. or.
[763] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 174. or.
[764] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 175. or.
[765] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 175. or.

*aurreramenik egiten bada / etxian edo lurrian, / bere oneko izango dira / jarrai patxara ederrian / ordaintzen duena da nagusiya / etxe, baso ta larrian*"[766].

Errepublikak aldaketa hau egin izanaren oinarrian maizterrek bizi zuten egoera makurra daukagu. Laugarren bertsoan, honela diosku Lopetegik: "*Gaur ez da geyago eskeintzerikan / len egiten zan bezala, / ta nagusiyak an ekustian / geyago bear zuala; / ikusitzen zan ezin bizirik / baserriyan zeudezela, / lan egiteko gogo guztiyok / kendutzen zizkiyotela, / ateratzen zan izerdiya're / dana besterentzat zala*"[767].

Azken bertsoa "Diputazio leyala"ri eskainia da: "*Diputazio leyalak ere / gogua du laguntzeko, / baserritarrai eskaintzen diyo / larriak ondiatzeko; / lur gorrituta daudezenian / sagasti ederrak jartzeko, / bera dagola langilliari / bere lana ordaintzeko, / berrogei da amarretik aurrera / duro bana bakoitzeko*"[768].

Lehenengo azpiatal hau laburbiltzeko asmoz, garbi ikusi dugu Pello Errota eta Txirritaren bertsoak oinarri hartuz –neurri batean baita Otañorenak ere-, industrializazio eta modernizazio prozesuek poliki eraldatuko duten errealitate baten iraupena nabarmena dela. Ez dugu horrekin esan nahi eremu eta pertsona hauengan prozesu horiek eraginik izan ez zutenik –aurrerago ikusiko dugu hori ez zela horrela izan-, baina adierazteko modukoa dena da landa eremuko ekonomiaren garrantzia eta iraupena: epe luzera etorriko den aldaketa nagusia etxe eta lurren jabetza maizterren eskuetara pasatzen joango dela da.

## 1.2 Industrializazioa eta modernizazioa aukera gisa

Landa eremuan nahita ardaztutako abiapuntua ikusi dugu. Gu aztertzen ari garen modernizazio prozesuaren baitan, ezagutu al zuten industrializazioaren eraginik hauek? Eta erdi mailako herri eta hirietan? Eta, hala bazen, jasotzen al ziren ondorio horiek guk aztertutako bertsolarien bertsotan, eta, nola?

Landa eremuaz aritu garenean, bertan ohikoenak ziren ofizioak aipatu ditugu. Erreferentzia bat egin nahi genieke, hemen, hiriko ofizioei. Badira desberdintasunak landa eremuko eta hirietako ofizio nagusien artean. Hirietan, zerbitzuei lotutako ofizioak ugariagoak izango dira. Hauetan, zerbitzariak, neskameak, serenoak aipatu nahi genituzke, hirietako berariazko langile gisa.

[766] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 176. or.
[767] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 175. or.
[768] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 176. or.

Horien artean, kale garbitzailea ere aipatu nahi genuke, nahiz eta Bilintxek, kale garbitzaileari baino gehiago, horrek lagun zuen zaldi zuriari jarri zizkion bertsook[769]. Hauek irakurrita garbi geratzen zaigu zaldia nolakoa zen, nolako bizimodua eta heriotza izan zituen. Nolakoa ote zen, ordea, Joxe Mari kale garbitzailea? Argi geratzen zaiguna da, Bilintx zaldi "langileaz" mintzo zaigula. Hiritartua eta "langiletua" dagoen animalia da, beraz, aurkezten diguna, eta Donostiako herritarrei bere zerbitzua ematen diena: *"Goizero biar diyo / eraso lanari, / zikiñak bildu arte / erri danari,"*[770]. Eta, aurrerago: *"Gizarajuaz danak / pena ar zazute, / baldiñ biyotz biguñak / badituzute; / asi zan egunetik / eta oraiñ arte, / serbitzuba egiñ du / erriyan bastante; / igande ta aste, / jaiarekiñ naste, / makiña bat urte / pasa dizkitzute; / oraiñ erretirua / merezi luke"*[771]. Eta nolako bukaera ematen diote dagoeneko balio ez duenean? Tiroa jo eta paretik kentzen dute, begiramenik gabe: *"Indarra zekan arte / zikiña karraio / eragiten zioten / makiña bat saio. / Bañan miñez jarri da, / indarra juan zaio! / Nekearen pagua / balaz eman zaio!"*[772].

Mende laurden bat beranduago, Txirritak bere arrebak neskame eta zerbitzatzera nola joan diren kontatuko digu. Horietako bat, behintzat, Donostiara: *"Santa Katalinako zubian pasa, / artu ezazu eskubi, / eta zerorrek ez badakizu / galde zaiozu askori; / bigarren atean, laugarren bizitza, / an izango da nesk'ori. / Oraindik zuk nai izan ezkero / logra liteke gauz ori"*[773]. Badu neskame joan zitzaion arreba bati (ez dakigu aurreko bera ote den edo beste bat) jarritako beste bertso bat ere: *"Gure tortotsa*[774] *auzo serbitzen / mantal txuriya jantzita, / laister etxian esperatzen det / eltze zarren bat autsita. / Zori onian jarri intzanen / Mari Lukaink'oi serbitzen, / gona luziaz ikasiko den / orpo zikiñak garbitzen"*[775].

Txurrogileari ere kantatzen diote Txirrita eta Pello Zabaletak[776]. Dirudienez, baimenik eskatu gabe jarri dute txurro denda besteren lurretan. *"Tx: Txurreru oiek*

[769] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 141.-144. or.
[770] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 141. or.
[771] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 143.
[772] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 144. or.
[773] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 44. or.
[774] Tortola ote?
[775] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 44. or. Konparazioa egiten du Txirritak: apain jantzita, mantal "txuriya" eta gona luzearekin ibiliko da arreba, baina besteren orpo zikinak garbitu beharko ditu. Landa eremuak zerbitzariak eskainiko dizkio hiriari.
[776] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 102.-103. or.

*badute / milla martingala. / Za: Edozein bazterretan / jartze'ute txabola / Tx: Jan da lo egiteko / an dute kaiola."*[777].

"Industrializazioa eta modernizazioa aukera gisa" izenburua eman diogu atal honi. Izan ere, aldaketa ekonomikoen garaian, gure bertsolariek eta ingurukoek biziko dituzten aldaketen artean, aipatzekoak dira ofizio aldaketak. Kasu batzuetan, baserritik kalerako pausoa ematera bultzatuko ditu horrek; beste batzuetan, herri batetik bestera; edo ofizio batetik bestera pasatzera.

Ezkontza tratuez ari diren bertsoetan ere, Pello Errotak, adibidez, jasotzen du besteri gertaturik. Ogibide aldaketak kontatzen dira batzuetan, hauek aurrez egindako ezkontza tratuan eragina izan badute, bereziki. "Lenago nitzaden ni" bertso sortan honela dio lehenengo bertsoak: *"Lenago nitzaden ni / alpargaterua, / artan e bazeguan / naiko endrerua; / gero argintzarako / egin zat gogua, / irabaztiagatik / jornal aundigua"*[778].

Garai honetan, beraz, irabazien araberako ofizio aldaketak ere izaten ziren. Dirudienez, harrobira (eraikuntzarekin lotua) aurretik beste ofizioetan ibilitako jendea biltzen zen, soldata hobeen truke. Orduan ere kualifikazio gutxiko eta proportzioan irabazi handiagoko lanbideak erakargarri gertatzen ziren.

Ofizio aldaketa gisa uler dezakegun beste bat ere gertatzen zen garai hartan, baserritik kalerako pausoa ematea. Pasarte esanguratsua aurkitzen dugu Pello Errotaren alaba Mikaelaren liburuan, gai honen harira[779]. Mikaelak Ondartza baserriko mutilarekin ezkontzeko asmoa omen zuen. Etxekoek, amak aurrena, baita gure Pello Errotak ere, disgustua hartu omen zuten. *"Aitak eta amak kalera ezkontzea nai zuten, da asieran etziran guztiz konforme ni Ondartzara ezkontzeaz"*[780]. Zergatik ote? Bi bertso ere jarri omen zituen Pello Errotak gai honen inguruan:

> *"Amari esan zion / ezkontza au lenengo, / baserrira joatia / ez zeritzan ondo: / <Arriua besterik / ez diñat emango; / naio nuke, alaba / ez baziña juango>.*
>
> *Aditu zuanian / aman albistia, / alaba au gelditu zan / entero tristia: / <Ama, ez da posible / nik ori uztia, / guztiak kalietan / bizitzen eztia>"*[781].

[777] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 102.-103. or.
[778] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 118. or.
[779] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 73.-74. or.
[780] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 74. or.
[781] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 74. or.

Baserria eta kalea elkarrekin ageri zaizkigu hemen, bizitzeko bi aukera posible gisa. Ez dira bata bestearen etsai, osagarri baizik. Gurasoek, baserrian bizi izanik –errotan, zehazkiago-, kalera bideratu nahi dute alaba. Alabak, berriz, aukera izanda, baserrira egiten du. Kasu honetan, arrazoi funtzionalak dira kalearen aldekoak (alabak kalean bizimodu errazagoa izango zuelakoan bideratuko dute horretara segur aski), lotura pertsonalak (mutilarekiko konpromisoa), baserriaren aldekoak.

Hala ere, ez dute denek aldaketa honen alde egiten. Pello Errotak jartzen dituen lehen aipatu eta orain sakonduko dugun beste bertso batzuetan, mutilak egindako ofizio aldaketak eta baserritik kalerako pausoak ezkontza haustera eramango du neska. Hori izango da, behintzat, neskak emango duen arrazoia: *"etzuala ukatzen / itza emana zala; / kalian mantentzia / ikaratzen zala, / bestela ura pozik / ezkonduko zala"*[782]. Jornal hobea irabazteagatik egingo du mutilak baserritik kalera, alpargatero izatetik hargin izatera, baina neska beldur izango da, kalean ezingo ote duen bizimodurik atera. Ironia handiz, mutilak neskaren aitari esango dio alaba nahiko arto landatzen duten baserri batera bidaltzeko. *"… / deritzaionari, / abisatutzen diot / dam'orren aitari, / arto-etxe on batera / bial zala ori, / an gustora egon dedin / eder eta lori"*[783]. Eta bertso saila azkeneko bertso honekin bukatuko du: *"Juana … / dam'orren graziya, / …-ko…-en / jaio ta aziya; / kalian daguala esanez / mantenu eskaxiya, / izan ere nork ase / puska ori guziya?"*[784].

Non da, beraz, bizimodu hobea? Baserrian? Kalean? Ikus dezakegunez, bizimodua desberdina da batean eta bestean. Bikotea aukeratzeak, bizimodua aukeratzea ere badakar. Faktore askok bultzatuko dute gaztea aukera bat edo beste egitera: dirudienez, kaleak bizimodu errazagoa (erosoagoa) eskainiko du, agian[785]. Bestalde, gosea, agian, maizago izango da kalean baserrian baino. Hala ote? Garbi dagoena da aldatzea kostatzen dela, eta ausardia behar dela baserritarra izanik kalera aldatzeko, edo kaletarra izanik, baserrira egiteko, pauso hori emateko, batez ere, txikitatik ezagutu ez duenak. Mikaelak errotatik baserrira egingo du eta Juana, berriz, ez da baserritik kalera pasatzen ausartuko. Erabakiak erabaki, joera nagusia baserritik kalerakoa dela dirudi (edo baserrian geratzearena, gutxienera jota), baina ez alderantziz. Modernizazioak ekarri ditu haize berriak baita Ernio ingurura ere (hiritartzea, lehen sektoretik bigarren eta hirugarrenera eskulana moldatzea, eta abar).

---

[782] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 162. or.
[783] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 163. or.
[784] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 163. or.
[785] Horregatik bultzatuko al dute Mikaela kalera?

Xenpelarrek ere ematen digu ofizio aldaketa baten berri. Horrela kantatu omen zion Gaztelugorriri: *"Kaxo, Gaztelugorri! / nola oi zera bizi? / Aspaldiko denboran / etzaitut ikusi. / Irungo arrobian / omen ziñan asi, / gutxi gastatu eta / asko irabazi"*. Eta Gaztelugorrik erantzun: *"Amalauri bost kendu, / bederatzi daude, / errial bat gutxixko / sagardotako ere; / jaiak eta oporrak / bastante badaude, / Xenpelar, alakuak / probatutzen gaude"*[786]. Kasu honetan ere, ofizio aldaketari egiten zaio erreferentzia. Gaztelugorri harrobian lanean hasi da: irabazten duen diruari eta dituen deskantsu egunei egiten die aipamena honek.

Xenpelarrek berak "Asten danian fabrika…" bertso sailean ehun fabrikan lan egiten duen zapatari baten berri ere ematen digu: *"Orra bestia lazarez, (sic) / zapataria da berez, / jira ta bira beti or dabil / gauaz ta egunez; / saiatzen da egiñalez / bere nekian meserez / gizagaixua bere kargua / galdu bildurrez"*[787]. Lan berrietara ere, ohitu egin behar da, jakina.

Txirrita bera, ofizioz halabeharrez aldatutakoa dugu: nekazaritza utzi eta hargin lanean hasitakoa. Antonio Zavalak horrela esaten digu: *"Nekazaritza utzi eta argintzan asi zan, beraz, Txirrita. Seguru asko, etxetik urruti gabe ikasiko zuan langintza ortan, San Markos'ko fuertea egiten ari zirala-edo."*[788]

Ofizio aldaketen gaia utzi eta jo dezagun, orain, industrializazioaren zuzeneko ondorioetara, hau da, lantegietan lan egiteaz eta honen ondorioez hitz egiten al digute bertsolariek?

Xenpelar dugu zaharrena, baina aldi berean, fabrikako langilea izanik, agian gai honetaz zuzenean hitz egiten digun bakarretakoa. "Asten danian fabrika" bere bertso sailean, ehun fabrikako lanaren berri ematen digu, batez ere, langileentzat lan horrek dituen arriskuak azpimarratuz: *"Asten danian fabrika, / lenengo nere tunika, / kanposantuan bizitutzeko / uraxe jantzita. / Ai zer biaje polita! / Entero nago etsita, / biatza moztu, begiya itxutu, / zankua iraulita"*[789]. Eta, bigarren bertsoan: *"Illarramendi atzian, / irriyo biren artian, / jendiak fuerte trabajatzen du / fabrika batian, / txit intentziyo latzian, / beatza moztu artian, / larunbatetan sendatzen dira / jornalak artzian"*[790]. Lehenengo industrializazio hartan, ugariak eta ohikoak izaten ziren lan istripuak. Horiexei egiten die erreferentzia Xenpelarrek.

---

[786] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 99. or.
[787] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 172. or.
[788] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 55. or.
[789] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 172. or.
[790] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 172. or.

Pello Errotak bere bertsotan beste batzuei gertatuak jasotzen ditu. "Jose Joakin Korta" izeneko bertso sortan, ama batek bertsoak jartzen dizkio Ameriketara joan zaion semeari. Bertan erreferentzia egiten dio industrializazioak ekartzen duen makinizazio prozesuari, eta horren ondorioz gertatzen den lanpostuen galerari. Hona nola dioen: *"Jostunen enpliuak / oso dira galdu / Zergatikan makinak / diraden ugaldu / Biziko danak beti / zerbait e biar du / ama kontsolatzeko / dirua bialdu"*[791].

Industrializatzen ari diren guneetan, lan dinamiken aldaketei erreferentzia ageri da: lantokiko arauak, ordutegiak errespetatu beharra, etab. Honen adibide dugu Xenpelar eta Musarroren arteko elkarrizketan, lanean ari diren bitartean pipa erretzeko baimenik ez dutela diotenekoa[792], edo langile egokiaren ezaugarriak zeintzuk diren zeharka diotenekoa.

Ikusten ari garen moduan, modernizazio eta industrializazioak ekarriko duten guztia, ordea, ez da ona izango. Gure bertsolariek agertuko duten beste errealitate bat krisi ekonomikoena da. Sistema ekonomiko kapitalistan oparotasun aldiei krisi garaiak ere etorriko zaizkie atzetik. Koiunturalak edo egoeraren araberakoak izango dira hauek. Xenpelarrek 1867. urtean bertsoak jarriko ditu Errenteria aldean eragina izan zuen beheraldi ekonomiko baten inguruan[793]. Dirudienez, trena egiten ari zirela eta, lana sortu zen inguru haietan: bertakoak lan berrietan soldata on samarrak irabaztera ohitu ziren, baita hobeto bizitzera ere. Lanak bukatutakoan ordea, zer? Berriro ere lehenagokoetara ohitu beharra izan zuten[794]. Ikus dezagun Xenpelarrek nola kontatzen digun hura.

*"Bajatu gera graduan"*, horrela ematen dio hasiera bertso sailari. 1867. urtean osatutako bertsoak ditugu. Zein helbururekin? Xenpelarrek berak esango digu *"bertso berriak jartzera nua / euskeraz eta klaruan; / pasiak dauzkit buruan, / jakin ditzaten munduan, / komeni diran moduan"*[795]. Gertatutakoaren berri eman nahi du, beraz eta, honetaz gainera, baita bizi duten egoera desesperatua ironiaz deskribatu ere: *"Miseriyaren adarrak / dauzkat itzegin biarrak, / eragin ditzadan farrak"*[796]. Hirugarren bertsoan, *"Etsaiak naute tentatu, / obe deala kantatu, /*

---

[791] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit. 66.-67. or. Baliteke 1845ean Lasarte-Orian zabaldutako Brunet fabrikari erreferentzia egitea.
[792] ZAVALA, A. (biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 95. or.
[793] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163.-166. or.
[794] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 166. or.
[795] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[796] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.

*badaukagu zer kontatu;"* esaten digu[797]. Berriro ere, kontakizunaren helburua azpimarratzen du. Hamalaugarren bertsoan, bertso sailaren bukaeran, gai nagusia eta bertsopaperen helburua gogorarazten dizkigu: *"Miseriyaren artia, / askok badegu partia, / penagarrizko urtia; / iñork nai badu libersiyorik / zabaldu degu atia; / bertsuen erematia, / txanponian billetia / nork dauka borondatia?"*[798]. Bertsoak salgai daudela gogoraraziz, umore beltzez kontatutakoaren laburpena egiten du.

Krisiaren aurreko eta krisi garaiko egoerak deskribatzen ditu Xenpelarrek bertso horietan[799]. Nola? Nolakoa zen krisi aurreko garaia? *"Bajatu gera graduan, / lengo egunak goguan, / gustora giñan orduan."*[800]. *"(…) jan da eran ongi eta gañera / biziyuetan altatu, / lenago gaizki usatu"*[801]. Bizioak, zertan? Hurrengo bertsoetan gehiago zehazten ditu gauzak: *"Biziyuak galantziyan / daude, nere iritziyan, / mantenuan da jantziyan"*[802], *"jokuak eta kastua"*[803], *"Galan nindurin markesa, / maiz tabernarako presa"*[804], *"Goizian diru kontatzen, / tabernarako plantatzen, / bazkari ona jokatzen; / kafia artuta kopak eranaz / erari fiñak jokatzen;"*[805], *"Alperria ta sekantza, / billarreko makil-dantza, / jendiaren alegrantza; / tabernariak ezagutzen du / urte oriyen mudantza;"*[806]. Laburbilduz, *"Ezkondu eta ezkongai, / guztiyak ondo bizi nai, / dirua degunian jai"*[807].

Zertan nabari dute krisia? "Graduan bajatu" dira, nagusiki, lan gutxiago dagoelako eta soldata txikiagoak irabazten dituztelako orain. Lan faltak eta soldata txikiagoa irabazteak, jakina, euren bizimoduan eragina du: familia buruaren eta familia osoaren bizimoduan. *"Miseriyaren adarrak / dauzkat itzegin biarrak, / eragin ditzadan farrak; / jornal-biderik sanuak eztu, / eskasagua elbarrak; / fameliyetan negarrak, / bajatu dira indarrak, / mantenduko nau gitarrak!"*[808]. Lanerako ongi dagoenak ez du lanerako aukerarik, gutxiago osasunik ez duenak: gitarrari erreferentzia eginez, alferkerian edo eskean ibilita mantenua bilatu beharko duela esaten digu. Aurreraxeago, arrazoi bera azpimarratzen du: *"lenago gaizki usatu, /*

[797] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[798] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 166. or.
[799] Ez da ari landa eremuko ekonomia eta industriala konparatzen. Erkatzen ari dena industrian oinarritutako ekonomiaren oparotasun garaiak eta krisi garaiak dira.
[800] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[801] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[802] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 164. or.
[803] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 164. or.
[804] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 164. or.
[805] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 164. or.
[806] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 165. or.
[807] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 166. or.
[808] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.

*orain jornalak bajatu, / askori zaigu gertatu"*[809]. Soldatak jaitsi izanak bizimodua beste era batera ateratzera behartu ditu. Laugarren bertsoa *"gerrara guaz ontziyan"* esanaz bukatuko du[810].

Izan ere, krisiak desberdintasun ekonomikoak areagotu egin ditu, ez die denei modu berean eragin: *"Falta degunak pobreza, / daukanak utzi nai-eza, / bizi-modu aldrebesa"*[811].

Soldatak jaistearen ondorioetako bat gosea izango da. Oso modu grafikoan esango digu Xenpelarrek *"oraiñ ezpañak nekatzen / zardiñ-ezurrak txupatzen"*[812], edota, pixka bat aurrerago, *"Zarra bezela gaztia, / bat beziñ oker bestia, / beti barrendik eskia; / lenago janak eztu beteko / utsa daguen estia; / au gure pena tristia, / nai degu irabaztia, / orrekiñ dago nastia"*[813]. Hamabigarren bertsoan ere gai honekin jarraituko du: *"Erraziyua bakandu, / bat eman eta bi kendu, / fameliya eziñ mantendu; / goizetik barau, bazkari txarra, / afari ona berandu; / sakelatik alargundu, / begiratua illundu, / orra gustuak atzendu"*[814].

Soldatak jaistearen beste ondorio bat da denda, taberna eta abarretan kobratutakoan ordaintzeko esperantzan kontsumitzea: *"falta duenak arrantza, / mingañarekin fiyantza, / gero izain du kobrantza"*[815]. Eta, hurrengo bertsoan, oraindik ere argiago adierazten du Xenpelarrek: *"Lenago errotariyak, / urrena panaderiyak, / gañera tabernariyak, / gauza eman da kobrantzarik ez, / olian markak jarriyak; / jornalak daude urriyak, / bajatu dira neurriyak, / negarrez gaude erdiyak"*[816].

Landa eremuaz ari ginela gizartean jabe eta maizterren artean bereizten bagenuen, pobre eta aberatsen artean, industrializatu eta modernizatutako testuinguruan bada beste mailaketa posible bat ere: langile, enkargatu eta nagusien artekoa. Kasu honetan, produkzioa fabriketan antolatzen hasiko den gizarteaz ari gara. Xenpelar eta Musarroren arteko bertso saioa ekarriko dugu lan honetara orain. Lehenago ikusi dugun bezala, Xenpelar eta Musarro Errenteriako Fabrika Handiko langile izan ziren, ehuleak. Antonio Zavalak esaten digunaren arabera[817], nahiz eta batzuek

---

[809] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[810] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[811] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 164. or.
[812] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 164. or.
[813] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 165. or.
[814] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 166. or.
[815] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 165. or.
[816] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 165. or.
[817] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 95. or.

esan Xenpelar enkargatu zela fabrikan, berak ez zuen horrelakorik aurkitu Fabrikako paperen artean. Bi langileren arteko elkarrizketa da bertso hauetan jasotzen dena eta, zehazkiago esanda, bi langileren artean dituzten ika-mikak, nagusiarekin harremana nork gertukoago izango. Bide batez, langile eta nagusien arteko ezberdintasunak zertan antzematen zituzten ikusteko balio digute, zeharka bada ere. Xenpelarrek Musarrori kargu hartzen dio lanean ari direla pipa erretzen ari delako: horretarako lizentzia edo baimenik ez duela esaten dio, eta "nagusiari goraintzi"ak emateko esaten dio[818]. Zer esanahi du nagusiari egiten zaion erreferentziak? Nagusiari dagokion pribilegioa al da lantokian pipa erretzearena? Edota bestela, nagusiak langileei debekatua dien ekintza da pipa erretzearena? Seguruenik, bigarrena. Nolako gizona eta nolako langilea da eredugarria? *"Giza-legia"* duena, *"jeniyu noblia"* eta *"kortesia"* dituena[819]. Bere buruari Musarrok ipintzen dizkion ezaugarriak dira horiek. Xenpelarrek, ordea, ez du horrela ikusten Musarro: ardozalea, tertuliarako eskola gutxi duena eta gaztelaniarako joera duena[820]. Horra argazkiaren beste alderdia. Xenpelarrek Musarrori esango dio nagusiari ez diola horrela etsenplu onik emango, eta nahiz eta gogoa izan nagusiarekin haren sukaldean tertulian aritzeko, ez dela horretarako egokia[821]. Musarrok, berriz, maiz bila izaten duela nagusia beregana joateko, eta Xenpelar baino egokiagoa dela horretarako. Nagusiarekiko azpimarratzen duten desberdintasuna, beraz, tertuliarako batzuek eta besteek duten maila da, eskola edo ikasketa maila, nagusiki.

Nagusi eta langileen mailaketaz gain, industrializazio eta modernizazio ekonomikoak ere ekarriko du berrikuntzarik hauen arteko harremanean: lan gatazkak izango dira kontuan hartu beharreko beste kontu bat. Hala ere ez ditugu aztertutako bertsolarien artean gai honi buruzko erreferentzia asko aurkitu. Txirritak, 1919an, Pasaiako portuan izandako greba baten berri ematen digu[822]. Txirritari bertso hauek jartzeko eskatu zion greban parte hartu zuen Oiartzungo Trajinos deitzen ziotenak. Hau garrantzitsua da: Txirritari ez zaio berez ateratzen gai honi buruzko bertsoak idaztea, horrela eskatzen diotelako egiten du. Bertso hauetan lan gatazka baino gehiago, oiartzuarren kontrako jarrera lehenengo, eta euskaldun eta erdaldunen norgehiagoka ere ondoren, ageri dira gaien artean, izan ere, greba egin zutenak euskaldunak –oiartzuarrak- izaki, ondorenean haien ordezko lanerako hartuko dituzten batzuk "kanpotarrak" izango dira.

---

[818] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 95. or.
[819] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 96. or.
[820] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 96. or.
[821] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 96. or.
[822] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 314.-316. or.

Bertso hauetan ageri den lan gatazka nagusia ustez greba eragin zuten langile multzoa bota izana da. Baina, aldi berean, lana antolatzeko moduaren berri ere ematen du Txirritak, bide batez. Hasteko, langileak taldeka, "*kuadrilla*"ka daude antolatuak[823]. Kasu honetan, "kuadrilla" herri bereko gizonek, Oiartzungoek, osatzen dute. Beraz, bizi diren herriak markatuko du talde horren partaidetza izaera[824]. Modu berean, portuko laneko tarteko buruzagiekiko harremanaz ere hitz egiten du Txirritak: kasu askotan, mesede eta fabore dinamika baten baitan ulertu behar da, harreman pertsonalen menpekoago, harreman ekonomikoena baino. Hasieratik bertatik, adiskidetasun edota etsaitasun harremanen arabera ageri dira kapataz eta langileen arteko harremanak: *"buruzariya bailitz bezela / oiartzuarren tartian, / guri bengantzan asi zerate / oso gorroto fuertian; / beti goguan izango degu / bizirik geran artian"*[825]. Eta pixka bat aurrerago: *"iduritzen zat ote gauden gu / libru berdian jarriyak, / lenago alde genituanak / kontra ditugu erdiyak, / artzai gaiztuak diran tokiyan / pagatutzen du ardiyak"*[826].

Horretaz gainera, langileei buruz hitz egiterakoan, balio bat ere ageri da nabarmen: hauek langileak edo alferrak diren. Oiartzuarrak langileak diren bitartean, hauen ordez hartu dituztenak, alferrak dira: *"oiartzuarrak Antxo aldian / ez gaituzte nai ikusi, / txori batzuek joan diralako / kaiolatikan igesi, / langilliari burla egiñez / alperrak daude nagusi"*[827].

Grebaren arrazoiei erreferentzia egiten zaie, baina hori besterik ez, aipamena: *"Huelga ortan eskatu ziran / lau kondiziyo berriyak, / bañan etziran orko maisuak / Oiartzun'dik etorriyak"*[828]. Bertso saila osatzen duten hamasei bertsoetan ez da gehiago aipatzen grebaren zergatirik.

Kalera bota dituztenetako batzuek zer egiten dute berriro har ditzaten? Enkargatuei opariak eraman: *"Inbusteruak ez izatia / degu guretzat kaltian, / gizona zail da ezagututzen / pruebak ikusi artian; / <Tori ollua!>-esanaz juan zan / aurreko egun batian-; / ardo-puska bat ez da paltako / orren iztarrak jatian". / Lana aguro agindu ziyon / sartu zanian atian"*[829].

Bertso hauei buruz hizketan hasi garenean esan bezala, bertakoei eta kanpotarrei buruzko erreferentziarik ere egiten da: "*atzo gizon bi izketan zeuden, / atenditutzen*

[823] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 316. or.
[824] Eta, aldi berean, elkarrekin lan egiteak, herri komunitatearen izaera azpimarratu egingo du.
[825] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 314. or.
[826] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 315. or.
[827] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 315. or.
[828] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 315. or.
[829] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 315. or.

*naiz jarri, / sujeto orrek zer egin duban / esan ziyoten elkarri; / <Biba euskera!> maiz oju egin, / kastillanuak ekarri"*[830].

Bertso horiei guztiei buruz esandakoek zertan laguntzen digute? Batetik, Txirritari bertsoak eskatu zizkieten oiartzuarren ikuspegia ulertzen eta, bestetik, Txirritak berak gai honetan azpimarratu nahi duena zer den aztertzen.

Zein da bertso eskatzailearen erreferentziazko mundua? XX. mendean aurrera edo atzera begiratzen du? Zortzigarren bertsoan esplizituki dioen bezala, XIX. mendera begiratzen du gehiago, XX. mendera baino: *"zenbait naigabe sufritzen degun / bizi geranak lurrian, / ardi gaiztuak paotxa jaten, / onak gosiak larrian, / gauz ori bera pasa zitzaigun / Karlosen gerra zarrian"*[831]. Bertso jartzaileen adinari ere egiten zaie erreferentzia hamahirugarren bertsoan. Segur aski, greba egin ostean hartutako langileak gazteagoak ziren: *"gure kuadrilla asarre dago, / askok biotzian min du; / zarrak etxian geldi daudela / besteri lana agindu"*[832]. Beraz, nahiz eta langile gatazka batez aritu, langileen borrokarako estrategia batez, grebaz, hori ulertzeko modu berezia da hemen Txirritak –eta oiartzuarrek- agertzen dutena.

"Huelga" bati buruz ere hitz egiten du Txirritak "Aita eta sui-gaia" bertso sailean. Gai nagusia ezkontza tratu bati buruzkoa da, baina grebari erreferentzia egiten zaio: *"Biyak mayian giñan / exerita jarri, / pasadizuak esan / dizkagu alkarri: / <Huelga bat sortu ta / ibilli naiz larri, / iru duro besterik / ez ditut ekarri, / baietzkua izan bazan / nitzan parragarri!>"*[833]. Mutila Bilbora lanera joana da, neskarekin ezkontzerakoan, elizako gastuei aurre egin ahal izateko behar duen dirua lortzeko. Uste baino gutxiago ekarriko du, Bilbon greba izango baita eta ezingo baitu nahi adina lanik egin. Ez du, ordea, grebari buruz argibide gehiago ematen.

Industrializazio eta modernizazioaz ari garen honetan, eta hau nagusiki hiri eremuei loturik ageri dela, ba al da pobrerik? Ikusi dugu krisi ekonomiko garaian langileek nola sufritzen duten pobrezia. Besterik ba ote? Eskekorik? Zer diote bertsolariek? Bilintxek hitz egiten du *"pobriaren suertia"*z. Bilintxek aipatzen duen pobrea, ordea, hiriko pobrea da, itxuragatik gainerako hiritarrengandik baztertua eta alboratua dena. Kasu honetan, ez dira bertsoak, jarraian idatzitako 30 lerroko konposizioa baizik. Zer nolako itxura du Bilintxek deskribatzen digun pobreak? *"Beste alibiyorik / pobriak ez daka: / negarrez jaio eta / bizi arrastaka, / galtzarbian*

[830] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 316. or.
[831] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 315. or.
[832] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 316. or.
[833] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 435. or.

*kolkuan / nun-nai arraskaka, / erropetan koipia, / zikiña ta kraka.*»[834]. Eta zein erreakzio eragiten du jendearengan? *"Jendiak ikustian / artutzen du lazka, / danak pasatzen zaizka / ondotik presaka; / nai baldin badu ibilli / kalian bueltaka, / ateratu orduko / etxetikan anka, / mutill txikiyak ditu / atzetik millaka, / azanariyo ero / patata tiraka; / zakurrak ere asten / zaiozka zaunkaka, / aberiak tiratzen / diyote pullanka; / danak, kristau ta abere, / guziyak txandaka / gizarajua dute / ibiltzen burlaka"*[835]. Zein da Bilintxen azken puntua? *"batek obe luke izan / pobre bañon kaka"*[836]. Bilintxek egiten digun hiriko pobre baten deskribapena errepresentagarria ote?

Modu berean, Antonio Zavalak "Sartzia soldadu" izenburu jarritako bertso sailean, Bilintxek soldataren truke lan egiten dutenen pobrezia egoera salatzen du. Pentsa zenbaterainokoa den, arrazoi ekonomikoak direla medio soldadu sartzea irtenbide gisa aurkezten duela behin eta berriz Bilintxek bertsoen azken puntuan[837]. *"Kontuz ibilli arren / eta juiziyuan, / iñor aberasten ez / da ofiziyuan. / Ni lanakin ibilli / beti sesiyuan? / Erremientak norbaiti / erdi preziyuan / ero kasik debalde / al banizka saldu, / biyartikan sartuko / nitzake soldadu"*[838]. Edo, azkeneko bertsoan dioen bezala*: "Jaunak, ariyarazi / ez liteke itzez / zein aspertuba nagon / onela bizitzez, / beti negarrez eta / penetan ibiltzez, / jornal txikiyaren truk / lanian aritzez; / batek beti onela / bizi bear badu, / ez du gaizki egingo / sartzia soldadu"*[839]. Bertso sail honetan langile izaera azpimarratzen da: *"Urrikagarriya da / nere izaera: / goizero nai ta nai ez / juan biar lanera"*[840]. Pobreak izango dira, Bilintxen arabera, gerran zaurituak ere: *"Ikusi-ta desgrazi / eritubarena, / penaz nori etzaio / urtzen biyotz dena? / Da oieri ematea / nork al dezakena, / zeruba irabazteko / obrarik onena"*[841].

Nahiz eta gai nagusitzat ekonomikoa hartu ez, beste bertso sail batzuetan mailaketa ekonomikoaren gaia ere aipatzen du Bilintxek. Adibidez, "Pozez ta bildurrak" bertso sailean, honela erantzuten dio, elkarrizketa hipotetiko batean, neskak Bilintxi: *"<Burlaz esaten dezu! / Nork naiko nau ni? Nork? / Aberatsa ez danik / ez du maite iñork>. / Baña nik ordubantxen / erantzungo diyot; / <Zoragarriya, naizu / maita gaiten biyok?>"*[842].

---

[834] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 339. or.
[835] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 339. or.
[836] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 339.or.
[837] Errepikapen hori baliabide literarioa ere bada, jakina, bertsoei indarra ematen diena.
[838] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 344. or.
[839] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 344. or.
[840] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 343. or.
[841] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 347. or.
[842] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 169. or.

Eta pobreez gainera, eskekoei buruz hitz egin behar badugu, nola ez aipatu Pedro Mari Otañoren "Limosnatxo bat" [843] bertso saila? Sei bertsok osatzen dute konposizio hori. Sei bertsoetatik bostek, *"Limosnatxo bat eskatu ziran / Jainkuaren izenian*[844]*"* dute, ia hitzez hitz, azken puntua. Seigarren eta azkenak, berriz, *"limosnatxo bat bildu eziñik / Jainkuaren izenian"*[845]. Bertso horietan bi pertsonaia nagusi ditugu: bata, eskalea; bestea, ondotik pasa, eta dirua eman dezan deitua izan dena. Eskaleak bere bizitzaren berri emango digu bertsotan, eta azalduko digun mezu nagusia hau izango da, azken bertsoan jasoa: *"Ai, txorakeri asko egiten / da zentzurik ez danian, / sinista zazu ur au pasia / daukanaren esanian: / obiago da sasoi dan arte / saiatutzia lanian, / negar egiñaz ibilli gabe / gero denbora joanian, / limosnatxo bat bildu eziñik / Jainkuaren izenian"*[846]. Zeintzuk izan ziren aitonatxo itsu hark gaztetan egindako txorakeriak? *"Eta segitu zuben esanaz: / <Lengo gerrate denian*[847] */ ni aurren xamar ibiltzen nintzan / beti edo geienian, / nekatu gabe aisa igoaz / aldapik luzienian; / etzan burura asko etortzen / gu ala gebiltzanian, / gero limosna eskatutzerik / Jainkuaren izenian>"*[848]. Eta hurrengo bertsoan, bere buruari gertatukoaren irakurketa egiten du, orduko itsumen fisikoa gaztetako ikuspegi itsumenarekin konparatuz: *"Odolak bero eta buruba / arrua daguenian, / edozeiñ moduz sartutzen da bat / alako itxumenian; / atsekabe ta negar samiñak / badatoz ondorenian; / nola ere bait batek biziya / utzitzen ez dubenian, / limosnatxo bat eskatu biar / Jainkuaren izenian"*[849]. Gerraren kontrako bertsoak izango dira, beraz, Otañok idatziak. Aldi berean, gerran ibilitako gerlari ohien pobrezia egoeraren berri ere ematen digute bertso horiek.

Pobre berrien artean, langabezian direnak azaltzen dizkigu Jose Mari Lopetegik[850]. Baina, Joxan Elosegik ongi esaten digun moduan, ez du hitz egiten lanik ez duenaz, lanik egin gabe bizi nahi duenaz baizik eta, jarrera honen kontra garbi azaltzen da. Atal honetako hirugarren azpiatalean honetaz sakonago hitz egingo badugu ere,

---

[843] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 381.-382. or.
[844] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 381.-382. or.
[845] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 382. or.
[846] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 382. or.
[847] Bertso hauek *Oroimenak* esku idatzitik hartu zituen aita Zavalak. Horretaz gain, askotan argitaratuak izan ziren: 1893an *Euskal-Erria* aldizkarian, adibidez. Pentsa dezakegu gerrari buruz hitz egiten ari denean, batez ere, Bigarren Gerrate Karlistaz ari dela. Pedro Mari Otañoren biografiari dagokion atalean esan bezala, berak gerrate honetan parte ez hartzeko Ameriketara ihes egin zuela uste da.
[848] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 381. or.
[849] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 382. or.
[850] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 124.-126.or. *Irun Republicano* aldizkarian argitaratutako bertsoak 1931ko abuztuaren 15ean.

Joxe Mari Lopetegik bertso sail honetan batasunari egiten dio erreferentzia. Bigarren, laugarren eta seigarren eta azken bertsoan hona zer dioskun:

> *"Lanik ez bada langilleantzat / da gauza negargarriya, / erdi goseak beartsua eta / oinperatzen da Erriya; / ordu gutxikin nai genduke guk / al bada jornal aundiya, / gaur diruduna orregatikan / da ikaratzen asiya, / au zuzendutzen ez baldin bada / aurki istillu gorriya".*
>
> *"Nik neria gaur aitortutzen det / esanaz nai duenari, / alde batera laja bear zayo / txorakeri guztiyari; / begiraturik ontasun on bat / etorko zaigu danari, / ez gaitezela izan txoroak / bide txarrera erori, / alkarri eskutik eldu zayogun / jarraitutzeko lanari"*
>
> *"Nere azalkaya guztiyokeri, / karrika eta baserrira, / bear dan moduan lan egiñaz da / bizimoduko segira; / zenbait panparroi buruak arro / lan egitia kupira, / urte batzuek igarotzean / kontu oik aztutzen dira, / burua makur-makur eginda / gero Miserikordira"*[851].

Joxe Mari Lopetegik lanaz eta bizimodua ateratzeaz ematen digun ikuspegia ez da, espero genezakeen bezala, ezkerreko ideologiei dagokiena. Bestela, nagusia defendatzen eta nagusi eta langileen arteko harreman eta batasuna indartu nahian dabilela dirudi, "istillu gorria" ekidin nahian. Berea ez da, beraz, klaseen arteko borrokaren aldeko oihua, klase ezberdinen arteko elkarlanaren aldekoa baizik.

Ondasunei buruz duen ikuspegia ere, hauen kontserbazioari dagokiona da, hau da, langileak lana egitearen helburu nagusia, bere etorkizuna ziurtatzearena da. Lanik egiten ez duenak ezingo dio zahartzerakoan bere buruari eutsi.

Polita gertatzen da bosgarren bertsoan, berriz, Pedro Mari Otañori egiten dion erreferentzia esplizitua:

> *"<Limosnatxo bat> irakurri det / oitik jeiki naizenian, / eta biyotzak negar egin dit / itz au entzun detanian; / obiago da gaztia dalik / sayatutzia lanian, / negar egiñaz ibilli gabe / gero denbora juanian, / begira zazue entzule onak / Pello Marin esanian".*

Zein izan daiteke honen helburua? Joxan Elosegik esaten digun moduan, bere irakurketen eta aurreko bertsolarien ezagutzaren berri ematen digu. Honetaz gainera, jendearentzat oso ezagunak ziren bertsoei erreferentzia eginez, bere bertsoak ere herritartzeko helburua izan zezakeen. Sakoneko arrazoien artean, Pedro Mari Otañoren bertsoak aztertu ditugunean ikusi dugu nola, "Limosnatxo bat" bertso sail horretan, Otañok pobreziaren arrazoitzat gerra aipatzen zuen eta

[851]ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 125.-126. or.

horren kontra nola egiten zuen. Pedro Mari Otañoren bakezaletasunak eta, aurrerago, Joxe Mari Lopetegirenak bat nola egingo duten ikusiko dugu.

Industrializazio eta modernizazioaren hainbat alderdi ikusten ari gara. Hain zuzen ere, industrializazioari zuzen-zuzenean lotzen zaion gaia da garraiobideena, eta gu aztertzen ari garen kokagune eta garaian, trenaren eraginaz hitz egin beharra dugu atal honetan[852]. Xenpelar da trenaren eragina bizitzen lehenengoetakoa. Zergatik? Errenteria aldera trenbidea egitera frantses eta italiarrak etorriko dira eta hurbiletik ikusiko ditu hauek. Aurrerago bertso horiek zehazkiago aztertuko baditugu ere, Xenpelarrek frantses eta italiar horiei buruz ematen digun ikuspegia ezkorra dela ikusi ahal izango dugu: bertakoengandik oso desberdinak direla esango digu, ezaugarri negatiboak eurei ezarriz. "Gu" eta "besteak" taldeak ezaugarri positibo eta negatiboen arabera ezaugarrituko ditu. Nola izendatuko ditu trena eta trenbidea Xenpelarrek? *"Burnizko bide traste"*[853] izena emango dio. Beste bertso sail batean, frantsesen ideiak *"aldrebestzat"*[854] joko ditu.

Badirudi trena dela eta, lehenagoko ofizioren bat (itzainarena ote?) galbidera datorrela[855]. Tren "berria" martxan jarri dela eta, bertsolari multzo bati, Xenpelar, Udarregi, Jose Bernardo Otaño eta Pello Errota berari, puntu bana kantatzeko eskatu omen zioten. Hona zer esan zuten:

> *Xenpelar: "Bai al dakizu nolakua dan / bapore onen kaldera?"*
> *Udarregi: "Urrutitikan beira egon naiz / ez det ikusi aldea"*
> *Jose Bernardo: "Tximista bañan aguruago / dabil gora eta bera"*
> *Pello Errota: "Len irabazi gutxi zuana / laster batere gabe da"*[856]

Pello Errotak berak, 1879ko bertso batzuetan, aipatzen du trenean nola ibili ziren Andoaindik Iruna joateko, inongo balioraziorik egin gabe: *"Santa Ana egunian / jun giñan emendik, / amarretako trenan / martxa Andoaindik; / gero Elizondora / kotxian Irundik, / ardit bat bakarrikan / eman gabetandik"*[857]. Arantzazura erromesaldia egiteko ere, trena hartzen zuten lehendabizi. Bertso sail batean, trenean izandako istripua ere kontatuko digu: *"Zortziyetan trenian / Billabonan sartu, / Zumarraga ortara / ondo allegatu; / andi abiatu ta / zan deskarrillatu, batek*

---

[852] AIZPURU, Mikel: "Norteko Ferrokarrila. La red ferroviaria en la literatura oral vasca", op. cit., lanak guk jasotakoak baino zehaztasun gehiago azaltzen ditu, bai Auspoa saila bere osotasunean aztertzen duelako, bai unean uneko gertakizun eta honi buruzko bibliografiarekin kontrastatzen dituelako bertso sailak.

[853] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 157. or.

[854] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 150. or.

[855] Makinizazioaren ondorioekin lotuko genuke hau ere.

[856] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 228. or.

[857] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 35. or.

*ere ez degu / guk miñikan artu"*[858]. Baita bidaia osorik egin izan ez zutenez, Brinkolaraino iritsi ez zirenez, galdutakoa nola erreklamatu nahi zuten: "*Billabonan billetiak / zeñek beretzako, / guk artu giñituen / Brinkolara arteko; / kasua izandu zan / len ateratzeko, / berroi ta bosna zentimo / badegu artzeko"*[859]. Eta hurrengo bertsoan: "*Abiso bat bialdu / guk konpañiyari, / artzeko degun pixka / kobra al baledi; / gauza aldrebesa danik / ez deritzat ori, / gero limosna egin / Ama Birjiñari"*[860].

Pedro Mari Otañok ere egiten dio erreferentziaren bat trenari, baina inolako baloraziorik eskaini gabe honen inguruan: trena, erabiltzen duten garraiobide berria da, batetik besterako aldaketa egiteko erabiltzen dutena[861]. Altsasun daudela, adibidez, trena hartuko dute Gipuzkoara, Tolosara, hain zuzen, pasatzeko. Ikus: "*Aspaldiytan biyok gendukan / onera etorri naia, / gure biyotzak pozkidatzeko / oraiñtxen dator garaia; / begira zagun, ara or bertan / Gipuzkoako arraia… / Trena badator, igo gaitezen, / guazen lenbailen, anaia"*[862].

Trenari jarritako bertsoetan ordea, Txirritak Norteko trenbideari jarritakoak dira, jakina, ezagunenak[863]. Hamalau bertso dira guztira, baina lehenengo hirurak ez dira gainerakoak bezain ezagunak. Guri berriz, arras interesgarriak gertatzen zaizkigu, Txirritak garraioak egiteko bi modu ezberdini egiten baitie erreferentzia: trenaren aurreko eta ondoko garaiei. Ez da egingo duen konparaketa bakarra. Ikatzez eta indar elektrikoz mugitutako trenak ere konparatuko ditu. Lehenengo aldiz 1867an ikusi zuen trena ikatzez eta ur lurrunez zebilen. 1929tik aurrera, berriz, elektrifikatu egingo dute Norteko trena. Dakusagun nola ezaugarritzen dituen eta, konparatzen baditu, nola egiten duen erkaketa hori, eta ea bataren edo bestearen alde egiten duen.

Lehenengo momentu batean, itzainak, beren idiekin, merkantzien garraioaz arduratuko dira, eta zaldi kotxeak, berriz, pertsonen garraioaz arduratuko dira[864]. Trenaren etorrerak itzainak bizibidez eta bizimoduz aldatzera behartuko ditu. Txirritak itzainek Nafarroatik Gipuzkoa eta Bizkaira egiten zuten ardo garraioaren berri ematen digu. Bidenabar, itzainek osatzen zuten talde edo komunitatearen zantzuak ere ematen dizkigu.

---

[858] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 201. or.
[859] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 202. or.
[860] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 202. or.
[861] Bertsolariak desberdindu egiten dira horrela Pierre Loti, Pio Baroja, Arturo Campion edo Jose Miguel Barandiaranek trenari buruz ematen duten irudi ezkorretik.
[862] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 166. or.
[863] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 468.-469. or.
[864] Ikus BAROJA, Pio: "La venta". In: *Cuentos.* Madrid: Alianza, 1994. 60.-64. or.

> *"Naparrua'tik ardo-karraio / itzai asko zan ikusi, / prankok bazauzkan iri koskorrak / beren kollare ta guzi; / zurezko ardatzak lumerarekiñ / al zan maizena iyurtzi; / denbora artan Pantorrill zuten / karreteruen nagusi.*
>
> *Garai artako itzai koskorrak / ongi zebiltzan lanian, / Gipuzkua'n da Bizkai aldian / da Euskalerri danian, / gorputzak bapo gobernatuaz / eranian da janian; / akabo oien jornal-biria / trena etorri zanian.*
>
> *Aditu zituztenian trenen / txistua eta marruak, / geientxuenak saldu zituzten / iriyak eta karruak, / esanaz: <Orrek jetxiko dizkik / goi oitan diran arduak>. / Garai artako aien abarkak / ziran basurde-larruak"*[865].

Azkena aipatu dugun bertsoaren azken puntua esanguratsua da oso: gure ustez, abarkei erreferentzia eginez, eta hauek nola eginak zeuden adieraziz, ondoren hitz egingo digun garraiobide berriarekiko desberdintasuna eta distantzia azpimarratu nahi ditu[866].

Txirritak zazpi urte zituela ikusi zuen lehendabizikoz trena, horrela diosku, behintzat, laugarren bertsoan[867]. Norteko trena 1864an inauguratu zuten, baina baliteke Txirritak zazpi urte zituela ikusitako hura gogoratzea lehendabizikoz. Itzainak, 64an inauguratutako trena eta elektrifikatua: 76 urteko bere bizialdian, hiru garraiobide ezberdin ezagutu zituen, beraz, Txirritak. Ez da, ordea, "zaharraren" aldeko agertuko, berriari ateak irekitzen dizkion gizona izango dugu Txirrita: *"Danak alkarri lagun zaiogun / illundu gabe kopetik,"* esango digu esplizituki eta tren berriaren "bentaja" edo abantailak kantatuko dizkigu bata bestearen atzetik, bereziki 1929an berritutakoari erreferentzia eginez. Denbora laburrean egiten dituen distantziak, zein indarrez ibiltzen den, gelditzeko ere zein erraztasun dituen, bi trenbide nola ipini dizkioten, nola indar elektrikoz dabilen eta honi esker gelditu gabe nola ibili daitekeen, garraiorako nola balio duen, dituen erosotasunak (igo eta jaisteko erraztasunak, aulki ederrak, komuna), etab.

Azpimarratzekotan, bi gauza nabarmendu nahiko genituzke: batetik, berritasun horien aurrean Txirritak bere ezjakintasuna nola agertzen duen, baina horrek nola berritasunari uko egitera eramaten ez duen; eta bestetik, Txirritak agertzen duen abilidadea naturako elementuak, kasu honetan, ura, hizketan jarri eta pertsonifikatzeko. Ikus ditzagun bi aspektu horiek xehetasun handiagoz.

---

[865]ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 468. or.

[866] Basurde larrua aipatuz, nolabait, etxekotu gabeko animalia bati egiten dio erreferentzia, basokoa, basatia den animalia bati, eta beraz, trena parte den zibilizaziotik oso urrun dagoen bati. Ondoren datozen bertsoekin eta haiek dakarten errealitatearekin kontrastea handiagoa da horrela.

[867] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.):*Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 468. or. *"Milla zortzireun irurogei ta / zazpigarrengo urtian, / lenengo trena ikusi nuen / Españia'ko partian".*

Berritasunez ari garela, hona. Bosgarren, hamaikagarren eta hamalaugarren bertsotan, honela dio[868]:

> *"Modu orretan jarri zuenak / Norteko ferrokarrilla, / jakinduriya aundiya zuen, / entendimentu abilla; / gizonik eziñ asi liteke / zaldi obiaren billa; / goizian irten Irun'dik eta / illuntzerako Madrilla.*
>
> (…)
>
> *Gizon abilla zan eletrika / sortu zuben maisu ori, / piska-piska bat arrek graduak / bajatu zizkan subari; / orañ indarra leku askotan / kendutzen zaio urari, / garai batian merke zan baño / gaur baliyo du ugari.*
>
> (…)
>
> *Nere munduko jakinduriya / izan da oso azala, / Jangoikuari eskatzen diyot / arren argitu nazala; / garai batian ez genekiyen / eletrikarik bazala, / orañ ur otzak dabillki trena / len irakiñak bezela".*

Badirudi, gainera, berrikuntza teknikoek naturako elementuekin, kasu honetan suarekin eta, gero ikusiko dugun bezala, baita urarekin ere, borroka egin behar dutela, lehian ari direla. Aurrerabidea eta naturaren arteko harreman gatazkatsua ari zaigu aurreratzen, horrela, Txirrita.

Hamabi eta hamahirugarren bertsoek ez dute galtzekorik ezer. Ura eta ikertzaile edo ingeniaria elkarrizketan entzungo ditugu:

> *"Onla esanaz ur irakiñak / egiten zuen negarra: / <prezisua al da beti kalderan / kiskaltzen egon biarra? / Ez daukat beste alimenturik: / suba, kia ta txingarra; / ongi miatzen baldin banazu / otzian badet indarra>*
>
> *Berari beira jarri zitzaion / zabaldurikan besuak, / arrazoi ori ontzat artu du / eletrikako maisuak: / <Badakit zure gau ta egunak / dirala lastimosuak, / ori egiya esan badezu / itzaliko dia suak>"*[869].

Hobeto esaterik ba al zegoen? Ura ikertzaileari eskaka, ikertu dezala, miatu dezala hobeto eta erraztu diezaiola horrela bizitza. Ikertzailea, berriz, prest, esandakoa frogatzen saiatuko dela, eta horrela bada, trena ibilarazten duen sistema aldatuko duela.

Modernizazioak beraz, nagusiki, makinizazioa adierazten du, ofizioen aldaketa, irabaziak sektore batzuetatik besteetara aldatzea, aktibitate ekonomikoaren

---

[868] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 459.-460. or.
[869] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 460. or.

aldaketa. Hori da, behintzat, trena kantagai jarrita, Pello Errotak abestutako puntuan azpimarratutakoa, baita Txirritak berak adierazi diguna ere.

Garraiobidetan gertatutako aldaketez gain, beste hainbat berrikuntza teknologiko ere egin ziren garai haietan, eta bertsolariek izan zuten hauekin harremanik. Pello Errotak, adibidez, argazkia nola atera zieten kontatzen digu, 1879ko bertso batean: *"Plazan, geunden bezela, / gu erretratatu; / dirurik ez artu, / gañera kontentu, / grazi partikularra / orrek berak-tu"*[870]. Argentinan egondako Martin Plaza indianoak aterea omen zen hau. Martin honek berak bultzatua omen zen, gainera, bertso saioa ere. Arantzazura erromesaldian joan zirenean ere, fraideak argazkia atera omen zien asteasuar eta alkizarrei, tartean baita Pello Errotari ere: *"Birian erretratatu / ditu fraile jaunak, / ordurako batzubek / aurrera juanak; / probetxurik etzuban / alde egin zubanak, / obia zan an izan / bagiñaden danak, / naigoko zuban noski / artara jun zanak"*[871].

Pello Errotak "Bertso berriak kolera eta txanpanen gañian jarriak" bertso sailean, Bergaratik Beasainako bidea egitea nahi zuen globo baten berri ere ematen digu. Esperimentua ongi atera ez zela eta, bergararren kontra egiteko aprobetxatuko du Pellok: *"Bergaratik globo bat / bota Beasaña, / egiteko asmotan / sekulako azaña; / etzaie fortunatu / entero bikaña, / Antzuolan gelditu, / bizkorra uste baña"*[872]. Eta hurrengo bertsoan: *"Globo orrek eskasak / zituen indarrak, / nunbait eman dizkate / alimentu txarrak; / ikusgarriak dira / jendiaren farrak, / oso kontentu dira / antzuolatarrak"*[873].

Bigarren azpiatal hau laburbiltzeko asmoz, gure bertsolariek jarritako bertsoetan ageri diren pertsonek industrializazio eta modernizazio prozesuak aukera gisa ikusiko dituzte, kasu askotan, ofizioa eta bizi maila aldatzeko. Laster konturatuko dira, ordea, sistema berriak dakartzan mugez eta zailtasunez ere: makinizazioa, lan istripuak, lan dinamika berriak, krisi ekonomikoak, etab. Industrializazioak ez ditu gizartean zeuden desberdintasun ekonomikoak ezabatuko, beste era batekoak sortuko ditu. Trenari ere erreferentzia berezia egin diogu atal honetan. Aztertu ditugun bertsolariek industrializazio eta modernizazioaren aurrean zuten jarreraren erakusgarri da honi buruz kontatzen digutena.

---

[870] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 35. or.
[871] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 198. or.
[872] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 130. or.
[873] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit, 130. or.

## 1.3.Bi ekonomia eredu kontrajarri?

Modernizazioak eta industrializazioak, kapitalismoaren indartzearekin batera, gehiago irabazi beharraren logika ekarriko dute, baita askotan, dutena baino gehiago gastatzen dutenari dagokiona ere. Berria ote hau XIX. mendeko Gipuzkoan? Bestetik, landa eremuan batez ere, ondasunak kontserbatzearen aldeko logika aurkituko dugu: etxea eta lurrak mantendu egin behar dira, eta hauekin batera, etxearen eta familiaren izen ona eta ondra.

Ezin dugu ukatu ekonomia eredu ezberdinak batera suertatu zirela aztergai dugun aldian eta espazioan. Bi eredu horien adibide ezberdinak aurkitu ditugu. Zeri dagokio, zeinekin parekatu dezakegu eredu horietako bakoitza? Eredu errealak dira edo irudikapenak? Bata industrializazio aurreko ereduari dagokiona eta bestea industrializazio eta modernizazioari dagokiona dela esan dezakegu? Ez ote hori gauzak gehiegi sinplifikatzea?

Bi eredu ekonomikoak lehian aurkituko ditugu Xenpelarren bertso sail batean. "Amerikanoa" izango da, kosta ahala kosta, irabazia bilatuko duena. Xenpelarrek adibidez, "Amerikanuari Xenpelarrek jarriak"[874] bertso sailean, *"Gizona abilla da, / badu fantasiya, / txoruak engañatzen / ordukoz asiya; / esnia saltzen zuen / urakin nasiya…"*[875] kontatzen digu. Xenpelarrek, bertso horietan, "amerikanuaren" tranpa agertu nahi digu, eta nola gezurretan aritzen zen, gaztetan hasita. Eta bertso horretan baino argiago oraindik, sagardozale bati erreferentzia egiten dion honako bertso honetan: *"Kontzientziya garbiya / ik ote daukak jarriya? / Gizonarentzat ondra txarra dek / lapurreriya; / egin dek etxe berriya / zurrupatubaz erriya; / ez ongi bete izan bauen / sagardoz neurriya!"*[876]. Bi eredu ageri dira hemen ere: negozioa zuzen daraman gizonarena, edota negozioaren bitartez, bezeroei lapurretan eginez, "aberasten" denarena. Lehenengoak izen ona irabaziko du; bigarrenak, ordea, ondra txarra.

Xenpelarrek baditu Errenteria aldera trenbidea egitera etorri ziren frantsesei jarriak bi bertso sail –lehen ere aipatuak ditugu-. Bi bertso sail horietan, bertakoen eta frantsesen arteko desberdintasunak azpimarratzen saiatzen da. Desberdintasunak hainbat alorretan ikusten dira: janzkeran, hizkeran, ohituretan, erljio gaietan… eta baita lana eta harreman ekonomikoak ulertzeko moduan ere. Atal honetan, azken hauek aipatuko ditugu batez ere[877]. "Frantzesaren ideak…" izeneko bertso sailean

[874] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 65.-67. or.
[875] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 65. or.
[876] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 94. or.
[877] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 150.-160. or.

horrela deskribatzen ditu frantsesaren ideiak Xenpelarrek, alderdi ekonomikoari dagokionez: dirurik ez dutenean ere, eskas dabiltzanean, balute bezala bizitzen saiatzen dira, eta dutenean, azkar gastatzen dute. *"Frantzesaren ideak / beti aldrebes, / gaur lau baldin badira / biyar baterez; / aragiya len eltzian, / belar billa baratzian, / kardaberak jate'ituzte / dirubak aitzian"*[878]. Haragi freskoa, ardoa eta kafea dute gustuko, eta kantinara joatea ere bai, baina askotan ez dute gastu horiek ordaintzeko dirurik. Beraz, Xenpelarrek gustu garestiak zeintzuk diren esaten digu, bertakoentzat ohikoak ez direnak. Frantsesen jantziei buruz ere hitz egiten du Xenpelarrek. Kasu honetan, zein itxuratan ibiltzen diren esaten digu, nahiz eta jantzi eta apaingarriak gutxi ordaindu: *"Polainak badituzte / arroa biña, / lepoan gorbeta ta / kasaka urdiña; / galtza pana moratuak, / alkandora baratuak, / txapela ta relojua / gutxi pagatuak"*[879].

Frantsesak lanerako alferrak direla ere esango digu Xenpelarrek: *"Frantzesak langilliak / dirala ustez, / pikatxoian asita / lurrera auspez; / gero altxa, txutik jarri, / pipa bana sutu sarri, / egunian ezin ausi / katillu bana arri"*[880]. Orain artekoak kontuan baditugu, ezin esan Xenpelar frantsesen aldeko ageri denik. Hurrengo bertsoan, ordea, aukera bat eskaintzen die: hori bai, frogatu egin beharko dute beren prestasuna. Honela dio: *"Goizian jeiki eta / frantzesen lana: / pikatxoiak artu ta / lanera juanda, / segi, segi zeren lanari, / egin arte fuerte ari, / aitormena emango diot / portatzen danari"*[881]. "Burni-bideak egitera etorri ziran frantzesari jarritako bertsoak" bertso sailean ere, frantsesen alferkeriari aipamena egiten dio Xenpelarrek: *"Frantzes da italiano / kasta oiek nasi, / onera etorri ta / dabiltza nagusi; / pegoiari ederki / lana egin arazi, / berak pikoarekin / beñere ez asi"*[882].

Lanik ez egiteaz gainera, lanik hoberen eta erosoenak eurek dituzte[883]: *"Dala listero edo / dala sobrestante, / enpleo eroso bana / geienak badute; / jornalik aundienak / frantzesak dauzkate, / nunbait español danok / tontotzat gauzkate"*[884]. Xenpelarrek beste datu bat ematen digu frantsesei buruz: lehen etortzen ziren langileak ofizio tradizionalei lotuak ziren. Orain datozenak, berriz, trenbidearen eraikuntzari lotuak daude. Horrek esan nahi du, beraz, Frantzian trenaren eraikuntza eta modernizazio prozesua Espainian baino lehenago gertatu zela. Orain *"listero"* eta

[878] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 150. or.
[879] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 151. or.
[880] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 151. or.
[881] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 152. or.
[882] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 157. or.
[883] Inbidia ote?
[884] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 158. or. Zenbateraino ote dira ezaugarri hauek Xenpelarrek frantsesei egotziak edo herriaren ahotik jasoak?

*"sobrestanteak"* datoz; lehen, ordea, *"txorrotxalle"* eta *"pertz-konpontzalleak"*, *"titiri-mundi"* eta *"santu-saltzalleak"*, eta *"txikiratzalleak"* etortzen omen ziren Frantziatik[885].

Xenpelarrek, ordea, nahiz eta zuzenean gaia hori izan ez, bere ikuspegi ekonomikoaren berri ematen digu beste bertso sail batzuetan ere. Aipatu ditugun bi eredu ekonomikoen aurrean bere jarrera zein den agertuko digu. Baina bide batez, bi ereduen existentzia baietsiko digu. Esaterako, 1865eko "Bertso berriak" sailean[886]. Erromeria batera joanda, ermitara sartu eta senar eske doazen bi "damen" berri ematen digu Xenpelarrek bertso hauetan. Hauen itxura eta handikeria deskribatzen eta maiseatzen ditu. Garbi adierazten du pobreak ez duela handikiaren itxurarik izan behar eta bakoitzak egokitu zaion mailari eutsi behar diola, aldatu eta hobetu nahi izanik gabe. Konformatzen ikasi behar, beraz. Hona ikasgaia. Bere hitzak bailiran, zazpigarren bertsoan esango digu: *"<Aizazu: ez det gezurrik esan, / ala berian pasia; / pobriarentzat ez da komeni / aberatsaren klasia>"*[887]. Zortzigarren bertsoan, berriz: *"Galaz beteta ikusi ditut / erromeriyan bi dama, / eleizarako erropa gabe / etxian aita ta ama; / zori gaiztuan sortu ziraden / alajak eta kabana, / banidadiak familiara / errenta gutxi darama"*[888]. Hamaikagarrenean: *"Ama gaizuak au adituta / nola artu pazientziya? / Nekerik asko berekin dauka / alabak ezin jantziya; / egun bateti bestera dator / galaren diferentziya, / modu orretan bajatuko da / pobriaren ganantziya"*[889]. Eta hamahirugarren bertsoan: *"Neke trabaju penaz beterik / alabak munduan azi, / gurasuari esker gaiztua, / orra nik adierazi; / beren burubak aundi-puntuan / nai lituzkete ikusi, / lenago maiztar bizitzen dana / ez da jarriko nagusi"*[890]. Azpimarra ditzagun bertso horietan agertutako hainbat alderdi: alabak, etxearen eta gurasoen onerako baino gehiago, beren buruen alde egiten dute, festarako jantzitan gehiegi gastatuz. Ez da hori izango Xenpelarri gustagarri izango zaion eredua: batetik, itxurari garrantzi handiegia ematen diotelako eta, bestetik, gurasoekiko zerbitzuari uko egiten diotelako, beren buruak gainetik jarriz. Neska hauek, azken finean, ezarria dagoen ordena, kasu honetan ekonomikoa, zapuztu nahi dute. Hori da, hain zuzen ere, Xenpelarrek gaitzetsiko duena.

---

[885] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 158. or.
[886] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 226.-230. or.
[887] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 227. or.
[888] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 228. or.
[889] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 228. or.
[890] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 229. or.

Pello Errotak ere emango digu bi eredu ekonomiko hauen berri. Bere "Bi indiano" bertso sailean, bi indianori gertatua kontatzen digu, hauetako baten ikuspegitik[891]. Indiano batek besteari dirua uzten dio, baina bigarrenak ez dio lehenengoari dirurik bueltatuko. Jose Antonio Otegi asteasuarra izango da dirua uzten duena. Anoetako semea, berriz, dirua hartu eta bueltatuko ez duena[892]. Zeintzuk dira batak eta besteak agertzen dizkiguten ereduak?

Jose Antonio Otegi indianoa, *"nekiaz egiña"* da *"ustez biar ain loteri"*[893]. Pixka bat aurrerago, berriz, *"Beste milla're nik baneduzkan / urruti gabe gordiak, / nere nekiaz irabaziyak, / iñori're zor gabiak"*[894]. Lanaren ondorioz lortu du, beraz, dirua, ez zortearen eraginez, ezta inori eskatuta ere. Lanaren ondorioz lortutako irabazia hobesten da, beraz, ez jokoan edo beste batzuei zorretan utziz lortutakoa.

Anoetarra berriz, *"komertziante"* izan zen Cárdenasen (Kuban), eta *"igesi"* etorri omen zen handik honantza[895]. Ez nolanahiko komertziantea, gainera, *"komerziante bera azkarrena"*[896] baizik. Bertso berean, lerro batzuk aurrerago, *"gezurra eta enbusteriyan / bere burua gora iyo"*[897] zuena. *"Mutil panparroi lujoso"*[898] ere deituko dio asteasuarrak anoetarrari. Hamaikagarren bertsoan *"kristau gaiztotzat"* ere agertuko du, *"maleziya"* duen gizona dela esanez[899]. *"…aberats gisan apaindu eta / eunero pasiatzera; / gastua aurrera zijoan eta / komertziyua atzera, / aberasteko señale ona: / gaiztuak bisitatzera"*[900] agertzen omen zen, horrela benetan izan gabe. Gezurra, luxua eta fanfarroikeria kontra eredutzat agertuko dira, beraz, bertso hauetan.

Pello Errotak berak, puskatutako ezkontza bati buruz jarritako bertsoetan, senar ohiak egindakoaren berri emango digu. Landa eremuaz ari dela, aurkituko du, beraz, horrelako jokaerarik ere: "*Arraskatu naiz tratuban eta / lana ondo erori zat, / laubian artutako sagarrak / zortziyan salduba beintzat; / andik partia biar duela / emazte ori asi zat, / neretzat etzan laguntzallerik / palta atera balitzat"*[901]. Jokabide ekonomikoari dagokionez, arriskuak hartuko ditu, beraz: baserri eta lurren jabeari

---

[891] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 209.-212. or.
[892] Nahiz eta jatorrizko bertsopaperean izen-abizenak agertu, Antonio Zavalak prestatutako argitalpenean ezkutuan utzi zituen.
[893] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 209. or.
[894] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 210. or.
[895] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 209. or.
[896] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 210. or.
[897] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 210. or.
[898] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 210. or.
[899] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 211. or.
[900] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 212. or.
[901] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 180. or.

sagarrak prezio batean erosi, eta garestiago saltzen saiatuko da gero. Berak dioen bezala, ongi aterako zaio, gainera, egindako apustua.

Txirritak ere landuko du bi eredu ekonomikoen gaia. Ondasunen zirkulaziorako dirua edo harreman pertsonalak, zer ote egokiago? Hau da, diruaren truke edo konfiantzazko harremanen truke lortu ondasunak? "Begi-txikiyaren bei, gurdi, asto ta idiak" bertso multzoan, adibidez, konfiantzan oinarritutako harremanak azpimarratzen ditu baserritar biren artean. Baserritar batek besteari hainbat animalia eta tresna uzten dizkio: *"Bertso berriyak jartzera nua / euskera eder batian, / gizon batekin piatu nitzan / anbat neretzat kaltian;*[902]". Eta bigarren bertsoan: *"Lanak artuta anparo billa / zan neregana etorriya, / lendabiziko prestatu nizkan / bei-paria ta gurdiya; / aitatik ere eztet kobratu / baliyo zuten erdiya, / asto bat ere il ziran eta / ara naiko pikardiya"*[903]. Horiek guztiak pasatuta ere, idiak ere utziko dizkio baserritarrak lagunari. Azken bi bertsoetan nola ezaugarrituko du lagunaren jarrera? Batetik zurrupakari bezala eta, bestetik, berea eginda harrotzen den pertsona bezala: *"nere denboran etzat aztuko / lagun zar batek esana: / badago zeñek zurrupatua / deskuiratzen dan gizona*[904]" eta *"Zerbait eskaka asi dan arte / prestua eta umilla, / bañan beria egiñ ezkero / arrotutzen dan mutilla;* "[905] .

Konfiantzaren alde –giza harremanei balioa emanez- eta diruaren alde egiten duten baserritar banaren arteko elkarrizketa ere irudikatuko du Txirritak "Bi gauzik onenak zer ote diran aste ontan Txirritak jarriyak" bertso sailean. 1932ko urtarrilaren 3an, *Bertsolariya* aldizkarian argitaratu zituen Txirritak bertso hauek.

Santo Tomas egun batean kokatuko du bi baserritarren arteko elkarrizketa, tabernan elkar topatu eta hizketan hasi direla:

> *"San Tomasetan Donostiya'ra / juan naiz betiko moduan, / ni bezelako baserritarrak / asko ziran inguruan; / nere lagun bat an billatu det / meza nagusi onduan, / tabernan sartu eta zurrut bi / eran ditugun orduan, / sekula aitzen eztan seta bat / onlaxe artu genduan.*
>
> *<Beste lan gabe etorriya nak / juntatziatik irekiñ, / oraindik lengo jeniyo zarrak / emen zauzkiyat nerekiñ; / iñondik ere legerik balitz / kontu bat nai nikek jakiñ: / mundu ontan bi gauzik onenak / zer ote diran, Serafiñ>. / <Nik osasuna eta dirua / artuko nizkikek, Juakiñ>.*

[902] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 389. or.
[903] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 389. or.
[904] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 390. or.
[905] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 390. or.

> *<Jesus! Serafiñ, ori dek ire / itz egiteko modua! / Onez onian esaten diyat, / aiñ aiz gizon onradua: / urtiak ere juan zaizkik eta / nastuba daukak burua, / konfiantza dek gauzik onena, / fiña eta segurua, / artatik asko daukan gizonak / zertarako dik dirua?"*[906].

Serafin hipotetiko batek diruaren alde egingo du eta Joakinek, berriz, konfiantza aipatuko du, hau da, giza harremanak diruaren balioaren gainetik jarriko ditu. Zeintzuk dira batak eta besteak azpimarratzen dituzten arrazoiak?

Serafinen ustez, diruak, konfiantzak ez bezala, gauzak erosteko balio du, eta konfiantzak baino luzeragorako balioa du –konfiantza gastatu egiten baita-; goseari aurre egiteko janaria erosteko balio du, konfiantzaz etengabe eskean egoteak, gainera, lotsa dakar berekin –"*…pobriak lan du nekatu gabe / bizi-modua sortzia, / edo bestela prezisua du / etxe askotan sartzia, / beñ eman eta lotsa biar du / berriz ara etortzia*"[907].

Joakinen ustez, konfiantzak elkar estimatzea ekartzen du eta elkar babestea, beharrean dagoenari behar duen hura ematea –janaria, edaria, lo egiteko tokia-.

Batak eta besteak adibideak jartzen dituzte nork bere posturaren alde. Serafinek ferian behia erosteko dirua zeinen garrantzitsua den adieraziko dio Joakini: "*<Amaika biar juan gera, Juakiñ, / periya ikusitzera, / ta berriz ere desio nuke / lagun maitien antzera; / anaia baten puestora zuaz / bei esnedun bat artzera, / konfiantzak zer esan nai duen / ongi fijatzen bazera, / emango dizu gustora baño / zorretan zuaz etxera*"[908].

Joakinek, berriz, Serafini, harategian dirurik gabe nola zerbitzatu zuten erakutsiko dio Serafini: "*<Atzo juan nitzan dirurik gabe / zekor erdi bat artzera, / arakiñ zarrak eta andriak / etzuten egiñ atzera; / izketan ere tratatu naute / obispo baten antzera: / Gure morroiak eramango du / zu bizi zaren etxera, / kuidado gabe jan zazu lasai, / gizon gaiztua etzera>*"[909].

Bertso sailaren azkeneko bertsoak, Serafinen ahotan, diruaren alde egiten du nabarmen: "*<Konfiantzaren alde izketan / jarduten dira batzuak, / artzen duenak berak askotan / ipiñtzen ditu plazuak; / eta denbora datorrenian / estutzen dira*

[906] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 487. or.
[907] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 488. or.
[908] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 488. or.
[909] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 488. or.

*lazuak, / berriz bertara etorri biar / luzaturikan besuak; / dirubak eta errezibuak / bukatzen ditu bertsuak"*>[910].

Eredu ekonomikoetaz ari garela, burura beste galdera bat ere badatorkigu. Xenpelarrek frantsesei buruz ari zela haiek alferrak zirela zioen bezala, euskaldunak langile ote? Euskaldunek lanarekiko zein lotura dute bertsolarien arabera? Erabili ditugun sei bertsolarien bertsoak kontuan hartuz, Xenpelarrek nagusiki[911] lanaren etikaren alde egingo duela esan dezakegu, eta Txirritaren eskutik, berriz, langilearen kontra ereduak dira jasoko ditugunak. Makina bat pasadizo jasoak ditu Antonio Zavalak Txirritaren alferkeriaren erakusle[912].

Txirritak, hargina izanik ere, baserriko lanak ere egiten zituen. Hala eta guztiz ere, esanguratsua da azpimarratzea nola egiten zituen. Horretarako lagungarri gertatzen zaizkigu Jose Zapirain bertsolariak kontatzen dizkigunak[913]:

> *"[…] Goizean amarrak aldera azalduko zan gure Txirrita, geldi-geldi, bere iritaria eskuan eta zurezko sega-poto txiki bat bizkarretik zekarrela.*
>
> *Lantokira ordurako, amaika itxogin-aldi egingo zitun, alderdi guzietara begira; etzan presakako langille oietakoa.*
>
> *Noizbait iritxiko zan alor txikira. Iritariari sega-arriarekin pasara bat edo bi emango zizkion muturretik atzera, eta, eskuari txistu emanaz, erasoko zion bere lanari, lenengo pikotxean.*
>
> *Baño laxter aspertuko zan. Postura nekosoa zan ura arentzat, ordurako loditua ta astun xamarra baizegon.*
>
> *Gero, belaun bat lurrean zuala, aspertu arte. Laxter aspertzen zan. Saioxka txikiak baño ugari egiten zitun. Egoarte guzia bere mende zeukan ortarako.*
>
> *Amabiak inguru orretan azalduko zan gure etxean. Etxe aurreko arrizko petrillan exeriko zan eta lenbizi ikusten zuanari aginduko zion:*
>
> *-Aizak, txikito: ekatzak meserez txarrokara bat pitar!*
>
> *Txarro pitarrak, gutxienera jota ere ortxe-ortxe litro ta erdi kabituko zitun; patxaran uraxe ustu arte an ariko zan, gizon batekin bezela guretako umeren batekin izketan.*
>
> *Ustutzen zuanean, "Eskerrik asko, txikito!" esanta, lasai-lasai joango zan berriz lengo lanera, paotxa ebakitzera, alik-eta etxekoak gurdiarekin billa etorri arte"*[914].

---

[910] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 488. or.

[911] Baita Joxe Mari Lopetegik ere momentu batean.

[912] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 30. or. eta hurrengoak; 55. or. eta hurrengoak. Hogeita hamahirugarren orrialdean, horrela kontatzen du Zavalak: ama kezkatua omen zegoen semea alferkerian ikusita eta zahartutakoan zer egin behar zuen galdetu zion, hau da, bere bizitzarekin zer egitea pentsatzen zuen. Semeak, berriz, galderari ez heltzeko, erantzun ordez, zentzurik gabeko esaldia erantzun zion: "-Ama, zaku zar bat atzian".

[913] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 218.-221. or.

Bi hitzetan, industrializazio eta modernizazio testuinguru horren baitan jokabide ekonomikoa ulertzeko eta praktikan jartzeko eredu ezberdinak zeudela ikus dezakegu aztertutako bertsoen arabera. Eta nola eredu horiek giza taldeak ezaugarritzeko eta errepresentatzeko erabili ziren, "bestea" gorpuztuz, "norbera" hezurmamitzen zihoan neurri berean. Irabaziaren logika XIX. mendeko industrializazio eta modernizazio prozesuen aurretik Gipuzkoako landa eremuan ere bazela ikusi dugu, eta lehian bizi zela ondasunak mantentzea helburu zuen jokabide ekonomikoarekin. Lanaren etika –lanaren garrantzia eta honi txukun erantzun beharra- ere aurkitu ditugu bertsoetan, ondasunen kudeaketari arduraz erantzuteko bide gisa (ez hainbeste aberasteko bide bezala). Hala eta guztiz ere bertsolarien artean lanerako baino lagunarterako joera handiagoa zutenak ere baziren[915].

## 1.4.Laburbilduz

Hau dugu gure doktorego tesiko mamiaren, hau da, diskurtsoen azterketa egin dugun ataleko lehenengo azpiatalaren laburbilduma. Doktorego tesi honen sarreran esan dugun bezala, modernizazio prozesua zentzu zabalean ulertu dugu. Oroitu modernitatearen gauzatze zehatzak liratekeela modernizazio prozesuak, zeintzuek industrializazioa, hiritartzea, migrazioak, familia ereduetan aldaketak, gizon eta emakumearen paperaren aldaketa, gizarte egituretan aldaketak, aniztasun politikoa, alfabetizazioa eta sekularizazioa lituzketen beren baitan, besteak beste. Bertsoen azterketa eta interpretazioa jasotzen hasi garen lehenengo azpiatal honetan, bertsoek egoera eta aldaketa ekonomikoei buruz diotena jasoz hasi gara. Zergatik hemendik hasi? Modernizazio prozesua eta aldaketa ekonomikoak lotura zuzena dutela uste dugulako, itxuraz behintzat, boteprontoan, horiekin lotzen delako, eta askotan, bereziki eta ia horrekin besterik ez –nahiz eta guk besterik uste izan eta bertsolariek ere hala erakutsi-. Gogoratu, halaber, Gipuzkoako herri xehearen azterketa abiapuntu hartuta hasi genuela doktorego tesi honen ikerketa, eta nola iturriek erakutsi ziguten modernizazio prozesuari oso loturik zegoen arazoa zela identitatearena eta horrek behartu gintuen bertsolariei kasu egitera eta modernizazio prozesuak zekartzan hainbat aldaketei buruz ziotenari erreparatzera. Hori da diskurtsoaren azterketa eta interpretazioari hasiera emateko aldaketa ekonomikoez mintzatzen hastearen beste arrazoi bat. Eta aldaketak interesatzen bazaizkigu, zergatik tokia egin modernizazio prozesu aurreko egoerari? Identitate sorkuntza prozesuak pizgarri aldaketak badituzte ere, abiapuntu den eta aldatzen

[914] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 218. or.
[915] Kolektibo honi lotutako ezaugarri bereizgarria izan daiteke hau.

ari den errealitateak toki berezia izan dezake errealitate berriari zentzua emateko sortuko den narrazioan. Horregatik, jaso ditugu landa eremuko ekonomiaz hainbat xehetasun.

Aztertu ditugun sei bertsolarien diskurtsoak kontuan izanik, eta ez ekonomiari dagokionez soilik -hurrengo azpiataletan ere antzeko egoera ikusiko dugu- bi eszenatoki nagusi eta batetik besterako trantsizioa aurkituko ditugu. Teorian behintzat, balizko eszenatoki bat, XIX. mendeko modernizazio eta industrializazioak gutxien eragindakoa izango litzateke. Bigarren balizko agertokia, berriz, XIX. mendeko modernizazio eta industrializazio prozesuek eraldatutakoa izango litzateke. Eta tartean, batetik besterako pausoa aurkituko genuke. Jakina, eszenatoki horietako bakoitza dinamikoa da, askotariko ezaugarri eta protagonistak dituena.

Laburbilduma honetan azterketan ikusi ditugun elementu nagusiak besterik ez ditugu azpimarratuko. Zehaztasun gehiago nahi duenak, jo beza azterketa bera irakurtzera. Ondorio orokorretan ere jasoko da, nahiz eta beste modu batean, atal honetan begiztatutakorik.

XIX. mendeko modernizazio eta industrializazio prozesuak zein errealitate aurkituko du mintegi, non ereingo ditu bere haziak? Aztertu ditugun sei bertsolarien bertsoak oinarri hartuz beti ere, eta batez ere landa eremuan bizi zirenei erreparatzen badiegu, zera esan dezakegu: biztanle kopuru eta baliabide urrien arteko oreka ahul eta hauskorrean bizi direla. Bertsolari guztiek pobretzat agertuko dituzte beren buruak, nahiz eta eurek esan, baita ere, ez direla eskekoak edo miserian bizi direnak.

Landa eremuan bizi direnek, errentan duten etxea edo "oikos"-a dute unitate ekonomiko nagusia: etxeak eta hauek dituzten lurrak ere pobreak izango dira eta horregatik, etxeko kide batek baino gehiagok bizimodua ateratzeko estrategiak bilatu beharko ditu, batzuk jatorrizko etxetik kanpora atera beharrean izango direlarik –Ameriketara emigratuz, adibidez, edo industrializazio prozesuak aurrera egin ahala, fabrikan lan eginez, edota etxetik kanpora ezkonduz-. Etxea beraz, eraikuntzaz gainera, etxeko taldeari erreferentzia egiten dion errealitatea izango da.

Bertsoen argitan ikusi dugu, halaber, sozioekonomikoki mailakatua dagoen gizartea dela, herritar xehe eta "kaballeroz" osatua, edota nagusi eta maizterrez.

Bertsolariek ofizio tradizionalei erreferentzia egiten badiete ere, maiz agertuko dira artesautzari eta bestelako lanei lotutako aipamenak ere. Baserria eta kalea, nahiz eta

funtzionamendu ekonomiko desberdinak izan, elkarren osagarri agertuko zaizkigu. Eta egoera horretan, modernizazio eta industrializazio prozesua nola hartuko dituzte gure bertsolariek?

Aztertutako bertsolarien, edota eurek kontatzen dituzten gizon-emakumeen bizitzen kasuen bitartez ikusitakoaren arabera, bizimodua hobetzeko asmoz ofizio aldaketak egingo dituztela ikusi dugu maiz: baserritik kalerako pausoa emango dute batzuetan, edo ofizio batetik besterakoa, bestetan. Modernizazioa eta industrializazioa eta ekonomiak dakartzan aldaketak, aukera gisa ikusiko dituzte, beraz. Bai, behintzat, ausartenek.

Modernizazioa eta industrializazioa aukera gisa ikusita ere, industrian lanean hasten direnak –guk Xenpelar dugu Errenteriako lehen industrializazioan zuzen zuzeneko protagonista- jabetuko dira sistema ekonomiko berriaren ahultasunez eta zailtasunez: istripuak, lan dinamika berriak, krisi ekonomikoak, lantegiko nagusien eta langileen arteko harremanak, grebak, etab.

Landa eremuaz aritu garenean mailaketa ekonomikoaz mintzatu bagara, modernizazio ekonomikoari lotuta eta testuinguru hiritarrean ere pobreak agertuko direla esan behar, hauetako batzuek, langabeziaren eraginez pobretuak. Modernizazio eta industrializazioak, nahiz eta ezberdintasun ekonomikoak gutxitu –klase ertaina izango denaren lehen pausoak emanez-, ez ditu distantzia sozioekonomikoak ezabatuko.

Modernizazio eta industrializazio prozesua ereiten lagunduko duten elementu aipagarriak izango dira garraiobide berriak, horien artean, trena, nagusiki. Bertsolariek ere egingo diete erreferentziarik honi: batzuek zentzu utilitarista batetik begiratuta, erabili egingo dute; beste batzuk, berriz, modernizazioaren kontrario direnak, eta trena horri estuki lotuta ikusiko dutenez gero, garraiobide berrien kontra agertuko dira –ez espero bezainbeste, ordea-.

Bertsoak aztertu ostean sortzen zaigun sakoneko galdera, hau da: XIX. mendeko kapitalismoak dakarren ekonomia eredua –irabazia helburu duena- erabat berria ote garai hartako Gipuzkoan? Ekonomia aurrekapitalista ote Gipuzkoako XIX. mendeko industrializazio aurrekoa? Izen ona eta ondra ote harek oinarri bakar? Aztertutako bertsoen arabera, ekonomia eredu horrek tokirik badu ere, irabazi beharraren logika ere ezaguna zen XIX. mendeko industrializazio aurreko Gipuzkoan.

Lanaren etikaz ere jaso dugu adibiderik gure lanean: dena den, alferrak ere agertuko dira behin baino gehiagotan bertsoetan.

Bukatzeko, modernizazioaren alderdi ekonomikoan sakontzeko fabriketan lan egin zuten bertsolari gehiagoren testigutza behar genukeela konturatu gara, guk aukeratutakoetatik bakarra baigenuen hori egin zuena. Hala eta guztiz ere, aztertutako beste bertsolarien ofizioek –errotaria, hargina, kontratista, ofizio asko probatutako emigrantea, arotza- XIX. mendeko Gipuzkoako askotariko biztanleengana iristen lagundu digu. Oroi dezagun gainera, gure helburua ez dela modernizazio prozesuaren eta honen aldaketa ekonomikoen azterketa hutsa, mundu zaharretik berrirako aldaketa eta trantsizioa baizik, eta prozesu honen bizipena eta barneratzea herri xehearengan, hau da, zein narrazioren bidez ematen dioten zentzua bizitzen ari direnari.

# 2.Familia eredu tronkala edo nuklearra, ezkontza tratuak edo maitasuna?

Modernizazio eta industrializazio testuinguru honetan bertsolariek agertzen dizkiguten gaien artean ezin ditugu albo batera utzi demografia gaiak, izan ere, hauei esker, garaiko gizartearen irudi sakonago eta osoagoa lortuko dugu[916]. Ekonomiatik demografiara emango dugu pausoa. Aurrez ikusi dugun bezala, ekonomiak, grekoko "oikos" eta "nomos" hitzetatik eratorria denak, etxearen kudeaketa esan nahi du. Atal hau, aurrekoaren osagarri da, beraz. Goazen modernizazioaren aspektu ekonomikoetatik etxeari dagozkionetara. Baina azal dezagun, zehazkiago, atal honetan barneratu ditugun elementuak. Orain arte esan bezala, aztertu ditugun bertsolariek etxea, familia eta demografiari lotu diezazkiokegun gaiak lantzen dituzte, ez guztiek berdin, indar handiago edo txikiagoz, tarte handiagoa edo txikiagoa eskainiz. Zeintzuk dira gai horiek? Ekonomia eredu berriak, familia eredu berriak ekarriko al ditu berekin?

Demografia hitzak, *Egungo Euskararen Hiztegiaren* arabera, "giza multzoen estatistika bidezko azterketa; biztanleria" esanahia du. Guk ordea, azterketa estatistikoaz haratago, eta bertsoek eskaintzen diguten informazioari esker, giza multzoen partaide direnen kantitate kontuak baino gehiago, horien irudi eta egitekoak aztertu nahi ditugu. Modernizatzen ari den Gipuzkoa honetan, demografia gaiari lotuta, bi gai nagusi azaltzen dizkigute bertsolariek. Batetik, landa

[916] Ikus GONZALEZ PORTILLA, M.; URRUTIKOETXEA, J.: *Vivir en familia, organizar la sociedad*, op. cit., 35.-97. or.

eremuan, biztanleen eta baliabideen arteko oreka eskas eta ahula eta, egoera honi aurre egiteko oinarrizko komunitate gisa etxeko taldeak duen garrantzia; bestetik, modernizazio prozesuaren eraginez, besteak beste, gizon eta emakumearen irudi eta paperaren aldaketa eta horrek bikote harremana eta ezkontza ulertzeko moduan ekarriko duen aldaketa.

Landa eremuan batez ere, bizimodua etxeko taldearen arabera dute antolatua: etxean bizi direnen sostengua da ziurtatu beharrekoa. Aurrerago ikusiko dugun bezala, hori nabarmenagoa izango da etxeko buru egiten duten bertsolarien kasuan. Etxea osatzen duten partaideen eta bizimodua ateratzeko behar dituzten baliabideen arteko oreka ahula izango da, ez baitira gehiegirekin bizi –aurreko atalean esan dugu gehienek pobretzat dituztela euren buruak, ziur aski horrela zirelako-. Hori dela eta, etxeko partaide kopuruan gorabeherak eragiten dituzten gertakariak bereziki garrantzitsuak izango dira garai honetan, eta, nagusiki, heriotza hauen artean. Eta hori, zerk eragina? Gaitzak, gerrak eta istripuek kasu gehienetan. Gaitza, gerra eta istripuak, gainera, ez dira norberak kontrolatu ditzakeen kontuak. Hauek familiaren baitan eragin nabarmena izango dute: familia burua baldin bada hiltzen dena, zer esanik ez, baina baita hiltzen dena seme edo alabaren bat denean ere.

Etxeko partaideen kopurua orekatzeko erabili ahal izango duten beste biderik ere bada, kasu honetan, familiek estrategia gisa erabili ahal izango dutena, ez zoriak edo kanpoko eragileek behartuak. Emigrazioa eta ezkontza izango dira familiek euren kide kopurua gutxitzeko eta dituzten baliabideei egokitzeko erabiliko dituzten estrategia nagusiak. Horiei buruz bertso kopuru dezentea aurkituko dugu gure azterketan.

Atal honetan landuko dugun bigarren gai nagusia arestian aipatutakoari lotua dago. Ezkontza tratuak, amodio bertsoak… ugariak dira aztertu dugun bertso corpusean. Hauek nola ulertu? Zein parametroren arabera interpretatu? Gure ustez, bi dira nagusiki kontuan hartu behar ditugun kontuak. Batetik, gizon eta emakumeen irudi eta paperean XIX. mendeko Gipuzkoan gertatzen ari den aldaketa eta, bestetik, aldaketa horiek ezkontzan eta hau ulertzeko moduan izango duten eragina. Landa eremuan ematen den ezkontza tratuen sisteman, zeren arabera hitzartuko dute gizon eta emakume batek beren arteko lotura? Familien arteko tratua izango da edota bi gizabanakok libreki aukeratutako borondatezko lotura? Ez digute berdin hitz egingo gai honetaz bertsolari batzuek eta besteek. Landa eremuan etxeak eta honen baitan osatzen den komunitateak izango dira

garrantzitsuenak. Eremu hiritarrean, berriz, gizabanakoaren ikuspegia eta bi gizabanakok libreki elkartuz osatutako familia eredu nuklearrak izango dira nagusi.

## 2.1.Landa eremuko adibidea: familia tronkala

### 2.1.1. Familia tronkalaren ezaugarriak: kideak eta euren arteko harremanak

Lehenengo eta behin, bertsolarien ahoz, Gipuzkoako landa eremuko familiaren ezaugarriak zeintzuk diren jasoko dugu, honetaz hitz egiten duten bertsolarien kasuan. Bertsolari batzuek agertzen dizkiguten familiak zabalak dira: *"Adios, nere aita ta ama, / zuek zerate aurrena, / senide edo parientiak, / andreagaiari urrena; / konsuelorik bate ez daukat, / triste de nere barrena, / zuek utzi ta juan biarrak, / neri ematen dit pena"*[917]. Hona hemen ezkontza tratua puskatu eta Ameriketara joatea erabaki zuen mutilaren agurreko azken bertsoa. Gurasoak, senideak edo parienteak eta andregaia ditu kontuan. Ikusi egin beharko genuke "senide edo pariente" horien pean nori buruz ari den hizketan, zehazki.

Pedro Mari Otañok Ameriketatik Zizurkil eta inguruetara bidalitako eskutitzen bitartez ere jaso dezakegu landa eremuko familia haien harremanen berri. Bere hurbileko ahaideei idatzitako eskutitz bertsoak dira eta euren arteko harremanen berri ematen du, baita familiako kide bakoitzak familia egituran betetzen zuen tokiaren berri eman ere. Aitari honako bertsoa bidali omen zion, arrebak idatzitako eskutitzarekin batera: *"Aita, bai al daukagu / esan biarrikan / maiz aipatzen dirala / berok Amerikan? / Gure artian ez da / beste okerrikan, / aparte bizitzia / bakar-bakarrikan"*[918]. Bertso honen bitartez ikus dezakegu, nahiz eta distantzia handira bizi, gurasoen, eta esplizituki aitaren, itzala luzea dela eta seme-alabak bizi diren lekuraino iristen dela. Amona edo birramonari, ez dago garbi, honela bidali omen zion: *"Guztiyoi nai diyotet / ni maite nautenai, / endemas nere odol / beretik dutenai; / nola guztiyoi batek / eman digun danai, / nik bedorri maite det, / bai, amañia, bai"*[919]. Orain artean ikusi ez dugun elementu biri egiten die erreferentzia Otañok: odolari eta jatorri bateratu bati, kasu honetan, odolaren bitartez ematen

[917] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 125. or.
[918] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I*, op. cit., 179. or. Lehenago ikusi dugun bezala P. M. Otañok badu errealitatea idealizatzeko joera. Hala ere, familia tronkalaren esperientzia sakona bizi izan zuen bere bizitzaz jardun garenean esan bezala. Idealizatu, bizitako errealitatea oinarri hartuz egingo du P. M Otañok.
[919] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua I*, op. cit., 180. or.

denari. Familiako kideei nola zuzentzen zaien, adibidez, esanguratsua da: arrebari hika hitz egingo dio, lagunei ere bai; guraso, amona eta osabari, berriz, berorika.

1889an idatzitako bertsoetan, Argentinan zegoen anaiaren eta Pedro Mari Otaño beraren arteko topaketa kontatzen du, besteren artean.

> *"Guk ere anbat izan gintzake / geren alderdi flakuak, / bañan senide guztiyak gera / elkarrentzat alakuak; / Josek botatzen zituben pozez / ginga añako malkuak, / maite nola ez izan anaiak / ura dan bezelakuak?*
>
> *Bañan luzatu etzezakian / gau artako umoriak, / urruti zeuden aita Juan Pello / eta gure senidiak, / beti bezela maite ditugun / aide ta adiskidiak; / au pentsatzian illundu ziran / gure pozaren biriak"*[920].

Bi anaiak elkar aurkitu izanaren pozak ez zuen asko iraun, dirudienez, falta zitzaizkienaz oroitu zirenean. Senideak, ahaideak eta adiskideak ditu gogoan Pedro Mari Otañok. Hiru maila: guraso eta anai-arrebak; lehengusu, izeba-osaba eta gainerakoak; eta, azkenik, lagunak. Antonio Zavalak jasotzen duen beste bertso batean parienteak ere ageri dira: *"Agur, nere osaba / ta parientiak, / aiyo, adiskide / ta lagun maitiak; / pena ematen dit zubek / utzi ta joatiak, / berriz etortzen banaiz / ez itxi atiak"*[921].

Eta, Argentinan falta zitzaizkien haiek zein leku betetzen zuten beren bizitzetan? *"Iduritutzen zaidan batzubek / duda badabilkitela, / ikusirikan nik aiei aña / kaso egiten diratela; / bañan ixilik egonagatik, / ik ondo dakiñ, Mikela, / guk nai diyegun baño geiago / eziñ nai izan leikela"*. Eta hurrengo bertsoaren hasieran: *"Beron gañian izaten dira / gure izketa geienak, / nola ez ditu maiz aipatuko / onenbeste nai diyenak! / Guretzat oraiñ aundiyak dira / orko gauzik txikiyenak. / Au esaten det jakiñ dezaten / lenago etzekitenak"*[922]. Dirudienez, harremanen jariotasunerako zailtasunak zeuden garai hartan, notizia edo berririk ez izatea elkarrengandik ez arduratzearen seinaletzat hartzen zuten batzuek eta honi kontra egingo dio, irmoki, Pedro Mari Otañok.

1902an Argentinan idatzitzako "Iñuzente-eguna" bertsoan ere bere gertuko familiaren berri ematen digu Pedro Maria Otañok: *"Gaitzik gabien egun onetan / jaio zan gure aita zana, / urtiak joanik egun berian / ill zan amatxo laztana; / iru arreba umerik illak, / anai bat berriro joana, / guri kendu ta eraman ditu /*

---

[920] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua I,* op. cit., 185. or.

[921] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 198. or. Senideekiko oroimen eta ardura, ez dira, jakina, familia tronkalean soilik emango, baina hartan ematen zirela, zalantzarik ez dugu.

[922] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 187. or.

*Jaungoikoak beregana. / Irakurliak, erreza zagun / denok aitagure bana!"*[923]. Gurasoak eta lau anai-arreba, behintzat, aipatzen ditu Pedro Maria Otañok. Eta, aurretik ikusi dugun bezala, senideez gain, ahaide eta adiskideak gogoan ditu. Familia zabalari lotutakoa, beraz, agertzen digun errealitatea.

Urte berean, 1902an, Pedro Mari Otañok "Noizbait" lanean otañotarrei buruz hitz egingo du, multzo gisa: *"Jeronimo Elizegi, / zure <Oroimenak> / pozkidaz bete ditu / gure barrenak; / goitaltxatu gaituzu / Otañotar denak, / ingurukuak eta / urruti gaudenak, / bizi geradenak / ta ill ziradenak, / pozak eta penak / gure kastarenak… / Ar itzatzu eskerrik / bereziyenak"*[924].

Ez dira, ordea, bertsoetan beti harreman egokiak agertu. Errealitatearen beste alderdiaren berri ematen maisu dugu Txirrita. Hamasei urte zituela, bere aitaz honela kantatu omen zuen: *"Ezautzen al dezute / Jose Latze'kua? / Gizon txiki xamar bat / pizkor antzekua. / Ni aren semia naiz / olako trapua, / aitak etxetik aurrian / bialdutakua"*[925]. Eta amaz, berriz, honela: *"Atso lepa luze bat / dala nere ama, / Errenteria'n dauka / sorgiñaren fama; / soñean jazten ditu / lau edo bost gona, / ni gaiztoa naiz baña / bera ez dek ona"*[926].

Txirrita eta Telleri-txikiren artean bertsotan ari zirela, edadeko senar-emazte batzuei buruz boteak omen dira. Telleri-Txikik: *"Gure auzoko baserri batek / izena daduka Masti, / okasiyua eta disputa / ez da izaten garesti; / atso sorgiñ au barrendik zerbait / egiten danian busti, / aiton iltzera abiatzen da / altzarrastalo ta guzti"*. Eta Txirritak ondoren: *"Gure auzoko emakumi au / ez da oso kobardia, / okasiyuan asten danian / jartzen da berde-berdia; / abildadia apenas duen / oso zokuan gordia, / azkenerako Pontxio orri / sartu zioken sardia"*.[927]

Txirritaren "Atso gezurti bati" bertso sailean, berriz, bere familiaren mapa ikus dezakegu, neurri batean, bederen. Senideak, gurasoak, koinata, ilobak eta Iruñeko izeba, behintzat, aipatuko ditu:

> *"Ni il naizela sortu omen du / Aurriñazpi'ko atsuak, / pena galanta artuko zuten / siñare ta gurasuak. / Ai zer negarrak nere koñata / eta illoba gaxuak! / Bizi naizela jakiñ dezaten / jartzera nua bertsuak.*

[923] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 83. or.
[924] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 75. or.
[925] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 40. or.
[926] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 42. or.
[927] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 109. or.

> *Izeba zar bat bada Panplona'n / gure etxian aziya, / artxek emanda artua naiz ni / bataiauaren graziya; / argana ere allegatu da / ill naizela notiziya, / koittara ura an omen dabill / guziya lutoz jantziya.*
>
> *Pamplona'n dedan izeba xarra / zenbatxu maite dedan nik, / ez derizkiyot iñortxok ere / juzgatuko lukianik; / koittara arek abixutxo bat / artu biar du nigandik: / luto oriek erantzitzeko, / bizi naizela oraindik"*[928].

Txirritak berak ematen dion garrantzia kontuan izanik, guk ere bereizi egingo dugu Iruñeko izeba. Etxean hazia omen zen, eta Txirritaren amandrea ote zen dirudi. Familia tronkal edo zabalaren ezaugarri.

Txirritaren "Nagusiya ta maiztarra" bertso saila ere familia tronkal zabalaren ispilu gertatzen zaigu. Nabarmen ageri da, gainera, familia bizitzaren zein ziklotan ikusten den hori: haurrak txikiak diren garaian, eta lanerako baino elikatu eta zaintzeko pertsona kopurua handiagoa denean[929]. Hona: "<*Zer familia izandu degun, / jauna, nai al du aditu? / Amabi aurren aita naiz ni ta / semiak amar baditu; / lan egiteko iñor gutxi ta / mayian eziñ kabitu, / baneukake non enpleatua / bost milla duro banitu*>". Ideia bera azpimarratzen du zazpigarren edo azkenaurreko bertsoan: "*Amabi lagun mayian bueltan / juntatzen gera jateko, / geienaz ere aietatik bost / irabazira juateko; / pazientziya artuko banu / anbat ez nuke kalteko, / Jaungoikuari eska zaiogun / osasuna emateko*"[930].

Emazteari buruz, Txirrita eta Olegariok badituzte bertsoak. Olegario alargundu berria, eta emazteari negarrez hasi zitzaion kantuan: "*Nere andre Dominika / emazte izandua, / ziaro zartu gabe / utzi zun mundua; / nere pameliaren / beko zimendua, / estremidade askotan / neri lagundua…*"[931]. Eta honela bukatu omen zuen bertsoa Txirritak: "*Lenago eman zizunak / antxen du kendua*"[932].

Txirritak "Txintxua" bertsolariari jarritako bertsoan, azken hau aitarekin gaizki konpontzen zela kontatuko digu: "*Pentsatzen ez nikan / izango zenikan / Europa'n da Amerika'n, / Asia'n da Afrika'n, / ote da semerikan, / bere aita jotzera / joanda denikan, / munduan ez dek / i besterikan*"[933].

---

[928] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 418. or.
[929] Lehen ere ekonomiaz aritu garenean aipatu ditugu bertso hauek. Orain lantzen ari garen gairako ere egoki dira, ordea, eta horregatik ekarri ditugu berriz lanera.
[930] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 436. or.
[931] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 118. or.
[932] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 118. or.
[933] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 96. or.

Haurrak ez dira askotan aipatzen bertsoetan landa eremuari buruz ari garela, nahiz eta jakin asko samar direla. Pello Errotaren "Bertso berriak neronek nere gertaerari jarriak" bertso sailean, hogeita bost bertsotatik bitan azaltzen dira. Kasu honetan, emaztea beste batekin zebilelako etxea eta familia utzi duen gizonak hitz egingo digu: *"Badakizue bi kriatura / nola nituben nik utzi, / akordatzian nere barrenak / ez daduka pena gutxi; / Jaungoikuaren lege santuba / bear zaie erakutsi, / enkargo ori ematen dizut, / nere emazte …[sic]"*. Eta hurrengo bertsoan: *"Bire txarretik erori giñan / paraje aldrebesera, / egun batzubek zurekin pasa / nai nituzke nik zartzera; / zure aurrakin kuadrilla oitatik / apartatutzen bazera, / nai dezun erri señala zazu, / nerekin galduko etzera"*[934]. Haurren heziketa kristauari egiten zaie erreferentzia, ez gehiagori.

## 2.1.2.Familiako kide kopuruan aldaketak: heriotza, gosea, gaitza, gerra

Landa eremuko familia tronkal zabalen berri jaso dugu aurreko puntuan eta hauen osaketaz bertsolariak nola mintzo ziren. Orain familia haien eguneroko bizitzan eta konposizioan eragina zuten hainbat faktorez mintzatuko gara.

"Salbuespen" eta "ezustekoz" betetako bizitzak bizitzen zituzten XIX. mendeko Gipuzkoan. Ez zuten natura menperatzen, elementu eta indar "ezezagunak" nonahi ikusten zituzten (gaitzen jatorriaz hitz egiterakoan, adibidez), heriotza noiznahi zuten etxean (eta ez pertsona zaharrena soilik, maiz haurrena ere bai), eta hori ez bazen, gerra, edo soldaduska, seme gazteak etxetik atera beharrez. Oinarrizko elkarbizitza zelula, etxeko kide kopurua, halabeharrak eraginda, aldatu egiten zen maiz[935]. Eta ez arrazoi horrengatik soilik. Ikusi dugun bezala, pobrezia "cantus firmus" gisa presente zegoen egoera hartan, etxeko taldeak bere kideak gutxitu beharra ere izaten zuen: zela emigrazio estrategien bitartez, edo ezkontza estrategien bitartez. "Tamaña" kontua zen beraz: bizitzari neurria hartu behar zitzaion[936]. Pello Errotak esango digun bezala *"Tamaña onetan naizen artian, ez daukat estuasunik"*[937]. Ez zuten sobera, ezta falta ere: zituzten bizibideak kontuan hartuta, horretara egokitu behar. Familiaren "tamaña" mantentzea, ordea, oreka horri eustea, ez da erraza izango eta berengandik kanpora dauden indarrek eragina

[934] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 181. or.
[935] Ikus GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: *La "otra industrialización" del País Vasco,* op. cit. Lan honek familia zikloei egiten die erreferentzia zuzenean.
[936] Horregatik mintzatu gara "oreka ahulaz" lehenago.
[937] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 54. or.

izango dute horretan. Estutasunik ez pasatzeko baldintza familiaren tamainari eustea izango da: bizitzaren aurrean etengabe adi egon behar duen gizartea izango da, beraz.

Heriotza izango da familiaren tamainan gorabeherak eragingo dituen gertakizunetako bat. Heriotza eragiten duten elementuen artean, menperatzen ez zituzten naturako hainbat elementu ditugu. Natura menperatzen ez zutenaren froga izan daiteke, adibidez, Pello Errotak naturaren ikuspegi idealik edo deskribapen idilikorik egin ez izana. Ez du natura beragandik aparte dagoen objektutzat hartzen, ez du naturarekiko harremana ezberdinen arteko harreman gisa agertzen. Gehienera ere, errespetuz (ia beldurrez) tratatu beharreko elementutzat agertzen digu. Horren adibide dugu uraren aurrean agertzen duen errespetua: Mikelaren esanetan, Pello errotako botanan uretara haurrak erori eta itoko zirenaren beldur agertzen da[938], edota amarekin haserretu eta gaitza desiratu zion semea, ibaian itota agertuko zaigu[939].

Menperatuko ez duten beste elementu garrantzitsu bat gaitza izango da. Gaitzaren aurrean ere, babestu beharra sentituko du, nahiz eta horretarako erabiliko dituzten erremedioak guri oso eraginkorrak ez iruditu. Koleraren aurrean, adibidez, bere alaba Mikaelaren hitzetan hona zer egiten zuen Pello Errotak: "*Kolerako denbora ez daukat nik gogoan (Mikaela ari da hizketan). Aitak bai; aitak askotan kontatzen zituan orduko kontuak (…) Koleraren kontra oso ona zalakoan, kolkoa babatxuriakin betea ibiltzen zuan gure aitak*"[940]. Interesgarriak dira, era berean, 1876ko erreferentzia datarekin agertzen diren zakur amorratuei buruzko kontuak[941]. Mikaelak kontatzen dizkigu bere lehengusu Anttoniri gertatuak (Pello Errotaren emaztearen anaiaren alabari) eta baita, geroxeago, Villabonako beste mutil baten historia ere. Interesgarria gertatzen da, gainera, kasu bakoitzean, gaitzari aurre egiteko bi modu ezberdin erabiliko baitituzte. Amorru edo errabia gaur egun ez da gure artean hain ezaguna, etxeko animaliei (txakurrei batez ere) txertoa jartzen baitzaie gaitz honen kontra. Oraindik orain, txakur amorratu batek gizaki bati koska egin eta berehalakoan tratatzen ez bada, pertsona hil egingo da, seguruenik. Ez da, beraz, harritzekoa orduan ere gaitz honi beldurra izatea (haurren artean, batez ere).

[938] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 41. or.
[939] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 50. or.
[940] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 27. or.
[941] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 32. or.

Anttoniri, auzora jolastera zihoala, gari artetik txakur handi bat atera eta harramazkak egin omen zizkion. *"Ta, andikan berrogei egunera, berrogei-aldia bete zitzaion. Jesus! Ura edaten asi ta an zakurra ikusten zuala. Ta begiratu bat… Arrapatzen zituan guztiak ere ozka asi omen zitzaien"*[942]. Eta, zer egin orduan? Salutadoreari deitu. Mikaelak hainbat azalpen ematen dizkigu salutadoreari buruz. Albizturkoa omen zen, txikia, zazpigarren anaia, etab. Zer lortu zuen salutadoreak? *"-Ume onek gaiztorako danak kenduta dauka. Onek ez du jango, ez du edango, ez du lorik egingo. Olaxe-olaxe ilko da. Gaiztorakoak kendu dizkat, bañan arnasa pasea dauka"*[943]. Kantari egoten omen zen neskatoa. Gero, medikuari ere hots egin omen zioten. Honek botika hartzeko agindu omen zion eta nahiz eta, agindutakoaren erdia eman neskatoari, *"Jesus! dana aunditu ta deadarrez martiri egon zan neska gizarajoa, ezin illik"*[944].

Zakur batek koska egindako beste mutiko bat, berriz, Parisa eraman omen zuten, *"O! Emengo salutadoreenak txoro-kontuak dituk. Parisen jartzen omen dizkitek auek ondo"*[945] esanez. Ustez ondo ekarri zuten baina berrogeialdia bukatutakoan, harriak jaten hasi omen zen.

> *"Gero kuarto txiki batean eukitzen zuten, ez jan da ez lo. Neronek ikusia da ura. Leioak denbora bateko burni lodi-lodi batzuk zituan, ta aiek eldu ta… Jesus! Ura erioa! Gure lengusu Anttoni beñepein, Parisa eraman ez bazuten ere, kantari egoten zan, batere miñik etzuala, salutadoreak gaiztorakoak kenduta. Bañan ura, paretari puskak kentzen da zakurra bezela zaunka egiten, dana amorratua. San Bartolome egunean il zan mutil koxkor ura"*[946].

Mikaelak hala esango digu: *"Orain*[947] *badira salutadoreena sinisten ez dutenak, bañan nere aurreko aldean jarriko balira, aditu bearko lukete. Oiek danak nere denboran paseak dira"*[948].

Arrazoi kontutzat baino gehiago, sinesmen kontutzat hartzen ditu Mikaelak saludatoreen horiek. Ez da gaitzaren arrazoi zientifikoez galdezka hasiko eta, beraz, ezta erremedio zientifikoen bila ere. Parisen ote hauek? Louis Pasteurrek 1885ean arrakastaz probatu omen zuen amorruaren kontrako txertoa mutiko batekin. Salutadoreen alde egingo du Mikaelak. Parisa erremedio bila joan ziren haiek,

---

[942] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 32. or.
[943] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 33. or.
[944] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 33. or.
[945] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 34. or.
[946] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 34. or.
[947] Gogoan izan, "orain" honek 1963. urteari egiten diola erreferentzia, Antonio Zavalak Mikaelari elkarrizketak egin zizkioneko urtea.
[948] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 34. or.

berriz, txoro kontutzat hartzen zituzten salutadore kontuak. Uztartu ezin daitezkeen bi mundu bezala agertuko zaizkigu hemen Ernioko eta Parisko mundua: lehena, ohitura eta sinesteetan oinarritua; bigarrena, arrazoi eta zientzian oinarritua. Une haietan, ordea, zientziaren erantzuna ez zegoen amorru kontuetan gaur bezain aurreratua eta, beraz, ez zuen gaitz harekiko nahikoa indar agertzen. Arrazoi bat gehiago ezaguna zuten haren alde –salutadoreak, kasu honetan- egiteko.

Txirritak, berriz, hidropesia gaitzaz hitz egingo digu 1893ko "Bertso-berri" batzuetan. Ezkontzaz kanpo haurra izan duen emakume bat gaixotu egingo da hidropesia gaitzez. Haurra ezkontzatik kanpora izan duelako, edo honek lagunduta behintzat, Jainkoak bidalitako kastigutzat agertzen digu bertsolariak gaitza: *"Beiñ tropesiak konkortu zuen, / ezta bereala zuzendu, / <Suerte txarra dauka gaisoak!> / makiña batek esan du; / ai, pekatuan erortzen danak / larrutik pagatutzen du, / obe zenduen zure lorea / ongi guardatu bazendu"*[949].

Eta sendabidea, zer? *"Tropesi batek arrapatuta / orduko orren pobreza, / baño lagunak izandu zuten / aiudatzeko nobleza: / oiñuts gorrian Lezo'ra juanda / kunplitua da promesa, / fabrikan bertan dirua bildu / an ateratzeko meza"*[950].

Lehen aipatu bezala, gerra[951] garai honetan etxeko taldea ezustean aldatzen zuen beste elementu bat zen.

Pedro Mari Otañok, 1897ko Oiartzungo lore jokoetarako bertso batzuetan, Kubako gerra pil-pilean zegoela, bakearen aldeko bertsoak jarri zituen. Lehen saria irabazi zuen. Bertan, agintariei herri xehea gerrara mugitzearen ardura egozten zien. Eta, aldi berean, kontatu egiten zuen, halaber, gerraren ondorioak landa eremuan zeintzuk ziren. "Idealizatuz" eta "abstraituz" izan daiteke, baina egiatik zerbait ere izango zuten bertso haiek:

> *"[…] Gisa orretan naspillaturik / pakean zeuden baztarrak, / bukatzen dira dama kutunen / abo politeko farrak, / itzaldurikan begi alaien / dizdizarizko txingarrak. / Aitonak makur, amak auldurik / ta goseak illtzen aurrak, / nola ez daukan zer kendurikan / len tititsu zan bularrak, / zergatik kolko oparotsuak / gelditu diran medarrak. / Lengo arto ta gari soroak / estalitzen ditu larrak, / eta etxean ziran*

[949] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 267. or.
[950] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 267. or.
[951] XIX.mendeko Espainian, eta Euskal Herrian, zuzeneko eragina izan zuten gerrate ugari izan ziren. Independentzia Gerra frantsesen aurka (1808-1813), bi Gerrate Karlistak (1833-1839 eta 1872-1876), AEBekin gerra 1898an (zeinaren ondorioz galdu zituen Espainiak Kuba, Filipinak eta Puerto Rico)...

*jankaiak / kixkali su eta garrak, / arkiturikan lurperatuak / nagusi eta maiztarrak"*[952].

Eta gerraren ordez, bakean izanez gero, hona desberdintasuna:

*"[…] ori guztiya pakea dala / ta askoz gisa obean / gizona aisa bizi leikela / arrazoiztutzen danean, / len txarrerako ainbeste griña / onerako duanean, / armak utzi ta aitzurrak artu / eta soroan lanean, / edo bakoitzak zerbait mesede / egiñ lezakeanean, / aita ta ama, senar, emazte / ta aurrak aldamenean, / otorduetan ta arratsean / bildutzen diradenean, / senide, aide t'adiskideak / maitaro datozenean, / pake santuak elkarganako / dakarren naitasunean, / munduan izan gintezkeala / gu zoriontasunean, / lagun urkoa bear bezela / maitatzen dakigunean"*[953].

Bertso sailaren bukaeran gerra eta bakea definitzen ditu Otañok: " *<Gerrik onena zer da azkenik?>. / <Da doakabetasuna; / biotz gogorren zitalkeria, / pozoiezko erantzuna; / arlotegitza ta oñazea, / gosea t'eritasuna; / eriotza eta infernua…>. / <Ta pakea?>. / <Osasuna>"*[954].

Honen haritik, Antonio Zavalak 1899an idatzitako bertso berri batzuk jasotzen ditu Pello Errotari eskainitako liburuan[955]. Ez du ziurtzat ematen Pello Errotarenak direnik. Dena den, duten interesagatik, jaso egingo ditugu gure lanean (Pellorenak ez baziren ere, ederki jasotzen baitute garai hartan soldaduska eta gerrateen eragina zenbaterainokoa zen hainbat familiatan). Segur aski, familiaren batek aginduko zion bertsolariari beraiei gertatutakoaren berri emateko, eta bertsolariak baita ederki egin ere[956].

Senar-emazte eta lau seme-alabaz osatutako familia, gaitza eta heriotza dela eta hiru seme eta amaz osatua geratuko da. Ondoren, soldaduska eta gerraren eraginez, nahiz eta ama alarguna izan, hiru semeak gerrarako deituko dituzte eta horietako bat gaixotu eta hil egingo da. Horrek guztiak jota utziko du familia. Bertsolariak ederki jasotzen du sentimendu hau bere lehenengo bertsoan: *"Bertso batzuek ateratzeko / pentsamentuban det pasa / juan daneko urte betian / ez naiz egon beti lasa; / barrenen dedan sentimentuba / kanpora atera al baneza, / ondo sartuta egongo da ta / ez da izango erraza"*[957].

---

[952] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 482. or.
[953] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 484. or.
[954] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 485. or.
[955] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 213. or.
[956] Antonio Zavalak berak artxibo lana egin zuen Urnietan eta baita aurkitu ere pertsona horien berri. Dirudienez, gainera, Pello Errotaren lehengusuak bide ziren mutil haiek. ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 218. or.
[957] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 213. or.

Barruan duena kanpora ateratzea erabaki du bertsoak egiteko agindu duenak, nahiz eta hau emozionalki kosta. Zergatik kostako zaio hainbeste? Bere familian gertatutako heriotzak eta hauen arrazoiak kontatzera doalako eta honek, gertutasunagatik, min emango diolako. Lehenengo eta behin, etxeko taldearen bat-bateko aldaketa eragingo duena, kontrolatu ezin daitekeen heriotza izango da: *"Zer familiya giñan lenago / nai nuke adierazi / aita, ama ta lau senide / giñan jaio eta bizi; / arreba on bat guregandikan / eraman zuben lenbizi, / gero urrena berriz aita, / geiago ez ditut ikusi"*[958].

Hurrengo bertsoan, aitaren eta arrebaren heriotzaz mintzatuko da: *"Jaungoikuak nai zubelako / eraman zitun beregana"*[959]. Pertsonak Jaungoikoak eramanak izango dira, beraz (mundura ekartze kontuan, ez dakigu hainbeste azpimarratzen den Jainkoaren parte hartzea, baina eramate kontu horretan, behintzat, bai).

Alaba galdu eta senarra galdu duen alargunak eta, jakina, geratu diren hiru semeek ere, bizitza egoera berriari aurre egin beharko diote. Hirugarren bertsoak horrela dio: *"Bizi-modubai eldu geniyon / berriz berriro-berriro"*[960]. Hau da, egoera berriari tamaina hartzen saiatu zirela berriro *("konformatuta bizi giñaden")*, ustez, pozik, ama alarguna izaki, soldaduska eta gerra hotsetatik libre geratuko zirelakoan. Ez zen, ordea, horrela gertatu.

Anaia bati Madrila joatea egokitu zitzaion *("Lenbizi anai bat lotu ziguen / soldaduskako katiak"*[961] *)* eta besteari, berriz, Filipinetako gerrara. Zein arrazoi zela medio alargunaren semeak etxetik atera beharra? Zorte txar kontua besterik ez al zen? Zazpigarren bertsoak ematen digu beste arrazoirik: pobrezia. Pobreek zorte "okerragoa" dute, dirudienez, aberatsek baino. Orduan ere ez ziren denak berdinak. Ikus: *"Numero aundiya tokatu arren / suerte txarra eduki / gerra zikiñ bat nola zebillen / mundu guziyak badaki; / aita etxean ez, ama kanpuan / zerbait izaten da beti / bat eta beste beintzat pobriak / pagatutzen du ederki"*[962].

Filipinetan ibilitako anaiak urte eta laurden egin zuen kanpoan. Gaixotuta etorri zen handik, gutxien espero zutenean. *"Anaia orrek egiñ ziguen / uste gabeko bisita, /*

[958] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 214. or.
[959] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 214. or.
[960] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 214. or.
[961] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 214. or.
[962] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 215. or.

*artian ere orregatikan / espirituba bizita; / ni oso ikaratu nitzaden / aren planta ikusita, / iñola ezin ixildu nitzan / berton negarrez asita"*[963].

Anaia gaixoa etxera etorri eta zortzi egunera, bertsoak jartzeko agindu zuen anaia, guri gertatutakoak kontatzen ari zaiguna, huraxe eraman zuten soldaduskara. Etxeko taldea, berriz ere, hankaz gora: ama alarguna eta gaixorik dagoen semea izango dira orain etxean geratuko direnak (lehenengo Madrila eraman zuten hark urteak pasa omen zituen eta han). Nola egin aurre andre alargun eta seme bakar gaixoak? Horra hor bizitzaren gogortasuna agerian: *"Oriek orrela pasa ta gero / andik zortzi egunera / artu eta or eraman naute / neroni soldaduskara, / ama xarra ta anaia eriya / etxian utzirik bada, / gaizki dagona sendatutzeko / oso alderdi ona da"*[964].

Gure kontalaria ere gaixotu egin zen, ordea, soldaduskan, pneumonia hartuz. Ospitalera eraman zuten eta etxean zegoen anaia gaixoak askotan bisitatu omen zuen, beldurrik ez izateko eta adorea izan zezan eskatuz. Gero, Urnietara etxeratu zuten gure kontalaria. Eta zer da? Eta Filipinetan gaixotutako anaia hori, berriro ere eraman egin zuten *("jakiña, eztiya eziñ dubenak / piperra nola jango du?"*[965]*).* Laster berriro ere etxeratu eta hiltzeko, jakina, zuen gaitza *"zarra eta txarra"* omen zen eta[966]: *"Urte ta laurden inguru ori / gerran pasa ditu noski, / beste ainbeste ortxe nunbait / andik etorri ta gaizki; / gabero salbotakua egitera / zazpi zortzi aldiz jaiki / ai, arrek zenbat sufritu zuben / ark berak bestek ez daki"*[967].

Soldaduska eta gerraren eraginez, semeak faltatzea familia askotan gertatzen den kontua da. Hona hogeigarren bertsoan zer esaten zaigun: *"Zenbat guraso ote dirade / negarrez semien faltan? / Ez gerade gu bakarrikan, ez / asko dira gure plantan / beti negarrez dabiltzan asko / egunez eta gabetan; / penagarrizko deskalabrua / pasa da oraingo ontan"*[968].

Gerraz gainera, heriotza bortitzak ere gertatzen dira. Antonio Zavalaren hitzetan, Txirritak bertso hauek zehazki zein heriotzari jarri zizkion ez badakigu ere –bi kontakizun posible jasoak ditu berak-, artzain baten heriotza jasotzen du "Zuk il zenduen artzaia" bertsoetan. Hona:

---

[963] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 215. or.
[964] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 215. or.
[965] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 216. or.
[966] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 216. or.
[967] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 217. or.
[968] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 217. or.

> *"Larogei urte pasatu ditu / dirudiyela etsaya, / orain bi ankak arrastaka ta / burua soiltzen asiya; / gizarajuak badu beregan / makiña bat desgraziya, / ez dago garai batian bezin / arrua eta lasaya, / beste munduan ikusiko du / emen il zuen artzaya.*
>
> *Kulparik gabe bota zenion / fusillako kargazoia, / gizon gaxuak aserretzia / ez al zuen arrazoia? / Diabru zarrak aditzen dute / zure animan usaia, / eriotzaren etorbildurrak / estututzen du lasaia, / zu baño gizon formalago zan / zuk il zenduen artzaia"*[969].

Egoerari neurria hartzea da kontua. Tamaina, jatekoak, jantziak, etxeko objektuak… eskas ziren garaian. Tamaina hartzea, ez gehiegi ez gastatu eta gordetzeko, iraun ahal izateko baizik. Baina kosta egingo da hori. Ikusi dugun bezala, ezbeharrek, gaixotasunek, gerrak, soldaduskak… finean, heriotzak, zaildu egingo dute, maiz, etxeko taldearen iraunkortasuna eta honen produkzio gaitasuna, antolamendua.

## 2.1.3. Ezkontza tratuak: "Desanparuan utziyagatik, ez nazu asko erruki"[970]

Aurrez aipatu dugun bezala, XIX. mendeko landa eremuko gizarte haren ezaugarri nagusietako bat ezegonkortasunarena zen. Esan bezala, bizitzari aurre ez zion gizabanakoak egiten, etxeko taldeak, familiak baizik. Egoera hari modu komunitarioan ematen zitzaion erantzuna. Bizitzeko behar ziren baliabide eta bizitzeko baliabide hauek produzitu eta, aldi berean, kontsumitu behar zituzten pertsonen arteko oreka oso delikatua zen. Soberakinik eta hauek eskaintzen duten babesik gabe bizi zen gehiengoa. Bestetik, heriotzak, gaitzak, soldaduska, gerrateek… erraz gutxitzen zuten eskulana. Etengabeko ezegonkortasun honen aurrean, zer egin? Nola bizi? Hobe taldean, bakarrik baino. Hobe "anparatua", "babestua"… "desanparuan" baino. Hobe "giza artean", bakarrik baino[971]. Gizabanakoaren ordez, komunitatea zen, beraz, aktore nagusi. Eta oinarrizko komunitate hori eratzeko, ezkontza zen lotura nagusia, landa eremuan gizartea artikulatu eta lotzen zuen kate nagusia.

Egindako azterketen arabera, bi eratara bilatuko du "babesa" eta "giza artea" landa eremuko biztanleak: batetik, ezkontzaren bitartez, maila pertsonalago batean hurbileko bizi komunitatea eratuz, eta, bestetik, maila kolektiboago batean, herri

---

[969] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 185.-186. or.
[970] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 153. or.
[971] Jakina, "giza arte" horrek ere izango ditu bere desabantailak: neurri batean mundu "itxia" izatearena, "giza kontrola"… Aurrerago izango dugu okasiorik hauetaz lasaiago aritzeko.

mailako komunitatean, baina etengabeko norgehiagokan (apustuak eginez, lehiak… herrien artean dela, bertsolarien artean…)[972].

Atal honetan ezkontzaz, hurbileko bizi komunitateaz, arituko gara eta zehazkiago, galdutako ezkontza tratuen inguruan. Pello Errotak zazpi bertso sail berri egin zituen –edo hauek iritsi zaizkigu- ezkontza galduen inguruan. Baina ez da era honetako bertsoak jarriko dituen bakarra. Txirritak ere jarri zituen batzuk. Horien azterketaren bitartez, ezkontza tratuek zein ezaugarri zituzten, nola egiten ziren ikusiko dugu. Baina, nagusiki, ezkontzaren bitartez gizartea nola erregulatzen zen eta honen alderdi ekonomikoa zehazten saiatuko gara. Eta, orain artean bezala, hauei buruz garaiko gizonek, batez ere, zuten ikuspegia ematen ahaleginduko gara. Xenpelarren jarritako bertsoetan ere, gai honi buruzko bi bertso sail aurkitzen ditugu: bata Pello Errotarenaren bertso sailen antzekoa, neska-mutil zehatzen erreferentziak emanez eta, bestea, berriz, egoera orokortuz, neska-mutil bikote hipotetiko bati buruz hizketan.

Zer dira ezkontza galduei buruzko bertsoak? Ezkontza tratuen sistemari lotuta dauden bertso motak dira. Ezkontza tratuak landa eremuan gertatzen diren ezkontza hitzartzeko moduak izango dira, etxearen iraupena ziurtatu nahian senargai eta emaztegaiaren ahaideek egingo dituzten hitzarmenak. Tratu hauetan gorabeherarik izaten bazen, batzuetan bertsoak jartzeko enkargua ematen zitzaion bertsolari bati. Enkarguz eginiko bertsoak izaten ziren. Gizon ezkongaiak dirua ordaintzeko prest zeuden eurak protagonista zituzten galdutako ezkontzen berri hara eta hona bertsoen bidez zabaltzeko. Ezkontza hitzartu ondoren neskak mutila uzten bazuen, mutilak, bertsolari batengana hurbildu, eta gertatutakoa kontatzen zion. Istorio hori jaso eta bertsolariak bertso saila osatzen zuen gertatutakoaren "bertsio" hori hara eta hona zabaltzeko. Zein arrazoirengatik? Zein helbururekin? Zergatik zen garrantzitsua mutil ezkongai horientzat beren burua zuritzea?

Zein helbururekin osatzen ziren ezkontza galduen bertsoak? *"Bertso berriyak atera ditut / dibertsiyua sortzeko, / konbeni dira buru ariñak / juiziyuan sartzeko, / balorerikan baldin badezu / oien ordañak jartzeko, / prebeniturik ni egongo naiz / paper eder bat artzeko"*[973]. Hona bertso honetan hiru arrazoi, behintzat, nola jasotzen diren: entretenigarri, erakusgarri eta neskari eta herriari, oro har, gertatutakoaren irakurketa propioa emateko. Gure ustez, garrantzitsuena azkena aipatutako arrazoia litzateke, gero bigarrena, eta indar gutxienekoa, lehendabizi aipatua. Arrazoi hori bereziki azpimarratua geratzen da bertso sail honen

[972] Bigarren honi buruz hurrengo atalean mintzatuko gara.
[973] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 153. or.

lehenengo bertsotik bertatik: *"Disponitu det asunto bati / bertso berriak jartzia, / zeñek naiko du modu onetan / jendiak autan artzia? / Ainbesteraño ez det sentitzen / gure ezkontza galtzia, / baña pena det kulparik gabe / orrela engañatzia"*[974]. Bertsoak jarrarazi dituenak badaki bere kasua askoren ahotan ibiliko dela eta bertsoak jartzeak horretan lagunduko duela gainera, baina, aldi berean, gertatua "bere erara" kontatzeko modua ere izango da hau. Beste bertso honetan, berriz, neskari zuzentzen zaio zuzen-zuzen gure mutil bertso eskalea: *"Gaiean dagoanak / bertso oiek entzun, / merezi ez dezunik / bat apenas dezun; / zuretzako dirade, / … ….. [sic] / ondo pentsa ezazu / zer egiten dezun"*[975]. Baita beste honetan ere: *"Antonio …[sic] / grazi neronena, / ….[sic]-n jaio ta / Antxon nagoena, / Juanarentzako kantak / jarri ditutena; / au da errespuesta / zure kartarena"*[976].

Ezkontza galduen bertsoen helburu didaktikoaz erakusgarri gehiago: *"Ia, gaztiak, gurekin artu / guztiyok eskarmentubak, / txit mudakorrak izandu dira / dama orren pentsamentubak; / beretzat ere probetxu gutxi, / neretzat sentimentubak, / ezkontzeko itzak ematerako / ondo atera kontubak"*[977]. Edo 1893ko beste bertso honek horrela dio: *"Neskatxa orrek ezkondutzeko / bazeukan intentziyua, / gurasuakiñ tratatu eta / egiñ zan konpontziyua; / jendia frankok jakiñ biar du / pasatu dan funtziyua, / nola diraden ikasitzeko / eduki atentziyua"*[978].

Kasu batzuetan, neskaren "izen ona" "zikindu" ere egin nahiko dute, hisiaz. Nola egin hori? Mutil askorekin ibili nahi izanaren fama jarriz, eta balio positibotzat mutil bakarrarekin dabilenarena azpimarratuz: *"Berak biartu ninduben eta / orain berak despedida, / zenbait neskatxa askoren berri / jakin zaliak oi dira; / antz eman gabe ez naiz egondu / len ere orri begira, / orixe bezin neskatxa fiñak / geiago ere badira"*[979].

Gure ustez, bertsopaper hauek bazuten, orobat, beste helburu bat: mutila berriro ere ezkontza "merkatuan" ipintzea, hau da, publiko egitea zuen ezkontza tratua puskatua zela eta "libre" zela berriro ere eta ezkontzeko borondatea bazuela, beste neskarik horretarako aisa aurkituko zuela adieraziz eta, segur aski, ezkontza tratua puskatu ziona baino hobea. Hona adibide bat: *"Begira zagun ondo / mundu zaba-*

[974] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 149. or.
[975] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 159. or.
[976] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 163. or.
[977] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 152. or.
[978] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 165. or.
[979] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 151. or.

*lian, / zeurekin zein daguan / igualdadian; / jantzi eta mantendu / formalidadian, / ederragua pranko / badago kalian"*[980].

Bertso sail hauen bukaeran, mutila askotan "irabazle" gisa ageri zaigu, hau da, ezkontza tratua puskatu izanak eta bukatu izanak lasaitasuna eman balio bezala: *"Biotz oneko nobiya nuben, / onrada eta noblia, / izandu du nork begiratua, / ez da izandu sobria; / orgullo puskat badauka baño / nere moduko pobria, / artzen duenak a zer fortuna, / utzi duenak obia!"*[981].

Ezkontza tratua nortzuk egiten zuten? Puntu honi dagokionez, adibide ezberdinak aurkituko ditugu. Kasurik argienak gurasoek hitzartutako ezkontza tratuenak lirateke. Sistemaren aldaketa berriz ezkontideen iritzia kontuan hartzetik etorriko da.

Kasu batzuetan, guraso eta ahaideen parte hartzea ezinbestekoa da: *"Dama orren aitak nere aitajauna / billatu zuan lenbizi, / gu alkarrekin esposatuta / nai giñubela ikusi; / arren berriya al zan lenena / egin nezala ikasi, / gero azkenian zer egin didan / biar det adierazi"*. Eta hurrengo bertsoan: *"Aitajaun ori allegatu zat / ordena zuan bezela, / ta esan zidan ezkondutzeko / aukera ederra bazala; / Juana Joxepa ….[sic] ori / nitzaz gustatutzen zala, / errespuesta nik eman nion / gero egongo nitzala"*[982].

Bertso horiek, gainera, beste gauza bat ere adierazten dute. Ezkontza tratua egiten mutilaren aitajauna eta neskaren aita ageri zaizkigu. Neskaren aitaren nahia, gainera, bikote ezkonberria berarekin eta bere emaztearekin –neskaren amaordearekin- bizitzea zen. Hona ezkontza tratuei, gehienbat, dagokien eremua: familia tronkalari lotuak ageri dira. Ikus: *"Dama orren aitak aren etxera / biar nuala ezkondu, / nik esan nion neskatxari ta / ezetz aguro esan du: / <Gure ugazama gaiztua da ta / arekin nola konpondu? / Naiago nuke beste leku bat / eskojituko bazendu"*[983]. Aitaren nahiaz gainera, bi belaunaldien artean egon daitezkeen arazoez ere hitz egiten da bertso honetan[984]. "Etxera" hitzaren garrantzia azpimarratu nahi genuke: aitak sui gaiari bere etxera ezkontzeko eskatuko dio. Bikote berria etxearen jarraipenerako bermea izango da horrela.

Bertso sail honetan bertan, bada beste elementu interesgarri bat ere. Esan dugu neskak agertu zuela interesa, berak bultzatuta jarri zela bere aita mutilaren

[980] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 163. or.
[981] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 377. or.
[982] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 172. or.
[983] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 172. or.
[984] Kasu hau, hala ere, berezia da. Izan ere neskaren aita alargundu eta bigarrenez ezkondua dago. Ugazama edo amaordearekin arazoak dira neskak aipatzen dituenak.

aitajaunarekin harremanetan. Bikotea elkartzen denean, ordea, neskak itxoin egingo du mutilak zerbait esan arte. Beraz, tratuarekiko lehen pausoa neskarena izango da, baina bien arteko zuzen-zuzeneko harremanean, neskak mutilari utziko dio hasierako pausoa eman dezan. Bi bertsotan agertzen digu Pello Errotak harremanaren hasiera nolakoa izan zen. Mutila ari da hizketan: *"Aurrenekuan kasorik ez nik, / eldu da bigarrenian; / denbora asko baño lenago / andikan ondorenian, / zakubarekin etorri eta / jarri zat aldamenian; / ikasi arte etzegon ori / oso deskantsu onian"*. Eta hurrengoan: *"Irugarren txandan etorri eta / izpidia zan asiya, / pretentsiyua nola izan nuan / esan nion lenbiziya; / neskatxa orrek errespuesta: / "Iya artu nun etsiya". / Egun orretan egin genduan / geren ezkontza guziya"*[985].

Beste kasu batzuetan, berriz, nahiz eta bikotea izan tratua egiten duena, neskaren gurasoak jakinaren gainean zirela agertuko zaigu bertsoetan: *"Ezkontza asi genduben / galaia ta damak, / bazekiyen neskatxa orren / aitak eta amak; / etzan eskusarikan, / konforme dienak, / señalatu zituen / dotia eta danak"*[986]. Kasu honetan, gainera, neskaren koinatua tarteko, gurasoek behartu egingo dute alaba, bere borondatearen kontra, zuen ezkontza tratua puskatu eta adineko gizon batekin ezkontzera: *"<Aita, emen ari da / esaten alperrik, / ez det nik orrelako / agure bearrik> / Ezpazuen egiten / aitaren esanik, / etziola emango / dote-arreorik"*[987].

1893ko bertso sail batean ere gurasoak aipatzen dira: *"Neskatxa orrek ezkondutzeko / bazeukan intentziyua, / gurasuakiñ tratatu eta / egiñ zan konpontziyua; / jendia frankok jakiñ biar du / pasatu dan funtziyua, / nola diraden ikasitzeko / eduki atentziyua"*[988]. Kasu honetan, badirudi gurasoen baietzak garrantzi berezia duela. Hala eta guztiz ere, bertso sail berean, bertso batzuk aurrerago, mutila kexu izango da guraso horien jokabideaz: neskari etxera bisitan beste mutil bat etorriko zaio gauez, eta gurasoek, bidali ordez, neskari abisua pasa eta onartu egingo dute mutil horrekin duen harremana. Ezkontza tratua egin duenari guraso horien jarrera ulertezina egingo zaio: *"Lenago ere egiñ zituben / modu ortako pausuak, / bertan*

[985] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 172. or.
[986] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit. 156. or.
[987] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 158. or. Abesti tradizional bat baino gehiago bada gai hori jasotzen duena: "Amak ezkondu ninduen", "Maitia, nun zira", eta abar.
[988] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 165. or. Kasu honetan, era honetako bertsoen funtzioaz ere azpimarratu dezakegu gertatutakoaren bertsio bat zabaltzeko eginak izan zirela.

*gelditu bear zubela / mutill maleziosuak; / …-rekiñ lo egiteko / ots egiñ ziyon atsuak, / su eman eta erre biar du / orrelako gurasuak"*[989].

Kasu batzuetan, neska izango da mutilari interesa agertuko dion lehenengoa, traturako lehenengo pausoa emango duena. Horrela jasotzen du, adibidez, bertso honek: *"Neskatxa ori emen bizi da, / baita …'an jaiua, / abisaturik azaldu ziran / zedukan opiniyua: / nereganako nola zedukan / guztizko amoriyua; / fabore zala uste nuen da / izan det kontrariyua"*[990]. Neskak lehendabiziko pausoa eman, eta mutilak segi egiten zion gero hari: *"Enpeño on bat bialdurikan / ninduen erakarriya, / itzegiteko billatu nuen / gramatika irakurriya; / merienda ere bazendukazun / guretzat pronto jarriya, / mudantza baizik izan ez dezu, / mundu engañagarriya"*[991].

Xenpelarren bertso sail batean, berriz, azalpen argigarria egiten da gai honen inguruan. Honela dio: *"Lendabiziko borondatia / zedorri nizun galdatu, / gurasuaren lizentziya're / bertara juanik logratu; / obligaziyo duan bezela / orain nai diyot ondratu, / edozer gauza esan nazute, / etzera piña portatu"*[992].

Neskaren borondatea da, beraz, lehendabizi, eta gurasoen baimena, ondoren. Kasu honetan, behintzat, horrela izan zen.

Txirritak ere aipatzen du ezkontza tratuen kasurik, eta horietan, nesken ama da tratu egilea, dirudienez. Txirritak gordinki hitz egiten du: amak saldu egiten omen ditu alabak. Ez du zehazki esaten ezkontza tratuaz ari denik, baina hori dirudi.

> *"Publiko asko egiña dauka / alaba biren tratua, / beste bat ere salduko luke / baleuka zeñek artua; / inozentiak galtzen dabillen / atso desordenatua, / salbaziyorik iñon ez daukan / amona kondenatua.*
>
> *Bat itxua zan, mixerablia, / saldu zuana lenbizi, / kuarto batian sartu zuten da / atia ziyoten itxi; / ezer etzuen ikusten eta / nola juango zan igesi? / Ai zer gustua eman ziyoten / Barrabas eta Judasi"*[993].

"Neskazar bat tentatzen" bertso sailean ere, mutilzaharrarekin neskazaharraren ama arituko da tratuan, doteaz mutilari galdezka. Mutilzaharra hasiko da neskazaharra tentatzen, baina laster agertuko da eszenatokira ama.

---

[989] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 168. or.
[990] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 149. or.
[991] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 150. or.
[992] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 133. or.
[993] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 419. or.

> *"Neskazar bat tentatzen / asi naiz lenguan, / izan ere alako / polita zeguan; / umill eta seriyo / itz egin genduan, / baño gusto guziyak / ez dira munduan.*
>
> *Izketan asi giñan / biyak gozo-gozo, / ezkontzeko mandatu / egin diyot atzo; / leiotikan ujuka / ama ta bi atso: / <Ez dek arrapatuko / uste bezin mantso!>"*[994].

Neska baten aitak ere eman dezake mutilarenganako, alegia, bere alabarentzako senar izango den mutilarenganako, lehenengo pausoa. Txirritaren "Aita eta suigaia" bertso sailean horrela ageri da[995]. Gauzak ez dira hasieran aitak aurreikusi bezala aterako eta alaba, azkenean, beste batekin ezkonduko da, segur aski, aitak berak hala nahita. Mutilak hala dio: *"[…] Kristau suertosuak / ez giñan gu jayo, / zintzotuko nitzala / nunbait etzan fiyo, / astiasuar bati / entregatu diyo"*[996]. Azpimarratzekoa da aitak alaba Asteasuko gizon bati "entregatu" diola nola adierazten den, neska aitaren jabetzatik senarrarenera pasatuko balitz bezala.

Ikusi dugunez, kasuistika zabala dugu aurrean. Kasu batzuetan eta besteetan indar desberdinez bada ere, ezkontza hitzartzeko orduan neskaren eta gurasoen parte hartzea gehienetan ikusten da.

Ezkontza tratuak eta ezkontza, zertarako? Ezkontza tratuaren helburua mutil eta neska bat tratuan hasi eta ezkontza hitzartzearena izango da. Ezkontza tratuaren azken helburua bien arteko ezkontza gauzatzea izango da, ezkontza, irabazi gisa ikusirik. Tratua irabazteko asmotan egingo da, beraz. Hona: *"Nungoa naizen esan biar det, / …det graziya, / orain Pasaian enpliatzen naiz, / …'n jaio ta aziya, / Naparruako dama batekiñ / nintzan tratatzen asiya, / enredo asko, probetxu gutxi / nik dedan irabaziya"*[997]. Tratu honetan, irabazia, gainera, ez da mutilarentzat bakarrik ulertu behar, neskarentzat ere izango da: *"Ia, gaztiak, gurekin artu / guztiyok eskarmentubak, / txit mudakorrak izandu dira / dama orren pentsamentubak; / beretzat ere probetxu gutxi, / neretzat sentimentubak, / ezkontzeko itzak ematerako / ondo atera kontubak"*[998]. Galdutako ezkontza tratuak direnez gero, irabazi ez dutenaz edo galduaz hitz egiten dute, batez ere[999].

Zailtasunak zailtasun, ezkontza babes gisa azalduko dute batzuk. Hona zenbait adibide: *"Errespuesta nik eman niyon: <Aizazu, dama gaztia, / ez nuan uste modu*

---

[994] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 420. or.
[995] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 435. or.
[996] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 435. or.
[997] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 149. or.
[998] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 152. or.
[999] Nahiz eta ezkontideek ezkontzarekin irabazten dutenaz mintzatu, garbi izan behar dugu sistema honek bazituela baita ere bere kostuak: ezkontidea ezin aukeratua, etxearen mesederako norbere bizitza eskaini beharra.

*orretan / desanparatzen astia; / zurekin nere oraindañoko / itzak onela eztia, / borondatia kunpli dedilla / merezi badet uztia"*[1000]. Anparatu eta desanparatu gisako aditzak maiz erabiliko dituzte bertsolariek. Ezkontza tratua puskatzea desanparatzen hastea da, mutilaren iritziz. Ideia hori bera Otañok ere erabiltzen du bere "Maitaro" lanaren bukaeran: *"Alkarri egiñikan / anparo, / biziko gera biyok / luzaro / maitaro"*[1001].

Aldi berean, ezkontzea bada arriskatzea eta apustu bat egitea ere: *"Ezkontzia da gauza erraza, / sinisturikan oi nago, / lengo moduban bizi biarko / beti bildurrak banago; / fraile juateko pentsamentuban / prezisamente ez nago, / zuk ere on bat artu ezazu / urdiñdu baño lenago"*[1002].

Ezkontza lehia izan daitekeenaren ezaugarri, hona zein terminologia erabiltzen duen Pello Errota bertsolariak kasu honetan: *"Lengo emaztia ill da / illebeterako / berri billa astia / bera bada franko; / aztu zitzaion orri / juandakoa pronto, / pujatu ta kentzen du, / pegatu dit bapo"*[1003]. Enkante batean daudela dirudi, nork zer eskainiko. Bertso sail berean, doteak dakarren diru sarrerari erreferentzia esplizitua ere egiten zaio: *"Nere aditzalleak, / au gogoan gorde: / falsoak ematen du / asko pesalunbre; / …'k alaba / Biziki-ren mende, / orain ni utzi naube / ez diru ta ez andre"*[1004].

Ezkontza tratuen bertsoak irakurri ondoren, ezkontzari dagokion beste ezaugarri bat berau osatzeko zailtasuna da. Hau da, badirudi ezkontzeko aukera mugatua ikusten zela, alegia, ez zegoela nahi adina aukera eta bikote, eta horregatik, ongi lotu beharreko kontua zela. Hala zirudien landa eremuan, behintzat. Aurreko paragrafoan aipatu dugun lehia giroari loturik ageri da hori. Horretaz gainera, ezkontza tratuaren izaera, proba gisa izan dezakeen balioa ere aipatzen da bertso hauetan. Ondorengo bertsoetan, nahiz eta mutilak aditzera eman ezkontza tratua puskatuta ere aukera ugariak dituela, ez dirudi egiaz hainbesterako zenik:

> *"Aditzerak emango / dizkizuet kantan, / sekula ez naiz ibilli / biar eztan plantan, / ez iñor engañatzen / zu bezela tranpan; / Arozpide eztago / andregaien paltan.*
>
> *Andregai asko dago / gaurko egunian, / orregatikan nago / deskantsu onian; / ezkontza galdu dala / jakin dutenian / iru etorri zaizkit / biyaramonian.*

---

[1000] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit. 125. or.
[1001] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 468. or.
[1002] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 153. or.
[1003] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 158. or.
[1004] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 159. or.

> *Nere barrena dago / guztiz alegere, / ikus'itudanian / ainbeste mirabe; / izarrak dirudite, / ederrak alare, / egitia espero det / andre baten jabe.*
>
> *Maria …..[sic] / zerez … [sic]-kua, / iruri despedida / len emandakua; / orrela uzten badezu / laugarren majua, / etzera aterako / neskatxa bapua*"[1005].

Txirritaren "Neskazar bat tentatzen" bertso sailean ere erdi ikus daiteke ezkontzeko zailtasun hori. Mutilzaharra neskazaharra tentatzen hasten denean, neskaren ama sartzen da tartean, ezkontza tratua egin nahirik. Mutilak amari esango dio: "*Nere jakinduriya / ari da atzentzen / errez dala uste du / zenbaitek ezkontzen; / promesa on bat eginda / ezpazera ontzen, / lanak izango dira / zurekin konpontzen!*>"[1006]. Neskaren amak, berriz, beste modu batera ikusten ditu gauzak: "<*Ez al dala uste dek / orren errespuestik? / Atarramentu onik / mutill zarrak eztik! / Nere alabak ez dauka / ezkontzeko kezkik, / i ez bezelakuak / nai-ez-ta zekazkik!*>"[1007]. Ez dio mutilzaharrari pena handirik emango neska harekin ez ezkontzeak: "*Orra amabi bertso / oraingo berriyak / bere andregaiari / Txirritak jarriyak; / eman dizkit desgusto / ikaragarriyak, / negar egin lezake / nigatik arriyak*"[1008]. "Proporziyo bat izandu nuen" bertso sailean ere, ezkontzeko zailtasunak ageri dira, erdizka bada ere. Txirritak neskari ezetz esan ondoren "*Serio xamar letu omen du / bautismoko liburuan / ogei ta zortzi urte dauzkala / San Migelak inguruan, / <Zartu baño len asi zaizkizu / ille txuriyak buruan, / nerekiñ ere etzera asi / oso leku seguruan, / gax'orrek egon biarko dezu / beste askoren moduan*>"[1009].

Garbi ez dakigu, baina bertso batean esaten denaren arabera, badirudi idatziz ere jasotzen zela ezkontza tratuen berri, bai eta hori puskatzen bazen, idatziz ere adierazi behar zela: "*…..[sic] / …..[sic] / neskatxa ori aldamenian / orduban zitzaidan jarri; / ugazama're azaldu zan da / danak begira alkarri, / despedidaren nobedadia / orduban zan irakurri*"[1010]. Beste honako bertsoetan ere ageri da hau: "*Despeirarekin etorri ziñan / urrengo arrats batian, / karta sotora bota zendian, / etziñan sartu atian; / aziyo ortaz oroituko naiz / bizirik naizen artian, / amaika gezur sartu dirazu / juan daneko bost urtian*"[1011].

Ezkontza tratua egin ondoren, zein pauso ematen ziren bikotean, ezkontza ospakizuna eman bitartean? Opariak egiten zizkioten elkarri. Honen adibide, hara

---

[1005] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 175. or.
[1006] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 421. or.
[1007] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 421. or.
[1008] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 421. or.
[1009] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 490. or.
[1010] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 173. or.
[1011] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 346. or.

bertsoa: *"Rekuerdotzat izan zitzala / nik eman erregaliyak: / bost durokoa erraztuna ta / gero zapata berriyak; / eskusa gabe artu zizkiran / dama engañagarriyak, / kendu nizkan ta beste batentzat / pronto an dauzkat jarriyak"*[1012]. Kasu honetan, ezkontza tratua puskatu egingo denez gero, erregaliek ere ez dute zentzurik eta bueltan kendu egingo dizkio mutilak neskari.

Puntu honetan, argigarri gertatzen dira Txirritaren "Galai on bat" bertso saileko bertsoak ere[1013]. Bertan, ezkontza tratua eginda duen bikote bat ageri da. Neska gaixorik jartzen da eta, osatu bitartean, mutila bisitan joaten zaio. Neskaren amak eta alabak berak etortzeko esango diote, ahal dela janari goxoak ekarriz, nahiago dutela hori dirua Urkiolako San Antonion meza ateratzeko erabili baino. Mutilak horrela dio: *"<Al dan geiena ebita zagun / projimuaren pobreza, / amoriyuak ekarri izan dit / zureganako nobleza; / nai al zenduke egin dezagun / Urkiola'ra promesa, / nik pagatuta San Antoniyo'n / biyok entzuteko meza?"*[1014]. Eta neskak erantzun: *"<Segi dezagun biar bezela / asi genduan lanian, / gure gorputzak poztuko dira / ura bukatzen danian; / zertan kastatu birian edo / janian da eranian? / Meza ederra entzungo degu / esposatzen geranian>"*[1015].

Ba al zen maitasunik ezkontza tratuetan, edota interes hutsez eginiko tratuak ziren[1016]? Gehienetan, bi elementuok nahasturik ageri dira. Pello Errotaren "Disponitu det asunto bati" bertso sailean, adibidez, biak ageri dira. Hirugarren bertsoan, *"nereganako nola zedukan / guztizko amoriyua;"* esaten digu; seigarren bertsoan, berriz, mutilak badaezpada ere gogorarazten dio ez dituela ondasun asko, *"Esaten niyon: <Arlotia naiz, / ondasun asko gabia, / prezisamente ez naiz izango / diru askoren jabia>. / Erantzun ziran:<Baldin bazera / lana egiten trebia, / saiatu ezkero luzituko da, / zer da bizitza obia?>"*[1017]. Neskak, ordea, mutilaren ustez behintzat, iritziz aldatuko du gero, eta "kaballeruekin" tratatu nahiagoko du.

Bertso sail honetako azken bertsoan, mutilak neskarenganako zuen maitasuna azpimarratuko du: *"Despartitubak gelditzen gera, / len ziñan nere maitia, / batzuek asko arritzen dira / zu neregana juatia; / biotzetikan etzan izango / zenduben borondatia, / agur, Josefa, eskerrik asko, / ondotxo bizi zaitia"*[1018].

---

[1012] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 170. or.
[1013] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 481.-482. or.
[1014] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 482. or.
[1015] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 482. or.
[1016] Ezkontideen adinak bazuen honetan zer esanik.
[1017] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit. 150. or.
[1018] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 153. or.

Txirritak, berriz, "Neskazar bat tentatzen" bertso sailean, garbi azaltzen du ezkontzaren alderdi ekonomikoaren garrantzia. Neskaren ama da gauzak garbi galdetzen dituena, eta mutilak heldu egingo dio elkarrizketari. Hona amak: *"Ama preparatu zait / asarrez betia, / lenbiziko ujuba: / <Zenbat dek dotia? / Ainbeste kostatako / alaba maitia, / lastima izango dek / iri ematia!>"*[1019]. Ama galdezka hasi zaio mutilari ea zenbateko dotea eman behar dion alabari berarekin ezkondu dadin. Mutilak kargu hartzen dio amari: *<Zere familiyari / errespetoz eldu, / inozente daudenak / ez ditezen galdu; / diru-truka alaba / nai zenduke saldu, / lenago erostunik / ez al zaio azaldu?"*[1020]. Amak, berriz, lantzeko dituzten lurrak eskainiko dizkio: *"<Ez dezu sinistu nai / egiya esanda're: / zintzua nai genduke / pobria izanda're; / gure baztarrak baño / obiak nun dare, / alabari sasoia / pixka bat juanda're?>"*[1021]. Mutilzaharrak, ordea, ez du baietzik emango, *"ezkontzeko ideak / banituan ustez, / ardua maitatzen det / andriaren partez>"*[1022].

Badirudi mutilzahartu edo neskazahartu ahala, ondasunen gaiak oraindik eta indar handiagoa hartzen duela. "Proporziyo bat izandu nuen…" bertso sailean ere, neskak hasieratik eskaintzen dizkio Txirritari dituen ondasunak: *"Proporziyo bat izandu nuen / erdi zartu ta gero're, / neskatxa batek: <Txirrita, biyok / esposatuko gerade; / dituan gauzak eta diruak / zutzat izango dirade, […]"*[1023]. Eta, aurrerago: *"Bi oi ta bost milla errial dauzkat / amona zarrak utziyak, / milla pezeta arraia saltzen / neronek irabaziyak; / ankak listo ta eztarri ona, / mobimentuak biziyak; / nik dedan ditxa ez dadukate / munduan diran guziyak, / mixeriyarik ez dadukagu / Jaungoikuari graziyak">*[1024]. Txirritaren arabera, gainera, badirudi ezkontzak ondasunak ugaritzen ere laguntzen duela: *"Mutill zar eta neska zar asko / gelditu giñaden, baña / gure partiak eta geiago / badago zeñek egiña, / sortzen ditugun labore-puskak / aisa kastatzeko diña; / ogei pezeta anea artua, / lau duro t'erdi iriña, / berrogeitaño iritxiko zan / danak ezkondu bagiña"*[1025].

Ezkontza tratu horien baitan, sexualitatearen esperientzia ere izaten al zuten? Alderdi hori ez da bertsotan argi eta garbi adierazten, segur aski, garaian ere, erdi ezkutuan eramaten zelako, baina horrek ez du esan nahi ez zegoenik. Ikus, adibidez: *"Zazpi illebetez esperantzan / ez naiz alferrik egondu, / nerekin ezer ez*

[1019] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 420. or.
[1020] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 420. or.
[1021] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 421. or.
[1022] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 421. or.
[1023] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 490. or.
[1024] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 491. or.
[1025] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 491. or.

*duela izan / orain esaten omen du; / alkarrekin maiz ibilli gera, / iñoiz etxera lagundu, / geiago ere esango nuke / gogo aundiya bagendu"*[1026].

1893ko bertso sail batean ere, ez ezkontza tratua eginda zuenarekin, baizik eta beste mutil batekin neskak harremanak nola dituen esango digu bertsolariak. Sexu harreman horiek, gainera, neskaren gurasoen etxean izango dira eta hauek jakinaren gainean direla, hau da, hauen oniritziarekin: *"Juan zanian itz egiñ ziyon: / <Emen al zaude, maitia?>. / Argiya eskuan zedukalarik / miratu zuben oi-pia; / ustez seguru jarri zanian / ero itxi du atia, / jakiña dago zer izango zan / arren urrengo kolpia"*[1027]. Bertso sail honetako hemezortzigarren bertsoak ere ez du galtzekorik ezer: *"Zer pasatzen zan itz egiñ niyon / neskatxa orren amari, / errespuesta ark eman ziran / ezer etzala lan ori; / orlako itzak ez zaio aditzen / iñon guraso onari, / kantak argatik jarritzen zaizka / gaizki portatzen danari"*[1028].

"Juana Joxepa" izeneko bertso sailean ere egiten zaio erreferentzia kontu honi. Neskak aitzakia bezala jarriko du mutilak gauez bisita egiten ziola eta horregatik puskatuko du ezkontza tratua, nahiz eta mutilak esango digun hori ez zela egia: *"Orain kontari or omen dabil / gezurti zar bat bezela, / beste aitzekirik sortu ezin da / leiotik sartzen nitzala; / etxe orretan ez det itzegin / aita testigu etzala, / pozaz zoratzen jarriya nago / zugandik libre naizela"*[1029].

Garaiko emakumea badirudi, sexualitatearen bizipenari dagokionez, bi muturren artean kokatzen dela. Gehiegizko permisibitatea egokitzat hartzen ez den bezala, gutxiegia ere ez. Ikus, bestela: *"Nobiyorikan etzedukala / dama orrek ziran esan, / nere artian pentsatu nuben / fiñ samarren bat ote zan; / ezkondutzeko agindu niyon, / nobedadia laister zan, / orain bertsuak argatik dira / iñor engaña ez dezan"*[1030]. Nobiorik ez izatea, "Fiñ samarra" izatea, estuegitzat izatearen pareko egiten du mutil bertso jartzaileak.

Modu berean, ezkontza tratua egin duen mutilarekin ez, baizik beste batzuekin jolasean edo intsinuatzen aritzea gaizki ikusia egongo da: *"Emeretzi egun apirillian / ori Santa Gerizian / mutill askori kiñuka egon zan / meza denbora guziyan, / oso modu itsusiyan, / orrelakua nola egongo da / Jaungoikoaren graziyan?"*. Eta, hurrengo bertsoa: *"Elizatikan atera eta / gero meza ondorian, / orduban ere ibilliya*

[1026] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 153. or.
[1027] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 168. or.
[1028] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 169. or. Esanguratsua da, gainera, bertso jartzaileak duen guraso onen ereduaren kontra nola kokatzen dituen guraso hauek eta helburu moralizante batekin jartzen dituen bertsoak.
[1029] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 173. or.
[1030] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 166. or.

*zan / modu itxura gabian; / mutillak iru gutxiyenian / neskatxa orrek parian, / etzuen asko arkakosuak / ori penatu bidian*"[1031].

Xenpelarrek ere jasoko du era honetako konturik bere "Zertarako zabiltza aitzakiyen billa?"[1032] bertso sailean. Xenpelarren bertsoetan ez dira izen-abizenak jasotzen. Bestela baizik, badirudi ohikoa zen kontu bati ari zaiola kantari, maiz gertatzen zena. Mutilaren ahotsean jarritako hiru bertsorekin du hasiera bertso sailak. Hasiera honetan, mutilak neskaren dantzazaletasunari egiten dio aipua eta nola gustura izango lukeen berarekin sexu harremanik, nahiz eta hain zuzen eta gordin esan ez: "*Nondinai somatzen du / soñua asita, / zergatikan daguen / ondo ikasita; / pozik egingo niyoke / gabero bixita, / ezpaleuka gelako / atia itxita*"[1033]. Berriro ere, neska bizi deneko etxean sexu harremanak izateari buruz ari zaigu bertsolaria. Mutilak agertutako desioari neskak baietz erantzungo dio, baina mutilari zein zailtasun aurkituko dituen adieraziko dio: "*-Pozik utziko nuke / atia irikiya, / etxian ezpagenduke / txakur salatiya; / bakarrik itziten naiz, / banuke tokiya, / enaiz bada mutillen / oso beldurtiya*"[1034]. Laugarren bertsoan hasi eta hamabigarrena bitartean, elkarrizketa egingo dute neska eta mutilaren artean. Bertso honetan, txakurra aipatzen du neskak; ondoren, lo arina duten bere ama eta anaia. Kontua da neskak mutilarekin nahi bai, baina ezkondu egin nahi duela eta mutilak, dirudienez, ez ditu gauzak hain garbi. Hona mutilak bederatzigarren bertsoan nola neskari "burla" egiten dion: "*-Kontuz eruki zazu / ati orren giltza, / iztari asko zure / ondoren dabiltza, / ustez emanagatik / ezkontzeko itza, / oraingo mutillakin / kuidaduz zabiltza*"[1035]. Badirudi neska batzuek ezkon hitza berme gisa ulertzen dutela eta mutil batzuek ezkon hitza eman bai, baina ez dutela ondoren betetzen. Bertso saileko azken hiru bertsoek neskaren eta mutilaren elkarrizketaren tonua agertzen digute: neskak antzeman dio mutilari benetan ez duela ezkontzeko asmorik eta, beraz, jai ematen dio. Neskak, hortaz, aitzakiak mutilari etxera etorri eta harremanak izateko jartzen dizkio eta mutilak neskari, berriz, ezkontzeko. Hona bertso saileko azken hiru bertsoak:

> "*10/-Oraindikan ez daukat / ezkongai sobrerik, / ez aberetsik eta / ain gutxi pobrerik; / biyotzian zarauzkat / ondotxo gorderik, / zurekin ezkonduko naiz / ezpadet oberik.*

[1031] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 167. or. Bigarren bertso honetarako sortutako azken puntua gogoan hartzeko modukoa da: zuzenean esan gabe, nola adierazten duen bertsolariak neskak izan zuela nork azkurea kendua.
[1032] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 128.-131. or.
[1033] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 128. or.
[1034] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 129. or.
[1035] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 130. or.

> *11/-Neoni joango nitzake / emendik Madrilla, / zu bezelako dama / perpillaren billa; / igual salduko nuke / soñeko armilla, / erositziagatik / zure pantorrilla.*
>
> *12/-Abiratzen bazera / emendik Madrilla, / pasa biarko dezu / Burgos ta Abilla; / itzak ederrak eta / amoriyo illa, / zertarako zabiltza / aitzakiyen billa?*"[1036].

Hamargarren bertsoan, neskak garbi esaten dio ez kontatzeko berarekin, aukeren artean azkeneko gisa kokatzen duela. Hamaikagarren bertsoan, mutilak handiagoa boteaz erantzuten dio; eta, azkeneko bertsoan, azken bi puntuetan, Xenpelarrek bertso sailaren muina laburtzen du: mutilaren benetako asmoaz neska oharturik da eta hau aurpegiratzen dio.

Txirritarenak omen diren bertso batzuetan ere egiten zaio erreferentzia gai honi. Ez dira galdutako ezkontza tratuez ari, baina atal honetan aipatzeari egoki deritzogu: "*Andik urrengo jai-arrats batez / San Sebastian gabian, / iñoiz egon naiz orduan baño / pazientziya obian; / beste mutil bat etorri zitzaion / beatzi t'erdiyak aldian, / ordu t'erdi bat pasa zituzten / argi gabe sukaldian*"[1037]. Eta hona neskaren erantzuna: "*Pentsatu nuen damatxo orri / arrazoi au ematia: / <Bartarratseko ibillera oiek / oso aldrebesak tia!>. / Erantzun zidan: <Ez ikaratu, / Bitoriano maitia, / zuretzat ere izango da ta / ixilik egon zaitia!>*"[1038].

"Proporziyo bat izandu nuen…" bertso sailean ere, Txirritak ezkontza proposatzen dion neskaren ahotan jarriko du "*[…]edo bestela azken fiñian / penetan illko zerade / gurasu zarren mobimentua / nola dan ikasi gabe>*"[1039] hura.

Batzuetan, ezkontza tratuak puskatu, galdu egiten ziren. Zergatik? Askotariko adibideak aurkitu ditugu aztertutako bertsoetan. Kontuan hartu behar dugu aztertutako bertso gehienak mutilek neskei jarriak direla eta, kasu horietan, ezkontza tratua neskak puskatua izaten dela. Mutila honekin ados ez eta horregatik jartzen ditu bertsoak.

Mutilak liskarra bilatzen duelako edota lagunartean arazoak eta borrokak izan dituelako puskatu dezake neskak ezkontza tratua: "*Andik urrengo nere pausuak / ziran andregaiagana, / atia jo det, aita leiora, / gero alaba ta ama: / <Zu al zerade asarretuta / bullan ibilli zerana? / Oiekin orla biar badezu / ez arrimatu nigana>*"[1040]. Beste kontu bat da, Antonio Zavalak bertso hauetan egiten duen

---

[1036] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit. 130.-131. or.
[1037] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 357. or.
[1038] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 357. or.
[1039] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 490. or.
[1040] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 125. or.

sarreran dioenaren arabera, liskarra sortu izanaren oinarrian apustulari bat karlista eta bestea liberala eta epailea, berriz, liberala izatea eta honek egindako tranpa zeudela. Familiak eta neskak, beraz, ezkontza tratua puskatu izanaren arrazoia ez zen, agian, liskarzaletasuna soilik izango, ideologia politikoei lotutako arrazoia ere izan zitekeen. Neskaren borondatea ezagututa, mutilak ere utzi egiten du neskarekikoa: *"Puntara fiña ez da izaten / erroparen ilbanua, / kulparik gabe utzi bearrak / ematen zidan damua; / ezaguturik borondatia / etzendukala sanua, / zure despeirak irazekita / Amerikara banua"*[1041]. Bertso honen bitartez, mutilak azpimarratuko du ezkontza tratua neskak puskatu izanaren benetako arrazoia ez dela bere borroka kontu hori izan, neskaren benetako gogo eta borondatea baizik.

Ezkontza tratuak puskatu izanaren beste arrazoietako bat, askotan ageri dena, neskak mutila gizon aberatsago batengatik utzi izana da.

"Disponitu det asunto bati" bertso sailean, adibidez, borroka eta arrazoi ekonomikoak, biak ageri dira ezkontza tratua puskatu izanaren arrazoi gisa[1042]. Neskak mutila gizon aberatsago batengatik utziko du, batean baino gehiagotan. Pello Errotak "Disponitu det asunto bati" bertso sailean honela esango digu: *"Ezkontzeko itzak edozein moduz / ematekuak eztia, / zenbaitek bati agindu eta / <ai, baletorke bestia!> / Endemas ere ederra bada, / aberatsa ta gaztia, / ez da biziro ikaratuko / len dadukana uztia"*[1043]. Eta hurrengo bertsoan, oraindik eta argiago: *"Aberatsakin tratatziagatik / galdu du nerekikua, / pesadunbriak manifestatzen / izandu zera pijua; / auzo batetik bestera ere / sonbrillarekin dijua, / interesetan ez dakit zer dan, / lujua badu naikua"*[1044].

Edota arrazoi ekonomikoa berekin izan gabe, edo zehaztu gabe dagoela behintzat, neska beste mutil batekin ateratzen hasten denean: *"Majo batekin kalera eta / bestiarekin mendira, / parra ederrik egiten zuten / jendiak orri begira; / aizkenerako nazkatu eta / eman nion despedira, / tribunalera deitu nazazu / oiek gezurrak badira"*[1045].

Ezkontza tratua hausteko beste arrazoi bat beldurra eta ezegonkortasuna izan daitezke, kasu honetan, ofizio aldaketak[1046] eragin dezakeen bizimodu aldaketaren aurrean: " ……. *[sic]* / ……*[sic]* / *etzuala ukatzen / itza emana zala; / kalian*

[1041] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 125. or.
[1042] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 149.-153. or.
[1043] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 152. or.
[1044] ZAVALA, A.(eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 152. or.
[1045] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 377. or.
[1046] Ekonomiaz aritu garenean aipatu ditugu bertso hauek.

*mantentzia / ikaratzen zala, / bestela ura pozik / ezkonduko zala"*[1047]. Bertso honek zer pentsatua ematen digu: ezkontza tratuen ekosistema landa eremuari lotuago al zegoen? Hau da, herri edo hiriguneetan zailagoa ote zen era honetako sistema bati eustea? Segur aski. Ezkontza tratuen sistema naturalago ikusiko du baserri eremuan bizi denak, etxeari eutsi behar dionak, kalean bizi denak baino. Hona lotura aurkitu bi esparru ezberdinen artean: antolamendu ekonomikoaren eta demografikoen artean. Ikusi egin behar beste esparruekin zer gertatzen den.

1893an jarritako "Bertso berriak" bertso sailean, berriz, orain artean ikusitakoetan ez bezala, mutilak puskatzen du ezkontza tratua, eta arrazoi nagusitzat neskaren portaera ezegokia azaltzen du: *"Nolakua dan ikusitzeko / jarri obrari begira, / modu orretan ibilli dana / … … [sic] ori da; / sentidurikan duenarentzat / motibo franko badira, / kulpa gabia etzeguan ta / eman diot despedida"*[1048]. Pozik dago, gainera, ezkontza tratua puskatu izanaz: *"… [sic] det apellidua, / Frantzisko daukat izena, / neroni naiz ni neskatx orrekiñ / orla gertatu naizena. / Munduba ondo pasatutzeko / ai zer alaja zuzena! / Sinista zazu zu utzi eta / kontentuz bizi naizena"*[1049]. Hogeita bigarren bertsoan ere, gauza bera azpimarratzen du, azken puntuan honela esanaz: *"artu banuben kalte neretzat, / mesede det nik uztia"*[1050].

Txirritaren "Bertso berri" hauetan ere, mutilak utziko du neska, izan ere, hau beste mutil batekin dabilela jakingo du: *"Ni bezelako beste bat zuen / parrez zegona ondotik, / kulpa gabia despreziatzen / saiatu zera gogotik; / neska gaizto bat lagun arturik / gaizki esaka nigatik, / beste majua zai zedukan da / despeira ematiatik"*[1051].

Antzekoa kontatzen digu Txirritak beste bertso berri batzuetan. Ezkontza tratua neska-mutil batzuen artean egin dute: hirugarren bat -beste mutil bat- sartzen da tartean, eta honek lehenengo mutilak atzera egin dezan eragingo du. Pello Errotaren ezkontza galdutako bertsoekin konparatzen badugu, badago alderik bertso hauetan. Hasteko, ez da hainbeste ezkontza tratuaz hitz egingo, baizik eta harremanaz. Mutilari neska gustukoa gertatu eta hitza –ezkon hitza ote?- emateko eskatuko dio. Hemen ere, bitartekarien ordez, bikotea da protagonista:

> *"Dama gazte eder bat / ain gustagarriya, / berez naparra zan da / ununtz etorriya, / benta polit batian / serbitzen jarriya, / eta Astiarraga / deitzen da erriya.*

---

[1047] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 162. or.
[1048] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 169. or.
[1049] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 169. or.
[1050] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 169. or.
[1051] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 377. or.

*Diz-diz egiten zuen / izar baten gisa, / biartu nuan eta / eman zian itza, / esanaz: <Beste danak / alperrik dabiltza, / zuk dadukazu nere / zarrallaren giltza>"*[1052].

Bestetik, nahiz eta hitzemanda egon, erromeriak ere ageri dira tartean: *"Lenengo erromeriya / Astigarraga'n zan, / beste mutill batekin / auntzian juan zan; / alkar billatu degu / beriala plazan, / beste sobranti ori / an zebillen saltsan"*[1053].

Eta ezkontza tratua puskatu ostean, zer zen ezkontza tratuei buruzko bertsoetan mutilak gehienbat neskari leporatzen ziona? Batzuetan, iruzur egin izana, neskak berak hasitako bideari eutsi ez izana: *"Enpeño on bat bialdurikan / ninduen erakarriya,"* eta lerro batzuk aurrerago, *"mudantza baizik izan ez dezu, / mundu engañagarriya"*[1054]. Goizuetako Trabukoren antzera, *"Konprometitu nai zukian da / afana franko bazuan, / fiaturikan agindu niyon / satisfaziyo osuan; / itzak ederrak, biotza faltso, / kariño fiña auzuan, / publikatutzen astera nua / merezi dezun kasuan"*[1055]. *"Itzak eder ta biyotza falso"*[1056] hitz berberak erabiliko ditu Xenpelarrek ere puskatutako ezkontza tratu bati buruzko bertso sailean, engainatua sentitu den mutilaren ahotan.

"Lenago nitzaden ni" bertso sailean ere, antzeko akusazioa aurkituko dugu: *"Len bezela izateko / aitak eta amak, / baietz erantzun zuan / laister asko Juanak; / itza goardatzen du / berez fiña danak, / baña paltsuarekin / orrelako lanak"*[1057].

1893an osatutako bertsoetan ere antzekoak adieraziko dizkigu mutilak: *"zenbait neskatxek bere artian / tranpa gogorrak baditu"; "orain bertsuak argatik dira / iñor engaña ez dezan"; "ni inozente egon banitzan / bazedukan maliziya"; "merezi du ta nolakua dan / jendiak jakiñ dezala"; "bera gaiztua dala mediyo / gertatu zaio uztia"*[1058]; etab. Bertso sail honetako ia bertso bakoitzean, neskaren tranpa eta engainuaz mintzo zaigu mutila. Lanean jaso ditugun azken hiru puntuak bakoitza bertso baten bukaerako puntua da, gainera. Hori da bertso jartzaileak nabarmen azpimarratu nahi duen ideia.

Txirritak irudi indartsua erabiltzen du neskaren trikimailua izendatzeko: *"Nere amaren aldamenian / bizi nintzana pakian, / iya juduak Kristo bezela / lotu*

[1052] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 493. or.
[1053] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 493. or.
[1054] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 150. or.
[1055] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 150. or.
[1056] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 132. or.
[1057] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op.cit., 162. or.
[1058] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 166. or.

*ninduten katian; / tranposagorik ez da beste bat / Españia'ko partian, / zenbait disgustu eman dirazu / juan diran iru urtian"*[1059].

Ezkontza tratua puskarazi duen neska ez ezik, honek hasitako harreman berria, bikote berria ere, hartzen du ahotan batzuetan bertso jartzaileak: *"Eskerrik asko, pareja ona, / egin dituzuten lanaz, / … guztiya nastu dezute / gezur galantak esanaz; / laixter sorgintzan asiko dira / atzo aditu dedanaz, / ensaiatutzen omen dabiltza / patar gorriya edanaz"*[1060].

Kasu gehienetan, mutilak eskatzen zion bertsolariari bertsoak jartzeko. Badugu, gutxi bada ere, alderantzizko kasu bat behinik behin. Mutil batzuek neska bati bertsoak jarri zizkiotela eta, neskaren aita Txirritari etorriko zaio bertso eske, neskaren izenean mutil haiei jar diezazkien. Baita jarri ere Txirritak. Bertsoak oso-osorik jaso ez badira ere, interesgarria da gure lanean hainbat puntu jasotzea. Neskari sorgina deitu diotela eta, honek bere burua defendatu nahi du, aldi berean mutila gutxietsiz: *"Intxixu batek esan omen du / neregatikan sorgiña, / ez naiz munduan zenbait bezela / pikardi asko egiña; / zuk erosiko ninduzun pozik / merkiak izan bagiña, / juiziorikan eztezun txoro / arlote buru ariña"*[1061]. Eta pixka bat aurrerago: *"Lotsa gutxiko kopetarekin / neri konduta galtzera, / dantza-kontua nola izan zan / gogoratutzen al zera? / Pauso bat aurrera egiten zendun / eta bestia atzera, / mutil bizkorra etorri ziñan / sorgiña arrapatzera"*[1062]. Eta azkenekoa: *"Arrazoi gabe mintzatutzea / emen alfer-alferri'ta, / motibo gabe nabilkizute / munduen autan jarrita; / Gaztelu orrek bai omen daki / kaso orien berri-ta, / oien ordañak juango zaizka / bizirik bada Txirrita"*[1063].

Txirritak baditu era honetako beste bertso batzuk ere. Nahiz eta bertsoak sinatuak ez egon, Txirritaren ilobak bertsoak osabarenak zirela esan zion Antonio Zavalari. Horregatik hartu ditugu aztergai gure azterketan[1064]. Bertsoak mutilak neskari jarri edo neskak mutilari, aldea ez da oso handia. Bertsoak jartzeko neskak agintzen duenean ere, bere bertsioa zabaltzeko helburua du garbi: *"Nere bertsuen buelta kantatzen / dabil kopeta beztuta, / bere buruba garbitu nairik / baztar guztiyak nastuta, / egin dizkian despreziyuak / dauzkadalako aztuta, / lotsa gaiztua gal dakiyola / lenago asko eztu-ta"*[1065]. Honetaz gainera, bi kasuetan gehien

[1059] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 377. or.
[1060] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 377. or.
[1061] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 142. or.
[1062] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 142. or.
[1063] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 143. or.
[1064] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 345. or.
[1065] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 345. or.

nabarmentzen dena batak besteari esandako edo hitzemandakoa gezurra izatea da, eta neskaren edo mutilaren gezurti izaera utzi nahi da agerian. Lantzen ari garen kasuan, adibidez: "*auzoko galai batekin nitzan / ustez tratatzen asiya, / ori dan arte ezta faltako / gezurra ta maliziya*"[1066].

Bertso sail honetan bada ezkontza tratua puskatzeko agertzen den beste arrazoi bat. Mutilak neskari eskola gutxi duela egozten omen dio. Hona: "*Zentzu gabeko arrazoi asko / atera dezu autikan: / eskolarikan ez daukatala / diozu neregatikan; / eskribiante ederra zera, / ongi dakizu pratikan, / alaxen ere serbiziuan / etziñan egin kapitan*"[1067]. Neskak ez du gustuko izango mutilak leporatutako ezaugarria eta berak ere burla egingo dio: hain azkarra bada bera, soldaduskan nolatan ez duen gradu gehiago lortu. Azken aurreko bertsoan garbi agertzen bada ere, bigarren bertsoan ere horrelakorik adierazten du neskak: "*Lenago're nik jarri nituben / galai orrentzat bertsuak, / arrazoi gabe ari naizela / omen diyote batzuak; / inposible da lau zientziyak / daukazkiyela osuak, / edozin gauza eragiten du / kristau eskandalosuak*"[1068]. Neskaren eskola gabeziaz gainera, mutila beste andregai batekin tratuan ere bazebilela esan beharra dugu. Hori ere, jakina, bazen nahikoa arrazoi ezkontza tratua puskatzeko: "*Zuk neri egin dizkiatzunak / esatekuak eztia: / neri despeida eman baño len / billatu dezu bestia; / ongi zekiten toki batetik / jakin nuben albistia; / zuk emazterik artzen badezu / urrikari det tristia*"[1069].

Pello Errotaren liburuan, ezkontza galduen bertso sail honen ondoren beste bertso sail bat ere ageri da: ez da, zehazki, ezkontza galduez ari, baizik eta, ezkondu ondoren, beren harremana puskatu duten senar-emazte batzuez. Kasu honetan, senarrak erabakiko du, emaztea beste batekin dabilela eta, etxea uztea.

Senarra izango zena diru eta guzti etorri zen neska maizter bizi zen etxera: "*Nerau Aiatik mutill libria / kostara ezkondu nitzan, / diruba ere ondo nuela / etxe ortara juan nitzan, / an izateko pentsamentuban / mundu ontako bizitzan; / itxura txarrak azaldu zaizku, / gustorik ez degu izan*"[1070]. Eta hurrengo bertsoan, zehaztasun gehiago emango dizkigu: "*Ezkondu nitzan etxe ori da / …-ko …. [sic] / bizimoduba moldatu nuben / diru asko ekarrita; / oi ta bost ontza urretan ziran, / zer kantidade*

[1066] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 345. or.
[1067] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 346. or.
[1068] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 345. or.
[1069] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 346. or.
[1070] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 177. or.

*polita! / Oiek guztiyak izanagatik / zenbaitekin alperrik da"*[1071]. Kasu honetan, dote gisakoa mutilak eramango du neskaren etxera, eta ez alderantziz.

Zergatik puskatzen du harremana gizonak? Berak buruan duen ezkontza eredua azalduko digu eta nola bere emaztearekin duenak ez duen hori betetzen: *"Matrimoniyo ondo artubak / alkarri asko zor diyo, / konfiantzarik ez baldin badu / personak ez du baliyo / nik emaztia utziya daukat / lan ori dala meriyo / […]"*[1072]. Eta hamahirugarren bertsoan, zehazki, adieraziko digu gertatutakoa: *"Neska zar bat zan nere koñata, / argana zitzaidan asi, / arekin ere kontentu ez ta / gero emazte ta guzti; / ondorenian bera kontari, / nik ere nunbait ikasi, / lan orregatik familiya ta / etxia nituben utzi"*[1073]. Koinatarekin eta emaztearekin ibiliko da, beraz, gizon alarguna[1074], *"azari gisa eizian dabill / leio zulotik sartuta"*[1075], gure bertso jartzailearen amorrurako.

Txirritak ere badu era honetako kasua kontatzen duen bertso saila. "Nere andreari aste ontan Txirritak jarriyak" edo "Frantses euskaldun bat etorri zait" izenburupean ezagutzen den bertso saila da[1076].

Txirritari bertsoak jarri ditzala eskatuz "frantzes euskaldun" bat etorri zaio. Baliteke, bere eskariz bertsoak jarri izanagatik, Txirritak sentimenduei esplizituki erreferentzia egitea eta, horretaz gainera, natura erabiliz konparazioak egitea, ohikoa duen bere estilotik pixka bat urrutiratuz: *"Nere barrengo sentimentuak / nai ditut adierazi, / zer estadutan gelditu naizen / iñork nai badu ikasi; / izarra baño ederragoko / andria juan zait igasi, / oraiñ bi urte aldegiñ ziran, / geoztik ez det ikusi"*[1077]. Zein da bikotea hautsi izanaren arrazoia? "Frantzes euskaldunari" andrea txurrogile batekin joan zaio, eta ez hori bakarrik, ondasunak ere eraman ditu berekin. Lau urte omen zeramatzaten elkarrekin ezkonduta, eta oraindik familiarik ez omen zuten. Hori ere hausturaren arrazoien artean ote? *("Biar bezela funzionatzen / ez dago errex fabrika, / lau urte pasa alkarrekiñ da / ez degu izan aurrika;")*[1078]. Ondoren, Txirritak bertso jartzailearen ikuspegitik, andrearen gabeziak eta ezkontza puskatuta galduko dituenak kontatzen dizkigu: ez duela bizimodu erosorik izango *("Txurrerua're lan senzillua / da asko irabazteko, / orrek*

[1071] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 177. or.
[1072] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 178. or.
[1073] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 179. or.
[1074] Familia eredu tronkalaren beste erakusgarri bat. Senar-emazteez gainera, etxean bizi da emaztearen ahizpa ere, neskazaharra.
[1075] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 179. or.
[1076] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 479. or.
[1077] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 479. or.
[1078] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 479. or.

*biñipiñ ez du egiten / mantendu eta jazteko;"*[1079]*)*, bestela ere ez zela oso andre zuzena *("Andria iges juan zanian / arren anaiak esana: / <Nere arreba dek, Patxi, baña / etziak trapu zuzena>"*[1080]*),* hil ondorenean bere jokabidea nola justifikatuko ote duen *("[…] zer esan biar ote dit neri / Josafatara juatian?"*[1081]), eta zergatik egin dion iruzur *("[…] nik berriz iñon ikusten badet / adituko du gaxuak: / Non ote dira garai bateko / gure izketa goxuak?"*[1082]). Azken bertsoan, gizona konbentziturik agertzen da emaztea txurrogilearekin joan izana beretzat ona izan dela, irabazten atera dela: *"Txurreru ori zer gizona dan / sinistu entzun deguna: / lana egiteko gogua falta / eta mingaña leguna; / bedeinkatua izan dedilla / aldegiñ zuten eguna, / gizarajuak arrapatu du / bere moduko laguna"*[1083].

## 2.1.4. Ezkontzen ez direnak: neskazahar eta mutilzaharrak

Bertso liburuetan ezkontza gorabeherei lotutako bertsoek orrialde bat baino gehiago betetzen badituzte, ez dira gutxiago neskazahar eta mutilzaharrei jarritako bertsoek betetzen dituztenak[1084]. Sistema tronkalaren kostuak dira hauek. Etxeak bikote berri batentzat –eta bikote zaharrarentzat eta bikote berriaren seme-alabentzat- besterik ez du emango. Segundoiak, maiorazko ez direnak, etxean geratzekotan, neskazahar edo mutilzahar geratu beharko.

Xenpelarrek baditu "Bertso berriak. Mutil zarraren bentaja eta egi garbiak"*[1085]* izenekoak. Landatar eremuko gizarte hartan, ezkontza, erlijioso/a bizitza edota mutilzahartuta edo neskazahartuta geratzea, horra irtenbide nagusiak zeintzuk ziren[1086]. Xenpelarren hurrengo bertso honetan, garbi agertzen dira hiru aukerak: *"Ezurrak zaizkit gogortu, / belarriak ere gortu, / modu onetan mutill zarraren / enbidia nork du? / Andrerik ez nuen artu, / oraiñ anparo biartu, / fraile naita're ezin niteke / komentuan sartu"*[1087].

Xenpelarrek, bertso hauetan, "mutilzarraren bentajak" eta "egi garbiak" dioenean, mutil-zaharren bizimoduaren alderdi gordinenak agertuko dizkigu, horregatik izenburuaren bigarren zati hori. Kontuan izan behar dugu bertso berriak portaera

[1079] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 480. or.
[1080] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 480. or.
[1081] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 480. or.
[1082] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 480. or.
[1083] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 480. or.
[1084] Era honetako gaiak abestietan ere lantzen dira, eta jasoak dira hauek abesti bildumetan.
[1085] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 175.-178. or.
[1086] Hirirako, fabrikarako, edo Amerikarako bidea ere har zezaketen segundoiek.
[1087] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 176. or.

bat erakusteko ere erabiltzen zirela eta, kasu honetan, Xenpelarrek gazteei adierazi nahi die hobe dutela ezkondu, era horretara mutilzahartu baino[1088]: *"Onekin amairugarren, / premizia edo amarren, / ondorenguen eskarmentua / egongo da emen; / ezkon zaitezte lenbailen, / sasoia juan baño len, / orra nik esan mutill zarraren / istillua zer den"*[1089]. Eta, bederatzigarren bertsoan, bi irudi indartsu kontrajarriz: erromerietan mutil gazteak jende artean betetzen zuen zentralitatetik sutondoko bakardadera. Horra: *"Lenago erromerian / dama gaztien erdian / jira ta bira ibiltzen nitzan / panparroikerian; / oraiñ tristura begian, / nago estadu erorian, / pipa bat artu ortzian eta / suaren guardian"*[1090].

Zergatik, ordea, hain sutsuki ezkontzeko gomendatu? Zeintzuk dira mutilzahar geratzearen desabantailak, garai hartako eremu landatarrean? Familia tronkalaren testuinguruan, etxeko jaunaren menpe bizi beharra; familiako izan bai, baina, horretan, mutilzaharrak beteko duen bigarren mailako papera eta jasoko ez dituen maitasun eta goxotasuna; ondorengotzarik ez izana; eta gazte denborarekin erkatuz, bizimodua nola okertu zaion ikustea. Azter dezagun, poliki-poliki Xenpelarrek dioskuna.

Mutilzaharra, nahiz eta gaztetan hala iruditu, zahartzerakoan ez da bere buruaren jabe, bizi deneko etxeko nagusiaren morroi baizik. Gure ustez, Xenpelarrek, hain zuzen, ezkondu gabe libreago sentitzen diren mutilei hau azpimarratu nahi die: *"Egon zaitezte aditzen / zartuta nola gabiltzen, / gazte denboran ezkondu gabe / erraz da gelditzen; / oraiñ ajiak berritzen, / indarrak ere urritzen, / soldata gabe oraiñ jarri naiz / anaia serbitzen"*[1091]. Eta, hurrengo bertsoan: *"Anaiak nauka mendian, / koñata aldamenian, / gazte denboraz akordatzen naiz / sasoia joanian; / ez det gularik janian, / gau ta egun beti lanian, / ondo egin da esker gaiztua / gero azkenian"*[1092]. Lana egin behar izateaz gainera, ez da ongi hartua bizi den etxean: *"Illobak nauka arrotza: / "Ua emendik orrontza! / Nekia franko, esker gaiztua, / alimentu otza; / soldata gabe morrontza, / begiratua zorrotza, / animosua ez dago mutill / zarraren biotza"*[1093]. Lana egiteko bai, baina gainerako sobera dagoenaren sentipena izango du, beraz, mutilzaharrak etxean eta, nahiz eta adintsuagoa izan, gazteenek ere ez dute errespetatuko.

---

[1088] Baserrian mutilzahar geratzea sistemari lotutako kostua bada, hirian mutilzahar geratzea aukera askea ote? Bigarren horren beldur ote da Xenpelar? Horregatik bideratu nahi al ditu mutil gazteak ezkontzera? Aurre industrializazioaren eraginpean dagoen Errenteriatik mintzo zaigula ezin ahaztu.

[1089] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 178. or.

[1090] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 177. or.

[1091] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 175. or.

[1092] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 175. or.

[1093] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 176. or.

Ondorengo propiorik ez, eta gaizki tratatzen duten ilobei utzi behar dituen apurrak. Horrek ere min ematen dio mutilzaharrari: *"Mutill zarraren pobreza / iñork ikusi nai-eza, / eskarmentua duenik bada / konsidera beza; / bakardadeko tristeza, / nork izango ez du pereza: / illobarentzat utzi bearra / bere interesa?"*[1094].

Mutilzahartuta geratu denak badu beste min bat: bizi duen egoeratik atera nahia eta ezina. Bertso lerro ezberdinetan aurkituko dugu horrelako ideiarik: *"begiratuaz alkarri / andrerik ezin ekarri"*[1095], adibidez. Edota zabalago: *"Engañatu naiz ederki, / merezi baño obeki, / neskatxak ere ez dirate nai / aterik iriki; / badute milla aitzaki, / gaztiaguak izaki, / estimaziyo txarra nola dan / mutill zarrak daki"*[1096].

Baina aztertutako sei bertsolarietan, mutilzaharra Txirrita dugu. Antonio Zavalak esaten digunez, ez ezkontzea erabaki zuen Txirritak, bere buruari igarria baitzion ez zela familia bat aurrera ateratzeko gauza, ez dirurik irabaziko ez zuelako, errazegi gastatzen zuelako baizik[1097]. Brometan, ordea, arrazoi bat baino gehiago ematen zuen Txirritak mutilzahar zergatik geratu zen esateko. Hona, adibidez, Xenpelarren omenaldian esanak. Mattin bertsolariak, Antonio Zavalaren hitzetan, ez Ahetzekoak, beste batek baizik, honela kantatu omen zion: *"Gaztetan bazenuela / neskatxez aukera, / berakin irtetzen ziñan / gora eta bera; / zu bezela mutilzar, danak / gelditzen bagera, / mundukuak lafite / bukatuko dira"*. Eta Txirritak erantzun: *"Disparate aundi bat / nua esatera, / zuk e zer esan dezun / kontuak atera: / mutilzarra izan zan / Jesukristo bera, / gu're aren ordenetan / errenditzen gera"*[1098].

Eta, beste behin, 1936ko urtarrilaren 19ko Bertsolari Egunean: *"Zenbat errezo egin izan det / nere denboran elizan, / ta pozik nago ikusirikan / pakian nola gabiltzan; / ni naizen bezin kobarderikan / iñor ezin leike izan, / semeak gerra ez joateatik / mutil zar gelditu nitzan"*[1099].

Pello Errotak Txirritari puntu hau jarri omen zion: *"Txirrita, ezkontzeko / xoxak bear dia…"* eta Txirritak erantzun: *"Ni saiatzen naiz bañan / ezin det ordia; / interesa ez bada / gaztetan gordia, / zartzian joan biar / miserikordia"*[1100]. Pello Errotarekin ere aritu zen, beste behin, gai honi buruz. Pello Errotak bere alabarekin ezkontzen utzi ez ziolako omen zegoen mutilzahar Txirrita: *"Esango'izutet nola*

[1094] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 177. or.
[1095] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 175. or.
[1096] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 176. or.
[1097] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 48. or.
[1098] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 191. or.
[1099] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 200. or.
[1100] ZAVALA, A (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 110. or.

*izan dan / nere mutilzartutzia, / beartu nau ta orain banua / au ere kantatutzia: / Pellok galazi zion alabai / nerekiñ ezkondutzia, / beste kulpik be merezi luke / presiliyuan sartzia*"[1101].

Makina bat bertso saiotan joko zioten adarra Txirritari bere mutilzahar izaeragatik eta andregairik ba ote zuen ala ez galdezka. "Neskazar bat tentatzen" bertso sailean, eta "Neskazar gaztia" bezalakoetan ere, Txirrita lehenengo pertsonan hitz egiten ari zaigu. Neskazahar eta mutilzaharren arteko ezkontza kontuez hitz egingo digu bi bertso sailotan Txirritak. "Oraingo neskatxen jazkera" bertso sailean ere antzera ibiliko da, azken hiru bertsoetan batez ere.

1929. urteko "Neskazar gaztia" bertso sailean, 55 urteko emakume eta 69 urteko gizon baten arteko ezkontza gorabeherak kontatzen dira[1102]. Emakumea honela deskribatzen digu Txirritak:

> *"Edade ortan gona motzakin, / ori da orren modua; / zazpi errial kosta omen zaio / afaitatzia burua, / atze aldeko ille guziya / bizar-labanaz kendua, / orain bistara azaldu zaigu / len gordian egondua, / garai onian abiyatu da / engañatzera mundua!.*
>
> *Dituan zimak urdindu zaizka / eta gorbata gorriya, / azeri-larru baten erdiya / dauka lepuan jarriya, / sudurra berriz oso luzia / eta begiyaz larriya, / auts-koloreko ubel batekin / amarratuba gerriya... / Poxpolo-kajan para liteke, / ain dago parragarriya!*"[1103].

Deskribapen fisikoa egiten digu Txirritak emakume horri buruz. "Moda" jarraituz ilea moztuta, gona motzarekin jantzia, kolore biziz, "sorgiña" zela pentsatuko du Txirritak. Hizketan hasi eta emakumeak ezkondu nahi duela esango dio, bere garaian batekin okertu eta ez zela geroztik zuzendu. Txirritak, orduan, bere burua eskainiko du ezkontzeko, baina egia ezkutatu gabe: *"Nik edadia aitortuko det / bautismuan dan bezela, / jendiak esan ez dezan iñor / engañatzen gabiltzala: / irurogei ta beatzi urte / alde xamar gabiltzala>. / Ark eman ziran errespuesta / neretzat franko itzala: / gero egongo giñala, baño / bastante zarra nitzala*"[1104]. "Oraingo neskatxen jazkera" bertso sailean ere antzeko deskribapena egiten digu

---

[1101] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 95. or. Txirrita misogino samarra ote zen susmoa daukagu. Honen erakusgarri atsoez dioena (419. orrialdean), edo tabernako neskameari nola hitz egiten dion (64. orrialdean), edo neskazaharrak eta ganadua nola konparatzen dituen (465. orrialdean).

[1102] Berriro ere ezkontideen adinaren kontua datorkigu plazara: zenbat eta zaharrago, orduan eta interes praktikoek indar handiagoa.

[1103] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 424. or.

[1104] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 424. or.

Txirritak: edadean aurrera egindako bi nesken janzkera kontatuko digu eta nola neskei beraiei egoki ez zebiltzala esan zien[1105].

Txirritak, "Amerikako bizitza" bertso sailean[1106] ere, tratatuko du gai hau. Ameriketatik bueltan datorren gizonaren ingurura hurbilduko da ezkongai dagoen neska. Neska honek senarra eta Ameriketatik ekarritako aberastasunak, biak batera, eskuratu nahiko ditu. Neskaren izeba ere tartean ageri da.

> *"Gizon prestuba etorri zaigu / onradua ta lasaia, / lenago ere etzan izandu / familiaren etsaia; / diru-puska bat aurreratu du, / badauka naiko sasoia, / gure auzoko neskazar batek / laister artu du usaia:*
>
> *<Mandaburu'ko indianua / etorri omen den, neska, / atzo nigatik ibilliya da / soltera nagon galdezka. / Laister emen den pretenditzera, / ai au demontrezko festa! / Ai ze trajia egingo nuken / aren dirubak baneuzka!*
>
> *Ark berrogei ta bat urte dizkin, / nik ogei ta emezortzi; / urrezko erlojuba omen zaukan / bere kate eta guzi; / erretratorik ere ez diñat / juan zan ezkero ikusi, / baña egingo diyodana den / biartzen banau ez utzi.*
>
> *Gure izeba Frantxiska Antonik / onla esan du lenguan, / Mandaburu'ko indianua / nola topo egin duan; / <Par-irri batek itzuli diyo, / zerbait bazeukan goguan; / buru-zuritzen asi da baño / ai zer mutilla daguan!>*
>
> *<Izeba, neri ez dit inportik / naiz izan erdi zartua, / gazte txorua baño obe det / juiziyuan sartua; / diru-piska bat baldin badauka / egingo degu tratua!>, / Ia, mutillak, ekarri lasai, / baziok zeñek artua!>*[1107]"

Badu Txirritak beste bertso sail bat ere, 1931n argitaratua, neskazahar eta mutilzahar baten ezkontza kontatzen dituena. Txirritak kontatutakoen arabera, garbi ikusten da nork bere etxeko obligazioekin bete ondoren, eta bien onerako, ezkontzea erabakitzen dutela. Biak dira pobreak, baina bi etxeren gobernu kaxkarra baino, bakar baten gobernu egokia hobeagotzat joko dute. Mutilak egingo dio ezkontza proposamena neskari: izan ere, mutilari etxean zuen arreba bakarra moja joango zaio eta etxea emakume gabe geratuko da. Horra ezkontza proposatzearen arrazoia[1108]. Bartolok honela esango dio: *"Arreba monja juan zait, / au da desgraziya!, / fameliyan dadukat / indar-eskasiya; / oraň ipintzen dizut / komenientziya, / zuria izateko / nik dedan guziya"*[1109]. Eta zer da Bartolok duena? Etxea, hiru behi, hogei oilo, txakurra, astoa, lau katu, bi ahuntz, bi txerri, berrogei

[1105] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 465.-466. or.
[1106] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 428. or.
[1107] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 428. or.
[1108] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 462.-463. or.
[1109] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 462. or.

ardi, eta *"pobria izan arren / azaltzen naiz argi: / zor artzekuak kito, / kontuetan garbi"*[1110]. Emakumeak, berriz, ordura arte zein lan izan dituen kontatuko dio, baina nola orain libre dagoen: *"<Bi aizpa bizi giñan / aita eta ama, / bestiak gobernatzen / nik bakarrik lana; / aientzat justu-justu / sortzen nuen dana, / irabazi orduko / aurretikan jana"*[1111]. Ondoren adieraziko dio nola gurasoak hil ziren, eta ahizpa bera ere, hamar urtean gaixorik egonda gero, hil egin zaion. Libre da, beraz, eta konforme Bartolorekin ezkontzeko. Bertsolariak, azken bi bertsoetan, istorioaren bukaera eta ikasbidea adieraziko dizkigu:

> *"Bartolo arkitzen zan / estadu motxian, / iñor emakumerik / etzaukan etxian; / dudan ibilli gabe / denbora luzian, / illabete baño len / esposatu zian.*
>
> *Orra pasadizuak / guk adierazi, / saiatzen danak eztu / burlarik merezi; / oraño egin biagu / lengo penak utzi, / alkar istimatuaz / ondo-ondo bizi"*[1112].

"Proporziyo bat izandu nuen…" bertso sailean ere, mutilzahar eta neskazahar baten arteko tratua ageri da, kasu honetan, gauzatuko ez dena. Mutilzaharrari neskazahar bat hurbilduko zaio ezkontzeko bere burua eskainiz. Mutilzaharrari, ordea, neskazahar horrek edan egiten zuela esango diote eta bertso sailaren azken bertsoan, mutilzaharrak berak ere edaten duela aitortuko du, beraz, ez dira ezkonduko.

Joxe Mari Lopetegik ere, nahiz eta iritsi zaizkigun bertsoetan era honetako bakarrak izan, bi emakume ezkongabek eskatuta bertsoak jarriak ditu[1113]. Orain artean ikusitakoak errepikatu egiten dira, neurri batean, hainbat berezitasunekin: euren buruak neskazahartzat dituztenek 25 urte besterik ez dituzte, bikote bila saiatzen ari dira baina ez dute aurkitzen. Hona nola kontatzen duten: *"Gureganako amoriyorik / iñork ez badigu artzen, / sasoi batian guk ez genduen / orrelakorik pentsatzen, / erromeritik erromerira / orain gerade sayatzen, / len naiezikan utziyak ere / len naiezikan utziyak ere / etzaizkigu arrimatzen"*[1114]. Hauek ere, ezkontzarekin batera, ondasunei erreparatzen zieten: *"Bakardade onetan / bearko degu bizi, / bañan oraindikanen / ez degu nai etsi, / len beartsuak zirala / naiezikan utzi, / gure*

---

[1110] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 463. or.
[1111] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 463. or.
[1112] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 463. or.
[1113] Joxan Elosegik berak esango digu *"Biziak dira halaber bertsoak, diskurtso politikoetako erretorika alde bat utzita paratuak, horietan baino mintzo freskoxeagoan itxuratuak. Betikoz galdu dira, zoritxarrez, Joxe Mari Lopetegik gai politikoetatik kanpo ugari kantatuko zituen bertsoak, eta haien tankera eskaintzen digu "Au miña" sail honek".* In: ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 238. or.
[1114] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 240. or.

*aunditasunak / zer zuen merezi"*[1115]. Lezoko erromeriara joan eta orain artean ikusitakoetatik istorioak bukaera desberdina izango du. Orrialde batzuk aurrerago jasoko dugu honen berri.

Txirrita mutilzaharrari miserikordia edo ospitalea batek baino gehiagok aipatuko dio zahartzarorako irtenbide bezala. Txirritak, ordea, bere giza izatea aldarrikatuko du, nahiz eta ezkondu ez. Prantzes Txikiak Txirritari hordagoa botako dio ospitaleren batean hilko dela esanez. Txirritak bueltan: *"Ik ezkondu ta izaten ba'ituk / bi edo iru landare, / egon biarko ditek oriyek / beti naikua jan gabe; / orain ez dakit zerengatikan / deken oinbeste bondade, / i diña gizon izango nak ni / ospitalera juanda're"*[1116].

## 2.1.5.Ezkontzaz kanpoko haurrak, "arauz kanpoko" sexualitatearen bizipena

Galdutako ezkontza tratuez hitz egiteaz gainera, bertso berrietan ezkontzaz kanpora jaiotako haurrez ere hitz egiten zen[1117], hau da, bertso berriak era honetako gaietan batzuen eta besteren jokaerak epaitzeko eta jendaurrean nork bere bertsioa zabaltzeko ere erabiltzen ziren. Ezkontza galdutako bertsoen helburu antzekoekin erabiltzen ziren, beraz. Kasu horretan, errealitate erdi ezkutu baten adierazle ditugu bertso hauek. Sistemaren kostuen beste aurpegi bat adierazten dute.

Txirritak 1893an jarri zuen era honetako bertso sail bat. Dirudienez, neska bat zabaltzen ari omen zen berari jaio zitzaion haurra Irungo Felix Olazabalena zela. Honek, berriz, hori horrela ez zela jakin zedin bertsoak jartzeko eskatu zion Txirritari. Baita honek egin ere.

Felix Olazabalek garbi adieraziko du, lehenengo bertsotik, zein den bere helburua: *"bertso birekin egin nai nuke / esplikaziyo zuzena, / kulparik gabe bada amaika / nigatik gaizki esana"*[1118]*;* eta hurrengo bertsoan: *"ia itoan ibilli naute / iru atsoren artian"*[1119].

---

[1115] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 240. or.
[1116] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 103.-104. or.
[1117] Ikus VALVERDE, Lola: *Entre el deshonor y la miseria,* op. cit..; URRUTIKOETXEA, J.: *En una mesa y compañía,* op. cit. Azken horretan zazpiki ugari aurkitu zituen Urrutikoetxeak: zergatik? Haurdun ezkontzen ziren baina jaiotzetan datu hau ezkutatu egiten zuten.
[1118] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 266. or.
[1119] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 266. or.

Hurrengo sei bertsoetan, "atso" bat Felixengana nola joan zen eta haurra berea zuela nola esan zion jasotzen da, baita Felixek hori ez zela egia nola erantzun zion ere. Irungo erretoreari laguntza nola eskatu zioten ere ageri da: lagun zezala erretoreak haur horren aitaren aitormena jasotzen[1120], baina egoera ikusirik, erretoreak ez omen zuen Felix horretara behartu.

Zortzigarren bertsoan hasi eta hamalaugarrenera bitartean, haurra izan duen emakumeaz eta haurtxoaz beraz jardungo da bertsolaria. Haurra aitarik gabe egotearen arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen agertuz joango da: *"Aingeru orrek izan bear du / iturri asko nastua, / eta tragorik gozoen ura / nun eran zuen aztua;"*[1121]. Hamahiru eta hamalaugarren bertsoetan, berriz, zein eratako gizonak atsegin izan dituen eta norekin ibili izan den adieraziko digu:

> *"Kaballero ta bigote-dunak / gustatzen zaizka aldean, / aiek lajatu duten orduan / asi da nere galdean; / musika-soñu ederra franko / aditua da Katean, / plaza betean ibiltzen ziñan / amaikak arte bailean.*
>
> *Zerbait bazala bazeizkion / orrek bere buruari, / pretendiente balienteak / izandu ditu ugari; / eta txaskoak gertatzen zaizka / orrela dabillenari, / ontaz aurrera pakean utzi / kulparik ez duenari"*[1122].

Dantzan ibili zalea eta "kaballeruekin", batez ere. Horiek dibertsioa bai, baina gero albo batera utzi dute, eta orduan jo omen du neskak maila beheragokoen bila.

Haurra errukarritzat du Felixek: *"Aur gaiso ori or agertu da / urrikaltzeko moduan, / estimazio aundirik gabe / bere amaren onduan, / arentzat ere ez dira izan / gusto guziak munduan, / enpeño batez biartuta ere / ez daki aita nor duan"*[1123].

Amari ere ematen dio aholkurik: *"[…] al dan lenena sendatutzeko / ongi goberna zaitia;"*[1124]. Izan ere, bertsotan kontatzen zaigunez, ama hidropesiaz gaixotu zen eta horregatik eskatzen dio zaindu eta osatzeko.

Txirritak badu beste bertso sail bat ere gai honi erreferentzia eginez. 1935. urtean jarritako bertso berriak dira hauek. Zazpi mutil eta lau neskatxa omen dira lehenengo bertso jartzaileak eta, hauei erantzunez, osaba-iloba batzuek jarriko dituzte gero bertsoak. Bigarren hauek dira guk eskuartean ditugunak. Bertso berri hauetan, sexualitatearen bizipenari lotutako hainbat elementu ageri dira. Bertso

---

[1120] Pello Joxeperen kanta datorkigu gogora.
[1121] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 266. or.
[1122] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 267. or.
[1123] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 267. or.
[1124] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 267. or.

sailean zehar, subjektua aldatuz joaten da eta, horren ondorioz, ez da beti ulergarri gertatzen bertan kontatzen dena. Guk argien diren bertsoak hartuko ditugu kontuan gure lanerako.

Arauz kanpoko sexualitatearen bizipenari buruz ari garela, ezkontzaz kanpoko haurrez gainera, bortxaketa batez ere hitz egiten da, besteren artean, aztertu ditugun bertsoetan. Osaba iloba hauek beren kontra bertsoak jarri dituzten mutiletako batzuk salatzen dituzte modu honetan. Orain artean aztertutako bertsoetan, gai hori agertzen den bertso sail bakarra izanik, jaso egingo ditugu bertsook bere osotasunean:

> *"Kuadrilla ortako iru mutillak / lengo jai-arrats batian / pentsamentu bat atera dute / anbat beretzat kaltian: / <Bakarrik ziok neska zarra ta / bordara juan gaitian, / gezur batekiñ engañatu ta / sartuko gaituk atian>.*
>
> *Bi Inazio ta Juakin ziran / asaltoko soldaduak, / patar da guzi neskatxagana, / oso mutill onraruak; / orduko zurrut asko egiñak / berotutxiak buruak, / bañan apenas egiñak diran / berak nai zuten moruak.*
>
> *Modu txarrian tratatu zuten, / errira eman du parte; / kartzela, multa ta amenazo / kastigatu dira fuerte; / kristau gaiztuak geitxo eranda / badu makiña bat arte, / orrelakuak izango dira / mundua mundu dan arte"*[1125].

Etxe batean Villabonako Fraisorotik ekarritako neskato bat neskame nola zegoen eta hau haurdun nola gertatu zen ere kontatzen da bertso hauetan. Haurdun geratu eta haurra izateaz nola hitz egiten den, zein kontzeptu erabiltzen diren, kontuan hartzea komeni da: pertsona edo animaliaz hizketan ari garen, azken mende honetan gai honi buruzko ikuspegia nola aldatu den nabarmen geratzen da.

> *"Portunatu da oien etxetik / dama gazte bat juatia, / Billabona'ra bialdu dute / bera jaio zan tokia; / beretzat ezer gelditu gabe / entregatu du dotia: / alabaren bat eder askua / izan biar du botia.*
>
> *Neskatxa orri jarri zitzaion / bastante gorputz torpia, / oraň atzera tajatu dute, / eman diyote kortia; / errikumia izanagatik / opa diyote dotia, / soldatarekiň bialdu dute / ekarri zuten tokia.*
>
> *Ori orrela gertatu arren / ez ikaratu, gaztia, / zugatik norbait oroituko da, / lasai ibilli zaitia; / nekez bada're azalduko du / len zuen borondatia, / jaiotetxian deskargatu da / ez dakit zeñek betia"*[1126].

[1125] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 399. or.
[1126] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 399.-400. or.

Bertso sail honetan aipatzen den beste kontu bat da biluzik ikusten zutela mutil hauetako bat kalean, parranda egin ostean:

> *"Etxe orretan mutillarekin / gertatu diran kasuak, / danak guziyak ez noski baño / ikasi ditut batzuak; / garai txarreko dibersiyuak / dirade peligrosuak, / alare oiek ipiñi biar / besterengatik bertsuak.*
>
> *Andres ta Jose eta Batista, / Alejandro zan bestia, / inozentiak leziyatzeko / maisu gaiztuak eztia; / larru gorriyan gertatu da maiz / oitako bat ikustia, / jeniyo txarrak artuba dago, / kostako zaio uztia"*[1127].

Bertso hauetan kontatuek erantzuna izan zuten neska-mutil koadrila haren partetik. Gazteek ezeztatu egin zuten osaba-ilobek esandakoa, eta horiek guztiak dantza bilera harekin ados ez zeudelako esaten zituztela adierazi zuten.

## 2.2.Hiriguneetan, familia nuklearrerantz: Errenteriako Xenpelarren kasua

Historiografiak ederki aztertu duen bezala, modernizazio prozesuaren seinale izango da familia tronkaletik nuklearrerako pausoa. Hori, ordea, ez da bat-batean gertatuko, Gipuzkoan, behintzat, ez. Eman ote zen tarteko pausorik? Zein eratakoa? Zein ezaugarrirekin?

Ez dakigu asmatzen ari garen, baina susmoa dugu Xenpelarrek lagun diezagukeela hau hobeto ulertzen. Industrializatzen ari zen Errenteria hartan, frantsesen zuzeneko presentzia ezagutu zuen Errenteria hartan, zer ari zen gertatzen familia eta demografia kontuei dagokionez[1128]? Zein eratako diskurtsoa agertuko dute bertsolariek eta, zehazki, Xenpelarrek? Zeren eraginez ote hau? Estatua eta eliza eragiten ari diren emakume burgesaren irudia non kokatzen da hemen, zein lotura du honek "hiritar" onaren ereduarekin[1129]? Nahiz eta atal honetan batez ere Xenpelarren bertsoak aztertu, ez dugu hau egiten gure lanaren bizkarrezurra bertsolariek markatu dutelako, famili ereduen aldaketa prozesu edo trantsizioa hobekien bertsolari honek azalduko digulako baizik. Xenpelarrek familia nuklearra izango du batez ere gogoan eta soldata bati esker kalean (ez landa eremuan) biziko den familia izango da. Familia tronkaletik nuklearrerako pauso honetan aldatu

[1127] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 400. or.

[1128] Errenteriari "hirigune" deitzea gehiegizko gerta daiteke. Guk horrekin adierazi nahi duguna ez da hainbeste tamaina edo biztanle kopurua, modernizazioarekin harremana duen populazio gunea dela baizik.

[1129] Ikus GOURDON, V.: *Histoire des grand-parents.* Paris: Editions Perrin, Collection Tempus, 2001.

egingo da emakumearen irudi eta eredua. Atentzio berezia jarriko dio honi Xenpelarrek, jarraitu edo alboratu beharreko ereduak agertzeari.

"Oiartzungo neskatxen bentajak" bertso sailean, adibidez, Oiartzungo neskatxen ezaugarriak zeintzuk diren adieraziko du, eta nolabaiteko "marketina" egingo du beren alde.

Xenpelarrengan azpimarratu behar dugun lehendabiziko alderdia hau da: orokortzera jotzen duen bertsolaria dela. Pello Errotak ezkontza tratu zehatzei buruz hitz egin digun bezala, izen eta abizenak, jaioterriak eta etxeak aipatuz[1130], Xenpelarrek bere diskurtsoaren subjektua zabaldu egiten du. Egia da Pello Errotak bertsoak publiko zabalari eskaintzen zizkiola, baina kontatzen zituen kasuak partikularrak ziren. Xenpelarrek, berriz, eredu orokortuak eskainiko dizkio publiko zabalari. Orain aztertzen ari garen bertso sailari "Oiartzungo neskatxen bentajak" izenburua ipini dio. Ez da ari dagoeneko, beraz, neska zehatz bati buruz, neska multzo bati buruz baizik, era horretara, onerako eta txarrerako, eredu edo tipoak sortuz.

Lehenengo bertsotik heltzen dio joera honi: *"asko ezkongai daude / gustokorikan gabe, / ezin dutela topatu; / projimuari erakustia / ezta izango pekatu"*[1131].

Bigarren bertsoan, berriz, ezkontzari buruz duen ikuspegia azpimarratuko du: Oiartzungo neskatxen berri ematera doa, ezkongai eredugarritzat hartuko ditu, baina baldintza batekin. Hauetakoren batekin ezkondu nahi duenak garbi izan behar du ezkontzak zer esan nahi duen: *"Konsejutxo bat lendabiziko / ezkongai dauden danentzat: / esposatzia tratu pisuba / dala iruritutzen zat; / dote eta arrio, / ez dutela balio / amorio fiñarentzat, / zergatik izan biarko duben / il arteraño beretzat"*[1132]. Xenpelarrek ezagutzen du landatar eremuko eredua, ezkontza tratu gisa agertzen digu, dotea eta arreoa aipatzen ditu, baina baita amodioa ere. Honek ez du txikia izan behar, bestela baizik, luze iraun behar baitu. Maitasunari garrantzia emango dio, beraz, Xenpelarrek, eta horri baino gehiago, ezkontzak irauteari.

Zeintzuk dira neskatxa hauen alde on edo abantailak? Hau da, zeintzuk dira, Xenpelarren ustez, neskatxa ezkongai batek izan behar lituzkeen ezaugarriak[1133]?

---

[1130] Nahiz eta Antonio Zavalak egindako argitalpenetan datu hauek ezkutatu.
[1131] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[1132] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[1133] Ikus PÉREZ-FUENTES, P.: "Ganadores de pan" y "amas de casa", op. cit. Erlijio katolikoak eta estatu burgesak eskaintzen duten emakume eta emazte eredua ote Xenpelarrek adierazten diguna?

Gure ustez, lehenengo eta behin, Xenpelarrek aipatzen dituen ezaugarriak fisikoak dira. "Neskatxak" direla esaten digu, gazteak dira, beraz. Ederrak, kolore zuri-gorridunak, eta ausartak. Hona hirugarren bertsoan ematen dizkigun ezaugarriak[1134]. Bosgarren bertsoan, ezaugarri fisiko gehiago ere aipatzen ditu Xenpelarrek: *"gorputz egoki, pausu aidoso"*[1135] -dunak agertzen ditu. Baina garrantzitsua da honi lotuta egiten duen zehaztapena: nahiz eta ederrak eta egokiak izan, ez dira hori haizatzen ibiltzen: *"ostentazio batere gabe"*[1136] eta *"lujo gabeko jantziya"*[1137] gisako esaldiak aurkituko ditugu Xenpelarren bertsoetan.

Eta, zer gehiago? Laugarren bertsoan, neskatxa hauek jaso duten heziketa, batez ere erlijiosoa, aipatzen du. Hori da Xenpelarrek azpimarratzen eta goraipatzen duena: erlijio gaiekiko agertzen duten errespetua, hau da, hauekiko agertzen duten jarrera, "Jaungoikoaren beldur" agertuko zaizkigu. Nola antzematen zaie hori? Eurekin hizketan jarrita, baita gainerako pertsonekin duten jokabidea aztertuta ere:

> *"Gustagarriak oien bentajak / dirade klase askotan, / ez dezu ezer arrapatuko / asi ezkero izketan; / eskojitutzekua / oien errespetua / relijioko gauzetan; / Jangoikuaren beldur aundian / aziyak daude gaztetan"*[1138].
>
> *"Bide batian izaten bada / enkontratzeko fortuna, / saludatzean bai zait gustatzen / aien egokitasuna; / aberats eta pobre / guztientzako noble, / igual da ez-ezaguna; / ori da gure relijiyuak / erakutsitzen diguna"*[1139].

Xenpelarrek neskatxa hauek lan nola egiten duten ere adierazten digu eta, hori ere, abantailatzat agertzen du: "*beti alegre daude, / tristurarikan gabe, / ezaguerakin josiya; / gizonak bezin aundia dute / laneko irabaziya"*[1140].

Eta bukatzeko, gurasoekiko duten jarrera azpimarratzen du Xenpelarrek:

> *"Errenterian dama oiekin / askotan det nik itzegin, / perfeziyua ta umiltasunak / eman lezake atsegin; / daude ikasirikan / gurasuetatikan / ez dezatela utsegin; / nik ere ori egin nai nuke / betiko galdu ez nadin.*
>
> *Beste bentaja egokitxo bat / bada orien artian: / umildadian bizitzen dira / gurasoakin batian; / erresponditu gabe / ikasirikan daude / segitutzeko lanian; / fabore gutxi ez du izango / ezkondu nai dubenian"*[1141].

---

[1134] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[1135] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.
[1136] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.
[1137] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.
[1138] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.
[1139] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.
[1140] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116. or.

Gurasoekiko menpekotasun jarrera dute, umiltasuna da euren ezaugarri, eta hori balio garrantzitsua da, Xenpelarren ustez, ezkongai batentzat. Gurasoek alabarekiko duten agintea senarrak emaztearen gain izango duenaren pareko egiten du Xenpelarrek: lehenengoan ohitua dagoenak, bigarrena ere onez onartuko du.

Lehen esan dugun bezala, ordea, ereduak soilik ez, anti-ereduak ere ezarriko dizkigu Xenpelarrek. Neskatxa ezkongaien anti-ereduen artean, Ageda daukagu. Zergatik da Ageda baztertu beharreko neska? Zeintzuk dira bere kontra Xenpelarrek azalduko dizkigun arrazoiak? Bertso saileko azken bertsoan laburbilduko digu Xenpelarrek Agedaz duen iritzia: *"Oñak eta aztalak / ez ditu itxusiyak, / tripa ere sanua / Jaunari graziyak; / gerri kuriyosua, / bular egokiyak, / mingaña lasaitxua, / begiyak zuriyak, / oiek dira Agedaren / bentaja guziyak"*[1142]. Agedaren ezaugarri fisikoak goraipatuz hasi bada ere, gehitxo hitz egin eta gezurra ere urruti ez duela adieraz dezake[1143]. Zer da Xenpelarrek, Agedari begira jarrita, okerren daramana? Bere janzkera eta itxura eta agintekeria. Agintekeria, erromeria bat debekatu zuelako: *"Dama batek jartzia / orrenbeste lege, / nonbait egin nai luke / guziyaren jabe; / Gorputz-arratsaldian / orrenbeste jende, / ixilik egoteko / soñurik jo gabe, / Aizateko billera / Agedaren mende"*[1144]. Garbi geratzen da emakumeek jarraitu beharreko eredua umiltasun eta besteekiko, batez ere gizonekiko, menpekotasunekoa zela, eta gaizki ikusia dagoela emakume batek gainerakoak menpean hartzea. Dominazio harremanen noranzkoa garbi geratzen da, beraz, Xenpelarrentzat. Laugarren bertsoan ere kritika egingo dio Agedari: *"Ageda, zertarako / zabiltza orrela / justiziya egiten / jueza bezela?*[1145] *"* . Ez inor menperatzen, ez inor epaitzen. Bai, ordea, menperatu eta epaitua. Horra modernitatearekin kontrastean sartuko den Errenteria bezalako herri batean Xenpelarrek emakumeari buruz zein ikuspegi ematen digun.

Itxura, berriz, honela deskribatzen digu: *"[…] meriñekia arro / para korputzian, / illiak de rodete / biarko du atzian, / gerriya alegiña / estutu kortsian"*[1146]; *"[…] zapata txarolatubak, / zillarrezko bretxa, / mantelin sedazkua, / enkajia beltxa; / dam'orren graduari / tokatutzen zaizka"*[1147].

---

[1141] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 116.-117. or.
[1142] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 123. or.
[1143] Zuria faltsua denari ere deitzen zaio. Baliteke begi zuria dela esaterakoan begiak argiak edota gezurretarako erraztasuna duela esan nahi izana.
[1144] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 122. or.
[1145] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 123. or.
[1146] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 122. or.
[1147] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 123. or.

1865eko "Bertso berriyak" bertso sailean ere, damatxo izendatuko dituen neska ezkongai biren deskribapena egingo digu[1148], aurrez aipatutako sailean baino modu zabalagoan, gainera. Beren janzkera eta honekin adierazi nahi duten handinahi eta jarrera kritikatuko ditu Xenpelarrek[1149]. Bi emakume hauengan, bi alderdiren nahasketa aurkituko dugu: batetik erromeriara doaz mutil bila, horretarako propio edertu eta prestatuta, baina, bestetik, ermitara otoitzera ere sartuko dira. Xenpelarrek barre egiten die, baita "Salbadoriak" berak ere: *"Eleizan sartu ziradenian / parrez neguen atzetik, / dudarik gabe promesa eginda / juanak ziraden etxetik; / majo on bana eskatzen zuten / lendabiziko itzetik; / "Salbadoriak libra gaitzala / neska zarraren gaitzetik!"*[1150]. "Salbadoriak" zer? *"Manifestatu ziyotenian / zer nai zukien barrendik, / Salbadoriak bere goguan: / "Juan zaitezte emendik! / [...]"*[1151]. Ez dakigu Salbadoriak hori pentsatzearen arrazoia zein zen: era horretako kontuak berari ez zegozkiola pentsatzen ote zuen, edo bi neska haiek ezkontzeko zailtasun handiak ikusten zituen. Bertsoak gizon baten partez emakumeak jarriak izan balira, zer esango ziguten?

Zein eratako jantziak zituzten? Bosgarren bertsoaren arabera, *"Zapatatxuak txarolezkuak, / sedazko soiñak gorriyak, / lasaitasunak galdu ez ditzan / kortsiatubak gerriyak; / diremantezko belarrikuak, / begi engañagarriyak, / buruban berriz pañolituak / frantzes moduan jarriyak"*[1152]. Seigarrenean, jarraitu egiten du azalpenak: *"Gorputz guziya seda ta zinta, / gerriyan berriz kortsia, / arritzen giñan damatxo oiek / kotxe gabe etortzia; / gustatzen zaigu aundimendiyen / moda berriyak artzia, / baiña oraindik gerta liteke / beste modatan jartzia"*[1153]. Laugarren bertsoan ere esango digu ez duela gogoratzen abanikorik bazuten edo ez, eta horretaz gainera, txit garbi zeudela. Azken tendentziak, moda joerak jarraitzen zituzten, beraz, bi emakume haiek, hain zuzen ere, frantses tankerakoak. Beren ustetan, ederrago eta baliotsuago ageri omen ziren horrela, baina, benetan, ez omen zen horrelakorik ezer: *"Birian topo egin nituben, / esan niyoten ariyo; / korresponditu zuten ez dakit, / juan ziraden seriyo; / bati beiñepein gorputz guztitik / sedatu zinta dariyo, / oiek guztiyak kendu ezkero / koarto bat ez du baliyo"*[1154]. Modaren esklabo ote genituen hauek ere? Xenpelarrek garbi esango digu egun batetik bestera aldatu egiten direla janzkera joera horiek eta honek gurasoak pobretu besterik ez dituela egiten. Modaren inguruko sermoitzat ere baditu, ia,

[1148] "Damatxo" izendatu lehenengo eta atean ezin pasa zirela adierazi gero: ez ote ziren kabituko?
[1149] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 226.-230.or.
[1150] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 226. or.
[1151] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 226. or.
[1152] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 227. or.
[1153] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 227. or.
[1154] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 228. or.

Xenpelarrek berak osatutako bertsoak: *"Batek zintura biar duela, / bestiak berriz kordoia, / anbat etxetik salduko dute / amoko edo txorroia; / gorputzarentzat apainduriya, / animak dauka erdoia, / garizumaren printzipiyotik / au da galaren sermoia"*[1155].

Txirritak berak ere baditu hirurogeita hamar urte beranduago argitaratutako tankerako bertsoak "Oraingo neskatxen jazkera" izenburupean ezagunak[1156]. Txirritak ere neskatxen janzkera kritikatzen du, eta hauen itxura beren gurasoen etorkizun tristearekin lotzen du, Xenpelarrek egin zuen bezala. Hau da, neskatxek beren buruari gehiegi begiratzen badiote, ez dira beren gurasoez behar hainbat arduratuko: *"Ara, neskatx gaztiak, / zuentzat bertsuak, / bistan daukazkitenai / petxu ta besuak; / etziran ola bizi / zuen gurasuak, / esperantza ederra / daukate gaxuak / zartzera pasatzeko / egun erosuak!"*[1157]. Xenpelarrek egiten zuen moduan, euren buruaz eta itxuraz gehiegi arduratzeak "animaz" ahaztera ere eramango ditu: *"Gona laburrak jantzi, / illiak moztuta, / nor azalduko zaien / dabiltza poztuta; / amaren arrazoiak / baliyo eztu-ta, / berenak aundiyago / kopeta beztuta, / gorputza adornatzen / animaz aztuta"*[1158]. Eta Xenpelarrek egingo zuen moduan, Txirritak ere neskatxa pobreak horrelako itxuran ibiltzea ez du ongi ikusiko: *"Katiak lepuan da / esku-muturretan / jazten dituzte zenbait / fameli pobretan; / aberatsa berdintzen / zalla da obretan; / alabak apainduak / estadu orretan, / ta amak famelira / ogiya zorretan"*[1159].

Nola topo egin neskatxa hauekin? Erromeriak izango dira topaleku Xenpelarrentzat: *"Neskatxa eder balientia / artu nai baldin badezu, / etorri zaitez Oiartzuna ta / antxen billatuko dezu; / kale eta basarri, / kolore zuri gorri, / ederra franko badezu; / San Estebanez da erromeriya / ikusi nai badituzu"*[1160]. Nabari denez, mutilei zuzentzen zaie Xenpelar, eta neska non bilatu adierazten ari zaie, beren ardura da, beraz, hori. 1865eko "Bertso berriyak" sailean ere, erromeria bat aipatzen du: *"Milla zortzireun irutan ogei / au da bostgarren urtian, / dibersiyo bat jartzera nua / gazte jendien artian; / Azentziyoz zan erromeri bat / ermita txiki batian, / bi damatxo an ikusi ditut / ezin pasarik atian"*[1161].

---

[1155] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 229. or.
[1156] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 464.-466. or.
[1157] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 464. or.
[1158] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 464. or.
[1159] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 465. or.
[1160] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[1161] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 226. or.

Txirritak, berriz, "billerak" aipatuko ditu: *"Zapata koskor-dunak / anketan sartuta, / alpargata txuriyak / paperan artuta, / billeran dantzatzeko / aiek muatuta, / beren antzeko zenbat / enamoratuta, / or dabiltza saltoka / erdi txoratuta"*[1162]. "Proporziyo bat izandu nuen…" bertso sailean ere aipagai du *"[…] ezin billatu baldin badezu / Donostiya'n ta kayian, / Txomiñenian billera da ta / zuaz urrengo jayian"*[1163].

Neska ezkongaien eredu eta anti ereduak lantzeaz gainera, ezkonduez ere mintzatuko da Xenpelar. Senar onaren anti-eredua "Nere senarrarekin daukadan bizitza" bertso sailean azalduko digu[1164]. Hona hamalaugarren bertsoan nolako laburpena egiten digun: *"Gizon ederra daukat / munduan legia, / fandangolaria da / parerik gabia; / lanian gogorik ez, / agindu zalia, / jokalari ona ta / ardo eralia"*[1165]. Eta honetaz gainera, emazteari tratu txar fisikoak ematen dizkiona: *"andriak egon biar / bizkarra berotzen, / gizonaren eskutik / azotiak artzen"*[1166]; *"Neskatxak kortejatzen / dabil borondatez, / andriari jipoia / diruaren partez"*[1167]; *"Umiak negarrez ta / nedoni antsika, / gizona mozkortzian / etxian musika; / erantzuten badiyot / kontrako itzika, / nere bizkarrak eztu / sentitzen otzika"*[1168]. Hamabost bertso badira ere, Xenpelarrek esaten dituen guztiak ezin jaso, eta nagusiak bildu ditugu. Dena den, azpimarratu beharra daukagu familiaz hitz egiten denean eta, batez ere, familiako kideak aipatzen direnean, senar-emazte eta haurrak besterik ez direla ageri (familia nuklearra ote? Segur aski). Bestetik, senarrak jornala irabazi bai baina andreari ez diola ematen, hori ere nabarmen geratzen da. Beraz, soldatapeko langileaz eta honen familiaz ari garela ikus dezakegu, eta ez landa eremuko familia tronkalaz, hala dirudi, behintzat.

Eta emazte onaren kontra eredua? Xenpelarrek badu bertso sail ezaguna, "Andre txarraren bentajak" izenekoa[1169]. Alferra, dantzazalea eta ardozalea izango da hau ere. Senar-emazteak eta haurrak ageriko dira bertso sail honetan. Senarra hargina eta igeltseroa omen da *"Ofiziyo bi onak badauzkat: / igeltsero eta argiña; / irabaziya*

---

[1162] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 465. or.
[1163] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 491. or.
[1164] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 184. or.
[1165] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 184. or.
[1166] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 183. or.
[1167] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 183. or.
[1168] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 183. or.
[1169] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 190.-196. or. Bertso horien aldaera ezberdinak jasotzen ditu Antonio Zavalak orrialdeotan. Lehenengo kasuan, 9 bertso ditu bertso sailak eta bigarrenaren kasuan, hamabost. Bigarren bertsioak lehenengoko bertso batzuk ditu eta berriak ere bai beste batzuk. Bietatik hartuko ditugu guk, informazio osagarria eskaintzen baitute.

*guardatzeko / andriak buru ariña"*[1170], eta, udaran, lurra lantzen ere lan egiten omen du *"Uda-partian aita-semiak / aritzen giñan labrantzan, / andria berriz tabernarako / ganbaratikan ardontzan,"*[1171]. Beraz, landa eremuko lanak erabat utzi gabe, ofizioa duen senarra daukagu, jornala etxera ekartzen duena. Aurreraxeago ikusiko dugun bezala, eta nahiz eta zehazki esan ez, badirudi seme bat eta alaba bat dituztela. Bi haur, beraz. Familia nuklearraz ari da, berriz ere, itxuraz.

Bertso sail aberatsa da, ikuspegi ezberdinetatik begiratuta, eskuartean dugun hau. Positiboan eta negatiboan emakumeaz, kasu honetan emazteaz, espero dena eta espero ez dena kontatzen eta kantatzen ditu Xenpelarrek. Bertso sailaren azken bertsoak, hitzartutako ezkontza dela eta, mutila, gerora senarra izango dena, gurasoen esana jarraiki ezkondu zela adieraziko digu: andre txarraren "bentajak" eta hitzartutako ezkontzaren "desbentajak" garbi geratuko dira horrela. Honela dio azken bertsoak: *"Aitak egiña nuen ezkontza, / amak nai zuan artzea, / neronek berriz pentsatu nuan / aien eskuan jartzea; / andre ederra ezin geiago, / umilla eta dultzea, / surtan jarri ta ezagutzen dek / nolakua dan eltzea"*[1172]. Zein da emaztearen egitekoa? Etxeko lanak egin eta hau gobernatzea. Hori izango da, hain zuzen ere, nahiz eta jakin, bertso sail honetan ageri den emazteak egingo ez duena: *"Amarretako jeikitzen bada / armariyua iriki, / arropak artu, amaiketako / apainduko da ederki; / katillu-salda ardoarekin / gorputza sano eduki, / bere burua gobernatzen du / gizona bañan obeki"*[1173]. Bere burua bai, baina etxea ez du modu berean gobernatzen. Hona akats nagusia: *"Kopeta illun, begia triste / fameliara sartzian, / porru-salda oliorik gabe / gizonarentzat eltzian; / kortesiarik aurrian ez du, / errespetua atzian, / onelakuak maiz izango du / gobiernu txarra etxian"*[1174]. Zeintzuk izango lirateke gobernu horren alderdi nagusiak? Zeintzuk etxekoandreak egin beharreko lanak? Bigarren bertsoan: *"Josten da plantxan, bordatzen ere, / nere andreak badaki, / sala frotatzen ikasia da / erdiak bañan obeki; / kozinaria nor alakua, / gauza guzitan egoki, / oiera joanda amarretako / iñork ezin du eraiki"*[1175]. Eta seigarrengoan: *"Dantzatu eta erretirua / gabeko beratzik aldean, / etxera etorrita kantari dago / eserita sukaldean; / ume gaizuak negarrez daude / apariaren galdean, / artua errotan, ogia falta, / jakia berriz kalian"*[1176]. Janaria prestatu, haurrak zaindu, etxea garbitu eta arropak txukun mantendu. Horra familia eredu nuklear honetan emazteari ematen zaizkion lanak zeintzuk diren. Eta horiez gainera,

[1170] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 194. or.
[1171] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 195. or.
[1172] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 192. or.
[1173] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 190. or.
[1174] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 191. or.
[1175] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 190. or.
[1176] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 191. or.

etxekoen zaintza: "*Seme-alabak mundu onetan / biok ginduen sortu, / nola bear dan badaki bañan / lanerako zait alpertu; / neroni berriz indarrak junda / ajiak zaizkit agertu, / andre-zalia banintzan ere / orra ederki aspertu*"[1177]. Garbi ikusten da sorkuntza gauza bat dela eta zaintza, berriz, beste bat, eta bigarren hori emakumeari dagokiola, berebat. Emaztearen espazioa etxea izango da eta gizonarena, berriz, kanpoa, lanerako erabiliko duen gunea[1178]: "*Eguna pasa nekean eta / etxera natorrenian, / su-baztarrian kantari dago / beti edo geieneian; / alaba dauka besuan eta / semea aldamenian, / badaki bañan ez du gogorik / trabajatzeko lanian*"[1179].

Bertso sail honetan ageri den beste gaietako bat senar-emaztearen arteko harremanaren tonua eta ezaugarriak dira. Zein balioren araberako harremanak dira horiek? Senarrak errespetu eta kortesiari egiten dio erreferentzia, emazteak berari gordetzen ez dizkion balio bezala seinalatuz. Berak egoera honi hitzez soilik edota ekintzez ere - kolpez- erantzungo ote dio? Dakusagun. Zortzigarren bertsoan, emazteaz honela dio: "*kortesiarik aurrian ez du, / errespetua atzian*"[1180]. Eta zazpigarrenean, berriz: "*Maldeziyoka asten naitzaio* [sic] / *koleratzian berari, / txorakeriak utzi ditzala / segitutzeko lanari; / parra ta burla egiten dio / gizonaren esanari, / leziyo ona nork erakutsi / buru gogorra dunari?*"[1181]. Bosgarrenean, berriz, gogorrago ageri zaigu senarra: "*Lengo batian, esango det noiz, / igande-iñulabarra, / nere andria dantzan zebillen, / begira zeudenen farra! / Lanerako gogorik ez bañan / pandangolari azkarra, / baldin neronek ikusi banu / autsiko nion bizkarra*"[1182].

Arestian aipatu bezala, Antonio Zavalak bertso horien bi bertsio, behintzat, argitaratzen ditu, Xenpelarri buruzko liburuan. Lehenengo argitaratuak xehetasun nahikorekin komentatu ditugu. Gehitu ditzagun, orain, bigarren bertsioak dakartzan zehaztasunak. Lehenengo bertsoan, urtea aipatzen digu eta baita tratatzera doan gaiaren balorazio bat ere: "*Milla zortzireun irurogei ta / laugarren urtian gera, / publikatutzen astera nua / fameliyaren galera, / andre ederra gustatu eta / ekarri nuen aldera, / bire berriya egiña dauka / ganbaratikan kalera*"[1183]. "Fameliyaren galera" horri esker tratatzera doan gaia kontra ereduaren ikuspegitik egingo duela garbi uzten digu hasieratik. Horretaz gainera, andreak tabernarako izango duen joera, duen ardozaletasuna eta bertan gastatu eta galduko dituen

[1177] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 190. or.
[1178] "Ganadores de pan", alegia.
[1179] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 190. or.
[1180] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 191. or.
[1181] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 191. or.
[1182] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 191. or.
[1183] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 192. or.

diruak azpimarratuko ditu, bereziki, bertsolariak: "*Arduarekin adiskide ta / gizonarekiñ zapuztu, / gaur ere nere andriarekin / egingo nuke apustu; / botilla aundi bat basorik gabe / baietz seguru ark ustu; / orretan dago sufiziente, / beste bentajarik ez du*"[1184]. Azken aurreko bertsoan, senarrak haurrak hartu eta emaztea utzi zuela esango digu: "*Uda-partian aita-semiak / aritzen giñan labrantzan, / andria berriz tabernarako / ganbaratikan ardontzan; / bere buruaz erneatuta / Euskalerritik juan nitzan, / orra umiak amaren paltan / gaxuak nola dabiltzan*"[1185].

Antonio Zavalak beste bertso sail bat ere jasotzen du "Bertso berriak Senpelarrek jarriak" izenburupean. Xenpelar hil eta gero argitaratuak omen dira Donostiako Barojarenean[1186]. Mutilzahartuta ezkondutako gizon batek bere andrearen "kontra" jarritako bertsoak izango dira hauek ere, emaztearen miseriak aireratuz. Kasu honetan, gizonaren egoera are eta larriagoa ageri zaigu. Beste etxe batera morroi joan beharra du diru zerbait irabaztekotan, nahiz eta gero diru hori emazteak festa eta tabernan gastatuko duen. Gizonak andrearekiko duen menpekotasuna behin baino gehiagotan agertuko da bertso honetan: "*andria daukat nagusi, / saltzia luke merezi, / iñork nai balu erosi*"[1187] dio bigarren bertsoan. Hirugarrena berriz, horra: "*Aparte bizi gerade, / ni izaten naiz mirabe; / len banituen lur da etxiak, / orain gelditu naiz gabe; / andria egin zan jabe, / ganbiyatuak dirade, / ito bear nau alare*"[1188]. Bosgarrenean: "*Aizazu, Mari Aldarte, / farrandan gastatu arte, / etxiak saldu, diruak urtu, / orain guziontzat kalte; / andria daukat alkate, / errespetua aparte, / engañatua naukate*" [1189]. Zazpigarrenean: "*Ni nago morroi serbitzen, / besteren kargak berdintzen; / andria orla ametitzea / ez du legiak agintzen; / […]*"[1190]. Zortzigarrenean: "*Matrimoniyo autsiya, / bakarrik nauka utziya; / gizona morroi galtza zarrakin, / andria galaz jantziya; / au gure diferentziya, / nork artu pazientziya? / Nik daukat penitentziya!*"[1191]. Hamaikagarrenean: "*Etxera natorrenian, / beti edo geienian / enbusteriyan engañatzen nau / dirua senti dianian, / maleziya barrenian, / eta gero azkenian / jartzeko arren mendian!*"[1192]. Orain andreari "loteria" tokatu zitzaiola esango genukeen bezala, orduan: "*Orra andria koplatu, / Indiyak zaizka tokatu; /*

[1184] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 196. or.
[1185] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 195. or.
[1186] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 198.-201. or.
[1187] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 198. or.
[1188] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 198. or.
[1189] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 199. or.
[1190] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 199. or.
[1191] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 199. or.
[1192] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 200. or.

*gizona ondo ekusi baño / naiago luke urkatu, / iñori eziñ trukatu; / ongi nai degu bukatu; / gaizki esanak barkatu*"[1193].

Baina ez dira horiek aldaketa bakarrak. Zein ezaugarri izango ditu familiak, trantsizioan dagoen eremu honetan? Eredu nuklearrerako pausoa ematen ari dela ikus al dezakegu? Xenpelarrek "Bajatu gera graduan" bertso sailean bizitako krisi ekonomiko bati egiten dio erreferentzia bereziki –aurreko atalean mintzatu gara honetaz-, baina honi buruz hizketan ari dela, familiari buruz esandakoak jasoko ditugu orain. Krisi honek familiei eragiten die, zalantzarik gabe: *"Miseriyaren adarrak / dauzkat itzegin biarrak, / eragin ditzadan farrak; / jornal-biderik sanuak eztu, / eskasagua elbarrak; / fameliyetan negarrak, / bajatu dira indarrak, / mantenduko nau gitarrak!"*[1194]. Baina, zertan eta nola eragiten die? Zergatik? Itxura duenez, jornalik ez izateak janariak eta gauzak ezin erosia dakarkio familiari eta ondorioz, gosea ekarriko du krisi honek. Etxetik kanpora lan egiten duena gizona dela dirudi gainera eta, beraz, jornala hark ekartzen duela, bere ardura dela familiari eustearena: *"Erraziyua bakandu, / bat eman eta bi kendu, / fameliya eziñ mantendu; / goizetik barau, bazkari txarra, / afari ona berandu; / sakelatik alargundu, / begiratua illundu / orra gustuak atzendu"*. Eta hurrengo bertsoan: *"Ezkondu eta ezkongai, / guztiyak ondo bizi nai, / dirua degunian jai; / familiako buru-zariak / pena geiago ere bai; / len ardua eraten lasai, / oraiñ urrutitik usai, / etxian gaude andre zai"*[1195].

Txirritaren bertsoren batean ere topatu dezakegu horrelako ezaugarririk. Senar-emazte batzuek taberna jartzen dute. Gizona zurrutari ematen zaio eta, emazteak zentzarazten duen arte, familiak ez du aurrera egiten. Garbi adieraziko da bertan kanpoan lan egiten duen eta soldata etxean ematen duen senarra izango dela familia sostengatzen duena. Senar-emazteak eta bost seme-alaba aipatuko dira esplizituki bertsoetan[1196].

Familia tronkaletik nuklearrerako pausoan, beraz, neska ezkongai eta senar eta emazte eredugarri eta ereduz kontrakoei buruz mintzatuko dira bertsolariak: gizon eta emakumearen papera aldatzen ari denaren seinale.

---

[1193] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 201. or.
[1194] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 163. or.
[1195] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 166. or.
[1196] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 499.-500. or.

## 2.3.Maitasun erromantikoa: Donostiyan, Bilintx; atzetik, Otaño

*"Ez naiz mutill ederra / -au lana, au lana!-, / ez naiz aberatsa're / maitetxo laztana! / Bañan biyotz bat badet / oberik ez dana, / betia zuganako / amoriyoz dana"*[1197].

*"Askok diyote kantetan beti / amore-kontu naizela, / nik esaten det arriturikan / motibo gabe daudela. / Zer egin biat baldin zerubak / doaitu banau orrela? / Ez dute ikusten usaia mendak / bere jatorrez dubela? / Nere biyotzak amoriyua / mendak usaia bezela"*[1198].

Hona Bilintxek, hemen jaso dugun lehenengo bertsoan, bere buruaz ematen digun definizioa: gizon itsusi eta pobrea, ezkontide eskasa, beraz, edertasun eta aberastasun kontuei dagokienez, baina maitasunez betea. Bigarren bertsoa, berriz, Antonio Zavalaren hitzetan gerora bere emazte zenari osatu eta zuzendutako bertso saileko parte dukegu. Bertan, Bilintxek maitemindu eta maitatzeko duen berezko joeraz bere irakurle-entzuleak oraindik ohartu ez diren galdetzen du: 37 bat urte izango zituen sail hori idatzi zuenerako.

Nola ulertu eta lotu orain artean landa eremuan Pello Errota eta Txirritak eta Errenteriatik Xenpelarrek esandakoak Bilintxek adierazten digunarekin? Aukeratu ditugun sei bertsolarietan maitasun erromantikoaren erakusle eta adibide nagusi dugu Bilintx. Sentimentuetan oinarritutako ikuspegi pertsonal eta indibidualista da Bilintxena. Galderak parrastadan datozkigu burura: zein begirekin begiratu eta zein hitzekin hitz egingo digu Bilintxek emakumeaz, gizon eta emakumearen arteko harremanaz, ezkontzaz, sexualitatearen bizipenaz, maitasunaz? Zer izango da berak gai hauetaz eskainiko diguna? Jakinik, ikusi dugun bezala, berariazko gaia izan zela hau Bilintxen bertsogintzan. Has gaitezen, pixkanaka, bere maitasun bertsoetako elementu giltzarriak aletzen.

Zein da ageri duen familia eredua? Bilintxek bikoteaz, bertsoan aipatzen duen damaz eta bere buruaz askotan, hitz egiten du. Gurasoak aipa ditzake, baina bikotearen harremanetan izan dezaketen pisuaz baino gehiago, neskaren ezaugarriren batekiko erreferentziaz. Adibidez: *"Kantatutzera indar aundiko / desio batek narama, / Kontzezi, zuri nai dizut eman / mereziya dezun fama; / gure probintzi Gipuzkoakoan / igualik gabeko dama, / berinkatuba izan derilla / zu egin zinduben ama"*[1199].

---

[1197] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 254. or.
[1198] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 267. or.
[1199] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.

Berdin egingo du beste hainbat irudirekin ere. Erregina aipatuko du Bilintxek, adibidez, baina neska baten edertasuna goraipatzeko: *"Ile beltz eder dizdizariya / oparo dezu buruban, / konparatzeko baliyo duben / sedarik ez da munduban; / trentzak egiñik zenekan dana / erregiñ baten moduban, / diamantezko koro eder bat / falta zitzaizun orduban"*[1200].

Haurrak ere oso gutxitan aipatzen ditu eta, egiten duenean, ez da objektu nagusitzat hartuz, honen tokia bikote harremanak hartzen baitu beti: *"Amoriyuak nere biyotza / zureganuntza darama, / erri guztiyan zeren daukazun / neskatx bikañaren fama; / beste fortunik, mundu onetan / ez det desiatzen, dama: / aur batek berak izan gaitzala / ni aita eta zu ama"*[1201]. "Dama ta galaia" bertso sailaren azken bertsoan ere aipatzen ditu. Oraingo honetan ere, aitatasuna eta amatasuna bikotea osatu eta gauzatu izanaren frogatzat ipintzen ditu: *"Egiya nik esateko, / ez zebilltzan ezkontzeko / geldi-geldi egoteko: / galaiak obra, / seguru sobra, / aurreratuba darama; / egiñ dirala da fama / bat aita, bestia ama, / gure galaia ta dama"*[1202].

Subjektua ez da etxea, helburua ez da etxearen iraupena. Etxeko taldea eta familia tronkala urruti geratzen dira Bilintxen esperientziatik. Ezinbestean, emakumeaz eta honekiko duen harreman idealaz bestelako ikuspegia emango digu Bilintxek.

## 2.3.1.Emakume eredua, alderdi fisikoari dagokionez

1857an argitaratu zituen, lehen aldiz, Bilintxek "Kontzezirentzat" izeneko bertsoak[1203]. Bertan, lehenengo bertsoan esaten digunez, eta Kontzeziri zuzentzen zaiola, *"zuri nai dizut eman / mereziya dezun fama;"*[1204]. Eta nola egingo du hori? Kontzeziren ezaugarri fisikoak goraipatuz, batez ere. Bertso sail honetako azken aurreko bertsoan egiten du ezaugarri hauen laburpena: *"Ointxo politak, gerriya mia, / graziya milla petxuban, / lepo biribill diruriyena / egin berriya tornuban; / pare gabeko begi argiyak, / ille ederra buruban, / zu baño aingeru politagorik / ez da izango zeruban"*[1205].

"Pozez ta bildurrak" bertso sailean ere, neskatxaren ezaugarri fisikoak zerrendatuko ditu: aurpegia, gorputza eta baita ibilera ere. Azken horri dagokionez: *"Bere jatorrez*

[1200] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 158. or.
[1201] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.
[1202] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 282. or.
[1203] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157.-159. or.
[1204] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.
[1205] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 158. or.

*duben / patxara fiñian, / biria pasatzen du / pauso ariñian; / lurrik ez du zanpatzen / txoriyak añian, / txutik juango litzake / uraren gañian*»[1206].

Beste hainbat bertso sailetan errepikatu egiten dira emakumearen deskribapenean ezaugarri horiek berak. Ikus adibidez, "Juramentuba": *"Begi urdiñak dituzu eta / arpegi zuri-gorriya, / nere biyotzak maite zaituben / aingeru zoragarriya; / zumia beziñ biguña eta / mia da zure gerriya, / estutu bage artu liteke / bi eskubakin neurriya*»[1207].

Begi urdinak eta ile horia, hona Bilintxek behin eta berriz aipatzen duen eredua: *"Ditu ille urrezko / albiñu luziak, / alakorik apaintzen / ez du orraziak; / frankotan inbiriya / eman dit aiziak, / aren trentza tartetik / jostatzen pasiak"*[1208] eta *"Ondo konparatzia / da gauza eziña / arren begiyetako / urdintasun fiña; / ez da irrutira-re [sic] / aitatzeko diña / itxasoko bagaren / kolore urdiña"*[1209] . Hurrengo bertsoak ere maitearen begiak urdinagotzen jarraitzen du: *"Ez da zer aitaturik / zeru zabala're, / bolaraz urdiñ-urdiñ / jarritzen dala're; / aingeru neriaren / begiyak alare / urdiñ purubagoko / zerubak dirare*»[1210].

"Dama ta galaia" bertso sailean, berriz, ezaugarri fisiko ezberdinen artean mailaketa bat egiten du eta garrantzi handiena begiradari ematen dio: *"Dezu gorputz egokiya, / polita txit arpegiya / eta ederra begiya; / zure begiya / agitz argiya / da guztietan aurrena; / bestiak dira urrena / ori da-ta ederrena, / diruri eperrarena*»[1211].

Azken bertso horiek hartutako sail beretik, beste bizpahiru ere jasoko ditugu. Neskaren ezaugarri fisiko aipagarrien artean, ezpainak eta hortzak ere kontuan hartuko ditu Bilintxek: *"Aren ezpaiñ gorriyak / nere atsegintzat, / ondo merezi dute / famatzia fintzat; / zerbaitez apartetik / ikusita beintzat, / mundu guztiyak artzen / ditu krabelintzat"*[1212]. Eta: *"Farrik egiten badu / zerutar birjiñak, / erakusten dituben / ortza txiki fiñak, / txuriz elurrarekin / dirare berdiñak; / perlak iruri dute / zillarrez egiñak"*[1213]. Arnasa ere aipatuko digu: *"Gozuaren birtutez / aren asnasiak / lo*

[1206] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 168. or.
[1207] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 177. or.
[1208] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 184. or.
[1209] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 184. or.
[1210] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 184. or.
[1211] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 279. or.
[1212] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 185. or.
[1213] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 185. or.

*arazitzen ditu / nere oñaziak; / usai oberik ez du / banatzen aiziak, / loriak maitatubaz / baratzan pasiak*"[1214].

Eta Bilintxek, Xenpelarrek ez bezala, egokitzat joko du neskatxek eta damek modari jarraitzea, garaian garaikoari jarraitzea: "*Patxaran ibiltzia / dago gaur bolaran, / pausaje fiña oraiñ / zergatik moda dan; / eta zu ikustia / modako patxaran, / ez dakizu neretzat / nolako ditxa dan!*"[1215].

"Izazu nitzaz kupira" bertso sailean, ezaugarri fisikoez haratago ere badoa: "*Arpegi fiña, gorputza berriz / ez dago zer esanikan, / izketan ere grazi ederra, / ezer ez dezu txarrikan; / mundu guztiya miratuta're / zu bezelako damikan / agiyan izan liteke baño / ez det sinisten danikan*"[1216].

"Biyotz erituba" edo "Triste bizi naiz eta" bertso sailean, maitatuaren bihotz ona ere aipatzen du Bilintxek: "*Nere maitatuba da / guztiz dama fiña, / biyotz onekua ta / ondo itzegiña; / bentaja guztiyakiñ / zerubak egiña, / munduba pasatzeko / lagun atsegiña*"[1217]. Bilintxen emakumeek ez ote zuten alderdi txarrik?

## 2.3.2.Desioa eta maitasuna edota betebeharra?

"Kontzezirentzat" deritzon bertso sailean garbi adierazten du, lehendabiziko bertsotik, zerk mugitzen duen, zein den bere barne motibazioa: "*Kantatutzera indar aundiko / desio batek narama, / Kontzezi, zuri nai dizut eman / mereziya dezun fama;*"[1218]. Desio eta nahiak mugitzen dute Bilintx.

Bihotzari aipamena ere maiz egiten dio Bilintxek: "*Ondoren jarri nitzan denboran / begiratubaz lepora, / biyotzak salto egiten ziran / irten nayian kanpora; / irten ta zuzen, badakit zierto, / juango zan zure kolkora, / nik jakitera nai zenubela / utziko niyon gustora*"[1219].

"Pozez ta bildurrak" bertso sailean ere, bihotza azalduko digu, kasu honetan, pentsamenduari lotuta: "*Dama gazte polit bat / bada Donostiyan, / berdiñik ez dubena / zeruban azpiyan; / biyotza mugitzen zait / modu txit eztiyan / nere*

[1214] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 186. or.
[1215] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 228. or.
[1216] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.
[1217] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 269. or.
[1218] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.
[1219] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 158. or.

*pentsamentura / datorren guztiyan"*[1220]. Bilintxen izate osoa hartzen du dama gazte hark.

Hain ezagun den "Ja-jai!" bertso sailean ere betebeharraren zantzurik ez dugu aurkitzen: desioa da agintzen duena. Erromerian ikusitako neskatxa bati *"Esan niyon desio / senti nuben gisan, / arekiñ izketa bat / nai nubela izan; / […]"*[1221].

"Izazu nitzaz kupira" bertso sailean, bihotza eta pentsamendua aipatzen dira, biak. Bilintxek ez du kontraesan gisa ikusten bi hauek aipatzea. Bertso sail honetako seigarren bertsoan, *"Nere betiko pentsamentuba, / nere konsolagarriya, / zu gabetanik ezin bizi naiz, / esaten dizut egiya;"*[1222] dio eta zazpigarrenean, berriz, *"Amoriyuak nere biyotza, / zureganuntza darama"*[1223]. Eta "Gaztetan jarriyak dama bati" bertso sailean, oraindik eta argiago adierazten du ideia hau: *"[…] / beti dauzkat zugatik / nere aiñgeruba, / sentitzen biyotza ta / pentsatzen buruba"*[1224].

Desioak mugitzen badu, eta ez obligazio edo betebeharrak, maitasuna izango da lehen aipatutako desioak hartuko duen forma. Nola ulertzen du Bilintxek maitasuna? Nola definitzen ote du? Bihotza preso hartzen dio maitasunak Bilintxi, dama bihotz barruraino sartuz. Hona: *"[…] neroni ez naiz jabe / nere biyotzaren, / gaxua preso dakat / amoriyuaren"*[1225] eta hurrengo bertsoan: *"Sartutzen dan bezela / balkoi batetikan / eguzkiya gelara / kristaletatikan, / modu ortaraxe beiñ / igaro zitzaitan / biyotzera dama bat / begiyetatikan"*[1226]. Eta ikus zenbaterainokoa den dama horrek bihotzean hartutako lekua: *"Biyotz nerian preso / gelditu bire zan, / geratzen dan bezela / txingarra iyeskan; / obligatuba dago / egotera bertan, / nun-ta biyotz ta guzi / ateratzen ez dan"*[1227].

Maitasun horren beste ezaugarri bat neurrigabetasuna izango da: *"Beti goguan zauzkatan dama / izarra dirurizuna, / eguzkiyaren biarrik gabe / argi egiten dezuna; / berdin gabeko amoriyua / senti arazten nazuna, / aditzera eziñ eman liteke / dizutan maitetasuna"*[1228]. Ezin daiteke, beraz, ezerekin konpara eta adierazi ezina ere gertatzen da, hainbesterainokoa da bere indarra eta Bilintxen baitan hartzen duen tokia. Eta pixka bat aurreraxeago: *"[…]animatikan maite bazaitut / erotutzeko*

[1220] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 167. or.
[1221] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 219. or.
[1222] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.
[1223] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.
[1224] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 253. or.
[1225] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 183. or.
[1226] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 183. or.
[1227] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 184. or.
[1228] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 213. or.

*zoriyan?"*[1229], edota beste hau: *"Boste [sic] urte diran ez dakit baño / beñepeiñ badirare lau, / faltatu gabe nere oroitzan / zaudela egun eta gau; / zu itxumenez maitatutzeko / zerubak siñalatu nau, / […]"*[1230].

Eta, aldi berean, neurrira egindako maitasuna izango da, hau da, Bilintxek ziur ikusten du bere burua gainerako gizonen aurrean, aurkari egokirik gabe: *"[…] xinista zazu mundu guztiyan / ez dala iñor ni beste, / zu maitatzeko kapaz danikan / merezi dezun ainbeste"*[1231]. Edota *"Nere amoriyua / ain fiña izanik, / beti goguan zauzkat / aztu gabetanik; / ez da mundu guztiyan / iñor kapaz danik, / dama, zu maitatzeko / ainbeste nola nik"*[1232].

Maitasunaren garbitasuna eta egiazkotasuna ere aipatzen ditu Bilintxek bere bertsoetan: *"Eziñ fiñago dala / da txit seguruba / zuganako dakatan / naitasun puruba;[…]"*[1233]. Edota beste okasio batean: *"Nik eziñ xinistu det / zuk esan dezula / nere amoriyua / dudan dakazula; / arren, orlakorikan / pentsa ez zazula, / eta nai det seguru / jakiñ dezazula / beti bezela zure / mende nakazula"*[1234].

Bilintxek etengabean aipatzen duen maitasunaren indarra ere ez da nolanahikoa. Joana Bixenta Olabe bertso sailean[1235] erakutsiko digunaren arabera, maitasunak etxejabea bere maizterraren alabarekin ezkontzera eramango du. Landa eremuko kasu bat hartuko du hizketagai Bilintxek eta mezu jakin bat helarazi nahiko die landa eremuko neskatxei, batez ere. Ezkontzaren funtsa ez da obligazioa, maitasuna baizik. Maitasunak puskatu egingo ditu, beraz, kasu honetan, desberdintasun eta mailaketa ekonomikoak eta garaile aterako da. Elkarrizketa eran emandako bertso hauetan, nagusiak egindako maitasun proposamen zuzenari maizterraren alabak landa eremuan ezkontzarako pauso zirenak emateko eskatuz erantzungo dio. Nagusiak pausoak onartuko ditu eta maizterraren alabak, berriz, bere amaren onarpena jaso ondoren, azkar emango dio baietza. Azter ditzagun, ordea, hurbilagotik bertsook.

Maizterraren alaba, Juana Bixenta, nagusiarengana doa, amak hala eskatuta. Ez dakigu Juana Bixentak aitarik ez duen, aita hila duen eta horregatik den ama tratuan ari dena, lehenengo errenta dela eta, gero bere alabaren ezkontza dela eta. "Nagusi jaunak", horrela izendatzen dute Juana Bixenta eta Bilintxek, hasieratik

[1229] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 214. or.
[1230] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 214. or.
[1231] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 213. or.
[1232] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 270. or.
[1233] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 253. or.
[1234] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 258. or.
[1235] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 289.-294. or.

erakutsiko dio Juana Bixentari bereganako duen desioa: *"Ai, bigalduko bazinduke maiz! / Zu ikusita konsolatzen naiz. / Xinista zazu: / oso zoraturikan nakazu! / Orren polita nola zera zu?"*[1236]. Hirugarren bertsoan, nagusi jaunak *"nere borondatiaren jabe, / zu zera, Juana Bixenta Olabe"*[1237] esango dio neskatxari. Laugarren bertsoa giltzarri gertatuko da bertso sail honetan: Juana Bixenta etxerako prest agertzen da, pozik, amari errentaren atzerapenaren berri emateko, eta nagusiak, berriz, gaua bere etxean pasa dezala eskatzen edo erdi agintzen dio. Hona: *"J.Bixenta: Beraz bertatik nua etxera / poz aundi bat amari ematera; / oraiñ ariyo, nagusi jauna, / presaka juan biat amagana. / N. jauna: Ez zuazela; / portatu zaite nik nai bezela, / gaur etxera juan ez zaitezela"*[1238]. Arrazoi ezberdinak emango dizkio nagusiak Juana Bixentari etxera joan ez dadin: *"Zuen etxia dago irruti[sic] / birian zer gerta izan bildurti"*[1239], *"Ez juan etxera / bire oietan, / gabaz, bakarrik eta illunbetan"*[1240]. Baita Juana Bixentak erantzun ere: *"amak espero nau gaberako, / eta ark espero naubelako, / juan biar det nik; / alaba ikusi bagetanik / amak izango ez luke onik"*[1241]. Nagusiak, orduan, emango dizkion afari eta edariekin konbentzitu nahi du: *"Emen zuretzat dira parako / jaki txit goxuak afaitarako; / erariya berriz – Jaungoikua!-, / illak piztutzeko modukua: / ardo onduba, / ontzen urtietan egonduba, / Malagatikan da bigalduba"*[1242]. Neskak, pobrea dela bai, baina duintasuna duela garbi adieraziz, eta horiek ondasunetatik ez datozela azpimarratuz, *"[…] nere etxian nai ditut egiñ / afaltu ta lo; / naiago ditut ango bi talo, / ta ez emengo milla erregalo"*[1243] erantzungo dio. Nagusiak, ordea, eutsi egingo dio ondasunen eskaintzari: *"Biyotz nereko dama polita, / asmoz muda zaite, auxen tori-ta: / amasei duroko urre fiña, / sendatu nai zazun nere miña"*[1244]. Eta neskak ere eutsi egiten dio bereari*: "Ez, jauna, ez, ez! / Merezi beziñ kopeta beltzez, / esango diyot ezetz ta ezetz!"*[1245]. Eta segi nagusiak, elkarrizketaren tentsioa "*in crescendo*" doalarik: *"Gañera berriz, Juana Bixenta, / utziko dizuet etxeko errenta: / kito zor dirazuten guziya, / kunplitzen banazu kutiziya"*[1246]. Eta "*fortissimo*", Juana Bixentak: *"Lotsa gogorra!! / Sufritzen dago gaur nere onra, / penaz malkuak darizkit*

[1236] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 289. or.
[1237] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 289. or.
[1238] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 290. or.
[1239] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 290. or.
[1240] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 290. or.
[1241] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 290. or.
[1242] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 291. or.
[1243] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 291. or.
[1244] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 291. or.
[1245] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 291. or.
[1246] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 291. or.

*orra!!*»[1247]. Nagusiak erabat aldatuko du jarrera hemendik aurrera eta supituki barkamena ere eskatuko dio ordura arte egindako proposamenengatik eta horien indarragatik. Neskatxak barkamena ere azkar onartuko dio. Nagusiak, orduan, ezkontza proposamena egingo dio Juana Bixentari: *"Berriz nik egiñ zuri ofensa? / Arren orlakorik ez bara pentsa!! / Zauzkazkit neskatxa fiñ batetzat, / eta gusto aundiz emaztetzat / artuko zaitut; / biyotzetikan esaten dizut, / zuretzat ona baderizkizut"*[1248]. Landa eremuko ohiturei jarraiki, Juana Bixentak nagusiari eskatuko dio amarekin hitz egin dezala eta hari baimena eska diezaiola. Bilintxen beste bertsoetan ez dugu ikusi eskabide hori: izan ere, gainerakoetan neskaren baiezkoa nahikoa zen. Agidanez, hiri eremua eta landa eremua bereizten zituen ezaugarria zen hori. Juana Bixentak honela eskatzen dio: *"Ori egiyaz baldiñ badiyo, / neregana egon liteke fiyo; / bañan usatubaz kortesiya, / ama neriari lizentziya / eska bezaio"*[1249]. Juana Bixenta lotara etxera joango da azkenean, baina morroi bat lagun duela bidaliko du nagusiak etxera. Hurrengo egunean nagusia amaren etxera joango da alabarekin ezkondu nahi duela esanez. Ama *"txit firme / artu ta gero milla informe, / gelditu ziran biyak konforme"*[1250]. Zortzi egunera ezkondu eta, handik hilabete batzuetara, familia esperoan omen ziren. Bilintxek bertso sailaren bukaeran jartzen duen azken bertsoa ere esanguratsua da: *"Dama gaztiak, ez egon lotan, / begira zaitezte ispillu ontan: / gustatuta birtute ederra / andretzat artu bere maizterra / du nagusiyak; / orla irabaztera graziyak / saia zaitezte beste guziyak"*[1251]. Eredu gisa ipini du Bilintxek Juana Bixenta eta nagusiaren artekoa. Gure ustez, bertso sail honetan, landa eremuan zegoen ezkontza tratuen sistema eta landa eremuko maizter-nagusi mailaketa maitasuna dela bide nola gainditu daitekeen erakusten digu Bilintxek, eta hau egitera animatu edo bultzatzen ditu landa eremuko neskak. Bilintxek berrikuntza dakar bertsogintzan, baina baita pentsaeran ere, eta berrikuntza hori zabaldu egin nahi du bere inguruan ere.

Pedro Mari Otañok ere tarteko bide honi eutsiko dio. "Beti-betiko" bere lanean[1252], galaia eta dama ageri dira. Elkar maite dute, baina aitaren eta amaren onespena beharrezko ikusten dituzte beren harremanetan aurrera egin ahal izateko. Neskak amari aurreratua omen zion bere nahia, baina aitari ez. Mutilak azaldu beharko dio aitari bere borondatea zein den:

---

[1247] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 291. or.
[1248] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 292. or.
[1249] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 292. or.
[1250] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 293. or.
[1251] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 294. or.
[1252] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 388.-389. or.

> *"Zure aita ta amari / -trantze estua- / izandu naiz eskatzen / zedorren eskua; / egiña zendukazula / amarekikua / zuk esan eta nedukan / sinistua; / aita berriz mintzatu zait / aiñ prestua, / baietz agiñdu dit eta / -au da gustua!- / nere biyotz gaxua dago / birpiztua.*
>
> *Nola dezun zuk barren bat / danik onena, / beti izan dizut nik / zuri sinismena; / bañan falta zitzaigun / lanikan zallena: / nere aita prestuaren / aitormena; / aspalditik banekiyen / amarena, / ta oraiñ badegulako / biyen baimena, / badakizu ni zuretzako / naguena"*[1253].

Maitasuna edota maitemina ote? Gehiagotan erabiliko ditu Bilintxek maitasuna eta "amoriyua" gisako hitzak maiteminari lotuak baino. Hala ere, hona: "*Ia gozua izango al dan, / enamoraturik dana, / ama on batek aur maitiari / ematen diyon laztana? / Alare bada beste gauza bat / askoz gozuago dana: / zureganako amoriyua / nere biyotzak daukana*"[1254]. Bilintxek, beraz, maitemintzeari eta maitasunari ematen dion garrantzia aztertzen ari garen gainerako bertsolariekin konparatuz, oso handia da. Maiteminduta dagoela nabarmenago azalduko du honako bertsoan: "*Au nere zoramena: / zutzaz gustatuta, / bildur naiz gera nadiñ / burutik galduta; / ainbesteraño nago / enamoratuta, / nai badezu oñetan / belaunikatuta, / adoratuko zaitut, / agindu zazu ta*"[1255], eta sail bereko beste bertso batean: "*Zure graziyetara / oso zoratuba, / biyotza sentitzen det / enamoratuba; / ni bizi naizen arte, / baratz loratuba, / dizdizara klarozko / izar doratuba, / ez zaizu faltatuko / nork adoratuba!*"[1256]. "Dama ta galaia" bertso sailean ere, birritan erabiliko du "enamoratu" hitza[1257].

Bilintxek, segur aski, emakume ugariri botako zien begia, gustukoa izango zuen hori egitea, eta maitemintzeko joera izango zuen. Honela aitortzen digu hurrengo bertsoan: "*Amoriyorik gabe / pasatu eziñez, / nik damak maite ditut, / aitortzen det ziñez; / begiyakiñ guziyak, / milla bai mingañez, / bañan biyotzarekiñ / zu besterikan ez!*"[1258].

Txirritak, berriz, enamoratua egotea eta txoratua egotea mespretxuz konparatuko ditu: "*Zapata koskor-dunak / anketan sartuta, / alpargata txuriyak / paperan artuta,*

---

[1253] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I*, op. cit., 388. or.
[1254] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 214. or.
[1255] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 258. or.
[1256] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 259. or.
[1257] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 279.-282. or.
[1258] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 229. or.

*/ billeran dantzatzeko / aiek muatuta, / beren antzeko zenbat / enamoratuta, / or dabiltza saltoka / erdi txoratuta"*[1259].

Landa eremuaz aritu garenean sexu harremanei zeharka bada ere erreferentzia egiten zitzaiela ikusi dugu. Bilintxek, berriz, ez die erreferentziarik egiten haiei. Bilintxen maitasun desioa, aurreraxeago ikusiko dugun bezala, ez zen askotan neskak erantzuna izaten eta, maiz, plano idealean geratzen zen. Eta idealen maila honetan, ez die sexu harremanei aipamenik egiten. "Kanpuan da" bertso sailean, laztanak, bederen, aipatzen ditu, baina ez gehiago: "*Desiatuba nago / etorri deriyen / alegra nariyen; / kontentu biziko naiz / andikan aurrea, / maitetxo neriaren / edertasunera / itxutuba oso; / emango diyozkat, bai, / milla laztan gozo*"[1260].

Pedro Mari Otaño, ez oso urruti, baina harantzaxeago doa: "Beti-betiko"-n, galaiak muxua eskatuko dio damari eta honek eman: "*Galaiak: Mingañez eziñ esan / genezake ori. / Biyotzak aiñ alkartu / zaizkigu biyori, / nola bildu etzaiozkan / len iñori, / petxu batian daudela / badiruri. / Ori egiya izanik… / muxu bat neri / ez al nazu bada emango?". Damak: Tori,tori*"[1261]. "Laztan edo muxurik onena"[1262] konposizioa ere osatuko du Otañok, 1899ko otsailean, Ameriketan dela. Muxu mota desberdinak deskribatuko ditu Pedro Mari Otañok: amak haurrari ematen diona, elkar maite duten bi bihotzek elkarrengana biltzean ematen dutena, maitasunik gabeko musu faltsuak, etab. Musurik onentzat emazteari haurra izan berritan senarrak emango diona izango dela esango digu Pedro Mari Otañok.

Bilintxek gehienetan erantzunik gabe geratzen den maitasuna azalduko digu, aurrera egiten ez duena. Maitasun erromantikoaren ezaugarri berariazko gisa, zuzeneko harremana baino gehiago, maiteminduaren, kasu honetan Bilintxen, uste, burutapen, desioen mailan gehiago mugitzen den maitasuna izango da. Halako batean, Bilintx, neskari sentitzen duena adieraztera ausartzen denean, ezezkoa jasotzen duen maitasuna izango da. Maiteminduaren barnealdean sutsua gertatzen bada ere, neskarekiko kanpo adierazpenetan laburra eta zolia gertatzen den maitasuna da Bilintxena: "*Zerorrek uste etzenubela / egon nitzaizun begira*"[1263] gisako puntuak aurkituko ditugu horrela. Edota sail berean, aurreragoko bertso batean: "*Atentziyua begietara / paratu nizun segiran, / ez dakit zierto begiyak ero /*

[1259] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 465. or.
[1260] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 336. or.
[1261] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 389. or.
[1262] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 11.-13. or.
[1263] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.

*eguzki berri bi ziran; / ondo ikusi ez nizkizun ta / nola esango det zer diran? / Begiratutzen nizun guziyan / bista kendutzen zeniran*»[1264].

"Pozez ta bildurrak" bertso sailaren azken lau bertsoak esanguratsuak dira alderdi horri dagokionez. Bertan, Bilintxek gustukoa duen neskarekin elkarrizketa bat irudiztatzen du, nahiz eta benetan gertatu ez. Izenburua bera esanguratsua da Bilintxek harremana nola ulertzen duen ikusi ahal izateko: neska gustuko izateak pozik sentiarazten du Bilintx, baina beldurrez dago hark berari buruz zein iritzi izango ote duen. Badirudi Bilintxek nahiago duela ezjakinean jarraitu ezetza jasotzera arriskatzea baino. Merezi du elkarrizketa-bakarrizketa hemen jasotzea:

> *"Orrenbeste graziya / dituben meriyo, / arentzako gordia / zenbat amoriyo / biyotzian dakatana / nork kontatu diyo? / Kalian ikusita / esan dit ariyo!*
>
> *Berriz ikusitzeko / egingo det modu, / juango diran baño len / ogeita lau ordu; / ariyo esaten badit / laister entzungo du: / <Nere arratseroko / ametsa, zer modu?>"*
>
> *<Ongi nai ta eziñ izan> / esango dit anbat; / nik erantzungo diyot: / <Noski besteren bat / izango da, sufritzen / dubena zuk ainbat…" / <Zein da, bada? Esazu!> / <Zu nai zinduzken bat!>*
>
> *<Burlaz esaten dezu! / Nork naiko nau ni? Nork? / Aberatsa ez danik / ez du maite iñork>. / Baña nik ordubantxen / erantzungo diyot: / <Zoragarriya, naizu / maita gaiten biyok?>*
>
> *Baietz esaten baldiñ / badit erdi farrez, / erotu egingo naiz / pozaren indarrez; / ezetz entzuten badet / nere suerte txarrez, / itz orrek utziko nau / betiko negarrez!*»[1265].

Etsipen handiagorako motiboa izango du oraindik, neskari proposamena egin eta erantzunik jasotzen ez duenean, ez baiezkorik, baina ezta ezezkorik ere: *"Bañan ikusten zaitut / erantzun nai ezik, / baietzik esan gabe, / ain gutxi ezetzik; / orla gelditutzia / egin bage itzik, / ezin pentsa nezake / dala beste gauzik, / senartzako artu nai / ez nazula baizik*»[1266]. Kasu honetan, aurrez –aurre egin nahi ez badu, neskari erantzuna kartaz emateko eskatuko dio.

Aipagarria da, era berean, eman edo ematen ez den harreman horren inguruan Bilintxek denboraren kontua nola eramaten duen: hainbat ordu elkar ikusi gabe, hainbat egun, aste… Bertso sail ezberdinetan erabiliko duen erreferentzia izango da denbora hori, zain pasatzen duen denbora, kezkati pasatzen duena: *"[…] iñoiz edo*

[1264] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 158. or.
[1265] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 168.-169. or.
[1266] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 261. or.

*bein pasatzen badet / ikusi gabe aste bat, / biyotz guztira banatutzen zait / alako gauza triste bat*"[1267]. "Biyotz erituba" edo "Triste bizi naiz eta" bertso sailean minutuak ere aipatzen ditu: "*Begiyaren aurrian / beti nai zinduzket, / ikusten ez bazaitut / naigabia maiz det; / gogoratu bageko / minuturik ez det, / amoriyoz maitatzen / ez daki nik bestek*"[1268].

Harreman edo ez-harreman hori kalean gertatzen da batzuetan, arestian aipatutako adibidean bezala. Baina erromerietan ere gerta daiteke: "*Beiñ batian Loiolan / erromeriya zan, / antxen ikusi nuben / neskatxa bat plazan; / txoriya bañan ere / ariñago dantzan, / uraxen bai pollita / an pollitik bazan!*"[1269].

Beste bertso sail batzuetan, jasotzen dituen ezezkoen berri esplizituki emango digu. "*Beti nik damari / loriak ugari, / endemas pixka bat / maite naubenari; / damak berriz neri / -gezurra diruri!- / osiñez pagatu / lorezko zor ori*"[1270]. Eta bertsozaleen artean nork ez gogogoratu bere "Ja-jai!" ospetsua? "*<Dama polita zera, / polita guztiz, ai! / Bañan alare zaude / oraindik ezkongai. / Ezkon gaitezen biyok! / Esan zadazu bai!>" / <Ni zurekiñ ezkondu? / Ni zurekiñ? Ja-jai!>*"[1271].

Balizko edo hitzez gorpuztutako ezezko horiek sufrimendua eragiten diote Bilintxi, izan ere, bere ongizatea maite duen damak berarekiko duen nahitasunaren araberakoa izango da. Xalbadorren "aunitz maite duenak aunitz sofritzen du" aurretiaz esperimentatua zuen Bilintxek ere, eta bizi zuen giro erromantikoak sentimendu tragiko hori areagotu egiten zion, gainera. "Maita nazazu arren!" bertso sailean, ugariak dira sufrimenduari erreferentziak[1272]. Honela ematen dio hasiera bertso sailari: "*Biyotzaren erditik / zeruzko dama bat / amoriyoz maite det / eziñ esan ainbat; / sufri arazitzen dit / erotzeko din bat, / artara ekarriko nau / oraindikan anbat*" [1273]. Heriotzerainokoa izan daiteke sufrimendu hori: "*Zoraturikan beti / aren billa nabill, / ura berriz nigandik / igesika dabill; / laister logratuko du / onla banarabill, / biyotzikan gabiak / penaz nai banau ill!*"[1274]. Eta maila apalagoan, negarra eragitekoa: "*Iñon ikusi gabe / sei aste luziak, / beti artaz*

[1267] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 237. or.
[1268] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 270. or.
[1269] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 219. or.
[1270] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 183. or.
[1271] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 220. or.
[1272] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 209.-210. or.
[1273] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 209. or.
[1274] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 209. or. 230. orrialdean jasotako bertso batean, Bilintxek bere buruaz beste egiteko mehatxua egiten dio neskari: "*Miñ abetaz kupitzen / ez baldiñ bazera, / nere buruba nua / betiko galtzera: / Matxo-ra iyoko naiz / andik botatzera, / duben altubenetik / Gaztelu atzera*". Antzeko ideia lantzen du "Izazu nitzaz kupira" bertso saileko azken bertsoan.

*pentsatzen / negarrez pasiak; / begi biyak dakazkit / malkotan asiak, / ez du asko kupitzen / nere oñaziak"*[1275]. Mendeku grina ere badu gainera Bilintxek: *"Baldin gertatzen bada / orrelakoren bat, / zedorri're damubak / ilko zaitu anbat;[…]"*[1276]. Beste kasuren batean, mutilak neskaren baietzik jasotzen ez badu atzerrira joango dela esaten dio eta, Bilintxen hitzetan, mutila Donostian falta zela eta ziurrenik hori egingo zuela esaten digu, Montevideo edo Buenos Airesa joanez[1277].

"Izazu nitzaz kupira" bertso sailean ere, nabarmen ageri du Bilintxek bere bihotzaren mina: *"Nere biyotza urtzen dijua / eta ez da misteriyo: / penaren kargak estutu eta / zumua kendutzen diyo, / begiyak dauzkat gau eta egun / egiñikan bi erriyo, / beti negarra dariyotela / zu zerarela meriyo"*[1278].

"Biyotz erituba" edo "Triste bizi naiz eta" bertso sailean ere ugariak dira Bilintxen sufrimenduaren berri ematen duten bertsoak: *"Triste bizi naiz eta / ilko banitz obe, / badauzkat biyotzian / zenbait atsekabe; / dama bat maitatzen det / bañan… aren jabe / sekulan izateko / esperantza gabe"*[1279]. Eta hurrengo bertsoan: *"Nere biyotz gaxua / penatuba dago, / eziñ egon liteke, / ai!, penatubago; / pasatzen ditutala / aspaldiyan nago / egunak triste eta / gabak tristiago"*[1280]. Bertso saileko bigarren bertsotik hasi eta zazpigarrenera bitartean, bere sufrimendu eta ezinen berri ematen digu Bilintxek[1281]. Hamabosgarrenean ere tonu horrekin jarraitzen du: *"Eziñ bizi zu gabe, / au amoriyua! / Logratzen ez bazaitut, / zer martiriyua! / Ez badezu desio / nere eriyua, / zuregan arkitzen da / erremeriyua"*[1282]. Bilintxek erabiltzen zuen terminologia, neurri batean, erlijiosoa zela ikusiko dugu aurrerago: sufrimenduaz ematen duen ikuspegia ere erlijiotasun mota batetik eratorritakoa edo hari jarraituz eraikia izan daiteke.

Ezezkoak sufrimendua badakarkio, maitearen presentziak, berriz, poza: *"[…] / Nere onduan zauzkatalako / pozez zoraturik nago, / zu ikustiak alegratu nau, / triste neguen lenago"*[1283].

---

[1275] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 210. or.
[1276] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 210. or.
[1277] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 262. or.
[1278] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 239. or.
[1279] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 267. or.
[1280] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 267. or.
[1281] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 267.-268. or.
[1282] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 270. or.
[1283] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 237. or.

## 2.3.3.Ezkontza ez da kezka iturri

Ezkontzari aipamen urriak egiten dizkion bertsolaria dugu Bilintx. Maitasunari gehien kantatu zion bertsolaria, baina, aldi berean, ezkontzari bertsorik egin ez ziona. Alderdi honi begira, badu "Juramentuba" izeneko bertso saila. Aurrekoetan bezala, hemen ere bikote baten harremanaz ari da Bilintx. Zein da juramentu honen objektua? Elkar maitatzea? Ezkontza? Bigarren hori bada, ez da esplizituki adierazten. Baliteke lehenengoa besterik ez izatea. Anbiguotasuna dario konposizio honi. Kasu honetan, bertso multzo bat jasoko dugu gure lanean, izan ere, Bilintxen bertso hauek zentzu narratibo bat ere badute, elkarrizketa forma agertzen dute eta ongi ulertu ahal izateko beharrezko deritzogu kate edo bertso sekuentzia jasotzeari. Jaso ostean, plazaratuko dugu hauen inguruan egiten dugun interpretazioa:

> *"2/Lengo batian, izar berriya, / ongi fortuna nerian, / maite ninduzun galdetu eta / baietz erantzun zeniran; / pozakiñ iya zoraturikan / aditu eta segiran, / beso eskuia estutu nuben / zure gerriyaren jiran.*
>
> *3/Neri begira gelditu ziñan / buruba triste etzanaz, / ni ere zuri begira negon / <Maite neria!> esanaz; / luzaro ala egondu giñan / suspiriyuak emanaz, / biyok elkarren begiyetatik / amoriyua eranaz.*
>
> *4/Ongi penakin askaturikan / zure gerritik besua, / ez zait aztuko nola esan nizun: / <Nere maitetxo gozua! / Zorionaren ekartzallia, / izar amoriosua, / zu adoratzen igaroko det / nere bizitza osua!*
>
> *5/Maite nazula len esan dezu, / berriz esan zazu arren! / Ez naiz entzutez gogobeteko / milla bider esan arren; / nun ta zerubak erabakiya / beste moduz ez dakarren, / denbora gutxi barrun gu biyok / izango gera elkarren.*
>
> *6/Imajiña bat zillarrezkua / kordoi batekin lotuba / begiz aurrian jarri zeniran / kolkotik ateratuba, / zeñetan zegon gurutzeturik / Jaunaren Seme santuba: / <Onen aurrian –esan zeniran- / egizu juramentuba!>*
>
> *7/Faltsiyarikan ez zeguela / nere biyotz samurrian, / proga emango nizun eguna / arkitzen zala urrian, / begiratuba imajiñan ta / belaun eskuia lurrian, / juramentuba eskeñi nizun / Jaungoikoaren aurrian.*
>
> *8/<Fintasunakiñ kunplituko det, / ez da zer egon zalantzez, / denborarikan igaro gabe / gogo txarrezko balantzez; / erakutsitzen baldin badizut / faltsiyarikan mudantzez, / nere biyotza bete dezala / damutasunak arantzez>"*[1284].

Dirudienez, mutilak maite duen galdetzen dio neskari eta honek baietz erantzun. Maitasun agerpen horren ondoren, eta elkarri begira tartetxoa pasa eta gero, mutilak berriro eskatzen dio neskari maite duela esateko eta mutilak, orduan,

[1284] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 177.-179. or.

*"denbora gutxi barrun gu biyok / izango gera elkarren"*. Hori esan bezain pronto, neskak juramentua egiteko eskatzen dio Jesus gurutzatuaren irudi baten aurrean, eta mutilak baita egin ere. Itxura guztia du ezkontza juramentua egiten diola, baina ez da hitza inon ageri. Pello Errota eta Xenpelarren ezkontza tratuei buruzko bertso sailekin konparatuz, desberdintasun handiak nabari ditugu bertso sail honetan. Hala eta guztiz ere, nahiz eta hitza aipatu ez, nabarmena da, neskaren aldetik, garrantzi berezia ematen diola juramentuari, mutilak berriro maitasunari baietza eman dionean.

"Maita nazazu arren!" bertso sailean ere aipamen bat egiten dio ezkontzari, baina hitz hori erabili gabe: *"[…] / maita nazazu bara / nik zaitutan ainbat, / elizan egiteko / biyotz birekin bat!"*[1285].

"Ezkontza" hitza, "Ja-jai!" bertso sailean aurkituko dugu, azken bertsoan. Baina, kasu honetan, ezezkoaren bidetik, eta emandako erantzun moduagatik, mutilak proposatu eta neskak, behintzat, urrun ikusten duen elementu gisa agertuko da: *"<Dama polita zera, / polita guztiz, ai! / Bañan alare zaude / oraindik ezkongai. / Ezkon gaitezen biyok! / Esan zadazu bai!> / "Ni zurekiñ ezkondu? / Ni zurekiñ? Ja-jai>"*[1286].

"Zenbait damaren esker txarra" bertso sailean ere aurkituko dugu ezkontza hitza, kasu honetan, neska bati hordagoa jotzeko: *"Nik esan ta zuk jakiñ / biazu ezikan; / lau andregai dakazkit / artu nai ezikan; / ezkonduko nitzake / gaur bertan kasikan, / besterekiñ ez bañan / zurekiñ pozikan!"*[1287].

"Itzazu nitzaz kupira" bertso sailean, berriz, zortzigarren bertsoan, mutilak neskari, Bilintxek bere maiteari?, berarekin ezkondu nahi duen galdetzen dio. Galdera honen ostean, bederatzigarren bertsoan, beste baten ahotan, hona zer dioskun: *"<Ezkondutziak izan biar du / preziso gauza txarren bat!> / Ala esaten ari zait beti / nere konsejatzalle bat; / alaxen ere aren esanak / oso utzirik alde bat, / ongi pozikan artuko nuke / zu bezelako andre bat"*[1288].

"Neskatxa bati mutill batek jarriak" bertso sailean, ezkontza eta konpainia jartzen ditu harremanetan: *"Aguro ezkontzeko / dakat animua, / bakarrik aspertu naiz, /*

[1285] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 210. or.
[1286] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 220. or.
[1287] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 228. or.
[1288] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 239. or

*biat arrimua; / obran zurekiñ jarri / nai nuke asmua, / bara, zumo gozodun / marrubi umua, / zu nere miñarentzat / zera balsamua*"[1289].

"Dama ta galaia" bertso sailean ere aipatzen du ezkontza, baina bertsoaren azken puntua osatzen duen hil arterainoko maitasunak hartzen du toki berezia: *"Konformatutzen bazera, / laster ezkonduko gera, / ez galdu orlako era; / biyok munduban / bizi-moduban / artutzen badegu parte, / asnasiak iraun arte, / jakiñian gera zaite, / nik izango zaitut maite*"[1290].

Ondasunei erreferentzia bikote harremanari eta ezkontzari lotuz, behin baino ez die egiten Bilintxek, "Galaia eta dama" bertso sailean, hain zuzen ere. Zein eratako ondasunak aipatzen ditu, eta zein eratan? Gure ustez, burla gisakoa egiten du Bilintxek ondasunak aipatzerakoan. Klase guztietakoak eta kantitate handitan aipatzen ditu: sei bertso eskaintzen dizkio gai honi, hamabostetik. Jar dezagun, adibide gisa, lehenengoa: *"Millaka ditut ardiyak, / larogei ta lau ariyak, / mardulak eta guriyak; / zezen eta bei / berreun ta ogei, / sei eun eta bost iriyak; / baitare soro aundiyak, / belar ugariz jantziyak, / mantendutzeko guziyak*"[1291]. Ganaduaz gainera, urrezko "kurpillak", janaria eta edaria nahi adina, denda onenetan erositako jantziak, "alajak", eta inguruan eros zitezkeen arropa eta bitxiak gustukoak ez bazituen, Donostiara eta Frantziara ere joango omen ziren gustukoak erostera.

## 2.3.4.Erabiltzen duen hizkuntza

Erlijioari lotutako hitzez adierazitako maitasun idealizatua eta, aldi berean, lurtarra: zenbatetan ez ote ditu Bilintxek emakumeak aingerutzat izendatu? *"Andik urrena ipiñi nizun / erreparua petxura, / ordubantxen bai eman nizula / aingeru baten itxura*"[1292] , edota bertso oso bat eskainiz: *"Graziyazko aingeru / adoragarriya, / Jaunaren ondotikan / egan etorriya, / zerubak egintako / milagro berriya, / gloriyaz bete dezan / Donostiko erriya!*"[1293], edota "Biyotz erituba" edo "Triste bizi naiz eta" bertso sailean: *"Aingeru zoragarri, / mirabe laztana*"[1294]. Sail berean, hona: *"Anima*

[1289] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 260. or.
[1290] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 279.or.
[1291] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 280. or.
[1292] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.
[1293] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 167. or.
[1294] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 269. or.

*tristurakiñ / añ dakat negarti, / nun egiñ al dezaken / arriya bi parti, / adorantzak ematen / -belauniko beti!- / biyotzian daukatan / imajiña bati"*[1295].

Edota emakumeak aipatuko ditu, Jaungoikoarengana iristeko bide: *"Izarrak dirurite, / aiñ ditu argiyak, / aingerubak zerutik / jetxita jarriyak, / gloriyan egintako / ispillu garbiyak, / Jaungoikua badala / gogoragarriyak"*[1296].

Eta naturako elementuekin ere konparatuko ditu Bilintxek emakumeen hainbat ezaugarri: *"Atentziyua begiyetara / paratu nizun segiran, / ez dakit zierto begiyak ero / eguzki berri bi ziran"*[1297]. Kasu honetan, begiak eta eguzkia konparatzen dizkigu. Edota ilea eta zeta: *"Ile beltz eder dizdizariya / oparo dezu buruban, / konparatzeko baliyo duben / sedarik ez da munduban;*[1298]". Aurreko orrialdetan ere ikusi dugu begien urdintasuna itsasoarekin eta zeruarekin nola konparatzen zituen, edota begiak eta izarrak.

"Beti zutaz pentsatzen" bertso sailean, bestalde, honako konparaketa jasotzen du: *"Dama gazte bat ezagutzen det / diruriyena izarra, / eguzkiyari kopetetikan / saltatutako txingarra; / biyotz nerian ala piztu da / amoriyozko su-garra, / nola mendiyan piztu lezaken / tximistak arbol igarra"*[1299].

"Zenbait damaren esker txarra" bertso sailean, berriz, hainbat lorerekin erkatzen du bere maitea: *"Zeiñ-ta politak diran / arrosa, jazmiña, / azuzena, liriyo / eta klabeliña, / danak bat egiñta're / ez dirade diña / igualatzeko nere / maite atsegiña"*[1300].

Eta nola ez aipatu bertsozaleontzat hain ezagun diren honako konparaketak: *"loriak udan intza bezela, / maite det dama gazte bat"*,[1301] *"Neskatxa gazte pare gabia, / apirilleko arrosa / izarra beziñ dizdizariya, / txoriya beziñ airosa;"*[1302], *"Ez al dirazu antzik ematen / nik zaitutala naiago, / ai, mariñelak gau illunian / izarra baño geiago?"*[1303], *"[…] / eguzkirikan ikusi gabe / txoriya egoten da triste, / ni ez nau ezerk alegratutzen / zu ikustiak ainbeste"*[1304], *"[…] zu baziñake arbola eta / ni baldin*

[1295] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 268. or.
[1296] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 185. or.
[1297] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 158. or.
[1298] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 158. or.
[1299] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 213. or.
[1300] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 227. or.
[1301] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 237. or.
[1302] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 237. or.
[1303] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 237. or.
[1304] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.

*banitz txoriya, / nik zu ziñaken arbol artantxen / egingo nuke kabiya"*[1305], *"[…]Alaxen ere nigana eziñ / bigundu zaitut iñola, / ni zuretzako argizaia naiz, / zu neretzako marmola!"*[1306]. Erreferentzia horiek guztiak "Loriak udan intza bezela" edo "Izazu nitzaz kupira" bertso sailari dagozkionak dira.

Erreferentzia kultuak ere erabiliko ditu bere lanetan, Grezia eta Erromako mitologiako jainko-jainkosak aipatuz: *"Oso nago mendian / jaungoiko itxubaren, / ama Venus-engandik / jaiotakoaren; / neroni ez naiz jabe / nere biyotzaren, / gaxua preso dakat / amoriyuaren"*[1307]. Kupido eta Venus aipatzen dizkigu adibidez bertso honetan. Eta bertso sail berean, pixka bat aurrerago: *"Cupido-k eritzen nau / fletxakin berriro, / neregana jiratzen / dituben aldiro; / biyotzera sartzen zait / eztiro-eztiro / amoriyotasun bat / gozua guztiro"*[1308]. Minaren eta plazeraren arteko konbinazioa agertzen dizkigu hemen Bilintxek, berriro ere, forma zoli edo finean.

## 2.3.5.Pedro Mari Otaño eta maitasuna. Familiaren idealizazioa eta familiari lotutako kontzeptuen transignifikazioa

Maitasun gaiak Pedro Mari Otañok ere kontuan izango ditu bere lanetan. Bilintxengandik hurbil ibiliko da Otaño, gaiari heltzeko orduan eta moduan. 1895eko "Larriya" hitz neurtuzko erromantza lanean[1309], erlijioari eta naturari lotutako hizkuntzaz hitz egingo du Otañok ezinezko maitasun bati buruz: *"Adoratutzen zaitut, / ume zoragarriya, / belauniko zugatik / emen nago jarriya. / Atoz, munduko illunkentzallle, / izar argiya; / atoz kentzera, maitea, / nik daukadan larriya"* [1310] . Gaixorik eta hilzorian dagoen galaia da hitz egiten duena. Sufrimendua, beraz, areagotua ageri da hemen.

"Maitaro" izeneko lanean ere, antzeko kontuak ageri ditu. *"Izan zaite nitzaz / erruki, / ez beti penatzen / eduki. / Beti, beti… / Zenbat gau eta egun / pentsatutzen zugan!... / Biotza / erretzen / dadukat / nik suban… / Nere biotz gaxua / puska bat zugana / dijoa, maite laztana. / Esan zaidazu itz alaiez; / Baietz, baietz…"*[1311].

---

[1305] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.
[1306] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 239. or.
[1307] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 183. or.
[1308] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 185. or.
[1309] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 425.-426. or.
[1310] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 425. or.
[1311] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 467. or.

"Eder bati" izeneko konposizioan, berriz, *"biyotza bi parti"*[1312] egingo zaio Pedro Mari Otañori, Bilintxen "Biyotz erituba"n arimaren negarrak *"arriya bi parti"*[1313] egiten zuen bezala. Edota "Artzai-mutilla" operan, *"Zu gabetanik eziñ liteke / iñon pozik izatea"*[1314] pentsatuko du Patxikok, Bilintxek "Izazu nitzaz kupira"n *"zu gabetanik ezin bizi naiz, / esaten dizut egiya;"*[1315] zioen bitartean.

Azkena aipatutako bi kasu horiek ez dira bertso sailak, bestelako konposizioak baizik, hitz neurtuetan emanak, baina bertsoen ez ohiko neurriei jarraituz. Miguel Oñatek konposatutako musikaz lagunduta interpretatzeko ziren, gainera. Hauetaz gainera, lehen ikusi bezala, Pedro Mari Otañok bi opera ere egingo ditu eta, horietan, maitasun gaia, besteak beste, presente egongo da. "Artzai-mutilla" du batek izenburua eta "Lora" besteak[1316].

"Artzai-mutilla" operaren kasuan, maitasun istorio bat kontatzen digu Pedro Mari Otañok[1317]. Patxiko artzain mutilak eta Maritxu artzain neskatilak elkar maite dute. Operan ageri diren Patxikoren aita Peruk eta Maritxuren ama Josepak ontzat ematen dute maitasun hori. Maitasun harreman horren erdian sartuko da Inazio, etxeko jauna. Honek ere maiteko du Maritxu: bere ondasun eta lurrak eskainiko dizkio, baina Maritxu ez da hauengatik itsutzen utziko eta Perugatik sentitzen duen maitasunari eutsiko dio. Maitasun istorio honetaz gain, guda hotsak eta bakerako deiak ere tartekatzen dira istorio honetan: euskara eta foruen galera dago tartean, erdaldunen "erasoa" eta gobernuaren lan txarra. Hirugarren hari bat ere, lehen erdizka aipatua, ageri da: pobre eta aberatsen arteko aldea eta desberdintasunak. Operak hiru ekinaldi ditu eta aipatutako pertsonaien kantuez gain, korua ere ageri da kantuan.

Pedro Mari Otañok "Artzai-mutilla" operan maitasun kontuez hitz egiteko erabiliko duen tonua eta hizkuntza Bilintxek erabilitakoengandik gertu izango da. Hona adibide bat: *"Zeru gañetik lurreratu dan / aingeru ego-txuriya, / Jaungoiko onak munduagatik / egindako mirariya; / gorputz liraña, begi iztunak, / arpegi zoragarriya, / argien argiz itsutzen nauan / eguzki dizdizariya"*[1318]. Batetik, terminologia erlijiosoa erabiltzen du bere maiteaz hitz egiteko eta, bestetik, hainbat ezaugarri fisikoren –gorputzaren liraintasuna, begiak, aurpegia- gorespena egiten

[1312] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 38. or.
[1313] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 268. or.
[1314] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 206. or.
[1315] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 238. or.
[1316] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 206.-322.or.
[1317] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 206.-244. or.
[1318] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 206. or.

du. Azkenik, naturako elementuen aipamena erabiltzen du maitearen edertasuna agertzeko. Hurrengo bertsoetan, Patxikok, bakarrizketan, bere maitearen ezaugarriak deskribatzen eta goratzen jarraituko du. Pixka bat aurrerago: *"Far-irri leun jostalariyaz / azaldutzean ortztxuak, / ta gero entzun bere bozaren / eztitasun aiñ goxuak, / arriturikan ixiltzen dira / birigarro ta xoxuak, / eta kolkotik irten nai luke, / ai, nere biyotz gaxuak!"*[1319]. Zenbat aldiz ez ote zen egon Bilintxen bihotza horrelaxe petxutik atera beharrean?

Pedro Maria Otañoren kasuan, beste elementu bat ere azpimarratu behar dugu. Nahiz eta landa eremuko familiari dagokion atalean behin baino gehiagotan bere bertsoei erreferentzia egin, bikote harremanari dagokionez, aukera askatasunari egingo dio erreferentzia esplizitua. Ikus honako bertsoa: *"Jauregi eder gaiñ-gañekoan / zauten aur bedeinkatuak, / adi itzatzute gure promesak, / eresi eta botuak; / ona emen bi biotz libreak / pozez alkarganatuak, / amoriozko kate santuaz / beti-betiko lotuak"*[1320]. Aingeruen aurrean ari dira maitasun promesa egiten. Bi bihotz libre gisa aurkezten dituzte beren buruak: euren maitasunean ez dute, beraz, hirugarren pertsonek agintzen, ez gurasoek, ez bestelako ahaideek. Horretaz gainera, lehenago ikusi dugun bezala, ondasunek ere ez dute eraginik izango euren maitasunean.

Ezkontzaren oinarriak maitasun librea izan behar duela dio Otañok, Patxikoren aita Peruren hitzetan : *"Zuk Maritxuri nai diozula / ikusitzen det, fiñ ta onradu. / Bañan zertako, berak zugana / amoriorik ez baldin badu? / Baldiñ ezkondu ta emaztea / badago penaz eta negarti, / premirik gabe doakabeak / zerate oraiñ, gero ta beti"*[1321].

Baina Otañok, Bilintxen emakume ereduaz gainera, beste emakume eredu bat ere azalduko digu "Artzai-mutilla" operan. Hona:

> *"Bañan Lekobideren / alabaren gisan / emakume euskaldunak / bear luke izan: / Lartaun-en emaztegai / Onintza ederrak / azkonak zorroztutzen / laguntzen zion berak; / ta ala berean guk / bear degu egiñ, / Euskal-erri maitea / libre izan dediñ"*[1322].

Emakume borrokalaria da, gizonari borrokarako prestatzen lagunduko diona. Maritxuk berak ere egiten du euskal emakumearen deskribapena: *"[…] Andre euskaldunaren / jatorriya izan, / eta aztu al zaizu / zure ama zein zan? / Emakume*

[1319] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 207. or.
[1320] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 210. or.
[1321] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 240. or.
[1322] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 220. or.

*euskaldunak / maitatzen du benaz, / eta ukatu baño / len illko da penaz, / zergatik naitasuna / biotzean dauka, / eta au ez da saltzen / urrearen truka. / Ez da aiñ sustraitua / Erniyoko aitza, / nola dan guk benetan / emandako itza. / Gure amorioa / jakin zazu dala / itsasoa dan beziñ / aundi ta zabala. / Alperrik da losintxan / iñor ibiltzea, / zergatik naigo degu / goseak illtzea, / ezeztatu baño len / juramenturikan, / eta nik Patxikori / daukat egiñikan. / Nola itz'eman nion / maite detan bati, / beretzat izan nai det / beti, beti, beti"*[1323].

"Ernani" bertso sailean, lehenagokoa izanik, emakume euskalduna ageri da, seme euskaldunen ama izango dena: *"Ernaniko alaba / eder ta txukunak, / zubek zerate egi- / azko euskaldunak; / oraiñdikan zautenak / aiñgeru kutunak, / gero izan zaitezte / andre t'ama onak, / beti sortu ditezen / seme biyotzdunak"*[1324].

Otañok familiaz ari dela ateratzen duen beste gaietako bat jatorriarena da. "Lora" operan, berak ez dakiela, Lora bera, protagonista nagusia, gurasoen hilotzen aurrean aurkitutako haurra izaki, Gaintzak alabatzat hartua izan zen. Operan agertzen diren pertsonaien artean, bi joera agertuko ditu Pedro Maria Otañok: batetik, Loraren ezaugarri horri garrantzia emango diotenak eta, horregatik, negatiboki epaituko dutenak, eta, bestetik, horri garrantzirik emango ez diotenak.

Negatiboki epaituko dutenen artean, nortzuk eta nola egingo dute hau? Agirik, adibidez, inbidia izango dio Lorari eta *"sasi-txermena"* deituko dio, *"[…] Aitik ezagutu ez dubena, / t'ama zein duben ez dakiyena"*[1325]. Kontu honekin Aldunengana, etxe oneko seme eta Lorarekin hitzemana dagoenarengana joaten denean, Aldunen erantzuna gogorra izango da. Bere izen ona zalantzan jarria ikusiko du Lorarekin duen harremanarengatik, eta honen kontra hitz egiten hasiko da:

> *"Mendakaturik utzi bear dut / oinbeste pena ta lotsa, / ill bear badut illko naiz baño / egiñik len eriotza.*
>
> *Nere izen garbia / loiturikan dena / utzitzea da noski / emen nai dutena.*
>
> *Atozte subak eta / beroko indarrak, / purrukatu nai ditut / korapillo txarrak; / atozte ta ikusi / zazute, baztarrak, / nola txokoratutzen / ditugun zakarrak, / garbi jaio giñaden / napar menditarrak"*[1326].

[1323] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 242.-243. or.
[1324] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 399. or.
[1325] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 303. or.
[1326] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 307. or.

Aldun Lorarengana joan eta bere aurrean esango dizkio hitzok: *"Sasikume bat, ait'amik gabe, / gezurretan da losintxan / ni atzipetzen ibilli zera. / Zertan ez egiya esan?"*[1327]. Lorak, ordea, ez daki ezer, eta harriturik eta beldurturik geratzen da Aldunen hitz eta jarrerarekin. Aldunek jarraitu egiten du, ordea: *"Emakume txuriska, / aski da gezurrez, / on itxuran zabiltza / naitasun laburrez, / baztandar onradu bat / atxitzeko ustez. / Zergatik etzirazun / esan alde aurrez / izengaña zer dezun / ta nor zeran legez?"*[1328]. Barrengo harra duela, salkin edo traidorea dela, gezurtia, halakoak eta gehiago esango dizkio Aldunek Lorari. Aldunek Lorari buruzko kontuok herrian zabalduko ditu, gainera.

Gaintza aitak Lorari bere jatorriaren egia adieraziko dio. Bere gurasoak, herrikoak ez ziren bi arrotz, larrean hilda aurkitu zituzten eta, ondoan, Lora txikia, jolasean, zer gertatzen zen ohartzen ez zela. Gaintza epaile eta apaizarekin joan eta neskatoaren kargu egin zen. Gaintzak Lorari, nahiz eta jatorriz bere alaba izan ez, maitasun osoa dio: *"[…] aita baten biotza / zuregan daukazu; / ta, gaizki egin badet, barkatu zaidazu"*[1329]. Lora, bere jatorriaren egia ezagutzen duenean, hildako gurasoei eta horiek hil ostean onartu zuten "herriari" zuzentzen zaio: *"O, nere biotzeko / aita eta ama, / umezurtz au utzi ta / Jainkuagana / joan ziñatenak! / Ona zuen alaba / jaso zutenak / Euskal-erriyan, / miñ guztiyak gozatzen / diran tokiyan, / pozkidatuba. / O, jende leiala ta / lur maitatuba! / Izan dedilla beti / bedeinkatuba!"*[1330].

Operaren bukaeran, ustez Gainzaren seme eta alaba eta euren artean anai-arreba zirenak, Araz eta Lora, egiaz hala ez direnez, eta Arazekin hitzemana zegoen Agiri Lorarekin hitzemana zegoen Aldunekin dabilenez, elkartu egingo dira biak. Arazek Lorari betidanik izan dion maitasuna aitortuko dio, aurretik, Gaintza aitak, bere onespena azaldu ondoren. Gaintza aitak honela esango dio bikoteari: *"Jaungoikoak zuentzat / zeuzkan gordian / pozak ainbeste; / nola biyak zaudeten / libre ta gazte, / izan zaitezte / anai-arreben ordez / senar-emazte"*[1331]. Bai Arazek eta bai Lorak elkar maite zuten txikitatik, baina maitasun hura anaia-arreben artekotzat hartzen zuten: egia jakinik, maitasun hura senar-emazte artekotzat egingo dute.

Pedro Mari Otañok bikote harremana eta ezkontza ondasunekiko loturatik askatzeaz gainera, jatorriarekiko –abizenekiko- menpekotasunetik ere askatuko ditu. Herriari, Euskal Herriari emango dio honek famili zabalagoaren izaera.

---

[1327] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 309. or.
[1328] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 310. or.
[1329] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 316. or.
[1330] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 317. or.
[1331] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 320. or.

Horretan lagunduko dio familiari eta hau osatzen duten kideei buruz egingo duen idealizazioak. Lehenengo eta behin egingo duena familiaz izan zuen esperientzia idealizatzea izango da, hau da, alderdi eta esperientzia positiboak batez ere azpimarratzea. Ondoren, familiari lotutako kontzeptuei esanahia aldatuz nola joango den ikusiko dugu: euskarari eta Euskal Herriari buruz hitz egiteko erabiliko ditu. Lehenengo idealizazioak, beraz, transignifikazioari irekiko dio bidea. Laugarren atalean ikusi ahal izango dugun bezala, Pedro Mari Otañoren kasuan oso garrantzitsua izango da prozesu hau identitate kolektiboaren eraikuntzarako.

Pedro Mari Otañok, "Amets bat" izeneko konposizioaren hasieran, familiari egiten dio aipamena, bereziki amari eta aitonari: "*Ni jaio nintzan Euskal-lurreko / leku pozgarri abetan / eta euskera irintsi nuben / lenbiziko asnasetan, / amak siaskan nedukanian / edo bere besuetan, / kontu politak esanaz beti, / kantatuaz batzubetan / geren aitonak moldatutako / itz neurtu ta bertsuetan*"[1332]. Bereziki interesgarria gertatzen da aitonari egiten dion erreferentzia, familia tronkalaren berariazko ezaugarri baita hiru belaunaldien arteko harreman eta elkarbizitza.

Bertsoen hasieratik lotzen ditu Pedro Mari Otañok hauek euskararekin. Bertsoek aurrera egin ahala, nabarmenagoa gertatzen da hori oraindik. Horregatik, laugarren atalean helduko diogu berriro sail honi.

Konposizioak aurrera egin ahala, zein amets[1333] izan duen kontatuko digu Pedro Mari Otañok. Amets honek bi zati nagusi izango ditu: batetik, gurasoekin aurkitzea eta, bestetik, gurasoekin dela, bigarren ametsa, ametsaren barruko ametsa, amona zahar baten itxuran pertsonifikatutako euskararekin izandako elkarrizketa[1334]. Lehenengo ametsaz, horra: "*Amets eragiñ ziran / neukan desiuak, / non artu ordurako / arrats artan luak, / beriala zabaldu / zizkiran eguak, / eta lagundurikan / betiko leluak, / ixtanpatez igaro / nituben leguak, / mendi eta zelaiak, / tontor ta zuluak, / legor eta bustiyak, / ur ta itsasuak, / laño eta odaiak, / erri ta basuak, / batere neke gabe / egiñaz pausuak, / neretzat bire denak / ziran erosuak; / inbiriya ziraten / aideko usuak, / atzian gelditutzen / ziran balazuak, / ta etziran segitzen / tximistaren suak; / eziñ busti ninduben / euri erasuak, / aitu ziraden traba / eta arazuak; / urruti egon arren / nere gurasuak, / Amerikan zabaldu / orduko besuak, / biyen tartian artu / nituben gaxuak. / Nik: -Ama!... Aita!... Amatxo!! / Amak: -Nere seme!!... Semetxo!! / Nere besuetan…o!! Amak: -Ai! Eutsi, nere xeme… / Muxu bat,*

[1332] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 339. or.

[1333] Pedro Mari Otañoren bertsoak izaki, gogoan izan errealitatea eta idealizazioa elkarri eskua emanda –bereizteko modu zailean- etorriko zaizkigula.

[1334] Honetaz laugarren atalean mintzatuko gara.

*onlaxe: / Má, má! Berriz ere bai / má! / Aitak: -Mutill, emen aiz? Nola ago? / Len bezelaxe…*"[1335]. Semearen eta ama eta aitaren arteko harremana da hemen ageri zaiguna. Harreman goxoa, maitasun handikoa, denbora luzean elkar ikusi gabe egon direnak berriro topo egiteak dakarren poza azpimarratzen duena. Semea nekatua egongo dela eta, gorputzari kasu egin eta ohera bidali nahi du amak: *"Nik egiñgo nizkikek / millaka galdiak, / nekatuba ez baldiñ / baeuka biriak, / bañan nola egongo / aizen logaliak, / ondo gobernatuta / oiera joan biak. / Denak lotan zioztik / ire senidiak, / i ezkeroztik sortu- / tako landariak; / bigar gonbidatuko / dizkiyat aidiak / eta ingurumari- / ko adiskidiak; / pobre izan arren ez / gaituk eskaliak, / zer jana bazedukak / gure sukaldiak;"*[1336]. Berriro ere garbi ageri zaizkigu senideak –anai-arrebak lirateke- , ahaideak eta lagunak. Horra landa eremuko oinarrizko gizarte egitura nola antolatzen den.

Modu berean, "Aitona eta illoba" izeneko konposizioan[1337], familiari dagozkion zenbait elementu erabiliko ditu gero hizkuntzaren, euskararen erabilerarekin, lotzeko. Bertso sail honen azterketa, beraz, bi ikuspegitatik gertatzen zaigu aberasgarri: familiaz hitz egiten duenean nola egiten duen ikusteko, eta elementu hauek hizkuntzari lotuta nola erabiltzen dituen ikusteko. Familiaz hitz egiten duenean, hala ere, nahiz eta errealitatetik abiatu, kontuan izan behar dugu ez duela izen-abizendun pertsonaz hitz egiten, ez familia zehatz batez: orokortzen eta neurri batean idealizatzen ere ari da Pedro Maria Otaño. Zentzu horretan, Pello Errotak eta Pedro Maria Otañok agertzen dutena, nahiz eta oinarrian abiapuntu beraz aritu, ez dira gugana modu berean iristen: eguneroko errealitate zehatzari lotuagoa dago Pello; Pedro Mari, berriz, ereduak eta ikaskizunak osatzen saiatzen da.

Esanak esan, hala eta guztiz ere, esanguratsua da Pedro Mari Otañok "Aitona eta illoba" izenburuarekin bertso saila osatzea. Zein eratako harremana da hauena? Elkarrekin bizi diren aitona-ilobak dira Pedro Mari Otañok deskribatzen dizkigunak*: "Aita batek semea / zenbat maite duan / argiratzeko itzik / ote da munduan? / Bañan aitona on bat / illoben onduan, / etxean, atarian, / oian, otorduan*[1338]*… / Maitetasunak ez du / izenik orduan"*[1339]. Harreman biziberritzailea da ilobaren eta aitonaren artekoa, eta aitonak ilobari onartu egiten dizkio semeari onartuko ez lizkiokeenak. Lehenengo eta hirugarren bertsoa dira horren erakusgarri:

---

[1335] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 341. or.
[1336] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 343. or.
[1337] GOURDON, V.: *Histoire des grands-parents.* Paris: Perrin Ed., 2001.
[1338] URRUTIKOETXEA, Jose: *En una mesa y compañía,* op. cit. "Otorduan" hitzaren erabilerak erreferentzia zuzena egiten dio Jose Urrutikoetxearen liburuaren izenburuari.
[1339] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 474 or.

> *"Esaera zarra da / gizona zartzean, / eta bere semeak / guraso jartzean, / gero illobatxoak / bereganatzean, / aiton buruzurien / sallean sartzean, / berriz arkitzen dala / gazteen antzean.*
>
> *[…]*
>
> *Jaio balitz bezela / seme bat bi aldiz, / aitonak illobari / aiñ naitasun aundiz / begiratutzen dio, / ta beti par-irriz; / pozkidaz betetzen da / aren gaiztakeriz, / esanaz: "Ondo dago; / egiñ zazu berriz"*[1340].

Aita, semea eta iloba, hona harreman patrilineala garbiro azpimarratua bertso hauen hasieran.

1899ko "Zugandik urruti"[1341] konposizioan ere gurasoak ditu aipagai Pedro Maria Otañok. Edukia aztertzen hasi aurretik, bi gauza izan behar ditugu kontuan: batetik, noiz egina den, hau da, 1899an, Pedro Mari Otaño hirugarrenez Ameriketara joan zenean. Urte hartarako, Otañoren lanek zuten lanketa handia zen. Bere bertso produkzioaz hitz egin dugunean esan bezala, hiru aldi, behintzat, bereizten ditugu bere bertsogintzan. "Zugandik urruti" hau hirugarren aldiari dagokio. Errealitatearekiko distantzia eta lanketa bere gorenera iritsiko da hirugarren aldi horretan, nahiz eta errealitateak abiapuntu izateari sekula utziko ez dion. Eta kontuan hartu behar dugun bigarren elementua, bertso hauek tenor eta baritono batek abesteko sortutako konposizio musikatua zirela; bertsogintza arruntetik haratago doaz, beraz. Horiek guztiak kontuan izanik, zer nolako ikuspegia ematen du Pedro Maria Otañok bere gurasoei buruz?

> *"Gaztea negon ta beregana / deitzen ziran itsasoak, / utzi nituen aita ta ama, / zartutako gurasoak.*
>
> *Baserri txuri maitean biak / negarrez urtzen gaixoak, / geroztik beti aruntz begira / zabalik dauzkat besoak.*
>
> *Aita, amatxo ta lur maitea / utzirik urruti junak; / zertako ditut ugaritasun / eta aberastasunak?*
>
> *[…]*
>
> *Zu utzitzean, nere biotza / egin zitzaidan bi parti; / geroztik non-nai arkitutzen naiz / doakabe ta bakarti.*

[1340] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 474. or.
[1341] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 14. or.

> *Esna ta lotan, gau eta egun, / zutzaz oroitutzen beti; / Ama, barkatu! (bis) / Ni eziñ neike bizi / zugandik urruti"*[1342].

Azpimarratzeko hainbat elementu aurkitzen ditugu hemen. Batetik, egiten duen tipifikazioa: guraso zaharrak atsekabeturik baserri zuriaren [1343] aurrean. Ameriketara doan seme edo alabaren arrazoiak zeintzuk diren ere zehazteke geratzen dira, eta gordinak izan daitezkeen arrazoiak (pobrezia, gerra, etab.) ezkutaturik geratzen dira horrela. Bestetik, aita, ama eta lurra[1344], gurasoak eta lurra nola lotzen dituen ere esanguratsua da: maitasuna die gurasoei baina baita lurrari ere, eta elkarri loturik ageri dira, gainera. Bukatzeko, maitasuna amari, baina uler daiteke, orobat, maitasun hori lurrari ere badagokiola, lurra amatzat ere baduela neurri batean, edo bata bestearen tokian jar dezakeela, arazorik sortu gabe.

1900. urteko urtarrilaren 2an idatziak dira Pehuajón[1345] "Aita-semeak"[1346] bertso saileko bertsoak. Bertan, aitak semeari Ameriketara joateko prest dagoela emandako aholkuak jasotzen dira: gurasoak ez ditzala ahaztu, erlijioari eutsi diezaiola, jaioterriko mendi eta basoak eta euskarazko errezoak ere gogoan hartu ditzala. Azkeneko bertsoan, *"izan zaitez non-nai ta / beti euskalduna"* puntuarekin bukatzen du. Aurrerago helduko diogu berriz sakonago sail hori aztertzeari[1347].

1904an idatzitako "Amatxo laztana" bertso sailean, berriz, ama izango du gogoan Pedro Mari Otañok[1348]. Amagandik urrutira egotea da min ematen diona Pedro Mariri, eta aldi berean, ama gehiago estimatzera eraman duena:

> *"Seme maite bat bere / amaren onduan, / anbat ez da oroitzen / zeñekin daguan; / argandik urrutira / joaten dan orduban, / gogoratzen da amak / zer baliyo duban.*
>
> *Ama, ona seme bat / urrutira joana, / ama gabe iñola / ezin bizi dana; / Ama, zuk badakizu / maite zaitudana, / ama, barka zaidazu, / amatxo laztana!"*[1349].

Aztertu egin beharko genuke 1904. urtean zergatik idatzi zituen Pedro Mari Otañok bertso horiek. Ama 1879ko abenduan hila zuen, aspaldi, beraz. Zalantza sortzen zaigu berriro ea ama biologikoaz ari den, edota jaioterriaz.

---

[1342] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 14.-15. or.
[1343] 1862an Urruñan jokatutako koplarien guduetan Elissamburuk aipamena jaso zuen "Nere etxea" lanarekin: "Etxe ttipitto aitzin zuri bat" zen hura.
[1344] Baserria eta etxea, bizileku eta giza talde dira.
[1345] Buenos Airesko probintziako hiri bat da Pehuajó, Buenos Aires hiriburutik 365 kilometrora dagoena. 1883an sortua da.
[1346] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 48.-49. or.
[1347] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 49. or.
[1348] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 111. or.
[1349] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 111. or.

Honetaz aurrerago hitz egingo badugu ere, familia deskribatzeko erabiltzen den terminologia beste gai batzuetarako ere erabiliko du Otañok[1350]. Hizkuntzari lotuta, arestian aipatu dugun legez, baina baita lurralde eta herriei lotuta ere. Trenean Tolosara hurbiltzen ari direla, horra Luzio eta Eujeniok zer dioten: *"Aurki Aralar atzian utzi / ta Tolosan gera laster, / alderatutzen ari gerade / gure Jainkuari esker; / ara or gure Paradisua / ama on bat beziñ eder, / bildurrez nago pozaren pozez / egiñgo ote deran ler"*[1351].

"Seme" izaera ere erabiliko du Pedro Maria Otañok familia biologikoaz haratagoko harremanak izendatzeko, "Aitor-en semeak eta Erroma" konposizioan, adibidez: *"Euskal semeak jaso ditzagun / biyotz elkartubak gora, / eta lenbailen bildu gaitezen / denok elkarren ondora; / berriturikan Lekobideren / eta Lartaunen denbora, / igoko gera gure gaztelu / betiko dan Erniyora"*[1352]. Eta pixka bat aurreraxeago: *"Deitu ditzagun maitetasunez / euskaldun seme jator guztiyak, / elkarganatu gaitezen onez / utzirik lengo zapuzkeriyak"*[1353]. Bertso sail horretan, Euskal Herria ama gisa ere irudikatuko du. Bertso batean *"Ama, zutitu zaitez / ta semeai deitu,"* esango du eta, hurrengoan, paralelismoa erabiliz, *"Gora Euskalerriya / ta semeai deitu"*[1354].

"Artzai-mutilla" operan, guraso eta seme-alaben arteko harremanak ere agertzen ditu Pedro Mari Otañok. Kasu honetan, zahartuta dagoen aitak semea eta amak alaba nola estimatu eta zaintzen dituzten erakutsiko du. Hau da, buelta emanez gero, seme-alabek gurasoei zein eratako onurak dakarzkioten azalduko digu. Josepa ama zaharrak honela esango du: *"Zarrak aldapa igarotzeko / bero gogorra da au, Peru, / bañan zer egingo degu! / Gure gazteak zer jango dute / ekartzen ez badiegu? / Onak dira ta merezi dute, / poz orixen badaukagu"*[1355]. Eta Peru aita zaharrak: *"Pobre izanik, aberastasun / aundiak dauzkagu biyok, / seme-alaba obeagoak / ez litzake izan iñork. / Ai, zer biduna egiñgo luteken / Maritxuk eta Patxikok!"*[1356].

Maritxuren pertsonaiaren ahotan, Pedro Maria Otañok ere jarriko du honako bertsoa: *"Auxen da egiazko / bizitza ederra. / Jauregietan bizi / diran aur gaxuak, / noizik beiñ ikusirik / beren gurasuak, / aberats izan arren / oztasun aundiyan… /*

[1350] Transignifikazioa dei diezaiokegu horri, hitz bati berez ez duen esanahia ematea.
[1351] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 166. or.
[1352] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 186.-187. or.
[1353] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 189. or.
[1354] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 190. or.
[1355] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 213. or.
[1356] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op . cit., 213. or.

*Nik ait'amen onduan / naigo det mendiyan*"[1357]. Haur eta gurasoen arteko harremana eta elkarbizitza hobesten da eta balioesten da, ondasunen gainetik.

"Lora" operan, amari ere egiten zaio erreferentzia, nahiz eta gero, aita izango den opera guztian zehar agertzen dena. Hala eta guztiz ere, hasieran, amei goratzarre egiten zaie: *"Egiya da, orain ta len / amak zer onak diraden, / biotza barren-barrenen; / penik eman gabe, arren! / mugi gaitezen lenbailen; / berriz ere festak emen / laster ditugu izanen, / goazen bada, goazen, goazen*"[1358].

## 2.4.Laburbilduz

Hona gure azterketaren bigarren atalaren laburbilduma. Gizarte baten azterketarako, eta, batez ere, gehiengoaren azterketara iristeko bide gertatzen da demografiari eta familiari, baita gizon eta emakumearen irudi eta paperari dagozkion gaien azterketa ere. Zer ote bertsolariek gai hauei buruz, eta batez ere, modernizazio prozesuak errealitate hauetan eragindako aldaketei buruz esan digutena?

Demografiaren alderdi kuantitatiboari bagagozkio, bertsoetatik informazioa jaso ahal izango genuke –jaiotza eta heriotza kopuruak, ezkontza estrategiak, etab.-. Modu berean, nor norekin ezkontzen den eta harreman sareak nola osatzen dituzten jarraituz, antropologiak aztertzen dituen ezkontza sistemen azterketa ere egiterik izango genuke –ondorengotza sistemak, exogamia-endogamia, etab.-. Hau ez da, ordea, jarraitu dugun bidea. Guk bertsoetan aztertu duguna, batez ere, demografia eta familiari lotutako esanahien mundua da: hau da, bertsolarien diskurtsoen alderdi kualitatiboa da gehienbat kontuan izan duguna.

Hiru eszenatoki nagusi aurkitu ditugu azterketaren zati honetan. Kasu honetan, gainera, gai hauetaz bertsoak osatu dituzten bertsolariak nahiko garbi kokatzen dira eszenatoki hauetako bakoitzean. XIX. mendeko industrializazioak eta modernizazioak eragin aurreko eszenatokian, eta landa eremuan, batez ere, familia tronkalaren adibideak –hau osatzen duten partaideen, hauen arteko harremanen, eta familia ziklo desberdinen berri- eta ezkontza tratuak aurkituko ditugu. Etxea eta etxeko taldearen iraupena dira helburu: landa eremuan larre motzean bizitzen ohituak izango dira. Etxeko kide kopurua egoeraren arabera egokituz joan beharko dute honengan heriotzak, goseak, gaitzak edo gerrak eragiten duenean. Dena den, ez dugu aurkitu bertsoetan sistema honen aldeko diskurtso esplizitu egituraturik,

[1357] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 215. or.
[1358] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 277. or.

esperientziaren eta praktikaren adibideak, baizik. Sistema komunitarioa izango da XIX. mendeko Gipuzkoako landa eremuan errealitateari neurria hartzeko sistema eraginkorrena eta ezkontzak eratzen duena izango da etxearen komunitate unitate minimo hari sorrera emango diona. Aztertutako bertsolari batzuen bertsoetan ezkontza tratuen sistemari egindako erreferentziak aurkituko ditugu maiz. Ezkontza tratuak pertsonak –askotan esplizituki familiak- eta ondasunak bere baitan hartzen ditu. Sistema honek kostu nabarmenak izango ditu: ezkontideek elkar aukeratu ezina, edota ezin ezkondua -mutilzahar eta neskazaharrak-. Sexualitatearen bizipenaren berri jasotzen da bidenabar ezkontza tratuei lotutako bertsoetan.

Bigarren eszenatokia, Xenpelarrek marrazten diguna da. Goiztiarki industrializatzen hasi zen Errenterian ikusi zituenetatik abiatuta abestuko zuen honek, ziurrenik. Zein da aldaketa nagusia? Industrializatzen ari diren hirigunetan familia nuklearrerantz ematen den pausoa –Xenpelarren bertsoetan familia txikiagoak dira ageri direnak, guraso eta seme-alabez osatuak-. Aldaketa nagusia, neurri batean, etxearekiko menpekotasunetik askatu izanetik dator: langile berri hauen kasuan, bizibidea fabrikan irabazitako jornalak ematen du, ez etxeak –lurrak, baratzak, abereek, etab-. Xenpelarren bertsoetan ikusi dugunaren arabera, badirudi, zenbait mutil ezkondu beharra zalantzan jartzen hasiko dela –Xenpelarrek horretara bultzatu nahiko ditu, mutilzaharren penak bertsotan jarriz-. Eta bada beste aldaketa nagusi bat ere: emakumea etxe barruko lanekin identifikatzearena. Xenpelarrek emakume eredu jakin baten alde –Estatu-nazio burgesak eta elizak batez ere proposatzen dutenaren haritik- eta beste baten kontra jarriko ditu bertsoak: ez zaio halako edo bestelako izen eta abizendun emakumearen bizitzaren berri ematea interesatzen, emakumeek nolakoak izan behar duten eta nolakoak izan behar ez duten garbi uztea baizik. Jarraibideak eman nahian dabil beraz, Xenpelar. Berrikuntza aipagarri gisa, erromeriak agertuko zaizkigu Xenpelarren bertsoetan neska eta mutilen topagune gisa.

Hirugarren eszenatokia, Bilintxek batez ere, eta Pedro Mari Otañok ondoren, margotuko dutena da. Donostia liberalean, lasterki “modernoan”, gizon eta emakume eredu eta hauen arteko harremanak modu berrian azalduko dizkigu Bilintxek. Xenpelarrek negatiboan aurkeztutako emakumea, argazkietan bezala positibatua agertuko digu Bilintxek: haren kontra eredua, honen jarraibidea izango da. Maitasuna izango da Bilintx mogituko duen sentimendu nagusia: gizon eta emakumeen arteko harremanak betebeharrean ez, aukera askean eta maitasunean oinarritua behar du. Iraultzailea gertatuko da ideia hau: gizabanakoen barne bizitzarako lehendabizi, baina baita sistema sozioekonomikoarekiko ere. Ezkontza

tratuen kontra egingo du zeharbidez Bilintxek: gizon eta emakumeen arteko harremanek ez dute familien nahien edota etxearen beharren menpeko izan behar, ez dute helburu bezala sistema sozioekonomiko baten jarraipena izan behar –Donostian merkataritza, artesautza, zerbitzu eta era honetako bizibideek bide luzeagoa egina zuten jadanik-. Azpimarratu nahi genuke maitasunaz eta emakumeez hitz egiteko Bilintxek erabiltzen duen hiztegi eta logika erlijiosoa: hizkuntzaren erabilpen honek, sekularizazio zantzuak ere agertzen ditu bide batez. Pedro Mari Otañok eduki eta formetan Bilintxen eredua jarraituko du maitasun gaieko bertsoetan, eta honetaz gainera, familiari lotutako hitzak Euskal Herriaz edo euskarari buruz hitz egiteko erabiliko ditu.

## 3.Gizartearen artikulazioa: modernizazioaren eragina nagusiki etxe eta udalerrietan antolatuta zegoen gizarte batetik hiri, probintzia eta "naziyo"etan antolatua zegoen batera

Bertsoak aztertzerakoan, kopuru eta aipamenengatik garrantzia dutenak guk "gizarte" gai gisa katalogatuak dira, hau da, guk aztertu ditugun bertsolariek bertso asko eskaintzen dizkiete gizartearen artikulazioari lotutako gaiei. "Gizarte" hitzak, Egungo Euskararen Hiztegiaren arabera, honakoa esan nahi du: *"Giza lagunartea, gizadia erkidegotzat hartua; lege eta erakunde beren azpian bizi den gizaki multzo iraunkorra"*. Gure hipotesia honakoa litzateke: modernizazio eta industrializazio prozesuaren esperientzia txikiena izan duten bertsolariengan komunitate harremanen indarra eta presentzia nabarmena da. Herria edo udalerria da elementu egituratzaile nagusia. Topaleku ezberdin ugari ageri dira komunitate harreman hauen gune bezala beren bertsoetan: joko eta apustuen ingurukoak, edariaren ingurukoak, erlijioaren ingurukoak, festen inguruan antolatzen direnak. Komunitate harreman horietan, hainbat erakunde ere presente egiten dira: udal erakundeak, eliza, eskola eta ejertzitoa, besteak beste. Gure azterketaren arabera, errealitate honetan komunitatearen presentzia ez da balio positibo gisa edo helburu gisa ageri, bizi duten errealitate bezala baizik. Aldi berean, edozein giza sistemak bezala, errealitate honek bere alderdi onak baditu ere, bertan bizi direnek ez dituzte sistemaren kostuak edo alderdi ezkorrak ezkutatzen. Bestela baizik, euren arteko arazo, gorroto, burla, eta abarrak maiz ageri dira. "Gu" eta "besteak" bereizketa, giza talde bateko partaidetza identifikazio prozesu gisa, komunitate beraren

barnean edo hurbileko komunitate ezberdinen arteko harremanak ezaugarritzeko emango da. Gure doktorego tesiaren azterketaren abiapuntuan, Gipuzkoako probintzia nagusiki herrietan antolatuta zegoen. Donostia zen paisaia hartan nabarmentzen zen hiri "handi" bakarra.

Azterketarako trantsizio aurpegianitza eta konplexua da ondorengo orrialdetan azaltzen dugun hau. Askotariko gertakizunak eta indarrak aipatzen dizkigute bertsolariek, zuzenean edo zeharka. Modernizazio prozesu honetan, indar desberdinek eragin dute, batzuetan aldi berean, tartekatuak besteetan. Ahalik eta modurik argienean azaltzen saiatuko gara ikusitakoa.

Hiritartze edo urbanizazioa da modernizazioaren aurpegi nagusietako bat[1359]. Honek landatar eremuko komunitateetan indartsu ziren harremanak ahultzera joko du. Apustuei buruzko bertsoetan, adibidez, landa eremuan XIX. mendean zehar apustua jokatzen zuen gizonaren eta bere herrikideen arteko identifikazioa erabatekoa zen. XX. mendean, identifikazio honek jarraituko badu ere, apustua jokatzen duen pertsona bera, gizabanako gisa, izango da kontuan hartua eta goratua. Honetaz gainera, zenbait bertsolarik udalerri zehatzei buruz hitz egingo digute beren bertsoetan, ez bertan bizi diren gizon eta emakume berariazkoei buruz, herria bera pertsonifikatuz baizik. Hiritartze horren beste seinale bat izango dugu zenbait bertsolarik hiritik landa eremuarekiko diskurtso idealizatzailea egingo dutela. XX. mendean aurrera egiten dugun heinean, hirietan ageri diren sozializazio forma ezberdinak agertuko zaizkigu. Komunitateak izaten jarraituko dute, baina, kasu honetan, ideologia politikoei lotuak: horien inguruan sortuko dira batzokiak edo Errepublikanoen zentroak, adibidez.

Modernizazioak ekarriko duen beste ondorioetako bat espazio geografiko ezberdinen arteko komunikazioa erraztearena izango da[1360]. Honen eraginez ikusi ahal izango dugu nola bertsolariak gero eta errazago mugituko diren batetik bestera eta, ondorioz, bere munduaren mugak zabalduko dituzten. Aldi berean, errazagoa izango da beste lurralde batzuetako pertsonak gure azterketaren lagin den Gipuzkoara ere hurbiltzea. Honek landa eremuan desberdintasunaren eskalan hurbil zeuden "gu" eta "besteak" giza taldeak urruntzen hastea ekarriko du, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Espainiak koloniak galtzea eta, bereziki, Kubako gerratea bertsolariek azpimarratzen duten gertakizuna da, Espainiaren izen onaren galeraren

[1359] Hirian ezberdinen arteko harremana ematen da, hainbat erronkei aurre egin behar diete bertako biztanleek, testuinguru konplexua da.
[1360] Eta espazio geografikoak diogunean, harreman ekonomiko, sozial, eta abarrez pentsatzen ari gara.

erakusgarri. Honetaz gainera, Kubara gerrara joateko euskal probintzietan kintak tiratzeak ere landa eremuan ezegonkortasuna areagotu zuela dirudi. Bertsolari batzuek eskolaren eta gaztelaniaren indartzea ere salatzen dute ezegonkortasun honen lagungarri.

XIX. eta XX. mendeetan, euskal probintzietan eta Espainiako lur eta kolonietan gertatu ziren gerrateen esperientziak ere modernizazio prozesuaren lagungarri izan ziren, beraz[1361]. Harrigarri gertatu zaigu aztertutako bertsolarien produkzioan gerrari buruz zuzenean hitz egiten duten bertsoen urritasuna. Ditugunak, gerraren kontrakoak dira, gehienak. Gerrari buruz aurkitu dugun bertso kopuru honen urritasunarekin kontrajarriz, asko dira batasunaz hitz egiten duten bertsoak. Batasun ezak eraginak ote?

Modernizazioaren testuinguruan, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, mundua estatu-naziotan antolatuta irudikatzen hasten denean, nazioek hartuko dute lehenago hurbileko udalerriek hartzen zuten "bestearen" papera. Gure inguruko artikulazio politikoari dagokionez, hiru alternatiba posible zeuden: munizipalista, probintziala edo estatalista. Eredu munizipalista galtzaile aterako da lehia honetan. Konpetentzia nagusia eredu zentralistaren eta probintzialaren aldekoen artean izango da. Hori guztia, neurri batean, Espainiako estatu-nazioaren eraikuntzaren porrotaren testuinguruan[1362]. Gogoan izan dezagun estatu-nazioaren porrota gertatuko dela, baina ez merkatu nazionalarena. Bertsoak aztertzerakoan, kronologiari zehaztasunez erreparatu beharko diogu, Espainiaren historiako hainbat pasarte kontuan izanez eta horiek euskal "gu"aren definizioan izan zuten eragina ikusiz. Hau da, egitura eta antolamendu politikoetan modernizazioak eragindako aldaketak eta testuinguru hartan sortutako aukerak aztertuko ditugu bertsolarien ahoz jasotakoetatik. Foruzaletasuna, Lehen eta Bigarren Errepublikaren aldeko indarrak, eta lehen nazionalismoaren proposamenak agertuko zaizkigu hemen.

Aurreko paragrafoarekin lotuta, modernizazioak ekarriko duen beste aldaketa garrantzitsu bat herria subjektu politiko bezala ulertzearena da. Landa eremuan sortutako ezegonkortasunak XIX. mendeko Gipuzkoan eliteen paperaz eta

[1361] Eneko Bidegainek Lehen Mundu Gerrak batez ere Ipar Euskal Herrian izan zuen eragina aztertu du eta nola esperientzia honek "frantsestu" zituen bertako euskaldunak. Hegoaldeko euskaldunen kasuan ere horrela gertatu ote zen? Edo alderantziz? Galtzaile izanik, anti-espainiar bihurtuko ote? Ikus BIDEGAIN, Eneko: *Lehen Mundu Gerra "Euskalduna" astekarian.* Euskaltzaindia, 2013. DUINAT, Benjamin: *Biografia baterako abiapuntuak: euskal mugaldeko nortasun anitzak eta harrabots gutiko disidentziak. Jean-Pierre Duvoisinen (1810-1891) gutunerian.* 2013. Argitaragabea.

[1362] Ikus historiografian aipatutako Bartolome Claveroren lanak. Sistema politikoan erakundeen arteko konkurrentzialtasuna bertan behera geratzen hasten denean hasiko dira arazoak.

herriaren beraren autonomiaz pentsatzera eramango ditu bertsolari batzuk. Nazionalismoak eta errepublikanismoak fede berri batzuen gisa jarraitzaileak irabazi nahiko dituzte beren kausaren alde.

Bukatzeko, modernizazio faktore nagusi gisa, ezin Amerikaren eragina alde batera utzi. Lehen ere aipatu dugu Espainiak Amerikako koloniak galtzeak izan zuen eragina. Baina, honetaz gainera, beste bi modutara, bederen, gogoan izan behar genuke Amerika. Batetik, Ameriketara emigrante joan zirenengan izan zuen eragina, emigrante gisa bizi izan zuten esperientziak sorrarazi zizkien galderak, eta horiei ematen saiatu ziren erantzunak. Pedro Mari Otaño dugu aztertu ditugun sei bertsolarien artean honen erakusle nagusi. Identitate pertsonalaren krisia biziko du Otañok eta honek erantzunak identitate kolektiboan bilatzera eramango du. XIX. mendean Amerikako hainbat estatu-naziotan azaldu ziren independentzia mugimenduek ere eragina izan zuten euskal probintzietan.

## 3.1. Abiapuntua: etxe eta herrietan antolatutako Gipuzkoa, Donostia hiri nagusi duen Probintzia

Ondoko azpiatalean XIX. mendeko modernizazio prozesuak eragin aurreko Gipuzkoako espazioaren antolaketara hurbiltzen saiatuko gara. Zer kontatzen digute bertsolariek? Zein da abiapuntu hartu behar dugun eszenatokia? Bertsolarien ahoz errealitate konplexua eta osagarriak diren antolamenduak agertuko zaizkigu. Gogoan dugu nola aurreko ataletan etxea azaldu den landa eremuan oinarrizko komunitatea antolatzeko eredu gisa. Zein da, ordea, etxeaz gaindi, Gipuzkoan jarraitzen den antolamendu eredua? Nola artikulatu hainbat etxez osatzen zen espazio hura? Hiru errealitateren berri emango digute bertsolariek: baserria, kalea eta ziudadea. Baserria eta kalea uztartuz, udalerria genuke eta hauek ziudadearekin –Donostia izango da handiena- osatuko dute probintzia. Errealitate berezituak baina osagarriak izango dira hauek guztiak.

Hona Pedro Mari Otañok zer esaten digun gipuzkoar errealitatea antolatuta dagoen moduari buruz. Hiru elementu aipatuko dizkigu: basoa, herria eta hiria, Donostia. Euskararen erabilerari buruz ari da bertso sail honetan, baina argigarri gertatzen zaigu espazio antolamenduari buruz ere : "*<[…]Gaur Donostiyan ez dakiyenik / ez du aitortu nai iñork>. / <Bañan erderak betiak dauzka / erriya eta basua; / alferrik zabiltz, galdua dago / gure euskara gaxua>*"[1363].

[1363] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 448. or.

Pedro Mari Otañoren beste bertso hau ere, argigarri zaigu: *"Jeografiya nola / gauza ona baitan, / zuk ez dakizu zenbat / gustatutzen zaitan. / Esan zazu euskara / zenbat probintzitan / mintzatutzen dan, zenbat / kale ta erritan, / eta al baldin bada / zenbat baserritan"*[1364].

Pedro Maria Otañok, "Aitona eta illoba" bertso sailean esanak dira horiek. Aitonak geografian ikasten arituko direnak zerrendatzen dizkio, oraingo honetan ere, geografia euskararen erabilerarekin lotuz. Argi dagoenez, aztertu ditugun bertsolarien artean Pedro Maria Otaño da espazioaren antolamenduaz eta errepresentazioaz garbien hitz egiten digun bertsolaria.

## 3.1.1.Landa eremua nola egituratzen den: udalerria, giltzarri

Gipuzkoan, herria edo udalerria izango da landa eremuan elementu zentrala. Udalerria bi gunez osatuko da: baserria eta kalea. Ezberdinak izango dira bi eremuok, bertsolariek esandakoen arabera: ezberdinak justiziaren presentziari dagokionez, eta ezberdinak, era berean, beren ekonomiaren ekoizpen ereduari dagokionez. Nahiz eta desberdinak izan, ordea, ez dira elementu kontrajarri gisa agertuko, osagarri baizik.

Pello Errotak, adibidez, kalea eta baserria[1365] aipatuko dizkigu bi gauza ezberdin gisa, "klase" edo mota ezberdineko errealitate bezala, baina kasu honetan, erromes Arantzazura elkarrekin doazenak: *"Astiasu ta Alkiza / juntatu bi erri, / klase guzitakuak: / kale ta basarri. / Geren artian esan / giñukan elkarri: / <Agur bat egiyogun / danon Ama orri>. / Alkarrekin gerade / juan da etorri"*[1366]. Pello Errotak bailara edo harana aipatuko digu baita ere beste bertso sail batean: *"Illaren oi ta bederatziyan / San Migel zan agorrian, / bi bertsolari izandu giñan / Laurkiñ deritzan ballian. / Kantariyena jakiña dago: / jornal artzeko idian; / diruan kargak ez gaitu asko / nekatu etxera bidian"*[1367].

Xenpelarrek ere kalea eta baserria aipatzen ditu, baina biak, edo hobeto esan, bietako neskak, ontzat emanez: *"Neskatxa eder balientia / artu nai baldin badezu, / etorri zaitez Oiartzuna ta / antxen billatuko dezu; / kale eta basarri, / kolore zuri*

[1364] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 476. or.
[1365] Larramendik bere hiztegian hiru hitz erabiltzen zituen etxeak izendatzeko: baserria basoko etxea zen; etxondo, kaletik gertu zeuden baserriak eta etxalde, berriz, kaletik gertu zeuden etxeak.
[1366] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 193. or.
[1367] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 48. or.

*gorri, / ederra franko badezu; / San Estebanez da erromeriya / ikusi nai badituzu"*[1368].

Pedro Mari Otañok ere baserria eta herria bereizten ditu: *"Illunabartxoa zan / -ain daukat goguan!-, / mendi-bide batean / erriruntz nijuan; / baserri txuri baten / ate inguruan, / aritz baten azpian / aiton bat zeguan, / erdi negar ta farrez / txit desoseguan"*[1369]. Baserria mendian dago, mendi bide baten ondoan, eta herria, berriz, aparte geratzen da[1370].

Joxe Mari Lopetegik ere bi alderdiak bereiziko ditu: *"Berrogei urte beti neketan / lore on baten galdian, / nere burua erdibiturik / Aitor zarraren legian; / gauza geyenak badu neurriya / gure mundu zabalian, / gizontasunez anaiturikan / baserriyan da kalian, / lore eder au ezarri degu / Apirillaren amalabian"*[1371].

Zergatik dira desberdin baserria eta kalea? Aztertutako bertsolarien arabera, zuzenbidea, edo zuzenbidearen praktika, bederen, kalean ikusiko da, eta ez eremu erabat landatarrean. Behin baino gehiagotan aurkituko ditugu horren adibideak: zuzenbidearen kontrako gertakizunen bat landa eremuan gertatzen bada, justizia eske kalera joango dira kaltetuak gertatu direnak.

> *"Asto-baikuntza egin digue / uztaren amazazpian, / aurtengu ontan igandian zan, / ori nere iritzian; / gure tartian deretxo gabe / asi nai zuben auzian, / orrelakorik len ezta pasa / eguzkiaren azpian.*
>
> *Guk aziendak len bezelaxe / bialdu'itugu larrera, / ataka zabal ikusi eta / alimaliak aurrera. / Kulparik ezta gureganako, / oiek daukaten kolera! / Lau astorekin bi emakume / or juan dira kalera"*[1372].

Bertso horietan, asto arteko lasterketa batean irabazle suertatu ziren baserri bateko abereak apustu berean galtzaile suertatutako baserriko lurretan sartu dira. Galtzaileek aprobetxatu egin nahiko dute gertakizun hori irabaziren bat ateratzeko. Horregatik, kargu hartu nahian hasiko dira: hau "deretxo gabe" egin ordez,

---

[1368] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[1369] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 475. or.
[1370] Aurrerago ikusiko dugu Pedro Mari Otaño nola izango den baserriaren eta herri edo kalearen artean distantzia nabarmendu eta balorazioak egiten hasiko denetako bat. "Baserri txuri" irudia azpimarratu nahi genuke.
[1371] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 94. or.
[1372] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 136.-137. or.

zuzenbide formal eske hasiko dira eta horretarako "kalera" joango dira. Nortzuk dira kalean justizia egiten dutenak? Alkatea eta epaile edo jueza[1373].

> *"Asto oiekin alkatiari / juan zitzaizkan aurrena, / bere manera zabal zuala / kale guziak barrena; / testigu gabe artubak izan, / ori gauzarik txarrena, / ark lege onez bialdu ditu / andikan juezarena.*
>
> *Oiek ez ditu ibilli azi / iñor galtzeko perezak, / edozein gauza libre dala uste / emakume alrebesak; / baikuntzarekin etxeratu nai / apustuko interesak, / azkar astuak entregatzeko / agindu due juezak.*
>
> *Atrebitu aiek besteren gauza / kaleraño ekartzia, / juez jaun orrek agindu eta / kosta zaie entregatzia; / kaso txarra da alimalia / testigu gabe artzia, / emakumi oiek merezi zuten / biak kartzelan sartzia"*[1374].

Txirritak ere gauza bera esango digu, justizia ez da baserrietan egiten, herrian baizik: *"Modu txarrian tratatu zuten, / errira eman du parte; / kartzela, multa ta amenazo / kastigatu dira fuerte; / kristau gaiztuak geitxo eranda / badu makiña bat arte, / orrelakuak izango dira / mundua mundu dan arte"*[1375].

Baina kalea eta baserria desberdinak dira ekoizpenaren antolamenduari dagokionez ere. Pello Errotak honela esaten digu "Lenago nitzaden ni" bertso saileko bederatzigarren bertsoan *"……[sic] / deritzaionari, / abisatutzen diot / dam'orren aitari, / arto-etxe on batera / bial zala ori, / an gustora egon dedin / eder eta lori"*. Eta hamaikagarrenean, berriz, *"Juana …[sic] / dam'orren graziya, / …[sic]-ko …[sic]…-en / jaio ta aziya; / kalian daguala esanez / mantenu eskaxiya, / izan ere nork ase / puska ori guziya?"*[1376]. Aurrez ikusi dugun bezala ezkontza tratua puskatuko du neskak mutilak ofizioa aldatu eta baserritik kalerako pausoa eman duelako.

Joxe Mari Lopetegiren bertso hau ere, 1931n argitaratua, era horretara uler dezakegu: *"Paraje eder osasuntsua, / len esan dedan bezala / nere lagun zar Migel Lizeagak / omentzat artu dezala, / len entzutea baneukan beti / baserritarra ziñala, / gaur karriketan ikusi arren / indianuak bezala, / ezagun dezu ta igartzen dizut / lasai aziya zerala"*[1377].

---

[1373] Pio Barojaren "El carbonero" ipuinean ere ikus dezakegu basoa eta kalea antzeko moduan bereizten direla.
[1374] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 136.-137. or.
[1375] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 399. or.
[1376] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 163. or.
[1377] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 111. or.

## 3.1.2. Komunitateko harremanak sendotzeko dinamikak

Non aurki dezakegu komunitatea gauzatu edo gorpuztua? Esparru askotan, jakina. Etxea izango litzateke lehenengo komunitate hurbilena, txikiena. Baina, horretaz gainera, badira gehiago. Landa eremuan, garrantzitsuena herria edo udalerria da. Komunitatean bi eratako indarrek izango dute eragina: indar mota batek erakarri egingo ditu herritarrak, biltzera bultzatuko ditu. Beste indar mota batek, berriz, herritarrak bildu bai, baina beste komunitate edo giza talde baten kontra jarriz hartuko dute hauspoa. Adibide gisa, indarrak biltzeko topagune diren ekintzak izango ditugu: festak, erromesaldiak, etab. Kontran jartzeko, lehia edo apustuak izango ditugu, besteren artean. Jaso dezagun bertsolarien ahoz kontatzen zaiguna.

Indarrak metatzeko praktika horiei esker, baserria eta kalea, edota sozioekonomikoki eta boterearen eskuragarritasunari dagokionez, desberdinak diren giza taldeak batasunean agertuko dira, agertu bederen[1378].

### 3.1.2.1. Elkarrengana biltzea: indar metatzea barrurantz, herria artikulatzeko

"Elkarrengana bildu" esamoldea esanguratsua da aztertzen ari garen puntu honetan. Testuinguru ezberdinetan aurkitzen dugun esamoldea da, baina, bereziki, ezkontzari lotua ageri da. Ikus, adibidez, Txirritaren bertso honetan: *"Eziñ sinistu izandu nuen / neskatxa orren esanik, / ta berak ere etzekiyen ni / zurruterua nitzanik; / alkarrengana bildu bagiña / etzan gurekin gauz onik; / jende geiegik jakiñ ez dezan / ez det esango izenik, / oraindik ere soltera dago, / etzuen artu gizonik"*[1379]. Indar metatzeetan lehenengoa etxean ematen dena da, ezkontzaren bitartez ematen dena. Horregatik, oinarrizko eta hurbileneko komunitate hori izango da, harreman horiek izango dira, babestu beharrekoak[1380].

Etxea, etxekoen arteko harremanaz gainera, lagun eta auzokoekin dituzten harremanak indartzeko gune ere izango da. Etxean, mahaiaren inguruan, egiten diren jan-edanak izan daitezke horretarako bideetako bat: *"Txirrita baserrian merienda zutela-ta, ara joan ziran emen aitatzen diran bertsolariak [Jose Kruz Olloki, Telleri-Txiki, Pello Zabaleta]. Maiera arrimatu, egon eta egon, eta etzuten*

[1378] Non ote ditu erroak antolamendu honek? Erdi Aroko hiribilduen sorrera garai harekin lotua ote dago?
[1379] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 491. or.
[1380] Ikus azterketaren bigarren atala.

*ezer ekartzen. Txirritaren asmakizunen bat izango zala pentsatu zuten, eta orduan kantuari ekin zioten"*[1381].

Ospakizun bereziak ere ahaide eta lagunak elkarrengana biltzeko abagune ezin hobeak dira. Txirritak horrela kantatu zuen erdi brometan: "*Gañera berriz esposatzean / debalde napar zezenak, / kostako zaizkit galanki baño / aundiak eta gizenak; / aiek iltzeko bi kastillano / indar aundiko gizonak, / Machaquito ta Bombita ditut / etorritzeko esanak"*[1382]. Eta hurrengo bertsoa: "*Dozen erdi bat urdai azpiko / zintzilik dauzkat jarriyak, / saltxitxoi eta lukainka asko / Aragoi'tik ekarriyak; / lau kapoi pare eta sei ollo / agindu dizkit erriyak, / eta ondoren toreatzeko / bi zekor gorri-gorriyak, / ni ezkontzean izango dira / bankete izugarriyak"*[1383].

Etxean txerria hiltzean ere, "txerrimuñiak" familiakoei eta herrikoei emanez, etxekoen eta ahaide eta auzokoen arteko harremanak sendotuko dira:

> *"Euskalerrian, batez ere baserrietan, oitura bat zan eta da, txerria iltzen danean, auzokoari eta aideari esku-erakutsi edo erregalo odolki bat edo beste ta txerri-puska batzuk ematea. Oieri deitzen zaie txerrimuniak.*
>
> *Pello ta Txirrita joan ziran bein batean Goierriko erri txiki batera festetan kantatzera; eta, festak bukatu ziranean, bieri erri artako famili on batek eman zizkaten txerrimuniak"*[1384].

Txirritak, Soraluzen zela, "txerrimuñiekin" izandako gorabehera bat zela eta, bertsoak jarri zituen. Baserri batean hil zuten txerria hain omen zen txikia, ezin izan zutela txerrimuñirik ia eman: "*Txerri orrekin izandu dira / bi familia partian, / erregaluak izan dituzte / senide danen artian. / Lau arruara ezta iritxi / lendabiziko txerria, / da bigarrena gutxi geiago / baña bai gustagarria; / ia lau ontza lodi zedukan / koipia ere jarria, / aurten goseak ezin legoke / Plazentzia'ko erria"*[1385].

Familia bat bizi deneko etxeaz gainera, izango dira, definizioz, jendearentzat ateak zabalik dituzten etxea eta espazioak ere. Horietako bat, bertsoetan nabarmentzen dena, Benta da, baita tabernak ere. Pedro Mari Otaño eta bere familia Zizurkil, Villabona eta Aduna bitartean zegoen Karidadeko bentako arduradun ziren.

---

[1381] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 101. or. Berriro ere mahaiari egiten zaio aipamena. Oroitu: URRUTIKOETXEA, Jose: *En una mesa y compañía,* op. cit.
[1382] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 49. or.
[1383] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 49. or.
[1384] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 86. or.
[1385] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 355. or.

Bertara biltzen ziren, maiz, bertsolari koadrila, elkarrengana biltzen ziren elkarrekin egon, kontu-kontari aritu, jan eta edateko.

Etxeen arteko lotura auzoetan ere antzemango da. Auzoa etxearen eta udalerriaren artean sortuko den tarteko egitura izango da, eta tarteko komunitatea ere bai. Hori indartzeko estrategia ezberdinak izango dira. Bat, herrian urruti gera daitekeen parrokiaren ordez, auzoan ermita eraikitzearena izan daiteke. Ez ehuneko ehun, baina auzoaren egitura eta erlijioari lotutako komunitatea bat etor daitezke kasu hauetan. Txirritak kontatzen digu horrelakorik:

> "*Milla zortzireun irurogei ta / amalau urte urrian, / lenengo plazan kantatu nuen / nik Ernani'ko lurrian, / San Antonio deitzen diyogun / ermita baten aurrian, / lagunak alkar ixtimatuaz / lengo oitura zarrian.*
>
> […]
>
> *Orduko ango bertsolariyak / lau lagun giñan guziyak, / Ernani'n bertan bataiatuak, / barriyu ortan aziyak: / Joxe Migel da Erramun illak, / ni ta Juan Mari biziyak, / San Antoniok merezi du ta / eman zaizkagun graziyak*"[1386].

Eliza baten eraikuntza ere izan daiteke komunitatea bildu eta lotzen duen beste elementuetako bat. Antonio Zavalak horrela kontatzen digu Ereñozuko elizaren eraikuntza, Txirritaren aita ere tarteko zelarik:

> *"Txirrita jaio eta andik bost urte t'erdira, Ereñozu'ko eliza egin zan. Latze'tik kilometro batera dago, eta orra nola altxatua dan.*
>
> *Ernani'tik Naparroa'ko mugaraiño kilometro asko dago. Tarte ortan, Urumea ibaiaren bazterrean eta bi aldeetako mendi-egaletan, baziran iru baillara edo auzo, Fagollaga, Ereñozu eta Aparrain, eta berrogei ta zazpi etxe, baserriak geien-geienak noski. Oietan irurogei ta lau famili bizi ziran, lareun ta irurogei lagunekin. Baziran elizaraiño bi edo iru orduko bidea zutenak.*
>
> *Garai artan, Don Agustin Jauregi Ernani'n apaiz zegoan. [….]. Euskaltzale prestua zan, eta euskerazko zenbait liburutxo ere idatzi zituan.*
>
> *Don Agustin orrek, kristau aientzat eliza berri bat egin bear zala pentsatu zuan. Ala, 1864'eko iraillaren 17'an, batzarra egin zuten inguru artako etxekojaunak. Baietz erabaki zuten, eliza berria egin bear zala alegia, eta gizon-mordoska bat izendatu ere bai, tokia aukeratzeko eta dirua eta bear ziran guztiak sortzeko. Gizon oien artean, Juan Bautista Lucambio azaltzen da. Txirritaren aita gogotik saiatu zan, beraz, eliza berriaren lanetan.*
>
> *Ereñozu jo zuten tokirik egokienetzat. Gero, bakoitzak al zuana eman, gaiñerakoa al zuten tokitik inguratu eta auzolanean lan egiñez, aurrera atera zituzten beren*

[1386] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 443. or.

> *asmoak. 1866'ko ilbeltzaren 15'ean, eliza berria bukatu dala eta elizkizunak bertan egiten asteko baimena eskatzen dute. Otsaillaren 12'an eman zan baimen ori. Asi ziran, bada, mezak-eta ematen, San Antonio aldarean jarrita"*[1387].

Eraikuntza honen berri emanez, bertsoak ere jarri zituen behin Txirritak Ereñozun: *"Nikolas Aundi arotz burua / dana guztien aurrian, / gure aita ta Bizorro berriz / ganaduakin lorrian; / beste batzuek arri bildutzen / Alkatxuin'go larrian, / ermitatxo au sortu ziguten / Txokolate'ren aurrian"*. Eta: *"Don Agustiñek ateria da / lendabiziko idia, / gizarajoa gizon ona zan, / prestua eta noblia; / gure aita're ortarako zan / ontza bat urre botia, / ori egiten gastatua da / nik bear nuen dotia"*[1388].

Auzoa hitza bizilaguna izendatzeko ere erabiliko du Txirritak: *"Penagarriyak izaten dira / arlotiaren pausuak, / adiskidiak gera ni ta zu / eta gañera auzuak; / gosaririkan ez dit bialdu / Fagollaga'ko auzuak, / laster ageri ez baldin bada / aztuko dira bertsuak"*[1389].

Etxeen arteko lotura indartzen, koplak etxez etxe kantatzeko ohiturak ere lagunduko du. Txirrita San Joan festetan koplak kantatzen ibiltzen zen[1390]. Koplak kantatuz etxez etxe joatearena bertsoak egiteko beste modu bat da:

> *"Beste tokietan Santa Ageda bezperan bezela, Ernani aldean San Juan bezperan ibiltzen dira etxez-etxe kantari eta eskean. Txirrita, berriz, koplaria izaten zan.*
>
> *Bikario eta alkatearen etxeetatik asten omen ziran; gero kontzejalak, beste apaizak, medikua, beterinarioa…*
>
> *Danen berri ondo zekien bat Txirritaren ondoan joaten zan, bakoitzari zer esan bear zitzaion salatuz"*[1391].

Giza antolamenduaren berri ematen digu Txirritak horrela. Jasotakoaren arabera, badirudi baserrietan baino gehiago kalean abesten dutela. Zergatik ote? Edo agian baserrietan ere abesten zuten baina pasarte honetan ez da horren berri jasotzen?

Zein eratako komentarioak egiten zituzten bertsolariek beren bertsoetan? Apaizak goratuz, neskazahar eta mutilzaharren kontuak astinduz, limosna nork ematen zien eta nork ez adieraziz, gizenak zeudenak barregarri utziz, albaitaria goratuz, indianoei, serenoari kantatuz, eta abar, komunitateko pertsonarik esanguratsuenen

---

[1387] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 20. or.
[1388] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 20.-21. or.
[1389] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 59. or.
[1390] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 147.-151. or.
[1391] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 147. or.

berri emanez eta etxez etxe bertan bizi zirenei errepasoa eginez osatzen zituzten koplak. Pello Errota ere Santa Ageda bezperan ibiltzen omen zen etxez etxe koplatan.

Etxe bateko ahaide eta etxe ezberdinen arteko harremanez haratago, herri osoaren arteko komunitate harremanak indartzeko gune eta praktika bereziak izango dira. Lanean, adibidez, komunitatea presente dago, eta elkarrekin lana egiteak komunitate harremanak sendotu egin ditzake. Txirritak, adibidez, bertso sail batean jasotzen du nola Oiartzunen zuhaitz handi bat jaitsi zuten menditik, gero, harekin, itsasontzi bat egiteko. Kasu honetan ere, lana eta udalerria baturik ageriko zaizkigu: *"Oiartzun'go itzaiak / kontentu dabiltza, / kunplitu dutenian / emandako itza; / kostata jetxi degu / Karrika'ra aitza, / txoferra're ez da juan / uste bezin aixa"*[1392]. Eta lana eta ospakizuna ere loturik azalduko dira: *"Geren puska orrekin / giñaden atera, / beldur asko gatozen / Urmendi'tik bera; / noizbait ere Karrika'n / allegatu gera, / jendia pozik juan zan / zurrut egitera"*[1393]. Eta lana, ospakizuna eta gehiegikeria ere bai: *"Ondarrabiya'n puska / ikaragarriya, / Anjelen tallerrian / an dago jarriya; / itzaiak egin dute / naiko pikardiya, / ardotan kastatua / omen da erdiya"*[1394].

Lanaz aparte, herri bateko festak antolatzeko ere komunitateak edo honen ordezkariak bildu eta elkarlanean arituko dira. Eta, horretaz gainera, festak ospatzen direnean, jendea bildu egiten da, bai bertako biztanleak bai inguruetakoak, jaiak ospatzera. Bi modutara dira, beraz, festak indar metaketa eragile. Pello Errota Bergarako festez hizketan ari zaigula, haiek antolatzeko gazteak nola biltzen diren kontatzen digu: *"Bergarako gaztiak / zebiltzen esanik, / etzaiela galduko / plazatik zezenik, / ezta gañera arekin / zetorren gizonik; / jabia fiatu zan / itz oiek entzunik"*[1395]. Zezenketa antolatua zuten, beraz, baina ez behar bezain txukun: zezenak alde egingo die upel artetik eta inguruko soroetan bereak eta bi egingo ditu. Bertso horiek badute, kontatzen duten horretan, Xenpelarren Pasaiako plazako kontaeraren antza[1396]. "Pasaiako zezenari jarriak" bertso sailean, bigarren bertsoan, honela dio: *"Pasaiako jendia / ez da biarrian, / funtziyo onak egiñez / dago indarrian, / ekusi degunian / festak nola dian, / orra bertso berriyak / zortziko zarrian"*[1397]. Santuen inguruan egiten diren festak dira: *"Nai dubena egiten / obe*

[1392] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 406. or.
[1393] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 407. or.
[1394] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 408. or.
[1395] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 131. or.
[1396] Bi bertso sail behintzat baditu Xenpelarrek gai honen inguruan. Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 140.-148. or.
[1397] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 140. or.

*zaio utzi, / iñork ere nai badu / erri (y) ontan bizi; / elkar botiaz dijua / jendia igesi, / Santiyagoz Pasaian / zezena nagusi*"[1398].

Azken finean, komunitatea ageri den esparru berariazkoa udalerria bera da. Pasaiako zezenaren gorabeherek izena ematen diote udalerriari: "*Gure Pasaia beti / sonatua dago, / errepiñ gabe ezta / urte bat igaro; / urrenguan jarriko / dituztela nago / barrerak estu edo / zezena aundiyago*"[1399]. Eta bertso sail berean: "*Deskuidokua zuten / aurtengo okerra, / etzaie suertatu / ganadu alferra: / orra Pasaiarentzat / onra bat ederra. / Zezenak jokatu du / puñalean gerra*"[1400].

Feriarena ere elkar aurkitu eta topatzeko gunea da. Nahiz eta bertso sail honetan alderdi hori gehiegi azpimarratu ez, kontuan hartzekoa da: "*Ostegun joan danian / amabost Ernaniñ / betroiaren tratua / genduen egiñ: / Inaziyo saltzalle, / erostuna Fermiñ, / emeretzi ezkutu / geniyon eragiñ; / sabelian du miñ, / iñork ase eziñ, / artuari muziñ, / eztu nai edoziñ; / atzetik biar ditu / zazpi medeziñ*"[1401]. Animaliaz ingurukoek ere badute beren iritzia: "*Informe txarrak dira / orrentzat auzotik: / espalda ateriya, / urgun bestotik; / […]*"[1402].

Erromesaldi edo peregrinazioak ere komunitatea indartzeko gune bereziak gertatuko dira. Erreferentzia gutxi aurkitu ditugu igandero mezetara joatearen praktikari buruz. Honek ere sendotuko zuen komunitatea. Pello Errotak Asteasutik Arantzazura egiten zituzten erromesaldiei bertso sail bat baino gehiago eskaini zien. 1886an osatutakoan, estrofa gisa, hona: "*Erregu egin zazu, / Ama, gugatikan, / irten geran medioz / bada zugatikan; / kuadrilla aundia gatoz / Asteasutikan, / Birjiña orri agur bat / egiteagatikan*"[1403]. Arantzazuko Amabirjinari Ama izaera eta ondorioz, beregana doazen guztiei, seme-alabatza ematen die Pello Errotak: "*Zure seme ta alabak / gatoz zuregana, / zergatikan zeraden / gure danon Ama; / ez da misterio ere / Ama batengana, / ez da gaizki irtengo / ara joaten dana*"[1404]. Horretaz gainera, bertso jarriak, elkarrekin kantatuaz joateko jarriak, elkarrekintza eskatzen dute, eta horrek berak batasun loturak areagotu egiten ditu herritarren artean: "*Ara emen bertsoak / oraingo berriyak, / Ama Birjiñarentzat / konsolagarriyak, / bidean kantatubaz / joateko jarriyak, / Asteasun bizi dan / Pello Errotariyak*"[1405].

---

[1398] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 141. or.
[1399] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 145. or.
[1400] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 146. or.
[1401] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 215. or.
[1402] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 216. or.
[1403] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 188. or.
[1404] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 190. or.
[1405] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 191. or.

Beste behin, Arantzazura Asteasu eta Alkizako[1406] herritarrak elkarrekin joan omen ziren: *"Astiasu ta Alkiza / juntatu bi erri, / klase guzitakuak: / kale ta basarri. / Geren artian esan / giñukan elkarri: / <Agur bat egiyogun / danon Ama orri>. / Alkarrekin gerade / juan da etorri"*[1407]. Ikus dezagun Pello Errotak berak nola azpimarratzen duen erromesaldi horretan ikusten den batasuna: *"Pelegrinaziyuan / Arantzazura jun, / Aguztubak zituban / amazazpi egun; / alkargana bilduta / orrenbeste lagun, / ai zer gusto ederra / guk an eman degun, / Ama Birjiñak berak / lagun egin zigun"*[1408]. Apaizak erromesaldi hauetan egiten duen gidari lana ere azpimarratzekoa da. Ikusi egin behar apaizaren lan hori erromesaldietara soilik mugatzen zen edo bizitzako beste esparru batzuetan ere elkartean horrelako lanean jarduten zuen: *"Brinkolan atera ta / ekiñ mendi (y) orri, / biriak galdu eta / danok giñan larri; / Don Bitoriano jauna / aurretik zan jarri, / danori esan zigun / segitzeko arri, / gero zuzen jun giñan / salto eta korri"*[1409]. Elkartea eta elkartasuna azpimarratuak izaten dira erromesaldietan: bai joan eta etorrerako bidaian, bai kasu honetan Arantzazun egiten zaien ongietorrian, bai elizako ospakizunetan, bai Arantzazun bertan pasatzen duten gauean, etab. "Danok" hitza da erabilienetakoa bertso sail horietan, denek egiten baitituzte ekintza guztiak[1410]. Honetaz gainera, Pello Errotak berak herri desberdinak, kale eta baserriak, eta nagusi eta morroiak elkar hartuta ibili direla esango digu: *"Alkar akonpañatu / dute bi erriyak, / milla esker, sazerdote / beneragarriyak; / berdiñ-berdiñ jo degu / nagusi-morroyak, / aurrian arturikan / mendiko arriyak, / alkarrekin gustora / gera etorriyak"*[1411]. Erromesaldi horiek festatik ere badute, gainera: *"Zuzen juan giñaden / andikan aurrera, / Arantzazu deritzan / komentu zarrera; / an estimatu zuben / gure etorrera, / musika ta etxefuego / ai ura sarrera, / primera klasian gu / allegatu gera"*[1412].

Beste bertso sail batean, Larraul eta Asteasuko herritarrek elkarrekin egin zuten erromesaldiaren berri ere ematen digu: *"Sei t'erdiyetan giñan / goizian atera / Larraul da Asteasu, / guztiyak batera, / Arantzazuko Amari / gusto ematera; / nola portatu zagun / nua esatera"*[1413]. Beste herri batzuk ere gehituko zaizkie gero:

---

[1406] Arantzazura Ernio inguruko herriak elkarrekin joaten ziren.
[1407] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 193. or.
[1408] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 194. or.
[1409] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 193. or.
[1410] Bertso saileko azken bertsoan, Pello Errotak Arantzazuko Amari heriotzako orduan zeruko atea irekitzeko eskatuko dio, *"Elizegik nai luke / guztiyok juatia"* esanez. Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 199. or.
[1411] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 198. or.
[1412] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 194. or.
[1413] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 201. or.

*"Asteasu ta Larraul / unitu alkarrena, / beste lau erritatik / bildu ziran gugana: / Tolosa ta Alkiza, / Zizurkil da Aduna; / ez degu penarikan / alkarrekin juna"*[1414]. Kasu honetan, baita ere, erromesaldia elkarrekin egin izana azpimarratzen du. Aurreko kasuan, orrialde batzuk lehenago, erromesaldian nagusi eta morroiak elkarrekin joan zirela esan badugu, oraingo bertso sailean udalbatzaren presentzia eta etsenplua azpimarratuko ditu: "*Aiuntamentu jauna, / alkate ta guzi, / sekretariyua ere / zan oiekin nasi; / konpañiyan etzuen / ematen itxusi, / ejenplo egokiya / dute erakutsi*"[1415]. Apaiz gidariaren lana ere azpimarratzen du kasu honetan: "*Don Tomas Egibar da / parroko guria, / Arantzako Amari / badiyo fedia; / ark erakutsi digu / Argana bidia, / ondo gobernatu du / bere artaldia*"[1416].

### 3.1.2.2.Indarrak kanporantz, "besteekin" neurtuz, nork berea ezaugarritzeko

Komunitatea indartzeko ez dira soilik barrura begirako indarrak kontuan izan behar. Horiek bezain garrantzitsuak eta eragileak gertatzen dira beste komunitate baten parean jarri eta, modu ezberdinetara, harekin erkatu eta neurtzeak dituen ondorioak. "Gu" eta "besteak" dinamiko eta progresibo batek ere lagundu egingo du komunitate loturak indartzen. Gipuzkoan aztertzen ari garen garaian, eta bertsolarien ahoz jasotakoaren arabera, apustu jokoak dira honetarako berariazko praktika eta guneak. Aipagarria da apustua jokatzen duen gizon edo taldearen eta honek ordezkatzen duen herriaren arteko identifikazioa.

Mota ezberdinetako joko eta indar neurtzeak ageri dira aztertutako bertsoetan. Horien artean maiz agertzen dira estropadak. Kasu hauetan, kostako udalerriak dira lehian ageri zaizkigunak[1417]. Xenpelarrek jasotzen ditu gai honi lotutako bertsoak "Bertso berriak Senpelarrek jarriak" bertso sailean. Traineruak udalerria ordezkatzen du. Alkateak aginduko die herriko mutilei estropadan parte hartzeko, baita herriak ere, honako bertsoan ageri denez: *"Amabost lagun txaluparekin / Ondarrabiyan jarriyak, / Getariyara abiyatzian / bederatzi ta erdiyak; / gure txalupa ekusi zuten / zuzen dauzkala neurriyak, / zumaiatarren kontra jartzeko / agindu zigun erriyak"*[1418]. Desafioa ere herri batek besteari egina da: "*Desafiyo au*

[1414] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 204. or.
[1415] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 203. or.
[1416] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 203. or.
[1417] Egia esan, gaur egun ere, Gipuzkoako kostako herri gehienek dute trainerua: Hondarribia, Pasaia, Donostia, Orio, Zarautz, Getaria, eta Zumaia, besteak beste. Gipuzkoako kostaldeko herriak euren artean neurtzeko egokiera zuten estropada hauen bitartez. Xenpelarrek berak hirugarren bertsoan honela esaten du: *"Probentziyako portu geienak / abisatuak ziran-ta"*. Ikus 203. or.
[1418] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 204. or.

*botatzerako / ez naute gutxi biartu, / txalupa jarri berdiña eta / león-castillo zeñ artu, / probentziyako erri batetik / iñork nai badu agertu, / amabost lagun jarriko gera / zeñ nekezago aspertu*"[1419].

Antolaketan, Gipuzkoako probintziako gobernadorea eta herrietako alkateak ere ageri dira. Zein da gobernadorearen egitekoa? "*Probentziyako gobernadore / Gipuzkoako burua, / legiak ongi dakizkiyena, / au da gizon segurua; / onen ordenaz artu genduen / txalupa bat agurua, / guziyak ala izan balute / ametitzeko gogua*"[1420]. Dirudienez, ontziek Getariara joan behar zuten aurrena: bertan ontzat emanak izan eta, ondoren, kasu honetan, Zarautza abiatu, bertan jokatzen baitzen estropada. Hori egingo dute Hondarribiko mutilek.

Estropadako lehiaketan eztabaida sortuko da herri ezberdinek dituzten ontzien ezaugarriak direla eta. Hondarribiarrek duten ontziarekin ez dira denak ados agertuko: "*Elkar artuta dudarik gabe / aitzaki billa zebiltzen, / gizon bat deika kaia gañetik / etzen beñere isiltzen; / lagun bi joanta jarri giñaden / aren esanak aditzen: / <Zuen txalupa ametitzia / eztit barrenak agintzen>*"[1421]. Hondarribiarrek defendatu egingo dute beren ontzia: "*Guk beriala esan geniyon: / <Aizazu, adiskiria, / onekiñ ere ezta pasatzen / eragiñ gabe biria>. / Beste batekiñ jokatutzeko / utzi nezala neria, / naiago zuen bitorioso / ateratzia beria*"[1422].

"Bertso berriyak Txirritak jarriyak" izenburupean, 1916an Getariako traineru eta herriaren aldeko bertsoak jarriak ditu Txirritak ez kontra, baina bai oriotarrei erantzunez. Kasu honetan ere, arraunlarien eta herriaren arteko identifikazioa erabatekoa da. Arraun kontuek hizpidea emanda, Getariako herri eta herritarren alde egingo du, eta Orioko herri eta herritarren kontra:

> "*Amalau gizon arraunlariyak / beren txalupa ta guzi, / ez det kuadrilla bizkorragorik / itxas gañian ikusi; / illabetian iru batalla / zituztenak irabazi, / emen ezikan Baiona'n ere / Getariya zan nagusi; / oraiñ bertsuak orla jartzia / guk ez genduben merezi*"[1423].

Eta aurreraxeago, haserretu dena herria dela adieraziko digu: "*Zelebria da kulparik gabe / jarri diguzun disputa, / ze adelantu espero dezu / okasiyua piztuta? / Zure kontuak getariarrak / ez daukazkigu aztuta, / guri bertsuak jarri ta saltzen / sos batzuekin poztuta; / zernai orlako erdi txoruak, / juiziyorik eztu-ta*". Eta

[1419] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 206. or.
[1420] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 203. or.
[1421] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 204. or.
[1422] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 205. or.
[1423] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 304. or.

hurrengoan: *"Jai-goiz batian ikusi nuben / Zarautz'era etorriya, / pranko altutik mintzatutzen zan, / ona zeukan eztarriya; / arrazoi gabe desonratu du / pakian daguen erriya, / toki onian allegatu da, / artuko zaio neurriya, / gogotsua da kantatzen baña / jakinduriyaz urriya"*[1424].

Txirritak, gainera, salatu egingo du Orioren alde egin duen bertsolariaren jokabidea: *"Tokatzen ez dan gauza txar asko / guregatikan esan du, / aurten atzetik etorri arren / ezkera txarrak izandu; / kulparik gabe kantak jartzia / jendiak damu artzen du, / guztiyen buru balitz bezela / erri guziya sartzen du, / ez nuen penik zerbait azaña / zerozer egin bazendu"*[1425].

Getariako herria goratuz ere jarriko du bertsoa Txirritak sail horretan: *"Aita Elkano'n seme maitiak / gure erriko personak, / Españia'n da Frantziya'n ere / guztiyen buru izanak; / garai arretan umill ziraden / oraiñ arro dabiltzanak, / oraindik danak ez dira illak / denbor'artako gizonak, / mundu guziya bildurtu zuben / Getariya'ren izenak"*[1426].

Xenpelarrek jasotzen duen beste bertso sail batean, "Bertso berriak Senpelarrek jarriak" deritzonean, palanka jokoan Elgoibarren eta Mutrikuren arteko lehia ageri zaigu. Interesgarria gertatzen zaigu bertso hauen azterketa. Hasteko, erromesaldietan bezala, apustu giroa maila sozio-ekonomiko ezberdinetako pertsonak biltzen dituen gune gisa ageri zaigu: *"Deban jokatutzeko / giñan lendabizi, / gizon prudente oiek / dute eragotzi; / biyok alkar artuta / maizter ta nagusi, / nere partetik eztu / iñork galerazi"*[1427]. Kasu honetan, beste batzuetan bezalaxe, apustua eta gaizkiulertu eta zurrumurruak lotuak doaz:

> *"Obia zan orrela / jarri ezpazendu, / Motrikuko jendiak / kolera artzen du; / gaizki nai duen batek / gezurra esan du, / ezta gure musika / Markinan izandu.*
>
> *Bat edo bi ziraden / ekustera juanak, / erriyan geldituak / gañerako danak; / goguan daukazkite / kantuzko esanak, / kulparik gabe autan / ebilli diranak"*[1428].

Dirudienez, Artasorok jarritako lehenengo bertso berrietan, mutrikuarrak Markinan bertso kantari ibiliak direla dio eta Olabarrik, berriz, ezeztatu egiten du hori. Baina garrantzitsu eta esanguratsuen gertatzen zaiguna, herria nola apustua jokatzen duen gizon horrengan pertsonifikatzen den: *"Elgoibartar oriyek / aurtengo*

---

[1424] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 304. or.
[1425] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 305. or.
[1426] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 304. or.
[1427] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 209. or.
[1428] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 209. or.

*urtian / gustora irten dira / askoren artian; / motrikoarrak galdu / gerentzat kaltian, / zuen txanda izango da / urrengo batian*"[1429].

Apustuei loturik ageri den beste elementua diruarena da[1430]. Apustuan ez dira bi herriren arteko indarrak besterik neurtzen, dirua ere bada tartean. Garbi ageri da bi palankarien arteko lehian: "*Debatik asi eta / etxera bitarte, / diruz desafiyoka / asi zaizkit fuerte; / zure lagunak ziran / erregularmente, / injuria aundiyak / egin dizkidate*"[1431].

Pilota jokoa da aipatzen den beste jokoetako bat. Txirritak dituen bertso berri batzuetan, Villabonako "mankua" deitzen ziotena aipatu eta goratzen du[1432]. Pilotariek ere, nork bere herriarekin lotura berezia dute: "*Pelotariyak duten bentaja / nua kontuz esatera: / noiznai deitu ta daramazkite / Amerika'ko partera; / iñork jokatu nai badiyote / ipintzen dute aukera, / erri batetik lau olakorik / sekulan eztira atera*"[1433].

Korrika apustua ere agertzen da bertsoetan[1434]. Bizikleta karrera ere bai[1435]. Azken kasu honetan ere, bizikletan doana eta bere herria identifikaturik ageri dira, tartean dirua ere jokatzen delarik:

> "*Sentimentu bat sartu zitzaidan, / betia negon neurriyan, / zergatikan zuk utzi ninduzun / estadu penagarriyan; / zitalkeriyan bi kolpe jota / pasatu ziñan arrayan, / zer pasatu zan berialaxe / jakindu zuten erriyan.*
>
> *Eskandaluak eragiten du / munduan zenbait pekatu, / jendiak franko itzegiten du, / oraindik ez da bukatu; / erriyak zerbait eman nai zigun, / ezin gentzake ukatu, / seireun errial jarri zituzten / nai bagenduen jokatu*"[1436].

Sega apustuak ere jasotzen dira bertsoetan. Hauetan ere apustua jokatzen duenaren eta honen herriaren arteko lotura sendoa da: "*Jendia pranko Astiasu'tik / juan zan Aia'ko partera, / Kortajarena kapitan zala / gizon erdiya jatera; / nere doblia ebaki baietz / egiña zeukan papera, / oraingo ortan ez dituzute / kontuak ongi atera*"[1437].

---

[1429] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit, 211. or.
[1430] Ohorea eta dirua dira, beraz, apustuei loturik ageri direnak.
[1431] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 212. or.
[1432] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 261.-263. or.
[1433] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 262. or.
[1434] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 354. or.
[1435] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 366. or.
[1436] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 366. or.
[1437] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 380. or.

### 3.1.3.Komunitate txikietan bizitzearen kostuak: "Gorroto zarrak, griña gaxtuak"[1438]

Komunitatearen indarra hainbestekoa izateak eta lotura hauek mantentzeko erabiltzen diren estrategiek badituzte bere ondorioak. Landa eremuan presente dagoen komunitatean ez da dena bakea. Testuinguru hauetatik gertuen dauden bertsolariek ez dituzte alderdi ilun hauek ezkutatzen gainera, ez baitute helburu inongo idealizaziorik egitea. Ez guztiek, behintzat.

Komunitate txikietan elkarrengatik gaizki-esaka aritzea gatazkarako bide gertatzen da askotan, zurrumurru eta esamesak sortzea ohikoa den zerbait da. Pello Errotak berak ere esango digu: *"Mingain gaiztuak eragiten du / munduban asko erida, / beragatikan papera onetan / ipiñi degu segida; / zer pasatzen dan ikasitzia / askorentzat komeni da, / bertso berririk etzan jarriko / ixilik egon balira"*[1439].

Pello Errota eta Gazteluren arteko bertsorik ere badugu honen inguruan, inbidia ere tartean delarik. Gaztelu horrela hasi omen zitzaion Pellori: *"Galdera egingo diot / Pello Errotari, / aber egiya ote dan / jakin detan ori; / zure auzoko batek / esan dit bart neri, / nola zor omen dituzun / iru gurdi gari"*. Eta Pellok erantzun: *"Batian badalako / ori da bestia, / neronek emango diot / errespuestia; / zarra desonratutzen / asi da gaztia, / orrek merezi luke / bizkarra austia"*. Gazteluk erantzun: *"Sekulan eztiot egin / gizon orri gaitzik, / aditu egin detana / esatia baizik; / berak aitortu ezpalu / ez nekien kasi, / geroztik nola dabillen / pagatu nai ezik"*. Eta Pello Errotak: *"Ik ere artuko al diguk / kontrako bidia? / Bañan auzuan daukak / abillidadia; / iri ere sartu zaik / enfermedadia, / semea're bazeukeat / i baño obia"*[1440].

Pello Errotak kontatzen digunez, behin, Arantzazura zihoazela istripua izan zuen trenean hildakoak ere bazirela esaten ari omen ziren, eta hori ez zen egia: *"Geren belarriyakin / gaude aditubak, / kuadrillan bagiñala / il da eritubak; / ori esan azi du / ezin sufritubak, / danok gera orduban / sano gelditubak"*[1441].

Xenpelarrek ere kontatzen digu horrelakorik, hau da, esames eta gezurren zabaltzea:

> *"Amigo batek or topatu nau / Ubalditxoko parian, / uste gabeko enkontra txarrik / izan ez dezan birian; / kulparik gabe nola nabillen / pertsona askoren abian, / ai ori pena eman dirate / Iru Errege gabian!"*

---

[1438] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 392.-393. or.
[1439] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 138. or.
[1440] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 94.-95. or.
[1441] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 201. or.

> *Errenteriyan esan omen du / laurogei urteko atsuak: / <Orroko orretxek para zituen / Palaziyoko bertsuak>. / Gazte bat balitz emain niozkake / belarrondoko batzuak, / konfesakizun aundiyak ditu / testimoniyo faltsuak"*[1442].

Zurrumurru edo esamesak ere sortzen dira, sexu kontuak direla eta. "Billera" edo dantza eta gero, mutilak neskekin geratzen ote diren edo ez, hori da kontua: *"Publiko dantza egiten dala / goizeko ordu batian, / lotsik ez duen batek esan du / au Oiartzun'go partian, / galerazteko pentsamentuan / gure atari maitian, / orain jendia konturatu da / gezurrak nola baitian"*[1443]. Baita hau ere: *"Garai onian bukatzen dira / gure billerako dantzak, / gero pitarra eranez nun-nai / pasatzen dira arratsak; / testimoniyoz jarri dituzu / familiako salsak, / mingaiñ zikiña dezun mediyoz / badira naiko mudantzak"*[1444]. Zergatik egin zuen salaketa neska hark? Tristea delako berez: *"Etxe ortako billera ortara / juntatzen geran gaztiak, / zuk dezun aña edukaziyo / izango degu bestiak; / bentaja duela uste al dezu / soñua galeraztiak? / Bere burua guardatzen du / bildurra duen tristiak"*[1445]. Mutilen garbitasunaren alde egingo da bertso sailean: *"Mariano eta Andres Naparra / dira alkarren lagunak, / Inazio eta Jose ta Joakin / adiskide ezagunak; / Alejandro eta Batista ere / juiziyua degunak, / sasoi degula garbitasuna / guardatu dezakegunak"*[1446].

Txirritak ere jasotzen du antzekorik: *"Auzotar batek enteratu nau / guztiz modu egokiyan: / nobiyuak zer martxa dabilkan / aber bai al nerokiyan; / itzak ederrak, begiyak alai / eta biyotza tranpiyan, / gusto onikan eman bihar du / allegatzen dan tokiyan"*[1447].

Komunitate txiki eta itxi hauetan, batzuk besteak auzitara behar baino maizago eramaten zituztela ere badirudi zenbait bertsoren arabera. Xenpelarrek, adibidez, horrela jasotzen du: *"Albaka batengatik / justiziyengana, / nork maitatu biar du / orrelako dama?"*[1448]. "Dama" horrek zigor gogorragoa espero omen zuen bere kontrarioentzat, baina azkenean ez omen zen hainbesterako izan: *"Orain eskerrik asko, / Mari Manuela, / uste zenuen betiko / galdu giñuela; / multa aundiyak eta /*

[1442] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 79. or.
[1443] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 402. or.
[1444] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 403. or.
[1445] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 403. or.
[1446] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 403. or.
[1447] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 346. or.
[1448] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 119. or.

*gañera kartzela / bazeniyon guretzat / falta etzala, / benturaz mintzatuko / enitzan bestela*"[1449].

Txirritak ere jasotzen du horrelako bertsorik. Bi anaiekin sesioan sartu eta auzitara ere joan zen gizon baten gorabeheren berri ematen digu. Lehenengo batekin, borrokan ibilia zen: "*Anai batekin okasiyua / izandu nuan lenbizi, / buruan neuzkan illiak tente / zizkidan jarri-erazi; / asi ta ere ongi zekiyen / etzala izango nagusi, / ni koleratu niñuanian / etxera juan zan igesi.*" Eta gero: "*Igesi juan zan sujetu orrek / beste anai bat bazuan, / indartsuaren fama zeukana / etxian eta auzuan; / neri jipoia eman nayian / zebillen asmo osuan, / egun batian asi zan eta / kukuak oker jo zuan*"[1450].

Hurrengo bi bertsoetan, gertatua kontatzen du:

> "*Ugaldetxo'ko zubi gañian / ura izketa torpia! / Uju ein ziran: <Ustel zerriya, / ator ni nagon tokia!> / Botillarekin tiratu ziran / izugarrizko kolpia, / ni izan nitzan lendabiziko / berak azpira botia.*
>
> *Apartatutzen asi ziran da / arren lagunak uzteko, / bata bestia probatu arte / ez iñork galerazteko; / berriz gañera bueltatutzerik / nonbait etzuten usteko, / denbora gutxi asko izan det / arri muturrak austeko*"[1451].

Eta asuntoa ez da horretan geratuko: justizia ere tartean sartuko da.

> "*Medikuaren etxera juan da / juezari eman parte, / kulparik gabe jo nuela ta / kastigatzeko ni fuerte; / orrek guardiya bialdu ziran / bere arma eta kate, / kalabozuan egondu nitzan / hurrengo amaikak arte.*
>
> *Kalabozotik tribunalera, / ura zan larritasuna! / Au da lenengo arrazoi bat an / juezak neri esana: "Bartarratsian purrukatuta / kolpatu dezu gizona, / jakiña dago zerbait kastigu / eman biarko zaizuna*"[1452].

Bertsoak jarrarazi dituenak, ordea, epaileari gertatutakoaren berri emango dio, nola botilaz jo zuen lehendabizi besteak. Epaileak testiguak ekartzeko esango dio, ea nor izan zen jotzen lehenengoa. Hala egin zuenean, irabazi egin zuen "pleitua" edo auzia, eta gainera, gastuak ordaindu beharrik izan gabe: "*Amar testigu etorri ziran, / pareja bat zan deitua, / guri begira egondu zana / an bueltan ibillitua; / asuntu ori*

[1449] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 120. or.
[1450] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 392. or.
[1451] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 392. or.
[1452] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 392. or.

*erabaki zan, / ezta dudan gelditua; / kastuetatik libratu nitzan, / irabazi det pleitua*"[1453].

Bertso sail berean, arazoak daude, era berean, batak besteari mahatsa moztu diolako. Nekazarien arteko arazoak dira, eta hori ere justizia aurrera eramaten dute: "*Oraindik lengo gorroto zarrak / etzaude oso aitua, / ezagutzen da nola zauden zu / arrokeriyan oitua, / ni naiz matsikan ebaki gabe / juztiziyara deitua, / alare oso kontentu nago, / irabazi det pleitua*"[1454].

Azken finean, gizon horrek duena "grina gaiztua" da: "*Bigarren txandan matsa moztuta / juezari eman parte, / pazientziya asko det baño / koleratu nitzan fuerte; / jeniyo fiña ibilliko da / orrengandikan aparte, / griña gaxtuak tiratuko du / bizirik dagoen arte*"[1455].

Bertsoetan arazoak ageri dira, halaber, norbaiti zerbait utzi eta bueltatzen ez duenean. Pertsona batengandik zerbait espero, eta bestelakoa ateratzen denean: "*Astua il da gurdiya ausi, / egun tristiak orduan; / beiak lanian purrukatuak / urrikaltzeko moduan; / gaiztuak milla karkulaziyo / ibiltzen ditu buruan, / sujeto ori ezagutu det / denbora juan da onduan*"[1456].

Komunitate harremanei eusteko ospakizunak aipatu ditugu lehen, eta baita benta eta tabernak ere. Janaren eta edanaren inguruan elkartzeko ohiturak eta honen inguruko gehiegikeriek ere bertsolarien eskutik komunitate errealera eta honen egunerokotasunera hurbiltzen lagunduko digute. Alkoholarekin arazoak dituzten pertsonak maiz agertuko zaizkigu bertsoetan: bertsolariak eurak batzuetan, eta baita eurek ezagutzen dituzten beste gizon-emakume batzuen kasuak ere. Ez dugu esan nahi komunitate txikiari loturik besterik ez dagoenik gai hau. Hirietan ere gertatzen dira alkoholarekin arazoak. Agian, garaiari, ohiturei, lotutako zerbait da, edota modernizazio prozesuak dakartzan sakoneko aldaketei erantzun gisa ere uler daiteke kasuren batean?

Txirritak, gizartearen joko-zurrutaren gaitzak kontatzen dizkigu. Senar-emazte batzuen kasua kontatzen du. Gizonak asko edaten du eta etxeko giro guztia hondatu egin du. Emazteak edateari uzteko eskatuko dio. Gizonak kasu egin, eta erabat aldatuko zaie biei bizitza:

---

[1453] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 392. or.
[1454] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 392. or.
[1455] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 393. or.
[1456] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 389. or.

> *"6/Biyotzeraño sartu zitzaion / nik egin nuen marrua; / berialaxe lajatu zuen / bere jeniyo arrua, / utzi zituan mozkorkeriyak, / kartak eta zigarrua; / len eun kilo pisatzen zuen / orain ezta sei arrua.*
>
> *(…)*
>
> *11/Nere ondora kuidado gabe / etorri zaite jatera, / maia konpleto jarriko zaitzu / kubierto ta platera; / jokuak eta zurrutak utzi / ziñuen alde batera, / bizi-modua nondik datorren / oraň kontubak atera.*
>
> *(…)*
>
> *12/Oraň esaten aritzen dira / auzoko jende guziyak: / <Zure senarra txit ondo dabill, / poztu du irabaziyak; / egun batian utzi zituen / kostunbre gaixto guziyak> / <Bai, egiya da, txit ongi gera / Jaungoikuari graziyak>"*[1457].

Txirrita berak edariarekin zuen harremanaz tratatzen duten pasarte ezberdinak baditugu. Txirritak asko edaten zuela eta mozkortu egiten zela, eta antzekoak esaten dituztenak. Hona:

> *"Zaartu ondoren, Altza'n arrebaren etxean bizi zala, erriko medikuak –Don Inazio Casares eta Don Leandro Aizpurua omen ziran- Txirrita ostatutik etxera ongi serbituta bialdu bear zutela pentsatu zuten.*
>
> *Kosta omen zan pixka bat; baiña bai fardel ederra eman ere.*
>
> *Hurrengo goizean, seietako mezetara zijoan jendeari, bertso au kantatu zion Txirritak:*
>
> *Zabal dagola ikusten badet / nik tabernako atia, / iduritzen zait pekatu dala / an sartu gabe joatia; / gure erriko bi medikuak / pikaro xamarrak tia, / bart arratsean bialdu naute / pipa bezela betia"*[1458].

Txirritak Fermin Imaz bertsolari eta lagunari jarritako bertsoetan ere, bigarren honek ardoarekin zituen arazoak jasotzen ditu. Horregatik ez omen zion Txirritak bertsolagun gisa deitzen: *"San Tomasez esan du / mozkorra etzala, / nik erantzungo diyot / bai ala zala. / Izan liteke ona / eta serbitzala, / bañan egiten diyo / arduak itzala. / Nire kontra ala / oju eta gala, / gaiztua nitzala, / gaizki gabiltzala; / obia da pasa zan / juan zan bezela"*[1459]. Bertso sail berean, hau ere esango du: *"Goiz tabernan sartuta / atera berandu, / premi aundirik gabe / zenbait eran du. / Nekatu gabetandik / nai luke mantendu, / andriak egiñetik / ogiya jaten du. / Bost aldiz esan*

---

[1457] ZAVALA, A.: *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 499.-500. or.
[1458] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 64.-65. or.
[1459] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 332. or.

*du, / entzun nai bazendu, / zurrutak sutzen du, / ark eziñ zuzendu; / gaxuak larrutikan / pagatutzen du*»[1460].

Txirritak Fermin Imazi bigarrenez ere jarri zizkion bertsoak. Gehiegi edatearen ondorioak jasotzen ditu bertan: besteak beste, emaztearekin eta lanarekin arazoak ekartzen ditu honek: *"Geienak gera zaliak baño / kontu izan eranian, / ez al dakizu zer pasatzen dan / deskuiratzen geranian? / Nundi-nai deia izango dezu / trebe bazaude lanian, / zenbaitek danak paltsuak ditu / bera mozkortzen danian*»[1461]. Eta hurrengoa: *"Andriagandik apartuta / iñoiz ibilli da ori, / erdi mozkorra zegon batian / berak esan ziran neri. / Arduarekin adiskide da, / gorroto gutxi lanari, / agindutzia ez du baliyo / berez alperra danari*»[1462]. Honela jarraitzen du: *"Gutxiyeneko bost ofiziyo / badituzu len pasiak, / ongi saiatu izan baziñan / baliyo zuten klasiak. / Berriz andikan ez dezu deyik, / gelditu ziran asiak, / argintzan bizi biar badezu / galduko zaitu gosiak*»[1463]. Azkenik: *"Lenago ere ibilli zera / oso tankera txarretan: / egunak pasa parrandan eta / lotan ukullu zarretan. / Ez dakit nola utzi dituzun / pagatuta edo zorretan, / nik baño obeto jakingo dute / Antigualde orretan*»[1464].

Txirritak, adibidez, andre edalea hartuko du mintzagai. Behin andre bat etorri omen zitzaion, senarrari bertsoak jartzeko eskatuz. Eta Txirritak hori egin ordez, andreari jarri zizkion bertsoak: *"Senarrarentzat nai zituenak / berari dizkat parako, / …. [sic] / ….[sic] / gizonarekin zer bizi-modu / txarra dadukan esan du; / antzeman nion zurrutera bat / etzala txarra izandu, / nigandik juan da bost minutuko / txopin bat ardo eran du*»[1465]. Txirritak, "Proporziyo bat izandu nuen" bertso sailean, neskazaharra eta haren ama zurruteroak zirela esango digu, baita Txirrita bera ere. Bertso sail bereko hainbat bertsotan heltzen dio gai honi: *"[…] goizero an da botillarekiñ / Amueneko atian, / litro erdi bat patar biaute / ama-alaben artian"*; edota *"Diru ta oiak baziñuela / amona zarrak utziyak; / ni engañatzen ibilli ziñan, / gezurrak dira guziyak; / zuek bi aizpa omen ziñaten / ama gaxuak aziyak, / zurrut geiago egitiatik / arraia saltzen asiyak, / zuk ez baño arrek merezi ditu / eskerrak eta graziyak"*. Eta hurrengo bertsoan: *"Ardua ere kastatzen dute, / ez aguardienta bakarrik, / bazkalduta're kaferik gabe / ez da artutzen patarrik; / ez Donostiya'n jaiotakorik, / aiñ gutxi goiarritarrik, / bere buruba ola ofrezitzen / ez dabill neskatx jatorrik; / baño gaxuak nere kontura / etzuen busti*

[1460] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 333. or.
[1461] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 339. or.
[1462] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 340. or.
[1463] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 340. or.
[1464] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 340. or.
[1465] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 378. or.

*muturrik"*. Eta azkeneko bertsoan *"[…]Eziñ sinistu izandu nuen / neskatxa orren esanik, / ta berak ere etzekiyen ni / zurruterua nitzanik; / alkarrengana bildu bagiña / etzan gurekin gauz onik; / jende geiegik jakiñ ez dezan / ez det esango izenik, / oraindik ere soltera dago, / etzuen artu gizonik"*.[1466]

Pello Errotak ere aipatzen du ardoaren gaia. Hona Jose Zapirainek jarritako puntuari Pellok erantzuna. Jose Zapirainek: *"Pello, zuretzat botika / da ardo zaarra"*. Eta Pellok erantzun: *"Orain ere balegoke / ez litzake txarra. / Barrena sartu ezkero / ematen du indarra, / bañan eztagonian / sufritu bearra"*[1467].

Komunitateen arteko lehiak maiz ematen zirela eta hauek, konfrontazioz, ispilu gisa eginez, komunitate bakoitzaren ezaugarriak eta harremanak sendotzen laguntzen zutela lehen ere esan dugu. Apustu eta joko kontuan, ordea, bi arazo aurki ditzakegu. Batetik, apustua bera hitzartzeko orduan edo aurrera eramaterako orduan sortzen diren desadostasunak, baita galtzaileek emaitza ez onartzea ere. Eta bestetik, apustu gehiegi jokatzeak, jokoarekiko menpekotasunak, sortzen dituen arazoak. Azken honi lotuta, karta jokoaz ere hitz egiten dute bertsolariek.

Apustua bera hasi aurretik ere gorabeherak izaten dira apustu hori jokatzeko baldintzak direla eta. Xenpelarrek kontatzen digunaren arabera, estropada batean ontziaren ezaugarriak direla eta istiluak izan zituzten*: "Getariyatik Zarautza joan ta / kayian giñaden jarri, / <Ia, mutillak, korajez asi!> / esan geniyon alkarri; / gero mudantza partikular bat / ezpaligute ekarri… / Azkenian zer gertatu zaigun / esango dizutet sarri"*[1468]. Getarian onartutako ontzia atzera botatzen saiatuko dira Zarautzen: *"Elkar artuta dudarik gabe / aitzakia billa zebiltzen, / gizon bat deika kaia gañetik / etzen beñere isiltzen; / lagun bi joanta jarri giñaden / aren esanak aditzen: / <Zuen txalupa ametitzia / eztit barrenak agintzen>"*[1469]. Xenpelarrek bekaizkeria azpimarratzen du: *"Askok badegu besteren ona / begiz ekusi eziña, / gure txalupa desanparatu / Ondarrabiyan egiña; / laguntzalliak izan ezkero / lijerua ta ariña, / kontrariyuak jarriko ziran / motelak izan bagiña"*[1470]. Baita jendearen esamesak ere: *"Gure txalupa abilla dala / au jendiaren mingaña!, / indarrarekin artutzen zaio / urian bere tamaña; / arraungilliak onak jarrita, / patroia berriz bikaña, / bestela zeñek ondu biar du / aurten egin dan azaña?"*[1471].

---

[1466] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 491.or.
[1467] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 261. or.
[1468] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 204. or.
[1469] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 204. or.
[1470] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 205. or.
[1471] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 206. or.

Txirritak ere jasotzen du horrelakorik Getaria eta Orioren artean, traineruen indar eta kalitateaz ari direla, eta bide batez, bi herriena: *"Bertso berriyak jartzera nua / euskera eder batian, / kulpa gabeko jende umillak / lotu gaituzte katian. / Gu askok autan ibilli gaitu / tabernetan da kapian, / tximillu txar bat asi da artza / artu nairik anka-pian, / baztar guztiyak nastuko ditu / uzten bazaio pakian"*[1472].

Apustu batean galtzaile izan denaren alde egin dutenak erraz haserretuko dira honekin: *"Toledo ori gizon prestuba / bere bizitza osuan, / arentzat ere armoni txarrak / egin ditue auzuan; / arren astuak azkar juteko / bihar aiñ indar etzuan, / ametituko zitzaion pozik / lan egin izan bazuan"*[1473]. Beste batean ere, hala diosku Pello Errotak: *"Zaku lertutik astoak egin / zizkiraden bi mokaru / nire artian pentsatu nuen: / <Pesta ederra zeukagu>. / Kontrariyuak esaten ziran: / <Orrek sartua palta du>. / Gizonak berriz juzkatu zuten: / <Jana arraian pasa du>"*[1474]. Antzekoa gertatu zitzaien Amasako sega apustuan ere. Irabazletzat belar gutxien ebaki zuena hartu, eta liskarra sortu zen: *"Bildurrik gabe nik esango det / pasatu zaigun guziya, / lagun artian koleratuta / nintzan izketan asiya; / uste det bada esan nuela / gauz bat ondo mereziya, / egun orretan egin genduben / erremateko auziya"*[1475].

Eskuetara ere iritsiko dira zenbait okasiotan, apustu kontuak direla eta. Apustuan irabazle nor aterako den erdi hitzartu eta jokalariek esandakoa betetzen ez dutenean, komeriak izango dira orduan: *"Kanpora deitu, okabillaz jo, / ez al da gaizki egiña? / Ori etzuen iñork jakingo / isillik egon bagiña; / gero nik zuri makillazo bat, / biyentzat jornal berdiña, / ontzako-urria eman bazendu / naiko zenduen ordaña"*[1476]. Hurrengo bertsoan tiro soinuaz ere hitz egiten da.

Txirritari buruz Antonio Zavalak kontatzen digu karta jokoan nola ibiltzen zen, nola tranpak egiten zituen[1477]:

> *"Txirritak, tabernarako ezik, jokora ere apizio pixka bat bazuen. Askotan entzun izan nion nola aritzen ziran diru-jokoan, eta zaartuta gero ere buru argia zuen orretarako.*
>
> *Joko-klase asko zekizkien; baña, berak esaten zuenez, trukean edo zinkomontean geiena gustatzen zitzaion; bañan musean ere ondo egiten zuen.*

[1472] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 303. or.
[1473] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 135. or.
[1474] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 46. or.
[1475] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 124. or.
[1476] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 367. or.
[1477] Hemendik aurrerakoak ez dira bertsoetatik jasoak, Jose Ramon Erauskin, Txirritaren ilobak idatziak baizik eta Antonio Zavalak argitara emanak.

*Alaz eta guztiz ere, etzuen nai zuen guztian irabazten, eta orretarako arte edo tranpa batzuek ez zitzaizkan faltatzen.*

*Bein batean, bere moduko lagun batekin musean ari zala, biak naiko lanak zerabilzkiten elkar ezin menderaturik; eta lagunak or jo dio ordago aundira bi erregerekin; baña Txirritak irurekin erantzun zion.*

*Orduan bere lagun edo, obeto esateko, kontrarioak, bost errege azaldu zirala ikusirik, esan zion Txirritari:*

*-Ik nundik atera dituk orrenbeste errege, Txirrita?*

*-Ik bezela nik ere beste karta-parea patrikatan ibillita –erantzun zion Txirritak"*[1478].

Beste pasarte batean, jokoa debekatua nola zegoen ere kontatzen digu Antonio Zavalak. Kartetan dirua jokatzea zegoen debekatua:

*"Beste batean, Donosti'tik Tolosa'rako bidean dagoen eta Zapatari deitzen dioten barrio bateko taberna batean, kuadrilla edo lagun-talde bat, guardaren beldurrez goiko salara igo ta diru-jokoan ari ziran, garai artan ere jokoa galerazia baitzegoen.*

*Guardak arrapatzen bazituen, kastigatu egiten zituen, eta maian ziran diru guzien jabe bera egiten zan. Beragatikan zan oitura bat, guarda ikustean, al zuenak al zuen dirua artu ta itzuli egitea.*

*Orduan ere, usterik gutxiena zuten garaian, an sartu da guarda tabernan eta goiko salara abiatu da. Ura ikusi zuenean, Txirrita korrika kalera joan zan; ta bere lagun Inaxio Marik, maian zeuden diru guztiak artu, bere txapelan sartu ta leiotik edo balkoitik kanpora bota zituen.*

*Ori guardak ikusi zuenean, joan zan alik azkarrena kanpora, jendea kastigatzea gogoratu gabe ta diru aiek artzeko uste osoan. Bañan ordurako Txirrita, nola lagunarekin jakiñaren gañean jarria baitzegoen, diru danak artu ta itzuli joana zan"*[1479].

Eta atal honekin bukatzeko, Artzai-txikiyak zuen jokorako afizioaz eta honen ondorioez, hona:

*"Jokorako apizio aundia omen zuen (Artzai Txikiak), baña geienean galdu egiten omen zuen; eta, zituen diruak galtzen zituenean, <Asko diat!> esan eta gelditzen omen zan.*

*Bere andrea agin ateratzen aritzen zana omen zan; eta, jokoan galdu eta xoxik gabe gelditzen zanean, askotan esaten omen zuen:*

*-Gure Jainkoak emango al ziok bat edo bati agiñeko miña!*

---

[1478] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 69. or.
[1479] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 69.-70. or.

*Nonbait, andreak dirua irabazi zai egoten zan, jokora joateko"*[1480].

Borrokak ere ageri dira gure bertsolarien ahotan. Arrazoi desberdinengatik sortzen ziren hauek. Txirrita, adibidez, "Bertso berriyak, Txirritak jarriyak" bertso sailean, puskatutako ezkontza tratu bat dela eta sortutako borrokaz mintzatuko zaigu. Dirudienez, neska-mutil batzuek ezkontza tratua egin zuten, baina beste mutil bat sartu zen tartean, lehenago neskaren nobio izandakoa. Eta nobio hark eta haren lagunek jo egin zuten geroztik ezkontza tratua egin zuena. Bertsoak egurra jaso zuen mutilak jartzeko eskatuak dira. Bertso horien bitartez ikus dezakegu bai nola zegoen gizartea antolatua, baita euren arteko harremanak nola batzuetan liskartsuak ziren ere:

*"Bire-baztar batian / an zegon gordia / makilla motz batekiñ, / aiñ zan kobardia; / buruan jota kendu / nai zian kordia, / neoni ere lotan / ez negon ordia.*

*Itza eman bazizun / orri egin kaso, / ez neri kulpa gabe / makillarik jaso; / nola izandu geran / lagun eta auzo, / barkatzen dizut baño / gaizki dago oso.*

*Beti guri segika / baserri ta kale, / beste lagun batzuek / bazituen alde; / bi kolpe eman dizkat / ukabillaz dale, / andik aurrera etzan / okasiyo-zale"*[1481].

Beste batzuetan, parranda, joko eta borroka kontuak batera datoz. Hona hemen bi pasarte txiki:

*"San Markos eta Txoritokieta mendien arteko lepoan bazegoan kantina bat.*

*Jai batean, kantina ontan jokoan aritu zan Txirrita erdaldun batekin, eta Txirritak irabazi.*

*Andik atera eta etxe aldera alkarrekin zijoazela, erdaldun orrek, Txirritaren uste gabean, daka!, labana sartu zion bizkarretik.*

*Txirritak, kolpea sentitu zuanean, jiratu eta, zas! Ostikoz jo eta ankaz gora bota zuan erdaldun ura. Baina bai bera ere bertan erori.*

*Kantinara jaso zuten, ekarri zioten medikua, onek oso gaizki arkitu zuan, […]"*[1482].

Eta, hemen, borrokari buruzko beste pasarte bat**:**

*"Errenteri'ko Etxe-txiki baserrian taberna omen zan garai artan.*

*Egun batean an zegoan Txirrita. Sei laguneko kuadrilla bat ere ara bildu zan. Oiartzuarrak izan bear zuten mutil aiek.*

---

[1480] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 99. or.
[1481] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 494. or.
[1482] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 63. or.

*Zertaz ez dakigu, baiña asarretu egin ziran Txirrita eta kuadrilla ori.*

*Txirritak desafioa egin zien: etortzeko aietako bat, edozein, gizona bazan. Bik nai zuten eta bat prestatu zan.*

*Joan ziran aldameneko zelai batera, asi ziran burrukan eta Txirrita azpira.*

*Baiña Txirritak zintzurretik elduta zeukan bestea, eta beatz aundi biak sartu eta lepoa estutu egiten zion, itoaz.*

*Mutil aietako bat konturatu zan lagunak zurrunga egiten zuala, eta orduan libratu zuten Txirritaren atzaparretatik, baiña gogotik estutua eta kordea galduta. Bere onera ekartzen aritu ziran gero.*

*An ala bukatu zan. Baiña beste egun batean, Errenteri'tik Oiartzun'a bitarteko Larzabal sagardotegian, gaurko futbol-zelaiaren parean, kuadrilla ori zegoan. Alako batean, Txirrita sartu zan.*

*Baso bat sagardo edan zuanean, ala esan zuan kuadrillako batek:*

*-Orain ere orri horrela utzi bear al diogu?*

*Txirritak beste baso bat sagardo edan zuan, eta abiatzerakoan onela esan zien:*

*-Nai dezutena egin, mutillak. Baiña bizirik uzten banazute, nik bakarrik arrapatzen dedan arek pagatuko dik.*

*Eta arekin bukatu zan sesioa"*[1483].

## 3.1.4.Boterea ordezkatzen duten erakundeak eta pertsonak

Landa eremua, jakina, ez da biziko boterea ordezkatzen duten pertsona eta erakundeetatik urruti. Bestela esanda, erakunde eta pertsona horiek presente egingo dira landa eremuan. Hemen azalduko ditugu, besteak beste: etxea, udala eta eliza, eta eskola eta soldaduska. Azken bi horietan, aurreraxeago ikusiko dugun bezala, zentralizazio indarren eragina handiagotzen joango da XIX. mendeak aurrera egin ahala.

"Gobernatu" hitza hainbat esanahi adierazteko erabiliko dute bertsolariek. Asko dira bertsolarien artean "gobernatu" hitza etxeari eta familiari lotuta erabiltzen dutenak[1484]. Gehienetan gizon-emakumeen mantenuaz, elikaduraz hitz egiteko erabiltzen dute. Hona Txirritaren zenbait adibide:"<*Gobernatuko degu alaba / ez bizi arren aberets, / zuk ere zerbait egingo dezu, / ala pentsatzen det nerez; / salda*

[1483] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 63.-64. or.
[1484] Ikus Xenpelarren "Andre txarraren bentajak" bertso saila 2.2. puntuan.

*ona ta pastel goxuak / emango dizkagu berez, / ekaitzu oiek guretzat eta / orri botilla bat Jerez*"[1485]. Txirrita berak, San Joan bezperan koplak kantatzen ari dela, Hernaniko Adarraganekoei honela esan zien: "*Negun sagardo ederra badu, / udaran txokolatia, / oiek badute jendia gober- / natzeko borondatia*"[1486]. Beste batean, apustu bati buruz ari dela, kontrarioaren indarrak gogoan dituela, honela dio: "*Aitortzen dizut, Kortajarena, / gizon pizkorra zera zu, / gure Jainkuak eman zizun da / indarra pranko badezu; / au da lastima izugarriya: / gobernatzen ez dakizu; / Astiarra'ko Begi-Txikiyak / ederki neurtu dizkizu*"[1487].

Animaliei ere aplikatzen die Txirritak "gobernatu" hitza: txakurra ongi gobernatua zegoela esaten digu, gizendua zegoela adierazi nahirik. Hona: "*Guretzat etzan bera / txarra izanduba, / ongi gobernatuta / zegon gizenduba; / zartu baño lenago / utzi du munduba, / amaika sator beltzi / bizitza kenduba*"[1488].

Ez dugu ahaztu behar doktorego tesi honen hasieran ere esan duguna. Guk darabiltzagun ahotsak, sei bertsolariak, gizonezkoak direla eta ematen duten ikuspegia gizonei dagokiena dela. Emakume eta gizonen arteko menpekotasun harremana garbi adierazia geratzen da zein den, landa eremuan batez ere. Lehen ere aipatu dugun gaia izan arren, ez dator soberan berriro ere gogoratzea. Pello Errotak garbi esango digu: "*Bi emakume lau astorekin / kalera dira abitu, / nire etxekuak izatezkero / biarko zuen gelditu; / ibilli pranko egiñagatik / eztue asko serbitu, / gizonik ezta ondo biziko / andriak galtzak baditu*"[1489]. Emakumeek "gobernatu" dezakete, etxe-barrua batez ere, baina kanpora begira, gizona izango da horren arduradun.

Txirritak berak, ordea, etxeaz gain, herriari lotuta ere erabiltzen du "gobernatu" kontzeptua: "*Nire iriyak Frantziya'rako / gogo txikia daukate, / bire erditik bueltatu ditut / nola baitagon aparte; / gobernatuko luke erriya / ori balego alkate, / zernai pikardi berak eginda / beti besterik kulpante*"[1490].

Pello Errotak, berriz, "poderia" hitza erabiliko du, kasu honetan, aberastasunari lotuta. Azpeitiako premioaz ari dela, honela esango digu: "*Abisatu zizun ori / ez dago pobria, / guk aña izango du / zillar da urria; / bestela ez dakit bañа / mingañez*

[1485] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 481. or.
[1486] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 149. or.
[1487] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 380. or.
[1488] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 478. or.
[1489] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 138. or.
[1490] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi*, op. cit., 390. or.

*noblia, / besterenetik konpritu / nai luke ordia; / premiyo neria / ez dala zuria / sinistia obia, / nik det poderia; / gordetzia libre du / zeñek beria*"[1491].

Landa eremuan lehenengo botere esparrua etxearena izango da, boterearen territorializazioan[1492] emango den lehenengo pausoa da. Etxeko jaunak etxearen baitan justizia egiteko eskubidea izango du. Estatu nazioaren eraikuntzaren baitan, etxeko jaunaren jurisdikzioa zalantzan jarria izango da. Aurrerago ikusiko badugu ere, Txirrita izango da eskoletan gaztelania inposatzen ari dela eta, maiorazkoei egoera honi aurre egiteko eskatuko diena, etxeko jaunen botere eta ardurari dei eginez[1493].

Etxeaz gaindi, boterea gauzatuko den hurrengo maila udalerria izango da. Udalaz ari garela, bada bertso bat, oso garbi ez dagoena norena den. Batzuek diote Pello Errotarena dela; beste batzuek, Udarregirena; eta beste batzuek, berriz, Txirritarena dela. Pello Errotarena bezala jotzen zuen bere iloba Bautista Kortajarenak. Dirudienez, Pello Errota udaletxera paper baten bila joan, eta bilduta topatu omen zituen han denak. Bertsoa kantatzeko eskatu zioten hauek eta Pellok halaxe egin zuen: "*Kontzejura etorri naiz / paper baten billa, / erri txiki baterako / au dek alperpilla! / Tintero eta pluma, / bastoi ta makilla, / pobriak altxatzeko / ai zer kuadrilla!*"[1494]. Beraz, bertan ari zirenak ez ziren pobreak, baina "bere kargu" zituzten hala zirenak. Horrela dirudi behintzat!

Xenpelarrek kontzejua justiziaren praktika eta gauzatzearekin lotzen du: "*Hogei ta lau errial / albakaren multa / pagatu genituan / kontzejura juanta; / ez daduka merkia / belar orrek punta; / nork sinistatuko du / au iñork esanta: / keja orrekin juan dala / gaztia izanta?*"[1495]. Mutil koadrila batek albaka zatiren bat lapurtu bide zion neska bati eta honek auzitara eraman zituen horregatik. Albaka arropei eta usain gozoa emateko erabiltzen zen. Brometan bada ere, "Bertso berriak Pasaiako zezenari jarriak" bertso sailean ere lotura bera egiten du: "*Ayuntamentubari / eman diye parte, / balkoyian jarrita / daguela Almirante; / sententziya bereala / atera diyote: / jetxi dedilla andik / inmediatamente*"[1496].

Festaren ospakizuna ere Udaletxearen eraikuntza inguruan egiten da. Komunitatea sendotzeko estrategia den festaren ospakizunean, beraz, zentralitatea izango du

[1491] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 145. or.
[1492] Baldo zuzenbidean adituaren hitzetan, "territorioum" hitzaren esanahia, "spatium terrae munitum et ornatum iuris dictionis" zen, hau da, bertan justizia esan edo egiteko aukera ematen zuen lur zatia.
[1493] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[1494] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 267. or.
[1495] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 120. or.
[1496] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 143. or.

udalak. Pasaiako zezenketan horrela ageri da: *"Ez degu bada esan nai / pasatu ez danik, / sekulan ez det ikusi / orlako zezenik; / kontzejubaren onduan / balkoian jarririk, / aiuntamentukua / zala uste nuben nik"*[1497].

Udaleko buru alkatea izango da. Pedro Mari Otañok 1879an Villabonako alkate egin zuten Fidel Lizarragari ipinitako bertsoak ditugu. Landa eremuko aberats eta pobreez aritu garenean aritu gara gizon honi buruz hizketan: Pello Errotak nahiago zuen berarekiko distantzia mantendu harremanak estutu baino[1498]. Ez da Pedro Mari Otañoren kasua izango. Honek bertsoak ipiniko dizkio alkate izendatu zutenean: *"ezaguturik dala komeni dan gauza / ematia merezi duben alabantza"*[1499]. Gaztetako Pedro Mari Otaño dugu hau: jadanik Ameriketan behin, bederen, egona, baina oraindik Donostiako egonaldia eta Ameriketako azken urteak bizitu gabea. Horregatik, landa eremutik hurbil dagoen ikuspegia emango digu, gerora eraldatuz joango zaiona edo duena.

Herri eta alkatearen arteko harremanaz jabetzeko, edo Otañok hori nola ulertzen zuen ikusteko, behintzat, baliagarri zaizkigu bertso hauek. Berorika hitz egiten dio, behin eta berriz: hau ere bada distantzia eta errespetuaren erakusgarri. "*On*", "*jauna*" gisako hitzak ere eransten dizkiote haren izenari: *"On Fidel Lizarraga, atenditu beza: / bedorrengana gatoz […]"*[1500]; *"Juan dan aspaldiyan desiotan geunden / gure alkate jauna ikusteko emen;"*[1501].

Nola deskribatzen du alkatea? Artzain gisa agertzen digu eta herria, artalde gisa[1502]. Baita argi egiten duen izar gisa ere. Bereziki azpimarratzen du Otañok eskain dezakeen babesa:

> *"Jakiñik bedorrekiñ kontentuz gaudela, / ez gaitu utzi biar bakarrik berela; / gu emen geldituko gerade bestela / artzayikan ez duten ardiyak bezela.*
>
> *Bedorren anparua gauza biarra da, / bakarrik gelditzia guretzat txarra da; / zuzen argi egingo digun izarra da, / onorez beterikan, Fidel Lizarraga"*[1503].

Alkatetza diputatu izateko aukerarekin ere lotzen du Pedro Mari Otañok: *"Erri onen karguba aurten artu badu, / gradu andigua're merezituba du; / probintzi onek ondo luzituko badu, / oraiñ alkate da ta laxter diputadu"*[1504].

---

[1497] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 140. or.
[1498] Berrikus 1.1. puntua.
[1499] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 171. or.
[1500] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 171. or.
[1501] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua I,* op. cit., 171. or.
[1502] Pello Errotak berriz, apaiza azaltzen zuen artzain gisa.
[1503] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 171. or.

Pedro Mari Otañok Fidel Lizarragarekiko atxikimendu erabatekoa adierazten du: *"Bedorrengana oso itxutubak gaude, / aurrera ere ala izango gerade; / gertatzen baldin bada zerbait nobedade, / gurekiñ konta beza kuidadorik gabe"*[1505].

Eta, bukatzeko, lehen ere aipatua dugun ideia bat ageri zaigu berriro ere: kalea justiziarekin lotzen bagenuen, alkatearen figura ere bai. Horrela ageri da: *"Biba on Fidel jauna, gure nagusiya, / gradu ori daduka ondo mereziya; / biba gero segitzen diyon justiziya, / Jaunak diyela urte askoko biziya"*[1506].

Landa eremuan Elizaren boterea ordezkatuko duena, apaiza izango da. Komunitatea indartzeko estrategiez aritu garenean, erromesaldien praktika erlijiosoa aipatu dugu. Pello Errotak apaiza nola aipatzen zuen eta honi aitortzen zion gidaritza lanaz mintzatu gara[1507]. Honetaz gainera, apaizak ere ageri dira herrietan zenbait onuren jabe. Elizaren ordezkari gisa hainbat gauza badituzte bere alde. Bilintxek, "Potajiarena" bertso sailean, Oiartzuna pilota partida ikustera joan eta bertan bazkaltzen gelditu zenean, apaiz batekin pasatutakoa kontatzen digu: *"Partiduba jokatzez / bukatu zanian, / ostatura juan nintzan / zuzen-zuzenian; / maiera jana ekartzen / asi ziranian, / apaiz bat serbitzen zan / aurren-aurrenian, / makiña bat sartu zan / arren barrenian"*[1508]. Bilintxi apaiz hura, *"kortesia gabeko / txapela luzia"* iruditzen zitzaion, *"arrek naikua jan ta / ni berriz gosiak"* baitzegoen[1509]. Hala ere, bertso sailaren bukaeran argituko digu ez direla apaiz guztiak berdinak: *"Geroztik ostatuan / sartu ordurako, / galdia egin bage / ez det nik lajako: / egun artan apaizik / ote dan arako, / ez apaiz jaun guziyak / igual diralako, / baizik batek bildurra / sartu ziralako"*[1510].

Pello Errotari, Orendainen bertso kantari ari zela, bertako erretorearen santuaren eguna tokatu omen zitzaion. Honakoa kantatu omen zuen: *"Kantu lanean ari gerade / ni eta nire laguna, / tokazioz egokitu zaigu / bikario jaunan eguna; / oiek egiten dute alegiña / erakusten gauza ona, / gure Jainkuak eman deiola / urte askuan osasuna"*[1511]. Erretorearen irakasle eta hezitzaile papera azpimarratzen du Pello Errotak hemen.

---

[1504] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 171. or.
[1505] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 172. or.
[1506] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 172. or.
[1507] Ikus 3.1.2.1. puntua.
[1508] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 195. or.
[1509] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 196. or.
[1510] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 196. or.
[1511] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 265. or.

Txirritak ere aipatzen ditu apaizak, zenbait kasutan, bere bizitzako pasarteekin lotuta, txiste edo kontakizun barregarriekin bat:

> *"Beste egun batean, esan bezela Errenteri'ko elizan lanean ari zala, bikarioak arrantxoa litro erdi ardorekin ekarri zion. Txirritak esan zion:*
>
> *-Bai al daki edateko gogorik badedan ere?*
>
> *Bikarioak:*
>
> *-Argiñik ez da izaten edaten ez duanik.*
>
> *Eta Txirritak:*
>
> *-Bai, jauna. Argiña izan diteke; baiña apaizik ez"*[1512].

Denboran aurrera egiten badugu, eta erlijioak indarra galtzen duen neurrian, apaizen gidaritza lana zenbaitek kolokan nola jarriko duen ikusiko dugu[1513].

Eskolaz eta soldaduskaz aurrerago hitz egingo dugu, gure ustez, landa eremuan aldaketa zenbait horien bidez etorri baitziren. Botere zentralak bere presentzia nabarmenagoa egiteko bide gisa erabili zituen hauek[1514].

## 3.1.5. Hiri nagusia: Donostia

Hiriaz ari garela, Gipuzkoan Donostia[1515] nabarmentzen da. Landu ditugun bertsolarien artean, batek baino gehiagok abesten diote Donostiari, objektutzat hartuz. Edo bestela, bide batez bada ere, makina bat aldiz aipatua da. Bertsolari bakoitzak bere errealitatetik abestuko dio Donostiari eta, horregatik, honi buruz ematen duten ikuspegia desberdina izango da. Aurreraxeago ikusiko dugun bezala, gehienek hiritzat hartzen dute, baina Bilintxek, aztertu ditugun bertsolarien artean donostiarra zen bertsolari bakarrak, behin baino gehiagotan "herri" gisa izendatuko du. Donostia, hiria izanik ere, landa eremutik hurbil dagoen hiria izango dugu, eta bertan aurkituko ditugun hainbat praktikak hiri eta landa eremuaren artean zubi

---

[1512] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 57. or.

[1513] Errepublikano bergarar bati buruz ari dela, Joxe Mari Lopetegik esango digu euskalduna eta ezkerrekoa dela, eta ez duela apaizik ikusi nahi. Bertso sail honetan, Azpeitian errepublikarrak mitina ematera joan zirenean, karlistak nola haserretu ziren agertzen digu. Apaizari –eta honen gidaritza eta erreferentziazko pertsona izaera aitortzeari- uko egingo dio ezkertiar errepublikano batek. Ikus ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 108. or.

[1514] Ikus 3.2.6. puntua. BAROJA, Pio: "El carbonero". In: *Cuentos.* op. cit., 70.-73. or. Hirietatik dator aldaketa.

[1515] Donostia gune liberala da eta bertan burgesia komertziantea aurkituko dugu. XVIII. mende bukaeran jadanik, Konbentzioko gerraren testuinguruan, frantses gudariei ateak zabalduko dizkien hiria izango da. XIX. mendean sistema foralaren baitan aldaketak eragin nahiko dituzte komertzianteek Espainiarekin harreman komertzialak errazteko.

lana egingo dute, Santo Tomaseko feriak, kasu. Gogora ekarri behar genuke hainbat intelektualentzat –Campion, J. M. Barandiaran- XX. mende hasieran Donostia inguruko herrietan eragin negatiboa zuen hiria zela. Hala ote bertsolarientzat?

Pello Errotak Donostia "ziudade"[1516] gisa ezaugarritzen du: *"Ziudade orrek badu / aparteko grazia, / estimatutzen dute / euskaldun guzia; / igaz allegatua / nago lenbizia, / oraindik goguan det / orko noblezia, / argatik esaten det: / <Biba Donostia!>"* [1517] . Pello Errotak dioenaren arabera, Donostiako ziudadeak euskaldunak estimatzen baditu, badirudi Donostia beste entitate bat bezala, desberdin, ikusten duela. Zein interes du Pello Errotak Donostian? Bertsolarien arteko txapelketa antolatu dute eta Pello Errota bertara joateko prest ageri da, ea saririk irabazten duen[1518]. Txapelketa antolatzen duena Donostiako udala denez gero, udalari zuzentzen zaio, pertsonifikazioa erabiliz: *"Aiuntamentu noble, / ongille, trebea,"*[1519], edo pixka bat aurrerago *"Abisatutzen diot, / aiuntamentu jauna, / disponitu dezala / berak nai duana;"*[1520] .

Txirritak ere "ziudadia" deitzen dio Donostiari: *"Siglo berriyan gaude ogei ta / zazpigarrengo urtian, / estropara bat izandu degu / Kantabria'ko partian, / Gipuzkoa'ko Donosti deitzen / dan ziudade batian, / guziyak alkar istimatuaz / bizi gaitezen pakian"*[1521]. Eta beste behin: *"Eskarrik asko, Donostiya'ko / ziudade amantia, / aurten naikua egin dezute / orrenbeste ematia; / ikusirikan badaukatela / olako borondatia, / berriz biartzen baditu ere / mereziko du juatia"*[1522].

Baina hiriaz eta Donostiaz mintzatuko zaiguna Bilintx izango da. Bilintxek emango digu hiriko bizitzaren berri: ez zerbait harrigarri edo berezi bezala, bera bizi deneko ingurune "natural" gisa hartuko du Bilintxek hiria eta Donostia.

Hala ere, nahiz eta Bilintx Donostian bizi, zeharka honi buruz hizketan ari dela, "erri" hitza ere erabiltzen du batzuetan, edota zehazkiago, "erritar" izena ematen die bertako biztanleei. *"Zaldi zuriyaz"* ari dela, *"Goizero biar diyo / eraso lanari, / zikiñak bildu arte / erri danari"*[1523], *"asi zan egunetik / eta oraiñ arte, / serbitzuba*

[1516] "Hiri" eta "uri" izenak erromatarren garaitik datoz.
[1517] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 121. or.
[1518] A. Zavalak jasoa duenez bi sari omen zeuden: lehenengoarentzat 40 pezeta eta bigarrenarentzat, 25.
[1519] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 119. or.
[1520] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 120. or.
[1521] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 369. or.
[1522] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 451. or.
[1523] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 141. or.

*egiñ du / erriyan bastante*"[1524]. Ikus beste behin ere: *"Izan ere gorputza / dezu aproposa, / ikusi utsarekiñ / ematen du poza; / beste iñor ez dala / zu beziñ airosa, / erri guziyan dago / banatuba boza"*[1525]. Edota beste okasio baten: *"Graziyazko aingeru / adoragarriya, / Jaunaren ondotikan / egan etorriya, / zerubak egintako / milagro berriya, / gloriyaz bete dezan / Donostiko erriya!"*[1526].

Eta Bilintxek baino gehiago oraindik, Pedro Mari Otañok hitz egingo digu Donostiaz. Bere osaba Joxe Bernardori 1889an bertsoz osatutako gutuna idatzi zionean, honela zioen:

> *"Euskal lurreko lore-baratza / zeruko intzez bustiya, / beste izar ta argi guztiyak / itzaltzeko eguzkiya; / zure berdiñik iñun ez dezun / biyotzeko Donostiya, / nork du mingaña zu goititzeko / merezi dezun guztiya?*
>
> *Donostiya'ko ciudadia, / Irutxuloko uriya, / etxian zuben perlik onena / Jainkuari ixuriya, / zartzen diranen alaitzallia, / gazte guztiyen nobiya; / zeruba zer dan ez dakit, bañan / zu zera nere gloriya.*
>
> *Urruti zaude eta zalla da / ni zugana irixtia, / onenbeste nai dizun batentzat / zer bizimodu tristia! / Alaipire bat bakarra daukat / ametsetan sinistia: / zu ikusteko noiznai asko det / nere begiyak ixtia"*[1527].

Aurrez aipatu dugun bezala, Pedro Maria Otaño zizurkildarra zen. Gaztetan, ordea, Donostiara lekualdatu zen. Ameriketan zela, Donostiara bueltatzearekin egiten zuen amets Pedro Mari Otañok. Bertso sail batean baino gehiagotan egingo zion aipamena Irutxulori. "Ziudadia" eta "uriya" izenak ematen dizkio[1528], eta haren edertasuna eta harekiko duen maitasuna azpimarratzen ditu Otañok, baita, urruti izanagatik ere[1529], harekiko sentitzen zuen hurbiltasuna. Donostiaz hitz egiteko modu jasoagoa erabiliko du Otañok, errealitatean oinarrituz baina harekiko desioak puztua: alderdi onak areagotuak azalduko ditu. Pedro Mari Otañorentzat Donostia hiria izanik ere, landa eremutik hurbil ikusten zuen hiria zen. 1896ko "Aitona gizagaisoa" konposizioan, *"Donostiako uria"* dio, eta baserri mundua ez du honetatik urrutiegi ipintzen: *"Udaberriko usai gozozko / illunabartxo batian, / Donostiyatik urruti gabe, / uri ontako partian, / baserritikan onontz datorren / bidetxigor politian,"*[1530].

---

[1524] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 143. or.
[1525] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 228. or.
[1526] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 167. or.
[1527] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 188. or.
[1528] Pedro Mari Otañok ez dio Donostiari "herria" deituko, bere "herria" Zizurkil izango da.
[1529] Edo agian horregatik, urruti zegoelako.
[1530] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 446. or.

1894an, Pedro Maria Otañok Donostian izan ziren euskal jaietarako poesia luzea osatu zuen Donostia definitzeko helburuarekin, eta lehenengo saria irabazi zuen, gainera.

Donostia definitzeko proposamen ezberdinak zeuden hartan, uso batekin konparatuko du Pedro Mari Otañok. Izendapenari buruzko eztabaidan, ikasketa maila ezberdinetako pertsonak daude, eta lehia horretan, maila apalenekoen artean kokatzen du Otañok bere burua[1531].

Donostia "usoa" testamentu zaharreko kontakizuneko usoarekin lotzen du, Noeren garaiko uholde ondorenean lurra topatu zuen uso harekin, eta, bestetik, Donostiako orografia eta auzoak kontuan hartuz, usoaren gorputza eta atalak mapan kokatzen ditu, usoaren irudia positibatuz.

Ararat mendietatik *"Iritxi zubenian / berriz Kantauriya, / ementxen autu zuben / beretzat kabiya; / etziñ zan, eta ez da / geroztik jaikiya; / begira non daguan / gaxua jatxiya: / len uxua zan eta / oraiñ Donostiya"*[1532]. Eta horra usoaren gorputza eta Donostiako mapa nola egiten dituen bat: *"Buruba ageri du / Gaztelu orretan, / korputza Donostiko / etxe ederretan, / ta isatsa Loiola- / ko erriberetan; / eskuiko egua / Ategorriyetan, / eta ezkerrekoa / Antiguan bertan, / edo alde artara / dauden birietan."*[1533].

Euskal jai haietan idazlanen gaien artean *"Donostia zer nolako uda-lekua"* zen ageri zenez gero, garaiko turismoari erreferentzia txiki bat, behinik behin, egingo dio: *"Beste pixti batzubek / egope onetan / ikusten dira iñoiz / uda-egunetan, / beren lumak bustiyaz / Kontxako oletan, / pozkidaz dabiltzala / jostatzen uretan…"*[1534].

Donostiari bertsolariek egindako aipamenak azaldu ondoren eta, batez ere, Donostia nola izendatzen zuten ikusi ondoren, beste elementu bati ere egin nahi diogu erreferentzia. Landa eremuaz mintzatu garenean, komunitate harremanak indartzeko zeuden dinamikak eta praktikak aipatu ditugu. Hirietan, kasu honetan Donostian, praktika berariazko batzuk ere aurkituko ditugu, landa eremuan ikusi ez ditugunak. Haize berrien adierazle dira horiek. Zehatzago azter ditzagun.

---

[1531] Tartean batzuk "Kantauriko perla" izendatuko dute Donostia. ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 408. or.
[1532] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 411. or.
[1533] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 411. or.
[1534] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 411. or.

Zein giza antolamendu kolektibo aurki ditzakegu hiriari loturik[1535]? *"Galop infernal lagunkida fraternal"*[1536] bati buruz mintzo zaigu Bilintx. Bertsolari honek, donostiarra izanik, emango digu hobekien hiriko eguneroko bizitzaren berri. Zer da *"Galop infernal lagunkida fraternal"* hau? Besteak beste, eta bertso sail horretan emandako informazioaren arabera, langileez osatzen zen eta dantzaldiak antolatzen zituen elkartea. Dirudienez, egiten hasi aurretik fama txarra hartua zuten dantzaldiok eta Bilintxek horregatik defendatu egingo ditu. Bertso sailaren lehenengo zatian, damei zuzentzen zaie eta Garizuma bukatu bitartean dantzaldi gehiago ez dela izango esaten die. Bertso sailaren bigarren zatian, berriz, dantzaldien defentsa egiten du.

Interesgarri gertatzen da nola ezaugarritzen duen Bilintxek bere burua: *"Langileen dantzetan / izaten geranak, / bost arratsetan pruebak / dauzkagu emanak,"*[1537]. Bilintxek langiletzat du bere burua. Hirian soziabilitaterako espazio berriak eta horien ardura duten antolamendu berriak ageri zaizkigu. Hauek, ordea, ez dira beti ongi ikusiak izango: *"Aiek guregatikan / esan zutena da: / <Barulloa sortzeko / kuadrilla ona da!!! / Neskatxa onradurik / baldin juaten bada, / lotsatuta kanpora / irten biarra da>"*[1538]. Ardo gehiegi edatea ere leporatuko diete: *"Baita ere gauza onik / gurekin ez dala, / jaungoiko Bako-k bere / mendian gauzkala; / ezagun da inbiriyak / prejitzen zauztela, / etzenduten gezurrik / sortuko bestela"*[1539]. Langileak bakarrik ez, dantza horietara joaten diren damei buruz ere gaizki-esaka arituko da bat baino gehiago: *"Eta segitu zuten / lenago bezala, / esanaz guziz gauza / seguruba zala / adornatutzen gure / dantzetako sala / dama onradurikan / izango etzala"*[1540]. Bilintxek, ordea, adieraziko du batzuk beldur ziren egoerak ez direla gertatu:

> *"Nai baluteke ere / orain defenditu, / lengo itzak lazuan / arrapatzen ditu; / gure dantzak pakian / dira despeditu, / aiek esantakorik / ez da suzeditu.*
>
> *Orain gelditzen gera / guziz ditxosuak, / irten geradelako / bitoriosuak; / guk bezela esango du / Donosti osuak: / <Bost gezur sortzen ditu / inbiriosuak!!!>"*[1541].

---

[1535] Euskal historiografia garaikidean, Luis Castells eta Felix Luengo ari dira gai horiei buruzko ikerketa lanak egiten.

[1536] Bertso sail baten izenburuan aurki dezakegu hau: "Galop infernal lagunkida fraternal-eko galaiak beren damari", ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 135.-139. or. "Galop infernal" Parisen sortutako kankan dantzarekin lotzen den dantzaldi bukaerako dantzari esaten zaio, Offenbachek "Orfeo infernuetan" opera komikoan erabili zuena, 1858an Parisen estreinatua.

[1537] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 136. or.

[1538] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 137. or.

[1539] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 137. or.

[1540] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 137. or.

[1541] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 138. or.

Eta, azkenik, dantzaldi horietara joaten diren emakumeak berriro defendatuko ditu. Ahotan hartuak izan dira beren sexu portaeraz aurreiritziak zabalduta, eta horien kontra egingo du, halaber, Bilintxek. Dama hauek honela deskribatzen ditu: *"polit onradubak", "mantxarikan gabeko / birjiña purubak"*[1542]. Eta gizonek eurekiko izan duten jarrera: *"izandu diyotegu / milla errespeto"*[1543].

Pedro Mari Otañok, berriz, donostiartutako zizurkildarrak, *"Sociedad Unión Artesana"* aipatuko du 1895ean idatzitako akrostiko batean[1544]. Denbora libre eta aisiarekin lotutako elkartea izango da hori ere, nahiz eta bertsoek diotenaren arabera, beharrean denari ere laguntzen dioten: *"Saiatutzen da billera zar au / Ondo egiten denari, / Ceiñ dan askotan galdetu gabe / Inguratzen zaionari. / Eskalerikan ez du utzitzen / Datorrenik negargarri, / Au da ematen diona beti / Dena laguntasunari. / Umore ona doakabeak / Nai baldin badu arkitu, / Iyo dedilla gela ontara / Ori bakarrik aski du"*[1545].

XIX. mende bukaerakoa dugu, era berean, "Orfeon Donostiarra" abesbatza. Pedro Mari Otaño ohorezko bazkide omen zuten. Hala kantatu zien Argentinatik: *"<Agur!> orain bi urte / esan zirazuten, / <Agur, kantaridiya!> / erantzun nizuten; / agur aiek ez ditut / biyotzetik uzten. / Ai, bazeundete txulo / batetik ikusten, / nere animak nola / agurtzen zaituzten!"*[1546].

Bilintxek plazetan egiten diren erromeriez ere hitz egingo digu[1547]. Neska eta mutil gazteek bertan aurkituko dute elkar. Adibidez, "Ja-jai" bertso sailaren hasieran. *"Beiñ batian Loiolan / erromeriya zan, / antxen ikusi nuben / neskatxa bat plazan;"*[1548]. Jende artean, bilatuko dute intimitaterako tokia ere: *"Arkitu giñanian, / iñor gabe jiran, / koloriak gorritu / arazi zizkiran; / kontatuko dizutet / guztiya segiran / zer esan niyon eta / nola erantzun ziran"*[1549].

---

[1542] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 139. or.
[1543] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 139. or.
[1544] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 414. or.
[1545] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 414. or.
[1546] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 68. or.
[1547] Erromeriak landa eremu hutsari baino lotuago aurkitzen ditugu trantsizioan dauden eremuei. Aurrez ikusi dugun bezala, neska-mutilen merkatu gisako honek ezkontza tratuen sistema pitzatzen hasten denean hartuko du indarra. Pedro Mari Otañok bere bi operetan ere erromeriak aipatuko ditu. "Artzai-mutilla" operan, Ernioko erromeria aipatzen du. Eta "Lora" operan, berriz, Elizondoko herriko plazan, Baztango bailaran, Santiago egunean ospatutako festa eta erromeria. Gai honi buruz bigarren atalean gehiago aritu gara.
[1548] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 215. or.
[1549] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 219. or.

Maila apalagoan, eta hain egituratuak izan gabe, soziabilitate espazio gehiago ere aurkituko ditugu hirian, Donostian. Bilintxek, adibidez, "Pozez ta bildurrak" bertso sailean, honela diosku: *"Naiz plazara juan bedi, / naiz juan iturrira, / nork ez du arreta jartzen / aren ibillira? / Bat bañan geiago're / gelditutzen dira, / ezkutatzen dan arte / berari begira"*[1550]. Kasu honetan, gainera, kalean emakumeari dagozkion espazio publikoei egiten die erreferentzia: plaza eta iturria aipatuko ditu. Bilintxek, "Zenbait damaren esker txarra" bertso sailean, beste honako hau kontatuko digu: *"Atzo probetxu gabe, / etxeko auzuan, / egondu nitzan zure / zai egun osuan; / gaur suertez ikusitzen / zaitutan kasuan, / itz egiñ biar dizut / izketa gozuan"*[1551]. "Etxeko auzuan" dioen horrekin, zer adierazi nahi digu? Bizilagunen etxean? Neskaren auzoko etxeren batean?

Baina atal honen hasieran esan dugun bezala, Donostia, hiria izanik ere, trantsizioko espazio bezala, herrien eta hiriaren arteko nahaste gisa ikusi behar dugu[1552]. Hala erakusten digute, behintzat, bertsolari batzuek. Txirritak, adibidez, Santo Tomaseko feriari buruz hitz egiten duenean: *"Abenduaren ogei ta bata / Santo Tomasen eguna, / Donostiya'ko ziudadian / jai zelebratzen deguna, / pobre ta aberats jende askori / maiz akordatzen zaiguna; / Azpeitiya'n du beste santu bat / bere antzeko laguna"*[1553]. Esanguratsua da nola pobre eta aberatsen topagune egiten duen Txirritak feria. Pobreak landa eremukoak ote eta aberatsak hiritarrak? Edota bestela, desberdintasun sozio-ekonomikoak gainditzen dituen topagune gisa agertzen digu Txirritak feria?

Landa eremuaren eta hiriaren arteko nahasketa horren berri poliki ematen du ondokoak. Santo Tomas egunean, feriaz gainera, antzerkia edo teatroa izaten zen iluntzean: *"San Tomasetan guazenian / teatrua ikustera, / ezin pasarik ibiltzen gera / kale batetik bestera; / arratsaldeko festa bukatu, / gabian berriz ostera, / an jakiten da nolakua dan / lege zarreko euskera"*[1554]. Azken honetara ere, denetariko jendea joaten da, donostiarrak ere bai. Hauek modu berezian jantziak doazela azpimarratuko digu Txirritak: *"Donostiarrak ez dira egongo / Santo Tomasez antziyak; / teatru ortan ikusten dira / pareja ondo jantziyak: / oial fiñezko traje ederrak / lujo aundiyan josiyak; / festa aundiyak izango dira, / etorri danak*

[1550] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 168. or.
[1551] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 227. or.
[1552] Donostiako auzo guztiak ere ez dira berdinak. Alde zaharra, Antiguo, zentrua… ez dira berdinak: ez biztanleen jatorriari dagokionez, ez bizi mailari dagokionez, ez maila sozialari dagokionez. Donostia hiri bakarra izanik ere, komunitate ezberdinez osatzen zen.
[1553] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 485. or.
[1554] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 486. or.

*guziyak"*[1555]. Eta, aldi berean, etxera laguntzearen ohitura aipatzen du: *"Toki (y) orretan bezin kontentuz / ez naiz bestetan egondu, / baña gabeko funtziyu ori / akabatzen da berandu; / bakoitzak bere andregaiari / etxera ondo lagundu, / zer esanikan ez da guretzat / ori egingo bagendu"*[1556]. *"Lege zarreko euskera"* eta etxera laguntzea landa eremuari erreferentzia egiten dioten errealitateak dira. Donostiarren janzkerari egiten zaizkionak, berriz, bertako burgesiari dagozkionak dira. Hala ere, *"etorri danak guziyak"* horrekin Txirritak garbi erakusten du kontziente dela desberdintasunaz eta, aldi berean, Santo Tomaseko feriak duen bateratze gaitasunaz. Ez du modernizazio prozesua ez ukatzen, ez kritikatzen.

Horretaz gainera, egia esan, Santo Tomaseko feriaz egiten dituen bertsoetan, zer saldu eta eros daitekeen kontatzen du Txirritak nagusiki. Santo Tomaseko feria salerosketarako une eta gune egokia da. Zer saldu eta eros zitekeen? Nortzuk? Ezkonberriek haurrentzat gozoki eta jostailuak, sukalderako ontziak, baserritarrek segak, hazitako seme-alabentzako opariak, etab. Zer da erostea? Hona Txirritak nola definitzen duen: *"Len iru duro kastatu ditut / ta orainguak bost tia, / berrogei pezta kosta zait aurten / Santo Tomas ikustia; / neri dirua gustatutzen zait / gauzaren truka uztia, / egin dan konpraz kontentu nua, / ikusi arte, gaztia"*[1557].

Gurasoek zer erosten zuten? Euren seme-alabentzako opariak. Opari hauek zertarako? Haurrak zain ilusioz egongo zirela eta hauek pozteko. Seme-alaba gaztehelduez ari dela, honela dio:

> *"Ogei urteko semia det bat, / amaseikua bestia, / biyen tartian alabatxo bat, / ez dago oso tristia; / aita ta ama anparatzeko / txarrak izandu eztia, / oieiri beira gozatzen gera / ni ta nere emaztia.*
>
> *<Bost duroko bat kastatutzeko / dudan egondu etzera, / zuk orañ ere puska ederrak / daramazkitzu etxera; / ondorenguak maite dituzu / egiñagatik zartzera, / istimatuko zaitu semiak / ola portatzen bazera>"*[1558].

## 3.2.Trantsizioak edo aldaketak

Zein izan ziren Gipuzkoan gizartearen artikulazioari dagokionez aldaketak eragin zituzten indarrak? Zein bertsolarien ahotan presentzia handiena zutenak, eragin handiena aitortzen zietenak? Hurrengo orrialdeetan ikusi ahal izango dugunez, era

---

[1555] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 486. or.
[1556] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 486. or.
[1557] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 485. or. Feria merkatua ere bada, merkantzien salerosketa, kapitalismoari lotutako praktika gisa.
[1558] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 486. or.

desberdinetako bultzadak jaso zituen gipuzkoar gizarteak mende betean: bultzada hauen jatorria, intentsitatea eta eragina ez zen berdina izan kasu guztietan. Has gaitezen gehiengo batek hurbilen zituen esperientzietatik eta joan gaitezen indar desberdinak azalduz.

### 3.2.1. Urbanizazio prozesuaren indartzea eta honek dakarren landa eremuaren idealizazioa

Landa eremuaz aritu garenean ikusi dugu nola Gipuzkoako probintzia herri edo udalerritan artikulatzen zen eta nola hauek euren baitan baserria eta kalea hartzen zituzten, bi errealitate desberdin baina aldi berean, osagarri gisa.

Probintzia guztian indarra izango duen prozesuetako bat lehenagotik zetorren baina orain bizkortuko den urbanizazio prozesua izango da[1559]. Eta horrekin batera baserriaren eta kalearen arteko desberdintasunen areagotzea. Errealitatean "kalea" indarra hartzen doan neurrian eta "baserria" galtzen, diskurtsoan "baserri" eremuaren idealizazioa gertatuko da. Horren erakusgarri ditugu, adibidez, Pedro Mari Otañoren hainbat bertso[1560].

Pedro Mari Otañok, 1893an idatzitako bertsoetan, baserriaren eta kalearen arteko desberdintasuna azpimarratuko du, eta areago, baserriaren eta Donostiaren artekoa. Gure ustez, desberdintasuna areagotu egiten du, azpimarratu egiten du. Distantzia ageriko egiten du baserriaren eta kalearen artean, baina zein errealitate dago zeinetatik urrutirago? Baserriak kalearekiko ala kaleak baserriarekiko sentitzen du distantzia handiagoa?

> *"Alaba, suia eta illobak / ikustera, aita zarra, / puxka maiteak emen, kalean, / daduzkan baserritarra, / urte luzeai gallen egiñaz / gazte bat beziñ azkarra, / Donostiyara etorri zaigu / utzirik bere baztarra, / Tolosa bañan goragotikan, / Mendiburuko maiztarra.*
>
> *Igaro dira egun batzuek / sekulako azkarrena, / eta aitonak or azaltzen du / len barrenen zekarrena: / zortzi urteko mutill koxkor bat, / Joxe, illobik zarrena, / eskatutzen du eramateko / -ai, ura amaren pena!-, / esanaz zorrotz kalea dala / gaztientzako txarrena.*
>
> *Bere ait'amen baimenarekiñ / Joxetxo au Goierrira / joan zan, oitura onak artzera / aitonaren baserrira. / Geroztik ama gaxua beti / alde artara begira, / eziñ bizi zan*

[1559] Ikus 4. eranskina.
[1560] Pedro Mari Otañok idealizazio prozesu bikoitza egingo du: Ameriketatik, lehendabizi Donostia eta Euskal Herria gero idealizatuko ditu eta hiritik, baserria.

*bere semea / joan zanetik urte bira; / bañan azkenik bere aitona / zarrarekiñ etorri da»*[1561].

Pedro Maria Otañok, idealizatu egingo du berriz "Artzai-mutilla" operan, XX. mende hasieran[1562], baserria eta areago, mendia. Maritxu emakumezko pertsonaia nagusiaren ahotan: "*Auxen da egiazko / bizitza ederra. / Jauregietan bizi / diran aur gaxuak, / noizik beiñ ikusirik / beren gurasuak, / aberats izan arren / oztasun aundiyan… / Nik ait'amen onduan / naigo det mendiyan*"[1563]. Jauregia eta mendia bereizten ditu beraz. Nagusi eta maizterraren bizilekuak izan daitezke hauek agian.

"Lora" operan berriz[1564], herri txikien idealizazioa egiten du, Lora beraren ahotan jarritako kantuan:

*"Zer ederki bizitzen dan / erri txiki politetan, / aundinaiaren arantzik gabe, / baztartxo pozgarrietan, / elkar maitatubaz bertan!*

*Ez da igotzen ardura / ta odol txarrik burura, / baizik denbora irristatzen da / iturri garbiko ura / ixuritzen dan modura.*

*Emen beti alegere / lanean da festan gaude; / apirilleko lore tartian / bezela bizi gerade, / buruko miñikan gabe.*

*Badator negu gogorrik, / guk ez diogu bildurrik, / zergatik ez du ezerk oztutzen / naitasunaren indarrik, / ez beñepein baztandarrik.*

*Uda txit bero badator, / utzirik belarrak legor, / usai gozo bat banatutzen da / esanaz bigun ta gogor: / "Euskaldunak zerate or".*

*Emen uda eta negu / elkar maitatutzen degu; / aberats danak beartsuari / otz-bero gogorrak kendu, / orrek dena edertzen du.*

*Argatikan arloterik, / beartsu edo pobrerik, / ez da ikusten gure artean / aberatsak menpeturik; / ez da onlako lekurik»*[1565].

---

[1561] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 373. or.

[1562] 1900. urtean argitaratu zuen Pedro Mari Otañok "Artzai-mutilla" opera. Campionek *La Bella Easo* 1909an argitaratu zuen eta Kizkitzak *La Casa solar vasca,* 1932. urtean.

[1563] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 215. or.

[1564] 1907. urtean osatu zuen Pedro Mari Otañok "Lora" opera. Esan bezala, "Artzai mutilla" opera berriz, 1900. urtean. Tartean, Sabino Aranak, *Libe* melodrama historikoa argitaratu zuen. Jose Luis De la Granjaren hitzetan: "*con el seudónimo de Jelalde, Arana publica en Bilbao el <melodrama histórico> Libe, escrito en marzo de 1902 e inspirado en la batalla de Munguía (1470-1471), la última de las <cuatro glorias patrias> de Bizkaya por su independencia*". In: GRANJA, José Luis de la: "Cronología de Sabino Arana (1865-1903)". In: *Sancho el Sabio,* 31, (2009), 297. or.

[1565] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 307.-308. or. "Auntza larrera" ipuinean ere egiten du antzeko idealizaziorik. Ikus: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mª*

Elkarmaitasuna, festa, elkarlaguntza, aberats eta pobreen arteko harreman onak. Ez ote urruti samar hemen kantatuak atal honen hasieran Pello Errotaren edo Txirritaren ahoz jasotakoetatik?

### 3.2.2. Herri loturez gain, gizabanakoa indartzen denean

Nahiz eta komunitatea lotzen duten indarrak eta estrategiak oso garrantzitsuak izan eta pisu handia eduki, pixkanaka aldaketa eragiten joango den beste indarretako bat gizabanakoaren indartzea izango da, nahiz eta aztertzen ari garen garaian oraindik, komunitatearen indarra oso handia izan.

Nola edota non ikus dezakegu gizabanakoaren indartze hori? Argigarri gertatzen zaizkigu estropaden inguruan ditugun hainbat bertso. Lehenago aipagai izan ditugun Xenpelarren bertsoak eta ondoren jasoko ditugun Txirritarenak kontuan izanez gero, lehenengoetan traineruaren eta herriaren arteko identifikazioa, edota ordezkaritza nabarmenak ziren bezala, arraunlari zehatzen izenak jasotzen eta goraipatzen ikusiko dugu Txirrita.

1927ko bertso berri batzuetan, Txirritak Donostiako estropaden berri jasotzen du. Kasu honetan, indarra arraunlariak eta patroia goraltzean jartzen du, ez hainbeste traineruaren eta honen jatorrizko herriaren arteko identifikazioan. Bigarren bertsotik geratzen da hori agerian: *"Estropara ortan San Pedrotarrak / etorri dira aurrena, / ogei eta bat segundoz gero / San Juanguak urrena; / amalau mutill sasoiekuak, / patroia zuten zarrena, / berrogei eta zazpi urtetan / bera ez dago txarrena"*[1566]. Nahiz eta azkeneko bertsoan, hau pixka bat erlatibizatu: *"Urtian beingo dibersiyua, / ezta gauza alrebesa, / San Pedrotarrak aurretik ezetz / askok egin du trabesa; / irabaztunak kontentu dira, / galdu dutenak bajeza, / biba San Pedro, alkate jauna, / Andonegi ta Markesa!"*[1567].

Bertso sail honetan azpimarratzen den beste kontu bat, patroia goraipatzeaz gainera, estropadetan irabazle gertatzen denak irabazten duen dirua da. Laugarren bertsoan: *"Biba Manuel, patroi leiala, / San Pedrotarren burua, / […] / zere denboran amaika txanpon / itxasuari kendua"*[1568]. Eta seigarrengoan: *"Donostiya'ri ematen dizkat / eskerrak eta graziyak, / amabi milla pezeta ditu / San Pedro'k*

---

*Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 88.-89. or. Nahiz eta ipuin honetan kritika sozioekonomikoa ere egiten duen.

[1566] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 369. or. Manuel Arrillagaz ari da.

[1567] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 370. or.

[1568] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 369. or.

*irabaziyak, / zazpi milla ta bosteun berriz / San Juandarrentzat utziyak; / emen eztago miseriyarik, / kontentu gaude guziyak*"[1569]. Azkenaurrekoan berriz, patroia hartuko du gogoan berriz: "*Amazazpi urte zitueneko / estroparetan asiya, / alperkeriya ez ta / aprobetxatu du sasoia; / indar aundiko gizon pizkorra / eta petxua lasaia, / zori onian patroi jarri zan, / diruz bete du Pasaia*"[1570].

1931n estropadei jarritako bertsoetan estropada bera eta San Pedrotarrak izango ditu kantagai. Kasu honetan ere, herriarekiko lotura ez da beste batzuetan bezain azpimarratua izango. Manuel Arrillaga goraipatua izango da:

> *"Bertso berriyak jartzera nua / estropadaren gañian, / itxas-gizonak alabatuaz / merezi duten añian; / aurtengu ontan enpeñatu da / jendia alegiñian, / bosti atsegiñ eman diyote / ospela zeukan oñian.*
>
> *Biba Manuel Arrillaga ta / zeren dituzun lagunak, / gauz ori ontzat artuko degu / konprenditutzen degunak; / umore onaz pasa ditugu / estroparako egunak, / danak konforme gelditu gera / bistan ikusi degunak*"[1571].

Eta bukaera aldera:

> *"Agur, Manuel Arrillaga ta / konpañi maitagarriya, / zu zera urterik faltatu gabe / bost bandera ekarriya; / orantxe Kosta Kantabriyari / artu diozu neurriya, / biba alkatia Andonaegi ta / gora San Pedro'ko erriya!*
>
> *Aita-semiak, osaba-illobak, / geienak parientiak, / maisu onaren akolituak, / jakinduriyaz betiak; / gañera berriz aldamenetik / olako aiudantiak, / atrebentziya barka zazute / Pasai'ko lagun maitiak*"[1572].

1932ko estropadei ere jarri zizkien Txirritak bertsoak[1573]. Aurrekoekin alderatuz ez dakarte nobedade berezirik; ondorioz, ez ditugu aparte aztertuko. Traineruko partaideak eta herria, biak aipatzen segitzen du. Hirugarren bertsoan: "*Agur Pasai'ko San Pedrotarrak, / gora Manuel Arrilla, / aita ta seme eta illoba / osatzen dira kuadrilla; / indar aundiko arraunlariyak, / patroia ere abilla, / Donostiya'ra lasai juan ziran / diru ta bandera billa*"[1574]. Eta hurrengo bertsoan: "*[…] orrekiñ ere onra ederra / dauka Pasaiko erriyak*"[1575].

---

[1569] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 369. or.
[1570] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 370. or.
[1571] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 450. or.
[1572] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 451. or.
[1573] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 501.-502. or.
[1574] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 501. or.
[1575] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 501. or.

Bada puntu honetan aipatu nahi dugun beste errealitate bat ere. Gizabanakoa indarra hartzen doan prozesu honekin batera, udalerrien idealizazio prozesu bati ere emango zaio hasiera[1576], pertsonifikazioa erabiliz. Hori da Pedro Mari Otañok Hernani herriari buruzko bertsoetan egingo duena. Haren bertsoen bitartez ikusi ahal izango dugun bezala, aukera ideologiko ezberdinak egin zituen bere bizitzan zehar: familia liberalekoa, errepublikarra izango da gaztetan eta nazionalista izanez egingo ditu bere azken urteak. Baina horretaz gainera, giza harremanak eta lurrarekiko identifikazioa irauli zituen bertsolaria izan zen. Dakusagun horri lotutako adibidetako bat.

"Ernani" bertso sailaren azterketatik, ondorio batzuk ateratzeko moduan garela uste dugu. Hernani herriaz ari diren zazpi bertso osatu zituen Otañok. "Manuel Zendoyari" eskainiak ziren bertso hauek, dakigunez, Hernaniko organista izan zenari, musikaria, eta besteak beste, Bilintxen hainbat bertsori musika egin zionari[1577].

Udalerriaz eta bertan zeuden komunitate guneez hitz egin dugu lehenago. Pedro Mari Otañok era horretara hitz egiten al du udalerriez? Apustu, erromesaldi eta tabernen testuinguruan? Nola?

Ezberdintasun batzuk azpimarratu nahi ditugu hasieratik. Lehenengo eta behin, udalerria pertsonifikatu egiten du eta elkarrizketan hasten da bertsolaria berarekin. Bigarren, udalerri horren eguneroko bizitza eta pertsona xumeen berri eman ordez, herri horren lehenaldi eta etorkizunera begira jartzen da Otaño, eta ahal dela, bertako pertsona esanguratsuei egiten die erreferentzia, idealizazio prozesu bat martxan jarriz. Hirugarren, Hernani herriaz ari bada ere, euskararen, euskaldunen eta Euskal Herri osoaren norabideari eta etorkizunari loturik agertzen du, bi errealitate horiek elkarren menpeko eginez, eta aldi berean, gordailu edo defentsa egoera batean kokatuz, kanpotik datorkeen etsai baten aurrean.

Lehenengo bertsoan ikus ditzakegu jadanik arestian aipatutako ezaugarriak: "*Urbietako Juanen / sorterriya orra, / seme leial askoren / siaska jatorra; / biyotz biguñekoa, / gudari gogorra, / zure izen maitia / ez liteke borra, / zergatikan zeraden / euskaldunen onra*"[1578].

---

[1576] Irudikatutako edo imajinatutako komunitatea ote? Udalerriaz haratago, aberria ere prozesu horren ondorio ote?

[1577] Ikus Eresbil erakundearen web orria: http://www.eresbil.com/fmi/xsl/ERESBIL/esp/recordlist.xsl. 2014ko irailaren 24an begiratua.

[1578] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 398. or.

Hernaniren txikitasuna aitorturik ere, euskararen gordailu egiten du Pedro Mari Otañok, eta horrek berak ematen dio handitasuna eta garrantzia: *"Euskaldunen oiturak / ta gure izkuntza / jakin nai ditubena / joan bedi aruntza; / nola euskara dagon / iya umezurtza, / au-sapai txarrekuak / nai diyote bultza… / Ernani, zu zerade / ezti onen eultza"*[1579].

Horra Hernaniren dohainak nola kantatzen dituen: *"Asko lezakiana / edo indartsua / bezela da Ernani / prestu ta mantsua; / baztartutzen dubena / etsai setatsua, / bizi da lagundubaz / jende biartsua; / nik agurtutzen zaitut, / erri doatsua"*[1580].

## 3.2.3. Sozializazio forma berriak hirian

Urbanizazio prozesuak berekin ekarriko duen beste alderdi bat bertako biztanleen arteko harremanak gauzatzeko edo emateko esparru berriak eta modu berriak irekitzea izango da[1581].

Lehenengo eta behin, lehenagoko atal batean Donostiaz hitz egin dugunean esandakoak gogoratu behar ditugu. Bertsolariek Donostiaz hitz egin digutenean, eta Bilintx eta Pedro Mari Otañok batez ere langileen elkarteak, soziedadeak, abesbatzak aipatu dizkigute. Erromeriak ere izan ditugu aipagai eta, horietaz gainera, emakumeek kalean okupatu edo bisitatu ditzaketen espazio publikoak: plaza eta iturria, esaterako. Espazio eta gune horiek guztiek harremanak egiteko modu berriak ekarriko dituzte eta, modu batera, komunitateari eta komunitate harremanei hirian eusteko moduak izango dira.

Mendez aldatzen garelarik, XX. mendean barrena bidea egiten badugu beste soziabilitate modu baten berri emango digute bertsolariek. Hau da, komunitate harremanak ez dira, XIX. mendean ikusi dugun bezala, herri bateko kide izanagatik sortuak izango, ezta lanbidearen arabera edota afizio baten arabera eratuak ere. XX. mendearen lehen herenean komunitatea eratzeko loturak politikoak ere izan daitezkeela ikusiko dugu. Hauei lotuta, edo hauek indartzeko sortuko dira batzokiak edo errepublikanoen etxe edo zentroak, eta hauen inguruan, hainbat eta hainbat ekintza.

---

[1579] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 398. or.
[1580] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 399. or.
[1581] Ikus lehen ere aipatutako Castells eta Luengoren lanak.

Joxe Mari Lopetegik errepublikanoen bilguneak mintzagai izango ditu, "Centro republicano"ak. Sozializatzeko eta elkartzeko toki berriak izango dira hauek, arrazoi ezberdin batek, ideologia politiko bera izateak, bultzatuak[1582].

Topagune berri hauen baitan, Joxe Mari Lopetegik komunitate berri bat agertzen digu. 1911n argitaratutako bertso batzuetan orduan urtebete hildako Francisco Bellido errepublikazaleari egin behar zioten omenaldia zela eta haren hutsunea probintzia guztian nabarituko zela esango digu eta herri guztietako bizilagunei dei egingo die Iruna omenaldira etortzeko. Hirugarren bertsoan, honela dio: *"Nabaitutzen da uts ain aundi bat / galdu diraden Erriyan, / eta uste det nabaituko dan / jaunak Probintzi guztiyan; / Mugi gaitezen lagun zar onak / barrendik indar aundiyan, / Abenduaren hogeita amaikan / arratsaldian erdiyan, / agur ditzagun kanpo santuan / betiko dauden tokiyan"*[1583]. Eta seigarren eta azken bertsoan: *"Nola Donosti, Ernani / eta Tolosarrak, / Lezotar Pasayak / ta Errenteritarrak; / ta beste Erritatik / zatozten bakarrak, / legortutzera gure / malko ta sugarrak, / agur ongi etorri / biba lagun zarrak"*[1584].

Beste bertso sail batean errepublikazaleen beste topaketa bati egingo dio erreferentzia Lopetegik. 1931ko uztailaren 5ean Epele-Etxeberri jatetxean bazkaria izango dute. Alderdi politikoen araberako komunitatea gorpuztuko da hemen. Bertso hauetaz Joxan Elosegik, Joxe Mari Lopetegiren bertsoen biltzaile eta liburuaren editoreak, honela dio:

> *"Politiko dei ez genitzakeen bertso asko kantatu bazituen ere, apenas ez zuen molde horretako bertso sailik kazetetan eman eta horregatik dira bertso eder hauek horren bereziak.*
>
> *Ramon eta Migel Lizeaga hernaniarrak ziren sortzez. Zinegotzi errepublikanoa zen Ramon Hernanin. Bestalde, lagun zar deitu zion Lopetegik Migel Lizeaga Larbururi, eta ez da batere harritzekoa, aspaldidanik Irunen bizi izateaz gainera –aduanetako komisionista zen-, errepublikano petoa baitzen hura ere. Irungo Udaleko zinegotzi eta sindiko, eta Gipuzkoako Diputazioaren gestorea izan zen Migel Lizeaga Errepublikaren garaian"*[1585].

Dirudienez, Hernaniko errepublikar bati eskainitako omenaldi gisakoa zen bazkari hura, nahiz eta ez den oso argi geratzen. Edo errepublikanoa da behintzat Lopetegik bazkarian agintari zela adierazten diguna: *"Pizka banaka ari giñaden / hainbeste*

---

[1582] Ikus, adibidez, ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 122. or. Astigarragako bilgune errepublikarraren irekiera ekitaldiaz mintzo zaigu hemen Joxe Mari Lopetegi.
[1583] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 67. or.
[1584] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op .cit., 68. or.
[1585] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 109. or.

*jende an biltzen, / geyenak bildu giñadenian / eudi pizar bat asi zen; / sartu barrena, Ramon Lizeagak / danoki zigun agintzen, / ez ote giñan moldatuko ere / bildurrez giñan arkitzen, / norbaitek ere lan egin zuen / guri zorruak berdintzen"*[1586].

Omenaldi kontua bosgarren bertsoan ere aipatua da: *"Paraje eder osasuntsua / len esan dedan bezala / nere lagun zar Migel Lizeagak / omentzat artu dezala, / len entzutea baneukan beti / baserritarra ziñala, / gaur karriketan ikusi arren / indianuak bezala, / ezagun dezu ta igartzen dizut / lasai aziya zerala"*[1587].

Lehenengo bertsoan esaten zaigunez, bazkari handia zen hura: *"Zeñen polita, zeñen txukuna, / zeñen ederra zeraden, / zu ikustera gu igandean / zenbat izandu geraden. / Uztaillaren bosta zugatik / alaya izan genduen, / aundi eta txiki, zar eta gazte, / berreun bildu giñaden, / gure barrengo samintasunak / ortxen sendatu ziraden"*[1588].

Joxe Mari Lopetegik, bere bertso batean, Pello Errotak Arantzazun erromesaldian joandakoan kantatua gogorarazi digu: *"Ainbeste lagun giñan barrenen / danok lasai eta konten, / bakoitza geren eserlekuan / guztiyok jarri ginduzten, / neskatil mardul gazte leyalak / asi ziran jana ekartzen, / oiturik daude artu-utziyak / azkar da ondo egiten, / gaur emen dagon aurreramena / toki gutxitan da izaten"*[1589]. Kasu honetan, aipagarria, eta Pello Errotaren bertsoetatik desberdina, "aurreramena" edo "progresoa" hitza da.

Txirritak, euskarari buruz ari dela, 1932an idatzitako "Amets bat" bertso sailean, bi alditan aipatzen ditu batzokiak. Bertan biltzen dira euskararen alde ari direnak. Azpimarratuko genukeena: Txirritak dio anaia gazteak biltzen direla han. Eta badirudi nahasterik ere izan dela desberdinen artean, eta euskarak batasunean lagun dezakeela. Dakusagun:

> *"<Ezagutzen det, Ama maitia, / dolorez egin du jira; / oraiñ semiak lagundutzia / oso gauza egoki da; / bakoitzak geren fameliyari / izan zaiogun kupira, / gure anaiak jakin dezaten / biyar guazen batzokira, / gero beorri etxeko-andre / gu bizi geran tokira.*
>
> *Beorri ara dijuanian, / nere anaia gaztiak, / aien orduko begiratuak / eztira izango tristiak; / seme geienak poztutzen gaitu / beren Ama ikustiak, / esanaz:<Oraiñ*

[1586] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 110. or.
[1587] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 111. or.
[1588] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 110. or.
[1589] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 111. or.

*berexi dira / gure tarteko nastiak, / nik bezelaxe igual-igual / maiteko dute bestiak>»*[1590].

Eta pixka bat aurreraxeago: *"Saia gaitian semien billa / galdu ziran tokiyetan, / gau eta egun zuri ujuka / or gaude batzokiyetan; / astian iñoiz juntatzen gera / faltatu gabe jayetan, / Ama gaxua gora altxatzen / sartu ez dedin loyetan, / zeiñ biretatik juan bihar degun / galde dezagun oyetan»*[1591].

Batzokiak, beraz, euskara maite dutenen eta ondo hartzen dutenen topagune dira. Euskararen alde eta honen zabalkundearen alde egiten dutenen topaleku ere badira. Eta batez ere azken hori: astegunez batzuetan eta igandeetan beti identifikazio politiko jakin bat dutenak elkartzeko gune dira. EAJrekiko hurbiltasuna da komunitate jakin hori batzen duena.

## 3.2.4. Habitata eta erreferentzia espazialak zabalduz

Atal honetan azaldu nahi dugun ideia nagusia hau da: industri iraultzaren testuinguruan, garraiobideen iraultzarekin lotuta eta merkatu bakarrerako bidean, gizon-emakumeei euren erreferentzia esparruak zabaltzen ari zaizkie. Parte diren udalerritik, probintzi mailara egingo dute salto, Euskal Herri mailara, edo baita areago ere. Lehenengo, euren bizitzak gauzatu daitezkeen errealitate fisikoak izango dira, espazioak. Bertsolariek halako neska, bestelako ganadu… probintziako ederrena dela esango digute, edo Euskal Herrian ez dagoela beste bat horrelakorik. Erreferentzia eskalak dira. Eskala hauek dira gero eta zabalago egingo direnak. Bidaiek, lan kontuek, joan-etorrian dabiltzan pertsonekin harremanak izateak… posible egingo dute errealitatea zabalagoa dela iruditzea, horrela bizitzea, eta hori azaldu egingo dute nahita edo nahigabe beren bertsoetan. Modernitatearen alderdietako bat izango da, azken finean, askatasun espazioak zabaltzea, Aitzin Errejimeneko mugak gainditzea, errepresentazioa ere zabaltzea. Merkatu bakarraren aldeko ahaleginak ere lagunduko du horretan. Hurbileko komunitateaz gain zenbateraino izango dira erreferentzia espazial bertsolarientzat probintzia, Euskal Herria, Kantabria, Espainia edo Frantzia?

Probintzia aipatuko dute askok, baina subjektu politiko bezala baino gehiago, muga geografiko gisa, beren errealitatea norekin erkatu mugatzeko helburuarekin. Pello Errotak adibidez, apustua irabazitako astoari buruz: *"Atzetik ori asi zan baño / allegatu da aurrena, / zortzi arroa bizkarrian da / mendi guziak barrena; /*

[1590] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[1591] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.

*aundiagorik ez baldin bada / probintzian dan onena, / jabia zeiñ dan esan bihar det: / astua Zozberrirena"*[1592]. Baita Arantzazuko peregrinazioaz osatuak dituen bertsoetan ere*: "Andikan juan giñan / danok afaria, / an billatu genduban / etxe dotoria, / probintziyan bat ez da / palaziyo obia; / gañera an daguban / kuriosidadia, / arritu liteke an / ikusi gabia"*[1593]. Etxe horretan zegoen garbitasunaz ari da: probintzia konparaketa egiteko marko edo mugatzat hartzen du hemen ere.

Xenpelarrek berak ere egiten du hori: *"Dama gazte galanta bat / gure probintziyan, / alabatzera nua / egiñal guziyan; / lenago gabiltzanak / Jaunaren graziyan, / orain paratu gaitu / kolera biziyan, / trata-biria on da / saldu-erosiyan"*[1594]. Pasaiako zezenari buruzko bertsoetan ere horrela dio: *"Bestia an zeguan / oiaren azpiyan, / eztul asko egin bage / nere iritziyan; / orlako konturikan / juan dan aspaldiyan / ez dala pasa nago / gure probintziyan"*[1595]. Beste okasio batean ere horrela egiten du:*"Iparragirren bozian ditut / bertso berriak paratu, / Gipuzkoako euskal erriya / al banezake nonbratu; / asko ezkongai daude / gustokorikan gabe, / ezin dutela topatu; / projimuari erakustia / ezta izango pekatu"*[1596].

Bilintxek ere aipatuko du probintzia "Kontzezirentzat" bertso sailean: *"Kantatutzera indar aundiko / desio batek narama, / Kontzezi, zuri nai dizut eman / mereziya dezun fama; / gure probintzi Gipuzkoakoan / igualik gabeko dama, / berinkatuba izan derilla / zu egin zinduben ama"*[1597]. "Pozez ta bildurrak" bertso sailean, berriz, "zeru azpiaz" mintzatuko da: *"Dama gazte polit bat / bada Donostiyan, / berdiñik ez dubena / zeruban azpiyan; / biyotza mugitzen zait / modu txit eztiyan, / nere pentsamentura / datorren guztiyan"*[1598].

Txirritarengan ere aurki dezakegu fenomeno hau. Villabonako pilotari bati buruz ari dela, adibidez: *"Suerte txarrak jo zualako / beso bat dauka moztua, / bañan bestia sano duala / obra da manifestua; / begiyak ernai, memori ona, / ankaz ibildun listua, / Billabona'n da probintziyako / pelotariyen maixua"*[1599]. Azpimarratzeko modukoa da, Txirritak nola bertso sail honetan probintziako erreferentziaz gain, beste batzuk ere aipatuko dituen: *"Urriko illak amar zituban / Bizkaia'n da probintziyan, / kontrariyorik gabe zebiltzan / pelotariyak Frantziya'n; / beste lan*

[1592] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 136. or.
[1593] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 195. or.
[1594] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 119. or.
[1595] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 141. or.
[1596] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 115. or.
[1597] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or.
[1598] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 167. or.
[1599] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 261. or.

*gabe ibillitubak / bere denbora guztiyan, / Billabona'ko beso-motz batek / laster konpondu zizkiyan"*[1600].

Euskal Herriaz hitz egingo dute batek baino gehiagok. Oraingo honetan ere espazioaz ari gara, ez "territorium" edo gobernatu beharreko lurraldeaz. Pello Errotak, adibidez, Andoainen bi astoren artean egindako apustuari buruzko bertso saila honela bukatzen du: *"Apustuba ta baikuntzari guk / orra bertsuak atera, / al dan guztia zabaldutzeko / Euskal-Erriko partera; / kasua zer dan ikasitzeko / emen badago aukera, / gusto duanak artu dezala / bost zentimuan papera"*[1601].

Xenpelarrek ere Hernaniko ferian erositako betroiaz ari dela birritan aipatuko du Euskal Herria. Lehenengo bertsoan: *"Bertso berriyak jartzen / orain naiz abiyan, / predikatzera nua / Euskalerriyan; / betroi bat artu nuen / Ernanin feriyan, / galantziya egingo / zuela agiyan; / tristura begiyan, / beti auleriyan, / ez aren premiyan / nire fameliyan; / Senpelarrek dakizki / Errenteriyan"*[1602].

Eta aurrerago: *"Buruba jarri zaio / lurrera begira, / belarriyak zintzillik, / ai zer segira! / Albaitero guziyak / ikaratzen dira, / zeñek sendatuko du / orlako erida? / Bajatzen ari da / irutatik bira; / au nere perdira, / nork nai du erdira? / Bañan eztet eman nai / Euskal-errira"*[1603].

Beste bertso sail batzuetan ere egingo dio erreferentzia Euskal Herriari. Bertso sail baten azken aurreko bertsoan senarrak haurrak hartu eta emaztea utzi zuela esango digu: *"Uda-partian aita-semiak / aritzen giñan labrantzan, / andria berriz tabernarako / ganbaratikan ardontzan; / bere buruaz erneatuta / Euskalerritik juan nitzan, / orra umiak amaren paltan / gaxuak nola dabiltzan"*[1604]. Eta beste okasio batean: *"Bertso bi Euskal-erriyan / jartzeko nago abiyan, / bere andria nola dabillen / beti fanfarroikeriyan, / dantzan ta erromeriyan, / eskarmentatu deriyan, / mudatuko da agiyan"*[1605].

Txirritak, berriz, Kantabria, "Kantabriako partia"[1606] gisako esamoldeak erabiliko ditu askotan erreferentzia gisa. Ikus adibide gisa: *"Gazte-gazterik asi nitzan da / orañdaño bitartian / zenbait umore eder jarri det / Kantabria'ko partian; / pixka*

[1600] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 262. or.
[1601] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 138. or.
[1602] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 215. or.
[1603] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 219. or.
[1604] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 195. or.
[1605] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 198. or.
[1606] Larramendik XVIII. mendean erabiliko duen esamoldea da.

*batian ez naiz aztuko / sartuagatik lur-pian, / nere aitamenak izango dira / beste larogei urtian"*[1607].

Xenpelarrek, Espainia eta Frantzia ere aipatuko ditu, baita "eguzkiaren azpiyan" esamoldea ere[1608]: *"Naparruatik Probintziyara / pasatu ziñan orduan, / buru ori bajuagotik / erabillitzen zenduan; / ezer ez eta banidadia / sobra dezu buruan, / zure berriyak jakin ditugu / tratua artu onduan"*[1609]. Eta bertso sail berean, pixka bat aurrerago: *"Dama orren berri jakin dezaten / Españiyan ta Frantziyan, / beste olako prendarik ezta / eguzkiyaren azpiyan; / neroni ere erabilli nau / engañatuta falsiyan, / sentimentuak paratzen dizkat / eskarmentatu dediyan"*[1610].

Bilintxek, berriz, "Dama ta galaia" bertso sailean, Frantzia aipatzen digu, erosketa leku apropos gisa:*"Zu serbitzeko nik ortan, / gauz oiek erriya ontan / ez daude denda iñontan; / ta erostera / erri bestera / egiñgo degu, bai, jira; / nai badezu Donostira / edo bestela Frantzira, / ango zuk naizun errira"*[1611]. Edota ardotaz ari dela, Malaga ere ahotan hartuko du: *"N.jauna: Emen zuretzat dira parako / jaki txit goxuak afaitarako; / erariya berriz –Jaungoikua!-, / illak piztutzeko modukua: / ardo onduba, / ontzen urtietan egonduba, / Malagatikan*[1612] *da bigalduba"*[1613].

Xenpelarrek urrutirago joko du oraindik: *"Eskall-burutik amildu eta / goitikan beraño zuzen, / lendabiziko pentsatu nuen / eltze zarren bat ote zen; / anka bat zeukan Bitoriyan da / bestia berriz Londresen, / gaur ere ala egongo ziñan / iñor etorri ezpazen"*[1614].

Txirritari buruz Antonio Zavalak dioskuna kontuan izan behar dugu:

> *"Nekazaritza utzi eta argintzan asi zan, beraz, Txirrita. Seguru asko, etxetik urruti gabe ikasiko zuan langintza ortan, San Markos'ko fuertea egiten ari zirala-edo.*
>
> *Lana sortzen zitzaion tokietan jarduten zan. Geienetan, Errenteri'n, Ernani'n, Irun'en eta alakoetan. Baiña urruti samarrera ere joan izan zan: Zaragoza'ra,*

---

[1607] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 443. or.

[1608] Erreferentzia espazialez ari gara oraindik, ez gobernatu beharreko "territorium" horietaz, nahiz eta bereizketa hau egitea beti ez den erraza gertatzen.

[1609] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 134. or.

[1610] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 134. or.

[1611] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 281. or.

[1612] Gogoratu Bilintxen amaren aita andaluza genuela, Huelvakoa. Gainerakoan, Donostiaz gain, ez da toponimo asko ageriko Bilintxen bertsoetan.

[1613] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*, op. cit., 291. or.

[1614] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 195. or.

*Prantzi'ra... Donosti'tik Bilbo'ra dijoan burnibideko paretak jasotzen ere ibili zan"*[1615].

Asko ibilitako gizona zen. Ulergarria da, beraz, haren bertsoetan erreferentzia ugari aurkitzea. Hona batzuk: *"Gorputz ederra, arpegi fiña, / errespetuko jantziya, / bañan orduko nastu zituen / Españi eta Frantziya; / zeukan fallorik agertu nai ez, / ortik zan diferentziya; / zartzera ezer sobratzen badu / badauka zeñi utziya"*[1616]; estropadei buruz ari dela: *"Kontrariyorik gabe egondu / giñan amabi urtian, / emen da Bilbo'n, ta Baiona'tik / San Juan de Luz bitartian; / gure atzetik segitu eziñik / asko zebiltzen nekian, / desafiyuak izaten dira / projimuaren kaltian, / errespetua guardatu zuben / Zirilo zebillen artian"*[1617]; edota mugaz bestaldeko pelotari bati buruz: *"Juan daneko hogei ta / zortzi bat urtian, / amazazpitan jarri / ta oraño artian, / jokatu diratenak / berentzat kaltian; / ni izandu naiz buru / Frantzi'ko partian"*[1618]; edota Joxe Mari Lopetegiri buruz ari dela: *"Leku askotan korrituba da / Espaniya'n da Frantziya'n, / gizon onaren itxura dauka / gorputzian ta jantziyan, / izketan ere oso soseguz / Jaungoikuaren graziyan; / elkar maitiak izandu gera / geren denbora guziyan"*[1619]. Espainia eta Frantzia nabarmen errepikatzen dira. Kontuan izan Txirrita 1860an jaio eta 1936 arte bizi izan zela. Espainiar eta frantziar estatunazioen egitura eta presentzia nabarmendu egin zen denbora hartan.

Txirrita eta Txintxua bertsotan ari zirela, hona erreferentzia espazial gehiago. Txintxua aitarekin haserretua ibiltzen omen zen. Txirritak honela abestu omen zion behin: *"Pentsatzen ez nikan / izango zenikan / Europa'n da Amerika'n, / Asia'n da Afrika'n, / ote da semerikan, / bere aita jotzera / joanda denikan, / munduan ez dek / i besterikan"*[1620].

Lopetegik maiz hitz egiten du atzerriaz, hau da, bere erreferentzi eskala zabaldu egiten du. Eta bertan kokatzen du "Euzkadi": *"Milla baziran lau zatitzeko, / ez al da lotsa Euskalduna, / atze-erriyetan ai zer fama guk / iruki bear deguna; / au al da lege erlijiyuak / erakutsitzen dizuna, / modu orretan baldin badabill / maltzur zar biyotz astuna, / bide ortatik ez da etorko / Euzkadin Askatasuna"*[1621]. Euskal lurra, eta antzeko kontzeptuak ere maiz erabiliko ditu, baina ez dagoeneko erreferentzia espazial huts gisa, konparazioak egiteko eskala bateko parte gisa, nortasun juridiko-

[1615] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 55. or.
[1616] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 376. or.
[1617] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 305. or.
[1618] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 372. or.
[1619] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 484. or.
[1620] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 96. or.
[1621] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 108. or.

politikoa duen entitate bezala baizik. Horregatik, aurrerago hitz egingo dugu horretaz.

### 3.2.5. Espainiak irlak galdu zituenekoa, edo espainiar inperioaren gainbehera, monarkiarenarekin batera

Barrura begirako espainiar estatu-nazioaren eraikuntza prozesua ez zen, nazioarteko testuinguruari erreparatzen badiogu, espainiar inperioarentzat garai samurretan egin. Honen berri ere bazuten bertsolariek eta bertsoren bat edo beste eskaini zioten beste gai batzuei buruzko bertsopaperetan egoera zehatz horri. Gainbehera horrek izango zuen eraginik espainiar erreferentziak zalantzan ikusi eta berriak bilatu beharrarekin. Legitimitate krisiak identitate krisia ekarri zuen.

Txirritak foruei buruz osatutako bertso sail batean erreferentzia egiten die Espainiak irlak galdu izanari: "*Baldin egiya esaten badu / libruan dagon fediak, / isla asko ta onak zituen / len Españiya'k beriak, / ta geienetan agintzen zuten / euskarazko aguriak; / orain geienak galdu ditugu, / iya egin du guriak, / Zeruko Aita, zuzen gaitzazu / nola baikeran zuriak*"[1622]. Kasu honetan, bere burua Espainiaren baitan ikusten du, "gu" horren barruan. Baina jabeago egiten du Zeruko Aita euskaldunen patuarena, espainiarrak baino, ikusitakoak ikusi ondoren.

Baditu Txirritak foruen galera eta Kuba galtzea Espainiako erregeen kalitate eskasarekin lotzen dituen bertsoak. Eta zehazkiago, espainiar errege-erreginen kudeaketa kaskarra aipatuko du.Txirritak ez du, beraz, sistema osoa zalantzan jartzen, errege-erreginekin hitzartutako eta haiek errespetatuko duten sistema foralaren markoa ez du kolokan jartzen: errege-erregina zehatzek eta hauen jokabideek ekarri dituzte arazoak. Berak errepublika jarri duten garaitik kantatzen du, Alcala Zamora presidente zela. Beraz, Alfonso XIII.az ari da, eta haren aita Alfonso XII.az, eta amonaz hizketan ari denean, Isabel II.az:

> *"Orañ errege juan zaigulako / askok biyotzian min du, / ez antziñako oin portamena / ondo letuko bagendu; / aitak biyotza gogorra zuen, / orri etzaio bigundu; / orañ ederki bizi liteke, / naiko dirua egin du.*
>
> *Urte batzuek pasa zituen / erreino ontan nagusi, / Donostiya'ra bueltak egiñaz / bere fameli ta guzi; / puska ederrak saldu zituen, / etzuen ezer erosi, / naikua bildu duen garaian / Frantzi'ra juan da igesi.*

[1622] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 433. or.

*Zori gaiztuan sartu ziraden / oiek korteko atian, / lege berriyak jarri zituzten / euskaldunaren kaltian; / lenago libre bizi giñanak / lotu ginduzten katian, / oraingu ortan ere ez dakit / nola portatuak tian.*

*Milla zortzireun irurogei ta / zortzigarrengo urtian, / Urriko illak ogei ta zortzi / zituen egun batian, / garai orretan gure Fueruak / sartu zituzten lurpian; / errespetua guardatu zuten / amona zegoen artian.*

*Garai orretan aldegiñ eta / andikan zortzi urtera, / doña Isabelak bialdu zuen / karta zorrotz bat kortera: / letu zazute Bergara'n dagon / Konbeniyoko papera, / euskaldunak zer deretxo duen / ortik kontuak atera.*

*Zure amona zenbat egiya / munduan esandakua, / hogei ta bederatzi urtian / erregiñ izandakua; / orrek altuan zeukan konduta / jetxi nai zuten bajua, / emen fueruak ez galtziatik / aldegiña da gajua.*

*Lengo gizonak kortian eta / lege berriyak non-nari, / esanaz: <Ara emen biria, / ortik barrena joan ari! / Hamaika burla egiten diyo / jende gaiztuak onari, / jeniyu oiek ez dituzu zuk / ikasiyak amonari.*

*Gure errege izandu ori / portatu da oso noble, / gerrik onena baño pakia / badakit degula obe; / oraň Alcalá Zamora dago / Espaňi'ko jaun da jabe, / nolabait ere konpondu dira / odolik ixuri gabe"*[1623].

Azkeneko bertsoan garbi lotuko ditu erregeen jokabidea, Kuba galtzea, eta foruen galera, hiru alderdi dituen errealitate bakarraren seinale gisa:

*"Semiak lana akabatu du / beraren aitak asiya, / gizon justua nola atera / oien tartian aziya? / Gure fueruak kendu zituzten, / Habana orla utziya, / len Kantabriya ondatu zuten / t'oraň Espaňi guziya"*[1624].

Pedro Mari Otañok ere hurbiletik jarraituko ditu Espainiak Kuban izandako gorabeherak[1625]. Semeak gerrara bidali behar izan zituztenen sentipenak ere jaso zituen, nahiz eta bera une hartan gerraren alde agertu: *"Agur, gudari españitarrak, / batez ere euskaldunak; / zuei begira gaude guraso, / senide eta lagunak, / gerok urruti egonagatik / biotza or daukagunak, / beti kontatzen gure ondotik / falta zeraten egunak, / bizi geraden arte beñere / aztuko etzaizkigunak"*[1626].

[1623] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 458.-459. or.
[1624] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 459. or.
[1625] Zehaztasun gehiagotarako ikus 3.2.7.2. puntua.
[1626] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 462. or.

## 3.2.6. Zentralizazio prozesua landa eremuan nabari denean: eskola eta kintak tiratzea

Aurreko puntuan ikusi dugu XIX. mende bukaera ez zela nazioartera begira Espainiarentzat oso garai erraza izan. XIX. mendean zehar eman zen aldi berean espainiar Estatu-nazioaren eraikuntza. Eraikuntza prozesu hau landa eremuko azken bazterreraino iritsiko da ejerzitoan parte hartu behar izanaren eta eskolaren bitartez.

Landa eremuan ezegonkortasuna sortu zuen faktoretako bat Espainiak XIX. mendean izan zituen hainbat gerratarako Gipuzkoatik mutilak bidali beharra izan zen[1627]. 1876 arte libre izan ziren betebehar horretatik baina urte hartatik aurrera, uztailaren 21ean Espainiako gorteek aldarrikatu zuten legearen arabera, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak erantzun egin behar izaten zioten dei hari. Ondorio desberdinak izan zituen horrek landa eremuan. Batetik, etxea eta honen iraupena oinarri zuen sisteman maiorazkorik gabe utzi zituela familia bat baino gehiago: kasurik onenean, aldi baterako eta beste batzuetan, gaitzaren edo heriotzaren ondorioz, betirako. Bigarren, kintak tiratzeko sistemak nabarmenago utzi zituen pobre eta aberatsen arteko aldeak; izan ere, zozketetan aberatsek errazago izaten zuten betebehar hartatik libratzea, soldadu joan ordez, ordainduz. Hirugarren, mutilak soldadu joatearen erantzule nagusiak Espainiako Erregea eta Madrilgo gorteak ziren, hau da, horiek ziren landa eremuan ezegonkortasuna sortu zuen legearen erantzule eta, ondorioz, haiei eskatu behar zitzaizkien ardurak. Hau da, foru-sisteman eragindako aldaketak hurbil-hurbiletik sentitu ahal izan zituzten landa eremuan, hain hurbil, ezen euren eguneroko bizitza aldatua izan baitzen nahitaez. Aldaketa horien zergatia eta erantzuleak argitara azaldu ziren horrela landa eremuan. Espainiar estatu-nazioaren zentralizazio prozesuaren eraginetako bat probintziako azken zokoraino iritsi zen horrela.

Eskuak luzeak izango dituen Estatuaren beste erakunde aipagarria eskola izango da. Herrietaraino iritsiko da Espainiar estatu-nazioaren eraikuntzaren testuinguruan eskolaren eragina[1628].

Aztertu ditugun bertsolarien artean batzuk garrantzi handiagoa emango diete aipatu ditugun gaiei, eta beste batzuek berriz, txikiagoa. Dakusagun.

Soldaduskara joateko obligazioaren garrantzia handia izan zen landa eremuan. Esan bezala, 1876ko uztailaren 21eko legearen ondoren, Araba, Bizkaia eta

[1627] Ikus BAROJA, Pio: "El carbonero". In: *Cuentos,* op. cit.
[1628] Ikus RUIZ DE LOIZAGA, M.: *Primeras letras: "revolución social"*, op. cit.

Gipuzkoako gazteek ere soldaduskara joateko betebeharra zuten. Lehenago aipatu dugun moduan, gerra landa eremuan ezegonkortasuna ekartzen zuen arrazoietako bat zen, hasteko, zuzen-zuzenean, mutil gazteengan eta hauen familiengan eragina baitzuen soldaduska zela medio. Pello Errotaren arreba Mikaelak bere anaia Miel Anton soldaduskako zozketan sartzen zela eta, aita Pello Errotak kantatutako bertsoa jasotzen du: *"Nire etzan-lekua / izango da oia, / emendik egin biar / lenbizi pregoia: / eztakit dedan poza / edo dan jipoia, / libre ateratzen bazat / ilko det kapoia"*[1629]. Miel Anton seme bakarra baitzuten –gainerakoak alabak ziren-, hau soldaduskara joateak etxean gorabeherak ekarriko zizkien. Horren beldur ere bazen familia. Kintak Donostian "botatzen" omen zituzten eta bertara joana omen zen Pello Errotaren semea. Egun batzuk pasata Zizurkilgo lagun batek eman omen zien notizia semea libre atera zela[1630].

Txirritak ere baditu Kubako gerrari loturiko bertsoak zeinetan zuzen-zuzenean nahitaezko soldaduskaren gaia tratatzen duen. Zein zen Txirritaren arabera Kubako gerraren garrantzia euskaldunei dagokienez? Euskal Herriak Kubako gerran zenbat eta zenbat mutil gazte galdu zituen kezkatzen zuen Txirrita. Bertsolariak bere entzuleei gogoraraziko die lehen mutilek soldaduskara joan behar ez zutenean, ez zela horrelakorik gertatzen. Eta mutilek soldaduskara joan behar badute, foruak galtzearen ondorioz dela, 1876an gertatu zena: *"1/Milla zortzireun irurogei ta / amaseigarren urtian, / ekaitz gaizto bat sartu zitzaigun / Kantabriya'ko partian; / lenago etzan kintik tiratzen / gure sor-leku maitian, / elementu au nondik sortu zan / ongi entera gaitian"*[1631].

Kinten sistemak eta Espainia Kubarekin gerran izateak ondorio zuzenak zituen:*"2/Kintak jarri ta ondorenian / beste hogei bat urtian / zenbait amaren seme onradu / Kuba'n sartu zan lurpian; / guraso askok negar egin du / ura saldu zan artian, / geienak lutuz jantzi giñaden / Kantabriya'ko partian"*[1632].

Kinten sistema ez da justua gainera, ez da guztientzat berdina: *"Aberats askok pagatzen zuen, / soldadu juan zenbait pobre, / legi ori jarri ez bazan ere / arlotiarentzat obe; / atzenerako estranjerua / egin zan islaren jabe, / len ere Kuba saldu ziteken / oinbeste gizon ill gabe"*[1633].

---

[1629] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 68. or.
[1630] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 68. or.
[1631] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 458. or.
[1632] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 458. or.
[1633] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 458. or.

Bilintxek, berriz, nork bere burua soldadu izateko prestatzeaz hitz egiten digu. Egoera ekonomiko larrian bizi denarentzat irtenbide egokitzat ikusten du Bilintxek soldadu sartzea, orain artean ikusi dugunaren kontra: *"Jaunak, ariyarazi / ez liteke itzez / zein aspertuba nagon / onela bizitzez, / beti negarrez eta / penetan ibiltzez, / jornal txikiyaren truk / lanian aritzez; / batek beti onela / bizi bear badu, / ez du gaizki egingo / sartzia soldadu"*[1634]. Bilintx, ordea, ez da landa eremuan bizi, ez du maiorazko den semerik, ez iraunarazi beharreko etxerik. Hiri testuinguruan eta liberalen betaurrekoz desberdin ikusten dira gauzak.

Eskolaren presentzia eta honek eragindako aldaketak ere kontuan hartzekoak dira[1635]. Pedro Mari Otañoren "Aitona eta illoba" bertso sailean bada gai honen inguruko erreferentziarik. Aitona eta iloba baserrian bizi dira eta aitonak iloba eskolara bidaltzen du ikasi dezan, *"Eskolara bidaltzen / zaitut ikastera, / ta oraiñ noa zuri / galdetzen astera; / ez dago afaririk / alperra bazera"*[1636]. Otañok eskola hizkuntzaren gaiarekin lotzen duenez gero, aurreraxeago ere hitz egingo dugu puntu honetaz[1637]. Otañok eskola gaztelaniaren zabaltzaile bezala agertuko digu bere bertsoetan eta euskara ezkutatzen jokatzen duen papera agertuko digu. Irakasleak ez du euskararik jakingo eta ez die honi buruz hitz egingo. Ez dira, ordea, eskola guztiak berdinak izango: *"Atoz, nire illoba, / goazen afaitera, / zure guraso eta / senide tartera; / aita ta amatxori / noa esatera, / len zabiltzan ortatik / lenbailen atera / ta bidaltzeko beste / eskola batera"*[1638]. Eskolak ez du soilik euskara desagerrerazten, baita norbere jatorria ere: *"Gu argitasunaren / etsaiak ez gera, / bañan, ai!, zu, illoba, / zuaz buruz-beera / zere jatorritikan / ezkutatutzera… / Beti saia zaitez au / buruan artzera: / euskera da lenengo, / ta gero… euskera"*[1639].

Txirritak ere, 1876az geroztik, foruak galdu eta eskolak gaztelania indartu duela esanez, egoera honen aurrean gure maiorazkoak non ote dauden galdera egingo du bere bertso batean. Beraz, gaztelaniaren aurrean, -Espainiaren aurrean?- edo Espainia Euskal Herrian gehiegi sartzearen aurrean, noren esku dago defentsa? Nork egin behar dio aurre honi? Maiorazkoei egiten die Txirritak erreferentzia: *"Andikan laster jarri zituzten / eskola erderazkuak, / maisu geienak kastillanuak, / kolorez berde askuak; / gure semiak amenazatzen / luzeturikan eskuak, / itz bat euskeraz aditzen bada / autsi biarrik kaskuak, / non ote dira garai bateko / emengo*

[1634] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 344. or.
[1635] Ikus 5. eranskina. Alfabetatze datuak jasotzen dira bertan. Alfabetatzea gaztelaniaz egingo da garai hartan.
[1636] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 475. or.
[1637] Ikus 4.2.3.1. puntua.
[1638] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 477. or.
[1639] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 477. or.

*maiorazkuak?*"[1640]. Deigarria da sistemaren oinarrian eta honen defentsaren erantzule gisa maiorazkoak nola jartzen dituen Txirritak.

## 3.2.7. Gobernatu beharreko komunitatea handitzen denean

Hemen dugu agian azaltzeko punturik korapilotsuenetako eta zabalenetako bat. Baina gauzarik zailenak ere, pixkanaka azaltzen hasiz egiten dira ulergarri. Zer gertatzen da gobernatu beharrekoa etxea edo udalerria izatetik probintzia edo nazioa izatera pasatzen denean[1641]? Eta zergatik gertatzen da hori? Espazioa eta "territorium"-a bereizi ditugu lehen. Erreferentzia espazialak nola zabaldu ziren ikusi dugu 3.2.4. puntuan. Goazen "territorium"-a, gobernatu beharreko lurraldea nola zabaldu zen ikustera.

Gobernatu beharreko komunitatea, eta aldi berean lurraldea, "territorium"a, handitzen doan neurrian eta gobernatu beharreko komunitate eta lurraren identifikazio prozesua handitzen doan mailan, hiru egituratze politiko eredu aurkituko ditugu lehian. Eredu munizipalista, udalerrien alde egiten duena izango da. Eredu probintziala, laster probintziartekoa, izango dugu bigarrena. Eta azkenik, eredu estatalista-zentralista. Aztertu ditugun bertsolariek probintziarteko ereduari egingo diote erreferentzia nagusiki sistema foralaren erreibindikazioa egiten dutenean, eredu estatalista-zentralistari emandako erantzun gisa. Forma politiko ezberdinen pean –dela monarkia parlamentarioa, dela errepublika- egituratze politikoaz diharduten bertsolariek euskal komunitateari tokia egingo dioten formak erreibindikatuko dituzte eta, beraz, euren burua parte ikusten duten komunitateari uko egiteko asmorik erakutsi gabe, alderantziz baizik.

### 3.2.7.1.Sistema foralaren erreibindikazioa: Txirrita, Xenpelar eta Otaño

Gauzak berdin jarrai dezaten eskatzeko, sistema foralari egingo diote erreferentzia zenbaitek. Aldaketak hurbil sentitu dituztenek nabarituko dute behar hori gehienbat. Txirrita, Xenpelar eta Otaño izango dira gehienbat foruei aipamena egingo dietenak eta, neurri txikiagoan, baita Joxe Mari Lopetegi ere.Txirritak sistema foral klasikoari egingo dio erreferentzia. Xenpelarrek, berriz, sistema forala liberal progresisten "gehiegikerien" aurrean erreibindikatuko du, egoerari erantzun

[1640] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[1641] MACRY, Paolo: *La sociedad contemporánea: una introducción histórica.* Madrid: Ariel, 1997.

bat emateko. Otañok, berriz, foruak bai, baina forma politiko berrien baitan ikusiko ditu, bere bizitza politikoaren hasieran behintzat bai.

Has gaitezen Txirritarekin. Txirritak foruak behin baino gehiagotan aipatuko ditu bere bertsoetan. Horren adibide, 1897an hil zuten Canovas del Castilloren alargunari jarri zizkion bertsoak:

> *"Il da Cánovas, juan da Cánovas, / pikaro gaizki aziya! / Galdu zituen ifar garbiyak, / jarri du trumoi nasiya, / galdu zituen fueruak eta / Jaungoikuaren graziya, / galdu zituen bere lagunak, / galdu du bere biziya!*
>
> *Iru relejo, iruna kate, / iru mallakin bakoitza, / buruan berriz iru korona, / petxuan iru orratza, / iru doblako amoriyua / tximista bezin zorrotza, / iru tirotan utzi zizuten / zuri senarra ill-otza, / iru ezpatak zulatzen dute, / señora, zure biotza"*[1642].

Txirritak Canovas seinalatzen du foruak galdu izanaren erantzule. Lehenengo bertsoan galera ezberdinei buruz hitz egiten du, aditza errepikatuz, galdutako elementuak parekatuko balitu bezala: ipar garbia, foruak, Jaungoikuaren grazia, lagunak eta bizia galdu ditu. Alargunari eskaintzen dion bertsoan berriz, hiru zenbakia erabiltzen du Txirritak. Bertsoaren lehenengo zatian andre haren aberastasuna goratzeko, eta bigarrenean berriz, haren mina azpimarratzeko. Gradazioa ageri da nabarmen bertso hauetan.

Foruei buruz, hauek gai nagusitzat hartuta, 1906an Txirritak bertsoak jarri zituen. *Txirritaren testamentua* liburuxkan argitaratu zituen, baina aurretik, bertsopaper gisa ere argitaratuak ziren. Foru sistemaren aintzinakotasuna azpimarratuko du. Foruen galerak bere aurrekoak nola tristetzen zituen kontatuz hasi zuen bertso saila Txirritak: *"1/Gure aurreko guraso zarrak / aspaldi samar il zian, / guk ainbat biar faltatu gabe / fede santuko itzian; / izar tartetik or daude beida / jendia nola bizi'an, / negar-malkuak dakazkitela / fueruak ofenditzian; / zer kontatua izango dute / Josafatera biltzian"*[1643].

Bertso sail honetan, aurreragoko erreferentziak kontuan izanez ikus dezakegun bezala, espainiar eta euskaldunen arteko arazoak aipatzen zituen foruen galeraren erantzule gisa:

> *2/Kantabriya da ibai eder bat / guziya arraiz betia, / eta geiena jenero fiñak, / bastuak banakak tia; / beste erriyo zatar batzuek / artu ziguten partia, / fortunatzen da gaiztuak ona / bentzutu edo jatia, / beragatikan dago asarre / ur onen ama maitia.*

---

[1642] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op .cit., 137. or.
[1643] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 432. or.

> *3/Nola etxian esposatuta / nagusitzen dan morroya, / alaxen dago ibai on ontan / gaiztuetako arraya; / egiten asi giñadenian / airi ongi-etorriya, / galdu giñuen bizi-lekua, / barriyua eta erriya; / euskaldunentzat au izandu zan / egun goguangarriya"*[1644].

Esanguratsua gertatzen da hirugarren bertsoan Txirritak esaten diguna. Morroi zena, hau da, etxekoen zerbitzura zegoena, ezkontzaz nagusiaren pare egiten da. Ondo hartua den horrek galduarazi egiten die etxekoei beren ingurua edo ekosistema: etxea, auzoa eta herria galdu egiten ditu horrela. Zer egin behar du orduan etxea, auzoa eta herria galdu dituenak, hau da, hurbileko komunitateak nahasturik aurkitzen dituenak? Erreferentzia berrien bila abiatu, hordagoa goitik joz: probintziak eta, areago, probintzi arteko batasunean bilatuko du "komunitate" zahar-berria, foru sistemaren baitan aintzinatik oinarritua. Elkarbanatzen zuten egituratze bat kentzeak, elkarbanatze haren kontzientzia handiagoa eman die, eta hau orainaldi eta etorkizunera proiektatzen dute horrela. Espainiatik hiru probintziei "soluzio" bera eman nahi izateak, hiru probintziek ere erantzuna elkarrekin ematera bultzatuko ditu.

Bertso sail berean zehazten duenez, arazoa ez da soilik espainiar eta euskaldunen artekoa, euskaldun batzuk ere foruen kontra daude eta horregatik gertatu da gertatutakoa: *"4/Zori gaiztozko gerra zibilla / sortu zalako meriyo, / lau probentziyak gelditu giñan / fetxaz beteta seriyo; / egun batian lur jo genduben, / ezin giñazke gora iyo, / berriz altxako ote geraden / ere ez naiz oso fiyo; / erdara etzan bakarrik kapaz, / euskarak lagundu diyo"*[1645].

Ondoren, euskaldunek zenbat gerratetan aurrera atera diren agertzen digu, atzerritarrei aurka eginez: *"Lenengo etsaiak erromatarrak, / bigarren txandan jentillak, / ta gero berriz frantzesarekin / izugarrizko batallak; / gure aurreko aitona zarrak / asko dira gerran illak; / mundu guziya bildurtzen zuten / Kantabriya'ko mutillak, / oraingo mauser ainbat baziran / orduko lizar-makillak"*[1646]. Diskurtso foral klasikoaren erakusle da Txirrita: lehengo garaien idealizazio eta mitifikazioa egingo ditu.

1931. urtean, foruei buruz mintzatuko zaigu berriro Txirrita honako bertso sailaren bitartez: "Mundu ontako bizi-modua. Aste ontan Txirritak jarriyak" *(1931)*. Errepublikaren testuinguruan, Espainia konfiguratzeko modu berria izanik, une berezia, eraikitzailea izanik, aukera ikusten du Txirritak foruak berreskuratzeko,

[1644] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 432.-433. or.
[1645] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 433. or.
[1646] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 433. or.

baina beldur da ez ote den horrela gertatuko. Lehenengo nola kenduak izango ziren esango du: *"Alper askori gustatzen zaio / bestek egiña jatia, / berentzat zernai komenentzi ta / pobriarentzat kaltia; / lapur txikiyak preso sartuta / gañera berriz katia, / aundiyarentzat libertadia, / beti zabalik atia… / Kantabria'ko fueruak ere / olaxe kenduak tia"*[1647].

Lapur handi eta txikien arteko konparaketak eginez, animaliekin batez ere, aritu ondoren, azkeneko bi bertsoetan, eta batez ere azkenaurrekoan, gaiari helduko dio tinko. Errepublikaren aurrean, Txirritak foruak gogorarazi nahiko ditu:

> *"Maite zaituztet, presidentiak, / ministro, diputaduak, / biar bezela gauzak egiñaz / izan tzizute graduak; (sic) / garai onetan zuek zerate / Españia'ko buruak, / despreziyorik ez du merezi / Elizak eta kleruak, / guk republika maiteko degu / bañan ekarri fueruak.*
>
> *Arri-urdiñetako semia, / ai oraň bizi baziña, / ill da gero're maite zaitugu / munduan iñor ez aña; / oraň berroi ta amasei urte / sortu ziguten kuziña; / eskritura bat Ernani'n dago / egiyazkua ta ziña, / ori da Juan de Urbieta'ren / Pavia'ko azaña"*[1648].

Zer nahi du Txirritak: euskaldunen batek goi-mailako agintariren bat harrapatu eta bere kondizioak jartzeko gai izatea? Zergatik aipatzen du bestela hainbeste Juan de Urbietaren Paviako ekintza? Hala ere, hemen azpimarratu nahi duguna, hau da: sistema foralaren alde egiten du Txirritak baina Espainiaren baitan. Hau da, espainiar erakunde eta euskal foruen arteko konkurrentzialtasunean sinesten du oraindik Txirritak.

Hasieran esan dugunez, Txirritaz gain, Xenpelarrek ere sistema foralari egingo dio erreferentzia. Xenpelarrek 1869ko "Bertso berrietan" eta 1869an osatutako "Iya guriak egin du" bertso sailean etengabe ditu gogoan foruak. Aldatzera doan egoeraren aurrean, foruei eusteko adierazi eta eskatzen du behin eta berriz Xenpelarrek. Honetarako hiru probintzien elkarlana egokia irudituko zaio eta horren alde egingo du. Azpimarragarri gertatzen zaigu erabiltzen duen hizkera: *"lege"*[1649], *"lengo fuero zarrak"*[1650], *"lengo lege"*[1651], *"letra zarra"*[1652] gisako kontzeptuak erabiltzen ditu[1653]. Foruak aldatu egin nahi dituzte eta Xenpelarrek

---

[1647] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 460. or.
[1648] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 461. or.
[1649] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301.-302. or.
[1650] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301.-302. or.
[1651] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309.-310 or.
[1652] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 310. or.
[1653] Azken hauek "Iya guriak egin du" bertso sailean, ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309.-310. or.

ezetz esango du, eutsi egin behar zaiela, gorde. Hau da, espainiar liberalek sistemaren konkurrentzialtasuna puskatu nahi dutenean, Xenpelarrek sistema foral berrindartua proposatuko du.

Xenpelarrek 1868ko seiurteko demokratikoaren hasieraren esperientzia izango du, besteak beste, hartutako erabaki ezberdinen artean jesulagunak Espainiatik botatzea eta erlijioaren inguruan erlijio-askatasuna aldarrikatzea ezagutuko ditu. 1869an gazterik hil zenez, ez zituen gerora gertatutako gorabeherak ezagutu, baina bizi izandako apur hartaz, behintzat, bere iritzia utzi zigun. Aldaketa hauen aurrean Xenpelarrek hiru euskal probintzien arteko elkarlana azpimarratuko du: "*Araba ta Bizkaiak / legezko indarrak, / Gipuzkoan ez gaude / laguntzalle txarrak; / ona iru probentzi / kantabriatarrak, / sostenitu ditzagun / lengo fuero zarrak*"[1654]. Hala ere, proposamen horretan gehiago ikusten dugu sortzen ari zen egoera batekiko erantzuna, berezkotik jaiotako zerbait baino[1655].

Gipuzkoako probintzia, Araba eta Bizkaia eta Madrilgo gobernua aipatuko ditu Xenpelarrek. Euskal probintziek bereari eutsi beharko diote –tartean foruak eta erlijioa azpimarratuz-, baina ahal dela, gerrara iritsi gabe, beti ere bakea hobetsiz. Dakusagun.

Kokapen kronologikoa emango digu hasierako bertsotik: "*Milla zortzireun eta / irurogei ta zortziyan / asunto bat asi da / gure probintziyan; / gerra kalte degunak, / nire iritziyan, / euskal erriyak gauden / lengo dezentziyan*"[1656]. Hurrengo bertsoan, gehiago zehazten du oraindik: "*Oraiñ urte berriyan / sartuak gerade, / bañan lengo zarrian / asiyak dirade;*"[1657].

Zer da jokoan dagoena? Eredu zaharraren eta berriaren arteko talka, euskaldunek jarraitzen zutenaren –foruak eta erljioa- eta Madrilgo gobernutik proposatzen dutenaren arteko borroka, azken hau, ordurarte zituen eskuduntzak baino gehiago hartu nahirik delarik: "*lege onetan gauden / ganbiyatu gabe, / iñor egin eztedin / euskaldunen jabe*"[1658].

Xenpelarrek garbi utziko du ez dutela gerrarik nahi –lehenengo gerrate karlista ez da alferrik pasea, eta gogoan izango dituzte haren kostuak- baina ez daudela prest

---

[1654] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301. or.
[1655] Ikus AGIRREAZKUENAGA, J.: *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936).* Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1996.
[1656] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301. or.
[1657] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301. or.
[1658] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301. or.

berenari uko egiteko: *"Guk pakia nai degu, / ez gerrarik emen, / zarrak eman ziguten / giyamentuan len; / mudantzak asi dira / egun gutxi barren, / anparatu gaitzala / Jaungoikuak arren!"*[1659]. Gerraren kontrako bertsoak tartekatuz joango da Xenpelar bertso sailean. Seigarrenean: *"Orra klaruan esan / nere ditamena, / umiltzia nai nuke / gaizki dabillena; / gerrak askorentzat du / ondorian pena, / pakian konpontzia / gauzarik onena"*[1660]. Hamalaugarrenean: *"Nastuta gabiltzanak / alkargana bildu, / Jaunaren justiziyan / obe da umildu; / gerrari laga eta / pakiari eldu, / inozente gaudenak / ez gaitezen galdu"*[1661]. Eta bertso saileko azken aurrekoan: *"Elkar ezin ikusi, / -au mundu argala!-, / uste degu betiko / jaiuak gerala; / alferrik da artzia / indarraren gala, / aingeru guardakuak / anpara gaitzala"*[1662].

Liberalak aldaketekin identifikatuko ditu eta ez da haiekin fidatuko: *"Liberalak diyote / egoteko umill, / lengo lege zarrikan / eztutela nai ill; / gu tontuak bagiña / oiek beti abill, / oraindikan asuntua / fandanguan dabill"*[1663]. Liberal hauek gainera erradikalak izango dira, liberaletan iraultzaileenak eta horregatik gutxiago fidatzen da oraindik Xenpelar haiekin: *"Erregiña emendik / bialdu ta sarri / asunto bat digute / askorentzat jarri; / zertarako dabiltzan / kausari igarri, / begiratu nola dan / asiera orri"*[1664].

Gai erlijiosoa izango da Xenpelarrek nabarmenduko duena, baina hau garaiko legeekin, foruekin ere lotuz: *"Nire kristau fielak, / legi au guardatu, / mudantza berririk ez / memoriyan artu; / zer egin bear degun / orra enkargatu, / bizirik ez gaitezen / infernuan sartu"*[1665]. Jesulagunak Espainiatik botatzea, apaizen kontra aritzea, hauei soldata kentzea[1666]… ez ditu begi onez ikusiko Xenpelarrek, eta hauek egiten dituenak "lege zaarrekin" bat eginda ezin duela egon garbi izango du: *"Lengo legerikan nai / ezpazuten saldu, / jesuitak zertako / kanpora bialdu?"*[1667].

---

[1659] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 302. or.
[1660] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 302. or.
[1661] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 304. or.
[1662] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 304. or.
[1663] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 302. or.
[1664] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 303. or.
[1665] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 302. or.
[1666] Xenpelarrek apaizek ikasi beharra badute, barbero, mediku eta letraduen gisa, hauek bezala zergatik ez duten soldatarik izan behar adieraziko du: *"Barbero, mediku ta / letraduai galde / ia ote dabiltzan / jornalikan gabe; / lanian trabajatzen / gorputza debalde, / iñor ezta alferrik / enpeñatu zale"*. Ikus: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 304. or.
[1667] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 303. or.

Eta zein da konponbidea Xenpelarren arabera? "*Kortian jarri bedi / gizon bat umilla, / berari entregatu / ezpata ta silla, / etsaiaren indarra / utzi dezan illa; / ori deseatzen det, / ala izan dedilla*"[1668]. Irtenbide sinpleegia ote?

Xenpelarren "Iya guriak egin du…" bertso sailean oraindik eta argiagoa izango da bakearen aldeko oihua. Zortzi bertsoz osatua dago bertso sail hau eta bertan behin baino gehiagotan egiten da bakearen alde, kasu batzuetan horretarako bortxazko bideak aipatzen badira ere.

*"Iya guriak egin du, / badegu zeñek agindu;"*[1669] horra bertso sailari izena ematen dion lehenengo puntua. Bi eratara ulertzeko modukoa, ondoren datozen puntuak kontuan hartzen ditugun edo ez. Bere hutsean, gu ez garen norbaitek gure gain agindu izanak galtzen gaituela pentsa dezakegu, eta hurrengo puntuak kontuan izanez, berriz, –*"ez oraindik umildu, / alkarrengana bildu; / gerra nai duben guziya, / berari kendu biziya"*[1670]- agintzen dutenek gerra nahi dutela eta egitekotan horien kontra egin behar dela gerra.

Gerra pizteko modu ezberdinak daude, eta Xenpelarrek modurik sutilenak salatzen ditu: *"Okasiyua prestatzen, / lotan daudenak esnatzen; / etzait neri gustatzen / maliziyan jostatzen / iñorekin ibilltzia; / ark merezi du illtzia!"*[1671] . Probokazioan erraz erori ordez, Xenpelarrek buruari eragiteko gomendatuko du: *"Gerraren billa gau t'egun / etsaiak arturik lagun; / arrazoi ote degun / edo zer datorkigun / asitzerako pentsatu / fusillak nola dantzatu!"*[1672].

Xenpelarrek lehenengo pertsonan kantatuko digu hemen: *"Ez naiz ni gerraren zale, / baizik pakearen alde; / zeñek nai duen galde, / berari tira dale, / bala bat sartu buruan, / aspertuko da orduan!"*[1673]. Hau guztia egin bazuen batzuen eta besteen artean gerrarako prestasun handia ikusten zuelako egingo zuen. Zenbateraino ote bakezaletasun hau herriaren sentimentu eta gogo? Zenbateraino bertsolariaren barne-desio? Zail egingo zaigu hau neurtzea. Egia da gaur arteraino iritsitako bertsoak ditugula hauek, jendeak buruz ikasiak, baina hortik kontuak ateratzea, iritzi neurketak egitea zail gertatzen zaigu. Egia da, horretaz aparte, gerraren zale direnekiko agertzen duen ekintza proposamena, egiaz berak aurrera eramatekoa baino, hau da, hitzez hitz ulertzekoa baino, gerraren gogortasunaz eta gerraren eta

[1668] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 305. or.
[1669] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309. or.
[1670] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309. or.
[1671] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309. or.
[1672] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309. or.
[1673] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309. or.

heriotzaren arteko baliokidetzaz jendeari begiak irekitzeko esana dagoela. Hala iruditzen zaigu behintzat guri. Halaxe azpimarratzen du hurrengo bertsoan bere desioak agertzerakoan: *"Umildadean alkarri / errespetua ekarri; / lege eder bat jarri / bizi gaitezen garbi; / ori deseo nuke nik, / ixuri gabe odolik!"*[1674].

Datorren gerrate karlista aurreikusiz, gerrate horren izaera zibila azpimarratzen du azkenbigarren bertsoan: *"Gaitzak gerade umiltzen / eta pakean unitzen; / ez da errez ibiltzen / anaiak alkar illtzen"*[1675], eta berriro ere, entzuleak gerraren izaera gordinaz jabearazi nahi ditu: *"ez da errez ibiltzen / anaiak alkar illtzen, / zer dan entenditu gabe / ortan galduko gerade"*[1676].

Nabarmenagoa izango da hiru probintzien alde egiten duen apustua bertso sail honetan[1677]: *"Gu gera iru probintzi, / lengo legerik ez utzi; / oieri firme eutsi, / naiz anka bana autsi; / jaioko dira berriyak, / gu gera euskal erriyak!"*[1678]. Eta azkeneko bertsoan, izendatu ere egingo ditu probintziok: *"Alabes eta bizkaino, / gu gera gipuzkoano; / aitak il ziran baño / semeak oraindaño / legea degu guardatu; / letra zarrik ez ukatu"*[1679]. Horra bere proposamena: hiru probintziek elkarlanean sistema foral zahar-berrituari eustea espainiar liberalak egiten ari diren erasoaren aurrean.

Otañok ere fueroak hizpide hartu zituen hainbat okasiotan. Hogeita hamar urtetik gorako aldea dago bi bertsolarien foruei buruzko bertsoen artean eta bitartean, 1876. urtean gertatua daukagu (Xenpelarrek iritsi ez zuena, 1869an hil baitzen). Gai honi dagokionez, eta Otañoren kasuan, oso garrantzitsua da kronologia kontuan hartzea, izan ere, bilakaera politikoa izan zuen gizona izanik, desberdintasunak aurkituko ditugu bere pentsamentuan bertsoen sorkuntza urtearen arabera. Bertso hauek hobeto ulertzen lagunduko digu kronologia eta testuingurua kontuan izateak[1680]. Ikus nola "foru" hitza hobetsiko duen Otañok beste izenen aurrean. Pedro Mari Otañok foruei eta sistema foralari buruz esaten diguna Sabino Aranaren pentsamendutik hurbil aurkituko dugu. Horra ba hiru bertsolari gai berari buruz oso modu desberdinean kantuan.

1900. urtean Pedro Maria Otañok idatzitako "Artzai-mutilla" operan maitasun istorio eta desberdintasun sozio-ekonomikoei erreferentzia egiteaz gainera, lehen esan bezala, politika gaiei ere egiten zaie aipamena. Zer eta nola? Fueroen eta

[1674] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 310. or.
[1675] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 310. or.
[1676] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 310. or.
[1677] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 309.-310. or.
[1678] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 310. or.
[1679] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 310. or.
[1680] 3.2.7.2. atalean zehaztasun gehiagoz landuko dugu Pedro Mari Otañoren kasua.

euskararen galeraren beldurraren aurrean, bi jarrera nabarmenduko dira: gerra egitea edo bakean konpontzen saiatzea. Egoeraren errudun nagusitzat Madrilgo gobernua seinalatzen da.

Patxikok, artzai-mutilak, ekarriko du gaia pertsonaien arteko elkarrizketara: *"Aditutakoan / arritu zaitezte. / Ingurumari ontan / zabaldu da otsa. / Aitatze utsak ere / ematen dit lotsa! / Lendabizi sarturik / Fueruak lurpera, / gañera galerazi / nai dute euskera"*[1681]. Eta nortzuk dira honen erantzule? Patxikok aurreraxeago: *"Zertako da egiya / gezurtzat artzea? / Madrildarrak nai dute / izkuntz au galtzea"*[1682]. Patxikoren aita Peruk: *"Ez digute eman nai / buruzpide txarra, / bagenduke bezela / guk aien bearra! / Ez degu besterik nai, / gerena bakarra: / gure izkuntza eta / gure Lege Zarra"*[1683].

Lege Zahar edo Foruekiko maitasuna Maritxurekiko maitasunaren gainetik jarriko du Patxikok: *"[…] zeruak eta lurrak / jakin dezatela / Maritxu gabe eziñ / bizi nitekela; / bakarrik zuregandik / joango nitzakela, / jakiñik Lege Zarrak / premiya dubela"*[1684]. Maritxu triste jarriko da hau entzunda. Patxikok orduan emakume euskaldun gerlariaren irudia goratuko du: *"Etziñuket utziko, / ez leikena baita. / Eramango zinduket / alako trantzean / emen (joaz) ondo gordeta / nere biyotzean. / Bañan Lekobideren / alabaren gisan / emakume euskaldunak / bear luke izan: / Lartaun-en emaztegai / Onintza ederrak / azkonak zorroztutzen / laguntzen zion berak; / ta ala berean guk / bear degu egiñ, / Euskal-erri maitea / libre izan dediñ"*[1685]. Eta pixka bat aurrerago, Maritxuk hau onartzen duela esaten dionean, diskurtsoarekin jarraituko du:

> *"Orlaxen ikusi nai / zaitut nik, orlaxen: / menditar onradua / biotzez maitatzen, / ardia beziñ maltsu / oi dana pakean, / baña legoi biurtzen / dana gerratean, / ta esango diona / etsai zitalari: / <Likitsa! Zer nai diok / Euskal-erriari? / Bere berdiñik iñun / ez duben lurrari? / Nai ez badek illtzea / emendik joan ari!>… / […]"*[1686].

Foruak eta nork bere odola ematea, heriotza, lotuak ageri dira birritan operaren une batean: *"Denak: / Peruk arrazoi ematen digu: / anaiak burrukatzea / bañan obe da, al baldin bada, / pakean elkar artzea. / Guk naiagatik ontasunean / eziñ badegu iñola, / bear danean ixuritzeko / prest dago gure odola. // Taldean: Oraiñ, lagunak,*

---

[1681] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 216. or.
[1682] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 217. or.
[1683] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 217. or.
[1684] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 219. or.
[1685] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 220. or. 2.3.5. puntuan ere aipatu dugu bertso hau.
[1686] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 221. or.

*guazen itara, / abuztu ona biltzera, / joango giñaken bezela denok / fueroakgatik illtzera*"[1687].

1904ko "Bukatu bedi" bertsoan, Pedro Mari Otañok honela dio: "*Milla zortzireun irurogei ta / amaseigarren urtian, / uztaillaren ogei ta bata / nola aztu gure artian! / Egun orretan loitu ginduzten / Euskal-erri txit maitian, / gaizkillentzat mesede gabe / eta guretzat kaltian; / o, euskaldunak, lots au kentzeko / denok alkartu gaitian*"[1688]. 1876ko uztailaren 21eko legeari egiten dio erreferentzia. Foruak elementu bateratzailetzat hartzen ditu.

1904an, beste bertso bat eskaintzen dio, izenburutik hasita, arestian aipatu legeari, "Julio 21 de 1876" deritzona: "*Ogei ta zortzi urte onetan / arrazoi billa negarrez / saiatu gera, eta erantzun / digute burlaz ta farrez. / Nire malkuak agortu dira / ta agintzen dizut asarrez: / <Seme, ar zazu aizkora eta / puska ezazu indarrez>*"[1689]. Aita Zavalak kontatzen duenaren arabera, marrazki bat dago bertsoaren ondoan: enbor batek legea irudikatzen du, ama euskara baserritar bati enborra moztu behar duela esanez ageri da ondoan.

1905. urtearen hasieran, urteberria zoriontzeko honako bertsoa prestatu zuen: "*Bukatu bitez gaiztakeriak, / zintzotu bitez eruak, / eta utzi bitza jende zitalak / urte zarreko lekuak; / gu, euskaldunok, naspilla gabe, / izan gaitezen lenguak, / urte berriak bekar pakea / eta guretzat Fueruak*"[1690].

"Aitor-en semeak eta Erroma" konposizioan berriz, zeina, Antonio Zavalaren ustez, opera baten zati baten prestaketa izan zitekeen, "fueruen kondarrez" hitz egingo digu. Datarik ipini ez arren, 1906 eta 1910 urte bitartetako bertso sailen tartean argitaratu zituen Antonio Zavalak bertso hauek *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua II* liburuan. Euskal Herriaren iraupenerako foruak eta euskara beharrezkotzat joko ditu Otañok. Hona:

> "*Atozte, guazen denok, / anai euskaltarrak, / galdu bañan lenago / fueruen kondarrak; / zerutik txalo joko / digute lendarrak, / Lekobide ta bere / lagun fiñ azkarrak, / Euskalerriyagatik / ill ziraden zarrak.*
>
> *Zer oitura garbiyak, / zer lege santuak, / arkitzen diran iya / ankaperatuak! / Amatxo, zure begi / malkoz tapatuak / alaituko dituzte / seme maitatuak, / urraturikan kate / madarikatuak.*

[1687] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 239. or.
[1688] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 121. or.
[1689] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 122. or.
[1690] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 158. or.

> *Ama, zutitu zaitez / ta semeai deitu, / esanaz euskera nai / dezula aditu; / bat bakarrik joan gabe / ez leike gelditu. / O, Amatxok fueruak / beti bear ditu, / bestela illa dago / galdutzen baditu.*
>
> *Gora Euskalerriya / ta semeai deitu, / esanaz euskera nai / dezula aditu; / bat bakarrik atzera / ez leike gelditu. / Gure erriyak Fueruak / txit bereak ditu, / ta illko da betiko / galdutzen baditu"*[1691].

Adierazgarria da "fueruen kondarrez" nola hitz egiten duen eta nola foruak historiarekin lotzen dituen, erromatarren garaira arte atzera eginez. Euskal Herria da ama, euskaldunak bere seme-alabak, euskarari eutsi behar diotenak. Euskal Herriaren iraupena foruen iraupenarekin lotzen du ezinbestean Pedro Mari Otañok, eta Euskara Herriaren etorkizuna Espainiarenetik aldendua ikusten du.

Foru sistemaz ari garen honetan, aparteko tokia merezi du sinbolo batek, Gernikako Arbolak. Gernikako Arbola bertsolari batek baino gehiagok hartuko dute kantagai, baina bakoitzak beretik, bakoitzak egiten dituen azpimarraketak desberdinak direlarik. Konparaketak egiteko aukerak ematen dizkigu honek. Sistema foralaz mintzatu garenean bertsolari guztiek gauza bera ulertzen ez zuten bezala, Gernikako Arbolari ere esanahi berezia emango dio bakoitzak.

Sistema foral klasikotik gertuen dauden eta hizkuntza politiko eta sinbologia "modernoetan" ohituta ez daudenei, kosta egingo zaie arbolari kantatzea. Pello Errotak, Gernikako Arbola, euskara eta gobernu ona batuko ditu. Dena den, nabari zaio ez duela diskurtso ideologikoak egiteko ohitura handirik: elementu ezberdinak lotzen kosta egingo zaio eta erabiliko dituen adibide eta erreferentziak landa eremuari lotuak izango dira batez ere. Lehenengo bertsoan euskarari buruz hitz egin ondoren, bigarrenetik aurrera helduko dio arbolaren gaiari: baserritar baten moduan hitz egiten du gai honetaz, mentua, txertatzea, eta antzekoak aipatuta. Hona:

> *"Gure arbola dago / indarrak aituta, / lorerik eztuala / nago arrituta; / enteratu zaitezte / itz au adituta, / ia ostatutzen [sic] dan / mentu berrituta.*
>
> *Mentu onak billatzen / saia egiñala, / gero ondo txertatu / esan dan bezela, / ta dagokion batek / goberna dezala, / uste det arbol ori / osatuko dala"*
>
> *Lenbizi ostua ta / urrena loria, / orain…. / ……. / gero aterako da / lotsikan gabia, / sekula ezta aztuko / orren onoria"*[1692].

Txirritak, berriz, 1897ko Oiartzungo euskal festetan honakoa biziko du:

---

[1691] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 189.-190. or.
[1692] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 206.-207. or.

> *"Asi omen ziran bertsotan eta Txirrita jendearen gustoa egiten ari omen zan, eta jendea parre-algaraz aren bertsoekin. Pello Errota, berriz, euskal festak ziran ezkero, euskera goratuz ari zan, saria irabaztearren.*
>
> *Pello Maria Otaño juraduan zegoan, eta Txirritari onela esan omen zion:*
>
> *-Ederki ari aiz, Txirrita. Ederki ari aiz. Jendearen gustoa egiten ari aiz. Baiña arbola aitatzen ez badek, premioa Pello Errotarengana ziak.*
>
> *Orduan Txirritak bertso au bota zuan:*
>
> *"Gernika'ko arbola / igartu da orra, / ez daukate jarririk / olako enborra; / ari zañak ebaki / zizkion satorra, / berrogei kana luze / bazuen muturra, / ura etzan izango / euskaldun jatorra"*[1693].

Baditu Txirritak "Bertso berriak Gernikako arbolari" izenburupean bertsoak. Kasu honetan, foruekin lotuko du Gernikako arbola eta foruen galerari buruz honakoak esango ditu:

> *"1/Zeruko Aita, marka itzazu / pekatarien pausuak, / Kantabria'ko deskalabroak / dirade lastimosuak; / arbola eder bat dala mediyo / jartzera nua bertsuak, / milla urtean mantendu gaitu / lau probintzia osuak.*
>
> *2/Gutxienaz izan bear du / milla urte pasatua, / arbola aundi bat bada Gernika'n / aitona batek sartua; / aren azpian egin omen zan / fueroen juramentua, / orain argati deitzen diogu / arbola bedeinkatua"*[1694].

Bertso hauetan nabariagoa da nola azpimarratzen duen arbolaren atenporalitatea eta nola aurkezten duen diskurtso idealizatuagoa. Foruen galeraz ari da orain, eta hauen alde egin behar dela eta berreskuratzen saiatu behar dutela esaten du: *"5/Arbola dago igartua ta / euskaldunak gaude triste, / ez det pentsatzen pasatu danik / munduan beste onenbeste; / orain gertatu zitekeanik / ere ez nuen nik uste, / milla urtean segitu duten / fueroak kendu dituzte"*[1695].

Foruen errekuperazioa eskatuko du: *"3/Biba arbola maitagarria! / Biba kantabriatarrak! / Biba Bizkaia, Gipuzkoa'kin, / Alaba eta Naparrak! / Biba kortean gure fabore / dauden ministro bakarrak! / Beste gauzarik ez degu eskatzen: / biba lengo fuero zarrak!"* [1696]. Oraingo honetan ere korteen eta foruen konkurrentzialtasunaren alde agertuko da.

---

[1693] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 74. or.
[1694] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 278. or.
[1695] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 278. or.
[1696] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 278. or.

Historia egiten du, foruen inguruan egon diren urte edota gertakizun nagusien historia. Bergarako konbenioarekin hasiko da, 1839an, 1868ko seiurteko iraultzailea aipatuko du gero, eta, azkenik, 1876. urtean foruak bertan behera geratu zirenekoa[1697].

Otaño dugu "Gernikako arbolari" bertsoak jarri zizkion beste bertsolaria[1698]. Batzuetan aipatu egingo du: "*<Gernikako arbolak / zeruban du aita, / onek bialdu zigun / guri ondo naita; / biyak bear ditugu / biotzetik maita, / euskera ez da galduko / zerutarra baita>*"[1699]. Eta beste okasio batean berriz, bertso saila eskainiko dio. 1906an, Otañok, "Gure aritza" bertsoak, bederatzi puntukoak, osatu zituen. Bertan kontatuko digu Buenos Airesko euskal etxean zuten Gernikako arbolaren "semea" ihartu egin zela eta orain berria jarri zutela:

> *"Gernikako arbola / da euskaldunena, / gure biotzak guztiz / maite dubena, / munduban izandu dan / aritzik onena, / Iparragirre zanak / kantatu zubena; / igartu zan lena, / badu ondorena, / seme berarena, / liraiñ ta lerdena, / aitaren lege bera / dakarkiena.*
>
> *Eman da zabaldurik / munduban frutuba, / Buenos Aires-en egon / zan landatuba, / Plaza Euskeran bere / seme indartuba, / ikusi degu azi / eta edertuba; / landare santuba / berriz aldatuba, / zañak urratuba / dago igartuba, / Laurak-Bat-en baratzan / txokoratuba.*
>
> *Bañan Laurak-Bat-ean, / Gernikan bezela, / ezagun da aritza / maite dutela; / ikusirikan zarra / illa zeguela, / ordaña jarri dute / gazte bat berela; / ikusi det bera / sasoi dakarrela, / guztiak orrela / jakiñ dezatela / euskera sekulan ill / ez ditekela"*[1700].

Euskaldunen sinbolo gisa aurkezten digu Otañok eta euskararen eta honen iraupenarekin lotzen du.

1907ko "Lora" operan ere, bigarren egintzan, eskena forzatu samarra sartzen du Pedro Maria Otañok. Gernikan ageri dira bat-batean Gaintza, Lora, Agiri eta Aldun. Dirudienez, Gaintzaren ametsa zen hura, eta betetzen laguntzen diote. Zer gertatzen da Gernikan? Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako ahaldunak biltzen omen dira. Kontzertu ekonomikoaren gaia da Otañok jasotzen duena, eta operako protagonistak nafarrak direnez, Nafarroaren parte hartzea ere ematen da bilera honetan eta euskal lurraldeen konfigurazioan.

---

[1697] Ikus ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 278.-279. or.
[1698] Xenpelarren bertsoen artean ez dugu horrelakorik aurkituko.
[1699] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 178. or.
[1700] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 163.-164. or.

Gernikako arbolaz dioena, hona, Gaintzaren ahotan: *"Ona, nire maiteak, / lur argidotarra, / nire betiko amets / t'animako arra; / ara or aritz santuba / azalkai gutarra, / orren argitasuna / ta bere indarra / daukagu mundu ontan / zabaldu bearra: / Jaungoikoa, euskera / eta Lege Zarra"*[1701]. Garbi ageri da hemen JEL, Sabino Aranaren eragina. Pedro Mari Otañok euskara gehituko dio, binomioa trinomio bihurtuz.

Bertsolariek foruen alde egiten duten apustua, beraz, askotarikoa dela ikusi ahal izan dugu, hau da, kontzeptu berak erabiliz hainbat esanahiri egiten dietela erreferentzia.

### 3.2.7.2. Errepublikanismotik, nazionalismora. Pedro Mari Otañoren eredu dinamikoa

Ikusi dugun bezala, foruen alde egin zuten hainbat bertsolarik, nolabait esateko, politikan gertatzen ari ziren aldaketei erantzuna eman nahirik. Ez zen, ordea, hori aukera bakarra izan. Familiaz liberala, bilakaera bat izan zuen bertsolari bat ere badugu, errepublikano izan zena, eta bere bizitzaren azken urteetan nazionalismoaren doinupean kantatu zuena. Pedro Mari Otaño da, guk aztertu ditugun sei bertsolarien artean, bide hori jarraitu zuena. Kasu honetan, garrantzitsua izango da bertsoen kronologiari erreparatzea, izan ere, izango ditu garaiak Pedro Mari Otañok, zeintzuetan urtez urte ñabardurak gehitzen joango zaion bere diskurtsoari.

Pedro Mari Otaño Errepublikaren alde agertuko zaigu lehendabizi. Espainia eta Euskal Herria osagarriak izango dira une honetan Otañoren ustez. Are gehiago, euskaldunak izango dira espainolenak.

Otañok, 1893ko "Republika ta fueroak edo Mendiburuko maiztarra" bertso sailean, hainbat argibide emango dizkigu[1702]. Gauza ezberdinak nahasten dira bertan. Gure ustez, aitona zaharraren figuran, Pedro Mari Otañok landa eremua pertsonifikatu nahi izan du. Eta landa eremuari azaldu nahi dio nola Errepublika eta foruak konpatibleak diren:

> *"Ori aditu zuben denboran, / aitonak, altxarik garboz, / erantzun ziyon: <Eskol'oberik / eziñ eska leike aboz; / euskalduna da eta pueroak / maitatzen ditu oraingoz; / nola karrika beterik dagon / erreplurikano gaiztoz, / eraman nuben ta obe luke / berriz an balego askoz>.*

[1701] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 293. or.
[1702] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 373.-374. or.

> *<Republika zer dala uste du? / Aitona, betor onuntza; / eztegu ondo entenditutzen, / ez baita gure izkuntza; / bañan eskatzen du egiteko / denok elkarri laguntza, / beren modura gobernatubaz / probintzi t'erri bakoitza, / ortik fuerora zer diferentzi / dago, aitona? Zer? Utsa>.*
>
> *<Zure tokiyan beste zenbaitek / itzegiñ balit orrela, / animatikan aitortzen dizut / sinistuko ez nubela; / bañan zu, suia, nik ondo dakit / egitiya zeradela, / eta diyozu erreplurikak / puerua dakarrela… / Orduban saia gaitezen denok / ta lenbailen datorrela>"*[1703].

Badira hainbat aspektu azpimarratzeko modukoak: familiako batek errepublika zer den esaten eta azaltzen diolako, orduan sinesten du aitonak. Bestetik, hizkuntzaren kontua ere bada tartean: "ez baita gure hizkuntza" dio suhiak. Euskara ez delako? Errepublikarena kontzeptu politiko berri bat delako? Oso interesgarria gertatzen da bertso hauen helburu pedagogikoa. Pedro Mari Otaño aitonarentzat, hau da, landa eremuarentzat, berria den kontzeptu bat edukiz betetzen saiatzen da, kontzeptu berria eduki "zaharrez" betez, era honetara biztanle horiek Errepublikarekiko duten konfiantza handitu asmoz.

Hiru urte beranduago, 1896an, berriz, Kubako anaiei egindako bertsoetan, Espainiaren alde kantatuko du Pedro Mari Otañok eta euskaldunak espainiarrenak direla esanez jarriko ditu bertsoak. Gerra gizakiongan unibertsala dela esan ondoren, hona, nola letraratzen duen arestian aipatu duguna: *"iya sei milla urtez ondoren / begira nola gabiltzan, / bañan beartu izan geranez / gerran edo gudaritzan, / españitarrak añekorikan / ez da beste iñor izan"*[1704].

Espaiñiaren indarra azaltzeko, historiara jo eta hainbat pasarte gogora ekartzen ditu Otañok: Orreaga, Navas de Tolosa, Numantzia, Sagunto, Tarifa, Granadan Isabel katolikoak arabiarrak bota izana, etab[1705]. Eta zein toki betetzen dute arrazoiketa honetan euskaldunek? Hona: *"Ixil erazten dizkit gauz asko / bukatu bearrak laster; / español denak orla izanik / euskaldunagatikan zer / esan nezake, oien laguntzik / gabe iya iñon ezer / egiñ ez bada? Ematen diot / Jaungoiko onari esker, / guretzat gorde dituelako / orrenbeste gauza eder"*[1706].

Honetaz gainera, euskaldunen askatasuna da azpimarratuko duena: *"Zenbat erauntsi sartu diraden / Españiko errietan, / asko iritxi izandu dira / agintzera egietan, / Ebrotik aruntz ezagututzen / ditugun alderdietan; / bañan Aitorren*

---

[1703] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 374. or.
[1704] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 456. or.
[1705] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 457. or.
[1706] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 457. or.

*arrazak bere / lurra maite du ziñetan, / ta euskaldunak libre bizitu / dira beren mendietan*"[1707]. Kasu honetan, "erauntsi" hitzarekin, "eraso" adierazi nahi du: erasoak Espainian, baina euskaldunak "garbi" eta "libre" mantendu dira."Arraza" [1708] kontzeptuaren erabilera ere garrantzitsua da. Euskaldunak Espainiarentzat garrantzitsu dira, baina, aldi berean, ezberdin dira: bai arrazaz, eta bai libre mantendu direlako. Sabino Aranaren hipotesiei lotuta ageri da horrela.

Zeintzuk dira euskal "historiaz" gogoratzen dituen pasarteak? Erromatarrak Ernion izan zireneko eta Lekobidek emandako erantzunaren historia[1709], Beotibar… Pedro Mari Otañok aprobetxatuko du euskaldunek herri bezala zuten batasuna –edo desio zuena- historian atzera eramateko: *"Lekobide zan buruzagia / orduko euskaldunena, / eun urte eta anbat geiago / igaroak zituena; / gero Otzoal bere lagunak / agintzen zuen urrena, / Lartaun gaztea oien esana / zintzo egiten zuena, / ta ondorengo jende guztiya / aien antzekoa dena*"[1710].

Azpimarratu egin nahiko genuke, *"ta ondorengo jende guztiya / aien antzekoa dena"* esaldia. Pedro Mari Otaño orainaldiaren eta lehenaldiaren arteko lotura azpimarratzen saiatzen da.

Euskaldunen garaipena ere jasoko du hemen: *"Sartu ziraden erromatarrak / gure lur maite ontara, / bañan etzuten euskaldunikan / menperatzen iñontara; / Lekobide ta bere mutillak / belaun bat lurrean para / eta tiratzen zuten etsaiak / illtzen zituen dardara; / azkenerako berak joan bear / izan zuten Erromara*"[1711].

Garrantzitsua da "aberriagatik hiltzea" Pedro Mari Otañok erromatarren garaira trasladatzen duen aukeretako bat dela. Lekobidek euskaldun zaharrei eskatuko die bere buruaz beste egiteko, Ernio inguruan isolatuta eta erromatarrez inguratuta dauden euskaldunek bizirik jarrai dezaten, denentzako ez baitzuen inguruak ematen:

> *"Erromatarrak talde gogorrak, / lur asko zuten berendu, / ta Lekobidek zarrai deituaz / onela itzegiten du: / <Jaunak, Ernion denok luzaro / eziñ gintezke mantendu, / nere iritziz obe genduke / alperrik gaudenak kendu, / ta sasoikoak saia litezke / ori egingo bagendu>.*

---

[1707] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 458. or.

[1708] 1885ean izan zen Berlineko kongresua. Darwinismo soziala indarrean zegoen garai hartako Europan (Joseph Chamberlain).

[1709] Doktorego tesi honen emaitzen hurrengo atalean hitz egingo dugu bertsolariek egin zuten historiaren erabileraz.

[1710] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 458. or.

[1711] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 458. or.

*Gerrari zarrak erantzun zuten: / <Ederki dago gauz ori, / eta bertatik prest gaude emen / denok jarraitzeko zuri; / gu Ernioko aitzetan beera / bosteun gizon buruzuri / amil gaitezen, eta lenbailen / geren odola ixuri, / ondorengorik erromatarren / mende ez dediñ erori>.*

*Beren semeak artzen bazuten / erromatarren morrontza, / emazte eta alabentzako / seguru zetorren lotsa; / aiton aientzat au pentsatzea / aiñ zan samiñ ta zorrotza, / non naitasunen indarrarekin / altxarik beren biotza, / ondorengoak bizi zitezen / autu zuten eriotza"*[1712].

Euskal Herriak behar izan duenari nola lagundu dion ere adieraziko digu, tartean, baita Espainiari ere –dierri edo patria deituko dio honi-:

*"17/Miñberatzea gerta liteke / zenbait egiak esanez, / bañan ez dute kejakizunik / Aitorren semeen lanez; / gure dierri edo patria / beartu izandu danez, / naiz serbitzeko orain bezela / premesia'rik izan ez, / Euskalerriak lagundu dio / bere odola emanez.*

*18/Noiznai arkitu izandu danez / Españia bearrean, / naiz emen bertan edo urruti, / munduaren bazterrean, / leku beroan edo otzean, / itsasoan, legorrean, / beti azaldu zaio laguntza / kantauritarren lurrean, / ta euskaldunak ikusi dira / beste guztien aurrean"*[1713].

Aipagarria da "dierri" edo "patria" kontzeptuaren erabilera Espainiari erreferentzia egiteko[1714]. "Aitorren semeak", "kantauritarrak" eta "euskaldunak" izenak ere erabiltzen ditu.

Kubako gerraren kontakizuna berreskuratuz, guda honen kasuan, Otañok estatubatuarrak ere aipatzen ditu eragiletzat: *"22/Ondo dakigu oraingo ontan / etzeratela bakarrak, / zirikatutzen zaituztelako / atzetikan yankeetarrak, / egazti arraparien gisa / luzaturik atzaparrak; / bañan leoia ez du izutzen / basakatuen kalparrak, / eguzkitara guk aterako / ditugu zuen zatarrak"*[1715].

Bertsoek diotenagatik, badirudi gazte batzuk zalantzan daudela Kubako gerrara joan edo ez. Eta Otañok, euskaldunen izen ona mantentzearen helburuarekin, gerrara joaten jarraitu behar dela azpimarratzen du, Espainiak beharra badu, euskaldunek lagundu egin behar dutela adieraziz: *"25/Ikusirikan ama negarrez, / semeai laguntza eske, / geren odola eskeñi gabe / gu nola egon gintezke? / Ez, ori eziñ*

[1712] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 459. or.
[1713] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 460. or.
[1714] Dierria, nazioa eta Estatu-nazioa ez dira gauza bera izango.
[1715] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 461. or.

*gerta liteke, / beldur gabe bageundezke; / beragatikan, anai leialak, / beti saiatu zaitezte, / progatu dediñ bageradela / izena degun hainbeste"*[1716].

Eta soldadu joan direnei esaten die, ahal duten hoberena egin dezatela beren lana, Espainia goratzeko: *"Seme maiteak, joan zeratenak / gerrara Kuba aldera, / proga zazute gure sorterri / au dala lengoa bera; / eta omen au zabaldurikan / laster mundu zabalera, / otoitz ta malkoz apaindurikan / illtzen diranen galera, / aurki atozte zai daukazuten / amatxoren magalera, / goititurikan milla lekutan / bentzutu duben bandera"*[1717].

Eta azkenik, bertso sail honen bukaeran, Espainiaren aldeko apustua berresten du, beren alde dituztelako indarra eta arrazoia: *"Beraz, manbisak*[1718] *–ja,ja,ja!-guri / artu nai digute goia? / Oiek oiñpean sartu nai dute / Españiako leoia? / Mundu guztia begira dago, / eta oraiñ da sasoia / erakusteko aukeratutzen / degula betiko oia, / botatzen utzi baño lenago / geren aurpegira loia, / zergatik gure alde dauzkagun / indarra ta arrazoia"*[1719].

Urtebete beranduago, 1897an, Oiartzungo euskal jaietarako, "Pakea" gaiaren inguruan, "Anaitasuna" izeneko konposizioa prestatu zuen P.M.Otañok –oraindik Donostian biziko da artean-. Lehen Kubako gerra zela eta gerrarako deia egin bazuen eta honen aldekoa bazen, orain emango digun mezua, kontrakoa izango da. Ez da Espainiaren kontra jarriko, baina lehen gerraren alde agertzeko arrazoietako bat Espainiarekiko leialtasuna bazen, zer pentsatu behar dugu, orain leialtasun hori ez zela beharrezkoa, indarra galdu zuela? Zergatik?

Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea bakearen edo gerraren alde egite horretan Pedro Mari Otañok agintariei ezartzen dien ardura. Indigenak "gizaki naturalak" badira eta heziak izan ez badira, ez dute ardurarik, eta "gu", berriz, zuzentasunean haziak izan gara. Nola gerra ulertu orduan?

> *"[…] ezaguerarik gabeak zenbat / gaitz gutxiago dituzten, / saiatu arren beste iñoren / zaiñ eta ezurrak austen. / Nor arrituko da itxua ez / ibilliagatik zuzen? / Bañan gu oitu baldin bagera / txikitandikan ikusten, / zuzenbidea jarraitutzeko / argidotu baginduzten, / argaltasun ta zitalkeriak / zertan ez ditugu uzten? / Ondamutasun ta*

[1716] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 462. or.
[1717] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 462. or.
[1718] Manbisak Kubako independentziaren alde borrokatu zuten gerrillariei ematen zitzaien izena zen. Joango zitzaion aurrerago Pedro Mari Otañori barre egiteko gogoa.
[1719] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 463. or.

*griña txarrai / zergatik diegu eusten? / Gerra kontua beste gauzarik / iya ez degu entzuten... / Agintariak begira gero / zer lan egiten dezuten!"*[1720].

Agintariei herri xehea manipulatu izana egozten die Pedro Mari Otañok. Zein ote da bertsoak jartzerakoan bere helburua?

*"Kristau jatorrak izanagatik / asko daude gelditurik, / beren bizitza ta izaerak / orretara bearturik, / irakurritzen ez dakitenak / ta ez aditzen oiturik / gizon argidotarren artean / maiz izaten dan konturik. / Orregatikan ikusten dira / askotan txit beroturik, / ezer balio ez duten gauzak / oso aunditzat arturik, / edo aundiak ezerezera / beren ustez biurturik; / erabaki nai eta iñola / itzikan eziñ neurturik, / beren antzeko aditzallea / bullaka iya gorturik; / ta berak duten trakeskeriaz / azkenian asperturik, / altxatzen dira eserlekutik / atzaparrak goititurik, / ta asten dira elkar zanpatzen / ukabill tzarrak loturik. / Ustez jakite zerbait duena, / oieri begiraturik, / egiten duten baldarkeriaz / gelditzen da arriturik, / esanaz: <Nola ezagutzen dan / daudela atzeraturik!>. / Bai, egiya da, ori geienak / daukagu ezaguturik, / bañan au errez eraman leike / ez balitz okerragorik; / aiengatikan gutxitan oi da / familietan lutorik; / gizon aundien iñozokeriz / gaude onetaraturik. / Nola nai dute ez izatea / berentzako errenkurik?"*[1721].

Kristau legearen kontrakoa da gerra egitea eta, hala ere, handikiek, ez diote lege honi kasurik egiten. Gerraren ardura, beraz, handikiena da herri xehearena baino gehiago:

*"<Pax in terra hominibus bonae / voluntatis> len esanik; / <ez degiozu besteri egiñ / zeretzat nai ez dezunik; / gizon guztiak anai zerate; / jakiñ zazute azkenik / ez dala iñor Jainkoarentzat / aztuta gelditzen danik>[...] Zertako dira erakusleak, / zertan egiñ ortan lanik / araudeari ez ematekotz / jakintsuak aitormenik? / Aundi gaiztuak diran tokian / ez eskatu txiki onik!"*[1722].

Eta oraindik eta argiago hitz egiten du Pedro Mari Otañok:

*"Leundu gabe oraindik dauden / gizon illun ta zakarrak, / bizi diranak atzeratuak / diralako basatarrak, / ikusten dira beren artean / luzaturik atzaparrak, / lagundutzen ez diotelako / izketan mingaiñ baldarrak, / eta trakestu dituelako / arduak edo pattarrak. / Bañan orien egiñpideak / izanagatikan txarrak, / bestek gutxitan nozitzen ditu, / baizikan beren bizkarrak. / Aserretzera iritxitzean / gizon aundi ta azkarrak, / utsa litzake ortaratuko / balira berak bakarrak; / ordea oiek jotzen dituzte / gerra-soñuko adarrak, / deituaz gazte sasoi dutenai, / utzirik ume ta zarrak, / ta emakume indar gabeak / kendurik beren senarrak; / kupitu gabe ama*

[1720] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit, 479. or.
[1721] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 479.-480. or.
[1722] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 480.-481. or.

*gaisoen / zispuru eta negarrak, / ta gizonari deitzen dioten / emazteen deadarrak... [...]"*[1723].

Konposizioak aurrera egin ahala, soldadu joandakoen etxeetan geratzen den egoera deskribatu ondoren, deia egiten die handikiei berriro: *"[..] Begirozute albait kupidaz, / o gizon argidotarrak!"*[1724].

Espainiarekiko zalantzak agertzen hasiko zaizkigu beraz konposizio honetan[1725]. Trantsizioa, aldaketa, agertuko digu gai hauetan ere Pedro Mari Otañok. Edo Espainiarekiko konfidantza galtzeak behartuko du agian Pedro Mari Otaño trantsizioa egitera, nazio batekiko leialtasuna galtzeak beste batekiko leialtasuna bilatzera eramango du. Kasu honetan, Kubako gerraren ondorioek eragindako zalantzak izango dira agertuko dituenak, amatzat, Espainia hartuz:

*"Esaten da, ai! bearrezkoa / dala iñoiz gerratea! / Zeñek naiko du bere amari / iñork miñik ematea? / Ez da orduan arrazoizkoa / beraren alde joatea, / baldiñ oskaitu al baliteke / egiñ dioten kaltea? / Bai, au da seme leial guztiak / daukagun borondatea. / Bañan zertako da ipiñtzea / lurra odolez betea / isurtzen dana geiena bada / gaitzik gabeko maitea? / Ez da obea beste dierri / batek artzea partea, / ta egiazko juez egiñik / kulpaduna bereiztea? / Merezi badu, kendu bizia / edo erantsi katea; / gaizkirik egiñ ez duenari / obea da esatea: / <Zurekiñ ez det zer ikusirik / ta etxera joan zaitea>. / Ama leialak beti naiko du / seme onak izatea, / txarkeri gabe al baldin bada / arrazoi eramatea, / zergatik gerrik onena baño / beti obe da pakea"*[1726].

Otañok, bakearen alde egingo du garbi. Jainkoari laguntza eskatuz, otoitzarekin bukatuko du konposizioa: *"Otoitz egiñaz bukatutzen det / Jainkoaren izenean, / dollortasun ta gaitzak kendurik / pakezko osasunean / Berak ipiñi gaitzala, arren, / denok anaitasunean"*[1727].

1900. urtean, hirugarren eta azkenekoz Argentinan dela, "Artzai-mutilla" opera argitaratu zuen Pedro Mari Otañok[1728]. Pertsonaia desberdinak agertuko dira

[1723] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 481.-482. or.
[1724] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 482. or.
[1725] Sabino Aranaren eragina kontuan izan behar genuke: 1892an egin zuen Larrazabalgo diskurtsoa, eta 1895ean sortu zuen EAJ. Estatuaren legitimitatea zalantzan jartzeak, areagotu egingo du identitate krisia.
[1726] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 483. or.
[1727] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 484.-485. or.
[1728] Aurreko 3.2.7.1. puntuan jaso ditugu foruen alde opera honetan Pedro Mari Otañok osatu zituen hainbat bertso, bai eta ondorengo urteetan gai honetaz osatu zituen beste batzuk ere. Pedro Mari Otañok foruei deia egiten dienean bi eratara egiten duela ikusi behar dugu garbi: gaztetan, foruak eta errepublika bateginik ikusten dituen bezala, bere azken urteetan, foruen aldeko erreibindikazioa egingo du baina kasu honetan Sabino Aranaren eraginpean, foruak independentziaren seinale eta berme gisa ikusirik.

bertan. Hauetako bat, Patxiko dugu, artzain-mutila dena, gizonezko protagonista. Patxikok, diskurtso politikoa egiten du: protesta egiten du Madrilgo gobernuaren eskuhartzeagatik. Hauei adierazi nahi die euskaldunak lagun dituztela eta horregatik, edo lagun izaten jarraitzeko, errespetatu egin behar dituztela:

> *"Nola erlaundi tzarra sartzen dan / erladi txintxo batean, / ta loikeria alkar garbiro / maite dutenen artean, / ero kukua txantxangorriak / beretzat daukan kabian, / ala sartzen da Gobiernoa / gure sort-erri garbian, / begiramenik batere gabe / gure sentimentuari, / eskubidea ta arrazoia / kenduaz mendekoari. / Baña egunen bat etorri leike, / nola len sarrazintarrak, / Iberiaren jabe egingo / dirana atzerritarrak. / Orduan ondo ikusiko da / nor geraden euskaldunak, / ta gaztelauak jakingo dute / zein diran beren lagunak. / Gure aitonen gisara joango / giñake laister aruntza, / adiskideai eramatera / premia duten laguntza, / golde ta aitzur, eskuare ta / laiak utzirikan bertan, / arerioa purrakatzera / Gaztelako ibarretan. / Eta ausardi altsuenakiñ, / Ondarrabi baten gisan, / mintza gintezke, ta ez liteke / zeñek ukaturik izan; / Guadalete bat gertatu arren / nork begiratzen ez diyo, / nola oraindik tente dagoan / Lekobideren Erniyo?"*[1729].

1900. urte horretan bertan Pedro Maria Otañok osatutako "Nire kabiya" bertso saila aurki dezakegu, baztandar bati eskainia da eta honen ahoz hitz egiten du. Bigarren bertsoan honela dio: *"Euskal-erri guztiya / maite det benetan, / nere anaiak daude / probintzi denetan. / Bañan Naparroako / mendi alaietan, / an jaio nintzan eta / ill nai det an bertan"*[1730]. Euskal Herriarekiko maitasuna da hemen azaltzen duena eta Nafarroarekiko aipamena ere egiten du bertan.

Urte berean, 1900.ean, "Zazpiak bat" bertso saila idatzi zuen Otañok. Batez ere, Bidasoaz alde bateko eta beste aldekoen arteko batasuna da azpimarratzen duena. "Familia" bakarreko dira. Euskara da giltzarri edo lokarri. Ameriketan dauden euskaldunak ere, bera tarteko, aintzakotzat hartzen ditu Otañok. Kontuan izan behar dugu, hala ere, "Zazpiak bat" erakunde bat ere bazela, Errosario-Santa Feko euskaldunen biltokia:

> *"Zazpi aizparen gai dan oiala / ebakirikan erditik, / alde batera iru soñeko, / utzirikan lau bestetik; / goraiziakin berezi arren / bakoitza bere aldetik, / ezagutzen da jantzi dirala / zazpiak oial batetik.*
>
> *Oialtzat artu zagun euskera, / goraizitzat Bidasoa, / ibai koxkor bat besterik ez da, / utsa balitz itsasoa; / elkarren urbill daude zazpiak, / muga deitzen da Pausoa, / zergatik izan bear ez degu / famili bakar osoa?*

[1729] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 217.-218. or.
[1730] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 32. or.

*Arbola baten zañetatikan / sortzen diran landariak / bezela gera Bidasoaren / bi aldetako jendiak; / berdiñak dira gure jatorri, / oiturak eta legiak, / Ama Euskerak magal berian / azitako senidiak.*

*Ama Euskera! Bere semeak / gu Ameriketan zenbat / arkitzen geran! Ta urrutitik / maitiago degu anbat; / emen ez dago Bidasoarik / ta beste trabik an ainbat, / Ama maitia indartu dedin / bizi bedi <Zazpiak Bat>"*[1731].

1900 urte ingurua, hauxe izango da giltzarri P.M. Otañoren bertsogintzan: hemendik aurrera Euskal Herriari abestuko dio bereziki.

1902an, Pedro Mari Otañok "Noizbait" bertso saila osatu zuen. Lagun batek bertsoak jarri zizkien otañotarrei: Jeronimo Elizegik bertsoak argitaratu zituen 1902ko urriaren 31n *Correo de Guipúzcoan*. Gero, Otañok erantzuna eman zion bertso hauekin. "Euskal jardinaz" hitz egiten digu hemen, eta honekiko hainbat euskaldunek duten ahanztura agertuko du Pedro Mari Otañok:

*"Gure euskal jardiña / arantzaz josirik, / arritzeko da nola / dagon bizirik; / orrenbeste penatzen / Ama ikusirik, / bere semiak eziñ / geundezke geldirik; / guk zabar utzirik, / ez ark merezirik, / daukagu jatxirik / ta eziñ altxarik, / zergatik batzubek ez / duten lotsarik.*

*Kizkurturik jarritzen / zaizkit atzaparrak, / gogoraturik Amak / dauzkan negarrak; / ez eskeñitzekotan / ditugun indarrak, / zertarako gerade / aiñ seme zabarrak? / Ondu bitez txarrak / ta gizondu aurrak, / leial ta azkarrak, / puskatu amarrak… / Ez gera esker gabiak / Otañotarrak"*[1732].

1903an berriz, "Urte berri" bertso sailean, esplizituki agertuko da dagoeneko euskaldunen alde. Euskaldunak minoria edo gutxiengo direneko sentipena azalduko du Pedro Mari Otañok: ahultasun honen esperientziak euskal identitatearen defentsa egitera bideratuko du Otaño. Gutxiengo bai, baina aldi berean, indartsuak edo kontuan hartzeko modukoak. Gutxiengo izaeraren aurrean, batasunaren beharra azpimarratuko du. Agian nazioartekotzea eta gutxiengo sentipena izatea batera datoz?

*"[…] Atzaparrak dabiltza / biyurturik kako, / bestientzat bezela / Euskal-errirako… / Ez degu arrazoyik / gutxi geralako.*

[1731] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 56.-57. or.
[1732] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 76. or.

> *Gutxi! Jú, jú!... Eztakit… / Ala ote gera, / begiratubagatik / askok goitik beera? / Gu ez guaz beñere / besteren kaltera, / ta zeñek daki nola / gintezken atera, / bilduko bagiñake / zazpiyak batera?"*[1733].

1903ko bertso batzuetan "tirriaz" hitz egingo digu, kasu honetan, euskara-gaztelania, euskaldun-espainiarren arteko harremana gogoan hartuz, Unamunoz ari dela. Euskaldunak biktima bezala ageri dira orain.

> *"Gerentzako degula / naitasun urriya, / ta bestienganako / guztizko tirriya. / Beraz orren zitala / da Euskal-erriya? / Ain txartzat al daukazu / zere jatorriya?*
>
> *Ezagun da erritik / urruti zaudena… / Ez da gaitza euskaldunak / eskatzen dutena, / baizik izan dedilla / ongi mundu dena / ta utzi deigutela / ostu zigutena.*
>
> *Gutxik letzen dubela / euskeraz, ta argatik / izkribatutzen dezu / erderaz gogotik, / guk ez ta zuk badezun / maitasunagatik, / edo kalte geiago / egitiagatik?*
>
> *Jakiñik orkuak zer / tirri dabilkiten, / beñere ez dutelako / egirik jakiten, / etziñan nekatuko / lan oiek egiten, / ez baziña gaurdaño / Bilbaotik irten"*[1734].

1904an, "Zutik" hitzaldia egin zuen Argentinan, euskal etxe baten irekiera ekitaldian. Hasieratik sentimentu berri batzuk ekarri zituen argitara. Azpimarratu beharrekoa da Euskal Herriaren eskubideez hitz egingo digula eta ekintzarako pausoa ematea dela orain Pedro Mari Otañok proposatutakoa. Argentinako askatasuna eta Euskal Herriko askatasun eza konparatuz hasiko du hitzaldia:

> *"[…] todo este hermoso conjunto, señores, es la expresión palmaria y genuina de los sentimientos profundos que hierven ya en los pechos euskaldunes.*
>
> *Es la expresión viril de la perenne protesta contra los usurpadores de nuestros indiscutibles derechos, protesta simbolizada en la muy elocuente aunque muda alegoría que preside a este gran edificio, honra de la colectividad baskongada y digno corolario de los laudables esfuerzos de la Sociedad "Laurak-Bat", cuyo origen fue la misma repetida protesta.*
>
> *[…] En la República Argentina, nuestra segunda patria; en este país democrático, patria legítima de nuestros hijos, donde todo lo noble tiene libérrimo curso, nos es dado expandirnos en la forma que lo estamos haciendo en estos momentos.*
>
> *Nuestros hermanos de allende el Atlántico, cuyos inflamados pechos devoran las torturas de Tántalo: pobres hermanos a quienes está vedado escribir verdades, como el proferir razones en pro de su santa causa; aquellos seres queridos dignos de respirar aires más puros, vuelven con angustia sus expresivos ojos hacia nosotros,*

[1733] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 85. or.
[1734] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 108.-109. or.

> *libres porque residimos en país libre, como en suprema demanda de un soplo vivificador, de un arranque que a todos nos dignifique.*
>
> *Y no se verán defraudados en su fe, no, por cierto, porque el espacio de tiempo y la distancia que nos separa centuplica nuestros amores* »[1735].

Eta pixka bat aurreraxeago, euskaldunak erasotuak sentitzen direla esango du, diskurtso foral sabinotarra jasoz:

> *"A los que nos atacan por su ignorancia no podemos odiarlos, porque no saben lo que hacen: pero sí repelerlos, siempre que persistan en su malhadado empeño. Ilustrémoslos en el conocimiento de nuestra causa, hablando y escribiéndoles en su propia lengua.*
>
> *A los que conociéndonos nos atribuyan sentimientos egoístas, les diremos que basta ya de hipocresía, que el lema bascongado ha sido y es siempre el sublime "eman ta zabal zazu munduban frutuba" (da y esparce tus frutos por el mundo), cantado por el inmortal Iparraguirre, puesto que en la nunca domeñada Euskaria no se ha conocido jamás la esclavitud; puesto que en la autóctona Euskal-erria los propios y los extraños han gozado siempre de la más amplia libertad, dentro de la moral, y que una raza que en ninguna época consintió tener cautivos por serle repulsiva toda bajeza, no puede ser sometida a que torpes genízaros la encadenen, sin más razón que la fuerza bruta.*
>
> *Aquellos mal aconsejados señorones que hace veintiocho años pisotearen nuestros sacrosantos derechos, cercenados ya desde el año 39 del fenecido siglo, en cuya época se cimentó la consabida injusticia; aquellos… hombres fueron incapaces de conocer ni de apreciar la fibra euskalduna, puesto que con maquiavélica sonrisa predecían que la entonces futura generación bascongada, que es la juventud actual, una vez saturada del nuevo ambiente, jamás se acordaría de nuestros Fueros, y que, si alguna vez lo hiciera, sería para mofarse de ellos como de cosa anticuada y ridícula»*[1736].

Hitzaldi honetan bertan, euskaldunak gutxiengo diren ideia ere jasoko du: *"Esaten da gutxi gerala euskaldunak; beragatik izan biar degu elkar maitego. / Urre gutxik geiago baliyo du, arri koskor eta zaburreri askok baño"*[1737].

Hitzaldiaren puntu honetatik aurrera, Euskal Herriak zutitu egin behar duela esango digu eta herriaren eskubideez hitz egingo du Otañok:

> *"Bai; iritxi da orduba zutitzeko, obeto ezagutu gaitzan mundubak.*
>
> *Guk geren eskubidean dauzkagun gauzak zergatik eskatu besteri?*

---

[1735] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 128.-129. or.
[1736] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 130.-131. or.
[1737] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 132. or.

*Zergatik izan onen umillak, ume-illlak bagiñake bezela?*

*Ez degu ikusten, zenbat eta geiago makurtzen geran, orduban eta karga geiago botatzen digutela bizkarrera?*

*Zer esango luteke denbora bateko Lekobide, Lartaun eta beste, munduba arritu izandu zuten gure aurreko gizon biyotztsu aiek, ikusirik gure zabartasuna?*

*Jaunak, asko da nagitasunez; asko da makurtzez; aspertu gera eskatzez zor zaiguna. Artu dezagun gerok, berdin guria da ta.*

*Gabiltzan zutik, burubak goititubaz, arrokeri gabe, baña gogor, arrazoia banderatzat degula, euskaldunai eta <Lauburu>-ri dagokiyen bezela.*

*Izan gaitezen seme zuzenak, nai baditugu izan ondorengo leialak.*

*Eta ala, lendabiziko gizonak euskaldunak izandu ziran bezela, euskeraz itzegingo da mundubaren bukaeran.*

*Begira zaiozute, / ara or euskera, / non datorren semeai / loturak kentzera. / O, Amatxo! Zu beti / gure Ama zera! / Odolik degun arte / guazen laguntzera»*[1738].

"Laurak bat" bertso sailean, berriz, Argentinako Buenos Airesko euskal etxeaz ari da. Euskal Herria menperatua dago eta askatu egin behar da. Honen alde bizitza emateko prest agertuko da Pedro Mari Otaño:

*"Euskal-erriyak, etsai / asko garaiturik, / beiñere katibatu / ez du mendekorik; / ta besteak indarra / legetzat arturik, / eduki nai gaituzte / ankaperaturik.*

*Gure etsai zitala / arrazoiz balebill, / gu egongo giñake / ixil eta umill; / bañan altxako gera, / txarkeriz baitabill; / katibu bizi baño / naiago degu ill»*[1739].

1905eko bertso batzuetan, "Iritzi bat" izenburupean, Pedro Mari Otañok dio Euskarak ez duela negar egin behar, Gaztelania bestela barrez hasten dela eta bera ere damutua dagoela lehen negartia izateaz. Paulo Zamarripak aurretik jarri zituen bertso batzuei erantzunez eginiko bertsoak dira hauek:

*"Zure bertsuak edo biurtsak / niganatu dira, Paulo, / eskerrik asko, lagun maitia, / pozez jotzen dizut txalo; / bañan zertako guk malkoz bete / orrenbeste begi-txulo? / Aurrentzat utzi bear ditugu / negarrak, titiya ta lo.*

*[…]*

[1738] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 133.-134. or.
[1739] ZAVALA, A. (eg. eta biltz).: *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 139. or.

> *Seme prestuba, limurtzen zera / Ama ikusirik negarrez, / eta biyotza lertutzen zaizu / miñ garratzaren indarrez; / begira zazu beste aldera, / an dago ugazama parrez… / Ta joango dira zure malkuak / aserrearen asarrez.*
>
> *Gure negarrak kendutzen dizka / bere indarrak Amari, / eta zer poza ematen zaion / ugazama zatarrari! / Utzi ditzagun malkuak eta / jarrai zaiogun lanari, / negarti izana damutan dago / zure lagun Pello Mari"*[1740].

1906an, berriz, Pedro Mari Otañok bertso saila jarri zuen Sabino Aranaren omenez: Sabino Arana hil zela hirugarren urteurrenean egindako bertsoak dira hauek. Izenburu argia zuten: "Arana eta Goiri'tar Sabin zanari bere eriotzaren irugarren urte-mugan"[1741]. Zer da Pedro Mari Otañok Sabino Aranari buruz azpimarratzen duena?

Sabino Arana noiz eta non jaio zen esaten digu: *"Illbeltzak hogei ta sei zituben, / neguba bete-betian, / milla zortzireun irurogei ta / bostgarrena zan urtian, / Abando deitzen dan Bizkaiako / erri pozgarri batian, / seme maite bat munduratu zan / jende prestuben artian"*[1742]. Zein izen jarri zioten ere bai: *"Arana eta Goiri'tar Sabin / izendatu zuten bera,"*[1743]. Bere heriotzaren hirugarren urteurrenaz ari delarik, bertso sailaren azken aurreko bertsoan ere hau nola gertatu zen jasotzen du.

Azpimarratzen den alderdietako bat euskaldunen eta euskararen alde bere bizia nola eman zuen da, behin baino gehiagotan, Jesu Kristorekin parekatuz: *"ainbesteraño maite zituben / euskaldunak eta euskera, / bere biziya emateraño / Jesukristoren antzera!"*[1744]; edota aurreraxeago, *"guregatikan igaro zuben / bizitza latz ta gogorra, / nola ordaindu euskaldun danok / berari diyogun zorra?"*[1745]; *"Jesusen gisan edan zituben / ozpiña ta beazuna, / gaur ez dakit non egongo giñan / eduki balu osasuna"*[1746]; *"bañan bideko arantz ta larrak / artu gabe aintzakotzat, / aurrera joan zan. […]"*[1747]. Familiaz zegokion bizimoduari ere uko egin zion euskaldunen eta euskararen alde egiteagatik*: "Aberatsa zan, bizi zeikian / lasai losintxak entzunik, / ez balu izan gureganako / ainbesteko naitasunik; / galdu zituben ondasun asko / eta biziya azkenik; / […]"*[1748].

---

[1740] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 155.-156. or.
[1741] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183.-184. or.
[1742] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183. or.
[1743] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183. or.
[1744] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183. or
[1745] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183 .or.
[1746] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1747] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1748] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.

Nola deskribatzen du Pedro Mari Otañok Sabino Arana? Hona: *"Leñargitia, ziaditsua, / leial da kupidakorra, / biotzberaa zan ezin geiago / eta jainkoti jatorra;"*[1749]; *"Goitanditasun neurrigabia / nola zeukan gu denontzat, / ezagutzeko diñ etziranak / iduki zuten erotzat;"*[1750].

Zein ekarpen egin zion Sabino Aranak Euskal Herriari? *"Bera izan zan, Sabin aundiya, / ondokidatu ziguna, / gaur euskaldunok ainbeste maite / degun dierritasuna;"*[1751].

Sabino Aranak egindako gidaritza lana faltan botatzen du orain Pedro Mari Otañok: *"[…] Ai, gaur bagendu / beste alako gizon bat!"*[1752].

Horiengatik guztiengatik euskaldunek esker ona zor diote Sabino Aranari: *"esker gabiak ez du merezi / euskaldunaren izenik!"*[1753]. Eta harek hasitako lanari jarraitzea: *"Jaungoikua ta Lagi zarra zan / bere azalkai jakiña, / eta gazterik ill zuten penak, / o, euskaldunak, zer miña! / Jaso dezagun bere bandera, / egiñ zagun alegiña, / ez dakitenai erakutsiyaz / maisu zanaren dotriña"*[1754]. Bertso sailaren azken puntuan ere, "dotriña" hitza erabiliz, kristautasunarekin egiten duen konparaketa nabarmena da; batak bestea ordezkatu dezakeela dirudi.

Urtebete beranduago, 1907ko "Lora" operan, Nafarroaren gaia landuko du Pedro Mari Otañok. Pertsonaia nagusiak nafarrak egingo ditu, baztandarrak, zehazkiago: *"Baztandarrak badira / ez da zer esanik, / ez baita bat atzera / geldituko danik; / naiz festan, berdin gerran, / noranaira joanik, / eriotzari ere / beldur gabetanik"*[1755].

Protagonistak nafarrak eginez, erraza izango zaio hauen ahotan Nafarroaren goratzarrea egitea:

> *"Kantatu itzatzute, / napar menditarrak, / sorterri ederraren / glori antziñarrak, / ondo irabaziyak / len guraso zarrak, / biotz eta burudun / euskaldun azkarrak.*
>
> *Bizi bedi Naparra / doatsu ta pakez, / bere fueruakin da / bere borondatez; / norbait miñdutzen bada / gure libertadez, / berendu dezatela, / guk bezela, legez, / ta ez guri kendu ta / berentzat ezerez"*[1756].

---

[1749] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183. or.
[1750] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1751] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1752] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1753] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1754] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[1755] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 277. or.
[1756] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 278. or.

Nafarroa du kantagai, baina mendialdea batez ere[1757]. Jatorriari lotutako gune gisa aurkezten digu hau Pedro Maria Otañok. Nafarroaren foruak eta hauen legeztapena eta askatasuna azpimarratzen ditu Otañok.

Opera honetan bertan kontzertu ekonomikoa ere hartuko du hizpide Otañok. Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako Diputatu Nagusiak agertzen dira opera honetako momentu batean, eta lehendakariak, "dianagusia" deitzen dio Otañok, hitz egiten aritu direlako berri ematen du. Kontzertu ekonomikoa euren alde lortu dute madrildarren aurrean: *"Dianagusiak: / Arazo eta neke askoren / ondorenean, Madrillen, / jakin zazute euskalzaleak / nola irten diran gallen"*. Eta aurreraxeago: *"Araba ta Bizkaia / eta Gipuzkuak, / beren esku dauzkate / zor eta artzekuak"*[1758].

"Dianagusia", ordea, jakitun da hori baino gehiago dela foruek zekartena: *"Bañan au da Fueroen / zati bat bakarra, / eta guk osorik nai / degu Lege Zarra"*[1759]. Honen aurrean, "Diak"[1760], honela galdetuko du: *"Orduban zertarako / zatiya baimendu, / guri askoz geiago / baziguten kendu?"*[1761]. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu Dianagusiak "Dia" horri eskatzen diona: parte har dezala aktiboki politikan eta eutsi diezaiotela Madrilekin dagoen tentsio politikoari. Hona: *"Beti txartzat artzeko, / bear dan bezela, / Gobernu zital baten / ausardi ergela, / esanaz euskaldunok / zuzen gatozela, / lengo gure oiturak / biur ditezela, / ez degula izango / pakerik bestela"*[1762].

Dianagusi edo lehendakariak lauburuari eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiari erreferentzia eginik, Gaintzak, Nafarroagatik egingo dio galdera:

> *"Dianagusiak: / Gipuzkoan, Araban / ta Bizkaian sarri / laubur goititurik / bear degu jarri.*
>
> *Gaintza (erdira irtenik): / Ta napar senideaz / antzi al ziñaten?*

[1757] Campionek "Vascos en tono mayor" esaten zien hauei, mendialdekoei, eta Erriberakoei, "vascos en tono menor", *Contrastes* bere lanean. CAMPION, Arturo: *Contrastes (Cuadro de costumbres).* Pamplona: Euskal-Erriaren alde, 1882. Edizio digitala. Bvpb.mcu.es

[1758] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 296. or.

[1759] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 296. or.

[1760] Zavalak berak esango digu "Diak" honek ez dakiela zer esan nahi duen: *"Baiña Otañoren eskuidatzian orrela dago. Gure iritzirako, Denak, Dianak edo olako zerbait bearko luke"*. In: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 296. or.

[1761] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 297. or.

[1762] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 297 or.

*Taldeak: / Eziñ aztu gintezke / Naparroaz emen; / guk ez degu okerrik / zuekiñ izaten, / oitarauko*[1763] *anaiak / nola baitzeraten"*[1764].

Jarraian, Aldunek, Nafarroaren deskribapen eta goratzarrea egingo du:

*"Aldun: / Oitaraukoa da Naparroa / lenbizikoak diran añean / bere semeai esanaz beti / onela bere alegiñean: / <Jaio zerate Euskal-erriko / egal berezi ta bikañean, / Jaungoikoa ta Lege Zarrari / eusteko gauza danen gañean>*

*Ebrotik aruntz bizi diraden / anai biurri batzuek baldiñ / gaizki jarri nai baginduzkete / gure odola daukatenakiñ, / erantzun bedi garbi ta leial: / <Naparrak ori ez du nai egiñ, / baizikan gogor joango gerade / noranai gure senideakiñ, / Euskal-erria bein ankapetik / irten da zutik agertu dediñ>.*

*Araba, Bizkaia, Gipuzkoa / eta Naparra leial daude or, / lau senideak besarkaturik / iñori ezer ez diote zor; / beren araude oiturazkoa / nai dute onez baldin baletor. / Bañan diote: <Betoz Fueroak, / gure Lege Zar maitia betor>*[1765].

Taldearen ahotan, honako bertsoa jarriko du ondoren Pedro Maria Otañok:

*"Bizi bitez naparrak, / gure senideak, / besarkatu gaitezen / Aitorren semeak; / betoz lengo Fueroak / edo araudeak, / gure guraso zarren / betiko Legeak.*

*Estalitako izar / ederren bir-bira, / odei beltzak urratu / eta ozgarbira / laster agertuko da / zeruben erdira, / mendi eta zelaiak / irtenik argira; / eta mirarizturik / gauz oiei begira, / denak esango dute / <Fuerotarrak dira>"*[1766].

Makil-dantza eta ezpata-dantzaren ondoren, honela kantatuko dute: *"Gora ekautak! Fuero / santubak aurrera! / Beti bizi dedilla / gurekiñ euskera, / Aitor eta Lartaunen / izkuntza ber-bera!"*[1767].

P. M. Otañoren bertsoak bere bilakaera politikoaren erakusle ditugu: horregatik jarraitu eta markatu dugu urteen joana.

### 3.2.7.3. Aukera politikoen zehaztapen eta zabalpena: Errepublikak dakartzan onurak Joxe Mari Lopetegiren begi-ahotsean

Atal honen helburua ez da II. Errepublikaren azterketan sakontzea, ez behintzat II. Errepublika garaian izan ziren urtez urteko gertakizunak jaso eta komentatzea. Gogora dezagun, gizarte egituraketaz eta politikaz ari garen hirugarren atal

[1763] Oitarauko: ohiko arauak, foruak, aita Zavalak argitzen digunez.
[1764] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 297.-298. or.
[1765] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 298. or.
[1766] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 299. or.
[1767] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 300. or.

honetan giza harreman zehatzetan antolatutako komunitateetatik harreman politiko abstraktuagoetan antolatzera pasatzen ari diren giza elkarteez ari garela hizketan eta zehatzago, 3.2.7. puntu honetan, "Gobernatu beharreko komunitatea handitzen denean" azpipuntuan kokatzen garela. Gogora dezagun, gure ustez, politika alorrean aldaketa edo trantsizioa eragin zuen indarretako bat nagusiki etxeetan eta udalerrietan antolatutako komunitatea probintzi, probintziarte edota nazio mailan kudeatu eta autoirudikatzera eraman zuena dela. Autoirudikatze[1768] hauek, nolabait esateko, aukera politiko zehatz batzuetan gorpuztu ziren. Foruzaletasunaz eta nazionalismoaz hitz egin dugu arestian. Orain errepublikanismoaz hitz egingo dugu. Salto kronologikoa badago Joxe Mari Lopetegi, Txirrita, Pedro Mari Otaño eta zer esanik ez, Xenpelarren artean. Eta salto kronologikoaz gainera, politikaren alorrari gagozkionez, darabiltzaten kontzeptu eta ideia nagusietan aldaketa handia da. Dakusagun. Errepublikanismoaz landuko duguna edo aztertuko duguna, nagusiki, herri xehearekiko zein eratako hurbilpen estrategia erabili zituzten izango da: beren burua nola aurkeztu zuten herri xehearen aurrean, nola azpimarratu zuten eurekiko hurbiltasuna, eta zein ekarpen egin zezaketen[1769].

Gai honetarako erabiliko dugun iturri nagusia Joxe Mari Lopetegiren bertsoak izango dira: Lopetegik zer azpimarratzen ote du Errepublikatik, edo nola azaldu eta esplikatzen ote du Errepublikak dakarrena? Egia da orain artean egin dugun azterketan, gutxi aipatu dugula Joxe Mari Lopetegi[1770]. Atal honetan, berriz, iturri ia bakar izango dugu.

Joxe Mari Lopetegiren eskutik aukera errepublikanoaz hizketan arituko garen atal honetan sakontzen hasi aurretik, bi ohar gehiago egin behar ditugu. Batetik, Joxe Mari Lopetegiz eta bere bertso produkzioaz aritu garenean esandakoa gogoratu nahi dugu: 1931. urtean 21 bertso sail argitaratu ostean, 1932. urtean sei eta 1933. urtean bertso sail bakarra argitaratuko du Lopetegik. 1936. urtera arte ez du beste bertso sailik argitaratuko –orduan hiru argitaratuko ditu- , 1937an 19 eta 1940an, 4.

---

[1768] CASTELLS ARTECHE, L; CAJAL VALERO, A.; MOLINA APARICIO, F. (Ed): *El País Vasco y España: identidades, nacionalismos y estado (siglos XIX y XX).* Bilbao: EHU/UPV, 2007.

[1769] Errepublikanismoaz berriki argitaratu da BELAUSTEGI, U: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1863-1923).* Bilbao: EHU, 2015. Eta Bilbaori buruz, PENCHE, J.: *Republicanos en Bilbao (1868-1937).* Bilbao: EHU/UPV, 2010.

[1770] Egia da ekonomia, demografia edota gizarteaz ari diren atalak idazten ari ginela, Joxe Mari Lopetegi alde batera uztea ez ote zitzaigun komeni pentsatzen aritu ginela, izan ere, gutxi zen gai haietaz esaten ziguna. Hala ere, orain eskuartean dugun atalean, politikari lotuago den atalean ematen zigun jokua zela eta, gure azterketarako iturri gisa mantentzea erabaki genuen. Halaber, Joxe Mari Lopetegiren antzera pentsatzen zuen gizartearen zati bati tokia egiten geniolako horrela gure azterketan.

Beraz, argi ikus dezakegun bezala, 1931. urtea eta 1937. urtea dira kopuruz ugarienak. Zergatik utzi zion 1932 eta, batez ere, 1933tik aurrera bertsoak argitaratzeari? Lehen ikusi dugun bezala Errepublikak euskaldunen batasunari egin ziezaiokeen ekarpena, Lopetegik hainbeste azpimarratzen zuena, zalantzan ikusten ote zuen urte horretatik aurrera?

Bestetik, 1936tik aurrera argitaratu zituen bertsoak ez ditugu gure azterketan kontuan hartu. Izan ere gerra zibilaren gaia gure azterketatik kanpo uztea erabaki dugu, uste baitugu beste garai bati ematen diola hasiera[1771]. Bestetik, gure azterketan erabili ditugun gainerako bertsolariek ez zuten gerrate hau ezagutu eta urrunegi geratuko zitzaigun berriro ere Joxe Mari Lopetegi gainerako bertsolarien kezka iturrietatik.

Joxe Mari Lopetegik "erkala" hitza erabiltzen zuen errepublikaz hitz egiteko: Sabino Aranaren neologismoa zen hau. Herriaren ahala esan nahi omen du[1772]. Hitzjoku polita da guretzat ere: herria subjektu politiko gisa ikusten zuen Joxe Mari Lopetegik, ez zuen zentzu etnikoan ulertzen, eta errepublikanismoa eta errepublika, herriari ekintzarako aukera ematen zion egitura gisa.

Hauek guztiak esan ondoren, dakusagun zer zen Joxe Mari Lopetegik Errepublika zela eta azpimarratzen zuena. Joxe Mari Lopetegiren hitzetan, begibistakoa dena, Errepublikak ekarri duena, errejimen aldaketa izango da: "*Ama maitea ez egin negar / ona emen zure semeak, / sortu lekura ekarri gaitu / gaur degun Libertadeak; / Jarrai dezagun egun beretik / zuzendutzera legeak, / Erkalarekin oinperatuta / daudezela erregeak*"[1773].

Bigarren, Joxe Mari Lopetegiren bertsoetan oinarrituz ikus dezakegunez, errepublikanismoa gidari batzuei esker hedatutako korronte politikoa izan zen. Aztertu ditugun bertsoetatik asko errepublikano zehatz batzuei egindako omenaldietan kantatutako bertsoak dira. Euren denborei "aurreratutako" gizonak izaki, beraien diskurtso eta hitzak erabakigarri agertuko dira errepublikazale berriak "irabazteko". Horri esker ikus dezakegu bidea urratu behar duen, neurri batean berria den korronte politikoa dela hau gipuzkoarren artean.

---

[1771] 1936tik aurrera Gipuzkoan identitate bideei dagokionez bertsolarien ahoz gertatuetakoen ikuspegia jasotzea ez legoke batere gaizki. Hurrengo lan batzuetarako utziko dugu hori. Kasu honetan gainera, ahozko historiarekin eta beste hainbat iturrirekin osatu beharko genuke gure azterketa.

[1772] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 161. or.

[1773] ELOSEGI, J.(eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 162.-163. or.

1911n Joxe Mari Lopetegik Francisco Bellidori jarritako bertsoak ditugu horren adibide[1774]. Zer da pertsona honetaz azpimarratzen duena? *"Zenbateraño nabaitutzen dan / berak utzi zigun utsa, / gazte zalarik eruki zuen / erri artako Maisutza; / ezjakinari erakutsiyaz / ark egiñ zuen laguntza, / ogei ta amaika urtikin il da / gelditu zayon gorputza"*[1775].

Horretaz gainera, pertsona bezala haren zuzentasuna azpimarratuko du Lopetegik, eta honek nola erbestera joanarazi zuen:

> *"Gaztetandikan begitzen ziyon / beti zuzendadiari, / eta nola zan txit jaun pisuba / ark egiten zuen ori; / iskriba batez jartziagatik / gauza zerbait norbaiteri, / bederatzi urteko itzalpia / eman ziyoten berari.*
>
> *Ori aditu zuen denboran / jarri zitzaigun begira, / zer egin biar det nik juaten banaiz / itzalpe orren azpira; / esanaz juan zan jaunak banua / Irun utzirik Frantzira, / Libertadia datorrenian / egingo det berriz jira.*
>
> *Etorri zan bai gizarajua / urte batzuek pasarik, / eraman zuen oyarzun ona / arki zitzayon galdurik; / itxi zituen bere begiyak / Errejidore zalarik / eta lajatu zuen Erriya / bateko penaz beterik"*[1776].

Orain aipatu ditugunak ez ziren izan Joxe Mari Lopetegik Francisco Bellidori jarritako bertso bakarrak. 1911ko abenduaren 30ean *La Nueva Fronteran* ere argitaratu zituen bertsoak Joxe Mari Lopetegik, hurrengo egunean Francisco Bellido hil zela urteurren ospakizuna zela gogoratzeko. Oraingo honetan ere errepublikazaleen fedea eta gidari lanetan ari zirenekiko atxikimendua azpimarratuko ditu Lopetegik: *"Abenduaren ogei ta amaikan / Irungo jende gozuak, / barrunbetikan naigabe aundiz / biyotza gora jasuak; / guazen guztiyok estaziyora / arturik fede osuak, / agertutzera atzerriotik / onuntz datozen maisuak, / artu ditzagun geron artean / zabaldurikan besuak"*[1777]. Eta hurrengo bertsoan: *"Etor zaitezte etorri lasai / alaitzera Irundarrak, / zergatik gauden eziñ kenduaz / etorri diran negarrak; / galdu ditugu Erri guztiya / argitzen zuten izarrak, / izanagatik gizon jakintsu / Erri onuntza biarrak, / juan zaizkigun gure artetik / biyotzeko lagun zarrak"*[1778].

---

[1774] Bertso hauek *La Nueva Frontera* aldizkarian argitaratuak izan ziren 1911ko abenduaren 23an. Joxe Mari Lopetegiri buruz hitz egin dugun atalean esan bezala, guganaino iritsi diren Lopetegiren bertsoak –politika gaiari lotuak gehienak- gehienbat aldizkari errepublikazaleetan argitaratu zituztelako iritsi zaizkigu. Bestelako gaiei buruz ere abestuko zituen bertsoak, baina ez dira inon jaso.

[1775] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 64. or.

[1776] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 64.-65. or.

[1777] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 67. or.

[1778] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 67. or.

1931ko abenduaren 26ko *Irun Republicano*n berriro argitaratu zituen Lopetegik Bellidoren aldeko bertsoak[1779]. Kasu honetan, bere heriotzaren 21. urteurrenean Irungo kale bati bere izena jarri zioteneko omenaldiko bertsoak ziren. Bertso horietan, Gipuzkoaz, Dierri[1780] bezala hitz egingo du Lopetegik: *"Gure maisutzat izan ziñaden / ezjakiñaren gidari, / asnasa emanaz Gipuzkoako / Dierri on guztiyari; / zenbat naigabe bidegabeak / eman zizkizuten zuri, / biar zan bidezko gizontasunak / erakustearren guri, / zuk emandako itz eder aitaz / oroitzen da Joxe Mari"*[1781].

Francisco Bellido ez zen izan, ordea, Errepublikak Gipuzkoan izan zuen bultzatzaile bakarra. 1930eko abuztuaren 30ean, *La Frontera* aldizkarian, Leon Iruretagoienari omenaldi-bertsoak argitaratu zizkion Joxe Mari Lopetegik; izan ere, 1930eko abuztuaren 16an omenaldia egin zioten Irunen. Bertako alkate izana zen hau: 1904-1909 eta 1912-1920 urte bitartetan. 1935ean Madrila bizitzera joan eta erbestean hil zen, 1940an, Mexikon. Omenaldiko data haietan espainiar errepublikar garrantzitsuenak Donostian omen ziren. Horregatik, omenaldira ere joan ziren[1782] eta Joxe Mari Lopetegik aipatu egiten ditu bere bertsoetan. Hona hemen, gidaritzat nola aitortzen duen Joxe Mari Lopetegik Leon Iruretagoiena: *"Oroitu gera anai maiteak / esnatu zaigu Erriya, / agustuaren amaseya zan / egun goguangarriya; / ordaindu biarra nola genduen / On Leon maitagarriya, / zure omenaz egin degu gaur / gizontasun bat aundiya, / urte askuan bizi dedilla / gu guztiyen gidariya"*[1783]. Garrantzitsua *"herria"* kontzeptuari ematen dion esanahia eta protagonismoa: *"esnatu zaigu"*. Lotan al zegoen ala? Kontzientzia hartu duela esan nahi ote du? Honetaz aparte, Lopetegik errepublikar gidarien lana azpimarratuko du beti: ulergarria da hau omenaldien testuinguruan egindako bertsoak direlako, baina aldi berean, errepublikanoen artean, pertsona jakin batzuen garrantzia, "aurreratu" gisa jokatu zutenena, esanguratsua dela uste dugu.

Nola aipatzen ditu Lopetegik omenaldi hartan zeuden errepublikar ospetsuak? Hona: *"Bederatzitan bildurik geunden / gure etxe zabalian, / bakoitza gure eserlekuan / eseri giñan mayian; / On Leon jauna denon buruzai / Leontzi ezker aldian, / Victoria Kent eskubitikan / Republikaren galdian, / Nicetok eta Maurak ziyoten / jarriya degu bidian"*[1784].

---

[1779] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 153.-155. or.
[1780] Sabino Aranak "nazioa" izendatzeko erabiltzen zuen hitza.
[1781] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 154. or.
[1782] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 91. or.
[1783] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 92. or.
[1784] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 92. or.

Azpimarratzeko iruditzen zaigu baita ere errepublikar hauen inguruan zein batasun eta sentimentu ematen diren, politika eta sentimentuen arteko harremana azpimarratuz, gaur egun bai politikagintzan bai politikaren azterketa historikoetan kontuan hartzen den elementua: *"Itz ok entzunda alaitutzen da / erdi makal dabillena, / gorputz guztiya pozaz saltoka / lenago lo zeguena: / Pozaz negarra begiyetatik / masail gañian barrena, / biyotz barrengo anaitasunez / bildurikan alkargana, / merezi du ta eman diyogu / On Leoneri Omena"*[1785].

Leon Iruretagoienak jaso zituen Joxe Mari Lopetegirengandik bertso gehiago. 1932ko irailaren 17an, *Irun Republicanon* argitaratu zen Leon Iruretagoienaren omenez beste bertso sail bat. 1932ko irailaren 14an omenaldia egin zioten Irunen eta Lopetegik bertsoak idatzi zituen ekitaldi horren ondoren. Berriro ere Leonen gidaritza lana eta ezaugarri moralak izango dira azpimarratuak: *"On Leon zuri begira nago / zure bizitza goguan, / republikano egiyazkoa / izan zerade munduan; / Arrazoyari lagundurikan / argidotarren moduan, / zuzendadea eta pakea / daukazkizula kolkuan, / gaur egin zaizun goit altxatzia / ondo merezi zenduan"*[1786]. Leon buruzagi eta maisu gisa izendatuko du Lopetegik. Hona: *"Ordua zan da gaur iritxi da / guztiz egun erosua, / bear mallera igo dediyen / gu guztiyon gurasua; / Republikaren alde gau ta egun / zure bizitza osua, / zu zeralako dago erriya / goiko mallera jasua, / zu zera gure buruzariya / zu zera gure maisua"*[1787]. Bertso honetan, berriz ere, herria gogoan du Joxe Mari Lopetegik. Kasu honetan, herria, subjektu edo objektu ote? Hurrengo bertsoan, berriz, aita bezala izendatuko du: *"Denbora dala bear moduan / itz egitea zerbaita, / orregatikan zure bizitza / itz neurtuaz nai det aita; / merezi dezun azalkera au / zure ordaingarri baita, / ekusi dezu erri guztiyak / zu zenbat zaituen maita, / biyotz barrendik aitortzen degu / zu zera Irunen Aita"*[1788]. Famili hizkera erabiliko du, beraz, Joxe Mari Lopetegik politikaz hitz egiteko. Irungo aita eta Irungo semea, bi paperak beteko ditu Leon Iruretagoienak: *"Zori onean sortu ziñan zu / Irungo seme bikaña, / gorputz tentia eta zuzena, / garbiya eta apaña; / Oraindik ere atzera ordaintzen / mereziya dezun aña, / Madrid aldera juan bear zenduke / besarkatzera Azaña, / zu bezalako Aita onakin / zuzenduko da España"*[1789]. Bertso saileko azkeneko bertsoan ere gidaritza lana azpimarratuz bukatzen du Joxe Mari Lopetegik: *"Zure bizitza zuzenezkoak / goit altxa dezu Erriya, / orregatikan bizi zerade / guraso maitagarriya; / gaurko*

[1785] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 93. or.
[1786] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 171. or.
[1787] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 172. or.
[1788] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 172. or.
[1789] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 173. or.

*gazteak jarraitzen degu / zuzenbidez zuk jarriya / Madriden dauden buruzariyak / jakiñik gure premiya, / egin digute irundarrentzat / lege eder bat berriya"*[1790].

Errepublikanismoak gidariak behar izateaz gainera, zer gehiago azpimarra dezakegu aukera politiko honi buruz? Zer zen errepublikak herriari eskaintzen ziona, ordura arteko aukera politikoek, gainerakoek, eskaintzen ez zutena? Elementu ezberdinak aipatu ditzakegu hemen.

1932ko uztailaren 30eko *Irun Republicanon* argitaratutako bertso batzuetan, Errepublikaren balantze gisakoa egiten zuen Joxe Mari Lopetegik, gauzak lehenago nola zeuden eta Errepublikak zer aldaketa ekarri zituen adieraziz. Hasteko, desberdin pentsatzeko askatasuna eta pentsatutakoa adierazteko askatasuna. Hona nola azaltzen zuen pentsamendu eta iritzi askatasunaren garrantzia Lopetegik:

> *"Askatasuna, Libertadia, / Republika da Erkala, / biyotzetikan esan dezagun / ongi etorri zerala; / monarkiyakin danok kiñuka / erdi mutuak bezala, / ekusitzen zan modu ayetan / bizitzerikan ez zala.*
>
> *Itz bat esaten asten bagiñan, / oraindik daukat goguan, / presondegira artuta laister / lapur zar baten moduan, / Erkaldarrak giñala norbaitek / nonbaitik esango zuan, / ezer egin gabe itzalian / lau illabeteko zuan"*[1791].

Aipatutako bertso hauetan, Joxe Mari Lopetegi ez da errege zehatzen kontra ari, sistemaren kontra baizik.

Bertso sail berean Errepublika nola etorri zen adieraziko du Lopetegik: *"Zorionean etorri ziñan / Apirillan amabiya, / alkarturikan Erkaldar danok / il zan lengo monarkiya; / Odol tanto bat isuri gabe / Dierri maitagarriya, / Apirillaren amalabian / Erkala degu jarriya"*[1792].

Errepublikak berekin zekarren pentsamendu askatasun eta adierazpen askatasunarekin erbestealdiaren bukaera eta kartzelan zeudenak askatu eta etxeratzea: *"Erkala ekarri genduenian / guk egin gendun lenbizi, / lengo alkate eta lagunak / agintzarik gabe utzi; / presondegiyan zeudenakeri / atiak ireki azi, / erbestekoak etxera ekarri, / musika soñu ta guzi"*[1793]. Lehenengo pertsonan bizitako erbesteaz ere ariko zaigu Joxe Mari Lopetegi: "*Lau illabete etxera gabe / egondu gera*

---

[1790] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 173. or. Joxe Mari Lopetegik aipatzen duen "lege berri eder hori" 1932ko irailaren 9an aldarrikatu zen "Ley de Reforma agraria" zeritzona izango da.
[1791] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 162. or.
[1792] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 162. or.
[1793] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 162. or.

*Frantziyan, / zer atsegiñaz bildu geraden / Bidasuako zubiyan; / Gaurtandik berriz ekingo degu / lengo gure lantegiyan, / gure lanakin lagundurikan / Erkala bizi dediyan*»[1794].

1931ko ekainaren seian *Irun Republicanon* argitaratutako bertso sailean ageri dena, Joxan Elosegiren hitzetan, 1930eko abenduaren 15eko iraultza saioaren ondoren nola batzuk erbestera joan beharra izan zuten eta Errepublika ezarritakoan bueltatu ziren da. Joxe Mari Lopetegiren semeak horrela ibili zirenen artean zeuden. Bertso saileko bigarren bertsoan honela dio: "*Au zoriona ta edertasuna / alkarrengana bildurik, / lau illabetez bi seme neuzkan / etxian ezin sarturik; / Apirillak amabiya zan / bide txarrak garaiturik, / agintzallean agintasunak / purrukatuta kendurik, / lege berriyaz guraso zarrak / semiak besarkaturik*»[1795]. "Lege berriya" eta "guraso zarra" esamoldeak erabili izana esanguratsua da: lege "berriak" izango dira guraso "zaharren" alde egingo dutenak. Modu honetan ez da aldaketa edota berrikuntzen kontra ageri: alderantziz, "zaharra" denaren alde jokatuko du egoera "berriak". Bertso hauen bitartez "zaharraren aldeko" zenbait konbentzitu nahiko ditu Joxe Mari Lopetegik. Modernizazioaz irakurketa dialektikoa egingo du, beraz.

Joxe Mari Lopetegik bizi duen egoera hau, gainera, gehiagori ere gertatuko zaio. Erbesteak puskatutako familiak izango ditu aipagai Lopetegik bertso sail berean: "*Etorri dira sortu lekura / erbestian zeudezenak, / ireki dira itzalpietan / itxitako ate danak, / aitarik gabe negar egiñaz / semiak ari diranak, / ekusitzian beren aitatxo, / ayek musu ta laztanak! / pozaz negarrez biyotza lertzen / itzik eziñ egiñ amak*»[1796].

Hainbat pertsona erbestean izatearen arrazoia zein den gogoratuko du Joxe Mari Lopetegik, askatasun edo "libertaderik" ez izatea. Horretarako, asmatutako familia bateko kideen ahotsean jarriko ditu arrazoi hauek:"*Aita nun izan zara bakarrik / iya lau illabetian, / ama negarrez jartzen zitzaigun / zu nun ziñan galdetzian; / zer dezu amatxo, miñez al zaude / aita nun dan oroitzian, / negar da negar, ezin erantzun, / amak miñ du biyotzian. / Libertadiak neri senarra / noiz jarriko dit etxian?*"[1797]. Lehen esan bezala, libertade edo askatasuna, Errepublikak bilatzen zuen balio garrantzitsua, Joxe Marik errepublikarekin identifikatuko duena, agertzen zaigu hemen. Horretaz gainera, aita hipotetiko honen ahotan jarriko du bere ahalegina ez dela gutxi batzuen onerako izan, guztien onerako baizik: "*Danantzat ona ekarri nayan / irten nintzan ni etxetik, / amaika bider zuetaz*

[1794] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 162.-163. or.
[1795] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 95. or.
[1796] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 95. or.
[1797] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 95. or.

*pentsatzen / egondu naiz ni geroztik, / zer janik gabe nola etxian / egon zeraten badakit; / Abenduaren amabostian / ni joan nintzen ezkeroztik, / orain ordaindu bear zaituztet / aitatxo naizen partetik*»[1798]. Errepublikak gainera, aita honen ahotsean, gerra ez piztea, eta ondorioz, bakea, ekarri du: *"Guda gaiztoa zuentzat zegon / izartxo maitagarriya, / ez baldin bazan emen anaitu / zorioneko Erriya, / bide txarrean nola zebillen / aspaldiyan Españiya, / zuzendutzeko sortu zitzaigun / Apirillan amabiya, / egun oneri zor diogu guk / gure Ongi Etorriya*»[1799].

Oroitu Joxe Mari Lopetegiren iritziz Errepublikak zekartzan berritasunak ari garela aipatzen eta horien artean desberdin pentsatzeko askatasuna landu dugula. Errepublikak ekarriko duen beste abantailetako bat, euskaldunen batasunari eusteko bermea edo tresna izatea izango da. Batasunaren gaia Joxe Mari Lopetegiren bertsoetan oso presente dagoen gaia da. Zergatik ote? Baliteke Lopetegik batasun ezaren esperientzia sakona izatea bere baitan, eta horregatik batasunaren alde hain itxuki aritzea? Zein eratako batasunaz ari gara hizketan?

Desberdintasun sozioekonomikoak gutxitzeak dakarren batasunaz ari ote da? Bertso sail batean Joxe Mari Lopetegik erreferentzia egiten dio errepublikari desberdintasun sozioekonomikoak gutxituko dituen tresna gisa: "*Aurretik egon diranak emen / Dierri ontan agintzen, / ekusi dira lotsa galduta / zer itxuretan zebiltzen, / alferrak gauza geyen beudentzat / beartsua goseak iltzen, / ta modu ortan ari ezkeroz / lan zalla zegon bizitzen, / gaur degun lege berri eder au / orregatikan jarri'zen*»[1800].

Francisco Bellidoren hil ondoko urteurren ekitaldira datozen bi errepublikarren ezaugarriak aipatzerakoan behartsuekiko duten jarrera ere azpimarratzen du Joxe Mari Lopetegik 1911ko abenduaren 30eko bertso sail batean. Oñatiko Madinabeitiaz ari dela *"Orrek badauka beartsuentzat / guztizko borondatia*»[1801] esango digu, eta Akilino Amuategigatik *"Amuategui-re bai omen dator / agur eitera danori, / Eibarren dago Errejidore / Mundu guztiyak badaki; / mesede asko egiñik dago / jende biartsu ayeri, / eskobik gabe zokua franko / garbitu ditu ederki, / ongi etorri Gizon zuzenai / atiak lasai ireki*»[1802].

---

[1798] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 96. or.
[1799] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 96. or.
[1800] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 99. or. 1931ko ekainaren 13ko bertso sail batean ageri dira bertso hauek.
[1801] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 68. or.
[1802] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 68. or.

Baina batasun hori baino gehiago, euskaldunen artekoa, ideologikoki desberdin pentsatzen duten euskaldunen arteko batasunak kezkatzen du Lopetegi. Joxe Mari Lopetegik bigarren errepublika garaian izan ziren Estatutuaren inguruko gorabeherak jasotzen ditu hainbat bertsotan. Hasiera batean Estatutua euskaldunen arteko batasuna puskatuko duen tresna gisa ikusten du Joxe Mari Lopetegik. Horregatik, lehenengo estatutuaren kontra egingo dute errepublikazaleek, nahiz eta gero, bigarrenaren alde agertuko diren. Hasiera batean, beraz, Estatutua baino tresna egokiagoa zen Lopetegiren ustez Errepublika euskaldunen batasunari eusteko. 1931ko ekainaren 13an *Irun Republicanon* argitaratutako "Guazen aurrera" bertso sailean batasunaren alde egingo du Joxe Mari Lopetegik. 1931ko ekainaren 4ko estatutua eskuinaren eta monarkiaren aldekoen amarru bezala ikusiko du Lopetegik eta errepublika eta honen inguruan euskaldunak batzea izango da soluziorik onena bere ustez. Errepublikaren kontra ari direnak, euskaldunen batasunaren kontra ariko dira, beraz: *"Nola itz egin nabaitutzean / gorputzan samintasuna, / guda biziya ekarri nayan / otza nabaitzen deguna, / lore eder au, ekusi nayez, / zer mintzatzen zera jauna, / Iruña aldera bildu dedilla / Euskera maitatzen duna. / Bekaizkeriyak dakar guda ori, / pakia da osasuna"*[1803]. "Lore eder" Errepublikari ematen dion izena da, eta Iruñeara biltzera deitzen dituena, Estatutua. Lopetegik batasunaren alde egingo du biziki: *"Odol guztiya txartzeko nola / eman oi duten ozpiña, / modu berean oitura au dago / bide gaiztoan egiña, / erdibiturik jartzen bagera / galduak gaude jakiña, / eutsi zayogun danok alkarri, / egin zagun alegiña, / zorionduko giñazke danok / anaitzen baldin bagiña"*[1804]. Ama Euskal Herriaren eta semeen irudia, famili irudia erabiliko du Lopetegik ere -Otañok eta Txirritak egin zutenaren antzera-*: "Euskal semeak izandu gera / guztiz oinpean arturik, / ama maitea ezin azalduz / egondu da lotsaturik, / seme zitalak geradelako / ama orla lajaturik, / gaur ere gabiltz buru gogorrak / alkar ezin barkaturik, / zuri ta gorri, beltz ta urdiñ, / danok sakabanaturik"*[1805]. Euskara ere aipatuko du: *"Bide zuzena nundik datorren / gaudezen erreparuan, / danok anaituz guazen aurrera / Euskal prestuan moduan, / agintzen dute agintzalleak / itz ok iruki goguan, / gure Euskera jarriko dala / aitor zarreko moduan, / gure mezerez izango da ta / lagun zayogun orduan"*[1806]. Bertso saila Errepublikaren alde eginez bukatuko du, guztien onerako, euskaldun guztien onerako dela azpimarratuz: *"Danontzat ona gauza zalla da / neronek ori badakit, / baña geyenak zuzen gintezke / agintzen duten bidetik, / gure bizitza, gure oiturak /*

[1803] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 98. or.
[1804] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 98. or.
[1805] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 98. or.
[1806] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 99. or.

*ipiñi biar tugu zutik; / guazen aurrera Euskal jatorrak / elduaz alkar besotik, / Euskal Erriya maite degunak / ziñez ta biyotzetik"*[1807].

1931ko ekainaren 20an *Irun Republicanon* argitaratutako "Bildu anayak" bertso sailean ere estatutuaren gaia hartuko du hizpide Joxe Mari Lopetegik. Gerra karlistak gogoan, beldur da Joxe Mari Lopetegi berriro ere halakorik gertatuko den. Estatutuaren alde ari direnei, Primo de Riveraren diktaduran horrelako proposamenik zergatik ez zuten egin galdetuko die: *"Zorigaiztoa etor leiteke / begira egon gaitian, / buruak arro, biyotzik gabe / Naparroara juatian, / guda biziya ekarri nayan / geundezkalarik pakian, / gizon pixkor oik non egon zazte / aurreko zortzi urtian, / Primo-Rivera erregiakin / agintzen zegon artian"*[1808]. Errepublika gauzak ongi egiten ari denean, zergatik hasi behar du inork mugitzen? *"Garagarrillan amalaba da / gaur bi illabete dirade, / jarraiturikan gizon jatorrak / askatasunakin gaude, / gauza aundiyak dierriyentzat / jakinda arkitzen gerade, / egin dirala denbora gutxiz / nork ukatuko du au ere, / bazeundeteke baztar nastera / Estella aldera juan gabe"*[1809]. Lopetegik bere burua definitu eta ziurtatu egingo du Errepublikak euskaldunak errekonozituko dituela, Errepublika federala izango dela. Esan gabe, lehen Gernikako arbola zena, orain Errepublikaren zuhaitz egiten du. Gauza bera egingo du beste bertso batzuetan ere[1810]:

> *"Euskalduna naiz, euskaldun nai det / Ama biyotzetik maite, / pakea bear da Euskal Erriyan / nik beintzat ala nai nuke. / Republikakin askatasuna / guri emango digute, / Donostiyako batzar batean / ziñez eskeñiya dute, / gizon buruzkai onak dira ta / oik itzik jango ez dute.*
>
> *Zugatz eder bat aldatu degu, / indarra artu dezala, / danak lagundu bear diyogu / bat bagiñake bezala, / goguan izan ortatik gure / ona etorriko dala, / zain mardulakin alorta onak / lenbailen eman ditzala, / neretzat beintzat askatasunez / Republika Federala"*[1811].

Lopetegik bigarren gerra karlistaren memoria eta haren ondorioak jasotzen ditu eta ez du horrelakorik errepikatzea nahi[1812]. Joxe Mari Lopetegirentzat Errepublika izango da honen bermea:

---

[1807] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 99. or.
[1808] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 100. or.
[1809] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 101. or.
[1810] Ikus ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 104.-105. or.
[1811] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 101. or.
[1812] Joxe Mari Lopetegi 1875. urtean jaio zen Irunen. Urtebete lehenago karlistek Irun setiatu zuten. Joxe Mari Lopetegik berak ezin, beraz, gogoan izan, baina bere etxeko eta ingurukoek emango zioten Gerrate karlistek Irunen izan zuten eraginaren berri.

> *"Gaur irurogei urte bezala / baldin balego erriya / etor zeiteken Euskal lurrentzat / odol isurtze berriya, / negarrez urtzen Ama begira / ain gauza negargarriya, / anayak alkar ezin ekusiz / gure lurran galgarriya, / zuzen bidean jarrai gaitzazu / zentzu on maitagarriya.*
>
> *Bide txarrean artalde ona / ez gero ipiñi artzayak, / odolez bete ez ditezela / Euskal mendi ta zelayak, / ez gaitezela izan beñere / alkarrentzako etsayak, / baturik danok indartutzera / emanik ditugun gayak, / nik beñepein ori nai nuke / bildu gaitean anayak"*[1813].

Lopetegik 1931ko urriaren 3an, bertso saila argitaratu zuen *Irun Republicanon* "Kukuak oker jo" izenburupean. Lantzen duen gai nagusia Madrilen 1931 bukaeran Lizarrako Estatutuari ezezkoa nola eman zioten da. Joxe Mari Lopetegik gogoratzen du lehen ere abisatu zuela horrela gertatuko zela, Errepublika zela biderik egokiena. Lehenengo bertsotik adieraziko du hau: *"Lenago ere esan nizuten / nik nere borondatia, / alperrikanen izango zala / Estella aldera juatia…"*[1814]. Eta hurrengo bertsoan: *"Euskal Erriko alkate asko / Estellara ziran juan, / gora Euzkadi, gora on Jaime, / alkarturikan ojuan, / Euskal lurreko askatasuna / arturik beren goguan, / ango paperak artu ta dira / orain Madridera juan, / atzera jiran ekarri'tuzte / eramandako zakuan"*[1815]. Estatutuaren alde ari zirenak ez omen ziren ongi jabetu Madrilgo giroa zein zen, zein mailatan aritzen ziren han politikaz. "Txoko" gisa pentsatzea egozten die Joxe Mari Lopetegik estatutuaren aldekoei: *"Kristo errege bear zutela / Madrin barrenen ojua, / danen gañetik ziran ustean / egiña zuten jokua, / batek au ziyon, ez naiz beldurtzen / naiz bertan kendu lepua, / oik uste zuten Madrid ote zan / Azpeitiako zokua, / leku txarretik abesturikan / azaldu zaie kukua"*[1816]. Estatutuaren aldekoek Errepublikaren gainetik zeudela pentsatzen zuten eta monarkia berrezartzeko gai ikusten zituzten euren buruak: *"Zijuazenian esaten zuten / oyen jolas iturriyak, / guk ipiñiko degu Madriden / gonbeni diran neurriyak, / askatasunez on Jaimerekin / gure errege berriyak / jarriko ditu bear dan bidean / betiko Euskal erriyak, / Republika onek gañean ditu / aurki istillu gorriyak"*[1817]. Lopetegik garbi utziko die ezetz, monarkiarik ez dela gehiago izango: *"Nere barrendik oraindik ere / garbiro nai diyet esan, / arritutzen naiz ikusitzian / zein buru gabez dabiltzan, / Españi ontako monarkiya / sekulako emen il zan, / modu ortako txorakeririk / ez dezazutela izan, / Republikakin bizi biar degu / argidotarraken gisan"*[1818]. Lopetegik egingo duen proposamena ezkerra eta eskubia

---

[1813] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 102. or.
[1814] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 142. or.
[1815] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 143. or.
[1816] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 143. or.
[1817] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 143. or.
[1818] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 143.-144. or.

bat egitea izango da: *"Uts egiña da zuen kolpia, / izan zazute goguan, / etorri zazte Madritik jiran / atz egiñikan buruan, / obe dezute burua makur / jardun gure inguruan, / esku emanaz ezker-eskubi / danok alkarren onduan, / Euskal oiturak, paregabeak, / etorko dira orduan"*[1819].

1931ko abenduaren 13an Joxe Mari Lopetegiri egin zioten omenaldian berriro kantatu zuen Joxe Mari Lopetegik Estatutuaren kontra eta Errepublikaren alde indar metatzaile bezala[1820]. Errepublikak, gainera, euskal ohiturak mantendu eta indartzea ekarriko du: *"Ekusirikan zer gertatu dan / gizon oyekin kortian, / Españigatik askatasuna / Erromarekin katian; / oyek nai zuten gauza ori emen / nola ezin leitakian / Euskal oiturak Republikak emango ditu / danok anaitu gaitian"*[1821].

*Irun Republicano* aldizkarian 1931ko abuztuaren 8an argitaratutako "Astigarragan" bertso sailean ideia bera azpimarratuko du Joxe Mari Lopetegik. Bertso hauetan bereziki Errepublikak dakarren berritasuna lehenagoko euskal izaera eta ezaugarriekin ongi uztartzen dela azpimarratzen saiatuko da Lopetegi. Bertso sail hau Astigarragako Centro republicanoa 1931ko abuztuaren 3an ireki zutela eta jarri zuen Lopetegik. Astigarragako aitona-amonak, zaharrak, bilgune errepublikar berria irekitzearekin eta hori zela eta antolatutako festarekin pozik agertzen ditu Lopetegik. Pozik orain artean esanak berriro ere esplizitu eginez, Errepublikak dakarren askatasun eta batasunarekin ere. Zaharra eta berria lotzen saiatzen zaigu Lopetegi: *"Musika soñu ederra juaz / Erri guztiyari jira, / arpegi alayak, begi ariñak / an zenbat ekusi dira; / aiton-amonak balkoietatik / nola gabiltzan begira, / oso gustora eta alaitsu / geldituak omen dira, / askatasuna alkar nayakin / sortu dala Euskal Errira"*[1822].

Bertso sail berean, Astigarragako ekitaldian hizlariak zeintzuk izan ziren azalduko digu: *"Ergobiatik jira eginda / igo giñaden plazara, / Fermintxo eta Campoamoriyon / esaierak entzutera; / Adarraga're mintzatu zaigu / aita aundi baten antzera, / zeñen eztiya, zeñen ederra, / mintzatu zuen euskera, / onlako aitak baldin badira / oraindik biziko gera"*[1823].

---

[1819] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 144. or. Ezkerra eta eskubiak bat eginez gero, ohiturak etorriko direla, lehenaldia etorkizunera etorriko dela adieraziko du Joxe Mari Lopetegik.

[1820] 1931ko abenduaren 19an argitaratu ziren *Irun Republicano*n bertso hauek.

[1821] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 152. or.

[1822] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 122. or.

[1823] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 122. or. Joxan Elosegik dioenez, hizlariak hauek izan ziren: Fermintxo Vega de Seoane abokatu donostiarra, Eduardo

Domingo Andonegik ohiturak mantentzeko Errepublika Federala ona zela esplizituki adierazi zuen: *"Laugarren asi zaigun Domingo / oitura duen bezala, / esaten zuen oraingotikan / bide onian guazela; / bizitzekotan Euskal erriyan / anaitasuna biar dala, / gure oiturak izan ditzagun / argatik mintzatzen dala, / maitatutzeko biyotzetikan / Republika Federala"*[1824].

1931-IX-12an *Irun Republicanon* argitaratutako "Berari lagun zayogun" bertso sailean Errepublikaren eta sistema foralaren arteko paralelismoa egiten saiatuko da Joxe Mari Lopetegi. Bertso sail honetan, Elosegiren arabera, Euskal Herriko errepublikano askoren ideologia politikoa zein zen agertuko digu: foruetan oinarritutako Errepublika Federala nahi omen zuten. Gure ustez, Errepublika foruzaleei hurbiltzeko eta azaltzeko modu bat zen hau. Lopetegik foruzaleen hizkuntza erabiliko du hauek Errepublikara erakartzeko. Foruak, euskara eta pertsonaia historikoei aipamenak egitea izango ditu horretarako tresna.

Ideiak garbi adieraziko ditu Joxe Mari Lopetegik hasieratik: foruak monarkiak kendu bazituen, monarkia izango da lehenengo baztertu behar duguna. Errepublikari eskatu beharko zaio, gero, monarkiak kendutakoa –azterketa sinple samarra ote Joxe Mari Lopetegirena?-: *"O! Republika maitagarriya / zeñen ederra zeraden, / monarkiakin berreun urtez / iya usteldu giñaden, / erbestetikan etorri eta / borbontarrak nagusi emen, / gure Fuero ta lege ederrak / urayek kendu zituzten, / guria dana galdetzen dizut / eman zaiguzu lenbailen"*[1825]. Bertso saileko azkeneko bertsoan ere ideia hau indartuko du: *"Biotzetikan galdetutzen det / zentzua izan dezagun, / ekusi degu monarki orrek / zer lotsak jarri dizkigun. / Bekaizkeriyak geren kalteko / lenbailen utzi ditzagun, / gure Erkala bezalakorik / munduan ez dago iñun, / euskal legiak emango ditu / berari lagun zayogun"*[1826].

Zerekin lotzen du Joxe Mari Lopetegik foruak indarrean egotea? Hau da, zerekin lotzen zuen herriak foruak indarrean egotea? Dirudienez, soldaduskara joan behar ez izatearekin. Berriro ere kinten garrantzia agertzen zaigu horrela, honek herri xehearen baitan zuen eragina: "*Gure aitonak pizkor senduak / bizitu ziran bezala, / gaur dan ainbeste txori izugarri / kalian etzebillela, / seme maitiak soldaduzkara / juan biarrik etzaukatela, / orain dauzkagun eunetatik bat / fetxik*[1827] *ordaintzen*

---

Campoamor, Jon Adarraga eta Domingo Andonegi (azken hau olerkari eta bertsolaria, Lopetegirekin batera mitinen batean bertsotan aritua).

[1824] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 123. or.

[1825] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 134. or.

[1826] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 135. or.

[1827] Fetxik hitzak espediente esan nahi ote du? Edo "fitsik", ezer ez?

*etzala, / aitor dezagun Euskal Fuerua / Republika on bat zala"*[1828]. Orduan zegoena Errepublika onaren parekoa zenez gero, orain eragozpenik ez luke egon behar Errepublika onartzeko. Hala dirudi behintzat.

Hala ere, kintak ez tiratzeak, ez zuen esan nahi euskal mutilak gerrarako prest agertzen ez zirenik, hala behar zenean: *"Guda aundirik izaten bazan / nunbait bazterrak nasteko, / albistitxo bat asko izaten zan / danok alkarganatzeko, / eskutitzakin alkar deituaz / Dierriya indartzeko, / mutil bikañak prestatzen ziran / bear zan lekura juateko, / euskal mutilla ez zan bildurtzen / arma eskuan artzeko"*[1829].

Txirritak ere hitz egingo digu XX. mendeko espainiar errepublikaz, Lopetegiren omenaldian jarritako bertsoetan: *"Bertsuakiñ ez asarretzeko / egiten dizut suplika, / nola dan gazte inozentia / Txirritak ez du kulpika; / norbaiten mende bizi biagu, / ortan ez dago dudika, / biar bezela ipiñtzen bada / ona da errepublika"*[1830]. Txirrita ez da Errepublikaren aurka agertuko, baina "biar bezela ipiñtzen bada" hori adierazgarria gertatzen da oso: berera ekarri nahi duen egitura politiko gisa agertzen du Txirritak Errepublika. Esanahi aniztun hitza izango da hau ere beraz gure bertsolarientzat. Errepublikara nola iristen diren edota Errepublikak nolakoa izan behar duen azaltzen du honek. Zehaztasunez ez definitzeak, bere baitan desberdinak hartzeko aukera ematen dio hitzari.

Baina Joxe Mari Lopetegik estatutuarekiko zuen jarrerak aldaketa izango du. 1932. urtean Estatutuaren alde azalduko zaigu. Errepublika eta Estatutua uztartuko ditu lehenengo, hau da, Estatuturik Errepublikarik gabe ez zela posible esango digu: "*Erkala ekarri degun ondoren / Ama ari da azaltzen, / Askatasunak seme-alabak / dituelako maitatzen: / lengo errege lagun zarrakin / agintzen egondu bazen, / estatuto eta Askatasunik / Euskal Erriyentzat etzen*"[1831].

Eta argiago hitz egiten du oraindik, *Irun Republicanon* 1932ko ekainaren 25ean argitaratutako "Andoaingo erkaltarrakeri" bertso sailean. Estatutuaren gaia, gestoren esku zegoen bigarren okasio honetan, eta jendea alde izan zuen proposamen honek. Joxe Mari Lopetegik ere honekiko duen postura aldatu egiten du. Joku politikoaren garrantzia ikus dezakegu horrela, interesak nola aldatzen joan daitezkeen egoeraren arabera eta honek alderdi politikoen jarrerak nola alda ditzakeen: *"Estatutua deitzen diyoten / gauza bat badabil dantzan, / Euskal erriyan*

[1828] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 134. or.
[1829] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 134. or.
[1830] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 484. or.
[1831] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 157. or.

*arkitzen giñan / beti gauz oken zalantzan; / noranai juanda burua gora / lasai gendezake esan, / Estatutorik ez zan izango / Erkala ekarri ez bazan, / lizundutako monarki zarra / agintzen egondu bazan"*[1832]. Errepublika eta Euzkadi, biak dira beharrezko:

> *"Utzi ditzagun bekaizkeriyak / danok alkarri lagundu, / burugogorrik arkitzen bada / zuzenbidera bigundu; / zakartasunik arkitzen bada / gozotasunakin leundu, / Ama maitea bizi dediyen / guk au egingo bagendu, / zer bidetatik juan biar degun / Erkalak erakusten du.*
>
> *Nere agurra eskeintzen dizut / gaur Andoaingo bilgumena, / zuekin batean ezin egonak / neri ematen dit pena; / Naparroako Erri polit bat / Lesaka dauka izena, / aspaldi ontan agindu niyen / aruntz joango nintzena, / Gora Erkala! Gora Euzkadi! / au da biderik onena"*[1833].

Bigarren errepublikak berekin dakarren joku eta lehia politikoaren adierazgarri, Joxe Mari Lopetegik Errepublikaren alde hitz egiteaz gainera, beste alderdi politiko batzuen kontra ere hitz egingo du, nagusiki karlista eta nazionalisten kontra.

Karlistei buruz, bitan edo hitz egiten digu Joxe Mari Lopetegik. 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorretarako botu eske herriz herri antolatutako mitinetan Lopetegi bertsolariak maiz hartu zuen parte bertsoak kantatuz. Bertso sail batean Azpeitian gertatutakoa kontatzen digu. Azpeitian karlisten indarra nabarmena zen eta hauek, indarra erabiliz, eragotzi egin zieten errepublikarrei mitina ematea. Bertso sailari "Askatasunaz" izenburua ematen dio Joxe Mari Lopetegik eta 1931ko uztailaren 4an argitaratu zuen.

Joxe Mari Lopetegi erabat harrituta agertzen da gertatutakoarekin. Lehenengo bertsoan harridura hau agertzen du: *"Zer buruzbide biyotz gabe, / zer anaitasun zitala, / zer gizontasun neurri gabea, / zer zentzu gabeko ergela; / zer gertatzen da Euskal Erriyan, / zerk garabiltza onela, / zer itxuretan anai jatorrak, / zer pakez ezin geudela, / zer esan nai du jarraikera onek, / zer, zentzu gabeak gerala"*[1834]. "Askatasunaz" izenburua duen bertso sailean, intolerantziaz hitz egiten digu bereziki, karlistek errepublikarrekiko erakutsi zutenaz: *"Nun gertatu da onelakorik, / nun jaunak, nun Azpeitiyan, / jesuita ta erlijiyua / besterik ez dan tokiyan; / Askatasunaz gaudezelako / lau lagun aruntz joan giñan, / gure barrengo fede leyala / aitortutzera itz biyan, / ekin ziguten laueri millak / guztiz modu itsusiyan"*[1835]. Beldur ote ziren norbait "errepublikano" bihurtuko ote zen? Biolentziarekin

[1832] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 160. or.
[1833] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 160. or.
[1834] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 107. or.
[1835] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 107. or.

erantzun zioten errepublikarren presentziari: "*Gugandu ziran atzaparrakin / lepotik ito nayian, / udazkenean nola enarak / alanbrearen gañian; / itz bat egiten utzi nai ezik / modurik okerrenian, / odolean eziñ irukirikan / miñ zutela barrenian, / beldur ziraden biurtutzeko / norbait gure esanian*"[1836]. Bertso batean karlistak naziekin konparatzera iritsiko da Lopetegi. Joxe Mari Lopetegirentzat Errepublikari estuki loturik doakion askatasunaren kontra egiten dute karlistek: "*Gomendio zan onen laguna / jaun on bat Oñatearra, / otzikan gabe laja diyote / gizajoari bizkarra; / tira ta bultza autsi ziyoten / soñian zeukan zamarra, / ekustearren zeñen pizkorra / berez dan Azpeitiarra, / Askatasuna indartutzeko / ez dago kuadrilla txarra*"[1837]. Bertso saileko azkeneko bertsoan "Euzkadi"z hitz egiten du. Nazionalismoari kukuka ari ote zaio edota nazionalismoaren eraginez erabiltzen ote du hitz hau? "*Milla baziran lau zatitzeko, / ez al da lotsa Euskalduna, / atze-erriyetan ai zer fama guk / iruki bear deguna; / au al da lege erlijiyuak / erakutsitzen dizuna, / modu orretan baldin badabill / maltzur zar biyotz astuna, / bide ortatik ez da etorko / Euzkadin Askatasuna*"[1838].

Joxe Mari Lopetegi ez da nazionalistekin bat etorriko. Nazionalistek Hondarribin batzokia ireki zutela eta mitina egin zutela aitzakia hartuta, Joxe Mari Lopetegik bertsoak jarri zituen "Badira bide obiak" izenburupean[1839]. Joxe Mari Lopetegik jeltzaleei aurpegiratzen diena haserretik hitz egiten dutela da, baina ez dutela zehazki ezer proposatzen: "*Ondarrabiyan izandu danak / jelkidetarrak entzuten, / galdeera* (sic) *bat egin niyon da / etzekiyen erantzuten; / nik esan niyon, bai al dakizu / zertako bildu zaituzten, / erantzun zidan, ez dakit, jauna, / zer kontu ote zituzten. / Zorrozturikan mintzatu ziran, / oik nurinbait ere min zuten*"[1840]. Mitina ematera datozenak sermoigiletzat hartzen ditu Lopetegik: "*Galde egin niyon, zer dute miña, / ez al diyozu igarri, / ez, jauna, ez det ikasi / orlako kontuen berri, / sermoigileak Ondarrabira / biar zutela etorri; / lagun batzuek bildu ta guazen / esan geniyon alkarri, / zertarako zan ez genakien ta / emen gaudez lotsagarri*"[1841]. Lopetegiren ustez, jeltzaleen mezuak ez du pisurik: "*Erantzun niyon, ez dago lotsik, / etzazula egin negarrik, / zure modura geyo badira / etzerade zu bakarrik, / oyen esanak nola ez daukan / zuzendadeko indarrik, / iñor tentatzen itz legunekin / ibilko dira alferrik, / orregatikan etzazutela / atzendu zuen biarrik*"[1842]. Joxe Mari Lopetegik ezkerreko ikuspegitik EAJ kritikatuko du: nahiz eta "Jaungoikoa eta Lege

[1836] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 107. or.
[1837] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 108. or.
[1838] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 108. or.
[1839] 1931ko abuztuaren 1ean argitaratu zituen *Irun Republicano*n.
[1840] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 119. or.
[1841] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 119. or.
[1842] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 119. or.

zarra" aldarrikatuz lehenaldiarekin lotu beren izatea, gero aurrerabide guztiak erabiliko dituzte. Hona: *"Esaten dute, gu konten gera / Jainkua ta lege zarrakin, / errespetoko gizonak ustez / mintzatzen dira orrekin, / ez dira etorri makillan puntan / biderako zer janakin, / zarrak zituzten sasoi bateko / firril gabeko lerakin, / baizik bideak aurreratu dun / automobil ederrakin"*[1843]. Lopetegiren ustez, Euskal Herriaren askatasuna ekarriko duena Errepublika izango da, eta denek egin behar lukete horren alde:

> *"Burua gogor gaiztakeriyan / bide ori ez da ondo, / lotsagabetzen baldin bagera, / ez da gauz onik izango, / danok besotik alkar eutsiyaz / baldin bagiñake juango, / Republikari lagundurikan / nik neria det esango, / Euskal Erriko Askatasuna / bera onek digu emango.*
>
> *Bekaizkeriyan zitaldurikan / ez dira zuzen bidiak, / makilla arturik buruz gañetik / galdezka gure legiak, / modu orretan ez dira etorko / izanagatik guriak, / alperrik gabiltz buruak arro, / entzun au adiskidiak, / Askatasuna izan dezagun / badira bide obiak"*[1844].

1931ko irailaren 5ean *Irun Republicanon* argitaratutako "Biyotz ederra daukazu" bertso sailean ere errepublika garaiko aukera politiko desberdinak aurkeztuko ditu Joxe Mari Lopetegik. Kasu honetan, erregezaleak, errepublikarrak eta jeltzaleak aipatuko ditu. Tren berean hiru pertsonaia jarriko dizkigu eta beraien arteko elkarrizketaren bitartez batzuen eta besteen jarrera eta proposamenak helaraziko dizkigu. Erregearen aldekoen paperean, emakume bat jarriko du. Aitaren egin eta hizketan hasiko da emakume hau: *"Begiya zorrotz, guri begira / berriketan zaigun asi, / gure errege maitagarriya / juan zitzaigun igesi, / ain zan prestua eta leyala / ez zuen ori merezi, / Republikano zarposo tzar ok / jarri dirade nagusi, / ta ok dauzkaten lege txarrakin / iñola ez giñazke bizi"*[1845]. Eta hurrengoan: *"Eta segitu zuan esanaz / esperantza bat bai zala, / Republika txar lotsagarri au / denbora gutxiko dala, / markes ta konde ta obispuak, / alkar arturik daudela, / laster inglesak ur-ontziyakin / onuntz etorriko dirala, / orduan emendikan igesi / juan biarrak gerala"*[1846].

Trenera fraide bat igoko da gero. Hau nazionalisten paperean jarriko du Lopetegik. Fraideak emakume erregezaleari honela esango dio: *"Españikua zeran norbaitek / galdetzen badizu, / Euskalduna bakarrik zerala / erantzun bear diyozu, / gu Euskaldunak, Euskal ludian / ondo biziko gaituzu, / maketo belarrimotzakeri / eman*

---

[1843] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 120. or.
[1844] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 120. or.
[1845] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.) : *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 131. or.
[1846] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 131. or.

*bear diyogu su. / Aita praillea, anayakentzat / biyotz ederra daukazu*"[1847]. Ikus dezakegun bezala, nazionalismoaren eta arrazismoaren arteko lotura agertuko du hemen Lopetegik, ebidentzian jarriz.

Errepublikaren kontra ari direnak ere gogoan izango ditu Joxe Mari Lopetegik. 1931ko irailaren 19an, "Arekin ez da gizonik" bertso saila argitaratu zuen *Irun Republicanon*. Bertan errepublikaren kontra ari direnen aurka agertuko da Joxe Mari Lopetegi: "*Zer gertatzen da Euskal lurrean / gizonak aur biurturik, / biyotz barrengo sakoneraño / odol pozoya sarturik, / bide gaiztozko buruzbideak / aunditasunez arturik, / salto ta salto ezin egonaz / odol danak beroturik, / ez dutela nai Republika onek / ipintzen duen legerik*"[1848].

Errepublika gerrarekin lotzen du zenbaitek eta horrek beldurra eragiten du jendearengan. Lopetegik ez dio horri zentzurik ikusten. Edota areago: guda aipatzeak ez ote dio gudari dei egingo? Hona: "*Nabaitu ditut lengo egun batez / esaten ari dirala / Republikakin Dierri dana / oso gaizki dabillela, / sagar urtea izanagatik / aurtengoa dan bezala, / batek au ziyon, sagardorikan / ark egingo ez zuala, / bazekiyela segurki guda / laister etorriko dala*"[1849]. Eta hurrengo bertsoan: "*Gogoratuta gizonak ori / modu ortan esatea, / ez du igartzen berarengana / etor leikien kaltea, / iduritzen zait au dala guztiz / bide txarretik juatea, / nik beintzat ala igartzen diyot / zer naizu, lagun maitea, / guda guziak bañan ez al da / askoz obea pakea*"[1850]. Errepublikaren kontra ageri den gizon hipotetiko horren familiak aitari ikusarazi nahiko dio bizi diren bezain ongi bizita nola esan daitekeen horrelakorik:"*Emaztetxua erdi negarrez, / seme-alabak begira, / esaten zuten gure aitatxo / burutik nasten ari da, / nai bezala gu bizi geralaik / juan biar duela mendira, / lajaturikan gu danak emen / ta bizitzeko segira, / aita maitea zaudez ixillik / lengo kontuak ez dira*"[1851].

Monarkiaren aldekoak eta eliza bera ere seinalatuko ditu Joxe Mari Lopetegik errepublikaren kontra ari direnen artean: "*Erkaldar danok anai gaitean / etorri gabe negarrik, / gu anaiturik baldin bagaudez / oyek ez dute indarrik; / bekaizkeriyan jendea nasten / ibilko dira alferrik, / guk ez daukagu ez Alfontso / ta Mateo Mujika bearrik*"[1852]. Mateo Mujika gotzaina aipatzen du espreski Joxe Mari Lopetegik, eta eliza orokorrean: "*Mantu beltzakin erdi gordean / sasi basaurdean gisan, / Erkala*

[1847] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 132. or.
[1848] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 136. or.
[1849] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 137. or.
[1850] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 137. or.
[1851] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 137.-138. or.
[1852] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 165. or.

*ekusi nai ez dutenak / begira nola dabiltzan, / buru berotzen ezjakiñari / gezurra esanaz elizan, / mingañ ederra daukate oyek / bañan biyotzik ez izan*"[1853].

1932ko abuztuaren 20an *Irun Republicanon* argitaratutako "Bekaitza" izeneko bertso sailean, Sanjurjo eta Kabalkanti jeneralek errepublikaren kontra egindako altxamenduaz hitz egiten zuen Joxe Mari Lopetegik[1854], baita hauen atzetik joandako soldaduez ere. Joxe Mari Lopetegik baratzean lanean jarriko lituzke denak, eurek sortutakotik jaten. Abisua luzatzen dio nazio edo dierriari: "*Dierri ona esnatu zaite / beti lotan egon gabe, / esan dezagun noranai juanda / zentzuz jantziyak gerade. / Zuzendadean gu Erkalari / zintzo laguntzeko gaude, / eutsi zayogun zuzenbidetik / okertu gabe au ere*"[1855]. Politika prozesu gisa agertzen digu, bizirik dagoen zerbait bezala, zaindu behar dena, kontuan izan behar dena.

Atal honekin bukatzeko ezin aipatu gabe utzi alderdi politikoen bitartez, eta kasu honetan alderdi errepublikanoaren bitartez, herritarrek lortzen duten errepresentazio edo ordezkatzea. Garbi adieraziko die Joxe Mari Lopetegik gipuzkoarrei nola gortetan dagoen diputatu bati esker, Juan Usabiagari esker, hain zuzen, beren arazoak Madrilen kontuan hartuak izango diren. Ikus dezagun.

Juan Usabiaga, aukeratua izanagatik dago Gortean eta, beraz, botuemaileei zor zaie: "*…gure botuen indarrarekin / diputadu da Kortean, / obiagorik ez degu izan / juan dan ogei urtean*"[1856]. Eta segidan: "*Gipuzkotarrak ipiñi gaitu / merezi degun oñian, / onak gerala, prestu ta legal / eta pizkorrak lanian, / gauza guztiyak mintzatu ere bai / guztiz itxura onian, / besarkada eman zayogun, / onuntz etortzen danian*"[1857]. Pasaiaren alde mintzatu da Madrilen: "*Goiko mallera jaso zaituzte / itsasoan zabilztenak, / arrantzaliak, goguan artu / Usabiagaren esanak, / aipatu ditu gure Pasayak / daduzkan edertasunak, / beti sasoidun izan bearko luke / au bezelako gizonak*"[1858]. Edota Hondarribiko portuaren obraren alde: "*Azken aldera ipiñi zaigu / Ondarrabira begira, / eta esan du mariñel oitaz / ez al da iñor kupira, / barra gaiztua ezin autsiyaz / askotan ibiltzen dira, / deadar au nik eramango det / merezi duen tokira*"[1859].

Joxe Mari Lopetegik Usabiagari emandako botoen balioa berretsiko du esplizituki: "*Konpondutzera sayatuko da / agintzen duen bezala, / zuek nai dezuten giriz-portua*

[1853] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 166. or.
[1854] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 168. or.
[1855] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 169. or.
[1856] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 140. or.
[1857] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 140. or.
[1858] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 141. or.
[1859] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 141. or.

*/ badakit egingo dala, / pentsa zazute zuen botuak / ongi emanak dirala, / republicano jatorra da ta / osasuna izan dezala"*[1860].

Gogora ekar dezagun azpiatal luze honen izenburua zein zen: "Gobernatu beharreko komunitatea handitzen denean". Hiru proposamen nagusi ikusi ditugu. Hirurak anitzak eta dinamikoak. Foru sistema klasikoa (Txirrita), 68ko iraultzari erantzuteko hiru probintzietan oinarrituko den foralitatea (Xenpelar), edota nazionalismoak erabiliko duen foruen ikuspegia (P.M. Otaño); errepublikanismotik nazionalismora pausoa eman duena (P.M.Otaño); eta errepublikanismoa (J.M.Lopetegi). Proposamen hauetako bakoitzak Espainiarekiko harremana modu diferentean azalduko du.

## 3.2.8. Gerrateak bizi izanaren esperientzia[1861]

Gai honi buruz esan beharra dugu deigarria egin zaigula, aztertu ditugun bertsolariak bizi izan ziren garaian, bi gerrate karlistak eta zibila gertatuta, zein bertso gutxi jaso ditugun euren ahotsetan zuzenean gerrari buruz ari direnak, gerraren kronika egiten dutenak. Horrek ez du esan nahi, ordea, garai honetan gerrari edo gerra gaitzat hartuz bertsorik kantatu ez zenik: ikus, bestela, Antonio Zavalak berak gerrate karlistetako bertsoekin argitaratutako bi liburu mardulak. Bertso horiek, ordea, gehienak anonimoak dira. Beraz, ezin esan dezakegu ez zegoela gerraren inguruko bertsorik, alderantziz, asko zeuden. Baina guk aukeratutako bertsolariek izenpetuak behintzat, ez gehiegi[1862].

Gerra hartu al dezakegu aztertzen ari garen modernizazio prozesuak sortutako puskaketa edo eten gisa? Hau da, gertatzen ari diren aldaketa nagusien aurrean hartutako jarrera edo eredu ezberdinen arteko borroka gisa? Eta honen aurrean nola kokatzen dira gure bertsolariak? Ez dute gerraren alde kantatzen, ez dute gerraren kronika goraipatzailerik egiten. Gutxi hitz egiten dute horretaz –gerraren esperientziak sortutako minagatik ote?- eta egiten dutenean, kontra hitz egiteko. Errepasa dezagun kronologia pixka bat: Bilintx, Xenpelar eta Pello Errota lehenengo gerrate karlista izan zen urte inguruetan jaio ziren eta bizi izan zituzten haurtzaroko lehen urteak. Otaño eta Txirrita, berriz, gazte zirela harrapatu zituen bigarren gerrate karlistak –Otañok soldadu ez joatearren egin omen zuen alde Ameriketara lehen aldiz eta Txirrita, berriz, aitaren ordez presentatu omen zen

[1860] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 141. or.
[1861] Atal honen osagarri begiratu laugarren atal nagusi honetako 2.1.2. puntua, "Familiako kide kopuruan aldaketak: heriotza, gosea, gaitza, gerra" izenburua duena.
[1862] Joxe Mari Lopetegi izango litzateke salbuespena.

karlistek egindako guardia dei batera- eta Joxe Mari Lopetegi, berriz, hura bukatu baino urtebete lehenago jaio zen. Gerrate zibila bizi izan zuen bakarra azken hau izan zen.

Egindako bertsoak kontuan hartzen baditugu, Xenpelar, Otaño, Txirrita eta Lopetegi gerraren kontra agertu zirela ikusiko dugu. Bilintx bigarren gerrate karlistan hil zen, Donostian, etxean zegoela, karlisten bonba bat leihotik sartu zitzaionean. Soldadu izateari buruz zerbait kantatuko du Bilintxek, baina gai hauetaz ez askoz gehiago. Pello Errota semea soldadu eramango ote dioten beldur ageri da, baina gerraz zuzenean ez du hitz egiten.

Xenpelarrek gerraz zuen iritzia jaso dugu lehenago[1863]. Pedro Mari Otañok, "Limosnatxo bat" bertso sailean, eskale bat aurkezten digu, gazte garaian gerran ibilia, eta eri dagoena orain:

> *"Eta segitu zuben esanaz: / <Lengo gerrate denian / ni aurren xamar ibiltzen nintzan / beti edo geienian, / nekatu gabe aisa igoaz / aldapik luzienian; / etzan burura asko etortzen / gu ala gebiltzanian, / gero limosna eskatutzerik / Jainkuaren izenian.*
>
> *Iñoiz pentsatzen nere artian / ni jarritzen naizenian, / gaur ere asko dirala joango / lirakenak zuzenian, / ez luke iñork sinistatuko / zer pena ematen dian. / Ai!, orla nintzan ni ere sano / ta gazte nenguenian... / Gaur limosna bat eskatutzen det / Jainkuaren izenian.*
>
> *Ai!, txorakeri asko egiten / da zentzurik ez danian, / sinista zazu ur au pasia / daukanaren esanian; / obiago da sasoi dan arte / saiatutzia lanian, / negar egiñaz ibilli gabe / gero denbora joanian, / limosnatxo bat bildu eziñik / Jainkuaren izenian"*[1864].

1892ko "Nasketak" konposizioan ere, semeak soldadu eraman dizkioten gurasoen ahoz hitz egingo du, egoera honek nola atsekabetu eta zahartzen dituen kontatuz[1865]. Bizitzan aurrera egin ahala, indarra erabiltzeari buruz zuen iritzia aldatuz joango da, ordea[1866].

Txirritak, berriz, 1927an, gerra luzeen kontra hitz egingo du. Berak aurretik ezagutuez arituko da noski, tartean, lehen mundu gerra[1867] ere badagoelarik.

---

[1863] Ikus 3.2.7.1. puntua.

[1864] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 382. or.

[1865] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 352. or.

[1866] Berrikus 3.2.7.2. puntua zehaztasun gehiagotarako.

[1867] Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoako euskaldunen kasuan Lehenengo Mundu Gerraren eragina handia izan zen. XIX. mendeko iraultza eta gerrateek lurralde hauetan izandako eraginari buruz, ikus Duvoisini buruzko lana. DUINAT, B.: *Biografia baterako abiapuntuak,* op. cit.

Honela dio: *"Oiartzun'dikan Panplona'ra juan, / andikan bueltan etorri, / ni bakarrikan aterako naiz, / zuek bi anaiak jarri; / ortan konforme ezpazerate / barka zaiogun alkarri, / gerra luziak ondoren onik / sekulan ez du ekarri"*[1868].

1936ko bertsolari egunean, berriz, urtarrilaren 19an, "Gerra zitalen ondoren txarrak" gaiari honela erantzun zion Txirritak. Bertso famatuak dira, Txirritak semerik gerrara ez bidaltzeko mutil zahar geratu zeneko hura kantatu zuen. Eta gero beste bi bertso hauek ere bota zituen:

> *"Asko dirade nai lutekenak / mundu danian nagusi, / pakian bizi diran kristauak / bere soldadu ta guzi. / Orlakuari tira atzetik / joan dedilla igesi, / gerra nai duan gizonak ez du / salbaziorik merezi.*
>
> *Okasiua ara, jendiak, / nola gerta litekian, / obea degu gerrara baiño / bizi umore onian. / Zenbait bezela ez naiz izaten / fondetan eta kafian, / gerran gosiak baiño naigo det / naikua janez pakian"*[1869].

Joxe Mari Lopetegiren kasuan, lehen ere azpimarratu dugu batasunari zenbaterainoko garrantzia ematen zion eta hau zenbateraino ote zen euskaldunen arteko desberdintasun eta ezin konponduaren esperientziaren ondorio[1870].

Ikus dezakegun bezala, egituraketa politiko aukera ezberdinez gehien hitz egin diguten bertsolariak dira aldi berean gerra aipagai izan dutenak[1871]. Konpondu gabeko gai gisa agertuko zaigu egituratze politikoarena, euren artean osagarri izan ordez elkarren kontrako izango direlarik aukera batzuk eta besteak.

Dena den, badirudi Lehen Mundu Gerrak iparraldeko euskaldunak frantsestu zituen bezala, Espainiak kolonietan izan zituen gerretan parte hartzeak edo gerrate karlistetan parte hartzeak ez zituela espainiartu euskaldunak. Izatekotan, kontrako eragina izan zuen, espainiar identitatea zalantzan eta krisian jarriz.

## 3.2.9. Nazioartea estatu-nazioetan antolatzen denean

Gizarte eta politika gaietan aldaketak eta trantsizioa eragingo dituen indarren artean hau ere garrantzitsua izango da: Espainiaz gainera, edo Espainiarekin batera,

---

[1868] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 367. or.
[1869] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 200. or.
[1870] Berrikusi 3.2.7.3. puntua. 1936ko gerratearen kontra, berriz, fuerte arituko da. Honen azterketa, ordea, gure lanetik haratago doa.
[1871] Pello Errota eta Bilintx dira kanpoan geratu zaizkigunak. Pello Errotaren kasuan isiltasuna dugu gai hauen inguruan. Bilintxen kasuan, gerraren kronika idazten omen zuen egunkari liberal batean, baina bere bertsoetan behintzat ez du kantagai hartzen.

nazioartea ere estatu-nazioetan antolatua agertuko da. Olatuaren indarra estatu-nazioen aldekoa izango da. Espainia Estatu-nazio gisa eraikitzen ari den unean, zenbait euskaldunek ere galdera egingo diote beren buruari euskal estatuaren inguruan.

Pedro Mari Otañok, adibidez, 1903an idatzitako "Urte berri" bertsoetan, nazioarteko egoerari erreferentzia egiten dio. Diplomazia eta estatu-nazioen ekintzei ere bai, neurri batean:

> *"Ogeigarren eunkiyan / kristauben bizitzan, / bi urte igaruak / dauzkagu desditxan; / begira dierriyak / zer nola dabiltzan, / elkar purrukatutzen / non-nai arakintzan, / aurreratutzen guaz… / txangurruben gisan.*
>
> *Gizon eta erriyak / dabiltza bildurrez, / elkar zelatatubaz / legorrez ta urez, / itz ederrak esanaz / barrendik gezurrez: / <Zeiñ dirade gaiztuak? / Bestiak bai, gu ez…>. / Indarra nagusi ta / gogorrena juez"*[1872].

Txirrita, 1918an, I. Mundu Gerrari bertsoak jartzen dizkionean, "Bertso berriyak Txirritak jarriyak"[1873] izenburupean, Frantziaren alde agertuko da. Zavalak dioen bezala, "gu"taz hitz egiten duenean, frantsestzat hartzen du eta agertzen du bere burua Txirritak. Frantsesen batek esan zion bertsoak jartzeko edo agian Txirrita Frantzian lanean ibili zelako zaletu zen haiekin[1874]? *"1/Zori gaiztoan fundatutako / Alemaniya'ko gerra, / aixa nai zuten eskuperatu / gure erreino ederra; / oraindik ere bada Frantziya'n / diruba eta indarra, / len zan bezela ipiñitzeko / izango degu biarra"*[1875]. Bertso sail berean, Belgikaren parte hartzea azpimarratzen du. Estatu-nazioei ematen zaie garrantzia, estatu-nazioek hartzen dute gerran parte: *"2/Beljika'tikan galdetu zuten / lendabiziko pasua, / jakiñik nola zeguen Paris'a / andik bide erosua; / aitatik ere artubak dira / uste etzan erasua, / porrakatu* (sic) *ta puskatu zuten / naziyo txiki gaxua"*[1876]. Frantzia eta Alemaniaren arteko gerrateko gorabeherez arituko da Txirrita. Bertso saila honela bukatuko du: *12/Laguntzalliak nundik dituben / ezagutu du Frantziya'k; / geren setari eutsi diyogu, / ez giñan dudan asiyak; / biba gerra ontan gure fabore / ibilli diran guziyak, / nere partetik ematen diztet / eskerrak eta graziak "*[1877]. Ingelesak eta amerikarrak izango dira eskerrak hartzeko izango direnetako batzuk.

---

[1872] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 84. or.
[1873] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 306.-307. or.
[1874] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 306. or.
[1875] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 306. or.
[1876] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 306. or.
[1877] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 307. or.

Joxe Mari Lopetegik, berriz, 1931ko uztailaren 4an *Irun Republicanon* argitaratutako bertso batzuetan karlistak naziekin konparatuko ditu: nazioartearen eta nazioarteko gaien presentzia bertsolarien baitan handitzen ari dela erakusten digu horrek. Errepublikanoak Azpeitira mitina ematera joan zirenekoa kontatzen du Joxe Mari Lopetegik eta nola mitinean hitz egitera joan zenetako errepublikar bat apaizen kontrakoa zen[1878]. Azpeitiarrek ez omen zioten oso harrera ona egin: *"Garate jauna Bergarakua / euskaldun jatorra berez, / euskalduna bai ezkerrekoa / apaizak ekusi nai ez; / eldu ziyoten zamarretikan / lau puska egin bearrez, / Santakruz zanen odol beretik / nazi dira nere ustez, / Aita Inaziyo sortu Erriyan / biyotz onekuak daudez"*[1879].

## 3.2.10. Amerikaren eragina: emigranteen bizitza pertsonalean eta herrien independentzia prozesuetan

Eta nazioartean kontinente edo nazio multzo baten eragina azpimarratu behar badugu Amerika da hori. Kontuan izanik XIX. mendean euskal probintzietatik Ameriketara zenbat lagunek emigratu zuten eta horiek honantz ekarritako aberastasuna nolakoa izan zen, zalantzarik gabe aparteko tartea merezi du honek gure lanean. Kontuan hartu behar dugu, gainera, aztertu ditugun sei bertsolarietatik bat, Pedro Mari Otaño, emigrante izan zela Ameriketan. Hiru aldiz joan zen hara eta hil ere, han egin zen.

Bi eratako edo bi mailatako eragina du, gure ustez, Amerikak: batetik, emigrante izateak krisi pertsonala sortzen du eta emigrante direnek identitate krisi pertsonal bati egin beharko diote aurre. Bestetik, Amerikak XIX. mendean gertatu ziren hainbat independentzi prozesurekin eragina du beste herrietan ere antzeko prozesuak bizitzeko gogoa piztuz batzuetan.

Pedro Mari Otaño adibide egokia dugu lehenengoari buruz hitz egiteko. Krisi pertsonala bere hezur-haragitan bizi izan zuen. Berak bizi zuen krisi pertsonaletik[1880] ateratzeko heldulekuak identitate kolektiboan bilatuz erantzuten saiatu zen. Norbere putzuan besterik aurkitzen ez zuela eta, kanpora atera behar izan zuen erreferentzia bila. Bere osaba Joxe Bernardori egin zizkion bertsoetan,1889an, 32 urte zituela, honela zioen:

[1878] Lehen ere hitz egin dugu bertso hauetaz. Ikus 3.2.7.3. puntuan.
[1879] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 108. or.
[1880] Krisia abagune bezala ere ulertu behar dugu.

> *"Zer kontatuba pranko badaukat / ondo esango banitu, / bañan guztiyak karta batian / eziñ litezke kabitu; / sekulan ez naiz oraiñ aldiyan / beziñ nastuba arkitu, / Joxe Leoni galde bizaio, / notizi denak ark ditu.*
>
> *Ai, zer ote da goitikan beera / gizona beiñ amiltzia! / Beñere ez naiz arrua izan, / bañan au da umiltzia. / Ez nuben uste bazeikiala / gaizkiyago ibiltzia, / azken aldera erematxatu / zait len nedukan iltzia "*[1881].

Eta hurrengo bertsoan: *"Rosario'tik Córdoba'raño / Joxe anaiarengana / joanta, izan naiz lau illabetez, / bizi naiak eramana; / osasuna ta esperantza zan / aruntzian neramana; / oso estutik eskapatu naiz, / iya galdu nuben dana"*[1882].

Otañok bertso sail berean kontatuko digu, gaixorik dagoela, anaiaren herri eta etxetik arrebaren herri eta etxera nola doan, Córdobatik Rosariora. Ameriketan senide bat baino gehiago zituen Pedro Mari Otañok, beraz. *"Nerien aldamenera"*, zehaztuko du: *"Zizurkildikan Madrilla aña / bide gutxi gora-bera, / ni engañatzen ez banaiz, dago / Córdoba'tikan onera; / anaia Joxek lagundu zidan / kotxiarekiñ trenera, / anparo billa etorri nediñ / nerien aldamenera"*[1883].

Ameriketan zen bigarren aldi hartan, beraz, sentitu eta kontatuko digu Pedro Mari Otañok bizi zuen krisi egoera: bai osasunari dagokiona, bai zentzuari dagokiona –nahastua aurkitzen dela esango digu-. Non bilatuko du erremedioa? Etxekoengana joko du sendagai bila.

Pedro Mari Otañok berak, Donostian bueltan dela, "Amets bat" izeneko konposizioan, 1891n, gaztetan Ameriketan pasatako une gogorrei erreferentzia egingo die, ez ditu, beraz, berehalakoan han bizitakoak ahaztuko: *"[…]oso gazterik arkitu nintzan / Amerikako Panpetan, / ta bizimodu txit erosua / iduki arren an bertan, / nere biyotzak etziran uzten / sekulan ere paketan, / iduri zuben berriz eguak / neukazkiyela anketan; / esaten da bat bizi leikela / ondo alderdi danetan, / -bai asetzia beste gauzarik / ezpadu artzen arretan-; / bañan gizonak odol pixka bat / baldin badu erraietan, / eta txikitan bizitu bada / esan dan modu aietan, / egunaz zerbait atzendu leike / darabilzkiyen lanetan, / bañan pentsatzen jartzen danian / bakardadian gaubetan, / zenbateraño supritutzen dan / nik ondo progatu det an: / iñola ezin pentsatu nuben / nere lurrian bestetan, / eta ara zer gerta zitzaidan / arrats batez ametsetan"*[1884]. Kasu honetan, bere ezinegonaren arrazoi nagusi gisa edo erantzule, edo gutxienez ezinegona areagotzearen arrazoitzat bera jaio zen

[1881] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 184. or.
[1882] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 185. or.
[1883] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 186. or.
[1884] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 340. or.

lurretik urruti egon izana adieraziko du[1885]. Krisi pertsonalaren erantzule, neurri batean, bere ingurunetik urruti egon izana egingo al du horrela?

Beste emigrante batzuen ahotan ere jarriko du jaioterriarekiko maitasuna Pedro Mari Otañok. 1900. urtean "Nere kabiya" bertso saila idatzi zuen baztandar bati eskainia. Bertso hauetan haren ahoz hitz egiten du: *"Elizondoko uri / maite ta laztana, / ona seme bat zutzaz / aztuko eztana. / Beti eskatzen nago / Jaungoikoagana, / ill baño len eraman / nazala Baztana"*[1886].

Gauza bera egingo du bi tolosarri buruz hizketan ari dela. 1906an, "Biyotza" konposizioa prestatu zuen[1887]. Luzio eta Eujenioren arteko elkarrizketa jasotzen du bertan Altsasun, Gipuzkoan sartzeko daudela. Tolosa aipatzen dute erreferentzia gisa:

> *"Luziok Altsasun: / Orra iritxi, ementxe gera, / Eujenio, biyok Altsasun, / esan zaidazu zure biyotza / barrenen kabitzen zaizun. / Aurki Tolosan… O, Jaungoikua! / Nik onenbeste ondasun! / Amets ote dan galdezka nago, / ez dakit nola erantzun.*
>
> *Eujeniok: / Aspaldiyetan biyok gendukan / onera etorri naia, / gure biyotzak pozkidatzeko / oraiñtxen dator garaia; / begira zagun, ara or bertan / Gipuzkoako arraia… / Trena badator, igo gaitezen, / guazen lenbailen, anaia.*
>
> *Biyak: Aurki Aralar atzian utzi / ta Tolosan gera laster, / alderatutzen ari gerade / gure Jainkuari esker; / ara or gure Paradisua / ama on bat beziñ eder, / bildurrez nago pozaren pozez / egiñgo ote deran ler"*[1888].

Kasu honetan, Elizondo eta Tolosa aipatuko ditu. Emigranteak beren udalerriez gogoratzen dira, horiek aipatzen dituzte nagusiki.

Bertso hauetaz gainera, 1899an idatzitako "Zugandik urruti" konposizioan, Ameriketara egin zuen lehenengo bidaiaz ari dela, Ameriketara joateak nolako hutsunea sortarazi zion adierazten du. Guk ulertzen dugunez, giza harremanik gabe eta bakarrik aurkitu zen han, arestian aipatu duguna esplizituago azalduz:

> *"Aita, amatxo ta lur maitea / utzirik urruti junak; / zertako ditut ugaritasun / eta aberastasunak?*

---

[1885] Nahiz eta gero bertso hauetan Donostia aipatu batik bat, eta ez Zizurkil.

[1886] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 32. or.

[1887] Bertso sailaren hasieran erreferentzia egiten dio Iparragirreri, sarreratxo gisa, bere bertsoetatik aparte, honakoa jarriz: *"Ara non diran mendi maiteak, / ara nun diran zelaiak… / Iparragirrek Endaian"*. ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 166. or.

[1888] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 166. or.

*Zertako ditut pozik gabeko / gezurrezko ontasunak? / Egarririkan illtzen ez duten / gurutzeko beazunak.*

*Zu utzitzean, nere biotza / egin zitzaidan bi parti; / geroztik non-nai arkitutzen naiz / doakabe ta bakarti.*

*Esna ta lotan, gau eta egun, / zutzaz oroitutzen beti; / Ama, barkatu! (bis) / Ni eziñ neike bizi / zugandik urruti"*[1889].

1904ko "Amatxo laztana" bertso sailean ere ideia hau azpimarratuko du: *"Ama, aita, lagunak, / erri maitatuba, / aiñ nago zuengandik / urrutiratuba! / Eri daukat biyotza, / penaz nekatuba, / eta falta zait emen / zeñek sendatuba"*[1890].

Pedro Mari Otañok herriminaren indarrez sortutako bertso esanguratsuenetako batzuk, 1900. urtean osatutako "Amerikako panpetan" bertso saileko parte direnak ditugu. Hirugarrenez Ameriketan zela idatzitako bertsoak dira hauek. Bertan, Ameriketan dagoelarik, Euskal Herriaz nola gogoratzen den kontatuko digu, baina argentinar paisaiako elementuren bat bere afektuen tarteko ere eginez. Bertsoetan jarraitzen duen ordena aurrena Euskal Herriaz hitz egin eta gero Amerikaz hitz egitea izango da. Guk alderantziz aztertuko ditugu: Ameriketan dagoela, zertaz oroitzen den adieraziko digu. Berak enfasia Euskal Herrian jartzen zuen bitartean, guk Ameriketan jarriko dugu. Zein ote zen Pedro Mari Otaño indar handiagoz bizitzen ari zen errealitatea?

*"2/[…] / Oraiñ artzantzan Ameriketan / arrantxo baten onduan, / eguna pasa larrian eta / jiratzen naizen orduan, / nire begiyak gozatzen dira / aldameneko ombú'an.*

*3/Ainbesteraño tristetutzen naiz / eremu zabal oietan, / arbolak, mendi eta errekak / falta diran zelaietan, / non etorri ta eseritzean / ombútzar onen zañetan, / edo igo ta osto tartian / bere adar bikañetan, / ene, amatxo!, nik nola esan / zenbat gozatutzen detan!*

*4/Txabol ondoko ombú laztana, / maitatzen zaitut gogotik, / eta biyotza erdibitzen zait / joatian zure ondotik, / nire burura ekartzen dezun / oroimen gozuagatik. / Zure itxura ikusi nai det, / ez dizut eskatzen frutik, / ni emen bizi naizen artian, / arren, egon zaite zutik!*

*5/Nire lagunik maitatuena, / ombú laztana, zu zera, / argatik nator zure kolkora / ni malkuak isurtzera, / iduriturik naramazula / atariko intxaurpera… / Beti izango*

[1889] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 14.-15. or.
[1890] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 111. or.

*zaitut goguan, / bañan joan nai det ostera / Euskal-lurreko arbolpe artan / nere ezurrak uztera"*[1891].

Bertso hauetan, Pedro Mari Otaño ikusten duenaren deskribapena egiten baino gehiago, ikusten duenaren eta oroitzen duenaren arteko konparaketa azaltzen saiatzen da. Onbua izango da bi paisaien arteko lokarri: onbua izango du bere oroimenean duen paisaiarekin lotuko duen elementu erreal nagusia eta, horregatik, honi helduko dio indartsu.

Eta hasierakoan berriz, honela dio, Ameriketan izanik ere, irakurlea Euskal Herrian kokatuz:

*"1/Euskal-Erriko lur maite artan / jaio nintzan baserriyan, / itzal aundiko intxaur arbol bat / dago gure atariyan; / aren ondotik irten da noiznai / maldako gaztañariyan, / edo sagarrik onenak jaten / luberriko sagastiyan, / arbol tartian bizitu nintzan / gazte denbora guztiyan"*[1892].

Bigarren bertsoak eskenatoki batetik besterako trantsizioa markatzen du, azken punturako "onbua" utziz eta protagonismoa emanez:

*"2/Denak utzi ta etorri nintzan, / lur au ikusi nai nuan! / Aritz tantaiak, pago lerdenak / nola ez izan goguan! / Oraiñ artzantzan Ameriketan / arrantxo baten onduan, / eguna pasa larrian eta / jiratzen naizen orduan, / nere begiyak gozatzen dira / aldameneko ombú'an"*[1893].

Onbua eta haur zeneko intxaurrondoa lotu egiten ditu Pedro Mari Otañok, edo hobeto esanda, onbuak eraman egiten du haur zeneko intxaurrondora. Gorputzez Ameriketan eta gogoz Euskal Herrian dagoela esango digu.

Txikitako oroitzapen haietaz jaiotza lekua, baserria, gogoratzen du eta baita zuhaitzak ere. Argentinako panpako paisaiarekin bizi izandako kontrasteek izan zuena eta orain ez duena gogoratzera bultzatu dute Otaño. Hirugarrenez Ameriketara joatera beharturik, Pedro Mari Otañok integratu eta barneratu egiten ditu Amerikako bizipenak bere unibertsoan.

Baina Amerikan bizi beharra onartzeak ez du esan nahi Euskal Herriaz ahaztea onartuko duenik, etsiko duenik. Eutsi egingo dio herriminari, eta hala gomendatuko dio bere lagun min bati ere. 1905eko bertso batzuetan, "Nire adiskide Bonifazio Latxa-ri sendagaia" izenekoetan, herriminez aurkezten du Otañok

[1891] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 63. or.
[1892] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 61. or.
[1893] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 61. or.

Bonifazio bere laguna. Zein da sendagaia? Jaioterrira bueltatzea. Bitartean, ezinegon hori sortzen dion arantza ez kentzeko eskatzen dio Otañok:

> *"Bere gaitzaren sendagai billa / neregana dator Boni, / eta nik eziñ uka neioke / al deranik lagun oni, / bañan oinbeste samintasun da / oñaze, sugar ta agoni, / nola nai dezu nik kendutzia, / zu bezela banago ni?*
>
> *Boni, txit ondo ezagutzen det / zuri gertatzen zaizuna, / aiñ aundiya da zuk biyotzian / senti dezun naitasuna, / oroiturikan biziya eta / bularra eman zizuna! / Bañan, ai! Boni, au ez da gaitza, / au da gure osasuna.*
>
> *Egiya da, bat eziñ etsiyak / errukigarri jartzen du, / zergatik bere oroitz gozuak / eziñ dituben atzendu; / ala ere, Boni, ez dezazula / arren arantz ori kendu, / kupigarriyak giñake egiyaz / naitasunik ez bagendu.*
>
> *Asko ikusten dira lur ontan / beste aldera emanak, / non sortu ziran eta nor diran / oroitutzen ez diranak. / Zertako dira naitasun gabe / diru, jan eta edanak? / Zu ta ni baño gaizkigo bizi / dira orrelako danak.*
>
> *Txorakeriyak dirala oiek / aditu arren askori, / etzaitezela, Jainkuagatik, / alde ortara erori. / Beti nai izan biar diyogu / zuk ondo dakizu nori, / kutun bat balitz bezela gorde / zazu arantz santu ori.*
>
> *Ez dezagula gugandik utzi, / arantza onekiñ gabiltzan; / ori gaberik biyok giñake / txit negargarrikeritzan. / Egunen batez bera joango da, / Boni, ez bildurrik izan, / lur maiteari muñ ematian / Iparragirreren gisan"*[1894].

Bertso hauen arabera ikus dezakegu ez zutela emigrante guztiek jarrera bera herriminarekiko: batzuek mantentzearen alde egiten zuten bezala, beste batzuek, dirudienez, jaioterria ahaztearen hautua egiten zuten. Pedro Mari Otañok lehenengoaren alde egingo du.

Pedro Mari Otañok berak Amerika errealitateak handiagotzen dituen "ispilu" bezala deskribatuko digu, Osaba Jose Bernardori 1889an kartaz bidali zizkion bertsoetan:

> *"Beron gañian izaten dira / gure izketa geienak, / nola ez ditu maiz aipatuko / onenbeste nai diyenak! / Guretzat oraiñ aundiyak dira / orko gauzik txikiyenak. / Au esaten det jakiñ dezaten / lenago etzekitenak.*
>
> *Lenago anbat aiñtzat artzen ez / ginduzen gauza guziyak, / aiñbesteraño edertzen ditu / oraiñ eziñ ikusiyak; / Euskal-erriko mendi ta zelai / ibai, arkaitz ta sasiyak, / beñere eziñ aztu litzake / aien tartian aziyak.*

---

[1894] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 152.-153. or. *"Non sortu eta nor diran"*, ezinbestean lotzen ditu Pedro Mari Otañok biak.

> *Gu geienian gabiltza emen / esna ere ametsetan, / beti pentsatzen berongan eta / Euskal –erriko gauzetan. / Askok diyonez, bizi gerade / txit toki aberatsetan, / bañan ez dago Donostiyarik / gure lurrian bestetan"*[1895].

Atrakzio parke zaharretako ispilu desitxuratzaileen antzera, Amerikako "ispiluak" itxuraldatu egingo dio errealitatea hautemateko modua Pedro Mari Otañori, eta jaioterria "gure lur" bezala berrizendatzera eramango du honek. Bertso sail honetan bertan aurrerago ikusi ahal izango dugu, Amerika, gauzak handiagotu soilik ez, errealitatea eta ametsa nahasten laguntzen duen ispilua ere badela Pedro Mari Otañorentzat: "*Urruti zaude eta zalla da / ni zugana irixtia, / onenbeste nai dizun batentzat / zer bizimodu tristia! / Alaipire bat bakarra daukat / ametsetan sinistia: / zu ikusteko noiznai asko det / nere begiyak ixtia*"[1896].

Antzeko ideia jarriko du 1907ko "Lora" operako pertsonaien ahotan. Agiri kezkatua dago Araz Ameriketan dagoelako. Gaintza, Lora eta Aldunek honela esaten diote: "*Araz etorriko da / indarberriturik, / sorterriya len baño / geigo* (sic) *maitaturik; / Amerikan gutarrak / daude beroturik, / eta aritz santuba / legetzat arturik, / aurki emen degu ta / ez euki ardurik*"[1897].

Baina Amerikak, bertara joaten diren emigranteengan krisi pertsonalak sortarazteaz gainera –eta krisi hori leku batera edo bestera emigrante doanari berdintsu gerta dakioke, ez da prezeski Amerikak eragina, beraz-, beste eragin bat ere izan zuen bertara joan ziren emigranteengan eta baita Europako hainbat alderditan ere. Ameriketan hainbat naziok bizitako independentzia prozesuek akuilu gisa jokatu zuten hainbat emigrante euskaldunengan. Horrelakorik jaso dezakegu behintzat Pedro Mari Otañoren bertsoetan.

Pedro Mari Otañoren ahotan, Ameriketan dauden euskaldunek izan behar dute lehenengoak Euskal Herriaren askatasunaren alde egiten. Horrela dio "Laurak Bat" bertso sailean. Argentinako Buenos Airesko euskal-etxean: "*Eskatutzen dizutet, / anai ta lagunak, / laster buka ditezen / lotsazko egunak; / Amerika librean / gauden euskaldunak, / lenbiziko ojuba / eman zagun, jaunak*"[1898].

Pedro Mari Otañok Ameriketako euskaldunen eta euskal herritarren patua elkarloturik ikusten ditu. 1904ko diskurtso batean, Amerika eta Euskal Herriko egoera konparatzen zituen:

---

[1895] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 187. or.
[1896] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 188. or.
[1897] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 294.
[1898] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 140. or.

> *"Allí la juventud se aúna con inquebrantable decisión; aquí el corazón de nuestros hijos vibra al unísono con el de sus agobiados hermanos; allí se enseña el euskera en varios colegios; aquí no se tardará en hacer lo mismo, puesto que el idioma es antorcha muy eficaz para conservar el fuego sagrado que, pese a quien pese, no se ha de apagar mientras exista el mundo.*
>
> *Otras obras de mérito, que ponen de relieve los elevados y humanitarios sentimientos de nuestra raza, se están llevando a cabo allá y en esta República"*[1899].

Amerikarekiko distantzia erlatiboa da, beraz, Pedro Mari Otañorentzat. Unamunoz ari den bertso batzuetan Unamuno Salamancan egonagatik eta bera Ameriketan, Euskal Herritik hurbilen nor ote dagoen zalantzan jarriko du Pedro Mari Otañok:

> *"Jakiñik orkuak zer / tirri dabilkiten, / beñere ez dutelako / egirik jakiten, / etziñan nekatuko / lan oiek egiten, / ez baziña gaurdaño / Bilbaotik irten.*
>
> *Bilbaotik irten ta / Salamanka-raño!... / Noraño joan zerade / zu, Migel, noraño? / Gu etorriyagatik / beste mundu raño, / uste det alderago / gaudela zu baño"*[1900].

Horretaz gain, ohikoa zen Ameriketara Euskal Herritik jendea eramatea han hainbat erakustaldi egiteko, distantzia fisikoa ere gutxituz. Adibidez, pilotariak. Txirritak hala esaten digu, Villabonako pilotari bati buruz: *"Premiatuak izandu ziran / Amerika'ko partian, / estimatuta ibilli zuten / kaballeruen artian; / ankaz listo ta begiyak erne, / beti koraje fuertian, / orrelakorik ez da atera / juan da larogei urtian"*[1901].

Pello Errota bera ere Ameriketan izan zen, Ameriketara eraman zuten han kantatzera: *"Pello bertsolariya / guztizko pijua, / ez dauka semia're / nolanaikua. / Gaztia dalarika / soma* (sic) *aundikua, / aitak berriz diruri / kasik Jaungoikua. / Gizona bapua, / eztago plakua, / izdun galakua, / pare gabekua; / orain Amerika'ra / omen dijua"*[1902].

1910ean, "Euskaldunak Arjentinan dierri onen lokabetasunaren lenengo eunkimugan" [1903] bertso saila osatuko du Pedro Mari Otañok. Argentinaren independentziak eraginik ba al zuen Euskal Herriaren independentzi eskabidean? Nabarmentzekoa da zein desberdin hitz egiten duen hamabi bat urte lehenago Kubaren independentziaren alde ari ziren haietaz, eta orain, Argentinaren independentziaren alde borroka egin zuten haiek gogoratzean. Besteak beste, Pedro

---

[1899] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 131. or.
[1900] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 109. or.
[1901] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 262. or.
[1902] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 271. or.
[1903] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 192.-196 .or.

Mari Otañok Espainiari aitortzen dion papera eta bertan euskaldunek duten tokia, erabat desberdina da orain[1904]. Pozik hartuko du Pedro Mari Otañok Argentinaren independentziaren ehungarren urteurrena:

> *"Zer gertatzen da Buenos Airesen, / zer Arjentina guztiyan? / Zeri zor zaio alaitasun au / gure bigarren erriyan, / ta gure seme euskalkumeak / jaio ziraden tokiyan? / A, nola denok ez pozkidatu / gaur ospatzen dan eunkiyan?*
>
> *Eun urte dira dieronde au, / ume zana gizondurik, / lengo gidari eta iñudeak / alde batera kendurik, / zutitu zala kitapetzeko / asmo sendoz goiturik, / ta gaur munduba begira dauka / bera danaz arriturik.*
>
> *Oraiñ eun urte zan maiatzaren / hogei ta bigarrenguan, / nola erri au besteren mende / txit aspertuba zeguan; / bertako seme ausarditsuak / batzarrean <kabilduan> / bildu ziraden, menpetasunak / astindutzeko asmuan"*[1905].

Politikoak eta herria aipatu eta bereiztu egiten ditu Pedro Mari Otañok Argentinaren independentzia prozesuaz hitz egiterakoan. Argentinako politikariek espainiar erregeordeari askatasuna nola eskatu dioten kontatzen digu eta herriaren berotasuna azpimarratzen du aldi berean, baita honek erakusten duen nahiaren indarra ere espainiar erregeordeak erabakia hartzeko garaian:

> *"Erregeordeko edo <virreya>, / Españaren aurkeztari, / Cisneros jauna arkitutzen zan / lur onetan agintari; / ta gizon portitz biotztsu aiek / esan ziyoten berari: / <Jauna, loturak kentzera gatoz / gu sortu giñan lurrari>.*
>
> *Gizon gidari zentzudun aiek / ontan zeuden bitartian, / zebillen, <Venticinco* (sic) *de Mayo> / deitzen dan plaza batian, / zintzo ta zorrotz begiratubaz, / kabilduaren atian, / erri geiena, bere biziya / jokatutzeko ustian.*
>
> *Arkiturikan inguratuba / jende sutsu eta beroz, / ta nabaiturik plaz'aundi ura / estaliya erdi-eroz, / bere buruba eskukatubaz / txokoratu zan Cisneros; / Arjentinak ez du nagusirik / au gertatu zan ezkeroz.*
>
> *Maiatzak hogei ta bost zituban, / egun goguangarriya! / Ura odolen irakitea, / ura biyotzen larriya! / Sortaldetikan eguzki gozo, / paketsu, maitagarriya, / igo zan geldi-geldiro emen / ixuriz bere argiya."*[1906].

Bertso sail berean, independentziaren edertasunaz hitz egingo du Pedro Mari Otañok, eta gehiago, modu baketsuan lortutakoan:

---

[1904] Berrikus 3.2.7.2. atala.

[1905] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 192. or.

[1906] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 193. or.

*"Gogaikarrizko morroitasunak / alderantzirik goi ta be, / len menpetubak zeuden semeak / arkitu ziran lokabe; / eguzki alai aren azpiyan, / odolik ixuri gabe, / zer gauz'ederra gelditutzea / beren burubaren jabe!*

*Eronde berri bat osaturik / bertatik gizon zuzenak, / bederatzi jaun izandu ziran / izendatutako denak; / oien artean iru gutarrak, / gogoan daude izenak, / euskal odola beren zañetan / garbiro zeramatenak"*[1907].

Pedro Mari Otañok azpimarratuko duen beste gauzetako bat, bai aipatu dugun azkeneko bertsoan, bai datozenetan, euskaldunak argentinar gobernuan izatea da. Datu honek ez du Pedro Mari Otaño gehiegi harrituko euskaldunen balio eta trebetasunak ongi ezagutzen ditu eta. Euskal emigranteen goratzarrea egiteko aprobetxatzen du, beraz, Argentinaren independentziaren ehungarren urteurrena. Euskal emigrante libre, jator eta langilearen irudian sakontzen du horrela[1908]:

*"Ez da iñolaz arritzekua / iru bederatzitatik / buruzagitzat autatutzea / Tubal'en semietatik, / nola jator dan oiek lan ura / ontzat artzea bertatik, / zeren arraz'au beti librea / izan dan asieratik.*

*Omen aundiko zenbait euskaldun / argiraturik lenago, / zenbateraño goititu ziran / kondairan jarriya dago; geroztik ere iñor ez da igo / gutarrak bañan gorago, / beren izenak dira lan ontan / jar leizken baño geiago.*

*Ez Arjentinan bakarrik, baizik / beste dierri askotan, / txit jakiña da euskal semeak / Amerika zabal ontan / beren ekintzaz mirarizturik / nola dauzkaten abotan; / au ikusirik poztutzen gera / gu bein baño geiagotan.*

*Lege-emalleak, araujakiñak / eta gudari trebeak / merkatari ta nekazariyak, / larre ta elejabeak, / otsankidari ta sendakiñak / langille paregabeak, / lur eder ontan ziran ta dira / beti Aitorren semeak"*[1909].

Euskaldunek Argentinari dioten maitasuna ere azpimarratuko du: *"20/Gure bigarren bizitegiyan / izerdi asko irtenaz, / jarraitu degu txit luzaroan / ondo, gaizki, pozez, penaz; / ondorengoen sorterri on au / laztandutzen degu benaz, / beste zenbaitek maitatuko du, / bañan guk ainbat geienaz"*[1910].

Argentinaren inbiditan izango dira euskaldunak. Bertso sailaren azken bertsoak honela dio: *"22/Bukatu ziran emengo leiak, / aitu ziraden auziyak, / ta zer ederki*

[1907] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 193.-194. or.
[1908] Hurrengo atalean gehiago sakonduko dugu Pedro Mari Otañok proposatzen duen euskal izaeraz.
[1909] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 194. or.
[1910] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 196. or.

*egaatzen* (sic) *duban / libre dagon egaztiyak! / Denok maitaro agurtzen degun / maiatzeko eguzkiyak, / aska ditzala euskal lurra ta / katibu dauden guztiyak"*[1911].

Pedro Mari Otañok ordea ez du okasioa alferrik galduko eta euskaldunek Argentinan izan duten eragina argitan jartzen saiatuko da. Zertan egin du aurrera Argentinak azken ehun urteetan? Hobekuntza honetan izan ote zuten zerikusirik euskaldunek?

> *"15/Oraiñ eun urte ta askoz geroztik / jatxi ziranak lurpera, / burubak jaso ta begiratu / al balezate onera, / gaur ez luteke sinistatuko / au dala lur ura bera, / zergatik gauzak aldatu dira / arratsetik egunera.*
>
> *16/Lengo eremu zakartsu asko, / gaur jantzirik belar berdez, / ikusten dira beteak zaldiz, / abelgorriz eta artaldez; / bukaerik ez duten soroak / artoz, gariz, nai dan alez, / inguratubak, beren bordakiñ, / jauregiz eta etxaldez.*
>
> *17/Len txabolikan etzan tokiyan / erri politen biziya / agertutzen da, sal-erosiko / etxe bikañez jantziya; / burnibideak alde danetan, / non-nai uri bereziya, / ta Buenos Aires danen gañean, / euskaldun batek asiya"*[1912].

## 3.3. Laburbilduz

Hasieratik garbi adierazi nahi dugu atalik konplexuena gertatu zaigula hau: bai bertsoak interpretatzeko orduan, baina batez ere, azalpena idatziz egituratzeko orduan. Lehenengo kasuan, aztertutako bertso sail eta bertso kopuru handia izan daiteke konplexutasun horren arrazoietako bat. Bestea, berriz, gizarte eta politika gaiei lotutako aspektuak asko eta askotarikoak izatea. Konplexutasunaren hirugarren arrazoi bat, XIX. mende eta XX. mende hasieran aldaketa asko eta garapen handia izandako alorra izatea. Eta bukatzeko, interpretazioa zaila gertatu zaigu bertsolari bakoitza alor honi dagokionez non kokatu ikustea ez zaigulako erraza gertatu: modernizazio aurreko, trantsiziozko edo eszenatoki modernoan kokatzerako orduan, tarteko egoera asko topatu ditugu. Agian, guk arrazionalki bereiztu nahi izan ditugun hiru agertokiak ez zirelako hain argiak.

Azalpena zergatik gertatu zaigu zaila? Hainbat arrazoirengatik. Baina nagusiki, azalpena egituratzeko orduan protagonistek bizi izan zituzten prozesuen ordena eta hurrenkera berritu nahi izan ditugulako. Doktorego tesiko zuzendariaren laguntzaz ikusi ahal izan dugu azalpenak egituratzeko orduan irakurleak modu argienean ulertzeko moduan azaldu behar ditugula gauzak, eta ez dugula zertan aktore edo

---

[1911] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 196. or.
[1912] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 195. or.

protagonisten bizipenen ordena edo logika gure azalpenean berreraiki beharrik –hori posible balitz bezala!-.

Ohar honen ostean, zer da atal honetan ikasi duguna? XIX. mendeko modernizazio eta industrializazioak eragin aurreko eszenatokia eta trantsiziokoa bereiztu ditugu bederen. Zailagoa egin zaigu helmuga gisa hirugarren agertoki bat irudikatzea. Ez dugu beste ataletan bezala joera nagusi bakar bat identifikatu –ekonomian kapitalismoaren indarra, demografia eta familian familia nuklearra gailentzea, edo mentalitate eta irudikapenen alorrean sekularizazioa eta identitatearen gaiaren garrantzia ikusiko ditugun bezala-. Izatekotan, herriak politikan hartzen duen protagonismoa eta aniztasun politikoa –Estatu-nazioen eraikuntza prozesuen baitan formulazio posible anitzak- azpimarratuko genituzke.

Zein litzateke, beraz, industrializazioak eta modernizazioak eragin aurreko eszenatokia? Zeintzuk bere ezaugarriak? Ekonomiaz eta demografia eta familiaz hitz egin dugunean esandakoak hona ekarriz, etxeak –eta ezkontzak- gizartean zuen funtzio egituratzailea gogoratu beharko genuke lehenengo. Ez ditugu, ordea, han esanak errepikatuko. Etxeak nola lotzen ziren batzuk besteekin? Nola artikulatu etxeaz haratagoko errealitatea? Aztertu ditugun bertsoen arabera, XIX. mendeko Gipuzkoan udalerriak elementu giltzarriak ziren gizartearen artikulazioan. Udalerriak errealitate paradoxikoak ziren itxuraz desberdinak ziren baserria eta kalea artikulatzen zituztelako: errealitate paradoxikoa bai, baina ez baztertzailea, lotzailea baizik. Udalerriek –bertako biztanleek- dinamika eta estrategia propioak zituzten harremanak bizirik mantentzeko: barrurako indarrak ziren batzuk, kanporakoak besteak. Barrurako indarren artean, familiko, auzoko edo lagunekin janaren eta edanaren inguruan indartzen diren harremanak, lanean sendotzen diren harremanak, herriko jaiak, eta praktika erlijioso zenbaiti lotuak –herri gisa, elkarrekin egindako erromesaldiak azpimarratzen dituzte hainbat bertsolarik- ikusi ditugu. Kanporako indarren artean, berriz, udalerri bat bestearekin neurtzeko abaguneak azpimarratu nahi genituzke: apustuak, batez ere. Kolektiboari begira, udalerria oinarri duen komunitateri halako garrantzia ematen dion artikulazio sistema honek ere izango ditu bere kostuak: elkarrengatik gaizki-esaka aritzea, inbidiak, zurrumurruak, eta elkar auzitara eramatea, besteak beste. Komunitateari eusteko aipatutako dinamiken gehiegikeriek ere –edanarekin eta jokoan batez ere- arazo bat baino gehiago ekarriko dizkiete XIX. mendeko gipuzkoarrei. Udalerri hauek gobernatzeko oinarrizko botereak, maila lokaleko erakunde eta pertsonak, udalbatza eta alkatea ziren batetik eta beste era batera, apaiza, ere kontuan hartzekoa zen.

Udalerriez gain, eta beti ere guk aztertutako bertsolarien lanetan oinarrituta, hiri edo ziudade nagusi bat bereizten zen XIX. mendeko Gipuzkoan: Donostia. Horri buruz nola hitz egiten dutenaren arabera, harekiko zuten hurbiltasun edo urruntasuna erakutsiko digute bertsolariek. Hala ere, ez dute garaiko zenbait elizgizon eta intelektualen eran, Donostiaren irudi negatiborik zabalduko.

Zein aldaketa ekarriko zituen eszenatoki hartara XIX. mendeko modernizazio prozesuak? Asko eta konplexuak direlako, eta gehiegi ez luzatzeko asmoz, zerrendatu besterik ez ditugu egingo –gehiago nahi duenak, jo beza lana bera irakurtzera-. Ohar hau egin nahi genuke, ordea: gure ustez, indar ezberdinek eragin zituzten aldaketa edo trantsizioak gizarte eta politika alorrei dagokienez XIX. mendeko Gipuzkoan. Biztanle guztiengan indar hauek ez zuten eragin bera izan –honen erakusle, aztertu ditugun sei bertsolariengan ere ez zutela ez indar guztiek, ez neurri berean eragin-. "Ad hoc" egin beharko genuke bertsolari bakoitzaren kasuan ia, eragina izan zuten indarren zerrenda eta horien intentsitatea. Zeintzuk dira, beraz, gizarte eta politika mailan eragina izan zuten indar nagusiak, alor hau aldatu eta modernizatzea eragin zutenak?

Maila lokaletik hasita, hau da, herritar xehenen kasuan ere eragina izan zuten honako prozesu orokorrek: urbanizazio prozesuak, gizabanakoa indartzeak, sozializazio forma berriek, eta garraiobide berrien eraginez bizitza igarotzen zen espazio eta habitata zabaltzeak.

Herritar xehenek ere jaso zuten espainiar estatu-nazioaren gorabeheren berri: Espainiak irlak galduz espainiar inperioraren eta monarkiaren gainbeheraz ohartu ziren, eta, aldi berean, espainiar estatu nazioaren zentralizazioa indartzen ere sumatu zuten landa eremuan eskola eta kintak tiratzearen bitartez. Legitimitate eta identitate krisi bati ireki zion bidea egoera honek. Ordura artean Espainiar komunitatearen baitan bere burua irudikatzen zuten haiek, zein erreferente hartuko zuten orain? Udalerria, probintzia, Euskal Herria, Espainia: zeinen baitan egituratu komunitate berria? Hiru irtenbide nagusi ikusi ditugu guk aztertutako bertsolarien eskutik: sistema forala erreibindikatzea probintzia eta probintziartea hartuz subjektu politikotzat, konkurrentzialtasuna errespetatzen duen bitartean Espainiaren baitan kokatuz –Xenpelar eta Txirritak egingo dute hau nagusiki-; errepublikanismotik nazionalismorako pausoa emango duen Pedro Mari Otañoren eredua, Euskal Herria komunitate nagusitzat proposatuko duena; eta Joxe Mari Lopetegiren eredu errepublikanoa, federala, Espainiaren baitan Euskal Herria ikusiko duena.

Aipatutako ereduen arteko aukera elkarrizketa bide eta tresna politikoen bitartez gauzatzen ez dute asmatuko. Horregatik, XIX. eta XX. mende hasierako Gipuzkoan eragina izango duen beste alderdi bat gerrak bizi izatearen esperientziarena izango da. Aztertu ditugun bertsolariek ez digute gerraren kronikarik egingo: gai honetaz hitz egiten dutenean, gerraren kontra hitz egingo dute eta herriarengan honek dituen eragin kaltegarriak azpimarratuko dituzte.

Nazioartean Estatu-nazioek izango duten indarra, mundua egituratzeko modu berriaz ohartuko dira gure bertsolariak. Gehiago oraindik, Pedro Mari Otañok bezala, Ameriketara joan behar izan zutenek. Identitate pertsonalaren krisia biziko dute emigrante askok eta krisi hau, identitate kolektiboaren krisiarekin lotuko dute: lehenengoari erantzuna, bigarrenaren bidetik emango diote. Bestetik, Ameriketan hurbil izango dituzte Espainiagandik independentzia lortu zuten nazioen adibideak. Hauek jarraibide hartuko dituzte.

Hasieran esandakoa errepikatuz bukatuko dugu: kapitulu konplexua, zaila. Asmatu izana espero dugu.

# 4.Modernizazioak eragindako aldaketak mentalitate eta errepresentazio edo irudikapenen alorrean

Egungo Euskararen Hiztegiaren arabera, mentalitatea "pentsaera edo pentsamoldea" da. Nolako pentsaera edo pentsamoldea dute gure bertsolariek? Nola ikusten dute euren burua, nola ematen diote zentzua euren bizitzari? Eta hau baino zehatzago oraindik, modernizatzen eta industrializatzen ari den gizarte honetan, pentsaeran aldaketarik gertatzen al da bertsolarien artean? Guztien kasuan aldaketa berak al dira? Pentsamoldearen baitan interes berezia sortzen digun esparrua, errepresentazio edo irudikapenena da. Hau da, nola kontatu eta irudikatzen dute beren burua bertsolariek? Modernizazio prozesuak izan al zuen eraginik horretan? Narratiba berririk sortuko al dute?

Landa eremuan, komunitatearen bizipena hain garrantzitsua dela ikusi dugun landa eremu hartan, erlijioak pisu berezia izango du bizitzari zentzua eman eta gizon emakumeei bizi duten egoera zailerako –oreka ahula- heldulekuak ematerakoan. Modernizazio prozesuak, berriz, eta "besteen" –desberdinen- presentziak "gu"ari buruzko galdera nola pizten duen ere ikusiko dugu: nor gara

"gu"? Zein ezaugarri ditugu? Galdera honi erantzuna eman nahirik, hizkuntzak, euskarak, zenbaterainoko garrantzia hartuko duen ikusiko dugu aztertu ditugun bertsolari batzuengan, baita historiak edo paisaiak ere. Eta hau guztia, modernitateak bere barnean dakartzan barru-barruko mudantzak ahaztu gabe: norbere kontzientziaren piztea, norbanakoaren askatasuna betebeharren gainetik indartzea, gertakizunen kausalidadearen aurrean motiboen aldaketa –zoriaren edo Jainkozko arrazoien ordez norbere indarra eta erabakimena agertuz-, arrazoiaren eta sentimentuaren arteko elkarbizitza, eta denboraren igarotzearen aurrean pertzepzio aldaketa.

## 4.1.Erlijioaren bizipena

Aztertu ditugun sei bertsolariek egingo diote erreferentzia erlijioari baina bakoitzak bere erara. Landa eremutik hurbilen ditugun Pello Errota eta Txirritarentzat erlijioa euren bizimoduari –eta batez ere ezbehar, ezin eta heriotzari- zentzua emango diena izango da. Alderdi komunitarioak ere azpimarratu egingo ditu erlijioak haien komunitate bizitzan. Xenpelarrek, berriz, modernizazioak dakartzan eta gustoko ez dituen aldaketen aurrean –tartean sekularizazioa-, erlijioan bilatuko du helduleku segurtasun emailea. Bilintx, P.M. Otaño eta Lopetegik, berriz, erlijio hizkuntza erabiliko dute maitasunaz, Euskal Herriaz edo errepublikaz hitz egiteko.

### 4.1.1.Landa eremuan: "oreka ahulean" babes eta identitate kolektiboaren agerpen gisa

Has gaitezen modernizazio prozesuaren eragin "txikiena" izan zuten inguruetan erlijioaren bizipena nolakoa izan zezaketen aztertzen. Pello Errotarengana hurbil gaitezen horretarako. Ikus dezagun diskurtso erlijiosoak nola lagunduko duen landa eremuan bizi duten errealitateari zentzua eta koherentzia ematen. Ez zaigu berez erlijioa bere hutsean interesatzen, honen azalpen eta irudikapen gaitasuna baizik. Gogoratu landa eremuaz hitz egin dugunean hemen bizi duten "oreka ahulaz" mintzatu garela: baliabide eta beharren artean dagoen desorekaz, gosea, gaitza eta heriotzaren presentziaz, pertsonek ulertu eta kontrolatu ezin ditzaketen naturaren indarrez. Pertsonek babesa edo anparoa bilatuko dute komunitatean eta baita erlijioan ere[1913].

Mikaelak, Pello Errotaren alabak, aitarena dela dioen bertsoa da honako hau, beste batzuek Udarregirena dela diotena: *"Goizian jaiki eta / lenbiziko lana, / badakit*

[1913] Berrikus azterketako 1.1., 2.1., eta 3.1.2. puntuak.

*ziñatzia / prezisua dana; / gure biotza jaso / Jaungoikoagana, / kondenatua dago / deskuidatzen dana*"[1914]. Eta idatziz bigarren bat ere jasotzen da Tolosako Estanislao Urruzolaren eskuz idatzitako koadernoan: *"Zerua egongo da / garbi ta txukuna, / Jaunaren parajia / dana da jakiña; / an ez dute artuko / anima zikiña, / mantxatua garbitzen / egin alegiña"*[1915]. Hauxe azpimarratu nahi genuke: ekonomiaz hitz egiten genuenean "oreka ahulaz" hitz egiten genuen bezala, salbamena ere hari fin bati loturik ageri dela, edo horrela hautematen dutela, eta beharrezkoa dela honi etengabe erreparatzea, puskatzea nahi ez bazuten –indar berezia hartzen du "deskuidatu" hitzak-. Zeinu eta sinboloei loturik ageri den erlijiotasuna ere baderitzogu, sineskeriei lotu samarra, magikoa: aitaren egiteak "automatikoki" babesten ote zuen zeinua egiten zuena? Eta azkenik, salbatzea eta Zerura joatea posible bada ere, errazagoa dirudi anima zikindu eta kondenatzeak.

Zer da egoera honen aurrean kristauak egin behar duena? Adi bizi, eta gainetik dituen indarrei -Jainko, Jesus, Ama birjina gisa irudikatuei- etengabeko laguntza eta babesa eskatu, otoitzaren bidez, bereziki, eta heriotzako orduan, salbamena. Udarregi hilzorian zegoela eta, Udarregik berak Pello Errotari abisatzeko eskatu omen zuen, esan ziezaiotela zein trantzetan zegoen. Pello Errota iristerako, ordea, Udarregi hila zen. Pello Errotak honela kantatu omen zuen: *"Ojala ikusi banu / onen eriyua, / alkarri eskatzeko / barkaziyua, / animak irabazi / dezan premiyua, / eindako gaitz guztiyen / erremediyua; / utzi jeniyua / ta inkurriyua, / gure salbaziyua / da oraziyua, / erreza dezaiogun / errosaiua, / au da katolikuen / relijiyua"*[1916].

Bapateko bertso puntual horiez gainera, ordea, bertso-jarririk ere bazuen Pello Errotak erlijioaren inguruan. Bi eratakoak azpimarratuko ditugu: bertso sail bat Asteasun egindako misioei jarria du eta beste hiru, berriz, Arantzazura egindako erromesaldiei.

Asteasun izandako misioei jarritako bertsoak 1879. urtekoak dira. Bertso saileko lehenengo bertsoan denboran eta espazioan kokatzen gaitu, bertso hauek osatzean izan duen helburua adierazten digu eta Jesusi laguntza eskatzen dio hartu duen lanerako: *"Milla zortzireun irurogei ta / emetzigarren urtea, / Asteasura logratu dute / misiyua ekartea; / ondorenean gogoratu zat / ejenplo on bat jartea, / onetarako zure bear naiz, / guziyon Jesus maitea"*[1917]. Herriaren erabakiz eta herria saiatuz

[1914] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 247. or.
[1915] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 247. or.
[1916] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 249. or.
[1917] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 110. or.

ekarria izan da misioa: "*Au Zizurkillen ikusi eta / egin genduen ametsa, / Asteasura ekarritzeko / iñola're al bagentza; / erri guzia orretarako / egiña dago nobleza, / komisioa nonbratu eta / kunplitu degu promesa*"[1918]. Frantziskotarrak dira ekarri dituzten fraideak –"*Relijioso bi izan dira / seme San Frantziskorenak*"-[1919].

Zer ziren misioak zehazki? Herriz herri elizetan egiten ziren irakaspen erlijiosoak. Fraideak izaten ziren gehienetan hauek egiten zituztenak eta erlijioaren bizipenean portaera alderdiak azpimarratzen zituzten bereziki. Gizakia ahula da berez –Pello Errotak fraidearen ahotan jarriko du "*itzegin digu erakustera / etorri dala gugana; / ezaguturik gure artian / premi aundiya zeguana*"[1920]-eta pekatuan ez erortzeko gogor egin behar dio bere buruari: misioetan entzule zituzten haien jokabide zuzenak zeintzuk behar luketen eta zer ez luketen egin behar azpimarratuko dute. Pello Errotak halaxe esango digu bigarren bertsoan: "*Maiatzaren hogei ta batean / asi zaizku misiyuak, / jakin ditugu nola diraden / guretzat kondiziyuak; / gure onerako izandu dira / orien esplikaziyuak, / indartsu, arren, egin nazala / Jesusen bendiziyuak*"[1921]. Zein da azken helburua? "*Jauna alabatzen ekusitzia / zeruan nai dute danak*"[1922].

Munduaz misioetan ematen duten ikuspegia ezkorra da: "*Engañagarri bat besterikan / ez dadukagu mundua, / tentazioa nunaitik eta / iñola ezin kendua; / allegatutzen zaigun garaian / eriotzako ordua, / bear bezela pronto ez badago / aren anima galdu'a*"[1923]. Eguneroko bizitza, hau eramateko modua eta heriotza eta heriotza ondorena lotzen ditu Pello Errotak, misioan entzundakoaren arabera. Hona bertso sailak aurrera egin ahala nola esango digun: "*Aurretik asko illak dirade, / gu're ez beti biziko; / zerbait esaten asia nago / banuke adieraziko; / mundu ontako iduripenak / dirade egun gutxiko, / kuidado anima galdu ez dedin / eternidade guziko*"[1924].

---

[1918] ZAVALA, A. (eg. eta biltz): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 111. or.
[1919] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 111. or. Aurrerago beren izenak ere emango ditu: Frai Luis Arrue eta Frai Daniel Baertel.
[1920] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 111. or.
[1921] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 110. or.
[1922] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 111. or.
[1923] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 113. or.
[1924] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 115. or.

Zeintzuk dira alde batera utzi beharreko jokabide eta jarrerak fraideen iritziz? Askotarikoak dira hauek aipatuak[1925].

Lehenengo egiten dutena komertzioaren kontra hitz egitea da: *"ez segitzeko komertzioan / guk mundurako tratuan; / anima garbi idukitzeko / zuzenian da kontuan, onetarako konbeni dana / Jaunaren beldur santuan"*[1926].

Gurasoak eta hauen eginbeharrak ere hartuko dituzte hizpide misioa ematera etorri diren fraideek, fedearen transmisioan duten garrantzia azpimarratuz, besteak beste: *"Obligaziyo askoren mende / bizi gera gurasuak, / prezisamente guk azi biar / aur inozente gaixuak, / erakutsiaz nola diraden / Jesukristoren pausuak; / gañerontzian guretzat datoz / kastigu izugarrizkuak"*[1927]. Gurasoen betebeharra izango da haurrei bataioa, zer jana eta jantzia eman eta dotrina erakustea, eta hala eginez gero, lasai egoteko moduan izango dira.

Gurasoen eginbeharrez hitz egiteaz gainera, seme-alaben obligazioez ere hitz egingo dute misiolariek: *"Seme-alabak bizi dirade / ordena onen mendean, / aita ta ama errespetatu / bear dan umildadean; / al duen gaiaz sokorrituaz / ezintuera diranean, / berak nai badu ala izatia / artaratutzen danean"*[1928]. Ongi portatu behar dutela azpimarratuko dute, eta, nolabait, gurasoek seme-alabei ematen dizkieten zigorrak gogora ekarriko dituzte Jainko aitak eman diezazkiekeenak ikusarazteko: *"Premi danean lagundu ondo / aitari eta amari, / bestela ofensa egingo zaio / guziyon jabe Jaunari; / erreparatu deiola ondo / atal buruko kanari, / kastigu aundiyak etortzen zaizka / gaizki portatzen danari"*[1929].

Misiolariek "eskandalosoen" kontra ere bereziki hitz egingo dute, tartea eskainiko diete. Nortzuk dira hauek? Bazterrak nahasten ibiltzen direnak, jendea "galbidera" eramaten dutenak: *"Eskandaloso guziak dira / etsaien aiudanteak, / engañatutzen ibiltzen diranak / pertsona inozenteak; / zabalik beti utzitzen dizka / okerrerako ateak, / desprezio au ez du merezi / Jesusen borondateak"*[1930]. Eta zehatzago: *"Pertsona eskandaloso batek / anima asko galtzen du, / zeru bidean dagona ere /*

[1925] Konturatu etengabe ari garela azpimarratzen fraideen ikuspegia dela batez ere Pello Errota testigu gisa "neutralki" jasotzen saiatzen ari dena. Aurrerago esango dugu, gure iritziz, Pello Errotak gauza hauei guztiei buruz zer pentsatzen duen.

[1926] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op.cit., 111. or. Ekonomiaz hitz egin dugunarekin lotua dago hau. Ikus azterketako 1.3. puntua.

[1927] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 113. or.

[1928] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 114. or.

[1929] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 114. or.

[1930] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit. 114. or.

*infernurako jartzen du; / bere anima etsaietara / orduan entregatzen du, / etziñake zu ola ibilliko / au pentsatuko bazendu"*[1931].

Elkarren arteko harremanak konpontzeko –herri loturak sendotzeko balioko du erlijioak, baita ere- dei egingo dute misiolariek eta, bereziki, mendekuaren kontra hitz egingo dute –bigarren gerrate karlista bukatu zela hiru urte besterik ez direla pasa gogoratu beharko genuke hemen agian-: *"Gure animak konsolatzera / oiek zaizkigu etorri, / nola bear dan garbiro asko / dizkigute irakorri; / bengantzarikan baldin badegu / barkatutzeko alkarri, / lenago gaizki bizi giñanak / orra deskantsuan jarri"*[1932]. Eta hurrengo bertsoan: *"Barkaziyoko sermoia egiten / kulpitotikan asi zan, / Jesusen prueba nolakua zan / klaro asko ikusi zan; / bengantzak zeukan ate zabala / derrepentian itxi zan, / erri guztia jarri gaituzte / bake santuko bizitzan"*[1933].

Gizakiaren ahultasunaz jabeturik, zer egin behar duen jakinagatik oker egiten duenez, zein bide dago salbamenerako? Konfesioaren eta honen benekotasunaren alde hitz egin zuten misiolariek Pello Errotaren arabera: *"Egoki asko atera zuten / guretzat on zan planua, / etzala basta pentsatutzia / <konfesatzera banua>; / bear bezela pentsatutzeko / utsegiñaren damua, / dolorea ta propositua, / ori da bide sanua"*[1934]. Eta hutsegite guztiak kontatzearen alde –bat bera ezkutatu gabe-: *"Asko alditan esan digute / predikadore maiteak, / bat utzi gabe ateratzeko / barrengo serpienteak;"*[1935].

Izan ere, Jainkoaz ematen duen ikuspegia –traszendentziarena- ere kontuan hartzekoa da. Beldurra ematen duen Jainko orojakilea da: *"Pekatariak egiñagatik / pekatu ustez gordean, / Jaun Zerukua presente dago / beti begien aurrean; / deskuidatutzen giñan geiago / gauza ori jakin gabean, / ontzaz aurrera izango gera / gu bizimodu obean"*[1936].

Jesusez ematen duen irudia, berriz, kristauengatik, eta hauetako bakoitzarengatik bere burua eskaini duenarena da. Jesus izango da errealitatearen mundutik traszendentziara pasatzeko bidea: *"Obligazio asko diogu / kristau guziak Jesusi, / nire mingañak zenbateraño / au ezin adierazi; / arren prueba klaroan dago / iñork nai badu ikusi, / bere odola ixuri eta / danok ginduzen erosi"*[1937]. Eta argi geratu ez

[1931] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 115. or.
[1932] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 115. or.
[1933] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 115. or.
[1934] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 111. or.
[1935] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 112. or.
[1936] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 112. or.
[1937] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 112. or.

bada, zehaztasun eta dramatismo handiagoz: *"Pekatu egin dan bakoitzian / Jesus berriro josten da, / infernu dana zabaldu eta / zeruko atea ixten da; / etsaietara aren anima / entregatua uzten da, / ez al gerade atrebituko / kalte oiek ikustean?"*[1938].

Heriotzaz eta azken juizioaz ere hitz egiten du Pello Errotak misioen berri ematen duenean. Heriotzaz fraideek ematen duten ikuspegia gogorra da: *"Il bearra guk danok daukagu / pekatuak ekarriya, / konsideratzen badegu ondo / gauza ikaragarriya; / anparorikan iñundik ez ta / estadu errukarriya, / aren anima galdua dago / pronto ez badago jarriya"*[1939]. Azken juizioaz hitz egiterakoan[1940], Josafateko zelaiaz mintzatuko zaigu: *"Nire kristauak, badatorkigu / azken juizioko eguna, / Josepetako zelai santuan / danok bildu biaguna; / juez justuak letuko digu / munduan egin deguna, / errukarriya aterako da / ara gaizki joaten dana"*[1941]. Publikoa izango da epaia, gainera: *"Juez justuak begien bistan / letuko du sententziya, / zer posturetan igaro duben / mundu onetan biziya; / zuzen badago ziertoa da / zerua irabaziya, / gaiztoak berriz infernuetan / eternidade guziya"*[1942]. Bizitzan zehar ezkutuan eman izan direnak denen agerian geratuko dira, beraz, hil ostean[1943].

Bertso sailaren bukaera aldera, hogeita hamabigarren bertsoan, Pello Errotak misiotara etorritako fraileei zien estimua agertuko digu. Aberatsa balitz, konbentua ere egingo omen zien Asteasun gustura: *"Ni Asteasun bizi naizena, / nerez naiz errotaria, / oiek juanda artu dedana / pena ikaragarria; / baldin banengo poderatua / interesez ugaria, / errian bertan egingo nieke / oiei konbentu berria"*[1944].

Laburpen gisa, hona hogeita hamahirugarren bertsoan dioskuna, misioetan jasotako errezetaren sintesia: *"Obra onetan segitutzeko / eman dizkue puntuak, / denbora junda ez du balio, / orain atera kontuak; / Jesusengana beti gogatu, / gorrotatu pekatuak, / animak indar iduki dezan / maiz artu sakramentuak"*[1945]. Formula hau pertsonalizatu egiten du gainera: *"Jesus maitia amoriuaz / daukagu guri begira, / garbitutzeko otsegiten du / animan degun zikiña; / sakramentuak maiz*

---

[1938] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 112. or.
[1939] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 113. or.
[1940] "Dies iraeko" zatia dakarkigu gogora: "Cum vix justus sit securus", hau da, "Ia zuzena ere seguru ez dagoenean".
[1941] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 113. or.
[1942] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 113. or.
[1943] "Dies iraeko" beste zati bat dakarkigu gogora: "Quidquid latet, apparebit, nihil inultum remanebit", hau da, "ezkutuan zegoena agertuko da eta ez da ezer zigorrik gabe geratuko".
[1944] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 116. or.
[1945] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 117. or.

*eta ondo / errezibitzen badira, / pausorik ere utsegin gabe / zeruetako glorira"*[1946]. Hala eta guztiz ere, azkeneko bertsoan, azkeneko puntuan, zalantza izpi bat agertzen du Pellok: *"Guzion Jesus, guregatikan / egin bear du erregu, / orretarako Jesusen Ama / bitartekotzat biagu; / orren fabore atera ezkero / zerua dago seguru, / Pedro Elizegik au deseo du, / amen, komeni bazagu"*[1947].

Azken bertsoan azpimarratu dugun zalantza horren erakusle, horra batzuek Txirritak eta besteek Zakarra bertsolariak Pellori kantatu ziotela dioten bertsoak zer kontatzen duen: *"Pellok ere kunplitu / omen du Pazkuaz, / aundienak gordeta / egin du bentuaz; / inpernuko ondarrian / dantzan dabil Judas, / errotan trankarekin / biboliña juaz, / nik ez dizut lagun eingo / argana bazuaz"*[1948]. Eta bigarren bertsio batean, baita beste bertso hau ere: *"Pello mantendutzen du / errotaren trankak, / datorrenai kenduaz / gogotikan lakak. / Inpernura birian / ai zer mutur-jokak! / Pello, ixtillu txarrak / ikusteko dauzkak"*[1949]. Pello Errotari kargu hartzen diote nahiz eta konfesatu, egia guztia esan ez duelako, tartean, errotan hirina pisatzen duenean, berarentzat zenbat gordetzen duen. Distantzia bat aurki dezakegu beraz misiolariek esaten dutenaren eta Pelloren praktikaren artean. Pellok misiotako edukia bertsotan jartzen duenean, errespetatu egiten ditu han esandakoak eta ahalik eta zuzenen jasotzen saiatuko da, baina horrek ez du esan nahi han esaten ziren guztiak betetzen zituenik. Pellok onartu egingo du, gainera, ehotutakoaren zati bat berarentzat gordetzen duela: *"Oiek al dira tatxak / errotariyenak, / naiz aundiguak izan / norberiarenak? / Zikiatzen ditudala / zaku besterenak, / nunbaitetik jan biar / berak eztuenak"*[1950]. Berarentzat eta bere seme-alabentzat hartzen du Pellok: *"Zenbat arbola diran / ainbeste landare, / neri botatzen dire / majiñat maldare; / ez dire sinistatzen / egiya esanda're, / nola mantendu biet / lakik kendu gabe?"*[1951].

Misioei buruz hitz egiteaz gainera, Arantzazuko Amari eskainiak hiru bertso sail bederen baditu. Bertso sail hauetan aurretik jaso ditugun hainbat elementu komunitarioz gainera, Pello Errotaren fedearen bizipenaren berri jaso dezakegu. Zeintzuk dira fede bizipen honetan elementurik garrantzitsuenak? Gure ustez, Pello Errotaren fede bizipena hurbilago egon daiteke bertso sail hauetan jasotzen denetik, misioei buruzko bertsoetan esandakoetatik baino. Azken hauen ikuspegiari zorrotzegia deritzogu Pello Errotak ehuneko ehunean bere egiteko.

---

[1946] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 117. or.
[1947] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 117. or.
[1948] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 244. or.
[1949] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 244. or.
[1950] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 244. or.
[1951] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 244. or.

Hasteko, landu dezagun bertso sailen objektua bera: Arantzazuko Ama eta bertara egiten zituzten erromesaldiak. Pentsa dezakegu une eta gai egokiak zirela hauek bertsoak jarri eta gero saltzeko eta horregatik daudela agian hain presente Pello Errotaren bertsoetan. Baina dudarik ez dago bera eta bere herrikideak joan joaten zirela Arantzazura.

Zer da Arantzazuko Amari eskatzen diotena eta hark eskaintzen duena? Laguntza eta "anparoa". Misiolariek agertzen zuten hura erlijio "ofiziala" ote eta hemen aurkitzen duguna, berriz, herrikoiagoa? Pertsona haiek zuten egiazko fede-bizipenetik hurbilekoagoa? 1886ko bertso sailean, Arantzazuko Amaren koroazioari buruzko sailean, hasieratik bertatik egiten dio Pello Errotak dei Arantzazuko Ama Birjinari laguntza eske, edo hori emango dionaren konfiantzaz: *"Aloña mendian dago / Birjiña bat arantzan, / zerbait esan nai nuke / orren alabantzan; / lagunduko dirala / nago esperantzan, / beragatik asi naiz / orren konfiantzan"*[1952]. Ideia berean sakontzen du bigarren bertsoan ere: *"Lagunduko dirala / nik daukadan poza, / artu dedan medioz / orren esperantza; / bestela nerez ez naiz / ezertako gauza, / anparatu nazazu, / Santa milagrosa"*[1953]. Laguntza zeren aurrean? Ez galtzeko. Ikus: *"Ejenplo on bat noa / ni erakustera, / zuek ere saiatu / berriz ikastera; / poz aundian goazen / Ama au ikustera, / ori lagun degula / galduko ez gera"*[1954]. Eta zehazkiago, hil ondorenean, zeruratzeko laguntza eskatuz: *"Agur egin deiogun / guk ara joatean, / burua makurtuta / umil da pakean; / baliatuko zaigu / egunen batean, / berak sartuko gaitu / zeruko atean"*[1955]. Arantzazuko erromesaldiaz osatutako bigarren bertso saila honela bukatzen da, fedearen bizipen komunitarioa bereziki azpimarratuz:

> *"Despatxatzera nua / oraiñ bertatikan, / graziyak zuri, Ama, / danon partetikan; / juan biarrak gera / mundu ontatikan, / garai batzuetan ez / ustiagatikan, / erregutu ezazu / guztiyokgatikan.*
>
> *Ogei ta lau bertsokin / ara errematia, / agur aizken-aizkeni- / kan, Ama maitia; / gure eriyotzian / oroitu zaitia, / iriki egiguzu / zeruko atia, / Elizegik nai luke / guztiyok juatia"*[1956].

Arantzazuko Amaren bihotz ontasuna azpimarratuko du Pello Errotak: *"Zu zerade Ama bat / biyotz onekua, / doaia eman didazu / eskatutakua; / kontentuz arkitzen da / Pello errotakua, / biba Ama Birjiña / Arantzazukua!"*[1957].

---

[1952] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 189. or.
[1953] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 189. or.
[1954] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 190. or.
[1955] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 191. or.
[1956] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 198.-199. or.

Jesusen aurrean bitarteko lana egiteko ere eskatzen dio Pello Errotak beste bertso sail batean: *"Nerekiñ ez dadukat / biar aña grazi, / laguntza baten billa / argatik naiz asi; / ez dakit ematia / deraden merezi, / Ama, zuri eskatu- / tzen dizut lenbizi: / bitartekotza egiñ / Semetxo Jesusi"*[1958]. Eta osasuna ere eskatuko du Pellok: *"Arantzazutik baguaz, / agur, gure Ama, / nere amoriyuak / orrera narama; / danontzat eskatze'izut / osasuna ona, / grazi (y) ori bialdu / ezazu gugana, / berriz ere etorri / gaitezen zugana"*[1959].

Honen guztiaren azpian, Pello Errotak ageri duen gaizki eginaren kontzientzia ageri da, damuarena, nahiz eta oso nabarmena ez izan eta esplizituki, bederen, oso presente egon ez: *"Birian asi zuen / errosariyua, / gauza baliyosua / eta seriyua; / argatikan Birjiñak / zigun amoriyua, / au zan gure okerren / erremediyua"*[1960]. Eta beste behin: *"Askok ukatzen degu / Jesusen legia, / serbitu naiago da / etsai traidoria; / ortatik ez da gero / zerura bidia, / pentsatu nola pasa / eternidadia"*[1961].

Arantzazura zihoazela trenean istripua izan zuten batean, Arantzazuko Ama Birjinak ezer gerta ez zekien miraria egin izana ere kantatuko du Pello Errotak: *"Bere plantxatik trena / orduan zan kendu, / Ama Birjiñak bertan / milagrua egin du; / ondo begiratuta / klaro ezagun du, / zein bizirik gelditu / ez balu lagundu?"*[1962]. Eta hurrengo bertsoan: *"Fogonerua trenatik / egin zan erori, / hamalau oiñ aidian, / gutxienez ori; / matxurarik etzaio / azaldu berari, / graziyak eman leizkake / Ama Birjiñari"*[1963].

Ama Birjina zerutik jaitsi zela azpimarratuko du Pello Errotak, hau da, bere jatorri zerutiarra. Ez dugu ahaztu behar koroaziorako prestatutako bertsoak direla hauek: *"Aloña mendian ori / arantzan jarri zan, / ez da presentatuba / utsaren peskisan; / ark ondo zerakien / guk premia izan, / guri lagundutzeko / zerutik jetsi zan"*[1964]. Eta hurrengo bertsoan: *"Ejenplo au nai nuke / ondo erakustea, / aundia da gugatik / zerutik jestea; / poz aundia beagu / ori ikustea, / orrek ez du merezi / bakarrik uztea"*[1965].

---

[1957] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 205. or.
[1958] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 193. or.
[1959] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 197. or.
[1960] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 201. or
[1961] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 204. or.
[1962] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 201. or
[1963] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 202. or.
[1964] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 189. or.
[1965] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 189. or.

Eta zer eskaintzen diote beraiek Ama Birjiñari? Gurtza. *"Koroazio bat degu / Arantzazu mendian, / ura ikustea gatoz / txit gogo aundian, / artzai on bat artuta / geren konpañian, / Birjiña adoratzeko / bear dan neurrian"*[1966]. Baita otoitza ere: *"Ama au ikusitzeko / gaude obligazioz, / alegiña egiyogun / danok orazioz; / presentatu gaitezen / ara debozioz, / baliatuko gera / gu ango funtzioz"*[1967].

Arantzazuko Amari egindako promesa ere ageri da, hau da, hitzemandakoa betetzera doaz beregana: *"Promesa kunplitzera / gatoz borondatez, / ondo deseatuta / aspaldiko partez; / akordatzen gerala / geren Ama batez, / bete gaitzazu zere / doai ta birtutez"*[1968].

Nork bideratzen zituen herritarrak Arantzazura? Norbere herriko erretoreek lan berezia egiten zuten horretan, erlijio ofizial eta herrikoiaren arteko bitartekoak ziren. Pello Errotak honela esango digu asteasuarrengatik: *"Don Tomas Egibar da / parroko guria, / Arantzako Amari / badiyo fedia; / ark erakutsi digu / Argana bidia, / ondo gobernatu du / bere artaldia"*[1969]. Eta Larraulgoak, berriz, beren erretoreak eraginda etorriko dira: *"Don Mariano Mikeo / beste parrokua, / arrekin etorri zan / jende Larraulkua; / obra onetan entero / aurrera dijua, / ezagun du dala orrek / fede onekua"*[1970].

Behin Arantzazun zirela, zer zen egiten zutena? Sermoiak eta meza entzun eta konfesatu nagusiki: *"Segituban giñaden / elizara junak, / sermoia egin zigun / Deograzias jaunak; / guri eman zizkigun / onrak eta famak, / konsolatu ginduben / ikustian Amak, / pozaz zoraturikan / arri beira danak"*[1971]. Eta aurrerago:

> *"An deskantsatu giñan / primera klasian, / danok konpesatzera / juan giñan goizian, / Jaun sakramentatuba / artzeko pozian; / bertan egon giñaden / denbora luzian, / gustora artu genduben / geren biyotzian.*
>
> *Amarretan don Lorentzok / meza nagusiya, / epistola don Ramonek, / ai ura graziya! / Sorondok ebanjeliyua, / ark zeukan sasoya, / iya aidotu zuban / eleiza guziya, / berok irurak dute / onra mereziya.*

[1966] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 189. or.
[1967] ZAVALA, A. (eg, eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 191. or.
[1968] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 190. or.
[1969] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 203. or.
[1970] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 203. or.
[1971] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 194. or.

> *Meza erdiyan genduben / predikadoria, / ez dakit zein zan baño / iztun dotoria: / nai bagendu bein juan / zeruko gloria, / bitarteko artzeko / Birjiña Maria, / arrek erakutsiko / zigula biria"*[1972].

Bideko joan-etorrian, errosarioa ere esango dute: *"Jendia garaiz giñan / goitxua iyua, / don Bitorianok an / errosariyua; / jende errespetokua / eta seriyua, / Birjiñari agertu- / baz amoriyua, / artuko degu oraindik / arren baliyua"*[1973].

Nola deskribatzen du Arantzazuko Ama? *"Egun ura ez daukagu / oraindik aztuta, / Ama orri begira / an geunden poztuta; / urrez da graziz an da- / go aberastuta, / Bera're apenas zegon / kopeta beztuta, / adoratu genduben / danok auspeztuta"*[1974]. Eta bertako giroa? *"Bazkaldu eta gero / etxe aldera asi, / guri egin digue / bastante noblezi; / akonpañatu gaitue / musika ta guzi, / danon partetikan nik / beroi milla grazi, / Arantzazun ez dira / oso triste bizi"*[1975].

Eta frantziskotarrak? *"San Frantziskoren seme / beneragarriyak, / Ama ori adoratzen / an daude jarriyak, / lagundutzen diyela / beraren argiyak, / zeruban sar ditzala / Birjiña garbiyak"*[1976].

Nahiz eta arestian Pello erretore eta frantziskotarren alde hizketan ikusi, Pello Errotak, ordea, ez du beti elizgizonen alde hitz egingo. Badu pasadizo eta bertsorik hauen ahulezien berri emateko[1977]. Zerua eta lurra, zerutarrak (Jainkoa, Ama Birjina, Jesus) eta lurtarrak (apaiz, fraideak) bereizten dituela esango genuke: batzuei errespetu itzela dien bezala, besteak juzkatzeko beldurrik ez duela esango genuke, edo zuzen jokatzen ez duten apaizak behintzat. Horren adibide, honako bertsoa: *"Kulpitotik otsegin: / <Ein karidadia!>. / Berak jeneralian / gordetzeko idia. / Kuadrilla ori etzegon / dirurik gabia, / obeto portatu da / jende menoria"*[1978]. Emakume bat ari omen zen meza-dirua biltzen gaixorik zen pertsona baten alde meza ateratzeko. Inguruko bizilagun eta herritarrei eskatu die, tartean baita apaiz eta erlijiosoei ere. Hura emakumeak hartu zuen sorpresa gutxien eman ziotenak horiek izan zirela ikusitakoan. Zer da eta, ahoz, diskurtsoan, ematearen alde hitz egiten dutenak, eta horrela egiten ez dutenen kontra publikoki hitz egiten dutenak: *"Guk egingo bagiñu / orrelako lanak, / ots egingo lituzke / kulpitotik danak. / Bost*

---

[1972] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 195.-196. or.
[1973] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 197. or.
[1974] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 195. or.
[1975] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 197. or.
[1976] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 204. or.
[1977] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 52. or.
[1978] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 52. or.

*ikusi bear du / allegatzen danak, / kuarto bat eman dio / bikariyo jaunak"*[1979]. Horregatik Pello Errotak "jende menoria" goraipatuko du apaiz eta erlijiosoen aurrean. Esan eta egiten zutenaren arteko distantzia ote erlijioarekiko atxekipena gutxitzearen arrazoi? *"Eskeñitzen bazaie / meza merke antza, / buruari eragin / aguro balantza, / Txikiyai utzi eta / aundiyai arrantza, / beragatik daukate / oraingo mudantza"*[1980].

Pello Errotak erlijioaren inguruan zenbaterainoko atxekipena dagoen, edota hau aldatzen ari den jasotzen du bere Arantzazuko bertsoetan ere: *"Konpesiyuak egin / txit modu onian, / komuniyo jenerala / biyaramonian; / fedia indartu nai / guk alegiñian, / sobra gutxi daukagu / gaurko egunian"*[1981]. Ironiaz ari da orain ere Pello Errota: nork uste du herriak fede gutxi duela, Pellok berak ala elizgizonek[1982]?

Baina beste bertso sail batzuetan ere kontuan hartzen du gai hau. Ameriketara 1895ean egin zuen bidaian, eskutitz gisa bertsoak bidali zizkion familiari. Zazpi bertsotatik lautan, Amerikan erlijioarekiko dagoen hoztasuna azpimarratzen du: gutxi joaten dira elizara eta konfesatu ere ez dira egiten. Eta ohitura erlijiosoak gordetzen dituztenei barre egiten diete gainera. Pellok bere buruan bizi izan zuen hau: *"Ikusitzen banaute / sartutzen elizan, / atzetikan burlaka / txoratu al naizan; / nik berdin korritzen det / lenagoko gisan, / baita segituko're, / ez bildurrik izan"*[1983]. Eta hurrengo bertsoan: *"Aitatutzen badet nik / konfesiyorikan, / danak ibiltzen naute / ito bearrikan; / apaizak ez daukate / ortantxe lanikan, / gutxi ikusten ditut / joaten diranikan"*[1984].

Jose Manuel Lujanbio, Txirritak, erlijioaren inguruko bertsorik ere badu, batzuek gai nagusitzat erlijioa dutenak eta besteak, berriz, nahiz eta beste gai bati buruz aritu, bide batez erlijioaz ere ari direnak. Txirrita sinestuna da: hurbilen Pello Errotaren fede bizikizunetik aurkitzen dugu. Hau da, sinestuna bai baina erlatibizatuz, hau da, gauza guztien gainetik dotrina eta lege erlijiosoak jarri gabe. Ikus: behin Txirrita eta Gaztelu bertsotan ari zirela, Gazteluk Txirritari "ejerzizioak" egiteko proposamena egin zion erdi-txantxetan. Txirritak, ezetz, morroitarako bazen, geldituko zela Loiolan, bestela ezetz: *"Gogorik bai al dezu / zuk Loiola'rako? / Etxera juan baño len / ez al deu probako? / Premiya badegu ta / konfesatutzeko, /*

---

[1979] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 52. or.
[1980] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 52. or.
[1981] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 204. or.
[1982] Sekularizazioaren zantzuak ote Ernioko munduan ere?
[1983] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 76. or.
[1984] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 76. or.

*biok gerako al gera / bost bat eguneko?"*[1985]. Txirritak honela erantzun zion: *"Etxera juan biet / kasikan penetan, / gauza ori egin biar / genduke benetan; / edadia baukagu / formaldutzekotan, / ni geldiko nitzake / morroi artzekotan"*[1986].

Batzuetan Txirritak bere kristau izaera eta praktika erlijiosoa defenditu beharko ditu hauek zalantzan jartzen dituztenen aurrean. Bere bertso batean honela dio: *"Txirrita zarrak beti izan du / aurreko zarren fedia, / zenbait bezela / ez da izandu / sinismenikan gabia; / zaku bat urre izan biar du / gure aitonak gordia, / saiatzen dira galanki baña / ezin billatu ordia"*[1987]. Beste okasio batean, Txintxua bertsolariak honela kantatuko dio Txirritari: *"Amar t'erdiyak dira, / bastante berandu, / meza nausiya ere / onezkero eman du; / ezta nik somatua, / jendiak esan du, / Txirrita ez omen da / mezetan izandu, / euskalduna dala're / sinistiak lan du"*[1988]. Eta Txirritak erantzun: "*Ire ofiziyua / beti sesiyuan, / edo lagunarentzat / or traiziyuan; / obrak azaltzen dira / konparaziyuan: / len kapitan intzana / kongregaziyuan, / orain zertan sartu aiz / gure soziyuan"*[1989]. Txirritak meza entzuteari buruz zahartua zela jarritako bertsoa ere jaso dezakegu atal honetan. Santa Isabel egunez bertsotan ziren Altzan Txirrita eta Saiburu. Saiburuk bertso batean esan omen zion Txirritari aspaldi ez zela mezatara joan. Txirrita ordurako baldartua zegoen eta ez zen agian hainbestetan joaten mezatara. Hona Txirritak jarritako bertsoa: *"Meza entzutia gustatutzen zait / kristau formalaren gisan, / bañan nai arren beti neretzat / ezta oso errez izan; / esan dirazu aspalditxuan / ez naizela izan elizan, / meza nausiya eman balute / gaur entzutekotan nitzan"*[1990]. Baina kasualidadez edo, egun horretan ez zuten mezarik egin. Jendeak zioenez, udaletxeak ez zuelako mezarik ordaindu orduko hartan. Errepublika garaia zen.

Txirritak sinesteak kristauen jokaeran izan behar duen ondorioa azpimarratuko du beste behin: *"Zeruban dauden santu ta santak / daude triste ta seriyo, / gure auzuan bizi dan atso / sorgin bat dala meriyo; / baldin Jainkuak salbaziyorik / orri ematen badiyo, / umildade ta errezatziak / askorik eztu baliyo"*[1991].

Pasarte horietaz gainera, Txirritak baditu gai erlijiosoko bertsoak. Pello Errotaren tankeran, Txirritak 1916an Goizuetan izan ziren misioei ere jarri zizkien bertsoak. Pasionistek zuzendu zituzten misio hauek Txirritak jarritako izenburuaren arabera:

---

[1985] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 91. or.
[1986] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 91. or.
[1987] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 23. or.
[1988] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 96. or.
[1989] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 96. or.
[1990] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 247. or.
[1991] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 419. or.

"Bertso berriyak misiolari pasionistai Joxe Manuel Txirritak jarriak"[1992]. Bertso sailean bertan dioenez, bost urtean behin izaten omen ziren misioak Goizuetan.

Lehenengo bertsoan sarrera egiten du Txirritak: *"Gaude milla ta bederatzieun / amaseigarren urtian, / oso ez gera iristen baño / ez gabiltza apartian; / misionistak izandu dira / Goizueta'ko partian, / oien bisitaz oroituko naiz / bizirik nagoen artian"*[1993]. Denboran eta espazioan kokatzen du horrela hasieratik Txirritak entzulea.

Misiora nolako jendetza joan zen adieraziko digu Txirritak, baita autoritateek misiolariei ongietorria nola egin zieten ere. Bigarren bertsoan: *"…Madalena'ko zabaltokian / iñor ezin zan kabitu, / ankarik jaso zezakeanik / etxean etzan gelditu"*[1994]. Eta hirugarrenean: *"Alkatia ta bikarioak eman zizkaten eskuak, / oien barrendik irteten ziran / asnase larri estuak; / alde batera uzteko diye / mundu ontako gustuak, / garai arretan etzauden lasai / emengo maiorezkuak"*[1995]. Esanguratsua da autoritateen artean alkatea, bikarioak eta maiorazkoak nola aipatzen dituen Txirritak[1996].

Zer da Txirritak azpimarratuko duena? Misiolariak Jaungoikoaren beldurrean haziak direla: *"Apirillaren zortziyan ziran / predikatutzen asiyak, / parrokiara sartu giñaden / juntatu giñan guziyak; / oiek dirade Jaungoikoaren / beldur aundiyan aziyak, / argatik eman biar zaizkate / eskerrak eta graziyak"*[1997]. Baina bertso sailean kontraesan baten berri ematen digu Txirritak: misiolariek beldurrik ez izateko esaten omen zuten esplizituki eta, aldi berean, beren mezua beldur eragile zen. Ikus: *"Oinbesteraño nekatutzeko? / iñork ez ditu biartu, / esaten zuten: <Atozte lasai, / etzaiteztela bildurtu!>. / Olaxe ere jaun oietara / iñor ezin zan limurtu, / lenago etsai bizi giñanak / orañ aingeru biurtu"*[1998].

Misioei buruz aztertu ditugun beste bertsolarien bertso sailetan bezalaxe, hemen ere kolektibo ezberdinei zuzenduko zaizkie misiolariak. Dakusagun. Mutil gazteekin hasiko da lehendabizi: *"Mutil gaztiangatikan ere / zerbait esan du fraileak, / uzteko diyo garai txarreko / zurrutak eta baileak; / nola dakarren ondoren*

---

[1992] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 300.-301. or.
[1993] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 300. or.
[1994] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 300. or.
[1995] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 300. or.
[1996] Hau ez da Txirritak maiorazkoak aipatzen dituen kasu bakarra, lehen ere aipatua dugu horrelakorik.
[1997] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 300. or.
[1998] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.

*txarra / gazte farranda-zaleak, / oiera juanda errezatzeko / ezpagaude loaleak"*[1999]. Edaria, dantza eta parrandaren azkena zaintzeko esango diete, beraz.

Gurasoei mintzatuko zaizkie ondoren: *"Eju în zuten guraso zarrak / atentziyoan jartzeko, / bakoitzak bere familiari / ondo erreparatzeko; / misio santu ontako itzak / ondo goguan artzeko, / munduan ongi portatu eta / gero zeruan sartzeko"*[2000].

Emakumeak ere hartuko dituzte hizpide, nahiz eta Txirritak ez eman argibide gehiegi emakumeei buruz zer esan zuten misiolariek: *"Emakumiak ere gaixuak / ez daude denak justuak, / eztul batzuak aditu ditut / nearrarekiñ nastuak, / malkuak bera deizkiotela / gurutzeturik eskuak; / ez ikaratu, barkatuko du / gure Jaungoiko prestuak"*[2001].

Txirritak berak misiolariek aintzat hartutako kolektibo ezberdinen laburpena egingo digu: *"Ministro oiek izandu dira / predikadore sotillak, / lendabiziko gizonengatik / izugarrizko batallak; / gero aboan artu dituzte / neskatxak eta mutillak, / azkenerako astindu ziran / atsuen patar-botillak"*[2002].

Misioek ohi zuten tonu dramatikoa ez da Txirritak egindako bertso sailean bukaeraraino mantenduko. Ikus, bestela, zein bukaera ematen dion bertso sailari. Azkenaurreko bertsoan, "gora" eta "bera" deiekin, taldeko festa giroan egiten diren oihuen aurrean jartzen gaitu Txirritak: *"Elizarako ate onduan / dago gurutze santua, / zeñengatikan ipiñia dan / ongi atera kontua; / mundu triste au salbatzegatik / ez da gutxi nekatua, / gora Jaungoiko egiazkoa / eta bera pekatua!"*[2003].

Eta azkeneko bertsoan, berriz, misioetan egondakoak zeruan jolasean irudikatuko ditu, bukaera ludikoa aurreikusiz: *"Bertso oriek ez dira izan / goizuetarren kaltian, / len aña anima ez dago orain / diabruaren katian; / Aita San Pedrok sartu gaitzala / zeruetako atian, / denak jostatzen an ibiltzeko / aingeruakin batian"*[2004]. Pello Errotaren antzera, misioetan fraideek ezartzen zuten tonua erlaxatu egingo du Txirritak bertso sailaren bukaeran, bere pintzelkada emanez kontatutakoari.

Misioez gain, Bibliako gaiak ere lantzen ditu Txirritak bertsotan. Bertso sail batean, munduaren eta gizakiaren sorrera kontatzen ditu Bibliaren arabera, ondoren Aita

---

[1999] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.
[2000] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.
[2001] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.
[2002] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.
[2003] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.
[2004] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 301. or.

Santuaren irudia azpimarratzen du eta azkenik gizakien azken patuaz –zerua ala infernua- mintzatuko da. Hona lehen bi bertsoak adierazgarri:

> *"Denbora, leku, zeru ta lurrak, / izar da illargi, eguzkiyak, / kristaba, aizia, animaliyak, / ur gezak eta gaziyak, / Aita Eternuak sei egunian / egin zituan guziyak; / merezi du ta eman zaizkagun / eskerrak eta graziyak.*
>
> *Aita Eternuak Adan ta Eba / egin zituan aurrena, / lendabiziko gizasemia, / emakumia urrena; / baratza frutaz bete-betian / sartu zituan barrena, / bañan etzuten ondo kunplitu / eman ziyoten ordena"*[2005].

Ebak deabruari kasu eginez fruta nola jan zuen, honen ondorioz zerurako atea nola itxia geratu zen, eta Kain eta Abelen berri ere emango digu Txirritak. Jesu Kristori esker buelta emango du kristauen zoriak: *"Al dan maizena erreza zagun / <Nire Jesukristo Jauna>, / jakiñik dala Jaungoiko eta / gizon egiazko ona, / gurutze pisu baten azpiyan / ain gogoz iltzera juana, / guri atiak zabaldu eta / orain zeruan dagona"*[2006]. Hala eta guztiz ere, kristauaren esku izango da zeruko ala infernuko bideari heltzea: *"Kondenatuben azken fiñeko / penagarrizko pausuak, / bi itz bakarrak esango dizka / gure Jaun amorosuak: / <Orain ez dago barkaziyorik, / kunplitu dira plazuak, / zere pagua emango dizu / serbitu dezun maisuak>"*[2007].

Jesu Kristoren eta Aita Santuaren arteko lotura zuzena izango da Txirritak hurrena helaraziko diguna: *"Kristau guziyak sinista zagun / Eskriturak dakarrena; / zeru ta lurren agintariya / Jesukristo da aurrena; / eskubiriak arrek emanda / Aita Santua urrena, / Vaticano'ko artzai umilla, / Pio amaikagarrena"*[2008]. Pixka bat aurrerago, Aita Santua Jesu Kristoren bikario gisa agertuko digu[2009]: *"Aita Santua Erroma'n dago, / oso gizon seriyua, / abisatzen du gañian dala / guziyentzat eriyua; / gaiztuenari barkatutzeko / badu erremeriyua, / orrengatikan deitzen diyogu / Kristoren Bikariyua"*[2010]. Baita apostolu eta apaizen arteko lotura ere, eta hauen eta dotrinaren artekoa: *"Kristoren bidez Apostoluak / zabaldu zuten klerua, / aien autikan ateria da / lendabiziko Kredua, / mandamentu ta artikuluak / dotrinan dauden modua; / oiek sinisten eztituenik / ezta sartuko zerua"*[2011].

---

[2005] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 374. or.
[2006] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 375. or.
[2007] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 375. or.
[2008] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 375. or.
[2009] Aurreraxeago ikusiko dugu Xenpelarren bertsoez ari garela Aita Santuari hainbesteko garrantzia ematearen arrazoia.
[2010] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 375. or.
[2011] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 375. or.

Bertso sail horietaz gainera, Txirritak baditu Euskal Herriko erlijiotasunari lotutako bertsoak ere. 1904an idatziak, adibidez, Loinazko San Martinen bizitzaren inguruko bertsoak. Loinazko Martinen gaztetako bizitza, ikasketak, martiriotza eta heriotza kontatzen ditu hauetan. Loinazko San Martin Beasaingoa dela dio Txirritak[2012]. Txirritak fededunak ditu gogoan batez ere bertso hauek osatzerakoan, hauentzat ikasbide jarri ditu, eta Loinazko San Martinen fedea azpimarratuko du bereziki: *"Bertso berriak jartzera nua / Aita San Martin Loinaz'i, / relijioso egiazkoak / ondo letuta ikasi; / zenbait bezela etzan ibiltzen / enemiguen igasi, / sinisten zuan Jesus degula / zeru ta lurren nagusi"*[2013].

Loinazko Martin 1566an Beasaingo Amonabarro baserrian jaio zela esango digu, pobrea zela, eta txikitatik fedean hazia izan zela. Gurasoek eskola ona eman ziotela eta latina ere ikasi zuela, eta hamazazpi urterekin Alcalára joan zela apaiz ikasketak egitera. Hogeita hamar bat urterekin Japoniara nola joan zen ere esango digu, San Frantziskorekin batera: *"Milla bostegun* (sic) *larogei eta / amaseigarren urtean, / San Frantzisko ta San Martin sartu / ziran Japon'go partean, / bere lagunak anparatzea / guztizko borondatean; / oju aundiak egin zituzten / salbaje zarren artean"*[2014]. Martiriotza ere azalduko du Txirritak: *"Arrapatuta belarritikan / puska bana kendu aurrena, / bire luzean oñez joateko / eman zioten ordena, / ta gero berriz bi lantza sartu / saietsetatik barrena; / au da geiena padezitua / Jesukristoren urrena"*[2015]. Beasaindarrekin gogoratu eta laguntzeko eskatuko dio Loinazko San Martini: *"Irureun da zazpi urte dira / Aita San Martin il zala, / oraindik emen sumatzen degu / ark utzi zuan itzala; / beasaindarrak suplikan gaude / nai gendukenak bezela, / aizken piñean gure kontua / arren eduki dezala"*[2016].

Eta Txirritarekin bukatzeko, Ezkiogako Ama Birjinaren agerkundea dela eta 1931n bi bertso sail nola osatu zituen ere jasoko dugu. Lehenengoa, 1931n, urriaren 4an, *Bertsolariya* aldizkarian argitaratu zen. Bertan Ezkiogako agerkundearen deskribapena da egiten diguna. Lehenengo bertsoan denboran eta espazioan kokatuko du agerkundea: *"Gaude milla ta bederatzi eun / ogei ta amaika urtian, / Kristo zerura iyo zanetik / orañdaño bitartian; / arrigarrizko kaso bat dago / Gipuzkoa'ko partian, / au Ezkio'ko Andua deitzen / zaion barriyo batian"*[2017]. Bigarrenean, berriz, protagonistetako batzuk aurkeztuko dizkigu, Amabirjina

[2012] Aita Zavalak berak dio ez dela sartuko Loinazko San Martin Beasaingoa edo Bergarakoa ote zen auzian parte hartzen.
[2013] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 273. or.
[2014] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 274. or.
[2015] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 274. or.
[2016] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 274. or.
[2017] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 452. or.

lehenengo ikusi zuten neska-mutilen berri emango digu: "*Amabi urteko alaba eta / zortzi urteko mutilla / amak auzora bialdu ditu / gaberako esne billa; / imajiña bat azaldu zaio / añ ederra ta umilla, / etxera juan da amari oska / aikiñ etorri dedilla*"[2018]. Eta hirugarrenean, protagonista nagusia aurkeztuko digu: "*Alabak amai esaten ziyon: / <Au eziñ al du ikusi? / Oso ederki jantziya dago / bere korona ta guzi>. / <Ama Birjiña izango da ta / etzuaztela igesi!>. / Belaunikatu lurrian eta / errezuan zian asi*"[2019]. Txirritak bertara zenbat jende joaten den azpimarratuko du batez ere bertso sail honetan: "*Geok ere guk toki artara / buelta bat egiñ genduan, / ango jenderik geientxuena / zegon sinismen senduan; / toki ori da Ezkio-mendin, / arbola biren onduan, / ainbeste jende izaten zanik / ez nuan uste munduan*"[2020]. Baita joaten zirenen intentzio fina ere: "*Mendi geiena betia zegon / emakumez ta gizonez, / negar-malkuak darizkiyela / errosaiua esanez; / arriturikan alkarri beira / ango seriyotasunez, / gaixto samarrak umildu ziran / naiz fede asko izan ez*"[2021]. Eta bukatzeko, berak ere han gertatzen ari denarekin bat nola egiten duen esango digu: "*Kanta-paper au biar bezela / etzan erreza ditatzen, / saiatu biat fabori ori / ote genduken kitatzen, / Ama Birjiñai agur egiñaz / geren animak maitatzen; / aldez aurretik abisatu du / lenbailen presta gaitezen*"[2022].

Ezkiogari buruz osatutako bigarren bertso saila hilabete batzuk beranduagokoa da. 1931ko azaroaren 8an argitaratu zen *Bertsolariya* aldizkarian. Kasu honetan Ezkiogako agerpen haien aurrean zatitua agertuko da jendea: batzuek sinesten duten bitartean –hauen artean izango da bertsoak jartzeko eskatu duena-, beste batzuk kontra agertuko dira. Lehen aipatu dugun bertso sailarekiko desberdintasun nagusia hauxe dugu. Bertso sail honetako hirugarren bertsoan agertuko da dagoeneko iritzi desberdintasun honen berri: "*Ama Birjiña datorrenian / ikusten dute batzuak, / berari beira gelditzen dira / zabaldurikan besuak; / gezurra dala kontari daude / gaxto soberbiosuak, / badirudite ardi leiala / jaten dabiltzan otsuak, / eskarmentua sartu deiela / gure Jaun amorosuak!*"[2023].

Hiru egoera behintzat deskribatuko ditu Txirritak: kontrakoa denarena, agian nahi bai baina Amabirjina ikusten ez duenarena, eta sinesten duenarena. Kontrarioez, hau esango du: "*Askotan ara juaten zerate / sinismenikan gabiak, / desanparatu nai dituzute / Jesukristoren legiak; / zuek desio dituzutenak / ez dira askoz obiak, / modu*

---

[2018] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 452. or.
[2019] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 452. or.
[2020] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 453. or. Bertso sailaren bukaera aldera Ameriketatik ere jendea etorriko dela adieraziko digu Txirritak.
[2021] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 453. or.
[2022] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 453. or.
[2023] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 471. or.

*orretan bajatutzia / ez du merezi fediak, / milagro on bat egingo digu / zeru lurraren jabiak*"[2024]. Nahi eta ezin duenaz, berriz, hau esango digu: "*Orren semiak ez balu egiñ / amoriyozko bixita, / gaur oraindikan egongo ziran / zeruko atiak itxita; / zenbaitek gogor egiten digu / ori esaten asita: / <Guk ez dizugu sinistatuko, / ez genduan ikusi ta!>. / Orrelakuak egon litezke / beren animaz etsita*"[2025]. Eta sinesten duenak, berriz, fede aitormena egingo du: "*Nik sinisten det Jesus dagoela / altueneko graduan, / ta Ezkio'ko kontuak ere / kasik alako moduan; / ori txantxetan etorri danik / ez iñork artu buruan; / Ama Birjiñak ikusi arren / jende asko inguruan, / oiek ez dute apuratutzen, / geiago dago zeruan*"[2026].

Bertso sailaren bukaeran, berriz, bertsoak jartzeko agindu duenak berriro ere berera ekarriko ditu bertsook. Nola zahartua dagoen eta gaztetako kontuak alde batera utzi eta zerurako prestatzen nola ari den adieraziko digu. Iruditzen zaigu Txirritak berak ere antzekorik somatu zuela eta, zahartze aldera, gehiago kezkatu zela hil ondoko kontuez. Jaso dezagun, kasu honetan, Ezkiogako bertsoak jartzeko agindu zuenaren berri, bertso saileko azken bi bertsoei esker: "*Españi ontan bizi izan naiz, / iñoizka juanaz Frantzia, / ni neoni're zabarkeriyan / urtia franko pasia; / gorputza ala dabillenian / animak daukan trantzia! / Gazte denborak aldegiñ ziran, / allegatu zait zartzia, / ondu nitzan da esperatzen det / zeruetara sartzia*"[2027]. Eta azkena: "*Urtian beingo konpesiyuan / zabartuxia neguan, / Donostiya'ko jesuitetan / izandu nitzan lenguan; / beldur-beldurrak arrimatu naiz / Padre zar baten onduan, / galdetu ziran zer estadutan / ibilli nitzan munduan… / Bi aguriak ordu erdi bat / gustora pasa genduan*"[2028].

## 4.1.2.Xenpelar: erlijioa modernizazioaren kontrako helduleku

Pello Errotaren eta Txirritaren erlijio bizipenera hurbiltzen saiatu gara. Dakusagun orain Xenpelarrek dakarkiguna. Aurrez ikusi dugun bezala, Xenpelarrek aurreindustrializazioa bizi izanik, eta modernizazioaren aldaketa haizeak sumaturik, honi erantzuten saiatuko da alderdi ezberdinetatik. Gure ustez, erlijioarena horietako bat izango da. Xenpelarrengan erlijio katolikoaren bizipena estuagoa eta zorrotzagoa egingo da, eta era horretako bizipena izango da bere

[2024] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 471. or.
[2025] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 471. or.
[2026] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 471. or.
[2027] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 472. or.
[2028] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 472. or.

bertsoetan proposatu eta zabalduko duena. Aldatzen ari diren hainbat gauzen aurrean erlijio "segurua" hartuko du Xenpelarrek helduleku.

Xenpelarrek jarritako bertsoen artean bederatzi sail bederen zuzenean gai erlijiosoa dutenak dira. Hauen artean, mota ezberdinetakoak aurki ditzakegu: batzuk historia sakratuari lotuak dira, beste batzuek santu eta santen bizitzen berri ematen digute, beste batzuek jokabide moral egokiaz dihardute eta beste batzuk, berriz, fedearen aurrean zalantzak agertzen dituztenei daude zuzenduak.

Abiapuntu gisa, har dezagun Xenpelarri kezka eragiten dion sekularizazioa. Xenpelarrek esplizituki hitz egiten du elizatik aparte samar bizi nahi dutenez, lehenengo bertsotik hasita: *"Bertso berriyak jartzera nua / iñork nai badu ikasi, / nere burua sartu bear det / ortarako lendabizi; / mundu ontako pasadizua / nai nuke adierazi, / asko gabiltza arrokeriyan / elizagandik igesi, / geren animaz oroi gaitezen, / eztu galtzerik merezi"*[2029].

Zertan ikusten du Xenpelarrek elizatik ihesi dabiltzala zenbait? Hona zein aztarna hartzen dituen kontuan. Batetik, elizarako ordez, festarako errazago prestatzen direnak ditu gogoan: *"… / elizarikan ikusi nai ez, / beti festara begiyak, / beren buruak apaindu eta / <non dira erromeriyak?>"*[2030]. Beren buruak hondatzen dituztenak omen dira hauek, gorputza abandonatu eta anima galtzen dutenak. Bestetik, elizara joan bai, baina debozio gutxirekin joaten direnak, eta ateratzean, mezaz gaizki-esaka aritzen direnak: *"Elizarako deboziyorik / ez degu artzen erdiyak, / orregatikan eldu zaizkigu / kastigu izugarriyak; / asko onela egoten dira / meza entzuten jarriyak: / ausentzian ta arguriyuan / mingañaren pikardiyak; / aditu nai eztuenik bada / itxi bitza belarriyak"*[2031]. Eta meza ondorenean: *"Elizatikan ateratzian / junta alkarren ondora, / bi debozioz baldin badaude / iru murmuraziora: / <Meza luzian egondu gera / eziñ pasarik denbora>: / beren animak desanparatu, / etsaiarentzat mejora"*[2032]. Hirugarren, urtean behin besterik konfesatzen ez direnak eta orduan ere erdizka: *"Urtian beingo konfesiyua / geienak gogo txarrian, / <Egunez askok ikusten gaitu, / guazen illunabarrian>. / Damurik gabe prestatzen dira / sazerdotien aurrian, / txikiak esan, aundiak utzi, / irutatik bi gordian, / beste munduan ageriko da / orrelakuak nor dian"*[2033].

---

[2029] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 257. or.
[2030] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 257. or.
[2031] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 258. or.
[2032] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 258. or.
[2033] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 259. or.

Xenpelarrek ideia honetan sakontzen du 1866an idatzitako "Bertso berriak" bertso sailean. Fedearen aurrean iritzi aniztasuna nola zabaltzen hasi den garbi adierazten du, eta horren aurka nola dagoen: *"Zeruko Aita, zure biar naiz, / eskatzen dizut graziya, / fede santura biurtu dediñ / dudan daguen guziya; / oponiyua bire askotan / zabaltzen dago asiya, / etsai gaiztuen atzaparretan / tentaziyuak josiya"*[2034]. Xenpelar apala da eta bere burua ere horien artean sartzen du –*"Nire burua santu egin ta / ez naiz asiko ezertan, / guziyak gera pekatariyak, ezta dudarik orretan; / asko desioz engañatzen da, / bestiak berriz obretan, / fede gaiztoko mandamentuak / animarentzat sobretan"* [2035] -. Bertso sail honetan Aita Santuaren alde ere mintzatuko da Xenpelar[2036]: *"Aita Santua Jaungoikuaren / urrengo agintariya, / mandamentuak nola guardatu / erakusteko jarriya; / mundu guziyan predikatzen du / au da fedeko egiya, / aren kontrako pekatariya / dago lastimagarriya"*[2037]. Nolatan burla egin hainbesteko sufrimentua besteen alde pasa zuen Jesusi? Horrela adieraziko du Xenpelarrek: *"Guregatikan pasatu zuen / eriotzako ordua, / iltzez josi ta gero arantzez / egiñ zioten korua; / au da zeruko eta lurreko / gauza guziyen burua, / zure legia burlatutzeko / zeñek biar du gogua?"*[2038]. "Burla" hitzaren erabilera azpimarragarria da hemen.

Sekularizazioaz gain, Xenpelar gehienbat kezkatzen duena edota bere bertsoetan behintzat azpimarratzen duena, hau da: heriotza, heriotza osteko bizitza, eta hau zeruan izan dadin, lurrean eman beharreko bizitzaren ezaugarriak zeintzuk diren. Munduko bizitzaz emango duen ikuspegia, erlijioaz ari denean, gogorra izango da: elizaren bitartez Jainkoak ematen dion grazia galtzeko eta pekatuan erortzeko zorian aurkituko da beti gizakia. Eta hori gertatu ez dadin, etengabe aritu behar du laguntza eske santu eta santei, Jesus eta Mariari. Honetaz ariko da etengabe erlijioaren inguruan osatuak dituen bertsoetan. Xenpelarren erlijio ikuspegia indibidualistagoa da Pello Errotarena baino eta baita zorrotz eta gogorragoa ere –integristagoa-.

"Bertso berriyak Xenpelarrek jarriyak" bertso sailean garbi erakusten du hau[2039]. Horrelaxe ematen dio hasiera bertso sailari: *"Denen partetik laguntza on bat /*

---

[2034] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 272. or.
[2035] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 272. or.
[2036] Kontuan izan behar dugu 1870. urtean Aita Santuak "Elizaren estatuak" zeritzan haien lurrak galdu zituela, Italiaren batasun prozesuaren testuinguruan; urte berean eman zen Aita Santuaren hutsezintasunaren dogma. Ultramontanismoaren garaia ere bazen hura: Aita Santuaren irudia defendatzen zuen mogimendu honek, gobernu zibilaren figuraren aurrean.
[2037] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 273. or.
[2038] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 275. or.
[2039] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 236. or.

*galdetzen diyot Jesusi, / pekatariyen bizi tristia*[2040] */ nai nuke adierazi, / bataiatu giñan momentutik / genduen zerua irabazi, / anima garbi iduki dezagun, / eztu galtzerik merezi"*[2041]. Gorputza eta arima bereiztuko ditu Xenpelarrek.

Zeintzuk dira "zerura" joan ahal izateko ekidin beharreko jokaerak? Hainbat bertsotan hauek jasoaz joango da Xenpelar. Laugarren bertsoan, adibidez, *"Asko alditan aditzen degu / jeniyo txarrak uzteko"* esaten digu[2042], baina ez du honetan gehiegi sakontzen. Zehaztasun gehiagorekin hitz egiten du Xenpelarrek bilera edota dantzarako topaketen kontra, edota horietatik nola erretiratu behar den:

> *"Billeretako disimuluan / dauden soñu ta baltsiak, / animarentzat kaltian dator / gorputzen gustora ibiltziak; / ondore txarra berekiñ dakar / toki gaiztora biltziak, / ai zer lastima emango duen / betiko ditxa galtziak!*
>
> *Erretira txarrian gabiltzanak / askotan gaban gau erdi, / iñork ikusten ez gaituelakuan / egiñaz edozeiñ pikardi; / orlako jeniyuak dauzkaunak / uzten baditugu garbi, / zeruko birian aingeruak / egingo digute argi"*[2043].

Beranduagoko bertso sail batean "… / *animarentzat kaltian datoz / gorputzaren maleziyak, / zertako dira tratuak eta / munduko irabaziyak? / Emen utzita juaten dira / oraindañoko guziyak"*[2044] ere aipatuko ditu, alboratu behar diren ekintzen artean. Eta bertso sail berean, azken bertsoan: *"alde batera utzi dezagun / mundu ontako gustua, / edo bestela etorriko zaigu / sententziren bat estua;"*[2045].

Gorputzaren "bizioez" ere hitz egingo du 1866ko gai antzekoko beste bertso sail batean: *"Etsai gaiztuen tentaziyuak / ezpaninduke josiko, / pekatuaren lasatasuna / nuke adieraziko; / gorputzak diyo biziyo txarrak / ez dituela utziko, / gero anima kondenatua / eternidade guziko"*[2046]. Eta beste bertso batean: *"Barrabas bere Satanasekin / presente eriotzian, / egun bi emen gustora pasa, / infernurako iltzian"*[2047]. Eta hurrengo batean, gorputz eta arimaren arteko desberdintasuna azpimarratuz: *"Utzi munduko arinkeri ta / bire gaiztoko pausuak, / nola diraden*

---

[2040] Salve Reginako "in hac lacrimarum valle" hura gogora ekartzen digu horrek.
[2041] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 236. or.
[2042] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 237. or.
[2043] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 237. or.
[2044] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 261. or.
[2045] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 261. or.
[2046] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 273. or.
[2047] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 273. or.

*esaten digu / Jaungoiko amorosuak; / gorputzagandik apartatzeko / pekaturako lazuak, / betiko pena izan eztezan / gero anima gaisuak"*[2048].

Azkena aipatutako bertso sail horretan modu desegokian aberastutakoei ere egiten die erreferentzia, ekidin beharreko portaera gisa: *"Gorputza il da anima bizi, / arentzat mantxa gaiztuak, / orra munduko Indiyak eta / interesaren gustuak. / Zenbat dirade komeni eztan / moduan aberastuak? / Eternidade guziyan gero / tormentu kruel estuak"*[2049].

Ekintza eta jarrera desegoki hauek guztiek nora daramate gizakia? Azken juizioaren ondoren, infernura[2050]. 1867. urtean osatutako bertso sail batean –gero eta hurbilago 1868ko seiurteko iraultzailetik eta honetan erlijioa zela eta hartutako hainbat neurritatik- gogortasunez deskribatuko dizkigu azken juizioa eta infernua Xenpelarrek. Dirudienez, elizan entzundako sermoi baten ondoren egindako bertso saila da "Azken juizioarena" bezala ezagutzen dugun hau: *"Abenduaren lendabiziko / goizeko zazpiyetan zen, / templo santuan egondua naiz / sermoi eder bat aditzen"*[2051]. Nolakoa izango da azken epaia? Hona Xenpelarren hitzetan: munduaren bukaera etorriko da lehenengo. Irudika dezagun:

> *"Munduko gauzen erematia / dakar azken juiziyuak, / auts biurtuta utziko ditu / erri ta palaziyuak, / mendiyak lertu alkarren kontra, / erreino eta naziyuak; / sententzi ori botako digu / Jesusen bendiziyuak.*
>
> *Itxasuak su, eguzkiya illun, / illargiya odolak artu, / lurrak ikara eta gañera / erriyo danak agortu; / munduko gauza baliyosuak / erre ta ikatz biurtu, / pekatariyak umill gaitezen / bada zerekin beldurtu "*[2052].

Eta heriotzaren ondoren, azken epaia etorriko da gero Josafateko zelaian, infernurako edo zerurako, animen bereizketa: *"Alkarren bistan emango digu / sententziya bat zorrotza, / gure faltak an agertu biar, / gaiztuarentzat zer lotsa! / Pekatariyak altxa dezagun / Jesusengana biotza, / konsideratu nola gugatik / pasa zuen eriotza"*[2053]. Kargudun edo kargugabe, pobre edo aberats, denak berdin[2054] izango dira orduan: *"Aita Santu ta errege oiek, / obispo ta apaiz guziyak, / pobre,*

---

[2048] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 274. or. Lan bereko 287. orrialdean jasotako "Bertso berrietan" ere jasoko du dikotomia honen berri Xenpelarrek.
[2049] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 274. or.
[2050] "Novisimoak" dakarzkigu Xenpelarrek gogora, hau da, gizakiaren bizitzan "azkena" gertatzen direnak lantzen dituen teologiaren adarra. Zer da teologia horren arabera gizakiari azkena gertatzen zaiona? Heriotza, epaia, purgatorioa, zerua eta infernua.
[2051] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 287. or.
[2052] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 288. or.
[2053] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 289. or.
[2054] Kontsolamendu gisa erabiliko ote du hau Xenpelarrek?

*aberats dianak berdiñ, / maisu orren justiziyak; / diruak eztu an baliyoko, / ori gauden ikasiyak, / zeñi beria emango digu / Jaungoikuaren graziyak"*[2055].

Bertso sail berean deskribatuko digu Xenpelarrek infernua: *"Infernua da kalabozo bat / mortal ikaragarriya, / sartutzen danak ikusiko du / tormentu oien berriya; / Luzifer dago ango errege / ezpatarekin jarriya, / orren mendian egon biarrak / animak daukan larriya"*[2056] eta baita zerua ere: *"Zeruak dauzka amabi ate, / aingeru bana guardiyan, / urrez egiñak murallak eta / alaja fiñak erdiyan. / Gloriyak daukan edertasuna / musikaren alegriyan! / Premiyu ori alkantzatzera / gabiltzan fede garbiyan"*[2057].

Lehen, ekidin beharreko portaerak azpimarratu ditugu. Orain, zeintzuk dira jarraitu beharreko jarrera eta ekintzak? Zeruan sartzeko ahalegindu beharra dago. Nola? *"Mantxarik gabe dijuazenentzat / badira toki ariñak, / bera amatuaz dabillenentzako / gure Jainkuak egiñak; / arrosaiuak debozioz esan / eta guardatu dotriñak, / zeruko erreinuan sartu gaitezen / egiñ ditzagun alegiñak"*[2058]. Jainkoa maitatuz, errosarioa esanez otoitz eginez eta dotrinak esanak gordez bizi behar da Xenpelarren iritziz. Umiltasun eta konformidade jarrerak ere behin baino gehiagotan azpimarratuko ditu Xenpelarrek: *"Umildadian ibilli bada / Jesus onan izenian / bire okerrak utzi alde bat / eta segi zuzenian; / konformaturik jartzen bagera / garbi beran esanian, / estimaziyo ona izango degu / emendik guazenian."*[2059]. Xenpelarrek ahalegin honen berri emanez bukatzen ditu azken juizioari buruzko bertsoak ere: *"Bertso berriyen errematia / zer datorkigun jakiña, / orra nik esan nola diraden / gustuak eta samiña; / zeru eder au alkantzatzeko / enpeñatu alegiña, / zu bitarteko eskatzen zaitut, / aingeruen Erregiña"*[2060].

Eta arestian aipatutako moduan bizitzea lortzen ez duenarentzat, konponbide gisa hor izango da konfesioa, grazia egoerara bueltatzeko eta zerurako bidea berreskuratzeko: *"Pekatu egin-ta galduak giñan / erremeriyorik ezpazen, / konfesatuta barkatzen dira, / premiya degunak guazen; / damutasun egiazko batekiñ / penitentziya egiñ zuzen, / azken orduan mantxarik gabe / garbi presenta gaitezen"*[2061].

---

[2055] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 289. or.
[2056] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 290. or.
[2057] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 291. or.
[2058] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 236. or.
[2059] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 238. or.
[2060] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 291. or.
[2061] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 237. or.

Gure erruek Jesus gurutzetu zutela eta berriro ere sufriarazi egiten diotela esango digu: *"Jesus maitia kulparik gabe / orra guregatik illa, / Josefatara etorriko zaigu / anima justuen billa; / azken juiziokoak duanara (sic) / juango gera zenbait milla, / beste ordenarik eztigu ematen: / gaiztua ondu dedilla"*[2062].

Beti presente izanez heriotza gutxien uste dugunean etor dakigukeela eta beti prest egon behar dugula: *"Gutxina eztanian etorriko da (sic) / oso sententzi tristia, / egunez edo gabaz igual, / ordu jakiñak eztia; / gure anima ainbesteraño / Jesus onari kostia, / azkenian ba pena izango da / Luzifer orri uztia"*[2063]. Infernuaz ere hitz egingo du, hura deskribatuz: *"Etsai gaixtuen kalabozuan / sartutzen bagera baldiñ, / betiko sutan aien mendian, / egon bearra ezta atsegiñ; / katez loturik penatzen beti, / iñundik eziñ igesi egiñ, / denbora dala zuzen gaitezen / orlakorik gerta ez dediñ"*[2064]. Atrizioa azpimarratuko du Xenpelarrek, hau da, zigorraren beldurrak eraginda zuzendu behar dugu jokabidea, ez hainbeste Jainkoarekiko maitasunari traizio egiteak sortuko liguken minagatik.

Hitz baten erabilera urrian jarri nahi genuke atentzioa: ebanjelioa oso gutxitan ikusiko dugu aipatua Xenpelarren bertsoetan. Azken juizioaz ari dela, azken aurreko bertsoan adieraziko du: *"Aita Santua Erroman dago, / izena Pio deritza, / aren kontrako enemiguak / inguratuak dabiltza; / Jaungoikoaren birtutia da / beti errenditzen gaitza, / kristau fielak, kunpli dezagun / ebanjeliyoko itza"*[2065].

Lehen esan bezala, Xenpelarrek historia erlijiosoaz eta hainbat deboziori buruz ere jarriko ditu bertsoak. Jesu Kristoren pasioari egingo dizkio Xenpelarrek hamazazpi bertso. Kasu honetan baita ere hasieratik azpimarratuko du Jesu Kristoren pasioari esker dutela kristauek zerurako sarbidea: *"Fedeko egia bat / kantuko moduan: / zer pena pasa zuan / Jesusek munduan; / ia, nire kristauak, / aditu kontuan: / izan bearko genduan / zerutik kanpuan, / Jesukristo ill ez balitz / gurutze santuan"*[2066]. Getsemaniko otoitzetik hasi eta gurutzean hil artekoaren berri emango du Xenpelarrek. Ostiral Santua da, beraz, eta egun horretan gertatua, Xenpelarrek jasoko duena. Pazko Hirurrenaren baitan, ostegun santuko hainbat pasarte, larunbat santua eta piztuera ez ditu Xenpelarrek aipatuko. Pasioaren kontakizunari dagokionez, martiritzaren alderdirik gogorrenak azpimarratuko ditu Xenpelarrek:

---

[2062] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 239. or.
[2063] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 238. or.
[2064] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 238. or.
[2065] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 291. or. Bestea, 183. orrialdean, jeniodun gaztea apaltzeko, Ebanjelioak hartu beharko dituela esaten duenean. Aurrekoaren zentzu desberdina du, beraz.
[2066] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 265. or.

arantzazko koroa, zigorkadak, gurutzea hartzea eta Kalbario mendira igotzea, bidean izandako erorketak, eta gurutzean josi eta bertan hiltzea. Aurrekoetan esan bezalaxe, kasu honetan ere Jesusek pasatako hura guztia kristauen salbamenerako egin zela azpimarratuko du.

Jesusen bost zauriei ere egingo die bertso saila Xenpelarrek. Egunean bi aldiz gogoratu beharko omen lituzke kristauak zuzen bizitzeko: *"Bost llaga sagraduen / adorazioa, / biotzetikan bada / zer orazioa! / Egunean bi aldiz / ejerzizioa, / egingo baldin balitz, / au bai lezioa!"*[2067]. Ahal duenetan Jesusen zauriak eta kristauen ekintza okerrak lotzen saiatuko da Xenpelar. Hamabitik lau bertso oso eskainiko dizkio ideia honi. Horietatik bat jasoko dugu duen indarragatik: *"Zu ofenditzen beti / nere pensamentuz, / itzez, obraz, deseoz, / oñaz eta eskuz; / nola bizi naiteke / onela deskantsuz, / anima loiturikan / badaukat pekatuz?"*[2068].

San Joseren debozioa gaitzat hartuz"San Joseren zazpi doloreen bertsoak" bertso saila osatu zuen Xenpelarrek[2069] 1854an. Bertan San Joseren bizitza kontatzen du eta beraganako debozioa indartu nahi du: *"Dibersio polit bat / buruan det pasa, / iruritzen zat dala / txit ondo dan gauza; / bertso bi paratzeko / egin det ametsa, / San Joseren bizitza / kanta al baneza"*[2070], eta hirugarren bertsoan: *"…bizitza artako zazpi / dolore eta gozo / munduari nai diozkat / kantuz adierazo"*[2071]. Bibliako pasarte eta pertsonen kontakizuna egiten duenean sufrimentuaren alderdia azpimarratzen du bereziki Xenpelarrek, garai hartan elizan nagusi zen sektoreak egiten zuen bezala.

Santa Barbarari ere egin zion Xenpelarrek bertso saila[2072], "Bertso berriak Senpelarrek jarriak Dioskodok bere alabari lepoa kendutako bizitza Santa Barbarari" izenburupean hemezortzi bertsoz osatua. Zein helbururekin osatu zuen Xenpelarrek bertso sail hura? Santa Barbararen bizitza kontatu eta adibide gisa ipini nahi die kristauei. K.o. III. mendeko erromatar martiria izan zen Santa Barbara.

Gai erlijiosodun bertso sailekin bukatzeko, 1867. urtean Balentin Berriotxoaren bizitza kontatuz Xenpelarrek[2073]jarritako bertsoak aipatuko ditugu. Hogeita lau

---

[2067] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 241. or.
[2068] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 243. or.
[2069] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua*, op. cit., 105. or.
[2070] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 105. or.
[2071] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 105. or.
[2072] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 248. or.
[2073] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 277. or. 1861ean hil zuten, baina bertsoak 1867. urtean eginak dira. 1868ko seiurteko iraultzailea hurbil da eta fedearen kontrako giroa

bertso dituen bertso saila da hau. Santa Barbararen kasuan bezala, martiri baten bizitza da Xenpelarrek hemen kontatzen diguna, kasu honetan, Elorriokoa zena eta Tonkinen (egungo Vietnam) gotzain izan zena. Gertakizun hauek guztiak kontatzen dituen bitartean Balentinen jarrera eta ekintza egokiak azpimarratuko ditu, bertsoak irakurri edo entzungo dituztenek kontuan hartzeko modukoak: *"Artua jan da ura erari, / arri gañian lo egin, / beti Jesusi erregututzen / gutaz akordatu dedin; / kristandadia nai zuenari / konfesiyoak eragin, / jakiña dago salbajiakin / etzeguala atsegin"*[2074]. Balentinek fedearen kontrakoak aurkituko ditu beraz lurralde haietan. Arestian ikusi dugun bezala, Xenpelarrek "salbajetzat" hartzen ditu bertako biztanleak[2075], baita haien agintariak ere: *"Erreinu artan gobernadore / salbajien nagusiya, / Jaungoikoaren beldur gabia, / estranjeriyan aziya; / relijiyoko fede santuan / jarri nai duen guziya, / agindu zuen plazan kentzeko / ezpatarekin biziya"*[2076]. Agintari horiek izango dira kristauak pertsegitu eta hilko dituztenak, eta horien artean, gotzainak, eta Balentin Berriotxoa. Horixe kontatuko du Xenpelarrek: *"Arrapatuta kate gogorrez / lotuak zeuden elkarri, / iltzeko eman sententziya ta / kartzela banetan jarri; / soldadu-tropa baten erdiyan / gero plazara ekarri, / ezpatarekin lepuak moztu / dizkate lastimagarri"*[2077]. Bi desio agertzen ditu azken bi bertsoetan Xenpelarrek: batetik, hil zituzten hiru gotzainen animak zeruan izan daitezela eta, azkenik, baita bertsolaria eta bertsoen entzule-irakurleak ere. Hona: *"Orra ogei ta lau bertso berriyak / ejemplo eder batian, / oroipengarri kanta ditzaten / pekatarien artian; / ai, gure Jesus, eskatzen dizut / grazi (y) au erematian: / komeni da ta sartu gaitzazu / zeruetako atian"*[2078].

Erlijioaren ikuspegirik zorrotz eta gogorrena emango digu Xenpelarrek: gorputzaren atseginen kontra mintzatuko da eta arima eta ondoko bizitza izango da kristauak helburu izan behar duena. Kristauak gogoan izan behar du beti heriotza eta azken epaia. Arima salbatzeko jokabide zuzena eta erlijio pietista jarraitu beharko ditu (debozio, errosario eta konfesioan oinarritua). Erlijioaren alderdi ebanjeliko eta komunitarioei ez die Xenpelarrek apenas erreferentziarik egingo.

---

ere berotuz doa. Horregatik agian Xenpelarren bertsoak 1866 eta 1867. urte inguruetan fede zalantza eta kontrarioen aurka, edota bestelako testigutzak zabalduz.

[2074] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 281. or.

[2075] Aurrerago ikusiko dugun bezala, Pedro Mari Otañok ere salbaje izena emango die, kasu honetan, Afrika iparraldeko biztanleei.

[2076] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 281. or.

[2077] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 282. or.

[2078] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 283. or.

### 4.1.3. Erlijio hizkuntzaren erabilpen sekularizatua

Gure ustez, aztertutako sei bertsolariak dira sinestunak, baina orain artean landu ditugun hirurak, Pello Errota, Txirrita eta Xenpelar dira, batez ere, bertsolaritza eta bertsoak gai erlijiosoaz hitz egiteko erabiliko dituztenak. Bilintxek, Pedro Mari Otañok eta Joxe Mari Lopetegik hizkuntza erlijiosoa erabiliko dute hurrenez hurren emakumeekiko maitasunaz, herriarekiko maitasunaz eta errepublikanismoaz hitz egiteko. Sekularizazio zantzuak ote?

Dama aingerutzat izendatuz, Bilintxek, erlijioaren gainetik, Jainkoaganako maitasunaren gainetik jarriko du ia-ia emakumearekiko maitasuna: "*Andik urrena ipiñi nizun / erreparua petxura, / ordubantxen bai eman nizula / aingeru baten itxura; / Jainkoak berak deitu izan balit / iyo nerilla zerura, / zure ondotik ara juan biarrak / emango ziran tristura*"[2079]. Baliteke mugimendu erromantikoaren maitasunaren sublimazioak eragitea horrelako "hiperbolea", baina esana eta idatzia geratzen da. Beste bertsolari batzuen ahotan pentsaezinak lirateken hitzak dira hauek. Bertso saileko azken bertsoak erlatibizatu egingo du hau pixka bat, Jainkoari errealitatean eragiteko indarra "bueltatuz" berriro ere: "*Beti ariko naiz Jaunari eskaka / ondo izan zaitezela, / etzazula uste nire biziyan / zutzaz aztuko naizela; / eskumuñak maiz bigal nazkitzu / orain artian bezela, / hainbeste egin biar dirazu, / penaz ilko naiz bestela*"[2080]. Bilintxek maiz erabiliko du era honetako deskribapenik emakumeei buruz hitz egiteko.

Zuzenean gai erlijiosoaz, badu Bilintxek konposizio bat "Konfesoriagana" izena duena. Bertan pasadizo modukoa kontatzen du. Emakume gorra konfesatzera nola doan kontatuko digu. Apaizak seigarren aginduaz galdetu eta emakumeak, berriz, "Zein da Jaungoikoa?" galdetu ziola pentsatu, eta hona emandako erantzuna: "*Da pentsatu liteken / gauzik ederrena*"[2081]. Xenpelarrek konfesioaz hitz egiten duenean edo Bilintxek pasadizo moduko hau jasotzen duenean, ez dute ez gauza bera buruan, ez dira hurbiltzen ikuspegi beretik eta ez dute gauza bera adierazi eta erakutsi nahi.

Pedro Mari Otañori dagokionez, bere haurtzaro eta gaztaroko ingurua erlijiosoa zela esan behar. Hona hemen 1895. urtea baino lehenago idatzia zuen "Elizakuak edo au mundua!" bertso saila. Margo kostunbrista baten antzera, hilzorian dagoen pertsona bati gaixoen igurtzia eta Jauna ematera apaiza akolitoek lagunduta,

---

[2079] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 157. or. Ikus azterketa honetako 2.3.4. azpiatala. Hemengoaz gain, beste adibideren bat ere jaso dugu han.
[2080] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 159. or.
[2081] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 361. or.

kanpaitxoak joaz, nola joaten zen deskribatzen digu. Ikus dezagun zenbateraino diren plastikoak lehenengo bi bertsoak, argiaz hitz egiten baitu funtsean lehenengoak eta argiaz batera, isiltasun eta soinuarekin sortutako atmosferaz, eta bigarrenak, berriz, irudi hark ingurukoengan sortutako erreakzioaz. Bizikizuna edo idealizazioa ote, edo lehenengoan oinarria duen bigarrena?

> *"Illunak nabarturik / bideko tiñua / zeukan, ta ixildu zan / txorien doñua; / odoi tartetik iñoiz / izarren keñua / senti zan, bañan bian / sortu zan lañua; / argi baten aurretik / kolpez errañua / azaldu zan, ta laxter / -eliza-siñua- / gugana iritxi zan / txintxarri-soñua.*
>
> *Txilin-txilin jo zuben / berriz txintxarriyak, / aditzera emanaz / gauza mirariyak, / beti txit onak, bañan / iñoiz miñgarriyak, / izaten diranian / gaitzak ekarriyak. / Oso tristetu ziran / gure aurpegiyak, / ta beria azaldu / zuben illargiyak; / eskuban arturikan / buru-estalkiyak, / lurrian belauniko / an geunden jarriyak, / ta parte artu zuben / zeru-gau-argiyak: / an pasa biar zuben / Jaungoiko aundiyak"*[2082].

Bertso sail berean, hirugarren atalean, kristau fedearekiko atxekimendua ageri du Pedro Mari Otañok, gehienek omen dutena, bere hitzetan: *"Eukaristi Santua / jarriya Maisuak / zijuan pasatzen, ta / beraren pausuak / umill agurtzen ditu / kristau fedetsuak; / ta nola emen ala / geran geientsuak*[2083]*, / gertatzen diranian / alako kasuak, / burubak makur eta / biyotzak jasuak, / barrendikan egiten / dira errezuak, / meserez izan ditzan / miñ duben gaxuak"*[2084].

Bizitzak aurrera egiten du, ordea, eta desgrazia eta bizitzako kolpeak ez zaizkie denei batera etortzen; horregatik, Pedro Mari Otañok kontatuko du nola hilzorian zegoena bisitatzera joan zenean, eraikuntza berean bizi zen beste familiaren etxean kantu hotsak entzun zituen. Teilatupe berean bai, baina ez ziren, beraz, zertan elkarrekin bizi:

> *"…Eskaratz zar batera / sartu ondorian, / kanta-otsa senti zan / etxe-barrunbian, / guztizko doñu alai / eta ederrian. / Pozez bera aditzen / negola an bian, / biziro berri onak / ziraden idian, / gizon bat azaldu zan / ate-brinbalian, / eta nere galdeera* (sic) */ egiñ niyonian, / malko bi zerorizkan / bere masallian, / ta ziyon: <Ortxen dago / gaxu'iy'illian!>. / Bere ama maitia / zedukan oyian! / Arriturik gelditu / nintzaion aurrian, / ta kanta otsa nola / senti zan artian, / esan niyon: <Or nola / daude umorian, / agoniya arkitzen / bada etxe berian? / Ori ez da kabitzen / kristauben legian>. / Eta erantzun ziran / erdi negarrian: / <Ai! Or famili asko / nola bizi dian, / anbat jakingo ere / ez dute ordian / desgrazi au arkitzen / danikan gurian. / Eziñ biziyak gauzka / aiñ bakardadian, / ixil-ixillik geren / baztartxo pobrian, / beste guztiyetatik / kasikan gordian, / ez bagiña bezela / jaiuak lurrian!…*

---

[2082] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 392. or.
[2083] Sekularizazioaren hastapenak ote?
[2084] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua,I,* op. cit., 393. or.

*/ Iltzia obe izan / liteke aldian, / bizi ez danarentzat / itxura obian!...>. / Zenbat olako oi da / mundu zabalian!!"*[2085].

Ezagunak dira Pedro Mari Otañok 1900. urtean idatzitako "Aita-semeak" bertso sailean erlijioari egiten dizkion aipamenak. Aitak Ameriketara doan semeari ematen dizkion kontsejuen parte garrantzitsu da kristau erlijioari eustearena. Nabarmena da gurasoek erlijioari ematen dioten garrantzia. Jainkoaren presentzia eta indarra bizitzari loturik ageri da: semea Jaunaren laguntzari esker hazia dute, semea Ameriketara joan nahi izatearen erabakiaren atzean Jaunaren nahia edo borondatea dago. Gurasoek ez diote indar honi kontra egingo, bestela baizik, onartu egingo dute honek dakarrena:

*"Lagundurikan denoi / gugatik ill zanak, / seme, azi zaitugu / aitak eta amak, / beti zure gidari / izandu geranak. / Oraiñ gurutze onen / oñean esanak, / ondo goguan artu / biaituzu danak.*

*Zu Ameriketara / joatia emendik, / Jaunak ala nai badu, / zer egingo det nik? / An ez dezu izango / aitik eta amik; / baña etzera galduko / noranaira joanik, / ez bazaizu aztutzen / gaur emen esanik.*

*Gorde zazu buruan / eta biyotzean / aitak zer esan zizun / onuntz laguntzean, / bitarteko arturik / Jesus gurutzean: / Jaungoikua t'ait'amak / batek aztutzean, / ez leike ondo izan / denbora luzean.*

*Ez nizuke utziko / joaten, egiyetan, / gure erlijiyua / ez balitz an bertan. / Iritxiko baziña / aiñ urrutiyetan, / erri ta eleizarik / ez dan tokiyetan, / oroi zaitez Jainkoaz / leku guztiyetan.*

*Seme, izan goguan / zere gurasuak, / eta uzten dituzun / senide gozuak; / jaio ziñan tokiko / mendi ta basuak, / euskerazko otoitzak / edo errezuak, / erakutsiyak zure / amatxo gaixuak"*[2086].

Erreferentzia hauetaz gainera, Pedro Mari Otañok badu gai erlijiosoa berariaz tratatzen duen bertso sail bat, 1895ean idatzitako "Larraldeko Magdalena" bertso saila. Bidasoako-Beran izan zen lehiaketa batera aurkeztu zuen[2087]. Gaia ez zen berak aukeratua, lehiaketan emandakoa baizik[2088]. Bertan Magdalena gaztetxoaren bizitzako pasarte bat eta heriotza kontatzen dira. 1793. urtean, Frantziar iraultzako eta Frantzia eta Espainiaren arteko konbentzioko gerraren testuinguruan,

[2085] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 394.-395. or.
[2086] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 48.-49. or.
[2087] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 432.-433. or.
[2088] Lore joko hauen sustatzaile Antoine d'Abbadie izan genuen. Larraldeko Madalenaren gaia gustukoa zuen honek eta ez da harritzekoa bertsoak osatzeko gaitzat hauxe ipintzea. Ikuspegi konserbadorearen defendatzaile izango zen d'Abbadie iparraldean.

Magdalenak, fededuna izanik, konfesioaren sakramentua jaso nahiko du: bere herrian apaizik aurkitu ez eta Bera aldera pasako da. Bueltakoan soldadu frantsesek harrapatu egingo dute eta egindakoa ukatzeko eskatuko: berak ezetz esango du, ordea. Agintariek lepoa moztuta hiltzera kondenatuko dute. Martiri baten aurrean gaude. Hona Pedro Mari Otañok nola egiten duen gaiaren aurkezpena lehen bi bertsoetan:

> *"Frantzes euskara itzegiten dan / mendi tantaien artean, / Sara deritzan uri kutuna / dago ibartxo batean; / erri leial au edertutzen da / bere kondaira maitean, / irakurriaz edo entzunaz / zer gerta zan jakitean, / milla zazpireun larogei eta / amairugarren urtean.*
>
> *Erri ontako aingerutxo bat / Larraldeko Magdalena / zan, amazazpi urte besterik / oraindik etzitubena, / guraso onak eska lezaken / alabarik leialena; / ikusirikan inguru artan / apaizik etzeguena, / konfesatzeagatikan sartu / zan Españian barrena"*[2089].

Bertso saileko azken bertsoan Jesusen heriotza eta Magdalenarena konparatuko ditu Pedro Mari Otañok: *"Jesus maiteak guruzpidea / igaro zuben modura, / barkazioa ta naitasuna / banatuaz ingurura, / <Salve, Regina> kantatuaz ta / begiratuaz zerura, / gillotinara igo ta ill zan / zoragarrizko aur ura, / ta aingeruak eraman zuten / santuen bizi-lekura"*[2090].

Erreferentzia erlijiosoak ere egiten ditu batzuetan Pedro Mari Otañok, nahiz ta bertso sail zehatz horren helburua erlijiosoa ez izan. "Reina Regente" itsasontziaren hondoratzeaz ari dela, honela bukatzen du bertso saila: *"Erregutu dezagun / ito zan jendea / Jaunak iduki dezan / berekin gordea, / eta egiñik bizi / diranen galdea, / lagun dezagun triste- / en bakardadea. / Au da egiñ bearra / daukagun tarea. / O, zer gauza ederra / den karidadea!!"*[2091]. Edota "Lora" (1907) operaren bukaeran, erreferentzia egiten dio Jaungoikoari, Gaintza aitaren hitzetan:

> *"Gure Jainkuak / sari autuak / leial bizitzen danari / ematen dizka, / denai aldizka; / emen ikusten da garbi.*
>
> *[…]*
>
> *Lora gaixuak / miñ beltz pisuak / Arazen jaioterriyan / igaro ditu, / ta gaur alaitu / da lengo miñen neurriyan; / orra sariya / irabaziya / arpegi eder garbiyan"*[2092].

---

[2089] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 432. or.
[2090] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 433. or.
[2091] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 420.-421. or.
[2092] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 321.-322. or.

Pedro Mari Otañok gai erlijiosoaz tratatzeko osatutako bertsoak, beraz, ez dira asko. Aurreraxeago ikusiko dugun bezala[2093], Pedro Mari Otañok euskaldun izaerari eta euskarari bertso ugari eskainiko dizkie, gai erlijiosoari ez bezala. Hala ere, euskal izaeraz eta euskarari buruz egiteko erabiliko duen hizkera kontzeptu erlijiosoetatik hurbil izango da batzuetan. Ikus, adibide gisa, Sabino Arana Jesu Kristorekin konparatzen dueneko bertso saila[2094].

Atal honekin bukatzeko, Joxe Mari Lopetegi hartu behar dugu hizketagai. Zein ote Joxe Mari Lopetegik erlijioarekiko zuen jarrera? Erlijioa ez da izango kezka nagusia Joxe Mari Lopetegirentzat. Hala ere, errazago egingo du bat balio erlijiosoekin – nahiz eta garaikidek hala uste ez- eliz erakundearekin baino. Bere bertsoetan ikusi ahal izan dugunaren arabera, eliz egituretatik eta eliz agintariengandik urruti agertuko da Lopetegi. Joxan Elosegik honakoa esango digu Lopetegiri buruz: *"Bertso hauetan argiro azaltzen da Lopetegi bertsolariak Irunen zeukan sinesgabe ospea. Halarik, apaizen aurkari suharra bazen ere, inoiz ez zuen Lopetegik fedegabea zenik adierazi. Bere burua halakotzat bazuen ez zion ama birjiñari Ama Maitea deituko, baina aldi berean zuzendadeko atea zabaltzen laguntzera etorri beharra zeukan inolaz ere. Erlijioaren topikoetatik urrun, giza borrokan burkide bilakatu zuen bertso hauetan Lopetegik kristauen ama birjina"*[2095].

Esandakoen froga gisa, hona Joxe Mari Lopetegik Ezkioko Ama Birjinaren agerkundeaz jarritako bertsoak. Bertso sail honetan ideia nagusi batzuk azpimarratzen ditu Joxe Mari Lopetegik. Batetik, ez duela Ezkioko agerkunde horietan sinesten: *"Geroztandikan entzuten ditut / berebiziko kontuak, / egiyak gutxi, gezurra lasai, / oitura dan modukuak, / zerbait bazala itxuratuta / oker jo diye kukuak, / millaka zenbat omen dirade / ekustera juandakuak, / bat bakarrikan ez da azaldu / zer dan ekusitakua"*[2096]. Bestetik, fedea baduela eta Ama Birjinarengan sinesten duela nahiz eta jendeak ez duen uste hau horrela denik. Nork izango zuen interesik Joxe Mari Lopetegiren fedegabezia aldarrikatzeko? Zergatik?

> *"Juango nitzake ekustearren / erantzun niyon danori, / nolakoa dan jakin nai nuke / diyoten imajiña ori. / Batek erantzun ziran kolpian / alperrik da Joxemari, / juanagatikan ekusitzera / etzaizu azalduko zuri, / arek ez diyo naitasunikan / sinisten ez duenari.*
>
> *Igerri niyon etzutela nai / ni urayekin juatia, / gelditu nitzan nerez pentsatzen / samintasunez betia, / biyotzetikan arturik neukan / fedezko borondatia / arritu*

[2093] Ikus 4.2.3. puntua.
[2094] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183.-184. or.
[2095] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 115. or.
[2096] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 117. or.

*nitzan ezjakin oyek / neri ori esatia, / okerren bat nik egin al diyot / ama birjiña maitia"*[2097].

Bertso saileko azkeneko bertsoa Ama birjinari zuzenduko dio: *"Ama birjiña azaldu nayan / zaude doayaz betia, / ez du merezi zu ikustera / zentzugabeak joatia, / egunen batez zabalduko da / zuzendadeko atia, / eta gezurra geldituko da / lokatz zulora botia, / on eta txarrak berezitzeko / etorri Ama Maitia"*[2098].

Zuzenean gai erlijiosoa tratatzen duen bertso sail horretaz gain beste bertso batzuetan ikus dezakegu nola balio erlijiosoak aipatuko dituen, eta nola hauekin eta hauek praktikan jartzearekin bat egingo duen. Adibidez, anaitasunaren alde egingo du eta, bide batez, erdaldunak baztertzen dituztenen kontra hitz egingo du –EAJren diskurtsoari erreferentzia eginez-: *"Laja ditzagun txorakeriyak / eta nora nai guazen, / erritik erri gu biyok behintzat / Euskeraz gera mintzatzen, / guk ez dizutegu lagunduko / maketorikan bialtzen, / pake onian gaudezelarik / okasiyorikan jartzen, / baizik Jesusen itz eztiyakin / anaitasunez elkartzen"*[2099]. Beste bertso batean, bera gaixorik zela lagun bat bisitan etorri zitzaiolako, honela esango dio: *"Izandu zeradela / eri bat alaitzen, / gizon biyotzdunentzat / obra txarra etzen; / Bostekua dirazu / bidetik bigaltzen, / nik amarrak emanda / etzaitut pagatzen"*[2100].

Azpimarratzeko modukoa da baita ere Joxe Mari Lopetegik errepublikanismoari dion lotura fede gisa nola aitortzen duen. 1916ko otsailaren 13ko *El Bidasoan* argitaratu zuen honako bertsoa: *"Aurrera ere segituko det / len jarritako bidian, / nere barrenak ez du faltatzen / arturik daukan fedian; / segi dezagun al bada danok / zuzendadezko legian, / sentimentuak argitaratu / iruki gabe gordian, / mundu guziyak jakin dezala / zein nolakuak nor dian"*[2101]. "Askatasunaz" bertso sailean ere esaten du horrelakorik: "*Nun gertatu da onelakorik, / nun jaunak, nun Azpeitiyan, / jesuita ta erlijiyua / besterik ez dan tokiyan; / Askatasunaz gaudezelako / lau lagun aruntz joan giñan, / gure barrengo fede leyala / aitortutzera itz biyan, / ekin ziguten laueri millak / guztiz modu itsusiyan*"[2102].

---

[2097] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 116. or.
[2098] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 117. or.
[2099] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 129. or. 1931ko bertsoa da hau.
[2100] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 71. or. *El Bidasoa*n argitaratuak izan ziren bertso hauek 1916ko otsailaren 13an.
[2101] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 76. or.
[2102] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 107. or.

Isaias profetaren liburuaren antza ere hartzen diogu bertso honetan erabiltzen duen irudiari[2103]: *"Gezurrarekin oinperaturik / nola egondu geraden, / gaur eguzkiya ekusten degu / illunpean geudenak len, / jakiñik gure zuzenbidea / zein bidetatik datorren, / ordun bezala guazen guztiyok / anaitasunez alkarren, / aldatu degun zuatz eder au / iya indartzen ote den"*[2104].

Hona ba, erlijioa bizitzeko hainbat modu. Anparo bila, segurtasun bila, edota oinarrizko fede esperientzia batek nola tresna eta baliabideak emango dizkien bertsolari batzuei maitasun edota politika kontuez mintzatzeko.

## 4.2. Gu eta besteak: identitate kolektiboaren arazo "modernoa"

Antropologiaren eremuan alteritatearen zioa gizakiari izatez lotua ageri da. "Alter" hori aldatuz joango da denbora eta espazioaren arabera, baina bere existentzia unibertsala da.

Modernizazio prozesuaren eraginez "bestea" aldatuz joango da Gipuzkoan. Ondoko herriko edo komunitateko kideak "bestetzat" hartzetik, hizkuntzaz edo kulturaz desberdinak direnak "bestetzat" hartzera joko da, eta "beste" horrekiko harreman dialektikoa puskatzeraino behartuko da soka zenbait kasutan.

### 4.2.1.Landa eremuan eta herrietan antolatutako Gipuzkoan: "bestea" ondokoa denean

Luze mintzatu gara gai honetaz 3.1.2.2. puntuan. Landa eremuan "bestea"ren funtzioa ondoko herriak betetzen zuen maiz. Hau da, komunitate batek bere burua irudikatzeko zeukan erreferentzia edo ispilua ondoko komunitatea zen. Pello Errotaren bertsogintzan erreferentzia ugari aurki ditzakegu "gu"aren osaketari buruz. Testuinguruaren arabera, modu ezberdinean ulertuko da hau. Lanean zehar ikusi dugu nola landa eremuan eta herrietan antolatzen zen Gipuzkoa hartan "gu" hori bizi-komunitateak gorpuzten zuen eta nola hau indartzeko, lotura hauek mantentzeko, indar eta dinamika jakin batzuk ematen ziren, bai barrura begira –erlijioak pisu handia zuelarik hauen artean-, eta baita kanpora begira ere –"besteei" esker. Aztertzen ari garen garaiko landa eremuan "gu" eta "beste" haien arteko tartea txikia zen. Ezberdintasuna neurtuko lukeen lerro zuzen batean kokatuko

[2103] Isaias 9.

[2104] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 104. or. 1931ko ekainaren 27an *Irun Republicano*n argitaratutako bertsoa da hau.

bagenitu, hurbil leudeke bata bestearengandik. Hala ere, nahiz eta distantzia motza izan, bakoitzak bere funtzioa beteko luke. Atal honetan "beste"ari dagozkion bizpahiru adibide besterik ez ditugu jasoko, aurrez oparo ilustratu baitugu kontu hau. Nor izan daiteke bestea? Ondoko herrikoa, herria herriaren kontra lehian izango delarik maiz, bataren eta bestearen izen ona lehian izango direlarik maiz; edota apustuan "beste" familia bat, "beste" herri bat, kontrario gisa –azken finean, egur bereko ezpala-.

1883an osatutako "Bertso berriak kolera eta txanpanen gañian jarriak" bertso sailean Antzuola eta Bergara herrien arteko gorabeherak jasoko ditu Pello Errotak. Herrien arteko gaizkiulertu eta esamesak jasoko dira bertan. Bergaratar zenbaitek Antzuolan eta Uberan kolera izan eta pertsona ugari hil zirela zabaldu omen zuten. Hau kontrajarriz, Pello Errotak Antzuolatarren erantzuna jasoko du eta hauek Bergaraz duten irudia zabaltzen saiatuko da: kolera dela eta Bergaran zer egin dutela esan duten eta hori gezurtatzen saiatuko da bertsolaria. Ikus:

> *"Ez sartzeagatikan / Bergaran kolera, / txanpanak bota omen / dituzte kalera, / erregatu ere bai / gora eta bera; / ori ezin sinistu / zentzuak bagera.*
>
> *Zenbaten mingañian / gauza aundiak dauzka, / jenero ona sortzen / izugarri gaitz da; / paperetan gezurra / jarritzen errez da, / kalera ezin bota, / erateko ez ta"*[2105].

Bergaratarrek hitzez aldarrikatzen duten aberastasunaren kontra egingo du bertsolariak. Ez dute xanpainik, ez txipiroi eta angularik, eta porrusalda janez moldatzen dira.

Lehen ikusi dugun bezala, apustuen mundua da identitateari begira "gu" eta "besteak" ezaugarritzeko bereziki egoki gertatzen dena. Apustuak ere, ezkontza tratuen antzera, hitzartu egiten ziren: "*Uztako illaren amarrian zan / apustu ori zerratu, / Jose Antonio ginduelako / astuarekin markatu; / obia non zan banerakien, / nik ere ez nion barkatu, / bosna pezeta siñale bota, / ontzako bana jokatu*"[2106]. Bi familiak apustua egin omen zuten astoa kargarekin jarri eta zein lehenago iritsi San Estebandik[2107] Iyuiaraino[2108]. "*Gu, apustua irabazita, / alare geunden serio, / zergatik ere panparreriak / iñun eztuben balio; / galtzalliaren pamili orrek / setari*

[2105] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 129. or.
[2106] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 134. or.
[2107] Gipuzkoan hiru auzo ditugu izen horrekin: Andoainen, Tolosan eta Usurbilen. Bertso sailaren izenburua eta bertsoetako edukia kontuan hartuz, Andoaingoaz ari dela garbi azaltzen zaigu.
[2108] Aiako mendia dugu Iyuia, 177 metrotakoa. Iturria: http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/callejero/mendia/iyuia-gai . 2014-IX-10ean begiratua.

*segitu dio, / gero baikuntza egin digue / lan ori dala medio”*[2109]. “Gu” eta “besteak” kontzeptuak kasu honetan, bi familiari lotuta ikus ditzakegu.

Apustuak, ordea, herrien artean ere gerta zitezkeen. Pello Errotaren alaba Mikaelak hala jasotzen du “Aiako apustua” kontakizunean[2110]. Asteasuko behien eta Aiako idien artean omen zen norgehiagoka. Behiek galdu omen zuten *“ta Astiasu guztiak diru pranko ere bai”*[2111], tartean baita Pello Errotak berak ere. Aiarrek Pello Errotari bertsoa abesteko eskatzen zioten baina hura, berriz, triste: *“Kantatuko’izuet bañan / ez oso umorian, / gizona tristia dek / galdu ondorian. / Etorri gaituk zerbait / eiteko idian; / lapurrik ateratzen / bazaigu birian, / marabedirik eztek / nire poderian”*[2112]. Gizon batek orduan Pello Errotari txapela jartzeko eskatu eta dirua bota omen zioten. “Gu” eta “besteak” kasu honetan, asteasuarrak eta aiarrak desberdinak dira eta apustuan elkarren aurka ari dira, baina elkarri lagunduz bukatzen dute. “Gu” eta “besteak” neurri batean baino ez daude elkarren kontra.

### 4.2.2.“Beste” gehiago

“Beste” kontzeptu hori, ordea, orain artean ondoko herriko, edo apustuan kontrario zirenekin bete duguna, edukiz aberasten joango da modernizazio prozesuak aurrera egiten duen neurrian[2113]. Erreferente dinamikoa izango da espazioan eta denboran[2114].

Ikus dezagun Xenpelar, P. M. Otaño, Txirrita eta J.M. Lopetegik nola ikusiko duten eta joango diren “bestea”ren irudia aldatzen. Xenpelar alteritateaz, “besteaz”, arduratzen hasiko da eta honi izena jarri eta ezaugarritzen ere bai. Pello Errotaren eta bere alteritatearen eta Xenpelarren eta berak alteritate konsideratzen zuenaren artean zegoen distantzia desberdina zen: kanpotik begiratua, handiagoa dirudi bigarrenaren kasukoak lehenengokoak baino. Hala ere, hori guk egiten dugun epaia izan daiteke, eta bai batean zein bestean, “alteritateak” funtzio bera bete zezakeen.

Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko aldea seinalatzen du behin bederen Xenpelarrek. Estropada batean erabiliko dituzten ontziak nongoak diren aipatzean: *“Bizkaiatik bi ekarri eta / badira ontzat emanak, / geiago’re bai guriak bañon /*

---

[2109] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 136. or.
[2110] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 57. or.
[2111] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 57. or.
[2112] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 57. or.
[2113] Duvoisini ere halakorik gertatu zitzaion: harreman geografiko eta giza harremanak zabalduz zihoazkion heinean, “bestea” aldatuz joan zitzaion.
[2114] Ikus DUINAT, Benjamin: *Biografia baterako abiapuntuak,* op. cit. Duvoisini buruz.

*luziyaguak ziranak; / probentziyako portuetatik / txalupak ziran esanak, / kanpokuaren biarrik eztu / etxian ona daukanak"*[2115]. "Kanpokoa" eta "bertakoa" irudiak erabiltzen ditu, eta erreferentea, "etxeak" markatzen du.

Xenpelarrek, Mari Manuela izeneko neska batez ari dela, zeinak auzitan sartu duen mutil koadrila bat bertsolariaren ustez arrazoi handiegirik gabe, honela dio: *"Albaka batengatik / justiziyengana, / nork maitatu biar du / orrelako dama? / Aita kastellanua, / emengua ama, / azal ederra dezu / Jesusek emana, / kopetako barnizak / bista badarama"*[2116]. Eta hurrengo bertsoan ongi ulertzen ez dugun "beste" bati buruz hitz egingo digu: *"Preziso bear zenduke / albaka kolkuan, / azal ederragua du / zenbaitek orpuan; / beti irabaztia / neke da tratuan, / pasatzeko modurik / badezu barkuan, / Txinako beltzetara / obe dezu juan"*[2117]. Kastellanoa "bestea" izendatzeko kategoria bat izango da, beraz, Xenpelarrentzat.

Baina Xenpelarrentzat "bestea" frantziarra izango da batez ere. Errenteriara trenbidea egitera etorritakoek desberdintasuna etxe ondora ekarriko diote Xenpelarri. Ekonomiaz hizketan aritu garenean aipatu dugu Xenpelarrek frantsesen jokaera ekonomikoan alteritatea nola ezaugarritzen zuen. Baina hel diezaiogun berriro ere adibide horri. Nola ezaugarrituko du Xenpelarrek frantziarra? *"Frantzesaren ideak / beti aldrebes, / gaur lau baldin badira / biyar baterez;"*[2118]. "Frantzesaren ideak" dira desberdin jotzen dituenak eta bertso-aldian ahotan hartuko dituenak. Probatu egin beharko dute hauek beren balioa: *"Goizian jaiki eta / frantzesen lana: / pikatxoiak artu ta / lanera juanda, / segi, segi zeren lanari, / egin arte fuerte ari, / aitormena emango diot / portatzen danari"*[2119]. Eta nolakoa behar du hauekiko harremanak? Denak ez dira ados egongo. Frantses bat putzura erori eta hona eztabaida sortu: *"Lonjinosek au ziyon: / <Ez juan billa; / frantzesa baldin bada / ito dedilla!>. / Antoniok jun ta eldu, / etzuen nai iñor galdu, / jendiak gaizki esango zun / atera ez balu"*[2120].

Lehen aipatu ditugun desberdintasun ekonomikoez gainera –dirurik ez badute ere, balute bezala portatzen dira: ez dutenean gastatuz, aberats itxuran jantziz; eta alferrak dira gainera-, agertzen dute frantsesek beste desberdintasunik. Emakumeekiko harremana da hauetariko bat: ibili bai, emakumeekin ibiltzen dira, baina konprometitu, gutxi: *"[…] emakume sobatuak, / frantzesakin oratuak, / itz*

[2115] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 206. or.
[2116] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 119. or.
[2117] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 120. or.
[2118] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 150. or.
[2119] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 152. or.
[2120] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 153. or.

*batian esateko / abandonatuak"*[2121]. Eta beste batean: *"Frantzesak ibillitu / dirade ongi, / neskatxak engañatuta / aldegiñ emendi; / ikustian jarduten du / ziñukara, aditzen du; / frantzesak juan, / neskak emen / bizirik alargun"*[2122]. Xenpelarrek aipatzen duen beste desberdintasun bat erlijio kontuei dagokiona da: *"Oien deboziyua / juduen gisan, / ez dute enredorik / eman elizan; / gogorik ez an sartzeko, / toki txarra mozkortzeko, / beldur dira erori ta / azpiyan artzeko"*[2123].

Bertso sailaren azken bertsoan, Xenpelar kontziente ageri da egiten ari denaz: frantsesak talde bezala tratatzen ari da eta talde gisa haiei buruzko topikoak edo zabaltzen ari da. Ikus: *"Orra bertsuak jarri / frantzesarentzat, / parterik ez dubenak / ez artu beretzat; / frantzesari beren fama / izango da nork emana, / gorrotorik ez eduki / Senpelarrengana"*[2124].

Gai beraz osaturik duen beste bertso sail batean, "estranjero" izena emango die: *"Dozena bat bertsotan / nai nuke esplikatu / zenbat estranjero dan / Españian sartu;"*[2125]. Baita aurreraxeago, "kasta" izena ere: *"Frantzes da italiano / kasta oiek nasi, / onera etorri ta / dabiltza nagusi;"*[2126]. Azken honek jarrera endogamiko bati egin diezioke erreferentzia. Bertso sail honetan esplizituki lotzen ditu trenbidearen eraikuntzarekin. Bigarren bertsoan: *"Frantzes asko ill dala / diote Austrian, / beraz ez da onezkero / frantzesik Frantzian; / danak emen ditugu / oraingo aldian, / burnizko bide traste / oien aitzakian"*[2127]. Xenpelarrengan nahastu egingo dira trenaren kontra duen jarrera eta frantsesen kontra duena: batak bestea elikatu egingo dute[2128]. Xenpelarren helburua ez da izango gainera bi herrien arteko harreman eta integrazioa: beren lana bukatu eta lehenbailehen joan daitezen nahiko du. Hara: *"[…] ezin bialdurikan / oriek emendik / ibilli bear degula / deizkiot oraindik"*[2129]. Eta aurreraxeago: *"Aspaldian ezin det / kendu nik buruti / hurrengo frantzesada / ez degula urruti; / oiek ateratzea / gure erreiñuti / kosta bear zaigula / uste det larruti"*[2130]. "Gure erreinu"tzat Espainia agertzen du Xenpelarrek.

---

[2121] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 151. or.
[2122] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 152. or.
[2123] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 152. or.
[2124] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 153. or.
[2125] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 157. or.
[2126] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 157. or.
[2127] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 157. or.
[2128] Xenpelarren "Betroiarenak" bezala ezagutzen den bertso sailean ere, frantziarrentzat egokiago ikusten du betroia beretzat baino: *"frantzesak nai badu, / laban-kirtenetako / obe det saldu"*. In: ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 220. or.
[2129] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* 158. or.
[2130] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* 159. or.

Frantziarren kontra egoteko arrazoi gehiago ere ematen ditu Xenpelarrek. Frantziarrak eta espainiarrak, "besteak" eta "gu" gisa izendatuz, lehenengoek bigarrengoengan duten nagusitasuna salatzen du: *"Dala listero edo / dala sobrestante, / enpleo eroso bana / geienak badute; / jornalik aundienak / frantzesak dauzkate, / nunbait español danok / tontotzat gauzkate"*[2131].

Bertso sail honetan gainera, hizkuntza desberdintasuna ere azpimarratzen du Xenpelarrek: *"Oien lenguajea / ona da berentzat, / munduan dan txarrena / nere ustez guretzat; / ikasiko ez degula / sekulan deritzat, / itzik ere entenditzen / ez diot nik behintzat"*[2132].

Bertso sail honen bukaeran ere garbi dauka Xenpelarrek batzuk haserretu daitezkeela bere jarrialdiarekin, baina egin beharreko zerbait zela uste du: *"Iñori ere prendarik / ez diot nai artu, / argatik aurrerago / ez nuke nai sartu; / baña al daneraño / garbi esplikatu, / egia ez du bear / iñork ere ukatu"*[2133]. Eta azkenekoa: *"Azkeneko bertsora / orra allegatu, / esan baño naiago / ez det nai luzatu; / norbaiti ez bazaio / bertso oiek gustatu, / frantzesa ez bada behintzat / bear dit barkatu"*[2134].

"Gu eta besteak" atal honetan, Pedro Mari Otaño ere aipatu behar dugu nahitaez. Horrek ere "beste"arekiko ikuspegi dinamikoa agertuko du. Emigrante izan genuelarik, eta ezagutu zuen mundua zabalagoa zelarik, "beste" gehiago aurkituko ditugu bere bertsoetan. 1893an "Españolak eta moruak" izeneko bertso saila[2135] osatu zuen. Bere burua españolen artean kokatuko du, eta "bestea" berriz, "morua" izango da bertso sail honetan. Izenetik bertatik hasita, iraingarriak gertatuko dira bertso hauek. Marokoko gerraren testuinguruan kokatu beharko genituzke hauek. Espainiaren gainbeheraren ideia ere barneraturik agertuko du Otañok:

> *"Erdi lotan bezela / joan dan aspaldiyan, / iñoren parragarri / geunden Españiyan; / argatikan moruak, / ausardi aundiyan, / artu nai zuten legoi / zarra oñ azpiyan, / ta gaztiak azaldu / zaizkate kabiyan.*
>
> *Zar-itxuran dagoen / legoia tximutzat / artuko zuten bada? / Oiek astaputzak! / Berak nola diraden / animali utsak*[2136]*, / izan arren Koran ta / Mahoma laguntzat, / astinduko dizkate / txilabako autsak.*

---

[2131] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 158. or.
[2132] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 159. or.
[2133] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 159. or.
[2134] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 160. or.
[2135] Arturo Campionek berriz españolak eta moruak jatorri berekotzat joko ditu.
[2136] "Civitas"etan, "civilitas" ematen da, eta hauek "humanitas"ari lotuak daude. "Rus"-ari loturik, ordea, "rusticitas" eta "ferocia" ditugu.

*Españiyan biyotzak / daude txit jasuak, / legoia esnatu du / tximu-erasuak; / baleudezke seguru / joan diran gaxuak, / arentzako dauzkala / beren gurasuak / malko bat illentzako, / bizintzat besuak"*[2137].

1895ean idatzitako beste bertso hauetan, Afrika iparraldeko biztanleak hartuko ditu berriz hizketagai Otañok. Hauen deskribapen gogorra egingo du eta kontra azalduko da: *"Ontan azaldu ziran / itsas gudariak, / ontzi eder artako / jaun agintariak, / ondoren zituztela / beren mirabiak, / ta inguruan moro / biotzik gabiak: / oiek Marrueko'tik / etorri berriak, / guri erakustera / Koran'en legiak; / emen janik an baño / mokadu obiak, / esker gabeko gizon / erdi aberiak, / laguntzalle emanaz / Españi nobliak / berak ainbeste maite / zituben semiak, / utzirik ama, aita, / andre ta umiak, / beren lur maite, lagun / eta senidiak, / pixti tzar aiekin joan / ziraden jendiak, / par irriz alaiturik / beren aurpegiak. / Eta andikan laxter... / A, doakabiak!!!"*[2138]. Eta aurreraxeago: *"Joan ziran itxas-gizon / prestuak Tanger'a, / moro zatarrak bizi / diran parajera, / egualdiyak emanik / alako aukera, / Mahomaren illobak / pakian uztera"*[2139].

1896an osatutako bertso hauetan, "bestea" indigena kubatarra izango da Pedro Mari Otañorentzat. Hona nola hitz egiten duen euretaz: *"Kubako kastak, orain dirala / lareun urte zer ziñaten? / Pixtien gisa jazkairik gabe / biluzgorri zebiltzaten; / ta erakutsi ondorenean / jazten, izketan ta jaten, / ari zerate zeren amari / garratztasunak ematen! / Ikusiko da beiñ betirako / aspertzen ote zeraten"*[2140].

1897an, berriz, Pedro Mari Otañok Oiartzungo euskal festetarako konposizio bat egin zuen bakearen inguruan eta lehenengo saria irabazi. Honetan, indigenei buruz ematen duen ikuspegia erabat ezberdina izango da. Zergatik kubatar indigenei buruz ari dela urtebeteko tartean horrelako aldaketa? Gure ustez, konposizioaren hasieran, bere burua apaltasunez agertzen du Otañok, aurretik izan duen pentsamolde eta jarreragatik barkamena eskatuz ia: *"Ikusirikan arrai zatarrak, / arrapatutzean aula, / erruki gabe bizi-bizirik / sabeleratzen duala, / gisa berean pizti gogorrak / menderaturik argala, / onen karraxiz kupitu gabe / puskatzera daramala, / gizonak oei begiraturik / esaten du bereala, / ikaraturik nola indarrak / daukan agintea ala, / <arrazoiaren argirik eta / zentzu gabeak dirala>, / ta sinisturik bera askozaz / biotz obekua dala, / jakiñik Jaunak zentzua eta / kupira eman dizkala, /*

[2137] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 379. or.
[2138] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 417. or.
[2139] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 418. or.
[2140] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 461. or.

*pentsatutzen du alako lanik / egiñgo ez lukeala… / Aitortutzen det lotsa aundi bat / barrenen sartzen zaidala, / iduriturik iñoiz gizona / piztiak beziñ zitala*"[2141].

Nola ikusten ditu orain indigenak? Beste modu arras diferente batean. Orain agertzen duen irudiaren arabera indigenak "naturatik" hurbilen leudekeen gizakiak lirateke, "gizaki natural": *"Arrazoiaren argi gabeak / nola diran pizti denak, / ta ezagutu ez litzateken / ematen dituzten penak, / oiek dirade barjakindeko / kargatik libre daudenak; / bañan ez dira orla arkitzen / gizonikan lotuenak, / atzera dauden basati edo / salbajerik galduenak, / zergatik diran Jainkoak bere / antzez egiñ zituenak. / Alaxen ere barkatzekuak / dira okerrik geienak, / ume traketsak beste gauzarik / ez diran gizon aienak. / Nola arritu ez egiteaz / obra on eta zuzenak, / Jesukristoren Lege Santua / iritxi etzaiotenak!"*[2142].

1906ko "Gu ta guk" bertso sailean, "motz"ei[2143] buruz hitz egingo du Pedro Mari Otañok. Biak, "gu" eta "besteak", biak aldatu dira kasu honetan Pedro Mari Otañorengan. "Gu" hori ez du dagoeneko espainiarren baitan ulertuko, euskaldunei dagokiena izango da eta espainiarrak "besteen" zakuan sartuko ditu. Euskaldun eta espainiar, sailkatu egingo ditu gainera: *"Urte asko da, / baña etzait aztu, / beti datorkit gogora, / nola joan nintzan beiñ motz batekiñ / Montevideon kanpora; / etxe batean eraman zuten / Motza sukalde-txokora, / ta ni maiera deitu ninduten / nagusiaren ondora"*[2144]. Eta hurrengo bertsoan: *"Erriko-seme beltzeran bat zan / nagusiya, ortarako, / ta ez ginduzen ezagututzen / len izan ez giñalako. / Zergatik bada bereizte ori: / bestea txarra zalako? / Ez; aiñ ondo ni artu ninduten / euskalduna nintzalako"*[2145]. Pedro Mari Otañok, beraz, ez du "bestea", kasu honetan "motza", gutxiesten, euskalduna goratu baizik. Hori da esplizituki esaten diguna: ikusi egin beharko genuke gero batzuk eta besteak ezaugarritzean neutraltasun hori mantentzen duen. Pedro Mari Otañoren esanetan, ezberdintasun hau, euskaldun eta espainiarren artekoa, amerikarrek ere egiten omen zuten euren jatorriari buruz hitz egiterakoan: *"Amerikatar ume batekiñ / nonbait arkitutzen banaiz, / badet oitura galdetutzeko: / <Aizak, mutill, nungotarra aiz?>. / Pozez*

[2141] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 478. or.
[2142] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 478.-479. or.
[2143] Belarrimotzak ote?
[2144] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 174. or.
[2145] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 175. or.

*beterik entzun izan det / leku askotan eta maiz: / <Ni kriolloa, jauna; gañera / euskaldunen semea naiz>*[2146].

Eta Txirritak zer esango digu "besteei" buruz? Espainiarren artean bereizketak egingo ditu Txirritak eta berariazko "beste" espainiarrak izango ditu gogoan: izan andaluziarrak, izan galegoak. Dakusagun. Txirritak "andaluza" aipatuko du bere bertso batean: *"Aiziak biali du / andikan onuntza, / geroztik emen dabil / gure andaluza; / argiñ ona zala ta / zakurraren putza, / bera eroriko dek, / ez akiyok bultza"*[2147]. Baita "gallegoak" ere, hauek ere hartuko ditu aipagai[2148]. Plazentzian trenbidea egiten aritu omen zen Txirrita eta, harekin batera, Galiziako hainbat lagun ere bai. Hona Txirritak nola deskribatzen dizkigun:

> *"Galizia'tik datoz / onera argiñak, / egingo'ituztelako / pareta berdiñak; / oien oñetakuak / zapata botiñak, / gaztañ ipurdiakin / apropos egiñak.*
>
> *Trozora juan eta / pipa bete sarri, / ez dula autsiko orrek / katillu bete arri; / beso makalak ta / agiñak zorrotzak, / euskeraz ikasteko / belarriak motzak.*
>
> *Orain Plazentzia'ko / emakumiari / ejenplu txiki bana / nai nioke jarri: / … datorrenian / azkar atiak itxi, / gallego jende orrekin / konfiantza gutxi"*[2149].

Xenpelarrek ere, Errenterira trenbiderako lanak egitera etorritako frantsesei buruz ari zela, ez zituen gai ikusten *"katillu bana arri"*[2150] puskatzeko.

Txirritak Sarara festetara joana zela ere esango digu, eta horrela kontatuko digu han azaldu ziren dantzari batzuei buruz: *"Lengo batian Sara'n izan naiz / Santa Gurutza pasatzen, / lau kaskaneta etorri ziran, / etziran asko lotsatzen; / arpegi beltzak zituzten, baño / ondo zekiten dantzatzen, / mundu onetan onen pizkorrik / zanik ez nuan pentsatzen"*[2151]. Kriskitin edo kaskainez ariko da noski, Txirrita. Eta bigarren bertsoan: *"Titi gabeko mutur igar bat / presentatu zan lenbizi, / bi eskuaidi txistu emanda / plazan saltoka zan asi; / nere begiyen aurrian ez det / pizkorragorik ikusi, / on-ustekuak baziran baño / ura zan ango nagusi"*[2152].

---

[2146] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 175. or. Hurrengo azpiatalean, "gu" euskaldunari buruz ariko garelarik, luze mintzatuko gara Pedro Mari Otañori buruz, lan dexente eman baitzion kategoria hori definitu nahiak.

[2147] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 23. or.

[2148] Espainiar probintzietako inmigrazioari egiten die erreferentzia Txirritak.

[2149] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 144. or.

[2150] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 151. or. A. Zavalak ere egiten du gogoeta hau. Zalantzan jartzen du Txirritak Xenpelarren puntu bera abestu ote zuen, edota bertsoaren berri eman zion informanteak nahastu egin ote zituen biak. Ezin jakin.

[2151] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 426. or.

[2152] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 426. or.

Txirritarentzat "bestea" ijitoak ere izango dira. Alderdi ekonomikoaz hitz egin dugunean aipatu dugu hau. Nola desberdintzen ditu Txirritak "haiek" eta "gu"?"*Beren asto ta zakur eta ume / emen dabiltza jai ta aste; / mikeletiak iñoiz aurrian / atera izandu dituzte, / berak baño len ostera etorri / ta persegitzen gaituzte; / beste olako naziyorik bat / iñon danik eztet uste*"[2153].

Ijitoek bizi duten egoera ekonomikoa premiazkoa da, eta eskean jarduten dute: *"Emakumiak aurrak artuta / eskera dijoazenian: / <Etxeko andre, limosnatxo bat / Jainkuaren izenian!> / Ofrezimentu luzia baño / errezo motza azkenian, / gauza guziyak gero berentzat / iñor bistan eztanian"*[2154]. Kultur desberdintasunaz ari gara, edo baita egoera sozio-ekonomiko marginal batez ere? Hamabi bertsotatik, hirutan esplizituki lapurtzat tratatzen ditu Txirritak.

Haragi ustela nola jaten duten ere kontatuko digu Txirritak: *"Usandutako okelak jaten / dira pare gabekuak, / anima salbo zakur gosiak / diraden bezelakuak; / naiz izan usteldu ta lurpian / luzaro egondakuak, / istimatutzat daramazkite / oriyek orrelakuak"*[2155].

Eta Txirritarekin bukatzeko euskal hizkuntzaz ari dela, euskarak eskolaren eraginez eta bertan zeuden maisu "kastellanoen" eraginez atzera nola egin zuen kontatuko digu: *"Andikan laister jarri zituzten / eskola erderazkuak, / maisu geienak kastillanuak, / kolorez berde askuak; / gure semiak amenazatzen / luzeturikan eskuak, / itz bat euskeraz aditzen bada / autsi biarrik kaskuak, / non ote dira garai bateko / emengo maiorazkuak?>"*[2156]. "Gu"aren baitan "hemengo maiorazkoak" egingo ditu arduradun nagusi eta "besteak" kategoripean, berriz, kastellano "berdeak", hango edo kanpokoak, "hemengoak" ez badira.

Joxe Mari Lopetegik, berriz, "gu eta besteak" atal honetan, nobedaderik ekarriko digu. "Besteaz" hitz egiteaz gainera, harekiko izan beharreko jarrera irekiaz mintzatuko da, "gu" eta "besteak" dikotomia gainditu eta gizarte bakarra osatzeko asmoz.

1931ko abuztuaren 22an argitaratutako bertsoetan, Joxe Mari Lopetegi "maketoez" hitz egiten dutenen kontra mintzatuko da. Bereizketarik ez dela egin behar esango digu Joxe Mari Lopetegik[2157]. Halako proposamen baten aurrean[2158]: *"Eta segitu*

[2153] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 439. or.
[2154] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 439. or.
[2155] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 440. or.
[2156] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[2157] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 127.-129. or.

*zuen esanaz / emen egin bear dana, / Euskal Erritik biraldu zagun / euskeraz ez dakiyena, / Euskal lurreko jatorrizkuak / lau deiturak eztuena, / garbitasuna modu onetan / egin bear da aurrena, / orduan ondo biziko gera / emen gelditzen gerana"*[2159]. Hurrengo bertsoan hona Lopetegik erantzuna: *"Burua etzeukiyela ondo / jaun orrek igarri nuen, / orregatikan itz egiten det / azal dedilla lenbailen, / González, Pérez eta Rodríguez / zenbat arkitzen da emen, / nire emaztian aitonak ere / deitura Toledo zuen, / Euskal erriyan sortua zan da / itz bat Erdera etzekiyen"*[2160]. Eta segidako bertsoan: *"Gizon jakintsu aundi oriyek / itz oik orrela esatia, / merezi dute oroi ditezen / lotsamen bat ematia. / Munduko lurrak, bizi dan arte / danontzat egiñak dia, / Erbestian gure anayak / nunbait ere an baitia, / nola nai degu Euskal deitura oik / Euskal lurretik juatia"*[2161]. Eta bukaeran: *"Laja ditzagun txorakeriyak / eta nora nai guazen, / erririk erri gu biyok behintzat / Euskeraz gera mintzatzen, / guk ez dizutegu lagunduko / maketorikan bialtzen, / bake onian gaudezelarik / okasiyorikan jartzen, / baizik Jesusen itz eztiyakin / anaitasunez elkartzen"*[2162].

Joxe Mari Lopetegi, 1932ko ekainaren 25ean argitaratutako bertso batzuetan, "Andoaingo erkaltarrakeri" izenburua duten batzuetan, horrela abiatuko da lehenengo bertsotik : *"Andoaingo erri maitagarriya / Gipuzkotar euskaldunak, / ala berean gure tartean / bizi zazten erdaldunak; / begiraturik jarri dezagun / prakadun ta gonadunak, / biyotz barrendik ots egin zagun / badatoz gure egunak, / gora Erkalan Askatasunak / gaur eman nai dizkigunak"*[2163]. Euskaldun eta erdaldun guztiek osatzen dute Andoain; baita gizon eta emakumeek ere, bigarrenak bazterrean utzi gabe. Jatorriari dagokionez eta genero kontuei dagokienez, irekiago ageri da Joxe Mari Lopetegi, gainerako bertsolariekin alderatuz.

Nor izango da "bestea" azken finean? "Gu" ez den oro, "gure" munduan aldaketak eta gure buruaz galdera egitea eragingo duen hura.

---

[2158] Joxe Mari Lopetegik gizon handi baten ahotan jartzen du hau, baina nor zen eta esandako hauek non esan zituen zehaztu gabe.

[2159] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 128. or.

[2160] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 128.-129. or.

[2161] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 129. or.

[2162] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 129. or.

[2163] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 159. or.

## 4.2.3.Nor gara gu? Euskaldunen jatorri eta izaeraz galdera: "Non-nai ta beti euskalduna"[2164]

"Gu" eta "besteak" dinamikak aurrera egiten duen neurrian eta "gu"a beragandik gero eta desberdinagoa den "beste" baten aurrean jartzen doan neurrian, joera horrek berak "gu"ari buruzko galdera piztu eta indartu egingo du. Aurrean ditugun horiek, guregandik gero eta desberdinago diren horiek, zergatik ikusten ditugu desberdin? Zeintzuk dira desberdinak dituzten ezaugarriak? Eta modu berean, zer dugu guk desberdintzen gaituena?

Galdera hau ez da bat-batean sortuko eta, ondorioz, erantzuna ere ez. Arazo honen aurrean aztertu ditugun bertsolariek galderari berari emango dioten garrantzia eta honi erantzuten xahutuko duten indarra desberdina izango da oso.

Gai honetaz gehien arduratu zena aukeratu beharko bagenu, zalantzarik gabe, Pedro Mari Otaño genuke. Ez zen alferrik emigrante izango, ez zuen alferrik galdera bere bizitzan nahi ala nahi ez erantzun beharko. Hala ere, haren proposamen politikoaren eboluzioa jarraitzeko orden kronologikoa jarraitu dugun bezala, oraingoan ere urteen joana kontuan izango dugu, honek eta gertakizun historiko eta eragin desberdinek markatu baitzuten Pedro Mari Otañoren "gu"aren eraikuntza[2165].

"Euskaldun" hitza Pedro Mari Otaño eta bere osabaren arteko bertso-eskutitzetan aurkituko dugu hasieratik, leku jakin bateko biztanleei ematen zaien izen gisa, gure ustez. Pedro Mari Otañori bere osabak bidalitako eskutitzean, honela esaten dio[2166]: *"Illoba, zaitutelako / nik maite biyotzez, / zu ondo izatiak / betetzen nau pozez; / izan Jainko mendean / beterikan pakez, / au konpondu artean / euskaldunen bidez"*[2167]. Gerrate karlistari gerra zibil gisa egiten ote dio erreferentzia Otaño osabak? Antonio Zavalak berak hau dio bertso honi buruz: *"Bertso onen bukaera aztertzea merezi luke, Jainko mendean pakez beterikan izatea opa dio osabak-edo Pedro Mariri. Baiña zer ote da euskaldunen bidez –eta bearbada artez bearko luke-konpondu bear dana? Bearbada, karlisten bigarren gerratea. Leen esan degunez, Pedro Mari Ameriketara gerratik igesi joan ote zan itxurak badira eta"*[2168]. Pedro Mari Otañok berak 1891n idatzitako "Amets bat" konposizioan, emigratu behar

[2164] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 49. or.
[2165] Lehenengo, beraz, hurbilpen kronologikoa egingo dugu eta 4.2.3.1. puntutik aurrera, "euskaldun" izatea P. M. Otañok zein edukiz bete zuen ikusten saiatuko gara.
[2166] Ez dakigu eskutitz hau zein urtetakoa den.
[2167] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua,I,* op. cit., 181. or.
[2168] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 181. or.

izanaren arrazoi gisa bera bizi zen lekuan zeuden arazoak aipatzen ditu: *"[…] ainbesteraño baturik negon / neronen gurasuetan / ta txikitatik nere onduan / ikusitako gauzetan; / bañan etsaiak miñ artzen nonbait / gure poz ta jolasetan, / argatik gerok batere kulpik / ez gendubela ezertan, / txit urrutira joan biarra / izandu nuben batetan;"*[2169].

Pedro Mari Otañok berak ere erabiliko du "euskaldun" hitza, 1889an osaba Jose Bernardori idatzi zionean. Kasu honetan, leku bateko biztanle baino gehiago, toki jakin batean jaio eta haziei egingo lieke erreferentzia: *"Ameriketan ikusten ditut / zenbait euskaldun "andare", / bizi diranak beren lurrari / aitormenik eman gabe… / Bañan ez dut ezagutzen ta / oiek barkatubak daure. / Nik Donostiya eskatuko det / Paraisora joanta ere"*[2170].

Garai honetan "euskaldun" horiek, ordea, formulazio politiko-identitarioaz ari garela, beste "gu" zabalago baten baitan edo gutxienez harekin harremanetan izango dira: espainiar "gu"arekiko zein harreman ote dute? Pedro Mari Otañok XIX. mende bukaerako bertsoetan "gu" hori Espainiaren baitan ulertzen du, hau da, Espainiak ez du "besteak" horren paperik hartzen, ez behintzat 1895. urtean. Zehaztasun gehiagorekin hitz eginez, Espainiaren gainbeherak Pedro Mari Otaño penatu egiten duela esan beharko genuke: *"Españi triste ontan / aspalditik geunden / atsekabe gogorrak / sentirik barrunen; / munduko mirariyak / izan giñanak len, / ez dakit ontara zerk / ekarri gaituben. / Aiñ gauza miñgarriyak / pasa dira emen, / ta ez gentzake esan / kulpa zeñek duben"*[2171]. *"Reina Regente"* zeritzon itsasontziaren zoria bere egiten du Pedro Mari Otañok: *"Zan Martxoko illaren / amargarrenian, / oraiñ arkitzen geran / urte barrenian; / guda-ontzi bikaiñ bat / Kadiz'ko urian, / zisne bat bezin liraiñ / itsas bazterrian, / aiñ itxura egoki / eta ederrian / arkitutzen zan jende / askoren aurrian, / aruntz-onuntz txiki bat / egiñ bearrian"*[2172]. Eta aurreraxeago, nabarmenago oraindik: *"Ta ala ere gure / gud'ontzi ederra / beldur gabe sartu zan / guztiyen tartera, / esanaz: "Bire, bire! / Españolak gera, / ta iritxi nai degu / geren lur maitera!" / Ta kapitanak ziyon: / "Aurrera, aurrera!". / Trafalgar inguruan / gutxi gora bera / uste da joan zirala / denak itxaspera!! / Trafalgar!... O, zer izen / goguangarriya, / odolezko letrakiñ / kondairan jarriya! / Nork ez daki au dala / Txurruka aundiya / egun batez betiko / galdu zan tokiya? / Bañan gerran illtzia / gizon gudariya, / irabazten dubela / betiko gloriya, / tristea dalarikan / da alaigarriya. / Oraiñ gertatu dana / da negargarriya, / argatikan bete da / lutoz*

[2169] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. dit., 339. or.
[2170] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 187. or.
[2171] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 415. or.
[2172] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 416. or.

*Españiya. / Ez balira bezela / diña gure penak, / galduarekiñ Reina / Regente'n zeudenak, / ontzi Carpio'kuak / ito dira denak, / bereganaturikan / itsaso zekenak. / Guztiyak ziran seme / Españiyarenak / eta gure anaiak, / galdu diradenak. / Nola ez negar egiñ / biyotzik dubenak!"*[2173]. Espainiaren semeak eta "gure" anaiak: "gu" ere seme beraz?

Pedro Mari Otañok "gu"a Espainiari lotuta agertzea, ez du beti horrela egingo. 1895. urte horretan bertan, "Gu ta gutarrak" bertso saila osatuko du Pedro Mari Otañok[2174]. Antonino Espondak eskatuta egindako bertsoan, honela erantzungo dio galderari: *"Zer da Euskara, nor euskaldunak, / zeiñ ta nongotarrak dira?" / galdezka daude atzerritarrak / alde ontara begira, / mundu guztiyan bere berdiñik / ez duben Euskalerrira. / Eziñ ikusi gaituzte ondo, / irten gaitezen argira, / iñork mantxarik sortu ez dezan / gure jatorri garbira"*[2175]. Izenburua ere oso esanguratsua da: "Gu ta gutarrak". "Gu"aren definizioa eman nahirik ageri da Pedro Mari Otaño galdezka ari direnei: galderak indarra hartzen duen neurrian, "gu"ari erantzuna euskal izaeratik emango zaio, espainiartasuna baztertuz.

Jatorriaren galderak gero eta indar handiagoa hartuko du P.M. Otañorengan. Ez soilik euskaldunen jatorriari dagokion galderak, baita giza izatearen ezaugarrien jatorriari dagokionak ere. Kubako gerraz ari dela, kubatar eta espainiarren artean gerra izatearen sakoneko arrazoia zein den azaldu nahiko du. Atzera joko du horretarako, oso atzera, gizakiaren sorrera biblikoa aipagai hartzeraino, hau da, Adan eta Ebaganaino. "Kubako gure anaiai" bertso sailean, 1896an osatua izan zenean, hona zer dioen. Kasu honetan gizadiaren jatorriaz ari da. Biblian ere hasieratik, bi anaia elkarren kontra aritu zirelako ez da harritzekoa orain ere anaiak gerran izatea. Gizakiari dagokion unibertsal gisa ezarriko du hau horrela. Eta unibertsaltasuna, Biblian agertzeak dakarkio:

> *"Gure lenengo guraso aita / Adan ta ama Ebaren / lendabiziko semeak Kain / ta Abel izan ziraden; / bañan, kondairan ikusten danez, / biak anai sortu arren, / beñere eziñ bizitu ziran / txit adiskide elkarren; / orra guda ta gizon illtzeak / sustraia nondik dakarren.*
>
> *Ez al diruri gauza gogorra, / izanik bi anai bakar, / nola etziran oiek iritxi / obeto artzera alkar? / Kain gaiztoak Abel prestua / ill zuen al beziñ azkar, / geroztik*

[2173] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 420. or.
[2174] 1895ean argitaratutako bertsoak dira nahiz eta eskuizkribua ez dakigun noizkoa den.
[2175] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 397. or.

*onuntz esan liteke / bizi gerala su ta gar, / oraindik ere zuzendutzeko / itxura gutxitxo dakar "*[2176].

"Euskaldun" izaera definitu beharrak indar berezia hartuko du Otañoren "Aita-semeak" konposizioan (1900)[2177]-lehen erlijio gaiez aritu garenean ere aipatu dugu bertso sail hau-:

*"Gorde zazu buruan / eta biyotzean / aitak zer esan zizun / onuntz laguntzean, / bitarteko arturik / Jesus gurutzean: / Jaungoikua t'ait'amak / batek aztutzean, / ez leike ondo izan / denbora luzean.*

*[…]*

*Seme, izan goguan / zere gurasuak, / eta uzten dituzun / senide gozuak; / jaio ziñan tokiko / mendi ta basuak, / euskerazko otoitzak / edo errezuak, / erakutsiyak zure / amatxo gaixuak.*

*Iritxi da orduba / juan bear dezuna, / badakizu ait'amak / emen dauzkatzuna; / ez dezazula aztu / gaur neri entzuna, / itz baterako au da / eskatzen zaizuna: / izan zaitez non-nai ta / beti euskalduna"*[2178].

"Euskalduna" kategoriak zer esan nahi du Otañorentzat?[2179] Gurasoak, senideak, jaioterria, euskara eta erlijioa. Hona nola laburbiltzen duen Otañok "euskalduna" izateak zer esan nahi duen. Kasu honetan lurra ere agertzen da, baina baita mentalitateei lotutako elementuak ere: konbinazioa da, beraz. "Euskaldunaren" "gu" izatea ezaugarritu nahi izateak euskaldun "tipo" bat sortzera darama Pedro Mari Otaño eta errealitatetik abstrakziora, neurri batean.

"Euskaldunak" definitu nahi izateari 1900. urtean idatzitako"Artzai-mutilla" operan ere helduko dio. Lehen ekinaldiaren bukaeran koruaren ahotan[2180] bost bertso ipiniko ditu horretarako Pedro Mari Otañok. Bertan goraipatu egingo ditu euskaldunen arteko harmonia, euren hizkuntza, arraza eta betidaniko askatasuna, "euskaldunaren" irudi mitifikatua berriro ere elikatuz[2181]:

---

[2176] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 456. or.

[2177] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 48.-49. or. Berrikus 3.2.7.2. puntuan 1897 eta 1900 urteei buruz Pedro Mariren bilakaera politikoaz esandakoak.

[2178] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 49. or. Bertso hauek berez 1900. urtean argitaratuak dira, nahiz eta Antonio Zavalak susmoa izan aitak Pedro Mari Otañori Ameriketara joan zenean abestutako bertsoak direla.

[2179] Pedro Mari Otañorentzat edota bere gurasoentzat, hauek baitira kontseju emaile bertso hauetan.

[2180] Protagonista korporatibo baten ahotan, beraz.

[2181] Sabino Aranak errekuperatu eta eraldatuko zuen diskurtso foral "klasikoa" aipatuz: atenporala, inmobilista, etab.

*"Goazen, goazen / Erdoiztara, / jolastera ta / dantzara. / Alkartutzea / ta jostatzea / lengo oitura zarra da.*

*Nekazari ta / artzaiak, / guztiok gera / anaiak, / emaztekiyak / ta gizakiyak / paketsu eta alaiak.*

*Gure izkuntza / maitean / beti mintzatu / gaitean, / mendi gañetan / ta zelaietan / bizi geran bitartean.*

*Galerazi nai / duanik / etortzen bada / iñundik, / Lekobideren arraza emen / zutituko da oraindik.*

*Etsai zitalak gudikan / sortzen badu / iñondikan, / jakiñ dezala / izan ez dala / katibu euskaldunikan"*[2182].

Opera berean, Iñazio pertsonaiak, etxeko nagusiak, diskurso edo hitzaldia egingo du eta honetan "gu eta besteak" dikotomia oso presente egongo da. Pedro Mari Otañok "gu"tik "beste"rako pausoa emango du horrela, dioenaren arabera, "besteak" "gu"aren baitan duen gehiegizko erabaki ahalmenagatik:

*"Gure oitura onak / nai dizkigute ill, / etsai dollorra oso / arroturik dabill. / Zer du gorrotatzeko / orla guregana? / Besteren ontasuna / eziñ eramana! / Bañan gure aitonen / illobak bagera, / eziñ utzi gentzake / galdutzen euskera. / Guztiok biyotzetik / eman zagun itza / zutik idukitzeko / euskaldun aritza. / Oraiñ, zar eta gazte, / anai eta lagun, / euskal-kantzoa denok / kantatu dezagun.*

*EUSKAL-KANTZOA*

*Denak: Pakean bizi nai degu bañan / guda baletorke anbat, / Euskal-erriak ez du galdetzen / nondik datozen ta zenbat. / Munduan ez da beste erririk / egin duenik guk ainbat, / argibidetzat izan ditzagun / Laubur eta Laurak-bat.*

*Denak: Betoz gure fueroak / legez ta pakean, / ez degu gerrarik nai / anaien artean; / bañan etsaia sartzen / bada lur maitean, / guazen laubururekin / gu laurak batean"*[2183].

"Gu"aren definizioaren parte egingo da "bestea" ez izatea, kasu honetan, "etsaitzat" hartua dena ez izatea.

Hirugarren ekinaldian erabakiko da gerraren edo bakearen alde egin bizi duten auzian. Gazteek, Iñaziok batez ere, gerraren alde egingo duten bitartean, zaharrek,

[2182] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 225. or.
[2183] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 228.-229. or.

Peruren ahotsean, bakearen alde egingo dute. Espainiarekiko harremanaz ez dute batzuk eta besteek iritzi bera izango[2184].

Iñaziok gerrarako deia egingo du: *"Gazte adiskideak, / gañean da gerra, / zergatik fuero gabe / gelditu gera; / oitura onak eta / izkuntza ederra, / denak kendu ta jarri / nai dute erdera. / Arrotzen sarrera / Lartaun-en lurrera, / arrazoia bera / botarik lurpera! / Bizi bedi lauburu / goazen aurrera!"*[2185]. Eta ondrarekin lotuko du hau: *"Egiya bakarrik. / Zertako da biziya / ez bada onrarik? / Zertarako baliyo / degu euskaldunak, / izkuntza ere kentzen / badigute, jaunak?"*[2186].

Peruk, berriz, azken bitarteko gisa izendatuko du gerra: *"Etzazutela gerrara deitu, / ez asi jende eskean, / jakiñ artean garailariak / gero irten gintezkean. / Zarra nago ta ez det beldurrik / ikaratitzat artzeko; / badakizute nere denbora / joan zala gerran sartzeko. / Argatik diot: <Gazte maiteak, / garaia datorrenean, / Lege zarrari zutik eustera / zuazte ordu onean, / bañan aurretik al dan guztiya / pakean saia gaitean, / itzaldu zaigun izar ederra / argitu ote leikean. / Ebrotik aruntz bizitzen diran / Iberiako lagunak, / gure anaiak dirade eta / pakea zor diegunak. / Gu bezelaxen oñazepean / arkitzen diran jendeak, / denok ekarri gaitu ontara / Gobernu lotsik gabeak. / Agintaritzat auta ditzagun / zuzenago ta obeak; / adi dezagun alkar pakean / ta betoz lengo legeak. / Euskal mendiak oiartzutean / berriz fueroen kantua, / ezetu eta ostotuko da / gure arbola santua>"*[2187].

1903ko bertso batean Pedro Mari Otañok euskaldunen jatorri garbiari egingo dio erreferentzia: *"Aundiyak izan arren / euskaldunak neurriz, / nekatubak gauzkate / gauza lotsagarriz. / Munduban garbiyenak / gu gera jatorriz; / anaiak, poz gaitezen / sortu giñan erriz, / agurtutzen zaituztet / denak Urteberriz"*[2188]. *"Iberiako lagunak"* anaiak dira, baina euskaldunak ere bai, beraz.

1904an argitaratutako palankari bati buruzko bertsoan, Juan Bautista Elola edo Labakari –Labaka baserrian jaioa zen- buruzkoan, euskaldun eredua azpimarratuko du Pedro Mari Otañok. Palankari horri buruz Ignazio Zóletak idatzitako lan baten sarrera gisa argitaratu zen bertso hau: *"Bidañia-ko Labaka'n jaio / zan erantz ontan daguena, / Elola deitzen da izengañez, / Juan Bautista du izena, / nik oraindaño*

[2184] Zaharrek Txirritaren ikuspegia gogorarazten digute: sistema forala Espainiaren baitan egoki da. Agintari zehatzak dira aldatu beharrekoak.
[2185] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 238. or.
[2186] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II.* op. cit., 238. or.
[2187] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 238.-239. or.
[2188] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 85. or.

*ikusi deran / gizonik egokiyena. / Seme leiala, aita prestuba, / euskaldun on ta zuzena, / mundu guztiyan gaurdaño izan dan / balenkaririk onena"*[2189].

Baina modu borobilenean euskal "izaeraz" jarduten duen bertso saila –Pedro Mari Otañok berak erabiliko du izen hau- 1906an idatzitako bertso multzoa daukagu. Pedro Maria Otañoren kezka nagusiak bertan bilduak ikus ditzakegu. Euskaldunen izaera da bere gogoan etengabean darabilen gogoeta: noiz, non eta nola hasi ote ziren euskaldunak?[2190] Izaera eta hizkuntza, euskalduntasuna eta euskara hertsiki loturik izango dira Otañorentzat. Fenix hegaztia aipatzeak euskaldunen etengabeko birsortzeari, nolabait esateko, katea eten ez izanari egingo lioke erreferentzia. Garrantzitsua dugu, beraz, Pedro Mari Otaño gure lanerako: aztertzen ari garen bertsolarietan "izaera"ren arazoa esplizituki azaldu eta tratatuko duen bertsolari bakarrenetakoa izango baita. Aldatzen ari zen mundu hartan, euskal izatea eta euskara hartuko du Otañok ardatz egituratzaile. "Gu eta guk" du izenburua aipatu bertso sailak eta, esan bezala, 1906. urtean egin zuen Buenos Airesko *La Euskeria* egunkariak antolatutako euskarazko poesien lehiaketarako: "*Noiz izandu zan, nun eta nola / euskaldunen asiera? / Nondikan dator gure izkuntza, / noiztik gure izaera? / Ipuñak dio Fenix bat zala / eta beti Fenix bera, / egazti ortan, o euskaldunak, / gu bakarrik bizi gera*[2191].

Bertso sail berean, honela jarraituko du: *"Ala jauregi goitienetan / nola baztarreko bordan, / naiz etxerikan apañenean / edo mendiko txabolan, / itsasoetan da leorrean, / ondo ta gaizki-denboran, / berez euskaldun garbia danak / ez daki ukatzen nor dan"*[2192]. Bertso honetan euskal izaeraren indarra eta ezin ukatua azpimarratzen du Pedro Mari Otañok. Kasu honetan kanpora begira euskaldun, baina barnera begira dauden ezberdintasun sozioekonomikoei erreferentzia eginez, edo ahaztu gabe bederen.

"Gutarrak" hitza ere erabiliko du Otañok bertso sail horretanxe. Honela dio: *"Ez da izkuntzik mintzatutzeko, / sartu zanean barrena, / gutarrak zeukan zoriontasun, / pozkida ta gozamena; / alaitasun da eztitasuna, / doatsunde garaiena, / au izandu zan lendabiziko / berak sentitu zubena"*[2193]. Euskaldun bat zerura sartzen ari deneko

[2189] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 116. or.
[2190] Egia da lehiaketa batean aurkeztutako bertsoak zirela eta gaia emana zetorkiola Pedro Maria Otañori.
[2191] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 174. or.
[2192] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 175. or.
[2193] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 178. or.

unea ari da kontatzen. "Gutarra" hitza "gu"aren definizio hertsitzaile bati dagokio: "gu"aren definizio nuklearrago bati, barrurantz tira egiten duen bati[2194].

Pedro Mari Otañok "Lora" operan (1907) azaldu zituen aitak Ameriketara zihoan semeari emandako gomendioak, zeintzuek "Lagundurikan denoi" bertso ezagunen tankera daukaten:

> *"Agur, seme on biyotzekua, / izazu zeruba lagun, / ta Jaungoikuak eman deizula / bear ainbat argitasun; / etzaitezela Beraz ta nitzaz / aztuta okerrera jun, / pobre bai, baño badakizu zer / izen garbi daramagun.*
>
> *Suerte txarrez ondasunikan / eziñ badezu ekarri, / arlote bizi zaitia baño / ez iñon mantxik ezarri; / Elizondotar Gaintzako seme / bezela prestu ta garbi, / etzaitezela sekulan izan / erriyaren lotsagarri.*
>
> *Araz maitia, seme laztana, / elkar utzitzera guaz, / estura ontan aita zar batek, / bere biotza lertubaz, / eskatzen dizu: zere lanetan / ondo naiz gaizki bazuaz, / ez gero aztu Euskal –erriyaz, / aitaz eta Jaungoikuaz.*
>
> *Eta, zabiltzan leku guztiyan, / ezagutzen zaituztenak, / zu ikustean esan zatela / egiya maite dutenak, / oroiturikan euskaldun zarrak / utzi dituzten omenak: / <Aitorren seme kantauritarrak / dira jenderik onenak, / beren izena loitu baño len / noiznai illko lirakenak>*[2195].

Bertso hauekin badirudi berretsi egiten duela ordura artean esandakoa. Nahiz eta pobre izan, bedi euskalduna prestua, garbia, euskaldunen izenari kalterik egiten ez diona, Euskal Herriaz, aitaz eta Jaungoikoaz gogoratzen dena. Pedro Mari Otañoren ustez, modu honetan jarraipena emango dio aurretiko euskaldunek hasitako bideari. "Aitorren seme kantauritarrei" erreferentzia eginez, horra baskokantabrismoaren defendatzaile Otaño, euskaldunen betiereko askatasunaren seinale.

Aztertu ditugun gainerako bertsolariek "euskaldun" kontzeptua erabiliko badute ere, ez dute inolaz ere hainbesteko gogoetarik egingo honen inguruan, hau da, ez dute berau definitzeko beharrik sentituko, Pedro Mari Otañoren moduan.

Pello Errotak gutxitan erabiliko duen hitza da. Hona hemen behin, Azpeitiako premioa zela eta, Udarregiri zer esaten dion: *"Sekulan ez det egiñ / biar ez dan lanik, / zuk bestek ez dit esan / lotsik ez dedanik; / kulparik izan banu / nik ez neukan penik, / nik ez nuen lagunari / partitzeko ordenik. / Olako gizonik / mundu ontan*

---

[2194] Aurreraxeago ikusiko dugun bezala, Fichteren "barne mugak" kontzeptuarekin bat letorke hau.
[2195] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 288. or.

*zanik! / Ez dago euskaldunik / orla jardun danik: / zuk aurrian aña lotsa / atzian det nik"*[2196].

Beste behin, Arantzazuko Amaz ari dela: *"Baliatuko zaigu / oraingo obra onak, / oso maite gaitu gu / euskaldunen Amak; / apuntatuko ditu / gure pauso danak, / zerbait egin lezake / poz ori daukanak"*[2197]. 1883an osatutako bertsoak dira, "Birjiña Arantzazukoaren koroazioan".

Beste behin, Nafarroako bertsolari bati Tolosan honela abestu zion: *"Ez dakit egiya dan, / jakindu det ala, / bertsolari bat ona / Tolosan badala; / naiz izan probintziano / ta berdin naparra, / nik jokatuko diyot / euskalduna bada"*[2198].

"Euskaldunak" hitzari Pello Errotak ematen dion esanahia bera barne duen gizataldearena da. Ez du, ordea, hau zehaztasunez definitzeko beharrik sentitzen.

"Euskaldunak" ahotan hartuko ditu Xenpelarrek ere. Datozen aldaketa eta mudantzek behartuko dute honetara: 1868ko iraultzak eta seiurteko iraultzaileak dakartzaten aldaketek eragingo diote Xenpelarri kontzeptu hau erabiltzea. Honela esango digu: *"Oraiñ urte berriyan / sartuak gerade, / bañan lengo zarrian / asiyak dirade; / lege onetan gauden / ganbiyatu gabe, / iñor egin eztedin / euskaldunen jabe"*[2199]. Kasu honetan ere "euskaldunak" kontzeptuak gizatalde bati egiten dio erreferentzia. Euskaldunek direna izaten jarraitzeko eta menpeko ez bihurtzeko, ez dute aldatu behar, lehengoari eutsi behar diote. Bertso esanguratsua du honen inguruan: *"Nere kristau fielak, / legi au guardatu, / mudantza berririk ez / memoriyan artu; / zer egin bear degun / orra enkargatu, / bizirik ez gaitezen / infernuan sartu"*[2200].

Txirritak ere erabiliko du "euskaldun" kontzeptua**,** 1906an, foruei buruzko bertso batzuetan, adibidez: *"Gau eta egun antzika dago / gure Kantabri ederra, / alde batera naiago nuke / ezpanitz emengotarra; / mundu guziyak aditutzen du / euskaldunaren negarra, / enpeñatzia ezpada libre / alperrik degu indarra, / au da txoriyak gari tartian / gosiak egon biarra!"*[2201].

---

[2196] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 146. or.
[2197] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 191. or.
[2198] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 260. or.
[2199] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 301. or.
[2200] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 302. or.
[2201] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 433. or.

Txirritak, euskararen egoerari buruzko bertso batzuetan, honen egoera makala foruen galerarekin lotuko du[2202]. Hona azkeneko bertsoan dioena: "*Biyotz biguña daukagu emen / anparatzeko pobriak, / gudarako're non izan dia / lur ontan baña obiak? / Odol beroko kasta gerala / ezagun du koloriak, / mundu guziya ikaratzen du / euskaldunen baloriak, / Tubal zarraren arbolatikan / zabaldutako loriak*"[2203]. Ikus dezakegun bezala, "euskaldun" hitzaren esanahia lotuago dago kasu honetan Pedro Mari Otañok emandako esanahiekin, hau da, eduki tipifikatu eta mitikoago batekin.

Honen adierazgarri dugu beste hau ere. Txirrita euskaldunen artean mailaketarik egiten hasi ote zen? Goierri Donostia baino puroago edo euskaldunago ote? "Proporziyo bat izandu nuen" bertso sailetik hartua da honako bertsoa: "*Ardua ere kastatzen dute, / ez aguardinta bakarrik, / bazkalduta're kaferik gabe / ez da artutzen patarrik; / ez Donostiya'n jaiotakorik, / aiñ gutxi goiarritarrik, / bere buruba ola ofrezitzen / ez dabill neskatx jatorrik; / baño gaxuak nere kontura / etzuen busti muturrik*"[2204].

Joxe Mari Lopetegi ere jatorriaren gaiarekin kezkatua agertuko zaigu. 1930eko ekainaren 12an *La Fronteran* argitaratutako bertso hauetan, honela esango digu: "*Odol isurtze gaiztorik gabe / bildurik anai guziyak, / jarri ditzagun bear dan oñean / pisuak eta neurriyak; / buruak jaso kopeta sendo / erne begi belarriyak, / kendu ditzagun gure kalteko / gauza txar lotsagarriyak, / ondore txarrik izan ez dezan / gure jatorri garbiyak*"[2205]. Hala ere, nahiz eta jatorri garbitasunari erreferentzia egin, anaia ezberdinak biltzeari egiten dio aipamena: garbitasuna lotuago legoke jokaera zuzenarekin, nongotartasunarekin baino.

Bestearekin harremanak "gu" nor garen galdetzera eraman gaitu. Ikusi dugu zenbait bertsolarik "euskaldun" erreferentzia nola erabiltzen duen, baina honi buruz pentsatu eta teoriak egin beharrik izan gabe. Pedro Mari Otaño izango da "gu" eta "besteak" dinamika barru barrutik biziko duena eta euskalduna zer den eta zein ezaugarri dituen galderari erantzun egituratua emateko beharra sentituko duena. Ikusi dugu kronologikoki "euskaldun" kontzeptuari buruz zein eratako hurbilpena egin duen. Ikus dezagun orain zein elementu nagusi hartzen dituen Otañok euskaldunaren bereizgarri: euskara, euskaldunen arteko batasuna, paisaia, historia eta ohiturak.

---

[2202] 1932. urtean, *Bertsolariya* aldizkarian argitaratuak izan ziren bertso hauek.
[2203] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 498. or.
[2204] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 491. or.
[2205] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 90. or.

### 4.2.3.1.Euskaraduna euskaldun

Modernizazioak ekarriko dituen aldaketen artean euskararen egoeraren aurrean zalantza piztuko da: iraungo al du euskarak? Ez ote da galduko? Pedro Mari Otañok jasoko du kezka honen berri. Bertso sail batean honako istorioa kontatzen du. Otaño bera erdi-lotan zegoela, amonatxo bat agertu eta honela esango dio: "*-Ama Euskera naiz, Pello Mari, / etzaitezela bildurtu; / kezketan nator beste aldera / ote zeraden biurtu. / Hainbeste semek iges egin dit, / iya naiz negarrez urtu! / Ez ote dezu zuk ere naiko / nire malkorik legortu?*"[2206]. "Ama Euskera" triste ageri da seme-alaba batzuek abandonatu egin dutelako eta laguntza eskatzen ari den ama gisa pertsonifikaturik ageri da euskara.

Pedro Mari Otañok euskaldun izatea definitzerakoan euskara, euskal hizkuntza izango da erabiliko duen bereizgarri nagusietako bat. Ez digu, ordea, euskara erabiltzen duela adieraziko, euskararen egoera, iraupenaz kezka eta ardura, eta euskararekiko maitasuna azpimarratuko ditu. Hau guztia 1890. urtetik aurrera izango da nabarmen, Ameriketatik bigarrenez Euskal Herrira, eta zehazki Donostiara, bueltan etorri zenean. Pedro Mari Otaño XIX. mende bukaeran Donostian izan zen mugimendu euskalzalearen baitan ulertu behar dugu, Jose Manterola, Viktoriano Iraola, Francisco Lopez Alen eta abarrekin batera.

Pedro Mari Otañok euskararekiko izan zuen harremanean gradazio bat ikusiko dugu. Lehenengo, gaztetan, erabili egingo zuen. Gero, maite. Ama gisa irudikatuko du maiz Otañok euskara[2207]. Eta, ondoren, haren alde lan egin, bere burua euskararen menpeko bihurtuz ia, eta alboratu ezineko eginbehartzat –inperatibo gisa- hartuz haren aldeko trabailu edo beharra. Euskararen iraupenak kezkatu egingo du Otaño eta horregatik emango zaio honen aldeko lanari. Euskara eta euskalduna, euskararen jarraipena eta euskal izaera banaezintzat joko ditu. Euskara ama bada eta hiztunak seme-alabak, seme-alabek amarekiko dituzten betebehar berak izango ditu hiztunak hizkuntzarekiko. P. M. Otañok euskarari euskal izaeraren baitan eta Euskal Herriari dagokionez ematen dion indar egituratzailea, Fichtek hizkuntzari ematen zionaren antzekoa da[2208]. Hizkuntza izango da euskal

---

[2206] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 345. or.

[2207] Adierazgarria iruditzen zaigu Pedro Mari Otañok euskarari buruz hitz egiten duenean erabiltzen duen terminologia, hau da, familiari lotutako terminologia erabiltzen du maiz, baita pertsonifikazioak ere euskarari buruz mintzatzeko. Ez da, jakina, lehendabizikoa izango. 1879an Felipe Arrese Beitia bizkaitarrak Elizondoko euskal-jaietan aurkeztua zuen "Ama euskeriari azken agurra", euskara ama zaharrarekin erkatuz. Felipe Arrese Beitia Manterolaren laguna izan zen eta *Euskal-Erria* aldizkariaren jiran ibili zen hura bezala.

[2208] Ikus FICHTEren *Discursos a la nación alemana* (1807): *"En primer lugar, no tiene duda que los límites primeros, originarios y verdaderamente naturales del Estado son sus límites internos. Todos los*

izatearen lehenengo muga ezarriko duena, gero pentsatzeko modu antzekoa eta azkenik muga materialak (mendi, ibai, etab.).

Ikus dezagun euskararekiko maitasuna nola adierazten duen eta familiari lotutako kontzeptuak –"ama" eta "seme" batez ere- erabiliko dituen euskarari buruz hitz egiteko. Horretaz gainera, ikus dezagun hizkuntzak hiztunarekiko zein aginpide duen eta hiztunak nola erantzun behar dion honi. Hizkuntza, jatorria eta izaera estuki lotuta dauden elementuak direla ere ikusiko dugu hainbat adibidetan.

1891. urteko "Amets bat" konposizioan euskararekiko maitasunaz mintzatuko zaigu Pedro Mari Otaño. Euskara ama bezala irudikatuko du, ama zahar gisa, semealaben zaintza eta ardura behar duen ama bezala. Aipatua ikusiko duzuen *Euskal-Erria* Donostian argitaratzen zen aldizkaria zen. Pedro Mari Otañok, Ameriketatik Donostiara etorri zenean, babesleku hartu zuena: "*-Diyozun aña maite badezu / zartu dan Ama Euskera, / billa ezazu Euskal-Erria / izendatzen dan papera; / ura da nire bizi-lekuba, / ez det nai andik atera; / seme leialak an biltzen zaizkit, / joan zaitez aien artera*"[2209] . Eta azken bertsoan: "*Ama Euskerak au esan ziran / jarririk begi alaiak, / orrengatikan nakar onera / berari lagundu naiak. / Gutxi nezake, oso txikiyak / dira nik dauzkadan gaiak; / bañan pozkiroz egiñgo ditut / gaubak egun, aste jaiak, / leku pixka bat Euskal-Erri'an / eskatze'izutet, anaiak*"[2210].

1892an Pedro Mari Otañok Donostian dela idatzitako "Ama Euskara" bertsoak ere kontuan hartzekoak dira, 1892ko Donostiako Lore jokoetarako prestatuak eta bertan sarituak izan zirenak. Euskara ama gisa irudikatzen du berriro ere Pedro Mari Otañok. Ekonomiaz aritu garenean aipatu ditugu bertso saileko lehenengo bertsoak, zeintzuetan Pedro Mari Otañok ipar isurialdeko euskal lurren bilakaera

---

*que hablan un mismo idioma… hállanse unidos entre sí desde el principio por un cúmulo de lazos invisibles, porque pueden comprenderse unos a otros y se comprenderán cada vez con mayor claridad formando, naturalmente, un todo homogéneo. Siendo así, le es imposible al Estado aceptar de ningún otro pueblo noción alguna de abolengo y de idioma diferente, sin perjudicarse a sí mismo y a su propia formación. De esos límites internos, constituidos por las propias fuerzas de la naturaleza espiritual humana, se originan luego los límites o fronteras materiales, de modo que los hombres no forman una nación porque vivan en éste o el otro lado de una cadena de montañas o de un río, sino que viven juntos-protegidos, si la suerte les ha favorecido hasta tal punto, por montes y ríos- porque primitivamente, y en virtud de las leyes naturales de orden superior, formaban ya un pueblo.*
*Así la nación alemana, gracias a poseer un idioma y una manera de pensar comunes, hallábase suficientemente unida y se distinguía con claridad de los demás pueblos en la vieja Europa, constituyendo el muro de separación entre razas heterogéneas, bastante numerosa y esforzada para poder defender sus fronteras contra los ataques del extranjero y, bastándose a sí misma, inclinada naturalmente a no preocuparse de las naciones vecinas ni a mezclarse en los asuntos de éstas, y todavía menos a turbarlas o convertirlas en enemigas suyas".*

[2209] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 346. or.

[2210] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 346.-347.or.

ekonomikoaz hitz egiten digun. Baina horretaz gainera, merezi du bertso hauei erreparatzea euskaldunez eta euskal hizkuntzaz esaten dituenengatik.

Paradisu gisa irudikatzen ditu Pedro Mari Otañok euskal lurrak, ez beren oparotasunagatik, baina bai bertan bizi omen zen batasun giroagatik eta elkarlanagatik, izan zitezkeen krisi eta gorabeherak ezkutatuz: "*Bizi-lekutxo txiki batean / berez toki zekenean, / bañan ala ere pozez semeak / bildurik zeduzkanean, / bizi zan ama biyotz samurra / berien aldamenean; / danak alkarri lagun egiñaz / saiaturikan lanean, / iritxi ziran larreak baratz / biurtzera azkenean*"[2211]. Ama euskara da, izenburuak berak argi uzten duen bezala. Seme-alabak inguruan dituen bitartean pozik izango da ama. Baina horrek ez du luze iraungo, izan ere, ondorengoetako batzuek kanpora joan beharko dute mantenurako ondasunen eskasia dela eta. Kanpoan diren seme-alaba horiek kezkaturik izango dira beren amaren egoeragatik, hau da, euskararen egoeragatik. Horregatik, batzuk bueltatu egingo dira beren lurrera eta bertan ikusiko dute amaren egoera ez dela kontatzen dena bezain larria[2212].

Antonio Zavalak Pedro Mari Otañori eskainitako bigarren liburuan jasoa dago ondoko bertsoa, nahiz eta urte zehatzik eman ez[2213]. Pauso bat gehiago ematen du hauetan Otañok. Hizkuntza eta jatorria lotuko ditu. "Amari" du bertso sailak izenburua. Bertan euskara ama[2214] gisa irudikatzen du Otañok, lehenago ere eginda zuen antzera: "*Aditu degu askok / galdetzen dubala, / jakin nairikan zer dan / euskeraren gala; / eta guk erantzuten / degu beriala / izkuntza zerutar au / gure Ama dala*"[2215].

Zergatik euskara ama gisa? Beren izatea hari zor diotelako, horra garbi adierazia euskaldunaren izaera hizkuntzari esker jaioa dela: "*Ta nola zor dizugun / geren izatea, / mundu guztiari nai / degu esatea: / biyotza maitasunez / daukagu betea, / gurekin konta zazu, / Amatxo maitea*"[2216].

Bere bizitzako azken hamar urteak izango zirenak Ameriketan bizi izaten ari zelarik, hartuko zuen orduan ere euskara hizketagai Pedro Mari Otañok. 1904. urtean euskal etxe baten inaugurazioan honako hauek esan zituen: "*[…] aquí no se*

---

[2211] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 366. or.
[2212] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 367. or.
[2213] 1900 urte inguruko bertsoen artean argitaratu zuen bertso hau zehazki Antonio Zavalak.
[2214] Hizkuntza eta aberria ere "amatzat" irudikatuko ditu behin baino gehiagotan Pedro Mari Otañok. Haurtzaroarekin ere lotuko ditu horrela bi elementuok. Esanahi polisemikodun hitza izango da, beraz, "ama" Pedro Mari Otañorentzat.
[2215] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 27. or.
[2216] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 27. or.

*tardará en hacer lo mismo, puesto que el idioma es antorcha muy eficaz para conservar el fuego sagrado que, pese a quien pese, no se ha de apagar mientras exista el mundo"*[2217]. Eta pixka bat aurreraxeago: *"Para terminar, señores, permitidme que os dirija algunas palabras más en nuestro patrio idioma, el nunca bien ponderado euskera, en esa lengua tan escarnecida por algunos obcecados, como admirada por todos los sabios filólogos del mundo entero"*[2218]. Hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen du izaeraren sua pizturik mantentzeko, eta euskarak alde edo kontra pizten dituen erantzunak.

Hari honekin bukatzeko, euskara, jatorria eta hizkuntzarekiko betebeharra azpimarratzen dituzten bertsoak azalduko ditugu. 1891ko "Amets bat" izeneko hitz-neurtuzko idazlanean lehendabizi euskara familiaren bitartez nola jaso zuen azpimarratuko du eta ondoren, ametsetan, andre zahar gisa nola agertuko zaion euskara, pertsonifikazioa erabiliz horretarako. Familiak hizkuntzaren transmisioan duen garrantzia azpimarratu nahirik erabiliko du agian terminologia hori: *"Ni jaio nintzan Euskal-lurreko / leku pozgarri abetan / eta euskera irintsi nuben / lenbiziko asnasetan, / amak siaskan nedukanian / edo bere besuetan, / kontu politak esanaz beti, / kantatuaz batzubetan / geren aitonak moldatutako / itz neurtu ta bertsuetan"*[2219]. Horrela ematen dio hasiera bere lanari Pedro Mari Otañok. Jaio den tokiari eta bertan amak eta aitonak euskara transmititu izanari ematen dio garrantzia Otañok: familiarekiko eta hizkuntzarekiko loturak bat egiten dute horrela beregan.

Idazlanak aurrera egin ahala, Pedro Mari, bere ama eta aitaz gainera, amona agertuko da. Nor da amona hura? Hona nola deskribatzen duen: *"Uraxen da xarra ta / polita zegona! / Begiyetan, aldizka, / zer alaitasuna! / Bañan galdu xamarra / dauka osasuna, / edo barrenen zerbait / berak nai eztuna. / Suspiriyo batzubek / ixilik entzuna / nago berari, eta / pentsatzen egona: / <Atso xar polit onek / zer ote du, Jauna? / Semien bat agiyan / aldegiñ dubana?>. / Hainbeste begiramen / neukan beragana, / ikusirik aiñ xarra / garbi ta txukuna, / berrogei arabakiz, / konponduba gona, / alde danetara aiñ / modu polit duna, / diruri aingeruben / kolkoko kutuna. / Kontatu digu bere / bizitza astuna. / Guk zer baliyo degu? Ura da iztuna! / Ai aiek gauz ederrak / esan dizkiguna! / Bañan erana dago / nonbait beazuna; / negarrez aipatutzen / du etorkizuna. / Nik ere nola deran / txit biyotz biguna, / beraialaxen*

[2217] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 131. or.
[2218] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 132. or.
[2219] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 339. or.

*artu / diyot naitasuna, / eta galdeturikan / al beziñ leguna: / -Ama, bedori zein da, / anbat alarguna? / Erantzun dit esanaz: / -Ni naiz Euskalduna"*[2220].

Lehenengo aurkezpen honetan, "Euskaldun" gisa agertuko zaiguna amona zahar bat da. Zaharra bai, baina txukuna eta polita. Garai hobeak bizi izan dituena, dirudienez, eta etorkizunera begira jarrita, kezkatua agertzen dena.

Hortaz, hizkuntzaren eta hiztunaren artean dagoen harremana maitasunezkoa da lehendabizi, baina baita menpekotasunezkoa ere, garai hartan guraso eta seme-alaben arteko harremanak nolakoak ziren gogoan hartzen badugu:

> *"-Gauza aundirik etzenezake, / ezagututzen det ori; / urruti izan dan batentzako / franko lan zalla diruri; / bañan eztiyot nik eskatutzen / eziñ dubenik iñori, / eta ara zer agindutzeko / asmoa daukadan zuri.*
>
> *Eskutik eldu ta muñ emanaz / bertan belaunikaturik, / erantzun niyon:-Ama, agindu, / ez izan nitzaz ardurik. / Beraz bedorren lurrian dago / euskera iya galdurik? / Ni beria nau eta ez det nai / kontzientziko kargurik.*
>
> *-Diyozun aña maite badezu / zartu dan Ama Euskera, / billa ezazu Euskal-Erria / izendatzen dan papera; / ura da nire bizi-lekuba, / ez det nai andik atera; / seme leialak an biltzen zaizkit, / joan zaitez aien artera"*[2221].

Agintzailearen eta betetzailearen arteko harremana, hizkuntzak hiztunaren jabetza duela, hizkuntzak pertsonari izatea ematen diola agertzen digu Pedro Mari Otañok. Etika eta moralari ere loturik ageri da hiztunaren jokaera, kontzientziari egiten baitio erreferentzia. Azpimarratu nahi genukeen beste elementu bat ere ageri da: hizkuntzarekiko harremanak seme leialak eta desleialak bereiztuko ditu, elementu egituratzaile eta desegituratzaile gertatuko al da horrela? Arazoaren tamaina handia bada ere, Otañoren ametsa doitua da, neurtua da: euskarari laguntzeko bere burua eta lana eskaintzen ditu *Euskal-Erria* aldizkarirako.

Hiztunak hizkuntzarekiko izan behar duen jarrera haren alde lan egitearena dela birritan esango du Otañok. 1892an "Ordañak" bertso sailean euskararen aldeko militantziaz eta sariketez hitz egingo digu Pedro Mari Otañok, eta euskararen aldeko soldadu izateko prest agertuko du bere burua:

> *"Ama Euskera maite dutenak / zenbait euskaldun onradu / oraindik ere arkitzen dira, / ontan suerte ona du; / bañan aiñ ego motxak dauzkagu, / eziñ juan gera gora*

---

[2220] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 346. or.
[2221] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 346. or.

*gu; / zu, Saritua, zuaz aurretik / eta bandera zabaldu, / nik desio det ibillitzia / zure atzetik soldadu"*[2222].

1905. urtean, "Iritzi bat" bertso saila osatu zuen, Paulo Zamarripari erantzunez. Lehen ere aipatua dugu bertso sail hau: Pedro Mari Otañok jarrera kontuak agertzen ditu, nolako jarrera izan nahi lukeen edo behar lukeen euskararen egoeraren aurrean. Amaren egoera kaxkarraz ari da: gure ustez, ama, euskara da. Egoera horren aurrean, ama euskararen seme-alabek ez dute negarrik egin behar, lana baizik: *"Eri dan amak ikusitzean / seme larri ta indartsuak / nola dabiltzan burumakurka, / umill eta negartsuak, / zer egingo du negar besterik? / Zer egingo du gaxuak? / Beste sendagai bat biar luke / miñez dagon gurasuak"*[2223]. Seme-alaben negarrak areagotu egiten du amaren gaitza. Lana eginez erantzun behar zaio egoera horri: *"Gure negarrak kendutzen dizka / bere indarrak Amari, / eta zer poza ematen zaion / ugazama zatarrari! / Utzi ditzagun malkuak eta / jarrai zaiogun lanari, / negarti izana damutan dago / zure lagun Pello Mari"*[2224].

P.M. Otañok euskararen inguruan osatutako bertsoetan lantzen duen beste gaietako bat euskararen transmisioarena da. Bi gai agertzen dira honi lotuta: batetik, euskara eta gaztelaniaren arteko harremana eta bestetik, eskolaren papera. Bi bertso sail dira zuzenean gai hauetaz ari direnak. 1896an "Aitona gizagaisoa" izeneko konposizioa egingo du Pedro Mari Otañok. Gai ezberdinen artean, euskararena landuko du bereziki bertan. Paisaia bukoliko batean, aitonatxo[2225] bat dago eserita, pentsakor jarrita, burumakur. Otaño bera pasioan dabilela hurbildu egingo zaio eta aitona hizketan hasiko zaio orduan.: *"Asnas lodi bat irten zitzaion / petxu estutik jasua, / ta lenbiziko au esan zuben: / <Nire euskara gaxua!!>"*[2226].

Otañok, berriz, aitonari ikusarazi nahiko dio euskara ez dagoela hain egoera larrian. Oraindik ere hitz egiten dela esango dio. Aitonak ordea erasoa ikusiko du euskararen kontra: *"Esan onetan ezaguturik / aitonak zedukan miña, / erantzun nion:<Jauna, euskara / ez dago aiñ aldegiña, / oraindik ere lur maite ontan / bada zeñek itzegiña…>. / Bañan nire itz motxak etziran / bera lasaitzeko diña, / ta zion:*

[2222] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 361. or. Antonio Zavalaren iritziz, saritua, Viktoriano Iraola izan daiteke.
[2223] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 155. or.
[2224] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 156. or.
[2225] Noren ikuspegia adierazi nahi izan ote zuen Pedro Mari Otañok aitona horren pertsonaiaren bitartez? Foruzale tradizionalistena ote, bere ikuspegia liberal foruzaleen aurrean defendatuz?
[2226] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 447. or.

*<Ondo ikusitzen det / datorkigun erasua; / ez da biziko, laster illko da / gure euskara gaxua>*"[2227].

Euskararen soziologiaz mintzatuko dira ondoren bertsotan Otaño eta aitona. Otañok euskara Donostiako hirian estimatua dela, baita damatxoen eskuz ere, azpimarratuko du eta aitonak, berriz, gaztelania herri eta basoraino sartua dela, eta euskarari jartzen zaizkion trabak asko direla:

> "*<Jauna, barkatu bizait, berriro / gogor egiten badiyot; / euskara oraiñ baño txarrago / egon dala derizkiyot. / Ez du ikusten nola izkuntza / ontan ari geran biyok? / Gaur Donostiyan ez dakiyenik / ez du aitortu nai iñork>. / <Bañan erderak betiak dauzka / erriya eta basua; / alferrik zabiltz, galdua dago / gure euskara gaxua>.*
>
> *<Jauna, alaitzen asi gintezke / euskara maite degunak, / badatoz ustez iya betiko / galdutzat zeuden egunak; / len aintzakotzat artzen etzuten / damatxo txapeladunak, / gaur erantzuten dute biotzez: / <Gu gerade euskaldunak>. / <Bañan ainbestek jartzen diote / traba edo arazua, / nola nai dezu indartutzia / gure euskara gaxua?>*"[2228].

Aitonak transmisioaren gaia azpimarratuko du. Belaunaldien artean etena ikusten du: bere buruaren eta bere ilobaren artean, eta horrek ematen dio minik handiena. Otaño da hizketari heltzen diona, eta egoera azaldu nahi duena. Gurasoek, hobebeharrez, gaztelaniari tokia egin diote euren seme-alaben hizkuntza izan dadin. Aitonak ohitura honekin bukatzeko eskatuko dio gizonari:

> "*<Jauna, badaki nola lenago / ez genekiyen erderik, / eta guraso leial on askok / umiak argitu nairik, / aldi batean non ikusi da / izkuntz au gabeko mairik? / Orrengatikan dago euskara / lotsaz txokuan gorderik>. / <Bukatu bedi oitura orren / epea edo plazua, / izan zazute maitexiago / gure euskara gaxua>.*
>
> *<Jauna, ez beza negarrik egiñ; / esan diotan bezela, / ikusitzen du lenago baño / askoz obeto gaudela; / luza lezake zergatik zaill dan / oso indartzen berela…>. / Ontan malkuak kolpez kendurik / erantzun ziran onela: / <Nik erderarik ez dakit eta / nire illobak… au sua! / ni bezelaxe burlatzen dute / gure euskara gaxua>*"[2229].

Aitonak, azkenik, guztiak foruen alde daudela, baina euskararen alde ere egon behar luketela azpimarratzen du. Liberal foruzaleei mintzo zaie horrela: "*Au mintzatzian arkitu zuben / nonbait aiñ estu barrena, / non altxarikan eserlekutik / al zezaken azkarrena, / esan ziran: <Ai! Denak nai dute / lege zarrak dakarrena, /*

---

[2227] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 447. or.
[2228] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 448. or.
[2229] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 449. or.

*eta ez dute ezagututzen / izkuntza dala aurrena. / Miru gaiztoak menderatutzen / duten bezela uxua, / etzazutela illtzera utzi / gure euskara gaxua>*"[2230].

Aurrez esan bezala, euskararen transmisioari lotuta P.M. Otañok landuko duen beste aspektu bat familia eta eskolaren paperarena izango da. Pedro Mari Otañoren "Aitona eta illoba"[2231] bertso sailean garbi geratzen da Otañoren ustez lehia dagoela familiaren eta eskolaren artean haurrei irakasten zaienari dagokionez: hasi hizkuntzatik eta baita beste hainbat esparrutan ere. Bertso sail honetako lehen hiru bertsoetan Pedro Mari Otañok aitonaren eta ilobaren arteko harremanaz orokorrean hitz egin ostean, gertakizun bat kontatzen digu, hau aitzakia hartuz hezkuntza sistema eta hizkuntzaren eta kulturaren transmisioaz iritzia eman eta zabaltzeko. Hau egiteko aitona-iloba batzuk hartzen ditu pertsonaia nagusi gisa. Ez dira izen-abizendunak, ez dira zehatzak, ez dira inor, baina aldi berean, ia edozein izan daitezke. Ereduak asmatze hori ez da pertsonaietara mugatuko: zabaldu egingo da hauek bizi diren ingurunera ere, bai sozialera, baita naturalera ere. Ikus: *"Illunabartxoan zan / -ain daukat goguan!- / mendi-bide batean / erriruntz nijuan; / baserri txuri baten / ate inguruan, / aritz baten azpian / aiton bat zeguan, / erdi negar ta farrez / txit desoseguan"*[2232].

Aitonak ilobari galdetu egingo dio eskolan zer ikasi duen, bertara ikas dezan bidaltzen duela esanez eta alferra ez izatea espero duela esanez. Ilobak, honela erantzungo dio: *"Buenas tardes, aitona; / Pinto, ago geldi. / Nik berorri maite det, / konsolatu bedi; / no me frunza Vd. el ceño / baldiñ al baledi, / gaur maisuak esan dit / noizbait gizon aundi / ni egiñgo naizela / jaten badet ongi"*[2233].

Iloba gaztelaniaz hizketan hasten zaionean aitonak kopeta belztu egiten du. Hurrengo bertsoan ilobari esango dio: *"bañan ni arritzen naiz / daukazun izkeraz"*[2234], eta maisuak euskaraz ba ote dakien galdetuko dio ilobari. *"<Cá, hombre! Ni…>.<Ixo!...O! / Jaungoiko aundiya! / O Tubal ta Aitorren / izkuntza garbiya!"* [2235]. Horra aitonaren nahigabea areagotu: ilobak gaztelaniaz hitz egiterakoan, biraoak esaten ditu. Ez dakigu zehazki Pedro Maria Otañok noiz idatzi zituen bertso hauek: 1894an idazten hasitako "Oroimenak" eskuizkribuan ageri dira, baina izan daitezke aurrekoak, buruz gordeak zituenak eta orduan papereratuak, edo ondorengoak, kuadernoa 1894an idazten hasi baina gerora

[2230] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 449. or.
[2231] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 474.-477.
[2232] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 475. or.
[2233] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 476. or.
[2234] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 476. or.
[2235] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 476. or.

gehituak. Gerora ikusiko dugun bezala, Pedro Maria Otaño Sabino Aranak hizkuntzarekiko zuen garbizaletasunak harrapatu zuen eta baliteke hemen jasoa horren ondorio ere izatea.

Hurrengo kolpea ilobak aitonari "jeografiya" ikasten ari direla esaten dionean etorriko da. Aitonak zientzia horren baitan ikasten ariko direnak zerrendatzen dizkio: *"Jeografiya nola / gauza ona baitan, / zuk ez dakizu zenbat / gustatutzen zaitan. / Esan zazu euskara / zenbat probintzitan / mintzatutzen dan, zenbat / kale ta erritan, / eta al baldin bada / zenbat baserritan"*[2236]. Aitonak, beraz, euskararen erabilerari buruz zer ikasi duten galdetzen dio ilobari eta honek berriz, honela erantzun: *"<Ori erakutsitzen / ez digu maisuak, / nik beste gauzak dauzkat / goguan jasuak>"*[2237].

Hauek guztiak entzunda, gurasoen funtzioa errekuperatuko du aitonak, hauen eragina eskolarenaren gainetik jarriz: *"Bañan zuk oker eman / dituzun pausuak, / zuzenduko dituzte / zure gurasuak"*[2238].

Eta bukatzeko aitonak garbi utzi nahiko du ez daudela ikastearen kontra, era horretako eskolaren kontra baizik: *"Gu argitasunaren / etsaiak ez gera, / bañan, ai! Zu, illoba, / zuaz buruz-beera / zere jatorritikan / ezkutatutzera… / Beti saia zaitez au / buruan artzera: / euskera da lenengo, / ta gero… euskera"*[2239]. Jakintza "argitasuna" hitzarekin adierazten du, adierazgarria da hau. Eta bukatzeko garbi uzten du ikasketen ardatza euskarak izan behar duela eta horrek lotzen duela haur eta gaztea bere jatorriarekin, Pedro Maria Otaño kezkatzen duen gaietako bat jatorriarena izanik. Euskaraz egiten ez dutenek beren jatorria "ezkutatu" egiten dute.

Eskola ez da izango, ordea, euskarak izango duen etsai bakarra. Euskararen alde egin behar da, zenbaitek kontra egiten duelako. Bi eratako etsaiak bereiztuko ditu Otañok: kanpokoak (euskaldunak ez direnak, zenbait intelektual) eta barnekoak (gaztelania ikasten duen jende xumea eta euskara hitz egiten ez duena). Otañoren ustez, hizkuntza bakoitzak bere lekua behar luke, batak besteari kalterik egin gabe: *"Beste izkuntzik galtzen saiatu / ez bada Ama Euskera, / zertako datoz atzerritarrak / oso zegona austera? / Pixti gaizto bat balitz bezela / sartu naian auspera? / Nola ez*

[2236] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 476. or.
[2237] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 476. or.
[2238] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 477. or.
[2239] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 477. or.

*gera gu altxatuko / Amari txutik eustera? / Izan gaitezen seme leialak / goitu dediyen ostera*"[2240].

Pedro Mari Otañok, 1904an "Batasuna" bertso sailean, lehendabizi euskarari buruz hitz egiten du. "Elkar" bere liburuaren hitzaurrean esanak dira. Hona euskarari buruz esaten dituenak, honen kontrako etsaiak gogoan dituela:

> *"Jakin nayian zein dan munduko / izkuntzarikan zarrena, / au da jakintsu askok zentzuba / nekaturik dakarrena; / len azaletik ibiltzen ziran, / badatoz sartzen barrena, / ta gaur geienak aitortzen dute / euskera zala aurrena.*
>
> *Geroztik sortu ta indarturik / zenbat izkuntza ez da ill, / gelditurikan lurperaturik, / betiko mutu ta ixill! / Euskera galtzen saiatu arren / asko berritxu ta zirtzill, / indar berriyak artzen ari da, / gazte bat bezela dabill.*
>
> *Mundu guztiyan arkitzen diran / jakintsurik aundiyenak, / ta batez ere orain Londres'en / eta Berlin'en daudenak, / eman dituzte euskeragatik / albisterikan onenak; / burlatzen duten ergelak dira / ezagutzen ez dutenak*"[2241].

Euskararen kontrakoen adibide desberdinak jaso ditzakegu baita ere "Ernani" bertso sailean: *"Euskaldunen oiturak / ta gure izkuntza / jakin nai ditubena / joan bedi aruntza; / nola euskara dagon / iya umezurtza, / au-sapai txarrekuak / nai diyote bultza… / Ernani, zu zerade / ezti onen eultza"*[2242].

Baina gai honetaz sakonen arituko den bertsoak Pedro Mari Otañok Miguel de Unamunori jarritakoak dira. Pedro Mari Otaño atrebitu egingo da Miguel de Unamunori bertsoak jarri eta honek euskararekin duen auziaz galdetzen. Honek Otañoren mailaren berri ere ematen digu, hau da, nor sentitzen zela Unamunori, gai honen inguruan bederen, kontuak eskatzeko.

1903an argitaratutako "Berri on bat" konposizioan Unamunok haur zela euskara nola jaso zuen eta orain uko egiteko eta alboratzeko eskatzen zuen adierazten digu. Otaño ez dago ados planteamentu honekin[2243]. Adierazgarri zaizkigun pasarteak jasoko ditugu. Adibidez Unamunoren jatorriaz ari direnak: *"Unamuno-ko Migel / maisu jakintsuna, / ospatsu askok agur / egiten dizuna, / euskal kanta goxuak / siaskan entzuna, / zer da ordia oraiñ / gertatzen zaizuna?"*[2244].

---

[2240] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 361. or.
[2241] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 148. or.
[2242] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 398. or.
[2243] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op .cit., 101.-102. or.
[2244] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op .cit., 101 .or.

Unamunok euskaldunei proposatzen diena, beren buruaz beste egitearen antzekoa da: *"Galtzen dijualako / gure osasuna, / ta sendatu nayian / miñ oñazeduna, / esanaz diguzula / lengo naitasuna, / lepua moztutzeko, / o Jaungoiko Jauna! / Ez da ori azkenik / eskatzen dezuna, / txit mesedez degula / derizkiyotzuna?"*[2245].

Jakintsua ari zaie ezjakinei hizketan: *"Salamanka-tik irten / da argitasuna / euskaldun batengandik / -zer edertasuna!-, / ikusi arazteko / onkarri zaiguna, / gureganatutzeko / zoriontasuna!... / Anaiak, poz gaitezen / badator eguna, / erritar altsur batek / bidezten diguna, / ta betiko doatsu / egingo gaituna: / utzi dezagun gure / izkuntza astuna, / jendien arterako / baliyo eztuna, / eta betor erdera / eder eta leuna / -biyak jakitia da / txist gauza illuna!-. / Egin zagun Migelek esaten diguna, / eta guretzako da / berriontasuna"*[2246].

Zein da Otañoren iritzia honen inguruan? *"Tubal-en kastarentzat / zer etorkizuna! / Euskalduntasuna!"*[2247].

Unamuno euskarari behazuna ematen ari zaiola esango digu Otañok: *"Edaririk onena / zer da? Beazuna. / Au da semiengandik, / Amatxo kuttuna, / kañaberaren puntan / artu biazuna, / ezagutu dezazun / gure maitasuna"*[2248].

Konposizio honetaz gain bertsoak ere jarriak dizkio Unamunori urte berean. Bigarren hauek forma aldetik zortziko txikian idatziak daude eta erabiltzen duen hizkera biziagoa da:

> *"Esaera zarra da / iñoiz jakintsubak / egiñ oi dituztela / txit gauza txatxubak; / zallak dira bildutzen / onra ta protxubak, / nola ez du pentsatu / au gure maisubak?*
>
> *Guk nai diyogulako / euskerari fidel, / ipiñitzen diguzu / bekozkua goibel? / Asko dakizularik / gaizki zaude, Migel, / ezin biurtu leike / amorrayik igel".*[2249]

Pedro Mari Otañok tratatuko duen beste auzi bat euskalduntasunean euskarak ala foruek zeintzuek behar duten pisu gehiago izango da. Pedro Mari Otañok euskararen alde egingo du. "Lora" operan (1907) euskara eta foruak elkarrekin badatoz ere, euskarari emango dio lehentasuna Otañok foruen aurrean. Euskarari eusten bazaio, foruak ere etorriko dira. Hona bigarren ekinaldiaren bukaeran ipintzen dituen bi bertsoak:

---

[2245] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 101 .or.
[2246] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op .cit., 101.-102. or. Zergatik ote kaltegarri euskara eta gaztelania jakitea?
[2247] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 102. or.
[2248] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 102. or.
[2249] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 108. or.

> *"Euskal seme maiteak, / egon ernaiturik, / beñere utzi gabe / izkuntz au azturik; / beste gauzak ez dira / -zaute sinisturik- / irudipen igeskor / batzubek besterik; / euskera galtzen bada / ez dago fuerorik.*
>
> *Mintza gaitezen bada / geron mesedian / guraso zarrak eman / ziguten legian, / eziñ kontaala etsai / gogorren aurrian, / iñoiz erori gabe / arrotzen mendian, / oju egiñaz gure / izkuntz ederrian: <Mutillak, aurrera ta / gogor sabelian>"*[2250].

Pedro Mari Otañok euskara hizketagai hartzen duenean azpimarratu nahi genukeen beste elementu bat euskara "hizkuntza zerutiar" gisa nola azaltzen duen[2251] da. Pedro Mari Otañoren "Gu ta guk" bertso sailak 1906an Buenos Airesen egin zen lehen euskal poesien lehiaketan lehen saria irabazi zuen. Lehiaketa hau *La Euskaria* egunkariak antolatu zuen. Bertan Pedro Mari Otañok euskara hizkuntza zerutiar gisa aurkeztuko digu. Ipuina antolatuko du: gizon euskaldun bat infernura nola joango den kontatuko digu eta han ez ziotela hitz egiten zuen hizkuntza ulertzen, deabruak ez baitaki euskaraz eta handik zerura nola joan zen eta han bai, besoak zabalik nola hartu zuten. Honela esango digu: *"Ez da euskera beziñ izkuntza / maitagarririk munduban, / jakiña dago deabru zarrak / nola ikasi etzuban. / Aiñ da santuba, eziñ mintzatu / dezakete infernuban, / orregatikan denak euskeraz / kantatzen dute zeruban"*[2252]. Ipuinaren kontakizunean, hamabigarren bertsoan, hizketan jarriko du Otañok Luzifer: *"Iñork deitzeko premirik gabe / an agertu zan Luzifer, / ta txit aserrez galdetu zuben: / <Zer gertatzen da emen, zer? / Ez al dizutet lenago esan, / gutxienaz milla bider, / nik ez detala euskaldunakiñ / sekulan jakiñ nai ezer?>"*[2253]. San Pedrok berriz: *"San Pedro jauna begiratubaz / maitati eta gozatsu, / erantzun zion: <Oraiñ betiko / egiñ zerade doatsu. / Guazen barrena, o euskalduna, / atoz, eskuba ekatzu; / emen euskeraz itzegiten da / ta lagunak zai dauzkatzu>"*[2254]. Eta bertso sailaren bukaeran, apoteosi gisa, Iparragirreri erreferentzia eginez:

> *"Belaunikatuz, Jaungoikoari / eskerrak eman onduan, / ikusi zuben nola millakak / arrigarrizko doñuban, / Gernikakoa irudi duben / aritz baten inguruban, / kantatzen gure izkuntzan, / ara zer aditu zuban:*
>
> *<Gernikako arbolak / zeruban du aita, / onek bialdu zigun / guri ondo naita; / biyak bear ditugu / biotzetik maita, / euskera ez da galduko / zerutarra baita>"*[2255].

---

[2250] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 300. or.
[2251] Lehen ere ikusi dugu nola erlijio hizkuntza maitasunaz edo politikaz hitz egiteko erabili duen.
[2252] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 175. or.
[2253] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 176. or.
[2254] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 178. or.
[2255] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 178. or.

Unamunoz mintzatu garen bezala, eta Otañok honekin zuen aurkakotasuna adierazi dugun bezala, Sabino Aranak Pedro Mari Otañoren bertsogintzan zer nolako eragina izan zuen ere adierazi nahi genuke. Maila ezberdinetako eragina izan zen hau. Lehen ere ikusi dugu Sabino Aranak eraginik izan zuela Pedro Mari Otañoren pentsaera politikoan. Baina horretaz gain, baita gizartea ikusteko moduan eta baita bertsoak egiteko erabiltzen zuen hizkuntzan ere.

Pedro Mari Otañok, adibidez, euskara biraorik gabeko hizkuntza dela esango digu: *"Alperrikako lana irten zan / deabruaren jarduntza, / eziñ eraman izandu zuben / euskerarikan aruntza; / infernuetan ez leike sartu / birau bageko izkuntza, / mantxa gabea dalako dauka / Jaungoikoaren laguntza"*[2256].

Euskararen "garbitasuna" zaintzen ere saiatu zen eta Amerikako azken egonaldian idatzitako bertsoetan ugari samar erabiltzen zituen Sabino Aranak sortutako hitzak. Hona hemen, bertsoetan ohikoa ez zen kantitatean, neologismo konzentrazioa. Bertso hauek, izan ere, Sabino Aranari berari eskaintzeko osatu zituen: *"Leñargitia, ziaditsua, / leial da kupidakorra, / biotzberaa zan egin geiago / eta jainkoti jatorra; […]"*[2257]; eta beste bertso batean *"Bera izan zan, Sabin aundiya, / ondokidatu ziguna, / gaur euskaldunok ainbeste maite / degun dierritasuna; / Jesusen gisan edan zituben / ozpiña ta beazuna, / gaur ez dakit non egongo giñan / eduki balu osasuna"*[2258].

Baina Pedro Mari Otañoz gain, Txirritak eta Joxe Mari Lopetegik ere hartuko dute mintzagai euskara eta ez soilik erabiltzen dutela esateko, bestela, bere etorkizunaz, etab. kezkatuta daudela adierazteko eta duen garrantzia azpimarratzeko.

Txirritak euskara zela eta jarri zituen bertso hauei buruz Antonio Zavalak ez digu data zehatzik ematen: egunkari batean argitaratuak izan zirela esaten digu, ez besterik. Euskara eta eliza dituzte gaitzat. Lehenengo bertsoak honela dio: *"Ontzat artu det Pueblo Vasco'an / irakurri detan itza, / saiatuko naiz orren esanak / egin al baldin banitza; / denak alkarri lagun zaiogun / kristau fedetsuen gisa, / gora euskera eta klerua, / Jaungoikoa ta Eliza!"*[2259]. Euskara eta apaizak, euskara eta eliza hartzen ditu aipagai. Ondoren bertso pare bat jarriko ditu Txirritak kristauak geroko bizitzara begira dituen aukeren artean eta bukatzeko euskararen gaiari helduko dio berriz: *"Gau eta egun nere buruan / bueltaka dabilt euskera, / jaio ta iru urte baño*

[2256] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 176. or.
[2257] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 183. or.
[2258] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 184. or.
[2259] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 397. or.

*len / ikasi nuen izkera; / altxa gogotik, kuidado gabe, / gu zure kontra ez gera, / lenago maite izan zaitugu / ta oraiñ ez guaz uztera*"[2260].

Txirritak euskarari buruz, akrostikoa ere prestatuko du. Puntuen hasierako letrekin *"Gora euskera"* dioen bitartean, gaitzat, aintzinako borrokariak izango ditu gogoan Txirritak. Akrostikoa dela errazago ikusteko, zutabe eran jasoko dugu bertsoa:

*"Gure aurreko gerrero zarrak*
*Odol erruz ixuriyak,*
*Rato txar asko pasatu zuten,*
*Aiek ango mixeriyak!*
*Egurrezko armak*
*Ugari zeuden*
*Soldaduentzat jarriyak,*
*Kasik burniya beziñ fuertiak*
*Eskuak eta gerriyak,*
*Rau sartzen ziran aurrera eta*
*An kolpe izugarriyak*"[2261].

Txirritak ere osatu zuen "Amets bat" izeneko bertso saila, 1932. urtean *Bertsolariya* astekarian argitaratua. Hau da, Pedro Mari Otañok baino berrogei eta bat urte beranduago hark erabilitako izenburu bera erabiliz, honakoa adierazi zigun Txirritak:

*"Bart ametsetan amona xar bat / inguratu da nigana, / esanaz: <Emen bada gizon bat / nik ezagutzen dedana? / Anbat etzaio akordatuko / ama-semiak gerana, / nere petxuko bularretatik / hamaika trago erana, / gaur ere pozik egingo diyot / nik al dezakedana>.*

*Baju-bajutik galdetu niyon: / <Ama Euskera al zera?>. / Erantzun ziran: <Bai, alaxe naiz, / baño egin det zartzera; / aspaldiyetan kanpuan nitzan, / oraintxe nator etxera, / nire izkuntza maitatzen duten / semiak bixitatzera, / ia zu ere saia zaitia / oien anaia bazera>*"[2262].

Sail bereko ondorengo bertso pare batean Txirritak batzokiari egingo dio erreferentzia: Ama euskarak hara joan behar duela, han dituela aldeko semeak. Ama ikusten dutenean gainera, euren arteko batasuna indartu egingo dela. Bertso hauetan, famili terminologia erabiliko du Txirritak ere euskarari buruz mintzatzeko: "*<Ezagutzen det, Ama maitia, / dolorez egin du jira; / oraiñ semiak lagundutzia / oso gauza egoki da; / bakoitzak geren fameliyari / izan zaiogun kupira, / gure anaiak jakin dezaten / biyar guazen batzokira, / gero beorri etxeko-andre / gu*

[2260] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 397. or.
[2261] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 423. or.
[2262] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 496. or.

*bizi geran tokira"*[2263]. Garrantzitsua da euskarari ematen dion papera, "etxeko-andre" papera.

Eta etxekoandrea dagoen tokian, anaien arteko edo senideen arteko arazoak ere gutxitu egiten dira: "*Beorri ara dijuanian, / nere anaia gaztiak, / aien orduko begiratuak / eztira izango tristiak; / seme geienak poztutzen gaitu / beren Ama ikustiak, / esanaz:<Oraiñ berexi dira / gure tarteko nastiak, / nik bezelaxe igual-igual / maiteko dute bestiak>"*[2264].

Zergatik dago triste Euskara? Semeak ohostu dizkiotela dio. Foruen galeratik aurrera, haurrak gaztelaniaz eskolatu dira eta galdu egin ditu mutikoak euskarak. Euskarak kanpoko etsai maisu "kastellanoak" izango ditu eta barneko etsai, berriz, gaztelania ikasi eta euskaraz egingo ez duten euskaldunak. Horra:

> *"Galdetu niyon: <Ama, zer dabill / ola kopeta beztuta?> / <Esango nuke, baño zertako, / berdiñ baliyo eztu-ta? / Aidian ezta errez ibiltzen / ego-muturrak moztuta, / pena aundiya daukan gorputza / ezin liteke poztu-ta, / nola enitzan asarretuko / oinbeste seme ostuta?>*
>
> *Ama gaxuak erantzun ziran / añ doñu triste batian: / <Miñez egon naiz juan da berrogei / eta hamabost urtian; / nere malkorik ezta legortu / ordutik oraño artian, / gure izkuntza maitagarriya / sartu nai dute lurpian, / baño gurekiñ ibilliko da / Kantabria'ko partian.*
>
> *Andikan laister jarri zituzten / eskola erderazkuak, / maisu geienak kastillanuak, / kolorez berde askuak; / gure semiak amenazatzen / luzeturikan eskuak, / itz bat euskeraz aditzen bada / autsi biarrik kaskuak, / non ote dira garai bateko / emengo maiorazkuak?"*[2265].

Euskararen gainbehera foruen galerarekin lotzen du Txirritak. Baina horretaz gainera, 1868. urtea ere aipatzen du mugarri[2266].

Ametsetan ari denak Ama euskarari esango dio joateko galdutako semeak errekuperatzera: "*Ama, guazen gauz oien billa / ostu zituzten tokira, / seme guziyak korajez gaude, / ez izan gutzaz kupira; / euskera baju egon da baño / gora egin du mugira, / Euskal-erriko belar gaixtuak / geienak igartu dira, / oiek aldatu dituzten larrak / arrosa biyurtu dira"*[2267].

---

[2263] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[2264] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[2265] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or. Lehen ere aipatu ditugu bertso hauek artikulazio politiko-sozialaz ari ginela.
[2266] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 497. or.
[2267] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 498. or.

Joxe Mari Lopetegi ere kezkatua agertuko da euskararen tokiarekin. 1903an, irailaren 20an, *Ibaizabal* aldizkarian argitaratu zituen gai honen inguruko bertsoak. Joxe Mari Lopetegirenak direla ezagutzen ditugun lehenengo bertso idatzi-argitaratuak dira hauek. Euskarari buruz ari dela: *"Errukiturik nauka / Amaren negarrak, / Eta berak egiten / ditun deiadarrak, / ia gorde duela / sasipean larrak, / mugi gaitean seme / biozdun azkarrak"*[2268]. Zergatik aurkitzen da ama euskara egoera horretan? Batetik, bere seme-alaben utzikeriagatik: *"Zeñen zabarrak gauden / gu Euskal-erritan, / penaz daude malkuak / Amaren begitan, / ez dezagun eduki / penatzen sasitan, / guazen anai leialak, / jar zagun argitan"*[2269]. Eta beste batetik, gaztelaniaren indar menperatzailearengatik: *"Burua makurturik / ixill gaude, ixill, / erdaldunen mendean / kiskur eta umill, / Ama guregatikan / penaz lertzen dabill, / Zu horrela utzi baiñan / naiago nuke ill"*[2270]. Goiztiarra da, beraz, Joxe Mari Lopetegi euskararen egoeraren gaiari heltzen. Hasieratik agertuko duen kezka izango da hau.

1910 inguruan ere Joxe Mari Lopetegik bertsoak jarri zizkion euskarari. Kasu honetan Ameriketan argitaratzen zen egunkari batentzat, *Euskeria*rentzat prestatu zituen. Ameriketan dauden euskaldunak ere gogoan izango ditu Lopetegik: *"Gure Euskera maitagarriya / biyotzez maite duanak / pozgarritako eraguiñ azi / biar dizkit gustora lanak; / baldin laguntza ematen badit / argi onez zorionak, / esan bitarte zenbat lekutan / dituen semiak amak, / batzuek emen euskal lurrian / ta zenbat kanpora juanak"*[2271]. Hauei ere euskarari eusteko eskatuko die: *"Ameriketan or bazerate / Amaren zenbait landare, / eutsi mutillak eutsi Amari / gaitzak arrapatu gabe; / Esan dezagun nora nai juanda / gu Euskaldunak gerade, / lagundu nayaz Ama xarrari / biyotz onekuak gaude, / ta ez dezagun galtzera utzi / beran lurretik juanda're"*[2272].

Euskararen goralpena egingo du Joxe Mari Lopetegik, beste hizkuntzen aurrean paregabetzat joko du euskara: *"Zu ondratu nai ta ezin ondratu / ez det somatzen itzikan, / bañan ala ere sayatu nai det / ez dago nire faltikan; / Gogoratu zait ta esango det / biyotzaren erditikan, / ez det pentsatzen munduan danik / izkuntz ederragorikan, / naiz kantuan da naiz izkuntzian / berdinduko duenikan"*[2273].

---

[2268] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 58. or.
[2269] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 58.-59. or.
[2270] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 59. or.
[2271] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 61. or.
[2272] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 61. or.
[2273] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 62. or.

Eta azkeneko bertsoan, euskara eta euskaldunak estuki lotu eta identifikatuko ditu: *"Denbora onez azaldu zera / Amerikan Euskeria / zergatik Ama gaxua zagon / txokuan iya gordia; / Sayatu ortik alegiñian / gogoz eruki fedia, / nora nai juanda / egiñ Euskeraz / oju beldurrik gabia, / bizi dedilla ama Euskera / eta Euskaldun jendia"*[2274].

*Irun Republicanon* 1931ko abuztuaren 8an argitaratutako bertsoetan Joxe Mari Lopetegik Astigarragako Centro Republicanoa ireki zenekoa kontatuko du. Bertan espreski adieraziko du euskaraz mintzatu zirela Astigarragan mitina eman zutenak, errepublikanismoa eta euskara uztartuz: *"Ergobiatik jira eginda / igo giñaden plazara, / Fermintxo eta Campoamoriyon / esaierak entzutera; / Adarraga're mintzatu zaigu / aita aundi baten antzera, / zeñen eztiya, zeñen ederra, / mintzatu zuen euskera, / onlako aitak baldin badira / oraindik biziko gera"*[2275]. Elosegik dioenez, Fermintxo Vega de Seoane abokatu donostiarra, Eduardo Campoamor, Jon Adarraga eta Domingo Andonegi (azken hau olerkari eta bertsolaria, Lopetegirekin batera mitinen batean bertsotan aritua) izan ziren Astigarragan hizketan aritu zirenak.

*Irun Republicanon* 1931-IX-12an argitaratutako bertsoetan euskararen egoera ona euskaldunen arteko batasunarekin lotuko du Lopetegik: *"Ta gaur begira nola gabiltzan / geran aliak nasirik, / bekaizkeriyan buruak arro / alkar ezin ekusirik, / Fueruak agindutako itzak / alde batera utzirik, / bat txarra dala, bestia ere bai, / onekin nago etsirik, / bide otatik baldin bagabiltz / Euskarak ez du bizirik"*[2276].

Eta bukatzeko, Joxe Mari Lopetegik euskararen egoeraren eta eskola erdaltzailearen arteko harremana ere izango du gogoan. "Bizi naya" dute izenburu eta *Irun Republicanon* 1932ko ekainaren 18an eta *Bertsolariya* aldizkarian 1932ko uztailaren 24an argitaratuak izan ziren.

Joxe Mari Lopetegik ere euskara Ama bezala pertsonifikatuko du: *"Agurtutzera nator biyotzez / agur gure Euskal Erriya, / begira nago noiz etorko dan / egun zabal pozgarrriya, / Aman malkoak legortutzera / Euskaldun biyotz aundiya / bildu gaitean poztu dediyen / Amatxo maitagarriya"*[2277].

Eta hirugarren bertsoan euskara maitatzea eta euskaldun izatea batera agertuko ditu Lopetegik, baita euskararen egoera eskoletan hobea nahi lukeela esan ere:

---

[2274] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 62. or.
[2275] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 122. or.
[2276] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 135. or.
[2277] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 157. or.

*"Noranai juanda esan dezagun / gure Aitonak bezala, / Euskal izkuntza maite degula / ta Euskaldunak gerala; / gure izkuntza ikastetxetan / galazi ez dezatela, / lagundutzeko emen gerade / indartutzeko Erkala"*[2278].

Eta zehaztasun gehiago emango ditu euskaraz hitz egiten zutenak eskolan nola tratatzen zituzten: *"Oroitutzen naiz gazte nintzala / erderaz itzik ez jakin, / eta Euskeraz mintzatzen zana / aurki zan eraztunakin; / aste guztiyan ordaindu gabe / baldin baneukan nerekin, / Ikastetxea garbitutzera / igandean eskobakin"*[2279].

Errepublikaren esku jarriko du Joxe Mari Lopetegik euskara indartzea eta honi berebiziko garrantzia emango dio, hori bai, gaztelania galdu gabe:

> *"Gure izkuntza maitagarriya / dan izkuntzik politena, / ezin azalduz oinperatua / iruki zaituztena; / Erkalak eman nai digu zerbait / bildu gaiten alkargana, / samintasunak kendu zaizkigun / sendotu dezagun Ama.*
>
> *Ama maitea bildu semeak / ez juan iñor igesi, / erdera galdu gabetandikan / euskeraz ondo ikasi; / jakin dezagun Euskal Erriyan / izkuntza dala lenbizi, / izkuntzik gabe alferrik gabiltz / Euzkera ez leiteke bizi"*[2280].

Orain artean beste gai batzuekin gertatu bezala, euskararen inguruan diskurtso esplizitua egingo duten bertsolariak ez dira guztiak izango. Erabili bai, guztiek erabiliko dute, baina denek ez dute P. M. Otañok adinako gogoetarik egingo hizkuntzaren gain. Ez dute horren beharrik sentituko.

Pello Errotak ez du kezkarik agertuko euskararen inguruan, Xenpelarrek aipatu egingo du bertsoak euskaraz jarri dituela eta frantsesa ez duela ulertzen ere esango digu baina ez du euskararen inguruan kezkarik agertuko. Bilintxek ere ez. Gai honi dagokionez, ikusi bezala, Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegi izango dira kezkatuen agertuko direnak. Txirrita eta Joxe Mari Lopetegik, XX. mendean aurrera bizi izan zirelarik, hurbilagotik bizi izan zuten gaztelania euskararen gain hartzen ari zen indarra eta euskararen iraupenaren kezka agertuko dute horregatik beren bertsoetan.

Pello Errotak aipamenen bat egiten dio euskarari baina ez gehiegi. Gehiago ematen du behartuta egiten zuela ia, berari ateratzen zitzaiolako baino. Mikaela alabak esango digu: *"Gernikara eraman zuten, da an ere premioa atera zuan gure aitak. Euskerari ta ango arbolari bertsoak atera zizkien gero"*[2281]. Sail horretako lehenengo

---

[2278] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 157. or.
[2279] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 157.-158. or.
[2280] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 158. or.
[2281] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 206. or.

bertsoak honela dio: *"Euskeraren gañian / biar det itzegin, / nere lagun guziak / artzeko atsegin, / iñozente dagona / abertitu dedin, / gurekin deskuidorik / gertatu eztedin"*[2282]. Euskara aipatu, aipatzen du, baina ez du karga ideologikorik ipintzen horri lotuta: ingurukoak pozik jartzeko, batez ere.

Xenpelarrek ere euskarari erreferentzia egiten dio bizpahiru aldiz bere bertsoetan. Halakoetan bertsoak euskaraz ipini dituela adierazten du, gehienetan, bertso sailaren azkeneko bertsoan: *"Orra bertso berriyak / Senpelarrek para, / askok jakin dezala / nere euskara; / ustez alabatu det / betroiaren kara; […]"*[2283]. Euskararen erabilerari lotutako erreferentzia da, beraz.

Bilintxek, "Pozez ta bildurrak" bertso sailean, honela dio: *"Arpegiya zeñek du / arrek bezin fiña? / Eta zeñek gorputza / aiñ ondo egiña? / Ibilleran ere da / guztizko ariña, / euskerak ez du itzik / famatzeko diña!"*[2284]. Erabilerari lotutako komentarioa dugu hau ere.

Euskarari dagokion atal honekin bukatzeko esan dezakegu zenbat eta kezkatuago agertu bertsolaria euskararen iraupen eta garrantziarekin, orduan eta hizkuntza zainduagoa erabiliko duela bere bertsoak osatzerakoan. Horrela, ez da harritzekoa izango Xenpelarrek, adibidez, Pasaiako zezenari jarritako bertsoetan gaztelania erabiltzea, hau arazo bihurtu gabe: *"Ayuntamentubari / eman diye parte, / balkoyian jarrita / daguela Almirante; / sententziya bereala / atera diyote; / jetxi dediella andik / inmediatamente"*[2285]. Gai beretsuari kantari, horrela esaten du: *"Lendabizi plazari / eman diyo jira, / ate baten ondora, / joan da ensegida; / al duenak igesi, / bestiak erida, / obia dalakuan / engañatu dira"*[2286]. Txirritak berak ere erabiliko du gaztelaniazko esamolderik:*"Porque, porque / izan ezkero merke, / porque, porque / artuko genduke"*[2287]. Ikusi dugun bezala, Pedro Mari Otañok, berriz, Sabino Aranaren garbizalekeriaren eragina jasoko du erabiliko duen hizkuntzan.

[2282] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz,* op. cit., 206. or.
[2283] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 220. or.
[2284] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 167. or.
[2285] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 143. or.
[2286] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua,* op. cit., 144. or.
[2287] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 70. or.

### 4.2.3.2. Euskaldunak eta batasuna: lurraldeen artekoa, ideologia ezberdinen artekoa

Euskaldunen izaerari buruzko galderari erantzuna ematerakoan euskaraz gainera indar handiz agertzen den beste gai bat euskaldunen batasunaren gaia da. Euskaldunen batasunaren gaia bi eratara uler dezakegu bertsoetan ikusitakoaren arabera: batetik, lurralde ezberdinetan bizi diren euskaldunen batasunari egiten dio erreferentzia –direla hiru, lau, edota zazpi probintzi; Bidasoaren alde bateko eta besteko euskaldunak; edota kantabriatarrak- eta bestetik, ideologia ezberdinak dituzten euskaldunen arteko batasunari –Joxe Mari Lopetegik helduko dio batez ere gai honi II. Errepublika garaian-. Hala ere zail gertatuko da batzuetan zein batasunez ari diren zehazki jakitea, nahasian ere eman baitaitezke[2288].

Euskaldunen batasunaren gaia bertsolari ezberdinen ahotik jasoko dugun desio edo nahia da. Gogora dezagun, besteak beste, Xenpelarren "Gu gera iru probintzi" bertso saila[2289]. Baita Pedro Mari Otañoren lau probintziak ere, Nafarroa barne zela[2290].

Txirritak, baskokantabrismoaren ideiak jarraituz, Kantabriaren batasunaz hitz egingo du (bertsoak 1920 urte ingurukoak izan daitezke, Txirrita Gazteluenera bizitzera joan baino lehenagokoak), baita aldi berean, zazpi probintzien arteko batasunaz ere. Ikuspegi zaharra eta berria nahasian ematen ditu. Txirritak, "Bertso berriyak" jarri zituen erromatar eta euskaldunei buruz, aintzinako historiara joz. Nahiz eta historian atzera egin, ordea, nahasian tratatuko ditu lehen mendeetako gertakizun haiek eta berak XIX. eta XX. mendean bizitakoak: antzina euskaldunak erromatarrei kontra egiteko gai izan baziren, zergatik ez orain? Zergatik euskal probintziak gobernatzera "sartu" nahi duten horiei nahi dutena egiten utzi?

> *"5/Arrosa baño zabalagoko / gure zazpi probintziyak, / baratz eder bat bezela zauden / guziyak lorez jantziyak; / lau Españiya'n morroi gaudenak, / iru an ditu Frantziya'k / gizon gaizto bat dala mediyo / ondatu giñan guziyak, / beste munduan ikusten badet / eman biazkat graziyak!*
>
> *6/Persegituak izandu gera / juan da zenbat urtian, / asko zebiltzan agindu nairik / Kantabria'ko partian, / mantxa gabeko lora ederrak / estalirikan lurpian; / errespetua guardatzen zuten / Lartaun emen zan artian, / oraindik ere denbora dago / berriro saia gaitian.*

[2288] Aurrekoetan bezalaxe, ez diote bertsolari guztiek gai honi indar bera emango. Pello Errota eta Bilintxek, adibidez, ez dute aipatzen.
[2289] Ikus 3.2.7.1. puntua.
[2290] Ikus 3.2.7.2. puntua.

*(…)*

*8/Zazpi senide aita batenak / danak euskaldun garbiyak, / Tubal zarraren artaldetikan / banatutako ardiyak, / aitan aitona nungua zuten / ez dakitenak erdiyak; / utzi ditzagun bide illunak, / billa ditzagun argiyak, / beti-betiko bere izena / izan dezan Kantabriya'k.*

*(…)*

*11/Zazpi senide aita batenak / egotia emen triste / fortunatu da desgrazi batez, / bañan ez genduan uste; / maitatzen dute etorri dana / besteren gauzaren eske, / egunen batez aserre samar / ikusi biar gaituzte, / jakin dezaten bagerala gu / izena degun hainbeste"*[2291].

Bertso sail horretan bertan, azkenekoa, esanguratsua da: *"13 / Kolka txarraren azpiyan dauden / txito urrikalgarriyak, / amarretatik bost iltzen dira, / beste bostak elbarriyak: / pizti gaiztuen bildurrez beti / gora begira jarriyak, / indar gutxiko gorputzak eta / suspiriyuak berriyak; / kastigu onen mendian bizi / gera gaur euskal erriyak"*[2292]. "Euskal erriyak" esamoldeak euskal herri ezberdinei, aniztasunari egiten dio erreferentzia, baina aldi berean, elkartu beharraz mintzo da bertso hauetan, "kolka" txarrari aurre egin nahi bazaio. Kolka Espainia ote? Espainiaren kudeaketa eta zaintza kaskarra ari ote da salatzen Txirrita?

Txirritak, 1936ko bertsolari egunean, agurrean honela kantatu zuen, zazpi probintziak gogoan izanez: *"Zuberoa'n ditugu adar bi, / Laburdi irugarrena, / Bizkai, arabar, gipuzkoarrak / osatzen degula dana. / Ori munduan jakiña dago, / ez beza iñork artu pena, / nik oiek emen ikusi eta / asko poztu zait barrena"*[2293].

Pedro Mari Otañok, berriz, ipar eta hegoaldeko euskaldunen arteko batasunari egingo dio erreferentzia. Otañok "Batasuna" bertso saila idatzi zuen 1904an, *Elkar* bere liburuaren hitzaurrerako. Honela zioen bertan Bidasoaren alde banatako euskaldunei erreferentzia eginez:

*"Bidasoaren bi aldeetatik / anaiak deika elkarri / ari dirala jakindu degu, / ta bilduko dira sarri; / lengo oitura onak ostera / nai lituzkete ezarri, / ta <batasunak> bakar-bakarrik / litzake oiek ekarri.*

*Gure Euskal-lur eder maitean / bizi diraden anaiak, / elkarganatu ditu odolak / ta <denak bat> izan naiak; / Buenos Aires'en bildubak daude / euskera indartzeko gaiak; / poztu gaitezen, o euskaldunak, / badatoz egun alaiak.*

---

[2291] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 325.-326. or.
[2292] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 326. or.
[2293] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 199. or.

> *<Denak bat> egin eta saiatu / gaitezen alegiñian, / gure izkuntza eta oiturak / ipintzen beren oñian; / guztiyok egiñ gentzake zerbait / bakoitzak al dun añian, / Jaungoikua ta euskera jartzen / gauza guztiyen gañian"*[2294].

Pedro Mari Otañok berak, Donostiako Orfeoiaz ari dela, osatutako hiru bertsotatik biri honela ematen die bukaera (1906. urtekoak dira): *"euskaldun fiñen aunditasuna / iñork ez lezake kendu, / gallen giñake gauza denetan / elkar artuko bagendu"*[2295]; eta *"eziñ agindu neizukete ta / biurtutzen naiz arrenti: / euskaldun jaio giñan guztiyok / elkar maita zagun beti"*[2296]. Hauetan badirudi batasuna lotuago dagoela ezberdin pentsatzen duten euskaldunekin.

Joxe Mari Lopetegik berriz, batasunari erreferentzia egiten dionean, ideologia ezberdinen arteko euskaldunen arteko batasunari egingo dio bereziki kasu[2297]. Primo de Riveraren diktaduraren bukaeran, euskaldunen batasunaren beharra izango da aipagai hartzen duena. Lopetegiren ustez, batasun honi esker egoera hobetu egingo da. Aztertzera goazen bertso sailaren izenburua ere esanguratsua da: "Garaya da!" du izena. *La Frontera* aldizkarian argitaratua izan zen, 1930eko ekainaren 12an. "Dierri" edo nazio hitza ere erabiliko du bertan. Joxe Mari Lopetegik gogoan izango du lehenaldi hurbila, pasatako urteek zein kalte ekarri dituzten. Aurrera begira jartzeko eta gerraren ordez, batasunetik erantzuteko deia egingo du: *"Biyotza gora begiyak alai / guazen aurrera bidian, / samintasunak azaldutzera / iruki gabe gordian; / urte pisuak izan ditugu / sei edo zazpi urtian, / Lenaz gañera Dierri dana / sartu digute zorpian, / geyago emen ez da gauz onik / anaitzen geran artian"*[2298]. Bertso sail berean, gerra baino hobea dela elkar ulertzea esango digu: *"Odol isurtze gaiztorik gabe / bildurik anai guziyak, / jarri ditzagun bear dan oñean / pisuak eta neurriyak; / buruak jaso kopeta sendo / erne begi belarriyak, / kendu ditzagun gure kalteko / gauza txar lotsagarriyak, / ondore txarrik izan ez dezan / gure jatorri garbiyak"*[2299]. Alferrei ez omen zaie dena onartu behar, eta lana egiten dutenek izan behar omen dute gidaritza:

> *"Lasai samarrak bagiñan ere / ari zaizkigu estutzen, / aitonak egun batez esana / sekulan ez zait aztutzen; / Egillari bide guztiyak / dizkigute trabatutzen, / alferra berriz guria janaz / ari zaigu indartutzen, / egun gorriyak guretzat datoz / ez bagera alkartutzen.*

---

[2294] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 149. or.
[2295] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 168. or.
[2296] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 168. or.
[2297] Lehen ikusi dugun bezala, nahiz eta Bigarren Gerrate Karlista lehenengo pertsonan bizi ez, Irungo setioaren berri txikitan jasoa zuen Joxe Mari Lopetegik. Karlismoak eta fedeak batzeko baino banatzeko eta gerrarako gehiago balio izan zutela uste zuen Lopetegik.
[2298] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 89. or.
[2299] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 90. or.

> *Garaya degu mugi gaitean / bildu gaitezen batera, / gerentzat kalte izango degu / zabartzen baldin bagera; / lotsarik gabe emen ditugu / aurki atetik atera / geren izerdi neketsuakin / egin deguna jatera, / ditugun danak alferrarentzat / egille danak lurpera"*[2300].

Joxe Mari Lopetegik batasunari erreferentzia maiz egingo dio. Bere omenaldian kantatu zituen bertsoetan, *Irun Republicano* aldizkarian 1931ko abenduaren 19an argitaratuak, azken bertsoan honela zioen: *"Gerora ere etorko dira / oraindik egun gozuak, / bildu gaitean Dierri danak / Erriyak eta auzuak; / lagun zayogun danok alkarri / zabaldurikan besuak, / ekusitzeko Euskal Erri maitagarri ok / bear dan mallera jasuak"* [2301]. Kontuan izan pluralean esaten duela, "Euskal Herri maitagarriok" hartzen ditu kontuan, baina elkarri bildurik daudenak.

Euskara eta euskaldunen arteko batasuna –lurralde ezberdinak, ideologia ezberdinak dituztenak- ikusi ditugu hainbat bertsolariren lanetan identitatearen euskarri. Goazen euskaldun izaerari edukia ematen dion hurrengo elementua aztertzera: paisaia.

### 4.2.3.3. "Euskal Herria"ren irudikapena: paisaiaren garrantzia

Identitate kolektiboaz dihardugun atal honetan, bertsoen azterketatik eratorri dugun beste alderdi bati egin behar diogu tokia. "Besteak" eta "gu" kategoriak forma hartzen nola joan diren ikusi dugu eta "gu"aren eraikuntzan euskarak eta euskaldunen arteko batasunak hartu duten tokia. Orain, "gu"aren eraikuntzan Euskal Herria irudikatzeko paisaia nola gorpuzten joan zen ikusiko dugu. Pedro Mari Otaño izango da batez ere aztertutako bertsolarien artean lan honi emango zaiona. Nolabait esateko, euskal paisaia edukiz beteko duena, denboren joana gaindituz, guganaino iritsi dena[2302].

Orain artean ikusi dugun bezala, progresiboki eratuko den eraikuntza izango da hau ere Pedro Mari Otañorengan, nahiz eta hasierako bertsoetan dagoeneko presente izan. Pedro Mari Otañok Ameriketara hirutan bidaiatu eta bertan bizi behar izanak, hau da, bere bizitzan lehendabiziko pertsonan herritik urrun bizi beharra esperimentatu behar izanak, bere buruan utzitako lurrak irudikatzera behartu zuen.

---

[2300] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 90. or.
[2301] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 152. or.
[2302] Gainerako bertsolariek ez diote gai honi helduko. Zeharbidez, Joxe Mari Lopetegik, baina oso neurri txikian.

Ikus dezagun Otañok "lurra"ri ematen dion esanahia eta honekiko harremana nola ezaugarritzen duen osaba Jose Bernardori 1889an bidalitako bertsoetan, baita Donostia nola definitzen duen ere[2303]. Bertso hauetako batzuk lehenago ere aipatuak ditugu Amerikak emigranteengan duen eragina azaltzeko asmoz, baina berriro ere gure lanera ekartzen ditugu paisaiari dagokion gaia dela eta duten garrantziagatik. Ikus dezagun zein elementu diren Pedro Mari Otañok aipatzen dituenak: mendiak, zelaiak, ibaiak, harkaitzak eta baita sasiak ere.

> *"Lenago anbat aiñtzat artzen ez / ginduzen gauza guziyak, / aiñbesteraño edertzen ditu / oraiñ eziñ ikusiyak; / Euskal-erriko mendi ta zelai / ibai, arkaitz ta sasiyak, / beñere eziñ aztu litzake / aien tartian aziyak.*
>
> *Gu geienian gabiltza emen / esna ere ametsetan, / beti pentsatzen berongan eta / Euskal –erriko gauzetan. / Askok diyonez, bizi gerade / txit toki aberatsetan, / bañan ez dago Donostiyarik / gure lurrian bestetan"*[2304].

Eta aurreraxeago, lurrarekiko maitasuna eta honekiko identifikazioaren garrantzia azpimarratuz:

> *"Ameriketan ikusten ditut / zenbait euskaldun <andare>, / bizi diranak beren lurrari / aitormenik eman gabe... / Bañan ez dute ezagutzen ta / oiek barkatubak daure, / Nik Donostiya eskatuko det / Paraisora joanta ere.*
>
> *Euskal lurreko lore-baratza / zeruko intzez bustiya, / beste izar ta argi guztiyak / itzaltzeko eguzkiya; / zure berdiñik iñun ez dezun / biyotzeko Donostiya, / nork du mingaña zu goititzeko / merezi dezun guztiya?"*[2305].

Donostia deskribatu baino gehiago, goratu egiten du hasierako bertso hauetan. Intzez bustitako lorategi edo jardin argitsua da Donostia Pedro Mari Otañorentzat, Ameriketan dagoela, Euskal Herrira bueltatzerakoan amets duen bizitokia.

Pedro Mari Otañok naturaz hitz egiten duenean, natura hutsa baino gehiago ikusten du, paisaia egiten du eta esanahi politikoz ere janzten du. Hernaniko Santa Barbara mendixkaz ari dela (1895ean argitaratua, baina eskuizkribua lehenagokoa), lehenengo bertso batean ezaugarri fisikoak deskribatuko ditu –oraingoan ere idealizatuz-, baina bigarrenean, berriz, esanahi politikoa emango dio, babes izango da Santa Barbara mendixka Hernani herriak kontra dituenen aurrean:

---

[2303] Campionek 1910. urtean idatzitako *La Bella Eason* deskribatzen duen Donostia Pedro Mari Otañok deskribatzen duenarekin konparatzea ariketa egokia litzateke: batak gaitzesten duena, besteak nola goraipatzen duen ikusiko genuke.

[2304] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 187. or.

[2305] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 187.-188. or.

> *"Inguruan daruzkan / menditxuak berriz, / aiñ politikan ez det / nik ikusi begiz; / betiak gaztañez ta / sagar muxu gorriz, / denetan politena / tontortuba arriz, / santa baten izena / dauka edergarriz.*
>
> *Begira zaiozute / Santa Barbarari, / ardiyak zaitzen dagon / artzaia diruri, / beti ernai <otsorik> / ote dan agiri; / ez diyo txarkeririk / egiñ nai iñori, / baizik lagundu bere / erri maitiari"*[2306].

1896ko "Aitona gizagaisoa" izenburua duten bertsoetan berriz, paisaiaren deskribapena egiten du, dagoeneko idealizazioaren bideari atea irekiz. Oraingo honetan zuhaitzei eta basoari erreferentzia esplizitua egingo die eta baita bertan bizi diren txoriei ere: *"Udaberriko usai gozozko / illunabartxo batian, / Donostiyatik urruti gabe, / uri ontako partian, / baserritikan onontz datorren / bidetxigor politian, / sagar ta gaztañ, aritz, elorri, / urritz ta lore tartian, / azpi aldian errekatxua / marmariyaz ostopian, / eguzkiaren azken dizdizak / aruntzko mendi tentian, / kuku ta beste txorien kantak / baso guztiak betian, / kabi batian lau txorikume / txillar tarteko otian, / gauz abei denai begiratuaz / emen, gure lur maitian, / <iñon ez dago onelakorik> / esanaz nere artian / netorren, eta alako batez, / jiratxo bat ematian, / aitonatxo bat arkitu nuben / eserleku arlotian, / berekin zeukan penaren kargak / lurrera iya botian"*[2307].

1899an, Argentinako azken egonaldian osatuak ditu bertso hauek. Mendiak eta zuhaitzak hartuko ditu berriz hizketagai eta oroimengai:

> *"Mendi gurtua, urruti zaute, / ai, au pena aundi eta lotsa! / Ez dakit nola zuek utzita / etorri nintzan ni onontza.*
>
> *Sagasti, gaztaiñ, aritz, batzarre / ta kanpai alaiaren otsa, / nola sendatu aldegitean / lertu zitzaidan, ai! biotza?*
>
> *Gaztea negon ta beregana / deitzen ziran itsasoak; / utzi nituen aita ta ama, / zartutako gurasoak"*[2308].

Kuriosoa da Argentinara bigarrenez doanean idazten dituela bertsoak, baina lehenengoan egin zuen bidaiaz ari da gogoeta egiten.

Pedro Mari Otañok, *Oroimenak* eskuizkribuan Urola ibaiari ere egingo dizkio bertsoak. Bertan ibaia pertsonifikatu eta inguruko paisaia agertuko du, baita ibaiari eta paisaiari dion maitasuna ere. Pertsonekin zituen harremanak naturarekiko itxuraldatu ote zituen Pedro Mari Otañok?

---

[2306] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 399. or.
[2307] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 446. or.
[2308] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 14. or.

Lehenengo bi bertsoetan, dei gisakoa egiten du: bere sentimentuei, langile lagunei, paisaiako elementuei. Ameriketan dela, badirudi euskal lurreko berri bat eman nahi diela:

> *"Nere lagun, pakezko / bakardadeak, / estutasun da neke / ta naigabeak, / iduripen gozuak, / izen …geak, / eta gizon langille, / anai nereak, / goi eta beak…*
>
> *Laño eta odeiak, / ur eta suak, / erribera, muño ta / mendi altsuak, / iturri, ibai, itsaso*[2309] */ ta errekatxuak, / goizeko intzak eta / aize maltsuak, / larre dontsuak.*
>
> *Entzun zaizkidatzute, / lagun gozuak, / euskaldun baten kantzo / maitatitsuak"*[2310].

Gero, Urola ibaiaz hizketan hasiko da, bere sorreraz, pozik korrika nola jaisten den ibarrean behera: *"Urolatxo zer txatarra sortzen / dan Aitzgorriren kolkuan! / Pozez, lasterka, koskortzen dator / Zumarragaren albuan; / Gero Azkoiti eta Azpeitiya / igaro ta beeraguan, / aundi ta eder oieratzen da / Zumaiako itsasuan"*[2311].

Paisaian, hosto erorkorreko zuhaitzei garrantzia emango die batez ere: *"Aitzgorritikan Zumaiaraño / darama bide guziya, / arrigarrizko mendi ta basoz / bi aldetatik josiya; / gerezi, sagar, intxaur da gaztañ, / aritz ta pagoz jantziya, / masusta gozoz apaindurikan / urritz tarteko sasiya"*[2312].

Ondorengoan, nekazariak ere aipatuko ditu, baina horretaz gainera, Urola eta inguruko lurrarekiko maitasuna aipatuko ditu batez ere:

> *"Mendi tontorren egal biguñak / luberriturikan denak, / nekazarien beso senduak / gogoz landuta daudenak; / sortzen dituzte arto, gari ta / egoskaririk onenak, / argatik beti maitatzen ditu / bein ikusten ditubenak.*
>
> *Egokitu zait leku askotan / begiratzea munduba, / ta ikusi det ibaiz, iturriz, / basoz, lorez apainduba; / bañan neretzat ederrena da / Urolaren inguruba, / an jaio nintzan eta an dauzkat / biyotza eta buruba"*[2313].

1900. urtean, Pedro Mari Otañoren "Nere Kabiya" bertsoak, baztandar bati eginak, aurkituko ditugu. Hemen ere, lekuarekiko maitasuna agertuko du: *"Lenbiziko arnasa / artu zan lekura, / zeñek eztu izango / joateko ardura? / Txoriyak kabiyari / nai diyon modura, / nik maitatzen det beti / txoko eder ura"*[2314].

---

[2309] Behin bederen aipatzen du itsasoa Otañok. Aurreraxeago, bigarrena ere ikusiko dugu.
[2310] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 16. or.
[2311] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 16. or.
[2312] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 17. or.
[2313] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 17. or.
[2314] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 32. or.

Eta bukatzeko, Otañok, paisaia ere hartuko du hizketagai, "Lora" operan, 1907an: *"Euskal lurreko mendi alaiak / ta zeru argiz betea, / zer triste zauten ezkutatzean / nere Maritxu maitea!"*[2315]. Opera horretan bertan ikus dezakegu ontzian doazen euskaldunek agurra nola egiten duten: *"Agur, Euskal-erria, / ta zure almenak, / asnasa ta argiya / eman zigutenak; / agur, txoko gozo ta / mendi alaienak, / baso, arkaitz, iturri, / zuaizti lerdenak; / agur, guregatikan / triste zaudetenak, / agur, gure biyotzen / maitagarrienak, / agur, mundu ontako / gauzarik onenak; / Jainkuak nai dun arte / agur, agur, denak"*[2316].

Nabarmen ageri da Pedro Mari Otañok behin eta berriz aipatutako paisaia Euskal Herri hezeari dagokiona dela, bere haurtzaro eta gaztaroan gehienbat ikusi eta ezagutu zuena.

Joxe Mari Lopetegiren bertsoetan, erreferentzia bakarra aurkitu dugu gai honi buruz. Epel-Etxeberri jantokiaz ari dela, ingurua deskribatuko du [2317]: *"Begiraturik lau aldetara / ain gauza maitagarriyak, / Ipar aldetik zelai zabalak, / Ego aldetik mendiyak, / Eguzkiya sortzen dan aldetik / bide zabal da berriyak, / sarrera aldetik irriyo ederra, / jostaketan amurriyak, / uraiek zaitzen irriyo ingurun / daudezen zuatz aundiyak"*[2318]. Kasu honetan, paisaiaz gain bideak ere aipatzen ditu Lopetegik, baina ez ditu kontrajartzen. Gizakiak eragindako aldaketak eta paisaia naturala ez daude kontrajarriak. Txoriak ere gogoan izango ditu Lopetegik:*"Inguratu nintzayonian / zugatz edertxo bateri, / zozokumiak ziyo-ziyo / deitzen ziyoten amari, / pipirripika erresiñola / zuatz gañean kantari, / salto ta salto eltxuak biltzen / amurraitxuak igeri, / zuriak dira alaitasun ok, / zu zera Epel-Etxeberri"*[2319].

### 4.2.3.4.Denboraren joana: Historiaren agerpena, mitoaren presentzia

Aztertutako sei bertsolarien artean, ez diote guztiek toki bera edo garrantzi bera emango historiari. Egia esan, modernitatearekin agertzen den kezka bat dela esango genuke, nortasunaren gaiari lotuta.

Historiaren baitan, hiru maila bereiz ditzakegu: batetik, gertakizunen kronika –*Res gestae* deitua-; bestetik, narrazio edo kontakizun historikoa –*Rerum gestarum* deitua-; eta, bukatzeko, eguneroko bizitzaren historia –ohiturei lotuagoa-. Guk

[2315] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 206. or.
[2316] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 289. or.
[2317] 1931ko uztailaren 11n *Irun Republican*on argitaratutako bertsoak dira.
[2318] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 110. or.
[2319] ELOSEGI, J. (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 111. or.

aztertu ditugun bertsolariek erreparatzekotan, bigarren eta hirugarrenari erreparatu diote batez ere. P. M. Otañok –baita Txirritak ere- egiten duten Historiaren kontakizuna berezia da. Dituen ezaugarrien artean atenporalitatea, esentziaren bila joatea, eta atopikoa eta akritikoa izatea daude. Modu honetan betikotasuna azpimarratu nahi dute, identitatearen ezaugarri gisa. Gertakizunen kronika egiten dutenean, hurbileko gertakizunen berri ematen dute –uholde, pertsonaia "txiki" ezagunen berri eman, etab.-.Txirritak egingo du hau batez ere. Garaiko egunkarietan aurki genitzakeen berriak bertsotan jartzen ditu. Pedro Mari Otañok, berriz, nazioarteko historiako pasarteren bat gogoratuko digu bertsotan. Ohiturak, azkenik, Otañok eta Lopetegik, azken honek batez ere, aipatuko dituzte.

Historiaz mintzatzean presentzia gehien duten gertakizunak aintzinako garaiko euskaldun eta erromatarren arteko ustezko borrokenak dira –atenporalitatea aldarrikatuz[2320] - eta pertsonaien artean, berriz, aro modernoko gipuzkoar itsasgizonak izango dira nabarmenenak.

Pedro Maria Otañok kantagai hartzen duen pasarte "historiko"etako bat izango da euskaldun eta erromatarren arteko borrokei dagokiena. Argitu beharra daukagu ez zela horrelako borrokarik benetan egon; Baskokantabrismoaren baitan, kantabro eta erromatarren artean K.a. 29-19. urteetan izandako borroka haiek euskaldun eta erromatarren arteko borroka gisa kontatzen dituztela Ernioko parajeetan. Horrelakorik gertatu ez bazen ere, historiografian berandu arte luzatutako istorioa izan zen hau. Pedro Mari Otañok gai honen inguruko bertso saila osatuko du, "Aitorren semeak eta Erroma" izenburupean. Ez dago oso garbi argitalpen urtea zein izan zen[2321]. Herriaren erromanizazio eskas eta indar gutxikoaren frogatzat, euskaldunek erromatarrak Ernion nola garaitu zituzten kontatzen du bertan: *"Erromatarrak txit ausardiyan / sartu ziraden Euskalerriyan; / indarrarekin, arrazoi gabe, / egiñ nai zuten jaun eta jabe. / Asko ziraden erromatarrak, / eta euskaldunak gutxi bakarrak, / bañan Erniyo an dago zutik / len eta geroztik"*[2322]. Kontakizun hau, historiara jotzea, ez da pasatakoari begira geratzeko, bestela baizik, orainaldirako jarraibideak izateko[2323]. Garbi adieraziko du hau Otañok: *"Lekobide ta Lartaun / ta beren lagunak, / guk geren izatea / zor diotegunak, / dira espilllutzat*

[2320] "In illo tempore" , lehenaldi esentzial baten bila. Era honetako kontakizunekin zentzua eta esanahia ematen duen lehenaldi bat "eratzen" da. Ikus Gomá Lanzónen aipua identitateaz hitz egin dugunean.

[2321] A. Zavalak 1906 eta 1910eko bertso sailen artean argitaratu zuen bertso sail hau Otañori Auspoaren sail nagusian eskainitako bigarren liburuan.

[2322] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 187. or.

[2323] V. Araquistainek bihotzak astintzen dituen literatura nahiagoko du hotzagoa den Historia baino. Venancio Araquistain, 1828an Deban jaio eta 1906an Tolosan hil zen.

*artu / bear ditugunak, / euskaldunen odola / zañetan degunak"*[2324]. Pedro Mari Otañok, orainaldian hitz eginez, Erniora doazen euskaldunak gutxitu egin direla esaten digu eta honen arrazoitzat: *"Animan sartzen diran lar latzak, / biotza jotzen duten arantzak"*[2325]. Eta lar horiek nola ugaritu ziren? *"2ºPatu gaiztoko ereintzalleak / nastu zituzten ango bideak / 1ºOraiñ badakit: alkartasuna / da euskaldunai falta zaiguna / 2º Esku zitalak azi gaiztoa / banatu zuten Euskalerriyan; / argatik oraiñ sasiyak daude / loreak baizik etzan tokiyan"*[2326].

Pedro Mari Otañok 1900. urtean idatzi zuen *Artzai-mutila* operan ere Ernio mendian kokatuko ditu hainbat eskena, leku honi garrantzi berezia emanez.

Txirritak behin baino gehiagotan kantatuko zion gai honi. Oiartzungo euskal jaietan, 1897an, honela kantatu zuen Lartauni buruz: *"Ai lenago're Oiartzun'dikan / atera izan da gizona, / gaur ni nagoen parajetikan / urrutikoa etzana, / umilla eta korajetsua, / leiala eta zuzena, / lizar-makilla aundi batekin / Erroma'n bertan izana, / guri eliz au siñaletako / emen eginda il zana"*[2327]. Euskaldun eta erromatarren arteko borrokak ditu hizketagai, baita ustez italiar penintsulan izan zirenak ere, eta Oiartzungo elizaren eraikuntzarekin ere lotzen du pertsonaia hau.

Aurrerago hamahiru bertsoko bertso saila ere eskaini zion Txirritak "gertakizun" honi. Gazteluenera bizitzera joan baino lehen idatzi zituen hauek. Txirritak denbora eta aldiak nahasten ditu: orain bi mila urte "gertatutako" hartaz hitz egiteko, zazpi probintziak hartzen ditu gogoan. Hona: *"Orain bi milla urte inguru / bezela ziran asiyak / erromatarrak berendu nairik / gure zazpi probintziyak; / garaia artako abarkadunak / ziran jeniyoz biziyak, / baziran penaz amildu eta / beren ezurrak autsiyak, / lastimosuak izango ziran / aien orduko antsiyak!"*[2328]. Garbi dago Txirritari bere garaian bizitzen ari direna axola zaiola gehienbat, eta nahiz eta bi mila urte aurreragoko gaiez hizketan aritu, hurbileko testuingurua duela gogoan. Erromatarren garaiko Lekobide eta konpañia, fueroak defenditzen jarriko ditu. Erreparatu belaunaldi ezberdinak nola lotzen dituen: *"Gure izeben amen amonen / osaben aiten aitonak, / emen fueruak defenditutzen / ibillitako gizonak; / bertan*

[2324] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 187. or.
[2325] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 188. or.
[2326] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 188. or. 1º eta 2º zenbaki horiek horrela adierazten ditu Pedro Maria Otañok. Elkarrizketa batean pertsonaia ezberdinei egiten die erreferentzia.
[2327] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 74. or.
[2328] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 324. or.

*batalla irabazita / gero Erroma'ra joanak, / Octaviano'k galdu zituen / berebiziko lagunak; / aundi gaiztuak diran tokiyan / pagatzen du txiki onak"*[2329].

Txirritak, Errenterin 1936ko martxoaren 22an egin zioten omenaldian, orduan ere erromatarren gain izandako garaipena du gogoan: *"Emen geienak bazenekiten / ni nola neguen eri, / orregatikan bastoi eder au / eman dirazute neri; / au ikusi nai duenak orain / ondo beiratu berari, / erromatarrak bentzitutako / lizar makilla diruri"*[2330].

Zein beste pertsonaia historiko aipatuko dituzte bertsolariek? Pedro Mari Otañok, Kubako gerraz ari dela, euskaldunen jatorria goraipatuz Gipuzkoako hainbat itsasgizon aipatuko ditu: *"Tubal'en kastak ezin kontaala / oroimen badadukazki, / mundu guztiak aitortutzen du, / ez da esatea aski: / Okendo, Lezo ta Idiakez, / Txurruka eta Legazpi, / ta beste askok duten omenik / etzuten izango noski, / beren ekintza mirarietan / akindu baziran gaizki"*[2331].

Esanguratsua da azpimarratzen dituen pertsonaia historikoak itsasgizonak direla, paisaiari dagokionez sortu eta azpimarratu zuen ingurua barnealde menditsuari zegokiona izanik[2332].

1897an berriz, Legazpiri idatzi zizkion bertsoak Pedro Mari Otañok. Zumarragan Legazpiri eskultura bat jarri ziotenean eta hau inauguratu zutenerako prestatu zituen. Legazpiren aldeko ereserki baterako letra gisa hautatuak izan ziren Pedro Mari Otañorenak besteren artean.

Lehenengo bertsoan, eskulturari egiten dio erreferentzia: *"Zure omena baño lenago / desegingo da brontzea, / opa zaiguzu talluntz eder au / maitaro agurtutzea. / Agur, Legazpi, zuk nai zenduen / Urdanetak laguntzea, / guztiyon onran elkarturikan / ezpata ta gurutzea"*[2333].

---

[2329] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 325. or.
[2330] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 209. or.
[2331] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 460. or. Txirritak ere egingo dio Tubali erreferentzia.
[2332] Euskaldunak betidanikoak, atenporalak izateaz gainera, neurri batean atopikoak ere badira, hau da, ez daude toki zehatz bati lotuak, Pedro Mari Otañok paisaia "orokorrago" bat eratu zuen neurrian.
[2333] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 489. or. Erlijio eta politikaren arteko harremanari egiten dio erreferentzia.

Bigarrenean, beste itsasgizon batzuek ere gogoan hartuko ditu Otañok: *"Kolon ta Magallanes, / Elkano altsuak, / ta beste milla izen / kondairan jasuak, / illak eta biziyak, / lur ta itsasuak, / alaitzen ditu gaurko / egun doatsuak"*[2334].

Eta azkenik: *"Begiratzen diyote / beren lagunari, / Zumarragako seme / ospatsu danari, / Filipinak beretu / zizkana <amari>, / euskaldunen onra dan / Legazpi jaunari"*[2335]. 1897ko bertsoez ari garelarik, "ama" horrek Espainiari egingo ote dio erreferentzia? Segidan, ordea, "euskaldunei" ere egingo die aipamena.

1904. urtean, berriz, Andres Urdanetari egin zioten eskulturaren inauguraziorako prestatu zituen Otañok bertsoak: *"Seme jatorrak, o, Urdaneta, / egun pozgarri onetan, / makurtzen gera zure talluntza / goitituaren oñetan; / omen aundiko gizonak beti / izan dira euskaldunetan: / Elkano, Legazpi ta beste asko, / zu bereziya denetan"*[2336].

Pedro Mari Otañok Urdanetaren kasuan haren elizgizon izaera azpimarratuko du: *"Mejikotik joan ziñan / Filipiñetara, / itxumenian zeuden / baztar aietara; / gurutzearen argiz / zuk fedea para, / ta illunpetik irten / ziran argitara"*[2337].

Eta bukatzeko: *"Urdanetako Andres / jakintsu aundiyak, / Billafrankako seme / aiñ miragarriyak, / ta zure lagun portitz / Legazpi argiyak, / bedeinka gaitzatzute / zerutikan biyak"*[2338].

Txirritak, berriz, Juan de Urbieta hernaniarra aipatuko du behin baino gehiagotan. 1906an foruei buruz bertsoak egiten ari dela, pasarte historiko bat jasoko du, Juan de Urbieta hernaniarrak frantziar erregea preso hartu zuenekoa, Paviako borrokan: *"Abilan barrena zijualarik / Frantziya'tikan pasuan, / usu eder bat deskuidatu zan / Urbieta'ren lazuan; / golpe gaiztorik etziyon eman / ta artu zuban besuan, / maitatu eta festak egiñaz / aiñ modu kuriosuan, / lau probentziyak kintatik libre / Don Juanek eskatu zuan"*[2339].

Txirritak "Mundu ontako bizimodua" izeneko bertso sailean ere gogoan izango du Juan de Urbieta: *"Arri-urdiñetako semia, / ai orañ bizi baziña, / ill da gero're maite zaitugu / munduan iñor ez aña; / orañ berroi ta amasei urte / sortu ziguten kuziña; /*

[2334] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 489. or.
[2335] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 489. or.
[2336] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 118. or.
[2337] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 118. or.
[2338] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 118. or.
[2339] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 433. or.

*eskritura bat Ernani'n dago / egiyazkua ta ziña, / ori da Juan de Urbieta'ren / Pavia'ko azaña"*[2340].

Joxe Mari Lopetegik ere pertsonaia historiko batzuei erreferentzia egiten dienean, itsasgizonak ditu gogoan. Foruak eta errepublika konparatzen dituen bertso sail batean, "Berari lagun zayogun" izenburua duena (*Irun Republicano,* 1931-IX-12an argitaratua), Lopetegik esango digu aitonak nola kontatzen zion pertsonaia haien berri, ahozko transmisioarekin lotuz hauen memoria: *"Oroitutzen naiz, txikiya nitzan, / nola esan ziran aitonak, / Euskal Erriyak gure denboran / izan dituen gizonak, / legorrerako pizkorrak eta / itsas barrenian onak, / Txurruka, Okendo eta Elkano / ta beste geyago jaunak, / txarra ez zuen bear oki sudurra / biyartu bear ziyonak"*[2341].

Joxe Mari Lopetegik, Mutrikuko Rafael Galarragari buruz hizketan ari dela, hau goratuz, mutrikuarra zen Txurrukarekin konparatuko du. 1931ko irailaren 29an Mutrikun "Centro Republicano"a ireki zutenean bertan ezkerraren aitzindari izan zen Rafael Galarragari kantatuko dio: *"Rafael Galarraga zerade / seme guztiz maitatiya, / urtez gaztea izanagatik / gizon jakintsu aundiya, / Motrikoarrak gaur badezute / emen Txurruka berriya / bear dan oñera goit altxatzeko / berau sortu zan erriya"*[2342]. Hala ere, bi pertsonaiak ez dira berdinak: Txurruka gerrazalea bazen, Usabiaga, berriz, bakezalea izango da. Arma ezberdinak erabiliko dituzte batak eta besteak: *"Ogeita lau bat urte daduzka, / onek darauka arrazoya, / gazte dalarik beregan dauka / gizontasunaren goya, / Txurruka zanak maita zituen / urontziya ta kañoya, / gaur Galarragak maitiago du / zuzenbidez arrazoya"*[2343].

Pertsonaia historikoen aipamenari dagokionez, beraz, ikusi dugu nahiko bat datozela Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegi. Honetatik kanpora geratzen dira, berriz, Pello Errota, Xenpelar eta Bilintx. Honen arrazoia, Xenpelarren eta Bilintxen kasuan behintzat, kronologikoa ere izan daiteke. Gipuzkoar erakundeak pertsonaia hauek erreibindikatzen noiz hasi ziren ikusi beharko genuke eta honekin lotu Otañok, Txirritak eta Lopetegik agertu zuten interesa.

Euskal historia alde batera utziz, P. M. Otaño "errepublikarrak" 1893an frantses Errepublikari jarritako bertsoak ere aipatu behar ditugu. Nazioarteko historiari dagokionez, 1893an, Pedro Mari Otañok, bertsoak jarri zizkion Frantzian herriak

[2340] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 461. or.
[2341] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 135. or.
[2342] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 146. or.
[2343] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 146. or.

Bastilla hartu zueneko gertakizunari, bere 104. urteurrenean. Hona zenbait bertso. Interesgarria gertatzen zaigu "herriari" buruz ematen duen ikuspegia, eta hau historiara nola ekartzen duen:

> *"Bastilla deitzen zitzaion etxe / tzar bat Parixen gaiñduba, / agintariyen josta-lekuba, / mendekuen infernuba, / jende <txe> dena oiñperatubaz / luzaruan egonduba; / gaur eun ta lau urte, altxarik / aserre erri miñduba, / onen indarrez izan zan ura / purrukatu ta kenduba.*
>
> *Erriya ala ikusitzian, / agintariyak atiak / itxi zituzten, bañan aitubak / zeuden aien agintiak; / Parixko seme alkar maitiak, / samiñtasunez betiak, / autsi zituzten beren anaiak / lotzeko zeuden katiak, / eta len goien zeudenak izan / ziran azpira botiak.*
>
> *Nola itsaso aserretua / iñoiz biurtzen dan apar, / gisa berian altxatu ziran / aiñbeste milla atzapar; / txikiyak laxter aunditu ziran / artu zutenian alkar, / aundiyak berriz –eta nola ez!- / txikitu ziraden azkar; / Frantziyak daukan edertasuna / egun santu arek dakar"*[2344].

Sarreran esan bezala, kronika gisako historia ere egin zuen batez ere Txirritak. Garaikideak dituen gertakizun eta pertsonei buruz bertsoak ipiniko ditu, nolabait, "historiko" bihurtuz hauek ere.

Gertakizun ezberdinei bertsoak jarriko dizkie Txirritak, hauek historiara pasa daitezen lagunduz, hauei buruzko kronikak idatzita utziz. 1912an, adibidez, Kantauri itsasoan izan zen ekaitz handi bati bertsoak jarriko dizkio, Fermin Imazekin batera. Gertakizun baten kronika gisa jaso zituen han gertatuak, egunkari bat bailitzan. Hona lehenengo bertsoa: *"Nire biyotz gaixua / eskaka ari zat / bertso bi ipintzeko, / baldin baderitzat. / Abuztuben amabiyan / sortu zan ekaitzak, / egiñ dizkigu oso / deskalabru gaitzak, / makiña bat persona / ondatu du beintzat"*[2345]. Bigarren bertsoan, zehaztasun gehiagorekin dator Txirrita: *"Penak esplikatzera / orain naiz abiyan, / motibua dan gisan / mintzatu nadiyan. / Milla bedetzireun / eta amabiyan, / gañera Abuztuko / illaren erdiyan, / desgrazi (y) au pasa da / Kosta Kantabriyan"*[2346]. Ehun lagunetik gora izan ziren hildakoak: *"Eun da berrogei ta iru / omen dira danak, / arrantzalietatik / ondatu diranak, / gure Jaungoikuari / kontuba emanak. / Guk egin biar degu, / bizirik geranak, / aietzaz erregutu / biyotza dubenak"*[2347]. Ondoren bertso multzo bat eskaini zion gurutze formadun egur batzuei helduta ekaitza gainditu zuen gizon bati, Daniel Eskurtzari.

---

[2344] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, I,* op. cit., 376.-377. or.
[2345] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 290. or.
[2346] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 290. or.
[2347] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 291. or.

1913an, berriz, Txirritak Baztanen izan ziren uholde batzuei ere bertsoak jarri zizkien. Hona lehenengo bertsoa, aurkezpen gisakoa, baina atentzioa deitzeko asmoarekin osatua eta bigarrena, berriz, aurkezpena zehazten duena:

> *"Deklaratzera nua kaso bat / Valle Baztan'en pasia, / egun arretan bistan giñenak / akordatzeko klasia; / elizan zauden santuak urak / eraman ditu sasia, / mundu untako gaiztakeriaz / Jainkua dago asia, / azken juiziyo gañian degu, / desafioka asi'a.*
>
> *Au zan milla ta bederatzi egun / amairugarren urtian, / desgrazi ori gertatu zaiku / Valle Baztan'go partian; / mendi, elizak eta etxiak / bota zituen golpian, / len bistan zauden terreno asko / tapatu ziran ur-pian, / erakutsi du nai balin badu / zer egingo ligokian"*[2348].

Ondorengo bertsoetan uholdeek egindako txikizioak kontatuko ditu Txirritak: elizan zein puskaketa egin zituen, santu eta santak nola uretan elizatik atera ziren, zubiak nola bota zituen, pertsonak eta ganadua ere urak nola eraman zituen, zerrategian zer eta nola hondatu zuen, etab.

Txirritak badu "Kaliporniya'n zer pasatu dan…" bertso saila ere, nahiz eta sail honetako bi bertso besterik ez diren aurkitu. Kalifornian sumendi bat esnatzean gertatutakoak kontatzen ditu[2349] bertso hauetan.

Eta bukatzeko, Txirritak 1926an Paulino Uzkudun boxealariari jarri zizkion bertsoak aipatu behar. Lehenengo bertsoan entzule-irakurlearen atentzioa erakartzen saiatuko da eta bigarrenean egingo du sarrera zehatzagoa: *"Gaude milla ta bederatzi eun da / ogei eta sei urtian, / bertso berriak jartzera nua / euskera eder batian, / zurrut egiñaz kanta ditzagun / kantabritarren tartian: / euskaldun batek zer egin duben / Barzelona'ko partian"*[2350]. Eta ondoren: *"Gipuzkoa'ko Errezill'ena, / Gurutze'n jaio ta aziya, / obekiyago jakitiatik, / Paulino Uzkudun graziya; / oraiñ iru urte San Juanetan / zan boziuan* (sic) *asiya, / garai onetan bere mendian / dauka Europa guziya"*[2351].

Zer da Uzkudunen pertsonan Txirritak azpimarratuko duena? Bere indarra. Indarrari esker Europa menderatu izana goratuko dio Txirritak: *"Toki txarrera ote zijuan / esaten zuten batzuak, / bañon koajez eman zituen / alde artara pausuak; / indarrarekin gelditu ditu / kanpeonaren besuak, / Donostia'tik sumatzen ziran / aien*

---

[2348] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 296. or.
[2349] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 323. or.
[2350] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 358. or.
[2351] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 358. or.

*ukabilkazuak"*[2352]. Bertso sailaren bukaeran, Amerika ere konkistatzeko eskatuko dio gainera, euskaldunen "izenean" edo: *"Gora Paulino erreziltarra, / gu zure fabore gera, / oraiñ artian bezela nai det / segitutzia aurrera; / kontrariyorik emen ez eta / zuaz Amerik'aldera / kanpeon zaude Europa'n eta / ekatzu ango bandera"*[2353].

Hona nola deskribatzen duen Uzkudun hamargarren bertsoan: *"Kontrariyuak izanagatik / garratzak edo torpiak, / aiek guziyak bentzitu ditu, / Paulino, zure golpiak; / zazpi arrua ta erdi pisua, / ogei ta zazpi urtiak, / indar asko ta gerriyak biguñ, / esku-muturrak fuertiak"*[2354].

Txirritak Uzkudun erromatarren garaiko euskaldunekin konparatuko du: honek duen indarra haiek ere ba omen zuten Ernion erromatarren kontra izandako borrokan. Ikus: *"Orren antzeko gizon asko zan / lengo gerrero zarretan, / errespetua ipiñi zuten / aiek erromatarretan; / desapiyua pagatzen zuten / gelditu gabe zorretan, / indar aundiko belarrak dira / Ernio-mendi orretan"*[2355]. Txirritari ongi datorkio, gainera, paralelismoa egiteko, Uzkudunek italiar bati kendu omen baitzion txapeldun izatea: *"Ernio-mendik egiten diyo / Italiya'ri itzala, / oraiñ Uzkudun dago kanpeon, / lenago Spalla bezela"*[2356]. Ideia berean sakonduko du hurrengo bertsoan ere: *"len bi batalla galdu zituen / ta oraiñ berriz bestia, / italitarrak euskaldunakiñ / ondo konpontzen eztia"*[2357].

Ikusi ditugu identitateari edukia emateko Historia esentzial, atopiko, atenporal eta akritikoa eta hurbileko gertakizunekin egindako kronika erako Historia, kazetaritzatik hurbilago dagoena. Eman dezagun azterketa honetako azken pausoa.

### 4.2.3.5.Ohiturei erreferentzia

Aldaketak bizitzen ari den mundu hartan azpimarratu nahi genukeen beste fenomeno bat ohituren jaiotza da[2358]. Zer esan nahi dugu honekin? Aztertutako hainbat bertsolarirengan "ohitura" hitza eta kontzeptua aurkituko dugu, ez hainbeste modernizazioak aldaketa gutxien eragindako bertsolariengan, aldaketetatik hurbilen direnen artean baizik. Ohiturak, egunerokotasunean errepikatzen diren ekintzak, identitatearen euskarri izango dira baita ere, herri

[2352] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 358. or.
[2353] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 359. or.
[2354] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 359. or.
[2355] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 358. or.
[2356] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 359. or.
[2357] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 359. or.
[2358] Historiaz eta mitoaz esan ditugunen osagarri litzateke Historia "txiki" hau.

xehearentzat batez ere –Historia nagusiaren gertakizunetatik urrunago daudenentzat-.

Bilintxek, adibidez, Olentzerori buruz, "Orentzaro" izenburupean, lau bertso egin zituen. Ez du "ohituratzat" izendatzen baina errepikatzen den fenomeno gisa aurkezten du: *"Zai egoten naiz luzaro / eldu dediñ Orentzaro, / zergatik dan eguna / zelebratzen deguna / bazkariz eta afariz, / eldutzen dan ainbat aldiz"*[2359]. Urtero gertatzen den fenomenoa da: *"Orentzaro izan ezkero, / gure etxian urtero, / nola oroitzen zaitan, / egun artan bazkaitan / ez da, ez, izango falta / eltzian odolki galanta"*[2360].

Pedro Mari Otañok, berriz, honela esaten du: *"Beti berriyak diran oitura / zar aien amoriyuan, / gure sorterri ta familiya / eukirik beti goguan, / zuzenbideztu ditzagun gauzak / guraso zarren moduan, / euskaldunak zer jende geraden / jakiñ dezaten munduan"*[2361]. Eta pixka bat aurreraxeago: *"Zer oitura garbiyak, / zer lege santuak, / arkitzen diran iya / ankaperatuak! / Amatxo, zure begi / malkoz tapatuak / alaituko dituzte / seme maitatuak, / urraturikan kate / madarikatuak"*[2362]. Antonio Zavalak 1906. eta 1910. urtetan datatutako bertsoen artean argitaratu zuen bertso hau, nahiz eta zehazki ez jakin zein urtetakoa den. "Aitor-en semeak eta Erroma" bertso sailaren parte dira. Antonio Zavalaren ustez, bukatu gabeko opera baten zati izan zitezkeen. Pedro Mari Otañok hasieran ohitura hitzaz ematen duen definizioa garrantzitsua da: *"beti berriyak diren oitura zar"* izena ematen die. Zaharrak izanik ere berritzen direnak dira ohiturak, edukiz osatzen joan gaitezkeenak. Pedro Mari Otañok segur aski bere bizitzan zaharraren eta berriaren arteko sintesia behin baino gehiagotan jarri behar izan zuen martxan.

Txirritak ere erabiliko du ohitura hitza baina zaharrari lotuago: *"Astigarraga uri kutun bat / mendi baten baztarrian, / gustagarrizko ibai zabalak / dituelarik aurrian; / erdi-erdian Fueruen plaza / Kontzejutikan urrian, / Santiagoren indartza ere / daukagu geren lurrian, / emen jendea bizi nai degu / lengo oitura zarrian"*[2363].

Eta bukatzeko, Joxe Mari Lopetegi izango da kontzeptu hau maizena erabiliko duena. Bertso sail batean baino gehiagotan egingo dio erreferentzia "ohitura" hitzari. Errepublika ohiturak mantentzeko berme gisa ikusiko du Joxe Mari Lopetegik.

---

[2359] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 331. or.
[2360] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza,* op. cit., 331. or.
[2361] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op. cit., 189. or.
[2362] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua, II,* op .cit., 189. or.
[2363] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 126. or.

Adibide gisa, Joxe Mari Lopetegik ohiturak aipatuko ditu XVIII. mende bukaeran jaiotako Fermin Legia gerrillariari Barojatarrek Beran omenaldia prestatu ziotela eta osatu zituen bertsoetan: *"Zertako gera gaurko gaztiak / naiz izan gorputz azkarrak, / gure saltuak gelditzen ditu / arantza gabeko larrak; / Galdu dirade gure oiturak / etorri dira negarrak, / zutik altxiak makill banakiñ / baleudez Aitona zarrak / egun batzutan ez luke izango / otzikan gure bizkarrak"*[2364]. Ohiturak lehenaldiko elementu gisa eta galdu diren elementu gisa aipatzen ditu Joxe Mari Lopetegik.

1931ko ekainaren 13an, berriz, Errepublikaren alde bertsoak jartzen ari dela, hau guztien onerako dela azpimarratuko du. Oraingo honetan ohiturei ere erreferentzia egingo die: *"Danontzat ona gauza zalla da / neronek ori badakit, / baña geyenak zuzen gintezke / agintzen duten bidetik, / gure bizitza, gure oiturak / ipiñi biar tugu zutik; / guazen aurrera Euskal jatorrak / elduaz alkar besotik, / Euskal Erriya maite degunak / ziñez ta biyotzetik"*[2365].

Astigarragako Centro Republicanoa ireki zenean, Joxe Mari Lopetegik bertsoak argitaratu zituen gero *Irun Republicanon*, 1931ko abuztuaren 8an. Bertan jasotzen zuen Astigarragan 1931ko abuztuaren 3an gertatua. Domingo Andonegik esan zuenez ohiturak mantentzeko Errepublika Federala ona zen: *"Laugarren asi zaigun Domingo / oitura duen bezala, / esaten zuen oraingotikan / bide onian guazela; / bizitzekotan Euskal erriyan / anaitasuna biar dala, / gure oiturak izan ditzagun / argatik mintzatzen dala, / maitatutzeko biyotzetikan / Republika Federala"*[2366].

Ideia bera azpimarratuko du ondoko okasioetan ere. Helburua ohiturak errekuperatu eta mantentzea bada, Errepublika da hori posible egingo duen forma politiko egokiena. Horrela, Estellako estatutuari 1931 iraila bukaeran Madrilen ezetz esan ziotenean, Joxe Mari Lopetegik Errepublikaren beharra aldarrikatuko du. Estatutu hark lortzekotan lortuko zuena ohiturak lurperatzea baita: *"Lenago ere esan nizuten / nik nire borondatia, / alperrikanen izango zala / Estella aldera juatia, / or zabiltzate ezin itxirik / zabalik dagon atia, / oitura zarrai eman nayean / betiko errematia, / seme leyalik sortu zitzaizun / O, Euskal Erri maitia!"*[2367].

[2364] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 84. or.
[2365] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 99. or.
[2366] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 123. or.
[2367] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 142. or.

"Kukuak oker jo" bertso sailean ere ideia bera azpimarratuko du Joxe Mari Lopetegik[2368]: ohiturei eusteko egin daitekeen gauzarik hoberena Errepublikaren arrimuan ezker eta eskuinak bat egitea da. Berriro ere ohiturei egingo die erreferentzia: *"Uts egiña da zuen kolpia, / izan zazute goguan, / etorri zazte Madritik jiran / atz egiñikan buruan, / obe dezute burua makur / jardun gure inguruan, / esku emanaz ezker-eskubi / danok alkarren onduan, / Euskal oiturak, paregabeak, / etorko dira orduan"*[2369].

1933ko urtarrilaren 28ko bertso sail batean, bideratua ikusiko du ohituren errekuperazio prozesua Joxe Mari Lopetegik: *"Euskal lurreko lagun maitiak / pozez zaituztet agurtzen, / ikusirikan gure oiturak / ari dirala biurtzen; / gure Erkala maitagarriyak / ez gaitu iñor bildurtzen, / orain bezela sayatzen bada / beartsuari laguntzen, / ikusiko da Euskal lurreko / burkaitzak sagasti jartzen"*[2370].

Beste okasio batean, bertsolaritza ohiturekin lotuko du, eta baita euskararekin ere: *"Lagun on batek esan dit neri / jaungo* (sic) *naizen Altzara, / bertso batzuek abestutzera / oitura dedan antzera, / erantzun diyot pozik juango naiz / zu ere juaten bazera, / erritik erri esku emanaz / biyok ibilliko gera, / bizi ditezen Euskal oiturak, / bizi dediyen Euskera"*[2371].

Aldaketa gehien bizi izan zituzten bertsolariak izango dira "ohiturei" erreferentzia gehien egingo dizkietenak, haien behar handiena erakutsiko dutenak.

## 4.3.Laburbilduz

Hauxe dugu azken laburbilduma, gure azterketa lanaren azken zatiari dagokiona. Orain artean oinarri materialei dagozkienak jaso ditugu -aldaketa ekonomikoak eta demografikoak- kontuan hartuz, baita giza harremanak antolatzeko moduei dagozkienak ere –gizartea eta politika atalean, nagusiki-. Zer da geratzen zaiguna? Ideien mundua, mentalitateak, errepresentazioak. Zirkulua itxi nahi dugu, horrela: aztertu ditugun bertsolariek zein diskurtsoren bitartez ematen zieten zentzua eta duintasuna bizi zuten errealitate material eta sozialari? Ideia, mentalitate eta errepresentazioen mundu hau baldintzatuko duen elementu nagusia bertsolariek modernizazio prozesuaren aurrean zein jarrera duten –alde, kontrako, ez bat ez

[2368] Madrilen estatutuari ezetz esan ziotenean 1931ko irailan, Lopetegik *Irun Republicano*n, 1931ko urriaren 3an, bertsoak argitaratu zituen.
[2369] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 144. or.
[2370] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 174. or.
[2371] ELOSEGI, J. (eg. eta biltz.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria,* op. cit., 127.-128. or. 1931ko abuztuaren 22an argitaratutako bertsoak dira hauek.

beste-, eta honekin zein eratako kontaktua izan duten –progresiboa, traumatikoa, kontaktu gutxi- izango da.

Bi eszenatoki nagusi irudikatu ditugu guk: batetik, XIX. mendeko modernizazio prozesu eta industrializazioak eragina izan aurreko egoera, landa eremuan, batez ere; eta, bestetik, modernizazio eta industrializazio prozesuek eraldatutako errealitatea. Lehenengoaren kasuan, errealitateari zentzua emango dion elementu nagusia, beti ere aztertu ditugun bertsolarien arabera, erlijioa izango da –komunitatea indartzeaz gainera, edo agian horregatik oraindik gehiago, balio zentzu emailea ere izango du-. Oreka ahulean bizi zen gizarte harentzat, hau da, gizakiaren esku ez zeuden hainbat indarrek –gosea, gaitza, heriotza-"gobernatzen" zuten errealitatean bizi zen gizarte harentzat "anparoa", babesa edo laguntza zen, gehienera ere, eskura zezaketen egoeraren irakurketa hobetua –erlijioaren alderdi "magikoena" azpimarratuz-. Kontrolatzen ez zituzten indar haien aurrean zein eratako laguntza ote eraginkorrena? Erlijioak eskaintzen zituen heldulekuak egokiak ziren: heriotzaren aurrean, eta heriotza ondoko bizitzarako "salbokonduktoak" ziren. Ama Birjina eta Jesus izango dira bertsoetan ageriko diren bitartekari nagusiak. Hala ere, aipatu agertoki hartako erlijio-bizipena ez da itsua izango, hau da, munduko errealitateari behar duen garrantzia emango diote eta eliz erakunde eta honen ordezkarien gehiegikeriak salatuko dituzte, balio ebanjelikoak gorpuzten ere saiatuko direlarik, nahiz eta hauei buruz esplizituki hitz egin ez. Pello Errota eta Txirrita gisako bertsolariek eliz erakundeak erlijio bizitzaz eman dezakeen irudi estua erlatibizatu egingo dute, eguneroko bizitzaren galbahetik pasaz.

XIX. mendeko modernizazioak eragiten duen eszenatokian nolakoak ote mentalitateak eta mundua irudikatzeko moduak? Bi aukera nagusi ikusi ditugu aztertutako bertsolarien artean. Modernitate eta modernizazio prozesuak dakartena gustoko ez eta atzera begira jarriko dira batzuk- Xenpelar kasu-. Besteak beste, datorren mundu berriak erlijioa zalantzan jarriko duelako eta sekularizazioari ateak zabalduko dizkiolako. Kontra jarri behar honek erlijioaren ikuspegi estu eta gogorrena azpimarratzea eragingo dio Xenpelarri, Pello Errota eta Txirritak egiten zuten irakurketa erlijiosotik urrutiratuz.

Bilintx, Pedro Mari Otaño eta Joxe Mari Lopetegik hizkuntza erlijiosoa erabiliko dute baina beste gai batzuei buruz hitz egiteko. Familiako gaiei lotutako terminologia ere beste gai batzuei buruz hitz egiteko erabiliko dute. Hitz zaharrei esanahi berriak emanez, modernizaziora –giza maitasun askera, herriarekiko maitasunera, politikagintzara- eramango dute herria.

Eszenatoki modernoan errealitatea irudikatzeko sortuko diren bide berriak, identitate kolektiboari dagozkionak izango dira. "Gu" ez garen "beste" edozeinekin kontaktuan jartzeak, "gu"ari buruzko galdera piztuko du. Berariaz sortuko den galdera euskalduna izatea zer den izango da, bereziki, Pedro Mari Otañoren bertsoetan. Euskara, euskaldunen arteko batasuna, euskal paisaia, historia eta ohiturak izango dira "euskalduna" zer den definitzeko Pedro Mari Otañok erabiliko dituen tresnak. Txirrita eta Joxe Mari Lopetegik ere, nahiz eta ez hain sistematikoki, bide honi helduko diote.

Mentalitate eta errepresentazioez ari garen atal honetan, bertsoetatik abiatuz, beste hainbat gairi buruz ere hitz egin ahal izango genuke: bertsolariek askatasuna edo libertadeaz hitz egiten duten eta nola, eta modernitateak hain funtsezko duen kontzientzia askatasunaz mintzo diren; aurrerabide edo progresoa ahotan hartzen duten; ezagutzaren izaeraz mintzo diren, hau da, pentsamendu zientifikoari eta arrazionaltasunari tokirik egiten dioten; beren ezagutzaren iturriak zeintzuk diren: eskola, liburuak irakurtzeari edo prentsa irakurtzeari zenbaterainoko tokia egiten dioten, etab. Era honetako erreferentziak ere bildu genituen gure azterketa lanean. Ez diegu ordea azalpenean tokirik egin: ez zitzaizkigun kabitzen. Baina garbi esan behar dugu bertsoak era honetako gaiak –pentsamendu eta filosofiari lotuagoak- aztertzeko ere arras egokiak iruditzen zaizkigula.

# BOSGARREN ATALA:
# ONDORIOAK

Hurreratzen ari gara bidearen azken aldera. Gutxi falta zaigu iristeko. Bide bazterrean eseri eta patxada pixka bat hartu dezagun, distantzia pixka bat egindakoarekiko. Atzera begira jarriz gero, zeintzuk izan ote dira bideak erakutsi dizkigunak? Zuzenean ikusi edo burutik pasa zaizkigunak? Begira dezagun gero aurrera. Zein ibilbide berri, zein bidetxior utzi ote ditugu bidean hurrengo baterako? Ikerketa lanean gehienetan gertatzen den bezala, uste ez genuen tokira iritsi ote gara? Espero genuena aurkitu ordez, zer genuen zain?

Bertsoz Txirritak emaniko pasartea ekar dezagun gure ondorioetara erakusgarri. Begira dezagun zirrikitu batetik, gizonak nola ari diren lanean menditik zuhaitz handi bat jaitsi ezinik: itzainek egingo dute lanaren lehenengo partea, enborra menditik herrira jaitsiz. "Automobilak" azkenekoa, herritik Hondarribira egur puska handi hura eramanaz. Eta tartean dugu errotaria, polea edo txirritarekin, enborra lurretik kamioira igotzen lagunduko duena. Halako zerbait da modernizazioaren esperientzia Gipuzkoan, eta honekiko pertzepzioa, guri gehien interesatzen zaiguna: mundu zaharra dugu batetik, berria bestetik, eta trantsizioan, batetik besterako pausoan lagunduko duena hirugarren. Modernizazioa arrakastatsu gertatuko da emaitza gisa hiru ikuskerak –premoderno, moderno eta trantsiziozkoa-, hiru denborak –lehena, oraina eta etorkizuna-, hiru espaziok –landa eremua, hiria eta herriak- bat egiten duten neurrian, ez bestela. Modernizazio prozesuaren gauzatzea izango den emaitza horretan hiru mundu eta aldiek izango dute tokia, bakoitzak bere erara: mundu modernoak abiadura ekarriko du, premodernoak arrazionaltasun ekonomikoa erlatibizatzea, eta tartekoak bata eta bestea lotuko ditu. Ikus:

> *"Martiñ etorri zaigu / biyaramunian, / bere motor da karro / koraje onian, / puska automobillian / sartu degunian, / esanaz: <Eramango / det bi egunian>".*
>
> *(...)*

*Eutek esan ziyon: / <Zu, Martiñ maitia, / al dan polikiyena / abiya zaitia; / itzaiak ere ala / etorriyak tia, / onekin kostako da / aguro juatia>"2372.*

*(…)*

*"Abiyatu zanian / ura aren seta, / mendiko bizi-moduz / etzegon aseta; / zernai egingo zuen / izan balu beta, / aidian eraman du / Xerrai'en meta.*

*Ondarrabiya'n puska / ikaragarriya, / Anjelen tallarrian / an dago jarriya; / itzaiak egin dute / naiko pikardiya, / ardotan kastatua / omen da erdiya"*[2373].

*(…)*

*"Puska ezin altxarik / giñadela ari, / zeñek lagun egiña / izandu zan guri; / kate polearekin / zitzaigun etorri, / eskerrak Karrika'ko / errotariyari"*[2374].

Horixe da guk doktorego tesi honetan balioetsi dugun ikuspegia: modernizazio prozesuak Gipuzkoan ekarri zuen sintesi ezaugarria, mundu ezberdinen osagarritasunaren gainean eraikia. Honen arrazoiak ezberdinak izan daitezke: ezaugarri premodernoen indarra batetik, edo modernizazioak eragindako aldaketei erantzuna ematerakoan, "zaharrari" –edo "zahar" berreraikiari- egindako tokia, zeinetan beren buruak errekonozitzen zituzten berez ezberdinak ziren errealitateek. Edo bi arrazoien konbinazioa.

Gogora ekar dezagun azterketa lan hau egiten hastean genituen galdera eta hipotesi nagusiak zeintzuk ziren:

1.Gipuzkoan XIX. mendean hasi eta 1936ra bitartean gertatu zen modernizazio prozesuaren aurrean erantzun desberdinak sortu ziren herri xehearen baitan –herri xeheaz ari garenean gogoan izan pobre zirenak, jabe ez zirenak, bizitzeko lan egin behar zutenak, baserritar, artesau, lehen fabriketako langileak, eta alfabetatze mailarik ez edo txikia dutenak ditugula gogoan-. Modernizazio testuinguru honetan sortu zen identitate kolektiboaren arazo "modernoa" ere, maila ezberdinean eragin zielarik honek herri xehearen parte zirenei.

2.Gipuzkoar modernizazioaren testuinguruaz haratago gure soa altxatzen badugu, europar inguruan estatu-nazioen eraikuntza garaian bete-betean gaudela ikusiko dugu. Identitate eraikuntza prozesuak bor-borka irakiten ari dira han-hemen. Gipuzkoar eremuan herri xehearen baitan identitate kolektiboaren arazoari heldu

[2372] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 407. or.
[2373] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 408. or.
[2374] ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi,* op. cit., 408. or.

zioten bertsolariek zenbat hartu zuten errealitatetik, zenbat idealizaziotik identitate eraikuntza prozesuan?

3.Modernizazio prozesuak zein eragin izan zuen XIX. mendeko Gipuzkoako bertsolaritzan? Eta alderantziz, bertsolaritzak zein paper jokatu zuen herri xehearen modernizazio prozesuan?

Galderak ekarri ditugu gogora. Dakartzagun orain erantzunak.

# 1.Modernizazio prozesuak eragindako kontraesanek hauspotzen dute identitatea arazo gisa

Behin baino gehiagotan esandakoa errepikatuz hasiko dugu ondorioen atal hau. Identitate arazoa zen guk lehendabizi aztertu nahi izan genuena: XIX. mendeko Gipuzkoako herrian nolakoa ote identitate kolektiboaren bizipena? Nola bizi ote zuten "gu" eta "besteak" problematika? Nortzuk ote "gu", nortzuk ote "besteak"? Buruan genituenen bila abiatu ginen iturrietara. Pello Errotaren bertsoak aztertuz egin genuen aproba. Gai nagusi batzuk hartu –demografia, ekonomia, gizarte, politika, mentalitateak…- eta horien arabera antolatzen saiatu ginen Pello Errotaren bertsoek ziotena. Inkontzienteki ia, alor haietako bakoitzean Pellok esatea espero genuena bilatzeari ekin genion: etxea goretsiz bertsoak jarri izana espero genuen, etxearen garrantzia azpimarratuz. Landa eremuko bizitzaren goralpena egitea ere espero genuen. Karlismoaren alde mintzatu izana. Iturrietan, ordea, ez genuen nahi genuenik aurkitu. Pello Errota maizter bizi izan zen, ez zion bere etxeari bertsorik jarri, ez zuen bere kantuetan landa eremua goresten, ez zuen bertso politikorik idatzi. Horren ordez, ezkontza tratuak, apustuak eta Arantzazurako erromesaldiak aurkitu genituen barra-barra bere bertsopaperetan. Oker ote zegoen Pello Errota? Ala gu? Nola ulertu esaten ari zitzaiguna? Gure azterketa ikuspegia baldintzatuegia ote?

Buruan genuena –aurkitzea espero genuena- momentuz alde batera utzi eta iturriei entzuteari eman gintzaizkion denbora luze batez. Entzun eta jaso aztergai genituen sei bertsolariek ziotena. Nola ulertu esaten ari zitzaizkiguna? Zein klabe edo giltzarritatik? Nola igaro gu eta haien artean zegoen tartea?

Seien esana desberdina zen gainera. Ez zieten seiek gauza berdinei garrantzia ematen, ez zentzu bera ematen ere. Bakoitzari bere tokia ematen asmatu behar genuen. Zergatik euren artean hain desberdin?

XIX. mendeko Gipuzkoako modernizazio prozesuan ote giltza? Modernizazio prozesua gauzatu zeneko moduak ote erantzuna? Aukeratu genituen sei bertsolariek modernizazio prozesu bera bizi eta esperimentatu ote zuten? Modernizazio prozesuak aldaketak ekarri zituen Gipuzkoara, baina aldi berean eta indar berdinez Gipuzkoako bazter guztietara? Eta hala ez balitz?

Erantzunbide honi helduta eskuartean genituen sei bertsolarien lana kokatu nahian hasi ginen. Bertsolari bakoitzari dagokionez, bere diskurtsoa baldintzatuko zuten hiru elementu bereizi genituen: batetik, modernizazioak zekartzan aldaketen aurrean zein barne jarrera zuten, hau da, ea aldaketen kontra edo alde zeuden eta zein neurritan aldaketa hauen kontrako edo aldeko jarrera aktiboa hartu zuten edo tarteko bide bezala, aldaketen kontzientzia bai baina bere bizitza auzi horretan jokatzen ez zutelako konbentzimentutik sortzen zituzten beren bertsoak.

Alderdi hau estuki lotua zegoen modernizazio prozesuak zekartzan aldaketek aztertutako bertsolarien eguneroko bizitzan eragindako aldaketen neurri eta indarrararekin. Hau genuen kontuan hartu beharreko bigarren elementua. Zenbat eta aldaketa handiagoak bizi izan eta honek kontraesan gehiago sortu aztertutako bertsolarien artean, orduan eta toki gehiago izango zuten bere diskurtsoan aldaketa horiek eta behar handiagoa izango zuen bertsolari horrek bere bizitzari zentzu berri bat bilatu eta logika berri bat erditzeko.

Eta kontuan hartu beharreko hirugarren alderdia, aldaketen aurrean zuten jarreraz gainera eta bizitako kontraesanen indarraz gainera, aldaketa hauen aurrean zaharraren eta berriaren arteko balantza zein aldetara okerrarazten zuten: hau da, halabeharrez berria datorrenean, zaharrari zein toki egiten zioten? Garrantzitsua zen eurentzat, zaindu edo mantendu beharreko zerbait edo bestela, gainditu eta ahaztu beharreko zerbait?

Landa eremutik hurbilagoko Pello Errota eta Txirrita –lehenengoa gehiago- izango dira beren hezur-haragitan kontraesan gutxien eta ondorioz diskurtso berria sortzeko indar gutxien inbertituko dutenak. Bilintxek ere, donostiar hiri eremukoa izanik, testuinguru modernoan jaiotakoak, ez du bere bizitzan beste batzuek adinako kontraesanik biziko.

Besterik gertatzen da Xenpelarren kasuan. Honek Errenteriako aurre-industrializazioaren eragina zuzen-zuzenean bizi izan zuen. Izan ere, oihal fabrikako langilea izan genuen eta burdin bidea egitera Errenteriara joandako frantses ingeniariak hurbiletik ezagutu zituen. Honek modernizazioak dakartzan aldaketen kontrako jarrera aktiboa hartuko du, eta bere bertsoen bitartez ikuspegi hau zabaltzen saiatuko da. Erlijioan bilatuko du babesa, honen alderdi doktrinala azpimarratuz. Bere bizitzan bizi dituen kontraesanei erantzuna identitate kolektiboaren arazoari helduz emango dio: ikuspegi tradizionalena –gerora integristena izango dena- defendatuko du, jakinik modernizazio prozesuak sortarazitako erantzuna izan zela hau.

Pedro Mari Otañok, berriz, areagotuta aurkituko ditu aldaketak eta kontraesanak bere bizitzan. Zizurkilen jaioa, gazterik Ameriketara emigratua, helduaroko lehenengo urteetan Donostian bizi izan zen. *Euskal-Erria* aldizkariaren eta hari eusten zion lantaldearen babesean eman zitzaion bertsogintzari Pedro Mari Otaño. Hemen bizibiderik ez eta bere bizitzako azken urteak Argentinan eman zituen. Modernizazioak zekartzan aldaketei gogoz heldu zien. Bere bizitzan zehar sakonetik sentitu zen krisian Otaño behin baino gehiagotan. Identitate pertsonalaren krisiari besteak beste identitate kolektiboaren bidetik eman zion erantzuna: zalantzarik gabe Gipuzkoatik milaka kilometrotara egoteak izango zuen eraginik Otañorengan. Modernizazioaren aldaketen kontraesanak eta identitatearen arazoa bereziki indartsu bizi izan zituen Pedro Mari Otañok. Horregatik berak emandako erantzuna ere berezia izan zen. Ez zen aldaketen kontrakoa, hauek integratzeko berebiziko ahalegina egingo du, baina aurretik ezagututakoa eusteari garrantzi berezia eman zion.

Joxe Mari Lopetegiren kasua dugu aipatzeko azkena. Bigarren karlistadaren ostean Irunen jaioa, kontratista, modernizazioak dakartzan aldaketen alde egingo du aktiboki honek –baita egin ere!- errepublikanoen mitinetan bertsoak abestuz eta hauen aldizkarietan argitaratuz. Honek ez du aldaketa haizeetan kontraesanik aurkituko: kontraesan gehiago sortaraziko dizkio mundu zaharrak, karlistak batez ere. XIX. mendeko gerra zibilek eragindako zatiketa gainditu nahiko du kosta ala kosta Joxe Mari Lopetegik eta Errepublika ikusiko du horretarako bide egoki. Honek, beraz, aldaketen aldeko apustua egingo du. Zein izango da "zaharrari" egingo dion tokia bere diskurtso berrituan? "Zaharraren" alderdi batzuk gaitzetsi egingo ditu nabarmenki. Beste batzuk errekuperatu egin nahiko ditu –hizkuntza batez ere, euskara-, baina berriak –balio berriak, ikuspegi berriak- izango dira batez ere Joxe Mari Lopetegik gogoan izango dituenak.

Gure azterketarako sei bertsolari hartu izanak azterketa bera zaildu badu ere –iturrien kantitateagatik eta aniztasunagatik- emaitzak aberastu egin dituela uste dugu. Bertsolari bakarra aztertu izatera, ez genituen hainbesteko xehetasunak antzemango. Horretaz gainera, aldatzen ari zen gizarte batera hurbiltzeko egokiago da bizipen eta ikuspegi anitzak kontuan hartzea.

Bestetik, helburutzat identitate azterketa bagenuen ere, modernizazio prozesuaren eta identitate kolektiboaren arazoaren arteko harremana ulertzea ezinbestekoa dela konturatu gara: egindako azterketak erakutsi digu oihartzun handiagoko erantzunez gain –foruzaletasuna, nazionalismoa-, ahots txikiagokoei ere entzun behar diegula –modernizazioaren eragin txikiena jaso zutenen ahotsa, adibidez[2375]. Eta modu berean, sortutako erantzunak ulertzeko, beharrezkoa dela hauek zein testuingurutan sortu ziren ezagutzea.

# 2.Aldaketa prozesuen bizipena ez da uniformea XIX. mendeko Gipuzkoan

Hona hemen desegin behar izan dugun beste aurreiritzi bat. Bagenuen gure esperientziatik horrelako aurresentipen bat, baina azterketa burutu ondoren garbiago ikusi ditugu gauzak. Denboraren joana neurtzeko moduak eta moduak daude. Guretik begiratuta urteak ditugu, eta hauek hilabeteak, egunak, orduak, minutuak dituzte. Eta denbora neurtzeko modu honekin batez ere bereiztu egin nahi ditugu momentuak, batzuk besteetatik desberdindu, pasatakoa berriz ez dela etorriko azpimarratu. Eta aldi berean, berdindu ere bai: denbora unitate bera konpartitzeak esperientziak konpartitzea dakar. Urte berekoak direnek, une berean gertatu direnek… unibertsaldu egiten dituzte bizitakoak. Edo hala uste.

Gure azterketaren arabera, urte kronologikoek ez dute zertan kasu honetan modernizazio prozesuaren bizi-esperientzia bera ziurtatu beharrik. Eta, aldi berean, prozesua urte kronologikoen arabera linealtzat eta progresibotzat hartzen badugu, laster konturatuko gara hori ere ez dela unibertsalki horrela bizi. Bertsolariek hala erakutsi digute[2376].

---

[2375] Benjamin Duinatek Joseba Agirreazkuenagaren zuzendaritzapean egindako master amaierako lanaren ildotik, *Biografia baterako abiapuntuak: euskal mugaldeko nortasun anitzak eta harrabots gutiko disidentziak. Jean-Pierre Duvoisinen (1810-1891) gutunerian.* 2012-2013 ikasturtea.

[2376] Julio Caro Barojak denbora historiko edo bitala –pertsonen bizitzari dagokiona- eta denbora kronologikoa –prozesu orokorrei dagokiena- bereizten zituen.

Denboraren aldagaia aldagai geografikoarekin ere konbinatu behar dugu nahitaez. Ez da gauza bera modernizazioak Ernio inguruan egindako bidea, edo Donostian egindakoa, edota Irunen, Zizurkilen edo Errenterian. Industrializaziorik bertan egon den edo ez, ideologia liberalak zenbaterainoko bidea egin duen, atzerriarekin zer nolako harremanak dituen herri horrek edota bertakoek, zein alfabetatze maila lortu den bertan, etab. Hauek guztiak kontuan hartu beharrekoak izango dira.

Denbora, geografia eta giza ingurua. Hona aipatu nahi dugun hirugarren aldagaia, giza ingurua. Hau da, pertsona bat zein familiatan jaio eta zein harreman sare duen –bizilagun, lagun eta adiskideak- modernizazioaz izan dezakeen esperientzia desberdina izango da.

Eta azkenik, denbora, geografia eta giza inguruaz gain, prestakuntza edo ikasketak izango dira kontuan hartu beharko ditugun beste elementu nagusi bat.

Horrela, guk aztergai izan ditugun sei bertsolarien artean, lehendabizi jaio zena, Indalezio Bizkarrondo Bilintx, 1831n jaioa hain zuzen, seietan modernoenen artean aurkituko dugu. Txirrita, berriz, 1860an jaioa, ikuspegi tradizionalari lotuago aurkituko dugu. Zergatik? Aurrez aipatutako elementuak hartu beharko ditugu kontuan. Horregatik zaila gertatu zaigu batzuetan tesian aztertutako ideiak ordenatzea, antolamendu logiko bat ematea. Gai zehatzen batean ordena kronologikoa jarraitu ahal izan dugu, baina bestetan ohiko kronologia alde batera utzi beharra izan dugu eta modernizazio prozesuaren bilakaerari kasu egin: hau da, modernizazio prozesuaren gauzatzetik hurbiltasun edo distantzia azpimarratuz.

# 3.Bertsoen azterketa sistematikoaren emaitza

Doktorego tesi honek bere izatearen funtsa zerbaiti zor badio erabili ditugun iturriei zor dio. Hain zuzen ere bertsopaperei esker iritsi gara iritsi garen lekura. Giza eta gizarte zientzia ezberdinetatik bertsolaritzara hurbiltzeko egin diren saiakeren artean Historiari ere egokitzen zitzaion era honetako esfortzu bat egitea.

Metodologiaren alderdian ikusi dugun bezala, bertsoei eurei hitz egiten utzi izanaren ondorio da doktorego tesi hau. Erabili dugun metodologia induktiboa izan da ia bere osoan.

Zeintzuk izan dira bertsoen interpretaziorako hartu ditugun neurriak? Hau da, zein baldintzapean egin dugu bertsoen azterketa historikoa? Hauen interpretazio kritikoa egin nahirik zein elementu izan ditugu kontuan?

Batetik, bertsoek ziotena jasotzen saiatu gara: bai zuzenean diotena, baita lerroartean esaten dutena ere. Hau da, kasu batzuetan bertsolariek gai bat hartu eta horri kantatzen diote. Beste batzuetan, berriz, gai bati buruz ari direla, beste batzuei egiten diete erreferentzia: zuzenean eta zeharka gauza bera dioten konparatzeak lagundu egin digu interpretazioan. Gaiari dagokionez bi eratako hurbilpenek elkar osatzen dute.

Bestetik, sei bertsolariren lanak aztertu izanak batzuen lanak besteekin konparatzeko aukera eman digu. Konparatzeaz gainera, esaten dituztenak eta esaten ez dituztenak kontuan hartuz, elkar neurtzen dute eta guri ere panomara orokorraren aurrean kokatzen laguntzen digute. Bertsolari bakarra, edo bizpahiru aztertu izan bagenitu, uste dugu iturriarekiko lortu dugun interpretazio gaitasuna urriagoa litzatekeela. Horretaz gainera, aukeratu ditugun bertsolariek, ezberdinak izaki beren artean, ikuspegi sistemikoa lantzea erraztu digute: sarreran aipatutako hiru mailetako bertsolariak izanik –sentsibilitateen jabe batzuk, idearioetatik hurbilago besteak eta ideologietatik beste batzuk- errealitatera hurbiltzeko modu ezberdinak kontuan izan, konparatu eta elkar erlatibizatzeko aukera eman digute.

Bertsoen azterketa kritikoa egiten lagundu digun beste elementua kontuan hartu ditugun esanahi maila ezberdinak dira. Hau da, aztertzen ari garenarekiko distantzia maila ezberdinak hartuz lortzen ditugun argazkiak elkarrekin konparatuz gure azterketari etekin handiagoa ateratzen diogu. Horrela egiten saiatu gara hitzak, kontzeptuak, kategoriak, puntuak, bertsoak, bertso sailak, bertsolariak… kontuan hartuz. Aspektu honi dagokionez, azpimarratu behar dugu, gainera, argumentazioa bertsoz emateko modua berezia dela: modu trinkoan, esaten denarekin eta esaten ez denaren laguntzaz adierazten dituela bertsolariak bere pentsamentuak.

Soslaiz beste galdera bat ere badatorkigu burura: beste iturriak baino zorrotzago hartu behar al ditugu bertsoak? Interpretazio kritikoak kritikoagoa izan behar al du? Zergatik? Pentsalari baten lanak, politiko baten diskurtsoak, notario baten oharrak, berez al dira fidagarriago? Bertsolari batenak baino gehiago? Zergatik? Iturri haiek aztertzeko baino kritikotasun handiagoa eskatu behar al zaio bertsoen azterketari? Zergatik?

Baina aldi berean bada azpimarratu beharreko beste elementu bat ere: bertsoei hitz egiten utzi diegu baina nork –bertsolariak garaiko gizon gisa harturik- eta noiz sortuak izan ziren erreparatuz, eta azken honi dagokionez, Gipuzkoaren modernizazio testuinguruan kokatuz. Bertsolaritzaren XIX. mendeko historia sozialera hurbiltzen saiatu gara horrela.

Puzzle bat egiterakoan ere lehendabizi ertzetako piezak jartzea komeni izaten da eta gero heltzen zaio barruko irudiak osatzeari. Logika bera jarraitu dugu gure lanean.

Sakonetik sortzen zaigun galdera hau da: bertsolaritza eta bertsopaperak historia egiteko gutxi erabili izanaren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen. Hurbilekoegi ditugu agian eta hurbilegi sentitu ditugu alde batera: guregandiko hurbiltasuna azpimarratu izan da historikoki. Garaikide ditugun hainbat kantarik XIX. mendeko bertsolarien bertsoak abestu izanak bertsoetara gure denbora edo garaitik hurbildu izana azpimarratu du agian. Bestetik, literaturaren objektu bezala gehiago hartu dira kontuan iturri historiko bezala baino, nahiz eta literaturaren balioen bila hurbildu direnek bertsolaritza ezetsi eta hainbat autorek saiakera egin behar izan duten bertsoa ahozkotasunetik balioztatzeko. Hirugarren arrazoi bat izan daiteke hizkuntzarena ere: hau da, historia egin dutenek euskararekin zailtasunak izatea. Bertsolaritzaren fenomenoarekiko erabateko identifikazioa egoki ez bada, arrotzegi izatea ere ez da lagungarri. Bukatzeko, Historia ulertzeko moduak ere izango du zeresanik: gertakizunetan oinarritzen den Historiak kronika formako bertsoak balioetsiko ditu. Bertsoen artean batzuek erantzungo diote bertso-mota horri baina ez guztiek, ezta gehiengoak ere. Historia ulertzeko modu berriek logika eta aukera gehiago ikusiko dizkiete bertsoei ere. Ez dugu, beraz, aparteko meriturik. Gure garaiko kezken iturritik edaten dugunez, egarria kentzeko bide berriak bilatu beharra izan dugu.

Erantzun zaila duen sortzen zaigun beste galderetako bat hau da: zenbateraino dira bertsolariak eta hauek sorturiko bertsoak errealitatea moldatzen duten elementuak edota alderantziz? Segur aski ezin zaio bateri bestearen gaineko garrantzia eman. Alderdi honi erantzun egokia emateko garrantzitsua litzateke beste hainbat diskurtso egilerekin ideiak eta kronologiak konparatzea –politikariak, eliza, intelektualak…-. Nork jarraitzen dio nori? Hala ere, ez dakigu hori den garrantzitsuena, lehentasun kronologikoak markatzea. Edota diskurtsoa eta erabaki eta gertakizun historikoak lotzea?

# 4.Pixkanakako modernizazio prozesuak lekua egiten dio trantsizioz jositako identitate sorkuntza integratzaile bati

Atal honen hasieran kontuan hartu ditugun Txirritaren bertsoetan ikusi dugun bezala, Gipuzkoako modernizazioaren bizipenak elementu premoderno, moderno eta tartekoen sintesia hartzen ditu kontuan. Ondorioen atal honen hasieran esan bezala, identitate elementuen bila hasi genuen azterketa, baina iturriei entzuteko hautua egin genuen gero, zertaz eta zein indarrez hitz egiten zuten ikusteko. Horiek horrela, gipuzkoar gizartean gertatzen ari ziren zein aldaketaz mintzo ziren bertsolariak? Zein aldaketaz eta nola?

Gure azterketaren helburua ez da izan landa eremua bere hutsean, ezta modernizazioa %100ean aztertzea: batetik besterako pausoa da gehien interesatu zaiguna. Margolari inpresionistek beren koadroetan argiari buruzko estudioa egiten zuten bezala, guk modernizazio prozesuaren eragina –modernizazioa objektu gisa hartuz, argiaren ordez- aztertu nahi izan dugu identitate bideen eraikuntzan: nola eraldatu zuen prozesu honek errealitatea? Inpresionisten gisa, ez dugu agian pintore errealistek adinako definiziodun koadrorik lortu, baina hurbilpen legitimoa eta bere neurrian baliotsua izan dela uste dugu.

Zeintzuk dira osatu dugun koadroaren ezaugarri nagusiak? Hasteko, errealitate dinamikoa da aurkitu duguna. Dinamikoa, ikuspegi askotatik begiratuta. Dinamikoa, ordurarteko ekonomiaren antolamendu eta mailaketa sozioekonomikoa aldatzen hasiko delako. Aldaketak gertatuko dira, halaber, emakumearen eta gizonaren papera eta harremanak modu desberdinean ulertzen hasiko direlako –ezkontza tratuek maitasunari irekiko diote bidea-, aldaketa sozio-ekonomikoek honetan lagunduko dutelarik. Mudantzak gertatuko dira pertsonen arteko harremanetan ere, harreman zehatzetatik abstraktuetarako eta inpertsonaletarako pausoa emango delarik estatu-nazio espainiarra koloniez gain izen ona galtzen baina aldi berean egitura mailan penintsulan indartzen doan neurrian –kinten eta eskolaren presentziaren bitartez, besteak beste-. Probintziek batzuentzat –udalerrien boterea gutxitzen doan neurrian-, eta Espainiarekin era ezberdinetako harremanak izan ahalko dituen Euskal Herriak hartuko dute indarra testuinguru honetan. Eta bukatzeko, ordura artean landa eremuko bizimodu zailean bizitzari zentzua eman eta eusten zion erlijioak modernizazioaren eraginez galdera berriei irekiko die bidea, besteak beste, eta “desberdinarekin” harremana

gero eta handiagoa izango denez gero, norberaren izaera eta jatorriari buruzko galderari.

Errealitate dinamiko baten aurrean gaudela ere esango dugu, errealitate honetan modernizazio prozesu anitzen indarrez gain, aktore ezberdinak eragiten ariko direlako. Batzuek modernizazioaren alde egingo dute, besteek kontra, eta beste batzuek, berriz, modernizazioari begiratu bai, baina ez dute honekiko paper aktiborik hartuko. Honek guztiak areagotu egingo du berez mugitua zen egoera eta giroa.

Dinamikotasunaz gain, garaiko gizartea ezaugarritzen duen beste elementu bat aniztasuna da. Bertsolari guztiak berdinak, bertso guztiak antzekoak, patroi beretik ateratako euskal herritarrak espero bagenituen, azterketa honek ez digu horrelakorik erakutsi. Bertsolari bakoitzak bere ikuspegia izango du, landuko dituen gaiak eta moduak desberdinak izango dira, nahiz eta elementu batzuk elkarbanatu. Xehetasun handiagoz hitz egingo dugu honetaz ondorengo lerroetan.

Atalez atal errepasatu ahalko genuke doktorego tesiaren gorputzean landutakoa, hau da, ekonomian, demografi eta familiarekiko ikuspegian, gizartean eta politikan eta mentalitateen alorrean gertatu diren aldaketak banan-banan jaso ahal izango genituzke ondorio hauetan, baina beste bide bat jarraituko dugu oraingoan. Berez lotua eta bakarra -nahiz eta askotarikoa- zen errealitate aldakor haren deskribapena egiten saiatuko gara bertsolarien eskutik.

Aztertu ditugun sei bertsolariak kontuan hartzen baditugu, errealitatearekin harremantzeko modu desberdinak ikusiko ditugu. Goazen euren eskutik XIX. mendeko Gipuzkoara hurbiltzera.

XIX. mendeko Gipuzkoan, modernizazio eta industrializazioaren eraginik izan ez edo txikia izan zuen eremuetan, herri xehea pobrea izango da, hau da, baliabide eta beharren arteko oreka ahula biziko dute –ez dira ordea miserian biziko, ez dira eskekoak izango-. Askotan maizter biziko dira, ez dira etxejabeak izango. Landa eremuan maiorazkoak etxearen errenta hartuko du oinordetzan, ez etxea bera. Aztertu ditugun bertsolari gehienak bat etorriko dira beren bizimaila ekonomikoa, pobrezia, aitortzean. Landa eremuan batez ere baliabide eta pertsona kopuruaren arteko harremana ahula izango da, hau da, pobrezi egoera horren ondorioz larre motzean ohituak izango dira biztanleak. Elikadura eskasa eta medikuntzaren garapen mugatua zela eta –XIX. mendeko gerrateen eragina ere ezin dugu ahaztu- gaitza eta heriotza presente egongo diren mundu bat izango da hura eta honek areagotu egingo du gizakion ahultasun esperientzia.

Egoera zail honi taldean erantzungo zaio –ez indibidualki, egitura korporatibo batetik baizik-, lehenengo erantzun unitatea etxearena izanik. Etxea, ordea, ez zaigu bertsoetan "etxe ttipitto aitzin txuri baten" gisa agertuko: etxea baino, etxekoak izango dira protagonista. Eta protagonista dinamiko gainera: adi bizi beharko dute, aipatu oreka ahul horri erantzuna konstanteki emanaz, estrategia ekonomiko erdi-ezkutuak garatuz –izan kontrabandoa, neurriekin tranpak egitea-, egoera berrietara familia osatzen duten kide kopuruak doituz, etab. Gaitzak, gerrak, heriotzak… kide kopurua gutxitzen badute, geratzen direnek aurre egin beharko diote bizitzari. Bestela, famili unitateak kide gehiegi baditu, etxetik atera egin beharko dute batzuek: ezkontza, gertuko fabrika edota Ameriketarako emigrazioa bide dela, besteak beste.

Azpimarratu behar dugun beste ezaugarri bat: landa eremua –baserria- eta hiribildua edo kaxkoa –kalea- desberdinak dira hainbat ezaugarritan –justizia, adibidez, kalean egiten da; edota aktibitate ekonomiko garrantzitsuenak desberdinak dira batean eta bestean-, baina bien artean ez dira kontrajarriak diren bi errealitate izango, osagarriak baizik. Errealitate paradoxikoak, bai, baina ez eskluienteak. XIX. mendeko Gipuzkoako herriak baserriz eta kalez osatzen ziren: ugariak dira herriguneetako zerbitzu eta ofizioei erreferentziak landa eremuko bertsolarietan ere. Ezerk atentzioa deitzekotan, landa eremuko hainbat ofizioren iraupenak deitzen digu: ez hainbeste ofizio berrien presentziak, zaharren jarraipenak baizik. Eta antzekoa esan dezakegu irabaziaren logika ekonomikoaren inguruan ere. Zein behar du ekonomiaren azken helburuak: ondasun ekonomikoei eutsi edota gehiago irabaztea? Bi logikak presente aurkituko ditugu XIX. mendeko Gipuzkoan. Ez dugu uste arrazionalitate ekonomikoaren eredua XIX. mendeko kapitalismoarekin etorri zenik Gipuzkoara: behe ertaro eta aro modernoaren baitan sustraiak zituen eredua dela uste dugu hau, hiribilduetako komertzioak eta Ameriketarako emigrazioak, etxeetako segundoiek bilatu beharreko bide berriek hauspotua.

Errentan jabetutako etxe hauen –eta lur hauen- zatiezintasuna mantentzeko, maiorazkoaren sistemaren praktikak lekua izango du XIX. mendeko Gipuzkoan. Etxeaz mintzatu garenean bezala, ez dugu maiorazkoaren inguruko diskurtsorik aurkituko gure bertsolarietan, bai ordea, sistema hau praktikan jartzen zelako zertzeladak jaso. Zeharbidez maiorazkoarekin lotuta egongo dena ezkontza tratuak izango dira. Ezkontza tratuei buruzko bertsoen irakurketari esker ikusi ahal izango dugu landa eremuan ez zela erraza gertatzen ezkontzea eta nola hau askotan ezkontideen ahaideek bideratua eta hitzartua izaten zen –erreparatu "tratu" izenari berari-, nola ezkontideen harremanaz gainera bataren eta bestearen ondasunak ere

garrantzitsu ziren. Ezkontza tratuan bi ezkontideek "irabazten" zuten neurri batean, bi modutara: batetik, ondasunak eta mantenua ziurtatzen zuten sortzekoa zen famili unitate berriarentzat eta, bestetik, mundu zail eta ezegonkor hartan, anparo edo babesa ere irabazten zuten. Hau da, sistemaren iraupena ziurtatzen zuten. Ez zen dena "irabazia" ordea: sistema guztiek bezalaxe, bere kostuak zituen honek. Ezkontideek bikotea aukeratzeko orduan zuten askatasun urria, baliabide urritasunak eragindako neskazahar eta mutilzahar kopuruak, etab. Ezkontza tratuak puskatu izanaren ondorioz jartzen ziren bertsoetan, errealitateak idealizazioek baino indar handiagoa hartzen du eta sistema honen "gabeziak" ikus ditzakegu: maizterrekin baino "kaballeruekin" joan nahiago duten neskak, ezkontza tratua izanagatik tratuaz kanpoko gizonekin sexu-harremanak dituztenak, liskartsuak diren mutilak… Ezkontza tratuen berariazko ekosistema landa eremua dela ikusi dugu eta nola herri eta hirien testuinguruan, ez den logika hau mantentzen.

Gizarte eta politika egiturei so, udalerri eta udalerrien arteko harremanak izango dira Gipuzkoa artikulatzen duten oinarrizko zelulak, baserrietan antolatzen den landa eremua eta kaleetan antolatzen den kaxkoa elkarrengana bilduko dituztenak eta baita udalerriak udalerriekin harremanetan jarri eta harreman hauei eutsiko dietenak ere. Udalerri barruko loturei hainbat ospakizun eta erituk eusten lagunduko die, lanak ere bai, festak, feriek eta erromesaldiek, besteak beste. Ez dakigu zenbat duen egiatik, zenbat gehiegikeriatik, baina bertsolariek azpimarratu egingo dute udalerri barruko loturak indartzen zituzten dinamika hauetan ezberdintasun sozioekonomiko eta politikoak albo batera utziak izaten zirela, edota beste era batera esanda, egoera hobean aurkitzen ziren elite haiek dinamika hauetan parte hartzen zutela, agian, hain justu, herriaren gidaritzan zuten tokia berresteko. Alkatea, udaletxeko kideak eta apaiza izango dira bereziki aipatuak. Udalerri identitate hartan barrurako indarrez gain, kanporako indarrek ere bazuten zeresana: identitatea "bestea"rekin neurtzen denez gero, inguruko udalerriek jartzen zuten neurria, norekin konparatua. Horrela ulertuko genuke apustuek zuten garrantzia. Taberna eta alkoholaren presentzia, jokoa, borrokak eta gisakoak ere herri komunitate haien eguneroko bizitzaren parte gisa islatzen dizkigute bertsolariek, baita zurrumurru eta esames, eta elkar behar baino gehiagotan auzitara eramateko tendentzia ere.

Gipuzkoan ziren udalerri guztien artean batek –Bilintxek herri deitua, gainerako bertsolariek ziudadea deitua- toki berezia hartzen zuen XIX. mendeko Gipuzkoan: Donostia zen hura. Donostia modernizazio haizeek aspaldiagotik orrazten zuten, horretara ohituago zegoen. Goiztiarki –probintziako gainerako tokiekin

konparatuz- aurkituko ditugu langile taldeak, elkarteak, musika koruak, antzerkiak, etab. bertan. Hau da, giza harremanak eta giza taldeak antolatzeko modu berriak izango dituzte donostiarrek, sozializazio bide berriak martxan izango dira hemen.

Udalerriez gain, zein pisu zuen probintziak egitura politiko gisa bertsolarien ahoz? Landa eremuari lotuen zegoen Pello Errotari kasu egiten badiogu, beren bertsoetan ez dugu ia gai hauei buruzko aipamenik aurkituko. Gobernuaz hitz egiten duenean, etxearenaz ariko da. Udaletxe eta probintziako egitura politikoetan diren "kaballeroekin" ez du kontu askorik nahiko –Fidel Lizarraga Villabonako alkatearekin, diputatu izateko asmotan zebilenarekin, adibidez, distantzia mantenduko du; "poderea" aberastasunarekin lotuko du-. Foruak, lege zaharrak eta gisako kontzeptuak ere ez dira Pello Errotaren diskurtsoan ageri. Gernikako arbolari bertsoren bat jarri zion –kantatzen ari zen saio bateko giroak bultzatuta batez ere-, baina gehiago baserritar baten ikuspegitik sinbolo politiko bati kantari ari zenaren ikuspegitik baino. Bere eguneroko bizitzan zein pisu zuten elementu hauek? Ezin zehazki jakin. Dakiguna zera da: bere diskurtsoan zuten pisua txikia zela eta ez zuela hauen goralpenerako bertsorik egin. Hortik erator al dezakegu komunitate harremanak zirela nagusi landa eremuan eta probintzia egitura politiko gisa urrunago zuten errealitatea zela?

Gure azterketa egin ostean lanbro artean geratu zaigun alderdietako bat gerraren esperientziarena da. Lanbro artean diogu, ez baitugu erreferentzia gehiegirik aurkitu gai honi buruz aztertu ditugun bertsolarietan, ez behintzat espero hainbat edo espero genituen bezalakoak. Egia da aurkitutakoetan garbi esaten diotela ezetz gerrari bertsolariek. XIX. mendean izan ziren gerra haietan guztietan nola hartu zuen parte herri xeheak? Ez gara herriaren "politizazio" edo "despolitizazioaren" eztabaidan sartuko: ur handiegiak dira hauek guretzat. Apalki esan dezakeguna guk ikusitakoa da: ez dutela gerraren aldeko bertso sail ugaririk –Pedro Mari Otañok izan ezik bere ibilbide eta garapenaren momenturen batean-, eta gerra aipatzen dutenean, honen kontra mintzatzen direla. Gerraren esperientzia izan badute, eta horrek gerraren kontra hitz egitera eramaten ditu.

Orain artean deskribatu dugun errealitate horri zein errepresentazio eta diskurtsok ematen diote zentzua? Jo dezagun berriro Pello Errotarengana, guk aztertu ditugun bertsolarien artean sakonenetik industrializazio eta modernizazio aurreko errealitate landatar hura bizi izan zuen bertsolariarengana. Oreka ahulean –pobrezia, gaitza, bizitzaren gogortasuna agerian- familiaren eta elkartearen anparoan bizi ziren haiek nola heltzen zioten eguneroko bizitzari? Erlijioak errealitate hartan izango duen pisua garrantzitsua izango da. Baina ez da

nolanahiko erlijiotasuna izango: oreka ahul hartan bi alderdi indartuko ditu batez ere erlijioak. Batetik udalerriaren zentzu komunitarioa –hortaz hitz egin dugu lehenago ere- eta, bestetik, gizakiari neurri batean ulergaitz zaion eta kontrolaezina zaion errealitatearen aurrean babesa edo "anparoa". Zer esan nahi dugu azken honekin? Modernizazio aurreko giro hartan, arrazoiaren galbaheak natura eta errealitatearekiko harremana oraindik eraldatu ez dituen garai hartan, zein tresna ditu gizakiak bizitzan gertatzen zaizkionei zentzu edo sentidoa eman ahal izateko? Zergatik gertatzen dira gauzak? Zientziak eta arrazoiak bide luzea egiteko dutenean oraindik nola azaldu heriotza? Nola gaitza? Nola anparoa edo babesa bilatu errealitate hauen aurrean? Arantzazuko Amari eta Jesusi laguntza eskatuko diete bizitzarako, heriotzarako eta heriotza ondoko bizitzarako, hau da, menperatu eta kontrolatu ezin duten errealitate baten aurrean, bere izatea baino "indartsuagoak" diren fedezko errealitateei egingo diete dei, hauengan eragin dezaketela pentsatuz –erlijioaren alderdi majikoa azpimarratuz-. Hala ere, Pello Errotak ez digu eliz erakundean fede itsua erakutsiko: Jesus edota Amabirjinari agertzen dion zalantzarik gabeko atxekimendua ez da apaiz edo fraideei dien bera. Azken hauek jokabide zuzenik ez badute, Pello Errotak ez dio bere buruari zentsurarik jarriko eta haien ahultasunei kantatuko die. Txirrita ere, nahiz eta Pello Errota baino gazteagoa izan, erlijiotasun honen erakusle dugu, eta zahartze aldera, gaztetan baino gehiago gainera.

Landa eremuan "gu" eta "besteak" dinamikari hurbileko komunitateen arteko harremanetik erantzuten zitzaion. "Gu" eta "besteen" arteko desberdintasunak ez ziren objektiboki handiak izaten: "gu"a "beste"aren ispiluan begiratzen zenean ikusten zituen desberdintasunak txikiak ziren, nahiz eta nahikoak, berenaz aparteko zerbaitetaz hitz egiten ari zirela jakiteko, aldi berean "gu"a indartuz. Horrela gertatzen zen nagusiki modernizazio aurreko landa eremuan –guk batez ere Ernioko mundua hartu dugu abiapuntu Pello Errotaren ahoz-.

Errealitate honetan modernizazio prozesuak –tartean aurre-industrializazioak eta industrializazioak- eragiteak zein ondorio izango ditu? Aztertutako bertsolari gehienek aurkezten dizkiguten kasuen arabera, herritar xumeek industrializazio prozesu haietan bere bizimaila hobetzeko modu eta aukera bat ikusiko dute. Industrian, herrietako kaxkoei lotutako hainbat ofiziotan eta eraikuntzan ikusiko ditugu bat baino gehiago suertea probatzen. Lana aldatzeak landa eremutik kalera eramango ditu[2377], soldatapeko langile egingo ditu –baita krisi ekonomikoak,

[2377] Egia da hau ez dela kasu guztietan horrela gertatuko. Gipuzkoaren industrializazioan fabriketan lanean hasiko dira baserrietan bizi direnak ere, eta bi langintzak mantentzen saiatuko dira, landa eremua erabat utzi gabe.

istripuak, grebak… bizitzera ere-, aukera ekonomikoak biderkatu egingo zaizkie hauei horrela: errazagoa izango dute orain beren buruaren jabe izan eta ezkontzea, adibidez, edota dirua aurreztearen poderioz, etxea erostea –egia da ekintzaileenak izango direla aldaketa hauek egitera ausartuko direnak-. Prozesu honek guztiak zuzenean eragingo du landa eremuko sistemaren zutabe ziren maizter eta jabeen arteko harreman eta etxearen iraupena helburu zuen ezkontza tratuen sisteman.

Apurka-apurka, urak bere bidea egiten duen gisan, modernizazio ekonomikoak ere higatu egingo ditu sistema tradizionalaren oinarriak eta, zehazkiago, XIX. mendean honek zituen euskarriak eta desberdintasunak. Nagusiak eta morroiak, jabeak eta maizterrak, "kaballeruak" eta herri xehea…Batzuen eta besteen artean zeuden distantziak mantso-mantso bada ere itxuraldatzen joango dira –bertsolarien artean batzuk besteek baino distantzia gehiago mantenduko dute "kaballeru" hauekiko: bertsolari batzuek nahiago dute miseriatik hurbilago dauden eskekoekin harremana izan euren gainetik daudenekin baino-. Horrek ez du esan nahiko distantzia guztiak betiko erabat desagertuko direnik, berriak sortuko direla baizik –fabriketako nagusi eta langileen artekoak, adibidez-.

Modernizazioak familia tronkalaren eredutik familia nuklearrerako pausoa areagotu egingo du. Izan ere, industrializazioaren testuinguruan -landa eremutik hirietara mugitzen direnen kasuan batez ere- ez da hiru belaunaldien elkarbizitzarik egongo. Segundoiak industrian lanean jarriko direnean eta han irabazitako soldatari esker bizitzen hasiko direnean landa eremuan etxeak egiten zuen tiradizo edo indarrik ez dute sentituko eta, beraz, ezkontza hitzartzeko hainbesteko beharrik ere ez dute izango, neurri horretan, askeago sentituko dira.

Gizon eta emakumeen arteko harremanak aldatzen hasiko dira orduan. Tratuak ez, erromerietan topatuko dute elkar neska-mutilek. Emakumearen edertasun eta itxuraren alde egingo dute batzuek –Bilintxek adibidez-, eta jokabidea –guraso eta senarrarekiko menpekotasuna, erlijiotasuna, etxekoandre izaera, etab.- azpimarratuko dute besteek –Xenpelarrek adibidez-. Harremanak ez ezik, emakume eta gizonaren papera ere aldatzen joango da, beraz. Ezkontza bera ere ez da kezka iturri gertatuko: herri eta hiri inguruetan neskak ugari izango dira –landa eremutik lanera atereak, landa eremuan geratu izan balira neskazahar liratekeenak apika-, eta ezkontzak zuen sistemaren sostengu izaera indarra galduz joango da. Gehiago esango genuke, maitasuna sistema sozioekonomikoa apurtzeko bideetako bat bezala agertuko dute bertsolari batzuek, gizon eta emakumeen arteko harremanak ezkontza eta ondasunetatik bereiztuz, baita ezkontideen jatorri garbitasunetik ere. Hala ere, dena esan behar badugu, azken hauek agertzen

dituzten harremanak askoz idealizaziotik hurbilago izango dira landa eremuan adierazitakoetatik baino –detaile gisa, sexu harremanei, zeharka bada ere, landa eremutik erreferentzia zuzenagoa egingo zaie erromantizismoaren jarraitzaile diren bertsolarietatik baino-.

Udalerrietan eta udalerrien arteko harremanetan oinarritzen zen probintzia hartan, gizartea antolatzeko eredu ezberdinak hasiko dira indarra hartzen. Era ezberdinetako eragin eta indar hauen poderioz, pertsona errealez eta pertsonen arteko harreman errealez osatutako komunitate haietatik, elkarte abstraktuagoetarako eta inpertsonalagoetarako pausoa ematen hasiko da –jende kopuru handiagoko komunitatetan ezin baita guztien arteko harremanik ziurtatu-. Aldaketak eragingo dituzten indarrak, ordea, era askotakoak eta konplexuak dira: guztiek ez dituzte pertsona guztiengan efektu berak izango. Aldaketa hauen proportzio konbinaketa ezberdinek emaitza ezberdinak ekarriko dituzte. Norbaitek galdetuko baligu gizarte antolamenduan aldaketak eragin zituzten prozesuen artean bertsolariengan zeintzuek eragin zuten, ez genuke erantzunik izango. Ez behintzat erantzun bakar bat. Bertsolari bakoitzari dagokionez eman beharko genioke ia galderari erantzuna.

Zeintzuk izan ziren komunitate harremanak nagusi ziren errealitate hartan eragina izan zuten prozesuak? Ezin uka dezakegu aztergai dugun ehun urteko epean urbanizazio prozesua izan zela indar nagusi hauetako bat. Epe honetan Gipuzkoan eremu urbanoetan bizi zen populazioa ugaritu egin zen nabarmenki. Donostiaren beraren hazkundea kontuan hartzekoa dugu –guk aztertutako bertsolari pare batek edo haien ahaideek hargin gisa egin zuten lan Donostiaren zabaltzean-, baita udalerrietan biztanleriaren zati batek landa eremutik kalera egindako pausoak ere. Hiri eremuetan gizakien arteko harremanen maiztasun eta indarra landa eremuan baino txikiagoa izango da. Anonimatoa errazagoa izango da horrela.

Kontraesana badirudi ere, bertsolarien lanak aztertzetik ikusi ahal izan dugu komunitateen baitan gizabanakoaren itzala indartzen joango dela, hau da, taldean arrazoi batengatik edo besteagatik nabarmentzen diren pertsonen –arraunlarien kasuan trebezia, edo baita bertsolarien beraien kasuan ere abileziagatik- izenak eta bizitzak desberdintzen joango direla, taldetik bereizten. Taldea baino gizabanakoa izango da, beraz, protagonismoa irabazten joango dena.

Donostiaz hizketan aritu garelarik aipatu dugu sozializazio forma berriak aitzindariak izan zirela bertan. XX. mendean aurrera sarturik eta ez Donostian bakarrik, Gipuzkoan beste hainbat lekutan ere bai, alderdi politikoek bultzatutako eta eragindako topaguneak aurkituko ditugu, direla batzokiak direla errepublikar

guneak, besteren artean. Txirrita eta Joxe Mari Lopetegi bezalako bertsolariek aipatuko dizkigute hauek. Pertsonak batuko dituzten arrazoiak, elkarrekin harremanetan jartzera bultzatuko dituzten zioak ideologia politikoei dizkieten atxekimenduak izango dira horrela.

Modernizazioak giza harremanak aldatzeko izango duen beste bide bat pertsonen mugikortasuna areagotu izana da, hau da, pertsonen erreferentzia geografikoak zabaldu izana. Zer esan nahi dugu horrekin? Neurri batean, errazagoa izango zaiela pertsonei beren eguneroko bizitzan hurbileko eremu geografikoak zabaltzea, eta horrek beren diskurtsoan erreferentzia espazialak zabaltzea ekarriko du. Bertsolarien kasuan hau nabarmenagoa izango da, besteak beste, bertsoak abestera batera eta bestera mugituko baitira. Probintziari –Gipuzkoari- edota Euskal Herriari bertsolariek egingo dizkieten erreferentziak kontuan hartzeko modukoak izango dira. Ez, ordea, subjektu politikoez ari direla, erreferentzia geografiko gisa erabiliz baizik, hemen aipatu berri dugun alderdi honetatik begiratuta. Halako probintziako ederrena, edo bestelako Euskal Herrian dagoen politena izango da askotan bertsolarien hitzetan.

Orain artean aipatutako aldaketa haizeak –urbanizazioa, gizabanakoa indartzea, sozializazio formak, mugikortasuna areagotzea- herritar xeheenek beren gertuko udalerrietan, hurbileko testuinguruan biziko dituztenak izango dira. Baina ez bakarrak. Pertsonen arteko harremanak eta gizataldeak antolatzeko moduetan eragingo duen beste faktore nagusi bat, estatu-nazioen eratze prozesuena izango da, eta Gipuzkoaren kasuan, zehazki, espainiar estatu-nazioaren eraikuntza prozesuak zuzeneko eragina izango du. Eragin honek ere aurpegi ezberdinak izango ditu. XIX. mende bukaeran -1898an Kuba galdu ondorenean batez ere- bertsoak osatu zituzten bertsolariek espainiar inperioaren beherakada eta monarkiaren kudeaketa kaxkarra azpimarratuko dituzte. Ordura artean sistema foralaren markoa izandako monarkia gainbehera bazetorren, zein irtenbide bilatu? Errege batena edo bestearena ote arazoa, edota sistemarena berarena? Galderak biderkatzen eta sakonagotzen joango dira. Aldi berean, izen ona galtzen ari zen Estatu-nazio hura erakundetzeko ematen ari ziren pausoak herritar xumeenenganaino iritsiko dira, batez ere, 1876tik aurrera: gai honi abesten dioten bertsolariek mutilak soldaduskara joan beharra eta sistema foralaren indargabetzea loturik dauden egoerak direla azpimarratuko dute. Etxearen banaezintasunari eta seme-alaba bakarrean oinarritzen zen ondorengotza sistemari zuzenean eragingo dien beste faktoreetako bat hau izango da: etxe batean baino gehiagotan maiorazko zen semeak soldaduska egin edota gerrara joan beharko du eta etxea nork zuzendu eta gobernatu faltako da. Egoera honek, gainera, egoera sozioekonomiko okerrenean

zeudenei eragingo die: zozketan "irabazle" suertatzen zirenak, dirua izanez gero, ordainduta libre gera zitezkeen, baina pobreenek horrelako aukerarik ez eta horiek ziren agindua bete beharrekoak. Maiorazko sistemaren aurkakoa eta desberdintasun sozioekonomikoak bistaratzen zituen erabakia zen, beraz, hau.

Eskolak gaztelaniaren alde egingo duen apustua izango da bertsolari batzuek jasoko duten beste aspektu bat, hau ere espainiar estatu-nazioaren eraikuntzarekin lotua. Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegi, aztertu ditugun bertsolarien artean XIX. mende bukaeran eta XX. mendean aurrera bertsoak egin zituztenak izango dira gai honi tokia egingo diotenak. Gaztelania ikastea baino, euskara gutxietsiz –edo baztertuz- edo euskararekin lehian jarriz egitea joko dute desegokitzat bertsolariok.

Espainiar estatu-nazioaren presentzia areagotzeak eta nolabait honek euskal probintzietan –gu Gipuzkoaz ari gara- zuen interbentzionismoak gora egiteak Espainiarekiko harremana birplanteatzera eramango ditu hainbat gipuzkoar, eta horien artean, baita bertsolari batzuk ere. Espainiak euskal probintziekiko harremana eraldatu nahi duen neurrian, probintziek ere zalantzan jarriko dute honekin harremantzeko modua. Xenpelar, Pedro Mari Otaño eta Joxe Mari Lopetegi izango dira guk aztertu ditugun bertsolarien artean gai honi zuzenki helduko diotenak. Tradizionalismoa –gerora integrismoa-; XIX. mendeko errepublikanismoa; eta nazionalismoa eta XX. mendeko errepublikanismoa izango dira hauek proposatuko dituzten erantzunak. Erantzunak desberdinak izanik ere, berera ekarri nahi dituzten herritarrak berak izanik, erabiliko dituzten irudi eta tresnak ez dira itxuraz oso desberdinak izango, nahiz eta bakoitzak esanahi berezia eman. Goazen banan-banan eta pixkanaka-pixkanaka.

Xenpelar izango da eredu tradizionalaren erreibindikazioa egingo duena, baina hau kolokan dagoela ikusten duenean. Hau da, bere diskurtsoa egoera aldaketari ematen dion erantzuna da, ez da berez egoera orekatu batetik sortzen zaion hizketa. Espainiar liberal aurreratu edo progresisten interbentzionismoak, eta batez ere seiurteko liberalean hauek agertuko duten erlijioaren kontrako jarrerak, erreakzionarazi egingo dio Xenpelarri. Mudantzen kontra, "lengo legeen" alde egingo du, hiru probintzien batasuna azpimarratuz. "Lengo legeak" eta "probintziak", hona Xenpelarrek erabili zituen kontzeptu politiko giltzarriak, eta hauei loturik, katolikotasuna, hauek bere "leit motiv"ak, bere diskurtsoan azpimarratuko dituenak. Espainiatik hiru euskal probintziekiko jarrera bat hartzeak erantzuna ere hiru probintziek elkarrekin ematera eraman ditzake batzuk eta, areago, kristandadetik ere erantzungo du Xenpelarrek. Aita Santuari maiz egingo

dio erreferentzia bertsolari honek: hura Italiaren bateratze prozesuan sufritzen ari den persekuzioa ariko dira Espainian sufritzen kristau katolikoak.

Txirritak ere egingo die erreferentzia foruei, II. Errepublika garaian, adibidez, espainiar estatu eredua mahai gainean jartzen denean, errepublika bai baina foruekin eskatuko du. Txirritak foruak aipatzen dituenean, ordea, sistema foral klasikoa du gogoan, monarkia eta foruen arteko konkurrentzialtasuna errespetatzen zuena.

Sistema foralari lotuta, Gernikako arbolari egin behar diogu erreferentzia. Honi buruzko aipamenik ez dugu aurkituko Xenpelarrengan, bai ordea Txirritaren bertsoetan, baita Pedro Mari Otañoren bertsoetan ere: azken bi hauek sistema foralaren iraupenarekin lotuko dute Gernikako arbolaren jarraipena ere. Xenpelar 1869an hil zen. Baliteke Gernikako arbolaren zabaltzea sinbolo politiko gisa XIX. mende bukaerako kontua izatea gehiago. Edota Pedro Mari Otañok eta Txirritak-azken honek diferentzia gutxiagorekin- defendatzen duten foru-sistema eta Xenpelarrek defendatzen zuena desberdinak izatea. Pedro Mari Otañok, hain zuzen ere, Sabino Aranaren foruzaletasuna izango du gogoan: Espainiarekiko independentzia azpimarratuko duena.

Pedro Mari Otaño izango da Espainiarekiko harremanaz gogoeta egingo duen aztertu ditugun bertsolarietako beste bat. Bi erantzunbide nagusi emango ditu Pedro Mari Otañok bere bizitzan zehar: lehendabizi Errepublika –hau izango du kontzeptu giltzarri- espainiarraren baitan ikusiko ditu euskal probintziak; bigarren momentu batean, bere bizitzaren bukaera aldera, Euskal Herriaz mintzatuko da nagusiki, hau dierri edo patriatzat hartuz.

Errepublika izango da, beraz, Pedro Mari Otañok erabiliko duen lehenengo kontzeptu politiko berritzailea.

Forma politiko berrien pean eduki politiko zaharrak kabitzen direla azpimarratu nahiko du. Otaño horrela trantsizio graduala egiten saiatuko da.

Baina Pedro Mari Otañoren ekarpen nagusia kontzeptu politikoei dagokienez, Euskal Herria dierri edo nazio kontzeptuari eta euskal identitate edo izaeraren egituratzeari egingo diona izango da. Beste bertsolarien azterketan baino garrantzi handiagoa hartuko du Pedro Mari Otañoren kasuan urtez urteko denbora kronologikoaren neurketak. Izan ere, urte gutxitan, aldaketa nabarmena egingo du zizurkildarrak: euskal “gu”a Espainiaren baitan ikustetik, Espainiatik bereizita ez soilik ikusi, baizik eta defendatzera egingo du.

Ameriketan dela, 1900. urtetik aurrera, Euskal Herriari abestuko dio batez ere: Euskal Herriaren batasuna –tartean Ameriketako euskaldunak ere gogoan izanez-, eta Euskal Herriarekiko maitasuna goratuko ditu, euskara hartuz giltzarri eta lokarri. Zazpi probintziek famili bakar osoa eratuko dute, senideak izango dira euren artean eta ama izango dute euskara. Familiari lotutako hizkuntza eta kontzeptuak erabiliko ditu Pedro Mari Otañok egituratzen ari den errealitate zahar-berriaz hitz egiteko. Kontzeptu politiko berria eduki zaharrez, edo zaharberrituz beteko du horrela. Bi gauza egingo ditu nagusiki: batetik, arestian esan bezala, "Euskal Herria" kontzeptua dierri gisa edukiz bete, eta beraz honi lotutako identitate edo izaerari lotutako proposamena egin eta, bestetik, zein estrategia politiko jarraitu behar lukeen pentsatu. Hamar urtean Pedro Mari Otañok egindako bilakaera politikoa bere horretan kontuan hartu eta aztertzeko modukoa da.

Trantsizio politikoari dagokionez, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko harremanaz gogoeta egin eta proposamenak ekarri zituen eta guk aztertu dugun hirugarren bertsolaria Joxe Mari Lopetegi da. Erkala edo errepublika, "herriaren ahala" izango da Joxe Mari Lopetegik erabiliko duen hitz klabe nagusia, lege berri bezala ere izendatuko duena. Ahalegin guztiak egingo ditu Joxe Mari Lopetegik errepublika herri xehearengana hurbiltzeko. Horretarako, lehen Pedro Mari Otañok egina zuenaren antzera, errepublikaren eta sistema foralaren arteko paralelismoak azpimarratuko ditu. Herri xeheari sistema foralaren bentajen artean, soldaduskarik egin behar ez izatearena gogoratuko dio Lopetegik, eta egoera hura, Errepublikarekin errepika daitekeela adieraziko du nolabait. Errepublika zuhaitz batekin konparatuko du –Gernikako arbolari erreferentzia garbia eginez-. Herri xehearengana hurbiltzeko errepublikak "euskal ohiturak" mantentzeko aukera emango duela ere adieraziko du behin eta berriz bere bertsoetan.

Joxe Mari Lopetegik "erkalaz" gain, beste kontzeptu berri batzuk ere ekarriko ditu politikara: askatasuna edo "libertadia" izango da horietako bat. Errepublikari esker desberdin pentsatzeko askatasuna eta adierazpen askatasuna emango dira –gogoan izan Primo de Riveraren diktaduraren sentipen hurbila dutela errepublika aurrean-. Eta horretaz gainera, behin baino gehiagotan azpimarratuko du Joxe Mari Lopetegik zergatik defendatzen duen errepublika gobernu sistema gisa: bere ustez, denen ona bilatzeko modurik egokiena horixe delako. Euskaldunen batasunaren ideia ere behin baino gehiagotan azpimarratuko du Lopetegik. Honek ere, Pedro Mari Otaño eta Txirritaren gisa, familiari lotutako terminologia erabiliko du Euskal Herriaz hitz egiteko: ama Euskal Herria, semeak, familia… gisako kontzeptuak erabiliko ditu horretarako. Errepublikak batasun honi eutsi diezaiokeen arte,

sutsuki defendatuko du Joxe Mari Lopetegik. Errepublika barnean desadostasunak agertzen hasten direnean –erlijio gaiengatik, tendentzia moderatu edo aurrerakoiagoen artean- utzi egingo dio Joxe Mari Lopetegik bertsoak jartzeari –gerra zibila hasi arte bederen-.

Errepublikanismoa gidari politiko batzuekiko atxekimenduari esker zabaltzen saiatuko dira, fede kontua bailitzan, eta pertsonen sentimentuei dei eginez atxekimendu hori ziurtatzeko –oso modernoa gertatzen den ezaugarria, bestalde-.

Politikaren modernizazioa eragingo duten faktoreen artean beste bat, Europan eta nazioartean orohar estatu-nazioen eraikuntza prozesuek XIX. mendean izango duten indarra izango da. Kubako gerraren ondorioz eta espainiar monarkiaren gestio kaskarraren ondorioz espainiar ispiluan bueltan jasotzen zen irudia desatsegina zelarik, eredu berrien bila hasi ziren bat baino gehiago. Eredu berri hauek lagunduta, gutxiengo, nazio gabeko estatu eta abarren esperientziak gustagarriago izan zitezkeen ezagun zutena baino.

Eta ereduen artean, nola Amerika eta amerikar nazioak ez aukeratu? Batetik, bertan euskaldun ugari zelako XIX. mendean joana. Emigrazioaren esperientziak eragindako krisi pertsonalak azeleratu egin zuen hauengan identitateari buruzko galdera. Pedro Mari Otañok, Amerikako Panpetan 1900. urtean dela, hango onbu arbolari begira bere jatorria ekarriko du gogora. Pedro Mari Otañok berak adieraziko digu emigrante guztiek ez dutela berdin jokatzen, batzuk ahaztu egiten dutela nondik datozen, baina berak ez duela aukera hori egin garbi esango digu, nahiz eta honek sufritzera eraman edo, bestela ikusita, sufritzen duelako gogoratzen jarraitzeko aukera izan. Ahanztura da alternatiba bestela. Pedro Mari Otañok nahiago izango du gogoratu, islatuz gozatu[2378], Amerikaren ispiluan bere historia pentsatu eta bizi. Maila pertsonalaz haratago, Amerikak –Argentinak zehazki- bertako independentzia prozesuekin ibilbide posibleak eskainiko dizkie estaturik gabeko hainbat naziori eredu gisa.

Zeintzuk ote modernizazioak errealitatearen irudikapen edo errepresentazioan ekarritako aldaketa nagusiak, zeintzuk gizakiak bere bizitza "kontatzeko" eta honen inguruan errelatu edo kontakizun koherentea osatzeko giltzarriak? Aurreindustrializazio garaiko Gipuzkoan erlijioari bertsolariek ematen zioten garrantziak jarraitu egingo al du modernizazioaren baitan? Eta hala bada, zein eratan? Ekar dezagun ondoriotara gure azterketa lanaren laugarren eta azken atala.

[2378] "Recrear" aditzaren adiera bikoitza lagungarri litzaiguke hemen.

Modernizazioak Gipuzkoara sekularizazioaren zantzuak ekarriko ditu. Xenpelarrek hurbiletik ezagutuko ditu hauek. Batetik, Errenterira hurbiltzen diren frantsesak fedegabeak izango dira. Baina bertakoek ere ez dute guztiek sinestuko. Aldaketa hauek zein eragin izango dute Xenpelarrengan? Honek erlijioarekiko zuen atxekimendua indartu egingo du, baita gogortu ere, hau da, Xenpelarrek bizi dituen aldaketen aurrean erlijioan bilatuko du segurtasuna eta zimendua, erlijioaren papera, estatuaren partetik –sei urteko iraultzailearen bezperatan gaude- zalantzan jartzen denean. Erlijioaren alderdirik seguruenera, dotrinara joko du, baita moralismo zorrotzenekora ere. Bestetik, kristau izateagatik pertsegituak izan ziren eta martiri egin zituztenen bizitzak jarriko ditu bertsotan, haien eta beren errealitatea harremanetan jarri asmoz.

Bilintxek, Pedro Mari Otañok eta Joxe Mari Lopetegik, berriz, erlijioari loturiko hiztegi eta logika beste gai batzuei aplikatuko dizkiete –transignifikazioa-: neskatxei aingeru deituz, Sabino Arana Jesu Kristorekin konparatuz edo errepublikarekiko fedea izanez, hurrenez hurren. Modu batean, erlijio kontzeptuei esanahi berriak emanez, sekularizaziorako pausoak ematen dituzte horrela.

Modernizazioak dakartzan aldaketa hauen guztien aurrean, eta besteak beste erlijioarekiko harremana eraldatzen hasten denean, nola irudikatu euren buruak, nola zentzua eman, nola sentidua eta edukia bizitzari? Industrializazioa eta ekonomiaren aldaketak, emakumearen eta gizonaren papera eta bien arteko harremanak askatasun eta maitasunean oinarritzea, gizartea antolatzeko garaian eta politikan gertatu diren aldaketa guztiak kontuan izanda –indibidualismoa, hiritartzea, Estatu-nazioaren egituratze prozesua, etab.-, sekularizazioa martxan denean, zein galdera dira indartzen direnak?

Erronka berriei erantzuna emateko, diskurtso berriak eratu beharko dituzte. Xenpelarrengan ikusi dugu aldaketa horiek erlijioan gotortzera eraman zutela. Ez zen hau izan, ordea, erantzunbide bakarra. Pedro Mari Otañorengan indar biziz agertuko den galdera izaera edo nortasunarena izango da: bai alderdi pertsonalean eta baita kolektiboan ere. Pedro Mari Otañorengan identitateari buruzko galderak indarra hartzeak zerikusia izango zuen Ameriketara hiru alditan joan behar izanarekin ere. “Gu” eta “besteak”en arteko desberdintasunen maila handitu egingo da gainera modernizazioarekin batera. Xenpelarrek frantsesak ikusiko ditu Errenterin, “kastellanoa” ere aipatuko du; Pedro Mari Otañok “moruak” eta Kubako indigenak ere izango ditu aipagai; Txirritak gallegoak, andaluzak, kastellanoak, etab. Nolabait esateko, “desberdinaren” esperientzia handitzea ekarri zuen modernizazioak. “Gu” eta “besteak” 1etik 10erako desberdintasunaren eskalan

jarriko bagenitu, tartea handiagoa litzateke orain modernizazio aurreko landa eremuan baino. Honek beronek "gu"aren inguruko galderak pisu handiagoa hartzea ekarriko zuen. Egituratze politikoaz mintzatu garenean Pedro Mari Otañorengan eboluzio bat ikusi dugun bezala, identitate kolektiboaz ari garela ere, ez ditu gauzak beti berdin ikusiko Pedro Mari Otañok. Espainiaren baitan ikusiko du "gu"a lehendabizi, baina 1900. urte ingurutik aurrera desberdindu egingo ditu Espainia eta Euskal Herria. Euskal izaera edukiz betetzen saiatuko da Pedro Mari Otaño. Euskara izango da Otañorentzat giltzarrietako bat. Ama izaera emango dio behin baino gehiagotan bere bertsoetan eta euskaldunak bereiztuko dituen elementu nagusia izango da.

1890etik aurrera batez ere, Ameriketatik bigarrenez bueltan etorri eta Donostian bizi zelarik, euskararen egoeraz eta iraupenaz kezkatuko da, eta euskararekiko maitasuna sustatzen saiatuko da. Huraxe izango zen Donostian *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan biltzen zen liberal foruzale taldearen kezka ere. Euskararen alde egin behar dena lana dela ere azpimarratuko du Otañok: kexa gutxiago eta ekintza gehiago. Pedro Mari Otañok euskarari paper egituratzailea ere emango dio: foruak baino garrantzitsuago egingo du, hiztunak hizkuntzaren menpeko egingo ditu –ama eta seme-alaben arteko harremana, maitasunezkoa bai, baina menpekotasunezkoa ere irudikatuko du-, eta kontzientziako gai ere bihurtuko du euskara. Ondorioz, seme leial eta desleialak bereiztuko ditu, hauek hizkuntzarekiko duten harremanaren arabera. Bidenabar euskarari lotutako beste gai batzuk ere tratatuko ditu Pedro Mari Otañok: euskararen transmisioa, eskola eta euskara, euskararen kontra ari direnez ere mintzatuko da –tartean Miguel de Unamuno-, etab. Euskara bere bertsoetan objektutzat hartzeak, bertsoak osatzerako garaian erabiliko duen euskara zaintzera ere eramango du: Sabino Aranaren garbizalekeriaren eragina aurkituko dugu nabarmen bere bertsoetan.

Hizkuntzaz aparte, euskal lurra eta paisaia –mendialdekoa, bere jaioterriari lotua- ere aipatu eta deskribatuko ditu Otañok, baita hauekiko maitasuna azpimarratu ere. Euskal historiari ere egingo dio erreferentzia, mitoa –euskaldun eta erromatarren arteko borrokak- eta pertsonaia historikoak –itsasgizonak batez ere: Legazpi, Txurruka, Urdaneta, etab.- landuz bere bertsoetan. Barrualdeko paisaia menditsua "euskal" paisaia egingo du Otañok, nahiz eta gero, pertsonaia historikoen bila egiten duenean, kostaldera joko duen. Euskal izaeraren beste ezaugarrietako bat –edo desira agian?- euskaldunen arteko batasunarena izango da.

Letra larriz idazten den Historiaz gain, historia txikiari, errepikatzen denari, ohiturei ere egingo die erreferentzia Otañok. Eguneroko bizitzan ere jokatzen da euskaldunen iraupena.

Identitate kolektiboaz galdera XX. mendean bertsoak jarri zituzten eta guk aztertu ditugunetako beste bi bertsolarik ere egin zuten: Txirrita zen bata, Joxe Mari Lopetegi bestea. Txirritak, erantzun "zaharra" emango dio galdera honi: baskokantabrismoaren bidetik emango dio "errespuesta" galdera honi, eta Tubal ere aipatuko du euskaldunen jatorriaz mintzo denean[2379]. Euskarari ere garrantzia emango dio.

Joxe Mari Lopetegik, berriz, nahiz eta euskaldunen jatorri garbiaz aritu, herritar egingo eta onartuko ditu hala ez direnak ere, tartean, Espainiatik etorritako etorkinak. Andoaingo herriko parte egingo ditu nola batzuk, hala besteak: bai euskaldunak, baita erdaldunak ere. Euskara ere amatzat agertuko du Joxe Mari Lopetegik. Errepublika garaian euskara eta errepublikanismoa bat eginda agertuko ditu Lopetegik, baita euskaldunen batasuna ere. Eskola, berriz, erdaltzailetzat joko du. Hala ere, Joxe Mari Lopetegiren proposamena honako hau izango da: gaztelania galdu gabe, euskaraz ongi ikastea. Euskal ohiturei erreferentzia gehien egiten dizkion bertsolaria da aztertu ditugunen artean: segur aski aldaketa gehien ikusitakoa ere bera izango da, eta ohiturez mintzo denean, zahar-berritutako elementuei egiten ari zaie erreferentzia. Bere ustez, errepublika izango da euskal ohiturak mantendu daitezen berme nagusia.

Bada aztertutako bertsolari ia guztiek erreferentzia egingo dioten beste gai bat ere: batasunarena. Gure ustez, bi eratara ulertzen dute hau. Batzuek –Xenpelar, Pedro Mari Otaño edo Txirrita kasu- probintzi ezberdinen arteko batasunari buruz ari dira nagusiki, baita Bidasoaz alde bateko eta bestekoen arteko euskaldunen artekoari buruz ere. Joxe Mari Lopetegik, berriz, batasunari erreferentzia egiten dionean, ideologia ezberdinen artekoari egiten dio aipamena. Aldaketa politiko edo trantsizio hauen guztien aurrean indar zentripetuei emango diete lehentasuna bertsolariek: direla euskaldunen arteko, direla ideologia desberdinen arteko, baina beti euskal barrutian kontuan hartuz.

Ikusi dugu lehendabizi aurre-industrializazio baino lehenagoko landa eremuaren egoera zein zen. Ikusi dugu gero ere, modernizazioak ekarri zituen hainbat eta

[2379] Txirritak garaikide dituen gertakizunei buruz ere jarriko ditu bertsoak: lehen mundu gerra, 1912an Kantauri itsasoan izan zen ekaitza, Baztanen izan ziren uholdeak, Paulino Uzkudun boxealariaren gorabeherak… bere garaiko hainbat gertakizunen kronika egiten du bertsolari honek. Bertsopaperetara egunkarietan tratatzen zituzten gaiak ekarriko ditu Txirritak.

hainbat aldaketak nola eragin zuten errealitate hartan. Industrializazioak ekarritako aldaketa ekonomikoak ez dira aldaketa ekonomiko huts izango, bestela baizik, bizitzako hainbat esparrutan eragingo dute. Guk gure azterketan ikusi bai baina aztertu ez ditugun modernizazioari lotutako hainbat elementu ere kontuan izan beharko genituzke hemen: ikuspegi antropologiko batetik gizakiaren izatean modernizazioak eragiten dituen aldaketak dira hauek, sakoneko iraultza dakartenak. Modernizazioak dakarren kontzientzi askatasunak zer nolako bidea egin zuen herri xehearen baitan? Errealitatearekin harremantzeko bidean zein toki hartzen joan zen arrazionalitatea eta zientzia? Eta kontuan hartu beharko genuken baina landu ez dugun beste alderdi bat: ezagutzaren izaera, alfabetatze bideak.

Aldaketa hauen guztien aurrean bertsolari guztiek ez dute jarrera bera hartuko. Berrikuntzen kontra egingo dute batzuek aldaketa hauek dakartzaten alderdi ezkorrak azpimarratuz –Xenpelarrek kasu- edota zaharra idealizatzera joko dute beste batzuek –Pedro Mari Otañok kasu-, edota berrikuntzen alde aktiboki kantatuko dute beste batzuek –J.M. Lopetegik, eta bere neurrian, Bilintxek ere bai-. Deseroso sentitzen diren bertsolariak diskurtsoaren mailan erantzun bat egituratzen saiatuko dira. Beste batzuek, berriz, gogokoago izango dituzte jaiotzen ari diren errealitate berriak eta herria eskutik hartu eta horietara bideratzen saiatuko dira.

## 4.1.Aztertutako bertsolariek egindako identitate proposamenak

Orain artean ikusi ditugu modernizazio prozesuak eragindako aldaketa nagusiak. Orain aztertutako bertsolariek egindako identitate proposamenak bereiztuko ditugu. Bertsolariak herri xehearengandik maila bat gorago jarriko genituzke, gertatzen ari denaren aurrean diskurtsoa egiteko beharra sentitu eta egiteko gai izango direlako. Baina, aldi berean, herri xehearen parte ere badira –beren ezaugarri sozioekonomikoak, lanbideak, etab. kontuan hartzen baditugu behintzat. Eta, gainera, beren bertsoak herri xeheak erosten zituen neurrian, hauen ideiak ongi hartuak izan ziren seinale. Anbibalentzia puntu bat izango dute beraz bertsolariek: herri xeheak baino gaitasun gehiago dute diskurtsoa osatzeko, baina aldi berean, ez diote herri xehearen parte izateari uzten.

Bertsolariek Gipuzkoan gertatu ziren modernizazio prozesu anitz haien aurrean zentzuari eusten lagundu zieten diskurtsoak gorpuztu zituzten, beti ere modernizazio eta industrializazio aurreko elementuei erreferentzia eginez eta proposamen integratzaileak plazaratuz. Horretarako jarraitu zuten bide bat eredu

edo tipoak sortzea izan zen. Ordura artean bertsolariek errealitate zehatzei, izen eta abizendunei abesten bazieten, bertsolariak orain "Oiartzungo neskatxei", edo "Hernaniri", abestuko diete, edo "Euskal Herriari". Abstrakzio maila handiagoko diskurtsoa izango da Xenpelar, Bilintx, Pedro Mari Otaño edo Joxe Mari Lopetegirena, Pello Errotarenarekin konparatzen badugu. Diskurtso abstraktuagoak harreman mota abstraktuagoei egingo die tokia.

"Eredu" edo "tipoak" sortzerakoan, lau alternatiba nagusi izango ditugu, hiru luzera jarraituko dutenak, bat, bazterrera geratuko dena.

Xenpelarrek gerora integrismoak jasoko duen bidea atxurtuko du. Modernizazioaren eta aldaketen esperientziak atzera begira jarriko du Xenpelar. Atzera begiratzerakoan, ordea, aldaketen kontrako betaurrekoak jarrita egingo du. Honek lehena ere "desitxuratuta" ikustera eramango du: katolikotasun zorrotz eta doktrinal baten alde egingo du sekularizazioaren lehen zantzuak sumatzen dituenean –modernizazio aurretik herritar xeheek hain zorrozki bizi ez zutena-. Alor politikoari dagokionez, probintziari lehen herritar xeheen artean ez zuen tokia aitortzera eramango du inguruan bizi duen giro nahasiak, lege zaharrei indar berezia aitortuz, eta baita probintzien arteko elkarlanari ere. Maila apalagora joz, emakume eredu jakin bat definitzeko ahalegin berezia egingo du –lehenengo gurasoen menpekoa, gero senarrarena-. Bere hurbileko inguruan ikusten duena ez du gustuko eta bertsopaperak erabiltzen lehenengotakoa izango da aktiboki modernizazioaren kontrako diskurtsoa zabaltzeko. Hala eta guztiz ere, itxuraz behintzat, Xenpelarrek proposatuko duen diskurtsoak ez du lehenaldiarekin puskatuko: lehenaldira buelta proposatuko du esplizituki, hura berrindartu egin nahiko du, nahiz eta bide horretan, lehenaldi "zahar-berria" eraiki.

Pedro Mari Otaño modernizazioaren olatuak gainetik pasako du. Nola egin kontra halako indarrez hirutan Ameriketara eraman duen itsasoaren indarrari? Kontra ez, alde egin behar nahitaez Otañok, baina zein portutatik atera zen sekula ahaztu gabe. Pedro Mari Otañok ere atzera botako du begirada, baina ez inoren kontrako diskurtsorik eraikitzeko. Honek betaurrekoen ordez, Amerikaren ispiluaren begiradapean begiratuko dio Euskal Herriari. Argentinan bizitako krisi pertsonalek baldintzatuta, Argentinan ezagututako kultura desberdinak eraginda –tartean hizkuntza desberdina-, baina baita Ameriketako eta Argentinako independentzia prozesuak bizkortuta ere, diskurtso berritzailea egingo du Otañok. Bere buruan Argentina eta Zizurkil integratu nahi ditu, behar ditu, bizitzen jarraitu nahi badu. Amerikaren ispiluan onbuan intxaurrondoa ikusi zuen bezala, baserri txuriak, aitona-amona maitekorrak, seme-alaba zintzoak, herri nortasundunak "ikusiko"

ditu. Pedro Mari Otañok lehenaldiari tokia egiten dionean, emigrazioaren ispiluak "desitxuratutako" lehenaldi idealizatuari egingo dio tokia: kanpora ez ezik, bere buruan barnera ere esentzien bila egingo duen bidaia izango da Otañorena. Pertsonifikazioa eta orokortzea izango dira Pedro Mari Otañok bere bertsoetan maiz erabiliko dituen baliabideak. Kontzeptu zaharrak eduki berriz beteko ditu, edota kontzeptu berriak eduki zaharrekin identifikatzen saiatuko da. Honek ere, beraz, ez du esplizituki bederen hausturarik ekarriko bere diskurtsoan –momentu batean Espainiarekiko lotura puskatu egingo du, baina, alderantziz, euskal izaerari dagokionean, jarraitasuna azpimarratu nahiko du-. Pedro Mari Otañok Bilintxen uretatik edango du: bai maitasun gaiei dagozkien kontuetan, baita bere bertsoen puntu batzuk erabiltzerakoan ere. Lastima ez dugula Bilintxen bertsorik jaso gai politikoez ari zela.

Joxe Mari Lopetegi izango da berrikuntzarik nabarmenenak ekarriko dituena. Honek aurrera begiratu nahiko du: luzerako begirada du, gainera. Largabistak gustukoago izango ditu honek betaurreko eta ispiluen ordez. Errealitate berriak, balio berriak, horiek biziaraziko dute Joxe Mari Lopetegi: erkala –herriaren ahala- eta askatasuna gisako kontzeptuak izango ditu bizigai. Hala eta guztiz ere, Joxe Mari Lopetegi ere saiatuko da dakartzan proposamen berriak lehenagoko errealitateekin parekatzen, dela euskal ohiturak goraipatuz, errepublikaren arbola Gernikakoarekin konparatuz, edota euskararen amatasuna azpimarratuz. Honek ere, nahiz eta proposamen berritzaileak ekarri, ez ditu hausturak gogoko.

Eta zer esan Pello Errota eta Txirritari buruz? Zein tresna erabiliko dituzte hauek errealitatera hurbiltzeko? Begiak. Bitartekotzarik gabe –hau esaterik badago, jakina!-. Edo hobeto esan, modernizazioak dakartzan bitartekotzarik gabe: eurek, erabiltzekotan, modernizazio aurreko begiak izango dituzte. Aldaketak ikusi, ikusten dituzte, konturatu, konturatzen dira. Baina aldaketa hauen aurrean ez dute beren burua "birsortzeko" indarrik xahutuko, ez dira aldaketen kontra edo alde jarriko. Modernizazioak dakartzan aldaketen ikusle izango dira, ez aktore. Eta horrexegatik, aukera hau luzera marginala eta bazterrekoa izango dena da. Lekuz kanpo geratuko dena, hainbat intelektualek baztertuak izango direnak, formalki poesiatik urrun eta edukiz garrantzirik gabeko gauzak tratatuko dituztelako, giza ezaugarri baxuenak eta likitsenak kantagai hartuko dituztenak. Lotsa emango diete zenbaiti halako bertsolariek. Hobe ezkutuan gorde horrelakoak.

"Pixkanakako modernizazio prozesuak lekua egiten dio trantsizioz jositako identitate sorkuntza integratzaile bati": izenburu hau eman diogu bukatzear dugun puntu honi. Hiru identitate proposamen ikusi ditugu, hirurak edukietan

berritzaileak, hirurak formetan jarraipen itxura mantendu eta azpimarratu nahi dutenak. Eta laugarren bat, sustraiak sakonen dituena, pixkanaka, ihartzen joango dena.

# 5.XIX. mendeko bertsolaritza Gipuzkoaren modernizazio prozesuaren baitan

Egia esan gure doktorego tesiak hasiera batean bere azterketaren atalean, puntu bat gehiago zuen[2380]. Bertsolaritza eta bertsopaperak iturri gisa hartzeaz gainera, azterketa objektutzat ere hartu nahi genituen. Bertsolariei eurei galdetu nahi genien zein ikuspegi zuten egiten ari zirenaz, beren bertsogintzaz eta bertso-produkzioaz.

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Komunikazio Saileko kide naizenez, bagenuen interesa XIX. mendeko bertsopaperak orduan indartzen ari zen prentsaren argitalpen fenomenoarekin zuen lotura ere begiztatzeko: euskaraz osatutako bertso sail haiek zein harrera zuten herritar euskaldunengan? Proto-prentsa gisako zerbait ote?

Beste intuizio bat ere bagenuen. Gaur egunetik bertsolaritzarekin tratu gutxi dutenek uler dezakete hau tradizioaren gordailu gisa, elementu tradizional gisa. Hala ote zen XIX. mendeko Gipuzkoan? Bertsopaper batzuek, bertsolari batzuek, herritar xehenen modernizazioan paper aktiboa izan ote zuten? Bilintxek maitasunari kantatzen dionean, ez ote ezkontza tratuak alboratzen ari[2381]? Pedro Mari Otaño euskarari buruz mintzo denean, ez ote herritar asko berezkotzat zuten hizkuntzari erreparatzera gonbidatuko? Xenpelar trenbideak eraikitzera etorri direnen kontra mintzo denean ez ote modernizazioaren kontrako erantzun atzerabegirako "berritua" zabaltzen ari? Erroak atzerago dituen fenomeno bat erabiliz, bertsopaperen forma asmatuz baina puntu eta errimak mantenduz, ez ote zituzten hainbat bertsolarik ideia berriak zabalduko?

---

[2380] Laugarren ataleko laugarren puntuaren atzetik, "Modernizazioak eragindako aldaketak mentalitate eta errepresentazio edo irudikapenen alorrean" puntuaren atzetik, bertsolaritzaren azterketari lotutako puntua aurreikusia genuen. Hogeita hamar bat orrialde ere baditugu aztertutako sei bertsolariek bertsolaritzaz eta euren bertsogintzaz esandakoak jasoz. Lanaren bolumena kontuan hartuz eta gure indar urrituak ikusirik beste baterako uztea erabaki genuen atal hau: artikuluren bat edo osatzeko asmoarekin, behin doktorego tesia bukatutakoan.

[2381] "Maitia nun zira" gisako kantuek ere antzeko errealitateak jasotzen dituzte.

Aldi berean forma zaharretan ideia berriak zabalduz, ez ote dituzte aipatu bertsolariek hirietako biztanle modernoagoak bertsolaritzara erakarriko? Ideia berrien bitartez, zahar itxura zuten formetara?

Bestalde, bertsolari tradizionalago zirenek –Pello Errota kasu- bertsopaperen formetan behar zaharrei erantzungo diete, landa eremuko komunitateek zituzten beharrei.

Hortaz, forma eta eduki kontua izango da: forma zaharrak –bertsoa-, forma zahar berriak –bertsopaperak-, ideia zaharrak –ezkontza tratuak, apustuak…-, ideia berriak –maitasuna, euskara, politika-, nahasian aurkituko ditugu aztergai dugun ehun urteko tartean. Herria osagai ezberdinez osatzen den moduan, publiko ezberdinak izango dituzte bertsolariek neurri batean, publikoak partekatuko dituzte beste neurri batean, bertsolari batzuen eta besteen bertsopaperak eskuz esku ibiliko dira mota ezberdinetako herritarren artean. Bat gatoz Maitane Ostolazaren hitzekin bertsopaperez ari dela *"¿O fueron más bien un vehículo de expresión popular, un espacio híbrido en el que los valores, imágenes y símbolos tradicionales se combinaban e interactuaban con otros procedentes de la ciudad y asociados a la política moderna?"*[2382].

# 6. Zenbateraino dira adierazgarri iritsi ditugun emaitzak?

Ikerketan ari ginela etengabean burura etorri zaizkigun galderen artean horixe aurkitzen zen. Egia da lan honek azterketarako aukeratutako sei bertsolariak hobeto ezagutzen lagundu digula. Bere bertsoen bitartez, beren izatera hurbiltzen saiatu gara. Lehendik eurei buruz ezagutzen genituen datu biografikoez gain, beren bertso-produkzioaren azterketak ahalbideratu digu hurbilpen hau.

Aukeratutako sei bertsolari hauek zenbateraino dira ordea gipuzkoar herriaren eta herritarren ordezkari? Zertan datoz bat, zertan dira desberdin? Legitimoa den arren, zergatik bilatzen ditugu beti ahalik eta gehien zabaldu eta aplikatu daitezkeen ondorioak gure azterketetan?

Guztiak ziren gizon. Guztiak gipuzkoar, guztiak XIX. mendean jaioak. Guztiak izan ziren pobreak, maizter. Guztiak ziren bizimodua lan eginez ateratzen zutenak.

[2382] OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular…", op. cit., 109. or.

Guztiek zuten euskararen gaineko ezagutza eta bertsotarako erraztasuna. Guztiak izan dira beren denboratik berreskuratuak eta guregana ekarriak.

Zertan ziren, ordea, desberdin? Alderdi askotatik begiratuta desberdinak ziren aztertu ditugun bertsolariak.

Indalezio Bizkarrondo, Bilintx, donostiar kaletar arotza izango dugu. Hiri liberal modernoaren haizeak izango dira Bilintxek txikitatik arnastutakoak, herritar pobre langilearen talaiatik, hori bai. Landa eremuetatik hirira lanera hurbildutako neskatxa gazteei kantatuko die behin baino gehiagotan Bilintxek, Antzoki Zaharreko atezain izanik, hango antzerki eta kultur mugimenduko hainbat ezaugarri beretartuz. Bilintxen ahoz donostiar hiritar artesau pobreen ikuspegia jaso ahal izan al dugu?

Jose Frantzisko Petriarena, Xenpelar, Errenterian Gipuzkoaren aurre-industrializazioan parte hartu zuen fabrikako langilea genuen. Frantsesen presentzia eta eragina ezagutu zuen batez ere Xenpelarrek gertutik: ez zuen haien bizimodu, itxura, ohitura eta hizkuntzarik ezagutzen. Ez zituen begibistan zituen aldaketak gogoko. Bestela baizik, kontra agertuko da, horretarako bertsopaperak erabiliz. Ezinegonez bizi zuen espainiar estatu liberalaren indartzea, erlijio gaietan liberal aurrerakoiek aurrerapausoak ematen zituztenean batez ere, seiurteko iraultzailean kasu. Erlijioan bilatuko du babesa Xenpelarrek, erlijo dogmatiko doktrinal seguruan. Aurreindustrializazioan parte hartu zuten lehen fabriketako langileen ahots ote Xenpelar? Langile haiek guztiek horrela pentsatzen ote zuten?

Landatar eremuaren ordezkari ote Pedro Elizegi Maiz, Pello Errota? Asteasun jaio eta hila, "Ernioko munduaren" bihotzean, errotaria ofizioz, landatar bizitzaren isla ote? Pello Errotak ez du landatar bizimoduaz hitz egiten, ez du horretaz diskurtso egituraturik agertzen: bizi egiten da landatar eremuan eta hori du eguneroko ingurua. Ez du landatar eremuaren galera kantatuko edo nostalgiaz ez da "mundu hari" kantari hasiko, berea baitu mundu hori, mundu hari zor zaio, hartan du zentzua bere bizitzak. Inguruan, baina ez hurbilekoegian, aldaketak gertatzen ari direla jabetzen da Pello Errota. Gure ustez, ez du bere burua aldaketa hauei jarraitzeko gai ikusten –besteak beste, adinagatik- baina ez du hauen kontrako jarrera aktiborik ere hartuko. Eremu landatarrean bizi zirenen begi-ahots ote Pello Errota?

Pedro Mari Otaño, berriz, nahiz eta Zizurkilen jaio, Ameriketan, Argentinan lehenengo, Donostian hamar urtez gero eta azken urtetan Argentinan bizi eta hil zen emigrantea dugu. Modernizazioaren baitan, donostiar giro liberalean gustura

aurkituko da Pedro Mari Otaño. Bertan idatziko du bere bertso-produkzioaren zati garrantzitsu bat. Emigranteen eta herriminaren ahots ote Pedro Mari Otaño? Errepublikazaleena lehenengo eta nazionalismora hurbiltzen direnena gero?

Txirrita mutil-zaharren ahots ote? Bizimodu tradizionalean jaio eta hazia, XX. mendeko lehen hereneko aldaketak ikusi eta ulertzen saiatu zena, nahiz eta sustraiak bere horretan mantendu?

Joxe Mari Lopetegi, berriz, bertsoak mitinetan kantatuko dituen bertsolari politikoaren ahots izanik, Gipuzkoan garai hartan ziren errepublikarren ahots ote?

Neurtzerik bai zenbateraino ordezkatzen dituzten herritar xumeak? Zaila da hau. Leporatu dakigukeena agian, Donostia eta donostialdeko bertsolariak direla gehienbat aukeratu ditugunak: Donostia, Errenteri, Asteasu, Zizurkil-Donostia-Argentina, Hernani-Altza, Irun. Donostialdea eta Ernio ingurukoak dira, beraz. Gipuzkoan modernizazioak izandako eragina aztertzeko Arrasate eta Bergara, Tolosa, edota Eibar inguruko bertsolariren bat aukeratzea ez legoke gaizki. Era honetako azterketaren batekin osatu beharko genuke orain artean egindakoa. Honetaz gainera, Xenpelarren eskutik Gipuzkoaren aurre-industrializazioari lotutako fenomenoa aztertu ahal izan dugu, baina balego, lehen industrializazioan langile izan zen bertsolari gehiagoren azterketa egitea ez legoke gaizki. Hala eta guztiz ere, nonbaitetik hasi behar, eta kontraste gisa aukeratutako bi guneak, eta batez ere, sei bertsolariak –beren ezaugarri bereizgarri eta propioekin- egokiak izan direla uste dugu.

Bada beste kontu bat bertsolaritza iturri gisa erabiltzerakoan lortzen dela azpimarratu nahi genukeena, bai behintzat, guk erabili ditugun bertsoen tankerakoak erabiltzen direnean: gertakizunen historia egiteko baino, kronika erako historia egiteko baino, eguneroko bizitzaren historia egiteko egokiago gertatzen direla bertsoak. Herritar xehenen hurbilen dagoen eguneroko bizitzaren historia, hain zuzen ere.

# 7.Lehenaldiari askatasunez begiratzeak etorkizunari bidea irekitzen dio

Guk “betikotzat” jo ditugun hainbat ezaugarri eta irudi estereotipatu une eta espazio jakin batzuetan, behar zehatz batzuei erantzuna emateko sortuak izan zirela ikusi dugu, eta sorkuntza hauetan interes jakinak egon daitezkeela ere bai. Gure munduko uste baino errealitate gehiago dira XIX. mendean sortuak. Non aurkitzen

da gure iraganaren muga[2383]? XIX. mendean ote? Guk ezagutu genituen XIX. mendean jaio ziren pertsonak ezagutzen zituzten pertsonak. Orain ordea, XXI. mendean izaki, XX. mendea izango ote da gure gazteen iraganeko erreferentzia muga? Hortik atzeragokoa, "betikoa" ote? Denbora, honen joana eta igarotze honen pertzepzioaz pentsatzea beti izan dut gogoko, bizitzaren joanaz, eta finean bizi izandakoaz hausnarketa egitea baita.

Ikasitakoak guregan aplikatuz, bizitzaren aurrean izan ditzakegun hainbat jarrera eta errealitatea ulertzeko erabil ditzakegun hainbat giltzarri identifikatzen lagun diezaguke azterketa honek. Ikuspegi hori garai jakin batean emandako erantzun gisa mugatuz, askatasuna eman diezaguke honek egoera berrien irakurketa garbiagoa egin eta erantzun berriak bilatzera bultzatzeko, baldintzape inkonszienterik gabe, baita beldurrik gabe ere. Edota, modu berean, egun ditugun hainbat erantzun erlatibizatzen ere lagundu diezaguke honek.

Helburua ez da bitxikeria eta berezitasun bila azterketa bat egitea, ezta mundua horrela bizi zuten eta dutenak gainerakoengandik bereiztu eta lehen eta bigarren mailako herritarrak egitea ere, hauek hobeto ulertzea baizik, beren alderdi miresgarri eta miseriekin, gainerakoen pare, beren esistentzia aitortuz eta eskertuz batzuetan edo onartuz, besteetan, eta modu honetan, giza izatearen azterketa orokorrean ere sakonduz.

Jatorrira jotzea, izan pertsona baten jatorrira, herri baten jatorrira, gizarte baten jatorrira jotzea, ez baita gero eta estu eta zailagoa den bidea egitea, bestela baizik, aniztasunera gure begi-bihotzak irekitzea eta unean-unekoaren kontingentziaz ohartzea. Eta gehiago, jatorrira, orainaldi edo etorkizunera begira jotzen dugunean.

# 8.Doktorego tesian arriskatu izanaren ondorioak, sortutako zalantzak, gure lanaren mugak

Lan honetan onartu genuen lehenengo arriskua iturriena izan zen. Hasieratik genuen galdera bat buruan eta doktorego tesi honen bukaeran ere oraindik hor

[2383] "Gure iraganaz" ari garenean, belaunaldiz belaunaldi elkarri transmititzen diogun iraganaren ezagutzaz ari gara, ez hainbeste historialariek beren azterketetan zehazki landu dezaketen iragan "akademiko" horretaz. Besterik da galdetzea zenbateraino lortzen dugun historialari "akademikoek" gure ikerketak gizarteratzea eta transmititzea. Nork egiten du historiaren transmisioa? Guraso eta aitona-amonek? Eskolak? Unibertsitateak? Gizarte bezala, herri bezala, zenbateraino goaz gure iraganaren ezagutzan sakontzen?

dabilkigu: bertso hauei buruz egin dugun irakurketa behar adinako kritikotasunez egina ote? Ustez saiatu gara hainbat neurri hartzen hau horrela izan dadin –berrikus ondoriotako 3. puntua-, baina hala ere, baliteke hobetzen joan beharreko aspektu bat hau izatea.

Iturriei lotuta hona bururatutako beste galdera bat: bertsolari bakoitzari buruz iritsi zaizkigun bertsoetatik abiatu gara azterketa egiteko. Eta beste era bateko bertsoak sortu bazituzten eta guganaino iritsi ez badira? Gure burua lasaitzeko esan beharko dugu Historiak beti jokatzen duela arrisku horrekin –egia da neurri ezberdinean gertatzen dela hau baina-. Guganaino iritsi denari esker –dena iritsi ez dela onartuz- egiten ditu interpretazioak Historiak.

Lan honetan onartu genuen bigarren arrisku nagusia iturriek adierazten ziguten norabide berriari heltzearena izan zen, hau da, nolabait esateko, planteamentu aldaketa egitea, identitatearen azterketatik modernizazioaren azterketa egitera egindako bira. Honek besteren artean huts bat egitera eraman gaitu: identitateaz idatzitakoaz gainera, euskal historia garaikideaz, eta zehazkiago Gipuzkoaren modernizazioaz landutako historiografia ezin izan dugu nahi genukeen adinako zehaztasunez landu. Beste irakurketa mota batzuetan gehiago sakontzeko gogoz ere geratu gara: filosofia eta soziologiaren alderditik identitatea eta modernizazioa gisako kontzeptuetan gehiago sakontzeko gogoz. Beste baterako utzi beharko dugu hau.

Gure lanaren mugen artean aipatu dezagun bertsoen aipuei toki gehitxo eman diegula agian okasioren batean. Zergatik? Ahotsa gutxitan eman zaien iturriak izanik, gainerrepresentatuta izango dira agian gure doktorego tesian. Haien ahotsetan esan ez dutenik ez jartzeko, nahiago izan dugu euren hitzak errespetatu.

Ematen digu halako kezka pixka bat errealitatearen alderdi diskurtsiboari halako indarra emateak. Aurrez esan dugun bezala, errealitateak diskurtsoan eta diskurtsoak errealitatean eragiten duela kontuan izanik ere, ez dugu ahaztu behar bizitza erabaki eta ekintzetan gauzatzen dela batez ere. Historiaren alderdi diskurtsiboak, beraz, beharrezkoa du ekintza eta gertakizunak aztertzen dituen historia ere. Osagarri behar dute: elkar ukatu baino elkar osatzen asmatu behar dute. Demografia historikoak aztertzen dituen zentso eta padroiei, adibidez, ahotsa jartzen diete bertso hauek; edota historia politikoari ideia politiko berrien zabalkundea nola eman zen jarraitzeko pistak eskaintzen dizkiote. Baina ikuspegi guztiak dira beharrezko.

Bertsoek diskurtso gisa dituzten bereizgarritasunak ere kontuan hartu beharko genituzke: bertsolariek ez dizkigute askotan arrazoiketa luzeak agertzen, ez dituzte argumentuak bata bestearen atzetik idatzizko formetan aurki genitzakeen moduan lotzen. Batzuetan puntu batean egiten duten aipamena, forma trinkoan, nahikoa dute buruan dutena adierazteko. Baina guk, aztertzaile gisa, nahikotzat eman behar al dugu hori? Eta bestetik, batzuetan aurkitu ditugun ideiak bertsolari bakarrari eta bertso bakarrean irakurri badizkiogu, zenbateraino kontuan izan behar dugu honek duen balioa eta errepresentagarritasuna? Honi aurkitzen diogun soluzioa ikertzen jarraitzea eta ikertutako iturrien bolumena handitzen joatea da.

Eta azkenik, mugen artean, beste hau ere aipatu behar: bertsoak aztertzerakoan bertso bakarrera, batzuetan baita puntuetara jaitsi izanak, bertso sailaren perspektiba lausotzera eraman gaitu batzuetan. Ez dugu denek esango, baina bertso sail batzuek bere horretan, bere neurrian, ustiatu dituguna baino gehiago egitea merezi zuten agian.

# 9.Doktorego tesian arriskatu izanaren ondorioak, zabaldutako ate berriak

Aurrerantzean egin daitezkeen azterketen artean, bada bat bereziki interesgarria iruditzen zaiguna. Azterketa honetan kategoria eta kontzeptu mapa zabala egin ostean, kategoria eta kontzeptu multzo bat aukeratu, edo kontzeptu bakarra, eta honen sakoneko azterketa egin. Gure ustez, zein kontzeptu aukeratu eta hau nola ulertu laguntzeko egin dugun bidea ez da alferrikakoa izan. Egin izan ez bagenu, zailagoa zatekeen orain azterketa. Hori uste nahi dugu behintzat. Argazkiaren markoa jartzen saiatu gara, koordenatu nagusiak ipintzen: orain zein ataletan sakondu aukeratzeko modu hobean gaude. Kontzeptuen historia eta gizartearen historia lotuko genituzke horrela.

Bertsoen bitartez diskurtsoaren azterketara hurbildu izanak ate berriak ireki dizkigu. Egin duguna lehen hurbilpen bat besterik ez da izan. Aurrera jarraitzeko bide berriak datozkigu orain burura. Ez legoke gaizki honakoari erreparatzea: zergatik erabiltzen dituzte bertsolari batzuek familiari lotutako kontzeptuak eta erlijioari lotuak bestelako gaiei buruz hitz egiteko? Adibidez, zergatik politika gaiei buruz hitz egiteko –herriaz- edo hizkuntzaz –euskarari buruz- Pedro Mari Otañok “ama”, “amona” eta antzeko kontzeptuak erabili? Edota maitasun gaiei buruz hitz egiteko zergatik erabiliko ditu Bilintxek erlijioari lotutako kontzeptuak, “aingeru” eta gisakoak? Arrazoi posible batzuk bururatzen zaizkigu: herri xeheari ezagunen

zitzaizkion diskurtsoak ote familia eta erlijioari lotuak? Bertsolariak herriaren parte diren neurrian horregatik ezagunago zaizkie hitz hauek, eta aldi berean erraztasun gehiago dituzte hauek erabiltzeko? Edo, bestela, bertsolariek kontzienteki erabiltzen dituzte hitz eta kontzeptu hauek herri xeheak hobeto ulertu ditzan?

Egokia litzateke oso doktorego tesi honetan aztertutakoa nazioartean egin diren azterketekin konparatzea. Batetik, bertsolaritzaren antzeko iturriekin kontatzen duten gizarteetan erabili ote dira era honetako iturriak historia egiteko? Nola? Zein modutara?

Bestetik, Gipuzkoan gertatu zen modernizazio prozesuaren antzeko ezaugarriak izan dituzten –bai hurbileko tesutinguruan, bai urrunagokoetan- modernizazio prozesuekin konparaketa egitea ere egokia litzateke: gertatu ote ziren antzeko trantsizio prozesuak? Zein eratako logiken pean? Eman ahal genukeen lehen urratsetako bat, azterketa hau Euskal Herri osora zabaltzea litzateke: Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Iparraldeko bertsolariak kontuan hartuz. Eman genezakeen beste urrats bat, berriz, azterketa Gipuzkoako bigarren industrializaziora zabaltzea litzateke[2384].

Erdi-irekian, apenas zirrikituan utzi dugun beste ate bat, XIX. mendeko bertsolaritzaren eta batez ere bertsopaperen azterketa da. Zenbat bertsopaper jaso ditugu garai hartakoak, zenbat anonimoak eta zenbat bertsolariek sinatuak, bertsolariek beren borondatez jarriak ala enkarguz eginak ziren, zein gairi buruzkoak, zein ezaugarri formal zituzten, zein zabalkunde izan zuten, noiz hasi zen fenomeno honen gainbehera? Galdera ugari geratzen zaizkigu erantzuteko. Beste ikerketa bat litzateke hau: aztertu beharreko iturriak aukeratzerako orduan beste irizpide batzuk erabili beharko genituzke horretarako, ikerketa alditan banatu, galdekizun bat sistematizatu, etab.

# 10.Kolektibo gisa, irakurketarik egiterik ba al dugu etorkizunera begira?

Ez dugu inongo apologiarik egin nahi izan, ez dugu inor defendatu edo goratu nahi izan. Ez bertsolaritza, ez herri xehea. Ez gara alferrik XX. mendeko alaba, XXI.

[2384] Hau konplexua gertatuko litzateke. Bertsolaritzaz gainera beste hainbat iturri hartu beharko genituzke kontuan. Bestalde, denboran hurbilekoagoa dugunez gero, delikatuagoa litzateke oraindik identitateen gaiaren azterketa.

mende hasierako ama. Apologia egin nahi ez izateak ez digu ordea galerazten aukera batzuk egin izana.

> *"Gatibua; nork libratuko? / Leitze zuloan daudenek ikusiko, / zure garraxiak adituko; / gatibuek zaituzte libratuko.*
>
> *Denak ala inor ez, dena ala ezer ez. / Bakarka ezin da / fusilak ala kateak / denak ala inor ez, dena ala ezer ez.*
>
> *Gose zaudena; nork asetuko? / ogia nahi duenari, / gose daudenek, ogia emango / bidea diote erakutsiko.*
>
> *Denak ala inor ez, dena ala ezer ez / Bakarka ezin da / fusilak ala kateak / denak ala inor ez, dena ala ezer ez.*
>
> *Galtzaile; nork mendekatuko? / zaurituekin alkartuz / guk zaurituek, zapalduek / zu zaitugu mendekatu.*
>
> *Denak ala inor ez, dena ala ezer ez. / Bakarka ezin da / fusilak ala kateak / denak ala inor ez, dena ala ezer ez.*
>
> *Gizon galdua; nork lagunduko? / miseria sofri ezin dutenak, / gaur ez bihar izan dadin eguna / galduekin gara alkartuko.*
>
> *Denak ala inor ez, dena ala ezer ez. / Bakarka ezin da / fusilak ala kateak / denak ala inor ez, dena ala ezer ez"*
>
> Bertolt Brecht (1898-1956)

Uste dugu gipuzkoar herritar bezala, egun pluralagoa den herria gogoan dugula, ikasbiderik atera dezakegula etorkizunera begira.

Herri pobrea izan ginen, aurre eta industrializazio prozesu batek eta gure lan eta izerdiari esker mantso-mantso klase ertainera ekarria. Gizon eta emakumeen arteko harremanak tratuetan ixtetik askatasun eta maitasunean oinarritu ahal izateari ateak ireki genizkion, bidean gizonak eta emakumeak bestelakoak izan zitezkeen zantzuak erdi-itsuan sumatuz. Komunitate txikien balio eta kosteak gure eginez, gizartea antolatzeko modu berriak guretartu genituen, herriak politikan zuen parte hartzea eta aniztasun politikoa gure eginez, nahiz eta honek XIX. mendean zehar, baita XX. mende hasieran ere gerrate bat baino gehiago bizitzera eraman. Modernizazioak berekin dakarren erlijioaren papera birpentsatzea ere gurean errotu zen, pentsamendu arrazional eta zientifikoari tokia eginez batetik, komunitate zabalagoetako kideen arteko loturak kristau komunitatetik haratagoko lokarrietan bilatzera eramanez bestetik. Testuinguru honetan hartu zuen zentzua identitate kolektiboaren galderak. Ikusi dugun bezala, identitate kolektiboari

lotutako proposamen ezberdinak erditu ziren Gipuzkoan, baina kasu guztietan, jarraipena azpimarratzen zutenak, ez haustura.

Zerbait ikasi al dugu? Jarrera ezberdinak aurkitu ditzakegu: Historiak leziorik eman al dezake? Batzuek baietzaren alde egingo dute, besteek ez diote Historiari tokirik, "magistra vitae" funtziorik aitortuko.

Demagun baietz. Gizakiak bere bizitzan hartutako erabaki eta hauen ondorioetatik ikas dezakeela, edota herri batek bizi izandakoetatik irakaspenak atera ditzakeela. Beretzat edo besterentzat.

Ez gara puntu honetan gehiegi luzatuko. Begira diezaiogun geure buruari. Modernizazio prozesuak eragindako hainbat eta hainbat aldaketa ez dira erabat gauzatuak gure artean. Ekar zitzaketen aldaketa eta berrikuntzak ez dira %100ean bete, edota gauzatzerako orduan izan behar zuten haren itzal besterik ez dira gertatu. Zer egin beharko genuke aipatu eremu horietako bakoitzean gizarte justuago eta gizatiarrago bat egiteko?

Altxa dezagun begirada gure mugetatik haratago. Ugari dira une honetan munduan orain ehun urte Gipuzkoak bizi izandako prozesuen tankerakoak bizitzen ari diren herriak. Ez ote gipuzkoarrok ardurarik herri horiekiko? Guk bizi eta ikasitakoetatik ezin ote eskaini laguntzarik, edota hobe esan, "de facto" horietako askorekin ditugun harremanetan ez ote berdinen arteko harremanetatik abiatu behar, eurei entzutetik abiatu behar? Zer eta nola ari dira bizitzen modernizazio prozesu hori guztia? Zein ondorio dituzte nabarmenen bizi? Ez ote guztiok gizon eta emakume, gizaki, ez ote guztiok identitatea modu kontziente eta gizatiarrean osatzeko eskubiderik? Claude Dubarren hitzetan: *"La construcción identitaria es a la vez un asunto eminentemente privado y un asunto público y, por lo tanto, político, en el sentido más estricto del término. Como ciudadano, o simplemente como ser humano, cada uno debe poder encontrar recursos para construir su identidad personal, incluso recursos simbólicos que le permitan acceder a la ciudadanía"*[2385]. Eta oinoharrean zehazten duenez: *"Desde el momento en el que el sentido ya no está <dado> o <transmitido> por el linaje, sólo se puede construir sobre la base de experiencias biográficas que impliquen a la vez identificaciones con los Otros, cuyas convicciones proporcionen recursos para forjar las propias y aprendizajes que permitan traducir las experiencias –incluso las negativas- en convicciones… Así se construye un sujeto*

[2385] DUBAR, Claude: *La crisis de las identidades,* op. cit., 186. or.

*que no puede convertirse en tal más que accediendo a una forma de ciudadanía activa*"[2386].

[2386] DUBAR, Calude: *La crisis de las identidades,* op. cit., 186. or.

# GIBEL SOLASA

Hel diezaiogun berriro aintzin-solasean argitara ekarri dugun kontakizun autobiografikoari. Zergatik jarrera ezberdinak gure aitaren amak, amona Mariak, eta amaren amak, amona Luziak?

Kostata, lehenengo eta behin errealitatea bi alderdiek osatzen dutenaz ohartu nintzen. Aitaren aldeko familiak eutsi egiten zion familia tronkalaren ereduari. Amaren aldekoak, berriz, ez zuen horrelako harreman esturik mantentzen. Lehenengoaren kasuan, etxeak tira egiten zien etxekoei. Bigarrenaren kasuan, etxea fabrikarena zen, ez hainbeste etxekoena. Ez ziren elkarren aurka zeuden bi eredu, bata edo bestea aukeratu beharrik ez nuen: existitzen ziren bi errealitate ziren, eta ez zuen zertan batak bestea desagerrarazi behar. Eta familiatik haratagoko esparrura eramanez, ikusi nuen ez zela bidezkoa iraupenen aldekoak aldaketen kontra aritzea, ezta aldaketen aldekoak iraupenak barregarri uztea ere. Ez dira aldaketak euskaltasunaren galgarri, ez gizarte landatarrari lotuago jarraitzen dutenak modu despektiboan "kaxero". Eta modu berean, ez da iraupenetan Arkadiarik, ezta berrikuntzetan Utopia guztien gauzatzerik ere aurkitzen. Sistema guztiek dakarzkigute onurak eta kostuak.

Bigarren, modernizazioak modu desberdinetan eragin du elkarrengandik urrun ez dauden espazioetan eta, ondorioz, aldi berean, modernizazio esperientzia ezberdinak bizi izan dituzten pertsonak aurki ditzakegu, eta elkarrekin harremanetan gainera.

Hirugarren, eta gure etxean ikusitakoaren arabera, jarrera eta ohitura jakin batzuek iraun ahal izateko, aldatu beharra izan zuten gure aitona-amonek. Haur zela Donostiara eta gero Madrila lanera joan zen Zegamako gure amona Mariak zenbat gauza ez ote zituen bere bizitzan aldatu behar izan? Beraz, identitateari leiala izatea, ez da ez aldatzea, garai berrietara egokitzen ikastea baizik. Aldatzen dena ez da hiltzen, desagertzen, galtzen… bizirik jarraitzeko ezinbestekoa da moldatzea. Tariq

Ramadam, Oxford-eko Unibertsitateko islamiar filosofiako irakaslearen hitzetan, *"Una tradición (…) que permanece estática, se traiciona: sin evolución, no hay tradición ni fidelidad"*[2387].

Laugarren. Diskurtsoa kontu bat da eta bestea errealitatea. Diskurtso mailan gauza asko mantendu daitezke, beste gauza bat da errealitatean zer gertatzen den. Errazagoa da ideologizazioa diskurtso mailan eguneroko aukera eta bizipenetan baino. Dagokion orainarekin konforme ez dagoenak diskurtsoetara jotzen du askotan, erreferentziatzat lehenaldia edo etorkizuna hartuz, edota "in-bentatuz"[2388]. Horregatik, zenbat eta gerturago testiguen bizipenetatik, hobeto. Bertolt Brechten poema datorkigu gogora:

*"Zazpi Atedun Tebas hura, nork eraiki zuen?*
*Liburuetan Errege izenik baizik ez da ageri.*
*Erregeek garraiatu ote zituzten harritzar handiok?*
*Eta hainbatetan porrokatua izan zen Babilonia,*
*nork jaso zuen beste hainbestetan?*
*Lima distirant hura eraiki zuten langilleak,*
*ze etxetan bizi ote ziren?*
*Txinako Harresia bukatu zen iluntzean:*
*nora jo zuten harginek?*
*Erroma bikain hura*
*garaitza arkuz beterik. Nork altxatu zituen?*
*Nortzuk menperatu zituzten Zesarrek?*
*Hain ospetsua zen Bizanziok, jauregiz besterik*
*ez ote zuen bertako jendearentzat?*
*Alegiazko Atlantidan berebat,*
*itsasoak irentsi zuen gauean, biztanleak ito zorian*
*oihuka ari zitzaizkien beren esklaboei laguntza eske.*
*Alejandro gazteak India bereganatu zuen.*
*Berak bakarrik ote?*
*Zesarrek galoak menderatu.*
*Ez ote zuen berarekin sukaldari bat bederen?*
*Felipe Espainiakoak negar egin zuen bere Armada urperatu zenean.*
*Ez ote zuen beste inork negarrik egin?*
*Federiko Bigarrenak Zazpi Urteko Gerra irabazi.*
*Nork bestek zuen irabazi?*
*Garaitza bat orrialde bakoitzean.*
*Nortzuk atondu zituzten garaitza banketeak?*
*Hamar urtez behin gizon haundi bat.*
*Nork ordaintzen zituen haren gastuak?*
*Zenbat historia, hainbat galdera.*

[2387] *El País*, 2008ko martxoaren 8an.
[2388] "Inventar" invenire hitzetik dator eta aurkitu esan nahi du, ezerezetik sortu baino gehiago.

*Historiak bezainbat galdera.*
*Zenbat historia! Zenbat galdera!"*[2389]

Ez dugu honekin esan nahi doktorego tesi honetan proposatu dugun lanak Gipuzkoan 1830-1936 urte bitartean gertatu ziren identitate agerpen guztien azterketa agortu duenik, inolaz ere ez. Guk proposatzen dugun lanak lehendik eginak dauden azterketak osatzea du helburu eta, nolabait, asko jota, egin izan ez bagenu, gure historiaren irakurketa posibletako bat galdu izanaren sentipena sorraraztea. Ez gehiago. Eta bukatzeko, bizi izandakoaz bertsolariei galdezka aritu garenean mutu utzi dugun gizartearen erdiari, emakumeei, tokia eginez bukatuko dugu gure azterketa. Tesi honen lan intentsiboari hasiera eman nion une berean jaio zen Maddi alabari kasu eginez, -jarri al duzu zure liburu potoloan neskaren baten bertsorik?- Maialen Lujanbiok, Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusia irabazi zuen lehenengo emakumea izanik, 2009an Joxe Agirrek txapela jantzitakoan kantatutako bertsoaren zati bati egingo diogu tokia: *"Gogoratzen naiz lehengo amonen / zapi gaineko gobaraz. / Gogoratzen naiz lehengo amonaz / gaurko amaz ta alabaz (…)"*. Haien oroitza eta doktorego tesi honen azken hitzak bitez historiak ezarritako isiltasun bikoitzaren pisua –herritar xume eta emakume izateagatik- arintzeko bide.

[2389] http://eu.musikazblai.com/ web orritik hartua. Letra Mikel Laboak euskaratu eta musikatua omen da.

# ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

## 1.Iturriak

ELOSEGI, Joxan (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun, 1875-Arrueta, 1942).* Soraluze: Paper hotsak, 2004.

ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919).* Tolosa: Auspoa, 1992.

ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860-1936). Bizitza eta bertsoak.* Tolosa: Auspoa, 1992.

ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Bilintx. Bertsoak eta bizitza.* Oiartzun: Sendoa, 1993.

ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua. I eta II aleak.* Oiartzun: Sendoa, 1993.

ZAVALA, Antonio (eg. eta biltz.): *Xenpelar eta bere ingurua.* Oiartzun: Sendoa, 1993.

## 2.Bibliografia

AAAA: *A los 100 años de su muerte. Bilintx (1831-1876). Conferencias y concursos literarios.* Donostia: CAM, 1978.

AAAA: *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma. 1851-1897.* Donostia-Bilbao: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia, 1997. Patri Urkizuren edizioa

AAAA: "Antonio Zavala. Doctor honoris causa", *Bertsolari,* 34 zbkia. (1999).

AAAA: *Antonio Zavalaren ohoretan. Herri literaturaz gogoeta.* Bilbao: Universidad de Deusto, 2000.

ABAIGAR, F.: "Elecciones y política en Irún durante la II República". In: *Boletín de Estudios del Bidasoa*, III. Alea, (1986), 7.-46. or.

ABAIGAR, F.: "La primavera republicana de 1931 en Irun". In: *Boletín de Estudios del Bidasoa*, II. alea, (1985), 79.-92. or.

ABBADIA, Anton: *Pensées, études et voyages de 1835 (carnet inédit)*; *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires.* Donostia-Bilbao: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia, 1997. Patri Urkizuren edizioa.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Euskal historiografiaren ikuspegi gaurkotua, iraganeko begirada euskaldunen abiadan". In: *Vasconia*, 34, (2005), 407.-422. or.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Las oportunidades de construcción del Estado liberal español: la "España foral"". In: *Ayer,* 35 (1999), 121-146. or.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba (ed.): *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente Navarra (1775-1936).* Bilbao: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 1995.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba (zuz.): *Diccionario biográfico de parlamentarios de Vasconia.* Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1993.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba: *Gerra eta bakea Euskal Herrian: politikagintza lege zaharraren krisialdian.* Donostia: Gaiak, 1993.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales". In: *Historia Contemporánea,* 7, (1992), 257.-281. or.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba: "Historia ekonomikoaz: Eraberritzearen urratsak". In: *Jakin*, 55, 2, (1989), 49.-67. or.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba; ORTIZ DE ORRUÑO, Jose Maria: "Las Haciendas forales de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya entre 1800 y 1876". In: *Ekonomiaz. Revista de Economía vasca,* 9-10, (1988), 69-92. or.

AIERDI, Xabier; ALDAZ, Juan; ALKORTA, Eider; RETORTILLO, Alfredo; ZUBIRI, Harkaitz: *Bertsolaritza. Tradizio modernoa.* Bilbao: EHU, 2007.

AIZPURU, Mikel X.: "Norteko Ferrokarrila. La red ferroviaria en la literatura oral vasca". In: *VI Congreso de Historia Ferroviaria-VI. Trenbidea Historia Batzarra.* Ikusgai: www.docutren.com/congreso_vitoria/comunicaciones/1075.pdf

AIZPURU, Mikel X.; DELGADO, Ander; OSTOLAZA, Maitane: "Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): una aproximación a través de los bertso-

paperak". In: *Procesos de nacionalización en la España contemporánea.* Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 2010. 329.-353. or.

AIZPURU, Mikel X.: "Historia euskaraz XX. mendean, nahiaren eta ezinaren artean. Lehen hurbiltzea". In: *Vasconia,* 34, (2005), 423.-451. or.

AIZPURU MURUA, Mikel X.: "Seis razones para no hablar de fracaso del nacionalismo español en el siglo XIX". In: *Hermes,* 11 (2004), 18.-29.or.

AIZPURU, Mikel X.: "La pluralidad de vías en la reformulación de la identidad vasca en el siglo XIX". In: *Sancho el Sabio*, 15, (2001), 11.-44. or.

AIZPURU MURUA, Mikel X.: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política.* Bilbao: Servicio Editorial. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000.

AIZPURU, Mikel X.: "Vascófilos y bertsolaris, conformadores del nacionalismo vasco en el último tercio del siglo XIX". In: *Gerónimo de Uztariz,* 16, (2000), 59.-72. or.

AIZPURU, Mikel X.: "La imagen del <otro> en la historia contemporánea del País Vasco: nacionalismo vasco y socialismo". In: DUPLA, A.; FRIAS, P.; ZALDUA, I. (eds.): *Occidente y el otro: una historia de miedo y rechazo.* Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento, 1996. 185.-196. or.

AIZPURU, Mikel X.: "Kaiku. Ingi asterokoa abertzale eta irritxua. Prentsa abertzalea Gipuzkoan (1899-1923)". In: LACARRA, J. (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum. Anejo del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo,* (1991), 581.-593.or.

ALTUNA, Belen: *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia.* Irun: Alberdania, 2003.

ALTZIBAR, Xabier: "<Zazpiak bat> gaia XIX. mendean". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997.* Donostia: Eusko Ikaskuntza. Bilbao: Euskaltzaindia, 1998. 663.-688 or.

ÁLVAREZ GILA, Oscar: *Organización, identidad e imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI).* Bilbao: EHU, 2010.

AMURIZA, Xabier: *Gregorio Atxa-Ortea, "Orbe" bertsolaria.* Eibar: Ego ibarra, 1992.

ANDERSON, Benedict: *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo.* Mexico: Fondo de Cultura Económica, 1993.

ANTXUSTEGI, Esteban: "Bertsogintza eta historia: gerrate karlisten adibidea". In: *Bitarte*, 24 (2001), 79.-89. or.

ARANBURU, Antton: *Indalezio Bizkarrondo Bilintx. 1831-1876.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2010.

ARANZADI, Juan: *Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo.* Madrid: Taurus, 2000.

ARBAIZA, Mercedes (ed.): *La cuestión vasca. Una mirada desde la Historia.* Bilbao: EHU, 2000.

ARBAIZA, Mercedes; PEREZ-FUENTES, Pilar; ARREGI, Joseba: *Historia e identidades nacionales: hacia un pacto entre la ciudadanía vasca.* Bilbao: Servicios Redaccionales Bilbainos, 2007.

ARMISTEAD, Samuel G; ZULAIKA, Joseba: *Voicing the moment. Improvised Oral Poetry and Basque Tradition.* Reno: University of Nevada, 2005.

ARRIETA, Leyre: *Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977).* Madrid: Tecnos, 2007.

ARTOLA, Miguel: *Historia de Donostia-San Sebastián.* Donostia: Donostiako Udala-Nerea argitaletxea, 2000.

ATXAGA, Bernardo: "El mundo de Obaba". In: www.atxaga.org http://www.atxaga.org/testuak-textos/el-mundo-de-obaba 2012ko uztailaren 16an begiratua

AULESTIA, Gorka: *Bertsolarismo.* Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.

AZCONA, J.M.: *Los Paraísos posibles: (historia de la emigración vasca a Argentina y Uruguay en el siglo XIX).* Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 1992.

AZURMENDI, Joxe: "Bertsolaritzaren estudiorako". In: *Jakin* (1980), 14/15 (bigarren aldia), 139.-164. or.

AZURMENDI, Mikel: *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco.* Irun: Alberdania, 1993.

BARANDIARAN AMARIKA, Asier: *Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita: bi bertsolari belaunaldi ahozkotasunaren harian.* EHU, 2002. [interneten eskuragarri, http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ASIER_BARANDIARAN.pdf helbidean]. 2013ko urtarrilaren 4an begiratua.

BARCENILLA, M. A.: *La Pequeña Manchester: origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano: Errenteria (1845-1905).* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999.

BAROJA, Pio: *Cuentos.* Madrid: Alianza, 1994.

BARRUSO, Pedro: *El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica social (1931-1936).* Donostia: 1996.

BASARRI: "Nere bordatxotik", 1979-XII-5. Guk ZAVALA, A. (eg. eta biltz.): *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz*, op. cit., 280.-283. or.

BELAUSTEGI, U: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1863-1923).* Bilbao: EHU, 2015.

BELAUSTEGI, U.: "El republicanismo en Gipuzkoa, 1868-1923: organización y desarrollo político". In: *Sancho el Sabio*, 37, (2014), 133.-157. or.

BENIGNO, Francesco: *Las palabras del tiempo. Un ideario para pensar históricamente.* Madrid: Cátedra, 2013.

BERIAIN, Josetxo; FERNANDEZ UBIETA, Roger (koord.): *La cuestión vasca. Claves de un conflicto cultural y político.* Barcelona: Proyecto A, 1999.

BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro: *Como un Jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX.* Bilbao: EHU, 2013.

BIDEGAIN, Eneko: *Lehen mundu gerra "Eskualduna" astekarian.* Bilbao: Euskaltzaindia, 2013.

BIJUESCA, K. Josu: "Felipe Arrese Beitiaren poesia eta euskaldunen nazio identitatea". In: *Oihenart*, 25 (2010), 177.-188. or.

BLASCO, Carlos: *Los liberales fueristas guipuzcoanos, 1833-1876.* Donostia: CAP, 1982.

BRUBAKER, Rogers; COOPER, Frederick: "Beyond <identity>". In: *Theory and Society*, 29, (2000), 1.-47. or.

CABRERA, Miguel Angel; PRO, Juan: *La creación de las culturas políticas modernas, 1808-1833.* Madrid-Zaragoza: Marcial Pons Historia, Prensas de la Universidad de Zaragoza, 2014.

CABRERA, Miguel Angel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad.* Madrid: Cátedra, 2001.

CAMPION, Arturo: *Contrastes (Cuadro de costumbres).* Pamplona: Euskal-Erriaren alde, 1882. Edizio digitala. Bvpb.mcu.es

CANDAU, Joël: *Antropología de la memoria.* Buenos Aires: Nueva Visión, 2006.

CARO BAROJA, Julio: "Sobre la identidad vasca (Ensayo de identidad dinámica)". In: *Ser o no ser vasco.* Madrid: Espasa, 1998. 63.-78. or.

CASENAVE, Jon: "Euskal nortasunaren irudiak XIXgarren mendeko bigarren partean". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997.* Donostia: Eusko Ikaskuntza: Bilbao: Euskaltzaindia, 1998. 547.-552. or.

CASTELLS, Luis; CAJAL, Arturo (eds.): *La autonomía vasca en la España contemporánea (1808-2008).* Madrid: Marcial Pons, 2009.

CASTELLS, Luis; CAJAL, Arturo; MOLINA, Fernando (ed.): *El País Vasco y España: identidades, nacionalismos y Estado (siglos XIX y XX).* Bilbao: EHU, 2007.

CASTELLS, L (ed): *El rumor de lo cotidiano. Estudios sobre el País Vasco contemporáneo.* Bilbao: EHU, 1999.

CASTELLS, L.: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923).* Madrid: Siglo XXI Editores, 1993.

CASTELLS, Luis; LUENGO TEIXIDOR, Felix: "El proceso de modernización de Guipúzcoa (1876-1920)". In: *Ekonomiaz*, 9-10, (1988), 255.-276. or.

CASTELLS, L: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915.* Madrid: Siglo XXI Editores, 1987.

CASTELLS, L: "El sexenio democrático y su repercusión en Guipúzcoa". In: *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae,* 2. Alea. Gasteiz, 1985, 1271-1284. or.

CATALAN, Jordi: "Capitales modestos y dinamismo industrial: orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos, 1841-1918". In: NADAL, Jordi; CARRERAS, Albert (zuz. eta koord): *Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX).* Barcelona: Ariel, 1990. 125.-155. or.

CLAVERO, Bartolome: "Entre revolución y tradición: constitucionalismo y fuerismo". In: *Historia Contemporánea,* 4, (1990), 39.-60. or.

CLAVERO, Bartolome: *Fueros Vascos. Historia en Tiempos de Constitución.* Barcelona: Ariel, 1985.

CRUZ MUNDET, J.R.: *Rentería en la crisis del Antiguo Régimen (1750-1845). Familia, caserío y sociedad rural.* Errenteria: Errenteriako Udala, 1991.

CRUZ, Manuel: *Las malas pasadas del pasado. Identidad, responsabilidad, historia.* Barcelona: Anagrama, 2005.

DAVANT, Jean-Louis (et al.): *Antoine D'Abbadie. 1897-1997. Ezohiko kongresua.* Donostia-Bilbo: Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, 1998.

DAVANT, Jean Louis: "Lore jokoen ingurumenaz". In: *Bat, soziolinguistika aldizkaria*, 25 (1997) 65.-75. or.

DESCOMBES, Vincent: *Les embarras de l'identité.* Gallimard, 2013.

DIAZ FREIRE, José Javier: "Cuerpos en conflicto. La construcción de la identidad y la diferencia en el País Vasco a finales del siglo XIX". In: NASH, Mary; MARRE, Diana (ed.): *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase.* Bilbao: EHUko argitalpen zerbitzuak, 2003. 61.-94. or.

DIAZ FREIRE, José Javier: "El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca". In: *Historia Social*, 40 (2001), 79.-96. or.

DIAZ G. VIANA, Luis (koord): *Palabras para el pueblo. Volumen I. Aproximación general a la literatura de cordel.* Madrid: CSIC, 2000.

DIAZ-PIMIENTA, Alexis: *Teoría de la improvisación. Primeras páginas para el estudio del repentismo.* Oiartzun: Sendoa, 1998.

DICHARRY, Eric: *Le rire des Basques.* Paris: L'Harmattan, 2013.

DUBAR, Claude: *La crisis de las identidades. La interpretación de una mutación.* Barcelona: Edicions Bellaterra, 2002.

DUINAT, Benjamin: *Biografia baterako abiapuntuak: euskal mugaldeko nortasun anitzak eta harrabots gutiko disidentziak. Jean-Pierre Duvoisinen (1810-1891) gutunerian.* 2013. Argitaragabea.

EGAÑA, Andoni: *Hogeita bina.* Donostia: Hariadna, 2004.

EGAÑA, Andoni; SARASUA, Jon: *Zozoak beleari.* Irun: Alberdania, 1997.

ELLAKURIAGA, I.: "Klasikoak hurbilago UEU-ko ikastaroan". In: *Bertsolari* (1994), 40.-49.or.

ENRIQUEZ, Jose Carlos: "La invención del bertsolari errante. Entre la consagración del mercado y la instrumentalización historiográfica (1789-1876)" lanean, Donostian Bertsozale elkarteak 2003an antolatutako *Ahozko inprobisazioa munduan* jardunaldietan emandako hitzaldian [ikus www.bertsozale.com/liburua/ahozkoinprobisazioamunduan/hiru/hiru2.htm].

ESNAL, Pello: "Auspoa: Antonio Zavalak utzitako ondare maitagarria". In: *RIEV*, 55, 1 (2010), 221.-239. or.

EUZKITZE, Xabier: *Pedro Mari Otaño Barriola.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2010.

FERNANDEZ LASA, Uxue: *Emakume pilotariak: izaera, bizipen eta sentipenak.* Vitoria Gasteiz, 2014. Argitaratu gabea.

FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier; FRANCISCO FUENTES, Juan (zuz.): *Diccionario político y social del siglo XIX español.* Madrid: Alianza, 2003.

FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier: *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840).* Madrid: Siglo XXI Editores, 1991.

FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier: "Ideología, Fueros y Modernización. La Metamorfosis del Fuerismo. I.: Hasta el Siglo XIX". In: *Historia Contemporánea,* 4, (1990), 61.-87. or.

FUSI, J.P.: "Hechos diferenciales y particularismo cultural: Cataluña, País Vasco, Galicia". In: *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 1998 (20), 107.-115. or.

FUSI, J.P.: *Política obrera en el País Vasco (1890-1923).* Madrid: Turner, 1975.

GARATE OJANGUREN, Montserrat: *El proceso de desarrollo económico en Guipuzcoa.* Donostia: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, 1976.

GARCIA ABAD, Rocío; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA, Jose; ZARRAGA, Karmele: "<Leer y escribir>: desarrollo y modernización social. El País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)". In: GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA, José María; ZARRAGA, Karmele (ed): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea.* Bilbao: EHU, 2011. 311.-342. or.

GARCIA ABAD, R: *Historias de emigración. Emigrar a la Ría de Bilbao. Factores de expulsión y selección del capital humano en la emigración a la Ría de Bilbao (1877-1935).* Bilbao: EHUko Argitalpen zerbitzua, 2004.

GARCIA HERNANDEZ, Gloria Elizabeth; MANZANO CAUDILLO, Jesús: "Procedimientos metodológicos básicos y habilidades del investigador en el contexto de la teoría fundamentada". In: *Iztapalapa. Revista de ciencias Sociales y Humanidades,* 69 (2010), 17.-39. or.

GARZIA GARMENDIA, Juan: *Txirritaren baratzea Norteko trenbidetik.* Irun: Alberdania, 1997.

GARZIA, Joxerra: *Bertsolaritza. Euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna.* Donostia: Etxepare Euskal Institutua, 2012.

GARZIA, Joxerra; SARASUA, Jon; EGAÑA, Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak.* Andoain: Bertsolari liburuak, 2001.

GARZIA, Joxerra: "Bertsolaritzari buruzko ikaskuntzak orain arte". In: *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak.* Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001.

GARZIA, Joxerra: *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak (marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa).* Bilbao: EHU, 2000.

GARZIA, Joxerra: *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena.* Irun: Alberdania, 1998.

GÉRAUD, Marie-Odile; LESERVOISIER, Olivier; POTTIER, Richard: *Etnologiaren nozio giltzarriak. Azterketak eta testuak.* Bilbao: EHUko argitalpen zerbitzuak, 2011.

GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Memoria e historia. Vademécum de conceptos y debates fundamentales.* Madrid: Catarata, 2013.

GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: *La "otra industrialización" del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización.* Bilbao: EHU, 2015.

GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose: "Desconcierto del tiempo presente y retos del futuro. Algunas claves orientativas". In: *Arbor,* vol. 187., 752, (nov.-dic. 2011), 1.013.-1.028. or.

GONZÁLEZ PORTILLA, M. eta URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.G.; ZARRAGA SANGRONIZ, K: *Vivir en familia, organizar la sociedad: familia y modelos familiares, las provincias vascas a las puertas de la modernización (1860).* Bilbao: Euskal Herriko unibertsitateko argitalpen zerbitzua, 2003.

GONZALEZ PORTILLA, M.; BEASCOECHEA, J.M.: "Del campo a la ciudad; la urbanización del País Vasco durante la primera industrialización". In: MIEZA, R.; GRACIA, J. (ed): *Haciendo Historia. Homenaje a María Angeles Larrea.* Bilbao: EHU, 2000. 27.- 44. or.

GONZÁLEZ PORTILLA, M; GARCÍA ABAD, R.; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.: *Las ciudades mineras de la Ría de Bilbao durante el boom minero. Inmigración, capital humano y mestizaje.* Bilbao: EHU/UPV, 2000.

GOÑI, Joseba: "Eliza Euskal Herrian absolutismo antiliberalaren, liberalismo katolikoaren, nazionalismoaren eta sozial-demokraziaren garaian (1808-1936)". In: *Euskal Herriaren Historiaz, III.* Bilbao: EHU, 1987. 143.-180. or.

GRANJA, José Luis de la: "Cronología de Sabino Arana (1865-1903)". In: *Sancho el Sabio,* 31, (2009), 297. or.

GUERRA, François Xavier: *México. Del Antiguo Régimen a la Revolución.* México: Fondo de Cultura Económica, 1988.

HALBWACHS, Maurice: *Los marcos sociales de la memoria.* Barcelona: Anthropos, 2004.

HERNANDEZ Jone M.: "Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea". In: *Kobie (Serie Antropología Cultural),* XII zenbakia, (2006/7), 61.-70. or.

HERNANDONERA KULTUR ELKARTEA: *Pello Mari Otañoren arnasa. 1857-1910. Intxaurrondotik onbura, olerkariaren heriotzaren mendeurrenean. 1910-2010.* Zizurkil: Zizurkilgo Udala, 2010.

HOBSBAWM, Eric; RANGER, Terence: *La invención de la tradición.* Barcelona: Crítica, 2012.

IRIARTE LÓPEZ, Iñaki: *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960).* Madrid: Biblioteca Nueva, 2000.

IRIONDO, Josemari: *Antonio Zavala Echeverria, 1928-2009.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2010.

IRIONDO, Joxemari: "Antonio Zavalaren hilberri-txostena". In: *Plazaberri,* Euskaltzaindia, 2010-02-01.

Ikusgai:
[http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2010/otsaila/iriondo_azavala.pdf]

ITÇAINA, Xabier: *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak.* Donostia: Elkar, 2012.

IZTUETA, J.I.: *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia.* Donostia, 1847. 214.-219. or.

JUARISTI, Jon: *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca.* Madrid: Taurus, 1987.

JUARISTI, Patxi: *Gizarte ikerketarako teknikak Teoria eta adibideak.* Bilbao: EHU, 2003.

JUARISTI, Patxi: *Euskaldunak eta ondasunak.* Irun: Pamiela, 2001.

KALZAKORTA, Jabier: "Frantsesteko euskal bertso zahar-berriak: Maiatzaren bikoak eta abar". In: *Karmel*, 265, (2009)-1, 49.-70. or.

KINTANA GOIRIENA, Jurgi: *Intelektuala nazioa eraikitzen: R.M.Azkueren pentsaera eta obra.* Bilbo: Euskaltzaindia, 2008.

KINTANA, Jurgi: "Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hitz neurtuetan (1823-1840)". In: *Uztaro*, 30 (1999), 61.-84. or.

LABORDE, Denis: *La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque.* Donostia: Elkar, 2005.

LARRAÑAGA, Carmen: "Del bertsolarismo silenciado". In: *Cuadernos de Folklore, Jentilbaratz*, 6 (1997), 57-73. orrialdeak.

LARRAÑAGA, Jexux: *Jolas sakona. Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI. mendeko agoran.* Bilbao: EHU, 2013. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jexux_Larranaga_TESIA.pdf . 2015eko apirilaren 19an ikusia.

LARRINAGA, Carlos: *Balnearios guipuzcoanos, 1776-1901. Turismo de salud e inversión de capital en aguas minerales.* Donostia: RSBAP, 2014.

LARRINAGA, Carlos: *Entre Irún y los Alduides. El ferrocarril del Norte y el paso de los Pirineos a mediados del siglo XIX.* Irun: Casino de Irun, 2002.

LARRINAGA, Carlos: *Actividad económica y cambio estructural en San Sebastián durante la Restauración, 1875-1914.* Donostia: Kutxa fundazioa, 1999.

LEGORBURU, Elena: "La industria guipuzcoana entre 1930 y 1936: incidencia de la crisis económica". In: *Revista de Historia Económica*, IX. urtea, 2 zk., (1991), 361.-394. or.

LEGORBURU, Elena: "Propuestas de reordenación viaria en el País Vasco en torno al ferrocarril de vía estrecha en Guipúzcoa (1920-1936). In: *Lurralde*, 14, (1991), 321.-336. or.

LEIZAOLA, Jesus Mari: "La <crónica> en la poesía popular vasca"; "1808-1814 en la poesía popular vasca y otros estudios"; "Acontecimientos del siglo XX en poetas euskericos". In: *Obras Completas. II. alea.* Sendoa, 1981.

LEKUONA, Joan Mari: "Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean". In: *Antoine d'Abbadie, 1897-1997. Nazioarteko Biltzarra.* Hendaia, 1997. Donostia: Eusko Ikaskuntza. Bilbao: Euskaltzaindia, 1998. 523-534. or.

LEKUONA, Juan Mari: *Ahozko euskal literatura.* Donostia: Erein, 1982.

LEKUONA, Juan Mari: "Sailkapen saioa. Bertsolariak historian", in: *Jakin* (1980), 14/15 (bigarren aldia), 6.-16. or.

LEKUONA, M.: "Bilintx eta Xenpelar". In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978. 89.-115. or.

LEKUONA, M.: "La poesía popular vasca". In: *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978.

LEKUONA, M.: "Literatura oral vasca". In: *Idazlan guztiak, 1. Aozko literatura.* Tolosa: Kardaberaz bilduma, 1978.

LUENGO, Felix: *La vida cotidiana de una ciudad. De su destrucción a la ciudad contemporánea.* Donostia: Txertoa, 2000.

LUENGO, Felix: "Recientes aportaciones a la historiografía política contemporánea en el País Vasco". In: *Cuadernos de Alzate,* 16 (1997), 177.-184. or.

LUENGO, Felix: *La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social. 1917-1923.* Bilbao: EHU, 1991.

LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923.* Bilbao: EHU-UPV, 1990.

MAALOUF, Amin: *Identidades asesinas.* Madrid: Alianza, 2005.

MACRY, Paolo: *La sociedad contemporánea: una introducción histórica.* Madrid: Ariel, 1997.

MADARIAGA, J.: *Una Noble señora: herio anderea. Actitudes ante la muerte en el País Vasco, siglos XVIII y XIX.* Bilbao: EHU, 1998.

MAJUELO, Emilio: *La idea de historia en Arturo Campión.* Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011.

MAJUELO, E.: "Euskal Herriko historia sozialaren garapenaz". In: *Jakin*, 55, 2, (1989), 69.-80. or.

MARTINEZ GORRIARAN, Carlos: *Casa, provincia, rey. Para una historia de la cultura del poder en el País Vasco.* Irun: Alberdania, 1993.

MARTINEZ RUEDA, Fernando: *Los poderes locales en Vizcaya: del Antiguo Régimen a la Revolución Liberal, 1700-1853.* Bilbao: EHU, 1994.

MICHELENA, Luis: "Fenómenos de convergencia en la historia de los dialectos vascos". In: *Fontes Linguae Vasconum*, 61 (1992) 355.-366. or.

MINA, María Cruz: "Ideología, Fueros y Modernización. La Metamorfosis del Fuerismo. II: Siglos XIX y XX". In: *Historia Contemporánea,* 4, (1990), 89.-106. or.

MONTERO, Manuel: " La invención del pasado en la tradición historiográfica vasca". In: *Historia Contemporánea*, 7 (1992) 283.-294. or

MUÑOZ JUSTICIA, Juan: *Análisis cualitativo de datos textuales con ATLAS.ti 5.* Universitat Autònoma de Barcelona, 2005.

NOVO LOPEZ, Pedro A.; PAREJA ALONSO, Arantza (ed): *Ferrocarriles y sociedad urbana en el País Vasco.* Bilbao: EHU, 2015.

OBIETA VILLALONGA, Maria: *Los integristas guipuzcoanos: desarrollo y organización del Partido Católico Nacional en Guipúzcoa (1888-1898).* Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1995.

ONAINDIA, Santi: *Gure Urretxindorra: Enbeita'tar Kepa'ren bertso-lanak osorik.* Buenos Aires: Ekin, 1971.

ONAINDIA, Santi: *Gure bertsolariak.* Bilbao: Karmel, 1964.

ONG, Walter: *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra.* Argentina: FCE, 2006.

OSTOLAZA, Maitane: "La cultura carlista a través de la literatura popular: los "bertso paperak"". In: LANES MARSALL, Julien; OSTOLAZA, Maitane (eds.): *Las culturas políticas en la España del siglo XIX.* Paris: Editions Hispaniques, 2010. 100.-128. or.

OSTOLAZA, Maitane: *Entre religión y modernidad. Los colegios de las congregaciones religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea.* Bilbao: EHU, 2000.

PABLO, Santiago de; GRANJA, Jose Luis de la ; MEES, Ludger; CASQUETE, Jesus (koord): *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco.* Madrid: Tecnos, 2012. Hamabi historialarik elkarlanean eginiko lana da hau, tartean Leyre Arrieta eta Maitane Ostolaza direlarik.

PABLO, Santiago de; MEES, Ludger; RODRIGUEZ RANZ, José Antonio: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936.* Barcelona: Crítica, 1999.

PAGOLA, Rosa Miren: "Laudatio-a". In: *Antonio Zavalaren ohoretan.* Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2000.

PAYA, Xabier: *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia.* Donostia: Etxepare Euskal Institutua, 2013.

PEREZ GAZTELU, Elixabete: *Joxepa Antoni Aranberri "Xenpelar" (1865-1943)* [Baliabide elektronikoa]. Errenteria: Udala, 2013.

PEREZ GAZTELU, E.: *Juan Frantzisko Petriarena, Xenpelar. 1835-1869.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen zerbitzua, 2010.

PEREZ, Pio: *Joxe Zapirainen bertso-malkoak. Edo nola arindu arimaren sufrimenduak bertsoen bidez.* Bilbao: Labayru ikastegia, Amorebieta-Etxanoko Udala, 2013.

PÉREZ-FUENTES, P.: *"Ganadores de pan" y "amas de casa": otra mirada sobre la industrialización vasca.* Bilbao: EHU/UPV, 2004.

PÉREZ-FUENTES, P.: *Vivir y morir en las minas: estrategias familiares y relación de género en la primera industrialización vizcaína (1877-1913).* Bilbao: EHU/UPV, 1993.

PILDAIN, Pilar: *Ir a América. La emigración vasca a América (Guipúzcoa 1840-1870).* Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1984.

PORTILLO, J.M.: *Los poderes locales en la formación del régimen foral. Guipúzcoa (1812-1850).* Bilbao: EHU, 1987.

RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia: *Etnicidad, identidad, interculturalidad: teorías, conceptos y procesos de la relacionalidad grupal humana.* Madrid: Editorial Centro de Estudios Ramón Areces, 2011.

RODRIGUEZ DE CORO, F.: *San Sebastián. Revolución liberal y II Guerra carlista (*1868-1876). Donostia: Grupo Doctor Camino, 1986.

RODRIGUEZ DE CORO, F.: *Guipúzcoa en la democracia revolucionaria, 1869-1876.* Donostia: Caja de Ahorros Provincial, 1980.

RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio; LANDABEREA ABAD, Eider; ARANBURU AMILLETA, Antxiñe: *Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 3. alea: 1833-1937.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003.

RODRIGUEZ RANZ, Jose A. (koord): *Tolosa, Euskal abertzaletasunaren bihotza: EAJren historia Tolosan.* Bilbao: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1995.

RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Donostia: Instituto Dr. Camino de Historia Donostiarra, 1994.

ROQUERO, M.R.: "La mendicidad y la beneficencia en San Sebastián (1813-1925)", *Boletín Estudios Históricos de San Sebastián,* 32, (1998), 579.-658. or.

ROSA RIVERO, Alberto; BELLELLI, Guglielmo; BAKHURST, David (Eds.): *Memoria colectiva e identidad nacional.* Madrid: Biblioteca Nueva, 2000.

RUBIO POBES, Coro: "El siglo XIX (1808-1876) en la historiografía vasca de los últimos veinte años". In: *Vasconia*, 34, (2005), 301.-336. or.

RUBIO POBES, Coro: *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales.* Madrid: Biblioteca Nueva, 2003.

RUBIO POBES, Coro: "¿Qué fue del oasis foral? Sobre el estallido de la segunda guerra carlista en el País Vasco". In: MILLAN, J. (ed.): *Carlismo y contrarrevolución en la España contemporánea. Ayer,* 38 (2000), 65.-89. or.

RUBIO, Coro: *Fueros y Constitución. La lucha por el control del poder. País Vasco, 1808-1868.* Bilbao: EHU, 1997.

RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868.* Madrid: Siglo XXI Editores, 1996.

RUIZ DE LOIZAGA, Maite: *Primeras letras: "revolución social" y modernización en Bilbao (1876-1920*). Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2015.

SANCHEZ PRIETO, Juan María: *El Imaginario Vasco: Representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo, 1833-1876.* Barcelona: Eunsa, 1993.

SARASUA, Jon: *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak.* Iruñea: Pamiela, 2013.

SMITH, Anthony D.: *La identidad nacional.* Madrid: Trama, 1997.

TAPIZ, J.M.: "Los locales de partido y transmisión ideológica. El caso de los Batzokis del PNV durante la II República". In: *Vasconia*, 27 (1998), 195-210. or.

THIESSE, Anne-Marie: "En el corazón del regionalismo: la definición de la cultura popular". In: *Antares*, 4 (2010), 4.-11. or.

THIESSE, Anne-Marie: *La creación de las identidades nacionales. Europa: siglo XVIII-XX.* Madrid: Ezaro ediciones, 2010.

TOLEDO LEZETA, Ana M.: "Aitor, euskaldunen identitatearen eratzailea". In: *Oihenart*, 25 (2010), 235.-349. or.

TYLOR, Charles: *Fuentes del yo. La construcción de la identidad moderna.* Buenos Aires: Paidós, 2006.

URKIZU, Patri: "Bertsogileak eta II Mundu Gerratea". In: *Oihenart*, 14, (1997), 199.-202. or.

URQUIJO, Mikel: *Liberales y carlistas. Revolución y Fueros Vascos en el preludio de la última Guerra Carlista.* Bilbao: EHU, 1994.

URRUTIKOETXEA, Jose: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes. Una visión desde Gipuzkoa (1975-2000)". In: *Sancho el Sabio,* 19, (2003), 11.-66. or.

URRUTIKOETXEA, Jose: "<Ets-adi>/<etse>-<Familia>/<Casa>: a los terrenos de la historia por los vericuetos de la idealización y la ideologización". In: *Vasconia*, 28, (1999), 271.-294. or.

URRUTIKOETXEA, Jose: *<En una mesa y compañía>. Caserío y familia campesina en la crisis de la <Sociedad tradicional>. Irun, 1766-1845.* Donostia: Universidad de Deusto, 1992.

URRUTIKOETXEA, Jose: "La familia troncal campesina vasco-húmeda: de mecanismo de regulación social a soporte ideológico tradicionalista". In: *I Congrés d'Histórі de la Familia als Pirineus.* Andorra, 1992.

URRUTIKOETXEA, Jose: *Karlismoa.* Donostia: Elkar, 1989.

VALVERDE, Lola: *Entre el deshonor y la miseria. Infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra. Siglo XVIII y XIX.* Bilbao: EHU, 1994.

VAN DIJK, Teun A.: *El discurso como estructura y proceso. Estudios sobre el discurso I. Una introducción multidisciplinaria.* Barcelona: Gedisa, 2000.

VILLALUENGA, J.: *Confrontación de poderes. Estado, provincia y municipios en el Bajo Nervión (1840-1875).* Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2009.

WEBER, Eugen: *Peasants into frenchmen. The Modernization of Rural France, 1870-1914.* Stanford: Stanford University Press, 1976.

XARRITON, Piarres: "Hazparneko bertsolari xurien eta gorrien arteko azken uztarrak". In: *ASJU*, XLIII, 2009, 979.-984. or.

ZAPATA-BARRERO, Ricard; SÁNCHEZ-MONTIJANO, Elena: *Manual de investigación cualitativa en la ciencia política.* Madrid: Tecnos, 2011.

ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak/conferencias),* 1996koa; *Auspoaren auspoa II (Itzaldiak/conferencias),* 1996koa; *Auspoaren auspoa III*

*(Itzaldiak/conferencias),* 1999koa eta azkenik *Auspoaren auspoa IV (itzaldiak/conferencias),* 2006koa. Lehen hirurak Sendoa argitaletxearenak eta azkenekoa Auspoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratua.

ZAVALA, Antonio: "Doktore berriaren hitzaldia *Honoris causa* doktore izendapenean". In: *Antonio Zavalaren ohoretan.* Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2000.

ZAVALA, A.: "Pello Errotaren liburuaz zerbait. Asteasun, 1994ko maiatzaren 24an irakurritako idazlana". In: ZAVALA, A.: *Auspoaren auspoa II (itzaldiak/Conferencias).* Oiartzun: Sendoa, 1996. 176.-185.or.

ZAVALA, Antonio: "La guerra napoleónica de España y los bersolaris". In: *Congreso de literatura (Hacia la literatura vasca).* II. Euskal Mundu Biltzarra / II Congreso Mundial Vasco. Eusko Jaurlaritza. Madrid: Editorial Castalia, 1989. 439.-459. or. *Auspoaren Auspoa II.* alean ere argitaratua.

ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo.* Zarautz: Auñamendi, 1964.

ZULAIKA, Joseba: *Bertsolaritzaz bi saio.* Andoain: Bertsolari Liburuak, 2003.

# 3.Erabilitako baliabide elektronikoak. Erakunde-dokumentazio zentroak

Asociación Historia Contemporánea: www.ahistcon.org

Deustuko unibertsitateko liburutegia: www.biblioteca.deusto.es

Euskaltzaindia: www.euskaltzaindia.net

Eusko Ikaskuntza: www.eusko-ikaskuntza.org

Inguma datu-basea: www.inguma.eus

Koldo Mitxelena liburutegia: www.kmliburutegia.net

Sancho el Sabio fundazioa: www.fsancho-sabio.es

Xenpelar Dokumentazio zentroa: www.bertsozale.eus/eu/xenpelar

# 4.Elkarrizketak

Eskerrak eman nahi dizkiegu doktorego tesi hau dela eta eurekin hitz egiteko tartea eskaini zigutenei. Mila esker luzatutako laguntzagatik!

Achon, Jose Angel

Arrieta, Bertol

Buenetxea, Esther

Egaña, Andoni

Esnal, Pello

Etxebarria, Manu

Garmendia, Francisco

Juaristi, Patxi

Kaltzakorta, Javier

Larrañaga, Carmen

Lekuona, Juan Mari

Lopez Landetxe, Frantzis

Marin, Jose Antonio

Mujika Iraola, Inazio

Perez Gaztelu, Elixabete

Sarasua, Jon

Tapia, Koldo

Urkizu, Patri

Zavala, Antonio

# ERANSKINAK

# 1. ERANSKINA: Bertso sailen koadroa bertsolarika. Kopuruak.

| | Pasadizo-bertsoak Biografiari lotuak Sailak | Or. | Or. kop. | Jarritako Bertsoak Sailak | Or. | Or. kop. | Or. Guzt. | Bts. Sail guzt | Besterik |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Pello Errota 1840-1919 | 39-Mikaela 25-Erriaren ahotik | 17-102 223-290 | 152 | 23 | 103-219 | 116 | 268 | 87 | -Aparte, Pello Errotaren senide eta ondorengoak (291-444.or) |
| Xenpelar 1835-1869 | 11 | 55-100 | 45 | 36 | 103-340 | 237 | 282 | 47 | -Bizitza, prosaz kontatua (13-51. or), Zavalak.<br>-Xenpelarren inguruko 11 bertsolari (341-600.or) |
| Bilintx 1831-1876 | 24 | 13-128 | 115 | 38 | 133-386 | 253 | 368 | 62 | -Lau lan prosaz (387-404)<br>-Bilintxi eskainitako bertso sailak (405-443. or) |
| P.M.Otaño 1857-1910 | 35 | 149-336 | 187 | Donostia-31 Argentina-43 | 337-492 9-198 | 155 189 | 531 | 109 | -Bi opera: Artzai mutilla (1900. urtean, 205-245. or); eta Lora (1907. urtean, 275-323. or).<br>-Aurreko hiru ahaide bertsolari eta beren lanak ere jaso. |
| Txirrita 1860-1936 | 85 | 20-252 | 232 | 91 | 256-502 | 246 | 478 | 176 | |
| Lopetegi 1875-1942 | | | | 65 | 57-272 | 215 | 215 | 65 | -Liburuak sarrera du. |

Guztira, 546 bertso sail, 2.142 orrialde.

**Iturria:** A. Zavalaren Auspoaren Sail Nagusiko argitalpenak eta, Lopetegiren kasuan, Paper Hotsak argitaletxeak argitaratutako lana. Lan honetarako propio guk osatutako taula.

# 2. ERANSKINA: Bertsolariak-Testuingurua- Kronograma

| | 1830 | 1840 | 1850 | 1860 | 1870 | 1880 | 1890 | 1900 | 1910 | 1920 | 1930 | 1940 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BILINTX | 1831 | | | | 1876 | | | | | | | |
| XENPELAR | 1835 | | | 1869 | | | | | | | | |
| PELLO ERROTA | | 1840 | | | | | | | 1919 | | | |
| OTAÑO | | | 1857 | | | | | | 1910 | | | |
| TXIRRITA | | | | 1860 | | | | | | | 1936 | |
| LOPETEGI | | | | | 1875 | | | | | | | 1942 |
| GERRAK | 33-39 I.karlist | | | | 72-76 II.karlist | | 1898 K,PR,F | 1909 Marr. | | | 36-39 Zibila | |
| DEMOGRAFIA-GIP | | 44-109m | 57-154m | 60-162 | | | | 00-195 | | DentsH | | |
| ALFABETIZ.GIZON | | | | 60-%33 | | | | 00-%59 | | 20-%79 | 30-%89 | |
| ALFABETIZ.EMAK. | | | | 60-%18 | | | | 00-%50 | | 20-%73 | 30-%85 | |
| ADUANAK | | 41-kosta | | | | | | | | | | |
| PAPERA | | 42Tolosa | | | | | | Krisia | | | | |
| OIHALGINTZA | | 45Errent 46Brunet | | | 73kotoia | | | | | | | |
| SIDERURGIA | | | Errenteri Zestoa | Beasain Arrasate | Elgoibar | | | | | | | |
| ARMAGINTZA | | Soraluze Tolosa Arrasate | Eibarren biltzen | | | | Eibar | Eibar | Eibar | Orbea Josteko Bizikletak | | |
| BANKA | | | | 1864-SS | | 87-SS kasino | | | | | | |
| TRENA | | | 1858 | 1864 | | | | | | | | |
| ESPAINIA-POLITIK | 33-43 MªCrist. Espartero | 43- Is.II Narv-M | Is-II 54-56-P 56-58-M | 68 Iraultza | 70-73 Am.S. 73-74Errep. 74-A-XII Canovas Sagasta 1879-PSOE | -85A-XII 85-02 MªCrist Austria | 1895 EAJ | 03-31 A-XIII | 1911 ELA | 23-30 Dikt. Primo Rivera | 31 II-Errep. | |
| ERLIJIOA | | | | 62-Gast. 69-k askat | | 86 Arantz.Ama koroatu | | | | | | |

| | 1830 | 1840 | 1850 | 1860 | 1870 | 1880 | 1890 | 1900 | 1910 | 1920 | 1930 | 1940 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BILINTX | 1831 | | | | 1876 | | | | | | | |
| XENPELAR | 1835 | | | 1869 | | | | | | | | |
| PELLO ERROTA | | 1840 | | | | | | | 1919 | | | |
| OTAÑO | | | 1857 | | | | | | 1910 | | | |
| TXIRRITA | | | | 1860 | | | | | | | 1936 | |
| LOPETEGI | | | | | 1875 | | | | | | | 1942 |
| HIRIBURUA | | 44-Tolosa | 54-Donostia | 63-SS harresia bota | | 85-M.Cr. erregina SS | | | 14-I.M.G. Jendea-SS | | | |
| BERTSOLARITZA | | | | | | | | | 18-Lekuona Metr.vca. | | 30-Poes Pop. Vasca. | |
| KULTUR ERAKUNDEEN SORRERA | | | | | | | | | 18-Eusko Ikaskuntza 18-19 Euskaltzaindia | | | |

Iturria: ikerketa lan honetarako propio osatua.

# 3. ERANSKINA: bertsolarien argazki-irudiak

1.irudia 2.irudia 3.irudia












/

4. irudia 5. Irudia 6.irudia

1.Irudia: Txirrita (1860-1936). Iturria: ZAVALA, A.: *Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860-1936). Bizitza ta bertsoak.* Tolosa: Auspoa, 1992. 7. or.

2.Irudia: Pello Errota (1840-1919). Iturria: ZAVALA, A.*: Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919).* Tolosa: Auspoa, 1992. 7. or. Eibarko Indalezio Ojangurenen argazkia, 1916an ateratakoa.

3.Irudia: Bilintx (1831-1876). Iturria: ZAVALA, A.: *Bilintx. Bertsoak eta bizitza.* Oiartzun: Sendoa, 1993. 48. orrialdea. Lopez Alenen marrazkia.

4.Irudia: Xenpelar (1835-1869). Iturria: Antonio Valverde, "Ayalde"k 1969an egindako kuadroa. PEREZ GAZTELU, Elixabete: *Juan Frantzisko Petriarena Xenpelar 1835-1869.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzkao Argitalpen zerbitzua, 2010. 1. orrialdea.

5.Irudia: Lopetegi (1875-1942). Iturria: ELOSEGI, Joxan (ed.): *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun, 1875-Arrueta, 1942).* Soraluze: Paper Hotsak, 2004. 5. orrialdea.

6.Irudia: Otaño (1857-1910). Iturria: ZAVALA, A.: *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua. II. alea.* Oiartzun: Sendoa, 1993. 7. orrialdea.

# 4. ERANSKINA: Hiritartze prozesua Gipuzkoan, 1877-1930

| 1857 | | 1877 | | 1900 | | 1930 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Donostia | 15.911 | Donostia | 21.355 | Donostia | 37.812 | Donostia | 78.432 |
| Tolosa | 7.639 | Tolosa | 7.488 | Irun | 9.912 | Irun | 17.670 |
| Bergara | 6.307 | Irun | 7.040 | Tolosa | 8.111 | Eibar | 12.874 |
| Azpeitia | 6.202 | Azpeitia | 6.386 | Eibar | 6.583 | Tolosa | 12.487 |
| Oñati | 5.617 | Oñati | 6.093 | Bergara | 6.196 | Bergara | 9.307 |
| Irun | 5.307 | Bergara | 6.021 | Azpeitia | 6.066 | Errenteria | 8.973 |
| | | | | Oñati | 5.975 | Azpeitia | 7.848 |
| | | | | Azkoitia | 5.506 | Arrasate | 7.720 |
| | | | | | | Azkoitia | 7.577 |
| | | | | | | Pasaia | 7.519 |
| | | | | | | Oñati | 6.662 |
| | | | | | | Hernani | 6.282 |
| | | | | | | Hondarribia | 6.181 |
| | | | | | | Altza | 5.425 |
| | | | | | | Beasain | 5.260 |
| | | | | | | Elgoibar | 5.239 |

Iturria: Jose Urrutikoetxea doktorego tesi honen zuzendariak erroldetan oinarrituz emandako datuak

5.000 biztanletatik gorako nukleoak ageri dira taulan, “hiritar” edo “urbano”tzat hartzen direnak.

# 5. ERANSKINA: Alfabetizazioaren garapena Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, 1877-1930 (> edo = 10 urte)

| Errolda Urtea | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EAE | ESPAINIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1877 | 56,4 | 45,6 | 35,8 | 45,6 | 30,0 |
| 1887 | 66,0 | 51,7 | 43,5 | 51,0 | 40,0 |
| 1900 | 73,7 | 62,4 | 53,7 | 61,2 | 47,0 |
| 1910 | 75,1 | 71,0 | 64,4 | 70,0 | 50,0 |
| 1920 | 83,5 | 79,4 | 75,4 | 79,0 | 56,0 |
| 1930 | 89,2 | 86,0 | 86,2 | 86,0 | 68,0 |

Iturria: Jose Urrutikoetxea doktorego tesi honen zuzendariak erroldetan oinarrituz emandako datuak